

- IKER 21  
*Jean Haritschelbar-i omenaldia / Homenaje a Jean Haritschelbar / Hommage à Jean Haritschelbar.* Batzuk. 2008.
- IKER 22  
*Intelektuala Nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra.* Jurgi Kintana Goirienea. 2008.
- IKER 23  
*Juan Mari Lekuona-ri omenaldia / Homenaje a Juan Mari Lekuona / Hommage à Juan Mari Lekuona.* Batzuk. 2009.
- IKER 24  
*Agirre Asteasukoaren Eracusaldia. Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan.* Arantza Ozaeta Elorza. 2010.
- IKER 25  
*Elgoibarko abozko euskara.* Jesus Mari Makazaga Eizagirre. 2010.
- IKER 26  
*Pirinioetako hizkuntzak: lehen eta oraina.* A. Sagarna; J. Lakarra eta P. Salaberri (argk.). 2011.
- IKER 27  
*Onomastique du Nord du Pays Basque (XIe-XVe siècles).* Eugène Goyheneche. 2012.
- IKER 28  
*Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan.* Aiora Jaka Irizar. 2012.
- IKER 29  
*Koldo Mitxelenaen zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak.* Agurtzane Azpeitia Eizagirre. 2012.
- IKER 30  
*Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian.* Eneko Bidegain. 2013.
- IKER 31  
*Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942.* Natalia Mikhailovna Zaïka. 2014.
- IKER 32  
*Gorbeia inguruko etno-ipuñ eta esaundak II.* Juan Manuel Etxebarria Ayesta. 2016.
- IKER 33  
*Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982.* Isabelle Echeverria. 2016.
- IKER 34  
*La politique linguistique de la Révolution Française et la langue basque.* Egoitz Urrutikoetxea. 2018.
- IKER 35  
*Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954).* Anton Ugarte. 2018.
- IKER 36  
*Le Dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak, «othoi çato etçhera».* Xabier Elozegi. 2018.
- IKER 37  
*Eñaut Etxamendiren obra narratiboa (1964-2011): burbilpen kritikoa.* Itziar Madina Elgueabal. 2019.
- IKER 38  
*Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak 1975-2015.* Miren Ibarluzea Santisteban. 2020.
- IKER 39  
*Euskal onomastika aplikatua XXI. mendean.* Roberto González de Viñaspre (arg.). 2020.
- IKER 40  
*Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018).* Andres Urrutia (arg.). 2021.
- IKER 41  
*Aniztasuna: bizkeren berba-mintzoak. Euskaltzaindiaren II. Nazioarteko Dialektologia biltzarra.* Adolfo Arejita (arg.). 2021.
- IKER 42  
I. Liburukia: *Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807. Edizioa.* 2021.  
II. Liburukia: *Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807. Hizkuntza azterketa.* 2021.  
Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan Jose Zubiri Luxanbio eta Iker Salaberri Izko.



Olaberria olaren hondakinak



Goitzarin olaren hondakinak



JOSE RAMON MINONDO GOIZUETARRAREN GUTUNAK. OLABERRIA (OIARTZUN), 1790-1807. EDIZIOA



# JOSE RAMON MINONDO GOIZUETARRAREN GUTUNAK. OLABERRIA (OIARTZUN). 1790-1807.

## EDIZIOA

Patxi Salaberri Zaratiegi  
Juan Jose Zubiri Luxanbio  
Iker Salaberri Izko

## Iker - 42

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernuak

ISBN 978-84-122988-6-4



iker  
42



PATXI SALABERRI ZARATIEGI (Uxue, 1959). Filologia Hispanikoan lizentziatu zen lehenik (UN, 1982) eta Euskal Filologian gero (EHU, 1986). Doktore tesia EHUan egin zuen, Eslaba aldeko toponimiaren eta euskararen inguruan. Beti euskara irakaslea izan da, Zaragozako Unibertsitateko Nafarroako Irakasle Eskolan lehenbizi (1984-1990) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ondoren (1990-2021). Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko zuzendari eta zuzendariordea izan da, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko idazkaria eta errektoreari atxikia hizkuntza plangintzarako. Hamahiru urtez Nafarroako Gobernuaren FLV aldizkariaren zuzendaria izan da, pare bat aldiz Nafarroako Euskararen Kontseiluko kidea eta luzaz Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Hizkuntza Plangintza Batzordeko kidea. NUPEko «Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiboa» katedraren zuzendaria ere izan da, bi urtez (2014-2016). Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1996an eta euskaltzain oso 2005ean, eta Onomastika Batzordeko burua izan zenosten urtez (2013-2017). Ikerketa gehiena onomastikaren gainean egin du, eta hein txikiagoan dialektologiaren (batez ere dialektologia historikoaren), testu zaharren eta hizkuntzaren historiaren gainean. Hogei liburu idatzi ditu, bakarka eta lankidetzan, eta hamar argitaratu. Bestalde, ehun artikulua, liburu atal eta txosten tekniko karrikaratu ditu, gehienak Euskal Herriko aldizkari eta liburuetan.



JUAN JOSE ZUBIRI LUXANBIO (Donostia, 1961) Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean (Donostiako EUTG-ESTE, 1984) eta doktore tesia Euskal Herriko Unibertsitatean egin zuen (1997), 0-3 urte arteko haurren ama-hizkuntzaren jabekuntzari buruz. Geroztik ikerketa-lerro hau bera lantzen jarraitu du, gaiaren inguruko hainbat proiektutan parte hartu eta zenbait artikulua argitaratu ditu. Ikerketa-lerro honetaz landa, dialektologia arloko datuak bildu, deskribatu eta jorratzen ere aritu da, bereziki Goizueta-Arano herrietakoak, eta honen fruitu dira, besteak beste, *Goizueta eta Aranoko hizkerak* (1998), *Biraoak. Nafarroan bilduak* (2007) eta *Goizuetako etxeen izenak* liburuak (2011). Urte luzez irakaskuntzan aritua da, lehenik Zaragozako Unibertsitateko Nafarroako Irakasle Eskolan (1984-1990), eta gero Nafarroako Unibertsitate Publikoan (1990-2021). Hemen Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko idazkaria (2002-2010) eta zuzendaria (2010-2018) izan da. Gaur egun, Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanordea eta «Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiboa» katedraren zuzendaria da. Bestalde, euskaltzain urgazlea da 2006az geroztik.



IKER SALABERRI IZKO (Iruñea, 1989). Ingeles Filologian lizentziatu zen 2012an eta Aleman Filologian graduatu 2017an, Euskal Herriko Unibertsitatean. Hizkuntzalaritzan doktorea, 2017an saxoiera zaharren sintaxiaren inguruko tesia defendatu zuen EHUan. 2018-2019an Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailean irakasle aritu ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak (2019-2021) Saileko kidea izan da, eta 2021etik Euskal Hizkuntza eta Komunikazio Sailean lan egin du. Hainbat artikulua argitaratu ditu Euskal Herriko eta atzerriko aldizkarietan, bereziki tipologia linguistikoaren, hizkuntza aldatetaren, morfosintaxiaren eta onomastikaren inguruan, euskarari zein munduko mintzaireri begira, besteak beste “Grammaticalization of nouns meaning ‘head’ into reflexive markers: a cross-linguistic study” (Natalia Evseevarekin batera, 2018) *Linguistic Typology*-n, “Variable D-marking on proper naming expressions: a typological study” *Folia Linguistica*-n (2020) eta “The word order of negation in the history of Basque: a linguistic and sociolinguistic approach” (2021) *Diachronica*-n. 2020tik *Association for Linguistic Typology* eta *Societas Linguistica Europaea* erakundeen batzorde exekutiboetan lan egiten du, eta 2019tik *Aziti Bihia* Hizkuntzalari eta Filologo Elkartearen kidea da.





PATXI SALABERRI ZARATIEGI  
JUAN JOSE ZUBIRI LUXANBIO  
IKER SALABERRI IZKO

JOSE RAMON MINONDO  
GOIZUETARRAREN GUTUNAK  
OLABERRIA (OIARTZUN)  
1790-1807

EDIZIOA

IKER 42

2021

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)



Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopianzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopia, erregistratua edo beste bitartekoa beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA).

#### **Kontrazaleko argazkien egileak**

Olaberria olaren hondakinak: Joxe Manuel Lekuona

Goitzarin olaren hondakinak: Xabier Taberna

© Euskaltzaindia / R.A.L.V. / A.L.B.

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

© Patxi Salaberri, Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri

ISBN (obra osoarena): 978-84-94122988-2-6

ISBN (Edizioarena): 978-84-122988-6-4

Lege-gordailua: BI 01329-2021

Inprimatzea: IMPRESIÓN TECNIGRAF, S.L.L.

Pol. Erletxe, Pabellón C1 nº. 25 – 48960 GALDAKAO (Bizkaia)

## ESKERTZEAK

Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu liburuki hauek ateratzeko laguntza eskaini diguten guztiei. Hasteko, Dabid Anaut euskara teknikariari gutunen berri emateagatik eta gugan jarri duen konfiantza guztiarengatik; M<sup>a</sup> Pilar Untxalori bere etxeko ateak ireki eta berak jaso zuen dokumentazio guztia ikusteko aukera emateagatik, aurkikuntza honekin berak hartu zuen ilusio eskerga transmititzeagatik eta euskaraz zeuden gutun guztiak gure esku uzteko izan duen konfiantzarengatik. Gure eskerrak, noski, Juan Loiarate “Paxkol”-i eta Rita Narbarteri beren etxean, Paskualuzenean, aurkitutako dokumentu guztiak beren borondaterik hoberenarekin M<sup>a</sup> Pilar Untxaloren eta udalaren esku uzteagatik; halaber, udalari ere lana guregan uzteko izan duen begiruneagatik.

Eskerrak ematen dizkiegu, baita ere, lanaren edukian sakontzen lagundu diguten kide guztiei. Lehenbizi, Xabier Tabernari Goizuetako, Artikutzako eta Oiartzungo hainbat leku-izenen berri jakinarazteagatik, baita Joxe Manuel Lekuona oiartzuarrari ere, gutunetan agertzen diren Oiartzungo toponimo eta baserri-izenen berri emateagatik. Bestalde, Felix Loiarteri ere esker bereziak eman nahi dizkiogu minondotarren —gutunak idazten zituen ola arduradunaren eta jasotzen zituen olajaunaren— genealogia eta ahaidetasuna aurkitzen eman digun laguntzagatik; elizako eta bestetako artxiboak miatu, kontuan hartu eta egindako iruzkin eta proposamenengatik. Azkenik, norbait eta bereziki eskertzekotan, Antton Mari Mitxelenari eman behar dizkiogu gure eskerrik beroenak, burdinolen gaian azaldu digun interesagatik, gai honetan duen ezagutza guztia —burdinolei buruzko hiztegi teknikoa, gutunak idatzitako garaiko ola eta olajaunei buruzko informazio guztia— gurekin partekatzeagatik; bere iruzkinak, elkarrizketak, utzitako materialak... dena, oso baliagarri izan zaigu lana alde-aldera ulertu eta doitzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiogu, orobat, Euskaltzaindiari, lana argitarazteagatik, batez ere Andres Urrutia eta Paskual Rekalde euskaltzainei, erakutsi duten interesagatik eta liburua zuzen ateratzeko egin dituzten

ahaleginengatik. Halaber, eta bukatzeko, gure esker ona adierazi nahi diogu Nafarroako Gobernuari, argitalpena bideratzeko eman duen dirulaguntzarengatik.

## AITZINSOLASA

Ez da arruntean gertatzen eta ez da espero izatekoa bederen, etxe zahar bat husteran joan eta halako aurkikuntza egitea kuarto itsu bateko kutxa batean. Horixe eta bera gertatu da Goizuetako Paskualuzenean. Zernahi liburu eta paper agertu dira eta horietako ez guti euskaraz eskribituak. Ez dakigu zehazki nork utzi zituen han, noiztik zeuden han, eta zertaz zeuden etxeko zuri-mentak estaliak, altxatuak, lo.

Berrehun urte baino gehiagoren ondotik argia ikusi dute etxeko jabeek argi eta zuhur jokatu dutelako, ez dituztelako sura bota edo zakarrontzi urdina eraman. Liburuaren izenburuak argi erraten digu kausitutakoa gutunak direla, XVIII. mendearen akabailaren eta XIX. mendearen hasmentaren inguruan eskribituak, nork eta goizuetar batek, Jose Ramon Minondok.

Eskuz eskribitu liburu eta paper horiek bezalakoak ez dira egunero agertzen gurean. Ez, alafede. Are gutiago erlijioaren eta literaturaren inguruko gaien gainekoak ez direnak. Hala, Minondorenek merkataritzarekin eta kontuekin dute zerikusia; salerosketa dute xede. Zer saldu edo erosiko ote zen garai horretan Goizueta inguruan? Norekin egiten ote zituzten tratuak? Zer langintza erakusten ote dute?

Erran dezadan aipatu garai horretako burdinoletoako diru-kontuez eta inguruko mintzo direla Minondok eskribitu 318 gutunak. Gutun horietan guzietan erakusten dira burdinoletoako gastuak, diru-sarrerak, eguneroko kontuak, garai hartako enkanteak edo “kandela jotzeak” nola egiten ziren, oletan izan ohi ziren matxurak, nork egiten zuen lan, zenbat pagatzen zitzairen, mearen salneurriak... Burdinola baten eguneroko bizia xeheki papereratua.

Nolanahi ere, gutun horietako solasak ez dira bakarrik kontuen ingurukoak. Erraterako, burdinola bat nolakoa zen erakusten digute, erran nahi baita oletako zatiak, lanean erabili tresnak, egindako piezak... Eta hori guti ez izaki, olen inguruko leku-izenak (oihanak, mendiak, errekek, bideak, baserriak...) ausarki dira, baita olajaun, itzain eta abarrenak ere. Eguneroko bizimoduaren erakusgarri fidel eta burdinolen arteko harreman sarearen lekuko.



Lan honen izenburuan erraten da Minondo goizuetarra zela. Horretaz gainera, Olaberria eta Oiartzun ere ageri dira hirugarren lerroan; Oiartzungo *Olaberria* ola da, ez Goizuetakoa, barneko orrialdeetan argituko den bezala. Horren arrazoia argia dateke: liburu hauetan landu diren gutunak *Olaberria* burdinolan eskribitu zituen Minondok, han ari baitzen lanean Artikutzako *Goitzarin* olako nagusi Juan Bautista Minondo goizuetarraren zerbitzuan.

Gatozen lan mardul eta jori honen bi aleen gaineko zertzelada zenbait ematera.

Lehen liburukiak “Edizioa” du azpi-izenburu. Gutunen edizioari ekin baino lehenago, egileek egoki ikusi dute minondotarrak nor ziren argitzea –eta zinez eskertzekoa da egun ez baita arraza horretako jenderik Goizuetan–, bereizi beharrekoak baitira Juan Bautista (Goitzarigo olajauna) eta Jose Ramon (gutunen idazlea). Zuhaitz genealogikoa ere prestatu dute, argi eta zehatz. Segidan, gutunen zertarakoaz, sistema grafikoaz, fonetika-fonologia gaiez eta transkripzioaz aritu dira luze bezain zabal.

Goitiago zertxobait mintzatu gara, orobat, gutun hauen helburuez eta testuinguruaz: Oiartzungo *Olaberria* burdinolaren kontuak Juan Bautista Minondo olajaunari errenditzea. Ez, ordea, gutunak zein hizkuntzatan dauden eskribituak. Denetarik dugu: osotara edo ia osotara euskarazkoak; zati guti batzuk ez bertze euskarazkoak direnak; erdizka-edo paratutakoak eta, hondarreko, euskarazko ele bakar batzuk dituztenak; gaztelaniazkoak ez dira lan honen xede gertatu. Testu-banaketa eta puntuazioaz ere aritu dira.

Era berean, transkripzioak, grafiaren eta fonologiaren arteko erlazioak eta Jose Ramonen eskribitzeko ohiturak garrantzitsuak dira lan honetan. Transkripzioaren xede behinena irakurketa erraztea izan da: *h* sartu da euskara batuan *h* ibiltzen denean, baina ez bokala errepikatu behar bazen (*beiti*, ez “beheiti”); gutunetako <y> *i* paratu da (*bayetz* > *baietz*); zenbait kasutako -q -k eman da (*andiriq* > *handirik*); ñ eta ll sabaikariak bere horretan utzi dira (*eguiñtaco* > *egiñtako*)...

Grafiaren eta fonologiaren arteko erlazioari dagokionez, azpimarratzekoa da egileak *n*, *l* eta *r* kontsonante ozenen ondoan sistematikoki *s* eta *z* txistukari igurzakariak eskribitzen dituela eta ez afrikatuak (egungo euskararen erdialdeko euskalkietan *s* eta *z* txistukariak *ts* eta *tz* afrikatuak izatera pasatzen dira). Joera hori argia da testu hauetan eta garai bertsuko bertze batzuetan ere.

Lehen liburukiari akabaila ematen diote gutunek (318, osotara). Egileek banan-banan transkribatu dituzte eta oin-oharren bidez xehe bezain zorrotz adierazi bakoitzean kausitutako berezitasunak, hala nola gutunaren formatua, letra-motak, burdinoletako hiztegia, hiztegi arrunta, leku, baserri zein pertsona izenak eta izengoitiak... Baita zein bertze lan edo artikulurekin duketen zerikusia ere. Halarik ere, ez dira jatorrizkoen kopia, zeren eta jatorrizko orriak (irudi formatuan) eta haien transkripzioak liburu hauei atxikitako USB batean bildu baitira.

Bigarren liburukia bertzelakoa da. “Hizkuntza azterketa” du azpi-izen-buru. Sei atal nagusi apailatu dituzte: izen morfologia, aditz morfologia, joskera, hitz hurrenkera, onomastika eta hiztegia.

Izen morfologiari dagokionez, azpimarratzekoak dira gutunen azterketak agerian utzi dituen gaiak, bertzeak bertze: erakusleen erabilera berezia (*hauek, hauei, hauen...* ez dira agertzen gutunetan, gaur egun ez bezala); izenordain arrunten, bihurkarien eta logoforikoen erabilera, zeina lagungarri baita hizkuntzaren aldaketa eta euskalkien banaketa hobeki azaltzeko; eta leku kasuen hondarkiak (*-atatik / -etatik; -atako / -etako*). Atzendu gabe, jakina, kasuz kasu egin azterketa xehea, adibide ausarkiz hornitua.

Aditz morfologiaren azterketa ere ez da xehetasunetan urri. Gutunetako aditz formen azterketatik 38 ezaugarri ondorioztatu dituzte egileek eta ezaugarri horiek adibideez hornitu, ez bakarrik gutunetan kausitutakoekin baita gai bera landu duten bertze egile eta lan batzuekin loturak egin ere. Ezaugarriez gainera, gutunetako aditzei ere lekua egin diete egileek aditz laguntzaileen eta aditz trinkoen tauletan.

Bertzalde, joskeran ere bada zer ikusi eta zer ikasi. Egileek perpaus motarik behinenak jaso dituzte –juntaturazkoak eta menderakuntzazkoak– eta haietan azpimarratu izan badirela, erraterako, buru izena aitzinatua duten erlatiboak (*soldadu hemen berorri eskatzen zion hura*) edo ikerketa sakonagoa beharko luketen *hasitzera orduko* egitura dutenak.

Laugarren atalean, berriz, hitz hurrenkera da aztergai nagusi. Minondoren gutunetan ibiltzen dena jomugan, hitz hurrenkera aztertu da hizkuntza tipologiaren argitan, euskarazko hitz hurrenkeraren bereizgarriak eman dira, eta izen eta aditz sintagmen osagaiak xeheki landu dira. Erraten ahal da, datuen argitan, gutunetako euskara gaurkoa baino gordetzailagoa dela eta ahozko hizkuntzan usaiakoak diren formak ere maiz erabiltzen dituela Minondok.

Azken-aitzineko atalean onomastika gaiak ageri zaizkigu: lehenik, antroponimia landu dute, hau da, pertsona-izenak, izen txikigarri edo hipokoristikoak, deiturak, izengoitiak eta herritarren izenak; bigarrenik, etxe eta baserri izenak, eta, hirugarrenik, leku-izen nagusien eta txikien berri eman dute. Alor honetan ere aberatsak dira Paskualuzenean kausitu gutunak.

Lana bururatzeko, gutunetako ehunka hitz bildu dituzte egileek. Erabilera orokorreko hitz arruntak, adiera bereziarekin erabilitako hitz arruntak... Eta, guzien gainera, burdinoletako bizimoduarekin lotutako hitz teknikoak, gaur den egunean gehienoi arrunt ezezagun zaizkigunak. Halako hitzen ondoan eman definizioek argitu bide dituzte zalantzak. Erran dezadan, aitzineko ataletan gertatu bezala, adibide andanaz hornitu dituztela hiztegiko sarrerak.

Aitzinsolas hau akitzeko, hitz bakan batzuk egileen gainean. Argi da: Iker, Juan Jose eta Patxi ez dira beha egon, ez dira kurri ibili, beha eta kurri

ibiliz ez baitira lanak aitzinatzen. Bistan da: karraskan ari izan dira, irakurle, ezin baita, bertzenaz, esku artean duzun alimaleko lan hau egoki eta taxuz egin. Halabiz!

*Paskual Rekalde Irigoien*

# AURKIBIDEA

Eskertzeak .....	V
Aitzinsolasa (Paskual Rekalde Irigoien) .....	VII

## JOSE RAMON MINONDO GOIZUETARRAREN GUTU- NAK. OLABERRIA (OIARTZUN). 1790-1807. EDIZIOA

<b>1. Minondotarrak Goizuetan .....</b>	<b>1</b>
Juan Bautista Minondo Iruburrun (Goitzaringo olajauna) ....	1
Jose Ramon Minondo Etxenike (gutunen idazlea) .....	7
Minondotarren zuhaitz genealogikoa .....	8
Koadroa .....	10
<b>2. Gutunen zertarakoa, sistema grafikoa, fonetika-fonologia     gaiak eta transkripzioa .....</b>	<b>13</b>
2.1. Eskutitzen helburua, testuingurua, testu banaketa eta pun- tuazioa .....	13
2.2. Gure transkripzioa, grafia-fonologia erlazioa eta Jose Ramonen idazteko ohiturak .....	18
2.2.1. Gure transkripzioa .....	18
2.2.2. Grafiaren eta fonologiaren arteko erlazioaz .....	20
2.2.3. Jose Ramon Minondoren idazteko ohiturak .....	22
2.2.3.1. Belarrak .....	22
2.2.3.2. Txistukariak .....	23
2.2.3.3. Sudurkari palatala .....	31
2.2.3.4. Alboko palatala .....	31
2.2.3.5. Igurzkari palatala .....	32

2.2.3.6. Herskari palatala .....	33
<b>3. Gutunen zerrenda, dataren arabera .....</b>	<b>35</b>
<b>4. Gutunak .....</b>	<b>41</b>

# 1. MINONDOTARRAK GOIZUETAN

*Minondo* abizena Iparraldetik etorria da Goizuetara, Baigorri aldetik hain zuzen ere, XVI. mendean; gero, laurehun urtez iraun ondoren, XIX. mendean lekutu zen Goizuetatik. Hedadurarik handiena XVIII. gizaldian hartu izan zen, bai zabalkundearen aldetik, bai boterearen aldetik ere. Garai hartako industriaren bultzatzaile izan ziren, oletan egiten zen burdinarekin han eta hemen, Bidasoaren bi aldeetan, salerosketan ibili baitziren.<sup>1</sup>

Bi minondotarren gorabeherak jakin nahi genituen, Juan Bautistarenak eta Jose Ramonenak, eta hauei buruzko zertzelada batzuk azalduko ditugu ondoren.


## JUAN BAUTISTA MINONDO IRIBURRUN (GOITZARINGO OLAJAUNA)

Aurkitu diren gutun guztiak Artikutzako *Goitzarin* olako ardura zuen Juan Bautista Minondori zuzenduak daude. Goizuetan jaio zen hemezortzigarren mendearen lehen erdian (1740-10-31), eta bertan hil zen hurrengo gizaldiaren hasieran (1810-08-16). Haren bizitzaz eta ondasunez ez gara asko arduratu, hori gure helburua ez delako, baina gutxienez bi-hiru zertzelada emanen ditugu.

Dokumentazio guztiaren eta paper zamoteen artean, familiaren ondasunaren jaraunspenaren kontuen nondik norakoa zehaztu nahiz ari ginela, Juan Bautistak berak idatzitako ondoko hau aurkitu genuen:

---

<sup>1</sup> *Minondo* Baztango deitura ere izan dela dirudi, Iruritan 1727an (Ondarra, 1984: 36) *Juan de Minondo* ageri baita. Aezkoan *Minondorena* etxea lekukotzen da Garraldan 1800. urtean (NEAN, 11372/1, 117), eta oikonimoa oraindik ere bizirik dago (*Minondóina*; Iñaki Caminok bildutako datua, a.a.). 1818. urtean etxe izengoititzat azaltzen da *Minondo* aipatu Aezkoako herrian: «*Joseph Antonio Larralde Bernatena [...] Miguel Fermín Barberena Minondo, Juan Lorenzo Sastrezuria Aroscoa y Manuel Antonio Barberena Enecho*» (NEAN, 11391, 114). Bi mende hurbil lehenago, 1633an, Orreagako egoiliarra zen *Juanes de Recalde y Minondo*, irudi duenez Iparraldeko herriren batekoa izanagatik, sortzez: «*Yo Juanes de Recalde y Minondo alias Juanes chipi residente en esta santa y real casa de nuestra señora de Ronces balles*» (NEAN, 11285, 58).



Oinordekotza norengandik norengana igaro zen argitzen du Juan Bautistak, aitona-amonen gurasoetatik hasi eta seme Frantzisko Joakin de Minondoraino.

**Aitona-amonen gurasoak.** Juan Bautistak egindako zuhaitz genealogikoan bere amonaren aita-amak agertzen dira: *Joanes de Huarte* eta *Maria de Erkasti*. Aitaren amatxi eta aitatxi, bestalde, *Juan Minondo Zabaleta* eta *Antonia Iribetia* ziren. Hauek gutxienez bi seme izan zituzten, bata *Frantzisko* (Juan Bautistaren aitona) eta bestea *Joanes* edo *Juan* (Jose Ramon gutun egilearen birraitona).

**Aitona-amonak.** Amaren aldetik *Elena Huarte Erkasti* eta aitaren aldetik *Frantzisko Minondo Iribetia* ziren. Ikus daitekeen bezala, hemen agertzen dira lehenbiziko aldiz minondotarrak familia honetan (Juan Bautistak egindako orri horretan). Esan dezagun *Minondo* deitura oraindik bizirik dagoela Baigorri-Garazi alderdi horretan, ez dela kasatu.

**Izeba-osabak.** Aitaren aldetik familia ugaria zuten, aita *Juan Martin* beraz aparte, beste zortzi senide bederen baziren: *Jose Antonio* (1681), *Juan Bautista* (1683/†1768), *Juan Pedro* (1685), *Josefa* (1687), *Mariana Frantziska* (1689), *Maria Frantziska* (1691), *Frantzisko Antonio* (1694), *Serafina Antonia* (1696) eta *Juan Martin*<sup>2</sup> bera (1698), Juan Bautistaren aita.

Goizuetako elizako artxiboan Juan Bautista osabaren datuak azaltzen dira. Berez, *Juan Bautista de Minondo y Huarte* agertzen da, «hijo de Francisco y Elena», 1683-03-02an jaioa (L-2, 231. or.binp.), eta 1768-04-28an hila (L-Lagunas, 238. or.)<sup>3</sup>. Ezkontzako agiria ere jaso da, eta badakigu 1739ko urrian ezkondu zela *Agustina Zubiri Urbieta*-rekin (L-Lagunas, 492. or.binp.), baina hilaren zein egunetan izan zen ez da ageri.

**Gurasoak.** Datu gutxi dauzkagu horien inguruan. Aita *Juan Martin Minondo Uharte* zen (1698-09-10 [L-2, 307. or.] / †1759-05-01 [L-7, 68. or.]), herriko *Mertxenea* etxean bizi izan zena, eta ama *Maria Josefa Iriburrun Uitz*i. Elizako artxiboan aurkitutako ezkontza agiriaren arabera, 1725eko urriaren 10ean ezkondu ziren (L-6, 60. or.binp.).

**Senideak.** Sei senide ziren: *Juan Bautista* bera, beste hiru anaia eta bi arreba. Anaia zaharrena *Jose Antonio* (1726 [L-3, 108. or.]), bigarrena *Fermin Antonio* (1729 [L-3, 199. or.binp. eta 200. or.] / †1759 [L-7, 79. or.]), ondoren *Joakina* (1731 [L-3, 143]), eta laugarrena *Frantzisko Antonio* (1734 / †1795), Goizuetako *Irisarri* etxearen jabea, denbora batez herriko alkatea izan zena (1777an behintzat bai<sup>4</sup>) eta Goizueta inguruko hainbat burdinola ere eramaten

<sup>2</sup> Elizako liburuetan *Juan Martinez de Minondo y Huarte* kausitu da hainbat alditan.

<sup>3</sup> Elizako artxiboko liburukiak zenbatuta daude (L-1, L-2...), baina *L-Lagunas* izenekoan, liburuki arruntetan bikarioei izkiriatzea ahazten zitzaien edo, beste arrazoiren batengatik, apuntatzen ez zituzten datuak eta agiriak biltzen dira.

<sup>4</sup> 1777an biztanleen kontaketa osoa egiten da soldadutzara joateko zozketan sartzeko; zerrendak etxez etxe eta baserriz baserri sailkatuta osatzen dira, eta ezintasunen batengatik joaterik ez zutenak nor ziren ere biltzen da. Hauekin batera, beste hainbat zerrenda ere agertzen dira. Hona dakarguna dokumentuaren hasiera da (hor agertzen baita Frantzisko Antonio alkate zela), zerrenda horietako baten zatia (alkatea bera agertzen baita, baina abizena beste era batera emanda).

«Alistamiento general de todos los vecinos avitantes y moradores de esta villa de Goizueta [...] que disponen los Srs. Fran[cis]co An[toni]o de Minondo Yriburrun [...] alcalde [...] de esta villa el presente año [...]

Lista de vecinos que gozan de exempcion del sorteo por Ydalguia. [...]

**Minondo Yrybarren, Francisco Antonio, por alcalde de esta villa y Ydalgo.**

Minondo, Fran[cis]co Ant[oni]o maior, por Ydalgo (ikus 498. oharra)

Minondo, Fran[cis]co Ygnacio de, por Ydalgo

Minondo, Joseph Antonio de, por Ydalgo

Minondo, Juan Antonio de, por Ydalgo

Minondo, Juan Bautista de, por Ydalgo

Minondo, Juan Fran[cis]co de, por Ydalgo

Minondo, Juan Joseph de, por Ydalgo

Minondo, Pascual Antonio de, por depositario ynterbentor y Ydalgo» (Perurena, 2017: 224-241; letra lodia gurea da).



zituen: gutxienez, Alduntzin, Ibero, Goizuetako Olaberria eta Zumarresta-Iturbietan (A. M. Mitxelena, 2020b: 305, 321, 324, 334). Elizako agiritan kausitu denez, badakigu bi aldiz ezkondu zela; lehenbizi *Katalina Narbarte*-rekin 1769an, eta geroago, alargun gelditu ondoren, *Maria Manuela Zubiri*-rekin, 1780an. Ondoren *Juan Bautista* bera heldu da (1740), eta, azkenik, *Josefa Antonia* arreba (1744).

Hona 1786ko erroldan nola heldu diren bere anaia Frantzisko Antonioren datuak (Perurena, 2017: 258):

Yrisarri: Francisco Antonio de Minondo ferron de 54 años y Cathalina de Narvarte su muger de 50 años, y en su compañía Don Juan Martin de Minondo presbitero sachristan de 27 años y Juaquin Ygnacio su hermano de 19 años, hijos del primer matrimonio de dicho Francisco Antonio y del segundo con dicha su muger actual Luisa de 16 años e Ygnacio de 9, y tienen por criadas y criados en casa y herrerías de su cargo [...].

Arreba *Joakina*-ren inguruko zeharkako datuak han-hemenka ere aurkitu dira. Esaterako, A. M. Mitxelena (2020b: 318) Goitzarini buruzko data eta dokumentuez ari dela, honako hau jasotzen du 1762ko agiri batean: «*Juan Bautista Minondo era hijo de Juan Martin de Minondo y M<sup>a</sup> Josepha de Iriburrun y hermano de Fermín Antonio, de Francisco Antonio, de Joaquina y de Josepha Antonia*». Perurenak (2017: 290), bestalde, 1825ean egindako erroldan *Joakina* delako hau ere *Paskualuzenea* etxean bizi zela dio.

**Emaztea eta seme-alabak.** Ezkontza agiririk ediren ez dugun arren, badakigu *Ana Josefa Ibero Urrutia*-rekin ezkondu zela (Eugin jaiotakoa zen, ustez), eta lau seme-alaba izan zituztela: *Maria Bernarda Frantziska* (1760), *Maria Bautista* (1760), *Fermin Jose* (1762) eta *Frantzisko Joakin* (1767); azken honek heredatuko zituen aitak utzitako ola kontuetako ondasunak.

**Juan Bautista Minondo Iriburrun.** Elizako agiritan «hijo de Juan Martinez y Maria Josepha» dela azaltzen da. Aitaren izena zenbait lekutan *Juan Martinez* ematen da, baina beste zenbaitetan *Juan Martin* huts-hutsa. Bere bigarren abizena ere agiri honetan *Iriburrun* jaso a egon arren, beste zenbait dokumentutan *Iribarren* agertzen zaigu (ikus, oin oharrean, soldadutzara joateko zozketan sartzeko, edo ez sartzeko, udaletxean egindako zerrenda). Goizuetan jaio zen 1740ko urriaren 31n (L-Lagunas, 41. or.binp.) eta bertan hil 1810eko abuztuaren 16an; honela dio agiriak (L-14, 98. or.): «Murió (viudo) el 16-08-1810, murió repentinamente, residia en la ferreria de Goizarin, de la que era acendador, no testo, tenia hecha donacion de sus bienes a favor de su hijo D. Francisco Joaquin de Minondo e Ibero, según testimonio de Miguel de Goyeneche, Escribano Real natural de Zubieta».

Bere izenaren ondoan «casa Pasqualacenea» ageri da, hau da, *Paskualuzenea* (*Paskóltzenè* egun ahoz) etxearen jabea zela adierazten da. Hain zuzen ere, etxe horretan, kutxa baten barrenean, maindire eta arropa batzuen azpian, aurkitu dira, hainbat liburu eta materialekin batean, berari zuzenduta-

ko gutun hauek denak. Etxearen jabetasun horren beste lekukotasunik ere bada; 1804an zerriak ezkurren mendira alhatzera eramateko baimena eskatu behar zen, eta etxez etxe zenbat zerri zituzten deklaratu behar zuten herritarrek (Perurena, 2010: 361 eta 2017: 281): «...manifiestan tener derecho a executoria- do a gozar del Pasto de Bellota con el número de ganado cerdío que cada uno tiene, no excediendo de seis [...] 92. Don **Juan Bautista de Minondo**, vecino, como *dueño de la casa de Pasqualucenea*, declara tiene seis ganados de cerda».

Dena dela, 1786ko uztailean argitaratutako dekretu batek herrian bizi diren biztanle guztien zerrenda egiteko agindua ematen du, eta herriko udalak, *Miguel Antonio de Goizuet*a alkatea buru zuela, azarorako osatu zuen errolda guztia, eta etxez etxe nor bizi zen adierazi. Zerrenda biltzen den dokumentu horretan, lehenbizi etxeak eta bizilagunak heldu dira, banaka-banaka zehaztuz zein bizi den etxe bakoitzean eta zenbat urte dituen. Eta gero Artikutzakoa agertzen da; Juan Bautista, orduko, Goitzarinen bizi zen (Perurena, 2017: 268-69):

*Goizarin*: en su herrería y su casa avitan **Juan Bautista de Minondo** ferron de ella de 48 años y **Ana Josepha de Ybero** su muger de 46 años, y sus hijos Francisco de 18 años, Francisca de 16, Antonia de 14, Ygnacio de 10, Juachina de 5, y Josepha de 2, y la hermana Josepha Antonia de Minondo soltera de 38 años [...]

Zerrenda horren arabera, garai hartan lehengusu propio zuen *Paskual Antonio de Minondo Zubiri* ere (osaba *Juan Bautistaren* semea, eta Juan Bautista bera baino 10 urte zaharragokoa) Artikutzan bertan bizi zen, *Olajaundinea* (lehenagotik *Ferronenea*) etxean, honek baitzeraman 1783an, besteak beste, *Artikutza* olako atzera-aurrera, martxa (A. M. Mitxelena, 2020b: 310). Maria Klara Zubietarekin ezkondu zen 1761eko urtarrilaren 12an (L-Lagunas, 237. or.) eta hauek izan zuten alabetako bat, Maria Urtsula Minondo Zubieta, Berako gizon aberatsenetako batekin (Santazilia eta Taberna, 2019: 820), Frantzisko Esteban Etxenike Mitxeorekin, ezkondu zen 1792ko irailaren 17an (L-6, 168. or.binp.).

Baina, jakina, lana zela medio, goiko agirian jasotzen den bezala, Artikutzako *Goizarin* olan bizi izan zen denbora luzez, Goitzarinen bertan bai baitziren etxe-bizitza, ola eta bi arragoa. Olak alokairuan hartzen zituen nagusietako bat izan zen; *Goizarin*-ez gain, berak zituen hartuak *Elama* eta *Arranbide* ere (A. M. Mitxelena, 2020b: 308, 316), baita, ziurrenik, Oiarzungo *Olaberria* ere, zeren ola horietatik errendatzen baitzizkioten kontuak: Oiarzungo Olaberrik Jose Ramon Minondok, Aranoko Arranbidetik Ignazio Bergarak, Artikutzako Elama olatik Juakin Esnauk eta beste hainbat olatatik ere jaso zituen gutunak. *Goizarin* eta *Elama* olen eta inguruko lurren jabea Orreagako kolegiata zen, eta honekin berriro behar zituzten kontratuak. Arestian aipatutako ola hauetatik denetatik ematen zioten kontuen berri gutunen bidez. Noski, olen arteko harreman sarea zabalagoa zen, eta inguruko olekin zuen harremanaz aparte, badakigu hartu-emanak bazituela Bidasoaz haranzko olekin ere (Donibane Lohizune, Ainhoa, Ziburu eta bestetakoekin), Goizuetan aurkitu diren paper zamoteetan

herri horietako oletatik euskaraz idatzitako eta Juan Bautistari zuzendutako gutunak azaldu direlako. Beste gutun bat ere agertu da Barbadillo de Herreros (Burgos) herritik igorritakoa, eta beste bat Larrainetik (Zuberoa) igorria.

Esan bezala, Goitzaringo eta Elamako olanagusi izateaz gain, lehen aipatu ez ditugun beste batzuk ere ibiltzen zituen; lehengusuarekin erdi bana zuen, esaterako, Larraineko ola, baina hura errentan uzten zuten. Hara nola ibiltzen ziren orduan ere zorrak kitatzeko garaian (Perurena, 2010: 181):

D. Juan Bautista y D. Juaquin Ygnacio de Minondo, éste heredero de su padre D. Francisco, vecinos de Goizueta, dicen que Rafael Larralde y Ana Ostiz, vecinos de Lesaca, en escritura de 24 de Octubre de 1789 ante Miguel Goieneche, escribano real, confesaron debían a dichos hermanos Minondo, por lo que alcanzaba la liquidación de las cuentas de arriendos en la herrería de Larraun en Francia, 1519 reales [...].

Oiartzungo *Olaberria* ola ere berak eramaten zuen. Hango diru kontu eta xehetasunen berri bidaltzen zion Jose Ramon Minondo kontu emaileak. Aurkitu diren gutunetako batean idazten du 1807an *Olaberria* Oiartzungo udalari uzten diola, eta administratzaile hernaniar bat izendatzen duela: «1807. Septiembre 30. Hice yo, Juan Bautista Minondo, la entrega de Olaberria Oiarzun al valle de ella y entró por arrendador A.<sup>5</sup> Joseph Bernardo de Galardi, vecino de Hernani» (1794.04.17\_1804.09.30eko gutuna; grafia gaurkotua).

Bere bizitzaz gehiago, deus gutxi dakigu. Ondasunak *Frantzisko Joakin Antonio* semeari utzi zizkion, ola kontuak bederen, eta Goizuetako *Paskualuzenea* etxea dela eta, alaba *Joakina* han bizi dela agertzen da, segur aski etxea hari utzi ziolako, 1825ean egiten den etxez etxeko kontaketan (Perurena, 2017: 290): «*Pascualucenea: Don Juan Jose de Loyarte 64, Doña Joaquina de Minondo 44, Trifon de Loyarte hijo 16, Benito de Loyarte 14, Eduarda 11, Sabas 9, Agapita 7, Jose Maria 5...*».

Goian aipatu bezala, 1810ean hil zen, alargunduta, Goitzarinen. Gero bere semea egiten zen olaren kargu 1810etik aitzina (A. M. Mitxelena, 2020b: 318): «*Muere Juan Bautista Minondo con deudas, y su hijo Francisco Joaquin pide a Roncesvalles seguir con el arrendamiento*».

Minondotarrak, beraz, olen lanbideari oso lotuak agertzen dira: Juan Bautistaren izeba-osabak, anaiak, lehengusuak, ilobak eta semea bera ere burdinolen munduari lotuta agertzen zaizkigu.

---

<sup>5</sup> Hau erdarazko *a* preposizioa ere izan daiteke.

## JOSE RAMON MINONDO ETXENIKE (GUTUNEN IDAZLEA)

Oiartzungo *Olaberria* burdinolaren (eta honekin batera inguruko beste olatxo batzuen) kontuak eramaten dituen eta hauen berri Juan Bautista Minondori, Artikutzako *Goitzarin* olako nagusiari, ematen diona dugu Jose Ramon.

Gutunik gehien-gehienak «*Nagusi Jauna*» hitzekin hasten dira. Batzuek data dakarte noiztik noiz arteko kontuak diren azaltzen dutela. Askotan gutuna idatzitako lekua (*Olaberria*), data eta izena agertzen dira. Gehienetan *Jose Ramon Minondo* edo *Jose Ramon de Minondo* sinatzen du; ponte izena zenbaitetan *Jph. Ramon* ere agertzen da. Eskutitzetan azken agurra egiteko, izenaren aurretik ia beti «su serv.<sup>or</sup>» ('su servidor') gaztelaniazko esamoldea erabiltzen du.

Goizuetan jaio (1763-03-28) eta bizi izana gutxienez 22 urte arte, *Kapelugorri* etxean gurasoekin (ikus gurasoei eskainitako ataltxoa). Ezkondu eta Oiartzuna joan zen bizitzera, han eginen baitzuen lan hainbat urtetan *Olaberria* olan (Artikutza aldera dagoen olan), hango kontuak eta gorabeherak eramanez. Jose Ramonen bizitzaren berri deus gutxi agertzen da gutunetan, baina batean, 1801.04.03koan, honela dio egileak: «*Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran*». Pentsatzekoa da urte horretan jaio izanen zela haurra, Jose Ramonek kontuak maiz samar errendatzen baitzizkion Juan Bautista olajaunari, baina jaiotze horren berririk ez dugu aurkitu.

Gero Oiartzundik Goizuetara itzuli ziren atzera bizitzera, zeren 1825ean egiten den lehenbiziko errolda ofizial orokorrean etxez etxe zein bizi diren agertzen da, eta honatx herriko plazako *Otxolo* etxean nor agertzen den bakoitzaren adinarekin: «*Ocholo: Jose Ramon Minondo 58, Maria Paula Huici 52, Maria Josefa Minondo 17, Antonio Minondo 12*» (Perurena, 2017: 294; letra lodia gurea da).

Bai Juan Bautistak eta bai Jose Ramonek *Minondo* abizen bera bazuten ere, elkarren arteko ahaidetasuna urrutikoa edo txikia da, haien arteko lotura aurkitzeko aitona-amonen eta birraitona-amonen garaira jo behar baita.

**Gurasoen aitona-amonak.** Aitaren aldetik *Joanes Minondo Irabeitia* (zenbait dokumentutan *Juan* eta *Juaniko* da) eta *Serafina Bergara* izan ziren. Lau seme-alaba izan zituzten: *Ana Frantziska* (1690), *Frantzisko Ignazio* (1694; hau zuen aitona Jose Ramonek), *Pedro Sebastian* (1697) eta *Juan Domingo* (1698; *Magdalena Josefa Uharte Uhalde*-rekin ezkondua). Esan bezala, *Joanes* honen anaia zen *Frantzisko*, Juan Bautista olajaunaren aitona.

**Aitona-amonak:** Betiere aitaren aldetik, *Frantzisko Ignazio* (1694) eta amona *Frantziska Altsua Deskarga* izan ziren. Gutxienez bi seme-alaba izan zituzten: bata, *Jose Antonio Minondo Altsua* (1737), Jose Ramonen aita, eta

bestea *Frantzisko Ignazio* (1743), *Antonia Uitzi*-rekin ezkondua, *Juan Jose* izenekoaren aita.

**Gurasoak:** Aita *Jose Antonio Minondo Altsua* (1737) eta ama *Maria Fermina Etxenike Lazkano* (1743) izan ziren. Biak 1763-01-02an ezkondu eta Goizuetan bertan bizi izan ziren herriko *Kapelugorri* etxean. Jose Antonio, ogibidez, garai hartan asko eta asko bezala, olagizona zen, eta inguruko burdinoletakoren batean eginen zuen lan. Goian esan bezala, 1786an etxex etxeko bizilagunak zein diren zehazten denean, honako agertzen da (Perurena, 2017: 248; letra lodia eta etzana gureak dira):

Capelugorri: *Joseph Antonio de Minondo* oficial de Herreria maior de 47 años y *Maria Fermina de Echenique* su muger de 42 años, y tienen por sus hijos a *Josepf Ramon* de 22 años, *Maria Josepha* de 19, *Josepha Ygnacia* de 12, y *Maria Bauptista Raphaela* de 9 años, y *Miguel Joseph Echenique* hermano de dicha Maria Fermina de 18 años, todos solteros.

**Senideak:** Jose Ramon (1763) beraz gain, goiko aipu honetan agertzen den bezala, beste hiru arreba ere baziren: *Maria Josefa* (1767-05-29), *Josefa Ignazia* (1774) eta *Maria Bautista Rafaela* (1777). Datuak xeheki begiraturaz eta goiko errolda horretan ematen diren adinekin alderaturaz, ikus daiteke bi urteren aldea badela elizako artxiboko datuen eta hor ageri direnen artean, ez datozela txoil bat; baina gutxi gorabeherako bat egiteko, bederen, balio dukete.

**Emaztea eta seme-alabak:** Jose Ramon, gutunen egilea, *Maria Paula Uitzi Arribillaga*-rekin ezkondu zen Goizuetan, 31 urte zituela, 1794-06-25ean. Lau alaba izan zituzten, Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoaren arabera, denak Oiartzunen jaiokak eta bataiatuak: *Maria Barbara Gregoria* (1799-12-29), *Juana Frantziska* (1802-12-28), *Maria Sebastiana* (1805-06-09) eta *Maria Josefa Estefania* (1806-11-09).

Goian aipatu dugu Oiartzundik Goizuetara itzuli zirela bizitzera, eta 1825eko erroldan *Otxolo* etxean *Maria Josefa* alaba gazteenaz gain *Antonio* semea ere agertzen dela. Seme hau, *Frantzisko Antonio Kornelio*, ez da San Esteban Elizako (Oiartzun) agirietan agertzen, baina bai Goizuetako 1825eko erroldan, eta badakigu ezkondu ere Goizuetan egin zela, *Juana Franziska Pia Altsua*-rekin, 1857ko abenduaren batean (L-13, 207. or.).

## MINONDOTARREN ZUHAITZ GENEALOGIKOA

Hasieratik arreta eman zigun olajaunaren abizena eta Olaberriko kontu-eramailearen abizena bera, *Minondo*, izateak, eta loturarik bazen edo ez arakatu nahi izan genuen. Alde horretatik, hainbat datu jaso dira, baina ez dugu

asko sakondu arlo honetan, gure aztergai nagusia ez delako. Ataltxo honek gaingiroki minondotarren zertzelada batzuk ematea beste helbururik ez du.

Minondotarren zuhaitz genealogikoa osatzeko garaian –eta haiei buruzko datuak bilatzeko garaian– hainbat iturri erabili dira, eta iturrietako datuetan, zenbaitetan, kontraesanak aurkitzen dira. Alde horretatik, datak eta datuak tentuz hartzekoak dira, erabateko ziurtasunik gabekoak, baina gutxienez ikuspuntu orokor bat edukitzeko balio dezakete.

Esaterako, Jose Ramon Minondo gutungilearen alabak Oiartzunen jaio ziren, baina ez da inon agertzen seme *Franzisko Antonio Kornelio*-ren jaiotze datarik. Aldiz, badakigu seme hau *Juana Frantziska Pia Altsua Maiora*-rekin ezkondu zela, Goizuetan, 1857-12-01ean (L-13, 207. or.). Jose Ramon beraren jaiotze datetan ere bada alderik; elizako datuetan 1763an sortu zela agertzen da, baina 1825ean etxez etxeko errolda egiten denean 58 urte dituela aipatzen da (lau urteren alde!).

Halaber, alde bateko datuen eta bestekoen artean bada desberdintasunik, esaterako, guk lortutako elizako artxiboen eta erroldako datuen artean. Juan Bautistaren seme-alabak elizako datuen arabera hiru dira: *Maria Bernarda Frantziska* (1760), *Fermin Jose* (1762) eta *Frantzisko Juakin Antonio* (1767). Baina gero, 1786an etxez etxeko errolda egiten denean (Perurena, 2017: 268-269), nor non bizi den eta zer adin duen zehazten da, eta zerrenda honetan Goitzarinen, senar-emazteez gainera, sei seme-alaba bizi direla agertzen da: *Frantzisko* (18 urtekoa), *Frantziska* (16 urtekoa), *Juana Antonia* (14 urtekoa), *Ignazio* (10 urtekoa), *Juakin* (5 urtekoa) eta *Josefa* (2 urtekoa). Ikus daitekeen bezala, urteetan ere nahiko gorabehera badago.

Bukatzeko, minondotarrak direla eta, aipatu behar da Nafarroa Behereko Baigorri aldetik (Nafarroa Beherea) etorriak diratekeela. Perurenak (2017: 408, oin oharra) Frantzisko Antonio Minondo –Goizuetako alkate 1777an– ari dela, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian jasotako agiri bat (244058 zk.) aipatzen du: «*descendiente de Juan de Minondo dueño de la casa Minondo en la parroquia de Irulegui de Baigorri*». Baina seguru asko *Frantzisko* (1681) hori gure Juan Bautistaren aitona izanen da, *Elena Uharte*-rekin ezkondu zena, eta *Juan*, berriz, (1660an *Antonia Irabeitia*-rekin ezkondua) haren aita. Bestalde, koadroan ikusten den bezala, aipatu berri den *Juan Minondo Zabaleta* honekin hasi dugu zuhaitz genealogikoa, baina horren lehenagoko datuak ere aurkitu dira: *Juan*-en aita *Juan Minondo Alzaga* zen, *Maria Martin Zabaleta*-rekin 1625-02-23an ezkondua (L-2, 325. or.binp.). Aitona-amonak *Juan Minondo Hualde*, eta *Magdalena Alzaga* ziren, birraitona Baigorri aldetik etorritako *Pedro Minondo Etxeberri*, eta birramona *Maria Uhalde*.

Laburtuz, ondoko koadroan agertzen diren datuek erakusten dute zernolako familia kidesasuna zuketan bi minondotarrek. Datuok Goizuetako elizako artxiboetatik eta *Euskadiko Artxibo Historiko* eta *Aintzinako* webguneetatik lortu dira (izenak gaurko grafian emanak daude).

MINONDO ZABALET  
Juan  
**IRABETTIA Antonia**  
Ezkondak  
1660-10-30ean (L-2, 354 or.  
binp.)

MINONDO IRABETTIA  
Joanes  
**BERGARA Serafina**  
Ezkondak 1688-09-10ean  
(L-2, 279 or. binp.)

MINONDO BERGARA  
Ana  
Frantziska (1690)

MINONDO BERGARA,  
Frantzisko Ignazio (1694)  
**ALTSUA DESKARGA  
Juana Frantziska**  
1736-10-28an ezkondak  
(L-Lagunas, 179 or.)

MINONDO UHARTE  
Juan  
Bautista (1683)  
**ZUBIRI Agustina**  
1739-10 erdi aldera  
ezkondak (L-Lagunas,  
432 or.)

**UNTXALO Gabriel**  
MINONDO UHARTE  
Magdalena Josefa (1687)  
1719-04-02an  
ezkondak (L-6, 20 or.)

MINONDO ALSUA Jose  
Antonio (1737)  
**ETXENIKE LAZKANO  
Maria Fermina (1743)**  
1763-01-20an  
ezkondak (L- 6, 72 or.)

MINONDO ALTSUA  
Frantzisko Ignazio  
(1743)

MINONDO ETXENIKE,  
Jose Ramon (1763-03-28)  
**UITZI ARRIBILLAGA  
Maria Paula**  
1794-06-25ean  
ezkondak (L-13, 4 or)

**ETXENIKE MAIORA  
Juan Bautista**  
MINONDO ETXENIKE  
Maria Josefa (1767)  
1794-02-25ean  
ezkondak (L-13, 2 or.)

MINONDO ETXENIKE  
Josefa Ignazia (1774)

MINONDO ETXENIKE  
Maria Bautista Rafaela  
(1777)

MINONDO UITZI Maria  
Barbara Gregoria (1779)

MINONDO UITZI Juana  
Frantziska (1802)

MINONDO UITZI Maria  
Sebastiana (1805)

MINONDO UITZI Maria  
Josefa Estefania (1806)

MINONDO UITZI  
Frantzisko Antonio  
Kornelio  
**ALTSUA MAIORA, Juana**  
Frantziska Pia  
1857-12-01ean  
ezkondak (L-13, 207 or.)

MINONDO IRABEITIA  
Frantzisko  
UHARTE Elena  
1681-05-18an  
ezkonduak (L-2, 312 or.)

LOIARTE Jose  
MINONDO UHARTE  
Mariana Frantziska  
(1691)  
1717-05-03an  
ezkonduak (L-6, 17 or.)

MINONDO UHARTE  
Frantzisko Antonio  
(1694)  
VILLANUEVA Manuela  
1722-05-20an  
ezkonduak (L-6, 23 or.)

1. HUIZI Juan Perez  
2. DESKARGA UNTXALO  
Jose  
MINONDO UHARTE  
Serafina Antonia (1696)  
1.- 1724-03-14  
ezkonduak (L-6, 27 or.)  
2.- 1759-06-11n  
ezkonduak (L-6, 68 or. binp.)

MINONDO UHARTE  
Juan Martin (1698)  
IRIBURRUN UITZI  
Maria Josefa  
1725-10-28an  
ezkonduak  
(L-6, 60 or. binp.)

MINONDO  
IRIBURRUN Jose Antonio  
(1726 [L-3, 108 or.]

MINONDO  
IRIBURRUN Fermin  
Ignazio(1729+1759)

MINONDO  
IRIBURRUN Joakina  
(1731 [L-3, 143 or.]

MINONDO  
IRIBURRUN Frantzisko  
Antonio (1734+1785)  
1.- ARRIBILLAGA  
DESKARGA Katalina  
1757-10-03 (L-6, 64 or.)  
2.- NARBARTE  
DESKARGA Katalina  
1769-10-11 (L-Lagunas,  
455 or.)

MINONDO  
IRIBURRUN Juan  
Bautista (1740+1810)  
IBERO URRUTIA Ana  
Josefa (1740)  
Ezkontzako daturik ez  
dago.

MINONDO  
IRIBURRUN  
Josefina Antonia  
(1744)

MINONDO IBERO  
Maria Bernarda Frantziska  
(1760)

MINONDO IBERO  
Fermin Jose (1762)

MINONDO IBERO  
Juana Antonia  
ELIZALDE OBIRIETA  
Juan Bautista  
1804-11-27an  
ezkonduak (L-13, 61 or.)

MINONDO IBERO  
Frantzisko Joakin  
Antonio (1767)  
1.- NARBARTE  
NOGERA Josefa  
(Zubietakoa)  
2.- IRIBARREN ARMASA  
Victoriana (Beintza-  
Labiengo)





## 2. GUTUNEN ZERTARAKOA, SISTEMA GRAFIKOA, FONETIKA-FONOLOGIA GAIAK ETA TRANS-KRIPZIOA

### 2.1. ESKUTITZEN HELBURUA, TESTUINGURUA, TESTU BANAKETA ETA PUNTUAZIOA

Jose Ramon Minondoren eskutitzak zeharo testu teknikoak dira, kontabilitatekoak, xede Oiartzungo *Olaberria* burdinolaren kontuak Artikutzako Goitzarinen bizi zen Juan Bautista Minondo olajaunari errendatzea dutenak. Literatura arruntetik edo bestelako gutunen estilotik (ikus, esaterako, Lamikiz, Padilla eta Videgainek argitara emandakoak) aski urrun daude orain karrikaritzen ditugun hauek, helburua Olaberria osatzen zuten ola handian, olatxoan eta ola etxean (*olaitxean, olatxean*) zenbat ogi jan ziren, zenbat litro olio eta ardo edan ziren, Donostiako sardinek, hango eta hemengo haragiak eta bestek zenbat balio zuten aditzera ematea zelako, espentsa edo gastua zenbaterainokoa zen eta zenbat sos gelditu zen sobran edo zegoen ordaintzeko izkribuz garbi uztea. Oletan ekoitzi pezek ere (kuadroek, plantxuelek, txabalek eta bestek) leku franko hartzen dute eskutitzetan, azken batean Jose Ramon testu hauetan burdinolen kontuak ematen ari delako.

Bestelako gertakariak ere badute toki gutunotan, adibidez itzaineekin zeuden arazoak azaltzen dira, hango eta hemengo beste olekiko harremanak, burdinoletan izan ziren matxurak, ola etxeko kontuak eta langileekilako goiti-beheitiak, besteak beste, denbora hartan ere denetarik baitzen, egun bezala: langile finak, alferrak, edanzaleak, zakarrak eta bestelakoak.

Jose Ramonek gehienetan erditik tolestutako orri bat erabiltzen zuen idazteko: eskuineko erdian hasten zen, ezker-eskuin, egun egiten dugun bezala, ia beti *Nagusi jauna* formularekin. Gero, hori bete eta, ezkerreko laurdenera igarotzen zen, hau da, aurkiko ezkerreko alderdira, baina orduan, arruntean, ez zuen ezker-eskuin idazten, goitik behera baizik. Gainera, bigarren puska honetako lehen lerroa maiz aipatu formula zegoen testuaren ondoan egoten da, baina, esan bezala, buruz beheiti idatzirik. Testua ixteko gehienetan *Su servidor Jose(ph) Ramon* sinatzen zuen. Ondoren, gutuna igortzeko, lakrearekin hesten eta zigilatzen zuen, eta binperrean helbidea idazten, *Goyzarin*, gutiz gehienetan hartzailearen izen-abizenak ageri diren *A don Juan Bau(p)tista de Minondo, que Dios muchos años [guarde]* formula laburtuaren ondotik. Ikus, esaterako, 1795.09.15eko gutun hau:

Nagri Jauna atze beaxaxaig bealdu  
 dizea Casza egun Amaigutan axtu du  
 toxaxan vezi omensuen quison axg,  
 ta yungo Maiana yelera bealdu duqu  
 atze txuchung Aguxtu ez denary ta  
 bigan epizean Antonio beaxalla bace  
 quin arico duqu axaxa axico, ta bete  
 arican Cox equin gaxtigabera =  
 Canuaco papoetan equinuten diezgo ta  
 bexe lagunag - - - - 363 cano  
 ta lepatoz bat quicag  
 Axan.<sup>co</sup> el Axarburug - - - 81 cano  
 y/axolaxa etoxxi diez langoag 326 cano  
 Axan.<sup>co</sup> el Axarburug - - - 100 cano  
 ta lepatoz bat quicaxa  
 18 cano quicag etoxxi diez alabexuxia

18 cano. J. H. Ramon  
 bidearen claxatada bealduen

Canuaco = Alabexuxia 15 de setiembre 1777

A. de Juan Baptista ephi  
 nenda que D. nro amo  
 Goyzaco

18 cano. J. H. Ramon

Letra larria edo xehea izateak ez du holako garrantzirik Jose Ramonendako, hautara egiten du anitzetan, eta hitzen arteko bereizketa ere ez da beti guk nahi genukeen bezain argia, zenbait aldiz batek ez baitaki bi eleak loturik dauden ala ez, hain baita haien arteko aldea murrizta. Gu holakoetan egungo usadioari jarraiki gatzazkio, eta orobat testua puntuatzeko tenorean, biziki puntuazio marka gutxi ibiltzen baitu gure egileak: batzuetan koma sartzen du, inoizka puntu eta koma, eta gure puntuaren ordeaz —eskuarki puntu eta bereizen ordeaz—

gehienetan guk matematiketan-eta erabiltzen dugun *berdin* (=) ikurra ematen du, edo bi koma (,,). Horretaz gainera, arrunt gauza gutxi daude: ez dago ez harridura edo galdera markarik, ez etenpunturik eta ez parentesi biribilik edo karraturik. Beraz, garbi dago puntuazio gehiena ezartzea gure esku egon dela, onerako eta txarrerako, testuek anitzetan interpretazio bat baino gehiago onartzen dutelako, eta koma edo puntua hemen paratu, han paratu, adiera osotara alda daitekeelako (honetaz ikus Garzia, 2014: 30).

Hortaz, puntuazio marka bakan batzuk besterik ez, baina, beste aldetik, zerrenda moduko enumerazio ugari daude, laburtzapenez eta zenbakiz beterikakoak, eta gainera, askotan, izenaren eta kopuruaren artean, edo kopuruaren eta honen prezioaren artean, puntu edo marratxo segida luzexkoa edo arras luzea egoten da, usu egungo baliabide informatikoen bidez adierazten zailak diren giltza frankorekin. Bestalde, dauden zati edo sailak elkarrengandik bereizteko ardura marrak daude, orrialdea ezker-eskuin guztiz hartzen dutenak edo hein batean baizik ez. Gu lan honetan gutunen egitura atxikitzen saiatu gara, baina maizko zail izan zaigu dena zegoen bezal-bezala egungo grafiarekin ematea, egileak ardura hitzak zatitzen dituelako —gu osorik ematera entseatu gara— eta laburtzapenak garatuz gero lerroei aldaketarik gabe eustea ezinezkoa delako, askotan. Beste batzuetan, aldiz, originaleko lerroak motzegiak dira, eta egokiago iruditu zaigu hartako bi edo hiru lerrotan agertzen dena gurean bakar batean ematea.

Laburtzapenak direla eta, erruz agertzen dira testuetan zehar, mota guztietakoak gainera. Hemen aurkezten diren transkripzioetan forma osoak eman dira beti, irakurketa erraztearren. Kontuak egiterakoan edo zerrendak aurkezterakoan, adibidez, neurri, pisu eta diruen izenak emateko gehien-gehienetan laburdurak erabiltzen dituzte, bai Jose Ramonek eta bai Juan Bautistak berak ere. Horrela, pisuak: *a.<sup>s</sup>/ar.<sup>s</sup> = arrobas*, *@ = arroba*, *az.<sup>s</sup>/azum.<sup>s</sup>/azumb.<sup>s</sup> = azumbres*, *carg.<sup>s</sup> = cargas*, *fan.<sup>s</sup> = fanegas*, *otsab.<sup>s</sup> = otsabebarrias* (zaku mota bat), *q.<sup>l</sup> = quintal*, *quin.<sup>s</sup>/qq.<sup>s</sup> = quintales*. Diru motak: *mar.<sup>s</sup>/mv.<sup>s</sup> = maravedís*, *pez.<sup>a</sup> = pezeta*, *pez.<sup>s</sup> = pezetas*, *q.<sup>s</sup>/qu.<sup>s</sup>/quart.<sup>s</sup> = cuartos*, *R.<sup>l</sup> = real*, *R.<sup>s</sup> = reales*, *v.<sup>n</sup> = vellón...*

Bestalde, zenbait herri, pertsona eta etxe izenekin ere agertzen dira laburdurak: *rent.<sup>a</sup> / Rent.<sup>a</sup> = Rentería*, *s.<sup>n</sup> sebastian / san seb.<sup>n</sup> = San Sebastián*, *Ant.<sup>o</sup> = Antonio*, *Fran.<sup>co</sup> = Franzisko*; *Jph. / Jphe. = Jose(p)*, *Josepe*; *Juaq.<sup>n</sup> = Juakin*, *beng.<sup>a</sup> = Bengoetxea*, *echeb.<sup>a</sup> = Etxeberria*, *yrig.<sup>n</sup> / Yrig.<sup>n</sup> = Irigoien*, *Min.<sup>do</sup> = Minondo*, *olab.<sup>a</sup> / Olab.<sup>a</sup> = Olaberria* eta abar.

Zenbait hilabeteren izenak ere modu laburtuan ematen dira ia beti: *Feb.<sup>ro</sup> = febrero*, *set.<sup>re</sup> / Set.<sup>re</sup> = setiembre* (baina olajaunak, Juan Bautistak alegia, beti *Sept.<sup>re</sup>* idazten du), *oct.<sup>re</sup> = octubre*, *Nov.<sup>re</sup> = noviembre*, *diz.<sup>re</sup> = diciembre*. Mota guztietako izen arruntak eta aditzak ere heldu dira laburturik emanak:

*carg.<sup>s</sup> =argas, carr.<sup>ro</sup> / carret.<sup>ro</sup> = carretero, comp.<sup>do</sup> = componiendo, Esp.<sup>sa</sup> = espensa (expensa ‘gastua’); Fi.<sup>s</sup> / Fier.<sup>s</sup> / Fierr.<sup>s</sup> = fierros ‘burdinak’; men.<sup>s</sup> = menas ‘meak’, pan.<sup>s</sup> = panes, sard.<sup>s</sup> = sardinas. Gutun gehienen bukaeran, agurtzeko formulatzat, *su serv.<sup>or</sup> Jose(ph) Ramon = su servidor José(ph) Ramón* erabiltzen du egileak, eta hona ekarri ez diren beste hainbat laburtzapen ere aurki daitezke.*

Hizkuntzari dagokionez, badira osotara edo ia osotara euskaraz idatzirik dauden eskutitzak, erabat gaztelaniaz daudenak —hauek ez ditugu hemen aintzat hartu—, gehiena euskaraz baina puska bat erdaraz erakusten dutenak, ia guzia erdaraz daukatenak baina bukaera aldean esaldi pare bat euskaraz dutenak eta, azkenik, erdia goiti-beheiti mintzaira batean eta beste erdia bestean dutenak. Originaletan izkirio aldaketarik egoten ez bada ere —olajaunak izkiriartzen duenean ez bada—, guk euskaraz idatzitakoa letra zuzenez eman dugu, eta gaztelaniaz dagoena etzanez, irakurlearendako hola gauzak argiago gelditzen direlakoan. Hau egitea teoriaraz erraza da, baina gero praktikan badira zenbait arazo, datak eta kopuruak emateko tenorean JRM ardura gaztelaniara igarotzen delako. Ikus pasarte hauek: «Geroztik, *marzo de 98*an pasatu zituen *1½ semana*, Juan Franzisko zena juanta, haren lekuan gero aprendizaz sartu baizen», «Honara etorri zen astelenean, *4 de agosto*an, ta gerozko denbora larunbat artea du», «Ola handikoak egin dute *desde 30 de noviembre* ezkereratik *225½ quintales*. Espensa *147½ pezetas*», «Martin de Telletxeak ditu *desde 26 de setiembre de 96 hasta 1 de julio de 97* bitartea [...]», «*1798 13 de setiembre*an gelditu zen harzeka: *28 pezetas*», «*13 de marzo*. Kargatu zen hemen itzaia ta *14 de marzo*an entregatuta kontuan pasatu zuten nik ez dakit, orga bat».

Izkirioa, bestalde, argia ohi da. Jose Ramonen idazteko moldea, letra, erraz ulertzen da, ez du gehienetan arazo handirik ematen, baina denboraren joanak eragin eta erasan die gutunei: batzuetan orri bazterrean paper puxkaren bat falta da eta hitza ezin da osorik irakurri; beste batzuetan zuloak daude testuan, tita txikiak, tanto handixkoak edo hein bateko eta besteko orban zabalagoak, gehienak hezetetasunak sortuak.

Gutunen luze-laburraz den bezainbatez, batzuk arras laburrak dira, beste batzuk bitartekoak eta zenbait arrunt luzeak. Gorago esan dugun moduan, orri bakarra hartzen dute gehienek, baina badira, berebat, liztarekin estekatutako gutunak, koadernotxo edo kaiertxoak osatzen dituztenak. Hauek ere, lizta ezin baita hautsi edo laxatu, irakurketa arazo batzuk sortu dizkigute, nahiz eta adiera, autoreak esan nahi duena, ia beti garbi egoten den.

Juan Bautista Minondok gutuna hartu eta gero, askotan, hainbat apunte eta ohar idazten zituen, eskuarki ifrentzuan, baina anitz aldiz aurkian ere, gutunaren aitzinaldean ere, badira hark izkiriartutako hitzak, lerroak edo bestelako apunte luzeagoak. Hauek, kasu pare batean ez beste guzietan,

erdaraz idatzirik daude, eta guk gehienetan ez ditugu transkribatu, baina hitzen bat interesgarri iruditu zaigunean oin ohar batean eman dugu. Ondoko irudian erakusten da adibide bat:

Nagusi Jauna Luis de Lecunaxin  
 Contra bealdun nuen desde 5 de Abril ha  
 ta Lin de Julio - - - 14<sup>o</sup> 99 } 20<sup>o</sup> 27  
 que sortig Caxxi da Mea o 6599 }  
 Axtidute boxxa bat 22 lib.

---

Luis eg Laguna quiddituta bacaxig Equin  
 du beze semearequin - 6 1/2 99  
 Lata 22 de Nov<sup>ra</sup> de 1803

---

Inveni<sup>o</sup> Jose Ramon de Minondo  
 No 20 5 1/2 99 del on don Comp de Luis y Paq de cide  
 13 Novl aita 22 Novl de 22<sup>o</sup> Gr 34 R 3 R 25  
 No 2 La Restra 8 de 9 de M. coraen Comite 09 - 7 R 30  
 Para erralidi. contra Annua 34 R 11 R 25  
 Una Bona 22 lib a 1 R 1/4 - 1 R 12 R 17 } 2 R 7 R 13  
 Una h<sup>o</sup> Polborax a - - - - - 8 R ..  
 met<sup>o</sup> mineralino - - - - - 1 R 30  
 1803 Novl 22 } 1804 Sep 12 No } 32 R 4 R 12  
 Comup Academo a medice a } 16 R 2 R 6  
 No 6 1/2 99 de solo Luis a 22<sup>o</sup> Gr - 10 R 3 R 25  
 1803 - Novl 25. Luis M<sup>o</sup> } Comite Cuente } 16 R 5 R 31  
 de Luis } ad Luis } 5 lib.

Bestalde, gutunetan ageri zaigun hizkera behar bezala aztertzeko eta ulertzeko, ezinbestekoa da egileak ibiltzen duen sistema grafikoaren azpian zer dagoen, zer soinu ezkututzen diren garbi izatea, beste gisan frankotan ondorio ustelak aterako ditugulako. Guk testuak transkribatzean, egungo grafian ezartzean, nola jokatu dugun azaldu nahi dugu, okerrik eta

nahasmendurik egon ez dadin. Hortaz, behar eta nahi horien ondorio dira hurrengo lerroak.

Izkiriaturen jakitea, egun hain gauza ohiko eta normala iruditzen zaiguna, ez zen horren arrunta orain berrehun eta gehiago urte, eta are gutxiago euskaraz idazteko gauza izatea, eskolatzeko aukera zutenek ere gaztelaniaz ikasten zutelako. Jose Ramon Minondo, harrigarriro, ongixko moldatzen da erdaraz arrotzak izanik euskaraz usaiakoak diren soinuak emateko tenorean, eta aski beti-batekoa da, salbuespen bakan zenbaitekin.

## 2.2. GURE TRANSKRIPZIOA, GRAFIA-FONOLOGIA ERLAZIOA ETA JOSE RAMONEN IDAZTEKO OHITURAK

### 2.2.1. Gure transkripzioa

Guk egindako transkripzioa dela eta, irakurketa errazteagatik, *h* sartu dugu euskara batuan *h* ibiltzen denean: *amaica* → *hamaika*, *amar* → *hamar*, *andico* → *handiko*, *arguin* → *hargin*, *artu* → *hartu*, *au* → *hau*, *ayenaq* → *haienak*, *bear* → *behar*, *berreun* → *berrehun*, *biaramunean* → *biharamunean*, *emen* → *hemen*, *gueiago* → *gehiago*, *nay* → *nahi*, *obeco* → *hobeko*, *oguey* → *hoge*, *oyetaraco* → *hoietarako*, *yllean* → *hillean*, *yruaq* → *hiruak*... Baina ez dugu sartu baldin bokala ere errepikatu behar bazen: *al*, *beiti*, *beko*, *lenago*, *nasten* idatzi dugu, ez *ahal*, *bebeko*, *bebeiti*, *lebenago*, *nahasten*, adibidez. Era berean, bokala ondoko kontsonantearekin bat eginik bazegoen ez dugu *h*-rik tartekatu: *bein* → *behin* bai, baina *beñere* hola-hola eman dugu.

Batzuetan grafema hutsa den *h* dugu gutunetan, eta bere hola utzi dugu batuan ere, egun era horretara idazten denean: *hasteco* → *hasteko* esaterako, baina ez orain ibiltzen ez bada: *haste batean* → *aste batean*, *herrenteriac* *holachocoaq* → *Errenteriako olatxokoak*, *horañdaño* → *orañdaño*, *hiaz* → *iaz*. Aintzat har bedi azken elea bitan agertzen dela gutunotan, eta bietan *h*-dugula (*hiaz* eta *hiazco*) irudi duenez hiatoa zegoela adierazteko, hau da, *i.az*, *i.az.ko* ebakitzen zirela irudikatzeke, eta gauza bera izan genezake *hielsuaq* ‘igeltsuak’ hitzean, hau da, JRMk *i.el.su.ak* ebakitzen zuela pentsa dezakegu. Berebat *hianzi* ‘Igantzi’ herri izenaren eta *hianziarrari* ‘igantziarrari’, *hianziarra* ‘igantziarra’ gentilizioaren kasuan: hemen *h*-ak *i.an.zi*, *i.an.zi.a.rra.ri*, *i.an.zi.a.rra* edo *i.an.zja.rra.ri*, *i.an.zja.rra* ahoskatzen zela adierazten bide du. Hirutan agertzen den *ia* ‘kasik’ elea *ya* izkiriaturia dago, hasieran *h*-rik ez duela alegia, baina aintzat har bedi egun Goizuetan [já]

ahoskatzen dela, bai ‘jada’ aditzera eman nahi denean, bai ‘kasik’ esan nahi denean, baita hondarreko hau errepikatua dagoenean ere ([já.já] ‘ia-ia’).

Ikusten den bezala, *ayenaq*, *nay*, *oguey*, *oyetaraco* eta antzekoetan <y> eskutizetakoa *i* idatzi dugu, eta orobat hurrengo hauek: *Anayea*, *ayey*, *bay*, *bayetz*, *beray*, *beyaren*, *Egur zaleay*, *gaya*, *Mandazayey*, *Olacoay*, *Sayatu*, *Sey*, *Ustayaq*, *ytzayaq*, *zaye*, *zayo*, *zayote*... Denak *i*-rekin idatzi ditugu, honela: *anaiea*, *haiei*, *bai*, *baietz*, *berai*, *behiaren*, *egurzaleai*, *gaia*, *mandazaiei*, *olakoai*, *saiatu*, *sei*, *ustaiak*, *itzaiak*, *zaie*, *zaio*, *zaiote*.

Jose Ramonek absolutibo pluralean, partitiboan, ergatiboan, ablatiboan eta motibatiboan ibiltzen duen -q guk -k bihurtu dugu, gaur egun letra hori erabiltzen delako: *andiriq* → *handirik*, *Aranzateti* → *Aranzatetik*, *Arq* → *hark*, *basoaq* → *basoak*, *bateq* → *batek*, *bearriq* → *beharrik*, *emanaq* → *emanak*, *Escrivoaq* → *eskriboak*, *gañeracoaq* → *gañerakoak*, *guciaq* → *guziak*, *guq* → *guk*, *Juaquinchoq* → *Juakintxok*, *Lurraq* → *lurrak*, *Ola gatiq* → *olagatik*, *oyetatiq* → *hoietatik*, *pello Esnauc* → *Pello Esnauk*, *Pierreseq* → *Pierresek*, *Sartuaq* → *sartuak*, *Yruñeti* → *Iruñetik*.

Bestalde, orain arteko etsenpluetan eta bestetan ikusten den bezala, *c* grafema *k* idatzi dugu, belar ahoskabea dugunean: *Acavatzen* → *akabatzen*, *escrivoaq* → *eskriboak*, *gañeracoaq* → *gañerakoak*, *Olacoay* → *olakoai*, *onaraco* → *honarako*, eta berdin egin dugu soinu bera irudikatzen duen hitz hasierako eta hitz barneko *qu*-rekin, *que*, *qui* dugunean: *Azqueneco* → *azkeneko*, *luque* → *luke*, *Merquesseago* → *merkexeago*, *Nequez* → *nekez*, *poliqui* → *poliki*, *quendu* → *kendu*, *quintalari* → *kintalari* eta abar.

Belar ahostunaz kestione, Jose Ramonen *gue*, *gui* gure transkripzioan *ge*, *gi* dira, egun ibiltzen den bezala: *Aguindu* → *agindu*, *berrogei* → *berrogei*, *eguiñ* → *egiñ*, *oguey* → *hoge*, *Yguele* → *igele* eta beste.

Sabaikariak (*ñ*, *ll*) originalean bezala utzi ditugu, nahiz batzuetan zaila egiten zaigun hola ebakitzen zela sinestea (*eguiñ dut* ‘egin dut’, *eguiñtaco* ‘egindako’ demagun; hauek *egiñ dut* eta *egiñtaco* idatzi ditugu). Dena dela, soinu palatalekin badira zenbait arazo, gaztelaniako sistema grafikoak euskarak dituen hots guztiak irudikatzeko biderik ematen ez zuelako eta ez duelako (ikus beherago dioguna). Beste palatala, erdaraz *ch* idazten dena, *tx* eman dugu: *chartel* → *txartel*, *Chichipichi* → *Txitxipitxi* (izeng.), *olacho* → *olatxo*, *urte chiqui* → *urretxiki* (dirua), *ychean* → *itxean*, etab.

Bestalde, hitz hasieran maiz azaltzen den *y*-, bokala bada, *i* izkiriatu dugu: *Yberocoay* → *Iberokoai*, *ycheo* → *itxeko*, *yduquitu* → *idukitu*, *yraulceco* → *iraulzeko*, *Yruñera* → *Iruñera*, *ytzuli* → *itzuli*... Bestelako kontuak dauzkagu igurzkarri belarrarekin lehian den kontsonante palatala dugunean; hemen gutunean zer letra aurkitu dugun, hura utzi dugu: *yaquin* → *yakin* baina *jaquiñiq* → *jakiñik*, konparaziorako. Gai honetaz ikus bedi behehixeko dioguna.



## 2.2.2. Grafiaren eta fonologiaren arteko erlazioaz

Orain arte eztabaidatu diren adibideek erakusten duten bezala, edozein testuren grafia aztertzeak egilearen ebakerari buruzko datuak ematen dizkigu eta, hartara, baita idazlearen garaiko mintzoaren sistema fonologikoari eta sistema horren barruan gertatzen diren prozesu fonologikoei buruzkoak ere. Minondoren soinuak idatziz emateko modua 2.3. azpiatalean hartuko dugu ahotan. Hemen, berriz, olajaunaren idazkerak erakusten duen prozesu fonologiko bati oihartuko gatzazkio, «*sandhi*» delakoari,<sup>1</sup> gertakari hau deskribatzea euskararen historia eta euskalkien banaketa ulertzeko esanguratsua baita.<sup>2</sup>

Fonologian bi *sandhi* mota bereizi ohi dira: kanpo *sandhia*, hau da, hitz desberdinetako soinuek elkarren ondoan agertzean izaten duten aldaketa, eta barne *sandhia*, alegia, hitz berean ohi dutena (Crystal, 2008: 422).<sup>3</sup> Gainera, *sandhiak* hainbat aldaketa hartzen ditu barnean, beste batzuen artean asimilazioa, hots, bi soinuk duten antzekotasuna handitzea, eta disimilazioa edo bi soinuren arteko antzekotasuna murriztea. Euskaraz *sandhiaren* hainbat adibide daude, eta hemen bat hartuko dugu ahotan: *s* eta *z* txistukariak hitz bereko ozen ondoan, bestela esan, *n*, *l* eta *r*-ren atzean, izaten duten bilakaera.

Egungo euskararen erdialdeko dialektoetan *s* eta *z* txistukariak hitz bereko ozenaren ondoren —baita aurreko hitzekoaren atzetik ere, arruntean— *ts* eta *tz* afrikatuak izatera pasatzen dira, hurrenez hurren (N'Diaye, 1970: 39, De Rijk, 2008: 16). Hortaz, esan daiteke gaurko euskalki horietan txistukarien disimilaziozko barne *sandhia* ohikoa dela. Alabaina,

---

<sup>1</sup> «*Sandhi*» berez indiar tradizioetik datorkigun adigaia da, eta jatorriz 'lotzea', 'batzea', 'bateratzea' esan nahi du (sanskrito klasikoan *saṃdhī* < *saṃ-* 'rekin (batera)' + *dhā* 'jarri', 'ezarri'; Monier-Williams, 1960 [1899]: 1144). Hitza bera antzinako indiar literaturaren klasikoetan dago lekukotuta, besteak beste *Mahābhārata* eta *Pañcatantra* lanetan. Antza denez, hizkuntza deskribatzeari begira lehenbiziko aldiz antzinako indiar gramatikariek erabili zuten, gure garaiaurreko V-IV. mendeetako Pāṇini ospetsuak adibidez, 'soinu batek, ondokoarekin elkartzean, jasaten duen aldaketa' zentzuan. Eleak esanahi hau gorde du gaur arte, eta hainbat hizkuntzaren fonologia deskribatzeko tenorean erabiltzen da, eta euskararen deskripzioan ere bai (Oñederra, 1990: 178; Txillardeggi, 1992: 52).

<sup>2</sup> Euskalkien historiaz eta banaketaz xehetasun gehiago izateko ikus Mitxelenaren (1981) eta Lakarraren (2014) lanak.

<sup>3</sup> Aipatu beharra dago, hori bai, euskalaritzan gehienetan ez dela *barne sandhi vs kanpo sandhi* bereizketarik egiten. Ikus, adibidez, Txillardeggi (1980, 1992), Oñederra (1990, 2004), Hualde (1991) eta Salaburu, Goenaga eta Sarasola (2013).

testu zaharrek iradokitzen dute euskara zaharragoan hori ez zela horrela: XVI. mendean Landuccic (A eskuak segurik) Araban, Leizarragak (sudurkari ondoan bakarrik) Lapurdin eta XVI-XVII.ean Zalgizek Zuberoan ozen ondoan (*n*, *l* eta *r*-ren atzean) igurzkaritxistukaria (*s* edo *z*; *ch*-rena alde batera utzirik) ibili zuten (ikus Agud eta Mitxelena, 1958: 21; Mitxelena, 1957: 135 [34. oin oharra] eta 1977: 290-291).

Egileak, gero ikusiko dugun moldean, Landucciren, Zalgizeren eta, neurri batean, Leizarragaren modu berean jokatzeko du, ozen ondoan igurzkaria, eta ez afrikatua, sistematikoki idazten baitu. Hau deigarria da, aski erdialdean den Goizuetan sortutako JRMk 1800 inguruan idatzi gutunez ari garelako. Eta garbi dago sasoi horretan hola egiten zela, Reguerok (2018 [2015]: 219, 220) herri bereko 1753ko predikua aztertzean adibide bakan batzuk (sei) aurkitu dituelako eta Jose Ramonen eskutitzetan jokamolde txoil sistematikoa delako, hainbeste non etsenpluak ehunka ekar bailitezke hona. Kontuan hartu behar da, halaber, Goizuetako 1825eko udal ordenantzetan ere (Satrustegi, 1996) joera bera ikusten dela; 1848koak, aldiz, laburrak dira eta grafiak ez du uzten gauzen ongi bereiztera (*ibid.*), baina *arcen* ‘hartzen’ badago, *señalacea* ‘seinalatzea’-rekin batean, hori bai. 1897koetan, azkenik, afrikatuen aldeko joera ikusten da, egungo erabilera funtsean, bikoiztasun franko izanagatik: *aguincen* / *aguintcen*; *dabillzan* / *dabiltzan(ari)*, *dabiltcen*; *ordenanza* / *ordenantcetan*, *salcea* / *saltcea*; *erorceco*, *galceco*, *jarceco* baina *biltceco*, *ebiltcea*, *indartceco*, *zortci* eta abar.

Minondok ozen ondoan afrikatuaren ordeztu igurzkaria sistemaz idazteko duen joera are deigarriago suertatzen da garai eta eremu bertuko testuei begiratuz gero; adibidez, Olaberriko arduradunaren gutunen ia adinkidea den Berako 1822ko testu administratiboan (Santazilia eta Taberna, 2019) egoera bestelakoa da. Zehazkiago esan, dardarkari ondoan gehienetan afrikatua azaltzen da (*bertce*, *zortci*, *ecartceco*, *sartcen*, *biartcen*; baina *berce*, *berceren*), eta sudurkari ondoan, berriz, noiz bai (*unentzat*, *mintzamoduba*, *aintciñian*), noiz ez (*onzat*, *diferenciya*, *atenciua*, *circunstanciayac*) (*ibid.*, 835). Aldiz, igurzkaritxistukaria (<s>), dirudienez, ez da afrikatzen (*pensamentu*, *consentimenturic*, *pensatcia*), maileguetan, baina *yaquintsu* dugu, bitan. Albokoaren ondoko txistukaririk ez da ageri testu horretan.

Laburbilduz, JRMren idazkerak iradokitzen du Goizuetako XVIII. mendearen akabailako eta XIX.aren hasmentako euskaran *s* eta *z* txistukari igurzkariak *n*, *l* eta *r* ozenen ondoan ez zutela, geroagoko mintzoan ez bezala, aldaketarik izaten, eta ozen ondoan igurzkarien aldeko neutralizazioa usaiakoa zela. Hortaz, testuinguru horretan ez dago igurzkarien eta afrikatuen arteko bereizketarik.

### 2.2.3. Jose Ramon Minondoren idazteko ohiturak

Orain euskararen soinuak Jose Ramonek izkribuz nola ematen dituen azalduko dugu, sailez sail. Hona hemen beraz:

#### 2.2.3.1. Belarrak

##### /k/

Egileak <c> ibiltzen du, ondoan *a*, *o* bokalak daudenean, hau da, *ka*, *ko* silabak direnean: *amaica*, *aranburucoa*q ‘Aranburukoak’, *braca* ‘praka’ (hauspo [larruaren] zatia), *carga*, *carreadorea*q ‘garraiatzaileak’, *contua*, *dacarte*, *eracarri* ‘erakarri’... Ondoan *u* bokala dagoenean ere *cu* erabiltzen du gaur egun *ku* idazten duguna adierazteko: *Arcuco* ‘arkuko’, *arrascuacoa*q ‘Arraskue etxeokoa’, *Articuzacotiq* ‘Artikuzakotik, Artikutzakotik’, *bi ogei ezcutuco* ‘bi hoge ezkutuko’ (dirua), *Cumplituriq* ‘kunpliturik, beterik’, *cupela*, *descuidoriq* ‘deskuidorik’, *ecusi*, *Emacume*, *eracutsi*, *Errencura* ‘kexua’, *Escuco* ‘eskuko’, *lecu*, *Lecuna* ‘Lekuna’ (deitura), *Masscurio* ‘Maxkurio’ (izeng.), *Pascual* ‘Paskual’ (izena), *pachicu* ‘Patxiku’ (izena), *preskura* ‘freskura’ (ikus hiztegia), *traculo* ‘Trakulo’ (izeng.), *zacu bat*, *Zitzaicun* ‘zitzaigun’ eta abar.

Ez beti, ordea, hiru hitzetan *qu* ere idazten baitu, hasmentako lekunean: *quadro* ‘kuadro’, *quadroenzat* ‘kuadroentzat’ (burdinazko peza bat da *kuadroa*), *quartoaq* ‘kuartoak’, *quartoan* ‘kuartoan’ (dirua), *quartillua* ‘kuartilua’, *quartilluan* ‘kuartiluan’ (dirua). Maiz errepikatzen diren hitzak dira, eta egilea oso sistematikoa da, baina ez guztiz, behin *Cuadroaq* ‘kuadroak’ duelako.


Gorago ikusi bezala, <q> hutsa ere erabiltzen du, hitz bukaeran (absolutibo pluralean, partitiboan, ergatiboan, ablatiboan eta motibatiboan): *berenaq*, *eramateagatiq*, *errenteriatiq*, *euririq*, *gueroq*, *lagunaq*, *obeaq*, *orieq*, *semeaq*, *uraq*... Bestalde, esan dugun moduan, <qu> dauka *ke*, *ki* silabak direnean: *Adaqui* ‘adaxka’, *amaiquetacoa* ‘hamaiketakoa’, *ebaquitceco*, *edequi* ‘edeki, kendu’, *Egurquetan* ‘egurketan, egur garraioan’, *martin oquerrari*, *obequi*, *urre chiqui* ‘urretxikia’ (dirua), etab. Ikus gorago aipatzen ditugun etsenpluak.

##### /g/ (herskaria) edo /ɣ/ (igurzkarria)

JRMk <g> erabiltzen du *ga*, *go*, *gu* silabetan: *berorregana*, *ditugu*, *gañera*, *governu*, *guq* ‘guk’, *lenago*, *pagatu*... Ordea, <gu> dauka *ge*, *gi* silabetan: *aragui*, *eguin guenuenecoa*, *gueiegui*, *guelditzen dira*, *guezurra*, *ygueleaq* ‘ijeleak’, *sagardotegui*an eta abar. Ikus gorago.

/x/ (gaztelaniazko jota)

<j> grafema erabiltzen du: *Alaco bentajaturiq* ‘halako [toki] onik’, *biaje*, *despojoaq*, *Jabeaq*, *Jaquiñen duela*, *Jauna*, *Jaya*, *Jendea*, *Jornalaq*, *Juanen da*, *pujariq* ‘lehiarik’, *san Juaneq*...

 *ez dela Consejuperaco* ez dela Consejuperaco ‘ez dela kontsejuperako’, ‘ez dela kontsejupera joanen’

Zenbait aldiz, ondareko hitza denean partikularki, <j> hori belarra ez, baizik palatala izan daitekeela uste dugu, hau seguru esatea zaila izan arren. Ikus sabaikariak aztertzean dioguna.

### 2.2.3.2. Txistukariak

/s/ (egun s idazten duguna)

<s>: *aste*, *esan*, *maisú cabia* (burdinolako peza), *nagusi*, *nosqui*, *sagar*, *sagardo*.

/ʃ/ (egun z idazten duguna)

<c>: *biciro* (izeng.), *diferencia*, *dotacioan*, *Errecivoa*, *goicean*, *guciaq*, *porcio*, *precioa*, *yrabaciaq*.

<z>: *eraman ez dezan*, *egunaz* ‘egunez’, *erretazo*, *ezcutuco bat* ‘ezkutuko bat’, *Lezo* (izeng.), *Ola guizonaq* ‘olagizonak’, *oriez gañera* ‘horiez gainera’, *pagarazi* ‘ordainarazi’, *tocatcen zaiona*, *uzteco*, *zacu*, *zarrari* ‘zaharrari’, *zaval*, *zazpi*, *zenbat*, *zerbait*, *zillarrean*, *ziri*.

<s>. Behin edo behin aurkitu dugu: *amar escutucotiq* ‘hamar ezkutukotik’. Hemen normalean *ezcutu* ohi dugu, baina beti *ustay* ‘uztaia’ dago, JRMk ele hau s-rekin ibiltzen zuelako.

/ʃ/ (egun x idazten duguna)

<s>: *Baltasar* (eta *Baltaisar*), *Casaras* (onimoa), *gueseago* (eta *gueiseago*, *guesseago*) ‘gehixeago’, *Santus*, *Santuseq* (eta *Ssantusen*), *san Juaneq*, *San Juanen* (eta *ssan Juan*, *Ssan Juani*).

<ss>. *Asseria* (izeng.), *assi* ‘haxi’ (ikus hiztegia), *Asstiarraga* (izeng.), *ausse* ‘hauxe’, *autsisse* ‘hautsixe’, *berriscoa* ‘berrixkoa’, *bissquiaq* ‘bixkiak’, *Casaras* (onimoa), *Chussen* ‘(t)xuxen’, *Eraringo yssidutiq* (top.) ‘Eraringo ixidutik’, *Ervesseagoa* ‘errebexeagoa’, *Erroizpeco yssidutik* (top.) ‘Erroizpeko ixidutik’, *frontosseago* ‘frontoxeago’, ‘lehenxeagoño’, *guerosseago* ‘geroxeago’, *guesseago* ‘gexeago’, ‘gehixeago’, *Josserena* ‘Joxerena’, *Lessoq* ‘Lexok’ (izeng.), *Massaleneq* ‘Maxalenek’ (izeng.), *Masscurio* ‘Maxkurio’ (izeng.), *Massterra* ‘maxterra’ (orgaren gurpileko peza bat), *massterraq* ‘maxterrak’, ‘maizterrak’,

*massucoa* ‘maxukoa’, ‘maisukoa’, *massura* ‘maxura’, ‘matxura’, *merquesseago* ‘merkexeago’, *nequessco* ‘nekexko’, *Mussudoq* ‘Muxudok’ (izeng.), *oyarzuar ssiliren oyeq* ‘oiartzuar Xiliren horiek’ (onimoa, ustez), *pussca bana* ‘puxka bana’, *pusscaca* ‘puxkaka’, *ssan Juan*, *Ssan Juani* (izeng.), *Ssantusen* (izeng.), *Ssarbide*, *Ssarbideq* (izeng.; erdaraz *Sarbide* ageri da, olajaunaren apunte batean, euskarazko *Ssarbide* ageri den lerro berean), *Ssardea*, *Ssardearen*, *Ssardeari* (izeng.), *Ssemea* (izeng.), *Ssilitarraq* (onimoa, irudiz), *yssilliq* ‘ixilik’, ‘isilik’.

assiaq ‘haxiak’

autsisse ‘hautsixe’

Errevesseagoa ‘errebexegoa’

Massura pusscarenbat ‘matxura puxkaren bat’

Ssarbide ‘Xarbide’

<is>: *andiscoenarequin* ‘handixkoenarekin’ (hemen [s] ere egon daiteke), *baltaisar de berrondo*, *Batista* (ez da segurua), *gueiseago* ‘gehixego’, *gaistotzat* ‘gaixtotzat’ (hemen [s] ere egon daiteke), *Maisucoaq* (eta *massucoa*), *piscaren gañera* ‘pixkaren gainera’... Behin baino gehiagotan azaltzen den *Baltasar de Berrondo*-n *Baltaxar de Berrondo* izanenez, artetan segurik, hurrengo lekukotasunean *baltaisar* irakurri behar bada:

<ś>: Zenbait aldiz *s*-ak gainean azentu grafikoa du, itxuraz soinu sabaiaurrekoa adierazteko: *Cašarašen* ‘Kaxaraxen’, *Mašalen* ‘Maxalen’, ‘Masalen baserrikoa’, *pušca* ‘puxka’ («*gastu pusca bat*»). Batzuetan, alabaina, *s*-aren gainean edo hari hurrean puntutxo bat ikusten bada ere, ez dakigu guztiz segur tileta denetz. Aldera bedi herskari palatal ahoskabea irudikatzeke egileak zenbaitetan ibiltzen duen <ṭ> grafemarekin (ikus beherago).


mašaleneq ‘Maxalenek’


pušca ‘puxka’

/tʃ/ (gaur *ts* izkiriitzen duguna)

<ts>: *arrats artea* ‘arrats arte(an)’, *arratsaldean*, *arratsaldeco*, *arratsean*, *arratseco* ‘arratserako’, *autsia*, *autsisse* ‘hautsixe’, *berantetsia*, *eracutsi*, *eratsi* ‘erantsi’, *etsi*, *jaitsi*, *otsaq* ‘hotsak’, *Modutsu onetan* ‘modutsu honetan’,

*otsabearria* ‘otsabeharria’ (zaku mota bat), *Otsaminteguico* (top.), *Otsandolacoa*, *Otsandolan* (top.); *otsoanecoaq* ‘Otsoanekoak’ (oik.), *Sayetsaq* ‘saihetsak’, *utsa* ‘hutsa’, *utseguin zuten* ‘huts egin zuten’, *ytsas metal*, *ytsasoan*.

 arratseco ‘arratserako’

 (Sebastian) deysasa ysatsecoa ‘(Sebastian) de Isasa Isatsekoa’

 Sebastian deysasa Carretero ysatsacoa ‘Sebastian de Isasa carretero Isatsakoa’

 Eracutsi ‘erakutsi’

 Modutsu ‘modutsu’

 otsandola ‘Otsandola’

<s>: *Macuso* ‘Makutso’ (oik.), *Ysasolaco* ‘Isatsolako’ (oik.). Erka bitez honako deizio hauek: «*Sebastian de ysasa Carretero ysatsacoa*», «*Sebastian de ysasa ysatsecoa*», «*Seb.<sup>n</sup> de ysasa ysasacoa*».

<ss>: *Macusso* ‘Makutso’ (oik.), *Ysassa* ‘Isatsa’ (oik.). Bi hauek, dena dela, olajaunaren apunteetan ageri dira, hots, Juan Bautista Minondo olajaunaren oharretan.


Irudi luke JRMk zenbait onimorekin (herri, auzo eta etxe izen batzuekin) joera daukala, segur aski dokumentazioan beti gaztelaniaz idatzirik ikusi zituelako, erdarazko s emateko, euskarazko afrikatua sartu beharrean, eta berdín gertatzen da z-rekin, anitzetan tz-ren orde z dagoela garbi ikusten baita, ozen ondoko lekunetik kanpo.

Batzuetan, ageri zaigun s-a soinu igurzkarria da, ez afrikatua, ozen ondoan (ikus tz digrafoaz dioguna, behehitxeago): *Arsu* (oik.), *consejuco* ‘herriko etxeko’, *espensan* ‘espentsan, gastuan’, *Esteban de ansari* ‘Esteban de Antsari’, *Folseroaq* ‘diruzainak’ eta *polsero* ‘diruzain’, *polseroari* ‘diruzainari’, *pretensioriq* ‘pretentsiorik, asmorik’, *salsa*, *salsan* ‘saltsan, egitekotan, arazotan’, *Unsañen larrañaren soñuan* ‘Unsain delakoaren larrainaren soinuan’, *zensoan* ‘zentsuan’ eta *Sensoaren* ‘zentsuaren’.

/tʃ/ (egun tz idazten duguna)

<tz>: *acavatzen ditu* ‘bukatzen ditu’, *aitzera* ‘ahitzera’, *Aquetza* ‘Aketza’ (izeng.), *Ardatza*, *arotzaq*, *arrotzaq*, *asitzeagatiq* ‘hasteagatik’, *atzera*, *atzo*, *bacoitzarena*, *bacoitzari* (eta *bacoizaq* ‘bakoitzak’), *batzueq*, *batzuequin*, *beretzat*, *botatzecotzat ere* ‘botatzekotan ere’, *catziq gabea* ‘gatzik gabea’,

*entregatutzat, entregatzea, erretzera, escatzen diola, etzi, etziñ daiteque* eta *Lo Etzinda* ‘lo etzin da’, ‘lo etzan da’, ‘lotara joan da’, *firmatzeco* ‘sinatzeko’, *gaitzena* ‘zailena’, *gaitziru* ‘gaitzeru’, *Macatzagaq* ‘Makatzagak’ (onimoa), *galdatzen dute* ‘galdetzen dute’, *garbitzen ari diran*, *gazitgatzeco*, *guelditzen dira*, *guretzat*, *meatzetiq*, *Olaitzola* (top.), *Olatzaga* (oik.), *pagatzeco*, *pagatzera*, *paratzecotz*, *topatzeagatiq*, *ycatza*, *ygo ditzacun* ‘igo ditzagun’, *yratzeaq* ‘iratzeak’, *ytzali*, *ytzayaq* ‘itzainak’, *ytzean* ‘hitzean’...

 anitzetan


 Aritzag Aritzag ‘haritzak’

 Fran.º Antonio de Macatzaga ‘Franzisko Antonio de Makatzaga’

 Fran.º Ant.º de Macatzaga ‘Franzisko Antonio de Makatzagak’


 Manuel Articutzacoari ‘Manuel Artikutzakoari’

 Olaitzolaco yabearena ‘Olaitzolaco jabearena’

 Olaitzolan

 Olatzagaq ‘Olatzagaq’

Herskari ahoskabe / ahostun aitzinean ere zenbaitetan <tz> dauka JRMk: *Auntzteguia* ‘ahunztegia’, *onontzcoa*q ‘honunzkoak’,<sup>4</sup> *ycatzguillea* ‘ikazkina’, *ycatzquetan* ‘ikazketan’, *yturriotzco*, *yturri otzcoa*q ‘Iturriozko, Iturriozkoak’ (oik.). Baina *Aunzteguia*, *ycatzquetan* ‘ikazketan’, *ycatzguilleaq* ‘ikazkileak, ikazkinak’, *yturri ozco* ‘Iturriozko’ ere baditugu.

 *yturri otzcoa*q ‘Iturriozkoak’

<sup>4</sup> Bai honen eta bai aurreko elearen formak bitxiak dira, sudurkari ondoan daudelako. Eskutitzetan *ononzean* ‘honatakoan’, ‘honanzkoan’ eta *ononzeco* (*meariq*) ‘honatako, honanzko (mearik)’ ere badauzkagu.

Hitz bukaeran ere azaltzen da: *Aguitz* ‘hagitz’, *Anitz* ‘asko’, *ardatz* ‘ardatza’, *bayetz* ‘baietz’, *burcaitz* ‘erroitza’, *ezetz* (behin, baina ezez bitan).



Aguitz ‘hagitz’

Hitzak elkartzen direnean ere (*bait-*, *ez* + *z*-dun adizkia) edireten dugu: *baitzen*, *ecarri baitzuten*, *etzaucaten* ‘ez zeukaten’, *etzen* ‘ez zen’, *etzequiela* ‘ez zekiela’, *etzidan aitortu* ‘ez zidan aitortu’, *etzuen eguiñ* ‘ez zuen egin’, *etzuten* ‘ez zuten’. Salbuespenen bat bada: *labratuaq baiziran* ‘labratuak, landuak baitziren’, *baizuen* ‘baitzuen’. Azken hauetan kontu grafiko hutsa izanen dugu seguruenik.

<tc> edireten dugu hurrengo kasu bakan hauetan: *aritzececo*, *ebaquitceco*, *erretcea*, *escatcen du*, *escatcen dituzte*, *pagatceco*, *tocatcen zaiona*.

<zch> bakarrik *Arizchulegui* toponimoan agertzen da, hots, egungo *Arizxulegi*-n, eta ez dakigu seguru oraingo *tz*-ren ordainetan dagoen edo gaur *ztx* idatziko genukeena den. Askota eta askotan aurkitzen dugu, ez behin bakarrik. Aintzat har bedi toponimo hau *Areyçuregui* lekukotzen dela 1512an eta *Ariçuregui* 1514an (Ayerbe, Irijoa, eta San Miguel, 2012: 191 eta 389), alegia, oinarrian *haritz*, *hareitz* zuhaitz izena dukegula. Ez du, beraz, *harri*-rekin zerikusirik, egun anitzek *Arritzulegi* ebakitzen badute ere.



Arizchuleguira ‘Ariztxulegira’

Ozen ondoan <z> agertzen da gehien-gehienetan, baina, gorago aipatu bezala, txistukaria hemen igurzkaria delako, ez afrikatua. Aski sistematikoa da egilea, salbuespenen batekin. Hurrengo taulan JRMk ozen ondoko igurzkari apikala (<s>), afrikatu apikala (<ts>), igurzkari lepokaria (<z>) eta afrikatu lepokaria (<tz>) idatziz irudikatzekeo darabiltzan grafien estatistikak erakusten dira.

**Lehenbiziko taula:** JRMk <z>, <tz>, <s> eta <ts> adierazteko ozen ondoan darabiltzan grafiak (salbu laburduretan).

Grafia	(<z>, <tz>)	(<s>, <ts>)
<nz>	264/386 (% 68.4)	-
<nc>	117/386 (% 30.3)	-
<ntz>	3/386 (% 0.8)	-
<nch> <sup>5</sup>	2/386 (% 0.5)	-

<sup>5</sup> Hemen <nch> grafiak /tʃ/ (<tz>) afrikatua adierazten duela uste dugun kasuak baizik ez dira zenbatu.



Grafia	(<z>, <tz>)	(<s>, <ts>)
<lz>	78/155 (% 50.3)	-
<lc>	75/155 (% 48.4)	-
<ltz>	2/155 (% 1.3)	-
<rz>	230/463 (% 49.7)	-
<rc>	233/463 (% 50.3)	-
<rtz>	0/463 (% 0.0)	-
<ns>	-	205/205 (% 100)
<nts>	-	0/205 (% 0.0)
<ls>	-	15/15 (% 100)
<lts>	-	0/15 (% 0.0)
<rs>	-	1/1 (% 100)
<rts>	-	0/1 (% 0.0)

Zenbakiok zenbait xehetasun erakusten dituzte: lehenik eta behin, <s>-k eta <ts>-k alde batetik, eta <z>-k eta <tz>-k bestetik, ez dute portaera bera, <z> ozen ondoan afrikatzeko –<tz> bihurtzeko– joera oso apala bada ere (3 aldiz <ntz> + 2 aldiz <nch> + 2 aldiz <ltz> = 7 lekukotasun 1004tik, hots, 7/1004, % 0.7), <ts> lekune horretan ez baita inoiz ere agertzen (denetara 0/221, % 0.0).<sup>6</sup> Bigarrenik, <z>-ren kasuan afrikatzea edo ez afrikatzea neurri batean aurreko ozenaren araberakoa da: afrikatzeko aukerarik handiena aitzineko soina sudurkaria (5/386, % 1.3) edo albokoa (2/155, % 1.3) denean dago; dardarkariaren gibekeko <tz> afrikaturik ez dugu ediren. Desberdintasun hauek ozenen ebakera kontuei zor zaizkieke, baina, zernahi gisaz, zoriaren emaitza ere izan daitezke, ausazkoa, hain da afrikatuen kopurua urria.

Hona hemen *z / tz* ozen ondoko neutralizazioaren adibideak: *aguerzen bada ere* ‘agertzen bada ere’, *Alzateco macoan* (top.), *Alziberco urzalleari* ‘Altzibarko urtzaileari’, *Alzibertiq* ‘Altzibartik’ (top.), *agoa apainzen* ‘agoa apaintzen’, *Aranzateco mea* ‘Arantzateko mea’ (top.), *arcendu* ‘hartzen du’, *arenzat* ‘harentzat’, *arzeco* ‘hartzeko’, *asi guñan ecarzen* ‘hasi ginen ekartzen’, *aunzaquin* ‘ahuntzekin’ edo ‘ahuntzarekin’, *bacoitzarenzat*, *bealceco* ‘bidaltzeko’, *bealcearequin* ‘bidaltzearekin’, *bealcen ezpadio*

<sup>6</sup> Igurzkari apikala –lepokariarekin alderatzen dugunean– gutxitan afrikatzearen edo sekula ez egitearen paraleloa Berako 1822ko testu administratiboan ikus daiteke (Santazilia eta Taberna, 2019: 835; ikus 2.2. azpiatalean dioguna).

'bidaltzen ez badio', *bearcen bada* 'behartzen bada', *beinzat* 'behintzat', *belca* 'beltza', *bi orzeco bat* 'bihortzeko bat', *Bicenterenzat* 'Bizenterentzat', *Conponceco* 'konpontzeko', *dabilza* 'dabiltza', *diferencia*, *ecarceco* 'ekartzeko', *eracarzen balu* 'erakarriko balu, ekarraraziko balu', *Erorzatiq* 'Erortzatic' (top.), *espensarenzat* 'espentsarako, gasturako', *esperanzariq* 'itxaropenik', *etorcecoa* 'etortzekoa', *etorcecotz* 'etortzekotz ere, etortzekotan', *ez gavilzan* 'ez gabiltzan, ibil ez gaitezen', *ezconzen* 'ezkontzen', *Francesa* 'frantsesa', *Franciaco* 'Frantziako', *ganzaq* 'gantzak', *Juaquinchorenzat* 'Juakintxorentzat', *Lorenzo de Alsuaq* (onimoa), *norenzat* 'norentzat', *olzorroza* 'Oltzorrotza' (top.), *ononzeco* 'honanzkoa', *onza* 'ontza', *oyarzuarrari* 'oiartzuarrari', *Oyartzuna* 'Oiartzuna', *Oyartzunan* 'Oiartzunen', *salceco* 'saltzeko', *Tomasenzat*, *ylzea* 'iltzea' (baina *ytzenzat* 'iltzeentzat' eta *ytzearenzat* 'iltzearentzat'), *ygarzen dena* 'ihartzen dena', *yllunzeco aurrean* 'ilundu aurretik', *yraulceco* 'iraultzeko', *zeñenzat* 'zeinentzat', *zorzi* 'zortzi' eta abar.

Esanguratsuak dira hauek: *arcecotz* 'hartzekotz ere, hartzekotan', *erorcecotz* 'ez erortzeko', 'ez erortzekotan' (baina *billatzeicotz* 'bilatzekotan' edo 'aurkitzekotan', adibidez), *ytzayenzat beinzat* 'itzaintentzat behintzat', *ytzalzean* 'itzaltzean'... Orobat ondoko esaldiak: «*aspoaq ateratzean ta sarzean*», «*ayzarca conponzen errueda conponzen gurutzeaq sarzen ta zepoa estutzen*» 'haizarka konpontzen, errueda konpontzen, gurutzeak sartzen ta zepoa estutzen', «*hiscaluq onen Contua bealceco gaztigatzeco Esandit*» 'Iskaluk honen kontua bidaltzeko gaztigatzeko esan dit', «*niq ola arcecotz Oyartzundiq bear dut laguna*» 'nik ola hartzeko(tan) Oiartzundik behar dut laguna', «*oyen botatze saria eta berdincea tocatzen zayo*» 'hauen botatze-saria eta berdintzea tokatzen zaio', *tratu anitz erabilceco* 'tratu anitz erabiltzeko'. Gutun batean *Auntzteguia* eta *Aunzteguia* ditugu batera, eta hauen ondoan *aunzaquin* 'ahuntzekin' edo 'ahuntzarekin', gorago ikusi bezala.

Bestalde, *belz* ibiltzen du ia beti egileak, baina gutun batean *belz* eta *beltz*, biak, edireten ditugu, eta aditzean ozen ondoan beti *-zen* bada ere (ez *-tzen*), txanda batean *Aguintzen diotena* daukagu. Bestalde, *Sebastian (de) Anzamborda* behin baino gehiagotan azaltzen da, *seb.<sup>n</sup> de anchanborda*, *sebastian de anchanborda*-rekin batean. Badakigu grafian *z / ch* txandakatzea dagoenean *tz* ohi dela ahoskera.

Beste gisan ere, beste lekune batzuetan ere alegia, kausitzen dugu <z> afrikatua irudikatzeko, artetan: *Articuzacoa* 'Artikutzakoa', *Articuzan* 'Artikutzan', baina *Articutzacoari* 'Artikutzakoari'; jakina den bezala, *Artikutza* da egungo ebakera Goizuetan, baita Oiartzunen ere (ikus Fraile eta Fraile, 1996: 27). Bestalde, beti *Goyzarin* du JRMk, belarriz *Gotzain*, *Lotzain* jaso zen arren (ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 21), baina *Olaizola* eta *Olaizola* darabiltza, biak, eta *Olatzaga* besterik ez. Gorago esan dugun

moduan, irudi luke izen hauetako batzuk frankotan ikusi zituela erdaraz izkiriatu paperetan, eta horrek z idaztera bulkatu zuela. Bi alditan, bestalde, ezez ‘ezetz’ dago, eta behin ezez, eta horrekin batean *baitez* dugu lautan.

Atzizki ezagunarekin hau dugu: *berozale* ‘berotzaile’, *berozalleaq* ‘berotzaileak’ batetik, eta *berotzalle*, *berotzalleaq*, *berotzallen* ‘berotzaileen’, *bi berotzalleay* ‘bi berotzaileei’, *bi berotzallengzat* ‘bi berotzaileentzat’ bestetik. Gero, *Ferrazalle* ‘ferratzaile’, *ferrazallea*, *ferrazalleaq*, *ferrazalleari*, *perrazalleaq*, *perrazallearen* dauzkagu, eta horiekin batera baita *ferratzalle*, *ferratzalle(enzat)* ere. Hauen aldamenen *Egur zaleaq* ‘egurkariak’, *Egur zaleay* ‘egurkariak’, *Cargatzalleriq gabe* ‘kargatzaileak gabe’ ditugu, eta halaber beste hauek: *arragoa erretzalleaq* ‘arragoa erretzaileak’, *erretzallengzat* ‘erretzaileentzat’, *mea garbizalleai* (bitan) eta *mea garbitzalleai* ‘mea garbitzaileari’, *Urzalle* ‘urtzaile’, *urzalleari* ‘urtzaileari’.

Hemen ez dakigu atzizki bakarraren bi aldaera ditugun edo bi atzizki diren (-*tzalle* eta -*zale*), formari doakionez, adiera edo funtzioa bakarra dela garbi dagoelako: egiletasuna adierazten dute, ez deusen zaletasuna. Aintzat har bedi Lizarraga nafarrak, garai bertsuan, *zale* duela beti,<sup>7</sup> Ultzamako dotrinan ere *Creazalia*, *Salbazalia*, *Glorifiquenzalia* ditugula (Albizu, 1906: 8) eta Aezkoan ere, gure egunotan, -*zale* dagoela, eta ekintza edo egiletasuna adierazten duela (Camino, 1997: 429). Mikelestorenak (1751: 10, 44, 101) *iracur-zalleren bati* dauka (z dardarkari ondoan da), *salvatzallea* (honetan aipatu baldintzapena falta da) eta *lantza erdiratzallea* (hemen ere ez dago dardarkari ondoan).

1753ko Goizuetako predikuan hau dugu: *ilzalleac*, *ofenditzalleai* (Reguero, 2018 [2015]: 218, 219). XIX. gizaldiko udal ordenantzetan (Saturstegi, 1996) *salzalleac* ‘saltzaileak’ dago 1825ean (299), eta *jocazalleac* 1897an (308), baina azken honek ‘jokozaleak’ adiera duela dirudi.

*Izan* aditzean irudi du igurzkaria zegoela, alegiazko hirugarren pertsona singularrean: *eldu baliz* ‘etorriko balitz’, *baliz* ‘balitz’. Baina *balitz* behin aurkitu dugu, eta *litzaque* maizko azaltzen da.

<ch>. Digmafoa z-rekin aldizkatzen denean badakigu oinarrian afrikatua zegoela, egun *tz* idazten duguna (ikus goraxeago): *Sebastian (de) Anzamborda* vs *seb.<sup>n</sup> de anchanborda*, *sebastian de anchanborda*. Egoera berean dagoke *Uichiq* ondoko beste gutun batean ageri den *Angel de Huiziq*-ekin –biak ergatiboan daude– erkatzen dugunean, hots, *Uitzik* izan genezake, lehen forman behintzat.

<sup>7</sup> Beste berrekailu batzuk ere badarabiltza: adibidez, *arrantzari*, *arrantzuari* ‘arrantzalea’ edo *igitarle* ‘igitaria’, ‘igitan aritzen dena’.


/tʃ/ (egun tx idazten duguna)

<ch>: *charraq* ‘txarrak’, *chartel bat* ‘txartel bat’, *oberenchonaq* ‘hoberentxoena’, *Chichipichiq* ‘Txitxipitxik’ (izeng.), *Olaychean* ‘olaitxean’, *onchoena* ‘ontxoena’, *oranche* ‘oraintxe’, *urte chiqui* ‘urretxiki’, *yche* ‘etxe’, *ychola* ‘etxola’... Bestalde, soinu afrikatua dugu *r* ondoan *marchoan* ‘martxoan’ hitzean.


### 2.2.3.3. Sudurkari palatala

/ɲ/ (euskaraz *in* idazten duguna, *mina* hitzean adibidez, edo *ñ*, *Iruñea* toponimoan, kasurako).

<ñ>: *baño* ‘baino’ eta ‘baina’, *cabiguña* ‘gabi iguna’, *eguiñaq*, *eguiñen duela*, *gañera*, *gaztaña*, *larunbatarañocoaq*, *oñean*, *orañiq* ‘oraindik’, *yñorq*, *zeñenzat* ‘zeinentzat’...



Añaq ‘aunak, aünak’




yruñetiq ‘Iruñetik’

Hitz bukaeran ere <ñ> dugu ardura: *beñ* eta *beñ* ‘behin’, *belderrañ* ‘Belderrain’ (onimoa), *bezañ* ‘bezain’, *cabiguñ bat* ‘gabi igun bat’, *eguiñ*, *eziñ*, *jaquiñ*, *orañ* ‘orain’, *veren gañ* ‘beren gain’...

2.2.3.4. Alboko palatala (orain *il* idazten duguna, *hilabete* hitzean adibidez, edo *ll*, *Olloki* toponimoan, esaterako)

/ʎ/

<ll>: *meallea* ‘meailea’, *ogui eguilleaq* ‘okinak’, *perrazalleaq* ‘ferratzaileak’, *yllavete* ‘hilabete’, *ylllean* ‘hilean’, *zillarrean* ‘zillarrean’...



yllunavarreco ‘ilunabarrerako’

Hitz bukaeran ere aurkitzen dugu: *Amaica Maquill*, *dabill*, *Mutill bat* eta *mutill ori* (eta *Mutillorreq*, *Mutillorren*), *yll onetacoa*, *lau ynutill*...

### 2.2.3.5. *Igurzkari palatala*

/j/ (igurzkaria, *j* idatzi ohi duguna, *jabe* edo *jan* hitzetan, Goizuetako hizkeran esate baterako).

<y>. Hitz hasieran: *ya* ‘ja, jadanik’; *yabeaq*, *yabearena*, *yabetzen*; *yaquin*, *yan*, *yarri*, *yaso*, *yo*, *yoan*, *yocoa*, *yornala*, *yorrada* ‘bidaia’, *yosten*.

yabe ‘jabe’

yarri ‘jarri’

Baina horiekin batera beste hauek ere baditugu: *jabearenzat*, *jaiquitzen*, *jaitsi*, *jan*, *Jangoicoaq*, *jauna*, *Jayo*, *Jendea*, *jo*, *josteco*. Mailegu berrietan ohikoa da *j-*: *jornalag*, *jornalean* ‘soldatan’; *Juicioa*, *junioan* ‘ekainean’, *Juntara* ‘batzarrera’, *juradu*, *Juzcoan*...

Jave ‘jabe’

Badirudi JRMk <j> grafema soinu palatala irudikatzeko ere ibiltzen duela, batzuetan *yaquin* eta *jaquin*, *yabe* eta *jabe*, *yan* eta *jan*, *yaso* eta *Jaso*, *yoan* eta *juan*, *yocoa* eta *jocatzeco*, *yornala* eta *jornala*, *yosten* eta *Joscuraq*, *josteco*-ren moduko bikoteak ditugulako. Hau garbi dago Lapurdiko *Donijuane* ‘Donibane Lohizune’ toponimoan, hor [x]-rik ez dagoelako: «*Juandela donijuanera*» ‘joan dela Donibanera’. Honekin batean *doni yoane* ere azaltzen da beste eskutitz batean: «*Micolas Arpidecoa egun yzandu da doni yoanen*».

donijuanera ‘Donibane Lohizunera’

doni yoanen ‘Donibane Lohizunen’

/j/ (irristaria, hitz barnean *i* idazten duguna)

<y>: *anayeaq* ‘anaiak’, *bayetz* ‘baietz’, *bergamazoya*, *beyaq*, *jaya*, *sayatu*, *zayo*...

<i>: *amaseian* ‘hamaseian’.

### 2.2.3.6. *Herskari palatala*

/c/ (orain *tt* idazten duguna, *politta*-n adibidez, edo *pottoka*-n)

<tt>: *attu zaicu* ‘ahitu zaigu’, *chitt* ‘txitt’ (*txit*-en aldaera palatalizatua, irudiz), *ematen battio* ‘ematen baditio, ematen badizkio’, *Mattanta* eta *Mattantta* (izeng.).

*attu zaicu* ‘ahitu zaigu’

<t>: *Pototo* (izeng.; *Pototto* eta *Pottoto* ere bada), *quito* ‘kitto’ (ustez *-tt-*). Adizkietan usaiakoak dira *tio*, *tiogu*, *tioztet*... aldaera laburtuak, eta badirudi, zenbaitetan behintzat, *t* horiek hots palatala adierazten dutela, hau segurua izan ez arren, besteak beste *ditiot*, *ditiotzet* eta bestelako adizki osoagoak ere baditugulako. Nolanahiko gisan, irudi du *ttiot* ‘dizkiot’ adizkian soinu palatala dugula, egun bezala. Bistan da hots sabaikaria duten forma horiek adizki osoetan sortu direla, aurretik *i* dutenetan (*ditiot* > \**dittiot* > *ttiot*, *ditiote* > \**dittiozte* > *tziozte*...).

*Matanta* izengoitia bere hola ageri da, baina baita *Mattanta* eta *Mattantta* idatzirik ere, eta ez dago zalantza handirik kasu guzietan sabaikariarekin ebakitzen zela, hots, *Mattantta*.

<ɬ>: Beste gutun batean aipatu izengoitia *Maɬantaq* idatzirik dago, eta ez dago dudarik azentu gafikoa duen *ɬ* horrek egungo *tt* irudikatzen duela, hots, egileak *Mattanttak* irudikatu nahi zuela. Azpimarratzekoa da gutun berean, behetixeago, *Maɬantaq* dagoela, ez dakigu egileari bigarren *t*-aren gainean tileta idaztea ahantzi zaiolako edo *Mattantta* eta *Mattanta* aldaerak batera bizi zirelako. Beste eskutitz batean *Pello Mattantaren Meaq* daukagu, hau da, *Pello Mattanttaren meak*.


*Pello Mattantaren* ‘Pello Mattanttaren’

*Maɬantaq* ‘Mattanttak’


*Maɬantaq* ‘Mattan(t)ak’

Palatalizazioa adierazteko *ɬ* daukagu, halaber, *ola andituco dotazioan* ‘Olandittuko dotazioan’ sintagman, JRMk *Olandittuko dotazioan* adierazi nahi zuela argixko baitago (*Olanditu* Oiartzungo mendia da). Gauza bera


dugu *aiu* ‘ahitu’ aditzean (*attu* ere azaltzen zaigu), *Carretò* etxe izengoitian (*Karrèttó* egun) eta *Marcos* zeritzanaren *pototo* goitizenean.



Carretò ‘Karretto’



ola anditucò ‘Olandittuko’



pototozen ‘Potottoren’

Erka bedi sabaiaurreko palatala irudikatzeko egileak zenbait aldiz erabiltzen duen *ʒ*-rekin (ikus gorago).

<ch>: Jose Ramonek *Pello chiqui* darabil, baina Aranoko Arranbide olaren arduraduna zen Ignazio Bergararen gutunetan *Pellotiqui* da gizon hori bera, eta ondorioa da edo izan daiteke egun *Pellottiki* idatziko genukeena dugula. Ordea, *txiki* eta *ttiki* bata bestearen ondoan bizi daitezke eta bizi zitezkeen, bistan da.

### 3. GUTUNEN ZERRENDA, DATAREN ARABERA

1790.10.29	1794.04.19
1791.06.02	1794.06.07
1791.08.Hasiera	1794.06.10
1791.09.06	1794.08.26 ingurukoa
1791.09.15	1795.04.09
1791.11.01	1795.12
1791.12.04	
1791.12	1796.03.20
	1796.04.26
1792.01.Hasiera	1796.09
1792.05	1796.09.24
1792.05.12	1796.10
1792.06	1796.11
1792.06.12	1796.12.08
1792.06.17	1796.12.26
1792.07.02	
1792.07.04	1797.03.05
1792.07.06	1797.06.21 ingurukoa
1792.07.28	1797.09.05
1792.07.28(datagabea)	1797.09.07
1792.08.07	
1792.10	1798.01.02
1792.10.28	1798.01.14
1792.10.29	1798.01.17
1792.11.03	1798.05.Hasiera
	1798.08.05
1793.02.26	1798.08.10
1793.04.01	1798.09.12
1793.04.22	1798.09.15
1793.06.Hasiera	1798.10.22
1793.08.26	1798.11.12 ingurukoa
1793.08.31	1798.11.16
1793.11.Bukaera	1798.12.18
1793.12.18	1798.12.Bukaera



1799.01.06	1800.06.23
1799.01.21	1800.06.29
1799.03.12	1800.07.06
1799.04.Bukaera	1800.08.02
1799.06.Hasiera	1800.08.06
1799.07.26	1800.08.10
1799.09.09	1800.08.12
1799.09.17	1800.09.23
1799.10.Hasiera	1800.09.25
1799.10.07	1800.09.30
1799.10.08	1800.10.14
1799.10.25	1800.11.06
1799.10.26	1800.11
1799.12.01	1800.11.12
1799.12.08	1800.11.20
1799.12.19	1800.12.12
1800	1801.01.03
1800.Hasiera	1801.01.10 ingurukoa
1800.01.03	1801.01.12
1800.01.09	1801.01.16
1800.02.Hasiera	1798_1801(lizta)
1800.03.Hasiera-edo	1801.04.03
1800.03.05	1801.06.Hasiera(A)
1800.03.09	1801.06.Hasiera(B)
1800.03.10	1801.06.Hasiera(C)
1800.03.12	1801.06.16
1800.03.20	1801.07.31(A)
1800.03.30	1801.07.31(B)
1800.04.07(A)	1801.08.23
1800.04.07(B)	1801.09.11
1800.04.15(A)	1801.09.15
1800.04.15(B)	1801.10.25
1800.04.17	1801.11.03(A)
1800.05.Hasiera	1801.11.03(B)
1800.05	1801.11.06
1800.05.07	1801.11.12(A)
1800.05.08 ingurukoa	1801.11.12(B)
1800.06.Hasiera	1801.11.13
1800.06.02	1801.11.15
1800.06.17	1801.11.20

1801.11.22	1802.10
1801.11.28	1802.11.Hasiera
1801.12.04	1802.11.14
1801.12.09	1802.11.25
1801.12.15	1802.12.05
1801.12.24(A)	1802.12.16
1801.12.24(B)	
1801	1803.01.03
	1803.01.05
1802.01.03	1803.01.14
1802.02(A)	1803.01.28
1802.02.12	1803.02
1802.02.21	1803.02.17
1802.02.22	1803.02.27
1802.02(B)	1803.03
1802.02.24	1803.03.26
1802.03.09	1803.03.30
1802.03.12	1803.04
1802.03.14	1803.04.05
1802.03.16	1803.05.Hasiera
1802.03.23	1803.05.19
1802.03.25	1803.06.05
1802.03.26	1803.06.18
1802.03.31(A)	1803.07
1802.03.31(B)	1803.07.25
1802.04.06	1803.08.Hasiera
1802.04.07	1803koa-edo
1802.04.12(A)	1803.09.Hasiera
1802.04.12(B)	1803.09.06
1802.04.24	1803.09.23
1802.05.17	1803.09.25
1802.06.22	1803.10(A)
1802.07.05	1803.10(B)
1802.07.07	1803.11.Hasiera
1802.07.11	1803.11.10
1802.08.Hasiera	1803.11.13
1802.08.04	1803.11.22 ingurukoa
1802.08.10	1803.11.23
1802.08.14	1803.12.Hasiera
1802.09.02	1803.12
1802.10.01	1803.12.03

1803.12.Lehen herena(A)	1805.08.02 ingurukoa
1803.12.Lehen herena(B)	1805.09.15 ingurukoa
1803.12.Lehen herena(C)	1805.10.31
1803.12.12	1805.11.Hasiera
1803.12.13	1805.11.03_30
1803.12.22	1805.12.01
	1805.12.21
1804.01.Hasiera	
1804.03.14	1806.01.19
1804.03.23	1806.01.24(A)
1804.03.24	1806.01.24(B)
1804.03.30	1806.02.Hasiera
1804.04.14	1806.02.05
1804.04.18	1806.02.10
1804.04.26	1806.02.16
1804.05.06	1806.02.17
1804.05.09	1806.02.24
1804.05_06	1806.06.08
1804.06.08	1806.07.Hasiera
1804.06.10	1806.09.07
1804.07	1806.09.Bukaera
1804.07.01	1806.11.02
1804.08	1806.11.12(A)
1804.08.05	1806.11.12(B)
1804.08.10	1806.12.Hasiera
1804.09	
1804.10	1806_1807
1804.11	1807
1804.12	1807.01.04
1804.12.17	1807.01.04 ingurukoa (datagabea)
1802.12.16_1804.12.26	1807.02.22
	1807.03.01
1805.01.21	1807.03.27
1805.02	1807.05.26
1805.02.03	1807.06.04
1805.02.03_03.02	1807.06.13
1805.02.16	1803.03.12_1807.06.18
1805.03.20	1806.01.22_1807.06.18
1805.04	1807.06.Bukaera
1805.04.06	1807.07
1805.06	1807.07.31

1807.09.12	Datagabea.6
1794.04.17_1807.09.30	Datagabea.7
1807.11.24	Datagabea.8
Datagabea.1	Datagabea.9
Datagabea.2	Datagabea.10
Datagabea.3	Datagabea.11
Datagabea.4	Datagabea.12
Datagabea.5	Datagabea.13
	Datagabea.14



## 4. GUTUNAK

1790.10.29

*Cuenta de los panes de Olaberria. Desde 18 de octubre hasta 30 de octubre 35 panes valen 24 pezetas y 24 cuartos. Y desde 27 de setiembre hasta 30 de octubre 54 libras de carne, la libra 9 cuartos, valen 14 pezetas y 10 cuartos. Y 8 libras y cuarto de abadejo, la libra 12 cuartos, valen 2 pezetas y 31 cuartos. Carne y abadejo, el todo, 17 pezetas y 7 cuartos.*

Errenteriako olatxokoak gelditu dira, ta izanen dira lagunak hasteko. Olaberria, 29 de octubr[e]<sup>1</sup> de 1790.

Juan Bautista de Minondo.

1790

18 octubre hasta 30 dicho pagué.<sup>2</sup>

*Su servidor Joseph Ramón.*

1791.06.02

*Desde 21 de mayo hasta 10 de junio.*

*16 panes valen .....9 pezetas y 14 cuartos*

*4 libras de carne valen .....1 pezeta y 2 cuartos*

*2 azumbres de vino .....2 pezetas*

*mistela<sup>3</sup> a .....24 cuartos*

*1791 junio, lo pagué .....todo 13 pezetas y 6 cuartos*

*Peones de estas semanas son .....78*

*Canteros .....17 y ½ días*

*y aprendiz .....6 días*

*Bueyeros .....4 días*

---

<sup>1</sup> Gutuna «moztua» dago eta ez da bukaerako e ikusten.

<sup>2</sup> Beste letra mota batekin idatzitako hauek olajaunak, eskutitza hartu eta gero, egin zituen apunteak dira.

<sup>3</sup> 'Pattarra', 'ardo gozoa'.

Euririk egiten badu ere, harerik<sup>4</sup> urak eraman ez dezan erakarri ditugu itzaiak. Manuel Txotxak 20 *pesos* ta semeak 5 eskatzen dituzte, 25 *pesos*. Olaberria, 11 de junio de 1791.

Juan Bautista de Minondo.

*Su servidor Joseph Ramón.*

### 1791.08.Hasiera

*Desde 11 de junio hasta 30 de julio.*

*22 panes de 24 cuartos,*

*y 22 panes de 20 cuartos valen . . . . .28 pezetas y 16 cuartos*

*16 libras de carne de 9 cuartos*

*y 8 libras de 8 cuartos valen . . . . .6 pezetas y 4 cuartos*

*5 azumbres de vino de 1 pezeta*

*y 6½ de 32 cuartos valen . . . . .11 pezetas y 4 cuartos*

*Mistela de . . . . .5 pezetas*

*Bueyero de Eizagirre 12½ quintales*

*de ascua. 7 importan . . . . .4 pezetas y 20 cuartos*

*1791, agosto 2. Pagué todo Todos. . . . .55 pezetas y 10 cuartos*

Ignazio Aranburukoak<sup>5</sup> Bullegitik<sup>6</sup> bealdu ditu hamaika karga ta lepalo-  
tu erdi bat gaztaña ikatza,<sup>7</sup> ta gerok jaso dugu. Tokatzen zaiona eskatzen du.  
Olatxeko<sup>8</sup> gizonak berrehun ziri<sup>9</sup> egiñak ditu ta haienak.

<sup>4</sup> Hala dela ematen du; zernahi gisaz, bigarren *r*-a ez da guztiz garbi ageri.

<sup>5</sup> Oiartzungo baserria (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 71-73). 1499an «*la casa de Aranburu*», «*la casa de Aranburu*» ageri da (Irijoa eta Lema, 2011: 90).

<sup>6</sup> Oiartzungo *Pullegi* baserria (*Pulli* ebakia orain; Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 273). 1857ko NOPGIn (59. or.) *Pullegui* dago.

<sup>7</sup> Alegia, gaztaina egurrarekin, gaztoinondo egurrarekin egindako ikatza. *Lepalotua* zaku mota bat da. Ikus 1791.09.06ko gutuna. Iduri luke «*lepalotu erdi bat gaztaña ikatz*» izan behar lukeela.

<sup>8</sup> *Olaetxea* Olaberriaren ondoko baserria da egun (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 247). Denboraz ola nagusiarekin eta olatxoarekin holako «*batasuna*» osatzen zuen.

<sup>9</sup> EHN *ziri* eta *kabila* bat-bertzat hartzen dira. Gutun hauetan arruntean *kabilla* dugu, eta inoiz *ziri*, eta irudi du gauza bana direla. Ikus hiztegia.

1791.09.06

*Desde 30 de julio hasta 7 de setiembre.*

*24 libras de carne valen . . . . . 5 pezetas y 22 cuartos*

*7½ azumbres de vino valen . . . . . 7 pezetas y 2 cuartos*

*Mistela de . . . . . 2 pezetas*

*1 fanega de haba . . . . . 9 pezetas*

*23 pezetas y 24 cuartos*

*26 panes de 2 a cuartos (sic)*

*y 9 panes de 24 cuartos valen . . . . . 21 pezetas y 22 cuartos*

*Todos 45 pezetas y 12 cuartos*

*Hamar ezkutukotik<sup>10</sup> sobra dira . . . . . 8 pezeta ta 4½ cuartos*

*6 urretxiki emanta.*

*Gazteluko erreka<sup>11</sup> ik[a]tza:<sup>12</sup> 7 karga ta lepalotua etorri da.*

Irungo karreadoreak 46 karga pagatu ditut, ta bealdu nahi baditu itzaian-zat zorzi urretxiki hemen izanen dira.

Itzai San Juanera mea dakarten hoiek<sup>13</sup> iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko. Ta gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua bere-nak nahiko dituzte horiek.

Leneko astean 8 pezetas ta lenago hamalau. Sobra dira 22 pezetas hargin ta peonen kontuetan.

Ta Erreterian mea garbitzen ari diran oiarzuarrai eman ditioztet bi pezeta, mea zare bi<sup>14</sup> ta bihorzeko bat pagatzeko. Orañ gelditzen dira 20 pezetas sobra. Olaberria, 6 de setiembre de 1791.

Juan Bautista de Minondo.

*Su servidor Joseph Ramón.*

<sup>10</sup> Euskara zaharrean *ezkutu* diru baten izena zen; ikus Satrustegi (1978). Euskaltzaindiaren hiztegian ‘urrezko eta zilarrezko zenbait diruren izena’ adiera ematen zaio.

<sup>11</sup> Oiartzungo aurkintza, baserria eta meategia (izan) da Gaztelu (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 149).

<sup>12</sup> Originalean *yctza* dago.

<sup>13</sup> Ohart bekio erlatiboaren ordenari. *San Juan* ziurrenik *Pasai Donibane* izanen da.

<sup>14</sup> Beste batzuetan bezala, *bi* zenbatzailea izenaren gibelean dago. Ikus hitz hurrenkeraz mintzo garen kapitulua.



1791.09.15

*Desde 5 de setiembre hasta 14 de setiembre.*

*Canteros . . . . .13 días*

*Peones . . . . .36*

*Bueyeros . . . . .13 días*

---

*94 pezetas y 17 cuartos*

Erremientak konponzen *29 pezetas y 8½ cuartos*.

Betun harria<sup>15</sup> ekarzea zenbat nahi duen eman, pagatzekoa dago. Ta eraman, Seingoak<sup>16</sup> entregatuko al du!

Behar omen du betuna egiteko.

Olatxoa ongi hasi da. Ta franzas<sup>17</sup> ez da agertu, ta gaztigatu diot dato-rrela berehala.<sup>18</sup>

Ola handikoak sagarra hoienezat<sup>19</sup> ere hamar bat karga billatzen balu<sup>20</sup> berearekin batean diote.<sup>21</sup> Olaberria, *15 de setiembre de 1791*. Juan Baupista de Minondo.<sup>22</sup> Saskiak hautsi dira hamasei, hamar kuarto ta erdiña. Irundar itzairik ez da ageri oraindik.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1791.11.01

1791

*Desde 19 setiembre hasta 24 de octubre.*

*Domingo Ignacio y prestador<sup>23</sup> tienen 47 panes de 24 cuartos y 27 panes de 20 cuartos. Valen 49 pezetas y 2 cuartos*

---

<sup>15</sup> Originalean *betunarria* hitz batean idatzirik dago.

<sup>16</sup> Oiartzungo baserria da *Sein* (ikus bedi Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 283-284). Behiala dorrea edo jauregia izan zen; 1499an *Sanduru de Seyn* daukagu herrian (Irijoa eta Lema, 2011, XX eta 5. or.).

<sup>17</sup> Iparraldeko norbait.

<sup>18</sup> 'Etor dadila berehala'. Ikus *gabizlan* adizkiaz ihardukitzean (1800.11.12) dioguna.

<sup>19</sup> Sintagmaren lehen osagaiak artikulua atxikitzeaz ikus izen morfologiari eskaini atala.

<sup>20</sup> *Hamar karga*, baina aditza singularrean dago.

<sup>21</sup> «*Ola handikoez diote sagar hauentzat ere hamar bat karga (berorrek) aurkituko bali-tu, berenarekin batean*». Alegia, ola handikoez, sagardoa egiteko seguruenik, berek zituzten sagarrez landara olajaunak hamar karga gehiago sagar aurkitzea nahi luketela.

<sup>22</sup> Hau *Juan Baupista de Minondorentzat* ulertu behar da.

<sup>23</sup> Hau euskarazko *meallea*-ren itzulpena da. Ohartzekoa da gaztelaniaz ez daukala artikulurik.

*Desde 24 de octubre hasta 29 de octubre.*

*Los 5 compañeros tienen 26 panes de 24 cuartos. Valen 18 pezetas y 12 cuartos*

*Desde 7 de setiembre hasta 29 de octubre.*

*En herrería chiquita 76 panes a 20 cuartos*

*valen . . . . .58 pezetas y 12 cuartos*

*Importan todos . . . . .125 pezetas y 26 cuartos*

*En herrería chiquita 54 libras de carne, la libra*

*8 cuartos valen . . . . .12 pezetas y 24 cuartos*

*2 libras y cuarta de abadejo 27½ cuartos*

*Y media de arroa de San Sebastián, 11 reales. Valen 14 reales y 2 cuartos de vellón*

Ogi egilleai sagardoa salze-sari deus bealdu nahi badiote;<sup>24</sup> niri ez zidaten deus hartu.

1791 noviembre 1. Pagué los dichos arriba que son juntos . . .142 pezetas, 1 cuarto.

#### 1791.12.04

*Desde 29 de octubre hasta 3 de diciembre.*

*En herrería mayor 13 panes de 24 cuartos y 61 panes de 22 e (sic)*

*cuartos de 5 compañeros valen . . . . .48 pezetas y 22 cuartos*

*De 3 compañeros 30 panes de 22 cuartos . . . . .19 pezetas y 14 cuartos*

*Todos . . . . .68 pezetas y 2 cuartos<sup>25</sup>*

*En herrería chiquita 8 panes de 24 cuartos y*

*81 panes de 22 cuartos valen . . . . .58 pezetas y 2 cuartos*

*Panes todos . . . . .126 pezetas y 4 cuartos*

*Vino de herrería chiquita 20 azumbres y un*

*cuartillo valen . . . . .19 pezetas y 4 cuartos*

*Carne 18 libras de 8 cuartos*

*y 25½ libras de 9 cuartos valen . . . . .10 pezetas y 33½ cuartos*

*Abadejo medio arroa (sic) . . . . .3 pezetas*

*Carne, vino y abadejo<sup>26</sup> todos . . . . .33 pezetas y 1½ cuartos*

*Arrago egur[r]a<sup>27</sup> egin ta erretzea kosta da . .31 pezetas y 12½ cuartos*

<sup>24</sup> 'Okinei sagardoa saltzeagatik (berorrek) zerbait bidali nahi badie'.

<sup>25</sup> Hemen garbi ikusten da 34 kuartok pezeta egiten zutela.

<sup>26</sup> Originallean *avô* dugu, laburturik.

<sup>27</sup> Originallean *arrago egura* dago. 'Arragoarako egurra' da adiera argia; *arragoa* mea erretzen zen lekua, labea zen, burdinolatik kanpo zegoena. Ikus hiztegia.

1791. Diciembre 4. Pagué los dichos arriba.

1791.12

*Año de 1791 y diciembre. Diciembre<sup>28</sup>*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

*Manuel de Itxabeste carretero:*

*De dotación . . . . .30 cargas*

*De Lasañ<sup>29</sup> . . . . .6*

*Fierros a San Sebastián 7 quintales y 4½ arrobas*

---

*Año de 1791 y diciembre. Mikolas de Zulaika carretero:*

*De dotación . . . . .6 cargas*

*De Lasañ . . . . .3*

---

*Año de 1791 y diciembre. Antonio de Bengoetxea carretero:*

*De dotación . . . . .45 cargas*

*De Penaregi<sup>30</sup> . . . . .6*

*De Mintegizar<sup>31</sup> . . . . .4*

*De Lasañ . . . . .5*

---

*Año de 1791 y diciembre. Sebastian de Bengoetxea carretero:*

*De dotación . . . . .22½ cargas*

*De Penaregi . . . . .4*

*De Mintegizar . . . . .2*

*De Lasañ . . . . .8*

---

*Año de 1791 y diciembre. Juan Joseph de Sorondo carretero:*

*De dotación . . . . .19 cargas*

---

<sup>28</sup> Orrialde guztietan ditugu olajaunaren apunteak.

<sup>29</sup> *Lasain* Irungo tontorra da (EJ). *Lasango burua* ere badugu eskutizotan (ikus 1801.11.20ko gutuna eta onomastikari buruzko kapitulua).

<sup>30</sup> Oiarzungo baserria da *Penadegi* (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 265).

<sup>31</sup> *Mintegiak* herri askotan izaten ziren, eta ez dakigu hemengo *Mintegizar* (edo *Mintegi zar*) hau nongoa zen. Aldeena Goizuetako *Mintegizar* dugu (NTEM 47:119), baina beste nonahikoa ere izan zitekeen.

De Lasañ .....8  
De Aiendola<sup>32</sup> .....2

---

*Año de 1791 y diciembre. Joseph Ignazio de Lekuna carretero:*  
*De dotación .....10 cargas*  
*De Lasañ .....5*  
*De Aiendola .....7*  
Mintegzarretik Otsamintegira ta Zaldirindik<sup>33</sup>  
suertearen beko muturrera yorrada bana itxola.<sup>34</sup>

---

*Año de 1791 y diciembre. Juakin de Telletxea carretero:*  
*De dotación .....2 cargas*  
*De Lasañ .....1*

---

*Año de 1791 y diciembre. Joseph de Arretxea carretero:*  
*De dotación .....4 cargas*  
*De Aiendola .....6*  
Mintegzarretik Otsamintegira ta Zaldirindik  
suertearen beko muturrera yorrada bana itxola.

---

*Año de 1791 y diciembre. Franzisko de Isatsa carretero:*  
*De dotación .....6 cargas*

## 1792.01.Hasiera

1791

*Desde 3 de diciembre hasta 31 de diciembre.*  
*En herrería mayor de 3 compañeros 10 panes valen 6 pezetas y 16 cuartos*  
*De 5 compañeros 52 valen .....33 pezetas y 22 cuartos*  
*Herrería chiquita 105 panes .....67 pezetas y 32 cuartos*  
*Panes todos .....108 pezetas y 2 cuartos*  
*En herrería chiquita 9½ azumbres de vino .....8 pezetas y 32 cuartos*

---

<sup>32</sup> Oiartzungo baserria (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 55).

<sup>33</sup> *Zaldirin* (egun *Zaldin* laburtua) Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 315). Ikus 1792.10.29ko eskutitza.

<sup>34</sup> Badirudi erdaraz *choza(s)* azaltzen den bera dela. Ikus, esaterako, 1796.09ko kaierttoan ageri den hau: «1 día a Buruzuri zarra *chozas* y *ciesgos*». Etxola egiteko ekaia esan nahi-ko du seguruenik.

<i>Carne 46½ libras valen</i> . . . . .	12 pezetas y 10½ cuartos
<i>Medio arrosa de abadejo</i> <sup>35</sup> . . . . .	2 pezetas y 28 cuartos
<i>Carne, vino y abadejo</i> <sup>36</sup> todos . . . . .	24 pezetas y 2½ cuartos
<i>Zubitane</i> <sup>37</sup> kupela neurri zen <sup>38</sup> 1484 azumbres	
<i>El azumbre 4 cuartos, importan 698 reales vellón y 3 cuartos</i>	
<i>Bi hogei ezkutuko emanak. Falta dira</i> . . . . .	58 reales y 3 cuartos

1792.05

*Año de 1792 y mayo.*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

*Manuel de Itxabeste carretero:*

*De Arantxipi*<sup>39</sup>. . . . .26 cargas

*De Tornola*<sup>40</sup> leñas . . . . .10 cargas<sup>41</sup>

*Año de 1792 y mayo.*

*Mikolas de Zulaika carretero:*

*De Arantxipi* . . . . .3 cargas

*Año de 1792 y mayo.*

*Antonio de Bengoetxea carretero:*

*De Portuguesa*<sup>42</sup> . . . . .15 cargas

*Año de 1792 y mayo.*

*Juan Joseph de Sorondo carretero:*

*De Arantxipi* . . . . .16 cargas

*De Portuguesa* . . . . .13

*De Tornola leñas* . . . . .10 cargas

<sup>35</sup> Hemen ere *avô* dugu.

<sup>36</sup> Hemen ere *avô* dugu.

<sup>37</sup> Iduri du *Zubitane(a)* dagoela honen oinarrian. Aurkitu dugun formarik aldeena Ezkio-Itsasoko *Zubitain* baserri izena da (EJ).

<sup>38</sup> 'Neurtu zen'.

<sup>39</sup> Oiartzungo lehengo aurkintza. Irudi duenez, Otsamantegia baserriaren goiko aldean zen (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 75).

<sup>40</sup> Oiartzungo aurkintza (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 293).

<sup>41</sup> Orrialde guztietan, akabaila aldean, badira olajaunak egindako apunteak.

<sup>42</sup> Oiartzungo dermioa zatekeen. Ez dakigu *Portu* baserriarekin lotu behar denetz.

*Año de 1792 y mayo.*

Joseph Ignazio de Lekuna<sup>43</sup> *carretero*:

*De Arantxipi* .....25 *cargas*

*De Portuaga Fagoara* .....15½<sup>44</sup>

*De Aiendola* .....8½

*De Ariztxulegi*<sup>45</sup> *cuñas* 3 *cargas*

Agerreko Patxikuri gaztañadira itxola 2 *cargas*

Luis Beleari eta irundar Pellori idurikatan<sup>46</sup> 2 *días*

---

*Año de 1792 y mayo.*

Juakin de Telletxea *carretero*:

*De Arantxipi* .....2 *cargas*

*De Ariztxulegi* .....3 *cargas de cuñas*

---

*De Aiendola* .....7 *cargas*

---

*Año de 1792 y mayo*

Fausto de OiARBIDE *carretero*:

*De Arantxipi* .....5 *cargas*

---

*Año de 1792 y mayo.*

Franzisko Antonio de Erribera<sup>47</sup> *cogió*:<sup>48</sup>

*De Arantxipi* .....4 *cargas*

*De Aiendola* .....7

2 *días* Beleari eta irundar Pellori idurikatan

---

<sup>43</sup> Irudi luke gutunotan ateratzen den *Lekuna* hau eta egun Oiartzunen ohikoa den *Lekuona* deitura bat eta bera direla. Jatorria 1499an ageri diren *Lecuona de Suso* eta *Lecuona de Yuso* (Irijoa eta Lema, 2011: 97, 99) etxe izenetan egonen da, 1857an *Lecunéa Alta* eta *Lecunéa Baja* direnetan (NOPGI, 57).

<sup>44</sup> Olajaunak sartu du tarteko *Fagoara* hori. Beste batzuetan *Fagoaga* dago, beti Juan Bautistak idatzia. Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 139).

<sup>45</sup> Egungo *Aritxulegi* bera da, Aiako Harritik hurbil den aurkintza zabala (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 79-80), lepoa eta tunela, Zumaian ere errepikatzen dena (EJ). Gutunotan, dena dela, *-zch-* idatzia agertzen ohi da, eta badirudi etimologiaz *-tz-* dagokiola, *hareitz*, *haritz* zuhaitz izena baitugu oinarrian, itxuraz (*Areyçuregui* 1512an, *Ariçuregui* 1514an, Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 193, 389).

<sup>46</sup> Ikus hiztegia.

<sup>47</sup> Oiartzungo egungo *Erriberene* baserrikoa zatekeen. Ikus 1795.04.09ko gutunean dioguna.

<sup>48</sup> Azken adizkia ez da guztiz argi ageri.

Sebastian de Antzanborda<sup>49</sup> *carretero*:  
De Portuaga .....5 cargas

---

1792.05.12

1792

*Desde 7 de abril hasta 12 de mayo.*

*En herrería mayor de 3 compañeros 32 panes*  
*valen* .....20 pezetas y 24 cuartos  
*De 5 compañeros 77 panes valen* .....49 pezetas y 28 cuartos  
*En herrería chiquita 120 panes* .....77 pezetas y 22 cuartos  

---

148 pezetas y 6 cuartos

*En herrería chiquita carne 87 libras*  
*valen* .....23 pezetas y 1 cuarto  
*Medio arroa de abadejo*  
*de San Sebastián* .....2 pezetas y 30 cuartos  
*Carne y abadejo* .....25 pezetas y 31 cuartos

Ogi egilleak<sup>50</sup> gaztigatu du, errotaria pagatzeko<sup>51</sup> behar duela-ta, ogien diruaz.

[1792.<sup>52</sup> Mayo 12. Pagué.

1792.06<sup>53</sup>

*Año de 1792 y junio.*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

*Manuel de Itxabeste carretero:*

*De Arantxipi* .....28 cargas

*De Pedro de Lekuna*<sup>54</sup> .....8

---

<sup>49</sup> Originalean *anchanborda* idatzirik dago.

<sup>50</sup> 'Okinak'.

<sup>51</sup> Bi argumentuko aditza, ikusten den eran, ez hirukoa.

<sup>52</sup> Lehen zerbaki hori ez da ikusten; hots, 792 besterik ez dago.

<sup>53</sup> Gutun eta kaiertto askotan (gehienetan) bezala, hemen ere badira olajaunak dokumentua hartu eta gero gaztelaniaz egindako hainbat apunte, guk transkribatu ez ditugunak.

<sup>54</sup> Honen gainean olajaunak *Gaztelu* idatzi du.

De Jose de Oiarzabal <sup>55</sup> .....	10
De Berentxiki .....	4
A San Sebastián .....	3 quintales de fierro
De Urdiñegi .....	4 cargas

Año de 1792 y junio.

Mikolas de Zulaika *carretero*:

De Arantxipi .....	9 cargas
De Jose de Oiarzabal <sup>56</sup> .....	3
De Ariztxulegi .....	1 maisukabias <sup>57</sup>

---

De Urdiñegi .....	2 cargas
-------------------	----------

Año de 1792 y junio.

Antonio de Bengoetxea *carretero*:

De Arantxipi .....	16 cargas
--------------------	-----------

Año de 1792 y junio.

Juan Jose de Sorondo *carretero*:

De Arantxipi .....	34 cargas
De Pedro de Lekuna <sup>58</sup> .....	8
De Jose de Oiarzabal <sup>59</sup> .....	8
De Berentxiki .....	6
De Urdiñegi <sup>60</sup> .....	4
A San Sebastián .....	2 quintales de fierro

Año de 1792 y junio.

Joseph Ignazio de Lekuna *carretero*:

De Arantxipi .....	17½ cargas
De Pedro de Lekuna <sup>61</sup> .....	9
De Jose de Oiarzabal <sup>62</sup> .....	4
De Portuga Fagoaga .....	1

---

<sup>55</sup> Honen gainean olajaunak *Suerte* idatzi du.

<sup>56</sup> Honen gainean *Suerte Madarimoch* idatzi du olajaunak.

<sup>57</sup> Bukaeran -s dago originalean (*1 maisu cabias*), azpian «*una carga (de) maisukabias*» dagoelako, bistan da.

<sup>58</sup> Honen ondoan *Gaztelu* idatzi du olajaunak.

<sup>59</sup> Honen gainean *suerte* izkiriatu du JBMk.

<sup>60</sup> Honen gainean olajaunak *Irun* idatzi du.

<sup>61</sup> Honen azpian, olajaunak izkiriatua, *en gaztelu* dago.

<sup>62</sup> Honen azpian *suerte* idatzi du olajaunak.



<i>De Urdiñegi Irun</i> .....	1
<i>De Berentxiki</i> .....	1
<i>De Ariztxulegi</i> .....	1 carga maisukabias
<i>1 día Manuel Irripakoari</i> <sup>63</sup> iduriak <sup>64</sup>	
Buruzuriari itxola en 3 cargas Karrikatik suertera	

---

*Año de 1792 y junio.*

Juakin de Telletxea *carretero*:

<i>De Arantxipi</i> .....	9 cargas
<i>De Jose de Oiarzabal</i> .....	3
<i>De Portuaga Fagoaga</i> .....	2
<i>De Ariztxulegi</i> .....	1 carga maisukabias
<i>A San Sebastián</i> .....	1 quintal de fierro

---

Burni hoiek dire marzoan eramanak Donostiara. Manuelek, Bordatxok<sup>65</sup> ta Juakintxok 6 *quintales*. Kontua bealzea aztu ta orañ harrapatu dut asientoa.

*Año de 1792 y junio.*

Fausto de Oiarbide *carretero*:

<i>De Arantxipi</i> .....	50 cargas
<i>De Pedro de Lekuna Gaztelu</i> .....	12
<i>De Joseph de Oiarzabal</i> <sup>66</sup> .....	13
<i>De Urdiñegi Irun</i> .....	6
<i>De Berentxiki</i> .....	10

---

*Año de 1792 y junio.*

Franzisko Antonio de Erribera:

<i>De Arantxipi</i> .....	13 cargas
<i>De Pedro de Lekuna</i> <sup>67</sup> .....	7
<i>De Jose de Oiarzabal</i> <sup>68</sup> .....	4
<i>De Portuaga Fagoaga</i> .....	2
<i>De Urdiñegi Irun</i> .....	2

<sup>63</sup> *Irripa* Oiartzungo bazterretxea da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 163).

<sup>64</sup> Ikus hiztegia.

<sup>65</sup> Etxe izengoitia dugu hau. Izen horretako bi baserri daude Oiartzunen, bata Iturriotzen eta bestea Ergoienen.

<sup>66</sup> Ondoan *suerte* idatzi du olajaunak.

<sup>67</sup> Honen gainean *Gaztelu* idatzi du olajaunak.

<sup>68</sup> Honen gainean *sue<sup>te</sup>* ‘suerte’, ‘zortea’ izkiriatu du Juan Bautista olajaunak.

De Berentxiki .....1  
Hernanira eraman ta ekarri haspo larruak

---

*Año de 1792 y junio.*

Sebastian de Antzanborda:<sup>69</sup>

De Arantxipi .....18 *cargas*

De Jose de Oiarzabal .....2

De Portuaga .....19

De Ariztxulegi .....1 *carga maisukabias*

---

*Año de 1792 y junio.*

Ramon de Berrondo *carretero*:

De Antonio de Etxeberria .....19 *cargas*

---

Juan Joseph de Unsain .....18

---

Sidro de Berrondo .....14

---

Baltaxar de Berrondo .....13

---

## 1792.06.12

*Año de 1792.*

Joseph Ignazio olaitzekoaren kontua.

*Desde 23 de setiembre hasta 12 de junio.*

23 de setiembre. Olatxoko kabiguña<sup>70</sup> sartu .....1½ *pezeta*

26 de setiembre. Olatxoko kabiguñ bat ta bi traba<sup>71</sup> 1 *pezeta* y 29½ *cuartos*

---

<sup>69</sup> Dokumentuan *sebastian de anchanborda* dago. Ikus honetaz gutunen sistema grafi-koari, fonetika-fonologia eta transkripziori eskaini atalean dioguna.

<sup>70</sup> *Gabi iguna* dugu hau, hots, burdinoleta gabi handiaren giderra. Berako 1676ko agiri batean ere (Urrizola, 2006: 265) azaltzen da *kabiguña*: «...eta aste onetan / *caviguña aussiriq bi egun galdu di/tut* [...]».

<sup>71</sup> Hau burdinolako beste peza bat da. Ikus hiztegian dioguna. Luzaideko burdinola bateko pezak aipatzen diren agiri batean «*Cavila para las travas de la Barquinera*» dauka-gu, hauspotegiko trabetarako kabila alegia (lodia gurea da; 1808, NEAN, 11382, 72).

30 de setiembre. 16 maisukabias grandes . . . . .	3 pezetas
28 de diciembre. Olatxoko kabiguña sartu . . . . .	1½ pezeta
3 de enero. Bi kabiguñ olatxokoak . . . . .	1 pezeta y 30 cuartos
15 de marzo. Olatxoko kabiguña sartu . . . . .	1½ pezeta
2 de abril. 200 cuñas . . . . .	7½ pezetas
23 de mayo. Ola handiko kabiguña sartu . . . . .	1½ pezeta
1 de junio. 16 maisukabias grandes y 16 chiquitas	4½ pezetas
7 de junio. Ola handiko kabiguña egiñ . . . . .	1 pezeta y 29½ cuartos
Olako irabazia . . . . .	26 pezetas y 21 cuartos
Arragoakoak . . . . .	15 pezetas
Armarioa 7 pesos y ½ . . . . .	28 pezetas y 4 cuartos
Ikatzen diruetan geldituak . . . . .	13 pezetas y 25½ cuartos
	<u>83 pezetas y 16½ cuartos</u>

Hoietarako hartuak ditu bost urretxiki zar<sup>72</sup> ta hamar ezkutuko bat;<sup>73</sup> gelditzen da harzeko . . . . . 16 pezetas y 32½ cuartos  
 Orañ ikatzak egin ditu 22 karga ta zaku bat lepalotua.  
 Guk jaso ditugu.

Despojoak<sup>74</sup> ez zituen iñork ukitu igandean. Esamiñak Txitxipitxik<sup>75</sup> eta Gregorioren lagunak egin dituzte, ta uzteko hobeak daude, noski, harzeko baño.

Olaberria, a 12 de junio de 1792.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1792.06.17

Leneko 70 ogien gañera, badituzte ola handian	
aste honetakoak, 22 panes; valen . . . . .	14 pezetas y 8 cuartos
Olatxoan 85en gañera 29 panes . . . . .	18 pezetas y 26 cuartos
Aste honetako ogiak . . . . .	33 pezetas
Larunbatarañokoak <sup>76</sup> . . . . .	100 pezetas y 10 cuartos

<sup>72</sup> *Urretxikia* diru baten izena da (*orillo* gaztelaniaz), eta *urretxiki zaharra* beste batena (*orillo viejo*).

<sup>72</sup> *Ezkutua* beste diru baten izena zen. Hemen *hamar ezkutukoa* dugu. Ikus hiztegia.

<sup>72</sup> Ikus hiztegia.

<sup>72</sup> Norbaiten izengoiti aski deigarria. *Txitxia* edo *zitxia* ‘haragia’ da haur hizkeran, eta izengoitia horren errepikapen aldatuxetik atera dela dirudi.

<sup>76</sup> ‘Larunbat artekoak’.

Todos panes . . . . .133 pezetas y 10 cuartos

Len 42 libra ta aste honetan 18 *libras de carne*

*valen* . . . . .15 pezetas y 30 cuartos

Lengo 39½zen gañera, aste honetan 12 *azumbres*

*y 3 quartillos valen* . . . . .43 pezetas y 1 cuarto

Carne y vino . . . . .58 pezetas y 31 cuartos

1792. Junio 17. Pagué los dichos arriba.

Sagar ardoaren<sup>77</sup> diruaz ere galdatu dute 137 pezetas y 32 cuartos, ta kaparena ta palankarena gelditu, ta gañerakoak. Palanka 17 libras.

*Esta cuenta hasta 9 de junio de 1792.*<sup>78</sup>

1792.07.02

*Desde 23 de febrero hasta 12 de junio.*

Olarako egin duen lanak dakar . . . . .26 pezetas y 20 cuartos

Lenbiziko ikatzen pagan geldituak . . . . .13 pezetas y 25½ cuartos

Arragoakoak . . . . .15 pezetas

Armarioa 7½ pesos . . . . .28 pezetas y 4 cuartos

83 pezetas y 15½ cuartos

Hoietarako ditu hartuak hamar ezkutuko bat

ta bost urretxiki zar baitira . . . . .66 pezetas y 19 cuartos

Gelditzen da harzeko . . . . .16 pezetas y 30½ cuartos

Ta orañ ekarri dituen ikatzak:

22 karga ta zaku bat lepalotua; importan . .56 pezetas

Olaitxekoaren harzekoa . . . . .72 pezetas y 30½ cuartos

Olatxoko hiruak dute launa aste.

Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaurgero nahiko dute noski.

Basoen dirua ostiralean beal beza; larunbatean bederetzigarren eguna izanen da entrega[t]zeko.<sup>79</sup> Olaberria, a 2 de julio de 1792.

<sup>77</sup> Gainerakoetan *sagardoa* agertzen da.

<sup>78</sup> Binperrean olajaunak egindako biderketa batzuk daude.

<sup>79</sup> Originalean *entrega / zeco* dugu, alegia, hitza bitan banatua dago, eta badaiteke *t* lerro bukaeran egoteagatik ez agertzea, baina ez da guziz segurua, JRMk normalean *-tzeco* ibiltzen badu ere.

1792.07.04

*Desde 8 de Julio hasta 4 de agosto.*

*En herrería mayor 86 panes valen . . . . . 55 pezetas y 22 cuartos*

*En la chiquita 69 panes valen . . . . . 44 pezetas y 22 cuartos*

*Panes . . . . . 100 pezetas y 10 cuartos<sup>80</sup>*

*En herrería chiquita 29 azumbres y 3 quartillos*

*valen . . . . . 26 pezetas y 8½ cuartos*

*1792. Agosto 4. Pagué.*

*Panes y vino . . . . . 126 pezetas y 18½ cuartos*

*Sagardoak balio zuen . . . . . 137 pezetas y 32 cuartos*

Kaparena gelditu ta palanka bat egin diotegu; 17 libras pisatu du, ta gañerakoak bealduko ditu. Olaitxeoak harzeko du 36 pezetas y 1½ cuartos, kon-tua egin genuenekoa.

Sagardo hoiek espensan zeñenzat zenbat<sup>81</sup> bealduko dut txartel bat; len ere bealdu nuen ta orduan asentatu ezpazituen.<sup>82</sup> *A 4 de julio de 1792.*

*Su servidor Joseph Ramón.*

1792.07.06

*Desde 9 de junio hasta 7 de julio.*

*En herrería mayor aste batean aritu dire Isasolako*

*Josepe igelea<sup>83</sup> ta Garatekoa ta meallea, ta<sup>84</sup>*

*haienak dire 13 panes. Valen . . . 8 pezetas y 14 cuartos*

*De 5 compañeros 54 panes valen 34 pezetas y 32 cuartos*

<sup>80</sup> Honen arabera 34 kuartok pezeta osatzen zuten. Bestalde, garbi ageri da ogi bakoitzak 1,57 pezeta inguru balio zuela. Geroago ogiak pezeta balio zuela dakusagu, beste gutun batean, prezioak aise aldatzen zirelako seinale.

<sup>81</sup> Hemen *den* edo antzeko aditza falta da.

<sup>82</sup> Hemen *ere* eskas dela irudi du, baina ez da nahitaezkoa.

<sup>83</sup> *Isatsa* baserriko burdinola izan da *Isatsola*, Oiartzunen; ikus Goikoetxea eta Lekuona (2007: 164). *Igele* burdinolarekin lotutako lanbide baten izena zen. EHK *ijele* biltzen du eta honela definitzen: ‘ola zaharretan, burdina xaflatzen zuen langilea’. OEHk *laminador*, *tirador*, *herrero* adierak ematen dizkio. Gutunotan *tirador* edireten dugu artetan gaztelaniaz, *igele* ugariaren ordaintzat. Ikus hiztegian dioguna.

<sup>84</sup> *Garate* Oiartzungo baserria dugu (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 144). *Meaile* ‘olagizonen morroia, arragoan erretako mea mailuarekin txikitzen duena’ dugu.

En herrería chiquita 111 panes . . . 71 pezetas y 28 cuartos  
Panes todos . . . . . 115 pezetas y 6 cuartos  
En herrería chiquita 60 libras de carne valen  
15 pezetas y 30 cuartos

Bigar hor jaia nola baita iñor izanen ez dela, gaur egiñ dut txartela hau,<sup>85</sup> bigarko ogiak ere sartuak dire.

Olaberria, a 6 de julio de 1792.

1792. Julio 6. Pagué 130 pezetas, 36 cuartos.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1792.07.28

Nagusi jauna:

Migel Fagoagakoak ekarri ditu lau karga ikatz, atarian enbor ta zurzaia-kin<sup>86</sup> egiñak. Olaberria, a 28 de julio de 1792.

*Su servidor Joseph Ramon de Minondo.*<sup>87</sup>

1792.07.28(datagabea)<sup>88</sup>

Nagusi jauna:

Antonio de Mitxelenak ditu 34½ karga ikatz bizkarrean ekarriak, olaren ondoko basotik.

Joseph Ramon de Minondo.<sup>89</sup>

1792.08.07

Nagusi jauna:

---

<sup>85</sup> Ikusten den moduan, erakuslea -a artikulua duen *txartela* hitzarekin batean ageri da. Honetaz ikus bedi izen morfologiari buruzko kapituluaren dioguna.

<sup>86</sup> OEHren arabera 'zuhaitza' da *zurzai* edo *zurtzai*, Iparraldeko hitza betiere. Ikus hiztegiaren dioguna.

<sup>87</sup> Jarraian olajaunaren apunte batzuk datoz.

<sup>88</sup> 1792.07.28ko gutunarekin batean zetorren, baina ez du datarik.

<sup>89</sup> Testuaren eta sinaduraren artean badira olajaunaren apunte batzuk.

Hemen ari diren berotzalle Martin, Markos ta Manuel Ignazio, hiruak diote –laugarrena ez da orañik ofizioan kapaz honetarako–, bada, hiru hoiek diote igande datorrenean<sup>90</sup> zorzitik aurrera ez direla lengo jornaletan ariko, Oiarzungo berozale guziak egondu direla elkarrekin bakoitzak bere nagusiari aditzera emateko, ta eskatzen dute Oiarzungo olatarako asteko bost pezeta, ta herritik kanpora atera ezkeru urretxiki zar bat. Ta errespuesta igande bitartea<sup>91</sup> nahi luketela, hoi en trabajuari merezi zaiola<sup>92</sup> jornal hau. Olaberria, *a 7 de agosto de 1792*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1792.10

*Año de 1792 y octubre.*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

*Carbones de Antonio de Etxeberria:*

Ramon de Berrondo	.....16 cargas
Juan Joseph de Unsain	.....16
Baltaxar de Berrondo	.....09
Sidro de Berrondo	.....09
Manuel de Retegi	.....22
Franzisko de Albiztur	.....02
.....	.....74 cargas <sup>93</sup>

*Carbones de Larrandi:*<sup>94</sup>

Ramon de Berrondo	.....17 cargas
Juan Joseph de Unsain	.....16
Baltasar <sup>95</sup> de Berrondo	.....12
Sidro de Berrondo	.....12
Manuel de Retegi <sup>96</sup>	.....11

<sup>90</sup> ‘Datorren igandean’. Ohart bekio hurrenkerari.

<sup>91</sup> ‘Igande bitartean’, ‘igande arte’.

<sup>92</sup> Arraroxko kausitzen dugu *zerbaiti merezi zaio beste zerbait* itzulia.

<sup>93</sup> Honen ondotik badira olajaunak egindako apunte batzuk.

<sup>94</sup> Oiarzungo aurkintza baten baino gehiagoren izena. Egun *Larraundi* (Goikoetxea eta Lekuona (2007: 213).

<sup>95</sup> Itxuraz *baltasar* dago originalean. Irudi du *i* txiki bat dagoela *s*-aren aitzinean, punturik ez duena, baina ez da guztiz argia. Zernahi gisaz, pertsona izen hau beste batzuetan ere azaltzen zaigu, gutunotan. Ikus sistema grafikoaz mintzo garen atalean dioguna.

<sup>96</sup> *Erretegi* Oiarzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 129; EJ).

Franzisko de Albiztur . . . . .01  
Sebastian de Olaziregi<sup>97</sup> . . . . .03  
.....72 *cargas*<sup>98</sup>

---

Hoietan bost karga otsabeharriak<sup>99</sup> dira.  
Ikatz jabearengat izanen dira 71½<sup>100</sup> karga.

1792.10.28

Nagusi jauna:

Senbollek<sup>101</sup> egin ditu:

Bakarrik . . . . .12 *quintales y 4 arrobas*

Domingorekin . . . . .202 *quintales*

Espensa pagatu behar du 18 *pezetas y 24 cuartos*

Olaberria, a 28 de octubre de 1792.

Joseph Ramon de Minondo.

1792.10.29

Nagusi jauna:

Tobera<sup>102</sup> erre da. Moztu ta estuturik sartu dugu; berria beharko da.

Senbollek egin du hiru lagunean<sup>103</sup> . . . . .12 *quintales y 4 arrobas*

Bost lagunean . . . . .202 *quintales*

Espensa pagatu behar du . . . . .18 *pezetas y 24 cuartos*

Urretxiki bat ta hiru pezeta ta erdi baditu nik emanak.

---

<sup>97</sup> *Olaziregibekoa* eta *Olaziregigoikoa* Oiartzungo bi baserriren izenak dira (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 251). 1499an «*La casa de Olaziregui*» ageri da (Irijoa eta Lema, 2011: 140-141) eta 1857an (NOPGI, 58) *Olaciregui Alta* eta *Olaciregui Baja* bazterretxeak.

<sup>98</sup> Honen aurretik bada olajaunak egindako apuntea.

<sup>99</sup> *Otsabeharriak*, *lepalotnuk* eta *kostalak* bezala, zakuak ziren. Irudi duenez, lotu eta ondoan zakuari otsoaren belarrien modukoak gelditzeari zor zaio izena.

<sup>100</sup> Jose Ramonek, erdi honetan, 1 eta azpiko marratxoa idatzi ditu, baina, nonbait, 2 izkiriartzea ahantzi zaio.

<sup>101</sup> Goitizena dugu *Senboll*.

<sup>102</sup> Hauspoetatik sutegira doan kono itxurako hodi modukoa. Ikus hiztegian dioguna.

<sup>103</sup> *Lagun* hau 'laneguna' da, ez 'laguna'.



Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena,<sup>104</sup> etorri da bere olatik oñeko miñak,<sup>105</sup> ta bere kontua eskatzen du.

Feliz igeleak eskatzen du .....5 *duros*

Mealleak .....2 *duros*

Irundarren basoko hasi berri honek .....4 *duros*

Zuloagako itzaiak<sup>106</sup> .....4 *duros*

Ibarburutxikikoak<sup>107</sup> .....2 *duros*

Ola handikoak espensatako len adiña eskatzen dute, 14 *duros*. Lengoeekin erdiak pagatu dituzte.

Erretazoak Gazteluko errekan dira bi porzio,<sup>108</sup> ta Zaldiriñan<sup>109</sup> 560 kargakoa; gaztaña tantaia len izaten zen<sup>110</sup> paraje honetan 190 karga.

Gazteluerrekako hoiek Seingoak pretenditzen ditu, dirua izaten badu behinztat, bat 440 karga, ta bestea 220 karga.

Olaberria, a 29 de octubre de 1792.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Orañik ez dira elizatik erakutsi.<sup>111</sup>

### 1792.11.03

*Desde 1 de octubre hasta 3 de noviembre.*

*En herrería mayor 91 panes valen ..... 53 pezetas y 18 cuartos*

*En herrería chiquita 101 panes ..... 59 pezetas y 14 cuartos*

*Panes todos ..... 112 pezetas y 32 cuartos*

<sup>104</sup> *Berotzailea*, alegia.

<sup>105</sup> Oineko minarekin etorri da, oineko minez.

<sup>106</sup> *Zuloaga* Oiartzungo baserria da.

<sup>107</sup> *Ibarburutxiki* Oiartzungo baserria da. Deizioaren bukaerako adjektiboa *Ibarburuaundi* izateari zor zaio, berezi beharrari.

<sup>108</sup> Gutunari xati bat falta zaio eta *porcio* hitzaren *c*-aren goiko aldea baizik ez da ikusten.

<sup>109</sup> *Zaldirin* (egun *Zaldin* laburtua) Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 315). Hemen Jose Ramonek txapeltxoa ezarri dio *r*-ari, nahasirik, eta gero, behar den bezala, baita *ñ*-ari ere. Deklinatzeko eraren kariatara, erka bedi *Goizariñan* ‘Goitzarinen’, *Irunan* ‘Irunen’ eta *Oiarzunan* ‘Oiartzunen’ formekin. Ikus inesibo kasua, izen morfologiari eskainitako atalean. NOPGIIn (60. or.), 1857an, *Zaldin* eta *Zaldin-berri* laborari etxeak ageri dira, eta gutunotan, lehenago (1791.12) *Zaldirin* eta geroago (1803.01.05) *Zaldin*.

<sup>110</sup> Originalean *den* daukagu.

<sup>111</sup> ‘(Gauza hauek) oraino ez dira pulpitutik aipatu, ez dira publiko egin’. Horrelako berriak elizan ematen ziren aditzera, baita herriko bandoak ere, Satrustegik (1996: 301) argitaratu emandako Goizuetako udal ordenantzetan ikusten den bezala.

<i>En herrería chiquita 49½ libras de carne</i>	
<i>valen</i> .....	11 pezetas y 22 cuartos
<i>Abadejo 16 libras valen</i> .....	04 pezetas
<i>Aceite 4½ libras valen</i> .....	03 pezetas y 15 cuartos
<i>Vino 4 azumbres valen</i> .....	03 pezetas y 18 cuartos
<i>Sidra 77½ azumbres de 6 cuartos</i>	
<i>Sidra 34 azumbres de 5 cuartos</i>	
<i>Sidra 70 azumbres de 4 cuartos</i>	
<i>Valen todos</i> .....	26 pezetas y 31 cuartos
	<u>49 pezetas y 18 cuartos</u>

Senboll hemen aritu<sup>112</sup> den denborako espensa bost laguneko espensako diruetatik pagatzen da, eta ogiak ere honetan sartu ditut.

Senbolli kargatzen zaiona Garatekoari arinduko zaio kontuetan.

Martin berozalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen, Errenteriara eta Ereñazura juan gabe gelditu dela berorren zalanzen, ta berorrekin bere mesedetan ez dagoela, honela dagoen artea zorrak ez dituela gutxiago egiñen. Olaberria, a 3 de noviembre de 1792.

*Su servidor Joseph Ramón.*

## 1793.02.26

Nagusi jauna:

Sanjuane<sup>113</sup> hor esan du noski<sup>114</sup> gure suertean<sup>115</sup> zenbat kargaren entresaka<sup>116</sup> egin duten, ta horiez gañera Olaandittuko<sup>117</sup> dotazioan egin da

<sup>112</sup> Hemen *aritu*-ren bigarren silaba zirriborratua dago, ongi irakur badaiteke ere, JRM nahasi delako edo idazketa behar bezain argia iruditu ez zaiolako. Ondoren, berriz *ri* izkiriari du gainean.

<sup>113</sup> Gero *Sanjuan Txuta* azaltzen da, hau berau segur aski. 1796.10eko eta 1806.11.02ko gutunetan *ssan Juan*, *Ssan Juani* dago, seinale *Xanjuan* esaten zutela. Ikus bedi grafiari eta fonetika-fonologiari eskainitako atala.

<sup>114</sup> Tita bat bada, eta *o* ez da ongi ikusten.

<sup>115</sup> *Suerte*a edo *zortea* herriko etxean zotz eginda norbaiti egokitzen zaion lur edo baso puska da, denbora tarte batez ustiatzekoa.

<sup>116</sup> ‘Bakanketa’, ‘mehazketa’ (EH). *Entresaka* egitea basoan zuhaitz batzuk botatzea da, eta besteak uztea, zuhaitzak bakantzea beraz.

<sup>117</sup> *Olanditu* Oiartzungo mendia da. Testu hauetan hiru aldiz gutxienez bi *a*-rekin azaltzen da. Aintzat har bedi 1512an *Olagonditu*, *Olaganditu* (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 187, 191) eta 1741ean (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 251) *Olaganditu* dokumentatzen dela. Hemen *t* letrak gainean tileta darama, seguruenik palatalizazioa adierazi nahi zelako. Ikus grafiari eta fonetika-fonologiari eskainitako atalean dioguna eta hurrengo oin oharra.

hamabi kargaren entresaka. Hau Maxalenek<sup>118</sup> egin, esaminatu du, ezkutu erdi bana karga; dirua eskatzen dute. Pagué 22½ pezetas 27 febrero.

Anatxuriren perrazalleak<sup>119</sup> eskatzen du perra burnia, ta emanen zaion edo zenbat pagaraziko diogun gaztiga beza.<sup>120</sup>

Olaberria, 26 de febrero de 1793.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Kintal bat eskatzen du; diruarekin etorriko dela dio.

### 1793.04.01

*Desde 3 de marzo hasta 30 de [...]*<sup>121</sup>

*En herrería chiquita*<sup>122</sup> 44 panes de 22

*cuartos y 22 de 26 cuartos valen . . . . .45 pezetas y 10 cuartos*

*18 libras de aceite a 28 cuartos . . . . .14 pezetas y 28*

*Medio arroba de abadejo de San Sebastián 03 pezeta*<sup>123</sup> y 29½

*y 6 libras a 14 cuartos valen . . . . .02 pezeta y 16 cuartos*

*Panes, aceite y abadejo todos . . . . .66 pezetas y 15½ cuartos*

Ola handiko espensarenzat<sup>124</sup> leneko<sup>125</sup> hillean berorrek pagatu zituen

*34 panes a 22 cuartos valen . . . . .22 pezetas*

Hoiena gutxiago bealzea du.<sup>126</sup> Nik geldituko

*dietet kintala/etik*<sup>127</sup>

44 pezetas, 15½ cuartos

<sup>118</sup> *Masalen* Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 231). S-ren gainean komatxo bat du, ziurrenik palatalizazioa adierazteko. Ikus gutunen sistema grafikoa aztertzean dioguna. 1857ko NOPGIIn (58. or.) *Machalen* idatzia dago.

<sup>119</sup> *Anatxuri* Oiartzungo baserria da berez, nahiz hemen etxe izengoitia dugun; honetaz ikus Salaberri eta Zubiri (2009). Goizuetan lehen *Añatxuri* etxe edo baserria zegoen (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 39).

<sup>120</sup> ‘Gaztiga beza berorrek’.

<sup>121</sup> Dokumentuari zati bat falta zaio.

<sup>122</sup> Normalean artikulurik gabe, gaztelaniaz hori aski bitxia bada ere. Euskaraz *olaxoa* da.

<sup>123</sup> Testuan, lerro honetan eta hurrengoan, *pez.<sup>a</sup>* aldaera laburtua dago, *-s-rik* gabea.

<sup>124</sup> ‘Gasturako’, ‘gastuetarako’.

<sup>125</sup> ‘Lehengoa’, ‘aurreko’.

<sup>126</sup> ‘Aski du hauena –ordaindu zituenak– gutxiago bidaltzea’, ‘hauena gutxiago bidal dezake’.

<sup>127</sup> ‘Nik geldituko diet kintaletik’, hots, ‘nik kenduko diet kintaletik’. Originean *quintala/eti*q du.

Olatxoko sagardoa ematen duenak eskatzen du hogei ezkutuko bat, ta [...] <sup>128</sup> Migel Aranguangoak <sup>129</sup> ta Felipe Iturriotzkoak (*sic*) <sup>130</sup> ikatzen dirua jaietako <sup>131</sup> nahi luketela. Olaberria, *30 de marzo de 1793*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Erretazoak <sup>132</sup> inportatzen du *50 cargas, 18 cuartillos*

Tantoa <sup>133</sup> *6½ cuartos* ta probestuaren <sup>134</sup> pezeta gañera

Guziak inportatzen du . . . . . *342 reales y 2½ cuartos vellón* <sup>135</sup>

Suerteza ez dute paratu jaietan. Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak <sup>136</sup> behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna, ta jakiñen duela zer modu den.

Askorastikoak <sup>137</sup> eskat[z]en <sup>138</sup> du *3 duros*

Olatxeko Joseph Ignaziok . . . . . *2 duros*

Begitoren <sup>139</sup> semeak ta bere lagunak <sup>140</sup> artotako <sup>141</sup> zerbait behar dutela. Olaberria, *1 de abril de 1793*.

<sup>128</sup> Dokumentuaren zati bat falta da.

<sup>129</sup> *Aranguren* Oiartzungo baserrikoa, seguruenik. 1386an burdinolatzat ageri da *Aranguren* (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 8). Aintzat har bedi 1514an *Petri de Aranguren* azaltzen dela *Aranguran* etxean (*ibid.*, 289), eta aurrerago *Petri de Aranguran* daukagula (*ibid.*, 297, 301, 305, 432; letra lodia gurea da). Irudi du, beraz, bokal irekitzea zaharra dela hemen.

<sup>130</sup> *Iturriotz* Oiartzungo auzoa eta etxea da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 167).

<sup>131</sup> 'Jaietarako'.

<sup>132</sup> Gaztelaniazko *retazo* 'puska, zatia' hitzaren euskaratzearen ondorioa da *erretazoa*. Baso puska-edo adierazten du. Ikus hiztegia.

<sup>133</sup> 'Edaria' erran nahi duela dirudi, bestetako *tanta* bera, izan dadin sagardoa, ardoa nahiz pattarra.

<sup>134</sup> *Probestua* 'almirantea' ('albintea'), 'herrizaina' da.

<sup>135</sup> Gaztelaniaz *vellón* honek zilar eta kobre aleazioz egindako antzinako dirua izendatzen du, baita kobre hutsez egindakoa ere.

<sup>136</sup> Hemen, *Irungo* eta *burniak* artean olajaunak egindako apunte hau dago originalean: «*1793 Abril 2 Pague los... 342 R<sup>s</sup> y 3½ qu<sup>s</sup>*».

<sup>137</sup> *Askorasti* Oiartzungo baserria da.

<sup>138</sup> Originalean *escaten* dago.

<sup>139</sup> *Begito* edo *Begitto* norbaiten goitizena zen. Badaiteke A. M. Mitxelenak (2020b: 101) Erantsungo Asura burdinolako dokumentazioan jasotzen duen Elizondoko *Miguel de Arizcun y Beitorena* delakoarekin loturik egotea, baina ez dakigu hala den, Baztango oikonomioak goitizena duen tarteko g hori eskas baitu. Ondarrak (1984: 22) *Veittorena* dakar Elizondon, eta *Beitorena* edo *Beitonea* Baztango herriburuko etxea da oraino (*Doike* Eskuara Taldea, 2005: 33); *Beito* edo *Beitto* hangoen etxe izengoitia izan zitekeen. *Pei(t)to* hipokoristikoa da euskaraz (ikus P. Salaberri, 2009: 199).

<sup>140</sup> Hemen originaleko *ta bere lagunaq* goratua dago, JRMk lehenbizi ahantzi eta gero idatzi duelako.

<sup>141</sup> 'Artoa erosteko'.

1793.04.22

Nagusi jauna:

Suerte hartu diet 16 kuartilluan;<sup>142</sup> 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan paratuko dutela, nahi duenak hartu, ez dutela berago jaitsiko esan didate. Paratu dute hamaseian ta hartan itzali da,<sup>143</sup> ta erreal bat eman diot. 3.600 karga 16 kuartilluan, tantoa erreal bat, ta hamaikatakoan gastatu da 6 *pezetas y 25½ cuartos*.

Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera jua naizanean, gastu puxka<sup>144</sup> bat gehixeago<sup>145</sup> izanen dudala noski, arratsaldeko<sup>146</sup> haragi puska bat maneazeko<sup>147</sup> agindu dutela sagardotegian.

Ta jua naiz ni ere itzaiiaz modurik izanen ote den burni hoiek eramateko, ta ez didate esperanzarik eman,<sup>148</sup> ta berenduaz<sup>149</sup> ez didate berak deus esan, ta nik ere ez. Gastu hoiez<sup>150</sup> gañera probestuaren pezeta.<sup>151</sup>

Indianoak<sup>152</sup> gaztigatu dit parte nahi lukeala suertetik, ta nik gaztigatu diot berorregana eskribi dezala, ta bealdu du karta ~~igandean goizean~~ (sic) atzo goizean. Gaztigatu du hartu baño lenago, baldin berok<sup>153</sup> pretenditzen badute, nola nahi lukean. Olaberria, 22 de abril de 1793.

*Su servidor Joseph Ramón.*

<sup>142</sup> *Kuartilua*, beste diru bat, beraz. RAEren arabera, *cuartillo* errealaren laurdena balio zuen txanpona zen; Larramendik eta Añibarrok ere balio hori berori ematen diote (OEH).

<sup>143</sup> 'Itzali da kandela', kandela edo argizari enkantea baitzen hau. Ikus hiztegia.

<sup>144</sup> Originaleko hitz honetako *s*-ak azentu modukoa du ganean, itxuraz palatalizazioa adierazteko.

<sup>145</sup> Gutunean *gueiseago* dago, baina *i*-a ez da kasik ageri.

<sup>146</sup> 'Arratsalderako'.

<sup>147</sup> 'Prestatzeko'. Goizuetan gaur egun *manetu* entsalada, eltzea edo lurra *manetzen* dute, baina ez haragia. Garbi dago, beraz, murriztu egin dela aditzaren erabilera. Ikus hiztegia. Formaz denaz bezainbatean, arruntean *-tzeco* erabiltzen du JRMk, aitzinean ozenik ez badago.

<sup>148</sup> Gutunotan hagitz garbi agertzen da burdinolan itzain falta handia zegoela, beti kexu azaltzen baita Jose Ramon.

<sup>149</sup> 'Atsalaskariaz'.

<sup>150</sup> Paragrafo honetako *hoiek* eta *hoiez* lehen graduko erakusleak dirateke, hots, batuko *hauek* eta *hauez*. Ikus izen morfologiari eskainitako atalean dioguna.

<sup>151</sup> Ematen du zortea ikustera joaten zirela, eta ohikoa zela hamaiketako hartzailearen gain gelditzea, baita probestuari (pezeta bat batzuetan, gutxixeago besteetan) ordaintzea ere.

<sup>152</sup> Etxe izengoitia dugu hau. Ikus onomastika atala.

<sup>153</sup> Ez da garbi ikusten zein den *berok* horren erreferentea; Indianoa eta honen taldekoak?

### 1793.06.Hasiera

*Año de 1793.*

*Desde 28 de abril hasta 29 de mayo.*

*104 quintales en trecho y planchuelas.*

*065 quintales y 2 arroas y un día componiendo yunque<sup>154</sup> los cinco compañeros.*

Antonio maisuaren espensa partea da *10 pezetas y 2½ cuartos.*

Ola handitik ari diranean kuartillua gehiago omen da usuarioa,<sup>155</sup> ta mealeari asteko ezkukurako eskas ateratzen zaio, *3½ pezetas*, ta leneko kontualdian ere eskas zuen *2 pezetas* honenaren behar ez al dela,<sup>156</sup> ta ezkutura falta zazkion hoiek eman nahi balitu, gatzigatzeko esan dit. Erremienta egiteko eguna ezkutu erdia kontatzen zaiola ditu falta hoiek. *31 mayo 1793 pagué.*

### 1793.08.26

*Desde 18 de julio hasta 23 de agosto se ha hecho 98½ quintales de planchuelas y 50 quintales de trecho. Olaberria, 26 de agosto de 1793.*

Maisuaren espensa partea da *21 pezetas y 6 cuartos.*

### 1793.08.31

Antonio maisuak ta anaie Josek pisatu dituzte *27 quintales y 5 arroas*

Hasiak<sup>157</sup> ta meakak . . . . . *20 quintales*

Hoietarako<sup>158</sup> hartuak dituzte . . . . . *5 duros*

Askorastiko Fermiñek eskatzen du . . . . . *20 pezetas*

Pello ta Sebastian irundarrak . . . . . *20 pezetas*

---

<sup>154</sup> 1798.01.02ko eta 1800.03.08ko gutunetan ere aurkitzen dugu. Erdarazko *yunque* ‘ingudea’-ren partez dago hemen, alegia, ‘ingudea konpontzen’ (cfr. *erremientak konpondu / componer remienta*) adiera du. Ikus hiztegia.

<sup>155</sup> «Langileari (mealeari) kuartilua gehiago ordaintzea da usadioa» esan nahi duela dirudi.

<sup>156</sup> Ez da guztiz pasarte argia.

<sup>157</sup> Burdin soberakina da *baxia*. Ikus hiztegia.

<sup>158</sup> ‘Hauetarako’. Goizuetan egun *hoietarako*, *hoietako*, *hoitarako* edo *hoitako* esaten da (*b* ez da ebakitzen, jakina). Ikus izen morfologiari eskainitako atalean dioguna.

Pepe Olaizkoaren semeak<sup>159</sup> .....6 *duros*  
 Luis Zuloagakoak .....12 *pesos*  
 Martintxuriko Josek<sup>160</sup> edo haren mutillak  
 zaldaletako .....20 *pezetas*  
 Goizean Sebastianekin gaztigatu dut Zuloagakoaren mandatua.  
 Olaberria, 31 de agosto de 1793.

*Su servidor Joseph Ramón.*

*Desde 2 de agosto hasta 31 de agosto.*  
*En herrería chiquita 20 panes valen .....16 pezetas y 16 cuartos*  
*7 libras de aceite .....05 pezetas y 26 cuartos*  
*Abadejo 3½ libras a 14 cuartos .....01 pezeta y 15 cuartos*  
*23 pezetas y 23 cuartos*<sup>161</sup>

### 1793.11.Bukaera

*Año de 1793 hasta 25 de noviembre.*

Ola<sup>162</sup> handian egin dute .....132 *quintales* y 2 *arrobas*  
 Espensa egin dute .....119 *pezetas* y 2 *cuartos*

Mealreak ditu hiru aste ta egun bat, leneko arragoan lau aste egun bat gutxiago, bi arragoetan zazpi aste.

Nik emanak baditu 8 *pezetas* y 11½ *cuarto*.

Ignazio Ezponda<sup>163</sup> .....132 *quintales*, 2 *arrobas* a 27 12 *reales*, 3 *reales*, 9<sup>164</sup>

Tomas Portalezakoa<sup>165</sup>

Fundidor Juansendo<sup>166</sup> ...*expensa a los 6 compañeros*, 5 *reales*, 2 *reales*, 6

Fundidor Manuel

Con rebaja de la *expensa* corresponde a cada uno 7 *reales*, 1 *real*, 3

1793, diciembre 20. Pagué a los 4 *compañeros* a cada uno.

<sup>159</sup> Olaizarre, Olaiz dokumentazioan, Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 249).

<sup>160</sup> Martintxuri Oiartzungo baserria dugu (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 231).

<sup>161</sup> Honen ondoren olajaunak egindako zenbait apunte ageri dira, guretzat holako interresik ez dutenak.

<sup>162</sup> Originalean *óla* azentudun forma dago.

<sup>163</sup> Olajaunaren izkirioa dugu hau.

<sup>164</sup> Gutunean «12 R<sup>s</sup> 3 R 9» dago.

<sup>165</sup> Fortaleza (edo Portaleza dokumentazioan, artetan) Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 141; EJ).

<sup>166</sup> Juansendo(rena) Oiartzungo baserria zen, eta Juansendo bertakoa. Ikus 1794.04.19ko gutunean dioguna.

1793.12.18

1793

*Sidra de Fausto de Makuso*<sup>167</sup> olaizarra <sup>168</sup>  
*Desde 12 de febrero hasta 18 de diciembre.*  
*1.038½ azumbres a 5 cuartos, importan 152 pezetas y 24½ cuartos*  
 Honetarako emanak dira *15 duros*  
 Zugarotzarenzat<sup>169</sup> bealdu zituenak badira  
 (hemen ez zen agertu) ..... *.8 duros*  
*15 y 8* ..... *son 23 duros*  
 Gañerakoa falta da ..... *.30 pezetas y 18½ cuartos*<sup>170</sup>  
 Antonio maisuak eskatzen du beretzat ..... *.10 pesos*  
 eta Musketenzat<sup>171</sup> ..... *.20 pesos*  
 Anaia Josek ..... *.08 pesos*  
 Pepe Olaizkoak ..... *.20 pesos*  
 Gaztelun hasi den lantegi honek ere  
 zerbait bealzeko.

Gregorio ta Motela<sup>172</sup> semearekin ta ni izandu gera<sup>173</sup> Belearn<sup>174</sup> basoan, ta Belea han zen bakarrik, ta esan genion zertara juañ gñan, ta lan egiña esamiñatu zuen Gregoriok. Ta Motelak eskatzen du, botea libre,<sup>175</sup> pezeta bat

<sup>167</sup> Oiartzungo *Makutso* dorrea edo jauregia izan zen (Irijoa eta Lema, 2011, XX), baita errota ere. Egun baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 227).

<sup>168</sup> Oiartzungo *Olaiz* edo *Olaizarre* baserri izenean oinarritutako etxe izengoitia dugu hau. Ikus Goikoetxea eta Lekuona (2007: 246).

<sup>169</sup> *Zugarotza* ‘zur arotza’ da, ‘zurgina’ alegia. Goizuetan ez da ele hori ibiltzen, egun. 1822ko Berako testu administratiboan ere (Santazilia eta Taberna, 2019: 828; izkirio lodia gurea da) ageri da hitza, nahiz itxuragabetuxe: «...*icusten duzuben bezala, zugatcetan, arguiñetan eta bertce guciyetan*».

<sup>170</sup> Hemen «*falta da*» eta «*30 pezetas*»-en artean olajaunak idatzia hau agertzen da: «*19 diziembre 6 du<sup>s</sup>*» ‘abenduaren 19an sei dukat’.

<sup>171</sup> *Musket* norbaiten ezizena da: oinarrian, segur aski *musket* ‘mosketea’ dagoke.

<sup>172</sup> Norbaiten goitizena, motela zelako segur aski, zentzu batean edo bestean. Batzuetan, hala ere, antifrasiak ere badira ezizenetan, hau da, eramaileak duen ezaugarriaren aurkakoa paratzen da goitizentako. Kasu honetan arrunt bizia zela adierazi nahiko zuen, antifrasia bazen.

<sup>173</sup> Ikus honetaz aditz morfologiari eskaini atalean dioguna.

<sup>174</sup> *Belea* hemen lagun baten goitizena da.

<sup>175</sup> Hemen ‘botatzea libre’ dugula dirudi, hau da, eskatzea librea dela, nahi adina eska daitekeela. Ikus hiztegian dioguna.



plazeria.<sup>176</sup> Nik esan diot berorrekin konpon dedilla. Beleak esan dit semeari esan diola nola izandu geran, semeak eranzun diola basoko irabaziarekin eziñ pasa daitekeala hura, ta nahi duguna egiteko. Ta orañ Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik; gañerakoa, lau zulo badira,<sup>177</sup> haiek Motelak har ditzala. Orañ Motela horrara<sup>178</sup> heldu denean konponduko da nahi duen bezala. Olaberria, *18 de diciembre de 1793*.

1794.04.19

Nagusi jauna:

Ola handikoak egin dute espensa:

Sei lagunean<sup>179</sup> . . . . . 103 pezetas y 22 cuartos

Bost lagunean<sup>180</sup> . . . . . 066 pezetas y 28 cuartos

Guzia da ...5 mayo pagué dichos . . . . . 170 pezeta y 16 cuartos

Espensa maisuarena atera ta gelditzen zaio ola handiko bakoitzari 30 pezetas y 21½ cuartos.

Burnia egin dute 140 quintales y 1 arroba.

Kabiguña sartu: ezkutu bat.

Heldu zaio irabazia bakoitzari, espensak pagatuta, 19 pezetas y 2 cuartos.

21 día<sup>181</sup> pasatu dituzte trabajatzan.

Sebastian Juansendok<sup>182</sup> sei egun ditu trabajatuak.

Mealleak ditu 22 días, bost eguneko astea honenzat oso dela. (*Vuelta*)

---

<sup>176</sup> *Fazeriak, Pazeriak* edo *Plazeriak* ‘elkarrekikoak’ ohi dira, hau da, eskuarki bi herriren arteko lur amankomuna, biek ibil dezaketena, larretako, alhapidetako. Gutun hauetan, alabaina, ‘baso puska’-edo dela dirudi, enkantean ateratzen zena. Ez dakigu, nolana ere, xuxen zer esan nahi den esaldiarekin. Hau apika: «*Motelak, eskatzea libre baita, plazeria pezeta batean ateratzea eskatzen du*».

<sup>175</sup> Lau ikaztobi, hots, lau ikatz hobi.

<sup>176</sup> Honelako forma pleonastikoak ohikoak dira Goizuetan. Egund *honara, horrara* erabiltzen dira, baina *hara*, ez \**harara*. Ikus hiztegian dioguna, *honara, horra, horrara* sarreretan.

<sup>177</sup> ‘Sei lanegunean’.

<sup>180</sup> ‘Bost lanegunean’.

<sup>181</sup> Erdarazko bukaerako -s pluralgilea falta zaio.

<sup>182</sup> *Juansendo* etxe izengoitia da, *Juansendorena* Oiartzungo baserria izan baita (Goikoetxea eta Lekuna, 2007: 171). NOPGIn (1857: 57) *Juan Sendon-echia* baserria eta *Juan Sendon-errota* eihara izena ditugu Oiartzunen.

Zorzi urretxikitatik 6 anega ta bi lakadi a 9 cuartos pagatu zaio,<sup>183</sup> ta sobratu ziran ola handikoen babatako 16 pezetas y 19 cuartos. Hoiien gañera bealduko du espensan dirua.<sup>184</sup>

Munoako itzaia<sup>185</sup> egondu zen Patxikorekin.

Zuloakoak<sup>186</sup> idiak trukatzeko modua duenean behar duela dio dirua.

Yokasegururen seme itxean duenak<sup>187</sup>

baditu lan egiñak .....200 quintales

Anaia ezkonduak .....060 quintales

Arraskuakoak<sup>188</sup> .....078 quintales

Ta egurrak .....9 leras

Arragoa deskargatzen sartu dira olatxeoaz kanpora 7 días.

Importan 42 reales.

Maxalenek<sup>189</sup> lenekoan 13½ pezeta, ta gañera eskatu zuela 40 pezetas, ta guzia eman zitzaion, 40 pezetas.

Orañ eskatzen du .....13½ pezetas

Gaur ez bealzekotan, bigar ez bealdu neregana dirurik; bigar herriraño agertu behar nuke.

Olaberría, 19 de abril de 1794.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1794.06.07

*Carbones de Sebastian de Lekuna. He recibido 188 cargas y 1 otsabeharria. Olaberria, 7 de junio de 1794.*

Jose Ramon de Minondo.

<sup>183</sup> Eskutitzean, goraturik (ahantzi eta gero idatzi duelako), zaya dago, ez zayo.

<sup>184</sup> 'Hauetz gainera bidaliko du (berorrek) espentsaren dirua'. Hau honela ere puntua daiteke: «...ta sobratu ziran ola handikoen babatako 16 pezetas y 19 cuartos hoiien gañera bealduko du espensan dirua».

<sup>185</sup> Oiartzungo bazterretxea da *Munoa*, Ergoiengoa (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 243). 1499an *la casa de Bunoa* ageri da (Irijoa eta Lema, 2011: 43) eta 1857an *Munúa* (NOPGI, 58).

<sup>186</sup> 'Zuloagakoak'. *Zuloaga* Oiartzungo baserria da.

<sup>187</sup> *Yokaseguru* lagun baten goitizena da. Ohart bekio buru izena aurreratua duen erlatiboari eta ikus bedi joskerari eskainitako atala.

<sup>188</sup> *Arraskue* Oiartzungo kaleko etxea da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 86), aspaldikoa gainera. 1499an *don Miguell de Arrascue* zen bertako bikarioa, eta *Martie de Arrascue* herriko bizilaguna (Irijoa eta Lema, 2011: 5, 8).

<sup>189</sup> Originalean *massaleneq* idatzia. Ikus grafiari eskaini atalean dioguna.

Nagusi jauna:

Antonio de Telletxeak esan zuen zerbait hutsegiña izandu zutela kontuetan,<sup>190</sup> ta Kosme de Lekuna mutill horrenzat lenbizian bealduak badira zeñbait karga, ta bien artean dute honara aberekin egin duten lan guzia:

Suertetik . . . . .	.82 <i>cargas</i>
Sarobekoaren <sup>191</sup> ikatz ito Madarimotzekotik <sup>192</sup>	10 <i>cargas</i>
Kausuatik <sup>193</sup> . . . . .	.31 <i>cargas</i>
Tornolatik egurra . . . . .	.02 <i>cargas</i>

1794.06.10

Nagusi jauna:

Gaur ere arratsaldean bilzekoak gera Elizaldera.<sup>194</sup> Hiru terzioak hiruna behar omen dugu. Len aldiatzka<sup>195</sup> bezala orañ guziak batean, ta len ordañakoa franko izaten da<sup>196</sup> han dabilzan haietan, baño orañ, guziak behar diran honetan, ez da hañ aisa billatuko.<sup>197</sup> Ta hemen libratzeko modua harzen dute askok: egitekoak dituztela bazterretan, ta aziendakin, ta iñor ez dutela haiek maneatzeko,<sup>198</sup> ta horrela.

Ta eskribitu bizio be[ro]rrek<sup>199</sup> Sarastiri<sup>200</sup> ea libratzeko modurik izan ote daitekean guretzat.

<sup>190</sup> Gutunean *contuetan* goraturik dago.

<sup>191</sup> *Sarobe* edo *Saroe* Oiartzungo bazterretxea da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 281). *Ikatz itoa* ikatz motaren bat izanen zen, baina ez dugu beste inon ediren.

<sup>192</sup> *Madarimotxa*, Oiartzungo baserria. Goikoetxea eta Lekuonak (2007: 222) diote aztertu dituzten dokumentuetan –berrogeitik goiti omen dira– txanda bakar batean baizik ez dela agertzen z (*Madarimozco-gaña*). Beste guztietan *ch* digrafoa azaltzen omen da, haien ustez egungo *tx*. Hola izanen da, baina hemen, euskaraz idatzitako gutunean, *tz* garbia daukagu. Bistan da *Madarimotzeko ikatz itotik* esan nahi duela; ikus hitz hurrenkerari eskaini kapitulua.

<sup>193</sup> Oiartzungo aurkintza da *Kausua* (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 175). Segur aski 1499an (Irijoa eta Lema, 2011: 50, 160) ageri den *Casuevaracue*, *Casuevaraque* toponimoaren lehen zatiaekin identifikatu beharko da.

<sup>194</sup> Oiartzungo auzo nagusia de *Elizalde*.

<sup>195</sup> ‘Txandaka’, ‘aldizka’. *Aldiaka* aldaera ongi dokumentatua dago gure literaturan (ikus OEH).

<sup>196</sup> Hemen *izaten zen* espero genuen.

<sup>197</sup> ‘Aurkituko’. Gipuzkoako eta bestetako erabilera ohikoa da hau, *bilatu* ‘bilatu’ nahiz ‘aurkitu’ baita erdialdeko euskaldun frankoendako. Goizuetan ere hola. Eta ez da orain-tsuko kontua, gutunotan edota Iztuetaren lanean ikus daitekeen moduan.

<sup>198</sup> ‘Lan egiteko’ edo ‘lantzeko’, ‘prestatzeko’, testuinguruaren arabera.

<sup>199</sup> ‘Idatz biezaio berorrek’. Originalean «*escrivitu bizio be / rrek*» dago.

<sup>200</sup> *Sarasti* Oiartzungo baserria da, eta hemen baserri horretako norbait, antza.

Egun goizean olatxo ez dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldur-  
rrak, jaiardia nola baitzen hasi-ta lana eskastuko dela.

Olaberría, 10 de junio de 1794.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Bigar goizean gosariteko (*sic*) diña baba da hemen; beal beza.<sup>201</sup>

### 1794.08.26 ingurukoa

*Año de 1794 y 26 de agosto.*

*Cuenta de los bueyeros*<sup>202</sup> de Olaberría.

Franzisko de Irigoien Munoakoa:

Errenteriatik mea	.428½ quintales
Burnia	.275 quintales
	<hr/>
	703½ quintales
Irungo mea belzatic	.15 quintales y 1 arroba
Errenteriatik babatan bi yorrada <sup>203</sup>	
Kabiguñatan <sup>204</sup> egun bat	
Arrago egurrak	.11 leras
Alzibertik <sup>205</sup> tretxutan	.7 jornadas

*Año de 1794 y 26 de agosto.*

Luis de Lekuna Zuloagakoa:

Errenteriatik mea	.365 quintales
Burnia	.232 quintales
	<hr/>
	597 quintales
Irungo mea belzatic <sup>206</sup>	.021 quintales

<sup>201</sup> 'Baba (gehiago) bidal beza'.

<sup>202</sup> *Boyeros* edo *itzainak*.

<sup>203</sup> 'Bi itzuli', 'bi ostera'. *Jorrada* hau erdarazko *jornada* bera da hemen, adieraz eta etor-  
kiz. Ohikoa da oraindik Goizuetan.

<sup>204</sup> *Kabi-iguina* dago oinarrian eta 'kabi-iguin garraioan' esan nahi du, beste batzuetako *kabigunketan*-ek bezala. EHren arabera, *gabi* eta *igun* gauza bera dira, burdinoletako mailu handia. Gutunotan, ordea, *kabiguñ* (< *kabi* + *iguin*) azaltzen da arruntean, eta zentzuzkoe-  
na *kabi* 'gabia' eta OEHN biltzen den *iguin* 'giderra', 'kirtena' ditugula pentsatzea da, ale-  
gia, ez dela adiera bereko bi hitzek osatu elkartua. Gaztelaniaz bigarrenari, *kabiguña*-ri,  
*mango* esaten zaio eskutitzotan. A. M. Mitxelenaren (2020b) lana ikusita ondorio bera ater-  
ratzen da.

<sup>205</sup> Oiarzungo *Altzibar* auzo izena dateke honen oinarrian. Bitxi da, alabaina, eskuti-  
tzotan beti -e-dun aldaera aurkitzea.

<sup>206</sup> Honen inguruan ikus bedi izen morfologiari buruzko kapitulua.

Errenteriatik babatan bi yorrada	
Arrago egurratan <sup>207</sup> . . . . .	17 leras
Lizarditxabaltik <sup>208</sup> egurratan	3 días
Alzibertik tretxutan . . . . .	7 jornadas <sup>209</sup>

1795.04.09

*Año de 1795 y enero y febrero.*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

Franzisko Pastor *carretero leñas:*

*De Gaztelu . . . . .14 cargas*

*De Tornola . . . . .10*

---

Franzisko Antonio de Ribere<sup>210</sup> *carretero leñas:*

*De Gaztelu . . . . .15 cargas*

*De Tornola . . . . .05*

---

Sebastian de Anzanborda<sup>211</sup> *carretero leñas:*

*De Gaztelu . . . . .14 cargas*

*De Tornola . . . . .04*

*De Otsamintegi<sup>212</sup>*

*a Gaztelu itxola . . . . .1 carga*

---

<sup>207</sup> Ikus izen morfologiari eskaini atalean honetaz dioguna.

<sup>208</sup> *Lizarditxabal* hau baserria edo aurkintza zen, baina ez dakigu zein herrikokoa.

<sup>209</sup> Hitz honen bigarren silaba goratua dago, egileak lehenik ahantzi eta ondoren izkiriariatu duelako.

<sup>210</sup> Gutunotan arruntean *de Ribere* azaltzen da, baina kontuan har bedi hori berranali-siaren ondorena izan daitekeela; behin edo beste *de Erribere* eta *de Erribera* ere agertzen da. Oiarzungo egungo *Erriberene* baserrikokoa zatekeen. Ikus Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 129) diotena eta 1794.08.26ko dokumentua.

<sup>211</sup> *Antzanborda* egun Elizondoko auzo baten izena da, eta herri bereko Beartzun auzoko baserria (*Doike* Eskuara Taldea, 2005: 43). Ondarrak (1984: 21) 1727ko Elizondoko *Anzamborda handia* etxea dakar, eta orain *Antzanbordaundia* aurkintza izena bizirik dago Baztango herriburuan, NTEM LII-1 (212. or.) lanaren arabera. Paskual Rekalde euskaltzainak dioskunez, borda baten izena da *Antzanbordaundia*. Nolanahiko gisan, Urdazubin ere bada *Antzanbordako belaita* deritzan parajea (NTEM LII-2: 237). Ikus onomastikari eskainitako atala.

<sup>212</sup> *Otsamintegi* Oiarzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 257). 1514an *Osametegui* ageri da (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 389) eta 1857an (NOPGI, 58) *Osamontegui*. Gutun hauetan, halarik ere, beti *Otsamintegi* (*Otsamintegui*) dugu. Ikus onomastikari eskaini atala.

Jose Ignazio de Lekuna <i>carretero leñas</i> :	
<i>De Gaztelu</i> .....	15 <i>cargas</i>
<i>De Tornola</i> .....	03
<i>De Otsamintegi</i>	
<i>a Gaztelu cicsgos</i> <sup>213</sup>	03 <i>cargas</i>
<i>De Ariztxulegi cuñas</i> .....	03 <i>cargas</i>
<hr/>	
Manuel de Itxabeste <i>carretero</i> :	
<i>De Otsamintegi a Gaztelu</i> .....	02 <i>cargas</i>
<hr/>	
<i>De Tornola leñas bueyerros</i> :	
Luis de Lekuna .....	9 <i>leras Pagué</i>
Franzisko de Irigoien .....	9
Juakin <u><i>de Oiarbide</i></u> .....	9 + <i>Pagué</i>
	<hr/>
	27 <i>leras</i>

Arragoa erretzalleak olatxekez kanpora dituzte:

Manuel de Itxabeste	7½ <i>días</i>
Manuel de Esnau .....	7
Manuel de Bengoetxea .....	4
Juan Manuel de Lekuna .....	4
	<hr/>
<i>Pagué</i> .....	22½ <i>días</i>
	<hr/>

Mikolas Arpidekoa<sup>214</sup> egun izandu da Doniyoanen,<sup>215</sup> ta egondu omen da komesario behar zuenarekin,<sup>216</sup> ta esan omen dio orañ etorri dela ta ez dituela despatxatu paperak, lau egunen buruko Oiarzungo komesarioaren itxera bealduko dituela faltarik gabe. Errepublikarenzat ikazketan gure baso-etatik dabilza. Hirugarren ikaztogia<sup>217</sup> yasotzen ari dire, ta Artikuzakotik<sup>218</sup> batere ez,<sup>219</sup> zergatik gureak era hobean diran yasotzeko. Papera libranzako hori bealzen balu, edo nik ez dakit zer egin. Olaberria, 9 de abril de 1795.

*Su servidor Jose Ramón.*

<sup>213</sup> Hitz hau normalean pluralean agertzen da, hola idatzirik (*cicsgos*), baina inoiz *cisgos* ere ediren izan dugu. Oker ez bagaude, gaztelaniazko *cisco* bera da, hau da, 'egur-ikatz xehea'. Hitzaren etimologian sartu gabe, hona hemen Fdo. González Ollé irakasleak (a.a.) dioskuna: «Vista la desconocida etimología de *cisco*, pese a la variedad de complicadas hipótesis, opino que lo procedente [...] es suponer -iē- > -í-, a juzgar por casos como *vi(é)spera*».

<sup>214</sup> *Arpide* Oiarzungo baserria da.

<sup>215</sup> Donibane Lohizunen.

<sup>216</sup> Segur aski 'egon behar zuen komisarioarekin' ulertu beharko da hau.

<sup>217</sup> 'Ikaztobia', 'ikatz egiteko lekua'. Ikus hiztegia.

<sup>218</sup> *Articutza* (*Articutzacoari*) behin bakarrik dugu gutunotan, nahiz egun ebakera arrunta *Artikutza* izan, bai Goizuetan eta bai Oiarzunen. Ikus 1803.02.27ko eskutitzean dioguna eta onomastikari eskainitako atala.

<sup>219</sup> Hau «*ikaztogi bat ere ez*» ere uler daiteke. Originalean, nolanhiko gisan, *batere ez* dago.

1795.12

*Año de 1795 y diciembre.*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

Manuel de Itxabeste *carretero*:

*De Garalorregi*<sup>220</sup> . . . . .5 *cargas*

*De Otsandola*<sup>221</sup> . . . . .21

*De Olaanditu* . . . . .07

*De Unailekutxiki*<sup>222</sup> . . . . .3

*De Erarin* . . . . .1

*De Ariztxulegi* . . . . .3 *cargas maisukabias*

*De Saroarreaka mena 3 quintales y 2 arrobas*

*1 día a dotación ciegos*

*Año de 1795 y diciembre.*

Mikolas de Zulaika *carretero*:

*De Garalorregi* . . . . .16 *cargas*

*De Otsandola* . . . . .38

*De Olaanditu* . . . . .02

*De Saroerreaka*<sup>223</sup> *menas 07 quintales y 1 arroba*

*Año de 1795 y diciembre.*

Antonio de Bengoetxea *carretero*:

*De Garalorregi* . . . . .14 *cargas*

*De Otsandola* . . . . .50

*De Olaanditu* . . . . .14

*De Unailekutxiki* . . . . .08

*De Erarin* . . . . .02

*De Saroerreaka menas 08 quintales y 4 arrobas*

<sup>220</sup> *Garalorregi* Oiartzungo toponimoa da, egun *Karalorregi* ebakitzen dena (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 170). 1512an eta 1514an *Galarrolegui*, *Galarroleguina*, *Garalorregui* dago (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 187, 191, 389, 400).

<sup>221</sup> *Otsandola* Oiartzungo aurkintza da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 256). 1514an «*Olagondito e Ariçuregui e Osandola*» dugu (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 389), hau da, *Olaunditu*, *Aritxulegi* eta *Otsandola*. Etimologia argia da: ‘*Otsando* izena duenaren etxola edo burdinola’ zen hasmentan. Aldera bedi, esaterako, Luzaideko *Garindola* > *Gaindola* ‘*Garindo* deritzanaren ola’-rekin.

<sup>222</sup> Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 305) *Unaileku* biltzen dute, baina ez *Unailekutxiki*. Nolanahiko gisan, uste izatekoa da azkena lehenaren inguru horretan zegoela. Originalean toponimoaren azken bokala goraturik dago.

<sup>223</sup> Errenteriako mugako Oiartzungo bailara eta erreka (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 281-283).

*Año de 1795 y diciembre.*

Sebastian de Bengoetxea *carretero*:

*De Garalorregi . . . . .1 carga*

*De Otsandola . . . . .50*

*De Olaanditu . . . . .14*

*De Unailekutziki . . . . .08*

*De Ariztxulegi . . . . .1 carga de maisukabias*

*De Saroerreaka menas 9 quintales y 4 arrobas*

---

*Año de 1795 y diciembre.*

Ignazio de Bengoetxea *carretero*:

*De Garalorregi . . . . .6 cargas*

*De Otsandola . . . . .26*

*De Olaanditu . . . . .06*

*De Saroerreaka menas . . .2 quintales y 1½ arrobas*

---

*Año de 1795 y diciembre.*

Juan Joseph de Sorondo *carretero*:

*De Garalorregi . . . . .5 cargas*

*De Otsandola . . . . .16*

*De Olaanditu . . . . .09*

*De Unailekutziki . . . . .1*

*De Erarin . . . . .1*

*De Ariztxulegi . . . . .2 cargas cuñas*

*De Saroerreaka menas 1 quintal y 2½ arrobas*

*1 día a dotación ciesgos*

---

*Año de 1795 y diciembre.*

Joseph Ignazio de Lekuna *carretero*:

*De Garalorregi . . . . .5 cargas*

*De Otsandola . . . . .21*

*De Olaanditu . . . . .8*

*De Unailekutziki . . . . .3*

*De Erarin . . . . .1*

*De Ariztxulegi cuñas . .1 carga*

*De Saroerreaka menas 2 quintales y 5 arrobas*

---

*Año de 1795 y diciembre.*

Franzisko Antonio de Ribere *carretero*:

*De Otsandola . . . . .8 cargas*

---



*Año de 1795 y diciembre.*

Sebastian de Anzanborda *carretero*:

*De Otsandola* . . . . .2 *cargas*

*De Olaanditu* . . . . .1

---

*Año de 1795 y diciembre.*

Luis de Sorondo *carretero*:

*De Garalorregi* . . . . .6 *cargas*

*De Otsandola* . . . . .6<sup>224</sup>

---

## 1796.01.05

Nagusi jauna:

Errekusak<sup>225</sup> ta guziak dira 89 *quintales*; zabal hoietatik kintal bat edo bi gaistoak dira hagitz. Akabatu dira tretxuak, ta erremienta aldatzera goaz.

Sanjuanek dio zorzi lantegiren basoak direla. Lantegiak dira:

1. Antonio de Etxeberria «Xardea»<sup>226</sup>
2. Buruzuri<sup>227</sup> zarra
3. Katxoren<sup>228</sup> bi semeak
4. Penaregikoa
5. Maxalenen basoan ari diran hoiek<sup>229</sup>
6. Olaizkoa

---

<sup>224</sup> Orrialde guzietan azaltzen diren olajaunaren erdarazko apunteak ez ditugu transkribatu, gure interesekoa den ezer gutxi dagoelako. Kaiertto honen bukaera aldean bi paper puxka solte daude, bata olajaunarena eta bestea Juan Franzisko Barrenetxe izenekoak idatzia edo diktatua. Bigarrenean hau dugu: «*Asiento lo que he trabajado yo Juan Fran.<sup>co</sup> Barreneche= en los trabajos de azerar remientas [...] para clabos de fuelles [...] p.<sup>r</sup> Juan Antonio Berdasco [...] mas dos erraduras*». Olajaunarenean zenbait (toki) izen ere baditugu, apunte hauek gutunean ageri diren gauzekin loturik baitaude: *Arichulegui*, *Buruzuria Zarra* (hau izengoitia dateke), *Erarin*, *Garalorregui* edo *Galalorregui* eta *Osandola*. Ikusten den bezala, batzuetan bada aldea Jose Ramonen formatatik Juan Bautistarenetara. Bigarren honek ez ditu, arruntean, gure txistukariak ongi transkribatzen.

<sup>225</sup> Ikus hiztegian dioguna.

<sup>226</sup> Ikus gorago esan duguna.

<sup>227</sup> Izengoitia; ikus gorago.

<sup>228</sup> *Katxo* izengoitia da. Ikus gorago errandakoa.

<sup>229</sup> *Masalen* Oartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 231), eta *Maxalen* bertakoa, etxe izengoitia.

7. Morkotsa<sup>230</sup>

8. Soldadu hemen berorri eskatzen zion hura<sup>231</sup>

Aketzaren<sup>232</sup> semeak ere eskatzen du; Axeriak<sup>233</sup> ere bai, nahiz lengoa egiñ ez. Olaberria, *5 de enero de 1796*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Irundar it[z]ai<sup>234</sup> hoiek me[a] asko<sup>235</sup> dakarte. Diruak attu<sup>236</sup> ziran; beharko da zerbait.

1796.03.20

Nagusi jauna:

Sanjuanen anaia<sup>237</sup> Baltasar<sup>238</sup> da esaminadore, ta esan dit atzo hemezozian gelditu zela, ta gaur jatsiko<sup>239</sup> zela hamasei edo berago. Ta alkatei ez diotet deus esan,<sup>240</sup> agian<sup>241</sup> jatsiko dutela berago. Ta hamasei kuartilluan dagoela argia itzali da,<sup>242</sup> ta gelditu dut erreal batekin. Otsoanekoak<sup>243</sup> esan dit

---

<sup>230</sup> Hau ere goitizena dateke.

<sup>231</sup> Ziurrenik «*Hemen berorri eskatzen zion soldadu hura*» ulertu beharko da.

<sup>232</sup> *Aketza* hau (gizon) baten goitizena zen. Gehiagotan ere ateratzen da gutunotan. Ikus onomastikari eskaini atala.

<sup>233</sup> *Axeria*, *Azeria* izengoitia da. Honen «jabearen» ponte izena (hipokoristikoa) *Patxiko* zen. Ikus onomastika atala.

<sup>234</sup> Originalean *ytay* idatzirik dago. Beste gutun batean ere (1799.10.07) huts bera egin du JRMk.

<sup>235</sup> Gutunean *me asco* dugu.

<sup>236</sup> Eskutitzean *aitu* dago. 1805.01.21eko gutunean *attu* idatzi zuen JRMk aditza. Ikus hiztegian eta sistema grafikoa aztertzean dioguna.

<sup>237</sup> Gehienetan *anaiea* kausitzen dugu. Ikus hiztegia.

<sup>238</sup> Originalean *baltasar* dagoela irudi du, baina *i-a*, letra hori bada, laburxkoa da eta ez du punturik.

<sup>239</sup> Gutunotan *jatsi* eta *jaitsi*, biak, ditugu.

<sup>240</sup> Ez dakigu zenbat alkate ziren enkantean, baina honek 'alkatei ez diet deus esan' esan nahi du.

<sup>241</sup> Hemen honen adiera 'menturaz' dela dirudi, baina testuinguruak ez du asko laguntzen, eta ezin txoil baztertu desirazko balioa duelakoa.

<sup>242</sup> Alegia, kandela itzali da. Kandela enkantea zen hau.

<sup>243</sup> Hernaniko Osiñaga auzoko baserriak ditugu *Otsoaneak* (*Otsoaneatziki* eta *Otsoaneandi*); ikus Zaldua (2012: 112, 461-462). Baina Oartzunen berean *Osuene* genuen 1857an (NOPGI, 58), *Otsueneberri* egun. Ikus onomastikari eskainitako atala.

hamalauraño etsiak zaudela,<sup>244</sup> baño hurrengo jaieraño ez jakin<sup>245</sup> kontrario-rik ager zitekean.

4.300 karga hamasei kuartilluan, ta probestuaren pezeta ta hamaiketakoa. Guzia da 8 pezetas y 5 cuartos.

Olaberria, 20 de marzo de 1796.

*Su servidor Joseph Ramón.*

### 1796.04.26

Luis de Mitxelena Ibarburutxikikoaren<sup>246</sup> kontua.

Errenteriatik mea ta burnia du guzia 100½ *quintales*

a 10 cuartos, *importan* . . . . . 29 pezetas y 19 cuartos

Errozatik<sup>247</sup> mea 6 *quintales* 2 reales y cuarta . . . 3 pezetas y 12½ cuartos

Lorreatan<sup>248</sup> egun bat . . . . . 3 pezetas

Arrago egurrean 11 leras . . . . . 11 pezetas

Kontua egiñ ezkeroko lana . . . . . 46 pezetas y 31½ cuartos

*Enero de 93* egiñ omen zuen kontua, ta berak uste du gelditu zela zor hamasei ezkutu ta errearen batzuek gehiago, ta horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den<sup>249</sup> yakin nahi lukeala, ta gaztigatzeko txartel batean.<sup>250</sup> Olaberria, 26 de abril de 1796.

*Su servidor Jose Ramón.*

1793 y 1794. Luis Ibarburutxikia.<sup>251</sup>

<sup>244</sup> ‘Hamalau kuartiluraino jaitsi behar zutela sinetsita zeudela, onartua zutela’.

<sup>245</sup> ‘Ez jakinki’. Ikus aditz morfologiari eskainitako atala.

<sup>246</sup> *Ibarburutxiki* Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 154).

<sup>247</sup> *Erortza* toponimoa bada Irunen (EJ) egun. Goizuetan *erortza* ‘lehertza’ da, ‘lurra lehertzen, erortzen den lekua’.

<sup>248</sup> ‘Arrastakako garraioan’.

<sup>249</sup> Adizkia (*den*) goratua dago, JRMri hasieran idaztea ahaztu zaiolako.

<sup>250</sup> Kasu honetan irudi du *txartela* ez dela jatekoarekin trukatzeko papera, ‘papera’ baik, nahiz eta bi gauzak ez diren elkarren baztertzailak, ezinbestean. Ikus hiztegia.

<sup>251</sup> Hemen *Su servidor Jose Ramón*-en aitzinetik bada olajaunaren beste apunte bat, *Manuel Echeueste* duena.

1796.09

*Año de 1796 y setiembre.*

Antonio de Bengoetxea *carretero*:

*De Garalorregi* .....4 *cargas*

*De Otsandola* .....58

*De Urdaizpe*<sup>252</sup> .....25

*De Saroa*<sup>253</sup> .....06

*De Erarin* .....08

*De Argiñaztegi*<sup>254</sup> .....14

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Sebastian de Bengoetxea *carretero*:

*De Otsandola* .....7 *cargas*

*De Urdaizpe* .....2

*De Erarin* .....3

*De Argiñaztegi* .....7

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Ignazio de Bengoetxea *carretero*:

*De Garalorregi* .....2 *cargas*

*De Otsandola* .....29

*De Urdaizpe* .....08

*De Saroa* .....03

*De Erarin* .....04

*De Argiñaztegi* .....07

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Juan Joseph de Sorondo *carretero*:

*De Garalorregi* .....4 *cargas*

*De Otsandola* .....38

*De Urdaizpe* .....20

*De Saroa* .....12

*De Erarin* .....12

*De Argiñaztegi* .....08

---

<sup>252</sup> Oiartzungo dermioa (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 307).

<sup>253</sup> Ikus *Sarobe* eta *Sarorerreka* onimoez gorago esan duguna eta onomastika atala.

<sup>254</sup> Aurkintza baten izena dela garbi dago, baina ez dakigu xuxen nongoa zen. Nolanahi ere, aurreko toponimoak ikusirik, Oiartzungo dermioa zela kontu egin daiteke.

*Año de 1796 y setiembre.*

Joseph Ignazio de Lekuna *carretero*:

<i>De Garalorregi</i> .....	.2 <i>cargas</i>
<i>De Otsandola</i> .....	.22
<i>De Urdaizpe</i> .....	.13
<i>De Saroa</i> .....	.03
<i>De Erarin</i> .....	.05
<i>De Argiñaztegi</i> .....	.07

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Juakin de Telletxea *carretero*:

<i>De Otsandola</i> .....	.24 <i>cargas</i>
<i>De Saroa</i> .....	.03
<i>1 día a Buruzuri zarra chozas<sup>255</sup> y ciesgos</i>	

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Franzisko Antonio de Ribere *carretero*:

<i>De Otsandola</i> .....	.21 <i>cargas</i>
<i>De Urdaizpe</i> .....	.2
<i>De Saroa</i> .....	.6
<i>De Argiñaztegi</i> .....	.2
<i>1 día a Buruzuri zarra<sup>256</sup> chozas y ciesgos</i>	

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Sebastian de Anzanborda *carretero*:

<i>De Garalorregi</i> .....	.1 <i>carga</i>
<i>De Otsandola</i> .....	.17
<i>De Urdaizpe</i> .....	.06
<i>De Saroa</i> .....	.04
<i>De Erarin</i> .....	.03
<i>De Argiñaztegi</i> .....	.12

---

---

<sup>255</sup> Iduri du euskarazko *itxola* bera dela; ikus, adibidez, 1791.12ko kaiertoko hau: «Zaldirindik suertearen beko muturrea yorrada bana *itxola*» eta 1792.05eko gutuneko beste hau: «Agerreko Patxikuri gaztañadira *itxola* 2 *cargas*».

<sup>256</sup> Hitz batean idatzia dago hau: *buruzurizarra*.

*Año de 1796 y setiembre.*

Martin de Istillarte *carretero*:

De Erarin . . . . .6 *cargas*

De Argiñaztegi . . . . .40

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Manuel de Kamino *carretero*:

De Argiñaztegi . . . . .30 *cargas*

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Sebastian de Olaziregi *carretero*:

De Argiñaztegi . . . . .16 *cargas*

---

*Año de 1796 y setiembre.*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

Manuel de Itxabeste *carretero*:

De Garalorregi . . . . .4 *cargas*

De Otsandola . . . . .36

De Urdaizpe . . . . .18

De Saroa . . . . .18

De Erarin . . . . .08

De Argiñaztegi . . . . .07

De Ariztxulegi *cuñas* 2 *cargas*

2 *días* de Oieleku<sup>257</sup> a Kausua *ciesgos*

---

*Año de 1796 y setiembre.*

Mikolas de Zulaika *carretero*:

De Garalorregi . . . . .2 *cargas*

De Otsandola . . . . .27

De Urdaizpe . . . . .10

De Saroa . . . . .06

De Erarin . . . . .02

De Argiñaztegi . . . . .02

---

<sup>257</sup> Oiartzungo aurkintza dugu hau (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 245). Lehenago *-r-* zeukan, 1512ko *Oyerlecu*-k frogatzen duen bezala. Arteka *-n-*rekin ere dokumentatzen denez gero (*Oienlecu*, Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 245), *oihan* + *leku* proposa liteke etimotako, ezaguna baita *oihar-* forma *oihan* izenaren elkarketako aldaera dela, eta \**oianleku*, \**oiarleku*-tik, asimilazioz, *Oienleku*, *Oierleku*-ra iristea ez baita neke. Nolanahi ere, 1499an, lehen agerraldian, *Oylecu* dago (Irijoa eta Lema, 2011: 70, 79), eta, beraz, aipatu azalpena zalantzazkotzat eman beharko da, nahitaez.

1796.09.24

*Desde 19 de diciembre de 95 hasta 24 de setiembre de 96 Joseph de Sistiaga tiene 26 semanas y 5½ días.*

*Olaberria, 24 de setiembre de 1796.*

Joseph Ramon de Minondo.

*23 de febrero de 94 ezkeroko kontua eman nion berorri, Joxerena 19 de diciembre de 95 bitartekoa. Asentuak hor izanen al ditu!*<sup>258</sup>

*Joseph Zistiaga.*<sup>259</sup>

1796.10

*Año de 1796 y octubre.*<sup>260</sup>

Manuel de Kamino *carretero*:

*De Argiñaztegi . . . . .7 cargas*

---

*Año de 1796 y octubre.*

Franzisko Antonio de Ribere *carretero*:

*De Garalorregi . . . . .1 carga*

*De Otsandola . . . . .32*

*De Urdaizpe . . . . .01*

*De Argiñaztegi . . . . .08*

*1 día a Xanjuan*<sup>261</sup> *ciesgos*

---

<sup>258</sup> 'Espero dut asentuak (kontabilitate notazioak) hor izatea', 'asentuak hor izanen ditu, araiñ'.

<sup>259</sup> Olajaunaren apuntea. Nabarmentzekoa da JRMk *Joseph de Sistiaga* darabilela erdaraz, ez olajaunak bezala *Zistiaga*. Euskaraz, berriz, *Joxe* zen gizona, testuan ikusten den moduan. Badaiteke hau 1810eko gutun baten egile den *Maria Melitona de Zistiaga*-ren jendakia, ahaidea izatea. Oiarzungo aspaldiko deitura eta toponimoa (oikonimoa?) da: 1499an *Johan de Çistiaga* dugu (Irijoa eta Lema, 2011: 4), eta 1765ean «*el arroyo de Feloaga y Cistiaga*» ageri da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 139).

<sup>260</sup> Koadernotxo honen orrialde guztietan ditugu olajaunak, dokumentua hartu eta gero, egindako apunteak.

<sup>261</sup> Dokumentuan *ssan Juan* izkiriaria da. Ikus honetaz grafiaz mintzatzean dioguna eta onomastikari eskaini atala.

*Año de 1796 y octubre.*

Sebastian de Anzanborda *carretero*:

*De Garalorregi* .....2 *cargas*

*De Otsandola* .....18

*De Urdaizpe* .....07

*De Argiñaztegi* .....08

*De Oieleku a Otsandola 1 carga de choza*

---

*Año de 1796 y octubre.*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

Manuel de Itxabeste *carretero*:

*De Garalorregi* .....2 *cargas*

*De Otsandola* .....51

*De Urdaizpe* .....07

*De Argiñaztegi* .....10

---

*Año de 1796 y octubre.*

Mikolas de Zulaika *carretero*:

*De Garalorregi* .....1 *carga*

*De Otsandola* .....36

*De Urdaizpe* .....02

*1 día a Esteban de Iturriotz<sup>262</sup> cicsgos*

---

*Año de 1796 y octubre.*

Antonio de Bengoetxea *carretero*:

*De Garalorregi* .....7 *cargas*

*De Otsandola* .....56

*De Urdaizpe* .....04

*De Argiñaztegi* .....06

---

*Año de 1796 y octubre.*

Sebastian de Bengoetxea *carretero*:

*De Garalorregi* .....2 *cargas*

*De Otsandola* .....17

*De Urdaizpe* .....10

*De Argiñaztegi* .....05

*De Oieleku a Otsandola 1 carga de choza*

---

<sup>262</sup> Originallean bi eletan izkiriatur da: *yturri otz*.



*Año de 1796 y octubre.*

Ignazio de Bengoetxea *carretero*:

*De Garalorregi* .....4 *cargas*

*De Otsandola* .....32

*De Urdaizpe* .....03

*De Argiñaztegi* .....05

*1 día a Xanjuan ciegos*

---

Kintal erdi bat burnia hartu du Anatxurirentzat

*Año de 1796 y octubre.*

Juan Joseph de Sorondo *carretero*:

*De Otsandola* .....59 *cargas*

*De Urdaizpe* .....16

*De Argiñaztegi* .....16

---

*Año de 1796 y octubre.*

Joseph Ignazio de Lekuna *carretero*:

*De Garalorregi* .....4 *cargas*

*De Otsandola* .....25

*De Urdaizpe* .....06

*De Argiñaztegi* .....02

*De Ariztxulegi* .....1 *carga cuña*<sup>263</sup>

---

*Año de 1796 y octubre.*

Juakin de Telletxea *carretero*:

*De Garalorregi* .....2 *cargas*

*De Otsandola* .....31

*De Argiñaztegi* .....01

---

Kintal erdi bat burnia hartu du Anatxurirentzat.

---

<sup>263</sup> Euskal joskeraren fruitu da *cuña* singularrean agertzea. Euskaraz *burni ziri* edo *ziri* esaten zaio gutunetan. Ikus hiztegia.

1796.11

*Año de 1796 y noviembre.*<sup>264</sup>

Antonio de Bengoetxea *carretero*:  
De Otsandola .....66 *cargas*  
De Sarobe .....24  
De Sarobe *pedras* .....10 *cargas*  
De Ariztxulegi *cuñas*           2 *cargas*

---

Honek hartu du kintal bat burnia perrazallearenzat, ola handian tiratua.<sup>265</sup>

*Año de 1796 y noviembre.*

Sebastian de Bengoetxea *carretero*:  
De Otsandola .....23 *cargas*  
De Urdaizpe .....01  
De Argiñaztegi .....08  
De Sarobe .....11  
De Ariztxulegi *cuñas* .....1 *carga*

---

*Año de 1796 y noviembre.*

Ignazio de Bengoetxea *carretero*:  
De Otsandola .....69 *cargas*  
De Sarobe .....06  
De Sarobe *pedra* .....04 *cargas*  
De Ariztxulegi *cuñas*           2 *cargas*

---

*Año de 1796 y noviembre.*

Juan Joseph de Sorondo *carretero*:  
De Otsandola .....72 *cargas*  
De Sarobe .....03  
De Sarobe *pedras* .....08 *cargas*

---

---

<sup>264</sup> Orrialde guzietan azaltzen dira olajaunaren apunteak, gutunak jasotakoan egindakoak; guretzat, ordea, ez dute holako interesik.

<sup>265</sup> Honela ere puntua daiteke hau: «Honek hartu du kintal bat burnia, perrazallearenzat ola handian tiratua».

*Año de 1796 y noviembre.*

Jose Ignazio de Lekuna *carretero*:

*De Otsandola* .....40 *cargas*

*De Sarobe piedras* .....2 *cargas*

*De Urdaizpe a Olaanditu*<sup>266</sup> *choza en 2 cargas*

---

*Año de 1796 y noviembre.*

Juakin de Telletxea *carretero*:

*De Otsandola* .....28 *cargas*

*De Urdaizpe* .....01

*De Sarobe* .....03

[D]e<sup>267</sup> *Sarobe piedras* .....02 *cargas*

---

*Año de 1796 y noviembre.*

Franzisko Antonio de Ribere *carretero*:

*De Otsandola* .....44 *cargas*

*De Urdaizpe* .....06

*De Sarobe* .....03

*De Sarobe piedras* .....04 *cargas*

---

*Año de 1796 y noviembre.*

Sebastian de Anzanborda *carretero*:

*De Otsandola* .....35½ *cargas*

*De Urdaizpe* .....06

*De Sarobe piedras* .....02 *cargas*

---

*Año de 1796 y noviembre.*

*Cuenta de los carreteros de Olaberria.*

Manuel de Itxabeste *carretero*:

*De Otsandola* .....79 *cargas*

*De Urdaizpe* .....14

*De Sarobe* .....02

*De Sarobe piedra* .....04 *cargas*

---

<sup>266</sup> Dokumentuan bi hitzetan emana da: *ola anditu*.

<sup>267</sup> Kaiertxoia hautsia dago beheko alde honetatik eta ez da *d* ikusten.

*Año de 1796 y noviembre.*

Mikolas de Zulaika *carretero*:

*De Otsandola* .....65 *cargas*

*De Argiñaztegi* .....02

*De Sarobe* .....06

*De Sarobe piedras* .....08 *cargas*

---

1796.12.08

*Desde 30 de octubre hasta 3 de diciembre.*

*En herrería chiquita 76 panes a 30 cuartos*

*importan* .....67 *pezetas y 2 cuartos*

*17½ libras de aceite a 30 cuartos* .....15 *pezetas y 15 cuartos*

Setienbrean eta oktubrean olio a 30 kuartoan omen zen libra,  
ta nik 28 kuarto kontatu dut bi hillabetetan.

*17 libras y cuarta ziran;*

librako txaponak<sup>268</sup> dakar .....01 *pezeta y ½ cuarto*

*Sardinas de* .....02 *pezetas y 17 cuartos*

*8 azumbres y un chiquito de vino a*

*30 cuartos importan* .....07 *pezetas y 6 cuartos*

*Expensa de noviembre* .....93 *pezetas y 6½ cuartos*

*Expensa de julio* ....15 *pezetas y 22 cuartos*

*Expensa de agosto* ...40 *pezetas y 32 cuartos*

*Expensa de setiembre* 63 *pezetas y 31 cuartos*

*Expensa de octubre* ...91 *pezetas y 3 cuartos*

211 *pezetas y 20 cuartos*

304 *pezetas y 26½ cuartos*<sup>269</sup>

1796.12.26

*Carbones de Juan Ignacio de Iriarte, he recibido 308 cargas y 1 lepalotua.*

Nagusi jauna:

---

<sup>268</sup> 'Txanponak'. Ikus hiztegia. Nafarroako euskal testu batean *txafon* ere ageri da.

<sup>269</sup> Honen aurretik eta atzetik badira olajaunak (JBMk) egindako apunteak. Batzuetan –eskuarki ez– zaila da izkirioa JRMrena edo JBMrena den bereiztea.

Sarobeko<sup>270</sup> nagusi honek dio berau etorri gabe bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola<sup>271</sup> lenbailen. Olaberria, 26 de diciembre de 1796.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1797.03.05

*Carbones de Juakin de Uegun:*

*He recibido 163½ cargas y 2 otsabeharrias.*

Baso honetan Bizente de Etxeberriak<sup>272</sup> egin du 199 cargas y 3 otsabeharrias.

Juakin honen lagunari eman diozkat<sup>273</sup> hiru pezeta.

Kontua egitean gelditzea<sup>274</sup> da.

Olaberria, 5 de marzo de 1797.

Jose Ramon de Minondo.<sup>275</sup>

1797.06.21 ingurukoa

*Herrería chiquita 37 panes a [...]*<sup>276</sup>

*34 panes a 36 cuartos, importan . . . . .67 pezetas*

*9 libras de carne a 9 cuartos . . . . .02 pezetas y 13 cuartos*

*12 libras de aceite a 36 cuartos . . . . .12 pezetas y 24 cuartos*

*1 azumbre de vino componiendo boba . . .01 pezeta y 2 cuartos*

*Sardinas de . . . . .02 pezetas*

*Expensa abril . . . . .85 pezetas y 5 cuartos*

*Expensa de mayo . . . . .37 pezetas, 27½ cuartos*

*122 pezetas, 32½*<sup>277</sup>

<sup>270</sup> Sarobe Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 281).

<sup>271</sup> '(Berorrek) egin dizaiola'.

<sup>272</sup> Oiartzunen *Miranda* etxeko *Etxeberría* behin bakarrik lekukotzen da, Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 239) diotenez.

<sup>273</sup> Eskutitzetan azaltzen diren tankera honetako bi adizkietako bat da hau. Ikus aditz morfologiari eskaini atalean dioguna.

<sup>274</sup> Bukaerako letra tatxatuxe dago, eta ez da guztiz argi ikusten. Egia da *n* ere izan daitekeela, baina *a* itxura handiagoa du. Ikus *izan*, *izandu* sarrera, hiztegian.

<sup>275</sup> Honen ondotik olajaunaren apunteak heldu dira. Gure interesekoa den bakarra *Anzanborda* da (ikus onomastika atala).

<sup>276</sup> Dokumentua moztua dago goiko aldetik. Zenbakia 31 ere izan daiteke.

<sup>277</sup> Beste izkirio batekin idatzi hauek olajaunaren apunteak dira.

Ola handian: azkeneko arialdi honetan  
egin dute espensa . . . . .81 *pezetas y 12½ cuartos*  
Hoietarako hartua dute . . . . .40 *pezetas*  

---

Falta da . . . . .41 *pezetas y 2½ cuartos*  
Olagizonakin kontuak egiñ nahi dituenean bealduko dut burnien eta  
espensan kontua paper batean.<sup>278</sup>

1797.09.05

Nagusi jauna:

Joseph<sup>279</sup> berozalleak febreroan kontuak egiñ ezker hartuak omen ditu  
hamar ezkutuko bat ta hamaika urretxiki zar.

Trabajatu du hamabi aste, ta Aste Santuan hiru egunez trabajatu zen, ta  
Pazko larunbatean olatxo<sup>280</sup> aritu zen, baño Joseph horr (*sic*) izandu zen,  
berorregana etorria.

Aste Santuko egun hoiek hamabi asteaz gañera dira. Olaberria, 5 de  
*setiembre de 1797.*

*Su servidor Joseph Ramón.*

1797.09.07

Franzisko de Orendainek pisatu ditu<sup>281</sup> haxiak<sup>282</sup>  
amabirjinak ezker . . . . .12 *quintales y 4 arrobas*  
Lenago bealdu nuen kontua . . . . .13½ *quintales*  
Gazteluko errekan<sup>283</sup> bilduak ditu meak . . .26 *quintales*

Olaberria, 7 de *setiembre de 1797.*

---

<sup>278</sup> Honen ondoan olajaunak egindako apunteak daude; ohar batzuetan 1797ko ekainaren 21a aipatzen da, eta beste batzuetan 1809. urtea. Hortaz, ezarri dugun data zalantzez-kotzat jo beste biderik ez dago.

<sup>279</sup> Originalean, eskutitz honetako bereko beheitixeagoko lekukotasunean bezala, *Jph.* idatzirik dago.

<sup>280</sup> Originalean *olacho* dago, artikulurik gabe, baina irudi du *olachuan* behar duela.

<sup>281</sup> Adizkia, *ditu*, goitua dago originalean.

<sup>282</sup> Burdin txatarra, peza egindakoan soberakin gelditzen diren zatiak dira *haxiak*. Ikus bedi hiztegia.

<sup>283</sup> Oiarzungo baserri, aurkintza eta meategia da *Gaztelu* (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 149). Autoreok *Gazteluerreka* ere biltzen dute hor berean.

Hoietaz gañera dira horrara etorri ziren haxiak, hemen pisatu gabeak.

Jose Ramon de Minondo.

1797

*Para estas asias 15 agosto le di en Goizueta 40 pezetas.  
9 septiembre a su suegra en Goizarin<sup>284</sup> otras...40 pezetas.*

1798.01.02

*Año de 1797.*

*Desde 3 de diciembre hasta 30 de diciembre.*

*85 panes a 30 cuartos importan . . . . .75 pezetas*

*18 libras de aceite a 42 cuartos . . . . . 22 pezetas y 8 cuartos*

*7½ libras de abadejo a 14 cuartos*

*6 libras a 16 cuartos y*

*7½ libras a 20 cuartos importan . . . . .10 pezetas y 11 cuartos*

*11 y ¾ azumbres de vino a*

*32 cuartos componiendo yinque<sup>285</sup> . . . . .11 pezetas y 2 cuartos*

*Expensa de diciembre . . . . .118 pezetas y 21 cuartos*

*Hartua . . . . .080 pezetas*

*Falta da . . . . .038 pezetas y 21 cuartos*

---

<sup>284</sup> Artikutzako burdinola, Elama bezala Elamako errekan zegoena (ikus bedi A. M. Mitxelena, 2020b: 114 eta hurr.). Gerok (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 21) *Gotzáin*, *Lotzáin* ebakerak bildu genituen, NTEM XLVIIIn holakorik jasotzen ez bada ere. A. M. Mitxelenak (2020b: 116) 1320ko *Goïçain* dakar eta hori da, dakigunez, onimoaren lehen lekukotasuna. Nolanahiko gisan, Zabalzak (1997: 515), galdera markarekin bada ere, *la ferreria de Goycalayn* dakar, urte horretan berean, 1320an. Gero, *Goizarin* dago 1358an eta 1385ean (NTEM XLVII: 157), eta ondoren beti *r*-rekin azaltzen da, gure oroitean. Toponimo garrantzi handikoa da gutunotan, olajauna, Juan Bautista Minondo, bertan bizi zelako eta haren mendeko ola arduradunek eskutitzak eta dokumentuak horra bidaltzen zituztelako. Ikus «Minondotarrak Goizueta» izeneko atala.

<sup>285</sup> 1793.06ko eta 1800.03.06ko beste bi gutunetan ere ageri da. Gaztelaniazko *yunque* ‘ingudea’ bera dela dirudi. Corominas eta Pascualek hiztegi etimologikoan ez dute aldaera hau jasotzen.

60 kintal behar diran zabal honetatik  
falta dira orañik . . . . .15 quintales  
20 kintal behar diran honetatik hiru edo lau kintal egin dira.

Olaberria, 2 de enero de 1798.

*Su servidor Joseph Ramón.*

#### 1798.01.14

Nagusi jauna:

Polsero<sup>286</sup> difuntuar[i]<sup>287</sup> 220 urretxiki emantako erreziboa beal beza. Ez omen dute harrapatzen asenturik haren paperetan, nondik zer hartu duen, dirua eman dutenetatik argitasuna beharko dutela Sarastik esan dit.<sup>288</sup> Olaberria, 14 de enero de 1798.

*Su servidor Joseph Ramón.*

#### 1798.01.17

Nagusi jauna:

Indianoaren ikatzak etorri dira, *hasta 31 de diciembre de 1797 2.008 cargas, 2 otsabeharrias y 2 lepalotuas.*<sup>289</sup> Olaberria, 17 de enero de 1798.

*Su servidor Joseph Ramón.*

#### 1798.05.Hasiera

*Año de 1798.*

Nik gastatuak:

---

<sup>286</sup> *Polseroa* 'poltseroa, diruzaina' da, Oiartzungo herriko etxekoa.

<sup>287</sup> Gutunari bazterra falta zaio, eta -i ez da txoil argi ikusten.

<sup>288</sup> Hau honela ere puntua daiteke: «...*argitasuna beharko dutela; Sarastik esan dit*».

<sup>289</sup> *Otsabeharriak* eta *lepalotuas* zaku mota batzuk ziren, *kostala* bera bezala. *Otsabeharria*-ren izena zakua lotu ondoren otsoarenak bezalako belarriak gelditzeari zorko zaio, eta *lepalotua*, berriz, zakuaren lepoa estekatua gelditzeari. Arranbideko Ignazio Bergarak ere badarabiltza izenok.



21 de enero. Maxaleni <sup>290</sup> suertearen ebakitzeko <sup>291</sup>	
denboran lau egun . . . . .	.6 pezetas
Ignazio de Ezpondari Migel igelearen	
partez irabaziak . . . . .	.10 pezetas y 24½ cuartos
Franzisko de Pikabeari <sup>292</sup> Tomasen partez	
irabaziak . . . . .	.02 pezetas y 32 cuartos
22 de enero. Gaitziru <sup>293</sup> bat baba	.03 pezetas
29 de enero. Arrago egurra emateko	
juraduaren jornala . . . . .	.02 pezetas
10 de febrero. Franzisko de Pikabeari	
olatxoan irabaziak . . . . .	.03 pezetas
13 de febrero. Hesteak 28½ kana <sup>294</sup> . . . . .	.01 pezeta y 23 cuartos
14 de febrero. Tobera Hernanira	
bealzeko jornala . . . . .	.1 pezeta
Arraztelu bat arragoarako . . . . .	.03 pezetas
20 de febrero. Anega <sup>295</sup> bat baba . . . . .	.13 pezetas y 17 cuartos
4 de marzo. Ignazio Ezpondari	
Migel igelearen partez irabaziak . . . . .	.11 pezetas
10 de marzo. Maxkuri <sup>296</sup> . . . . .	.03 pezetas
	<hr/>
	60 pezetas y 28½ cuartos
. . . . .	.60 pezetas y 28½ cuartos
16 de marzo. Kasarasi <sup>297</sup> herreroa	
pagatzeko . . . . .	.11 pezetas
17 de marzo. Galzatzikiren <sup>298</sup> semeak	
pisatu zituen haxiak 7½ arrobas . . . . .	.03 pezetas y 25½ cuartos

<sup>290</sup> Originalean *Massaleni* izkiriaria da. Oiartzungo *Masalen* baserri izenean oinarritu etxe izengoitia dugu.

<sup>291</sup> Suertea *ebaki* egiten zen, beraz. Ikusten den bezala, aditz izenak objektua genitibon darama.

<sup>292</sup> *Pikabea* Oiartzungo baserria da.

<sup>293</sup> *Gaitzeru*, EHren arabera, hau dugu: ‘Ale edukiera-neurria, toki batzuetan lakariaren, eta beste batzuetan bi lakariren baliokidea’. Gutunotan bi lakariren heina duke gaitzeruak, *lakari* bera ere (zehazkiago esan, honen *lakadi* aldaera) agertzen denez gero.

<sup>294</sup> ‘Luzera-neurria, metroa baino zerbait laburragoa, gaur egun, batez ere, enborrak neurtzeko erabiltzen dena’. Beraz, heste asko erosi zituzten!

<sup>295</sup> ‘Ale edukiera-neurria, hamabi lakariren baliokidea’ (EH).

<sup>296</sup> Norbaiten izengoitia da hau. Gero ere frankotan azaltzen da gutunotan. Hemen *Masscuriori* idatzia da.

<sup>297</sup> *Kasaras*, *Kaxaras*, *Kaxarax* hau beste batzuetan ere azalzen da eskutitzotan. Ez daki-gu abizena den edo (etxe) izengoitia. Ikus grafiari eta onomastikari eskaini atalak.

<sup>298</sup> *Galzatziki*, goitzen polita.

25 de marzo. 4 cestos . . . . .	.01 pezeta y 12½ cuartos
2 de abril. Arrago egurra emateko juraduaren jornala . . . . .	.02 pezetas
3 de abril. Fraileari olakoenzat <sup>299</sup> . . . . .	.03 pezetas y 17 cuartos
Hiru arragoatako jornalak pagatzeko lau hogei ezkutuko <sup>300</sup> falta ziran . . . . .	.26 pezetas y 17 cuartos
8 de abril. Iskaluri <sup>301</sup> aste bateko olatxokoa eta egun bateko remienta egiteko jornala . . . . .	.06 pezetas y 29½ cuartos
22 de abril. Joseph de Lekunari olatxoan irabaziak . . . . .	.3 pezetas
28 de abril. Baba ekartzeko bealdu zuen 10 pezeta. Anega bat ekarri dugu. Falta zen . . . . .	.04½ pezetas
Gastatuak . . . . .	.123 pezetas y 11 cuartos
Errezibituak . . . . .	.103 pezetas y 07 cuartos <sup>302</sup>
Falta dira . . . . .	.020 pezetas y 04 cuartos
1798 y 11 de enero. Leneko paperekoa gelditu zitzaidan . . . . .	.8 pezetas y 22½ cuartos
Arotzak ta itzaiak pagatu ta gelditu zen sobran . . . . .	.9 pezetas y 13 cuartos
Iturriotzko <sup>303</sup> perrazalleak kintal bat burnia . . . . .	.37 pezetas y 17 cuartos
18 de enero. Pedro Miguel de Maritorea 1 arroba de fierro . . . . .	.06 pezetas y 8½ cuartos
Juan Manuel Gorrak <sup>304</sup> egun bateko jornala ez zidan hartu, nagusiak pagatu ziola . . . . .	.01 pezeta y 17 cuartos

<sup>299</sup> Alegia, olan hainbat diru ematen zitzaion fraideari (karmeldar oinutsari, frantzisko-tarrari...), pezeta bana goiko ofizialeek, pezeta erdia meailleek-eta, adibidez. Originalean hitzaren azken silaba hondar-aitzinekoaren gainean idatzirik dago.

<sup>300</sup> 'Hogei ezkutuko lau txanpon'.

<sup>301</sup> Irudi du *ezkailu* 'txipa' arraintxoaren izenaren aldaera dela. OEHN Gipuzkoa aldeko *eskailu*, *exkalu* 'fundamentugabea', 'funsgabea' ere biltzen da, eta hemen hortik ateratako (*Ixkalu*), *Iskalu* aldaera izan genezake, segurua izan ez arren. Goitizena da, jakina.

<sup>302</sup> Iduri du olajaunak zenbaki hauetan eta justu hauen azpian daudenetan zuzenketa zerbait egin duela.

<sup>303</sup> Beste txanda batean ere berdin, *Iturriotzko*, egungo grafian emanik.

<sup>304</sup> Hau izengoitia da.

15 de febrero. Pedro Ignazio de Ibarburuk <sup>305</sup>	
bi borrarren gaia 30½ libras . . . . .	7 pezetas y 21 cuartos
16 de marzo. Pedro de Bergara	
24 libras de fierro . . . . .	.06 pezetas
28 de marzo. Juan Esteban de	
Irazoki 2 arrobas y 6 libras de fierro . . .	.14 pezetas
	<u>90 pezetas y 31 cuartos</u>
1 de abril. Suertearen	
hamaiketakoarenzat 20 pezetas	
Sobratu zen . . . . .	.12 pezetas y 10 cuartos
	<u>103 pezetas y 7 cuartos</u>

1798.08.05

Nagusi jauna:

Dotazioan ikaztogi bat ta Matxinoak<sup>306</sup> bi ta Fermin Okerrak<sup>307</sup> bat atereak dauzkite, ta iñork ez du jua nahi alderdi hartara, ta lapurren zat erdiak izanen dira; ikazkilleak berak lapur ezpalira nonbait hor halere.

Ta Onozkozubietako<sup>308</sup> mea eman gabe utzi ditut (*sic*), ikatz haiek ekarri behar ditugula, ta halere iñor gutxi dabill, batzuek horrara ta besteak nik ez dakit non dabilzan. Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeko esan bizaiote,<sup>309</sup> ta bestela burniaz kargatu ta gañerakoak Zaria<sup>310</sup> aldeko ikatz

<sup>305</sup> *Ibarburu* Oiartzungo Ergoien auzoko bazterretxea da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 154).

<sup>306</sup> Norbaiten izengoitia da hau; gero ere behin baino gehiagotan edireten dugu. Ikus 1801.01.09 gutuna.

<sup>307</sup> ‘Fermin begibakarrari’ seguruenik. *Okerra* goitizena da, bistan da. IBk *Martin Okerra* aipatzen du 1798ko gutun batean.

<sup>308</sup> Irudi duenez, hemen ez dugu *honzoko* ‘honunzkoa’, ‘alde honetakoa’, Artikutzako aurkintza baten izena den *Orozkozubieta* (NTEM XLVII: 163), *On(o)zkozubieta* (guk aditua) toponimoa baizik, hau da, aurreko *Oronozkozubieta* batetik ateratako forma (ikus Erriondo, 1988: 125).

<sup>309</sup> ‘Esan biezaie (berorrek)’.

<sup>310</sup> Oiartzungo baserria zen *Zaria* denboran, aurkintza hutsa egun (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 317). 1512an *Çaria* saroia zen (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 187), baina 1857an (NOPGL, 60) laborari etxe-izentzat («*casa de labor*» hitzez hitz) ageri zaigu. Zalduaren arabera (2020: 67), *Salius* antroponimoan oinarritua dago, \*(*capana*) *salina* batean.

haietara bealdu. Antonsoro<sup>311</sup> aldean ere badaude atereak, ta honara etorzen dira hortik heldu diranak ere; [...]txaren<sup>312</sup> semeak esan dit.

Gazteen honek, Isasolan ari da sei lagunean,<sup>313</sup> ta entoroko<sup>314</sup> lana nahi lukeala, ta berozalleak egiñak ezpaditu sanmigeletan etorriko litzakeala horra-ra. Berotzalle berrixkoa<sup>315</sup> izan laiteke; noski, orañik gaztea da, baño maisukoan ere ongi samar ari dela diote.

Olaberria, 5 de agosto de 1798.

*Su servidor Joseph Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*<sup>316</sup>

1798.08.10

*En Lezo, casa Matejoan.*<sup>317</sup>

Nagusi jauna:

Franzisko de Rekuk ekarri ditu meak:

Olaberria .....62 quintales y 2½ arrobas

Fagoagatzikira .....7½ quintales<sup>318</sup>

Juan Antonio de Mendizabal:

Olaberria .....23 quintales y 1 arroba

*Rentería, casa Mareola*

Goierriarrak dira Errenterian ta Lezon bizi diranak. Orañ geldirazi<sup>319</sup> ditugu, ta beren kuartoak eskatzen dituzte.

<sup>311</sup> Oiartzungo aurkintza (Goikoetxea eta Lekuona, 2017: 65).

<sup>312</sup> Zuloa dago dokumentuan, eta lehen letra(k) ez d(ir)a ikusten; *l* ere ez da osorik ageri. *Belcharen (Beltxaren, Beltzaren)* menturaz?

<sup>313</sup> 'Sei lanegunean'.

<sup>314</sup> Ez dakigu izen arrunta den, toponimoa edo zer den, baina argi idatzirik dago. Apika 'enteroko' uler liteke, hau da, *enteroko lana* 'lanaldi osoko postua'.

<sup>315</sup> Originalean *berriscoa* idatzirik dago.

<sup>316</sup> Honelako formula eginetan *guarde*-ren moduko bat falta dela garbi dago, baina ez ohi da testuan agertzen.

<sup>317</sup> Beste izkirio batekin idatzi hauek olajaunaren apunteak dira.

<sup>318</sup> Eskuinaldean olajaunaren kontu eta apunte hauek daude: «103 reales, 6 maravedís + 34 reales, 25 (maravedís) = 137 reales, 31 (maravedís)».

<sup>319</sup> 'Geldiarazi'. Beste batzuetan ere hola (*-iarazi* > *-irazi*). Ikus arazleaz dioguna, aditzari buruzko kapituluan.

Olaberria, 10 de Agosto de 1798.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1797. Agosto 23. Pagué con Joseph Ramón.

1798.09.12

[...] <sup>320</sup> Olaberria, 12 de setiembre de 1798.

Nagusi jauna:

Ferrazalle Anatxurik <sup>321</sup> hemendik eraman dituen burniak dira,  
1 de enero de 1797 ezkerro, 20 quintales y 5 arrobas.

~~Mandazaiei nori zenbat kargatu~~  
hor konpondu beharko dute. <sup>322</sup>

Hoietatik dio kargatu behar zaiola:

Manuel de Itxabesteri . . . . .	2½ quintales
Juan Joseph de Sorondo <sup>323</sup> . . . . .	2½ quintales
Mikolas de Zulaika . . . . .	2½ quintales
Joseph Ignazio de Le[kuna] <sup>324</sup> . . . . .	1 quintal
Sebastian d[e] [Anzanbor]da . . . . .	1 quintal
Sebastian de Ag[erre] . . . . .	1½ quintales
Joseph Ignazio de Goia «Katxo» <sup>325</sup> . . . . .	1½ quintales
Ignazio de Bengoetxea . . . . .	1 quintal
Franzisko Antonio de Ribere . . . . .	1½ quintales
	<u>15 quintales</u>

<sup>320</sup> Lehen lerro hau ez da guztiz garbi ageri, eta aurreneko hitza zein den ez dakigu.

<sup>321</sup> Oiartzungo izen bereko baserrikoen etxe izengoitia, antza duenez. Ikus Goikoetxea eta Lekuona (2007: 61). Goizuetan *Añatxuri* baserria zegoen denboraz (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 39).

<sup>322</sup> Lerroak «gainmarratuta» daude.

<sup>323</sup> *Sorondo* Oiartzungo baserria da.

<sup>324</sup> Zuloa dago agiriaren erdian eta *Jph ygnacio de le[...]* besterik ez da ikusten lerro honetan, *sebastian c[...]*da ondokoan (lehen *d*-aren makila falta da) eta *sebastian de Ag[...]* hurrengoan. Halarik ere, anitzetan errepikatzen diren izendapenak direnez gero, ez dago «berreskuratzeke» zailtasun handirik.

<sup>325</sup> Izengoitia. Ikus onomastika atalean dioguna.

Dio berorren mandoai eman tiola ferrak . . .	.456
13 septiembre más . . . . .	<u>.020</u>
	476 <sup>326</sup>

1798.09.15

Nagusi jauna:

Azkeneko erre diran bi arragoatako jornalak dira	97 pezetas y 30 cuartos
Olatxoko agostoko espensa . . . . .	.83 pezetas y 17½ cuartos
Ola handikoak zor dutena . . . . .	.63 pezetas y 10 cuartos
Guziak dira . . . . .	.244 pezetas y 23½ cuartos
Expensa de septiembre martinete . . . . .	<u>110 pezetas . . . 3 cuartos</u>
	354 pezetas 25½ cuartos <sup>327</sup>

Hoietarako 150 urretxikitatik gelditu zen sobra 35 pezeta ta zenbait kuarto. Ezin harrapatu dut papera asentatu nuena. Hor bada asentua,<sup>328</sup> gaztigatu nuen zer sobratu zen.

Errenteriako olajaunak eraman zituen hemendik bi kintal kuadro, berorri edo niri dirua emanen zigula, ta gaztiga beza eman edo bealdu egin dion iñorekin; berorri pagatu ezpadio nik eskatuko diot.

Olaberria, 15 de setiembre de 1798.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1798.10.22

Leneko astean erre den arragoako jornalak.

Itzaiak egurketan

Franzisko de Irigoien . . . . .	3 leras
Nikolas de Agerre . . . . .	3
Juan Jose de Aranburu <sup>329</sup> . . . . .	6

<sup>326</sup> Gutun honen aurkian, eskuinaldean eta behetik gora idatzirik, badira olajaunak egin-dako beste apunte batzuk, eta halaber eskutitzaren binperrean, ezker-eskuin emanik.

<sup>327</sup> Hauen azpian olajaunaren beste apunte hauek ere ageri dira: 1798. Octubre 4. Pagué a Joseph Ramon dichos 354 pezetas 26½ cuartos.

<sup>328</sup> Ez dakigu baldintza den edo 'bai da' den. Lehena seguruenik.

<sup>329</sup> Oiartzungo bazterretxea.

Franzisko de Aranburu . . . . . 6  
A 5 reales de vellón . . . . . 18 leras

Peonak

Migel de Irigoien . . . . . 21 días  
 Manuel de Esnau . . . . . 15 días  
 Batista de Tomasenea<sup>330</sup> . . . . . 11 días  
 Manuel de Itxabeste . . . . . 02 días  
 Franzisko Antonio de Ribere<sup>331</sup> . . . . . 01 días  
A 6 reales de vellón . . . . . 50 días  
 Un azumbre de vino 32 cuartos

Todos importan . . . . . 98 pezetas y 15 cuartos  
 Migel de Irigoien 21 días kendu . . . . . 31 pezetas y 17 cuartos  
 Heldu da . . . . . 66 pezetas y 32 cuartos

Migel de Irigoienek nola dituen 60 pezeta hartuak, haietarako uzten ditu jornalak.

Primaberan botea izandu da orañdañoeko egurra. Ta zamak adaki<sup>332</sup> bat badu erdian, edeki<sup>333</sup> egiten zioten mandazaiak; luma bat pisatzen ez egurrak, ta halere! Ta idienzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus eka-rriko ez dutela, leku muspela<sup>334</sup> da-ta. Alde guzietara ere badago zer egiñ, baño denaz ere,<sup>335</sup> itzaiekin merkexeago da. Bide egite gaistoak daude; gaitzena egiñ da orañoan. Pezeta kontuan<sup>336</sup> saiatu giñan itzaiekin, baño ez daude hartako. Olaberria, 22 de octubre de 1798.

*Su servidor Joseph Ramón.*

**1798.11.12 ingurukoa**

*Año de 1798 desde 5 de mayo.*

Nik gastatuak:

6 de mayo. Maxkurio haxiak 6 arrobas 3 pezetas

<sup>330</sup> Egun *Tomasenborda* Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 293).

<sup>331</sup> Gutunean *deRibere* idatzirik dago.

<sup>332</sup> ‘Adaxka’, itxuraz.

<sup>333</sup> ‘Kendu’.

<sup>334</sup> ‘Ospela, laiotza, eguzkiak gutxitan jotzen duen lekua’.

<sup>335</sup> ‘Guztiarekin ere’, ‘guztiz ere’, ‘dena dela ere’.

<sup>336</sup> ‘Pezetaka ordainduz’; ikus hiztegia, *kontuan* sarrera.

Erruda haspategikoarenat <sup>337</sup> itzeak . . . . .	.1 pezeta y 25½ cuartos
Mea garbizalleai mea zareak . . . . .	1 pezeta y 17 cuartos
10 de mayo. Tobera Hernanira bealzeko . . . . .	1 pezeta
19 de mayo Maxkurio haxiak . . . . .	
2½ quintales importan . . . . .	.7 pezetas y 17 cuartos
23 de mayo. Baba ekarze-saria . . . . .	.0 y 17 cuartos
26 de mayo. Maxkurio 2 quintales . . . . .	6 pezetas
6 de junio. Maxkurio 2 quintales . . . . .	.6 pezetas
9 de junio. Maxkurio 4 arrobas . . . . .	.2 pezetas
13 de junio. Pa[s]tor[r]i <sup>338</sup> kanalegillenzat gonbitetako . . . . .	.5 pezetas
27 de junio. Baba ekarze-saria . . . . .	.0 . . . . .17 cuartos
30 de junio. Maxkurio 3½ arrobas . . . . .	.1 pezeta y 25½ cuartos
15 de julio. 7 cestos . . . . .	.2 pezetas y 21 cuartos
18 de julio. Maxkurio 5½ arrobas . . . . .	.2 pezetas y 25½ cuartos
2 de agosto. Baba ekarze-saria . . . . .	.0 . . . . .17 cuartos
11 de agosto Maxkurio 5¼ arrobas . . . . .	.2 pezetas y 21 cuartos
18 de agosto. Galzatzikiren semeak haxiak 5¼ arrobas . . . . .	.2 pezetas y 21 cuartos
24 de agosto. Aza landareak . . . . .	.3 pezetas
	<hr/>
	51 pezetas y 12 cuartos
Son . . . . .	.51 pezetas y 12 cuartos <sup>339</sup>
4 de setiembre. Arrago egurra emateko juradu[a]ren <sup>340</sup> jornala . . . . .	.2 pezetas
7 de setiembre. Maxkurio 2 arrobas . . . . .	.1 pezeta
11 de setiembre. Maxkurio 2½ arrobas . . . . .	.1 pezeta y 8½ cuartos
14 de setiembre. Baba ekarze-saria . . . . .	.0 . . . . .17 cuartos
26 de setiembre. Aza landareak . . . . .	.3 pezetas
6 de octubre. Maxkurio 5 arrobas haxiak . . . . .	.2 pezetas y 17 cuartos
14 de octubre. Aza landareak . . . . .	.1 pezeta
Joseph Antonio de Endarari <sup>341</sup> Tomasen partez irabaziak . . . . .	.8 pezetas y 14 cuartos

<sup>337</sup> Errueda edo erruda hauspotegikoa izan daiteke, hemen bezala, edo kabitegikoa; ikus bedi hiztegia. Bistan da JRMk *haspategiko errudarentzako itzeak* 'hauspotegiko gurrpilarantzako iltzeak' esan nahi zuela.

<sup>338</sup> Originalean *patori* dago. Badirudi beste batzuetan agertzen den *Franzisko Pastor* dugula hemen, datiboan.

<sup>339</sup> Beste orrialde batean dago hau originalean, eta hortik aitzineko kopurua errepikatzea.

<sup>340</sup> Originalean *juraduren* dago.

<sup>341</sup> *Endara* Lesakako burdinola eta auzoa zen. Donibane Lohizuneko 1799ko azaroaren 25eko gutun batean «olajaun»-tzat hartzen da Endara hau.



18 de octubre. Baba ekarze-saria	.....0	.....17 cuartos
19 de octubre. Pello maisuari emanak	....31	pezetas y 8½ cuartos
20 de octubre. Maxkurio 3¼ arrobas	.....1	pezeta y 21 cuartos
21 de octubre. Kristori <sup>342</sup>	.....12	pezetas
27 de octubre. Maxkurio 2 y ¾ arrobas	.....1	pezeta y 12½ cuartos
1 de noviembre. Aizkora alzairatzea <sup>343</sup>		
ta arraztelu bat berria	.....4	pezetas y 17 cuartos
4 de noviembre. Txotxa <sup>344</sup> zenaren seme		
gaziari olatxoan irabazia	.....5	pezetas
5 de noviembre. Joseph de Arretxeri	....39	pezetas y 6½ cuartos
11 de noviembre. Joseph Ignazio de		
Arretxeari	.....20	pezetas
Gastatuak	.....186	pezetas y 15 cuartos
Rezibituak:		
6 de mayo. Manuel de Arbide		
«Kirkirra» <sup>345</sup> 1 borra 12 libras	.....4	pezetas y 17 cuartos
7 de junio. Espensan diruetan		
sobra nuen	.....3	pezetas y 6 cuartos
21 de junio. Pedro de Maritorea		
fierro lleva 23 libras	.....5	pezetas y 25½ cuartos
28 de julio. Maritorea 16 libras	.....4	pezetas
Martinmotzanekoak <sup>346</sup> palanka		
16 libras	.....4	pezetas
1 de agosto. Joseph de Etxeberria		
fierro 80 libras	.....20	pezetas

<sup>342</sup> Kristo hau goitizena da. Zernahi gisaz, *Kristobal* izenaren aldaera laburtua ere izan liteke, hipokoristikoa alegia. Erka bedi Perurenak (1996: 234) Leitza belarriz bildu zuen *Jainkoa*-rekin, eta gerok ediren dugun Jaizko 1519ko *Jaunzerukoa*-rekin (*Jauncerucoa* idatzia, P. Salaberri: 1995: 165).

<sup>343</sup> Satrustegik (1969) argitaratutako Luzaideko arotzaren liburuan (XIX. jendemandearen bukaerako da) behin baino gehiagotan aurkitzen dugu *altzairatu* aditza: «*Aizur bat eracachi, bida alzairatu*», «*bi aizur alzairatu*» (ikus Kamino eta Salaberri, 2007: 13). EHn «altzairu bihurtu; altzairuaren tasunak eman» dela esaten da, baina arotzen eta burdinolen munduan irudi du gehiago dela hautsia edo hausteko puntuan den tresna bati (aitzur, aizkora, are, mailu, nabar, palangeta, pikotx eta besteri) altzairua, altzairu urtua gehitzea, ematea, arranjatzeke, puskatua denean, edo indartzeko, puskatzeke zorian denean.

<sup>344</sup> Goitizena dugu hau.

<sup>345</sup> Originalean *Martin motzanecoaq* idatzirik dago. *Arbide* Oiartzungo baserria da, burdinola ere izana (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 77). *Kirkirra* Manuel horren izengoitia zatekeen.

<sup>346</sup> *Martimotzanea* Oiartzungo bazterretxea zen. 1857an (NOPGI, 58) *Martimozaena* «*casa de labor*» ageri da herri horretan.

7 de agosto. Pedro de Maritorea	
1 arroba fierro . . . . .	.06 pezetas y 8½ cuartos
19 de agosto. Pedro de Maritorea	
29 libras . . . . .	.07 pezetas y 8½ cuartos
11 de setiembre. Martin de Urriztola	
gurdí burnia 4 arrobas . . . . .	.25 pezetas
2 de octubre. Maritorea 1 arroba fierro . . . . .	.06 pezetas y 8½ cuartos
5 de octubre. Joseph Ignazio de Lekuna	
fierro 1 arroba y 13 libras . . . . .	.9½ pezetas
16 de octubre. Maritorea 1 arroba fierro . . . . .	.06 pezetas y 8½ cuartos
	<u>108 pezetas y 6 cuartos</u>
Son . . . . .	108 pezetas y 6 cuartos
16 de octubre. Joseph Ignazio de Lekuna	
fierro lleva 37 libras . . . . .	.9 pezetas y 8½ cuartos
18 de octubre. Maritorea 22 libras fierro . . . . .	5 pezetas y 17 cuartos
31 de octubre. Joseph Ignazio de Lekuna	
37 libras . . . . .	9 pezetas y 8½ cuartos
4 de noviembre. Arotzen diruetan	
sobra zen . . . . .	.1 pezeta y 10½ cuartos
Balentin de Albiztur lleva fierro	
3 arrobas y 8 libras . . . . .	.20 pezetas y 25½ cuartos
7 de noviembre. Juan Antonio de Señ fierro	
lleva 29½ libras . . . . .	.7 pezetas y 12½ cuartos
12 de noviembre. Pazingillea <sup>347</sup>	
fierro kabilla 49½ libras . . . . .	.12 pezetas y 8½ cuartos
Nik hartuak . . . . .	.173 pezetas y 29 cuartos
Gastatuak . . . . .	.186 pezetas y 15 cuartos
Harzeko dut . . . . .	.012 pezetas y 20 cuartos

1798.11.16

Año de 1798 y 16 de noviembre.

Ganboko Arotxarenzat <sup>348</sup> bealdu ditut	
ustaiak 2 de octubre . . . . .	.33 quintales y 2 arrobas, 304 barras
8 de octubre. Cabillas . . . . .	.33 quintales y 2 arrobas, 293 barras
26 de octubre. Cuadros y planchuelas . . . . .	25 quintales . . . . . .245 barras
10 de noviembre. Cuadros . . . . .	25 quintales . . . . . .291 barras

<sup>347</sup> Paziak edo «pazinak» ‘pertzak’ egiten dituen.

<sup>348</sup> Arotxa lagun baten izengoitia da.

*16 de noviembre. Cuadros* . . . . . *33 quintales* . . . . . *342 barras*  
*Son* . . . . . *149 quintales, 4 arrobas 1.475 barras*

Jose Ramon de Minondo.

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1798.12.18<sup>349</sup>

*Año de 1798 y 18 de diciembre.*

*Cuenta de bueyeros.*

Luis de Lekuna, desde 23 de mayo de Rentería a Olaberria:

*Menas* . . . . . *401 quintales*

*Fierros* . . . . . *.077 quintales*

*En Olaberria* . . . . . *478 quintales*

*A Fagoagtxiki menas* . . . . . *.115 quintales*

*Fierros* . . . . . *.69½ quintales*

*En Fagoagtxiki* . . . . . *.184½ quintales*

*De Ariztxulegi mangos*<sup>350</sup> . . . . . *.2 días*

*Tiene fierros* . . . . . *.4 quintales y 17½ libras*

Franzisko de Irigoien. Desde 14 de marzo a Olaberria:

*Menas* . . . . . *.264½ quintales*

*Fierros* . . . . . *.048 quintales*

*En Olaberria* . . . . . *.312½ quintales*

*A Fagoagtxiki menas* . . . . . *.91 quintales*

*Fierros* . . . . . *.75½ quintales*

*En Fagoagtxiki* . . . . . *.166½ quintales*

*De Ariztxulegi mangos* . . . . . *.2 días*

*Tiene fierros* . . . . . *.7 arrobas y 11 libras*

Egun urtebete hoiek biak kontua hartu zuten hemendik, ta gurdi burniak ez nituen sartu kontuan, ta esan zuten aipatu zituztela kontuetan.

Luis de Lekunak zuen . . . . . *.1 quintal*

Franzisko de Irigoienek . . . . . *.5 arrobas y 10 libras*

<sup>349</sup> Tarteka olajaunaren apunteak aurkitzen ditugu. Gure interesekoak ez direnez gero, ez ditugu hemen kopiatzen.

<sup>350</sup> Hauek *gabi igunak* edo *kabiguñak* dira; zuhaitz enborrak behar ziren honelakoak egiteko. Ikus gorago esan duguna.

Kosme de Lekuna *a* Olaberria:

<i>Menas</i> .....	<u>.226 quintales</u>
<i>Fierros</i> .....	<u>.023 quintales</u>
<i>En Olaberria</i> .....	<u>.249 quintales</u>
<i>A Fagoagatxiki menas</i> .....	<u>.81 quintales</u>
<i>Fierros</i> .....	<u>.34 quintales</u>
<i>En Fagoagatxiki</i> .....	<u>.115 quintales</u>
<i>De Ariztxulegi mango</i> .....	<u>.1 día</u>
<i>Tiene fierro</i> .....	<u>.8 arrobas y 23 libras</u>

Franzisko de Aranburu *a* Olaberria:

<i>Menas</i> .....	<u>185 quintales</u>
<i>Fierros</i> .....	<u>.10</u>
<i>En Olaberria</i> .....	<u>.195 quintales</u>
<i>A Fagoagatxiki menas</i> .....	<u>.095 quintales</u>
<i>Fierros</i> .....	<u>.020½ quintales</u>
<i>En Fagoagatxiki</i> .....	<u>.115½ quintales</u>
<i>De Ariztxulegi mango</i> .....	<u>.1 día</u>
<i>Tiene fierro</i> .....	<u>.9 arrobas y 7 libras</u>

*Desde 25 de junio.*

Nikolas de Agerre *a* Olaberria:

<i>Menas</i> .....	<u>.176½ quintales</u>
<i>Fierros</i> .....	<u>.027 quintales</u>
<i>En Olaberria</i> .....	<u>.203½ quintales</u>
<i>A Fagoagatxiki menas</i> .....	<u>.50½ quintales</u>
<i>Fierros</i> .....	<u>.25½ quintales</u>
<i>En Fagoagatxiki</i> .....	<u>.76 quintales</u>

## 1798.12.Bukaera

Nagusi jauna:

Franzisko de Aranburu Agerrekoaren<sup>351</sup> kontua bealdu nuen *hasta 18 de diciembre de 98*. Geroztik orañdaño ekarri du Errenteriatik olara:

<i>Mea</i> .....	<u>.205½ quintales</u>
<i>Fierros</i> .....	<u>.047½ quintales</u>
<i>Olaberrian</i> .....	<u>.253 quintales</u>

Burnia hoietatik zerbait añadituko zuela mearik etzen denboran.

<sup>351</sup> Oiartzungo baserria, oraindik ere ahoz *Agerre* dena (ikus Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 53).

Eramanak dira <i>13½ quintales</i>	
Fagoagatzikira mea	..... <i>144½ quintales</i>
Burnia	..... <i>.020½ quintales</i>
Fagoagatzikin	..... <i>165 quintales</i>

Jose Ramon de Minondo.<sup>352</sup>

1799.01.06

Nagusi jauna:

Ganboko Arotxarenzat bealdu ditut Ziburura guziak:

<i>En 2 de octubre. Planchuelas</i>	..... <i>33 quintales y 2 arrobas</i>
<i>8 de octubre. Cabillas</i>	..... <i>33 quintales y 2 arrobas</i>
<i>26 de octubre. Cuadros y planchuelas</i>	..... <i>25 quintales</i>
<i>10 de noviembre. Cuadros</i>	..... <i>25 quintales</i>
<i>16 de noviembre. Cuadros</i>	..... <i>33 quintales</i>
<i>en 21 de diciembre. Planchuelas</i>	..... <i>25 quintales</i>

Hoiek dirade Ziburura bealduak, ta orañ txabal txiki honetatik orgaren bat bezala dago egiña. Endarak gaztigatu du meza enzun beharra dela, ta bigar enzun ta etorriko dela. Nekez akabatzen ditu mezak ta pregoiak hark! Olaberria, 6 de enero de 1799.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1799.01.21

Nagusi jauna:

Arotxarenzat bealdu ditut Ziburura plantxuelak:<sup>353</sup>

<i>21 de diciembre de 98</i>	..... <i>25 quintales</i>
<i>11 de enero de 99</i>	..... <i>25 quintales</i>
<i>16 de enero</i>	..... <i>25 quintales</i>

---

<sup>352</sup> Binperrean olaunak egindako hainbat apunte daude. Horietatik *Franco Aramburu Aguerrecoa* eta *Pachico Andia* deizioak aipa daitezke. Ikus onomastika atalean hauetaz dioguna.

<sup>353</sup> Burdinolan egiten ziren burdinazko xaflak. Ikus hiztegia.

25 quintales ustaiakin dira . . . . . 75 quintales  
 24 enero mas otros . . . . . 25 quintales  
 100 quintales

Ta orañ bi orga dira egiñak ta hiru ordutara dihoa,<sup>354</sup> ta Endara ez da ageri orañik. Hiru orgak orañ bealzearekin izanen dira guziak 100 quintales.

Berentzikiko<sup>355</sup> mutill hori iaz<sup>356</sup> ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean, ta agoak<sup>357</sup> apainzen eziñ moldatu omen da batere; nik ez dut ekusi. Kabezoiak<sup>358</sup> tiratzen aritzen da hemen allegatzen den denboran. Agoak apaindu ezkeroko tretxua egiñen luke, baño lagunak apaindu — — — aritu — — —,<sup>359</sup> ta egun batean bakarrik aritu zen, Tomas miñez ta Antokorena<sup>360</sup> etorri ezta,<sup>361</sup> ta lau agoa hogeita lau orduan egiñ omen zituzten, ta laguna etorri zitzaionean guziak lagunak apaindu,<sup>362</sup> orañ aste bat edo beste. Nahi badu ekusi hor edo hemen moldatuko ote den batere, ekusiko dugu.

Olaberria, 21 de enero de 1799.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean<sup>363</sup> orantxe etorri da.

*A don Juan Bautista de Minondo.*

<sup>354</sup> Originalean *dioa* dago. Hemendik atera izanen da Goizuetako egungo *dio* ‘doa’ aldaera.

<sup>355</sup> *Berentzikiki(a)* etxe izena da, eta hola agertzen da gutunotan, nahiz berez *Berintzikiki* izan. Oiartzungo Ergoien auzoko baserria da; *Berín* edo *Berinzar* eta *Berínberri* bazterretxeak ere badira aipatu herrian (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 105). 1499an «*la casa de Verin*» daukagu (Irijoa eta Lema, 2011: 97).

<sup>356</sup> Originalean *biaz* idatzirik dago. Ikus grafiari eskaini atalean dioguna.

<sup>357</sup> *Euskaltzaindiaren Hiztegia*-ren arabera, ‘sutegian gorituriko burdin zatia’ da *agoa*. OEHK ‘burdin ore urtua’ adiera ematen dio. *Agoa apaindu* ‘agoa landu’, ‘agoa moldatu’ esaten zela ikusten da hemen eta beste gutun batzuetan. Ikus hiztegia.

<sup>358</sup> Hau ere burdinoletan egiten zuten beste piezaren bat izanen da.

<sup>359</sup> Sei hitz «gainmarraturik» daude: lehena (*lagunaq*) ez da ongi irakurtzen ahal, letra batzuk ezabatutik daudelako; beste bost hitzetatik bi (*apayndu, aritu*) ulertzen dira.

<sup>360</sup> *Antokorena* (egun *Antoka*) Goizuetako baserria da; testuan bazterretxe horretako norbaiten izengoitia dugu.

<sup>361</sup> Baiezkoan *etorríta*, ezezkoan *etorri ezta*. Forma hauek ez dira, beraz, pentsa daitekeenaren kontra, hain berriak. Nolanahiko gisan, *AN* + *ez* + *AL* hurrenkera duen perpaus nagusizat ere eman daiteke. Hots, *ezta* hori *ez da* dateke, *ez ez ta*, ezinbestean. Ikus hitz ordenari buruzko kapitulua.

<sup>362</sup> Ohart bekio aditz laguntzailearen ezabaketa hanpatzaileari. Ikus aditz morfologiari eskaini atalean dioguna.

<sup>363</sup> ‘Igandean etorriko balitz bezain lasai’.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1799.03.12

Nagusi jauna:

Indianoagandik<sup>364</sup> errezibitu ditut:

Ikatzak ..... *5.157½ cargas y 1 otsabeharria*

Olatxoan berarengat erre zen ..... *.0032½ cargas*

Heldu da zor ..... *5.125 cargas y 1 otsabeharria*

Burniak eraman ditu ..... *476 quintales y 32½ libras*

Hoietat gañera, azkeneko berrogeita hamasei kintaletan jua dira *84 libras*.

Damianek agindu<sup>365</sup> dit eskasaren kanta dadukala Lamothek pisuaz,<sup>366</sup> ta len libra bat bezala, bi libra ta erdi emateko kintalari, ta oraño libra ta erdi añaadimentu hau Indianoak abonatuko duela kontuetan.

Olatxo aritu zenean espensa egiñ zuten:

Guk emana ..... *.125 reales y 16 maravedís vellón*

Olatxokoen jornalak ..... *.092 ..... .23 maravedís*

Gastu guzia ..... *.218 reales y 5 maravedís*

Olaberria, *12 de marzo de 1799*.

---

<sup>364</sup> Bi hitzetan idatzia da: *Yndianoa gandic*. *Indianoa* goitizena da; segur aski eramailea Ameriketara egon zelako deituko zuten hola, edo Oiarzabango *Indianoenekoa* zelako, ez baitakigu etxearren izena noiztikakoa den. Nolanahi ere, badakigu nor zen *Indianoa*: *Luis Oiarzabal* jauna, oiartzuarra seguruenik.

<sup>365</sup> Irudi du hemen 'esan', 'jakinarazi' edo holako zerbait esan nahi duela. Aditz honen beste erabilera berezia *Le Dauphin* itsasontziko gutun batean edireten dugu, adieraz 'espero izan'-edo izan arren: «*Beinat, ene bihotz maítia, dio zure arrebak baduela hirur urte zure emaztegaia bilatua duela, bethi dagoela hagarandua zu ikusi nahiz, bethi galdegiten dioz-kala zure berriak eta bethi agintzen zaituela, baldin fraide egin gogo ezpaduzu*» (Lamikiz, Padilla eta Videgain, 2015: 101; letra lodia gurea da).

<sup>366</sup> Donibane Lohizuneko *Jean Darretche Lamothé* zen hau, aipatu herriko burdinola bateko jauna. Euskaraz *Lamoteq*, *Lamoti*, *Lamotenzat*, *Lamotengana* darabiltza JRMk, bukaerako bokala frantsesez ebakitzen ez delako eta deitura, beraz, gure egilearendako *Lamot* zelako. Pasarte honetan adierazten da, itxuraz, Lamothek kintalari pisu gutxiegi ematen diotela esaten duela, eta pisuaren kontu hori behin eta berriz errepikatzen diela Lapurdiko kostaldeko olajaunak.

*Su servidor* Joseph Ramon de Minondo.

*Carbones que entró en Olaberria de Oiarzun don Luis Oiarzabal, de la suerte de Añarbe que se le sobraron al fin de su arriendo de Añarbe.*<sup>367</sup>

#### 1799.04.Bukaera

*Cuenta de los oficiales de Olaberria.*

*Desde 25 de agosto de 98 hasta 20 de abril de 99.*

Tomas de Arbelaiz «Fortaleza» *haciendo remienta* . . . 4 días

Miguel de Etxenike «Antoka» . . . . . 0

Sebastian de Olaiz «Juansendo» *haciendo remienta* . . . 2 días

Nikolas Arbelaiz «Fortaleza» *haciendo remienta* . . . 2 días

*Trechos 744 quintales y expensa 424 pezetas y 10½ cuartos*

Hiru anega babaren txartela hartu dute.

Espensa rebajatu behar zaiote 6 pezetas y 5½ cuartos.

Kabia egin zenean ola preparatzen ta kabiguña sarzen egin zutena da. Beren taitatik<sup>368</sup> yan zuten bi egunean. Ta lau ofizialeak biña egun badute ordukoa.

~~Juan Sorondok~~ \_\_\_\_\_ 369

Nikolas de Arbelaizen partez irabazi zuen

Franzisko Antonio de Makatzagak . . . . . 21 pezetas y 8 cuartos

Tomas igelearen partez Jose

Antonio de Endarak . . . . . 8 pezetas y 14 cuartos

Migel igelearen partez, aste honetan

maisua aritu baita . . . . . 6 pezetas y 4 cuartos

Hoiek dira bakoitzari rebajatu beharrak.

Espensa hau pagatzeko falta dira 25 pezetas y 29½ cuartos.<sup>370</sup>

Jose Ramon de Minondo.

<sup>367</sup> Erretereriako burdinola, egun izen bereko urtegia dagoen lekuan zegoena. Ikus A. M. Mitxelena (2020b: 80-97). Ohar hau JBM olajaunak idatzia da.

<sup>368</sup> Ez dugu hitza inon ediren. Adiera, ordea, garbia da: berek ekarritakotik jan zuten, ez burdinolako espentsatik, ez olak emandako jakietatik. Arranbidetako arduraduna zen IBren gutunetan *Taiatziki* izeneko botiga edo ardandegia frankotan agertzen da –olarako ardoa bertan erosten zuten behintzat–, eta badirudi hor ere *taia* hori bera dagoela. Zernahi ere dela, Goizuetan badakite oraino *taia* zer den, bizirik dago elea (ikus hiztegia).

<sup>369</sup> Gutxienez bost hitz daude «gainmarraturik», eta horietatik lehen biak baizik ez ditugu irakurtzen ahal.

<sup>370</sup> Honen ondoan olajaunak egindako apunteak daude.



## 1799.06.Hasiera

*Año de 1799.*

*Desde 5 de mayo hasta 1 de junio.*

<i>En martinete 30 panes a 31 cuartos importan . . .</i>	<i>.27 pezetas y 12 cuartos</i>
<i>5 libras de aceite a 36 cuartos</i>	<i>05 pezetas y 10 cuartos</i>
<i>Sardinas de . . . . .</i>	<i>.00 . . . . .17 cuartos</i>
<i>52½ azumbres de sidra a 3 cuartos . . . . .</i>	<i>.04 pezetas y 21½ cuartos</i>
<i>Expensa de mayo . . . . .</i>	<i>.37 pezetas y 26½ cuartos</i>
<i>Expensa de abril . . . . .</i>	<i>145 . . . . .22 cuartos</i>
<i>Ola handikoetan zor gelditu zena . . . . .</i>	<i>.025 . . . . .29½ cuartos</i>
<i>Guzia zor da . . . . .</i>	<i>.209 pezetas y 10 cuartos</i>

## 1799.07.26

Nagusi jauna:

Martin de Telletxeak ditu *desde 26 de setiembre de 96 hasta 1 de julio de 97* bitartea:<sup>371</sup>

*29 semanas y 2 días*

*08 días haciendo remienta*<sup>372</sup>

Geroztik, *marzo de 98an* pasatu zituen *1½ semana*,<sup>373</sup> Juan Franzisko zena juanta, haren lekuan gero aprendiza sartu baizen.

Olaberria, *26 de julio de 1799.*

*Su servidor Joseph Ramón.*

Makatzen<sup>374</sup> urzalle hura poliki ari da; libre baliz, Juansendoren lekuan! Igele goizuetar hau ere sanmartiñetan Hernanira omen dihoa<sup>375</sup> bizitzera; gogo handirik ez du honek ere honarako. Egun bildu dira.

<sup>371</sup> 'Bitartean', 'arte'.

<sup>372</sup> 'Haciendo herramienta', 'erreminta egiten'.

<sup>373</sup> Originalean «*gueroztiq Marzo de 98 han pasatu zituen 1½ semana*» dago, eta hau «*geroztik, marzo de 98, han pastu zituen 1½ semana*» ere uler daiteke, baina *b* franko nolanhika ibiltzen du egileak (ez beti ordea; ikus sistema grafikoari eskaini atalean dioguna), eta, bestalde, «*14 de marzoan entregatuta*»-ren modukoak izatea hemen «*marzo de 98an*» ikustearen alde mintzo da.

<sup>374</sup> *Makatzaga* deitura edo baserri izena daukagu beste gutun batean. Goizuetan *Makazaga* da egungo deitura, baina bada *Makatxan itxea* deritzana, *Zubirinea* bera (ikus Perurena, Salaberrri eta Zubiri, 2011: 135, 196). Etxea *Makatxa* deitzen zuten gizonarena zen; egun *Koro Makatxana, Ixiar Makatxana*... dira haren alabak.

<sup>375</sup> Originalean *dioa* daukagu.

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1799.09.09

*9 de setiembre de 1799.*

Lengo astean erre den arragoako jornalak. Itzaiak:

Joseph Antonio de Mitxelena . . . . .	3 leras
Juakin de Oiarbide . . . . .	.6
Luis de Lekuna . . . . .	.6
Franzisko de Aranburu . . . . .	.6
Franzisko de Irigoien . . . . .	.9
Migel de Aranburu . . . . .	.9
	<hr/>
	39 leras

Manuel de Itxabeste . . . . .	11 días
Batista de Tomasenea . . . . .	.8½
Migel de Irigoien . . . . .	.9
Manuel de Esnau . . . . .	.9½
	<hr/>
	38 días

*1 azumbre de vino 1 pezeta*

*Todos importan: 97 pezetas y 1 real de vellón*

Migel de Irigoien Munoako mutillak hartu zuen 60 pezeta.

Honetarako deskritatu zazkio,<sup>376</sup> oraño arragoaz kanpora,...51 pezetas y 2½ reales.

Olatxoan pasatu ditu 24 días uhagan,<sup>377</sup> ta kontua egiñen du.<sup>378</sup>

---

<sup>376</sup> 'Deskontatu zaizkio'.

<sup>377</sup> *Uhaga* berez ez da 'ur ponpa' (EH), hau irekitzeko ibiltzen zen haga edo makila baidzik. Eraginez gero, txinboa gora joan, gezurraskan ura sartu eta burdinolako gurpilak (gabiarena eta hauspoena) higitzen zituen. Honela dio Zubiaurrek (1960: 101): «Txinbo bakoitzak bere giltza du. Giltz oni beruntz bultzaka arri aundi baten pixua. Arri au abe baten gañean lotuta dago, eta abe au ardatz baten balantzaka. Abe au, leio batetik zear, ola barrura sartzen da. Barrukaldeko ertzean, goitik bera, uraga darama katiaturik. Uragaren beko ertza langillearen eskuraño dijoa. Urari eman bear zaionean uragari berutz eragin ezkeru, ur-abeak, biratuaz, txinboaren giltza jasotzen du eta ur-zuloa iriki. Langilleak uraga uzten duenean, ur-abeak kanpoko aldean daraman arri aztunaren indarrez txinboa ixten du giltzaren bitartez». Ikus *uhaga* sarrera, hiztegian.

<sup>378</sup> 'Eginen du berorrek'.

A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1799.09.17

*Año de 1799 y 17 de setiembre.*

*Cuenta de los menajeros<sup>379</sup> de Erorza desde principios de marzo de 98.*

Esteban ta Gabriel bi anaieak bealdu dute:

Erorzatik ehun kintaleko 60 pezeta prezioa . . .426 quintales y ½ arroba

Aranzateko olatik a 2 reales prezioa . . . . .027½ quintales

Dute hartua dirua ta burnia<sup>380</sup> 209 pezetas y 28½ cuartos

Jose Antonek eta Estebanek bealdu dute Erorzatik

hoge pezetako hartu zutenaren alderako<sup>381</sup> 34 quintales

Itzaiak ekarri dute Erorzatik a 2½ reales de vellón

460 quintales ½ arroba; importan . . . . .287 pezetas y 18½ cuartos

Aranzatekoa 2 reales de vellón . . . . .013 pezetas y 25½ cuartos

Importan . . . . .301 pezetas y 10 cuartos

Hoietarako hartu ditut en 20 de abril

de 98 . . . . .48 pezetas

22 de febrero de 99 treinta

orillos hoietatik maisuari

emanak trece gelditu zitzaidan

17 orillos . . . . .90 pezetas y 10½ cuartos

8 de julio . . . . .40 pezetas

Burniak deskrituak . . . . .85 pezetas y 25½ cuartos

Nik hartuak . . . . .264 pezetas y 2 cuartos 264 pezetas y 2 cuartos

Falta da itzaienzat . . . . .037 pezetas y 8 cuartos

Meakarienzat falta da . . . . .060 pezetas y 7 cuartos

Guzia falta da . . . . .97 pezetas y 15 cuartos

<sup>379</sup> Zenbait hizkeratan ohikoa den [x] / [k] nahasketaren beste etsenplu bat dugu hemen. Aldera bedi *Korge (Jorge)* izenarekin. Euskarazko *meakari* terminoaren erdarazko baliokidea da; ikus hiztegiaren dioguna.

<sup>380</sup> Hitz hurrenkerara hau erdarazko kontabilitatearen usadioak bulkatua dela kontu egin beharko dugu.

<sup>381</sup> 'Hartu zuten hoge pezetakoaren alderako, ordainetan'. Ikus erlatiboaz mintzatzean dioguna, joskerari eskaini atalean.

Gabriel meakariak zor zuena gelditu ta gañerakoa bealduko du, kontu hau, ta aurrerako ere bai, zerbait, ta lantegi berri honek ere bealdu du *70 quintales*.<sup>382</sup>

### 1799.10.Hasiera

Olaberria, *12 de setiembre 1798*.

Nagusi jauna:

Ferratzalle Anatxurik hemendik eraman dituen burniak

dira *1 de enero de 1797* ezkeru

..... *20 quintales y 5 arrobas*

Hoietatik kargatzen dio:

Manuel de Itxabesteri *2½ quintales*

Juan Jose de Sorondori ..... *2½ quintales*

Nikolas de Zulaikari ..... *2½ quintales*

Jose Ignazio de Lekunari ..... *1 quintal*

Sebastian de Anzanbordari ..... *1 quintal*

Sebastian de Agerreri ..... *1½ quintales*

Jose Ignazio de Goiari ..... *1½ quintales*

Ignazio de Bengoetxeari ..... *1 quintal*

Franzisko Antonio de Ribereri ..... *1½ quintales*

*15 quintales*

Dio berorren mandoai eman tiola

ferrak ..... *456*

*13 de setiembre más* ..... *020*

*476*

Nagusi jauna:

Anatxuri egun izandu zait kontuak egiten,

ta *13 de setiembre* ezkeru burnia hartu du . *10 quintales y 22 libras*

Horko mandoai eman omen tio ferrak: *88* . . . *44 pezetas*

*1798 13 de setiembrean* gelditu zen harzeko: *28 pezetas*

*72 pezetas*

<sup>382</sup> Ez da hau oso pasarte argia. Beharbada honela ulertu behar da: «Gabriel meakariak zor zuena geldituko du (berorreke) eta gainerakoa bidaliko du, kontu hau, ta aurrerako ere zerbait bidaliko du (hona). Ta lantegi (bertako langileak edo langileek) berri honek bidali du 70 kintal».

Ferrak ta lengo harzekoaren	
deskita egin burnian .....	2 quintales
Ignazio de Bengoetxea kargatzen du <sup>383</sup>	1½ quintales
Sebastian de Bengoetxea .....	1½ quintales
Juan Jose de Sorondo .....	1½ quintales
Nikolas de Zulaika .....	1½ quintales
Jose Ignazio de Goia .....	1½ quintales
<u>Deskitatzekoak<sup>384</sup> .....</u>	<u>9 quintales y 3 arrobas</u>
Heldu da zor .....	1 quintal y 22 libras
<i>Hasta 30 de setiembre de 1799.</i>	

Ta orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera-ta, edo bestela, karraidoretan kontuan pasatzeko.<sup>385</sup>

1799.10.07

1799

*Desde 1 de setiembre hasta 29 de setiembre.*

<i>En martinete 27 panes a 24 cuartos</i>	<i>19 pezetas y 2 cuartos</i>
<i>14¼ azumbres de vino, a 1 pezeta .....</i>	<i>14 pezetas y 8½ cuartos</i>
<i>41 azumbres de sidra a 4½ y</i>	
<i>6 azumbres a 4 cuartos importan .....</i>	<i>.06 pezetas y 4½ cuartos</i>
<i>4¼ libras de aceite a 32 cuartos</i>	<i>04 pezetas</i>
<i>8 libras de abadejo a 19 cuartos</i>	<i>04 pezetas y 16 cuartos</i>
<i>Expensa de setiembre .....</i>	<i>.47 pezetas y 31 cuartos</i>
<i>Len kontua emana, zor dena .....</i>	<i>.360 pezetas y 27 cuartos</i>
<i>Ola handian azkeneko hiru astetan egin den espensa,</i>	
<i>baba berorrek emana gañera dutela</i>	
<u><i>Zor dena da .....</i></u>	<u><i>.057 pezetas y 11 cuartos</i></u>
<u><i>Guzia zor da .....</i></u>	<u><i>.466 pezetas y 1 cuarto</i></u>

Ogidunak<sup>386</sup> esan dit errotariak estutzen duela ta dirua bealzeko. Bidasoroako<sup>387</sup> ematen diote ogia, ta alaba pregoietan daukate, ta prezio

<sup>383</sup> Laguntzailea aditz nagusiaren azken letraren gainean idatzirik dago.

<sup>384</sup> 'Deskontatzekoak'.

<sup>385</sup> Azken zatitxo hau –originalean hiru lerro dira– laugarren orrialdean dago, eta ez daki-gu xuxen irailaren 12an hasten den gutunarekin doan, 13an hasten denarekin, edo biekin.

<sup>386</sup> 'Ogi saltzaileak'.

<sup>387</sup> *Bidasoro* Oiartzungo Karrikako baserria da (ikus Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 109).

behar omen<sup>388</sup> dute. Ta irundar it[z]ai<sup>389</sup> hoiek ere dirua nekez ageri dela diote, ta batzuek gelditu dira; meakarien idiak besterik ez dabilla. Lengo kontua hartu zuenaz gañera, etorri da lengotik lau gurdi, ta beste pezetako hoietatik ekarri dute *250 quintales*.

Olaberria, *7 de octubre de 1799*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1799.10.08

Nagusi jauna:

Anatxuri egun izandu zait kontuak egiten, ta *13 de setiembre*  
ezkero burnia hartu du *10 quintales, 3 arrobas y 22 libras*

Mando horkoai eman omen tio ferrak 88 . . . . . *44 pezetas*

1798 leneko harzekoa *13 septiembre* . . . . . *28*

*72 pezetas*

*1799. Hasta 30 septiembre son llevados estos fierros.*

Ferrak ta leneko harzekoa,

deskita<sup>390</sup> burnian . . . . . *2 quintales*

Ignazio de Bengoetxea. Kargatzen du . . . . . *1½ quintales*

Sebastian de Bengoetxea . . . . . *1½ quintales*

Juan Joseph de Sorondo . . . . . *1½ quintales*

Mikolas de Zulaika . . . . . *1½ quintales*

Joseph Ignazio de Goia . . . . . *1½ quintales*

Deskitatzekoak . . . . . *9 quintales y 3 arrobas*

Heldu da zor . . . . . *1 quintal y 22 libras*

Ta orañ eskatzen du<sup>391</sup> nahiz mandoak ferratze aldera, edo bestela karraidotan, berorrek nahi duenai kargatuko zaiotela.<sup>392</sup> Ta bi kintal burnia ea ema-

<sup>388</sup> Hitza ez da argi-argi ageri, baina ez dago zalantza handirik *omen* dugula.

<sup>389</sup> Originalean *ytay* dago.

<sup>390</sup> 'Deskontua'.

<sup>391</sup> *Anatxurik* eskatzen du.

<sup>392</sup> 'Zaiela'.

nen tion, eskuko miñak<sup>393</sup> lau hillabete daramatziela, ta orañ hasitzeko behar lukeala, solamente erreal ta erdi bellonean, eziñ eman dezakeala ferrarik.<sup>394</sup> Burni karraidoren hoiek, nahi badu, hurrengo hilleko paperean paratuko ditut.

Pello Itxeberrikoak<sup>395</sup> ez du bost pezetako baten kreditarik<sup>396</sup> laguneren artean. A[r]datza<sup>397</sup> ere hartu zuen alde batera ekartzeko,<sup>398</sup> ta lagunak haren kontura etorri nahi ez,<sup>399</sup> ta Martiñen kontura etorri ziran. Ez du hark<sup>400</sup> Ziburuko karretorik<sup>401</sup> egiñen. Len ere aspertu giñan harekin, gezurra ta iskanbilla besterik ezta hura.

Olaberria, 6 de octubre de 1799.

*Su servidor Joseph Ramón*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

---

<sup>393</sup> *Goseak nago*-ren moduko itzulia dugu hau.

<sup>394</sup> Honela ere puntua daiteke pasarte hau: «...ta orañ hasitzeko behar lukeala solamente erreal ta erdi bellonean, eziñ eman dezakeala ferrarik».

<sup>395</sup> *Etxeberria* anitz daude Euskal Herrian, baina hau apika Aranoko edo Goizuetako *Etxeberria* etxeetako batekoa zatekeen. Bi errietan *Itxeberri*- ebakitzen da egun.

<sup>396</sup> 'Ez du bost pezetako txanpon baten krediturik'.

<sup>397</sup> Xuloa dago dokumentuan eta *r* ez da ageri, eta *d* ez erabat, bakarrik makilaren goiko xatia, baina aski garbi dago *ardatza* (burdinolako peza; ikus hiztegia) dugula.

<sup>398</sup> *Zerbait alde batera egin / ekarri / hartu...* esamoldeak erdarazko (*hacer, trabajar...*) *a destajo* bera da, hots, lan bat diru kopuru baten truke egitea, orduak edo soldatak aintzat hartu gabe.

<sup>399</sup> Hemen berriz ere aditz laguntzailearen ezabaketa hanpatzailea dugu, eta holakoetan ohikoa den hitz-ordena aldaketa: «*ta lagunak ez zuten haren kontura etorri nahi*». Zernahi gisaz, gutunotan *AN + ez + AL* hurrenkera frankotan agertzen da, perpaus nagusietan ere, eta badaiteke hemen «*ta lagunak haren kontura etorri nahi ez zuten*» izatea, jatorriz.

<sup>400</sup> Pello Itxeberrikoak.

<sup>401</sup> 'Garraioa'.

1799.10.25

Nagusi jauna:

Matantak<sup>402</sup> omen ditu ganzak horrara bealduak, ta Martin unaiaren<sup>403</sup> deskita<sup>404</sup> nik esan diot, ta esan dit ganzen dirua harzeko duela honek ere, ta ganzen alderako<sup>405</sup> uste zuela Martin unaiaren kontua, ta espensan berorrek deskita egin badu, ganzen dirua bealzeko berehala.

Bost orga bigar kargatu ta astelenean bealdu beharko dira; olan kargatuko al ditugu.<sup>406</sup> Kabiguña ia<sup>407</sup> hautsia dago, ta hausten ezpada Kosmeren itxean ezta bat ere.<sup>408</sup> Lengoan ere olan eskasak genituen bi orgak bertan kunpliturik<sup>409</sup> bealdu genituen; Arranbidetik<sup>410</sup> hiru orga ere dolorez<sup>411</sup> bildu ziran. Entregatu gabeak hiru edo lau kintal omen dira itxetan<sup>412</sup> orañik, Kosmek hala dio, lengo haietatik.

Maisua ta berotzalle hau ere galdaka<sup>413</sup> daude deus ageri den. Ta irundar hoiek gelditu dira. Atzo deus etorri ote zen izandu ziran bi lagun mearekin. Nik ere behar nuke hoge ezkutuko bat. Olaberria, 25 de octubre de 1799.

*Su servidor Joseph Ramón.*

---

<sup>402</sup> Goitizena dugu *Matanta* (*Mattantta*, *Mattanta*) hau. Ez dakigu xuxen nondik heldu den, baina aintzat har bedi *Le Dauphin*-en gutunetan *matanta* ageri dela, *ma tante* 'ene izeba' sintagmatik hartua, irudiz (Lamikiz, Padilla eta Videgain, 2015: 117, 129, 137; izkirio lodia gurea da): «...*eta egorri naunan harekin berainkin (sic) mantalina Angeletakoa ungi fina, bere erribana eta zirikubarekin, zenak hire matantak Xurunekoak kutxan sartu omen baitzuben*», «*Halaber, osaba Franchiskuk eta matanta Cathalinek osasuna dute*», «*Salutatzen zaituzte zure bi arrebek eta osaba Xopitek eta matanta guzijek, eta gaiñerako abaide guzijek*».

<sup>403</sup> 'Behizaina'. Egia esan,azienda larrien zaintzailea da gehiago.

<sup>404</sup> 'Deskontua'.

<sup>405</sup> 'Gantzengatik dirua kobratu behar zuela Martinek' (ustez).

<sup>406</sup> Hau 'olan kargatuko ahal ditugu!' (desira) uler daiteke, baina menturaz 'olan kargatzen ahalko ditugu' (ahala) ere bai, nahiz itzulika hau gehienbat mugaz haraindian ibili.

<sup>407</sup> Originalean *ya* idatzirik dago, baina uste dugu hemen 'kasik' balioa duela. Ikus grafiaren inguruko atalean dioguna.

<sup>408</sup> Hola dago. Nolanahiko gisan, «logikoagoa» dirudi beste era honetara ulertzeak: «*Gabi iguna ia hautsia dago, ta hausten bada Kosmeren etxean ez da batere / bat ere*». Baina dagoena dago.

<sup>409</sup> 'Beterik'.

<sup>410</sup> Urumea ertzeko burdinola, Aranoko udalerrikoa, Goizueta eta Errenteriako mugakoa, Arranbideko bentatik hurbil zegoena, Goizuetatik Hernani aldera joanda herri hartatik bost kilometrora. Pareta zahar batzuen hondakinak besterik ez da gelditzen orain.

<sup>411</sup> 'Nekez'.

<sup>412</sup> 'Etxeetan'. Ikus izen morfologiari buruzko atala.

<sup>413</sup> 'Galdezka'.



Damianek eskatzen du kintal erdi bat burnia.

Azkeneko erre den arragoako jornalak. Hill honetakoa, erre dena.

Itzaiak

Luis de Lekuna . . . . .	.12 leras
Franzisko de Aranburu <sup>414</sup> . . . . .	.6
Franzisko de Irigoien . . . . .	.6
Migel de Aranburu . . . . .	.6
Franzisko de Ariztizabal . . . . .	.3
Pedro Antonio de Errezola . . . . .	.6
	<hr/>
	39 leras, 48 pezetas y 3 reales
Manuel de Esnau . . . . .	.10 días
Batista de Tomasenea . . . . .	.9
Migel de Irigoien . . . . .	.2
Franzisko Antonio de Ribere . . . . .	.9
	<hr/>
	30 días, 37 pezetas y 2 reales
1 azumbre de vino . . . . .	.01 pezeta
Importan . . . . .	.87 pezetas y 1 real
Leneko arragoakoa . . . . .	.97 . . . . . y 1 real
Todos son . . . . .	.184 pezetas y 2 reales

Olaberria, 25 de octubre de 1799.

## 1799.10.26

Nagusi jauna:

Itsas metal<sup>415</sup> puxkaren baten modurik ezpada paratzen honarako, ez da gauza onik egiñen, haxiak<sup>416</sup> dirala ere. Agoa bakoitza kintal bat pisatu dugu.<sup>417</sup> Ikatzak erre ta deus egiñ ez izanen da<sup>418</sup> hemen. Olaberria, 26 de octubre de 1799.

<sup>414</sup> *Aranburu* Oiartzungo baserria da. 1510ean, Oiartzungo Elizalden, *Juan de Çistiaga* eta *Petri de Aranburu* dauzkagu, besteak beste, eta 1514an *Perucho de Aranburu* ageri zaigu (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 130, 272).

<sup>415</sup> Ikus hiztegia.

<sup>416</sup> Burdin txatar hondakinak, peza egindakoan soberakin gelditzen direnak dira *haxiak* (ikus hiztegia).

<sup>417</sup> Puntuatzeko —eta beraz testua ulertzeko— beste era bat hau da: «*Itsas metal puxkaren baten modurik ezpada paratzen honarako, ez da gauza onik egiñen; haxiak dirala ere agoa bakoitza kintal bat pisatu dugu*».

<sup>418</sup> Jose Ramonen idazkera ikusirik «*deus egiñ izanen ez da*» espero genuen, edo menturaz «*deus egiñ ez da izanen*».

*Su servidor Joseph Ramón.*

Gaur heldu diranaz gañerakoak astelenean bealduko ditugu burnitara.

1798<sup>419</sup>

*Menas de la regata Gaztelu*<sup>420</sup> [que] *los carreteros trajeron a Olaberria. Según la razón [de]*<sup>421</sup> *Joseph Ramón son 93½ quintales:*

*De Tomas Portalezakoa son 32 quintales*

*De Zanpado tirador . . . . . 34½ quintales*

*Del hijo Juansendo . . . . . 27½ quintales*

*Son juntos . . . . . 93½ quintales*

*Tomas y hijo Juansendo.....*

*Pasaron en cuenta 28 noviembre 1798.*

1799.12.01

Nagusi jauna:

Suerteá eman dute 2.200 *cargas*<sup>422</sup> a 12 kuartillu

Enborra 0450 *cargas* a 14 kuartillu

Gaztaña 0150 *cargas* a 14 kuartillu

Guziak *importan* . . . . . 13.050 *reales vellón*

Rebajatu ardatzarena<sup>423</sup> 06.788 y 17

Falta da . . . . . 06.261½ *reales*

Azkeneko gaztaña hau kandelan hartu dut, ta probestuak behar du peze-ta. Ta hamaiketako puxkaren bat egiten ari ziran, ta probestuari galdatu diot neretzat ote den pagamenta, ta ez diotela señalatu, ekarzeko esan diotela, ta pagatzean zer esaten duten ageriko dela. Suerteá ta enborrak kandelara gabe eman dituzte. Olaberria, 1 de diciembre de 1799. *Joseph Ramón.*

<sup>419</sup> Hauek olajaunak gutuna hartutakoan binperrean egin apunteak dira.

<sup>420</sup> Euskaraz *Gazteluko erreka* da hau 1791.09.06ko gutunean.

<sup>421</sup> Olajaunak idatzitako erdarazko lerro hauetan *que* eta *de* falta dira, ez dira testuan ageri.

<sup>422</sup> Ez dago guztiz garbi *cargas* gaztelaniazkoa den edo *karga* euskarazkoa, akabailako -s biziki argia ez delako.

<sup>423</sup> Azken silaba hondar-aitzinekoaren gainean idatzia da.

1799

*Desde 3 de noviembre hasta 30 de noviembre.*

*En martinete 62 panes importan . . . . .43 pezetas y 26 cuartos*

*8½ libras de aceite a 1 pezeta y*

*4¼ libras a 36 cuartos . . . . .13 pezetas*

*136½ azumbres de sidra a*

*5 cuartos importan . . . . .20 pezetas y 2½ cuartos*

*15 libras de abadejo a 20 cuartos . . . . .08 pezetas y 28 cuartos*

*Expensa noviembre . . . . .85 pezetas y 22½ cuartos*

*Expensa de octubre . . . . .121 pezetas y 26 cuartos*

*Guzia zor da . . . . .207 pezetas y 14½ cuartos*

1799.12.08

Nagusi jauna:

Joseph Ignazio olatxeakoak du lana egiña *hasta 22 de diciembre de 95.*

Berrorrek (*sic*) hemen egin zuen kontua, baño ez omen zituen Jose Ignaziok pasatu da ordukoa<sup>424</sup> . . . . .84 pesos y 10 reales

*Desde 22 de diciembre hasta 28 de enero de 97.*

Hau ere, kontua, bealdu nuen . . . . .45 pesos y 14¾ reales

Konporta<sup>425</sup> gañera

*Desde 28 de enero de 97 hasta 1 de*

*diciembre de 99 . . . . .98 pesos y 8 reales*

Gaztaña ikatza gañera da . . . . .44½ *cargas*

Olaberria, 8 de diciembre de 1799.

*Su servidor* Joseph Ramon de Minondo.<sup>426</sup>

<sup>424</sup> Irudi du bi esaldiren arteko gurutzaketa edo nahasketa dagoela hemen: ez omen zituen Jose Ignaziok pasatu (84 pesos y 10 reales) + (ta) ordukoa da (84 pesos y 10 reales).

<sup>425</sup> Ikus hiztegian honetaz dioguna.

<sup>426</sup> JRMren testuaren azpian olajaunak, gutuna jasotakoan, egindako hainbat apunte daude. Interesgarrienak hauek dira: *casero Olaechea, Jph Antº Eissaguirre bueiero, Jph Antº Eissaguerre, Ayendola, «haciendo Carbon en Unailecu», Vide macota eta «Abº [abono] 24 dias retejando tejados en Elama».*

1799.12.19

Nagusi jauna:

Irungo itzai ta meakariak estu dabilza bada hemen; pezetan olan entrega den honetatik badira etorriak *335 quintales y ½ arroba*.<sup>427</sup> Hoiiek despeitu ditut ez gehiago ekartzeko beko meatzetatik, ta goiko meakariak egun hemen ziran; lengo kontu piskaren<sup>428</sup> gañera eskatzen dute 30 ezkutu, laster pagatuko dutela.<sup>429</sup> Badute ekarria ehun kintal, kontua egiñ genuen ezker. Josepe igeleak ere eskatzen du 20 ezkutu. Olaberria, *19 de diciembre de 1799*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1800

Nagusi jauna:

Andresi eman diot karta goizean, ta esan dit meza esan ta Konsejura bilzen diranean guziakin egonen dela, ta bera horrara agertu edo kartaz adituko dutela elkar; berak agertzeko asmoa zuela esplikatzen zen. Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela. Guziak saldu nahi hoiiek, suertea ta ola guziak. Elizatik erakutsi zen,<sup>430</sup> baño ez dute paratu orañik suertea kandelan. Ola ere ez dute paratu; bigar edo hurrengo egunen batean hor etorriko da bera, Andres. Olaberria, *20 de 1800*.

Hondarrabiako babak ziudadean batzuek ta besteak ziudadearen garaiko aldean, bere itxean omen ditu gizon hark; Arsua daritza itxeari.<sup>431</sup> Ta beste edozeñ aldetara gehiago kostako dira berari erakarrita baño. Idiak itxean ditu ta bere gauza salzeagatik ekarriko zituela omen zion; gizon fin bat da, ezagutzen dut nik.

*Su servidor Joseph Ramon de Minondo.*

---

<sup>427</sup> Hau beste era honetara ere puntua eta uler daiteke: «*Irungo itzai ta meakariak estu dabilza bada; hemen pezetan olan entrega den honetatik badira etorriak 335 quintales y ½ arroba*».

<sup>428</sup> Originalean *piscaren* idatzia dago. Hau segur aski *piskaren* ulertu beharko da, zenbait aldiz egun *x* izkiriartzen duguna irudikatzen *is* erabiltzen baitu, baina, ziurtasun zurrean, zegoen bezala uztea hobetsi dugu. Ikus grafiaren gaineko atalean dioguna.

<sup>429</sup> Azken perpaus kompletibo hau ez da biziki ongi arranjatzen aitzinekoarekin, baina ez dugu egoera ezagutzen, eta ez dakigu adibidez *esan diotet* 'esan diet'-en moduko zerbait eskas denetz.

<sup>430</sup> 'Publiko egin zen', 'pulpitutik aditzera eman zen'. Ikus hiztegian dioguna.

<sup>431</sup> Hondarribiko etxe baten eta baserri baten izena da egun; Furundarenak (2002: 151) *Artzu* arautu zuen.

Maisuak esan dit Billabona<sup>432</sup> behar duela olara, ta beharzen denean lenxeagodanik<sup>433</sup> gaztigatzeko. Hillabeteren bateko lana omen da, ta zerbait bealzeko, artorik ez [d]uela,<sup>434</sup> ta arto<sup>435</sup> ereiteko dirua ere behar duela.

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.Hasiera

1799

*Desde 30 noviembre hasta 28 de diciembre.*

<i>En martinete 38 panes a 24 cuartos importan</i>	<i>26 pezetas y 28 cuartos</i>
<i>8½ azumbres de vino a 1 pezeta . . . . .</i>	<i>.08 pezetas y 17 cuartos</i>
<i>Mistela de . . . . .</i>	<i>.01 pezeta</i>
<i>8½ libras de aceite a 36 cuartos</i>	<i>09 pezetas</i>
<i>62½ azumbres de sidra a 5 cuartos</i>	<i>09 pezetas y 6½ cuartos</i>
<i>8 libras de abadejo a 20 cuartos</i>	<i>04 pezetas y 24 cuartos</i>
<i>Expensa de diciembre . . . . .</i>	<i>.59 pezetas y 7½ cuartos</i>
<i>De noviembre . . . . .</i>	<i>.85 pezetas y 22½ cuartos</i>
<i>De octubre . . . . .</i>	<i>.121 pezetas y 26 cuartos</i>
<i>Todos . . . . .</i>	<i>.266 pezetas y 22 cuartos</i>

Ola handian ere zor dute espensa, 129 pezetas.

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

<sup>432</sup> Hau deitura edo goitizena izan daiteke.

<sup>433</sup> Originalean *Lensseago deniq* daukagu.

<sup>434</sup> Zuloa dago originalean eta hasierako *d-* hori ez da ikusten.

<sup>435</sup> Originalean *orto* dago.

1800.01.03

Nagusi jauna:

Sagar horiek hamaika makill. Zamorako<sup>436</sup> nagusiak bealdu ditu horrara bealzeko, ta Sisto hori bealzeko, besterena duela ta. Suertearen dirua bealzean arrago egurrarena ere bealdu behar du; 20 karga ikatzena ta lau inutill dira. Inpo[rt]atzen du<sup>437</sup> 83 reales vellón baso guziak pagatuak izan ditezen.

Olaberria, 3 de enero de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Andresek esan dit leneko urteko errentan hari osoaz kargu egiñen diotela, ta hark falta duela orañik, ardatz haspategiko<sup>438</sup> honetaz berorrek gobernokoekin konpondu behar duela. Hark dirua hartuaren erreziboa ematen du, ta gañerako ardatzaren ta bigarren alkabalaren<sup>439</sup> kontua atzera beti geroko.

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.01.09

Nagusi jauna:

Ola handikoak egin dute burnia, desde 24 de agosto hasta 30 de noviembre de 99 .....192 quintales  
Espensa egin dute .....140 pezetas y 8½ cuartos

---

<sup>436</sup> Zamora edo Txamora Goizuetako etxea zen, dokumentazioan eskuarki *Cb*-rekin idatzia azaltzen dena; egun *Txamoraberri* eta *Txamorazar* baserriak ditugu (ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 178-180). Nolanahi ere, *Zamora* (*Xamoa* egun) Oiartzungo baserri baten izena ere bada (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 316); 1857an (NOPGI, 60) *Zamora* eta *Zamora de Alcibar* dauzkagu. Aspaldikoa da, gainera: 1499rako *Juango Çamora* edo *Johango Çamora* ageri dira Oiartzunen (Irijoa eta Lema, 2011: 4, 7).

<sup>437</sup> Originalean *ynpatzen du* daukagu. Garbi dago, alabaina, JRMk *inportatzen du* izkiriatu nahi zuela.

<sup>438</sup> Hauspotegia edo *hauspategia* hauspoak dauden lekua da, burdinolan.

<sup>439</sup> Zerga mota bat.

Espensa honetarako berorrek emana zuten<sup>440</sup> lengotik gelditua baba lau pezetarena,<sup>441</sup> ta azkeneko berorrek bealdu zituen *13 pezetas y 4½ cuartos* hoietatik<sup>442</sup> gastatu dute espensa honetan *7 pezetas y 22 cuartos* babatan. Espensa honetarako berorrek lau pezeta ta zazpi ta hogeita bi kuarto, *11 pezetas y 22 cuartos*, pagatuak ditu; gelditzen da zor pagatzekoa dena *128 pezetas y 20½ cuartos*.

Ta *13 pezetas y 4½ cuartos* hoietatik gastatu [dira]<sup>443</sup> *7 pezetas y 22 cuartos*, ta gelditzen da *5 pezetas y 16½ cuartos*. Aurrera ari diran espensa honetarako baba ekarria dago. Ta lengo<sup>444</sup> arialdi honetan,

Lorenzo de Alsuak irabazi zuen aste batean . . . *.6 pezetas y 2 cuartos*  
Antokok<sup>445</sup> lau egunean . . . . . *.4 pezetas y 6½ cuartos*  
 Tomasi<sup>446</sup> kargatu . . . . . *.10 pezetas y 8½ cuartos*

Ta gañerakoa gelditzen da Tomasenzat, arialdi honetako kintalajea ta espensa guzia.

Lengo asentu<sup>447</sup> horien oñean paratuko dugu kontu hau ere noiznahi. Ostiralean Franziaiko jaia da ta larunbatean jua beharko dute burniak.<sup>448</sup>

<sup>440</sup> Honela ulertu behar dela dirudi: «*Espensa honetarako, berorrek emana, haiek zuten lengotik gelditua [...]».*

<sup>441</sup> ‘Lau pezeta babatan’.

<sup>442</sup> ‘Ta berorrek bealdu zituen azkeneko *13 pezetas y 4½ cuartos* hoietatik’. Ohart bekio erlatiboaren hurrenkerari. Erakusleaz kestione, irudi du ‘horietatik’ esan nahi duela, ez ‘hauetatik’. Goizuetan orain *hoi(e)tatik* da lehen gradukoa, eta *hori(e)tatik* bigarrenkoa. Ikus izen morfologiari buruzko kapituluaren dioguna.

<sup>443</sup> Parentesi arteko adizki hau originalean falta da, ez dago.

<sup>444</sup> Hitza goititua dago, bi lerroen artean paratua.

<sup>445</sup> Era batera baino gehiagotara azaltzen da etxe izengoiti hau: *Antokorena*, *Antoko* nahiz *Antoka*. Ikus gorago eta onomastikaren inguruko atala.

<sup>446</sup> Hau edozein *Tomas* izan daiteke, baina ezin ahanntzi Goizuetan *Tomasenea* etxe baten izena zela (ikus Perurena, Salaberrri eta Zubiri, 2011: 175-176), eta *Tomas* etxe horretako izengoitia izan zitekeela. *Tomasenea* osoa ere azaltzen da gutunotan, etxe izengoitizat.

<sup>447</sup> Erdarazko *asiento*-ren jatorrikide eta baliokide den *asentu* ‘apuntea’, ‘idatzizko oharra’ (eta *asentatu* aditza) ohikoa izan da kontabilitate gaietan euskaraz. Cfr. Berako Juan Bauptista Iurria olagizonaren 1676ko hau (Urrizola, 2006: 265): «...eta bidelcen dizudanean burdiña len / zor dizudanaren alderat ecarcen / duben baba edo oguiaz ganiracoa / asentatuco duzu [...]».

<sup>448</sup> Ziburura edo Donibane Lohizunera, hain segur.

Suerte partitua dago launa puskatan, Erroizpeko ixidutik<sup>449</sup> bi aldetara puska bana, 1.300 karga bezala gutxi gorabera bakoitzarena,<sup>450</sup> ta gureztat Antonsoro<sup>451</sup> aldekoa ta Artikuzakoarenzat Erarin<sup>452</sup> aldea, ta beste sei puska bi aldetatik nasten dira hiruna porzio,<sup>453</sup> milla bana karga bezala bakoitzarenzat, ta orañ bota gabe uztekotan, dagokala<sup>454</sup> goia edo betik, edo nola uztea nahiko duen adiraziko du.

---

<sup>449</sup> *Erroitza* eta *Erroizpe* Goizuetako aurkintzak dira (ikus NTEM XLVII: 89). *Ixidu* (*yssidutiq* ‘ixidutik’ idatzia dago) berez, eta ikusten den bezala, izen arrunta da, gaztelaniako *ejido*-ren jatorri berekoa; nabarmentzekoa da *ijido* aldaera ezaguna dela erdaraz ere. Badakigu, bestalde, Urumeako zilegi mendietan *exido*-ak bazirela, Alkatxurainen, Igorinen, Saratsainen eta Urumearen inguruan (ikus Zaldua, 2012: 733, 957, 1153, 1218), eta Oiartzunen ere ezaguna zen (ikus Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 103, 154). Goizuetako honetan euskarazko aldaera dugula argi dago, eta hori bera dago IBren Arranbideko 1793.09.18ko gutunean ageri den *Ditxiduko ubalde honetan* sintagmako *Ditxidu*-n. Zalduak (2012: 172) Artikutzako *Urdallucodisidua*, *Urdallucodisidua* jasotzen ditu, eta Goizuetako bereko XIX. mendeko udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996: 299) hau dugu, egungo grafian emanik: «*eztadiela nior ere atrebi arbolik ebakitzera ez sarobeetan, eta ez dixiduetan*», gaztelaniaz «*que ninguno sea osado de cortar árboles en seles y ejidos (exidos)*». Gutun honetan berean *Eraringo ixidua* ere ageri da.

Bestalde, Goizuetako *Erroitza* – *Erroizpe* eta *Ixibu* aurkintzak ez daude hagitz hurbil, baina arras urruti ere ez, eta badaiteke *Ixibu* (eta *Ixibuko lepoa*, *Ixibuko mintegia*) hori *ixidu* izen arrunta besterik ez izatea, *u* bokal ezpainbikoaren eragitez *-d- > -b-* pausoa gauzatu eta. Ikus bedi hiztegia.

<sup>450</sup> Originaleko *bacoitzarena* goratua dago, bi lerroen artean emana, lehenbizi ahantzi eta gero idatzi duelako.

<sup>451</sup> Oiartzungo aurkintza (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 65). *Anton* izen ohikoa izan da herrian XV. mendeaz geroztik gutxieneko kontuan, eta *soro* izen arrunta da.

<sup>452</sup> Oiartzungo (Oiartzungo toponimoen mapa; Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 127) eta Goizuetako aurkintza den egungo *Eráin* toponimoaren forma zaharragoa dugu *Erarin*, NTEM XLVIIIn jasotzen ez dena. Bi udalerrien arteko erreka ere bada (ikus Goizuetarano mapa). Nolanahi dela, jatorrizko forma ez bada (ere), *Erarin* baino zaharragoa da 1499an lekukotzen den *Heranin* (Irijoa eta Lema, 2011: 50).

<sup>453</sup> ‘Puska’, ‘zattia’.

<sup>454</sup> ‘Dagokeela, egon daitekeela (bota gabe) goitik edo behetik’, itxuraz, etimoa *dagoke-ala* dela pentsatzen bada (ikus aditz morfologiari eskainitako atalean honetaz dioguna). ‘Dagokiola’ ere izan liteke, ordea. Gure iritzian adiera ‘(bota gabe) egon daitekeela goia edo behea’, ‘(bota gabe) egon daitekeela goitik edo behetik’ da, nahiz egilea pixka bat nahasi den, gauzak adierazteko tenorean.



Guziak txarrak dira, baño halere hoberentxonak goiko puskan; Xardeari<sup>455</sup> ta Madarikoari<sup>456</sup> puxka bana eman, ta gañerakoan Jeronimo ta Axeria ta Matxinoa<sup>457</sup> konponduko dira. Txarra da, baño beste modurik eztago, botatzekotan; ta bean 400 karga bezala Batistarena<sup>458</sup> bi aldetatik duela, eta hau Sanjuan Txutarenzat<sup>459</sup> trazatu dugu.

Basorik ontxoena<sup>460</sup> da hau Eraringo ixidutik beiti, ta beste aldetik 300 karga bezala bi pagorekin, hau Xantusenzat,<sup>461</sup> ta Alzateko makoa<sup>462</sup> zorzi zulorekin,<sup>463</sup> hau hartu nahi badu, Aketzari eman beharko. Honek beharko

<sup>455</sup> Goizuetan, *Auspagillenea* (denboran) edo *Auspagille* (egun) etxeari *Xardearen etxea* ere esaten zaio, nagusiaren ezaugarri fisiko batengatik (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 47-49 eta 190). Besterik da 1800eko gutun honetan *Xardea* xuxen zeri zor zaion zehaztea, aukerak bat baino gehiago baitira. Goizuetan ediren diren gutunen artean, egile ezagunik gabeko animalien zerrendan *Bei sardea* ageri da, segur aski adarrak sarde edo antzarraztelu baten erakoak zituelako.

<sup>456</sup> Oiartzungo Ergoien auzoko *Madariegi* baserrikoa (*Maradi* ahoz; Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 222). Bada, nolanahi ere, *Maradi* izeneko beste baserri bat Oiartzunen (*ibid.*, 226).

<sup>457</sup> *Axeria* eta *Matxinoa* izengoitiak dira hemen, bigarrena menturaz etxe izengoitia. Oiartzunen bada *Matxiene* baserria, Ergoien auzoan, egun *Matxine* ebakitzen dena (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 230). Lehena, eskutizetan agertzen ere den *Aketza* bezala, abere izenetik atera izanen da.

<sup>458</sup> Menturaz *Batixtarena* irakurri behar genuke, *is*-rekin zenbait aldiz *x* adierazten baitu egileak, irudiz. Aldera bedi, gainera, ondoko *Sanjuan Txuta*-rekin eta *Xantus*-ekin.

<sup>459</sup> Behin baino gehiagotan agertzen da *Sanjuan Txuta* hau gutunotan, eta beste frankotan *Xanjuan*. *Txutarena* Goizuetako etxea zen (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 184). Beste herriren batean ere ageri da; adibidez, Garraldan *Chutarena* etxea dokumentatzen da 1615ean (NEAN, L. Aldasororen pr., Auritz, 2, 44).

<sup>460</sup> Goraxeago, gutun honetan berean, *hoberentxonak* dugu.

<sup>461</sup> *Ssantusenzat* idatzirik dago originalean. *Santos* izenaren \**Santus* aldaeraren (*Santu* ongi dokumentatua dago) *Xantus* edo *Xantux* dagoke grafia honen oinarrian. Geroagoko beste gutun batean (1806.02.05) *Ssantus* idatzirik ageri da (ikus bedi grafiari eta fonetika-fonologiari eskainitako atalean honetaz dioguna). Hemen, dena dela, Oiartzungo baserri baten izenetik atera etxe izengoitia dugu. Ikus 1802.03.25eko gutuna.

<sup>462</sup> *Alzate* Goizuetako aurkintza da; *makoa*, bestalde, izen arrunta dugu, toponimian errepikatzen dena (Etxeberria, 1988: 88) eta burdinoletan ere ezaguna zena (ikus bedi hiztegia). Nolanahi ere, ez autore horrek, ez NTEM XLVIIIk biltzen dute *Alzateko makoa* toponimioa. Aintzat har bedi Alzateko jaunak (Oiartzungoa zen, ustez) bazituela lurra Oiartzun-Errenterietan: «...*çerca del dicho Varcardastegui es/ta vn terminado que posee el sensor de Alçate, tan grande / o mayor qu'el dicho Varcardastegui, e no es sel*», «...*los seles de [...] Herani e Alçate e Oquillogui [...]*» (1514, Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 380, 393). Joxe Manuel Lekuona oiartzuarak dioskunez (a.a.), *Alzatemakua*, *Alzateko makua* edo *Berdabiomakua* Oiartzunen da, Goizuetako mugatik hurbil. Ikus bedi Goizueta - Arano mapa (Basauntz elkarte, OBIE elkarte eta Umore-ona elkarte, 1996, F2).

<sup>463</sup> Ez dakigu xuxen zer zulo mota den hau, zertarako den. Badaiteke, nolanahi ere, ikaztobiak izatea, hau da, egur ikatza egiteko ibiltzen ziren hobiak. Baina ez dakigu segur.

du grazia puxka bat; errebestxo da. Ta gehiegi badu, Sanjuan Txutak bi zulo hartu nahi ditu, ta Bizenterenzat Xardearen mugan goiko puskan, bealdetik, bada puxka bat. Guziak botatzekotzat ere,<sup>464</sup> lengoai partitzeko diña baso da; sobraturik ez dela, halere, ta uztekotan bere moduak hartuko ditu. Olaberria, 9 de enero de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

### 1800.02.Hasiera

1800

*Desde 29 de diciembre hasta 2 de febrero.*

*En martinete 55 panes a 20 cuartos importan . . . 32 pezetas y 12 cuartos*  
*8½ libras de aceite a 36 cuartos . . . . . 09 pezetas 00*  
*9 libras de abadejo a 18 cuartos . . . . . 04 pezetas . 26*  
*78 azumbres de sidra a 5 cuartos . . . . . 11 pezetas . 16*  
*Expensa de enero . . . . . 57 pezetas y 20 cuartos*  
*Expensa de octubre, noviembre y diciembre . . . 266 pezetas y 22 cuartos*  
*Todos . . . . . 324 pezetas y 8 cuartos*

Ola handikoaren asentua badu hor, ta maiz aski hemen da jendea, deus ageri den. Olaberria, 3 de enero de 1800.

*A don Juan Bautista de Minondo.*  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

### 1800.03.Hasiera-edo

1800

*Desde 2 de febrero hasta 1 de marzo.*

*En martinete 64 panes a 20 cuartos importan . . . 37 pezetas y 22 cuartos*  
*12¾ libras de aceite a 36 cuartos importan . . . . . 13 pezetas y 17 cuartos*

---

<sup>464</sup> Ez dakigu zehazki zer esan nahi den. Ez dirudi prolatiboa denik; badaiteke botatzekotz ere, botatzekotan ere izatea, berez. Ikus joskerari eskaini atalean hautetaz dioguna. Kontuan har bedi bi lerrotan dagoela bereizia hitza (*botatzeco / tzat*), eta horrek makurren bat eraginen zuela, beharbada.

12 libras de carne a 9 cuartos . . . . .	03 pezetas y 6 cuartos
½ arroba de abadejo de San Sebastián . . . . .	5 pezetas
Más 4 libras a 18 cuartos . . . . .	2 pezetas y 4 cuartos
114 azumbres de sidra a 5 cuartos . . . . .	16 pezetas y 26 cuartos
Expensa de febrero . . . . .	78 pezetas y 7 cuartos
Expensa de octubre, noviembre, diciembre y enero . . . . .	324 pezetas y 8 cuartos
<u>Expensa martinete . . . . .</u>	<u>402 pezetas y 15 cuartos</u>

Kabilla hemen den hau<sup>465</sup> 3 *arrobas* eskas da, 6 ta 7 linea lodi. Txalupak eraman ditu txabalak 58 kintal; itzaiak txalupa huts egin zuten larunbatean. 12 *quintales* badira Errenterian ta olan, ta tretxu txikian, hoiekin burnitxo meharagoa ez egitekotz,<sup>466</sup> labur geldituko da. Dozena bat kintal tretxu badago egiña, ta ola handiak asteko mea eskasa du, ostiral artekoa bezala.<sup>467</sup>

Olaberria, 2 de marzo de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

### 1800.03.05

Nagusi jauna:

Sebastian de Ager[r]en<sup>468</sup> amarekin egondu naiz ta esan dit mandoa guzia zorra dagoela, lenbiziko danda edo plazoa<sup>469</sup> sanantonetako<sup>470</sup> zutela, baño ez dutela pagatu batere, ta jabeak eramanen diotela,<sup>471</sup> hoiek pagatzeko modurik ez daukatela, ta mandoaren jabeari eman zioten zaldia atzera ekarri behar-

<sup>465</sup> ‘Hemen den kabilla hau’.

<sup>466</sup> ‘Ez egitekotan’.

<sup>467</sup> ‘Ostiral arte gutxi gorabehera’.

<sup>468</sup> Originalean *Sebastian de Agueren* dago. *Sebastian Aguerre* eta *Sebastian de Aguerre* daukagu beste batzuetan.

<sup>469</sup> ‘Ustiapena ordaintzeko lehen epea’. Hemen *danda* ‘ezkila danda’, ‘kanpai kolpea’ ez, baizik ‘txanda’, ‘aldia’ ulertu behar da, denboraz, epez ari baita egilea. Ikus hiztegiko *plazo* sarreran dioguna.

<sup>470</sup> Urtarrilaren hamazazpirako alegia.

<sup>471</sup> ‘Eramango diela’, ‘kenduko diela’.

ko dutela, lengo zaldi txiki hura, ta 58 ezkutu pagatzeko hartu omen zuten, ta atzera trukatu egiñ beharko dituztela. Ta mutikoak baditu hiru,<sup>472</sup> ta handiskoenarekin zaldia erabili beharko duela iñoiz ikatzketan,<sup>473</sup> edo al duen bezala lagunekin-ta batean. Orañik dozena baña<sup>474</sup> urte dute zarrenak, bixkiak<sup>475</sup> dira.

Olatxoko tobera<sup>476</sup> galdua dago ta lana dago orañ berria egitea ere. Ola handitik aritzeko modua berehala paratzekotz,<sup>477</sup> atera ta puxka bat estutu dugu bokan,<sup>478</sup> baño eskarpa<sup>479</sup> dauka errea. Ez dakit irauenen ote duen, olaren atzera-aurrera<sup>480</sup> ekusi artea.<sup>481</sup> Olaberria, 5 de marzo de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Hortik heldu diran burni hoiek laster eraman behar duten<sup>482</sup> gaztiga beza, laster ez eramatekotz<sup>483</sup> ganbarara igo ditzakun.<sup>484</sup> Neguan kintal bat burnia<sup>485</sup> egoteko tokirik ez da<sup>486</sup> itxe honetan. Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua, baño orañ batere ez, ta ganbaran ere orañ puxka bat hostoak ahitzera<sup>487</sup> egiñ da, baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta las-toz.

<sup>472</sup> Sebastian de Agerre zenak; ikus 1800.03.09ko gutuna.

<sup>473</sup> Hemen *ikatz-* osoa dugu (*ycatzquetan*), ez espero izatekoa zen *ikaz-*. Esan beharrik ez dago *ikatzketan* ‘ikatz bila’ dela berez, zehazkiago ‘ikatz garraioan’.

<sup>474</sup> Analogiak eragindako forma dela dirudi, hots, aski ohikoak diren *biña* ‘bina’, *seiña* ‘seina’, *zazpiña* ‘zazpina’... aldaera palatalizatuek bultzaturik sortu dena. Erka bedi Uxueko gaztelanian ibiltzen den *la doble*, seguruenik *la mitad* ohikoagoak eraginik.

<sup>475</sup> Originalean *bissquiaq* daukagu.

<sup>476</sup> ‘Sutegi eta labeetan, errekontzan laguntzen duen airea edo oxigenoa sartzeko hodia’ (EH). Burdinoletan, hauspotegiko bi hauspoek ematen duten haizea sutegira sartzen den kono itxurako hodia. Ikus bedi hiztegia.

<sup>477</sup> ‘Paratzeko’, ‘ezartzeko’.

<sup>478</sup> Ikus hiztegian dioguna.

<sup>479</sup> ‘Beste piezekin lotzea xede, burdinazko piezak duen gune lau’. Ikus OEH eta hiztegia.

<sup>480</sup> ‘Gorabehera’, ‘funtzionamendua’, lagun arteko hizkeran *martxa* esaten duguna.

<sup>481</sup> Beste gehienetan bezala, *-n*-rik gabeko aldaera dugu hemen.

<sup>482</sup> *Dituzten* izan behar luke, baina ez da pluraleko osagarri zuzenarekin aditza singularreran dagoen lehen txanda. Ikus aditz morfologian dioguna.

<sup>483</sup> ‘Ez eramatekotan’, ‘eramaten ez badira’.

<sup>484</sup> Hirutan *ditzagun* daukagu JRMren eskutitzetan; behin *-oraingoan-ditzacun*.

<sup>485</sup> Hemen *bat* goratua dago, paratzea ahaztu eta ondoren idatzi baitu egileak. Jatorrizko *kintal burnia* gero *kintal bat burnia* bihurtu da, *bat* sartu eta.

<sup>486</sup> Horzkari ahostuna, *d*, ez da gehienetan *-baina* badira ahoskabetzearen testigantzak-t bihurtzen, aurretik *ez* ukatzeko partikula duenean, 1800 inguru horretan ahoskabetzea egun bezala ohikoa zela zalantza handirik ez badago ere.

<sup>487</sup> Originalean *aitzera* dago. Beste bi gutunetan *attu* eta *ātu* ‘ahitu’ dugu. Ikus grafiari buruzko atala.

A don Juan Baupista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

### Goizarin

Bigar ola handiak lanak akabatzen ditu, eta olagizonak diote ea larunbatean itxean izanen ote den,<sup>488</sup> kontuak garbitzeko.

1800.03.09

Nagusi jauna:

Ola paratu dute kandelan dotaziorik gabe;<sup>489</sup> 500 dukat zillarrean<sup>490</sup> paratuta 450 dukateraño etorri zen argia itzali orduko.<sup>491</sup> Hurrengo jaiean aterako dutela debalde ere. Iñork hartuko duenagatik,<sup>492</sup> han egonen da bai dotaziorik gabe.

Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan, ekusi dezala,<sup>493</sup> hark uste zuela gutxiago badere<sup>494</sup> harzekotan zegoe-la. Niri esaten aritu da diru hartuen kontua: orañ hiru urte hasi lanean, ta bi urtetan<sup>495</sup> errenta pagatu, ta aurten beren deretxo<sup>496</sup> batetik pagatu dutela errenta, mandoarenzat zerbait egiñ bazezaten,<sup>497</sup> ta hoge pezetako bat ta urretxikiak<sup>498</sup> biñakako batzuek.<sup>499</sup> Behiñ noski «lau urretxiki» esan du, ta ea lan egiñ guzia<sup>500</sup> zaldaletan yaten zuten bada, edo zer pasatzen den ez dakie-

---

<sup>488</sup> 'Berori izanen ote den'.

<sup>489</sup> *Dotazioa* dela-eta, ikus hiztegia.

<sup>490</sup> *Dukat zilarra* diru baten izena da, garbi ikusten den bezala.

<sup>491</sup> Kandela enkanteetan argizaria itzali arte lehia daitezke interesa dutenak.

<sup>492</sup> 'Norbaitek hartuko duen arren', ustez.

<sup>493</sup> *Berorrek* alegia. Hau honela ere puntua eta irakur daiteke: «*Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan ekusi dezala, [...]»*, alegia, 'kontuetan deskuidorik ote duen ekusi dezala'.

<sup>494</sup> 'Bada ere' hemen. Arruntean 'bada ere' eta 'bederen' artean dabil honen adiera gutu-notan. Ikus hiztegia.

<sup>495</sup> Alegia, lehen urtean eta bigarren urtean. Aldera bedi gutu-notan jaun eta nagusi diren honelako itzuliek: «*lau agoa hogeita lau orduan egiñ omen zituzten*» (1799.01.22).

<sup>496</sup> Honen adieraz ikus hiztegia.

<sup>497</sup> Hau seguruenik 'egin bazezaketan (ere)' ulertu beharko da. Egiantz gutxikoa iruditzen zaigu hemen aoristo edo lehenaldi narratiboa dugula pentsatzea. Ikus, dena dela, aditz morfologiari buruzko kapituluan dioguna.

<sup>498</sup> *Hoge pezetakoa* eta *urretxikia* diruak dira, noski.

<sup>499</sup> *Pagatu zituzten*-edo eman behar da ulertutzat.

<sup>500</sup> 'Egindako lan guzia'.

la hark, zorzi hillabete honetan.<sup>501</sup> «Lau urretxiki» nereko esan du hartu dituztela.<sup>502</sup> Olaberria, 9 de marzo de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Sebastian Txulo<sup>503</sup> ez dut orañik ekusi; bera topatzeagatik ez naiz itxean izandu. Gaztañadiko basoa honetarako<sup>504</sup> itxolarik ez dugu. Aldakokoak<sup>505</sup> badu gaztañadi hoietan, ta salduko duen galdatu diot ta baietz esan dit, ikatzgille batek ekusi dezala ta prezioa hark egiten duenean har dezagula.

Katxoren gazteari ere erosi egiñ diogu. Aketzak berea zuen itxola, ta bost pezetan hartu du berak Katxorenak<sup>506</sup> ta esan du berorri anitz idurituko zaiola bost pezeta, ta berak onduk[o]<sup>507</sup> duela ezkutu edo lau pezetaren gañerakoa.<sup>508</sup>

1800.03.10

Nagusi jauna:

Ola handikoak egin dute *desde 30 de noviembre* ezker:

Tretxua<sup>509</sup> .....225½ quintales

Espensa<sup>510</sup> .....147½ pezetas

<sup>501</sup> *Zortzi hilabete honetan, lau urte honetan* eta beste oraindik indarrean daude Goizuetako hizkeran. Honela ulertu behar da: «*ta ea zortzi hilabete honetan egindako lan guztia zaldaletan jaten zuten bada, ez dakiela hark zer pasatzen den*».

<sup>502</sup> 'Nire ustez, *lau urte txiki* hartu dituztela esan du'. Ikus 1802.04.12(B) eskutitzean dioguna.

<sup>503</sup> Goitizena da hau. Oiartzungo *Zuloaga* baserria XVI. mendetik *Txuloaga* dokumentaturik baitago (<ch>-rekin, bistan da; Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 322), ez dago arazo handirik *Txuloaga*-koei *Txulo* esaten zitzaizela pentsatzeko, hots, *Txulo* hori *Txuloaga* edo *Zuloaga*-koen etxe izengoitia dela kontu egiteko, baserria, jendeen ahotan \**Txuloa* zela (edo \**Txuloa* ere bazela) pentsatzen bada (aurrerago *Luis Zuloakoa* dugu). Ikus Salaberri eta Zubiri (2009).

<sup>504</sup> Ikus izen morfologiari eskaini atalean honelakoez dioguna.

<sup>505</sup> *Aldako* baserria 1449rako dokumentatzen da; egun *Aldakozarra* (*Aldakoxar* ebakia) dugu bizirik (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 57).

<sup>506</sup> Originaleko *Cachorenaq* goratua dago, *beraq ta esandu*-ren gainean, egileak lehenbizi idaztea ahaztu eta gero sartu duelako. *Cachorena* behar luke.

<sup>507</sup> *Zuloa* dago, baina *o* behar du. Adieraz ikus hiztegia.

<sup>508</sup> Hemen ikusten den bezala, *ezkutua* lau pezetakoaren baliokidea zen.

<sup>509</sup> Burdinolan egiten zen peza bat.

<sup>510</sup> 'Gastua'.

Hoietaz gañera, maxuran<sup>511</sup> pasatu dute... Boba<sup>512</sup> eskatu<sup>513</sup> egin zen, ta bobatzen<sup>514</sup> agoaren<sup>515</sup> bat edo gexeago<sup>516</sup> bezala galdu zen, ta leneko azkeneko bealdu nuen kontu hartan,<sup>517</sup> edo denbora hartakoa.

Astelenean bildu ta ingudeari sartu-aterre eragin genion arrats artea,<sup>518</sup> ta gabaren gañera ez hasitzeagatik, goizean hasi ziran, ta Tomasen lekuan Lorenzo Alsua zen hemen. Ta beste gau batez bergamazoia<sup>519</sup> erori ta goizean, egunaz egin zen. Migel Antokorena zen orduan hemen; gañerakoan Tomas beste lagun hoiek. Ta leneko<sup>520</sup> kontua hartan nik ez nituen paratu hoiek, ta hemen galdatzen dute hoietaz ere olagizonak.

Espensa honetarako berorrek emantako dirutik gelditua zen babatako,<sup>521</sup>

len sobratua	.5 pezetas y 16½ cuartos
Ta orañ ematekoa du	.142 pezetas y 17½ cuartos
Lengoa zor dena	.128 pezetas y 20½ cuartos
Ola handiko espensa, zor dena	271 pezetas y 4 cuartos
Olatxokoa	.402 pezetas y 15 cuartos
Guzia, zor da	.673 pezetas y 19 cuartos

Irungo itzaiak ta meakariak zor dira. A 1 pezetako me[a] hartan<sup>522</sup> badira 335 quintales y ½ arroba } 335 pezetas y 2 cuartos.

Goiko meatzean<sup>523</sup> kontua egin zenean, en 17 de setiembre de 99, itzaiak zor gelditu ziran .037 pezetas y 8 cuartos.

Meakariak ferrazalleari emana 20 pezetas.

Deskritatu ta gelditu ziran harzeko .022 pezetas y 13½ cuartos

Kontuak garbituak .394 pezetas y 23½ cuartos

<sup>511</sup> 'Matxuraturik'. Originalean *Massuran* dago.

<sup>512</sup> Olako peza bat. Ikus hiztegia.

<sup>513</sup> 'Askatu' esan nahi du, jakina, Goizuetako lehengo eta egungo *eskatu* horrek.

<sup>514</sup> 'Boba paratzen', 'boba sartzen'. *Boba* eta *bobatu* berriro 1806.02.11ko gutunean edirenen ditugu.

<sup>515</sup> Lenago ere zehaztu dugun bezala, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*-ren arabera 'sutegian gorituriko burdin zatia' da *agoa*. OEHK 'burdin ore urtua' adiera ematen dio.

<sup>516</sup> 'Gehixeago'. Originalean *guesseago* dago.

<sup>517</sup> 'Bidali nuen lehengo azkeneko kontu hartan'.

<sup>518</sup> 'Arrats artean', 'iluntze arte'.

<sup>519</sup> *Bergamailu* edo *bergamazo* bera da, burdinoletan hauspotegiko hauspoak ondoko sutegiko berotasunetik babesteko jartzen zen paretara (ikus hiztegia). Ikus orobat Zubiaurre (1960: 102) eta OEH, *bergamailu* sarrera.

<sup>520</sup> 'Lehengo'.

<sup>521</sup> 'Babatarako', 'babak erosteko'.

<sup>522</sup> Originalean «*me ar/tan*» dago.

<sup>523</sup> 'Meatzearen' edo 'meatzeen' izan daiteke. Ikus izen morfologiari eskainitako atala.

Irundarrak, kontu garbitu hoietaz gañe[ra],<sup>524</sup> badute ekarria Erorzatik 130 kintal, ta ekarriko bada edo izanen bada aurrerakoan behar,<sup>525</sup> arragoarik erreko bada.<sup>526</sup> Ta Franziako burnien karretorako ere len gelditua bada zor *101 pezeta y 8½ quintales*.

Eguerritako denboran gelditua.

Makatzi gelditu behar zaio kontuetan:

Ordañako<sup>527</sup> Alziberko urzalleari<sup>528</sup> nik eman niozkan<sup>529</sup> *6 pezetas y 16 quintales*, Makatzen partez irabaziak.

Manuelek gelditu ditu urretxikiak 32

Ta nik .....29

Olaberria, *10 de marzo de 1800*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1800.03.12

Nagusi jauna:

Endara jua zen hemendik *20 de abrilean*; geroztik orañ aste bat sartu du Kosmeren itxean, ta hemen hurnitzen dira kuadroak *9 quintales*. Bordatxori txartela ema[n] nion<sup>530</sup> bart ta, goizean, egueldi<sup>531</sup> txarra dagoela,<sup>532</sup> entrega-tu egin du hemen, ta gero jua.

Olaberria, *12 de marzo de 1800*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

---

<sup>524</sup> Lerro bukaeran dago hitza; originalean *oyetaz gañe* besterik ez dago.

<sup>525</sup> ‘Aurrerakoan izan behar(ko)’, ‘geroago izan behar(ko)’. Originalean *aurreraco añ bear* dago.

<sup>526</sup> ‘Arragoan mea erreko bada’.

<sup>527</sup> ‘Ordezko’.

<sup>528</sup> Alegia, Makatzen ordeza ari izan zen Alzibarko urtzailari.

<sup>529</sup> Originalean *nionzcan* dago.

<sup>530</sup> Originalean *emanion* dago.

<sup>531</sup> Hitza bi lerrotan banatua dago originalean: *egu / eldi*. Bigarren zatia argia da, baina lehenaren gainean hetetasun orbana dago, eta zalantza zerbait egon daiteke, irakurtzean. Zernahi gisaz, *egueldi* hitza beste bitan ere azaltzen zaigu (1801.11.13 eta 1806.02.10). Goizuetan egun *éul.di.à* daukagu.

<sup>532</sup> Irudi du *ta, esanez*-edo falta dela.



Goizarin<sup>533</sup>

1800.03.20

Nagusi jauna:<sup>534</sup>Pello maisuaren asentuan para bitza . . . . . *10½ pezetas*

Pazingillea zor zuen ta burnia eman diogu. \_\_\_\_\_

Honbretxok<sup>535</sup> hartu du lañaburnia<sup>536</sup> . . . . . *17 libras*

Aprendizak hartu ditu elizarako behar orduetan

neregandik. Asenta bitza 8 pezetas.

Zepoa<sup>537</sup> atera edo hautsi egiñ da; ispia<sup>538</sup> hautsi izatekotan<sup>539</sup> hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu. Kabitegia<sup>540</sup> kendu dugu ta katuak<sup>541</sup> ere bai, ta maisuak dio endal harri<sup>542</sup> bat sartu behar dela, harria billatuta, ta zepotillu<sup>543</sup> bat ere bai. Ola handitik aritzeko ta h[a]sitzera<sup>544</sup> orduko lan hoiek egiñ behar direla, ola honen atzera-aurrera<sup>545</sup> laster egiten baliz.<sup>546</sup>

---

<sup>533</sup> Honen ondotik olajaunak egindako apunte batzuk ditugu. Interesgarriena «*Juan Jph Endara Maestro Martinete Lesaca*» da, *Endara* hori lesakarra zela adierazten delako, itxuraz segurik. *Ramos el de Lauaien* eta *Bordauerri* ere ageri dira. Ikus onomastikari eskaini atala.

<sup>534</sup> Honen aurretik, olajaunak idatzirik, *1800 Marzo 20* dago, eta ondoren, errepikatutik, *ojo* irakur daitekeen o/o.

<sup>535</sup> *Honbretxo* goitizena da.

<sup>536</sup> ‘Laiak burdina’, ‘laiak egiteko burdina’.

<sup>537</sup> Burdinolako peza. Ikus hiztegia.

<sup>538</sup> *Ispia* burdinolako peza bat da, baina ez dakigu xuxen zein. Hemen *zepoa*-rekin batean ageri da, eta beste gutun batean ikusten denaren arabera gezurraskaren zati zatekeen. Testuotan irudi du ezin dela *izpia* ‘printza’, ‘zati txikia’ izen arruntarekin identifikatu, baina ez dakigu segur. Ikus hiztegia.

<sup>539</sup> Irudi du *hautsia izatekotan* behar lukeela.

<sup>540</sup> Burdinolan *kabia* edo *gabia* dagoen lekua da. Erka bedi gutun honetako bereko goraxeagoñoko *haspategi* ‘*hauspategia*, hauspoak dauden lekua’-rekin. Ikus hiztegia.

<sup>541</sup> Burdinolako peza. Ikus hiztegia.

<sup>542</sup> Burdinolako harria. Ikus hiztegia.

<sup>543</sup> Burdinolako peza. Ikus hiztegia.

<sup>544</sup> Originallean «*aritzec ta sitzera*» irakurtzen da, goiti-beheiti. Juntagailuaren *a* aski lausoturik ageri da, eta dagoen hezetasan orbanak *asitzera*-ren aurreneko bokala ikuste galarazten du.

<sup>545</sup> Hemen ‘konponketa’-edo da. Lausotuxe ageri dira hitz hauek.

<sup>546</sup> Pasarte hau honela ere puntua daiteke: «*...harria billatuta, ta zepotillu bat ere bai, ola handitik aritzeko. Ta h[a]sitzera orduko lan hoiek egiñ behar direla, ola honen atzera-aurrera laster egiten baliz*».

Nik ez d[akit]<sup>547</sup> nola dabilzan gobiernoko hoiek; hogei egun d[ira]<sup>548</sup> arrago egurraren memoriala eman niotela, ta atzo galdatu diotet<sup>549</sup> ea zer egi-ten duten, ta esan didate esaminadorerik nola ez duten, aurten zein bealdu edo nola gobernatu dutela demanda puxka bat elkarren artean, ta laster egiñen dutela; guziak boto banako jendeak izanen dirateke<sup>550</sup> hoiek. Olaberria, 20 de marzo de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.03.30

1800

*Desde 2 de marzo hasta 30 de marzo.*

*En martinete 45 panes a 20 cuartos importan . . . .26 pezetas y 16 cuartos*  
*8½ libras de aceite a 32 cuartos . . . . .08 pezetas*  
*4½ libras de abadejo a 18 cuartos . . . . .02 pezetas y 13 cuartos*  
*Sardinas de . . . . .03 pezetas y 6 cuartos*  
*1 azumbre de vino, componiendo yinque<sup>551</sup> . . . .00 pezetas y 32 cuartos*  
*62½ azumbres de sidra a 5 cuartos . . . . .09 pezetas y 6½ cuartos*  
*Expensa marzo . . . . .50 pezetas y 5½ cuartos*

Damianek esan dit don Luisek estutzen duela kontuak garbitzeko, ta ostiralean eziñ datorkeala,<sup>552</sup> ta bitarteko egun hoietan noiznahi etorriko dela, gartzigatzeko noiz nahi duen<sup>553</sup> etorzea horrara.

<sup>547</sup> Originalean dokumentuari zati bat falta zaio, eta, gainera, hezetasun orbanek ez dute letra guztiak behar bezain ongi irakurtzen uzten. Nolanahiko gisan, «*niq ez d*» argia da, ize-nordainaren -q oso-osorik ikusten ez den arren. Testuinguruak, alabaina, *daquit* dagoela segurtatzen du.

<sup>548</sup> Dokumentuak puxkatto bat eskas du, eta *d*-ren alderdi biribila besterik ez da ikusten.

<sup>549</sup> Iparraldeko testuak dakarzkigu honek burutara. Ez da kasu bakarra, halarik ere, eskutitzotan. Ikus aditz morfologiari eskainitako atalean dioguna.

<sup>550</sup> Ikus aditz morfologiaren inguruko atalean honetaz dioguna.

<sup>551</sup> Originaleko *yin / que* aski ongi irakurtzen da; hitza 1793.06ko eta 1798.01.02ko gutunetan ere azaltzen zaigu. Sintagmaren adiera ‘ingude konpontzen’ da.

<sup>552</sup> Originalean azentua du adizkiak: *datorqueála*.

<sup>553</sup> ‘Berorrek noiz nahi duen’.

Ola orañik 440 dukatean dago. Aldako[ko]ari<sup>554</sup> itxola hartu diogu gaztañadi honetarako, ta gizon edozeñi<sup>555</sup> erakusteko esan zidan, ta 4½ pezeta esan du balioa erakutsi diogunak,<sup>556</sup> ta ikatzen asentuan para beza itxola ere.

Bigar kargatzen dira bost orga hortik etorri den itze gaiarekin.<sup>557</sup>

Olaberria, 30 de marzo de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

#### 1800.04.07(A)

Nagusi jauna:

Erreterian izandu naiz ta mea puska bat oiarzuar Xiliren<sup>558</sup> hoiek daukate harrotua, ta Bizirori<sup>559</sup> esan diot berorrek nola esan didan, eta esan dit Joseph Antonen semea itsasoan dihoala,<sup>560</sup> ta Biziro bera «Lezo»<sup>561</sup> esaten dioten batekin ari da, ta bi anaiek harrotua daukaten hura<sup>562</sup> berak ekarri nahiko dutela, nahi balute lagunduko likotela,<sup>563</sup> nagoala berarekin,<sup>564</sup> ta egondu naiz gazdearekin,<sup>565</sup> ta esan dit harrotua daukatena berak ekarriko

---

<sup>554</sup> *Aldacoari* dago originalean.

<sup>555</sup> Ohart bekio ordenari.

<sup>556</sup> «...ta 4½ pezetako balioa (*duela*) esan du erakutsi diogunak».

<sup>557</sup> 'Iltzeak egiteko gaiarekin'.

<sup>558</sup> Originalean *Ssiliren* dago. Ez dakigu xuxen zer den, baina beste gutun batean (1802.05.17) *xilitarrak* ageri da, eta *Xili* norbaiten izengoitia zatekeela dirudi. *Xixili* edo *Xixilio* hipokoristikoen laburtzapena apika?, *Txile* esateko Iparraldekoen moduko formaren bat?

<sup>559</sup> Izengoitia da hau, beharbada *biziro* maiz esateko ohitura zuen norbaitena.

<sup>560</sup> Originalean *dioala* dago.

<sup>561</sup> Beste gutun batean (1801.11.20) *Lexo* da hau berau.

<sup>562</sup> 'Harrotua daukaten mea hura'.

<sup>563</sup> 'Liekeela' segur aski, baina 'lioketela' ere izan liteke. *Cfr. zioten* 'zien' nahiz 'zioten'.

<sup>564</sup> 'Egon nadila berarekin'. Ikus *gabilzan*-ez mintzatzean 1800.11.12ko gutunean dioguna, oin ohar batean. *Berarekin* horren erreferentea zein den ez dago guztiz argi.

<sup>565</sup> 'Gaztearekin'.

dutela lagunik gabe [e]re,<sup>566</sup> kabarra<sup>567</sup> billatzeko, ta Joseph Anton itxean etzen, ta andreak agindu du<sup>568</sup> ekarriko dutela.

Aranzateko<sup>569</sup> mea, olajabeak geldirazi<sup>570</sup> zuen hura, eman nahi dute, baño len pezetan entrega hasi giñan ekarzen, baño orañ goiko prezioa nahi dute. Gabrielelek ta bere anaieak orañ ari diran meatzetik aterea da, orañ heldu den bezalakoa, ta Gabrielelek esan dit, orañ kisulabeak erretzera<sup>571</sup> dihoaz<sup>572</sup> bi anaieak aste honetan ta bestean, ta bitartea<sup>573</sup> Aranzatekoa nahi badugu ekarri guziak batetik<sup>574</sup> dirala, baño itzaiak ebilliko badira, lengo kontuak garbitu nahi lukete.<sup>575</sup>

Ola 410 dukateraño jaitsi zen atzo. Zamorako Agustinek<sup>576</sup> esan dit sagarrekin bealdu zuen Sisto hura bealzeko, besterena duela ta jabeak eskatzen diola. Olaberria, 7 de abril de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1800.04.07(B)

1800

Nagusi jauna:

Luis de Lekunak ekarri ditu meak *desde 18 de diciembre de 98* ezkerro Errenteriatik Olaberrira:

---

<sup>566</sup> Originalean *gabere* dugu.

<sup>567</sup> ‘Gabarra’, mea garraiatzeko ontzi handia.

<sup>568</sup> ‘Prometatu du’, ‘hitzeman du’.

<sup>569</sup> *Aranzateko ola* etxea Irunen dago.

<sup>570</sup> ‘Geldiarazi’ bistan da; *berezirazi* ‘bereizarazi’, *entendirazi* ‘ulertarazi’ eta beste ere badira gutunotan. Ikus aditz morfologiaren gaineko atala.

<sup>571</sup> Gisu labeak piztu behar dituztela, alegia, barneko karea erre dadin.

<sup>572</sup> Hitz hau *dioaz* dago idatzirik gutunean.

<sup>573</sup> ‘Bitartean’. Ikus hiztegian dioguna.

<sup>574</sup> ‘Ekarritako guziak meatze batetik (beretik) ekarriak direla’, itxuraz.

<sup>575</sup> Osagarri zuzena pluralean eta aditza singularrean, gutunotan beste batzuetan bezala. Ikus aditz morfologiari buruzko kapituluan dioguna.

<sup>576</sup> Goizuetako etxea dugu *Zamora*, baina Oiartzungo baserria ere bada, Errenteriako mugatik hurbil dagoena (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 316). *Zamora* Oiartzungo deitura da aspaldidanik; 1499an *Juango Çamora*, *Xoane de Çamora*, «*Johango de Arvuru e Johango Çamora, vesinos de la dicha tierra e valle de Oyarçun*» dago (Irijoa eta Lema, 2011: 4, 8, 11) eta 1514an «*Juango de Çamora vezino d’esta tierra de Oyarçun*» dugu (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 376).

Mea . . . . .	<i>.401½ quintales</i>
Burniak olatik . . . . .	<i>.197 quintales</i>
Olaberri . . . . .	<i>.598½ quintales</i>
Fagotxikira <sup>577</sup> mea . . . . .	<i>.157 quintales</i>
Burniak . . . . .	<i>.084 quintales</i>
Fagotxikin . . . . .	<i>.241 quintales</i>
Kabigunketan <sup>578</sup> . . . . .	<i>.3 días</i>
Burnia hartu du . . . . .	<i>.5 quintales y 2 arrobas</i>

Olaberria, 7 de abril de 1800.

Olaberriko burni hoietan zerbait añaaditzeko, hitzean eramanak dira,<sup>579</sup> zergatik<sup>580</sup> hononzeko mearik etzen. *21 quintales*.

Joseph Ramon de Minondo.

#### 1800.04.15(A)

Nagusi jauna:

Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorren<sup>581</sup> agertu bat<sup>582</sup> egiñen ote duen dagoela, iñor besterik sartu gabe berorri emateko modua nolaerebait<sup>583</sup> harzeko, alegia, hartu nahi badu,<sup>584</sup> baño horiek ilusioak dira. Nor zertara dagoen jakin nahi dukete,<sup>585</sup> edo arrimarazi egiñ nahi

<sup>577</sup> Eskutitz hauetakoa *Fagotxiki* edo *Fagotxiki*-ren oinarrian Oiartzungo burdinola zen *Fagoagotxiki* dago, hau da, *Fagoaga* baserriaren izena (*Pagua* ahoz) eta *txiki* adjektiboa. *Fagoagaerota* (*Pauko errota* ahoz) ere bada, beharbada burdinola bera, hauek baztertu zirenean, metalgintzan izandako aurrerapenek horretaturik, burdinola batzuk errota bihurtu zirelako. Ez dakigu, dena dela, kasu honetan hala izan zenetz. Ikus Goikoetxea eta Lekuona (2007: 138).

<sup>578</sup> *Kabiguña gabi iguna* dugu, burdinoleta gabi edo mailu handiaren giderra. *Kabigunketan* formak, berriz, ‘gabi igun garraioan’ esan nahi du. Aldera bedi egungo *egurketan*, *urketan* eta besterekin. Ikus hiztegian dioguna.

<sup>579</sup> ‘Eramanen dituztela esan dute, baina oraindik eramateko daude’ edo ‘hitzez emandako prezioan eramanak dira’.

<sup>580</sup> Originalean *cerga* eta *tiq* lerro banatan daude, eta erdian Olaberriko arduradunaren izen-deiturak ageri dira.

<sup>581</sup> Bi hitzetan idatzirik dago: *berorren gana*.

<sup>582</sup> ‘Ikusi bat’, ‘agerraldi bat’, ‘bisita bat’.

<sup>583</sup> Originalean *nola ere bait* izkiriatua da.

<sup>584</sup> *Berorre* ulertu behar dugula dirudi.

<sup>585</sup> ‘Jakin nahiko dute’. Ikus *badagoke* gutun honetan berean, eta aditz morfologiari eskaini atalean dioguna.

lukete. Atzo ta herenegu<sup>586</sup> ez dute paratu ere kandelan.<sup>587</sup> Andres agerzen bada ere, estutu gabe badagoke,<sup>588</sup> bai. Olaberria, *15 de abril de 1800*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1800.04.15(B)

Olaberria, *15 de abril de 1800*.

Nagusi jauna:

Franzisko de Irigoienek *3 de mayo de 99* ezkeroko ekarri du mea

Errenteriatik . . . . . *.50½ quintales*

Burnia Errenteriarara . . . . . *.108½ quintales*

Olaberrian . . . . . *.159 quintales*

Mearik zergatik etzen, burniarenzat añaadimentua emanen zuela esan ziztaien beñ, ta ordukoak ditu sei kintalek. Behar du añaadimentua: <sup>589</sup>

Fagotxikin<sup>590</sup> ditu meak . . . . . *.8 quintales*

Arizxulegitik kabigunketan . . . . . *.1 día*

Burnia hartu du . . . . . *.4 arroas*

*Su servidor Joseph Ramon de Minondo.*

Abonatu beharrak ditu Munoakoak<sup>591</sup> 150 kintal mea olara ekarriak, taia<sup>592</sup> bete ta asentuak nauzkien,<sup>593</sup> ta kontua ematean batera akordatu ez ninzan.<sup>594</sup>

<sup>586</sup> Goizuetan orain *herénu*.

<sup>587</sup> ‘Enkantean’, argizaria itzali bitartean lehiatzen ahal baitziren interesdunak.

<sup>588</sup> ‘Egongo da segur aski’, ‘egon daiteke’.

<sup>589</sup> Lerroalde honetan ez da erraza erabakitzea zer puntuazio sartu behar den eta non, adiera aldatzen baita, bistan da, era batera egin, bestera egin. Hitza berez *kintal* da (ikus hiztegia), ez *kintale*, eta, hortaz, *kintalek* hutsa dela dirudi, egileak *kintalak* idatzi nahi zuela. Beste aukera *sei kintalek behar du añaadimentua* puntuatzea eta ulertzea da.

<sup>590</sup> Olajaunak egindako erdarazko apunteetan *Pagochipi* edo *Pagochiqui* irakurtzen da, *P-* duen forma betiere.

<sup>591</sup> *Munoo* Oiartzungo Ergoien auzoko baserria da. Euskarazko testuarekin batean ola-jaunak gutuna hartutakoan egin apunteak daude, eta, besteak beste, *Pachico Munocoa* ageri da. Hemen azpimarratzekoa da *Munoakoa* (euskarazko testuan) vs *Munocoa* (erdarazko testua baina euskal sintagama) desberdintasuna.

<sup>592</sup> Originalen *taya* hitz bakar batean idatzirik dago, eta, horregatik, ‘taia’ interpretatu dugu elea. Alabaina, *ta ya* ‘eta jada’ edo ‘eta ia’ ere uler liteke menturaz. Ikus hiztegia *ia* eta *taia* sarreretan dioguna. Bigarrenaz ikus bedi, berebat, 1799.04. Bukaera gutuna.

<sup>593</sup> ‘Neuzkan’.

<sup>594</sup> Ohart bekio hurrenkerari.

1800.04.17

Nagusi jauna:

Uharteko<sup>595</sup> errotaria larunbatean juatekoa omen da errenta pagatzera. Ta Andresekin egondu naiz, ta esan dit gauza hori konponzeko modua harzera ta berorrekin egotera larunbatean horrara agertu behar duela, gobiernokoen berri<sup>596</sup> badakiela ta berorrekin ere egon behar duela.

Babarik ez dut, ta hemen ez da salzeko batere; hortik badere beharko dugu puxka bat, ta Hondarrabiako<sup>597</sup> babadun<sup>598</sup> hark ere errespuesta behar luke. Igandeko<sup>599</sup> etorzekoa zela honara esan zuen mandatari ebilli den ikazkilleak,<sup>600</sup> ta harzekotan, Goiarara<sup>601</sup> urretxiki batean ekarriko omen ditu, ta Fagotxikira ekarri nahi baditu, zerbait gehiago beharko du.

Olaitzeko<sup>602</sup> Joseph Ignaziok eskatzen du *40 pezetas*

Manuel Fagotxikikoak . . . . . *20 pezetas*

Mearik ez da bada ñondik heldu honara, ez Irundik ta ez Erreteriatik; arragoa erretzeko modua ona dago!<sup>603</sup> Olaberria, *17 de abril de 1800*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

<sup>595</sup> Originalean *huarteco* dago. Hau Oiartzungo egungo Altzibar auzoko *Ugarte* base-  
rria da, errota eta burdinola izandakoa; ikus Goikoetxea eta Lekuona (2007: 302). 1499an  
«*Chope de Arvide çapatero e Chope de Arburu e Johanis de Vgarte o de Olays vesinos de la  
dicha tierra*», «...*el camino que va de la casa de Rivera a la casa de Vgarte*», «...*por el ar-  
royo avaxo hasta el rrio que va a la presa del molino de Vgarte*» daukagu (Irijoa eta Lema,  
2011: 9, 54, 61).

<sup>596</sup> Oiartzungo gobernukoen berri, alkate-zinegotzien berri, oker ez bagaude.

<sup>597</sup> Eskutitzean *Ondarravia / co* dago.

<sup>598</sup> 'Baba saltzailea'. Erka bedi *ogidun*-ekin (ikus hiztegia).

<sup>599</sup> 'Iganderako'.

<sup>600</sup> Usaian *ikatzgille* ibiltzen du Jose Ramonek.

<sup>601</sup> *Goiarra* Oiartzungo baserri baten izena da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 150).

<sup>602</sup> Originalean *ola ybeco* idatzirik dago. Eskutitzotako *ola itxea*, *olaitxea* edo *olatxea*  
Olaberriaren ondoan dagoen egungo *Olaetxea* da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 246).  
*Olatxea* ebakitzen da orain, eta 1800 inguruan ere hola ahoska zitekeen, gutunotan, esan  
bezala, hiru forma horiek azaltzen baitira, artean finkatzeko zegoen seinale. 1857an  
(NOPGI, 58) *Olaechéa* laborari etxea daukagu.

<sup>603</sup> Ironiaz ari da, bistan da.

1800.05.Hasiera

1800

*Desde 3 de marzo hasta 3 de mayo.*

*Panes 18 a 20 cuartos . . . . .10 pezetas y 20 cuartos*

*5¼ libras de aceite a 32 cuartos . . . . .4 pezetas y 32 cuartos*

*36 azumbres de sidra a 5 cuartos . . . . .5 pezetas y 10 cuartos*

*Expensa de abril . . . . .20 pezetas y 28 cuartos*

*Expensa de marzo . . . . .50 pezetas y 5½ cuartos*

*Expensa zor dena . . . . .70 pezetas y 33½ cuartos*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.05

1800

Nagusi jauna:

Luis de Lekunak *desde 8 de mayo* ezkerro Errenteriatik

ekarri du mea . . . . .83 quintales

Burnia Fagatxikitik<sup>604</sup> Elizaldera

eraman du . . . . .24 quintales y ½ arroba

Kabigunketan . . . . .2 días

Franziako karretoan harzeko du 20 pezetas

Arrago egurrekoak harzeko ditu 47½ pezetas

Guzien kontua eskatu dit

Burnia hartu du arroa bat

*Su servidor Joseph Ramón.*<sup>605</sup>

<sup>604</sup> Eskutitzean *Faça chiquitiq* idatzia da.

<sup>605</sup> Euskarazko testuaren ondotik olajaunak egindako kontuak datoz, zer-noiz-nori ordaindu dion, erdaraz, baina ez dugu interesez korik deus ediren, *leña Ragoa* ‘arrago egurra’ hibridoa eta euskarazko *kabiguña* gaztelaniaz *mango* itzultzen duela ez bada.



1800.05.07

Nagusi jauna:

Luis Zuloakoaren<sup>606</sup> kontuan ez dakit burnien kontua txuxen<sup>607</sup> eman ote nion.<sup>608</sup> Munoakoa ta Garatekoa<sup>609</sup> ta hiruak<sup>610</sup> illundu-ta<sup>611</sup> etorri ziran paper billa, ta presaka ez dakit zer egiñ nuen ere burnian. Arrazoiak behar dute izan: *26 arroas y 6 libras*.<sup>612</sup>

Lenagoko kontua egiñ zuenean gurdia egin zuen ta kargatu zitzaion, ta hura sartu ote dudan oraño burnietan nago,<sup>613</sup> horko lengo papera hori ekusi ta.<sup>614</sup> Hemen dagoena baño gehiago badago, honetara rebajatu behar zaio.

Olaberria, 7 de mayo de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

1800.05.08 ingurukoa

Nagusi jauna:

Luis de Lekunak *desde 18 de diciembre de 98 hasta 8 de mayo de 1800* ekarri du Errenteriatik:

Mea olara	.....401½ quintales
Burnia olatik	.....197 quintales
Olakoa	.....598½ quintales
Fagotxikira mea	.....157 quintales
Burnia	.....084 quintales
Fagotxikin	.....241 quintales

<sup>606</sup> Oiartzungo Ergoien auzoko *Zuloaga* baserri edo errotakoa (*Zuloagaerrotta*) zatekeen. Ikus Goikoetxea eta Lekuona (2007: 322) eta gorago *Sebastian Txulo* deizioaz mintzatzean esan duguna. 1857an (NOPGI, 60) *Zuloaga* laborari etxea («casa de labor») eta *Zuloaga-errotta* («molino harinero») ageri dira.

<sup>607</sup> Originalean *chussen* idatzirik dago. Erka bedi hau Iberoko gurutze bideko *intencione chusenarequi* (Arraiza, 1988: 148) sintagmarekin.

<sup>608</sup> *Berorri*, alegia.

<sup>609</sup> *Garate* ere Oiartzungo baserria dugu (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 144).

<sup>610</sup> Munoakoa, Garatekoa eta Zuloagakoa.

<sup>611</sup> 'Ilundu eta', 'ilundu eta gero'. Gutunean *yllundu ta* idatzirik dago.

<sup>612</sup> Hau honela ere puntua daiteke: «...ta hiruak illunduta etorri ziran paper billa, ta presaka ez dakit zer egiñ nuen ere burnian arrazoiak. Behar dute izan 26 arroas y 6 libras». Ikus hiztegiko *arrazoiak izan* sarreran dioguna.

<sup>613</sup> 'Eta zalantzan nago hura sartu ote dudan oraingo burdinetan'.

<sup>614</sup> Originalean *Ecusi ta* 'ikusi eta', 'ikusi ondoren'.

Añadimentua 21 kintalena, zergatik bueltan mearik etzen.	] 10½ reales
Agindu zitzaion:	
Ariztxulegitik kabiguñak .....	3 días
Burnia hartu du .....	26 arrobas y 6 libras

*Su servidor* Joseph Ramon de Minondo.

## 1800.06.Hasiera

1800.

*Desde 3 de mayo hasta 31 de mayo.*

*En martinete 60 panes importan .....35 pezetas y 10 cuartos*

*8½ libras de aceite a 32 cuartos .....8 pezetas*

*12 libras de carne a 9 cuartos .....3 pezetas y 6 cuartos*

*Sardinas de .....2 pezetas y 18 cuartos*

*101½ azumbres de sidra a 5 cuartos*

*importan .....14 pezetas y 31½ cuartos*

*Expensa de mayo .....63 pezetas y 31½ cuartos*

*Expensa de abril .....20 pezetas y 28 cuartos*

*Expensa de marzo .....50 pezetas y 5½ cuartos*

*Guzia zor da .....134 pezetas y 31 cuartos*

Eguerdiko libra bat haragi hiruai ematen hasi naiz; sei sardiña, 12 kuarto, ta olio gañera behar zituzten, ta orañ 9 kuarto, libra bat haragi.<sup>615</sup>

## 1800.06.02

Nagusi jauna:

Ola datorren igandean paratuko dutela kandelan erakutsi<sup>616</sup> da elizatik, 2.300 karga ikatz izanen duela gutxi gorabera erakutsi da. Ta Baltasarrek esan dit hoiek deklarazioa egiñ dutela,

<sup>615</sup> Ez dakigu ongi pasarte hau nola puntuatu behar den; aukerak bat baino gehiago dira. Beste era bat: «Eguerdiko libra bat haragi hiruai ematen hasi naiz. Sei sardiña, 12 kuarto, ta olio gañera behar zituzten. Ta orañ, 9 kuarto, libra bat haragi».

<sup>616</sup> Ikus hiztegian dioguna.

Lenbizikoan .....	1.500 <i>cargas</i> ,
kandelan ere hala baitago	
Bigarrengean .....	2.000
Hirugarrena .....	3.000
Laugarrena Garalorregin .....	4.000
Bostgarrena <sup>617</sup> Otsandola .....	4.500
Guzia .....	<u>15.000 <i>cargas</i></u>

Hoiien deklarazioan terzioa<sup>618</sup> kendu ta heldu da urte bakoitzeko 2.000. Esamiña olarenzat bataz beste baño hirutan gehiago erakutsi da urte bakoitzeko, ta Baltasarrek dio Garalorregin ta Otsandolan, hoiien esamiñan, ongi aterako dela, izerdiak galduak izanagatik.<sup>619</sup>

Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitzeko, ta erre hoietako botatzeko denboran iragotako egunaz; guzia 20 pezeta dela esan dit.

Olaberria, 2 de junio de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.06.17

Nagusi jauna:

Franzisko Antonio Uhartekoak<sup>620</sup> ditu, leneko paga egiñ zitzaion ezkerro, ogi emanak honara: *38 panes a 20 cuartos importan 22 pezetas y 12 cuartos*. Espensan paga bealzean hoiek gutxiago bealzea du.<sup>621</sup> *Abono en cuenta, Patxiko Antonio.*<sup>622</sup>

Olaberria, 17 de junio de 1800.

*Su servidor Joseph Ramon de Minondo.*

---

<sup>617</sup> Bi eletan izkiriatura da: *bost garrena*.

<sup>618</sup> 'Herena'.

<sup>619</sup> Ez dakigu zergatik galdu ziren izerdiak. Beste aukera bat *izerdiak* aitzineko *aterako dela* aditzarekin lotzea da, baina plurala esperoko gence kasu horretan, *izerdiak aterako direla*.

<sup>620</sup> Originallean *huartecoaq* daukagu. Ikus gorago (1800.04.17) esan duguna.

<sup>621</sup> 'Aski du horiek gutxiago bidaltzea', 'aski du horiek ez bidaltzea'.

<sup>622</sup> Hau olajaunak egindako apuntea da. *Franzisko Antonio* eta *Patxiko Antonio* lagun bera zirela franko garbi ikusten da.

1800.06.23

Nagusi jauna:

Andre horren suñak,<sup>623</sup> pezetako mea hartatik aterea ta ekarzea (*sic*),<sup>624</sup> badu harzeko 45 *pezetas* y 7 *cuartos*. Olaberria, 23 de junio de 1800.

23 de junio. Pagué los dichos 45 *pezetas*, 7 *cuartos*.<sup>625</sup>

*Su servidor Joseph Ramón.*

1800.06.29

Nagusi jauna:

Kandelan paratu dute ola ta gelditu da 1.650 ezkutuan, ola ez baño basoa. Ta Baltasarrek esan dit Otsandolakoa bost milla, ta Garalorregikoa lau milla ta erdi egiñ zutela,<sup>626</sup> ta Madarimotxekoak<sup>627</sup> ere hiru milla ta berrehun, edo ez dakiela hirutan ehun duela.<sup>628</sup> Ta modu honetan allegatzen dira erre añaditu hoiekin<sup>629</sup> Indianoak eman duen kontura. Len zer egiñ zuten ere eziñ kontura dira hoiek.<sup>630</sup> Ta galdatu diot zer daritzan, esamiña hoietaz zer daritzan, ta esan dit honi daritzana<sup>631</sup> dela... gobiernokoren batzuekin egondu omen da,<sup>632</sup> errenta zenbat egiñen duen edo egiñ dezakean,<sup>633</sup> ta trazatu omen dute. Señoa<sup>634</sup> ere han omen zen, ta 1.400 ezkutu honetan ongi litzakeala dio, harrapatzen baliz.

---

<sup>623</sup> 'Suhiak'.

<sup>624</sup> '...ateratzea(gatik) eta ekartzea(gatik)' alegia.

<sup>625</sup> Olajaunaren apuntea dugu hau.

<sup>626</sup> Badaiteke *Otsandolakoa* eta *Galarorregikoa* subjektua ez izatea, objektua baizik, *egiñ*-ek 'baloratu'-ren moduko adiera duela onesten bada. Nolanahi ere, ondoko *Madarimotxekoak* horrek aurreko biek *Otsandolakoak* eta *Garalorregikoak* izan behar zutela adierazten duke, JRM Baltasarrekin ez ezik Madarimotxekoarekin ere eleka ari izan ez bada segurik.

<sup>627</sup> *Madarimotxa* Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 222).

<sup>628</sup> Hiru mila eta hirurehun, alegia.

<sup>629</sup> «*Erantsi dituzten [zati] erre hauekin / horiekin*».

<sup>630</sup> Menturaz hau esan nahiko da: «*Lehen zer ere egin baitzuten, hauek / horiek ezin kontura daitezke*», «*lehen egin zutena egin zutela ere, hauek / horiek ezin kontuan sar daitezke*».

<sup>631</sup> 'Eta esan dit honetaz uste duena dela [...]'. Ikus aditz morfologiaren gaineko atala.

<sup>632</sup> Diskurtsoa ez dago guztiz ongi harilkatua, zati honetan. Irudi du *hau* bat-edo falta dela: «*ta esan dit honi daritzana hau dela: gobiernokoren batzuekin [...]*».

<sup>633</sup> «*eta errenta zenbat egiñen duen (Konsejuak) edo egiñ dezakean*».

<sup>634</sup> *Sein* Oiartzungo bazterretxea da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 283).

Ta honetaz gañera plantak nola dituen,<sup>635</sup> heldu da 1.500 ezkutu planta-kin, ta Baltasarrek dio eska dezala erre hoietan,<sup>636</sup> badirela igartuko diranak gehiago ere,<sup>637</sup> ta hoiek ta despojourik izaten bada suerte hoietan, memoriale- an eskatzeko debalde,<sup>638</sup> ametitzen balute beti izaten dela zerbait, ta modu hoietan ongi litzakeala, Indianoak hartuko lukealako. Hori ezpaliz, nahi den moduan hartuko litzake, baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezkerro, ta esami- ñetan hainbeste egon! Diferenzia erdira badere, pagatu beharko du, 1.400 ezkutu, ta plantak gañera. Hartu ezkerro, despojoen grazia nahi litzake, baliz.<sup>639</sup>

Indianoa bigar badihoa<sup>640</sup> juntara, ta beste hoiek eroriko dira edozeñ modutara,<sup>641</sup> ta deskargako egiteko hau ere basoz edo errentan deskitatze-ko egin dezake.

Bean ere itxi puxka bat<sup>642</sup> beharko da, edari puxka bat egiteko kupela edo barrika, edo zerbait idukitzeko,<sup>643</sup> erdiko arkuko garaiko aldetik goikoa, ikaztegi<sup>644</sup> atek libre direla. Olaberria, 29 de junio de 1800.

Joseph Ramón

1800

Desde 1 de junio hasta 29 de junio.

En martinete 43 panes a 20 cuartos

importan...25 pezetas y 10 cuartos

8½ libras de aceite a 32 cuartos . . . . .08 pezetas

13 libras de carne a 9 cuartos . . . . .03 pezetas y 15 cuartos

<sup>635</sup> «Eta honetan gainera (berorrek) landareak dituenez gero [...]».

<sup>636</sup> ‘Erretako eremu horietan’. Hemen ‘horietan’ daukagula dirudi, ez ‘hauetan’; ikus bedi izen morfologiari buruzko kapitulua.

<sup>637</sup> Hemen *guei*ago ere goratua dago, bi lerroren artean, JRMk lehenik ahortzi eta ondoren idatzi duelako.

<sup>638</sup> Bi lerroren artean idatzirik dago *debalde*, goititurik. Bestalde, ez da hau, segur aski, pasarte puntuatze-ko era bakarra.

<sup>639</sup> ‘Despojourik baliz’. Pasarte hau honela ere puntua daiteke: «...baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezkerro, ta esamiñetan hainbeste egon (denez gero), diferenzia erdira badere pagatu beharko du, 1.400 ezkutu. Ta plantak gañera hartu ezkerro, despojoen grazia nahi litzake, baliz».

<sup>640</sup> Hau *badioa* idatzirik dago originalean.

<sup>641</sup> Lehenik *modura* idatzi zuen egileak, eta gero *ta* azken silabaren gainean ezarri zuen.

<sup>642</sup> Leku itxiren bat, edaria gordetzeko.

<sup>643</sup> Hau honela ere puntua daiteke: «Bebean ere itxi puxka bat beharko da edari puxka bat egiteko, kupela edo barrika edo zerbait idukitzeko [...]».

<sup>644</sup> Olan ikatza gordetzen zen lekua.

<i>69 azumbres de sidra a 5 cuartos</i> . . . . .	<i>10 pezetas y 5 cuartos</i>
<i>Expensa de junio</i> . . . . .	<i>46 pezetas y 30 cuartos</i>
<i>De mayo</i> . . . . .	<i>63 pezetas y 31½ cuartos</i>
<i>De abril</i> . . . . .	<i>20 pezetas y 28 cuartos</i>
<i>De marzo</i> . . . . .	<i>50 pezetas y 5½ cuartos</i>
<i>Guzia zor da</i> . . . . .	<i>181 pezetas y 27 cuartos</i>

1800.07.06

Nagusi jauna:

Suertea gelditu da 1.620 ezkutuan, ta Sarasti itxean da, nahi badu etorri.<sup>645</sup>

Frailei eman tioztet<sup>646</sup> Honbretxorenzat . . . . *1½ pezeta*

Maisuarenzat . . . . . *1 pezeta y 3 reales*

Aprendizarenzat . . . . . *0 . . . . . 2 reales*

Aprendizaren amari elizarako eskastuta<sup>647</sup> eman diot *5 pezetas y 10½ cuartos*.

Aprendizak esanta eman diot, horien asentueta paratuko ditu.

Tomas igeleak kuarto haiez oroitzeko. Irundar hoiek ere noizbait konpondu behar lirake, ta arragoako jornalak ta bost orgaren porteak ere badira zor *126 pezetas y 3 reales vellón*.

Orañ kostatzen da orga bakoitza *26 pezetas*, ta gañera sosak ere bai.<sup>648</sup> Oiarzun bertan lau orgak hiru pezeta, alkateak bi ta eskriboak<sup>649</sup> bat.

Olaberría, *6 de julio de 1800*.

*Su servidor Joseph Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

<sup>645</sup> 'Berorrek nahi badu etorri'.

<sup>646</sup> 'Fraideei eman dizkiet'.

<sup>647</sup> 'Diru gutxi izanda'.

<sup>648</sup> Hemen «*ta gainera sosak ere bai*» horrekin orgatara bakoitza, pezetaz landara, diru xehe zerbait ere kostatzen dela esan nahiko du JRMk.

<sup>649</sup> 'Eskribauak'. Hemen aditza *balio izan, kobratu...* dela pentsatu beharko, ergatiboa ikusirik.

1800.08.02

Nagusi jauna:

Franzisko de Irigoienek ekarri du mea Erreteriatik, 15 de abril

ezkero . . . . . 44½ quintales

Burnia hartu du . . . . . 3 arrobas

Olaberria, 2 de agosto de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*<sup>650</sup>

1800.08.06

Nagusi jauna:

Anaturik eskatzen du lau kintal burniaren libranza:

Juakin de Telletxearenzat . . . . . 1½ quintales

Sebastian de Mitxelena . . . . . 1½ quintales

Franzisko Antonio de Ribere . . . . . 1 quintal

Hiruren kontura . . . . . 4 quintales

Orañ kintal bat edo beste hartu, ta besteak atzerago<sup>651</sup> orobat hartuko dituela. Olaberria, 6 de agosto de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón*

1800.08.10

Nagusi jauna:

Peloako<sup>652</sup> Agerrek gaztigatu du ielsuak<sup>653</sup> berorrenzat bost erreal balio duela, ta bera miñez dagoela ta dirua bealzeko.

---

<sup>650</sup> Jarraian olajaunaren apunteak heldu dira. Aipatzekoak *Pachico Munocoa* eta *Munocoa* dira.

<sup>651</sup> ‘Geroago’, ‘aurrerago’.

<sup>652</sup> Hau Oiartzungo *Feloaga*, *Beloaga* baserria da, egun *P*-rekin ebakitzen dena (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 138). Ikusten den bezala, hemen ere, gutunean, *P*- dauka. 1499an *Johanis de Beloaga* daukagu (Irijoa eta Lema, 2011: 7). 1857an (NOPGI, 56) *Feloaga*, *Feloaga-berri*, *Feloaga-chiqui* eta *Feloaga-zar* ageri dira.

<sup>653</sup> ‘Igeltsuak’. Originalean *hielsuaq* idatzirik dago. Ikus grafiaren inguruko atalean dioguna.

Sarobeko Juan Ignaziok gaztaña ikatza eman digu, 12 karga. Gerok jaso ta hartu du burnia  $2\frac{1}{2}$  *arrobas* lau libra gutxiago, ta kontu puxka hau ta lengo erresta<sup>654</sup> puxka bealzeko.

Olaberria, *10 de agosto de 1800.*

*Su servidor Joseph Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.08.12

Nagusi jauna:

Irundar hoiek hemen dabilza ondotik, ta hor izandu ziranak nola ekarri baitzuten beren kontua,<sup>655</sup> uste dute nere falta dela, ta txartelekin horrara etorzeko asmoa egiten dute. Lagun batzuen txartela, batek edo bik hartu beren buruan ta guziak horrara eziñ ebilliko direla, zergatik batzuek gutxi dute, ta<sup>656</sup> gutxigatik<sup>657</sup> ebillzeko biaje luzea. Ta<sup>658</sup> nahi badu txartela eskatzen duten hoiei beren kontua ematea, edo guziena batean egin nahi duen gaztiga beza.

*17 de setiembre de 99* kontua egin genuen azkenekoa, ta gelditu ziran harzeko:

Itzaiak	.37 pezetas y 8 cuartos
Meakariak	.22 pezetas y 13½ cuartos
Geroztik etorri dira pezeta batean entregakoak	335 <i>quintales</i> y ½ <i>arroba</i>
Erorzako goikotik	150 <i>quintales</i>
Itzaienak ta meakarienak <i>importan</i>	.183 pezetas y 25½ cuartos
Guziak inportatzen dute	.578 pezetas y 16 cuartos
Hor izandu ziranai emana da	.135 pezetas y 22½ cuartos
Orañ zor da	.442 pezetas y 27½ cuartos

Emakume batek txartela kendu zidan niri, berorri<sup>659</sup> Oiarzunaren zen batean, ta hari deus eman bazion jakiñen du. Ta hoiek konponzen ezpadira, pake txarra emanen dute. Olaberria, *12 de agosto de 1800.*

<sup>654</sup> 'Geldikina'. Ikus hiztegia.

<sup>655</sup> 'Beren kontua ekarri zutenez gero'.

<sup>656</sup> Goititua dago juntagailua.

<sup>657</sup> Bi eletan emana dago originalan: *guchi gatiq.*

<sup>658</sup> Koma idatzi zuen JRMk hemen, eta badaiteke pasartearen puntuazioa guk eman diogunaz bestelakoa izatea, haren buruan.

<sup>659</sup> Iduri du *berori* behar lukeela, absolutiboan.



*Su servidor Joseph Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.09.23

Nagusi jauna:

Endara etorri da eguerdi ondoan, ta igeleak tretxuak buztanzen<sup>660</sup> ari ziran; orañik bigarren tretxua zuten, ta kamañara<sup>661</sup> juan, lanaz kasorik egin gabe, ta lo etzin da,<sup>662</sup> ta hurrengo agoan illunzeko aurrean iraikei,<sup>663</sup> ta orduan hasi da lanean. Ez du gauza onik egiñen, ez da kontentu. Ola handiko lanetarako ez omen zen hau igualatu.<sup>664</sup> Gurutze Santu arratsean ere ongi ebilli zen hagitz!<sup>665</sup> Zeharretik yo gabeak erdiak, ta beste batzuek pasatu badere<sup>666</sup> egin ziran; honengatik erremedioa egiñ daiteke.<sup>667</sup> Niri deus ez dit esaten, baño olako lagunai errenkuraren batzuek egiñ omen tiozte.<sup>668</sup>

Olatxoko moduak espensan ere nahi omen lituke,<sup>669</sup> ta ez omen da kontentu. Olaberria, *23 de setiembre de 1800.*

---

<sup>660</sup> Hitz teknikoa dugu hau segur aski; 'tretxuak luzatzen'-edo izanen da adiera. Ikus hiztegia.

<sup>661</sup> *Kamaina* ohe modukoa zen, baina kaskarra, artzainek-eta mendian zutena. Ohatze horiek zeuden gela ere *kamaina* zen (ikus hiztegia).

<sup>662</sup> 'Lotara joan da'. *Lo egon* esateko modu klasikoa *lo etzan* edo *lo etzin* da, hots, *lo dago* esan beharbidean, *lo datza*. Iduri luke gaztelania zaharreko *yacer* aditzaren erabilera-rekin zerikusia daukala.

<sup>663</sup> *Iraiki* hau *eraiki* 'jaikiarazi' da, *jaiki*-ren arazlea. Hots, ez zela Endara bere gisa jaiki, jaikitzeko esan behar izan ziotela. Lesakarra zen gizona, beste eskutitz batean esaten denez. Ikus onomastika kapitulua.

<sup>664</sup> 'Ez omen zen hau ados jarri diru kontuetan'. JRMk gaztelaniaz (1803.01.05) *iguala-da* 'ordaindua' edo 'adostua' adierarekin darabil.

<sup>665</sup> Ironiaz ari da JRM. Endara lanean arrunt gaizki ibili zela esan nahi du; ondoren heldu da horren azalpena.

<sup>666</sup> 'Pasatu bederik', 'pasatu bederen'.

<sup>667</sup> Irudi du agoak hainbestean gelditu edo atera zirela esan nahi duela, pasagarri.

<sup>668</sup> 'Olako lagunei erantzute batzuk egin omen dizkie', alegia, zenbaitetan modu txarrean erantzun omen die, bere kexuak-eta agertuz. Hemen *errenkura* 'kexua', 'erantzukia' bide da, ez 'kezka'.

<sup>669</sup> Ez dakigu ongi zer diren olatxoko «moduak» hemen, baina garbixko dago Endarak bere buruaren alderako nahi dituela modu horiek, gastutako aintzat hartzea alegia, espentsan sartzea.

*Su servidor Joseph Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.09.25

Nagusi jauna:

Endara Artikuzan berorrekin egondu zen igandearekin, ta honara etorri zen astelenean, 4 de agostoan, ta gerozko denbora larunbat artea du, ta aste honetan hogeita lau ordu faltatu.<sup>670</sup> Astelen arratsean lanean hasi zen.

Markosekin egondu naiz ta San Migelez etorzeko partitu gera. Olaberria, 25 de setiembre de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*<sup>671</sup>

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.09.30

*Año de 1800. Expensa de mío.*

*Desde 31 de agosto hasta 28 de setiembre.*

*14 panes a 20 cuartos ..... 8 pezetas y 8 cuartos*

*4¼ libras de acefi]te<sup>672</sup> a 32 cuartos ..... 4 pezetas*

*22 azumbres de sidra a 5 cuartos y*

*17 azumbres a 4 cuartos importan ..... 5 pezetas y 8 cuartos*

*¼ fanega de haba ..... 2 pezetas y 17 cuartos*

---

<sup>670</sup> 'Faltatu du'. Ez dakigu egileak hemen ere, beste batzuetan egiten duen bezala, AL esaldia hanpatzeko ezabatu duen. Badaiteke. Ikus aditz morfologiari buruzko atala. Beste aukera *falta tu, falta ttu* ulertzea da, hots, 'falta ditu', nahiz arruntean *ditu* ibiltzen duen.

<sup>671</sup> Honen ondotik ola jaunaren apunte batzuk daude. Interesgarria izan daitekeen gauza bakarra *Agustin Prestador* da, 'Agustin mealea' alegia, berririo azaltzen ez dena, oker ez bagaude.

<sup>672</sup> Originalean *azete* dago.

*Expensa de setiembre* . . . . .19 pezetas y 33 cuartos  
*Antes son* . . . . .285 pezetas y 5 cuartos  
*Todos son* . . . . .305 pezetas y 4 cuartos

Domingo Etxabe<sup>673</sup> gaur bederatzitako etorzekoa da karrumatodunai<sup>674</sup> burniak ematera; berantetsia nangoan<sup>675</sup> (*sic*) zer egin behar ote zuten, ta atzo eguerdian mutill bat bealdu du,<sup>676</sup> gaur etorriko dela. Olaberria, 30 de setiembre de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Horko kabilletan bealdu ditut lengo 7½ arroak ta 3 arroa gañera, sobratu ziranak. Solo<sup>677</sup> Franziako burniai bezala, libra gehiagorik ez diotet eman kintalean.

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.10.14

Nagusi jauna:

Kosme de Lekunak eraman ditu:

Olaberritik Elizaldera<sup>678</sup> burniak . . . . .16 quintales y 4 arrobas

Fagotxikitik Elizaldera . . . . .09 quintales

Maxkurioren itxetik ekarri du mea honara . . .07 quintales y 1 arroba  
32 quintales y 5 arrobas

Olaberria, 14 de octubre de 1800.

*Abono 32 quintales, 5 arrobas. Juntos abono 2 pesos.*

*Su servidor Joseph Ramon de Minondo.*

<sup>673</sup> Etxabe Oiartzungo bazterretxea da.

<sup>674</sup> Bi hitzetan izkiriata da: *Carromato dunay*. Hondar zatia adizkia gabe atzizkia dela ematen du.

<sup>675</sup> Adizki bitxia dugu, baina menturaz ez da okerra. Ikus aditz morfologiaren inguruko atala.

<sup>676</sup> Honek Iparraldeko egungo erabilera dakarkigu burutara. Ikus aditz morfologian dioguna.

<sup>677</sup> 'Bakarrik', 'bakarra'. Beste batean ere badarabil.

<sup>678</sup> Oiartzungo Elizalde auzora.

1800.11.06

*Año de 1800.*

*Desde 28 de setiembre hasta 1 de noviembre.*

*Panes míos 17 a 20 cuartos importan . . . . .10 pezetas*

*5 libras de aceite a 30 cuartos . . . . .4 pezetas y 14 cuartos*

*38 azumbres de sidra a 2½ cuartos . . . . .2 pezetas y 27 cuartos*

*Expensa de octubre . . . . .17 pezetas y 7 cuartos*

*Los de antes son . . . . .305 pezetas y 4 cuartos*

*Todos son . . . . .322 pezetas y 11 cuartos*

Ola handikoak oraño

arialdian egin dute espensa . . . . .188 pezetas y 10 cuartos

Guzia zor dena<sup>679</sup> da . . . . .510 pezetas y 21 cuartos

Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña. Gurdy zura hartu dio gizon bati ta harenzat ditu, paguaren alderako,<sup>680</sup> ta Arranbiden egiñ nahi baditu behar dituenak, berak ekarriko dituela. Hangoa nahiago luke,<sup>681</sup> zallago<sup>682</sup> izanen dela esan diotela-ta. Olaberria, 6 de noviembre de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Irungo meakariak atererik etzaukaten,<sup>683</sup> ta puxka bat badere bealduko dutela aste honetan, ta aurrera aterako dutela.

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.11

*[N]o[viem]bre.*<sup>684</sup>

Arotzen kontua 8 de abril de 800 (sic) ezkerero.

<sup>679</sup> Originallean *dene* dago.

<sup>680</sup> 'Diruaren truke'.

<sup>681</sup> Arranbidekoa, ustez.

<sup>682</sup> 'Uztaia gogorragoa izanen dela', itxuraz.

<sup>683</sup> 'Ateratako mearik ez zeukaten'.

<sup>684</sup> Hilabetearen izena laburturik zegoen, *obre* ikusten baita. Dokumentuari puska bat falta zaio, eta hasierako *N* edo *n* ez da ageri.

Martin de Arizabalok mendian 2 <i>días</i> , olan 15 <i>días</i>	
Semeak <sup>685</sup> . . . . .	3 . . . . .9
Franzisko de Etxeberriak . . . . .	4 . . . . .11½
Nikolas de Ameztói <sup>686</sup> . . . . .	3 . . . . .13
Ramon de Albiztur . . . . .	1 . . . . .11
Salbador Ollakoak . . . . .	2 . . . . .12
Tomas de Lantxerreka . . . . .	1 . . . . .09
Jose Antonio de Zapirain . . . . .	0 . . . . .08
<i>a 10 reales</i> . . . . .	16 <i>días a 8 reales 88½ días</i>
<i>Importan</i> . . . . .	<i>Pagué con Joseph Ramón. 257 pezetas</i>

Haizarka<sup>687</sup> konponzen, errueda<sup>688</sup> konponzen, gurutzeak sarzen<sup>689</sup> ta zepoa<sup>690</sup> estutzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia.

Erariñan Zuloakoa ta Agerrekoa han ziran lorrean, ta hoiinak utzita beste zazpi ezkutu lodiak<sup>691</sup> beal bitza, zergatik arrotzak diran besteak. Ariztxulegi aldeko lorrean ta Eraringoan gastatu dira bost pitxer ardo, *a 30 cuartos*.

Aldakoko nagusiarena ekarri dugu lata<sup>692</sup> 180 beso,<sup>693</sup> zientoa<sup>694</sup> 4½ *pesos*.

Lata ilzea kastatu da,<sup>695</sup> 500, *importan 7½ pezetas*.

Martiñek badu arroa sei pezetakotik burnia hartua 3 *arrobas y 4 libras*.<sup>696</sup>

<sup>685</sup> Seguruenik *Xemeak* irakurri beharko da hau, ondoko gutunean (1800.11.12) *Xemea* (*ssemea*) baitugu.

<sup>686</sup> Oiarzungo bazterretxea da *Ameztói*.

<sup>687</sup> Burdinolaren beste peza bat da, *haize arka* edo *tronpa hidraulikoa*, XVIII. mendean sartu zena, hauspoen ordainetan. Nolanahi ere, gutunotan *hauspoak*, *hauspategia* eta *haizarka* batean agertzen dira. Zubiaurrek (1960: 106) honela definitzen du: «Aparato soplador, compuesto solamente de tablas de madera, que competía con los clásicos fuelles de cuero». Ikus bedi hiztegian dioguna.

<sup>688</sup> *Errueda* edo *erruda*. Ikus gorago dioguna eta hiztegia.

<sup>689</sup> Gutunean bigarren silaba goratua dago.

<sup>690</sup> Lurrean sartutako zutoina zen. Ikus hiztegia.

<sup>691</sup> Diru baten izena. Ikus hiztegia.

<sup>692</sup> Teilen azpian jartzen diren egurrezko taulak dira *latak*.

<sup>693</sup> Neurria da hemen *besoa*.

<sup>694</sup> Originaleko *cientoa* bi txandatan idatzia dagoela dirudi: lehenik *cien* izkiriatu bide zuen JRMk, eta gero *toa*, baina hezetasanaren ondorioa ere izan daiteke izkirio alde hori. Gainera, beste eskutitz batean (Datagabea.1) argi samarra da *beso zientoa* sintagma.

<sup>695</sup> ‘Gastatu da’. Ohart bedi irakurlea bi lerro gorago *gastatu* dagoela, *g*-rekin idatzia. *Lata ilzea* zalantzarik gabe iltze mota bat da, *latak* teilatuan lotzeko ibiltzen zirenak.

<sup>696</sup> Hau da, ‘Martiñek, arroak sei pezeta balio duen burdinatik, hiru arroa eta lau libra hartuak ditu’.

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1800.11.12

Nagusi jauna:

Anatxurik eskatzen ditu burniak karraidoren<sup>697</sup> kontura:

Antonio de Bengoetxea . . . . .	1 quintal
Ignazio de Bengoetxea . . . . .	1 quintal
Mikolas de Zulaika . . . . .	1 quintal
Bordatxo <sup>698</sup> . . . . .	1 quintal
Xemea <sup>699</sup> . . . . .	1/2 quintal
Manuel de Bengoetxea Aierdikoa <sup>700</sup> . . . . .	1/2 quintal

Cargué en cuenta a los dichos arriba 5 quintales, los 5 quintales

Manuel de Bengoetxea hau orañ ez dabilla lanean. Lengo harzekorik ezpadu ta emanen zaskion edo ez gaztigatuko du,<sup>701</sup> ta ematen dudana hilleko paperetan bealduko dut, bakoitzari bere lanen oñean. Olaberria, 12 de noviembre de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*

Hemen diodan eskario hau<sup>702</sup> karraidoreak libratzen dute berorrek ema[n] nahi<sup>703</sup> duelarik, ta Manuel Bengoetxea honi ez diot galdatu orañik, baño eman baño len galdatuko diot honi ere.

Anatxurik etorri ta<sup>704</sup> eraman egin nahi du, ta gero karraidoreai<sup>705</sup> karga-

<sup>697</sup> *Karraidore* ‘garraiatzailea’, *karraioan* ibiltzen dena. Egun *karraio* ‘garraioa’ bai, baina *karraidore* ez da erabiltzen Goizuetan.

<sup>698</sup> Etxe izengoitia dugu hau. Izen horretako bi baserri daude OIartzunen, bata Iturriotzen eta bestea Ergoienen.

<sup>699</sup> Gutunean *ssemea* idatzita dago.

<sup>700</sup> *Aierdi* OIartzungo baserria da. Olajaunak gurutzetxo bat idatzi du originalean, eta -a ez da ikusten.

<sup>701</sup> Gaztigatuko du berorrek.

<sup>702</sup> ‘Eskari hau’.

<sup>703</sup> Originalean *emanay* dago.

<sup>704</sup> Originalean *etorrita* dagoela dirudi, hitz bakar batean.

<sup>705</sup> Plurala dela ematen du, batuan *karraidoreei* ‘garraiatzaileei’ esanen genukeena.

tu, baño ematera orduko<sup>706</sup> norenzat den jakiñik ematea hobe da, salsan gero ez gabilzan,<sup>707</sup> ta ematen dena hilleko paperetan bealdu.

A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin<sup>708</sup>

1800.11.20

Olaberria, 20 de noviembre de 1800.

Nagusi jauna:

Joseph de Olaziregi aritu den artea<sup>709</sup> egiñ da burnia  
.....186 quintales y 2 arrobas

Espensa .....145 pezetas y 6 cuartos

Ola hasitzeko denboran pasatu dute ola prestatzen egun bat, eta bigarren egunean eguerdi ondoan hasi ziran.

Nik yatera eman.<sup>710</sup>

<sup>706</sup> ‘Eman baino lehen’, ‘ematerako’, *emátte órduko* Goizuetako egungo hizkeran.

<sup>707</sup> ‘Gero saltsan ez ibiltzeko’, ‘gero egitekotan ibil ez gaitezen’. Subjuntiboko adizki trinkoa dugu *gabilzan*, goragoko *datorela berehala* ‘etor dadila berehala’ (1791.09.15), *nagoala berarekin* ‘egon nadila berarekin’ (1800.04.07(A)) eta beheagoko *ixillik zagoela* ‘isilik egon zedila’ (1803.02.07), *daudela puxka bat* ‘egon daitezela puxka bat’ (1806.11.02) bezala. Hau ongi ezaguna da gure testuetan; esaterako, Amenduxen 1567ko olerkian (Jimeno Jurio, 1996: 115 eta P. Salaberri, 1996: 89) *lodagigun* ‘lo egin dezagun’, *baquea dela gusiequi* ‘bakea izan dadila guziekin’ dugu eta Larrasoañako 1579ko esaldian (Santazilia, 2015: 120) *datorela* ‘etor dadila’. Beriainek *Dotrina*-n (1626: 95, 97, 97. or.binp., 108) *çaraten* ‘izan zaitezten’, *daquigun* ‘jakin dezagun’, *digun* ‘eman diezagun’, *cindida* ‘eman zeniezadan’ darabiltza, eta, *Tratado*-an (1980 [1621]: 30, 31, 72), *gauden* ‘egon gaitezen’, *dauden* ‘egon daitezen’, *noayen* ‘joan nadin’ eta abar.

Goizuetatik eta JRMren garaitik hurbilago, Mikelestorena lesakarrak (1751) dauzkan *didazula* ‘eman diezadazula’ (20), *daguitela* ‘egin dezatela’ (26), *daguiela* ‘egin dezala’ (28), *diezquidala* ‘eman diezazkidala’ (32), *daguien* ‘egin dezan’ (33) eta beste har ditzakegu ahotan, edo Etxenik (1980 [1858]) daukan *noayen* ‘joan nadin’. Esan beharrik ez dago subjuntibo balioa duten adizki trinkoak bizirik daudela oraino ere gure artean; adibidez, Urdazubi-Zugarramurdietako erabilerarako Montoya (2004: 177-178) ikus daiteke.

<sup>708</sup> Hartzailera, desira oneko formula eta lekua dakartzan bukaerako testu hau errepikatua dago gutunean, orrialde banatan.

<sup>709</sup> ‘Aritu den artean’, ‘ari izan den bitartean’.

<sup>710</sup> Hurrengo eskutitzean «*guko yaten eman*» daukagu.

Lorenzo Zabalak, egitera etorri zenean, ingudeari su eman arratsean, ta biharamunean arratseko hasi ziran. Berena yan.

Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten, baño maisukabia ardatzak azpian hartuta goiz artea utzi egin zuten.

Burnia hartu du; 9 *pezetas* y 3 *reales* balio dute.<sup>711</sup> Borra<sup>712</sup> ta palanqueta<sup>713</sup> bi.

Leteko<sup>714</sup> andrea hemen izandu da, semea gaizki daukala ta letra bi egiteko. Arrago egurketan harzeko ditu 6 ezkutu.

*Su servidor Joseph Ramón.*<sup>715</sup>

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

### Goizarin

1800.12.12

*Año de 1800.*

Nagusi jauna:

Ola handian azkeneko arialdi honetan egin da

burnia .....253 *quintales* y 5 *arrobas*

Espensa .....188 *pezetas* y 10 *cuartos*

Ola hasitzeko aurreko larunbatean eguna pasatu zuten ola perparatzen,<sup>716</sup> ta astelenean, arratsaldean, haspoari tiratu zitzaion, ta bitartea guk yaten eman,<sup>717</sup> ta Lorenzo etorri zenean ingudeari su eman ta konponzen ta sarzen gau-egunak geldirik; honetan beren espensatik yan zuten.

---

<sup>711</sup> *Burnia* generikoa da, baina burdina peza bat baino gehiago hartu ditu (borra eta palanketa bi), eta horiek hainbeste balio dute.

<sup>712</sup> Mailu handia.

<sup>713</sup> Palanka txikia, palangeta.

<sup>714</sup> *Lete* Oiartzungo Ergoien auzoko baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 217). 1514an *Chopeco de Leeti* –honelaxe irakurria– eta *Machin de Leet* ageri dira (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 271-272). *Lete* Nafarroako herria ere bada, eta Iparraldean eta Hegoaldean han-hemen errepikatzen den toponimoa eta oikonimoa dugu. Forma zaharra *Lebete* ohi da.

<sup>715</sup> Honen ondotik olajaunaren apunteak heldu dira. Guretako «*las machuras*» da interesgarria, eskuarki, euskaraz, *maxura* dugulako. Bestalde, «*la Borra y Palanquetas*» ere badaukagu gaztelaniaz.

<sup>716</sup> 'Prestatzen'.

<sup>717</sup> Aurreko gutunean «*nik yatera eman*» dugu.



Hoietaz gañera ere, maisukabia<sup>718</sup> ardatzak<sup>719</sup> azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten, egunaz konponduko zutela, ta errueda eskatu<sup>720</sup> edo makoak<sup>721</sup> bota ta beste egun bat galdu zuten konponzen.

Olaberria, 16 de diciembre de 1800.

*Su servidor Joseph Ramón.*<sup>722</sup>

### 1801.01.03

Olaberria, 3 de enero de 1801.

Lengo astean erre den arragoako jornalak.

Itzaiak egurketan

Luis de Lekuna . . . . .18 leras

Franzisko de Irigoien . . . . .21

Migel de Aranburu . . . . .21

Jose Antonio de Mitxelena . . . .03

63 leras

Peonak

Manuel de Esnau . . . . .14 días

Batista de Tomasenea . . . . .19

Migel de Irigoien . . . . .6

Manuel de Itxabeste . . . . .2

Franzisko Antonio de Ribere . . .2

43 días

1 azumbre de vino 28 cuartos

Todos importan . . . . .133 pezetas y 11 cuartos

~~Nagusi jauna Errenteriako dendariak eta burnia~~

~~Zenbatean~~ (sic)<sup>723</sup>

<sup>718</sup> Ardatzean sartuta zeuden egurrezko (gabitegian) eta burdinazko (hauspotegian) pezak ziren *maisukabiak*, gabi iguna eta hauspoak beheiti bultzatzen zituztenak. Ikus hiztegia.

<sup>719</sup> Gabiena edo hauspoena izan zitekeen. Ikus hiztegia.

<sup>720</sup> ‘Askatu’.

<sup>721</sup> Burdinolako beste peza batzuk ziren makoak, erruedan zeudenak. Ikus hiztegia.

<sup>722</sup> Binperrean olajaunak erdaraz egindako hainbat apunte daude. Interesgarrienak hauek dira: «*Abono mas por las machuras y gratis*», euskaraz *maxura* ohi baita, ez *matxura*, eta «*por 2 agoas que hizo con Micolas (edo Nicolas) y conponiendo herramienta*».

<sup>723</sup> Esaldia tatxaturik dago, eta hor sartu dugun *eta* hori juntagailua den ez dakigu, argi ageri ez delako. Hondar-aitzineko hitza zein den ere ez dakigu; azken-azkena *duten* izan liteke, baina ez da segurua.

Olan len egiñak dauden kuadroak dira 33 *quintales*:

de 13 líneas . . . . .06 barras<sup>724</sup>

de 14 líneas . . . . .09 barras

de 15 líneas . . . . .54 barras

de 16 líneas . . . . .22 barras

de 17 líneas . . . . .21 barras

de 18 líneas . . . . .23 barras

de 19 líneas . . . . .06 barras

Guziak 33 *quintales* en 141 barras

Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan, ta lurrak iraulze bitarte hone-  
tan ebilliko dira, baño eskuetara begira baitaude.<sup>725</sup> Pisatu ezkerro pagatuaz  
gañera ekarri dute 50 *quintales*.<sup>726</sup> Aste honetako agindu diotet dirua; gutxie-  
na 50 *quintales* edo 60 *quintales* astean ekarriko dute, dirua bada behinzat.  
Olaberria, 8 de febrero de 1801.

*Su servidor Joseph Ramón.*

#### 1801.01.10 ingurukoa

Irungo meakarien ta itzaien kontua.

17 de setiembre de 99 kontua egin genuen ta itzaiak gelditu ziran  
harzeko . . . . .37 pezetas y 8 cuartos.

Meakariak bazuten 60 pezetas y 7 cuartos, baño aurreragoko kontuan,  
berorrek deskuidoan gehiegi abonatua, bazen 17 pezetas y 27½ cuartos, ta  
ferrazalleari 20 pezeta abonatu zitzaion meakarien kontura.

Ta gañerakoa da . . . . .22 pezetas y 13½ cuartos

Geroztik ekarri dute Erorzatik 200 *quintales* y 3 arrobas

Meakariena . . . . .120 pezetas y 10 cuartos

Itzaiena . . . . .125 pezetas y 10½ cuartos

Kintala pezetan entregatzeko

meatik etorri zen 335 cuartos y ½ arroba . . .335 pezetas y 3 cuartos

La[n] egiña da<sup>727</sup> . . . . .640 pezetas y 11 cuartos

<sup>724</sup> Ustez *barras* da originaleko *bar.s* eta *b<sup>s</sup>*-ren azpian dagoena.

<sup>725</sup> Ez dakigu xuxen azken esaldiarekin JRMk zer esan nahi duen; irundarrek laboran-  
tza lanetan ari nahiago dutela menturaz?

<sup>726</sup> Hau honela ere puntua daiteke: «...baño eskuetara begira baitaude. Pisatu ezkerro,  
*pagatuaz gañera, ekarri dute 50 quintales*».

<sup>727</sup> Originean *La eguiña* dago.

Berorrek emanak dira Itxabesteri	}
135 pezetas y 22½ cuartos, ta andre hari	
045 pezetas y 10 cuartos. Itxabestek itzuli	
zituen bi pezeta erdiak	
<hr/>	
180 pezetas y 32½ cuartos . . . . .	180 pezetas y 32½ cuartos
Hasta 10 de enero de 1801 . . . . .	459 pezetas y 12½ cuartos

Jose Ramon de Minondo.

Aurrerako orobat beharko da itzaienzat behinzat, ta meakariak ere lengoa ta gañera ehun kintalena eskatu dute. Aste honetan izandu da bat.

1801.01.12

12 de enero de 1801.

Franzisko de Aranbururen kontua:

Eguerri jua denean<sup>728</sup> urtebete ezkerero

Errenteriatik mea . . . . .	.224 quintales
Burnia . . . . .	.067 quintales
Olaberrian . . . . .	.291 quintales
Fagotxikitik burnia Errenteriara . . . . .	.8 quintales
Fagotxikitik Elizaldera . . . . .	.8 orgas
Kosmeren itxetik honara burnia . . . . .	.24 quintales
Kosmeren itxetik Errenteriara . . . . .	.46½ quintales
Alzibertik mea honara . . . . .	.9 quintales y 1½ arrobas
Arrago egurrak ditu . . . . .	.32 leras
Franziako karretoan zor diran	
bost orgatik harzeko du	20 pezetas

Jose Ramon de Minondo.<sup>729</sup>

<sup>728</sup> Joan den Eguberrian’.

<sup>729</sup> Honen ondoren olajaunak erdaraz egindako apunteak heldu dira. Zerbait nabarmentzekotz ere, *Pagochiqui* (euskarazko testuan *Fagochiqui*), *Casa Cosme* (euskaraz *Cosmeren yche-*), *Alzibar* (euskarazko puskan *Alziber*) eta *Pachico Andia* nabarmenduko genituzke.

1801.01.16

Nagusi jauna:

Kasaraxek pisatu ditu meak 13 <i>setiembre</i> ezkeroko . . .	125 <i>quintales</i>	] asenté
Burnia hartu du arr[o]a <sup>730</sup> 6 pezetako denboran <sup>731</sup> . . .	13 <i>libras</i>	
Merkatu ezkeroko libra bat gutxi . . . . .	4 <i>arroas</i>	

Olaberria, 16 *enero de 1801*.

*Su servidor* Joseph Ramon de Minondo.<sup>732</sup>

1798\_1801(lizta)

1798. Gastatuak.

12 *de noviembre*. Leneko paperean harzeko gelditu  
 ninzan . . . . . 12 *pezetas y 20 cuartos*  
 13 *de noviembre*. Endara maisuari . . . . . 03 *pezetas*  
 Pedro maisuari bere kontua osatzeko . . . . . 03 *pezetas y 26½ cuartos*  
 18 *de noviembre*. Maxkurio 2½ *arroba* haxiak . . 01 *pezeta y 08½ cuartos*  
 22 *de noviembre*. Baba ekarze-saria . . . . . 00 . . . . . 17  
 28 *de noviembre*. Lakadi bat iriñ haspotako . . . 01 *pezeta y 02*  
 Hernanitik tobera ekarze-saria . . . . . 01 *pezeta 00*  
 7 *de diciembre*. Maxkurio, haxiak 3 *arrobas* . . . 01 . . . . . 17  
 Endarari urretxiki bat . . . . . 05 . . . . . 10½  
 Honbretxori . . . . . 20 . . . . . 00  
 8 *de diciembre*. 6 *cestos* . . . . . 02 . . . . . 08½  
 12 *de diciembre*. Joseph Ignazio de Arretxeari 21 . . . . . 08½  
 Dotazioa ematean ta pago partitzean  
 2 *azumbres de vino* . . . . . 01 . . . . . 30  
 20 *de diciembre*. Joseph Ignazio de Arretxeari . . 05 . . . . . 10½  
 24 *de diciembre*. Por 835 *pezetas y 26 quintales*  
 157 *orillos. Faltan* . . . . . 01 . . . . . 22½

<sup>730</sup> Dokumentuan *Arra* irakurtzen da, garbi. Goizuetan *arra* ‘zehea’ da, esku bete luzeko neurria, baina hemen seguruenik *arroa* gaizki idatzia izanen dugu, aitzineko *burnia* hori ikusirik.

<sup>731</sup> ‘Burdina hartu du arrobak sei pezeta balio zuen denboran’.

<sup>732</sup> Binperrean olajaunaren apunteak daude.

1799

1 de enero. Honbretxori	.02	.17
Iskaluren semeari olatxoan irabaziak	.02	.16
Franzisko de Pikabea Berentxikikoari	.40	.00
Baba ekarze-saria	.00	.17
4 de enero. Maxkurio 4½ arrobas haxiak	.02	.08½
9 de enero. Joseph Ignazio de Arretxeari	.20	.00
11 de enero. Goizaringo aizkora bat berria		
ta bestea alzairatzea	.03	.25½
19 de enero. Eदारari una orilla <sup>733</sup>	.05	.10½
20 de enero. Fausto mea garbizalleai		
mea zareak harzeko	.01	.17
	160	.21
		160 pezetas y 21 cuartos
26 de enero. Clavos de	.001	.00
2 de febrero. 6 cestos	.002	.08½
3 de febrero. Baba ekarze-saria	.000	.17
26 de febrero. Maxkurio 6½ arrobas haxiak	.003	.08½
2 de marzo. Maxkurio 3 arrobas haxiak	.001	.17
Martin de Arizabalori <sup>734</sup> kupela konponzen		
ta erruda gurutzetan <sup>735</sup> paratzen 2 días	.004	.00
4 de marzo. Juakin Ueguni	.005	.10½
5 de marzo. Baba ekarze-saria	.000	.17
30 de marzo. Galzatzikiren semeak		
8 arrobas haxiak	.004	.00
6 de abril. Baba ekarze-saria	.000	.17
Enda[ra]ri <sup>736</sup>	.002	.00
11 de abril. Olakoan kontura fraileari	.007	.17
15 de abril. Arragoako jornaletan		
falta zen	.002	.28½
Gastatuak	.195	pezetas y 26 cuartos

<sup>733</sup> Ez dakigu zer den *orilla* hau. *Orillo* urretxikia da, baina *orilla*?

<sup>734</sup> *Aritzabalo* Oiarzungo baserria da. 1499an «*la tejeria de Arizabalo*» dago (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 85) eta 1857an (NOPGI, 55) *Arizabalo-aundia*, *Arizabalo-berri* eta *Arizabalo-zar* laborari etxeak ageri dira, baita *Arizabalo-erota* irin eihara ere.

<sup>735</sup> Errueda ardatzari lotzeko pezak. Ikus hiztegia.

<sup>736</sup> Originalean *Endari* dugu.

1798. Rezibituak.

16 de noviembre. Joseph Ignazio de Lekuna lleva fierro		
35 libras	.....	.08 pezetas y 3 reales
24 de noviembre. Franzisko Antonio de Arizabalo		
gurdi burnia 5 arrobas y 4½ libras	.....	.32 .....1½
26 de noviembre. Joseph Ignazio de Lekuna lleva		
fierro 29 libras	.....	.08 .....1
4 de diciembre. Ignazio de Olaskoaga, borraren		
gaia 28 libras	.....	.07 .....0
7 de diciembre. Pedro Migel de Maritorea fierro		
23 libras	.....	.05 .....3
28 de diciembre. Martin de Bengoetxea fierro		
9 arrobas y 6 libras	.....	.55 .....2
29 de diciembre. Joseph Ignazio de Etxeberria		
fierro 1 arroba y 23½ libras	.....	.11 .....2½

1799

15 de enero. Joseph Ignazio de Etxeberria		
fierro 1 arroba y 19½ libras	.....	.10 .....2½
Franzisko de Goia Bidasoro <sup>737</sup> 4 arrobas	.....	.25 .....0
1 de febrero. Pedro Migel de Maritorea		
fierro 26 libras	.....	.06 .....1
Martin de Bengoetxea 4 arrobas	.....	.24 .....0
3 de marzo. Esteban de Irazoki		
fierro 1 quintal	.....	.36 .....0
Auztegiko <sup>738</sup> hargiñak burni ziriak		
21½ libras	.....	.05 .....1½
4 de abril. 514 pezetas y 13 cuartos de la		
expensa martinete. 100 orillos. Me		
sobran	.....	.16 .....3½
Martin de Bengoetxea. Fierro 4 arrobas	.....	.24 .....0
Matanta. Fierro 27½ libras	.....	.06 .....2½
		<u>284 pezetas</u>

<sup>737</sup> Franzisko de Goia delako hori Oiartzungo Bidasoro baserrikoa zatekeen, hau da, Bidasoro etxe izengoitia da hemen, oker ez bagaude. Goya, berriz, aspaldiko abizena dugu Oiartzunen: 1514an Juan de Goya, Joan de Goya dago (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 130, 272).

<sup>738</sup> Auztegi edo Auztegiarra Oiartzungo baserria da. Juanes de Abstegui 1504an ageri da Oiartzun aldean (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 112; grafiaren kariaz, erka bedi lan bereko 1514ko Abstria 'Austria'-rekin, 268. or.).

1799

.....284 pezetas  
 En 21 de febrero pasado recibí 30 orillos  
 ola erre zeneko gastuetarako  
 106 beso lata .....15 pezetas  
 Itzaia, tella ta lata  
 ekarzea .....3½ pezetas  
 14 azumbres de vino ..65 pezetas y 30 cuartos  
 48 panes .....45 pezetas y 6 cuartos  
 Para traer vinos .....04 pezetas  
 Para trear panes .....01 pezeta  
 Mistela de .....05 pezetas y 10½ cuartos  
 Jornales de entrar  
 Carbones .....10 pezetas  
 Gastatu nituen .....149 pezetas y 29½ cuartos

Sobratu zen .....009 pezetas y 16½ cuartos  
 16 de abril. Joseph Ignazio de Lekuna  
 fierro 16 libras .....004 pezetas  
 17 de abril. Salvador de Señ fierro  
 18 libras .....004 pezetas y 17 cuartos  
 Rezibituak .....301 pezetas y 33½ cuartos  
 Gastatuak .....195 pezetas y 26 cuartos  
 Zor dut .....106 pezetas y 07½ cuartos  
 Itxearen sensoaren korrituak pagatu ditur diru hoiekin, ta asenta bitza

nere kontuan.

1799 abril 17 se hizo esta cuenta.

1799. Cuenta nueva.

Nik gastatuak desde 21 de abril de 99.  
 22 de abril. Aza landareak .....2 pezetas  
 Galzaxikiren semeak haxiak 2½ arrobas .....1 pezeta y 08½ cuartos  
 Mea garbitzalleai por cestos .....1 .....17  
 27 de abril. Maxkuriore baxias 3½ arrobas ...1 .....25½  
 10 de mayo. Maxkuriore 6¼ arrobas .....3 .....04  
 20 de mayo. Baba ekarze-saria .....0 .....17  
 1 de junio. Maxkuriore baxias 2½ arrobas ....1 .....08½  
 4 de junio. Tipula landareak .....2 .....00  
 9 de junio. Arrago-egur hartualdi bat,  
 juan den urtekoa eskas baizuen Andresek.  
 Nik eman nion .....20 .....25½  
 10 de junio. Maxkuriore baxias 2½ arrobas ...1 .....08½

Aza landareak	.02	.00
15 de junio. Maxkuriore <i>haxias 1 quintal</i>	.03	.00
16 de junio. Faustori <i>por cestos</i>	.02	.00
22 de junio. Maxkuriore <i>haxias 1 quintal</i>	.03	.00
9 de julio. Maxkurio <i>3 arrobas</i>	.01	.17
11 de julio. Maxkurio <i>haxias 5½ arrobas</i>	.02	.25½
Baba ekarze-saria	.00	.17
<i>Sigue a la vuelta</i>	.50	<i>pezetas y 4 cuartos</i>

*Son suma atras* .50 *pezetas y 4 cuartos*

San Fermin aurretik ta ondotik juan ziran 17 orgatan edo portetan, ta langronstatan<sup>739</sup> ere galdu genuen *once pezetas*. Hamazazpi pagatu ta sei hartu, Donostiara anaieagana<sup>740</sup> bealdu ta galdu omen ziran langrostak. Ta guzia eskastu zitzaidan .21 *pezetas y 25½ cuartos*

1 de agosto. Garatekoari ema[n] nion<sup>741</sup> .02 *pezetas*

*En dicho día dos cestos* .00 .32 *cuartos*

2 de agosto. *Por 12 orgas 52 orillos viejos.*

*Faltan* 12 .25½ *cuartos*

Hoietatik juan ziran bost *a 23½ pezetas* ]

Ta zazpi .a *24½ pezetas* ]

10 de agosto. Baba ekarze-saria .00 .17 *cuartos*

Gastatuak .88 *pezetas y 2 cuartos*

Bi hogei ezkutuko hoietatik bat amagiarrabak<sup>742</sup> semea Iruñera bealdu behar duela eskatzen zid[an],<sup>743</sup> eta bealdu diot, ta bestea hementxe darabillat b[a]natua.<sup>744</sup>

Matantak lau kuartoz garestiago em[a]ten<sup>745</sup> zigun olio, ta neurrian gutxiago, ta ora[n̄]<sup>746</sup> merkena den lekutik ekarzen dugu bi olata[ra].<sup>747</sup>

<sup>739</sup> Originallean *Langronstatan* idatzi zuen JRMk, eta gero ohartu eta bigarren *n*-a txatu zuen.

<sup>740</sup> Singularrean dagoela ematen du, baina ez da segurua (ikus izen morfologiari buruzko kapitulua).

<sup>741</sup> Originallean *emanion* dago.

<sup>742</sup> Hitz honen bukaerako *q* (*Amaguiarravaq* idatzia originalean) letraren makila ikusten da, baina ez burua.

<sup>743</sup> Litzarekin lotu kaiertxo modukoa da dokumentua, eta hariak hartutako aldean hitz batzuen bukaerak ez dira (ongi) ikusten. Ez dago, dena dela, ulertzeko arazo handirik, gehienetan. Parentesi karratueta doaz, hurrengo lerroetan ere, ikusten ez diren hitzen zatiak.

<sup>744</sup> Josturaren azpian gelditzen da *a*.

<sup>745</sup> Honetan *en / ten* irakurtzen da, *m*-aren azken hanka eta *a* falta direlako, baina ez dago zalantzarik *ematen* dela.

<sup>746</sup> Originalaren argazkian ez da *a* ere ageri, hots, *or[añ]* eman behar genuke, baina originala arretaz begirata, jostura pittin bat behartuz gero, aipatu bokala hor dagoela ikusten da.

<sup>747</sup> Bukaerako *ra* hau ez da ikusten.



Dirua eskuan izatea kostatzen da; hogei ezkut[u]ko<sup>748</sup> bat behar dugu beti iduki, ta paper hoietan<sup>749</sup> nik zor ditudanak asenta bitza, ta kontuak ere egiñ behar genituke noizbait ere.<sup>750</sup>

*Desde 21 de abril* Rezibituak

21 de abril. Markos Potottoren jornalak

Por 15 pezetas 3 orillos sobran .....00 pezeta 3¾ reales

22 de abril. Martin de Bengoetxea fierro

3 arrobas .....18 ...00

19 de mayo. Franzisko de Etxeberria fierro

21 libras .....05 ...00

3 de junio. Martin de Bengoetxea 1 quintal .....36 ...00

9 de junio. Pedro Migel de Maritorea 1½ arrobas 09 ...00

7 de junio. Maritorea 1 arroba y 4 libras .....07 ...00

10 de junio. Maritorea 1 arroba y 4 libras .....07 ...00

13 de junio. Maritorea 24 libras .....05 ...03 reales

02 de julio. Maritorea 1 arroba .....06 ...00

*En dicho día* Martin de Bengoetxea

1 quintal y 13 libras .....39 ...01 real

9 de julio. Joseph Ignazio de Lekuna 21 libras ...05 ...00

17 de julio. Fermin Juakin de Uharte<sup>751</sup> 27 libras 06 ...02 reales

18 de julio. Angel de Huder 17 libras .....04 ...01

24 de julio. Simon de Martirena

5½ arrobas y 1 libra .....33 ...01

2 de agosto. Martin de Bengoetxea

3½ arrobas y 1 libra .....21 ...01

*En dicho día* frances itzagille<sup>752</sup> batek

1 quintal y 18½ libras .....40 ...02½

Arrago jornaletan sobra zen .....00 ...02 y 1½ cuarto

5 de agosto. Joseph Ignazio de Lekuna 12 libras ...03 ...00

Rezibituak .....248 pezetas y 12 cuartos

Gastatuak .....088 pezetas y 2 cuartos

Gelditzen zait .....160 pezetas y 10 cuartos

*Hasta 10 de agosto de 1799*

<sup>748</sup> Hitz honetan *t*-a ez da guztiz ongi ikusten, eta *u* josturaren azpian dagoke.

<sup>749</sup> Argazkian ez da josturaren azpian dagoen *n* ikusten, baina originalari arretaz so egin-da, dokumentua doi bat behartuz gero, bai.

<sup>750</sup> Originallean *noiz baitere* dugu.

<sup>751</sup> Originallean *huarte* idatzita dago.

<sup>752</sup> ‘Iltzegilea, iltzeak egiten dituena’.

1799

*Desde 10 de agosto. Gastatuak.*

12 de agosto. Xemeak<sup>753</sup> hasiak pisatu ditu . . . . . 4½ arrobas 2 pezetas  
y 8½ cuartos

17 de agosto. Maxkuriok pisatu ditu 2¾ arrobas . . . 1 . . . . y 12½ cuartos

18 de agosto. Aza landareak Goizariña bealdu<sup>754</sup> . . . 1 . . . . 29½ cuartos

24 de agosto. Maxkuri[o]<sup>755</sup> 4 arrobas . . . . . 2 . . . . 00

25 de agosto. Fausto mea garbizalleai mea zarek<sup>756</sup> . . 2 . . . . 00

28 de agosto. Aza landareak Goizariña . . . . . 2 . . . . 08½

1 de setiembre. Zazpi mea zare olarako . . . . . 2 . . . . 21

4 de setiembre. Sagarra Goizariña bealzeko pagatua . . 3 . . . . 10½

14 de setiembre. Trakulo urzalleari olan irabaziak . . 10 . . . . 22

27 de setiembre. Tobera Hernanira eramateagatik . . 1 . . . . 00

28 de setiembre. Maxkurio haxiak 4 arrobas . . . . . 2 . . . . 00

20 de octubre. Aza landareak Goizariña . . . . . 2 . . . . 00

22 de octubre. Baba ekarze-saria . . . . . 0 . . . . 17

25 de octubre. Maxkurio haxiak 3 arrobas . . . . . 1 . . . . 17

7 de noviembre. Hamar orgarenzat hartu

nituen 46 orillos. Falta ziran . . . . . 0 . . . . 21

14 de noviembre. Hernanitik tobera ekarzea . . . . . 1 . . . . 00

16 de noviembre. Maxkurio haxiak 3 arrobas . . . . . 1 . . . . 17

17 de noviembre. Faustori mea zarenzat . . . . . 2 . . . . 00

25 de noviembre. Pello maisuari emanak

kontuan pasatuak maisuari . . . . . 9 . . . . 31½

27 de noviembre. Maxkuriok haxiak 3½ arrobas . . 1 . . . . 29½

Baba ekarze-saria . . . . . 0 . . . . 17

Haspogiteko ganza 12 libras a 30 cuartos . . . . . 10 . . . . 20

Seboa 1 libra eta lakadi bat iriñ . . . . . 1 . . . . 13½

<sup>753</sup> Hau goitizena izanen da. Bi s-rekin idatzirik ageri da, eta horrek normalean egun x idazten duguna ohi da; ikus grafiari eta fonetika-fonologiari eskainitako atala. A. M. Mitxelenak (2020b: 2002) Leitzako Urdinolako dokumentazioan 1718ko *la lanateguia de Cheme* jasotzen du bi aldiz, eta badaiteke gutun honetan daukagun *Xeme* izengoiti hori bera izatea, alegia, 1799ko gutuneko *Xeme* (*Sseme*) 1718ko *Cheme* haren ondorengoren bat izatea.

<sup>754</sup> Originalean *bealduq*. Bukaerako *q* hori *u*-ren gainean dago idatzita.

<sup>755</sup> Originalean *Masscuri* dago, *-o* gabe.

<sup>756</sup> Originalean *meazareq*. Hau, arestiko *bealduq* bezala, leku ezari zorko zaio. Nolanahi ere, Goizuetako egungo jokamoldearekin (*burúk* 'buruak', *itxék* 'etxeak', *semék* 'semeak' esaten da) bat dator; ez hainbeste Oiartzungoarekin (Fraile eta Fraile, 1996: 74). Ikus izen morfologiari eskainitako atalean dioguna, absolutiboaz mintzatzean.

Madarimotzeko gaztañetako kandelan pro-		
bestuari .....	1	00
Hamaiketako .....	0	23
14 de diciembre. Maxkurio haxiak 3 arrobas .....	1	17
22 de diciembre. Olarako tupia bat erosi dut .....	8	08½
4 de enero. Maxkurio haxiak 3½ arrobas .....	1	25½
	79 pezetas y 4½ cuartos	
.....	79 pezetas y 4½ [cuartos]	
6 de enero. Zorzi mea zare olarako .....	03	00
8 de enero. Maxkurio 3½ arrobas haxiak .....	01	21
16 de enero. Maxkurio 2 arrobas haxiak .....	01	00
25 de enero. Baba ekarze-saria .....	00	17
5 de febrero. Bi mea zare .....	00	25
15 de febrero. Martin kandelagillari		
Disputako <sup>757</sup> mea ekarze-saria .....	03	00
15 de febrero. Axeriarri emanak .....	02	00
Trakuloren urzalleari Makatzen partez irabaziak ..	06	16
Markos Pototori ardatza ustaitzeko		
jornalak lau egun .....	07	17
9 de marzo. Mealleari kargatu zitzaion		
Urriztilla juateko nik emana .....	05	10½
Agerreko berotzalleari apendiz		
Arranbiden zela irabaziak, bi aste .....	1	00
Fielai <sup>758</sup> pisuetara etorrita emana .....	01	00
Anega bat baba olatxorako .....	12	00
10 de marzo. Maxkurio 5½ arrobas haxias .....	02	25½
16 de marzo. Maxkurio 9 arrobas haxias .....	04	17
20 de marzo. Apendizari emanak		
Gaztigatu nion berarekin kartan .....	08	00
27 de marzo. Maxkurio 17 arrobas haxias .....	08	17
28 de marzo. Buruzuri zarrari		
itxola erosi genion ta pagatu diot .....	04	00
31 de marzo. Arrago egurra emateko		
jornala juraduari .....	02	00

<sup>757</sup> Hemen *Disputa* hau toponimotzat hartu dugu (erka bedi *Debata*, *Demandakoa*, *La Cuestión*, *Valdecontienda* eta besterekin; *Disputa* bera ere ezaguna da beste herri batzuetan), baina izen arrunta ere izan liteke. Era batera izan edo bestera izan, etorki izen arruntean du, *disputa* ‘borroka’, ‘eztabaida sutua’ hitzean alegia.

<sup>758</sup> *Fiel*a pisuak eta neurriak kontrolatzen zituen (udal) langilea zen.

15 de abril. Maxkurio haxiak  $5\frac{1}{2}$  arrobas .....02 ....25½  
 20 de abril. Aza ta tipula landareak<sup>759</sup> .....02 ....00  
Se descargan a la vuelta .....167 pezetas y 26½

1799

Desde 10 de agosto. Rezibitu ditudan diruak.  
 12 de agosto. Luis de Mitxelena gurdi burnia  
     3 arrobas y 19 libras .....22 pezetas y 2 reales  
 20 de agosto. Irazoki lleva fierro 2 arrobas .....12 ....0  
 23 de agosto. Balentin de Albiztur  
     4 arrobas y 6 libras .....25 ....2  
 Por llevar 6 orgas 148 pezetas sobran .....01 ....0  
 27 de agosto. Por 3 orgas 78 pezetas sobran .....04 ....2  
 3 de setiembre. Itzagille batek 1 quintal y 1 libra ..36 ....1  
 8 de setiembre. Martin de Bengoetxea lleva fierro  
     8 arrobas y 4 libras .....49 ....0  
 26 de setiembre. Antonio de Agiñaga lleva  
     5 arrobas y 16 libras .....34 ....0  
 9 de octubre. Martin de Bengoetxea 3 arrobas .....18 ....0  
 14 de octubre. Paskual de Lekuna lleva 45 libras 10 ....3  
 Bortanekoak<sup>760</sup> 2 arrobas y 17 libras .....16 ....0  
 1 de noviembre. Martin de Bengoetxea 1 quintal ..36 ....0  
 14 de noviembre. Joseph de Etxeberria 1 arroba ..06 ....0  
 19 de noviembre. Joseph de Zabadia 2 arrobas ....12 ....0  
 27 de noviembre. Ardatzaren paguan ta burnien  
     karretoan sobra nuen .....00 ....3<sup>761</sup>  
 9 de diciembre. Irazoki lleva fierro  $4\frac{1}{2}$  arrobas  
     y 2 libras .....27 ....2  
 12 de diciembre. Martin de Bengoetxea 3 arrobas ..18 ....0  
 14 de diciembre. Maritorea 1 arroba y 23 libras ..11 ....2  
 19 de diciembre. Domingo de Aramendi 3 arrobas  
     y 8 libras .....20 ....0

<sup>759</sup> Originalean *Landaro*<sup>aq</sup> dugu. Goititurik dagoen silaba hori aurreko bi silabetako *a* eta *r* gainean dago izkiriaturik.

<sup>760</sup> *Bortaene, Bortaenetxiki* Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 113).

<sup>935</sup> Aurkezpen hitza ez denean *horrara* ibiltzen du JRMk, aldi honetaz beste guzietan. Ikus hiztegia.

<sup>936</sup> Ematen du Manuel Fagotxikiko Goitzarina, olajaunarengana, igorriko duela esan nahi duela, hura eta nagusia elkarrekin konpon daitezen.

<sup>937</sup> Honela ere puntua daiteke: «...*ta hurrengo honara heldu denean egiñ behar dugu tratua, beti salsa hoietan ebilli gabe, batekin tratua. Ta berori honara heldu ezpada, horra bealduko dut konponzera. Ta lengo hoiek pagatu behar dira*».

<sup>938</sup> Originalean *yñor* argia dago, ergatiborik gabeko aldaera.

<sup>939</sup> 'Txostena eginda gutxi delako susmoa izanen dute'. Originaleko *guchi dela* bi lerroren artean idatzirik dago, egileak lehenik ahantzi eta gero sartu duelako.

<sup>940</sup> Aldera bedi Otxoa de Arinek (1713: 24) darabilen «*iñorc erè bestec (criatu edo sortu ote daique gauzaric?*)» formarekin.

<sup>941</sup> 'Hurrengo igandean'.

dute. Ta Jose Migel ta Pottotoren<sup>942</sup> semeak ta Tomasek hartu dituzte erretazo hoiek, ta esan diotet nik ofrezimentua egiñ dudala puska honetaz, esamiñadoreai<sup>943</sup> ere bai, Juan Migelek adi dezan. Bera etzen hemen, kandelarik etzen espero ta.<sup>944</sup> Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote<sup>945</sup> kandelan. Hurrengo jaiean ageriko al da<sup>946</sup> zertan gelditzen den!

Beste puxka txiki bat ere bada salzekoa; txarra da, baño lau yorradako lekuan da, dotaziotako hartuta. Hondarrabiara eman<sup>947</sup> genuena da, 50 karga, arrago egurretan hartu ta gañerakoa;<sup>948</sup> esamiña badu, 360 karga nere —.<sup>949</sup>

Arotzak bigar dira olara etorzekoak, ta Markos ez da itxera agertu, ta nahi badio gaztigatu. Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxoa perparatu<sup>950</sup> orduko: zepoa atera ta sartu, ta ardia<sup>951</sup> sartu,<sup>952</sup> ta tormentategia konpondu, ta bada hemen lana franko ta preziso egin behar dutenak.<sup>953</sup> Aste hau utzi egin beharko da, bai, urak kendu ta lan guziak egiteko. Ta lau orgak batean bealdu beharko ditugu. Bigar lorrera beharrak dira Kosme ta Agerrekoa,<sup>954</sup> ta atzo ere hala ziran, ta arotzak ariko badira<sup>955</sup> lorra lenago egin behar dugu.

Erariñan goiara<sup>956</sup> ta kapirioak,<sup>957</sup> eta Oielekun ardia; bederetzi uzta- rri<sup>958</sup> jua Erariña, ta hononzean ardia Oielekun hartu ta, guziak kargatuak, beiti etorzeko modua da. Ta Artikuzako itzaiak dira gehienak, ta pagua<sup>959</sup>

<sup>942</sup> *Pottotto*, *Pototto* lagun baten goitizena da (*pottotto* ‘alua’ da Goizuetan, ‘emakume- en eta ugaztun emeen sexu organoa’). Hemen lehen *t*-aren ezkerretan, *o* gainean, puntutxo bat ikusten da, segur aski lehen herskaria sabaikaria zela adierazteko diakritikoa. Beste gutun batean bigarrenaren gainean, ezkerretan, tileta ageri da. Erka bedi *Mattantta* idazte- ko JRMk darabiltzan erekin. Ikus onomastika gaietara eta grafia kontuei eskaini atalak.

<sup>943</sup> Plurala dateke hau, ‘etsaminadorei’ alegia.

<sup>944</sup> Gutunean *etzen esperota* daukagu.

<sup>945</sup> ‘Pararazi die’.

<sup>946</sup> ‘Agertuko ahal da’.

<sup>947</sup> *Eraman* espero genuen, baina *eman* dago. Nolanahi ere, ez da kasu bakarra: 1801.11.20ko gutunean «Zuloakoak berak honara eman nabiagatik ere» dugu. Ikus hizte- gian dioguna, *eman* sarreran.

<sup>948</sup> Hau honela ere puntua daiteke: «Hondarrabiara eman genuena da, 50 karga arrago egurretan hartu ta gañerakoa; esamiña [...]».

<sup>949</sup> Hemen bi hitz tatxaturik daude: lehena *nere* da eta bigarrena ez da ulertzen.

<sup>950</sup> Beste gutun batzuetan ere agertzen da *perparatu* ‘preparatu’, ‘prestatu’. Ikus hizte- gia.

<sup>951</sup> ‘Ahardia’ alegia; ikus *ardi* sarrera, hiztegian.

<sup>952</sup> *Sartu* hau bi lerroen artean idatzirik dago.

<sup>953</sup> Hemen *dituztenak* espero genuen, baina *dutenak* dago.

<sup>954</sup> Oiartzungo baserria da *Agerre*.

<sup>955</sup> ‘Arotzak ari daitezen’.

<sup>956</sup> Honetaz ikus gorago esan duguna.

<sup>957</sup> Guk *gabrios* aurkitu dugu erdaraz. Ikus bedi 1800.10.25eko gutuna.

<sup>958</sup> ‘Bederatzi idi pare’. Ez dirudi bestelako uzta- rriez ari den. Ikus hiztegia.

<sup>959</sup> ‘Dirua’, ‘ordainketa’.

beharko dute berehala. Eraringo bederetzi uztarriak ezkutu lodi bana...45 *pezetas*.

Ariztxulegitik ere sarzen da bederetzi uztarriren kontua kabiguñ birekin: 9 *pesos*, 33 *pezetas* y 3 *reales*.

Ariztxulegi aldeko hoiek gure itzaiak dira, baño Eraringo hoiek beharko dute pagua, ta heldu diranean ardoa ta ogia ere bai.

Isasolan, kabiguñ batekin etorrita ere, ogia ta ardoa badituzte. Olaberria, 15 de noviembre de 1801.

*Su servidor Jose Ramón.*

Garatekoak mea ateratzen ari dira, baño Karraio<sup>960</sup> lengo egunetan ez da ebilli; artoak bildu ta itxe lanetan aritu da berdin, aisa ekarriko duela haiek atere ala. Ta arrago aldean gutxi dago mea zuria, ta Zuloakoaren-ta meatze hartatik mandazaiak ez dute ekarri nahi 17 kuartoan, ta itzaiak<sup>961</sup> ekarriko lukete, dirua balitz, lengoak pagatuta, aurrerako zerbait.

Irundarrai, etsi dutenean, burni eske hasi ta pagatu tioztet beren azken errestak.<sup>962</sup> Burniaz kito<sup>963</sup> gaude orañ haiekin.

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1801.11.20

Nagusi jauna:

Mea belza Isasolara bazakarten Lasaiño buru honetatik.<sup>964</sup> Lexok<sup>965</sup> eta Kaperok<sup>966</sup> egiñ dute ta gelditu dira orañ han, ta hurrengoan guretzat asmoan dagoen Zuloakoak<sup>967</sup> ta bere lagunak egiña eramanen dute, ezpadugu dirua

---

<sup>960</sup> Goitizena dugu hau.

<sup>961</sup> Xuloa dago eta *ytzayaq* hitzaren azken *q* ez da osorik ageri.

<sup>962</sup> Ikus gorago eta hiztegia.

<sup>963</sup> Gutunen sistema grafikoa aztertzean diogun bezala, sabaiko *tt* dukegu <t> grafiaren azpian, baina, jakina, erabateko ziurtasunik ez dugu kasu honetan.

<sup>964</sup> *Lasain* edo *Lasaingaña* Irungo tontor baten izena da (EJ). 1791.12ko eskutitzean *Lasain* ageri da.

<sup>965</sup> Goitzen garbia; originalean *Lessoq* idatzita dago. Edo Lezokoa zen, edo *Lezo* deitura zuen. Beste eskutitz batean (1800.04.07(A)) *Lezo* gisa ageri da.

<sup>966</sup> Etxe izengoitia dugu hau. *Kapero* Oartzungo baserri baten izena da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 172).

<sup>967</sup> 'Zuloagakoak'.

presentatzen lenago. Mea zuria ere egiten dute eta Isasolara daramate, ta sarri<sup>968</sup> belzak eta guziak eramanen dituzte. Zuloakoak berak honara eman nahiagatik ere, beste bi lagun badira partidukoak,<sup>969</sup> eta haiek Isasolara lenago limurtuko<sup>970</sup> dira, dirua frontoxeago<sup>971</sup> izateagatik.

Ekarriak badira...172 *quintales*, ta hoietatik 27 kintal ez besteak itzaiak ekarriak ta batere pagatu gabeak, eta hoiek eta aurrerako zerbait eman behar-ko zaiote mearik izatekotan, ta preziso behar dugu, olarik aritzekotan,<sup>972</sup> mea belza.

Mea zuria ateratzen ari dira Garatekoak, baño Karraio ez da hasi; orañik hanka erretako hartatik<sup>973</sup> urgon<sup>974</sup> dago Jose Ignazio.

Franzisko Berentzikikoak esan dit Koltxonan<sup>975</sup> hasi direla Juakintxorenzat mea ateratzen, ta berorri ere, nahi badu, aterako diotela, ekus-teko, 200 kintal edo. Beste arotzak lanak bigar akabatuko dituzte, olatxoko tellatua ez besteak. Olaberria, *20 de noviembre de 1801*.

*Su servidor Jose Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

Urzalleari astelenen, goizean,<sup>976</sup> etorzeko gaztiga bizaio.<sup>977</sup>

## 1801.11.22

*Oiarzun, 22 de noviembre de 1801.*

<sup>968</sup> ‘Aurki’.

<sup>969</sup> ‘Lan taldekoak’.

<sup>970</sup> ‘Lerratuko’, ‘makurtuko’.

<sup>971</sup> ‘Lehentxeago’. Hortaz, Isatsolan lehenago, azkarrago ordaintzen zuten Olaberrian baino, honen arabera.

<sup>972</sup> ‘Ola ariko bada’ edo ‘olak ariko badira’.

<sup>973</sup> Alegia, ‘erretako hanka hartatik’. Ohart bekio erlatiboaren hurrenkerari.

<sup>974</sup> ‘Urgun’, ‘maingu’, ‘herren’.

<sup>975</sup> Oiarzungo egungo *Kosonegia* seguruenik; 1840 irian *Cosonaren-eguiya* lekukotzen da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 2009), eta, irudiz, hor dugun *Kosona* eta gure testuetako *Koltxona* bat eta bera dirateke.

<sup>976</sup> Badirudi egun bezala *astelenen* ‘astelehenean’ esaten zela Goizuetan orain bi mende eta ia laurden. Beste aukera bat egilea idaztean nahasi zela eta bukaerako *-en* nahi gabe erre-pikatu zuela kontu egitea da. Hola izatera, *astelen goizean* ulertu behar genuke.

<sup>977</sup> ‘Gaztiga biezaio’, ‘jakinaraz biezaio’.

Nagusi jauna:

Erretazo 760 kargako hau hamaseira jaitsi dute, ta ez diot kasorik egiñ, ta Konsejuko<sup>978</sup> goiti eraman<sup>979</sup> ta Belderrainek esan dit, beste lagunetara baño len, Juan Migelek nola esan zion 16 kuartilluan hark<sup>980</sup> hartuko duela, iñork gorago harzen ezpadu, eta hamabostean ordena badut hamaseiean har dezadala, bestela<sup>981</sup> hari gaztigatzera dihoala<sup>982</sup> memoriale presenta dezala.<sup>983</sup> Etzen herrian Juan Migel, ta azkenean esan dit deskontentua berorrek erakusten badit, kuartillua hark berak pagatuko didala, ta guzia orobat, berorrenzat ona dela badakiela, ta hargatik esaten didala. Juan Migelek Errenteriakoan franko badela, baño esamiña ona daukan medioz pretenditzen duela.<sup>984</sup>

Lengo ebaki zenean bazuen 600 karga guretzat,<sup>985</sup> 60 Markosen anaieak, ta 40 karga Jose Migelek, guzia 700 karga esamiña, ta orañ urte bat gehiago eta 600 inutill baditu esamiñan. Hau omen dago ongiena guzietan, eta laguneta<sup>986</sup> Belderrañ yoan denean,<sup>987</sup> juan naiz bada ta esan diotet hartuko dudala, ta esan didate arrago egurraren kontrako hau 18 kuartilluan dagoela, ta biak har ditza-dala, ta esan diotet nik harzekotz<sup>988</sup> hau ere hamaseiean behar dudala, ta hartu ditut biak. Puxka honek esamiña 360 karga arrago egur ta guzia zuen,<sup>989</sup> ta arrago egurrak onena<sup>990</sup> harzen du, ta hargatik paratu dute esamiñan 300 karga, ta honetan hartu dut porzio bat, 300, eta bestea 760; guzia da 1060 karga, 6 reales.

<sup>978</sup> 'Herriko etxeko'.

<sup>979</sup> Erretazoaren prezioa, itxuraz. Geroxeago «iñork gorago hartzen ezpadu» dago.

<sup>980</sup> Gaur egun *berak*, normalean, Hegoaldean segurik. Ikus izen morfologiaren gaineko atala.

<sup>981</sup> Gutunean koma *bestela*-ren ondotik ageri da, baina guri testuan ezarri dugun puntuazioa iruditzen zaigu zentzuzkoena.

<sup>982</sup> Originalean *dioala* dago.

<sup>983</sup> Pasarte hau honela ere puntua daiteke: «...eta hamabostean ordena badut hamaseiean har dezadala bestela. Hari gaztigatzera dihoala, memoriale presenta dezala».

<sup>984</sup> Honela ulertu behar dela dirudi: «Errenteriako lantegian franko badela, baño esamiña ona daukalako pretenditzen duela Juan Migelek». Alabaina, beste era honetara ere puntua daiteke: «...ta hargatik esaten didala Juan Migelek Errenteriakoan franko badela, baño esamiña ona daukan medioz pretenditzen duela». *Esamiña*-rako ikus hiztegia.

<sup>985</sup> Gutunean *guretzaz* dago.

<sup>986</sup> Lerro bukaeran da, baina irudi du, aitzineko eta ondoko lerroak ikusirik, ez zaiola deus falta, hots, egileak *laguneta* izkiriatu zuela. Gorago, alabaina, gutun honetan berean, *lagunetara* dugu.

<sup>987</sup> Originalean yoan denean bi lerroen artean idatzirik dago, goraturik.

<sup>988</sup> 'Hartzekotan'.

<sup>989</sup> Etsamina eginda 360 karga arrago egur zituela ikusi zela, alegia.

<sup>990</sup> 'Honena' ulertu behar ote da?



Guziak inportatzen du . . . . . 6.360 reales  
 Probestuak<sup>991</sup> behar ditu . . . . . 0008 reales  
 Hamaiketakoa ez dakit zer egiñen duten.

A don Juan Bautista de Minondo.  
 Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1801.11.28

Nagusi jauna:

Otsoaneko<sup>992</sup> Sebastian berorrek agindu diola burniai tiratzeko,<sup>993</sup> ta beñere ondotik eziñ kendu dut. Ta gaur ere etorri da mandataria, ta esan diot azken agoa aterata tira dezala nahi badu.<sup>994</sup>

Ikatza neurriaz<sup>995</sup> ta tretxua egiñ artea erre dira hamalau galbai<sup>996</sup> ikatz, ta karga zenbat galbairekin egiten den neurriko<sup>997</sup> dugu astelenean, eta zenbat pagarazi gaztigatuko du karga ikatza.<sup>998</sup> Eta tretxuarekin txabala idi ferratzeko-koa egiñ nahi dute.<sup>999</sup> Eta olatxoan tiratzea zenbat pagarazi gaztigatuko du; nahi badu tiratzea tretxua da *5 arrobas y 17 libras*,<sup>1000</sup> eta tiratzekotz<sup>1001</sup> zen-

<sup>991</sup> ‘Almiranteak’, ‘herrizainak’. Beste batzuetan pezeta bat kobratzen du.

<sup>992</sup> *Otsuene* Oiartzungo baserria zen (1857an *Osuene*; NOPGI, 58); egun *Otsueneberri* dugu (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 259). Baina *Otsuanea* Hernaniko baserria ere bada; ikus gorago esan duguna.

<sup>993</sup> Originalean *burniay tiratzeco* goititurik dago, bi lerroen artean. Lehenbiziko hitza-ren azkeneko -y-ak eta azpiko lerroko *beñere*-ren b-ak elkar ukitzen dute, eta ez dago txoil garbi haren hondarreko letra y den edo beste zerbait. Ikus *tiratu* sarrera, hiztegian.

<sup>994</sup> Badirudi *agoa apaindu* gauza bat zela, agoa maneatzea alegia, eta *agoa tiratu* beste bat, segur aski agoa apainduta zegoenean ateratzea, peza bat edo beste egiteko. Nolanahi ere, hori egiten zuenari *tirador* esaten zitzaion erdaraz, eta *igele* euskaraz.

<sup>995</sup> ‘Ikatza neurtuaz’, iduriz.

<sup>996</sup> ‘Galbahea’. Nonbait galbahea ibiltzen zuten ikatza neurtzeko ere, mea eralkitzeko ez ezik. Interesgarria da, honen kariaz, A. M. Mitxelenak (2020b: 108) dakarren Elamako dokumentazioko pasarte hau: «*un grivillo para carbón, otro que llaman meagalbaia, y otro cirtagalbaia, los tres de madera*». Goizuetan egun ere *galbai* esaten da.

<sup>997</sup> ‘Neurtuko’. Forma zaharra dugu, beraz, hemen.

<sup>998</sup> «*Karga ikatza zenbat pagarazi behar dugun esanen du berorrek*», «*karga ikatzeko zenbat kobratuko dugun jakinaraziko du berorrek*».

<sup>999</sup> Hortaz, agoa tiratu eta tretxua egiten zen. Gero, tretxuari forma bat edo beste eman, eta hainbat peza ateratzen ahal zireen, horien artean idi ferrak egiteko ibiltzen zen txabala.

<sup>1000</sup> Pasarte hau puntuatzeko beste era batzuk ere badira.

<sup>1001</sup> ‘Tiratzekotan’ seguruenik, baina ‘tiratzeko’ ere izan liteke.

bat pagatu behar duten gaztiga beza. Iturriozko<sup>1002</sup> ferrazalleak pagatu behar ditu ikatzak eta tiratzea zer den, eta kostarioaren gañera burniaren balioa Sebastiani.<sup>1003</sup>

760 karga a 6 reales, importan . . . . .4.560 reales

Probestuarenak<sup>1004</sup> . . . . .0008

Hamaiketakoa bigar yakiñen dut zenbat den,  
eta gelditzen dut . . . . .0020

Basoarenzat . . . . .4.588 reales

Luis Zuloako<sup>1005</sup> eta bere lagunenzat . . . . .0640 reales

Lorreko itzaiak pagatzeko . . . . .0320 reales

Guztitara gelditu dut . . . . .5.548 reales

Gaztigatu bezala-ta, arotz hoietan beharrak dira gehienak, ta yornalaz galdatzen dute ta garbitu behar lirake orañdañokoak.<sup>1006</sup> Olaberria, 28 de noviembre de1801.

*Su servidor Jose Ramón.*

17¼ onza urre ta 28 reales gelditu ditut, ta gañerakoak daramazki.<sup>1007</sup>

#### 1801.12.04

Nagusi jauna:

Anton Xardea<sup>1008</sup> hemen izandu da, baso Gaztelu aldeko hau<sup>1009</sup> iñori eman diogun,<sup>1010</sup> basoa laster akabatuko duela, ta hasi nahi lukeala nonbait, ta

<sup>1002</sup> Oiartzungo auzoa eta etxea (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 167).

<sup>1003</sup> Era batera baino gehiagotara puntua eta uler daiteke hau. Guk ikatzak Iturriozko ferratzaileak ordaindu behar dituela ulertzen dugu, eta agoa tiratzeak balio duena, hots, *kostarioa* ‘kostua’ (erka bedi *eskario* ‘eskaria’-rekin) eta burdinak balio duena Sebastiani kobratu behar zaizkiola.

<sup>1004</sup> Zortea etsaminatzera joaten baitzen herrizaina. Hamaiketakoa ere egiten zen, ondo-ko lerroan ikusten den bezala, eta lantegia hartzen zuenak ordaintzen zuen.

<sup>1005</sup> ‘Luis Zuloagakoarentzat’.

<sup>1006</sup> ‘Orain arteko kontuak garbitu behar lirateke’. *Kontuak garbitu* da esamoldea, ‘zorrak kitatu’ EHren arabera.

<sup>1007</sup> ‘Berorrek daramatza’ dirudienez.

<sup>1008</sup> *Xardea* –*Ssardea* idatzia gutunean– izengoiti ezaguna da. Anton zeritzanak sardea ongi edo maiz erabiltzen zuelako sor zitekeen, edo, alderantziz, gaizki egiten zuelako. Beste arrazoi bat eskuetakoa batean hiru eri besterik ez izatea izan daiteke: *behatza* (lodia), *txingarra* (txikia edo *kikila*) eta *erakuslea*, hots, erdiko eria eta eraztun eria eskas izatearen ondorio izan daiteke, orobat, izengoitia, eskuak sardearen, bi hortzekoaren itxura duelako egoera horretan, nolabait. Ikus gorago esan duguna.

<sup>1009</sup> ‘Gaztelu aldeko baso hau’.

<sup>1010</sup> «Gaztelu aldeko baso hau inori eman diogun galdezka» ulertu beharko da.

hau hemen hasitzea gonbeni litzake,<sup>1011</sup> bestela saltoka dabilena paratzen badugu,<sup>1012</sup> munduak erdia eramanen digu, ta ikatzgilleak<sup>1013</sup> berak beste erdia. Hiru lantegi sartu beharko<sup>1014</sup> ditugu baso honetan: Pello Esnau, Anton Xardea, Uegun edo beste bat.<sup>1015</sup> Artikuzako puxka honetarako behartu dute<sup>1016</sup> Xardea, guk lanik ezpadugu, ta berorri gaztigatzeko esan dit.

Zorioneko<sup>1017</sup> burni honi zer egiñ gaztiga beza; bestela iñor hemendik aterako ez dugu guk Otsoaneakoaren hau.<sup>1018</sup>

Ola handian erre ziran ikatzak tretxua egiñ artea *2½ cargas*, ta *6 arrobas y 8 libras* gutxiago da tretxua, ta tiratu behar dugun edo zer pagarazi behar diogun<sup>1019</sup> gaztiga beza. Ta Martiñek esan dit, Arranbidetik ekarri omen du burnia, *6½ arrobas*, ola handian tiratua, ta zenbat balio duen edo olatxokoa bezala pagatu bear duen galdatu dit, niri pagatuko didala. Lengo kintala pagatu zuen erdia dirua, ta beste erdia Agerrekoaren kontura, ta Agerreko babak pagatu ditut.

Arranbideko txabaletatik, gu pisatzen izandu ezkerro, allegatu dira zertaraño baitere<sup>1020</sup> Erreterian, eta guk ere hangoak pisatu genituen 200 barra; gurdi<sup>1021</sup> bat besterik etzen hemengorik, ta biharamunean<sup>1022</sup> gero gañerakoak hurnitu<sup>1023</sup> ziran hemendik.

Olaberria, 4 de diciembre de 1801.

*Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

### Goizarin

<sup>1011</sup> ‘Komeni litzateke’.

<sup>1012</sup> Hots, lan batetik bestera dabilena hartzen badugu.

<sup>1013</sup> Bi zatitan idatzia da, *ycatz guilleaq*.

<sup>1014</sup> Eskutitzean azken silaba, *co*, bi lerroen artean dago idatzirik, aurreko *r*-aren gainean.

<sup>1015</sup> Pasarte honek *lantegi*-ren adiera ‘langilea’ dela iradokitzen du, baina uler daiteke, berebat, Pello Esnauk lantegi bat izanzen duela, Anton Xardeak bigarrena eta Uegunek edo beste norbaitek hirugarrena. Guk ‘epaitza’ gisakoa dela uste dugu. Ikus OEH eta hiztegia.

<sup>1016</sup> ‘Lanerako deitu dute’.

<sup>1017</sup> Originalean *Zori oneco* izkiriaturik dago, bi eletan.

<sup>1018</sup> Nahasixea da pasarteñoa, segur aski idazlea gauza bat esaten hasi zelako eta gero beste batekin esaldia bukatu. Hain segur «bestela inork hemendik aterako ez du Otsoaneakoaren hau» eta «bestela hemendik aterako ez dugu guk Otsoaneakoaren hau»-ren arteko gurutzaketa dateke.

<sup>1019</sup> Ez da zehazten nori ordainarazi behar zitzaion. Bezeroari betiere.

<sup>1020</sup> ‘Halako kopuru batera’, ‘zertaraino ere den’. Hemen Jose Ramonek ez du pisua zehaztu nahi, ez dakielako edo egoki iruditzen ez zaiolako. Gaztelanian «*han llegado a lo que sea / al peso que sea*» esanen gencek hau.

<sup>1021</sup> *Gurdi* eta *orga*, biak, ibiltzen ditu Jose Ramonek.

<sup>1022</sup> Originalean *biaramuneaq* irakurtzen da, argi eta garbi.

<sup>1023</sup> ‘Hornitu’.

1801.12.09

Nagusi jauna:

Feliz igeleak esan dit berorri gaztigatzeko errenta pagatzeko estutzen duela itxe yabeak, eta ea kintal bat burnia<sup>1024</sup> emanen dion. Illoba ferrazallea du ta hark hartuko likoala.<sup>1025</sup> Olaberria, 9 de diciembre de 1801.

*Su servidor Jose Ramón.*

1801.12.15

*Año de 1801 y 15 de diciembre.*

Olaberriko ola handikoen kontua, 30 de mayo del presente año ezkerro.

Jose de Bengoetxea, Tomas de Arbelaiz, Nikolas de Arbelaiz eta Manuel Antonio de Ansari; bost lagunean<sup>1026</sup> egin da tretxua 296 pezetas y 4½ arrobas

Espensa .....222 pezetas y 32½ arrobas

Maisuarekin sei lagunean labratua<sup>1027</sup> .....146½ quintales

Tretxua .....029 quintales

Guzia sei lagunean .....175½ quintales

Ta kabiguña sartu gañera

Espensa egin da a 6 compañeros .....124 pezetas y 6½ cuartos

Guziak badute egun bana erremienta giten.

Ta guziak badute biña erreal hartua Karmengo frailenzat.

Tomasi kargatu behar zaio Franzisko Pikabeak

honen partez irabazia duena .....14 pezetas y 29½ cuartos

Ta halere tretxuko kintalajea kontua egiñ nuen Franzisko honena, 24 quintales labratuak baiziran.

Manuel Antoniori<sup>1028</sup> kargatu behar zaio 8 pezetas y 24½ cuartos, ta abonatu behar zaskio ordañaz aritu denari,<sup>1029</sup> baita Iberoko suña Juan Franzisko de Alzate.<sup>1030</sup>

<sup>1024</sup> Hitzaz *burni* izaten baita, *kintal bat burni* edo *kintal burnia* behar lukeela dirudi. Badaiteke, zernahi gisaz, denbora hartan *burni* eta *burnia*, biak, bizirik egotea, artean.

<sup>1025</sup> 'Hartuko liokeela'. Ikus aditz morfologiari eskaini atalean honetaz dioguna.

<sup>1026</sup> 'Bost lanegunean'. *Laguna* 'laneguna' da hemen.

<sup>1027</sup> 'Ofizialearekin sei lanegunean landua'.

<sup>1028</sup> Bukaerako *ri* aurreko *o*-aren gainean dago idatzita gutunean.

<sup>1029</sup> 'Haren ordainetan, haren lekuan lanean aritu denari'.

<sup>1030</sup> 'Iberoko (Goizuetako mugako Leitzako dorre eta burdinolako) suhia den Juan Franzisko de Alzate denari'. *Bait*-en bidezko erlatiboa dugu hau.

Josepe igeleak badu egun bat bergamazoan ta maxukoa.<sup>1031</sup>  
Josepe igeleak baditu Olatxoan pasatuak  $4\frac{1}{2}$  *semanas*  
Hoietarako hartuak ditu neregandik . . . *14 pezetas*  
Gañerakoa abonatzea da.<sup>1032</sup>

Jose Ramon de Minondo.<sup>1033</sup>

1801.12.24(A)

*1801 y 24 de diciembre.*

Bizente de Ollolik<sup>1034</sup> Olaberrian egin duen lanaren kontua.  
Errenteriatik olara mea . . . . . *141 quintales y 1½ arrobas*  
Errenteriara burnia . . . . . *048 quintales*  

---

Olaberriko lana . . . . . *189 quintales y 1½ arrobas*  
Hoietatik  $29\frac{1}{2}$  kintal dira retornurik ez den denboran zerbait  
ekusteko aginduarekin egiñak  

---

Fagotxikitik burnia Errenteriara<sup>1035</sup> *35 quintales.*  
Hoietatik *24 quintales* errentornirik<sup>1036</sup> (*sic*)  

---

ez den denborakoak  

---

Hoietarako hartu du burnia  
arroa sei pezetakotik<sup>1037</sup> . . . . . *6½ arrobas*

Jose Ramon de Minondo.

<sup>1031</sup> *Bergamazoa, Bergamazoia* edo *Bergamailua* olako peza da; ikus Jose Ramonen beraren 1800.03.10eko gutunean dioguna. *Maxukoa* hemen beste gutun batzuetako *maisukoa* bera izanen da, palatalizaturik egonik ere.

<sup>1032</sup> ‘Abonatzeko dago’ edo ‘abona daiteke’.

<sup>1033</sup> Binperrean badira olajaunak egindako apunte batzuk. Hauetan *trecho* ageri da gaztelaniaz, euskaraz edireten dugun *tretxu* (*trechu* idatzia, bistan da) formaren erdarazko baliokidea.

<sup>1034</sup> Olajaunak eskutitza bildutakoan egin zituen erdarazko apunteen artean, goian, «*Vizente Olloquia en Canichipia*» dugu. *Kanitxipia* Oiarzungo bazterretxea zen, *Canichipi* jaso 1857ko izendegian (NOPGI, 56); deigarriena euskaraz *Olloqui* eta gaztelaniaz *Olloquia* agertzea da, lagun bera dela argi baitago. Bestalde, *Pagochiqui* darabil Juan Bautistak erdaraz, euskarazko gutunetan beti *Fagochiqui* agertzen bada ere.

<sup>1035</sup> *Errent.*<sup>ra</sup> laburturik dago hitza.

<sup>1036</sup> *Erretornurik* edo *erretornorik* idatzi nahi zuela aski garbi dago; goraxeago «*retornurik ez den denboran*» dugu. *Erretornu* hau gaztelaniazko *retorno* bera da, nolabaiteko ordaina, oker ez bagaude. Maizko azaltzen da elea gutunotan; hurrengoan, kasurako. Ikus hiztegia.

<sup>1037</sup> ‘Arroak sei pezeta balio duen burdinatik hartu du’, ‘sei pezetako arroatik hartu du burdina’.

1801.12.24(B)

1801 y 24 de diciembre.

Franzisko de Aranbururen Olaberriko kontua.

Errenteriatik olara mea . . . . . 203 *quintales*

Olatik Errenteriara burnia . . . . . 154 *quintales*

Olaberriko karreto<sup>1038</sup> . . . . . 357 *quintales*

Hoietatik 85 *quintales* dira

erretornurik ez den denborakoak

Fagozikitik burnia Errenteriara . . . . . 58 *quintales*

Hoietatik 40 *quintales* dira

erretornurik ez den denborakoak

Arrago egurketan ditu . . . . . 32 *leras*

Bere itxetik olara ekarri du

gurdi bat lata<sup>1039</sup> tellaturako.

Iaz<sup>1040</sup> kontua egiñ ezkeroko lana da hau.

Hoietarako hartu du burnia 6 *arrobas* y 11 *libras*.

Jose Ramon de Minondo.<sup>1041</sup>

1801

1801

Kasarsen semeak hartu dituzte burniak:

6 de junio . . . . . 0 *arrobas*, 19 *libras*

14 de julio . . . . . 3 *arrobas* y 8 *libras*

8 de setiembre . . . . . 4 *arrobas* 0

5 de noviembre . . . . . 2 *arrobas* 0

A 6 *pezetas la arroba* . . . . . 10 *arrobas* y 2 *libras*<sup>1042</sup>

Burniak erdi bana dituzte eta Franziaiko diruak ere erdi bana hartu zituzten, eta 4 de *noviembre*an hartu zituzten 20 urretxiki erdi bana.

<sup>1038</sup> 'Garraioa'.

<sup>1039</sup> Teilen azpian jartzen diren egurrezko taulak dira *latak* Goizuetan eta bestetan.

<sup>1040</sup> Eskutitzean *hiaz* idatzirik dago. Ikus grafia aztertzean honetaz dioguna.

<sup>1041</sup> Olajaunak erdaraz egindako apunteetan *Pachico Andia Aguerrecoa* dugu, hau da, *Patxiko Andia* deitzen zutena —beste noizbait ere azaldu zaigu, urte honetan berean—, Oiartzungo Agerre etxekoa.

<sup>1042</sup> Hemen ikusten da 25 librak arroa egiten zutela.

Gazteluko urak ateratzeko eman zituen<sup>1043</sup> 8 urretxikitatik<sup>1044</sup> lau hoiek pagatzeko konpondu ziran lagunekin, ta guziak erdi bana dituzte bi hogeizkuko, 24 urretxiki ta burniak gañera, ta guziak erdi bana dituzte, puska txiki hau Baupistak hartu nahi badu.

Haren lantegi batek galdatu dit hari emateko asmorik ote dugun,<sup>1045</sup> ikatza egiteko nahi lukeala. Baso txarra da, baño lengoan guri *dotación* eman ziguten, ta atera zen 700 karga pasatua, ta orañ 50 karga arragoa egurra<sup>1046</sup> kendu ta gañerakoan zerbait aterako al da!<sup>1047</sup> Txarra izanta ere, ehun ta berrogeita hamar karga. Badu diferenzia esamiñan lengo eginalditik,<sup>1048</sup> ta lau yorrada edo bost egiñ daitezke. Gazteluko meatzetara goazela garaitik<sup>1049</sup> da puska hau.

Esan didate Sarastik<sup>1050</sup> eta bere lagunak berehala egiñ behar duela,<sup>1051</sup> hoién dirua bederetzi egun baño len nahi lukete, errenta edo salariatua<sup>1052</sup> konponzeko.

### 1802.01.03

*3 de enero de 1802.*

Lengo astean erre den arragoako jornalak.<sup>1053</sup>

Itzaiak egurketan

Migel de Aranburu . . . . . 2 *leras*

Franzisko de Irigoien . . . . . 5

Jose de Aranburu . . . . . 3

<sup>1043</sup> ‘Berorrek eman zituen’ ulertu behar, bistan da.

<sup>1044</sup> *Zortzi urretxikietatik* konprenitu beharko da hau.

<sup>1045</sup> Segur aski ‘batek galdatu dit haren lantegia hari emateko asmorik ote dugun’ ulertu beharko da. Zernahi gisaz, pasarte hau ez da argia, eta garbi dago testua puntuatzeko eta interpretatzeko beste modu batzuk ere badirela.

<sup>1046</sup> Beste batzuetan *arragoa egurra* edireten dugu.

<sup>1047</sup> ‘Aterako ahal da!’ alegia.

<sup>1048</sup> *Eginaldi* hemen (etsamina; bi hitzetan emana: *Eguin Alditiq*), *arialdi* beste batzuetan (lana denean).

<sup>1049</sup> Goiko aldean dagoela esan nahi du, gaineko aldetik.

<sup>1050</sup> Oiartzungo *Sarasti* baserrikoen etxe izengoitia. Egun *Sasti* esaten zaio etxeari (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 278).

<sup>1051</sup> *Dutela* izan behar lukeela irudi du. Zernahi gisaz, «*Sarastik eta bere lagunak esan didate (berorrek kontua) berehala egin behar duela*» ere uler daiteke.

<sup>1052</sup> ‘Soldatapekoak’ edo.

<sup>1053</sup> Arragoa bera ez da erretzen; arragoan mea erre dela adierazteko erabiltzen du JRMk esateko modu hau.

Jose Antonio de Zapirain . . . . .	.6
Jose Antonio de Mitxelena . . . . .	.6
Luis de Lekuna . . . . .	.9
Sebastian de Isasa . . . . .	.3
Franzisko de Aranburu <sup>1054</sup> . . . . .	.12
	<hr/>
	46 leras

Peonak

Manuel de Esnau . . . . .	.10 días
Jose Antonio de Isasa . . . . .	.2
Bauptista de Tomasenea . . . . .	.9
Migel de Irigoien . . . . .	.10
Manuel de Itxabeste . . . . .	.6
	<hr/>
	37 días

1 azumbre de vino, 32 cuartos

Todos importan . . . . .104 pezetas y 23½

Lengoak zor dira, kontuan

pasatuaz gañera . . . . .936 pezetas y 28 cuartos

Guzia da . . . . .1.041 pezetas y 17½ cuartos

1802.02(A)

1802 y [...] <sup>1055</sup> febrero.

Lengo astean erre den arragoako jornalak.

Itzaiak

Jose Antonio de Mitxelena	9 leras
Juakin de Oiarbide . . . . .	.3
Migel de Aranburu . . . . .	.3
Franzisko de Irigoien . . . . .	.6
Luis de Lekuna . . . . .	.6
Sebastian de Isasa . . . . .	.3
Franzisko de Aranburu . . . . .	.6
	<hr/>
	36 leras

<sup>1054</sup> Oiartzungo baserria da hau (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 71 eta 73).

<sup>1055</sup> Zuloa dago agirian, eta ez da hilabeteko eguna zein den ikusten ahal.



Peonak	
Manuel de Esnau .....	.9 días
Migel de Irigoien .....	.8
Bautista de Tomasenea .....	.1
Pedro de Susperregi .....	.6
Franzisko de Barrenetxea .....	.3
Franzisko Antonio de Ribere .....	.2
	<u>29 días</u>
<hr/>	
<i>1 azumbre de vino, 40 cuartos</i> <sup>1056</sup>	
<i>Todos importan</i> .....	.82 pezetas y 14½ cuartos
<i>Lengoak</i> .....	.1.041 pezetas y 17½ cuartos
<i>Guziak dira</i> .....	.1.123 pezetas y 32 cuartos

1802.02.12

*12 de febrero de 1802*

Luis de Lekuna Zuloakoaren kontua, *24 de setiembre de 1800* ezkerok:

Errenteriatik mea Olaberrira .....	.161 quintales
Burnia Errenteriara .....	.054 quintales
Olaberriko lana .....	.215 quintales
Hoietatik 40 kintal dira zerbait añaditzekoak retornuaren faltan	
Fagotxikitik <sup>1057</sup> burnia Errenteriara .....	.66½ quintales
Hoietatik 12 kintal retornurik ez den denborakoak	
Yokasegururen <sup>1058</sup> itxetik Errenteriara burnia ..	.33½ quintales
Airetik mea <sup>1059</sup> .....	.65 quintales y 8 arrobas
Metalmeatzetik <sup>1060</sup> .....	.15 quintales y 4 arroba
Aritzxulegitik lorrean .....	.2 días
Arrago egurrak ekarri ditu <i>66 leras</i> .....	.82½ pezetas

<sup>1056</sup> Beraz, litro ardoak 20 kuarto balio zuen, goiti-beheiti.

<sup>1057</sup> *Fagoagatziki* Oiartzungo beste burdinola baten izena da.

<sup>1058</sup> Izengoiti polita hauxe! *Jokaseguru*, egungo 'seguro' edo.

<sup>1059</sup> Oiartzungo *Aireko gaina* izeneko aurkintzatik ateratako mea.

<sup>1060</sup> Oiartzungo gain baten izena da hau.

Burnia hartu du arroa sei pezetakotik . . . . .17 arrobas y 21 libras  
Arroa bost pezetakotik . . . . .7 arrobas y 15 libras

Vuelta

Jose Ramon de Minondo.<sup>1061</sup>

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.02.21

Nagusi jauna:

Ikatzgille horiek etorri zazkit txartel horrekin, alkate zarrak egiñ diote-  
la<sup>1062</sup> eta firmatu ere gabea, ta libranzarik ere ez,<sup>1063</sup> ta orañ firmatu du  
Portuk,<sup>1064</sup> baño libranza falta du, eta bi alditan rezibitu ditut, batean 19 karga  
ta bestean 37 karga, guziak guk hartuak 56 karga. Eta hoietarako lenbizi jaso  
ziran 19 kargen karretoa pagatu nuen burniaz 19 pezeta....76 reales

Ta ikatzgilleai pagatzekotan leku guzietara jasoak, txartelak dion bezala  
.....670 reales

Gure emana heldu da . . . . .746 reales vellón

56 karga ikatzek ez du<sup>1065</sup> honenbeste balio, ta nik ez dakit nork onduko  
dituen.<sup>1066</sup> Sarastiri nik esan diot libranza egiñ dezatela, edo zer fundamentu-

---

<sup>1061</sup> Gutunaren ifrentzuan olajaunaren erdarazko apunteak daude. Interesgarri diren gauzen artean, «*AiracoGaña y metal*» eta *meazeta* toponimoak, «*Arichulegui Lorrean*», «*fierro de Pagochá*», «*leña p<sup>a</sup> Ragoa*» sintagma zabalagoak eta *Luis Lecuna*, *Jocaseg<sup>o</sup>* eta *Luis Zulagacoa* antroponimoak ditugu.

<sup>1062</sup> 'Egin diela'. Ez dakigu *alkate zarra* 'alkate zaharra' ulertu behar den edo *Alkatezarra*, hau da, ez dakigu seguru goitizentako ez ote den hartu behar. Originalean *Alcate / zarraq* dago oraingoan.

<sup>1063</sup> *Libranza* dela eta, ikus hiztegia.

<sup>1064</sup> *Portu* garai honetako Oiartzungo alkatea zen, honen goitizena, zehazkiago esan. Etxe izengoitia da: Oiartzunen *Portu* zeritzan baserria zegoen denboran, eta egun *Portuberri*, *Portuberrierrota*, *Portuberriko makinetxea*, *Portuburu* eta *Portuene* etxe eta baserriak daude (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 268, 270). 1857an (NOPGI, 59) *Portu-berri* eta *Portuburu* laborari etxeak ageri dira, baita *Portu-berri-errota* eihera ere.

<sup>1065</sup> Ohart bedi irakurlea aditza singularrean dagoela, subjektua mugagabea delako, non-bait. Baina ondoko esaldian *nork onduko dituen* dago, ez *nork onduko duen*.

<sup>1066</sup> 'Nork ordainduko dituen', 'nork berdinduko dituen'.

tan dirua eman behar den, ta hark zer egiñen duen bada esan dit, alkateak ~~alkateak~~ (sic) egiñ behar duela, ta firma hutsa egiñta bealdu du berriz hark.<sup>1067</sup>

Lenbi[zi]ko<sup>1068</sup> karretoko 19 pezetak ta ikatzgillari len emanen gañera osatu<sup>1069</sup> 56 kargaren balioa ta gañerakoak kobra ditzatela herriagandik.<sup>1070</sup> 19 kargaz gañerakoak herriak jaso ditu ta karrotoa<sup>1071</sup> pagatu, baño ikatzgillarena guzia honara bota dute.<sup>1072</sup> Ola gelditu da 1.800 ezkutuan, ta eskola maisuak<sup>1073</sup> esan dit San Matiasez<sup>1074</sup> jaitsiko dutela 1.600 ezkutura, ta igandean akabatu behar dela errematea, elkarren artean konzilio hau egiñ dutela.<sup>1075</sup>

Olaberria, 21 de febrero de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Baupista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.02.22

Olaberria, 22 de febrero de 1802.

Kosme de Lekunaren kontua 28 de marzo de 801 ezkeror:

Errenteriatik mea Olaberrira .....212 quintales y 2 arrobas

Burnia Errenteriara .....117 quintales y 3½ arrobas

Olaberriko lana .....329 quintales y 5½ arrobas

Hoietatik añadimentua agindua

den denborakoa 21 quintales

<sup>1067</sup> Alkateak, irudi duenez. Pasarte hau honela ere puntua eta uler daiteke: «...edo zer fundamentutan dirua eman behar den ta hark zer egiñen duen. Bada, esan dit alkateak egiñ behar duela, ta firma hutsa egiñta bealdu du berriz hark».

<sup>1068</sup> Eskutitzean Lenbico daukagu.

<sup>1069</sup> Hau *osa(tu) dezatela* osoagoaren partez egon daiteke, baina erlatiboan ere izan daiteke, ‘osatutako 56 kargaren balioa’. Ikus erlatiboaz mintzo garen puntua, joskerari eskainitako atalean.

<sup>1070</sup> Bi eletan izkiriaria da: *Erria gandi*.

<sup>1071</sup> ‘Garraioa’.

<sup>1072</sup> Guk ordaindu beharrekora, gure fakturara pasatu dute, gure fakturan sartzeko utzi dute.

<sup>1073</sup> Burdinoletan bestelako maisuak ere izaten baitziren. Horregatik gehitu dio *eskola* honi.

<sup>1074</sup> ‘San Matias egunean’, maiatzaren hamalauan alegia.

<sup>1075</sup> ‘Hau adostu dutela’, ‘tratu hau egin dutela’.

Fagotxikitik Renteriararen burnia<sup>1076</sup> 25½ *quintales*  
Kosmek bere itxetik Errenteriararen<sup>1077</sup> 9 *quintales*

Jose Ramon de Minondo.<sup>1078</sup>

1802.02(B)<sup>1079</sup>

Nagusi jauna:

Buruzuriaren<sup>1080</sup> plazeriak paga ditezke. Zorretan gaude herriarekin ta Anatxuri dugu harzeko;<sup>1081</sup> endredo makurra ez digu paratu!<sup>1082</sup> Gobiernoko guziak presente zirela esan zidaten niri Anatxuriri hamar ezkutukoren batekin, despojo<sup>1083</sup> puxkaren batzuek emanta, geroztik añaditu edo gehiegi izanta, nola kendu tiozten<sup>1084</sup> eskriboko moduak zergatik ziran,<sup>1085</sup> eta Isasolan bazutela zor puxka bat, soldaduenzat ikatza kendua, ta hura pagatu ta gañerakoa har genezela<sup>1086</sup>, eta Buruzuria pagatu eta karretoa ere bai, eta gañerakoa herriari onduko geniola,<sup>1087</sup> eta alkate zarrak<sup>1088</sup> esan dit ez dela libranza

<sup>1076</sup> Originalean azken bi silabak goraturik daude, *bur.*-en gainean idatzirik.

<sup>1077</sup> Toponimoa, beste frankotan bezala, laburturik dago: *Erren.ra*

<sup>1078</sup> Ifrentzuan olajaunaren hainbat apunte daude. Horien artetik *fierro de Pagochiqui* eta *Oiarzun Olaiz* dira interesgarri.

<sup>1079</sup> Ez dakigu data zehatza zein den, baina ondokoarekin dukeen loturagatik (*cf.* *salsa* hitza) sartu dugu hemen. Ordea, 1802.02.14ko gutunean ere *Anachuri* eta «*Salsa oyeq Acavatu ditzagun*» ageri dira, eta badaiteke gure hau otsailekoa ez, baizik martxokoa izatea. Garai horretakoa seguru, nolana ere.

<sup>1080</sup> Norbaiten goitizena da hau, segur aski ilea zuria edo zurikara zuelako ezarria.

<sup>1081</sup> 'Anatxuri dugu hartzekodun (nahiz eta zorra guk herriarekin izan)'.

<sup>1082</sup> 'Ez digu bada endredo makurra paratu!'.

<sup>1083</sup> Ikus hiztegia.

<sup>1084</sup> 'Nola kendu dizkioten'.

<sup>1085</sup> Pasartea ez da guztiz argia, baina ematen du honela ulertu behar dela: «*udal gobernukoek Anatxuriri hamar ezkutukoren bat eta despojo gutxi batzuk emanda lehenik, eta geroago gehiago emanda, hark auzitara jotzea galarazi zuten*». Hori hola izanik ere, beste era honetara ere irakur eta uler daiteke: «*Gobiernoko guziak presente zirela esan zidaten niri Anatxuriri hamar ezkutukoren batekin, despojo puxkaren batzuek eman, ta geroztik añaditu edo gehiegi izan, ta [esan zidaten] nola kendu tiozten eskriboko moduak, zergatik [holakoak ba]ziran, eta [esan zidaten] Isasolan bazutela zor puxka bat [...]*».

<sup>1086</sup> 'Har genezala' hau goragoko *esan zidaten* aditz nagusiaren mende dago. Hutsa irudi du, baina menturaz ez da hala izanen. Ikus aditz morfologiari buruzko kapituluan honetan dioguna.

<sup>1087</sup> Hemen 'ordaindu' adiera du.

<sup>1088</sup> Ez dakigu izengoitia den edo *alkate zarra* sintagma dugun. Originalean *Alcate zarrag* dago, baina letra larriak ez du deus berezirik adierazi nahi; ondoan *Esan / dit* dugu, adibidez. Ikus gorago esan duguna (1802.02.21eko gutuna).

beharrik,<sup>1089</sup> gure kontrako paperik ez dagoela, ez kandelan eta ez memoria-lik,<sup>1090</sup> eta gerok kontua eman behar dugula ikatz errezibituak zenbat diran eta hoietarako zer eman dugun, ta, gañera, zor dugunaz polseroari<sup>1091</sup> kargua emanen diotela, kobratzeko.

Orañ Anatxuri honekin ditugu salsak. Niri etorri zitzaidan hau, gobier-nokoekin konpondu zela, guk jaso behar ditugun ikatzak honek harzeko, dituen karraidoreai erakarzeko,<sup>1092</sup> eta karretoaren aldera<sup>1093</sup> ikatza beretzat eraman! Fiatu giñan eta esan nion ongi zela, eta Anatxurik guri entregatutzen diguna herriak entregatutzat gelditzen giñala, zergatik gure karretoa herriak pagatzen zuen ikatza hari emanaz, eta bitartea Konsejura<sup>1094</sup> ta Isasolara era-manaz gañerakoak gure gañean daude.

Gobiernokoak ez omen zioten deus libratu. Alkate Porturi esan omen zion gurekin konpondu zela, karretoa hark egiteko eta karretoaren diña baño gehiago<sup>1095</sup> eramaten bazuen gure karraidorekin bazuela kontua, ta honelako salsa batzuek, eta hark esan omen zion «guk hari entregatua dugu ta harekin konpontzen bazera,<sup>1096</sup> hor konpon zaitezte». Haiek gure ordenaz dabillega uste, ta guk haien ordenaz dabillega uste,<sup>1097</sup> ta bitartea nahi duena egin du, eta orañ honekin dugu berriz kontua. Gure olara jaso ditu honek 39 kargaren karretoa, hautsiak osatu ta 37 karga baitira, *39 a 4 reales...156 reales*.

Horra guri egin digun faborea. Ta eraman ditu ikatzak; 31 karga hoiek pagarazi<sup>1098</sup> behar tiogu guk Anatxuriri, gure olara egin duen karretoko kas-tuaz gañerakoa. Herriari zenbat pagatu behar zaion, prezio hura hemen zor du Anatxurik. Miñez dago, bestela kargu hartuko nion ta pagarazi. Eziñ, eziñ

<sup>1089</sup> ‘Ez dela ordainketa beharrik’, ‘ez dela ordaindu beharrik’.

<sup>1090</sup> ‘Ez enkantean eta ez txostenik’. Hemen «*ez kandelan eta ez memorialean*» espero genuen.

<sup>1091</sup> ‘Poltseroari, diruzainari’.

<sup>1092</sup> ‘Garraiolariet ekarrarazteko’.

<sup>1093</sup> ‘Garraioaren truke’. Pasarte hau honela ere puntua eta uler liteke: «*Niri etorri zitzaidan hau, gobiernokoekin konpondu zela, guk jaso behar ditugun ikatzak honek harzeko dituen karraidoreai erakarzeko, eta karretoaren aldera ikatza beretzat eraman!*». Bigarren interpretazio honetan *harzeko* horrek dukeen adieraz ikus hiztegia.

<sup>1094</sup> Herriko etxera.

<sup>1095</sup> ‘Garraiatu behar zuen baino gehiago’.

<sup>1096</sup> Arteka Gipuzkoa aldera begira dauden adizkiak aurkitzen ditugu; Goizuetan *za* (< *zara*) esaten da orain(dik). Ikus aditz morfologiari eskaini atala. Mikelestorenak ere (1751) baditu Gipuzkoa aldeko adizki batzuk, ekialderagokoeekin batean: «*Al dezun egunean enzunen duzu Meza bat*» (6. or.).

<sup>1097</sup> Errepara bekio aditz laguntzailearen ezabaketa hanpagarriari.

<sup>1098</sup> Arazlearen aldaera laburtua ere, *azi*, ibiltzen du idazleak; ikus aditz morfologiaz mintzatzean dioguna. Pasartetxo hau honela ere puntua eta uler daiteke: «*Ta eraman ditu ikatzak 31 karga; hoiek pagarazi behar tiogu guk Anatxuriri*».

entenditu baditu ongi, Buruzuria paga beza,<sup>1099</sup> len emanen gañera osa bekitza<sup>1100</sup> 670 reales, eta honara heldu denean entendiraziko diot.

Guk herriarekin dugun kontua da olan errezibitu ditugun 56 karga eta Anatxurik eramanak 31 karga.

Guziak dira.....87 karga zor duguna.

Karga bakoitzarenzat kontatu behar da 9 reales, plazeria<sup>1101</sup> bost eta karretoa lau real.

87 kargaren karretoa ta plazeria da, 89 kargatan jaso baitira 781 reales

Isasolara eramanak 30 karga

Konsejura eramanak 17 karga

Herriak jasoak . . . . .47 karga

47 karga hoiien plazeria hutsa da

a 5 reales . . . . .235 reales

Berorren faborekoak dira 1.026 reales

Hoietarako 87 kargaren balioa zer den

Hoietaz gañerako[a]<sup>1102</sup> zorko da herria ~~buelta~~

87 kargaren balioa<sup>1103</sup> zor, ta hoietarako 1.026 reales vellón emanak izanen dira Buruzuria pagatzearekin.<sup>1104</sup>

## 1802.02.24

Alkatek, Portuk,<sup>1105</sup> esan dit Penaregiko maxterrak omen duela orañik ikatz gai puskaren bat despojo<sup>1106</sup> hoietakoa, ta gobiernoko berriai esan diotela<sup>1107</sup> nola den ikatz gaia hura,<sup>1108</sup> eta hoiek Olaberrira nola eman dituzten,

---

<sup>1099</sup> 'Buruzuriari ordain biezaio'. Beheitixeago ere absolutiboa, ez datiboa. Ikus hiztegiaren dioguna.

<sup>1100</sup> 'Osa bitza' iduriz; arruntean (*gastiga*) bitza edireten dugu, alabaina.

<sup>1101</sup> 'Baso ustiapena'-edo. Ikus hiztegia.

<sup>1102</sup> Originalean *gañeraco* dago, artikulurik gabe.

<sup>1103</sup> Tarteko *i* hori goratua dago, egileari idaztean hasieran sartzea ahantzi zaiolako.

<sup>1104</sup> Absolutiboa dugu hemen *pagatu* aditzarekin, ez espero genukeen datiboa. *Pagatzearekin* 'ordaintzen dugunean'.

<sup>1105</sup> Aurreko gutunean *Alkate Porturi* dugu, datiboan, eta ez dakigu egileak *Alkate Portuk* ez ote zuen idatzi nahi izan.

<sup>1106</sup> Ikus hiztegia.

<sup>1107</sup> 'Gobernuko berriei, zinegotzi berriei esan diela'.

<sup>1108</sup> Berriz ere artikulua eta determinatzailea batera. Ikus honetaz izen morfologiari eskaini atalean dioguna.

ta berriak har dezatela aurrerako<sup>1109</sup> kargua. Haiek ez yakin<sup>1110</sup> honara emanen dituzten, eta honara ematen badituzte, guzieren prezioa batean egiñen dela, korrientena dabillan prezioa nahiko dutela. Pago ikatzak ziran gehienak.

Anatxuri nik ez dakit zeren esperoan ebilli den honenbeste salsa paratuta;<sup>1111</sup> zorioneko<sup>1112</sup> harzekoak dauzki honek karraidoretan.<sup>1113</sup>

Olaberria, 24 de febrero de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

1802.03.09

Nagusi jauna:

Bautista mealleak arto puxka baten txartela behar duela, batere ez duela.<sup>1114</sup> Nik ere behar nuke hogeitazkuko bat, eta kontuak garbitu behar ditugu. Goiz batean goiz etorriko naiz<sup>1115</sup> ni horrara; noiz nahi duen gaztiga bezata.<sup>1116</sup> Olaberria, 9 de marzo de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

Egun kargatu dira bi itzai zazpiña kintalekin.

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

---

<sup>1109</sup> ‘Eta zinegotzi berriek har dezatela gogoan aurrerako, geroko?’

<sup>1110</sup> ‘Ez jakinki haiek honara emanen dituzten’. Ikus aditz morfologiaren inguruko atalean dioguna.

<sup>1111</sup> ‘Honenbeste arazo sortuta’. *Saltsa paratzea* zirika ibiltzea-edo da.

<sup>1112</sup> Bi hitzetan emana da; lehenean *r* ez da ongi ageri, zuloa dagoelako, eta *-i* ere ez txoil garbi.

<sup>1113</sup> *Karraidore* edo garraiatzaileek dirua zor diote Anatxuriri. Baina ez dakigu kontrako ez ote den esan nahi, *harzekoak* hori ‘hartzekoak’ gabe ‘hartzekodunak’ ez ote den. Ikus hiztegia.

<sup>1114</sup> Originalean *ezduelata* idatzirik dago.

<sup>1115</sup> Arruntean *joanen naiz* esanen genuke orain.

<sup>1116</sup> ‘Gaztiga biezat’. Cfr. Elkanokoak ibiltzen duen *benaza* (*Jauna, guarda benaza*, adibidez).

1802.03.12

Nagusi jauna:

Suerte partitu da<sup>1117</sup> sei puskatan, eta guri<sup>1118</sup> tokatzen zazkigun hiru puskak egin ditugu biña puska. Guzitara sei puska dira, eta sei puska hoietatik hiru puska bakoitza gutxi gorabera 300 karga.

Laugarren puska . . . . .200

Beste bi puska, bakoitza . . . . .350

Azkeneko bi puska hoiek txapon bana<sup>1119</sup> beharko dute gehiago bestetik. Imutill<sup>1120</sup> asko dute eta lekua ere txarra da, baño ikatzgillea gose bada, egiñen da ikatza franko bi puska hoietan. Beste lau puskak egur txea<sup>1121</sup> dute, baño leku onak dira.

Madarikoa eta Sanjuan Txuta eta Jeronimo eta Aketzak ere eskatu du.<sup>1122</sup> Niri bestek oranik eskatu ez dit,<sup>1123</sup> eta gaztiga beza nori eman behar zaion. Botatzeko denbora da eta egurzaleak<sup>1124</sup> gogotik ari dira. Egun ere jua ezpa-giña, bi gurdi behinatz g[utxia]go<sup>1125</sup> izanen ziran. Egurgiten<sup>1126</sup> ari dirala [harra]patu<sup>1127</sup> ditugu. Olaberria, 12 de marzo de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

1802.03.14

Nagusi jauna:

Fausto Olaizarrekoak esan dit, aurtan aldatu nahi baditu,<sup>1128</sup> plantak emanen dituela, mintegian bakoitza 5½ kuarto, ta igarzen<sup>1129</sup> dena hirutatik bat jasoko duela, ta errespuesta bealzeko.

<sup>1117</sup> Originalean *partida* dago, eta *tu* bukaera *id* letren gainean.

<sup>1118</sup> Lehen letra ez da osorik ikusten, baina g dela zalantza handirik ez dago.

<sup>1119</sup> 'Txanpon bana'. Gero ere *txapon* agertzen da eta, hortaz, *txanpon*-en aldaeratzat hartu beharko dugu, ez ahanzturaren fruitutzat. Ikus hiztegia.

<sup>1120</sup> Oso argia da, hau da, ez dago irakurtzeko inolako zailtasunik. Gaztelaniatik hartutako *inutil* 'balio ez duena' maileguaren aldaera da *imutill*. Ikus hiztegia.

<sup>1121</sup> 'Xehea'. Gaur egun ere hola esaten da Goizuetan.

<sup>1122</sup> Garbi dago *eskatu dute* behar lukeela izan, pluralean, lau lagun direlako.

<sup>1123</sup> Ohart bekio *AN + ez + AL* ordenari. Ikus hitz hurrenkerari eskainitako atalean dioguna.

<sup>1124</sup> 'Egurkariak'.

<sup>1125</sup> Zuloa dago.

<sup>1126</sup> 'Egur egiten'.

<sup>1127</sup> Zuloa dago, baina aski garbi dago *arrapatu* zegoela originalean.

<sup>1128</sup> 'Berorrek aldatu nahi baditu'.

<sup>1129</sup> 'Ihartzen'.



Gobernoko zarrak esan didate karga ikatza 13 real egiñ dutela,<sup>1130</sup> eta orañ berorrenzat garbiena da Olaberrira jaso diran 56 kargak oso pagatzea.

Len eman dituenaz gañerakoak

56 kargak *a 13 reales importan* . . . . .182 *pezetas*

Buruzuriari emanak dira . . . . .062½ *pezetas*

19 kargaren karretoak

Franzisko Antonio de Isasari

burnia emana . . . . .019 *pezetas*

Berorrek pagatuak dira . . . . .81½ *pezetas*

Berorrek eman behar duen falta dena da 100½ *pezetas*.

Hemeretzi kargaren gañerakoak Anatxurik jaso ditu Alziberko aberekin Olaberrira, eta berorrek bere tokatzen zaiona beal beza garbiro,<sup>1131</sup> 100½ *pezetas*, ta Anatxuriri ere kenduko diot 31 kargen balioa, Olaberrira egiñ duen karretoaren gañerakoa, ta konponduko ditut nik ikatzgilleak ta gobiernokoak, salsa hoiek akabatu ditzagun. Olaberria, 14 de marzo de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.03.16

Nagusi jauna:

Lantegi baten basoa suertean ematekoa dugu orañik; burkaitz<sup>1132</sup> gaistoa da-ta<sup>1133</sup> eziñbestean<sup>1134</sup> hartuko dute, noski.

Josepe Lekuna	1
Madarikoa . . . . .	2
Sanjuan Txuta . . . . .	3
Jeronimo . . . . .	4
Juakin Uegun . . . . .	5 lantegi

<sup>1130</sup> ‘Ikatz karga edo zamako 13 erreale ordaindu behar direla erabaki dutela’.

<sup>1131</sup> Hau honela ulertu beharko da: ‘berorrek [berorri] tokatzen zaion bere(diru)a [zenbat den] gaztiga beza garbiro’. Ikus erlatiboa, joskerari eskainitako atalean.

<sup>1132</sup> ‘Erroitza’, ‘amildegia’.

<sup>1133</sup> Originalean *data* idatzirik dago.

<sup>1134</sup> Bi hitzetan idatzirik dago: *eziñ bestean*. Hau honela ere puntua daiteke: «*burkaitz gaistoa da, ta eziñbestean hartuko dute, noski*». Aintzat har bedi egun Aranon *Burkailgaixto* izeneko aurkintza dagoela (Zaldua, 2012, mapa, 64-48).

Juakin honi lagunak ez dio utzi nahi basoa botatzen, lengoa egiñ behar dutela, ta aurrerako partitzen dira,<sup>1135</sup> eta Bautista mealleak harzen du,<sup>1136</sup> ola gelditzen denean botatzeko, datorren astean olako lanak aterako dira-ta,<sup>1137</sup> baño berorren kontura botako duela dio, ta artoaren txartela behar duela, ta Josepe igeleak ere eskatzen du; gaztigatzeko esan dit. Ta Sebastian Torrekoak<sup>1138</sup> esan dit, berorrek ez egitekotz,<sup>1139</sup> saiatu behar duela bestetan,<sup>1140</sup> igandeko<sup>1141</sup> ehun ezkutu billatzeko estutzen dutela, gaztigatzeko ez edo baia. Andresek ez zioten eman<sup>1142</sup> Jeronimori [eta] Fermin Okerrari<sup>1143</sup> artorik. Gaztelu aldeko lantegi hau ere falta dugu orañik.

Anatxurik 31 karga ikatzen balioa<sup>1144</sup> zor du; karga bakoitza 9 reales, berak jasoak ba[it]itu,<sup>1145</sup> eta Olaberrira jaso dituen 39 kargan karretoa<sup>1146</sup> ondu behar baizaio,<sup>1147</sup> 39 pezeta, ta gañerakoa zor du, 30 *pezetas y 3 reales*. Manuel Itxabestek harzen du zor honen kargua bere gañean, berorrek pagatu nahi badu, ta berorrek pagatu nahi badu len 100½ pezeta, ta orañ [...] <sup>1148</sup>*reales*. Guzia da 131 *pezetas y 1 real*. Anatxurik enkar[gatz]en du<sup>1149</sup> Manuel.

Olaberria, 16 de Marz[o...].<sup>1150</sup>

[Su servidor Jo]se<sup>1151</sup> Ramón.

<sup>1135</sup> ‘Gaurgero bereizten dira’, ‘hemendik aitzina bakartzen dira’ itxuraz.

<sup>1136</sup> Goraxeago aipatzen den basoa.

<sup>1137</sup> Originalean *dirata* izkiriaturik dago.

<sup>1138</sup> Oartzunen *Torrea*, *Torretxiki* eta *Iturriotz Torre* etxeak daude (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 292).

<sup>1139</sup> ‘Berorrek egiten ez badu’, ‘berorrek ez egitekotan’, hau da, ‘berorrek ehun ezkutuak ematen ez badizkio’.

<sup>1140</sup> Ez dakigu mugatu plurala den (*besteetan*) edo mugagabea (*bestetan* ‘beste nonbait’).

<sup>1141</sup> ‘Iganderako’.

<sup>1142</sup> ‘Ez zien eman’.

<sup>1143</sup> Originalean «...*geronimori fermin oquerrari* [...]» dago.

<sup>1144</sup> Zuloa dago eta ez dira hitzak osorik ikusten.

<sup>1145</sup> Zuloa dago.

<sup>1146</sup> ‘39 zamaren garraioa’ edo ‘39 zamen garraioa’.

<sup>1147</sup> ‘Ordaindu behar baizaio’; originalean *bai zayo* idatzirik dago.

<sup>1148</sup> Zuloa dago, baina batuketa ikusirik 30½ zegoela kontu egin behar da.

<sup>1149</sup> Zuloa dago. Honen luzera ikusirik, pentsatzekoa da ez ote genuen *enkargatutzen* hemen. Cfr. *entregatzen dio* eta *entregatutzen diguna* bikotea. Beste aukera bat *enkargatu omen du* ikustea da.

<sup>1150</sup> Zuloa dago.

<sup>1151</sup> Zuloa dago.

[*A do*]<sup>1152</sup> Juan Bautista [de Minondo].<sup>1153</sup>  
 Que [*Dios guarde muchos años*].<sup>1154</sup>

Goizarin

1802.03.23

Nagusi jauna:

Febreroko espensaren arrazoia hor da . . . . .20 *pezetas y 32 cuartos*  
 Ta berorrek gaztiga duen<sup>1155</sup> *falta dena* . . . . .61 *pezetas y 12 cuartos*  
*Hasta fin de febrero* falta da . . . . .82 *pezetas y 10 cuartos*

Isasolakoak<sup>1156</sup> zer plazeria<sup>1157</sup> eman duten Baltasarrengandik yakiñen dut Ama Birjinaz,<sup>1158</sup> ta gaztigituko dut.<sup>1159</sup> Ta lantegi seigarren eman gabe honetaz gañerakoak<sup>1160</sup> Isasolakoak baño hobeak dira gureak; egur txetxoa<sup>1161</sup> da, baño leku onak dira gureak, bakar honetaz gañerakoak. Isasolakoak lantegi batena suertean<sup>1162</sup> den ederrena dute, ta gañerakoak batzuek enbor hutsak,<sup>1163</sup> ta besteak arbarta<sup>1164</sup> besterik ez dute. Plazeri eske daude guziak. Hoberen honek<sup>1165</sup> opinio handi bat zaukan, ta hargatik txarrenak ere puska honi eratsi zitiozten,<sup>1166</sup> ta gurretan<sup>1167</sup> halako bentajaturik<sup>1168</sup> bat ere ez, eta errekusik<sup>1169</sup> ere bat besterik ez. Madarikoak,<sup>1170</sup>

<sup>1152</sup> Zuloa dago.

<sup>1153</sup> Zuloa dago eta, gainera, hezetasanak eragindako orbanak idatzitakoa estali du.

<sup>1154</sup> Zuloa eta hezetasan orbana ditugu hemen.

<sup>1155</sup> Badirudi *gaztigitu duen* izan behar lukeela.

<sup>1156</sup> *Isatsola* Oiartzungo burdinola baten izena zen. Hola aditu dugu guk, *Isatsola*.

<sup>1157</sup> Ikus hiztegia.

<sup>1158</sup> ‘Ama Birjinaren jaiegunean’. Gorago *amabirjinetan* ageri da.

<sup>1159</sup> ‘Berori gaztigituko dut’.

<sup>1160</sup> ‘Eman gabe dagoen seigarren lantegi honetaz gainerakoak’. Ohart bekio hitz ordenari.

<sup>1161</sup> ‘Egun xehettoa’, ‘egur txikitxoa’.

<sup>1162</sup> Zotz eginda udalak ateratzen dituen lur eta mendi puskek. Ikus hiztegia.

<sup>1163</sup> Irudi duenez, bakarrik adarrak motz zitezkeen eta burdinolan erabili, enborrak ukitu gabe. Originalean *enbor* hitza goititua dago, bi lerroen artean paratua.

<sup>1164</sup> ‘Arbazta’, ‘adar xehea’. Beste gutun batean *arbazta* darabil idazleak.

<sup>1165</sup> Behin baino gehiagotan ibiltzen du JRMk *superlatiboa* + *erakuslea* segida.

<sup>1166</sup> ‘Erantsi zizkioten’. Gehienetan *añaditu* ibiltzen du, hala ere.

<sup>1167</sup> ‘Guretan’, ‘gure lantegietan’, ‘guri zortez egokitu zaizkigun baso pusketan’.

<sup>1168</sup> ‘Holako lantegi onik’.

<sup>1169</sup> Irudi du ‘lantegi kaskarra’, ‘plazeria txarra’ dela. Ikus hiztegia.

<sup>1170</sup> Martxoaren seiko gutunean *Madarikoa* dugu, hau berau adierazteko; ‘*Madari(a)* etxekoa’ esan nahi da. Formaz kestione, diogun *ri* silaba goraturik ageri dela, hitzaren gainean, JRMk lehenik idaztea ahaztu eta gero sartu duelako.

Aketza<sup>1171</sup> eta Sanjuan Txuta eta Jeronimo: lau lantegi hoiek tantai hutsak,<sup>1172</sup> eta Josepe Lekunak bostgarrena. Honek baditu enborrak, baño leku ona du. Seigarrena ematekoa dago; honek beharko du bestetatik<sup>1173</sup> zerbait gehiago. Olaberria, 23 de marzo de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

Hemen gelditu zen ezkerro, Garatekoak egin du aspaldian egiñ duen mearik ederrena; Isasolara darama. Kasarasek<sup>1174</sup> badakar, baño ez daude igual.

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

### Goizarin

Olaitzeko<sup>1175</sup> Jose Ignaziok eskatzen du anega erdi bat babaren txartela.

1802.03.25

Nagusi jauna:

Isasolakoak plazeria<sup>1176</sup> eman diote<sup>1177</sup>  
Batzuei . . . . .30 kuarto  
Beste bati . . . . .31  
Beste lantegi bati . . . . .32  
Eta enbor hutsa duenari . . . . .38 kuarto  
Eta hoiien conforme<sup>1178</sup> gureak egiñ daitezke  
bost lantegi . . . . .30 kuartoan

---

<sup>1171</sup> Norbaiten izengoitia da hau.

<sup>1172</sup> *Tantaia* zuhaitz luze eta zuzena da, adarrrik gabea. Ez arras egokia, beraz, burdinolak behar duen egurra egiteko.

<sup>1173</sup> 'Bestetatik' ala 'besteetatik'?

<sup>1174</sup> *Kasaras*, *Kaxaras* edo *Kaxarax* lagun baten deitura edo izengoitia da. Beste batzuetan ere azaltzen da gutunotan. Ikus grafiari eta onomastikari buruzko kapituluak.

<sup>1175</sup> Oiartzungo baserria da (*Olatxe* ahoz), Olaberrietik oso hurbil dagoena; olagizonen bizilekua izan zen. Ikus Goikoetxea eta Lekuona (2007: 248).

<sup>1176</sup> Hemen basoan egurra egiteko lekuak direla dirudi; *plazeria* bakoitzean hainbat lantegi izan daitezke. Ikus hiztegia.

<sup>1177</sup> 'Eman die' edo 'eman diete'.

<sup>1178</sup> 'Hauen arabera'-edo. Erka bedi garai bertsean Elkanoko Lizarragak (1994: 38, 52) darabiltzan hauekin: «*orrén conforme dú izéna ere Jesús Salvazálea*», «*guc dugu leguebát, eta onén confórme beardú il*».

Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau<sup>1179</sup> ez yakin<sup>1180</sup> egiñen duten. 32 kuartoan Santusek<sup>1181</sup> behar duela aditu dut; neregana etorzeko dagoela esan didate. Ehun karga omen du hartua<sup>1182</sup> bere itxe aldean, ta gañera egiñen zuela omen zion,<sup>1183</sup> konponzen baziñan; gaztigatu diot agertzeko. Erretazotako honenzat ez da iñor ageri.<sup>1184</sup>

Gaztiga beza honara agertuko den berori, edo Martini esanen ote diodan. Sukaldea eta gela baten forma paratu behar litzake olaitxean, eta eskalerak ere beharko dira; lengoak hautsiak daude eta zer egiñen dugun gaztiga<sup>1185</sup> beza. Eskaleraren<sup>1186</sup> aldeak egiñ daitezke deskargan<sup>1187</sup> dagoen olatxoko goiara<sup>1188</sup> zar honekin. Paretaren arretarik ez du orañik iñork harzen; egonen direla-edo, luzapidea beti.<sup>1189</sup> Olaberria, *25 de marzo de 1802*.

*Su servidor Jose Ramón.*

Lenbiziko aste erdian berorrek lineak gaztigatu artea<sup>1190</sup> egiñ genuen kuadroa 9 lineatik 12 lineatarañokoa,<sup>1191</sup> eta batzuek bealdu Erreteriarra, ta hamar edo hamaika kintal bezala olan badago 10 lineatik 12 lineatarañokoa,<sup>1192</sup> eta hau Erreteriarra[ra]<sup>1193</sup> bealduko dugun edo ez gaztiga beza.<sup>1194</sup>

<sup>1179</sup> ‘Eta seigarrena emangai dagoen burkaileko hau’. Ohart bekio hitz ordenari. *Burkaila* harria, haitza-edo da, *burkaitza* baino txikiagoa betiere (OEH). Aintzat har bedi egun Aranon *Burkailgaixto* izeneko aurkintza dagoela (Zaldua, 2012, mapa, 64-48).

<sup>1180</sup> ‘Ez jakinki’.

<sup>1181</sup> *Xantuxene* Oiartzungo Elizaldeko etxea da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 278); originalean *Santuseq* dago. Ikus, soinu palatalez kestione, grafiari eta onomastikari eskainitako atalak. Pasarte hau honela ere puntua eta uler daiteke: «*Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau ez yakin egiñen duten 32 kuartoan. Santusek behar duela aditu dut [...]*».

<sup>1182</sup> *Ehun* izanik ere, aditza eta *hartua* singularrean daude. Beharbada *ehun karga* (*dituen lantegia*) *omen du hartua* egonen da honen oinarrian.

<sup>1183</sup> ‘Zioen’.

<sup>1184</sup> «*Erretazotako dagoen lantegi hau inor ez da saiatu hartzen*».

<sup>1185</sup> Originalean erdiko -ga- silaba goraturik dago, bi lerroen artean. Pasarte hau beharbada honela ere puntua eta uler daiteke: «...*eta eskalerak ere beharko dira, lengoak hautsiak daude-eta. Zer egiñen dugun gaztiga beza*».

<sup>1186</sup> Gutunean *Escaleran* dago, eta *re* azken bi letren gainean, hasieran ahantzi eta gero izkiriari duelako.

<sup>1187</sup> ‘Zabortegian’-edo. Goizuetan bada *Deskarga* izeneko baserria (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 68), baina ez dirudi testuko *deskarga* bazterretxe izen hori den.

<sup>1188</sup> *Galdurra*-rekin batean teiltuan ezartzen zen zurezko peza handia dugu hau. Ikus bitez 1801-10-25eko gutuna eta hiztegia.

<sup>1189</sup> Alegia, luzapenetan ibiltzen direla hargin-igeltseroak.

<sup>1190</sup> Gehienetan *artea* eta *bitartea*; inoizka *artean*.

<sup>1191</sup> Kuadroa egiteko neurria, kaizua.

<sup>1192</sup> Berriz ere -ta-dun forma, ez dakigu ongi zergatik.

<sup>1193</sup> Eskutitzean *Erreteriarra* dago.

<sup>1194</sup> Azken zatia honela ere puntua daiteke: «...*eta batzuek bealdu Erreteriarra, ta hamar edo hamaika kintal bezala olan badago, 10 lineatik 12 lineatarañokoa, [...]*».

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.03.26

Nagusi jauna:

Martin Jose de Goñik gaztañadian zer plazeria zuen ez nago segurur. Hor konpondu<sup>1195</sup> ziran biak;<sup>1196</sup> pezeta ote zuen nago, niri hala esan didala nago. Gizon hark berorrek pezeta agindu ta hark gehiago behar zuela, txaponen bat-eta ziola, ta egiñ zezala esan ziola berorrek, ta etzekiela txapona hura<sup>1197</sup> onduko ote zuen<sup>1198</sup> esan zidan niri, eta pezeta zela nago berorrek eskeñi ziona.

Uegunek<sup>1199</sup> esan dit berorri gaztigatzeko enborretako hau, botea libre,<sup>1200</sup> ~~hartu~~ nahi badio eman, hartuko duela 5½ realean, sei errealean pasatuko baita, honek<sup>1201</sup> eskatzen duen moduan. Errespuesta bealzeko. Errebesena dago emateko bitatik batean,<sup>1202</sup> baño anitz<sup>1203</sup> eskatzen du. Lagun ona omen du. Olaberria, 26 de marzo de 1802. *Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.

Goizarin

1802.03.31(A)

Nagusi jauna:

Uegun ta bere lagunak egiñ dute ikatza, 600 karga; egostekoa badute 200 bezala, eta egur egiñak ere zirala Uegun sartu zen.

---

<sup>1195</sup> Xulo tiki bat dago *n*-ren lekuan, baina zerbaixka ikusten ahal da, halarik ere.

<sup>1196</sup> Bata *Martin Jose de Goñi* delakoa da, baina bestea nor den ez dakigu xuxen.

<sup>1197</sup> *Txapon hura* behar luke. Ikus izen morfologiari eskainitako atalean dioguna.

<sup>1198</sup> 'Berorrek prezioa iritsiko ote zuen', 'berorrek prezioa hobetuko ote zuen'.

<sup>1199</sup> Gutunean *huego*q dago.

<sup>1200</sup> 'Eskatzea libre baita', 'zernahi eska baitaiteke'.

<sup>1201</sup> Delako *honek* horrek sei errealean eskatzen duela alegia. Ez dakigu, ordea, erreferentea, pertsona, zein den.

<sup>1202</sup> Apika 'zailena, okerrena da bi prezioetatik (5½ errealean vs 6 errealean) batean ematea'. Egun *bitik baten* 'aukeran', 'hautara', 'aukeratzekotan' da Goizuetan.

<sup>1203</sup> Behin baino gehiagotan azaltzen da eskutitzotan, egun Goizuetan ibiltzen ez bada ere. IBk *aunitz* dauka, behin behintzat.

Gure itxeko lurr puxka landakoen gañean<sup>1204</sup> Iberokoai<sup>1205</sup> Konejerak<sup>1206</sup> bi hogeï ezkutuko eman tiozte<sup>1207</sup> guk emanen gañera, ta gure dirua itzuli dute lurrak kenzeko eta hartu nahi gabez.<sup>1208</sup> Alkatearen eskuetan dago, eta Juakintxok idukitu<sup>1209</sup> duen zensoan hipotekan sartuak ziran lurrak, eta orañ Iruñera jokatzeke asmoa dut,<sup>1210</sup> itxea ta lurrak esamiñazi,<sup>1211</sup> eta enborretako hau zer diran ekusi.<sup>1212</sup> Itxearen ta lurran esamiñan pasatuko direla diote dirua emanak, eta Iruñetik despatxua atera edo ekarri beharko dugula eskriboak dio, eta orañ hartara goaz, eta kastabidea<sup>1213</sup> hartu dut, eta behar nuke hogeï ezkutuko bat. Hau kastatuko al dugula<sup>1214</sup> eskriboak<sup>1215</sup> esan digu, eta Barkazioa<sup>1216</sup> sartu baño len egiñ nahi genuke diligenzia hau. Lurrak iraulzeke denbora da ta libratu al baditzagu<sup>1217</sup> behinzat.

Basoak botatzen hasi gera eta lengo hamar ezkutukoaren<sup>1218</sup> gañera beharko dira 6 edo 7 ezkutu. Guziak aste honetan botatzen ezpadira ere, aurreratuko dira, denbora ona bada. Olaberria, *31 de marzo de 1802*.

*Su servidor Jose Ramón.*

<sup>1204</sup> Hau ez dakigu «landakoen gañean diren gure itxeko lur puxkak» ulertu behar den edo «gure itxeko landako lur puxkez gañera». Beste interpretazioren bat ere badagoke.

<sup>1205</sup> *Ibero* Leitzako dorrea eta burdinola zen, Goiko gainetik beheiti joanda Goizuetara iritsi baino lehen dagoena, herri honetatik kilometro pare batera, erreka bazterrean. Orain dorrea berritua dago.

<sup>1206</sup> *Konejera* Goizuetako baserria da. Seguruenik etxe izengoitia zen hau, alegia, ‘Konejera etxeokoa bi hogeï ezkutuko eman dizkie’.

<sup>1207</sup> ‘Eman dizkie’.

<sup>1208</sup> ‘Hartu nahi ez dutelako’.

<sup>1209</sup> ‘Eduki’.

<sup>1210</sup> ‘Iruñera jotzeke asmoa dut’.

<sup>1211</sup> ‘Etsaminarazi’. Egun bezala, *arazi*-ren *azi* forma laburtua ibiltzen zen 1802an.

<sup>1212</sup> Irudi du ‘ekusteko (asmoa)’ esan nahi duela. Beste batzuetan bezala, hemen ere artikulua atxikitzen du izenak, alegia, *dirua emanak* dago, *diru emanak*-en orde. Honen jarraian berriro ageri da sintagma hori. Ikus izen morfologiaren gaineko atalean dioguna.

<sup>1213</sup> ‘Dirua xahutzeke bidea’. Gutunean *Casta bidea* daukagu, bi eletan.

<sup>1214</sup> ‘Gastatzen ahalko dugula’, ‘segur aski gastatuko dugula’.

<sup>1215</sup> ‘Eskribauak’.

<sup>1216</sup> Ez dakigu xuxen zer barkazio den hau. Andres Urrutiari galdeginik, hau erantzun digu (a.a.): «Nik, eta bidali didazun testua aintzat hartuta, *Barkazioaren* esanahia testinguru horretan epeari dagokiola esango nuke, alegia, barkazioa (festaren bat) egutegian gertatu baino lehenago egin nahi dela *diligenzia* (*sic*) hori. Beharbada, edo *Omiainsandu eguna*, *Domusantu eguna*, edo Aste Santua eta zehatzago Pazko igandea izan daiteke (bekatuak barkatzeke garaia, Garizumaren barruan eta gero Pazko igandea, bertan jaunartzea egin behar baitzen, urtean behin gutxienez). Horrek badauka zerikusirik gerora datorrenarekin, alegia, *lurrak iraulzeke denbora da*. Badakizu nekazariak neurtzen zutela egutegia lurraen lanen arabera eta berdin errentak ordaintzeke egunak. Halaxe dago jasota Nafarroako Foruan».

<sup>1217</sup> ‘Libra baditzakegu’.

<sup>1218</sup> Zulo txiki bat dago originalean, baina ongi ulertzen da hitza.

A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1802.03.31(B)

Nagusi jauna:

Olatxokoak bigar akabatzen dituzte tretxuak, eta berotzalleak badituzte sei aste ta egun bat eta erdi, eta kabia konponzen aritua egun bat horietakoa. Guzia harzeko dute bien artean 64 pezetas y 20 cuartos, eta bealzeko diote.

Olaberria, 31 de marzo de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

1802.04.06

1802

*Expensa de martinete y mío, desde 28 de febrero hasta 3 de abril.*

<i>64 panes a 1 pezeta</i>	<i>.....64 pezetas</i>
<i>13 libras y 1 chiquito aceite a 30 cuartos</i>	<i>.....11 pezetas y 20 cuartos</i>
<i>119½ azumbres de sidra a 4 cuartos</i>	<i>14 pezetas y 2 cuartos</i>
<i>Sardinas de</i>	<i>.....2 pezetas y 17 cuartos</i>
<i>Expensa de marzo</i>	<i>.....92 pezetas y 5 cuartos</i>
<i>Len eskas dena</i>	<i>.....82 pezetas y 10 cuartos</i>
<i>Expensa olatxokoa</i>	<i>.....174 pezetas y 15 cuartos</i>
<i>Ola handikoa ere zor da</i>	<i>367 pezetas y 15 cuartos</i>

Olan badira kuadroak, 7 kintal bezala.<sup>1219</sup>

Arragoa gaur kargatzen hasitzen gera; aste honetan erretzeko egurra bildu al badezagu<sup>1220</sup> behinzat. Itzaiak dolorez<sup>1221</sup> heldu dira honara; mea zuri gutxi dugu, baño esperanza txarra dago bildu artea egoteko.

<sup>1219</sup> Zazpi bat kintal.

<sup>1220</sup> 'Bil badezakegu', 'biltzen ahal badugu'.

<sup>1221</sup> 'Nekez'.



Gazteluko meakariak geldirazi<sup>1222</sup> dituzte meatzetan. Deretxoak<sup>1223</sup> dituztenak justiziak geldirazi ditu. Memoriala presentatu omen dute meatze yabeak; Aldakokoa eta Olaizolaren jabea-ta<sup>1224</sup> atera omen dira. Olaberria, 6 de abril de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.04.07

Nagusi jauna:

Pierressek bialdu <sup>1225</sup> ditu <i>127½ pesos fuerte[s]</i> , <sup>1226</sup> ta hoietatik nerretzat hogei ezkutuko bat . . . . .	.80 pezetas
Sebastian Torrekoari ehun ezkutu	375 pezetas
Suerteko basotan sartu dira 41 días; hamar ezkutukoaren gañerakoak pagatu ditu	} 011 pezetas y 1 real
Arrago egurra leku muspelean <sup>1227</sup> dugu ta egur larria <sup>1228</sup> gutxitxo zimeldu da, ta ikatzgille arbazta igarra <sup>1229</sup> egurzaleai erakarri diotet <sup>1230</sup> zama kontuan, <sup>1231</sup> ta pagatu ditut	
Gastatu ditut . . . . .	.478 pezetas y 1 real
<i>127½ pesos fuertes</i> dira . . . . .	.510 pezeta
Gelditu dira . . . . .	.031 pezetas y 3 reales

<sup>1222</sup> Erka bedi aurreko gutun bateko *entendirazi*-rekin. Hau da, bietan *-iarazi* > *-irazi* bakuntzea gauzatu da. Ikus bedi aditz morfologiari eskainitako atala.

<sup>1223</sup> Meatzea ustiatzeko baimenak, iduriz; beste batzuetan ‘bide saria’-edo da. Ikus hiz-tegian dioguna.

<sup>1224</sup> Originalean *Jabea ta* dago.

<sup>1225</sup> Arruntean *bealdu* ibiltzen du JRMk.

<sup>1226</sup> Gutunean «*127½ pesos fuerte*» dago.

<sup>1227</sup> ‘Leku ospelean’, ‘laiotzean’. Egun *mospela* esaten da Goizuetan.

<sup>1228</sup> ‘Egur handia’, handiegia segur aski.

<sup>1229</sup> ‘Eta ikazkinentzako arbazta, adar xehe iharra’.

<sup>1230</sup> ‘Egurgileei, egurkariei ekarrarazi diet’.

<sup>1231</sup> ‘Zamaka ordainduz’.

Ta orañ Bonbon<sup>1232</sup> ta bere laguna etorri dira basora, eta batek baditu aizkorak ta besteak ez, ta eskatzen dute aizkorak egiteko ta oliorenzat<sup>1233</sup> 20 pezeta, [eta]<sup>1234</sup> artoa eta baba.

Artotako dirua errotariari eman beharko diogu. Tabernara ezkerro zabarra omen da Bonbon hau behinzat, ta honen lagunak dio hoguei pezetakoa orañ hartu ezkerro, diru beharrik ez dutela, artoa ta baba behar dituztela itxolarara segi dezaten, bestela dirua bealzekotan kastatu egiñen dutela. Ta babaren txartela ere beal beza hoienezat; guri itxera ekarrita behar dutenean basora eramanez dute. Eta Ibarburukoak<sup>1235</sup> txartela babarena bealzeko, anega<sup>1236</sup> batena, arrago yornalen alderako.<sup>1237</sup> Sebastian Torrekoak zituen artoak 45 anega, a 10 pezeta, hoguei ezkutu zor da, orañ ehun emanta. Pello Esnauk 18 anegaren lekuan 15 anega hartu ditu; etzen gehiago. Olaberria, 7 de abril de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

Olak hasi baño len, besteakin batean nahi badu txartela egiñ bi olatarako;<sup>1238</sup> hasitzean beharko da.

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.04.12(A)

1802. Luis Zuloagakoa.

Luis de Lekunaren ta bere lagunaren kontua.

Meak rezibitu ditut:

Aireko gañetik ..... 317 quintales y 1½ arrobas

---

<sup>1232</sup> Beste batzuetan ere agertzen den goitizena dugu hau.

<sup>1233</sup> *Oliorako*-edo espero genuen.

<sup>1234</sup> Zuloa dago eta ez da biziki ageri.

<sup>1235</sup> *Ibarburu* edo *Ibarburutxiki* Oiartzungo baserri baten izena da (ikus Goikoetxea eta Lekuona, 207: 154).

<sup>1236</sup> 'Ale edukiera-neurria, hamabi lakariren baliokidea' (EH).

<sup>1237</sup> 'Arrago soldaten truke'.

<sup>1238</sup> 'Bi oletarako', hau da, olatxorako eta ola handirako, Olaberria osatzen zuten bi oletarako. Hautetz landara *olaetxea* dago.

Metalmeatzetik .....029 quintales y ½ arroba  
Abono a la vuelta<sup>1239</sup> 340 quintales y 2 arrobas  
 Burnia hartu dute, arroa sei pezetakotik<sup>1240</sup> ....4 arrobas y 9 libras  
 Borra bat zulatua ta maneatua<sup>1241</sup> .....0 arroba 17 libras  
 Arroa sei pezeta ta errealakotik<sup>1242</sup> .....4 arrobas y 10 libras  
 Bi hogei ezkutuko berorrek bealduak hartu dituzte.

Olaberria, 12 de Abril de 1802.

### Vuelta

*Su servidor Jose Ramón.*

Palazioko<sup>1243</sup> mutill hoiek esan didate Errenteriako dendariagan[a]<sup>1244</sup> libranza<sup>1245</sup> edo txartela bealzeko. Arropak egiteko mea ona.<sup>1246</sup>

Luis de Lekunak, 12 de febreroan eman nion kontua semeari, ta geroztik egin du lana:

Airetik<sup>1247</sup> mea ekarri .....40 quintales y 2½ arrobas  
 Arrago egurrak ekarri ditu .....12 leras  
 Burnia hartu du 6 arrobas .....37½ pezetas<sup>1248</sup>

<sup>1239</sup> Olajaunaren beste ohar bat.

<sup>1240</sup> ‘Arroak sei pezeta balio duen burdinatik hartu dute’.

<sup>1241</sup> ‘Prestatua’, ‘konpondua’. Beharbada *altzairaturik* ere bazegoen.

<sup>1242</sup> Uste dugu *errealakotik* ‘erreal balio duenetik’ ulertu behar dela. Originalean *Errea / lacotiq* dago.

<sup>1243</sup> Oiartzungo baserria, *Iparragirre* edo *Iparragirrepalazio* ere deitzen dena (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 260).

<sup>1244</sup> Gutunean *dendariagan* dago. Ikus izen morfologiaren inguruko atalean adlatiboaz ihardukitzean dioguna.

<sup>1245</sup> ‘Ordainketa’, ‘dirua’.

<sup>1246</sup> Iparraldeko eta Nafarroako alderdi bateko ‘jostuna’ bide da hemengo *dendaria*, *arropak* aipatzen baitira. Bestalde, *dendariagana* espero genuen, ez *dendariagan*, aditza *bialdu* izanik. Hau honela ere irakur eta uler daiteke: «...libranza edo txartela bealzeko *arropak egiteko; mea ona*».

<sup>1247</sup> ‘Aireko gainetik’.

<sup>1248</sup> Gutun honen binperrean olajaunak erdaraz egindako hainbat apunte daude. Horietan interesgarrienak *Luis Lecuna Zuloagacoa* eta *Airaco gaña*, *Airacogaña* dira. Hirugarren orrialdean, euskarazko testuarekin batean, Juan Bautistaren apunte gehiago daude, horien artean *Airaco gana*, *leña p<sup>a</sup> Ragoa* eta *Luis Zuloagacoa* dauzkagu.

1802.04.12(B)

12 de abr[il] [de]<sup>1249</sup> 1802.

Lengo astean erre den arrago[a]ko<sup>1250</sup> jornalak, itzaiak.<sup>1251</sup> Luis de Lekunari eman diot hamabi leraren kontua, ta gañerakoak dira:

Franzisko de Irigoien . . . . .	9 leras
Franzisko de Aranburu . . . . .	9
Jose Antonio de Mitxelena . . . . .	6
Migel de Aranburu . . . . .	6
	<hr/>
	30 leras

Peonak

Manuel de Esnau . . . . .	8 días
Migel de Irigoien . . . . .	8
Bautista de Tomasenea . . . . .	6½
Markos de Intxaur[r]andieta <sup>1252</sup> . . . . .	1
	<hr/>
	23½ días

1 azumbre de vino 1 pezeta y 6 cuartos

Importan . . . . .68 pezetas y 1½ cuarto

Lengoak dira . . . . .1.041 pezetas y 15 cuartos

Guziak dira . . . . .1.109 pezetas y 16½ cuartos

Feliz igeleak esan dit haren mandatuaz oroitzeko; Agerrekoak ere bai. Bidasoron<sup>1253</sup> ez dutela artorik emateko esan didate; diruarekin alea edo bia<sup>1254</sup> billatzekotz Fagotxikira ekarri beharko dugu dirua. Berai ezin emanen zaie;<sup>1255</sup> dirua duteño<sup>1256</sup> zabarrak izanen dira.

<sup>1249</sup> Parentesi karratu artean dauden hauek ez dira ikusten.

<sup>1250</sup> Dokumentuari alde batean xerrendaxka bat falta zaio. Edukiari doakionez, gorago zehaztu dugun eran, honelakoetan ez da esan nahi arragoa bera erre dela, baizik arragoan mea erre dutela. Esateko modu hau frankotan azaltzen da.

<sup>1251</sup> 'Itzaienak'.

<sup>1252</sup> Eskutitzean *ynchauran.ta* dago. *Intxaurrandieta* Oiartzungo bazterretxea da.

<sup>1253</sup> Oiartzungo errota eta baserria da Bidasoro.

<sup>1254</sup> 'Bihia', *alea* bera, 'pikorra'. Axularren jokabidea dakarkigu gogora hitz adierakideak emate honek. Mendiburu oiartzuarrak ere baditu holakoak.

<sup>1255</sup> 'Berei ezin emanen zaie'. Normalean *zaiote* ibiltzen du, ez *zaie*.

<sup>1256</sup> 'Dirua duten bitartean zabarrak izanen dira'. Frailek eta Frailek (1996: 108) honelako bat kausitu zuten Ergoienen, Nafarroako mugatik hurbilen den Oiartzungo auzoan.

1802.04.24

Nagusi jauna:

Pierresak bealdu ditu 6 onza urre<sup>1257</sup> . . . . .480 pezetas  
 Espensak zor dira . . . . .577 pezetas y 10 cuartos  
 Falta dira . . . . .097 pezetas y 10 cuartos

Atzo hemen zen Faustoren anaia, 120 kintal sartu dutela barrena, ta orañik badela 80 kintal gutxienaz, eta lurra iraulzeko hamar ezkutuko bat bealzeko. Eta orañ banoa berorrek esan bezala ekustera, ta Jose Antonekin egonen naiz.

Olaberria, 24 de abril de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

1802.05.17

Nagusi jauna:

Xilitarrak<sup>1258</sup> ateratzen orañ ari diran meak lengoak baño belzago ematen du, eta txirlak<sup>1259</sup> baditu, ta nik esan diotet,<sup>1260</sup> lengoa gorriagoa baita hau baño, ta idortuta hala gorriago emanen duela orañoak ere esan didate, baño ez dute elkarren trazarik.<sup>1261</sup>

Sarastik omen zuen pilla hartan erosia 800 *quintales* eta pisatu omen dute larran<sup>1262</sup> hartatik aterea, Sarastirezat 924 *quintales*, eta gureztat atera ta<sup>1263</sup> sartu duten hura ere nonbait alde haietako izanen da, nahiz Sarastirena ta nahiz besterena dela, eta San Sidro egunean<sup>1264</sup> atera dutela ia<sup>1265</sup> hoge bat

<sup>1257</sup> 'Diru zaharra, urrezkoa, hoge edo hamasei ogerleko balio zuena' (EH).

<sup>1258</sup> *Silitarra*q izkiriata da. Lehenago *oiarzuar Xiliren boiek* daukagu; ikus 1800.05.07(A) eskutitzean dioguna.

<sup>1259</sup> Ikus hiztegia.

<sup>1260</sup> 'Lehenago mea hau baino gorriagoa dela esan diet'.

<sup>1261</sup> 'Ez dute elkarren antzik'.

<sup>1262</sup> Hemen ez da eultzia egiteko leku zelai-biribila, eta ez gatz larraina ere. Gehiago ematen du mendian basoa soildu eta mea ateratzeko egin den zirkulu edo plazatxoaren modukoa dela.

<sup>1263</sup> Eskutitzean *atera* eta *sartu*-ren artean idatzia da *ta*, goititurik, hasieran idaztea ahaztu eta, nonbait.

<sup>1264</sup> 'San Isidro egunean', bistan da. Salaburuk (1984: 78) *Xidro* eta *Zidro* aldaerak bildu zituen Baztanen, eta gutunotan *Sidro* bat baino gehiago dauzkagu. Ikus onomastika atala eta P. Salaberri (2009: 73).

<sup>1265</sup> Originalean *ya* dago, eta ezin txoil baztertu adiera 'jada' delako ideia.

kintal. Han dago; Jangoikoak daki norena den! Sarastiren larraña baño ezker-  
go atera dute denborazko olajaunen larrañ hondarrak,<sup>1266</sup> Unsañen<sup>1267</sup> larraña-  
ren soñuan.<sup>1268</sup> Nondik-nahi saiatu ezker ateratzen dute puxkaka, baño lengo  
gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek<sup>1269</sup> ez dira izanen,  
idortuta ere, nerekiko,<sup>1270</sup> nahiz berorrenak eta nahiz besterenak dirala.<sup>1271</sup>

Olaberria, 17 de mayo de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.06.22

1802 y 22 de junio.

Migel de Aranbururen kontua.

12 de noviembre de 801 ezker:

Gaztelutik mea ekarri du

Errenteriatik olara mea

ta burnia olatik. Guzia da

} 464 quintales

} 064 quintales y [...] <sup>1272</sup>

Fagotxikitik Errenteriara burnia . . . . .037½ quintales

Arrago egurketan . . . . .026 leras

Burnia hartu du . . . . .010½ arrobas

y 10 libras

Jose Ramon de Minondo.<sup>1273</sup>

<sup>1266</sup> ‘Aspaldiko olajaunen larrain hondarrak’. Testuari eman diogun puntuazioa zuzena balitz, aditza singularrean legoke (*dute*) eta osagarri zuzena pluralean (*larrañ hondarrak*). Hau ezaguna da, oraino ere, Oiartzunen. Ikus aditz morfologiaren gaineko atala.

<sup>1267</sup> 1796.06ko gutunean *Juan Joseph de Unsañ* zeritzana agertzen da.

<sup>1268</sup> Ez dago garbi zer erran nahi duen. Uste izatekoa da hartzaileak, Juan Bautista Minondo olajaunak, ederki konprenitzen ziola.

<sup>1269</sup> Ikus izen morfologian dioguna.

<sup>1270</sup> Originalean «*nere* . / *quico*»-edo dago, baina puntu (edo koma) moduko hori zer den ez da ongi ikusten, hezetasun orbanak galarazirik. Badaiteke, nolanhiko gisan, zirri-borrotxo besterik ez izatea eta hitza *nerekiko* irakurri behar izatea, beste gutun batean ere (ikus 1800.03.09) ageri baita, ‘nire ustez’ adierarekin.

<sup>1271</sup> Hitza ez da garbi ageri, hezetasun orbana baitu gainean, baina irudi du *dirala* dagoela.

<sup>1272</sup> Orriak xati bat eskas du.

<sup>1273</sup> Olajaunaren apunte batzuk daude honen jarraian. Interesgarrienak *Casaras Jouen* eta *Josepe* izendapenak dira.

1802.07.05

Nagusi jauna:

Gelditu [ditu]t,<sup>1274</sup> berorrek gaztigatu duen bezala,  
 espensenak eta Errenteriako dendariarenak . . .604 *pezetas y 5½ cuartos*  
 Eta bi anega ogi ola hasitzeko  
 billatu nituen<sup>1275</sup> juan den igandean,  
 pagatzeko hitzarekin, ta gelditu  
 ditut ogi hoietak .....054 *pezetas*  
Guzitara gelditu ditut .....658 *pezetas y 5½ cuartos*

Eta orañ hurrengo espensaren pagatzean<sup>1276</sup> emanak izanen ditu 54 peze-  
 ta hoiak hurrengo kontualdirako.<sup>1277</sup>

Orañ ez dakigu emanen diguten ogia gehiago. Orañ merkatzeko hotsak  
 dira, ta emanen al dute!<sup>1278</sup> Dirurik gabe ez gehiago juateko esan zigun len-  
 goan, ta orañ pagatzean hitz egiñen<sup>1279</sup> diogu, eta zer dion<sup>1280</sup> adituko dugu.  
 Aranederrekoak<sup>1281</sup> bestek ez darabill<sup>1282</sup> ogirik salzeko eta herri guzia har-  
 gana dihoa-ta,<sup>1283</sup> dirua eskuan nahi, tratu anitz erabilzeko.

Olaberria, 5 de Julio de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

<sup>1274</sup> Eskutitzean *guelditut* dago.

<sup>1275</sup> ‘Aurkitu nituen’.

<sup>1276</sup> Nabarmenezkoa da osagarri zuzena genitiboan dagoela, aditz izenarekin.

<sup>1277</sup> Bi hitzetan idatzirik dago: *Contu Aldiraco*.

<sup>1278</sup> ‘Emanen ahal dute!’, ‘araiz emanen dute!’.

<sup>1279</sup> Eskutitzean hitz bakar batean dago: *ytzeguiñen*.

<sup>1280</sup> ‘Zer dioen’.

<sup>1281</sup> Oiartzungo baserria (*Aranederra* denboraz, *Araneder* orain) eta errota (*Aranedererrota*). Ikus EJ eta Goikoetxea eta Lekuona (2007: 73). 1857an (NOPGI, 60) *Araneder* eta *Araneder-errota* zeuden.

<sup>1282</sup> ‘Aranederrekoak baizik ez darabil’. Originaleko *besteq* hitzaren laugarren letra ez da osorik ikusten, dokumentuan zuloa dago eta. Bestalde, *darabill* adizkia ondoko *ogui-*rekin bat eginik dakusagu eskutitzean: *darabillogui / riq*.

<sup>1283</sup> Gutunean *dioata* daukagu. Pasarte hau honela ere puntua eta uler daiteke: «*Aranederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko eta herri guzia hargana dihoa, ta dirua eskuan nahi, tratu anitz erabilzeko*».

Diru hau, gildudan<sup>1284</sup> boneda,<sup>1285</sup> da zorzi onza, lau zarrak eta lau berriak,<sup>1286</sup> eta 17 pezeta.

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.07.07

Gure alderdian enbarazo gutxi eg[...],<sup>1287</sup> eta nahi badu beren itxe txarrean urteren bat iragoko<sup>1288</sup> dutela gehienaz ere. Eta borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen tiodala<sup>1289</sup> goian leku libre traste zakar abarrak<sup>1290</sup> idukitzeko, eta bean ahuntzategia, eta kupela iduki nahi badu ere bai, ahunzakin gorotza beretzat egiten duela, hemen izatekotz, behar genuen bezala, kanpora yoanta ere. Eta esan dit ahuntzategia eskatzera ezin atrebituz zegoala, eta graziak handiak<sup>1291</sup> egiten tiodala, baño ez predarik hartzeko,<sup>1292</sup> hark bere puskak eramanagatik tellatua eta paretak besterik ez dagoela haren itxean, ta yoanen badira puskak eraman beharra izanen duela, eta bereak dituen bezala,<sup>1293</sup> eraman ditzala esan diogu. Olaberria, 7 de julio de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

8 Julio<sup>1294</sup>

Damian .....2½  
Muxudo<sup>1295</sup> .....2½

<sup>1284</sup> ‘Gelditu dudán’. Lehen lerroan ere ez bide zuen ongi idatzi.

<sup>1285</sup> ‘Txanpona’. Beste batzuetan *txapon* hitza ibiltzen du. Orain arte forma hau (*boneda*), hutsa ez bada segurik, dokumentatu gabe zegoen.

<sup>1286</sup> Hortaz, *ontza* dirua *zaharra* eta *berria* izan zitekeen, 1802an.

<sup>1287</sup> Gutunak xerrendaxka eskas du garaiko aldean, ezker-eskuin, eta lehen esaldia ez da ongi irakurtzen ahal. Irudi du «*enbarazo gutxi egi[ten]*» dagoela hasieran, baina ez da guziz argia, akabaila partikulariki.

<sup>1288</sup> Goizuetan *i.rá.o* egun.

<sup>1289</sup> Hemen *tiodala* (< *ditiodala*) ‘dizkiodala’ dugu.

<sup>1290</sup> Traste zakar multzoa. *Tretxu txiki abarrekin* ere badago; ikus hiztegia.

<sup>1291</sup> *Grazia handiak* espero genuen; ikus izen morfologiaren inguruko kapituluaren hone-lakoez dioguna.

<sup>1292</sup> «*Baina ez duela predarik [haltzaririk...] hartzeko*».

<sup>1293</sup> ‘Eta bereak dituen ez gero’.

<sup>1294</sup> Olajaunak erdaraz egin apunteak.

<sup>1295</sup> Izengoitia; behin baino gehiagotan kausitzen dugu.



Laguntxon <sup>1296</sup>	.....	.2½
Ignazio Bengoetxea	.....	.2½
Matias	.....	.5 fuertes <sup>1297</sup>
Solla <sup>1298</sup>	.....	.2½
Jul[...] <sup>1299</sup> Arano	.....	.2½
Matxinoa <sup>1300</sup>	.....	.2½
Domingo Pastor	.....	.2 ducados
Bauptista Sunbilla	.....	.2 ducados
Juakin Eraso	.....	.1 ducado
Patxiko Azeria	.....	.1 ducado
Peones [...] <sup>1301</sup>	.....	.6 ducados
Juan Legia <sup>1302</sup>	.....	.1 ducado

A don Juan Bautista de Minondo.  
 Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1802.07.11

Nagusi jauna:

Jose Migel de Irigorrik<sup>1303</sup> baditu lau ezkutu arrago egurketan,<sup>1304</sup> eta esan dit bi anega babaz gaztigatzeko berorri,<sup>1305</sup> ta gañerako konponduko duela lanaz.<sup>1306</sup> Eta hortik heldu diran kabillak hemen daude, eta itzaiak baietz esanta beren gisa dabilza, honara gabe, eta zerbait bealdu edo zerbait egiñ beharko zaio-

<sup>1296</sup> Edo «Laguntxan» apika.

<sup>1297</sup> (*Escudos*) fuertes ‘ezkutu lodiak’ ulertu beharko. Ikus hiztegioko *ezkutu lodi* sarre-ran dioguna.

<sup>1298</sup> Izengoitia; behin baino gehiagotan azaltzen da *Sollarena*.

<sup>1299</sup> Ez da ongi ulertzen. Irudi luke *Juler* edo *Julen* ezartzen duela, baina, jakina, *Julen* ponte izena Sabin Aranaren (1980 [1897]: 987, 1910: 69) lanean kausitzen dugu lehen aldiz, mende bat geroago, *Julián* gaztelaniakoaren kidetako.

<sup>1300</sup> Izengoitia. Ikus onomastikari eskainitako atala.

<sup>1301</sup> Ezin dugu irakurri.

<sup>1302</sup> Ez dugu guztiz argi irakurtzen ahal.

<sup>1303</sup> Oiartzungo Altzibar auzoko bi baserriren izena da *Iraborri* (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 161).

<sup>1304</sup> ‘Arragoarako egur garraioan’.

<sup>1305</sup> «*Bi anega babaren txartela behar duela gaztigatzeko berorri*» ulertu behar dela dirudi.

<sup>1306</sup> ‘Lanarekin’. Frankotan aurkitzen dugu instrumentala egun sozietiboa ibiliko genu-keen testuinguruetan.

te fundamentuz hasiko badira. Gogo txarra daukate hagitz, eta arku harriak<sup>1307</sup> bigar akabatzen dira ateratzez,<sup>1308</sup> eta hortik Karretto<sup>1309</sup> edo norbait bealzen balu nahiago genuke,<sup>1310</sup> eta enforru<sup>1311</sup> hoiek eta bularrak<sup>1312</sup> eta alderdi guziak konpondu beharrak dira. Eta hortik heldu den hargiñaren jana nola behar den konponduta beal beza. Nahi badu,<sup>1313</sup> olan baba egosita, ogia emanen zaio, eta zer gastatzen duen ageriko da. Olioia neurrita<sup>1314</sup> paratuko diogu, edo nola nahi duen gaztigatuko du,<sup>1315</sup> eta olan bertan etziñ daiteke, nahi badute.<sup>1316</sup>

Olaberria, 11 de julio de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

## 1802.08.Hasiera

1802

Hargiñen aste bateko eta olatxokoen bos[t] asteko<sup>1317</sup> espensaren kontua.  
*Desde 27 de junio hasta 31 de julio.*

*11½ panes a 6 reales y 40 panes a*

*40 cuartos importan . . . . .64 pezetas y 10½ cuartos*

---

<sup>1307</sup> Irudi du ola konpontzen ari zirela. *Arku harri* hitz hau ez da, dakigunez, beste inon dokumentatzen, baina gardena da; ate-leihoen arkuak egiteko ibiltzen ziratekeen. Irudi du harrobitik olara eraman behar zirela eta garraiorako itzainik ez zutela.

<sup>1308</sup> Ikusten den bezala, instrumental mugagabea eskatzen du *akabatu* aditzak, ez inesibo mugagabea.

<sup>1309</sup> *Karrètò* Goizuetako etxe baten eta baserri baten izena da (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 118-119), eta *Karrètò*, *Karrètò* bazterretxekoen izengoitia.

<sup>1310</sup> 'Bidaliko balu nahiago genuke', 'bialtzea nahiago genuke'.

<sup>1311</sup> OEHren arabera 'forroa' da *enforrua*. Hortaz, eta horren arabera, barruko paretak konpontzeaz ari da Jose Ramon.

<sup>1312</sup> Hormen bularrak, bularren erako ateragune arriskugarriak dira hauek, pareta zorroak alegia, edo ostikoak?

<sup>1313</sup> Hau beste gisan ere puntua daiteke: «...beal beza, nabi badu. Olan [...]».

<sup>1314</sup> 'Neurtuta' esan nahi du. Forma hau ongi dokumentatua dago, berandu arte (OEH). Hortaz, *bealdu*, *egondu*, *idukitu* eta *izandu* ditugu, baina *neurri* 'neurtu' eta *ezagun* 'ezagutu'.

<sup>1315</sup> «Gaztigatuko du berorrek».

<sup>1316</sup> *Daiteke* eta *dute* batera: «olan bertan etzan daiteke bargina, olagizonek nabi badute» ulertu behar da?

<sup>1317</sup> Originalean *bos Asteco* dugu.

<i>10 libras y un chiquito aceite</i>	
<i>a 32 cuartos</i> . . . . .	<i>9 pezetas y 18 cuartos</i>
<i>Sardinas y abadejo de</i> . . . . .	<i>4 pezetas y 28 cuartos</i>
<i>41½ azumbres de sidra a 4 cuartos</i> . . . . .	<i>4 pezetas y 30 cuartos</i>
<i>24 azumbres de sidra a 12 cuartos</i> . . . . .	<i>8 pezetas y 16 cuartos</i>
<i>2 azumbres y un chiquito de vino</i>	
<i>a 36 cuartos</i> . . . . .	<i>2 pezetas y 8½ cuartos</i>
<u><i>Expensa de martinete y canteros</i></u>	<u><i>94 pezetas y 9 cuartos</i></u>
<i>Nere espensa ½ pan</i>	<i>25½ cuartos</i>
<i>Carne una libra</i> . . . . .	<i>10 cuartos</i>
<u><i>Kuartillu vino</i></u> . . . . .	<u><i>9 cuartos</i></u>
<i>En 18 días</i> . . . . .	<i>44½ cuartos</i>
<i>En 17 días heldu da</i>	
<i>ogi erdiari 5½ quintales</i>	
<i>kendu ta heldu da eguneko</i> . . . . .	<i>39 cuartos</i>
<u><i>18 días 44½ quintales y 17 días 39 cuartos importan 43 pezetas y 2</i></u>	
<u><i>cuartos</i></u>	
<i>Todos importan</i> . . . . .	<i>137 pezetas y 11 cuartos.</i>

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.08.04

Nagusi jauna:

Olatxoko berotzalleak pagatu ziran *en 25 de abril*  
 Geroztik dituzte bakoitzak . . . . . *7 semanas y 1 día*  
 Eta Arburuk ola handian irabazi zuen *5 pezetas*  
 Arburuk zor du . . . . . *14½ cuartos*  
 Juan Antoniok harzeko du . . . . . *15 pezetas y 28 cuartos*

*Hasta 4 de Agosto de 1802.*

Munoako semeak, *julio 98*<sup>1318</sup> hartu zituen 16 ezkutuak pagaturik, egin zuen harzeko, arrago jornalak azkeneko pagatu ziran denborako, orañ hiru urte, baita...*14 ½ reales.*

<sup>1318</sup> Originalean *98 han* dago.

Nik kontuarekin bealdu ta berorrek ez zition egiñ kontuak, eta geroztik baditu horrara kontua bealduak, artemingo<sup>1319</sup> paperean bealdu nuen bezala... 127 días.

Hoietarako burnia hartu du 1 arroba...6 pezetas.

Nik ematen dudan kontu honetan heldu da harzeko...156 pezetas y 1½ reales.

Hamasei ezkutu lenbizikoak utzi, eta geroztik zer emana duen kontua egiñen du.<sup>1320</sup>

Orañ egun hoiek, arrago erretzean, elkarri eratsiko tiogu aurrera.<sup>1321</sup>

## 1802.08.10

Nagusi jauna:

Olatxoko espensak pagatu diran ezkerro, ola handikoak ere pagatu nahi baditu, azkeneko arragoakoak dira zor, ta dira 123 pezetas y 30½ cuartos

Hoietarako pagatu ziran bi anega ogi . . . .054 pezetas

Falta dira . . . . .069 pezetas y 30½ cuartos

Haizarka<sup>1322</sup> honetan beti maxura<sup>1323</sup> da; burnirik eziñ berotu da, alde-tatik<sup>1324</sup> puska dariola.<sup>1325</sup> Agudo egiñ behar da hau, hemen lanik egitekotan.

Donostian ogia zorzi kuartoan dagoela esan du Manuelek, eta prezio diferentetan ebilzen omen da, anitz dagoenean merkexeago eta gutxi denean garestiago. Lengo izan denean<sup>1326</sup> Manueli erakarri diot<sup>1327</sup> nik ogi bat, eta hamar kuartoan pasatzen zen hura, libra, ogi gutxi omen zen-ta.<sup>1328</sup>

---

<sup>1319</sup> 'Orain denbora gutxikoa', 'aspaldi gabekoa'. Ele hau (edo honen aldaeraren bat) Baztanen eta Erroibarren ere bada, baina ez da edo ez zen Aezkoa eta Eguesibarraino iristen (Camino, 2004: 139-140).

<sup>1320</sup> 'Kontua eginen du berorrek'.

<sup>1321</sup> Originalean, lekurik ez izanez, azken bokala aurreko *r*-aren gainean dago idatzirik.

<sup>1322</sup> Burdinolako peza da hau. Ikus hiztegia.

<sup>1323</sup> 'Matxura'; gutunean *Massura* idatzia da. Goizuetako zaharrei *maxura* aditu izan diegu. Ikus hiztegia.

<sup>1324</sup> 'Aldeetatik'.

<sup>1325</sup> *Dariola* aditzarekin beste zerbait espero genukeen, ez *puska*, baina hola dago, egon ere. Ikus Mendiburuk (1982: 269) darabilen beste hau: «*S. Francisco Xavier-ec àn len milagroac età milagroac ceriozcala eracutsi zuèn legue santa*».

<sup>1326</sup> 'Lehengoan Manuel Donostian izan denean', 'Manuel Donostian izan den lehengo txandan'.

<sup>1327</sup> 'Ekarrarazi diot'.

<sup>1328</sup> Originalean *omenzenta* dago.

Bordatxok iriña ekarri du, 17 pezeta ta  $8\frac{1}{2}$  cuartos anega, eta 16 pezeta eta erdian ere omen zen alea,<sup>1329</sup> eta orañik hemen hogei pezetan dago errotatan.<sup>1330</sup> Aranederrean bestetan ez da horregatik.<sup>1331</sup> Olaberria, 10 de agosto de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.08.14

Nagusi jauna:

Manuel de Esnauren kontua bealdu nuen . . . . .  $163\frac{1}{2}$  días

Ta burnia hartua 5 pezetas

Geroztik pasatu ditu arragoa kon-

ponzen ta erretzeko lanetan . . . . .  $35\frac{1}{2}$  días

Guziak ditu . . . . . 199 días<sup>1332</sup>

Eta hartua burnia 5 pezetas

Eta hogei pezetakoren batean galdu zuela esan zuen 20 cuartos.

Olaberria, 14 de agosto de 1802.

*Su servidor Jose Ramon de Minondo.*

1802.09.02

*Año de 1802. Expensa de martinete.*

*Desde 1 de agosto hasta 28 de agosto.*

*25½ panes a 40 cuartos y 23 panes a 30 cuartos*

*importan . . . . . 50 pezetas y 10 cuartos*

*10 libras y 1 chiquito aceite a 32 cuartos . . . . . 9 pezetas y 18 cuartos*

<sup>1329</sup> Anega irinak hamazazpi pezeta eta zortzi kuarto eta erdi balio zuen, eta anega (gari) aleak hamasei pezeta eta erdi, omen.

<sup>1330</sup> Egun ere errotatan esaten da Goizuetan, batuko errotetan adierazteko. Ikus izen morfologiaren inguruko kapitulua.

<sup>1331</sup> 'Aranederrean baizik ez dago, hala ere'. Hemen ikusten da artean Aranederria zela Oartzungo baserriaren eta errotaren izena, ez Araneder.

<sup>1332</sup> Honen azpian olajaunaren Pagué todo apuntea dago.

21½ azumbres de vino a 36 cuartos	22 pezetas y 26 cuartos
10 azumbres de sidra a 3 cuartos y	
10 azumbres a 2 cuartos . . . . .	01 pezeta y 16 cuartos
11 libras de abadejo <sup>1333</sup> a 19 cuartos . . . . .	06 pezetas y 5 cuartos
Arragoako ogi bat eta pitxer	90 pezetas y 7 cuartos
ardoa ere kontu honetan sartuak dira	
Nere espensa en 17 días ½ pan 20 cuartos	10 pezetas
en 11 días . . . . .15 cuartos	04 pezetas y 29 cuartos
28 días cada kuartillu a 9 cuartos	07 pezetas y 14 cuartos
28 libras de carne a 10 cuartos	08 pezetas y 8 cuartos
Guziak dira . . . . .	120 pezetas y 24 cuartos
Ola handikoak zor dira . . . . .	123 pezetas y 30½ cuartos
Guziak dira . . . . .	244 pezetas y 20½ cuartos
Espensa guzia da 244 pezetas y 20½ cuartos	
Hoietarako badira len emanak . . . . .	060 pezetas y 8 cuartos
Falta da . . . . .	184 pezetas y 12½ cuartos

Pelo[a]gan<sup>1334</sup> tella erre da ta nahi duen guziak harrapatuko ez du<sup>1335</sup> noski, ta dirua beharko da. 4.000 tella behar da; gutxienaz milla tellak balioko du<sup>1336</sup> sei ezkutu, 4.000 tellak . . . . .24 pesos<sup>1337</sup>

Kisuak <sup>1338</sup> ere pagatu behar dira sei karga . . .	12 pezetas
Eta beste sei karga . . . . .	9 pezetas
Tellak eta kisuak . . . . .	111 pezetas
Nik ere behar nuke . . . . .	80 pezetas

Olaberria, 2 de setiembre de 1802.

*Su servidor Jose Ramon de Minondo*

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

<sup>1333</sup> Bakailaua edo antzekoa, gazitua.

<sup>1334</sup> Gutunean *pelogan* dugu. Hau Oiartzungo *Feloaga*, *Beloaga* baserria da, egun ere *P-*rekin ebakitzen dena (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 138). Testua ikusirik irudi du teileria ere bazela bazterretxe hau.

<sup>1335</sup> Ohart bekio *AN* + *ez* + *AL* hurrenkerari.

<sup>1336</sup> Mila teila edo lau mila teila izanik ere, aditza singularrean kopuruekin, hemen eta beste batzuetan.

<sup>1337</sup> Hemen garbi ageri da euskarazko *ezkutua* eta gaztelaniazko *peso*-a elkarren balio-kideak zirela.

<sup>1338</sup> ‘Gisuak, kareak’.

1802.10.01

Nagusi jauna:

Jose de Aranburu ta bere anaïen meatik rezibitu ditut

22 de junio ezkerro . . . . .77 quintales y ½ arroba

Borra gaia<sup>1339</sup> hartu dute . . . .12 libras

Hau hiru anaïean<sup>1340</sup> mea ateratzeko kontua da.

Migelek idian lanak berak hartuko ditu. Olaberria, 1 de octubre de 1802.

Su servidor Jose Ramon de Minondo.<sup>1341</sup>

1802.10

Año de 1802.

Desde 29 de agosto hasta 2 de octubre.

En martinete 26 panes a 30 cuartos y 8 panes a pezeta

y 1 pan en arragoa importan 31 pezetas y 32 cuartos

1¼ azumbres de vino componiendo remienta y

1 azumbre de arragoa importan ] . . . . .02 pezetas y 13 cuartos

4 libras y 3 chiquitos aceite a

32 cuartos . . . . .04 pezetas y 4 cuartos

Sardinas de . . . . .01 pezeta y 23 cuartos

64 azumbres de sidra a 4 cuartos y ]

10 azumbres a 5 cuartos . . . . .9 pezetas

Expensa de martinete . . . . .49 pezetas y 4 cuartos

Míos en 15 días ½ pan a 15 cuartos . . . . .06 pezetas y 21 cuartos

En 20 días ½ pan a 17 cuartos . . . . .10 pezetas

En 35 días cada kuartillo a 9 cuartos . . . . .09 pezetas y 9 cuartos

En 35 días 35 libras carne a 10 cuartos . . . . .09 pezetas y 26½ cuartos

De martinete y mío . . . . .84 pezetas y 26½ cuartos

Len kontua bealdua zor dena . . . . .184 pezetas y 12½ cuartos

Eta ola handikoak azkeneko

egun hoietan egiñ dutena da . . . . .053 pezetas y 22 cuartos

Expensa zor den guzia . . . . .323 pezetas y 4 cuartos

<sup>1339</sup> 'Borra edo mailu handia egiteko gaia'.

<sup>1340</sup> Eskutitz berean anaïen eta anaïean, batuan anaïen dioguna adierazteko, irudiz.

<sup>1341</sup> Gutunaren binperrean olajaunak egindako hainbat apunte daude. Interesgarriena Jose de Aranburu hori bera datekeen Josepe agertzea da.

A don Juan Bautista de Minondo.  
 Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1802.11.Hasiera

1802. Desde 2 de octubre hasta 30 de octubre.

En martinete 19 panes a 1 pezeta y 22¾ panes	
a 36 cuartos importan	.43 pezetas y 3 cuartos
10 libras y un chiquito aceite <sup>1342</sup>	
a 30 cuartos	.8 pezetas y 32 cuartos
82¼ azumbres de sidra a 4 cuartos,	
71 azumbres y 11¼ azumbres a 6 cuartos	10 pezetas y 11½ cuartos
Sardinas de	.01 pezetas y 17 cuartos
Expensa de martinete	.63 pezetas y 29½ cuartos
Míos en 15 días ½ pan a 17 cuartos	08 pezetas y 17 cuartos
En 13 días a 18 cuartos	.06 pezetas y 30 cuartos
En 28 días 28 cuartillos a 9 cuartos	07 pezetas y 14 cuartos
28 libras de carne a 10 cuartos	.08 pezetas y 8 cuartos
Expensa de octubre	.94 pezetas y 30 cuartos
Lengoak dira	.323 pezetas y 4 cuartos
Guziak dira	.418 pezetas y ½ cuarto

1801. Noviembre 10. Con Joseph Ramón pagué.<sup>1343</sup>

Aste honetan ola handikoak egin duten espensaz gañerako zor dena<sup>1344</sup> da hau, ta jendeak galdatzen dute.

Paskual de Isasak esan dit haren kuartoak bealzeko, San Martin egune-ko<sup>1345</sup> errenta pagatu behar duela preziso, ta Fagotxikiko neskatxa hau ere

<sup>1342</sup> Eskuarki *txiki ardoak* ohi dira, egun ere, baina hemen *txiki olio*a daukagu. Uste iza-tekoa da, hura bezala, hau ere litro laurdenekoa dela, nahiz olio a hemen libranka neurtzen den, ez litroka.

<sup>1343</sup> Olajaunaren apuntea.

<sup>1344</sup> 'Zor den gainerakoa'.

<sup>1345</sup> 'Egunerako'.



beti hemen zabilkidan<sup>1346</sup> ondotik, eta nik eman tiot<sup>1347</sup> 20 pezeta, ta gañera-koak ere nahi!<sup>1348</sup>

Tobera beal beza. Ola gelditu da eskarpa guzia erreta eziñ ariz.<sup>1349</sup>

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.11.14

Nagusi jauna:

Nikolas Muxudok<sup>1350</sup> burnietan deskuidoren bat duela<sup>1351</sup> dio hor, hiru urtekoa; bada, orañ hiru urte:

*Octubre de 99. Hartu zuen burnia 9 arrobas*

*Noviembre de 800. Hartu zuen . . .6 arrobas*

*Mayo 802 . . . . .6 arrobas*

Horra azkeneko Muxudoren kontuko burniak nola diran.<sup>1352</sup>

Martin Aldakokoak esan dit gaztigatzeko berorri nola gaztañadi bat hartzeko tratuan den, eta preziso behar litukeala bere kuartoak, eta arotzan kontua bealzeko, ta gañera olarena. Martiñek bere hola<sup>1353</sup> eman zuen obra hone-tarako 312 beso a 1½ reales besoa.<sup>1354</sup>

Olaberria, 14 noviembre de 1802.

*Su servidor Jose Ramón.*

Gabierrotako<sup>1355</sup> babaz ere oroitzeko.

---

<sup>1346</sup> ‘Zebilkidan’.

<sup>1347</sup> *Eman ditiot* ‘eman dizkiot’.

<sup>1348</sup> Hemen aditz laguntzailearen ezabaketa –kasu honetan aditz osoarena gauzatu dela ere esan daiteke– hanpagarria daukagu. Ikus aditz morfologiari buruzko kapituluan honetaz dioguna.

<sup>1349</sup> Ikus hiztegian dioguna. Ifrentzuan dago idatzia, ola jaunaren helbidearen aurretik, baina helbidea gora begira eta hau behera, nolabait esan.

<sup>1350</sup> Goitizen itxura du *Muxudo* honek. Erka bedi *Bizaro*, *Ezkerdo*, *Zabardo* eta besterekin.

<sup>1351</sup> ‘Berorrek duela’ ulertu beharko da hau.

<sup>1352</sup> ‘Horra nola diran Muxudoren kontuko azkeneko burniak’.

<sup>1353</sup> *Bere hola* ‘hola-hola’, ‘holaxe’.

<sup>1354</sup> ‘Luzera-neurria, ukondotik esku puntarainoko tartearen baliokidea’ (EH).

<sup>1355</sup> Erreterriako hiri auzoa dugu *Gabierrota* (EJ), seguruenik oikonimoa hastapenean.

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1802.11.25

1802 y 25 de noviembre.

Manuel de Esnauk ditu jornalak

*desde fin de julio de 1799 a 5 reales de vellón . . . .220 días*

Nik emanak ditu . . . . .2½ pezetas

Burnia hartu 1 arroba . . . . .5 pezetas

Migel de Irigoien honek orobat

*desde fin de julio de 1799 a 5 reales de vellón 153½ días*

Nik emanak ditu . . . . .15 pezetas y 20 cuartos<sup>1356</sup>

Burnia hartu du 1 arroba . . . . .6 pezetas

Berorrek emanak hamasei ezkutu pagatu eta egiñ zuen harzeko *hasta fin de julio de 99*rañokoan *14½ reales*, eta abonatu beharrak dira hoiek ere.

Kaperok hartu nahi du Arragoako peonko<sup>1357</sup> lana alde batera,<sup>1358</sup> mutilla ere badu, ta nik txartel bat eginta bealduko dut horrara konponzera. Eta bestela, honara laster agertu asmo badu,<sup>1359</sup> hemen konponduko dira.

Olakoai kontuak egitera honara etorzekotz,<sup>1360</sup> nere asentuak ere ekarri ditzake, garbi ditzagun.

Markosek hogezi ezkutukoren bat besteri kendu diola ta gastatu duela, eta igandeko<sup>1361</sup> preziso behar duela dio.

*Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

---

<sup>1356</sup> Irudi du ½ ere badagoela, hots, 20½ direla kuartoak, baina lerro bukaeran da eta ez da guztiz argi ikusten.

<sup>1357</sup> Gutunotan *maisucoa*, *massucoa* ere bada; IBrenetan *peonza* agertzen zaigu, *peonko*-ren esanahi berarekin. Garai bertsuko Berako testu administratiboan (Santazilia eta Taberna, 2019: 842) -ko dago lanbidea adierazten duten hitz hauean: *aprendizco*, *barbercuan*, *dotorecuan*.

<sup>1358</sup> *Lana alde batera (hartu/egin)* ‘lana destajuan (hartu/egin)’.

<sup>1359</sup> *Berorrek* da honen subjektua.

<sup>1360</sup> ‘Berori etortzekotan’, ‘berori etortzen bada’.

<sup>1361</sup> ‘Iganderako’.

1802.12.05

1802, desde 31 de octubre hasta 27 de noviembre.

En martinete 53¾ panes

a 36 cuartos importan . . . . . 56 pezetas y 31 cuartos

13½ libras de aceite a 30 cuartos 11 pezetas y 31 cuartos

24 azumbres de sidra a 10 cuartos

40¼ azumbres a 4 cuartos

11 azumbres a 8 cuartos

11¼ azumbres a 6 cuartos 16 pezetas y 12 cuartos

4 azumbres de vino a 36 cuartos 04 pezetas y 8 cuartos

sardinias de . . . . . 02 pezetas y 2 cuartos

Expensa de martinete 91 pezetas y 16 cuartos

Míos en 28 días ½ pan . . . . . 14 pezetas y 28 cuartos

28 cuartillos a 9 cuartos . . . . . 07 pezetas y 14 cuartos

28 libras de carne a 10<sup>1362</sup> cuartos 08 pezetas y 8 cuartos

Expensa de noviembre . . . . . 121 pezetas y 32 cuartos

Labianoren diruak ziran... babak hogei pezeta, eta Txotxa zenaren seme-ari hogeita bost eman... 45 pezetas, ta gañerakoak 100 pezetas y 8½ cuartos. Ta gañerakoak falta dira, 21 pezetas y 23½ cuartos, eta ola handikoak zor dutena da 169 pezetas y 14 cuartos.

Guzia da 191 pezetas y 3½ cuartos.

Arotzak ere estu daude. Bat horrara etorzeko asmoa dute,<sup>1363</sup> eta Kasabillako ere egun hemen zen Paskual de Isasa.<sup>1364</sup> Olaberria, 5 de diciembre de 1802.

Su servidor Jose Ramón.

A don Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

<sup>1362</sup> Ez da zenbakia guztiz argi ikusten.

<sup>1363</sup> 'Bat horra joateko asmoa dute', 'asmoa dute bat horra joan dadin', Goitzarina alegia. Gutunotan, zenbaitetan, joan 'etorri' adierarekin agertzen da, orain(dik) Iparraldeko zenbait lekutan egiten den bezala.

<sup>1364</sup> 'Eta egun Kasabillako (Kontsejuko, herriko etxeko) Paskual de Isasa ere hemen zen' edo 'eta Kasabillarako ere egun hemen zen Paskual de Isasa'.

1802.12.16

Nagusi jauna:

Bautista de Tomaseneak ditu olan

*19 de diciembre ezkerro . . . . .18 semanas y 2 dí[as]*<sup>1365</sup>

Ziburura bi beaje gañera

Arragoako jornalak *desde fin de julio de 1799 . .155 días*

Hartuak ditu neregandik diruak<sup>1366</sup> . . . . .*35 pezetas*

Burnitan . . . . .*25 pezetas y 8½ cuartos*

*Hasta 16 de diciembre de 1802.*<sup>1367</sup>

Jose Ramon de Minondo.

1803.01.03

#### Zuloagakoa

Nagusi jauna:

Mutill horren<sup>1368</sup> meak.

Kontuan bealdu nuen burni hartuen arrazoia *3 arrobas y 13 libras*,<sup>1369</sup> eta hoietatik herreroak eramanak ziran *3 arrobas y 8 libras* eta burni ziri bat; mutill horrek berak *5 libras*, eta hau horrek bere gisa pagatu behar duela dio, eta besteak meakari lagunakin batean. Olaberria, *3 de enero de 1803*.

*Su servidor Jose Ramón.*

1803.01.05

*1803 y 5 de enero.*

*Desde 28 de noviembre pasado hasta 1 de enero expensa de mío.*<sup>1370</sup>

---

<sup>1365</sup> Lerro bukaeran dago eta *-as* ez da ikusten.

<sup>1366</sup> Hitz honen azken *k* hori (originalean *q* datekeena) ez da guztiz ongi ikusten, zuloa dagoelako, baina zerbaiten aztarna bada, eta ia segurua da *diruak* irakurri behar dela, ez *dirua*.

<sup>1367</sup> Honen ondoren guretako interesik ez duten olajaunaren apunteak heldu dira.

<sup>1368</sup> Originalean *Mutillorren* dugu hemen, eta beheitixeago, eskutitz honetan berean, *Mutillorreq*.

<sup>1369</sup> Honela ulertu beharko da: «kontuan bidali nuen burdina hartuen arrazoiari mutill horren meak hiru arroa eta 13 libra ziren».

<sup>1370</sup> 'Expensa de lo mío', 'neronek egindako gastua'.

<i>En 35 días ½ pan a 18 cuartos</i>	<i>18 pezetas y 18 cuartos</i>
<i>35 cuartillos a 9 cuartos</i>	<i>9 pezetas y 9 cuartos</i>
<i>35 libras carne a 10 cuartos</i>	<i>10 pezetas y 10 cuartos</i>
<i>Expensa de diciembre</i>	<i>38 pezetas y 3 cuartos</i>
<i>Len zor dena</i>	<i>191 pezetas y 3½ cuartos</i>
<i>Guzia da</i>	<i>229 pezetas y 6½ cuartos</i>
<i>Hoietarako hartu ditut 40 urretxiki</i>	<i>212 pezetas y 17 cuartos</i>
<i>Falta da</i>	<i>016 pezetas y 23½ cuartos</i>
<b><i>1803. Enero 8. Pagué todo}</i></b>	<b><i>Igualada</i></b>

Pello hasi da erremienta paratzen<sup>1371</sup> ta ardoa beharko, ez da sagardorik. Hamarreko erreka<sup>1372</sup> egin diogu erremientari. Markos puxkaren batean ez da olarako. Solo<sup>1373</sup> Otxokiko<sup>1374</sup> medikuaren erremiediokin<sup>1375</sup> ongi omen dihoa.<sup>1376</sup> Tomas igelea ez da etorriko olara; orañ igelea bealdu diteke.

Erruedaren potoak<sup>1377</sup> txotxa hori adiña luze<sup>1378</sup> eta txotxaren koska horretaraño zabal, barrengo ol<sup>1379</sup> txiki haiek ematekotz,<sup>1380</sup> ta bestela lau onza<sup>1381</sup> bezala luzeagoak<sup>1382</sup> beharko dute.

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

### Goizarin

<sup>1371</sup> Hemen ematen du ‘prestatu’-edo esan nahi duela. Erka bedi gaztelaniazko *parar cepos* ‘arteak ezarri’, ‘arteak prestatu’ esamoldearekin.

<sup>1372</sup> Badirudi erremientari hamar zentimetroko, milimetroko... ebaki edo erreka modukoa egin diotela. Ez dakigu, nolana ere, *erremienta* hori xuxen burdinolako zer tresna den hemen.

<sup>1373</sup> ‘Bakarra’, ‘bakarrik’, lokailu modukoa.

<sup>1374</sup> Goizuetan *Otxoki* izeneko etxea eta baserria izan dira (Perurena, Salaberrri eta Zubiri, 2011: 156).

<sup>1375</sup> ‘Erremedioekin’, ‘sendagaiekin’. Ikus izen morfologiari eskaini atalean dioguna, soziatiboa ukitzen dugunean.

<sup>1376</sup> Gutunean *Omendioa* dago.

<sup>1377</sup> Erruedak edo gurpilak dituen pala modukoak: urak bertan jotzen duenean gurpilak buelta ematen du eta honek ardatz nagusiari eragiten dio, eta honek gabi igunari. Ikus Zubiaurre (1960: 98) eta partikularki A. M. Mitxelena (2020b: 46, 47, 279). Ikus berebat hiztegian biltzen ditugun etsenpluak.

<sup>1378</sup> *Bezain luze* espero genuen.

<sup>1379</sup> ‘Oholo’.

<sup>1380</sup> ‘Eman dezaten’ edo ‘ematekotan’ izan daiteke.

<sup>1381</sup> *Ontza* pisu heina zen, baina luzera neurria ere bai: «Luzera-neurri zaharra, oinaren hamabirena (hots, 23 mm inguru) balio duena, gaur egun, batez ere, enborren lodiera neurtzeko erabiltzen dena» (EH).

<sup>1382</sup> ‘Goiti-beheiti lau ontza luzeagoak’. JRMk frankotan ibiltzen du *bezala* adiera horretan. Ikus hiztegia.

## 1803.01.14

Nagusi jauna:

Suerte partitu da hamabi puska, eta Artikuzakoarenzat tokatu dira alde-nekoak<sup>1383</sup> eta onenak, eta urrutinekoak<sup>1384</sup> eta txarrenak ere bai. Beringo ataritik<sup>1385</sup> Zaldin aldera onena zen, eta aldena ere bai, eta honi eratsi<sup>1386</sup> diote Kausuako azpiko errebesena. Eta gureak gelditu dira baso ederrik ez, ta hagitx elbarrik<sup>1387</sup> ere ez. Sobra elbar dira guziak ere, noski.

Puskarik handiena da . . . . .	.600 karga
Beste bat Oielekutik beiti . . . . .	.500
Beste bat . . . . .	.300
Beste bat . . . . .	.200
Beste bat . . . . .	.150
Guziak dira gutxi gorabera <sup>1388</sup>	1.750

Bost puskatan batek erditik txuritzak<sup>1389</sup> baditu, baño osoan orobat para ditekeana dago. Eta 600 kargako honetan Pellok eskatzen du puska bat, eta gañerakoa errebeagoa<sup>1390</sup> gelditzen da, baño lantegirik libreña hau data,<sup>1391</sup> nahi duena egiñen du. Iñork egurra eramateko, pelgroan egurrik<sup>1392</sup> Oielekutik beiti da, karriadoreak hutsik heldu diranean karga bailitezke;<sup>1393</sup> bestetan ez da pelgorrik. Olaberria, 14 de enero de 1803.

*Su servidor Jose Ramón.*

<sup>1383</sup> ‘Hurbilenekoak’.

<sup>1384</sup> ‘Urrunenak’.

<sup>1385</sup> Bitxi kausitzen dugu *atari* ibiltzea, nahiz ezinik ez den honetan. Izkirioa, dena dela, guziz argia da oraingoan. *Beringarate* Goizuetako dermioa da (NTEM XLVII: 76), eta *Berín* edo *Berínzar* Oiartzungo baserria, *Berintxiki* eta *Berínberri* bezala (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 105). 1499an «*la casa de Verin*» eta «*los terminados o sel de Verin*» dokumentatzen dira (Irijoa eta Lema, 2011: 97, 142).

<sup>1386</sup> ‘Eratsi’.

<sup>1387</sup> ‘Txarra’, ‘eskasa’.

<sup>1388</sup> Azken *-ra* hau goititua dago, aitzineko silabaren gainean idatzia.

<sup>1389</sup> Zuriuneak, hutsuneak, zuhaitzik gabeko gunek, alegia. Hitz edo aldaera hau, adiera honetan, ez dago dokumentaturik, dakigunez.

<sup>1390</sup> Gutunean *errevesseagoa* izkiriatu dago. ‘Okerxeago’ da adiera.

<sup>1391</sup> Originalean *audata* daukagu. Pasarte hau beste modu honetan ere puntuatu eta uler daiteke: «...*eta gañerakoa errebeago gelditzen da, baño lantegirik libreña hau da, ta nahi duena egiñen du*».

<sup>1392</sup> Hau menturaz «*Iñork egurra eramateko pelgroan, egurrik [...]*» puntua daiteke. JRMk adierazi nahi duena garbi dago, baina esateko modua ez da horren argia. Ikus ondoko oin oharra, hala ere.

<sup>1393</sup> Hau menturaz honela ulertu beharko da: «*Inork egurra eramatekotan, Oielekutik beheiti eramanen du, garraiatzaileak hutsik datozenean karga bailitezke*».

A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1803.01.28

Arrago kargatzen . . . . .	5 días
Erretzen lenbiziko egunean bi lagun, <sup>1394</sup>	
ta gau-egunetan launa, horra hamar . . . . .	10 días
Deskargatzeko . . . . .	06 días
Egurra botatzen . . . . .	04 días
Itzaienzat berdinzen eta itzaiak kargan <sup>1395</sup>	04 días
Enborgiten <sup>1396</sup> . . . . .	02 días
Arrago bakoitzeko jornalak . . . . .	31 días
<u>Ogi bat eta pitxer bat ardo gañera</u>	

Jornal hoiek dira mea modu onekoa kargatzeko, eta erretzeko denbora ona eta egurra ona den denboran kostatzen da gutxiena, honenbeste, eta halere erretzea bigarren egunean gutxitan akatzen baita,<sup>1397</sup> errekaña,<sup>1398</sup> hirugar[r]en<sup>1399</sup> egunean maiz izaten da errekaña bat eman<sup>1400</sup> beharra, ta askotan bi ere bai. Eta jornal pare bat añaditza daritzat ongiena izanen dela; nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urri-urrian jornalak dituztela baño.<sup>1401</sup> Olaberria, 28 de enero de 1803.

<sup>1394</sup> ‘Bi lanegun’.

<sup>1395</sup> Azken *n*-a aurreko letraren gainean idatzirik dago originalean.

<sup>1396</sup> Enborrak egiten. Ikus hiztegia.

<sup>1397</sup> ‘Bukatzen baita’.

<sup>1398</sup> Irudi du *kamaina* ‘artzainek eta ikazkinek mendian, oholez, lastoz edo hostoz egiten duten ohea’ (EH) dugula honen oinarrian. Hau da, erretzea lehen egunean bukatzen ez badute, *kamaina* eman behar zaie, lo egin dezaten. Hasierako *erre-* hori *erre* aditza izanen da, ‘erretzen den denboran ibiltzen den kamaina’ delako. Ikus *kamaña* eta *errekamaña* sarrerak, hiztegian. Zernahi gisaz, irudi du egileak bi ideia zituela burutan, *errekamañaz*-ekin hasi (*errekamañaz konpondu?*) eta gero *errekamaña bat eman beharra*-rekin bukatu zuela, hots, anakoluto erako itzulia dugula hemen.

<sup>1399</sup> Egileak bigarren silaba idaztea ahaztu du lehenik eta gero bi lerroen artean paratu du, *yga*-ren gainean. Bestalde, *-garen* dugu, ez *-garren*, *r* bakarra alegia.

<sup>1400</sup> Originalean *emar* dago, baina *eman* behar duela argia da.

<sup>1401</sup> ‘Soldata eskas-eskasak dituztela baino’. Originalean *hurri hurrian* dugu, *b*-rekin.

*Item*<sup>1402</sup> egurra lotu behar den denboran mandoenzat.

Jose Ramon de Minondo.

Ekusi beharko zaio zerbait iñoiz gertatzen denean, ta bide giteko lana ere aparte beharko da.

1803.02

1803

*Desde 2 de enero hasta 29 de enero.*

*En martinete 7 panes a 36 cuartos*

*2 panes a 38 cuartos y 33 panes a 40 cuartos*

*importan . . . . .48 pezetas y 16 cuartos*

*8½ libras de aceite a 30 cuartos . . . . .07 pezetas y 17 cuartos*

*21 azumbres de vino a 28 cuartos . . . . .17 pezetas y 10 cuartos*

*Sardinas de . . . . .01 pezeta y 20 cuartos*

*En martinete . . . . .74 pezetas y 29 cuartos*

*Míos en 6 días ½ pan a 18 cuartos*

*En 3 días . . . . .a 19 cuartos*

*En 19 días . . . . .a 20 cuartos*

*Panes en 28 días . . . . .16 pezetas y 1 cuarto*

*28 cuartillos a 7 cuartos . . . . .05 pezetas y 26 cuartos*

*28 libras de carne a 10 cuartos . . . . .08 pezetas y 8 cuartos*

*Todos son . . . . .104 pezetas y 30 cuartos*

*Hoietarako hartu ditut . . . . .10 pezetas*

*Ola handikoak ere zor dira 88 pezetas y 32 cuartos.*

Garalorregiko asentuaak, setienbrea ongi paratu ezpanituen, ziran modu honetan:

*Manuel de Etxebeste . . . . .6 cargas*

*Nikolas de Zulaika . . . . .6*

*Antonio de Bengoetxea . . . . .2*

*Ignazio de Mitxelena*<sup>1403</sup> *. . . . .2*

*Juan Jose de Sorondo . . . . .4*

<sup>1402</sup> 'Berdin', 'baita ere', 'halaber'. Originalean oraingoan *yten* dago, baina akabailan *m* duen forma ere ibiltzen du JRMk.

<sup>1403</sup> *Mitxelena* Oiartzungo etxea da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 239).



Jose Ignazio de Lekuna .....	3
Sebastian de Telletxea .....	2
Damian de Oiarzabal <sup>1404</sup> .....	3
Matias de Itxagoien .....	4
Sebastian de Mitxelena .....	2
Franzisko Antonio de Ribere .....	3

## 1803.02.17

Nagusi jauna:

Pagoetan kontrariorik badere,<sup>1405</sup> eskola maisuari esanta hark hartu ditu; Andresek esan zion maisuari harzeko. Maisuak nahi badu bestek nekez eramaten du kandelarik;<sup>1406</sup> argiaren kontran egoten da, nahiz kandela jo behar ta nahiz ez.<sup>1407</sup> Etzen kontrariorik; 1.040 karga 16 kuartilluan eta hamaiketako. Zer den Andresek berak gaztigatuko zuela esan zuen. Gobiernokoak besterik etzen igo hamaiketako egitera; guk harzen dugunean artaldea bezala han etorzen dira jendeak, eta hura nola handiskoa zen,<sup>1408</sup> haren ondotik<sup>1409</sup> iñor etzen jua. Lau eguneko jornalak baditu: esaminadorea ta guardamuntea<sup>1410</sup> botatzeko denboran<sup>1411</sup> han izan beharrak dira biña egunetan, eta Otsamintegiko enbor hoietan ere baziran bi egun guardamuntea.<sup>1412</sup> Zor da lau pezeta. Olaberria, *17 de febrero de 1803*.

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.

<sup>1404</sup> Oiartzungo baserria da *Oiartzabal* (ikus Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 245).

<sup>1405</sup> Hemen 'pagoetan aurkaririk bada ere' ulertu behar dela dirudi. Ikus hiztegian dio-guna eta joskerari eskaini atala. Zernahi gisaz, gutun honetan berean, beheitixeago, *etzen kontrariorik* daukagu.

<sup>1406</sup> 'Nekez eramaten du enkanterik'. Ez dakigu eskola maisuak zergatik zuen horrenbesteko ahala.

<sup>1407</sup> Ez dakigu xuxen zer erran nahi den hemen; aretoan itzalpean dagoela, zokoren batean? *Kandela jo* enkantean zerbait lortzeko lehiatzea da.

<sup>1408</sup> Plazeria edo lantegia handixkoa zen, eta horregatik ez omen zen joan jendea; baka-rrik Oiartzungo gobernukoak, alkate-zinegotziak, ustez.

<sup>1409</sup> Gobernuaren atzetik?

<sup>1410</sup> 'Iguraina', 'basozaina'. Ikus hiztegia.

<sup>1411</sup> 'Pagoak bota behar direnean'.

<sup>1412</sup> Otsamintegiko enborrak botatzean (edo ikustera joatean) basozaina bi egunez izan zela esan nahi du. *Otsamintegi* Oiartzungo baserria da, egun ahoz *Otsamantei* (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 257). 1857an (NOPGI, 59) *Osamentegui* «laborari etxea» daukagu. Ikus gorago esan duguna.

A don Juan Baupista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1803.02.27

Nagusi jauna:

Juan Migel Aranguangoak esan omen zion apaizari, pagoak kandelatu behar zutenean,<sup>1413</sup> nola behar zuen berrehun bat karga ikatzen basoa, eta gobiernokoai esan behar ziotela puskaka paratzeko, kandelan puskatan ziren ezkeroko pagoak. Eta nahi bazuen edo bazeritzan olajaunak partituko ziotela,<sup>1414</sup> ixillik<sup>1415</sup> geldituko zela orobat, eta apaizak esan omen zion elkar galduko zela<sup>1416</sup> hartara, ta ixillik zagoela,<sup>1417</sup> ta emanen zitzaiola 200 karga.

Ta Batista hemen zen egun, ta hark esan dit Juan Migeli eman hobeko zaiola 200 kargako porzioa.<sup>1418</sup> Eta orañ gelditzen dira:

620 karga bi puska egiña, ta

180 kargakoa oso<sup>1419</sup> dago, ta

040 kargakoa bestea.

Ta Bautistak<sup>1420</sup> esan dit Manuel Artikutzakoari<sup>1421</sup> berorrek esan diola Baurrindik<sup>1422</sup> pagoak ekarrita Kausuan aldaratzeko,<sup>1423</sup> eta Unzburuko min-

---

<sup>1413</sup> Aditza singularrean dago, beste batzuetan bezala, osagarri zuzena *pagoak* izanik ere. Ikus aditz morfologiaren gaineko kapituluan dioguna.

<sup>1414</sup> 'Banatuko ziela'.

<sup>1415</sup> Originalean *yssilliq* dugu.

<sup>1416</sup> *Elkar galduko zela* eta ez *elkar galduko zutela*. Bitxi kausitzen dugu esateko modu hau.

<sup>1417</sup> Subjuntiboa dugu adizki hau, 'isilik egon zedila'. Indikatiborako gehienetan, baina ez aldiro, *zegoen* ibiltzen du JRMk. Ikus *gabilzan*-ez mintzatzean (1800.11.12) dioguna.

<sup>1418</sup> 'Hobe izanen dela Juan Migeli 200 kargako porzioa ematea', ustez. OEHren arabera, *hobeko* + *aditz laguntzaile iragangaitza*-ren adibide gutxi daude. Oraingo honetan *zai*o inperzonal dela dirudi, hots, 'Juan Migeli eman hobeko diogula'-ren parekoa dela.

<sup>1419</sup> 'Osorik'. Ikus hiztegia.

<sup>1420</sup> Hemen *Bautista*, eta goraxeago, gutun honetan berean, *Batista*.

<sup>1421</sup> Dakigula, lehen aldiz darabil hemen JRMk afrikatua duen forma, egun ibiltzen dena, Goizuetan, Oiartzunen eta bestetan. Pentsatzekoa da beste agerraldietan dokumentuetako izen ofizialak, erdarazkoak, eraman zuela *-za* (eta ez *-tza*) idaztera.

<sup>1422</sup> *Baurrin* Artikutzako toponimoa da (Erriondo, 1988: 122).

<sup>1423</sup> 'Tokiz aldatzeko', 'aldatzeko'. Ikus aditz morfologian dioguna, arazlearen inguruan.

tegitik<sup>1424</sup> aldatzea<sup>1425</sup> hobe dela. Baltasarren semeak-ta aldatu omen dute 300 planta, pagoa erreal zillar bana berorrekin partituta;<sup>1426</sup> Indianoak esan omen zion aldatzeko. Indianoak ere omen du<sup>1427</sup> partea mintegian. Martin Aldakokoak<sup>1428</sup> esan dit haren kuartoaz oroï dadiela.<sup>1429</sup> Olaberria, 27 de febrero de 1803.

*Su servidor Jose Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1803.03

1803

*Desde 29 de enero hasta 26 de febrero.*

<i>En martinete 12¾ panes a 40 cuartos importan . . .</i>	<i>15 pezetas</i>
<i>3 libras y 3 chiquitos aceite a 28 cuartos . . . . .</i>	<i>2 . . . 26½ cuartos</i>
<i>6 azumbres y 3 chiquitos vino a 28 cuartos . . . . .</i>	<i>5 . . . 8½ cuartos</i>
<i>Sardinas . . . . .</i>	<i>0 . . . 15 cuartos</i>
<i>Pagoak partitzen ta arrago egurra emateko esaminadoreari ta guardamunteari</i>	
<i>3 libras pan y 1 azumbre vino</i>	<i>1 . . . 24 cuartos</i>
	<i>25 pezetas y 6 cuartos</i>
<i>Míos en 28 días ½ pan</i>	<i>16 pezetas y 16 cuartos</i>
<i>28 quartillos a 7 cuartos</i>	<i>05 pezetas y 26 cuartos</i>
<i>28 libras de carne a 10 cuartos . . . . .</i>	<i>08 pezetas y 08 cuartos</i>
<i>Expensa de febrero . . . . .</i>	<i>55 pezetas y 22 cuartos</i>

<sup>1424</sup> *Uzpuru* Oartzungo dermioa da, Kausutik eta Artikutzatik hurbil dagoena: «Erreferentziako toponimoa, Artikutzako errepideko goiko zonan dago, Kausua eta Zaria artean, muino zabal batean. XVIII. mendearen erdialdetik dokumentatu da. Zenbait idatzi-tan Unzburu forma agertzen da» (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 315). Toponimoaren osa-gaiak *huntz* landare igorkariaren izena eta *buru* 'muinoa' direla dirudi.

<sup>1425</sup> Aurreko lerroan *aldaratu* eta hemen *aldatu*.

<sup>1426</sup> Berez 300 zenbakiak *pago* artikulugabea eskatzen badu ere, badaiteke JRMk «ez ikusiarena» egin eta hau esan nahi izatea: «Baltasarren semeak-ta aldatu omen dute 300 planta pagoa, erreal zillar bana berorrekin partituta».

<sup>1427</sup> Egun «Indianoak ere ba omen du» esanen genukeena. Beste batzuetan ere hola.

<sup>1428</sup> Oartzungo baserria dugu *Aldako*.

<sup>1429</sup> Hitz bakar batean idatzirik dago gutunean.

Len zor da . . . . .193 *pezetas y 28 cuartos*  
Guzia zor da . . . . .249 *pezetas y 16 cuartos*

Espensa hoietarako dira hartuak 10 *pezetas*.

A *don* Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1803.03.26

Nagusi jauna:

Aranzazuko fraile horri libratu diote lau ofizialeak pezeta bana, eta mealleak erdia, 4½ *pezetas*. Olaberria, 26 de marzo de 1803.

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.

1803.03.30

Nagusi jauna:

Agerreko Patxikuk<sup>1430</sup> gaitzarekin-ta makiña bat zor egiñ dutela, ta hogei ezkutu bat<sup>1431</sup> ea partituko ote lukean, eta lañak<sup>1432</sup> egiñ behar litukeztela ta herreroak<sup>1433</sup> hiru arroa quadro eskatu diotela,<sup>1434</sup> ta 9 lineako<sup>1435</sup> kuadrotik hiru arroa berehala behar litukeala, lañak egiteko kuadrarik batere ez duela herr[er]oak<sup>1436</sup> esan diola-ta.<sup>1437</sup>

<sup>1430</sup> *Agerre* Oiartzungo baserria da. Hemen *dio*-edo falta dela dirudi.

<sup>1431</sup> 'Hogei ezkutuko bat'. Ikus hiztegia eta hurrengo paragrafoa.

<sup>1432</sup> OEHren arabera, erdarazko *grapa*, *abrazadera* da *laña*, baina guk uste dugu hengo *laia* dela, lurra hondalanean iraultzeko tresna; *lai*-ren *lain* aldaera dokumentatua dago.

<sup>1433</sup> Garbi dago hemen *herreroa* Nafarroako *arotza* dela, eta testu honetako *arotza*, berriz, Nafarroako *zurgina*, lehenak «lañak» egiten dituelako eta bigarrenak «kupelak». Goizuetako 1897ko udal ordenantzetan *herrero* eta *zurguiñ* ditugu (Satrustegi, 1996: 305): «*Debecatua guelditcen dá trabajatcea eche atarietan edo calean erdian deus ere oficiotan edo industriatan, jarcea bancuac herreroenac edo Zurguiñenac, edocin beste claseric*».

<sup>1434</sup> 'Eskutu diela'. Hortaz, *kuadroak* laiak egiteko erabiltzen ziren, besteak beste.

<sup>1435</sup> Kuadroaren kaizua adierazten duke *linea* hitz honek hain segur.

<sup>1436</sup> Originalean *Erroaq* dago.

<sup>1437</sup> Eskutitzean *Esandiolata* daukagu.

Pazkoetako<sup>1438</sup> bi hogeie ezkutuko behar nituke nik ere. Sagardo txarra egiteko onzirik ez dugu-ta,<sup>1439</sup> kupela egiñ behar nuke; gaia erostea ta arotzaren eskua<sup>1440</sup> 26 ezkutu bezala kostako omen da, ta gañerakoak itxerako behar ditugu. Aurten kastatzeko urtea dugu, inudea ere hillean hamar pezeta pagatu behar dugu-ta;<sup>1441</sup> kontuak ere garbitu behar genituke noizbait ere. Kupelaren ustaiak ere beharko ditugu hemen. Kabillan aritzekotz hor edo Arranbiden egiñ beharko dira.<sup>1442</sup> Orañ berehala presarik ez da, orañ gaia erosi ta geroxe-ago egiñen dugu; arotzak era dutenean beharko.<sup>1443</sup>

Martin Aranzatetik<sup>1444</sup> sanjuanetan libratuko omen da, eta errueda haspategiko hau konpondu nahi litzake eta aldeak edo mako hoiek ilzerik eziñ errezibitu dute, erdi lekutan<sup>1445</sup> urak yan ta galduak daude. Puska berriak beharko ditu barrengo aldetik edo nondikerebait,<sup>1446</sup> eta ola handiko kabitegiko<sup>1447</sup> tormentategi<sup>1448</sup> honek ere egiñ beharko du aurtengo udan.<sup>1449</sup> Olaberria, 30 de marzo de 1803.

*Su servidor Jose Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

<sup>1438</sup> ‘Pazkoetarako’.

<sup>1439</sup> Originalean *ezduguta* dugu.

<sup>1440</sup> ‘Zurginaren eskulana, lana’.

<sup>1441</sup> Bi argumentuko laguntzailea, *pagatu* aditzarekin; ikus hiztegia. Originalean *duguta* daukagu.

<sup>1442</sup> Hau honela ere puntua daiteke: «*Kupelaren ustaiak ere beharko ditugu; hemen [Olaberrian] kabillan aritzekotz (ustaiak) hor [Goitzarinen] edo Arranbiden egiñ beharko dira*».

<sup>1443</sup> ‘Egokiera dutenean egin beharko’.

<sup>1444</sup> *Arantzate* Irungo baserria da, eta *Arantzateko ola* hiri horretako burdinola zen.

<sup>1445</sup> ‘Leku erdietan’ esan nahi duela dirudi, ez ‘lekuen erdialdean’.

<sup>1446</sup> ‘Nonbaitetik ere’. Originalean *Nondiq ere bait* izkiriaria da.

<sup>1447</sup> Originalean *gui* silaba goititurik dago, bi lerroen artean idatzirik.

<sup>1448</sup> Ikus gorago *tormentategia*-z (*hila[n]tormentategia* ere esaten bide zitzaion) esan duguna. Ikus orobat hiztegia.

<sup>1449</sup> Irudi du bi esaldi nahasten edo gurutzatzen direla azken pasarteño honetan, bi hauek: «*ola handiko kabitegiko tormentategi honek ere puska berriak / konponketa beharko d(it)u*» eta «*(Martinek) ola handiko kabitegiko tormentategi hau ere egin / konpondu beharko du aurtengo udan*».

1803.04

*Año de 1803.*

*Desde 27 de febrero hasta 2 de abril.*

*En martinete 27¾ panes a 40 cuartos*

*importan . . . . .32 pezetas y 22 cuartos*

*13 azumbres y 7 chiquitos de*

*vino a 28 cuartos . . . . .11 pezetas y 14½*

*7¾ libras de aceite a 28 cuartos 06 pezetas y 13*

*Sardinas de . . . . .02 pezetas y 4*

*Expensa de marzo martinete 52 pezetas y 19½*

*Míos en 35 días ½ pan a 20 cuartos 20 pezetas y 20 cuartos*

*35 cuartillos a 7 cuartos . . . . .07 pezetas y 7*

*35 libras de carne a 10 cuartos 10 pezetas y 10*

*Expensa de marzo . . . . .90 pezetas y 22½ cuartos*

*Len kontu emanak zor*

*dira . . . . .239 pezetas y 16 cuartos*

*Guziak dira . . . . .330 pezetas y 4½ cuartos*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1803.04.05

*Nagusi jauna:*

*Luis Zuloakoaren ta bere lagunaren kontua bealdu nuen desde 12 de abril hasta 17 de noviembre de 1802.*

*Meak ziran . . . . .173 quintales y 1 arroba*

*Bi borra . . . . .25 libras*

*Burnia . . . . .7 libras*

*Desde 17 de noviembre ezkerro ekarri*

*ditugu meak . . . . = 181 quintales y 1 arroba*

*Borra bat hartu dute 16 libras*

*Burnia 3 arrobas*

*Olaberria, 5 de Abril de 1803.*

*1803. Abril 13. Ajusté esta cuenta de arriba.*

*Su servidor Jose Ramon de Minondo.*

1803.05.Hasiera

1803

Desde 2 de abril hasta 30 de abril.

En martinete 40½

panes a 40 cuartos importan . . . . .47 pezetas y 22 cuartos

20¼ azumbres de vino

y 1 azumbre componiendo remientas

a 28 cuartos . . . .5 . . .8½ cuartos . . . . .17 . . . . .17

8¼ libras de aceite a 28 cuartos . . . . .6 . . . . .27

Sardinias de . . . . .2 . . . . .5½

Arrago egurra harzeko

½ pan y ½ azumbre

de vino . . . . .1 . . . . .0

75 pezetas y 3½ cuartos

Míos en 28 días

½ pan a 20 cuartos . . . . .16 . . . . .16

28 cuartillos a 7 cuartos . . . . .05 . . . . .26

7 libras de carne

a 10 cuartos y 21 libras a

11 cuartos . . . . .08 . . . . .29

Expensa de abril . . . . .106 pezetas y 6½

Expensa de abril . . . . .106 pezetas y 6½ cuartos

Antes son . . . . .444 pezetas y 8½ cuartos

Guziak zor dira . . . . .550 pezetas y 15 cuartos

A don Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1803.05.19

Nagusi jauna:

Arotzak pasatu dituzte mendian a 10 reales . . . . .3 días

Olan a 8 reales . . . . .25 días

Importan . . . . .57½ pezetas

Pello ez da orañik hasitzeko prest, igandea artea beinzat. Gorrak ere atzo aste honetan makurka ez aritzeko esan omen dio.<sup>1450</sup>

Olaberria, 19 de mayo de 1803.

*Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.

Goizarin

1803.06.05

1803

*Desde 1 de mayo hasta 4 de junio.*

*29¾ panes a pezeta . . . . . 29 pezetas y 25½ cuartos*

*18½ azumbres de vino a 30 cuartos . . . . . 16 pezetas y 11 cuartos*

*6¾ libras de aceite a 28 cuartos . . . . . 05 pezetas y 19 cuartos*

*Sardinas de . . . . . 01 pezetas y 14 cuartos*

*Expensa de martinete . . . . . 53 pezetas y 1½ cuarto*

*Míos en 33 días ½ pan . . . . . 16 pezetas y 17 cuartos*

*En 35 días kuartillu vino . . . . . 07 pezetas y 24½ cuartos*

*35 libras de carne a 11 cuartos . . . . . 11 pezetas y 11 cuartos*

*Todos son . . . . . 88 pezetas y 20 cuartos*

Espensa honetaz gañera, gastatu dira:

Olatxokoak . . . . . 7¼ panes

Bi egunekoa nerea . . . . . 1 pan

Donostiako ogi honetatik.

A don Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

<sup>1450</sup> Iparraldeko era dakarkigu gogora «atzo [...] esan dio» itzuli honek. Ikus aditz morfologiaz mintzatzean dioguna.



1803.06.18

Nagusi jauna:

Eixigarrek<sup>1451</sup> egin du ikatza Jose Ignazio olatxekoaren semearekin orañ-go basoan:

*284 cargas y 1 otsabeharria y 3 lepalotuas*<sup>1452</sup>

Lengo basoan mutill honekin berarekin: *76 cargas y 3 lepalotuas.*

Mutillaren partea kendu behar zaio: *69 pesos y 3¼ reales vellón.*

Olaberria, *18 de junio de 1803.*

*Primeramente lantokia Unaileku.*<sup>1453</sup>

*Su servidor Jose Ramón.*

1803.07

1803

*Desde 5 de junio hasta 2 de julio.*

*En martinete 5¼ panes 5 pezetas y 8½ cuartos*

*15¾ azumbres de vino a 30 cuartos 13 pezetas y 30½*

*9 libras de aceite a 28 cuartos 07 pezetas y 14*

*Sardinias de .....01 pezeta y 20*

*En martinete .....28 pezetas y 5 cuartos*

*Míos 28 cuartillos a 7½ .....6 pezetas y 6 cuartos*

*28 libras de carne a 11 cuartos .....9 pezetas y 2 cuartos*

*Expensa de junio .....43 pezetas y 13 cuartos*

*Expensa de mayo .....88 pezetas y 20 cuartos*

*De herrería mayor .....96 pezetas y 27 cuartos*

*Hasta fin de junio .....228 pezetas y 26 cuartos*

<sup>1451</sup> Era batera baino gehiagotara agertzen da deitura edo etxe izengoiti hau eskutitzotan. *Eizagirre* ere azaltzen da, eta hori izanen da jatorrizko bertsioa, *Eizagirre* Oiartzungo baserria baita. Ikus onomastikaren inguruko kapitulua.

<sup>1452</sup> Zaku motak dira *otsabeharria* eta *lepalotua*. Ikus hiztegia.

<sup>1453</sup> Hau olajaunak gutuna jasotakoan egindako apuntea da. Gehiago ere badira apunteak, baina guri interesatzen zaizkigunak *lantokia* itxuraz izen arrunta eta *Unaileku* Oiartzungo aurkintza izena (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 305) dira. Guk *primeramente* «garatu» dugun hori *Prim<sup>a</sup>* da originalean, eta apika *primera* ere irakurtzen ahalko da.

Donostiako ogitik olatxoan  
kastatu dira junioan 26¼  
Nik .....14  
Ola handian .....39  
Lengo hillean  
olatxoan ta nik .....08¼  
Bost anegak dira .....87½ panes

Ola handikoai kontatu diotet ogi bakoitza; berorren faborerako 38 *cuar-*  
*tos*.

Hainbeste kosta da! Ogi urria da ta hemengo errotatan, berriz, dirua eskuan duenari merkexego, ta kreditara nahi duenari gehiago pagarazitzen diote.<sup>1454</sup>

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1803.07.25

Nagusi jauna:

Markos hemendik jua zen *13 de noviembrean*, ta biharamunean hasi zen Juan Antonio haren partez. Olaberria, *25 de julio de 1803*.

*Su servidor Jose Ramón.*

1803.08.Hasiera

1803

*Desde 30 junio hasta 30 de julio.*  
Txartelarekin ogiak 40 eta dirutan 14  
Guziak Donostiatik ekarri dira, 54  
Ola handian 21½, olatxoan 20 eta nik 12½

---

<sup>1454</sup> Honela ere puntuatu eta uler daiteke: «*Hainbeste kosta da, ogi(a) urria da-ta! Hemengo errotatan, berriz, dirua eskuan duenari merkexego, ta kreditara nahi duenari gehiago pagarazitzen diote*».

Falta dira olatxoan, ta eman tioztet:<sup>1455</sup>

6¼ panes a 32 cuartos	.....	5 pezetas y 30 cuartos
6¾ libras de aceite [a] <sup>1456</sup>	28 cuartos	5 pezetas y 19 cuartos
85 azumbres de sidra a 4 cuartos		10 pezetas
Sardinas de	.....	.01 pezeta ... 2 cuartos
Anega erdi bat baba		05 pezetas y 21 cuartos
Arrago egurra emateko gonbitea: <sup>1457</sup>		
½ pan y ½ azumbre de vino	.....	.00 ..... 31 cuartos
En martinete	.....	.29 pezetas y 1 cuarto
Nik Donostiakoaz gañera:		
1½ panes a 32 cuartos	.....	.1 pezeta y 14 cuartos
28 cuartillos a 7½ cuartos	.....	.6 pezetas y 6 cuartos
28 libras de carne a 11 cuartos	.....	.9 pezetas y 2 cuartos
Todos	.....	.45 pezetas y 23 cuartos
Lengoak dira	.....	.228 pezetas y 26 cuartos
Guzia zor da	.....	.274 pezetas y 15 cuartos

Bakoitzak bere puskaz galdatzen du hemen eta hoiek pagatu behar lirake, eta Bonbonen<sup>1458</sup> zor hoiek ere bai. Errotari urgona<sup>1459</sup> ere maiz aski ondolik dugu.

### 1803koa-edo

Expensa 375 pezetas y 32 cuartos	ola handikoa zor dena da
Horretan dira pagatzekoak	96 pezetas y 27½ cuartos
96 pezetas y 27½ cuartos	olatxokoa ta nereia....
Gañerakoak pagatuak ditu dirutan	88 pezetas y 20 cuartos maiokoa
ta ogi ta babatan	Espensa zor dena 185 pezetas y 13½ cuartos guzia
Berotzalle zar honek ta bere semeak bien artean	
dute harzekoa hasta 18 de junio	34 pezetas y 32½ cuartos
Hartuak rebajatuta harzekoa da hau	

<sup>1455</sup> ‘Eman dizkiet’.

<sup>1456</sup> Preposizioa ez dago originalean, falta da.

<sup>1457</sup> Gutun hauetan behin baino gehiagotan agertzen den *hamaietakoa* dugu hau, Oiarzungo gobernukoek, probestuak eta zenbait jendeke parte hartzen zutena. Oraingo hau, dena dela, aski xumea da, goiti-beheiti kilo bat ogi eta litro bat ardo besterik ez baitzuten jan-edan.

<sup>1458</sup> Zakar xamarra bide zen baten izengoitia da hau. Ikus gorago.

<sup>1459</sup> ‘Urguna’, ‘maingua’, ‘herrena’.

«Honbretxo» Luisen anaieak eta Franzisko Pikabeak badute lau eguneko aste bana; bakoitzak  $4\frac{1}{2}$  días. Ezkutu bana tokatzen zaiote, sei lagunekoa<sup>1460</sup> da, horko maisua<sup>1461</sup> hemen izandu denekoa.

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1803.09.Hasiera

*Desde 31 de julio hasta 3 de setiembre.*

Olatxoan ogiaz gañerako

*espensa 3 libras y 3 chiquitos a 28 cuartos*

*y 3 libras y 3 chiquitos a 30 cuartos*

*importan . . . . . 5 pezetas y 26 cuartos*

*53 azumbres sidra a 4 cuartos . . . . . 6 pezetas y 8 cuartos*

*Sardinas de . . . . . 0 . . . . . 25½ cuartos*

*Míos en 35 días cada kuartillu a 7½ cuartos . . . 7 pezetas y 24½ cuartos*

*35 libras de carne a 11 cuartos . . . . . 11 pezetas y 11 cuartos*

*En agosto . . . . . 31 pezetas y 27 cuartos*

*Lengoak . . . . . 274 pezetas y 15 cuartos*

*Guzia zor da . . . . . 306 pezetas y 8 cuartos*

*Hoietarako hartuak dira 15 urretxiki.*

*Quedan en 226 pezetas 18½ cuartos.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1803.09.06

Nagusi jauna:

*Jose de Aranbururen mea ekarri dugu, 5 de abril ezkerro, 135 quintales y 1½ arrobas.*

<sup>1460</sup> 'Sei lanegunekoa'.

<sup>1461</sup> Burdinolako maisua da hau, bistan da.

Burnia hartu du 2 *arrobas*.

Olaberria, 6 de *setiembre de 1803*.

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.<sup>1462</sup>

1803.09.23

Nagusi jauna:

Damianek entregatu du ikatza; berea 48 *cargas*.

Olaberria, 23 de *setiembre de 1803*.

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.

1803.09.25

Nagusi jauna:

Jose Ignazio de Mitxelenak kontuan pasatu ditu:

Semearen gastuak . . . . .2.842 *reales*

Rebajatu behar zaio . . . . .0366 *reales*

Gastu guzia du . . . . .2.476 *reales*

Gure anaieak deskuiduan gaizki bealdu zuen kontua; horra anaiearen karta ere ekusteko.

Eixigarrerekiñ-ta<sup>1463</sup> aritu da horren semea pagadian, eta esan didate Eixigarrek-eta horri abonatzeko mutikoaren yornalak, basoan harzeko egiñ dituenak, 28 pezeta. Olaberria, 25 de *setiembre de 1803*.

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.<sup>1464</sup>

---

<sup>1462</sup> Honen ondotik olajaunak gaztelaniaz egindako hainbat apunte eta kontu daude. Guretako interesgarriak izan daitezkeen bakarrak *Josepe Cassaras Joben* edo *Jph Casaras Joben* deizioa eta *chartel* izen arrunta dira.

<sup>1463</sup> Eskutitzean *Eyssigarrerequiñta* daukagu. Ikus onomastikari eskainitako atalean honetaz dioguna (*Eizagirre* sarrera).

<sup>1464</sup> Originalean *Min.<sup>do</sup>* dago.

1803.10(A)

1803

2 de setiembrean hartu nuen hogei pezetako bat  
 ogitako, eta 3 de setiembrean<sup>1465</sup> olatxokoak 9 libras  
 Nereak falta ziren .....6 libras  
 Eta desde 3 de setiembre hasta 2 de octubre  
 Olatxokoak hartu dituzte .....18 libras  
 Nik en 28 días .....56 libras  
 Hasta 2 de octubre .....89 libras  
 Ekarzea ta guzia pagatu dira 23 pezetas y 25½  
 Hogei pezetan gañera falta da 3 pezetas y 25½ cuartos  
 Olatxoan bakalloa kastatu da .....0 .....23 cuartos  
 1½ libra aceite a 32 cuartos .....1 .....14  
 11½ azumbres de sidra a 4 cuartos .....1 .....12  
 Míos en 28 días cada cuartillo  
 a 7½ cuartos .....6 .....6  
 28 libras de carne a 11 cuartos .....9 .....2  
 Expensa de setiembre .....22 pezetas y 14½ cuartos  
 Lengoak zor dira .....226 pezetas y 18½ cuartos  
 Zor dira guziak .....248 pezetas y 33 cuartos  
 Bakoitzak bere puxkaz galdatzen du hemen.<sup>1466</sup>

A don Juan Bautista de Minondo.

Goizarin

1803.10(B)<sup>1467</sup>

1803 y octubre<sup>1468</sup>

Cuenta de los carreteros de Olaberria  
 Manuel de Etxebeste carretero:

<sup>1465</sup> Gutunean 2 de set.<sup>rean</sup> dugu lehen lerroan eta 3 de set.<sup>rean</sup> bigarrean.

<sup>1466</sup> Azkeneko *n*-a goititua dago, aurreko bokalaren gainean, egileak beste gisan ezin eman zezakeelako, tokirik izan gabez. Bestalde, aditzaren bi osagaiak eta ondoko adberbioa batean izkiriaturik daude, loturik; elkarren arteko tarterik ez dago.

<sup>1467</sup> Orrialde guztietan ditugu olajaunak egindako apunteak.

<sup>1468</sup> Originalean Oct.<sup>re</sup> dago.

<i>De Anizlarre</i> <sup>1469</sup> . . . . .	.00
<i>De Basate</i> <sup>1470</sup> . . . . .	.34
<i>De Pagola</i> <sup>1471</sup> . . . . .	.18
<i>De Garalorregi</i> . . . . .	.03
<i>De Otsamintegi</i> . . . . .	.28
<i>De Olaberria a San</i> <i>Sebastián fierros</i> . . . . .	.8 quintales

Donostiara Fagotxikitik eramantako burnien asentua hor egiñ omen dute batzuek, eta nik eragin dudan lan guzia hemen dago.

*1803 y octubre.*  
Nikolas de Zulaika *carretero*:

<i>De Basate</i> . . . . .	.26 cargas
<i>De Pagola</i> . . . . .	.14
<i>De Garalorregi</i> . . . . .	.2
<i>De Otsamintegi</i> . . . . .	.10
<i>De Olaberria a San</i> <i>Sebastián fierros</i> . . . . .	.7 quintales

*1803 y octubre.*  
Paskual de Etxeberría *carretero*:

<i>De Basate</i> . . . . .	.7 cargas
<i>De Pagola</i> . . . . .	.5
<i>De Otsamintegi</i> . . . . .	.8
<i>De Olaberria a San</i> <i>Sebastián fierros</i> . . . . .	.4¼ quintales

*1803 y octubre.*  
Antonio de Bengoetxea *carretero*:

<i>De Basate</i> . . . . .	.13 cargas
<i>De Pagola</i> . . . . .	.07

<sup>1469</sup> Artikutzako aurkintza (NTEM XLVII: 146-147). Lehen aldiz 1270ean ageri da, Orreagako kolegiatako dokumentazioan: «Yo Lop Dioz de Faro do al hospital de Santa Maria de Roncasuailles [...] las mias bustalizas qui son en Ypuzcoa, por nombre Beracoyana e Errenga e Anizlarre» (Ostolaza, 1978: 307). 1593an hau ediren dugu (NEAN, Ihabengo pr., 1, J. de Arano): «mya es la cassa y ferreria de Anizlarrea que son del dicho monesterio ospital general de Roncesballes [...] desde el sel de Anizlarrea por el vertiente [...] hasta el rio que viene de Goycueta y por el dicho vertiente asta Gaztaraz e por la otra part de Yraycomeaca por una canal de agoa que va drecho al rio llamado Af..]ñarbe y desde los dichos mojonas a la dicha ferreria de Arranbide».

<sup>1470</sup> Oiartzungo aurkintza dugu hau (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 99).

<sup>1471</sup> Oiartzungo dermioa da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 261).

*De Garalorregi* .....01  
*De Otsamintegi* .....15  
*De Olaberria a San*  
*Sebastián fierros* .....6 quintales y ½ arroba

---

*1803 y octubre.*  
Sebastian de Bengoetxea *carretero*:  
*De Basate* .....2 cargas  
*De Pagola* .....4  
*De Garalorregi* .....3  
*De Olaberria a San*  
*Sebastián fierros* .....2 quintales

---

*1803 y octubre.*  
Juan Jose de Sorondo *carretero*:  
*De Anizlarre* .....6 cargas  
*De Basate* .....23  
*De Otsamintegi* .....6

---

*1803 y octubre.*  
Jose Ignazio de Lekuna *carretero*:  
*De Basate* .....16 cargas  
*De Pagola* .....6  
*De Otsamintegi* .....8  
*De Olaberria a San*  
*Sebastián fierros* .....3 quintales  
*De Fagotxiki* .....1 quintal

---

*1803 y octubre.*  
Sebastian de Telletxea *carretero*:  
*De Basate* .....8 cargas  
*De Pagola* .....5  
*De Olaberria a San*  
*Sebastián fierros* .....2 quintales  
*De Fagotxiki* .....1 quintal

---

*1803 y octubre*  
Franzisko Antonio de Ribere *carretero*:  
*De Basate* .....3 cargas  
*De Pagola* .....6  
*De Olaberria a San*  
*Sebastián fierros* .....2 quintales y ½ arroba  
*De Fagotxiki* .....1 quintal

---



1803 y octubre.

Sebastian de Anzanborda *carretero*:

De Basate .....2 *cargas*

De Pagola .....3

De Olaberria a San

*Sebastián fierros* .....3 *quintales*

---

1803 y octubre.

Damian de Oiarzabal *carretero*:

De Basate .....8 *cargas*

De Pagola .....5

De Garalorregi .....1

De Otsamintegi .....4

De Olaberria

*a San Sebastián fierros* ...2 *quintales*

Suertean iduriak<sup>1472</sup>

*bataren basotik bestera* ...2 *cargas*

---

1803 y octubre.

Matias de Itxagoien *carretero*:

De Basate .....11 *cargas*

De Pagola .....5

De Garalorregi .....1

De Otsamintegi .....14

De Fagotxiki

*a San Sebastián fierros* ...1 *quintal*

---

1803 y octubre.

Jose Juakin de Erroizperena *carretero*:

De Anizlarre .....2 *cargas*

De Basate .....31

De Olaberria a San

*Sebastián fierros* .....8 *quintales*

---

1803 y octubre.

Sebastian de Makuso *carretero* Torrekoa:

De Basate .....10 *cargas*

De Pagola .....6

---

<sup>1472</sup> Ikus hiztegia.

*De Otsamintegi* .....8  
*De Olaberria a San*  
*Sebastián fierros* .....4 quintales

---

1803 y octubre.       **Guapo**  
Sebastian Goapo<sup>1473</sup> *carretero*:  
*De Basate* .....13 *cargas*  
*De Pagola* .....6  
*De Garalorregi* .....2  
*De Otsamintegi* .....4  
*De Olaberria a San*  
*Sebastián fierros* .....2 quintales

---

1803 y octubre.  
Juakin de Lekuna *carretero*:  
*De Basate* .....5 *cargas*  
*De Pagola* .....4  
*De Garalorregi* .....1  
*De Otsamintegi* .....4  
*De Olaberria a San*  
*Sebastián fierros* .....2¼ quintales

---

1803 y octubre.  
Salbador de Arretxea *carretero*:  
*De Basate* .....1 *carga*  
*De Garalorregi* .....1

---

1803 y octubre.  
Luis de Sorondo *carretero*:  
*De Basate* .....1 *carga*

---

1803 y octubre. *Bueyeros.*  
Kosme de Lekuna *carretero*:  
*De Rentería menas* .....18 quintales

---

1803 y octubre.  
Franzisko de Aranburu *carretero*:  
*De Rentería menas* .....7 quintales

---

---

<sup>1473</sup> Norbaiten izengoitia dateke hau.

1803 y octubre.

Franzisko de Irigoien *carretero*:

*De Rentería menas* . . . . .31 quintales

*De Gaztelu* . . . . .14½ quintales

---

1803 y octubre.

Migel de Aranburu *carretero*:

*De Rentería menas* . . . . .15 quintales

*De Gaztelu* . . . . .13½ quintales

---

1803 y octubre. *Bueyeros*.

Kosme de Lekuna *carretero*:

*De Rentería menas* . . . . .18 quintales

---

1803 y octubre.

Franzisko de Aranburu *carretero*:

*De Rentería menas* . . . . .7½ quintales

---

1803 y octubre.

Franzisko de Irigoien *carretero*:

*De Rentería menas* . . . . .31 quintales

*De Gaztelu* . . . . .14½ quintales

---

1803 y octubre.

Migel de Aranburu *carretero*:

*De Rentería menas* . . . . .15 quintales

*De Gaztelu* . . . . .13½ quintales

---

1803 y octubre.

Franzisko de Lekuna *carretero* Zuloakoa:

*De Aireko gaña menas* 41 quintales y 2 arrobas

## 1803.11.Hasiera

1803

*Desde 2 de octubre hasta 29 de octubre.*

Nagusi jauna:

Olatxoan aritu dira:

Hiru lagun	<i>en 9 días</i>	
Bi lagun	<i>.....en 9 días</i>	
Tokatu zaiote ogia	.....	.135 libras
Nerea	<i>en 28 días</i>	.....
		.056 libras
Guzia	.....	.191 libras
Donostiatik hartu ditugu	.....	.125 libras
Errotatik iriña ekarriaz	.....	.066 libras
66 librak balio dute	.....	.16 pezetas y 17 cuartos
16 azumbres y 7 chiquitos de vino a		
30 cuartos olatxoan	.....	.14 pezetas y 30 cuartos
10¼ libras de aceite a 1 pezeta	.....	.10 pezetas y 8½
Sardinas de	.....	.01 pezeta y 13
Nereak	<i>en 28 días 7 azumbres</i>	
de vino a 30 cuartos <sup>1474</sup>	.....	.06 pezetas y 6 cuartos
28 libras carne a 11 cuartos	.....	.09 pezetas y 2 cuartos
Expensa de octubre	.....	.58 pezetas y 8½ cuartos
Lengoak zor dira	.....	.248 pezetas y 33 cuartos
Hasta 29 de octubre todos	.....	.307 pezetas y 7½ cuartos

1803.11.10

Nagusi jauna:

Ostaleroak<sup>1475</sup> edo tabernariak gaztigatu dit igandeko<sup>1476</sup> behar dituela ardoen diruak, mandazaiari kontua emanen badio preziso behar dituela, ta hoiek<sup>1477</sup> pagatu beharko dute. Erremienta egitean kastatu dira:

A 30 cuartos	.....	.11 azumbres y 1 chiquito
A 28 cuartos	.....	.14 azumbres y 3 chiquitos
Importan	.....	.21 pezetas y 22½ cuartos
Lengo hillaren azkeneko espensak	...	.307 pezetas y 7½ cuartos
Guziak	.....	.328 pezetas y 30 cuartos
1803, noviembre 11. Pagué todo con sobra de	.....	.6 cuartos

Olaberria, 10 de noviembre de 1803.

*Su servidor Jose Ramón.*

<sup>1474</sup> Ikusten da Jose Ramonek berak kontsumitu beharrak zorrotz neurtzen zituela: egunean litro erdi ardoa edaten zuen beti, eta ogi erdia jaten (bi libra, kilo bat ogi goiti-beheiti). Horixe ondorioztatzen da behintzat kontuetatik.

<sup>1475</sup> OEHn hitz honen lekukotasun bakarra jasotzen da, Larzabalena.

<sup>1476</sup> 'Iganderako'.

<sup>1477</sup> Ez dakigu zein den honen erreferentzia.

1803

11 noviembre. Pagué todo dichos (sic) arriba a Joseph Ramón.

Envié este dinero con Sebastian Anzanborda.

A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

1803.11.13

Nagusi jauna:

Lengo egunean Josepino<sup>1478</sup> etzen itxean, ta egun egondu naiz, ta larruak Bautista Altamirak<sup>1479</sup> eraman omen zituen; bereak eskas-ta eskatu omen zition.<sup>1480</sup> Eta behiaren mandatua egitea nahi badu egiñen diot; gaztiga beza.<sup>1481</sup>

Erretazoak 24 kuartilluan gelditu dira. Esamiñetan allegatuko etzirala, batzuek behintzat, aditzen nuen. Olaberria, 13 de noviembre de 1803.

*Su servidor Jose Ramón.*

1803. Carbón. Patxiko Goñi Unalbidegi.<sup>1482</sup> 14 noviembre, lunes.

Bordatxo	+3
Sebastian Kanka	+1
Marres <sup>1483</sup>	+1
Matxinoa	-1
Semea <sup>1484</sup>	+1
Antonio Bengoetxea	+1

A don Juan Bautista de Minondo.

Goizarin

---

<sup>1478</sup> *Josefina*-ren gizonentzako aldaera, *Josefino* alegia.

<sup>1479</sup> *Altamira* Oiartzungo baserria da.

<sup>1480</sup> Josepineri eskatu zizkion, irudi duenez.

<sup>1481</sup> *Berorrek* alegia.

<sup>1482</sup> Hauek olajaunak gutuna jasotakoan egin apunteak dira. Ez dakigu seguru *Patxiko* irakurri behar den. Bestalde, *Unalbidegi* -unaia behiekin-eta ibiltzen ziren bidea- ez da guk nahi genukeen bezain argia, baina hola irakurri behar dela dirudi. Ondoko izen zerrendaren aldamenen bada puntudun zutabe pare bat.

<sup>1483</sup> Ez dugu ongi irakurtzen ahal.

<sup>1484</sup> Segur aski *Xemea* irakurri beharko da hau.

### 1803.11.22 ingurukoa

Nagusi jauna

Luis de Lekunaren kontua bealdu nuen:

*Desde 5 de abril hasta fin de julio . . . . .140½ quintales* }  
*Geroztik ekarri da mea 065 quintales* } *205½ cuartos*

Hartu dute borra bat *22 libras*

Luisek, laguna geldituta, bakarrik egin

du bere semearekin . . . . .*.61½ quintales*

*Hasta 22 de noviembre de 1803.*

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.<sup>1485</sup>

### 1803.11.23

Nagusi jauna:

Kosmeren itxean ta Goiaran<sup>1486</sup> diran golde gaiak<sup>1487</sup> pisatuak dira; orga-  
ra<sup>1488</sup> falta dute *34 libras*. Eta nik ez dakit gurdirik orañ ote dabillen Franzia-  
ra. Elizatik erakutsi zen Oi[ar]zun<sup>1489</sup> Errepublikaren ordena zela gurdi meha-  
<sup>1733</sup> Gutunean *huichiq* (erg.) daukagu, *Uitzi* deitura zuen norbaiten goitizena. IBren gutunetan ardura *Ubizi* aurkitzen dugu, eta garbi dago *Luis* > *Lubis* bezala, *Ui(t)zi* > *Ubi(t)zi* bihurtu zela, nahiz *-tz*-rekin idatzirik ez dugun sekula edireten. Franko argi dago *Uitzi* (*Huici* erdaraz) deituraren aldaera dugula hemen, edo Larraungo herriaren izenetik ateratako izengoitia. Beste gutun batean (1794.04.15\_1807.09.30) *Angel de Huiziq* (*yrabazi-du*) daukagu.

<sup>1734</sup> Originalean lerro bukaeran dago *du* hori, xulo baten aitzinean, eta irudi du *-e-* irakurri behar dela, edo letra hori hor dagoela ulertutzat eman behintzat.

<sup>1735</sup> Ele bakar batean izkiriaria da: *Esanduta*=.

<sup>1736</sup> Hau ere goitizena da, bistan da.

<sup>1737</sup> Beste anitzetan bezala, *deribereq* idatzia dago, hau da, preposizioaren eta deitura edo etxe izengoitiaren artean tarterik ez da.

Franzisko de Aranburuk . . . . . 10 días a 2 reales  
Todos importan . . . . . 31 pezetas y 14 cuartos

Olaberria, 21 de diciembre de 1805.

*Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1806.01.19

*1806 enero 21*

Nagusi jauna:

Luis de Lekunak mea<sup>1738</sup>

egiñ du, 14 de octubre ezkerro, 12 quintales y 1½ arrobas.

Hill honetan ekarriak baditu:

Arrago egurrak . . . . . *19 leras*

Ariztxulegitik trabak . . . . . *1 día*

Olaberria, 19 de enero de 1806.

*Su servidor Jose Ramón.*<sup>1739</sup>

1806.01.24(A)

Nagusi jauna:

Patxiku Katxok eta bere lagunak

honara eman dute mea *142½ quintales*

Hoietarako hartu dute burnia . . *17 libras*

Ta berorrek bealduak nik eman nitiozten agostoa bi urretxiki zar.

Olaberria, 2 de enero de 1806.

*Su servidor Jose Ramon de Minondo.*

---

<sup>1738</sup> Honen azpian olajaunak erdaraz idatzitako *Abono la mena* dago.

<sup>1739</sup> Honen ondotik olajaunaren apunteak ageri dira. Gure interesekoak diren bakarrak *19 leras leña* eta *en otra papel* dira.

1806.01.24(B)

Nagusi jauna:

Jose de Aranburuk berak egiñ eta ekarriak ditu

meak a 4 reales . . . . .90 quintales y 3½ arrobas

Anaieak ekarriak a 3 reales } 08 quintales y 4 arrobas

Olaberria, 24 de enero de 1806.

Ojo

Su servidor Jose Ramon de Minondo.

1806.02.Hasiera

1806 desde 28 de diciembre hasta 1 de febrero.

En martinete 69 panes a 28

cuartos importan . . . .56 pezetas y 28 cuartos

4½ libras de aceite a 48 cuartos

y 14 libras de aceite a 46 cuartos } 25 . . . . .10

15½ azumbres vino a 28 cuartos

haciendo remientas } 12 . . . . .26

104¾ azumbres sidra a 4 cuartos 12 . . . . .11

Sardinas de . . . . .03 . . . . .08

Míos en 35 días ½ pan . . . . .14 . . . . .14

35 cuartillos vino a 7 cuartos . . . . .07 . . . . .07

35 libras de carne a 14 cuartos . . . . .14 . . . . .14

Expensa de martinete y mía 146 pezetas y 16 cuartos

En herrería mayor . . . . 109 pezetas y 21 cuartos

Expensa de enero . . . . .256 pezetas y 13 cuartos

Antes son . . . . .466 . . . . .28½

Hasta 1 de febrero . . . . .723 pezetas y 7½ cuartos<sup>1740</sup>

Mandatuak maiz baditugu pagatzeko.

1806.02.05

Nagusi jauna:

<sup>1740</sup> Hemen berriro garbi ageri da 34 kuartok pezeta osatzen zutela.

Plantxuelak bealdu ditugu Lamothengana,<sup>1741</sup> bi kintal kuadro naste<sup>1742</sup> dituztela azkeneko orgarentzat, eskastuta;<sup>1743</sup> plantxuelak . . . .9 *orgas* kuadroak . . . . .15 *orgas*

Ta orañ Fagotxikin dira bi kintal, ta olan dira... hemen bost orga behinzat badira, eta esan diotet itzaiai, egun kargatu baitira,<sup>1744</sup> irundar Baionara dabilzanai<sup>1745</sup> esateko bost lagunen kargak badaudela, ta etorri nahi balute kargatzeraz, ta saiatuko dirala esan dute. Ola handiak datorren astearen erdiko<sup>1746</sup> lanak akatuko ditu,<sup>1747</sup> ikatzak eta meak, guziak, eta olatxoan tretxu puxka bat geldituko da, ta honen diña ikatz<sup>1748</sup> sortuko al da noski baso zar<sup>1749</sup> hoietatik!

Xantusen<sup>1750</sup> ikatzak dira *444½ cargas y 4 lepalotuas. Suerte Garalorregi.*

Olaberria, *5 de febrero de 1806.*

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.

Espadun hoiek<sup>1751</sup> estu aski dabilza bada hemen, ta Josepe igeleak igandeko bealzeko.<sup>1752</sup>

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

### Goizarin

1806.02.10

Nagusi jauna:

---

<sup>1741</sup> Originalean *Lamoten gana* daukagu.

<sup>1742</sup> Bietarik, plantxuelak eta kuadroak batean.

<sup>1743</sup> *Kuadro* gutxi bide zituzten azken orgara orduko, eta bakarrik bi kintal bidali dituzte, nahaste, itxuraz plantxuelekin batean.

<sup>1744</sup> '...eta esan diet itzainei, gaur kargatu direnei'.

<sup>1745</sup> 'Baionara dabilzan irundarrei', 'Baionara doazen irundar itzainei'.

<sup>1746</sup> 'Datorren astearen erdirako'.

<sup>1747</sup> Eskuarki *akabatu* ibiltzen du Jose Ramonek, baina tarteka *akatu* ere badu.

<sup>1748</sup> 'Geldituko den tretxu puxka erretzeko behar den adina ikatz'. Ikus joskera atala.

<sup>1749</sup> Hemen ez dakigu *baso zahar* esan nahi den edo *basozar*, alegia, *baso zakarra* edo *baso zekena*, baliatzen zaila edo emankorra ez dena. Kandeletan basoen emankortasuna biziki garrantzitsua dela ikusten baita hemengo zenbait gutunetan, lehiatzeko tenorean.

<sup>1750</sup> *Ssantusen* dago originalean; ikus 1801.01.09ko eta 1802.3.25eko gutunak, eta orobat grafia, fonetika-fonologia eta onomastika atalak.

<sup>1751</sup> 'Haserre antzean dauden horiek', 'bekaizti horiek', 'beti kexu diren horiek'.

<sup>1752</sup> «*Eta Josepe ijeleak (dirua?) iganderako bidaltzeko dio*». Beste batzuetan bezala, *Jpbe* idatzirik dago ponte izena.

Lorenzo igelea, horkoa,<sup>1753</sup> Sidroren<sup>1754</sup> lekuan hemen zela ola handiko-  
 ak egiñ zuten tretxua . . . . . 92 *quintales y 3½ arrobas*  
 Espensa . . . . . 73 *pezetas y 4 cuartos*  
 Donostiako babatik . . . . . 3/4 *fanega*  
 Agorrean<sup>1755</sup> 17 egunean egin zen lan hau  
Desde 22 de enero hasta 24 de agosto de 1805  
 Geroztik Sidro hemen dela egin da:  
 Tretxua . . . . . 318 *quintales y 4½ arrobas*  
 Espensa . . . . . 232 *pezetas y 15 cuartos*  
 Donostiako babatik . . . . . 23 *celemines*<sup>1756</sup>  
 Klean 12 pezeta pagatutik . . . . } 08½ *celemines*  
 Kabiguña sartu berria ta zarra, hautsi baño len, boban<sup>1757</sup> eskatu<sup>1758</sup> ta  
 bobatu ere bai.

<sup>1753</sup> «Lorenzo igelea horkoa» ere irakur daiteke, komak gerok paratu baititugu. Jose Ramonek behin baino gehiagotan uzten du artikulua kendu gabe, «*papera hori*» tankerakotan. Ikus izen morfologiari buruzko kapitulua.

<sup>1754</sup> *Isidro* izenaren forma laburtua, oraino ibiltzen dena. Badaiteke *Xidro* izatea, baina horren frogarik ez dugu.

<sup>1755</sup> ‘Agorrilean’, ‘abuztuan’.

<sup>1756</sup> *Laka* edo *almutea* da erdarazko *celemín*, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*-ren arabera, ‘ale edukiera-neurria, ia bi litro eta erdiren baliokidea; neurri horretan sartzen den ale kopurua; neurri hori hartzen duen ontzia’.

<sup>1757</sup> Burdinolako pezetako bat da *boba*, eta *bobatu* horrekin lotu aditza. Ikus 1800.03.10eko gutuna. Garmendiak (1977: 118) *aldabarra* zer den azaltzean honela dio: «*Boga, boba* edo *boa burkoetan* tinkatzeko egurrak *aldabarrak* zeritzaten [...]», eta erdarara autoreak berak itzulirik: «Los tablones o maderas para sujetar la “boga”, “boba” o “boa” en las ‘burkoak’ recibían el nombre de “aldabarrak”». *Burko* hau *buruko* zaharrago batetik atera da; ikus zer aurkitu dugun Goizuetaiko Zibola etxe-dorre-burdinolaren inguruko 1706ko dokumentu batean: «...*las dos Vurucoas del uso mayor son nuevas = como tambien las dos Aldabarras del Mazo [...] las Vurucoas de la Barquinera se allan buenos y la antepara al presente se alla buena [...] dicha Herreria de Ziuola*» (NEAN, 15605, 3, 12; izkirio lodia gurea da). Zubiarek (1960: 105) honela dio, Mogeli jarraikiz: «BOGIA. Pieza de hierro que sostiene el *gabigun*, es sin duda la pieza que lleva los muñones sobre los que ha de girar y sostenerse el *gabigun*». Gero, *burkuak* (*burukoak*) direlako ez honela dio: «cuñas grandes que ajustan los (*sic*) *aldabarras*». Ikus hiztegian honetaz dioguna. A. M. Mitxelenak (2020b: 241) *burucoa*, *burulcoa* dakar; haritz edo arte egurrez egindakoa bide zen.

<sup>1758</sup> ‘Askatu’, ‘laxatu’.

Josepe igeleak katuak atera<sup>1759</sup> ta berriak sarzen ta endal harria<sup>1760</sup> konponzen baditu *5 días, desde 25 de agosto de 805 (sic) hasta 11 de febrero de 1806*.

Sidrok egun kontua behar badu, pasatu dira *47 días*, eta aste batean astelen arratseko bildu zen.<sup>1761</sup> Egun bat kendu dakiko.<sup>1762</sup> Larunbatean elementutan<sup>1763</sup> olatik yoan ta igandean egueldi txarraz gelditu,<sup>1764</sup> ta astelenean illunabarreko olara. Hagitz presumitua da hau berau ere. ~~Ikatz~~ (sic) Olaberria, *10 de febrero (resic) de 1806*.

*Su servidor Jose Ramón.*

*A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1806.02.16

Baustista prestador<sup>1765</sup>

Meallean kontua.

Sei egunekoak ditu *13 semanas y 4 días*, ta pezeta batekin Añoa<sup>1766</sup> toberarekin bjaie bat.

---

<sup>1759</sup> *Burdin katuak*, Mogelen arabera (ikus Zubiaurre, 1960: 102): «*Ateraten dabee (agoia) sutegiti agivira ez izerdi tanta ta bero asko bota bada. Botaten dabee beera ta, txirikiña edo burdin kato bat iraatzirik darue gabipera. An ezarten deutsee atala orakarri ta kirtentzat*». Ikus hiztegioko *katu* sarrera.

<sup>1760</sup> OEHN honela definitzen da *endal* (*endal harri* ez da ageri; *dendal* aldaera ere bada): 'Los extremos de los *gabi-oñek* [*gabi igunak* alegia] en contacto con el eje dentado llevaban un ferrado denominado *endala*'. Garmendiak (1977: 120) honela dio: «ENDAL ARRIE. Eta 'endal-arrie' zuen izena 'endala' punpatzen zen burdin edo arriak». Ikus *endal harri* sarrera, hiztegian.

<sup>1761</sup> «*Astelehen arratserako bildu zen, etorri zen olara, ez behar zen bezala bezpera ilunabarrean edo astelehen goizean*».

<sup>1762</sup> 'Ken dakioko'. Reguerok (2018 [2015]: 208; letra lodia gurea da) argitaratutako Goizuetako 1753ko predikuan beste hauek ditugu: «*eta beguira ote den doloreric nere doloreri iguala **daquicoanic**, tristezaric nere tristezari iguala **daquicoanic** ta soledaderic nere soledadeari iguala **daquicoanic***». Autoreak dioenez, Beriainek ere badu *daquico*, *daquioque*-rekin batean. Maria Melitona de Zistiagak (gutun argitaragabea) *gazitgatuko ez niko* dauka: «*...biar ezpanitu / gazitgatuco esnico*» '...bihar ez banitu, gazitgatuko ez nioke'.

<sup>1763</sup> Euria goian-behe eta zurrupitaka ari zuela. Ez genekien gaur egun ohikoa den (*kriston*) *elementuk* formak hainbesteko tradizioa zuela.

<sup>1764</sup> 'Eguraldi txarragatik etxean gelditu'.

<sup>1765</sup> Euskarazko *meallea* bera. Ikus hiztegia.

<sup>1766</sup> Lapurdiko Ainhoara. Harreman usuak zituzten Urumea inguruko burdinolek Ainhoarekin. Oartzunen bazen beste *Aynoa* bat (1499, Irijoa eta Lema, 2011: 116).

*Desde 26 de diciembre de 1804 hasta 11 de febrero de 1806.*

Hemengo tretxu honek azal handia du eta bera ere, tretxua, handis-  
koa,<sup>1767</sup> ta ekusiko dugu txabala nolakoa heldu den. Ta espensa hoiek ixil-  
du<sup>1768</sup> behar lirake. Olaberria, *16 de febrero de 1806.*

*Su servidor Jose Ramón.*

*274 días míos*

*3 días de Kanka<sup>1769</sup>*

*19 días prestador en Goizarin*

*2 días prestador en Elama*

*5 pezetas de Semea y Juakintxo*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios muchos años [guarde].*

### Goizarin

## 1806.02.17

Nagusi jauna:

Bealdu dira Lamothengana<sup>1770</sup> *18 de marzo de 1805* ezkerro:

*19 de marzo cuadros . . . . . 2 orgas*

*27 de marzo planchuelas . . . . . 2*

## 1806

*7 de enero planchuelas . . . . . 3*

*10 de enero . . . . . 2*

*13 de enero . . . . . 1*

*15 de enero . . . . . 2*

*17 de enero . . . . . 1*

*18 de enero cuadros . . . . . 3*

*20 de enero . . . . . 1*

*21 de enero . . . . . 1*

---

<sup>1767</sup> Hau *handixkoa* ere irakur daitekeela uste dugu. Ikus sistema grafikoari eskaini atala.

<sup>1768</sup> Hemen 'ordaindu', 'kitatu' dela dirudi.

<sup>1769</sup> Beste gutun bateko *Konka* bera dateke.

<sup>1770</sup> *Lamoten gana* izkiriatura da, arruntean bezala.

22 de enero	.3
23 de enero	.1
28 de enero	.1
30 de enero	.1
1 de febrero	.1
4 de febrero	.1
5 de febrero	.2
	<hr/>
	28 orgas

Vuelta

Son	.28 orgas
7 de febrero	.04
10 de febrero	.02
13 de febrero	.02
11 orgas planchuelas y 25 orgas cuadros	.36 orgas
	.37
febrero 20	.orga bat plantxuela <sup>1771</sup>

Olaberria, 17 de febrero de 1806.

Su servidor Jose Ramon de Minondo.

1806.02.24

Nagusi jauna:

Franzisko de Pikabeak

bota du honara mea . . . . .15 quintales y 2½ arrobas

burnia hartu du . . . . .24 libras

Guk jasoak dira meak, desde 21 de marzo de 1805 hasta 24 de febrero de 1806.

Su servidor Jose Ramon de Minondo.

1806.06.08

Nagusi jauna:

---

<sup>1771</sup> JBMren euskarazko bigarren apuntea da hau. Ikus 1804.03.24ko eskutitza.



Jose de Aranburuk

Ekarri du mea berea . . . . . *asenté* . . . . . *85 quintales y 4½ arrobas*

Burnia hartu du . . . . . *asenté* . . . . . *3 arrobas*

*Desde 24 de enero de 806 hasta 8 de junio de 1806.*

Arrago egurrak ekarri ditu jua den asteen *15 leras. asenté*<sup>1772</sup>

Olaberria, *8 de junio de 1806.*

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.

### 1806.07.Hasiera

1806

Nagusi jauna:

22 de ezkerro (*sic*) Lamothengana<sup>1773</sup> jua dira burniak modu honetan:

20 de febreroan kargatua 22 ezkerro allegatu zen

kuadroa . . . . .	.1	orga . . .
22 de febreroan kargatuak kuadroak . . . . .	.2	. . .
24 de febrero . . . . .	.2	. . .
26 de febrero plantxuelak . . . . .	.2	. . .
1 de marzo plantxuela . . . . .	.1	. . .
3 de marzo kuadroa . . . . .	.2	. . .
10 de marzo plantxuela . . . . .	.2	. . .
11 de marzo kuadroa . . . . .	.1	. . .
12 de marzo kuadroa . . . . .	.1	. . .
17 de marzo kuadroa . . . . .	.2	. . .
plantxuela . . . . .	.1	. . .
19 de marzo kuadroa . . . . .	.1	. . .
20 de marzo plantxuela lodia . . . . .	.1	. . .
21 de marzo kuadroa . . . . .	.2	. . .
24 de marzo kuadroa . . . . .	.1	. . .
28 de marzo kuadroa . . . . .	.1	. . .
31 de marzo kuadroa . . . . .	.2	. . .
5 de abril kuadroa . . . . .	.1	. . .
9 de abril kuadroa . . . . .	.3	. . .
11 de abril kuadroa . . . . .	.1	. . .
14 de abril kuadroa . . . . .	.1	. . .

<sup>1772</sup> Beste letra mota batekin idatzitako hauek olajaunak gutuna hartu eta ondoan egin apunteak dira.

<sup>1773</sup> *Lamotengana* idatzirik dago.

17 de abril	kuadroa	.....1	...
21 de abril	kuadroa	.....2	...

Kuadroak 27 orga eta plantxuelak 7 orga

Kuadroak	.....27	orga	
Plantxuelak	.....07	orga	
23 de abril	kuadroa	.....01.....	
28 de abril	plantxuela	.....01.....	
6 de mayo	plantxuela	.....01.....	
10 de mayo	plantxuelak	.....01.....	
13 de mayo	plantxuela	.....01.....	
6 de junio	plantxuela	.....02.....	
18 de junio	kabilla	.....01	
20 de junio	kuadroa	.....01	
23 de junio	kuadroa	.....02	
Kabilla	.....01		
Dira guziak, <sup>1774</sup>	kuadroak	.....31	orga
Plantxuelak	.....13	orga	
Kabillak	.....02	orga	

Kuadroetan badira eskastuta juanak arroa batzuek plantxuelatetik,<sup>1775</sup> eta kabillatan ere bai, 8 arroa bezala.

## 1806.09.07

Nagusi jauna:

Sokoloko andreak<sup>1776</sup> harzeko du espensan 66 pezetas y 9 cuartos hasta 30 de agosto, eta ematen battio<sup>1777</sup> horri bereak, espensari rebajatzea izanen da.

---

<sup>1774</sup> Kontabilitate kontuetan nagusi zen gaztelaniaren eragina ikusi beharko da hurren-kera honetan.

<sup>1775</sup> Egun Goizuetan, leku kasuetan behintzat, ez dira plurala eta mugagabea erraz bereizten. Testuko *kuadroetan* ere *kuadrotan* litzateke orain, eta ez dakigu *plantxuelatetik* eta *kabillatan* irudi duten bezala mugagabeak diren edo egungo erabilera nahasixearen aurrekari diren. Ikus izen morfologiaren inguruko atalean dioguna.

<sup>1776</sup> Oiartzungo baserria da *Sokolo* edo *Zokolo*. Gutun honetan, nolanhiko gisan, alde batean goitik behera letra larriz eta azpimarrarekin idatzirik, *CHOCOLO* dago, egun *Txokolo* idatziko genukeena. Euskarazko \**Xokolo*-ren moduko ebakera gaztelaniaz eman nahia? Goikoetxea eta Lekuonak (2007: 319) *Zokolo* arautzen dute baserriaren izena, eta esaten (*ibid.*, 165) egun *Sokolo* aurkintza badela.

<sup>1777</sup> 'Ematen baditio', 'ematen badizkio', berorrek hari haiek, alegia. Hemen *ttio* adizkiaren lehen soinua palatala dela zalantzarik ez dago, egun ere hola egiten baita (ikus grafiaren eta aditz morfologiaren inguruko kapituluak). Ez dakiguna da *ematen* hori orain bezala *ematten* esaten zen edo ez. Segur aski bai.

Olaberria, 7 de setiembre de 1806.<sup>1778</sup>

*Su servidor Jose Ramón.*

A don Juan Bautista de Minondo.  
Que Dios muchos años [guarde].

Goizarin

### 1806.09.Bukaera

*1806 desde 31 de agosto hasta 27 de setiembre.*

<i>En martinete 31½ panes a 24 cuartos</i>	<i>.....</i>	<i>22</i>	<i>pezetas y 02 cuartos</i>
<i>8½ libras de aceite a pezeta</i>	<i>.....</i>	<i>08</i>	<i>.....17</i>
<i>13 azumbres y 3 chiquitos vino a 28 cuartos</i>	<i>...11</i>	<i>.....</i>	<i>00½</i>
<i>16½ azumbres de sidra a 4 cuartos</i>	<i>.....</i>	<i>01</i>	<i>.....32</i>
<i>Sardinas de</i>	<i>.....</i>	<i>01</i>	<i>.....00</i>
<i>6 celemines de haba</i>	<i>.....</i>	<i>04</i>	<i>.....04</i>
<i>Míos en 28 días ½ pan a 12 cuartos</i>	<i>.....</i>	<i>09</i>	<i>.....30</i>
<i>28 cuartillos de vino a 7 cuartos</i>	<i>.....</i>	<i>05</i>	<i>.....26</i>
<i>28 libras de carne a 14 cuartos</i>	<i>.....</i>	<i>11</i>	<i>.....18</i>
<i>De martinete y míos</i>	<i>.....</i>	<i>75</i>	<i>.....27½</i>
<i>De herrería mayor</i>	<i>.....</i>	<i>29</i>	<i>.....22</i>
<i>Expensa de setiembre</i>	<i>.....</i>	<i>105</i>	<i>pezetas y 15½ cuartos</i>
<i>Antes son</i>	<i>.....</i>	<i>567</i>	<i>.....13½</i>
<i>Hasta 27 de setiembre</i>	<i>.....</i>	<i>672</i>	<i>pezetas y 29 cuartos</i>

Hoietarako Sokolokoari emana rebajatzea da. Ta gañerakoak ere galda-tzen dute.

### 1806.11.02

Nagusi jauna:

Señoarekin egondu naiz ta esan dit 40 egun honetan miñez dagoela, eta aditu duela posesioa nola hartu duten, eta laster kausara atera nahi lukeala, eta yakiñen duela zer indar edo moduak ekarri dituzten, eta aditzera emanen didala laster zer egiten duten.

---

<sup>1778</sup> Honen ondotik olajaunaren hainbat apunte daude. Hor *San Juan Chuta*, *Fermin Oquerra* eta *Pachico* (*Pach*<sup>o</sup> laburtua) *Arzaimutilla* aipatzen dira.

Ni nago olajaunak<sup>1779</sup> kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpoko mea hoietan txar asko ateratzen da, eta meatze yabe hoiek alkua pasatzeko<sup>1780</sup> asmoak dituzte, eta pasatuko dute berak diotenaz, eta hura pasatu ezkerro mea hobea izanen da, nahiz deretxoa pagatu, eta meatze ona yarri ezkerro meakariak pozik ariko dira, deretxoa berak pagatzen dutela ere.

Orañ ere Garatekoak eta Mattanttak hasi behar dutela diote, hamarretatik bat emanta, beste modurik ezpada. Indianoak, noski, esan diote daudela<sup>1781</sup> puxka bat deretxorik eman gabe.

Ariztiburukoa<sup>1782</sup> eta Aldakokoa dira orañ guzien partetik agintari, ta esan diote Garatekoai lan egiñik etzaiotela galduko. Baño olajaunak hoien eskutik hartu beharko dute mea, ta meakariak hoiei entregatu; hala nahi bide dute behinzat jabe hoiek.

Nik esan diot Ariztiburukoari posesioa hartu baño len hoienzat gelditzen badira meatzeak, alkua pasatu beharko dutela, kanpoan ez dagoela lantegi onik, pillaretan<sup>1783</sup> edo zillegi ez den tokian gehinak (*sic*) aritzen dirala. Ta baietz zion, alkua pasatuko dutela. Eta orañ ere hala omen diote; ni ez naiz egondu orañ.

Ta olajaunenat mesede alkua pasatzea, ta hoiek hasitzen badira, ez dute utziko pasatu gabe, ta orañ ez yakin Seño honekin zer egiñen duten.

Xantus ikatzgilleak esan dit berorrek gaztigatu diola Simon Aiudaz<sup>1784</sup> horrara agertzeko, ta atzo mandatua hartu omen du.<sup>1785</sup> Eta esan dit aldaketako lanak dituela orañ, eta zer nahi duen niri gaztigatzeko, ta igandean neregan agertuko dela zer nahi duen aditzera. Eta horrara etorzea nahiago badu, datorren astean eziñ datorkeala, baño bestean etorriko dela, ta abisatzeko zer nahi duen.

Olaberria, 2 de noviembre de 1806.

*Su servidor Jose Ramón.*

<sup>1779</sup> Gutunean *Ola Jaunaq* idatzirik dago.

<sup>1780</sup> Beheitxieago berriz ageri da esateko era hau. Ikus hiztegiaren dioguna.

<sup>1781</sup> 'Egon daitezela'. Ikus *gabizlan*-ez mintzatzean (1800.11.12) dioguna.

<sup>1782</sup> *Ariztiburu* Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 79).

<sup>1783</sup> 'Pillaretan'. Ez dakigu zer *pilare* diren hauek, baina beharbada meatzeetako harroinetan pentsatu beharko da. Toki arriskugarria, hortaz, mea egiteko.

<sup>1784</sup> Pasartea ez da argia guretako: ez dakigu *Aiuda* deitura edo izengoitia ote den; menturaz 'aiutaz', 'laguntzaz', 'laguntzeko' ere uler liteke, hau da, erdaratikako mailegutzat har liteke: 'Simonon laguntzaz'. Adiera horretako Iparraldeko *aiuta*-ren aldaeratzat hartzea bitxi kausi daiteke, baina 1806.11.12ko gutunean (ikus beheitixeago) *malura* dugu, adibidez.

<sup>1785</sup> Iparraldean azken denboretan bezala, *atzo hartu du*, Hegoaldeko *atzo hartu zuen*-en partez. Ikus aditz morfologiaren gaineko kapituluaren dioguna.

Xanjuani laguna txitt<sup>1786</sup> gelditu zaio, baño portatu nahi badu, berorrek basoa utziko ez duela dio. Bizenteren basoa ere bakar<sup>1787</sup> dago, ta egurra eka-  
rriko dute iñor paratzen ezpada. Olatzagako hoiek aurrera dihoaz,<sup>1788</sup> ta  
hoiek egiñ beharko dute, berenaren mugante dute-ta.<sup>1789</sup>

### 1806.11.12(A)

Nagusi jauna:

Pello Mattantaren<sup>1790</sup> meak rezibitu ditut *a 3 reales 72 quintales y 1½ arrobas.*

Gerok jasoak dira.

Hoietarako ditut nik emanak *10 pezetas.*

Eta pagoa, Azeriak<sup>1791</sup> egiteko hartu zuena, esamiñatu zen... 9 karga.

Olaberria, *12 de noviembre de 1806.*

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.<sup>1792</sup>

*A la señora Ana María, pasadera*<sup>1793</sup> de Patxiko Bastero.

San Sebastián

### 1806.11.12(B)

Nagusi jauna:

---

<sup>1786</sup> Originalean *Chitt* idatzia dago. Ikus sistema grafikoa aztertzen dugun atalean dioguna.

<sup>1787</sup> Artikulurik edo bestelako bukaerarik gabeko forma dugu hemen, ikusten den bezala.

<sup>1788</sup> Gutunean *dioaz* izkiriaturik dago.

<sup>1789</sup> Originalean *duteta* dago.

<sup>1790</sup> *Mattania* idatzirik dago originalean, ezbairik gabe egun *Mattanta* izkiriaturik genukeena emateko. Ikus sistema grafikoaz eta onomastikaz mintzatzean dioguna.

<sup>1791</sup> Goitizena dugu hau; gehienetan *Axeria* aldaera palatalizatua azaltzen da gutunotan.

<sup>1792</sup> Honen ondotik olajaunak gaztelaniaz egindako hainbat apunte heldu dira. Guretako interesgarrienak hor ageri diren izen-izengoitiak eta toponimoak dira: *Pello Picabea Matanta, Pello Picabea, Sb.º Chipito, Tipito, Pello Esnau, Pachico Bastero, Gaztelu.*

<sup>1793</sup> Ez dakigu xuxen zer esan nahi duen hitzak. Gauzak kontuetan pasatzen zituena zen, idazkari modukoa?

Babarik Oiarzunan nik ez dut senti,<sup>1794</sup> ta hortik beal dezake. Fagotxikitik ekarrita eman diotet hasieran, ta haiei ordaña emanta gañerakoa aste honetako diña da. Astean errugu erdi bat<sup>1795</sup> aurreratuko da, bai.

Larunbat arratsean itzaia kargatzera etorrira, ta bealdu nituen:

Txabalak .....34 ½ *arrobas*  
 Kabillak .....15 ½ *arrobas*  
 Orga bat .....50 *arrobas*

Ta orañ bi kintal al dira<sup>1796</sup> Noski, lau sorta dira behinzat, astelenean etorriak. Ta orga hurnitzea nahi badu, hurnituko dugu; ta bestela, diranak kuadroekin batean bealduko ditugu.

Erremienta hoiek sura ezkeru malura<sup>1797</sup> franko badute. Lasterrenaz ere bigar arratseko erremienta paratuko dugu, ta bi egunengatik Sastrea larunbat artea geldituko dugu.

Herriaren kabi txiki hau ere ustaiaren gañetik partitua zegoen, ta honi zapla batzuek<sup>1798</sup> ematen tiogu entregako denboran. Bestela egiñ beharko zen, ta hasi hasi<sup>1799</sup> guzien etsia hartu.<sup>1800</sup> Hiru kabiak eta ingudeak<sup>1801</sup> agoan du (*sic*) puxka bat maneatzeko lana.

Olaberria, 12 de noviembre de 1806.

*Su servidor Jose Ramón.*

Zagiren bat ardo bealdu nahi badu... Sagardoak orañ badira, baño Manuel Juakiñek ez du asmorik sagardorako.<sup>1802</sup>

*A don Juan Bautista de Minondo.  
 Que Dios muchos años [guarde].*

### Goizarin

<sup>1794</sup> 'Ez dut sumatzen'. Ikus hiztegia dioguna.

<sup>1795</sup> 'Erregu erdia' (neurria). Goizuetan egun *erru erdia* esaten da.

<sup>1796</sup> Irudi luke hemen galderazko *al* dugula, baina, hola izatekotz, segur aski bakarra litzateke, eskutitzotan. Hola balitz, ondorioztatu behar genuke Goizuetako hizkeran *al*, galdera zuzenetan, gero eta gehiago ibiltzen dela. Zehar-galderetan egun ere ez dago holakorik.

<sup>1797</sup> Konpontzen eta lantzen zailak direla esan nahi du, zeregin neketsua dela.

<sup>1798</sup> Irudi luke burdin geruza zerbait eman diotela zatitutako gabiari, segur aski tresnaren batekin zafla batzuk emanda.

<sup>1799</sup> Errepikatua dago, lerroaren bukaeran eta hurrengoaren hasieran. Badirudi eskribauaren hutsa dela. Hemen *basi* edo *haxi* dukegu (ikus hiztegia).

<sup>1800</sup> Haxiek ez dutela balio pentsatu beharko zen. Pasarte hau honela ere puntuatu eta uler liteke: «...*boni zapla batzuek ematen tiogu. Entregako denboran bestela egiñ beharko zen, ta basi guzien etsia hartu*».

<sup>1801</sup> Originalean *n*-a goratua dago, *yg*-ren gainean idatzita.

<sup>1802</sup> Ardoa gustukoago izaki!, ardoa nahiago!

1806.12.Hasiera

1806. Desde 27 de setiembre hasta 29 de noviembre.

En martinete 55 panes a 28 cuartos	45 pezetas y 10 cuartos
14 azumbres de vino a 28 cuartos	11 .....18
7 libras de aceite a pezeta	07 .....00
Sardinas de	01 .....15
Míos en 28 días ½ pan a 12 cuartos y	] 24 .....10
en 35 días ½ pan a 14 cuartos	
En 63 días cuartillo de vino a 7 cuartos	12 .....33
63 libras de carne a 14 cuartos	25 .....32
Expensa de octubre y noviembre	128 pezetas y 16 cuartos
Antes son	672 .....29
Todos hasta 29 de noviembre	801 pezetas y 11 cuartos

Jendea zaletua dago harzeko, ta geroago ta ederrago ez da izanen pagatzekoak idukitzea.

1806\_1807<sup>1803</sup>

Manuel Juakin

Nagusi jauna:

Manuel Juakiñi eman nion kontua olatxokoa . . .6 semanas y ½ día  
 Haxiak atereak .....2 kintal y ½ arroba  
 Barrika ustaiak hartuak .....11 libras  
 Desde 27 de marzo hasta 12 de julio.  
 Geroztik San Migel artea berotzalle pasatuak} 5 semanas y 1½ días  
 Geroztik maisukoak .....5 semanas y 3½ días  
 Erremientagiten .....2 días Sastrearekin<sup>1804</sup>  
 Erremientak paratzen<sup>1805</sup> ta ola perparatzen...} 1 día  
 Hasta 24 de diciembre de 1806.  
 Abono vuelta.

Su servidor Jose Ramon de Minondo

<sup>1803</sup> Gutunaren aurkia X erako marra handi batzuekin baliogabetua dago. Binperrean olajaunak eskutitza hartutakoan erdaraz egindako apunteak daude, hona ekarri ez ditugunak.

<sup>1804</sup> Norbaiten izengoitia. Ez dakigu segur, baina irudi luke ez zela sastrea, jostuna.

<sup>1805</sup> ‘Prestatzen’, ‘konpontzen’.

Orañ ere antaparan,<sup>1806</sup> soledan,<sup>1807</sup> zulo bat egiñ da; bi tresmotxo<sup>1808</sup> beharko<sup>1809</sup> ditugu.

1807

Nagusi jauna:

Andresek esan zidan ostiralean errespuesta egiñen zuela, baño aipatu nion duendeaz,<sup>1810</sup> baño etzidan aitortu, eta Aldakokoak esan zidan nola Oiarzungo suj[e]to<sup>1811</sup> bat jua zaion Txurritegiri ola harzeko, eta errespuesta eman diola «nik ola harzekotz<sup>1812</sup> Oiarzundik<sup>1813</sup> behar dut laguna, ta bes-tela ez dut hartuko», eta sujeto hau berau izandu omen zaio Aldakokoari, nola hemengo laguna nahi duen Txurritegik, eta nahi badu partiduan sartu,<sup>1814</sup> eta honek<sup>1815</sup> errespuesta eman omen dio ez duela dirurik, eta besteren diruarekin korritua beharko lukeala,<sup>1816</sup> ta ez duela gauza horretan metitu<sup>1817</sup> nahi. Hau Aldakokoak berak esan dit. Sujetoa nor den ez du deklaratu, baño Andres bera izan liteke konponzio<sup>1818</sup> hoietan dabillena, ta bera ere salsan izan liteke, Andres, niri daritzadanaz.<sup>1819</sup>

<sup>1806</sup> Errotara edo burdinolara ura daraman ubidea. Ikus 1801.10.25eko gutunean *tormentategia* dela-eta egin dugun oin oharra, eta ikus berebat hiztegia.

<sup>1807</sup> Antaparako zolan (*solada* 'behea, zola' gaztelaniaz). Goizuetan egun *solera* esaten da.

<sup>1808</sup> Burua moztutako zuhaitza da *tresmotxo*-a (*trasmoch*o gaztelaniaz). A. M. Mitxelenak dioenez (2020a: 5), «Goizuetan inguruan presa eta antepara guztiak egurrezkoak ziren XVIII. mendera arte», baita gero ere gehienak, «burdin lanak bukatu arte».

<sup>1809</sup> Tita dago azken silabaren gainean, eta ez da guztiz garbi ageri.

<sup>1810</sup> Gaztelaniazko *duende* 'iratxoa', 'galtzagorria' bera da. Segur aski beherago *sugetoa* deitzen den lagun bera dateke, nolabait esan azpilanean Juan Bautista Minondoren interesen aurka ari den norbait. Badaiteke, halarik ere, izengoitia izatea.

<sup>1811</sup> Tarteko bokala ez da ongi irakurtzen, xuloa dagoelako, baina hitza beherago errepikatzen da, eta ez da dudarik *sujetoa* 'pertsone' dela, segur aski bestela *duendea* deitzen duen bera.

<sup>1812</sup> 'Hartzekotan' edo 'hartzeko'.

<sup>1813</sup> Ez dakigu *Txurritegi* nor zen, baina testuinguruari erreparatuta, irudi luke ez zela oiartzuarra. Donostiako Martutene auzoan bada *Txurriategi* izeneko baserria (*Churriategui* 1857an, NOPGI, 65), eta badaiteke horko nagusia edo semea izatea.

<sup>1814</sup> Ola hartuko luketen jendeen multzoan.

<sup>1815</sup> Aldakokoak.

<sup>1816</sup> 'Interesak ordaindu behar lituzkeela'.

<sup>1817</sup> '(Sudurra) sartu'.

<sup>1818</sup> 'Nola-halako konponketa edo negozioa'.

<sup>1819</sup> 'Niri iruditzen zaidanez'.



Eta karta egiñ nuen berorrenzat, eta Fagotxikikoak<sup>1820</sup> iñor sumatu ez dutela karraidererik larunbatean,<sup>1821</sup> ta egun hartu dut atzera karta<sup>1822</sup> Fagotxikitik, eta egun ola kandelan paratu dute,<sup>1823</sup> eta Aldakokoak ofrezitu dio Galardirentzat<sup>1824</sup> olari suertearekin<sup>1825</sup> . . . . .18.000 real  
 eta plantentzat herriari berari . . . . .01.500 real  
 Aldakokoaren ofrezimentua, guzia . . . . .19.500 reales  
 Duendearentzat Blasek añaditu dio . . . . .00500 reales,  
 gaur akabatzekotz.<sup>1826</sup> Bien ofrezimentuak izandu dira, eta eskriboak<sup>1827</sup> esan diote<sup>1828</sup> hurrengo jaiean<sup>1829</sup> aterako dutela berriz kandelara.  
 Pagoak saldu dira 1.000 karga 16 kuartilluan.<sup>1830</sup> Juan Migelek-eta hartu dituzte, eta Añarberako paraj[e]an<sup>1831</sup> ere kandelan daude bi porzio. Olaberria, 25 de [...] <sup>1832</sup> de 1807.

A don Juan Bautista de Minondo.  
 Que Dios muchos años [guarde].

### Goizarin

#### 1807.01.04

Nagusi jauna:

Olaz orañik ez dute determinatzen deus gobiernoko berriak. Andresekin<sup>1833</sup> goizean egondu nintzan, ta esan zidan aurtengoko gobiernoko

<sup>1820</sup> ‘Fagotxikikoak dio’ edo ‘Fagotxikikoek diote’.

<sup>1821</sup> ‘Larunbatean garraiatzailerik bat bera ere ez dutela sumatu’.

<sup>1822</sup> Erantzuna, alegia.

<sup>1823</sup> ‘Enkantean, errematean eman dute’.

<sup>1824</sup> *Galardi* Oiartzungo baserria da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 142) eta denboran hain segur baserrikoaren izengoitia ere bai, hor jaio edo bizi zena. Ez dakigu, dena dela, *Galardi* honek bazterretxeari egiten dion aipu, etxe izengoitia den edo deitura hutsa den. Ikus bedi 1794.04.17\_1807.09.30 gutunaren bukaeran ageri dena.

<sup>1825</sup> Zorte eginda enkantean epe baterako alokatzen den herri baso edo lur puska.

<sup>1826</sup> ‘Gaur bukatzekotan’.

<sup>1827</sup> ‘Eskribauak’.

<sup>1828</sup> ‘Esan die’.

<sup>1829</sup> ‘Hurrengo igandean’.

<sup>1830</sup> Eskutitzeko 16 *quartilluan* goititurik dago, bi lerroen artean idatzirik.

<sup>1831</sup> Originalean *Añarbera / co parajan* dago, baina bistan da, azken hitzari doakionez, *parajea*n behar duela. *Añarberako* horretaz kestione, iduri du ‘Añarbera joateko parajea’ dela.

<sup>1832</sup> Xuloa dago eta ez da hilaren izena ikusten. Irudi du bukeran -o daukala, baina, hori ere ez dago argi.

<sup>1833</sup> Azken *n*-a aitzineko *ui*-ren gainean (originalean izenak *qu* dauka) idatzi du egileak, lekuri aski eduki gabez.

hoiek ia<sup>1834</sup> bestek agintzen diotena egiteko modukoak dirala, ta orañ berehala egiñ gabe izan zitekeala lenbiziko jai hoietan, ta Andresekin egonduta, anaiea ekusten izandu naiz,<sup>1835</sup> ta ez du nobedaderik.

Aldakoko nagusiak esan dit koñado Galardik<sup>1836</sup> izandu ere badu pretensorik olaz, honek ez dakiela izandu duela, gezurrak dirala guziak.

Beste anitzetatik ere aditzen nuen, baño Damianek satisfazio osoa eman dit, Aldakokoak kargua duela Galardirenzat, eta Urteberrin<sup>1837</sup> Damianek berak esan dit nola hartu duten gure proposizioa ekusi dutenean, eta errespuesta eman duela ez dela metituko,<sup>1838</sup> eta ez dela konsejuperako<sup>1839</sup> ere olaren kandela dagoeno,<sup>1840</sup> baño gauza guziak amentuarekin kontatzen dira, eta Aldakokoak esan dit, ola kandelan yarri zen denboran gaztañiak ere kandelan zauden, eta Salbador Juan zen kandelaren alde samarrera, eta uste omen zuten jendeak olagatik<sup>1841</sup> zabillega. Eta esan dit Salbadorrek egia dela hartu dutela olaren kaso,<sup>1842</sup> baño ez gobiernokoak, Andresek esan omen dio.

Silbestrez<sup>1843</sup> gure proposizioaren konturik ez, baño nola dioten jendeak ola pretenditzeko asmoak dituztela, eta zertan diran, edo horrela guk uste genuen gaurgero<sup>1844</sup> ola horren kandela joko zenuela, eta errespuesta eman omen zion «nik ola jo?», eta Andresek esan ziola «konsejupuan nola izandu zeran kandelak dauden denboran, jendeak juizioa egiten dute olagatik zabilzala», «bada, ez naiz gehiago ola kandelan dagoeno konsejuperako» errespuesta eman ziola Andresi, jendeak horrelako juiziorik egiñ ez dezan.

Salbadorrek kontatu tit<sup>1845</sup> hoiek, eta izan zitekean Andres Indianoak edo gobiernokoak aipatuta juana Salbadorrengana, deus pretensorik ote zuten jakitera, eta Damianek len satisfazio osoa niri eman nola pretenditzen

<sup>1834</sup> Originalean *ya* idatzirik dago, eta 'jada' ere interpreta eta uler liteke. Ikus, alabaina, hiztegiko *ia* sarreran eta grafiari buruzko kapituluaren adberbio honen ahoskeraz dioguna.

<sup>1835</sup> Hau beharbada «...*ta Andresekin egondu ta (gero) anaiea ekusten izandu naiz*» ulertu behar genuke. Originalean, dena dela, *egonduta* idatzirik dago.

<sup>1836</sup> Hau beste gutun bateko (1807.11.24) «*viuda* Larralderi»-ren antzekoa da, eta originaleko *Coñado* hitza erdarazkotzat har liteke. Nolanahiko gisan, beste eskutitz batean (1805.02.03\_03.02) *Coñadoarenzat* dugu, eta horregatik eman dugu hau ere euskal grafiarekin, etzanik gabe. *Galardi* hori dela-eta, ikus 1807ko eta 1794.04.17\_1807.09.30eko gutunak.

<sup>1837</sup> Eskutitzean bi hitzetan idatzia da: *Urte Verrin* (*Urte Uerrin* edo *Vrte Verrin* berdin irakur daiteke).

<sup>1838</sup> Ez dela sartuko, ez duela sudurra sartuko.

<sup>1839</sup> 'Ez dela kontsejupera joanen'. Ikus hiztegiko *konsejupera* sarrera.

<sup>1840</sup> Ez dela Kontsejupera -batzarrak egiten ziren herriko etxeko arkupeetara- joanen ere olaren enkantea dagoen bitartean.

<sup>1841</sup> Bi hitzetan izkiriaturia da: *Ola gatiq*.

<sup>1842</sup> 'Olarengatik'.

<sup>1843</sup> Urtezaharrean, San Silbestre egunean.

<sup>1844</sup> 'Honezkero', 'engoitik', 'gaurgoitik'.

<sup>1845</sup> 'Kontatu dizkit'.

duen, eta gero hutsa atera zaiotenean<sup>1846</sup> ederzeko konpondu du: gure proposizioa bazen, etzuela metitu nahi. Bada, Salbadorrek esan dit berorri gazti-gatzeko gezurrak dirala, jendeak darabilzitela gobernu<sup>1847</sup> horiek. Olaberria, 4 de enero de 1807.

*Su servidor Jose Ramon.*

#### 1807.01.04 ingurukoa (datagabea)

Aldakokoak esan dit batere etzuela asmorik Galardik, baño ni nola izandu naizan adirazi dionean etorri zaiola bera itxera, ta ofrezimentua egiñ dutela, eta orañ ez dakiela kontrarioak pujatzen hasi diranean utziko duen edo segituko duen berriz.

#### 1807.02.22

Nagusi jauna:

Biziro<sup>1848</sup> ez dut harrapatu, eta Markosek esan dit hark dakiela zazpi espensa behinbat badirala, eta Markosen semeak azkeneko yorradan egiñ bazuen, gañera zorzigarrena.<sup>1849</sup> Biziro hemen ez dela esan du Markosen semeak, eta honek ez du fundamenturik ematen, eta aitak zazpi edo zorzi badirala dio. Olaberria, 22 de febrero de 1807.

*11 de noviembre ezkerro ez da honara mearik etorri.*

*Su servidor Jose Ramon.*

*A don Juan Bautista de Minondo.*

*Que Dios [guarde] muchos años.*

Goizarin

---

<sup>1846</sup> *Zoiotenean* originalean, ‘zaienean’.

<sup>1847</sup> Kontua, istorioa, zurrumurrua? Egiantzekoagoa irudi du «*gubernuko horiek*» adierazi nahi dela pentsatzeak, lehen lerroaldean dioenagatik.

<sup>1848</sup> Goitizena; hola azaltzen da behin baino gehiagotan. Menturaz *biziro* ‘biziki’ anitzetan esaten zuelako –edo egoera bereziren batean esan zuelako– paratuko zioten.

<sup>1849</sup> Bi eletan emanik dago: *zorzi garrena*.

1807.03.01

Nagusi jauna:

Lamothi bealdu tiot orga kabilla ta orga kuadroa, *4 arrobas y 16 libras* kabillakin hurnituta, eta larunbatean abisatuko dut bitartea zer bealzen ditudan.<sup>1850</sup> Eta hemen ere zazpi lineako eta zorzikoa egiten da gehiena.

Aranederreko gizona hemen izandu zait, merkataria billatuko ote duen,<sup>1851</sup> nik nola burnia agindu nion, eta neurk<sup>1852</sup> billatuko dudala esan diot merkataria,<sup>1853</sup> eta bera burniakin juanen dela dirua harzera, eta ñor honelako moduetan hasi baño len, egiñen du<sup>1854</sup> diligenzia espensa hoiena.

Sebastian Altxuk dio bealzeko 30 ezkutu, nahi badu<sup>1855</sup> basoa egitea, ta bestela, al duten modua egiten saia ditezen ez edo baia emateko, eta baso<sup>1856</sup> hoiek egitekotan orañ da denbora, iratzea jaio baño len hautsixe nahi lirake-eta. Bizenteren hau, Lesakako bidean dabilzan guziak burlaz daudela, hemen daukagu, kamioko bistan.<sup>1857</sup> Ez egitekotan Galardiri eman ditzakagun<sup>1858</sup> sikiera, hark egiñ ditzan olak eta basoak, guziak har ditzala. Mundu guzia gure juzkoan dago baso hoietaz.<sup>1859</sup>

Markos hartu dut<sup>1860</sup> eta esan dit hark ez duela meatako konturik egiñ, eta lagunekin egiñ baditu kontuak, haiei akomatatzeko<sup>1861</sup> kontua nola den. Eta Biziro hartu dut, eta esan diot kontua nola bealdu duen, ta erresposta eman dit berorrengandik bost ezkutuko bat besterik hark hartu ez duela, eta konturik egiñ ere ez duela, eta nahi duenarekin konpon dedilla.<sup>1862</sup> Eta alka-teagana<sup>1863</sup> juanen bagera jakiñ behar dugu zeñekin kontuak egiñ zituen, eta

---

<sup>1850</sup> Hemen *dudan* espero genuen, baina...

<sup>1851</sup> *Berorrek* ulertu beharko dugu, segur aski.

<sup>1852</sup> ‘Neronek’, ‘nihaurk’, ‘neuk’. Goizuetan orain *neurrek* eta *neunek*, biak ibiltzen dira.

<sup>1853</sup> ‘Eta merkataria neronek bilatuko dudala esan diot’.

<sup>1854</sup> ‘Berorrek egiñen du’ konprenitu behar dela dirudi.

<sup>1855</sup> ‘Berorrek nahi badu’.

<sup>1856</sup> Originalean *boso* dago.

<sup>1857</sup> Kamiotik, errege bidetik ikusten dela.

<sup>1858</sup> Testuingua ikusirik *Galardiri eman diezazkiogun* ulertu beharko.

<sup>1859</sup> ‘Mundu guziak susmo txarra du baso horietaz’.

<sup>1860</sup> Olaberrian hartu duela esan nahi du, harekin mintzatu dela.

<sup>1861</sup> ‘Haiei esateko, komentatzeko’ (ustez).

<sup>1862</sup> Berori.

<sup>1863</sup> Originalean *Alcatea gana* izkiriata da.

hogei ezkutukoa ere zeñi eman<sup>1864</sup> zion edo zerbait. Hoiiek ez dira yabetzen zorraz.<sup>1865</sup> Mealleak errentak zor dituela dio.<sup>1866</sup> Olaberria, *1 de marzo de 1807*.

*Su servidor Jose Ramon.*

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*

Goizarin

1807.03.27

Nagusi jauna:

Burniak guziak kargak hurnitu artea<sup>1867</sup> egoten dira eramateko, ta atzo esan diotet gaur eraman behar dutela burniak,<sup>1868</sup> eta Palazioko gazteak<sup>1869</sup> maxterra<sup>1870</sup> hautsia daukala, eta beste biak eta Zuloakoa karobi harriketara aginduak dirala.<sup>1871</sup> Ez da bat ere etorri, ta Fagotixikin dira. Gaur etorri diranekin<sup>1872</sup> 30 kintal gutxiena<sup>1873</sup> bada, ta Ignaziok esan zuen atzo gaur ez eramatekotan hurrengo egunetan urik ez dela.<sup>1874</sup>

Sebastian Altxu ta bere laguna konpondu dira laguna libratu artea Altxu bakarrik aritzeko, ta nagusiaren basoa akabatzen duenean lagunak, gurera etorriko dela, eta biak akabatuko dutela gurea, ta bitartea Sebastian bakarrik ariko dela, ta berori ezpada honela kontentu, adiraziko du nola nahi duen.

Olaberria, *27 de marzo de 1807*.

*Su servidor Jose Ramon.*

---

<sup>1864</sup> Azken letra azken-aurrekoaren gainean idatzirik dago, bi lerroen artean.

<sup>1865</sup> 'Ez dira zorraren jabe egiten', 'ez dute beren zortzat hartzen'.

<sup>1866</sup> *Eta dirua bidalzeko*-edo ulertu beharko dugu. Hemen *dio* adizkia goititua dago, bi lerroen artean idatzia.

<sup>1867</sup> 'Hornitu artean'. Horko *burniak guziak* berezikara da, lehen osagaiak artikulua eta pluralgilea atxikitzen dituelako. Ikus izen morfologiari eskainitako atalaren hasieran dioguna.

<sup>1868</sup> *Atzo esan diotet* eta *gaur eraman behar dutela burniak*. Ikus aditz morfologiari buruzko kapituluan bi gai hauetaz dioguna.

<sup>1869</sup> 'Palazioko gazteak dio / esan du'. *Palazio, Iparragirre* edo *Iparragirrepalazio* Oiartzungo baserri baten izena da (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 260).

<sup>1870</sup> «Orgaren gurgpileko taula edo ohol nagusia» (OEH).

<sup>1871</sup> 'Eta beste bi itzainak eta Zuloagakoa karobi harriketara aginduak direla'.

<sup>1872</sup> 'Gaur etorri diren burdina kintalekin' ulertu behar dela dirudi.

<sup>1873</sup> 'Gutxienez'.

<sup>1874</sup> Badirudi «*hurrengo egunetan errekan urik ez dela*» ulertu behar dela, alegia, burdinak urez eraman behar zituzten, ez idorrez, eta horretarako errekan ur emaria garrantzizkoa zen.

Franzisko Antonio de Riberek eta bere anaieak paratu dute 1.200 planta Otsandolan, ta bealduko ditu<sup>1875</sup> 30 ezkutu, paguaren erdia.

A don Juan Bautista de Minondo.  
*Que Dios muchos años [guarde].*<sup>1876</sup>

Goizarin

1807.05.26

Nagusi jauna:

Salbador de Arretxea ta bere anaieak ekarri dituzte mea zuriak

Berak entrega .....56½ *quintales*

Gorritxoko<sup>1877</sup> mea belza guk

jaso ..... ] 65 *quintales y 2½ arrobas*

---

Hoietarako hartu dituzte

neregandik berorrek bealduak ] 31 *pezetas y 8½ cuartos*

Nik emanak gañera .....40 *pezetas*

Burnia hartu dute .....4 *arrobas y 24 libras*

---

Olaberria, 26 de mayo de 1807.

*Su servidor* Jose Ramon de Minondo.<sup>1878</sup>

1807.06.04<sup>1879</sup>

Isidro tirador Yanzi

Nagusi jauna:

---

<sup>1875</sup> 'Berorrek bealduko ditu'.

<sup>1876</sup> Olajaunak idatzirik *Jose Antº Ansa*, «*Solla deue...10 Pes 2 R 00*», *Artechea* (*Arrechea*?) eta *Paulo Ansa* ageri dira. *Artetxea* Aranoko etxea da, eta *Paulo Ansa* hori ere herri horretako bizilaguna zatekeen; *Solla* ere bai, seguruenik. Goitizena dateke azken hau; ikus onomastikari eskaini atala.

<sup>1877</sup> *Gorritxo* Oiartzungo aurkintza da (EJ). Olajaunaren erdarazko apunteetan «*mª Negra Gorricho*» daukagu.

<sup>1878</sup> Honen ondotik olajaunaren apunteak dauzkagu. Hemen *Salbador* (*Salbº*) eta *Josepe* ageri dira lehenik, eta *Garatecoa* eta *Salbador Garatecoa* gero, besteak beste.

<sup>1879</sup> Originala IBren gutunak biltzen diren liztaz jositako kaiertto baten barnean da.

Sidro ianziarra<sup>1880</sup> jua da begia erreta, ta lengo kontua bealdu nuen, ta Sidrorenzat ziran *hasta 11 de febrero de 1806*

.....	46 días
Geroztik pasatu ditu lau aste	24 días
Hoietarako rebajatu behar zaio	
nik berari emana bi aldiz 2 reales . . . .	4 reales
Fraileari emana . . . . .	2 reales
Sidro ageri ez, ta haren agoa	} 2 reales <sup>1881</sup>
Josepek tiratuta nik Joseperi emana	

Jose Juakin daritzan igele Sidroren lekuan etorrita aritu denak du aste bat *desde 11 de febrero de 1806 hasta 4 de junio de 1807*

Sidro hau olara ekarzea gauza makurra da. Larunbatetan beti itxera, ta hasialdia<sup>1882</sup> hagitz gutxitan harrapatuko du, ta beti gezurra, han izandu, hemen izandu. Juan den igandean ere propioa<sup>1883</sup> jua, Azenzio, ta baietz agindu, ta astelen arratseko olara zen,<sup>1884</sup> ta bitartea<sup>1885</sup> maisukabi bat<sup>1886</sup> sartuko ez du beñere.<sup>1887</sup> Hau begia erreta jua denean ekarri dugu Isasolako igele gazdea,<sup>1888</sup> eta bi agoa egin diraneko tobera erre da edo hautsi kañoien mugatik.<sup>1889</sup> Eta igele honek behar dugunean etorriko dela esan du, Isasolan ari ezpada, ta ongi ari da.<sup>1890</sup> Orañik bada bost eguneko mea, ta Azenzio bealdu dut Añoara<sup>1891</sup> toberarekin, ta olatxoa hasi dut. Zepoak atzo sartu zituzten.<sup>1892</sup>

Arotzak badituzte jornalak olan tormentategia konponzen . .	4 días
Zepoak maneatuta sarzen . . . . .	10 días
A 8 reales uno . . . . .	14 días

<sup>1880</sup> Eskutitzean *bianziarra* idatzirik dago. Ikus bedi sistema grafikoa aztertzen dugun atalean dioguna.

<sup>1881</sup> Arruntean bezala laburturik dago izena: *Jp̃heq, Jp̃heri*.

<sup>1882</sup> Mea arragoan erretzearen hasiera. Originalean *Asi aldia* izkiriata da.

<sup>1883</sup> ‘Gutun mezularia’.

<sup>1884</sup> ‘Olaratu zen’. *Adlatibo sintagma* + *AL* duten adizkiak ez dira gutxi gutun hauetan. Ikus aditz morfologiari eskaini atalean dioguna.

<sup>1885</sup> ‘Bitartean’. Arruntean honela, *-n-rik* gabe.

<sup>1886</sup> Originalean *Maisu Cabi bat* daukagu. *Maisukabia* burdinolako beste peza bat da. Ikus hiztegiaren dioguna.

<sup>1887</sup> Ohart bekio *AN + ez + AL* hurrenkerari.

<sup>1888</sup> ‘Gaztea’. Usaian honela. Ikus hiztegia.

<sup>1889</sup> *Tobera* eta *kañoi* zer ziren jakiteko ikus bedi hiztegia.

<sup>1890</sup> *Ta ongui ari da* goititurik dago, bi lerroen artean idatzirik.

<sup>1891</sup> Lapurdiko Ainhoa herrira.

<sup>1892</sup> *Zepoak sartu* da esateko modua, lurtean sartzen zirelako.

Mendian pasatuak a 10 reales . . . . .	.6 días
Importan . . . . .	.43 pezetas
Itzaiak bi ziran arrotzak	
Zepoak ekarzen . . . . .	.7½ pezetas

Atzo Isasolako karraidoreai erakarri nitiozten ikatzak...56 *cargas*, olan hasteko ikatza falta izanta,<sup>1893</sup> eta agindu nioten haiek ebilli gabe nik pagua<sup>1894</sup> ekarriko nuela, ta hagitz luzatu gabe pagatu nahi lirake. Beste batean ere behartuko<sup>1895</sup> gera, bai, hemen dagoen fundamentuagatik.<sup>1896</sup> lengo hiru egunetan Fagotxi[ki]koa<sup>1897</sup> bakarrik zen, atzo Anzanborda ta gaur Bordatxo lagun. Olaberria, 4 de junio de 1807.

*Su servidor Jose Ramon.*

1807.06.13

*Desde 14 de marzo.*

Nagusi jauna:

Paiskogana<sup>1898</sup> juan dira burniak modu honetan:

24 de marzo, cabilla . . . . .	.1 carro para Ardoi. Pagó <sup>1899</sup>
12 de abril, cuadros . . . . .	.2 carros
17 de abril, cuadros . . . . .	.1
En dicho día, planchuelas . . . . .	.1
20 de abril, cabilla . . . . .	.1 para viuda Laryoye <sup>1900</sup>
24 de abril, cuadros . . . . .	.1
25 de abril, cuadros . . . . .	.1
27 de abril, cuadros . . . . .	.1
1 de mayo, cuadros . . . . .	.1
2 de mayo, cabilla . . . . .	.1 para viuda Larralde
8 de mayo, cuadros . . . . .	.1

---

<sup>1893</sup> Egun ere hola esaten da Goizuetan: *izántà*; berebat *emántà*, (*e*)*sántà*, *intà* eta abar.  
<sup>1894</sup> ‘Ordaintzeko dirua’.  
<sup>1895</sup> Originalean geroaldiko *-ko* goratua dago (*beartu<sup>co</sup>*).  
<sup>1896</sup> Dagoen fundamentu faltagatik, alegia.  
<sup>1897</sup> Originalean *Fagochiqoa* edo *fagochiqoa* dago (*F* eta *f* emateko letra bera ibiltzen du JRMk).  
<sup>1898</sup> *Paisko* (edo *Paixko* apika), *Frantzisko*-ren hipokoristikoetako bat da.  
<sup>1899</sup> Olajaunak egin apuntea. Irudi du originalean transkribatu dugun hori dagoela.  
<sup>1900</sup> Hirugarren letra *r* ote den ez da batere segurua. 1807.11.24ko gutunean *Layoyeri* argia dago, hots, ‘*Layoye* deitura-edo duenari’.



21 de mayo, cuadros	1
23 de mayo, cuadros	1
25 de mayo, cuadros	1
5 de junio, cuadros	1
10 de junio, cuadros	1
11 de junio, cuadros	1
12 de junio, cuadros	1
13 de junio, cuadros	1

---

3 carros cabillas, 1 carro planchuelas y 16 carros cuadros. Todos 20 carros. Azkeneko bi orgak entregatzekoak dira orañik.

Lamothengana<sup>1901</sup> juañ dira kadroak modu honetan:  
 13 de marzo. Kargatu zen hemen itzaia ta 14 de marzoan entregatuta kontuan pasatu zuten nik ez dakit, orga bat.

Geroztik:

16 de marzo	1 carro
21 de marzo	1
2 de abril	1
6 de abril	1
10 de abril	1
15 de abril	1
8 de junio	2
Cuadros	8 carros

1807. Razón del fierro desde  
 14 marzo hasta 13 junio consta.

1803.03.12\_1807.06.18

Nagusi jauna:

Jose Ignazio de Mitxelenaren kontuak dira desde 12 de marzo de 1803 hasta 17 de noviembre de dicho año	137¼ reales vellón
Más de Aiendola carbones	14 cargas
Le di cuenta	
Irabazia	259½ reales vellón
Más carbones gastañas <sup>1902</sup> en Aiendola	018 cargas

---

<sup>1901</sup> Lamoten gana izkiriatua da eskutitzean.

<sup>1902</sup> Gaztaina egurrekin egindako ikatza zatekeen hau.

*Desde 17 de noviembre de 1803 hasta 31 de julio de 1804  
le di cuenta*

Irabazia .....137 reales vellón

*Desde 31 de julio de 1804 hasta 9 de enero  
de 1805 le di cuenta*

Irabazia .....109½ reales vellón

*Más carbones de Bidemakota*<sup>1903</sup> .....15 cargas

*Desde 9 de enero de 1805 hasta 28 de julio  
de dicho año le di cuenta*

Irabazia .....113½ reales vellón

*Ha tomado fierro* .....38 libras

*Desde 28 de julio de 1805 hasta 22 de enero  
de 1806 cuenta le di*

Irabazia .....182½ reales

*Ha tomado fierro* .....5 libras

PATXI SALABERRI ZARATIEGI (Uxue, 1959). Filologia Hispanikoan lizentziatu zen lehenik (UN, 1982) eta Euskal Filologian gero (EHU, 1986). Doktore tesia EHU-n egin zuen, Eslaba aldeko toponimiaren eta euskararen inguruan. Beti euskara irakaslea izan da, Zaragozako Unibertsitateko Nafarroako Irakasle Eskolan lehenbizi (1984-1990) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ondoren (1990-2021). Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko zuzendari eta zuzendariordea izan da, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko idazkaria eta errektoreari atxikia hizkuntza plangintzarako. Hamahiru urtez Nafarroako Gobernuaren FLV aldizkariaren zuzendaria izan da, pare bat aldiz Nafarroako Euskararen Kontseiluko kidea eta luzaz Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Hizkuntza Plangintza Batzordeko kidea. NUPeko «Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiboa» katedraren zuzendaria ere izan da, bi urtez (2014-2016). Euskaltzain urgazle izendatu zuen 1996an eta euskaltzain oso 2005ean, eta Onomastika Batzordeko burua izan zenosten urtez (2013-2017). Ikerketa gehiena onomastikaren gainean egin du, eta hein txikiagoan dialektologiaren (batez ere dialektologia historikoaren), testu zaharren eta hizkuntzaren historiaren gainean. Hogei liburu idatzi ditu, bakarka eta lankidetzan, eta hamar argitaratu. Bestalde, ehun artikulua, liburu atal eta txosten tekniko karrikaratu ditu, gehienak Euskal Herriko aldizkari eta liburuetan.



JUAN JOSE ZUBIRI LUXANBIO (Donostia, 1961) Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean (Donostiako EUTG-ESTE, 1984) eta doktore tesia Euskal Herriko Unibertsitatean egin zuen (1997), 0-3 urte arteko haurren ama-hizkuntzaren jabekuntzari buruz. Geroztik ikerketa-lerro hau bera lantzen jarraitu du, gaiaren inguruko hainbat proiektutan parte hartu eta zenbait artikulua argitaratu ditu. Ikerketa-lerro honetaz landa, dialektologia arloko datuak bildu, deskribatu eta jorratzen ere aritu da, bereziki Goizueta-Arano herrietakoak, eta honen fruitu dira, besteak beste, *Goizueta eta Aranoko hizkerak* (1998), *Biraoak. Nafarroan bilduak* (2007) eta *Goizuetako etxeen izenak* liburuak (2011). Urte luzez irakaskuntzan aritua da, lehenik Zaragozako Unibertsitateko Nafarroako Irakasle Eskolan (1984-1990), eta gero Nafarroako Unibertsitate Publikoan (1990-2021). Hemen Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko idazkaria (2002-2010) eta zuzendaria (2010-2018) izan da. Gaur egun, Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanordea eta «Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiboa» katedraren zuzendaria da. Bestalde, euskaltzain urgazlea da 2006az geroztik.



IKER SALABERRI IZKO (Iruñea, 1989). Ingeles Filologian lizentziatu zen 2012an eta Aleman Filologian graduatu 2017an, Euskal Herriko Unibertsitatean. Hizkuntzalaritzan doktorea, 2017an saxoiera zaharren sintaxiaren inguruko tesia defendatu zuen EHU-n. 2018-2019an Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailean irakasle aritu ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak (2019-2021) Saileko kidea izan da, eta 2021etik Euskal Hizkuntza eta Komunikazio Sailean lan egin du. Hainbat artikulua argitaratu ditu Euskal Herriko eta atzerriko aldizkarietan, bereziki tipologia linguistikoaren, hizkuntza aldatetaren, morfosintaxiaren eta onomastikaren inguruan, euskarari zein munduko mintzaireri begira, besteak beste “Grammaticalization of nouns meaning ‘head’ into reflexive markers: a cross-linguistic study” (Natalia Evseevarekin batera, 2018) *Linguistic Typology*-n, “Variable D-marking on proper naming expressions: a typological study” *Folia Linguistica*-n (2020) eta “The word order of negation in the history of Basque: a linguistic and sociolinguistic approach” (2021) *Diachronica*-n. 2020tik *Association for Linguistic Typology* eta *Societas Linguistica Europaea* erakundeen batzorde exekutiboetan lan egiten du, eta 2019tik *Aziti Bihia* Hizkuntzalari eta Filologo Elkartearen kidea da.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernu



ISBN 978-84-122988-7-1









PATXI SALABERRI ZARATIEGI  
JUAN JOSE ZUBIRI LUXANBIO  
IKER SALABERRI IZKO

JOSE RAMON MINONDO  
GOIZUETARRAREN GUTUNAK  
OLABERRIA (OIARTZUN)  
1790-1807

HIZKUNTZA AZTERKETA

IKER 42

2021

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)



Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopianzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoko mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko edo idatzizko baimenik gabe.

Hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA).

#### **Kontrazaleko argazkien egileak**

Olaberria olaren hondakinak: Joxe Manuel Lekuona

Goitzarin olaren hondakinak: Xabier Taberna

© Euskaltzaindia / R.A.L.V. / A.L.B.

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

© Patxi Salaberri, Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri

ISBN (obra osoarena): 978-84-94122988-2-6

ISBN (Hizkuntza azterketarena): 978-84-122988-7-1

Lege-gordailua: BI 01328-2021

Inprimatzea: IMPRESIÓN TECNIGRAF, S.L.L.

Pol. Erletxe, Pabellón C1 nº. 25 – 48960 GALDAKAO (Bizkaia)

# AURKIBIDEA

## JOSE RAMON MINONDO GOIZUETARRAREN GUTU- NAK. OLABERRIA (OIARTZUN). 1790-1807. HIZKUNTZA AZTERKETA

<b>1. Izen morfologia</b> .....	1
1.1. Gai orokorrak .....	1
1.1.1. Hondarkien ezabaketa .....	1
1.1.2. Artikuluaren eta pluralgilearen erabileraz .....	2
1.1.3. Erakusleen nolakoa .....	6
1.1.4. Izenordain arrunten, bihurkarien eta logoforikoen erabilera .....	6
1.1.5. Leku kasuen hondarkiak .....	12
1.2. Kasuak .....	13
1.2.1. Absolutiboa .....	13
1.2.2. Partitiboa .....	14
1.2.3. Ergatiboa .....	15
1.2.4. Datiboa .....	17
1.2.5. Inesiboa .....	18
1.2.6. Adlatibo soila .....	22
1.2.7. Hurbiltze adlatiboa .....	24
1.2.8. Muga adlatiboa .....	24
1.2.9. Ablatiboa .....	25
1.2.10. Leku genitiboa .....	28
1.2.11. Genitiboa .....	29
1.2.12. Soziatiboa .....	32
1.2.13. Genitiboaren gain eraikitako destinatiboa .....	33
1.2.14. Adlatiboaren gain eraikitako destinatiboa .....	35
1.2.15. Inesiboaren gain eraikitako destinatiboa .....	35

1.2.16. Instrumentala	37
1.2.17. Motibatiboa	38
1.2.18. Prolatiboa	39
<b>2. Aditz morfologia</b>	<b>41</b>
A. Ezaugarriak	41
1. AN + ez + AL hurrenkera	41
2. Komuntadura	42
3. Aditza eta datiboa	42
4. Aditz-izena eta osagarri zuzena genitiboan	42
5. Aditzoina eta partizipioa	43
6. Bi argumentuko adizkiak vs hiru argumentukoak	45
7. <i>Izan</i> aditza	46
8. * <i>Edun</i> aditza	48
9. Aditza eta menderagailua	49
10. <i>Nork</i> aditzen pluralgileak	53
11. <i>-ke</i> adizkiak	54
12. * <i>Edin</i> aditzeko <i>-ai-</i> / <i>-i-</i> bikoiztasuna	55
13. <i>Dedilla</i> vs <i>dadiela</i>	56
14. Iraganaldia vs orainaldia	57
15. Geroaldia	60
16. Baldintza	61
17. Arazlea	61
18. Adlatiboa eta AL	62
19. Trinkoen bokala, iraganaldian	63
20. <i>Heldu</i> aditzak <i>etorri</i> -ren trinkoak ordezkatu ohi ditu	64
21. <i>Joan</i> -en orainaldiko adizki trinkoak	66
22. Zenbait aditzen jokabidea	66
23. * <i>io</i> aditzaren lekunea	67
24. <i>Egon</i> 'uste izan' aditzaren lekunea	67
25. <i>Behar izan</i> -en lekunea	67
26. <i>Ahal izan</i> -en erabilera	68
27. <i>Ezin izan</i> -en erabilera	69
28. Aditz batzuen <i>-tu</i> forma analogikoa	69
29. Bokal irekiarekin bukatzen den partizipioa + <i>-a</i>	70
30. Partizipioa eta instrumentala	70
31. Partizipioa + <i>-tze</i>	71
32. Aditzen erregimena	72
33. Aditza galdegaitzeko <i>egin</i> erabiltzen da	74
34. ALren ezabaketa eta partizipioaren erabilera	74
35. Ustezko aoristoa edo lehenaldi narratiboa	76
36. Aferesia aditzetan	78
37. * <i>Eradun</i> -en adizkirik ez	79
38. Erregistroak	79

B. Taulak	79
B.1. Aditz laguntzaileak	79
<i>Izan.</i> Nor orainaldia	79
<i>Izan.</i> Nor iraganaldia	80
<i>Izan.</i> Nor <i>-ke</i> geroaldia	81
<i>Izan.</i> Nor alegiazkoa	81
<i>Izan.</i> Nor-nori orainaldia. Hura	81
<i>Izan.</i> Nor-nori orainaldia. Haiek	82
<i>Izan.</i> Nor-nori iraganaldia. Hura	82
<i>Izan.</i> Nor-nori alegiazkoa. Hura	83
* <i>Edun.</i> Nor-nork orainaldia. Hura / haiek	83
* <i>Edun.</i> Nor-nork <i>-ke</i> orainaldia. Hura	84
* <i>Edun.</i> Nor-nork iraganaldia. Hura / haiek	84
* <i>Edun.</i> Nor-nork alegiazkoa. Hura / haiek	84
* <i>Edun.</i> Nor-nori-nork orainaldia. Hura	85
* <i>Edun.</i> Nor-nori-nork orainaldia. Haiek	86
* <i>Edun.</i> Nor-nori-nork iraganaldia. Hura	86
* <i>Edun.</i> Nor-nori-nork iraganaldia. Haiek	87
* <i>Edun.</i> Nor-nori-nork alegiazkoa. Hura	87
* <i>Edin.</i> Nor subjuntiboa. Orainaldia	88
* <i>Edin.</i> Nor subjuntiboa. Iraganaldia	88
* <i>Edin.</i> Nor ahalera. Orainaldia	88
* <i>Edin.</i> Nor-nori ahalera. Orainaldia	89
* <i>Edin.</i> Nor ahalera. Iraganaldia	89
* <i>Edin.</i> Nor ahalera. Alegiazkoa	89
* <i>Edin.</i> Nor agintera	90
* <i>Ezan.</i> Nor-nork. Orainaldia. Hura / haiek	90
* <i>Ezan.</i> Nor-nork subjuntiboa. Orainaldia. Hura / haiek	90
* <i>Ezan.</i> Nor-nork subjuntiboa. Iraganaldia. Hura	91
* <i>Ezan.</i> Nor-nori-nork subjuntiboa. Orainaldia. Hura / haiek	91
* <i>Ezan.</i> Nor-nork ahalera. Orainaldia. Hura / haiek	91
* <i>Ezan.</i> Nor-nork ahalera. Iraganaldia. Hura	92
* <i>Ezan.</i> Nor-nork agintera. Hura / haiek	92
* <i>Ezan.</i> Nor-nori-nork agintera. Hura	93
B.2. Aditz trinkoak	93
<i>Egon.</i> Nor orainaldia	93
<i>Egon</i> Nor <i>-ke</i> orainaldia	94
<i>Egon</i> Nor iraganaldia	94
<i>Egon</i> Nor alegiazkoa	95
<i>Egon</i> Nor subjuntiboa. Orainaldia	95
<i>Egon</i> Nor subjuntiboa. Iraganaldia	95
<i>Etorri.</i> Nor orainaldia	96

<i>Etorri</i> . Nor <i>-ke</i> orainaldia . . . . .	96
<i>Etorri</i> . Nor subjuntiboa. Orainaldia . . . . .	96
<i>Ibili (ebilli)</i> . Nor orainaldia . . . . .	97
<i>Ibili (ebilli)</i> . Nor iraganaldia . . . . .	97
<i>Ibili (ebilli)</i> . Nor subjuntiboa. Orainaldia . . . . .	97
<i>Ibili (ebilli)</i> . Nor-nori iraganaldia . . . . .	98
<i>Jario</i> . Nor-nori orainaldia . . . . .	98
<i>Joan</i> . Nor orainaldia . . . . .	98
<i>Ukan</i> . Nor-nork orainaldia. Hura / haiek . . . . .	99
<i>Ukan</i> . Nor-nork iraganaldia. Hura / haiek . . . . .	99
<i>Eduki (iduki(tu))</i> . Nor-nork orainaldia. Hura / haiek . . . . .	100
<i>Eduki (iduki(tu))</i> . Nor-nork iraganaldia. Hura / haiek . . . . .	100
<i>Eduki (iduki(tu))</i> . Nor-nork alegiazkoa. Hura . . . . .	100
<i>Ekarri</i> . Nor-nork orainaldia. Hura . . . . .	101
<i>Ekarri</i> . Nor-nork iraganaldia. Hura . . . . .	101
<i>Erabili</i> . Nor-nork orainaldia. Hura / haiek . . . . .	101
<i>Eraman</i> . Nor-nork orainaldia. Hura / haiek . . . . .	102
<i>*io</i> . Nor-nork orainaldia. Hura . . . . .	102
<i>*io</i> . Nor-nork iraganaldia. Hura . . . . .	102
<i>Iritzi</i> . Orainaldia . . . . .	103
<i>Iritzi</i> . Iraganaldia . . . . .	103
<i>Iruditu</i> . Orainaldia . . . . .	104
<i>Jakin</i> . Nor-nork orainaldia. Hura . . . . .	104
<i>Jakin</i> . Nor-nork iraganaldia. Hura . . . . .	104
<b>3. Joskera</b> . . . . .	105
3.1. Juntadura . . . . .	106
3.1.1. Emendioa . . . . .	106
3.1.1.1. Baiezko emendioa . . . . .	106
<i>eta</i> . . . . .	106
<i>eta ere bai</i> . . . . .	106
3.1.1.2. Ezezko emendioa . . . . .	106
<i>ez...(e)ta ez</i> . . . . .	106
<i>ez...(e)ta...ere ez</i> . . . . .	106
3.1.2. Hautakaritza . . . . .	107
<i>edo</i> . . . . .	107
<i>eta nahiz</i> . . . . .	107
<i>nahiz...edo</i> . . . . .	107
<i>nahiz...eta nahiz</i> . . . . .	107
3.1.3. Aurkaritza . . . . .	107
<i>baño</i> . . . . .	107
3.2. Menderakuntza . . . . .	108
3.2.1. Osagarriak . . . . .	108



3.2.1.1. Konpletiboak .....	108
3.2.1.1.1. Forma jokatuak .....	108
a) Indikatiboan .....	108
- <i>ela</i> .....	108
<i>nola...-en</i> .....	108
b) Subjuntiboan .....	109
- <i>ela</i> .....	109
3.2.1.1.2. Forma jokatugabeak .....	109
- <i>tzea</i> .....	109
- <i>tzea izan</i> .....	110
- <i>tzeko</i> .....	110
Galdetzailea + partizipioa .....	110
3.2.1.2. Zehar-galderak .....	110
<i>ea...-en</i> .....	110
<i>ea...ote...-en</i> .....	111
<i>ea</i> + galdetzailea + <i>-en</i> .....	111
- <i>en</i> .....	111
- <i>en edo ez</i> .....	111
galdetzailea + <i>-en</i> .....	111
<i>ote</i> + <i>...-en</i> .....	112
3.2.2. Erlatiboak .....	112
3.2.2.1. Jokatuak .....	112
- <i>en</i> + izena / - <i>eneko</i> + izena / - <i>ena</i> / - <i>en bura</i> .....	112
Buru izen mugagabea aitzinatua dutenak (izen ostekoak) .....	113
Buru izen mugatua aitzinatua dutenak (aposatuak) .....	114
<i>bait-</i> erlatiboa .....	114
Korrelazio erlatiboa .....	114
3.2.2.2. Jokatugabeak .....	114
- <i>tu</i> + mugatzailea .....	114
- <i>tu</i> + izena (Iparraldeko era) .....	115
- <i>tu</i> + - <i>tako</i> + izena .....	115
3.2.3. Adberbialak .....	116
3.2.3.1. Alderaketa .....	116
( <i>baño</i> ) ( <i>ere</i> )...- <i>ago</i> .....	116
( <i>puska bat</i> )...- <i>xeago</i> .....	116
<i>geroago eta...-ago</i> .....	116
<i>bezañ</i> .....	117
<i>bezala</i> .....	117
(- <i>en</i> ) <i>adiña</i> .....	117
(- <i>en</i> ) <i>bezalakoa</i> .....	117
<i>diña</i> .....	117
(- <i>rik</i> )...- <i>ena</i> (superlatiboa) .....	118

3.2.3.2. Baldintzazkoak . . . . .	119
3.2.3.2.1. Forma jokatuak . . . . .	119
<i>ba-</i> . . . . .	119
<i>-en kasoan</i> . . . . .	119
3.2.3.2.2. Forma jokatuabeak . . . . .	120
<i>-ra + ezker</i> . . . . .	120
<i>-tu + ezker</i> . . . . .	120
<i>-tzekotan</i> . . . . .	120
<i>-tzekotz</i> . . . . .	121
3.2.3.3. Denborazkoak . . . . .	121
3.2.3.3.1. Forma jokatuak . . . . .	121
<i>-ela</i> . . . . .	121
<i>-elarik</i> . . . . .	122
<i>-en artea</i> . . . . .	122
<i>-en denboran</i> . . . . .	122
<i>-en ezker</i> . . . . .	123
<i>-en guzia(n)</i> . . . . .	123
<i>-en honetan</i> . . . . .	123
<i>-enean</i> . . . . .	123
<i>-eneko</i> . . . . .	124
<i>-enetik</i> . . . . .	124
<i>-ño</i> . . . . .	124
<i>-urte + izan aditza + -ela</i> . . . . .	124
3.2.3.3.2. Forma jokatuabeak . . . . .	124
<i>-tu ala</i> . . . . .	124
<i>-tu artea</i> . . . . .	125
<i>-tu baño len(ago)</i> . . . . .	125
<i>-tu bitartea</i> . . . . .	125
<i>-tu ezker</i> . . . . .	125
<i>-tu orduko</i> . . . . .	125
<i>-turik</i> . . . . .	126
<i>-tuta, -tu-ta</i> . . . . .	126
<i>-tzean</i> . . . . .	126
<i>-tzearekin</i> . . . . .	127
<i>-tzeko aurre(an)</i> . . . . .	127
<i>-tzeko denboran</i> . . . . .	127
<i>-tzera orduko</i> . . . . .	127
3.2.3.4. Helburuzkoak . . . . .	128
3.2.3.4.1. Forma jokatuak . . . . .	128
a) Indikatiboarekin (geroaldiarekin) . . . . .	128
b) Subjuntiboarekin . . . . .	128
3.2.3.4.2. Forma jokatuabeak . . . . .	128
<i>-tze aldera</i> . . . . .	128
<i>-tzeko</i> . . . . .	128

-tzekotz	129
-tzera	129
3.2.3.5. Kausazkoak	129
3.2.3.5.1. Forma jokatuak	129
<i>bait-</i>	129
<i>-ela kaso</i>	130
<i>-ela-ta</i>	130
<i>-en bezala</i>	130
<i>-en ezkerro</i>	130
<i>-en medioz</i>	131
<i>-(e)ta</i>	131
<i>nola bait-</i>	132
<i>nola...-en</i>	132
<i>zeren...(-en)</i>	132
<i>zergatik...Ø</i>	133
<i>zergatik...-en</i>	133
3.2.3.5.2. Forma jokatugabeak	133
<i>(-tu) gabez</i>	133
<i>-tua</i>	133
<i>-tuagatik</i>	134
<i>-tuta / -tu ezta</i>	134
<i>-tzeagatik</i>	134
3.2.3.6. Kontzesiboak	134
3.2.3.6.1. Forma jokatuak	134
<i>aditza + -ela ere</i>	134
<i>aditza + -enagatik</i>	134
<i>ba- + aditza + ere</i>	135
<i>zertaraño baitere</i>	135
3.2.3.6.2. Forma jokatugabeak	135
<i>nahiz + -tu</i>	135
<i>-tuagatik</i>	135
<i>-tuta ere</i>	136
3.2.3.7. Moduzkoak	136
3.2.3.7.1. Forma jokatuak	136
<i>-ela</i>	136
<i>-en bezala</i>	136
<i>-en moduan</i>	136
<i>-enaz</i>	137
3.2.3.7.2. Forma jokatugabeak	137
<i>-Ø gabe</i>	137
<i>-tu gabe</i>	137
<i>-tu beharrean</i>	137
<i>(-tu) bezala</i>	137
<i>-tua</i>	138

- <i>tuaz</i> , - <i>tu</i> z . . . . .	138
- <i>tuta</i> . . . . .	138
<b>4. Hitz hurrenkera</b> . . . . .	139
Sarrera . . . . .	139
4.1. Hitz hurrenkera hizkuntza tipologiaren argitan . . . . .	139
4.2. Euskarazko hitz hurrenkeraren bereizgarriak . . . . .	141
4.2.1. Egungo euskararen eztabaidagaiak . . . . .	141
4.2.2. XV-XX. mendeetako euskara idatziaren eztabaidagaiak . . . . .	143
4.2.3. Corpusaren ezaugarritzea . . . . .	147
4.2.3.1. Ahozkotasuna vs idatzizkotasuna . . . . .	147
4.2.3.2. Ikerketa metodologia . . . . .	149
4.3. Hitz hurrenkeraren azterketa . . . . .	149
4.3.1. Aditz sintagmaren osagaiak . . . . .	149
4.3.1.1. Aditza eta osagarri zuzena . . . . .	149
4.3.1.2. Aditza eta aditzaren osagaiak (XV vs VX) . . . . .	151
4.3.1.3. Ezeztapena . . . . .	152
4.3.2. Izen sintagmaren osagaiak . . . . .	154
4.3.2.1. Izena eta izenburua, gentilizioa, zenbakia, jabego genitiboa . . . . .	154
4.3.2.2. Izena eta erlatibozko perpausa . . . . .	158
4.3.2.3. Izena eta erlaziozko sintagma . . . . .	160
4.4. Ondorioak . . . . .	163
<b>5. Onomastika gaiak</b> . . . . .	167
Sarrera . . . . .	167
5.1. Antroponimia . . . . .	170
5.1.1. Ponte izen neutroak . . . . .	170
5.1.2. Hipokoristikoak . . . . .	175
5.1.3. Deiturak . . . . .	176
5.1.4. Izengoitiak . . . . .	179
5.1.4.1. Izengoiti hutsak . . . . .	179
5.1.4.2. Etxe izengoitiak . . . . .	182
5.1.5. Herritarren izenak . . . . .	185
5.2. Etxe eta baserri izenak . . . . .	185
5.3. Toponimia . . . . .	195
5.3.1. Toponimia nagusia . . . . .	195
5.3.2. Toponimia txikia . . . . .	198
<b>6. Hiztegia</b> . . . . .	203
<b>7. Laburdurak eta erreferentziak</b> . . . . .	383
7.1. Laburdurak . . . . .	383
7.2. Erreferentziak . . . . .	384

# 1. IZEN MORFOLOGIA

## 1.1 GAI OROKORRAK

### 1.1.1. Hondarkien ezabaketa

Juntaduran lehen juntagai(ar)en hondarkia ken daiteke, irakurleak berreskura baitezake:

- *Arragoako ardo ta langilletan gastatuen kontua bealdu nuen.*
- *Erarinalde edo Iratzergiñ izanen omen dira gaiak.*
- *Hoietarako Mattantak ferratzalle ta herreroenzat hartu du burnitan [...].*
- *Irungo itzai ta meakariak estu dabilza bada hemen.*
- *Itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz.*
- *Jose de Aranburu ta bere anaaien meatik rezibitu ditut [...].*
- *Joseph de Bengoetxea ta Nikolasek badute bi agoa.*
- *Luis Zuloako eta bere lagunenzat...0640 reales.*
- *Migel de Aranburu ta bere anaiean meatik ekarri dugu karraidorekin 40 quintales y 3 arrobas.*
- *Migel Fagoagakoak ekarri ditu lau karga ikatz, atarian enbor ta zurzaiakin egiñak.*
- *Ola handikoak, horko ardo ta ogiaz gañera, egin dute espensa [...].*
- *Sobra dira 22 pezetas hargin ta peonen kontuetan.*

Baina ezabaketarik gabeko juntadurak ohikoak dira, eta batzuetan, itxuraz bederik, nahitaezkoak:

- *Antonio maisuak ta anaie Josek pisatu dituzte 27 quintales y 5 arroas; hasiak ta meakak 20 quintales.*
- *Arotzak ta itzaiak pagatu ta gelditu zen sobran...9 pezetas y 13 cuartos.*
- *Baltasarrek dio Garalorregin ta Otsandolan, hoien esamiñan, ongi aterako dela.*
- *Begitoren semeak ta bere lagunak artotako zerbait behar dutela.*
- *Errenteriara eta Ereñazura jua gabe gelditu dela berorren zalanzen.*
- *Gabrielek ta bere anaieak orañ ari diran meatzetik aterea da.*
- *Goierrirrak dira Errenterian ta Lezon bizi diranak.*
- *«Honbretxo» Luisen anaieak eta Franzisko Pikabeak badute lau eguneko aste bana.*

- *Irungo itzaiak ta meakariak zor dira.*
- *Irungo meakarien ta itzaien kontua.*
- *Isasolan, kabiguñ batekin etorrira ere, ogia ta ardoa badituzte.*
- *Len ere aspertu giñan harekin, gezurra ta iskanbilla besterik ezta hura.*
- *Lexok eta Kaperok egiñ dute.*
- *Luis de Lekunaren ta bere lagunaren kontua.*
- *Migel Aranguangoak ta Felipe Iturriotzkoak ikatzen dirua jaietako nabi luketela.*
- *Migel de Aranburuk ta bere anaieak ekarri dute mea 31 de marzo ezke-ro [...].*
- *Nekez akabatzen ditu mezak ta pregoiak bark!*
- *San Fermin aurretik ta ondotik juan ziran 17 orgatan edo portetan.*

Juntagaiak hiru edo gehiago direnean, lehen juntagaitik ezaba daiteke hondarkia:

- *Jose Migel ta Pottotoren semeak ta Tomasek hartu dituzte erretazo hoiek.*

Erdikoari ere ken dakiok:

- *Gañerakoak pagatuak ditu dirutan ta ogi ta babatan.*

Edo azkenekoari ez beste guztiei:

- *Joseph de Bengoetxea, Tomas Arbelaiz ta Nikolasek badute erremientagiten biña egun.*
- *Jose de Bengoetxea, Tomas de Arbelaiz, Nikolas de Arbelaiz eta Manuel Antonio de Ansari [...].*

Baina hondarkia juntagai guztietan azaltzen den lekukotasunak ere badi-ra:

- *Burni hoiek dire marzoan eramanak Donostiara. Manuelek, Bordatxok ta Juakintxok 6 quintales.*
- *Irunan, Erreterian ta Oiarzunan hamar milla karga erretazo omen da.*
- *Kasarsen ta Zuloakoaren ta Agerrekoaren kontuan pasatuen gañera dira hemengo hoiek.*

### 1.1.2. Artikuluaren eta pluralgilearen erabileraz

Zenbait aldiz, kasu batean baino gehiagotan, artikulua (edo artikulua irudi duena, eta pluralgilea, batzuetan) ez da kentzen hondarkia eranstea edo beste osagairen bat ondoan ezartzean: *beste hondarratako hoiek, bi olatakoa*

*guzia hau da zor dena, burniak guziak, dirua emanak, dirua hartuaren erre-ziboa, egunen batekoa lana, egurrako (txanda batean ez beste guztietan egur-reko dago); errealakotik 'errealekotik', 'erreala balio duenetik'; gaztaña ikatza puxkaren bat, Gaztañadiko basoa honetarako, graziak handiak, gurdia bat, hemengo iriñatik, ikatz gaia hau, ikatz gaia hura, ikatza gaztaña, ikatza karga, ikatza ta tretxua puxka bat, ingudea hau, Irungo mea belzatic, kontua hau, lana egiñak; papera hori, papera honetan, papera horretan, papera libranzako hori; ordañakoa 'ordezkoa', ordañarik 'ordezkorik', ordañatan, ordañaz 'ordainetan, ordezt'; sagarra hoienzat, txapona hura 'txanpon hura', txartela bat, txartela hau, zor dena guzia, etab. Tankera berekoa izanen da, berebat, ogia gehiago sintagma, hemen interpretazioa bestelakoa ere izan daitekeen arren. 1897ko Goizuetako udal ordenantzetan ere «Anizlarreco partidán ez da libre izanen [...] ez baserriric eguitea ez eta ere lurraric labaquitcea» daukagu (Satrustegi, 1996: 309; izkirio lodia gurea da), baina jarraian «...ez dute izango escubideric emateco emengo mendietan lurriric edo terrenoric particularrari» (ibid.).*

Gutunetan zenbait aldiz gure puntuatzeko erak –tartean koma sartzeak– galarazten duke, menturaz, gertakari honen berri jakitea. Nolanahiko gisan, nabarmentzekoa da aipatu erabilera Oiartzunen (Fraile eta Fraile, 1996: 71-72) oraindik ere ohikoa dela, eta Hondarribia-Irunen ere (Sagarzazu, 2005: 71) ezaguna dela. Etxalarko usategien inguruko gutunetan (1826-1865; Apezetxea, 2006) bada holako pare bat: *erriya onen* (430), *consideracione distinguitua batequin* (437). Orobat Berako 1822ko testu administratiboan ere (Santazilia eta Taberna, 2019: 841-842), gure gutunotan baino maiztasun handiagoarekin nonbait, sintagma burua erakuslea denean beti artikulua azaltzen baita, plurala izanik ere: *oficiyo delicaduba artaz, pensamentu noblia oc*, etab. Gertakari honen hedaduraz gehiago jakiteko Zelaieta (2008: 109) ikus daiteke.

JRMren testuetako aipatu *a*-dun lekukotasunen kariatara, bi multzo egin daitezke, egungo Goizuetako hizkera aintzat harturik. Lehenbizikoan leku kasuen hondarkia dutenak sar daitezke, inesiboa, adlatiboa, ablatiboa eta leku genitiboa, baita instrumentala eta, agian, partitiboa ere (hau zalantzazkoagoa da). Gaur egun Goizuetan ez da, kasu horietan, *-a* / *-e*- ongi bereizten, eta zenbaitetan, gainera, aldaera sinkopatua ere erabil daiteke, hau da, JRMren etsenpluak hartuz, *hondarretan* / *hondarratan* (eta *hondartan*), *iriñatik* / *iriñetik*, *beltzatic* / *beltzetik*, *ordañatan* / *ordañetan* eta beste esan daiteke.

Bigarren multzoan gaineratekoak sartuko genituzke, alegia, izenari artikulua (eta zenbaitetan pluralgilea) kentzen ez zaien adibideak, egun honelakorik ez baita Goizuetan ibiltzen. Multzo honetan honako banaketa erakusten dutenak sartuko lirake: *iz.* + *det.* (gehienak) eta *iz.* + *adj.* antolamendua dutenak, eta halaber izen elkartuak. Ez dakigu, bestalde, batez ere *burniak guziak* eta *graziak handiak*-en modukoetan, gaztelaniak ez ote dien eragin,

ikusten den bezala sintagmako bi kideek artikulua eta pluralgilea hartzen baitutuzte, aipatu hizkuntzan agitzen den moduan. Proposamen hau beherago aztertuko dugu xehekiago.

Bestalde, izen sintagma berean mugatzailea bi aldiz edo mugatzailea eta erakuslea dituztenak azaltzeko bi aukera daude. Alde batetik, badaiteke gertakari honek Erdi Aroko euskararen hasten bide den eta egun oraino ere badi-rauen artikulua mugatuaren gramatikalizazioarekin zerikusia izatea.<sup>1</sup> Hizkuntzaren tipologia aztergai duten hainbat lanetan erakutsi denez (Greenberg, 1978; Himmelmann, 1997, 2001; Dryer, 2013), munduko hizkuntza batzuek artikulua mugaturik ez dute eta beste batzuek, aldiz, bai. Azkenekoek mugatzaileak sortzeko (gramatikalizatzeko) orduan gramatikako hainbat osagai har ditzakete oinarri, eta horietatik ohikoenetakoa izenordain erakuslea da. Gramatikalizazio bide edo kate horretan erakusleek zenbait urrats egiten dituzte, honela (Greenberg, 1978; Himmelmann, 2001: 832):

*Izenordain erakuslea → artikulua mugatua → artikulua espezifikoa → izen marka.*

Gramatikalizazio bide honi jarraitzen zaion osagaiak urrats bat aurrera egin duela antzemateko badaude zenbait zantzu. Adibidez, izenordain erakusleak, artikulua mugatua izatera pasatzean, balio deiktikoa galtzen du, hau da, aurreko diskurtsoan aipatu den izaki, egoera, denbora edo toki jakin bati erreferentzia egiteko gaitasuna (Greenberg, 1978; Manterola, 2015: 14). Gainera, izenordain erakusleak, artikulua mugatu bihurtzean, bakarrik agertzeko gaitasuna ere galtzen du, hau da, izenarekin batean joan behar du nahitaez (Himmelmann, 2001: 833).

Aldiz, artikulua mugatua espezifikoa bihurtzean hitzuntzarentzat bakarrik ezaguna (eta entzulearentzat gehienetan ezezaguna) den izakiari erreferentzia egiteko aukera sortzen da. Azkenik, artikulua espezifikoa izen marka izatera iragan dela erakusten duen aldaketa da artikulua mugatutasuna eta espezifikitatea ezin adieraztea. Beste modu batera adierazita, gramatikalizazioaren hondar urratsean artikulua ezin du adierazi izena hitzuntzarentzat, entzulearentzat edo biezat ezaguna den (Greenberg, 1978). Horren ordez,

---

<sup>1</sup> Hopper eta Traugott-ek (2003: 2) honela definitzen dute gramatikalizazioa: «“grammatikalization” refers to that part of the study of language change that is concerned with such questions as how lexical items and constructions come in certain linguistic contexts to serve grammatical functions or how grammatical items develop new grammatical functions».



batzen zaion osagaia izena dela erakusteko bakarrik balio du, eta horregatik deitzen zaio «izen marka». Ondorioz, gerta daiteke osagai hau duten hizkuntzetan izen sintagmari, izen markaz gain, izenordain erakuslea edo artikululu mugatua gehitzea, mugatutasuna edo espezifikotasuna adierazteko.

Hortaz, badaiteke JRMren eskutizetako euskaran, baita gorago aipatu diren Berakoan, Oiartzungoan eta Hondarribia-Irungoan ere, euskara batuan artikululu mugatutzat hartzen den *-a* (Trask, 2003: 118-119) izen marka izatera pasatu izana. Hala balitz, esperoko genuke euskalki horietan *-a* izenordain erakusleekin sintagma berean agertzea. Nolanahi den, *-a* izen sintagman kiderik ukan gabe ere ager daiteke eta, horrelakoetan, antza denez, mugatutasuna adieraz dezake. Ikus, adibidez, 1796.04.26ko gutuneko «Enero de 93 *egiiñ omen zuen kontua*»: hemen *kontua*-k lerro batzuk lehenago aipatu denari egiten dio aipu eta, beraz, egilearentzat zein irakurlearentzat ezaguna (mugatua) da. Ondorioz, gramatikalizazioan oinarritzen den azalpena ez da erabat sinesteko modukoa.

Izen sintagma berean mugatzailea bi aldiz edo mugatzailea eta erakuslea dituztenen bigarren azalpena bestelakoa da. Finck-ek (1910) argudiatzen duen bezala, izen sintagmei kasuaren, generoaren, numeroaren, mugatutasunaren eta abarren moduko ezaugarriak gehitzeko orduan bi aukera erakusten dituzte munduko hizkuntzek: batetik, ezaugarria izen sintagmako osagai bakoitzean markatzea, eta bestetik, izen sintagma osoaren toki bakarrean ezartzea, hasieran edo bukaeran eskuarki. Azkeneko aukerari Finckek (1910) *Gruppenflexion* ‘talde jokatzeari’ deitzen dio. Hau da euskara batuan duguna, hots, *Parisko sukaldari ezaguna* izen sintagmari datiboa gehitzean ez da \**Parisko-ri sukaldari-ri ezaguna-ri* esaten, baizik eta *Parisko sukaldari ezaguna-ri*.

Haatik, *burniak guziak* adibideak iradokitzen du garai hartako JRMren mintzoan mugatutasun marka (*-a*) ez zaiola, *Gruppenflexion* ereduari jarraikiz, izen sintagma osoari behin bakarrik gehitzen. Aldiz, mugatutasuna gutxienez bitan, izenean behin (*burni-ak*) eta izenordainean (*guzi-ak*) beste behin, erakutsi behar dela ematen du. Laburbilduz, beraz, badirudi JRMren hizkeran mugatutasuna ez zaiola beti *Gruppenflexion* ereduari jarraikitzen. Gorago iradoki den moduan, hau gaztelaniaren eraginaren ondorioa dateke, hizkuntza honetan sintagmako kideek pluralgilea hartzen baitute, adibidez: *todo-s lo-s hierro-s*. Orobat, gaztelaniaz eta JRMren gutunetan *Gruppenflexion* ez gauzatzea bakarrik pluralgileekin gertatzen da, eta kasu markekin, berriz, ez. Hori kasualitatea izan liteke, baina *burniak guziak*-en modukoak gaztelaniaren eraginaren ondorio direlako ikuspegia bermatzen du.

### 1.1.3. Erakusleen nolakoa

Erakusleei doakienez, notatzekoa da *hauek*, *hauei*, *hauen...* ez direla behin ere azaltzen, ziurrenik egileak ibiltzen ez zituelako. Egun Goizuetan *hoi(e)k* ‘hauek’ eta *hori(e)k* ‘horiek’ eta beste dauzkagu, eta segurua da Jose Ramonek ere *hoiek* eta *horiek* lehen eta bigarren graduko erakusleak erabiltzen zituela. Arazoa da ez dela aise, testuetan, zein den zein, agerraldi bakoitza lehen gradukoa den edo bigarrenekoa, erabakitzea, batzuetan *hoietan* adibidez ‘horietan’ delako, ez ‘hauetan’. Aintzat har bedi Kardaberatz hernaniarrek ere, hamarkada batzuk lehenago, berdin jokutzen zuela (ikus bitez 1761ean eta 1882an argitara emandako lanak, eta berebat Altunak eta Zulaikak [2004: 19, 11. oin oharra] edizio kritikoan egiten duten ohar interesgarria). Mendiburu oiartzuarrak (1982) *oiec*, *oiei*, *oien*, *oiequin*, *oietatic...* dauzka lehen graduan, ez *hauek*, *hauei*, *hauen*, *hauekin*, *hauetatik...*, eta bigarreanean *oriec*, *oriei*, *orien*, *oriequin*, *orietatic* eta abar.

Nolanahi ere, orain leku guztietan ez da hola, jakina. Oiartzunen berean, adibidez, *hok* / *hoik* / *haik* dauzkagu egun (Fraile eta Fraile, 1996: 82), eta Lezon *hauek* / *hoyek* / *hayek* (Agirretxe eta Esnaola, 2000: 83). Nafarroa aldean Areson *hok* / *hoik* / *haik* daude, eta Leitzan *hok* / *ho(r)ik* / *hak* (Olando, 1998: 126, 141). Bortzirietan *hok* dugu lehen graduan eta *hek* hirugarrenean herri guztietan, eta bigarreanean *horik* Arantzan eta Igantzin, *hoiek* Etxalarren, *hoiek* eta *horik* Lesakan eta *hoiek* (arruntean), *horiek* (zenbaitetan) Beran (P. Iñigo, 1981: 43). Malerrekan, *ok* (lehen gradua) / *orik* (eskuarki), *oiek* (inoizka) (bigarren gradua) / *ek* (hirugarren gradua) ditugu Iturenen (A. Iñigo, a.a.).

### 1.1.4. Izenordain arrunten, bihurkarien eta logoforikoen erabilera

JRMren gutunetako izen morfologiari begira aipagarria den beste gaia izenordain arrunten eta bihurkarien erabilera da, hauen azterketak hizkuntzaren aldaketa eta euskalkien banaketa hobeki ulertzen lagun diezagukeelako. Haspelmathek (2020) argudiatzen duen bezala, hizkuntzetan bihurkaritasuna hiru eremutan adierazten da, bihurkari markak aurrekariarekiko duen erlazioaren arabera:

a) Eremu «*autopatiko*a» edo nork bere buruari erreferentzia egitekoa, hau da, perpaus bateko egilearen eta jasailearen artean dagoen harremana. Euskaraz bihurkari erlazio hau *buru*-egituraren bidez adierazten da, adibidez *Jonek bere burua ispiluan ikusi du* esaldian. Hemen, *Jonek* perpauseko egilea da eta *bere burua*-k jasaileari egiten dio erreferentzia. Aldi berean, *bere burua* bihurkari marka da eta *Jonek* aurrekaria. Egitura berezi hau erabiltzeko arra-

zoia *Jonek*-ek eta *bere burua*-k izaki berari (*Jon*-i) aipu egitea da, hots, *Jonek* eta *bere burua* erreferentziakideak izatea. Bestela esan, eremu autopatikoan *buru*-egitura erabiltzearen xedea *Jonek Jon ispiluan ikusi du*-ren moduko perpausak saihestea da, hauek erreferentzia nahasmena sor baitezakete.

b) «*Zeharkako*» eremua; hemen perpauseko egilearen eta zeharkako parte hartzailearen arteko erlazioa izaten da. Euskaraz bi aukera daude zeharkako eremuan bihurkaritasuna bideratzeko, kasuaren arabera: destinatiboan (*-rentzat*, *-rendako*) ez beste guztietan (datiboan, inesiboan, motibatiboan eta abarretan), eremu autopatikoan bezala, *buru*-egitura ibiltzen da, *Jon bere buruaz ari da* esaterako. Hemen aurrekaria *Jon* da eta zeharkako parte hartzailea *bere buruaz*-ek aipatzen du. Destinatiboan, berriz, zeharkako parte hartzailea izenordain arruntaren bidez adierazteko aukera eskaintzen du euskarak: *Jonek beretako/bere buruarendako erosi du ardoa*.<sup>2</sup>

c) «*Jabego*» eremua, subjektua ez den perpauseko osagaiaren eta jabego izenordain baten arteko erlazioa adierazten duena. Euskarak eremu honetan izenordain arruntan eta bihurkarien arteko aldakortasuna erakusten du. Euskaltzaindiak (1991: 67) honela arautzen du euskarazko jabego izenordain bihurkarien erabilera: «Erabil bedi genitibo bihurkaria baldin eta izenordain horrek aipatzen duen pertsona edo izakia perpaus berean aurkitzen bada nor, nori edo nork sintagma bezala».

Hortaz, *jabego izenordain arrunt vs bihurkari* bereizketa egiten da perpaus bereko aurrekariak kasu absolutiboa, ergatiboa edo datiboa hartu badu.<sup>3</sup> Arau honi euskalaritzan «*Linschmann-Aresti legea*» deitu zaio, deskribatu zuten lehen ikertzaileen abizenak oinarri, eta argi dago arreta handia jaso duela (Kintana, 1971, 2004; Sarasola, 1980; Rebuschi, 1986, 1989, 1991, 1995; Abaitua, 1991; P. Salaberri, 1994: 22; Trask, 1997: 239-240; Martinez Areta, 2013, 2015; Mounole eta Lakarra, 2018: 447-448).

---

<sup>2</sup> Destinatiboan dauden zeharkako parte hartzaileek bihurkaritasuna adierazteko duten aldakortasunak balio funtzionala dauka: pertsona izenordaina (*beretzat*, *niretako*, etab.) erabiltzea neutroa da eta, aldiz, *buru*-egitura bihurkariak (*bere buruarentzat*) ekitntza hanpatzeko balio du. Xehetasun gehiagotarako ikus I. Salaberri (2020: 12).

<sup>3</sup> Izenordaina bereizteko orduan aurrekariak absolutiboa, ergatiboa edo datiboa hartu behar izatea ez da kasualitatea: hiru kasu horiek dira aditzean komunztadura bidez adierazten diren bakarrak. Aldi berean, hiru kasuek aditzaren izenezko osagaiak (subjektua, osagarrri zuzena eta zehar osagarria) bideratzen dituzte. Aditz komunztaduraren eta bihurkaritasunaren arteko erlazioaz ikus, besteak beste, De Rijk (2008: 364-368).

Linschmann-Aresti legeari jarraikiz, egungo Goizuetakoko euskaran ize-nordain arruntak eta bihurkariak honela bereizten dira:

### Lehenbiziko taula:

jabego izenordain arrunten eta bihurkariaren paradigma, egungo Goizuetakoko euskaran.

Arrunta	Bihurkaria
<i>neré(a)</i>	<i>neré(a)</i>
<i>hiré(a)</i>	<i>heré(a)</i>
<i>hán(a)/harén(a)/harrén(a)</i>	<i>beré(a)</i>
<i>guré(a)</i>	<i>geré(a)/gé:n(a)</i>
<i>zuré(a)</i>	<i>zeré(a)</i>
<i>zuén(a)</i>	<i>zé:n(a)</i>
<i>hai(e)n(a)</i>	<i>bé:en(a)</i>

Minondok gutunak 1800 inguruan eta funtsean Goizueta aldeko euskaran idatzi zituenez gero, interesgarria dateke corpusean egiten den arauaren erabilera egungo hizkerakoarekin alderatzea. Arau hau gutunetako mintzoan pluraleko lehen pertsonan behintzat betetzen da, corpus osoan erreferentziakidetasuna daukan perpaus bakarria aurkitu dugun arren:<sup>4</sup>

– *Denbora txarrak nola zauden, **guk** ere **geren** beharra egitera egiñ dugu.*

Adibideko bigarren perpausean *guk* aurrekaria eta *geren* jabego izenordaina erreferentziakideak dira, eta aurrekariak kasu marka ergatiboa darama. Jabego izenordainak forma bihurkaria du eta, ondorioz, Linschmann-Aresti legea gauzatu dela esan daiteke. Erreferentziakidetasunik ez dagoenean Minondok izenordainaren forma arruntak erabiltzen ditu:

– *Mundu guzia **gure** juzkoan dago baso hoietaz.*

– *Alkate zarrak esan dit ez dela libranza beharrik, **gure** kontrako paperik ez dagoela.*

Lehenbiziko pertsona singularrean ez dugu erreferentziakidetasuna erakusten duen perpausik aurkitu. Holakoetan *nere* forma dugu:

– *Uste dute **nere** falta dela, ta txartelekin horrara etortzeko asmoa egiten dute.*

– *Itxearen sensoaren korrituak pagatu ditut diru hoiekin, ta asenta bitza **nere** kontuan.*

<sup>4</sup> Beste atal batzuetan egin den moduan, hemengo adibideetan eztabaidagai diren osagaiak (aurrekariak eta jabego izenordainak) letra lodiz adierazi ditugu, hobeki konpreni daitezzen.

Era berean, aztergai ditugun testuetan bigarren pertsonako jabe go izenordainik ez dago eta, hortaz, ezinezkoa da jakitea Linschmann-Aresti legea gauzatzen denetz. Hirugarren pertsonan, berriz, hainbat adibide aurkitu ditugu eta, adibideok oinarri hartuta, orokortze garbia egin dezakegu: arau hau ia beti betetzen da, betiere aurrekaria perpaus berean badago. Hurrengo adibideek erakusten dute hori, baita aurrekaria absolutiboan (*Goierriarrak, Juan Franzisko, Martin berozallea, Sebastian Altxu*), ergatiboan (*hark, Migel de Aranburuk*) eta datiboan (*Josepe igeleari*) egon daitekeela ere:

- *Begitoren semeak ta bere lagunak artotako zerbait behar dutela.*
- *Goierriarrak dira Erreterian ta Lezon bizi diranak. Orañ geldirazi ditugu, ta beren kuartoak eskatzen dituzte.*
- *Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik oñeko miñak, ta bere kontua eskatzen du.*
- *Hark bere puskak eramanagatik tellatua eta paretak besterik ez dagoela haren itxean, ta yoanen badira puskak eraman beharra izanen duela, eta bereak dituen bezala, eraman ditzala esan diogu.*
- *Josepe igeleari paratu tiot ola handiko asentuan bere egunak.*
- *Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik oñeko miñak, ta bere kontua eskatzen du.*
- *Martin berozalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen, Erreteriarra eta Ereñazura jua gabe gelditu dela berorren zalanzan, ta berorrekin bere mesedetan ez dagoela.*
- *Migel de Aranburuk ta bere anaieak ekarri dute mea 31 de marzo ezkerro.*
- *Sebastian Altxu ta bere laguna konpondu dira laguna libratu artea Altxu bakarririk aritzeko.*

Halarik ere, aurrekaria perpaus berean duten hirugarren pertsonako jabe go izenordainei begira Linschmann-Aresti legea betetzen ez den bi kasu aurkitu ditugu:

- *Martintxuriko Josek edo haren mutillak zaldaletako 20 pezetas.*
- *Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira, pagoak eta haritzak bota ta haien buruak, eta orañik ez dira erakutsi.*

Adibide hauetan aurrekaria (*Martintxuriko Josek, pagoak eta haritzak*) eta jabe go izenordaina (*haren, haien*) perpaus berean daude, baina azkena arrunta da, ez bihurkaria. Bi adibideetatik lehenak salbuespen garbia ematen du, testuingurua oinarri hartuta ez baitago, *Martintxuriko Josek* alde bat utziz gero, jabe go izenordainaren beste aurrekaririk izateko modurik. Bigarrena azaltzeko era, aldiz, honako hau da: *buru* hitzak euskaraz hiru esanahi ditu, hitzez hitzekoa (gizaki eta animalien gorputzaren goiko atala), metaforikoa (bizidunak ez diren gauzen bukaerako edo muturreko alderdia) eta bihurkaria

(nortasun osoari erreferentzia egiten diona). Ordea, hizkuntzak ez du hiru esanahi hauen arteko bereizketa formalik egiten. Ondorioz, *buru* hitzaren irakurketa, usu, testuinguruaren arabera izaten da, eta, tamalez, batzuetan horrek ere ez du esanahia argitzen laguntzen. Hau jakinda, badaiteke JRM hemen *haien buruak* esamoldearen irakurketa jabego izenordain arruntaren bidez ahalik hobekiena argitzen saiatu izana. Hots, *pagoak eta haritzak bota eta beren buruak* esateak irakurketa bihurkaria bultzatzeko arriskua izan zezakeen. Hori gerta ez zedin, daitekeena da hemen JRMk, berariaz, jabego izenordainaren forma arrunta ibiltzea, nahiz horrela Linschmann-Aresti legea betetzen ez den.

Nolanahi ere den, azalpen hori, *buru* hitzaren esanahia argitzearena, interpretazio korapilatsua da. Sinpleena da pentsatzea JRMren euskaran, Linschmann-Aresti legea hirugarren pertsonan gehienetan gauzatuagatik, horrelako egiturak ere (*Xak eta/edo haien Yak*) ohikoak zirela, egungo Iparraldeko hizkeretan bezala.

Arestian esandakoaren ildotik, aurrekaria eta jabego izenordaina perpaus banatan daudenean forma arrunta ibili ohi du Jose Ramon Minondok:

- *Feliz igeleak esan dit baren mandatuaz oroitzeko.*
- *Paskual de Isasak esan dit baren kuartoak bealzeko.*

Adibide hauetan aurrekaria (*Feliz igeleak, Paskual de Isasak*) perpaus nagusian dago eta izenordaina (*baren*), berriz, mendekoan. Biak erreferentziakideak dira, baina azkenak forma arrunta du, ez bihurkaria. Testuen egileak portaera bera erakusten du bi osagaiak perpaus nagusi banatan daudenean:

- *Batista hemen zen egun, ta bark esan dit Juan Migeli eman hobeko zaiola 200 kargako porzioa.*
- *Markos hemendik jua zen 13 de noviembrea, ta biharamunean hasi zen Juan Antonio baren partez.*
- *Polsero difuntuar[i] 220 urretxiki emantako erreziboa beal beza. Ez omen dute harrapatzen asenturik baren paperetan.*

Oro har, beraz, aurrekaria eta izenordaina perpaus banatan daudenean, nagusiak edo mendekoak izan, jabego izenordain arrunta erabiltzeko joera garbia dauka egileak. Beste modu batera esanda, orain aurrekaria eta jabego izenordaina perpaus mugak bereizten dituen kasuez ari gara. Bihurkaritasunak bakarrik perpaus bereko osagaien arteko erreferentziakidetasuna adierazten duenez gero, ez gara bihurkaritasunaz mintzatzen ari, logoforizitateaz baizik.

«Logoforizitate» adigaiak hizketaldian lehenago aipatu den izakiari erreferentzia egiteko moduetako bat adierazten du, hau da, balio anaforikoa du. Hortaz, bihurkariak bezala, osagai logoforikoek aurrekariak dituzte, baina

aldea ere bada: bihurkarien aurrekariak beti perpaus berean izaten dira, eta osagai logoforikoenak, berriz, perpaus beretik at. Funtzioari begira, osagai logoforikoek adierazten duten aurrekaria eta hiztuna edo hizketaldiko beste partaide bat bereizteko balio dute (Hagège, 1974: 287). Adibidez, *Jonek esan du berari ardo beltza gustatzen zaiola* esaldian, *berari* izenordain logoforikoak aditzera ematen du bere aurrekariaren, *Jonek* subjektuaren erreferentziakidea dela, eta ez hizketaldiko beste aurrekariren batena. Bestalde, *Jonek esan du hari ardo beltza gustatzen zaiola* esanez gero, izenordain logoforikoak erabiltzen dituzten euskalkietan garbi gelditzen da *hari*-k ez diola *Jon*-i aipu egiten, beste norbaiti baizik.<sup>5</sup>

Logoforizitatea, bihurkaritasuna bezala, goian azaldu diren hiru eremuetan adierazten da, eta aurreko adibideen bidez erakutsi da Minondok logoforizitatearen «*jabego*» eremuan ez duela Linschmann-Aresti legea betetzen. Ereku «*autopatiko*»az eta «*zeharkako*»az gauza bera esan daiteke, hemen ere goizuettarrak gehienetan izenordain arrunta baitarabil:

- *Andresek esan dit leneko urteko errentan hari osoaz kargu egiñen diotela, ta bark falta duela orañik.*
- *Beleak esan dit semeari esan diola nola izandu geran, semeak eranzun diola basoko irabaziarekiñ eziñ pasa daitekeala bura, ta nahi duguna egiteko.*
- *Biziro ez dut harrapatu, eta Markosek esan dit bark dakiela zazpi espensa behintzat badirala.*<sup>6</sup>
- *Eta Biziro hartu dut, eta esan diot kontua nola bealdu duen, ta errespuesta eman dit berorregandik bost ezkutuko bat besterik bark hartu ez duela, eta konturik egiñ ere ez duela, eta nahi duenarekin konpon dedilla.*
- *Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor bealdu dit, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña. Gurdi zura hartu dio gizon bati ta harenzat ditu, paguaren alderako.*
- *Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan, ekusi dezala, bark uste zuela gutxiago badere harzekotan zegoela.*

Hala ere, logoforizitatearen eremu «*autopatiko*»an eta «*zeharkako*»an *ber-* erroa oinarri duten izenordainak aurkitzen dira han-hemenka:

<sup>5</sup> Honetaz Crystal (2008: 392), Dixon (2010: 252-254) eta Brown eta Miller (2013: 273) ikus daitezke.

<sup>6</sup> Perpaus honetan *Biziro* zein *Markosek*, biak ala biak izan daitezke *bark* izenordainaren aurrekaria. Testuinguruak ez du kontu hau argitzen laguntzen, baina gure ustez *Biziro* dela pentsatzea da sinesgarriena.

- *Eta meatze yabe hoiek alkua pasatzeko asmoak dituzte, eta pasatuko dute berak diotenaz.*
- *Hondarribiako babak ziudadean batzuek ta besteak ziudadearen garaiko aldean, bere itxean omen ditu gizon bark; Arsu daritza itxeari. Ta beste edozeñ aldetara gehiago kostako dira berari erakarrita baño.*
- *Indianoagandik errezibitu ditut ikatzak 5.157½ cargas y 1 otsabeharria. Olatxoan berarengat erre zen...0032½ cargas.*

Laburbilduz, beraz, JRM Linschmann-Aresti legea hirugarren pertsonan eta bihurkertasuna adierazteko tenorean aski sistematikoa dela esan daiteke: forma bihurkaria erabiltzen du baldin absolutibo, ergatibo edo datibo marka daraman aurrekaria perpaus berean badago. Logoforizitatea adierazteko denboran, aldiz, lege hau ez da betetzen, forma arrunta eta *ber-* erroa oinarri duena era bertsuan ibiltzen baitira, eremuak eremu.

Bestalde, aipagarria da gure corpuseko hizkera ez dela Nafarroa Garaiko egungoarekin erabat lerrokatzen, honetan erreferentziakidetasuna dagoenean izenordainaren *ber-* erroan forma erabiltzen delako, perpausaren mugetan gaindi ere. Jose Ramonen hizkera Lapurdiko euskaratik (lapurtera klasikotik zein egungotik) gelditzen da hurbilenik, dialekto horretan *bere(n)* jabego izenordain bihurkariaren erabilera aurrekaria perpaus berean izateak baldintzatzen baitu (Rebuschi, 1986). Gainera, lapurteraz ohikoa den *Jon eta/edo haren* (uler bedi ‘bere’) *laguna ikusi ditut*-en moduko bi kasu ediren ditugu eskutizetan (ikus gorago).

### 1.1.5. Leku kasuen hondarkiak

Egun, Goizuetan, leku kasuetan, pluralaren hondarkiak, bokalez bukatzen diren hitz guztiekien *-tatik*, *-tara*, *-tan* eta *-tako* ohi dira, batuko *e* hori gabe. Eta beharbada arrazoi horrengatik, kontsonantez bukatzen diren hitzetan, *-atatik* / *-etatik*, *-atara* / *-etara*, *-atan* / *-etan* eta *-atako* / *-etako* pareak berdintsu ibiltzen dituzte hiztunek, ez dituzte hondarkien hasierako bokal horiek (*e*, *a*) ongi bereizten. Ildo honetatik, 1802.05.17ko gutunean *beste ondarrataco oyeq* daukagu, itxuraz tankera horretako forma.<sup>7</sup>

<sup>7</sup> Oiarzunen *gurasotatik* ‘gurasoetatik’ badago, baina gero *eurretan* ‘egurretan’, *eurretako* ‘egurretako’, *eurretatik* ‘egurretatik’... besterik ez dute biltzen Frailek eta Frailek (1996: 77, 78).



## 1.2. KASUAK

### 1.2.1. Absolutiboa

Atal honen hastapenean aipatu dugu artikulua –eta pluralgilea zenbait aldiz– ez dela kentzen euskaraz eskuarki egiten den moduan. Horregatik ez dakigu *franko* zenbatzaile zehaztugabearekin doan izenak *-a* eramatea beste hizkera batzuetan ere edireten dugun erabilera den (*cf.* Luzaideko *eroslia frango* ‘eroslea franko’, Kamino eta Salaberri, 2007: 72) edo hasieran (1.2. puntuan) ahotan hartu dugun *Gaztañadiko basoa honetarako, graziak handiak, gurdia bat*-en erako itzulia den: *ikatz franko, lana franko, malura franko*.

Bestalde, artikulua partizipioari atxikitzen zaionean *-ea* ohi dugu, hark *-a* badu: *atereak, botea...* (ikus *bote(a)* sarrera, hiztegian). Aintzat har bedi Goizuetan egun *aterek, botea* esaten dela, baita *azkúrea* ‘azkura, azkilea’ eta *minbérea* ‘minbera’ ere.

Zenbaitetan pluralgilea zuzenean oinarriari lotzen zaio, artikulurik gabe: *bealduk* ‘bidaliak’, *mea zarek* ‘mea zareak’... Hauek zerrendetan ageri dira, eta leku ezari zor zaizkiola pentsa daiteke, baina aintzat hartu beharra da egun Goizuetan bokalez bukatzen diren hitzetan holaxe egiten dela: *sémek* ‘sema-ak’, *mendik* ‘mendiak’, *basók* ‘basoak’, *burúk* ‘buruak’... (Zubiri eta Perurena, 1998: 117), eta, beraz, gaurko formen aitzindariak izan daitezkeela.

**Galde hitza:** *zer / nor / zein*

**Izenordain, determinatzaile, adjektibo, aditzondo eta beste**

*Bi* zenbatzailea izenaren aurretik nahiz atzetik joan daiteke. Ondoko etsenplu hauetan haren gibeletik doa:

- *Aritzxulegitik ere sarzen da bederetzi uztarriren kontua kabiguñ birekin.*
- *Hoietako egun bat ingudeari zamar bi emanta paratzen pasatu zuten.*
- *Juakin Aketzaren ikatza egun biko diña izanen da.*
- *Mea zare bi ta bihorzeko bat pagatzeko.*

Baina normalean izenaren aitzinean egoten da: *bi egun, bi hogei ezkutuko, bi olatakoa* ‘bi oletakoa’, *bi taratelu, bi pitxer ardo, biña egun, biña egunetan...*

**Pertsonalak:** *ni, gu.*

**Erakusle arruntak:** *hau, hori, hura, hoiek, horiek, haiek.*

**Erakusle indartuak:** *hauxe, berau, berori*,<sup>8</sup> *bera*.

**Beste batzuk:** *batere, batzuek* ‘batzuk’, *deus (ez), elkar, iñor ez, iñor gutxi, zenbat, zerbait*.

### Singularra

Artikulua (-a) erabiltzen da: *armarioa, gaztaña ikatza, gurdi zura, guzia, haizarka, haria, neurria, olioa, zabala ta lodia, zepoa...*

### Plurala

Artikulua eta pluralgilea erabiltzen dira (-ak): *arrotzak, emanak, geldituak, gurutzeak, kabiguñak, lagunak, olatxoak, orañgoak, urak...* Ikus, alabaina, atal honen hasieran esan duguna, *bealduk* eta *mea zarek* ahotan harturik.

### Mugagabea

Ø dugu: *arto ereiteko, berrehun ziri, bi pezeta, biña puska, bost pitxer ardo, hamaika karga, hamaika makill, hiru kupel ustai, libra bat haragi, makiña bat zor, sei sardiña, 6 urretxiki, urgon dago* (‘maingu’), *zer zor, 8 pezeta...* Ikusten den eran, *makilla* hitzak berezko duen -a galtzen du, artikulutzat eman baita. Gauza bera dukegu, batuan hola erabiltzen bada ere, *kupel* elean.

Izen predikatuetan egun ibiltzen den baino maizxeago aurkitzen dugu mugagabea:

- *Ariztiburukoa eta Aldakokoa dira orañ guzien partetik agintari.*
- *Bizenteren basoa ere bakar dago, ta egurra ekarriko dute iñor paratzen ezpada.*
- *Ikazkilleak berak lapur ezpalira nonbait hor halere.*

## 1.2.2. Partitiboa

Beti ezezko perpausetan edo zehar-galderetan ediren dugu, edo *gabe, nekez*-en lagun bestela (ikus hiztegia). Superlatiboarekin ere badago: *artorik txarrena, lantegirik libreña, mearik ederrena*.

Behin edo beste baldintzazkoa edo helburuzkoa izan daitekeen perpau-sen batean ere badugu:

---

<sup>8</sup> Hau pertsona izenordaintzat har daiteke, beroriketan behin eta berriz, hainbat kasutan, aurkitzen dugun forma delako. Guk, dena dela, eta *berau* eta *bera*-rekiko erlazioa atxikitzeagatik, erakusle indartuetan ematen dugu lan honetan.

- *Eta hoiek eta aurrerako zerbait eman beharko zaiote mearik izatekotan, ta preziso behar dugu, olarik aritzekotan, mea belza.*
- *Ta ekarriko bada edo izanen bada aurrerakoñ behar, arragoarik erreko bada.*

Txanda batean baiezkoa dirudien esaldian dugu, baina testuingurua ez da argi-argia (izkirio lodia gurea da):

- *Iñork egurra eramateko, peligroan **egurrik** Oielekutik beiti da, karraia-doreak hutsik heldu diranean karga bailitezke; bestetan ez da peligrorik.*

Bokal ondoan **-rik** dago: *artorik, dirurik, esperanzarik, euririk, faltarik, kontrariorik, modurik, tretxurik...*

*Iñor* izenordaina *bestetik*-ekin batean *doa sartu gabe*-ren aldamenean: *iñor bestetik (sartu gabe)*.<sup>9</sup> Beste honetan ‘bat ere’ edo ‘batere’ dela dirudi: *Fagotxikikoak iñor sumatu ez dutela karraidorerik larunbatean*. Erka bedi Goizuetako 1897ko udal ordenantzetan ageri den beste honekin: «*Modu berean debeatua guelditcen da, Campo Santuan deuz letreric jarcea*» (Satrustegi, 1996: 304; izkirio lodia gurea da).

Kontsonante ondoan **-ik** daukagu: *beharrik, gauza onik, lagunik, lanik*.

Diptongo ondoan **-rik** dago: *itzairik*.

Adberbioak egiteko ere ibiltzen da: *geldirik, hutsik, ixilik, osorik...*

Ikusten den moduan, beraz, gutunotan ez dago, Goizuetako egungo hizkeran gertatzen denaz bestera, *-an* luzagarria duen *gizonikan*-en tankerako formarik, alegia ez dago honelako bikoiztasunik: *gáur éztit káfea pagátzeko díruik / gáur éztit káfea pagátzeko díruikan* ‘egun ez diat kafea ordaintzeko dirurik’; *oáin éztit itxéra yóteko góik / oáin éztit itxéra yóteko góikan* ‘orain ez diat etxera joateko gogorik’. Ikus ablatiboaz eta motibatiboaz mintzatzean dioguna.

### 1.2.3. Ergatiboa

**Pertsonal arruntak:** *nik, guk*.

**Pertsonal indartuak:** *neurk, gerok*. Goizuetan egun *néunek* eta *néurrek* esaten da, baita *géok* eta *gérok* ere. Gutunetako *neurk* eta gaurko *néurrek*

---

<sup>9</sup> Aldera bedi Kardaberatzek (2004 [1761]: 20; izkirio lodia gurea da) darabilen honekin: «*icusi eta icasi zuena iñorc bestec ez bezala moldaturic eman cigun*».

oraingo *hárk* eta *harrék* (*harék* ere bada) dauden erlazio berean daudela ematen du.

**Erakusle arruntak:** *honek, horrek, hark, hoiek, horiek, haiek.*

**Erakusle indartuak:** *berak* ‘berak’, *berorrek, berok* (ikus 1793.04.22ko gutuna), *berak* ‘berek’. Behin *berrorrek* dago (1799.12.08), baina forma okerra izanen da, gainerako guzti-guztietan *berorrek* baitugu.

**Bestelakoak:** *askok, batzuek, bestek* (mugagabea), *iñork* (*gehiagok*) (ez), *norbaitek...*

### Singularra

*-ak* dugu: *alkateak, apaizak, apendizak, errotariak, eskriboak* ‘eskribauak’, *gizonak, haizeak, ielsuak, igeleak, itxeoandreak, jabeak, lanak, maisuak, mealleak, miñak, nagusiak, ogi egilleak, ogidunak, perrazalleak, probestuak* ‘herrizainak’, *sagardoak, semeak, suñak* ‘suhaiak’, *txalupak, urak...*

### Plurala

*-ak* dago beti:

- *Arragoa erretzalleak olatxekoaz kanpora dituzte [...].*
- *Esteban ta Gabriel bi anaieak bealdu dute.*
- *Gregorioren lagunak egin dituzte.*
- *Itzaiak txalupa huts egin zuten larunbatean.*
- *Ola handikoak zor dutena.*
- *Olagizonak diote [...].*
- *Olatxoko hiruak dute launa aste.*

### Mugagabea

Bokal ondoan *-k* dago, eta kontsonante ondoan *-ek*:

- *Batek edo bik hartu beren buruan [...].*
- *56 karga ikatzek ez du honenbeste balio.*
- *Josepe igeleak eta Nikolasek badute agoa bat biak egiña.*
- *Milla tellak balioko du sei ezkutn, 4.000 tellak...24 pesos.*
- *Oiarzunan bertan lau orgak hiru pezeta [balio dute].*

Izen bereziekin *-k* dugu bokal ondoan: *anaie Josek, Anatxurik, Franzisko de Rekek, Gregoriok, Joseph Antoniok, Manuel Txotxak, Peloako Agerrek, Pellok, Sarastik, Sebastian Juansendok, Txitxipitxik, urzalle Josek.*

Diptongo ondoan *-k* hutsa dugu, baina baita *-ek* ere:

- *Manuel Juakin de Esnauk pasatu ditu Eguerriak artea hemen olatxoan.*
- *Pello Esnauk 18 anegaren lekuan 15 anega hartu ditu.*
- *Sebastian de Ameztoiek egiñ zuen kontua.*

Kontsonante ondoan **-ek** dago: *Baltasarrek, Blasek, Damianek, Fermiñek, Jose Antonek eta Estebanek, Juan Migelek, Markosek, Maxalenek, Salbadorrek, Senbollek.*

#### 1.2.4. Datiboa

**Galde hitza:** *zeñi*

**Pertsona izenordainak:** *niri, guri.* Mikelestorenak (1751) ere *niri* dauka (18, 33, 35, 46).

**Erakusle arruntak:** *boni, hari, hoiei.*

**Erakusle indartuak:** *berorri, berari, berai* ‘berei’.

**Bestelakoak:** *bati, iñori* ‘norbaiti’, *norbaiti...*

Hemen sintagma hau daukagu: *gizon edozeñi* ‘edozein gizoni’. Ez daki-gu zaharra den (Oihenartek atsotizetan darabil; orobat Elkanoko Lizarragak, Hiribarrenek eta Jean Etxepare medikuak; ikus OEH) edo kontu puntuala den, idaztean aurretik paratzea ahaztu eta ondoren ezarri ote duen.

#### Singularra

**-ari** dago normalean: *alabari, anaieari, aprendizari, Arranbidekoari, bakoi-tzari, berotzalleari, Buruzuri zarrari, ferrazalleari, fraileari, Franzisko de Pikabea Berentxikikoari, Garatekoari, gaztiari (sic), igeleari, ingudeari, itxeari, jabeari, juraduari, kandelagilleari, kintalari, lagunari, Madarikoari, maisuari, mandazaia-ri, mealleari, nagusiari, probestuari, seme gaztiari, semeari, urzalleari...*

Baina bakan zenbaitetan **-r-ik** gabeko aldaera ere aurkitzen dugu, **-ai** ale-gia: *burniai tiratzeko* (plurala?), *Fausto mea garbizalleai, fielai, fraileai* ‘fraideari’, *mando horkoai* ‘mando horkoari’, *mandoai* ‘mandoari’ (bitan).

#### Plurala:

**-ai** dugu: *alkateai* ‘alkateei’, *berorrek nahi duenai kargatuko zaiote* ‘berorrek nahi duenei kargatuko zaie’, *burniai, egurzaleai, esamiñadoreai, fraileai, gañerakoai, hor izandu ziranai, Garatekoai* ‘Garatekoei’, *Iberokoai* ‘Iberokoei’, *karraidoreai* ‘garraiatzaileei’, *karromatodunai, lengoai* ‘lehengoei’ (ustez), *mea garbitzalleai* (singularra?), *nekezaleai, ogi egilleai, oiarzuarrai, olako lagunai, zorrai...*

Reguerok (2018 [2015]: 221) dio Goizuetako 1753ko predikuan singularra **-ari** dela eta plurala **-ai**.

## Mugagabea

Bokal ondoan *-ri* daukagu: *besteri kendu diola*.

Bokalez bukatzen diren izen berezietan ere *-ri* dugu: *Agerreko Patxikuri, Faustori, Franzisko de Pikabeari, Ignazio de Ezpondari, Joseperi, Kristori, Markos Pototori, Martin de Arizabalori, Maxkuriori, Patxikuri, Sarastiri, viuda Larralderi*.

Halaber diptongoz bukatuetan: *Migel de Esnauri*.

Kontsonantez bukatzen direnetan *-i* dago: *Andresi, Juakin Ueguni, Makatzi, Martini, Maxaleni, Migel de Irigoieni, Sebastiani, Senbolli* (oinarria *Senboll da*), *Tomasi*.

*Laioieri* berezia da, deitura JRMk xuxen nola ebakitzen zuen ez dakigulako.

### 1.2.5. Inesiboa

#### A) Bizigabeak

Singularra ibiltzen da epeak adierazten direnean, denbora tarreak: *bi egunean, bost lagunean* ‘bost lanegunean’, *hiru lagunean* ‘hiru lanegunean’, *hogeita lau orduan, sei lagunean* ‘sei lanegunean’...

Orobat kopuruekin:

- *Bost pezetan hartu du berak Katxorena.*
- *Erretazoak 19 kuartilluan gelditu ziran.*
- *Eta 16 pezeta eta erdian ere omen zen alea, eta orañik hemen hogeitaz pezetan dago errotatan.*
- *Hartuko duela 5½ realean, sei errealean pasatuko baita.*
- *Itxekoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko, ta galdatu dugu ta hamalau kuartoan katzik gabea, ta hamazazpi kuartoan gazi-tua omen daude.*
- *Ola orañik 440 dukatean dago.*
- *Olioia 30 kuartoan omen zen libra.*
- *Suerteza gelditu da 1.620 ezkutuan.*
- *Suerteza hartu diet 16 kuartilluan.*

Ondoko hauetan urte bat gehi urte bat izan direla erran nahiko zukeen egileak:

- *Bi urtetan errenta pagatu, ta aurten beren deretxo batetik pagatu dutela errenta.*

– *Bi urtetan etorriak dira...77½ cargas y 4 lepalotuas.*

Egun Goizuetan-eta bezala, bestek pluralean erabiliko lukeena unitate-tzat-edo hartzen du egileak:

- *Señgoarekin egondu naiz ta esan dit 40 egun honetan miñez dagoela.*
- *Ta ea lan egiñ guzia zaldaletan yaten zuten bada, edo zer pasatzen den, ez dakiela hark zorzi hillabete honetan.*
- *Ta 1.400 ezkutu honetan ongi litzakeala dio.*

**Galde hitza:** *non, zertan*

**Erakusle arruntak:** *honetan, horretan, hartan, boietan.*

Behin edo beste, determinatzailea denean, izenak artikulua hartzen du: *zor dut papera honetan (papera hori ere bada).* Baina ondoan beste hauek dauzkagu: *lengo paperekoa, bi paperetako.*

**Erakusle indartuak:** *Oiarzunan bertan.*

**Adberbioak:** *hemen, hementxe, hor (eta horr, behin), han.*

### Singularra

Bokal irekienaren ondoan **-n** dago: *arragoan, bokan, denboran, errekan, errentan, esamiñan, espensan, ganbaran, kandelan, olan, portxan* ‘bortxan, bortxaturik’, *udan, zalanzan...*

Gero, **-an** dugu *e, i, o* eta *u*-ren ondoan: *arialdian, asentuan, astean, asteartean, aurrean, deskuidoan, eguerdian, igandean, itxean, karretoan, kontualdian, kuartilluan, leku muspelean, makoan, maxuran, meatzean, neguan, paguan, sagardotegian, sotoan, suan, tretxu txikian, zitudadean, zubian...*

Diptongo ondoan **-ean** dago: *hamaseian behar dudala, hamaseian har dezadala, hurrengo jaiean, paratu dute hamaseian.* Mikelestorenak (1754) *ogueiean* (9) du.

Kontsonante ondoan ere **-ean** dago: *arratsean, astelenean, bellonean, goizean, igande datorrenean* ‘datorren igandean’, *hillean, lanean, larunbatean, lorrean, memorialean, oñean, ostiralean, paperean, preskura ederrean* ‘lasai ederrean’, *txarrean, zillarrean.*

### Plurala

Bokal gehienen, diptongoen eta kontsonanteen ondoan **-etan** dugu: *arozten liburuetan, asentuetan, bazterretan, bi arragoetan, burnietan, diruetan, esamiñetan, guzietan, haren paperetan, itxe lanetan, horko kabilletan, jaietan, kontuetan, larrañ hondarretan, lengo egunetan, pagoetan, pregoietan...*

Ordea, oinarriaren azken bokala **-e** denean *e + e > e* egiten da:

- *Arragoako ardo ta langilletan gastatuen kontua.*
- *Besteak gaistotzat botetan bilduak ote diran nago.*
- *Entregatu gabeak hiru edo lau kintal omen dira itxetan orañik.*
- *Erruda gurutzetan paratzen 2 días.*
- *Gazteluko meakariak geldirazi dituzte meatzetan.*
- *Guretan halako bentajaturik bat ere ez.*
- *Karraidoretan kontua pasatzeko.*
- *Ola handian azkeneko hiru astetan egin den espensa.*
- *Pillaretan edo zillegi ez den tokian gehinak aritzen dirala.*

Hitzak bukaeran -o edo -u duenean  $o + e > o$  eta  $u + e > u$  egiten da inoiz-ka, baina ez beti (*kuadroetan* dugu; ikus puntu honetan berean, behehixeko):

- *Olagizon hoiien kontua hau bealdu nuen nagusiari hoiien asentutan para zitezten.*
- *Suerteko basotan sartu dira 41 días.*

Ondoko hau berezixea da, *erdi* baitago tartean:

- *Erdi lekutan ('leku erdietan') urak yan ta galduak daude.*

Zenbait aldiz *-tan* akabaila dugu, *-a*-rekin bukatzen diren errota, *ola* eta *puska* hitzekin:

- *Bi olatan pasatu hau.*
- *Bost puskatan batek erditik txuritzak baditu.*
- *Eta 16 pezeta eta erdian ere omen zen alea, eta orañik hemen hogeï pezetan dago errotatan.*
- *Hemengo errotatan.*
- *Kuadroetan badira eskastuta juanak arroa batzuek plantxuelatik, eta kabillatan ere bai, 8 arroa bezala.*

## Mugagabea

Bokal ondoan *-tan* dugu:

- *Alzibertik tretxutan...7 jornadas.*
- *Arragoako telleriatik tellatan bi yorrada.*
- *Bere mesedetan.*
- *Bi alditan.*
- *Burnitan...25 pezetas y 8½ cuartos.*
- *Errenteriatik babatan bi yorrada.*
- *Eta 16 pezeta eta erdian ere omen zen alea, eta orañik hemen hogeï pezetan dago errotatan. Aranederrean bestetan ez da horregatik.*
- *Gañerakoak pagatuak ditu dirutan ta ogi ta babatan.*
- *...gastatu dute [...] babatan.*



- *Gobiernokoai esan behar ziotela puskaka paratzeko, kandelan puskatan ziren ezkeroko pagoak.*
- *Hiru porziotan.*
- *Hirutan ehun.*
- *Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan.*
- *Kargatan jaso baitira 781 reales [...].*
- *Larunbatean elementutan olatik joan ta igandean egueldi txarraz gelditu.*
- *Pagatuak dira babatan.*
- *Suerte partitua dago launa puskatan.*
- *San Fermin aurretik ta ondolik jua ziran 17 orgatan edo portetan, ta langrostatan ere galdu genuen once pezetas.*
- *Ta ea lan egiñ guzia zaldaletan yaten zuten bada.*
- *Zer fundamentutan dirua eman behar den.*
- *Zuloagakoak artotan zor egiñ dutela ta bealzeko 40 pezetas.*

Kontsonante ondoan *-atan* dago:

- *Arrago egurratan...17 leras.*
- *Lizarditxabaltik egurratan 3 días.*

Hau pluralizat ere aitor daiteke eta, izan ere, bada orobat *-etan* hartzen duen sintagma:

- *Hondarrabiara eman genuena da, 50 karga, arrago egurretan hartu ta gañerakoa.*

Leku izenekin *-n* dugu bokalez bukatzen direnetan: *Arranbiden, Doniyoanen, Donostian, Erreterian, Garalorregin, Gaztelun, Lezon, Oielekun, Otsandolan...* Baina zenbaitetan *-an* dago, espero genuen *-en-en* ordainez: *Erariñan (Erarin), Goizariñan (Goizariñ), Irunan (Irun), Oiarzunan (Oiarzun), Zaldiriñan (Zaldirin edo Zaldin da toponimoa).* Aintzat har bedi Berako testu administratiboan ere (Santazilia eta Taberna, 2019: 829) *Caresan* ‘Garesen’ daukagula.

Bestelako izen bereziren batekin *-n* hutsa dago: *Urteberrin* ‘Urteberrian, Urteberritan’.

## B) Bizidunak

**Erakusle arruntak:** *haiengan.*

**Erakusle indartuak:** *berorrengan.*

### 1.2.6. Adlatibo soila

Euskaraz ohikoa den moduan, bizigabeekiko hondarkia dugu pertsonak multzotzat hartzen direnean, norbanakotzat hartzen ez direnean: *Belderrainek esan dit, beste lagunetara baño len, Juan Migelek nola esan zion [...]*. Gutun berean *laguneta Beldarrañ yoan denean* dago, eta *laguneta* lerro bukaeran gelditzen den arren, irudi du ez dela *-ra* falta, alegia, *laguneta* idaztea egokietsi duela JRMk, egun Aranon bai baina Goizuetan egiten ez den moduan (Zubiri eta Perurena, 1998: 65 eta 113), egileak arruntean *-etara* ibiltzen badu ere (ikus beheitixeago).

Behin berez adlatiboa eskatzen ez duen aditzarekin ediren dugu: *izandu gera biak Sarastirengana*. Zernahi gisaz, *medikunganà izându nâiz* ‘medikura joan naiz’ aski ohikoa da Goizuetan egun ere.

**Galde hitza:** *zertara*

**Erakusle arruntak:** *honetara, hartara, haietara*.

**Adberbioak:** *honara, horrara, barrena* ‘barrura, barnera’. Behin *horra* ageri da (*berori honara heldu ezpada, horra bealduko dut konponzera*), arruntean *horrara* badago ere. Aurkezpen hitza denean, ordea, *horra* dugu beti: *Horra azkeneko Muxudoren kontuko burniak nola diran*. Ikus bedi hiztegian dioguna.<sup>10</sup>

#### A) Bizigabeak

##### Singularra

Bokal ondoan *-ra* dago: *ezkutura, ganbarara, itxera, juntara, kamañara, kandelara, olara, Konsejura*. Diptongo ondoan orobat: *hamaseira jaitsi dute*.

Kontsonante ondoan *-era* dugu: *alde samarrera, gañera, lorrera, muturrera*.

##### Plurala

Kontsonante ondoan eta *i* eta *u* bokalen ondoan *-etara* dago: *alde guzietara, eskuetara, lagunetara, pisuetara*. Baina hitzak akabailan *e* duenean, *e + e* > *e* egiten da: *bi aldetara* ‘bi aldeetara’, *meatzetara* ‘meatzeetara’.

<sup>10</sup> Mitxelenak (1960: 90) honela dio, Erretereriako hizkera aztertzen duen artikuluan: «En los adverbios demostrativos, con idea de movimiento, se emplean exclusivamente *onea, orrea* (y *ara*) mientras que en las expresiones fijadas “he aquí”, “he ahí” –cuyo valor de alativo se ha perdido para los hablantes actuales a pesar de la coincidencia formal de *ara*– se sigue diciendo *ona* (poco usado) y *orra*». Mikelestorenak (1751: 3) «*sortu ninzanic onarà*» dauka.

## Mugagabea

Bokal ondoan *-tara* dugu:

- ...*bealduko ditugu burnitara*.
- *40 orga guzitara*.
- *Beste edozeñ aldetara*.
- *Edozeñ modutara*.
- *Guztitara gelditu dut [...]*.
- *Hark honara baño bestetara nahiago luke, noski*.
- *Hiru ordutara dihoa*.

Toponimoekin bokal ondoan *-ra* erabiltzen da: *Añoara* ‘Ainhoara’, *Baionara*, *DoniJuanera* ‘Donibane Lohizunera’, *Donostiara*, *Elizaldera*, *Ereñazura* ‘Ereñotzura’, *Erreenteriara*, *Fagoagatzikira*, *Goiarara*, *Goizuetara*, *Hernanira*, *Ziburura*.

Artikulua duten izenek ere *-ra* hartzen dute, hura galdurik: *Iruñera* (dirudien moduan oinarrian *Iruñea* bada, eta ez *Iruñe*, eta *-a* artikulua bada, jakina), *Olaberrira*. Berezia da *Hondarrabia*-ren erabilera, berez artikulua den *-a* lekutzen ez delako: *Hondarrabiara* (ikus Salaberrri eta Zaldua, 2019: 207 eta hur.).

Kontsonante ondoan *-a* ohi dago: *Erariña*, *Goizariña*, *Oiarzuna*. Baina *-era* dugu batean: *San Juanera* ‘Pasai Donibanera’.<sup>11</sup>

## B) Bizidunak

**Izenordainak:** *neregana* ‘niregana’, *berorregana*, *hargana*.

## Singularra

Hondarkia *-agana* da: *alkateagana*, *anaieagana*.

Beste batean *dendariagan* dugu, itxuraz behar lukeen *dendariagana*-ren partez, aditza *bidali* delako: *Palazioko mutill hoiek esan didate Erreenteriako dendariagan libranza edo txartela bealzeko*. Dena dela, *itsasoan dihoa* ere badugu, egun ‘itsasora doa’ esanen genukeena adierazteko.

## Mugagabea

Bokal ondoan *-gana* eta *-rengana* dago: *Paiskogana*, *Sarastirengana*.

---

<sup>11</sup> Erreenterian ere, orain hamarkada batzuk (Mitzelena, 1960: 90), *-a* izaten zen akabaila leku izenekin: *Iruna*, *Oyartzuna*, *Jaizkibela*, nahiz gazteen artean *-ea* ibiltzeko joera garbia izan (*Irunea*), hizkuntzalari handiaren arabera. Ordea, Frailek eta Frailek, hogeita hamasei urte geroago, *Oiartzuna* (eta *Oiartzungo*, *Oiartzundik*) jaso zuten Oiartzunen. Honetaz orain P. Salaberrri (2020: 160, 164) ikus daiteke.

Kontsonante ondoan *-engana* daukagu: *Lamothengana* (originalean *Lamoten gana* dago; *Lamothe* da deitura, baina *Lamot* zen forma deklinatuen oinarria, ibiltzen zena; errepikatzen den izena da), *Salbadorrengana*.

### 1.2.7. Hurbiltze adlatiboa

**Izenordain, aditzondo eta beste.** *Hononz(eko)*, *honontz(ko)* ditugu: *Eraringoak eta honontzkoak*, *zergatik hononzeko mearik [...]*. Gaur egun Goizuetan erakusleekin baizik ez da ibiltzen kasu hau: *honóntz (e)tórri*, *honó(n)zko aldén*, *honóntzekòn...*

### 1.2.8. Muga adlatiboa

Adibideetan ikusten den moduan, denborazko adierazpenekin ere muga adlatiboa erabiltzen du, zenbaitetan bederik, JRMk.

**Galde hitza:** *zertaraño*.

**Erakusleak:** *horretaraño*.

**Singularra**

Bokal ondoan *-raño* dugu: hasta fin de julio de 99*raño*koan 14½ reales, *herriraño*.

Kontsonante ondoan *-eraño* dago: 410 *dukateraño*, 450 *dukateraño*. Behin *-araño* dugu: *larunbataraño*koak.

Diptongo ondoan *-eraño* daukagu beste batean: *hurrengo jaieraño*.

**Mugagabea**

Gutun batean, pare bat aldiz, mugagabea irudi duena dugu (*-taraño* duen forma), nahiz mugatu singularra behar lukeela ematen duen:

– *Lenbiziko aste erdian berorrek lineak gaztigatu artea egiñ genuen kua-droa 9 lineatik 12 lineataraño*koa, eta batzuek bealdu Erreteriarara, ta hamar edo hamaika kintal bezala olan badago 10 lineatik 12 lineatarañokoa.

Zenbakiekin *-raño* dago diptongo ondoan: *hamalauraño etsiak zaudela*.

Toponimian *-raño* dugu bokal ondoan: *Len egiten ari geran hoién buruan ta Ariztxulegiraño*ko honetan guzian aritu dira esamiñatzen.

### 1.2.9. Ablatiboa

**Galde hitza:** *nondik*

**Erakusleak:** *honetatik, hartatik, hoietatik, horietatik, haietatik.*

**Adberbioak:** *hemendik, hortik, handik, iñondik ez.*

#### A) Bizigabeak

Ohiko gisan ez ezik, partitibo gisa ere erabiltzen da (frantsesezko *du*-ren modura-edo; ikus Ariztimuño, 2014): *arroa sei pezetakotik, berorren babatik, hamar ezkutukotik, lengo haietatik, suertetik, pezetako hoietatik, zabal honetatik...*

#### Singularra

Bokal ondoan **-tik** dago: *beste aldetik, elizatik, errotatik, irabazitik, ixidutik, lengotik, maldatik, ola handitik, olatik, ondotik...*

Kontsonante ondoan **-etik** dugu behin, *zeharretik*, baina beste batean **-atik** dago (ikus atal honen hasmentan, 1.2. puntuan, artikuluaen «gehiegizko» erabileraz esan duguna): *Olatxoan, horko ogiaz gañera, kastatu da hemengo iriñatik.*

#### Plurala

Bokal eta kontsonante ondoan **-etarik** dago: *diruetatik, eman dutenetatik, gure basoetatik, txabaletatik, urretxikietatik...*

Oinarriak akaberan *-e* duenean  $e + e > e$  egiten da: *aldetatik* ‘aldeetatik’, *beko meatzetatik, bestetatik* (‘besteetatik’, ustez, baina ‘bestetatik’ ere izan daiteke), *bi aldetatik* ‘bi aldeetatik’.

Bokal palatal itxiaren ondoren **-tatik** ere izan daitekeela dirudi:

- *Gazteluko urak ateratzeko eman zituen 8 urretxikitatik lau hoiek pagatzeko konpondu ziran lagunekin.*
- *Hoietarako 150 urretxikitatik gelditu zen sobra 35 pezeta ta zenbait kuarto.*

Baita bukaeran *-o* dagoenean ere: *basotatik* ‘basoetatik’ (*basotatik kanporako bideak egiten*). Baina, gorago ikusi bezala, *gure basoetatik* ere badugu, gutunotan. Ikus bedi 1.5 puntuan leku kasuen hondarkien Goizuetako egungo erabileraz dioguna.

Ondoko honetako *plantxuelatik* mugatu plurala dela dirudi, aurreko *kuadroetan* eta ondoko *kabillatan* bezala:

- *Kuadroetan badira eskastuta juanak arroa batzuek plantxuelatik, eta kabillatan ere bai, 8 arroa bezala.*

Inoiz bizigabeen hondarkia dugu, bizidunenaren orde:

– *Ez omen dute harrapatzen asenturik haren paperetan, nondik zer hartu duen, dirua eman dutenetatik argitasuna beharko dutela.*

Aintzat har bedi hor multzotzat hartuak direla dirua eman duten horiek, ez norbanakotzat.

### Mugagabea

Bokal ondoan **-tatic** dago: *bitatik batean, hirutatik bat, zorzi urretxikitatik.*

Kontsonante ondoan **-etatic** daukagu: *beste anitzetatik; orañ ere Garatekoak eta Mattanttak hasi behar dutela diote, hamarretatik bat emanta, beste modurik ezpada.*

Izen bereziekin **-tik** dago: *Bullegitik, Donostiatik, Errenteriatik, Goizuetatik.* Nafarroako hiriburuen izena, testuko *Iruñetik* alegia, berezikarra da, egun izen propioa izanik ere *etxea* ereduaren arabera deklinatzen delako.

Sudurkari ondoan **-dik** dago: *Baurrindik, Erarindik, Irundik, Oiarzundik, Zaldirindik.*

Baina oinarriak akabailan dardarkaria edo albokoa badu **-tik** dago: *Alzibertik, Lizarditxabaltik.*

### B) Bizidunak

**Pertsona izenordainak:** *neregandik* ‘niregandik’, *guregandik.*

**Erakusle indartuak:** *berorregandik.*

### Singularra

**-agandik** dugu bokal ondoan: *herriagandik.* Hemen sartzen da, orobat, (etxe) izengoitia izanagatik ere mugaturik erabiltzen zen *Indianoa: Indianoagandik* errezibitu ditut ikatzak.

### Mugagabea

Bokalez bukatzen den *aita* dago, testuingurua ikusirik mugagabetzat har daitekeena: *Ezkondu-ta aitagandik partitu egin da.*

Kontsonantez bukatzen diren pertsona izenekin **-engandik** dugu: *Baltasarregandik, Luisengandik.*

Kasu honekin bukatzeko, eskutizetan zer ez den agertzen aipatu nahi dugu. Egun Goizuetan honelako bikoteak erabiltzen dira: *alórretik / alórretikan* ‘alorretik’; *alórretatik / alórretatikan / alórratitik / alórratitikan* ‘alorretatik’; *itxétik / itxétikan* ‘etxetik’; *itxétatik / itxétatikan* ‘etxeetatik’; *lúrretik /*

*lúrretikan* ‘lurretik’; *lúrretatik* / *lúrretatikan* / *lúrratetik* / *lúrratitikan* ‘lurretatik’; *mendítik* / *mendítikan* ‘menditik’; *mendítatik* / *mendítatikan* ‘mendietatik’ (Zubiri eta Perurena, 1998: 120), *ámagandik eldú zio etórri orí* / *ámagandikan eldú zio etórri orí* ‘amarengandik heldu zaio etorri hori’, *gurásongandik erédatu do déna, itxék eta lúrrak* / *gurásongandikan erédatu do déna, itxék eta lúrrak* ‘gurasoengandik jarauntsi, heredatu du dena, etxeak eta lurrak’.

JRMren eskutizetan, ordea, ez dago *-an* luzakina duen formarik. Eta beste horrenbeste esan daiteke partitiboaz eta motibatiboaz (ikus bi kasu hauek).<sup>12</sup> Guztiaz ere, badakigu ez dela gauza berria: konparaziorako, Otxoa de Arinek (1713) hauek dauzka: *argatican* ‘haatik’, *becoquitican* ‘bekokitik, kopetatik’ (16), *acabeerarican* ‘bukaerarik’ (20), *baicican* ‘baizik’ (20, 21, 26, 28, 30, 31, 34, 45, 47...), *baizican* (21), *eguinican* (26, 40, 42), *badarican ere* ‘alabaina’ (26, 32), *obligatcen ez zaitularican* ‘behartzen ez zaitudalarik’ (26), *orregatican* (26, 30, 31, 49), *argatican* ‘harengatik’ (29, 31), *icanagatican ere* (30), *cergatican* (33), *gaitcican andiena* (39), *gaitcican eta miseriarican batere ez, semerican, salvaciocican* (41), *onegatican* (47), *aetatican* (49), *suerte bitatican batec* (50), *direrican* (52)... Baina luzakinik ez dutenak oraino ardurakoagoak dira: *señaleagatic* (12), *asieraric, caburic, izanic* (20), *onegatic* (21), *izanic* (22), *baicic* (24), *aitagandic, amagandic, orregatic beragatic, delaric, aitaric* (26), *bacarric, partetic, aitaric* (28), *sustanciati, naturalezati bertati, sustanciati bertati, odol garbitic, Aita divinoagatic* (29), *onegandic* ‘honengandik’ (30)...

Goizuetako 1825eko udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996) *disponituric* (298, 299), *soñuric* (298), *gaiztotic, arboric, bacoitzagatic, licenciatic, enteraturic, ardoric, arrendacioric* (299), *emendic, eracusiric, Pueblotic, garvituric, erre-ric* (300) eta abar ditugu. 1848koan *disputaric* eta *gaur danic* (301), eta 1897koan ere *-ic* dugu gutiz gehienetan, baina horiekin batean *cergatican* bi aldiz ageri da (304, 311), eta *modutica(n)* bat ere badago (307).

Oiartzunen (Fraile eta Fraile, 1996: 76) *-tik* eta *-(r)ik* dira nagusi ablatiboan eta partitiboan, *-tikan* eta *-(r)ikan* ere, gutxiagotan, aditzen diren arren. Ikus partitiboaz eta motibatiboaz hitz egitean dioguna.

<sup>12</sup> Mitxelenak (1960: 91) honela dio Errenteriako erabileraren inguruan: «*El elemento -anen*. Las desinencias de partitivo, ablativo y causativo se presentan en tres formas: *-ik, -tik (-gandik), -gatic; -ikan, -tikan (-gandikan), -gatican; -ikanen, -tikanen (-gandikanen), -gaticanen*. Las tres variantes se oyen exclusivamente a las mismas personas, sin que sea posible discernir en su caso ningún matiz de diferenciación semántica». Gero, akabailaren etorkiaren gainean, honela dio: «Decir que *-an*, y con más razón *-anen*, es redundante no nos aclara su origen. Puede admitirse, sin embargo, que la última sea una especie de reducción de la primera. No faltan casos semejantes en el habla de R[entería]: así se oyen con bastante frecuencia *izakiki, eokiki, juakiki* junto a *izaki, eoki y juaki*» (*ibid.*). Goizuetan *-ik* bukaera duen hitz orok har dezake *-an* luzagarria: *delaric / delarikan, basiric / basirican, oraindik / oraindikan*...

### 1.2.10. Leku genitiboa

**Erakusleak:** *honetako, hartako, hoietako, horietako, haietako.*

**Bestelakoak:** *hemengo, horko, hango, barrengo* ‘barrenekoa, barnekoa’.

#### Singularra

Bokal ondoan **-ko** dago: *arragoakoak, basoko irabaziarekin, erdiko arku-ko garaiko aldetik, Gazteluko erreka ik[a]tza, ikaztegi-ateak, ola handi-ko kabiguña, olatxoko kabiguña.*

Kontsonante ondoan **-eko**: *arrago egurreko terzio parte, azkenekoa, ehun kintaleko 60 pezeta, hilleko paperetan, oñeko miñak, 7 egunekoa.* Eta inoiz **-ako**: *egurrako, ordanako.*

Erabilerari doakionez, inoizka genitiboarekin lehiari dabilela dirudi: *Arrago egurreko terzio parte...12 leras. / Arrago egurraren terzio parte...12 leras.* Testuinguru honetan berean, bestalde, *egurreko* eta *egurrako* ditugu batean: *Arrago egurreko terzio parte...12 leras. / Arrago egurrako terzio parte...12 leras.*

Behin hondarkia errepikaturik ageri da (*aurtengoko*), seguruenik ondoko hitzean ere (*gobiernoko*) azaltzen delako, nahasturik: «*Andresekin goizean egondu nintzan, ta esan zidan aurtengoko gobiernoko hoiek ia bestek agintzen diotena egiteko modukoak dirala*».

#### Plurala

**-etako** daukagu: *bi paperetako, enborretako hau, Madarimotxeko gazta-ñetako kandelan.*

Inoiz **-tako** hutsa dago:

- *Azkeneko erre diran bi arragoatako jornalak dira 97 pezetak y 30 cuartos.*
- *Bi olatakoa* ‘bi oletakoa’.
- *Eguerritako denboran gelditua.*
- *Iazko artotako azkeneko resta.*
- *Markos hartu dut eta esan dit hark ez duela meatako konturik egiñ.*
- *Tretxu hoiek egiten pasatu dira 41 días, erremienta ta maxuratakoak gañera.*

Bestalde, **-tako** eta **-etako** dugu lexikalizaturik dagoen *hamaikatako, hamaiketako* ‘hamaiketako’-n.

Goizuetako gaurko hizkeran izen arruntetan plurala **-tako** dugu bokalez akitzen diren hitzetan: *elízatako, labétako, mendítako, ittúrritako...*, eta kon-



tsonantez bukatzen direnetan, aldiz, *-etako / -atako* bikotea: *enbórratako / enbórretako, lapítzetako / lapítzatako, ixkiñetako / ixkiñatako, masálletako / masállatako...*

### Mugagabea

Toponimoekin *-ko* dugu bokal ondoan: *Askorastiko Fermiñek, Donostiako ogiak, Donostiakoaz gañera, Errenteriako olatxoak, Garatekoa, Gazteluko erreka, Isasolako Josepe igelea, Zamorako nagusiak...*

Dardarkari ondoan *-ko* dago: *Alziberko aberekin.*

Sudurkari atzean, aldiz, *-go* daukagu: *Eraringo bederetzi uztarriak, Goizaringo aizkora bat berria* (destinatiboa, gutun horretan [1798\_1801], *Goizaringotz eta Goizariñako da*), *Irungo karreadoreak, puska hau Juan Migel Aranguangoak pretenditzen duke, Karmengo frailenzat, Lasañgo buru honetatik, Oiarzungo berotzale guziak, Seingoak pretenditzen ditu, Señgoa ere han omen zen...*

Berez izen berezia izanik ere artikuluduna den *Hondarrabia* herri izenak ez du *-a* galtzen, leku genitiboaren hondarkia gehitzean: *Hondarrabiako babak*. Baina Oiarzungo *Isatsa* baserriaren izenarekin *Sebastian de Isasa Isatsakoa* eta *Sebastian de Isasa Isatsekoa* ditugu, biak.

### 1.2.11. Genitiboa

Batzuetan ekialdeko hizkeretako joera bera dugu, hots, osagarri zuzena genitiboan agertzen da inoiz, aditz izenarekin batean:

- *Eta orañ hurrengo espensaren pagatzean emanak izanen ditu 54 pezeta hoiek hurrengo kontualdirako.*
- *Maxaleni suertearen ebakitzeko denboran lau egun.*

Behin edo beste leku genitiboarekin lehian dabilela dirudi (ikus kasu horri eskainitako atalñoa).

**Erakusleak:** *honen, horren, haren, hoién, horien, haien.*

**Posesibo arruntak:** *nere* ‘nire’, *gure*. Mikelestorenak ere (1751) *nere* ibiltzen du, adibidez hemen: «*Asqui da zuc hitz bat erratea, nere anima sendatceco*» (29).

**Posesibo indartuak:** *berorren, bere* (ikus bedi aditz morfologiari eskainitako atalean *bere daritza, bere tokatzen zaio* itzulikez dioguna), *beren, geren* (*guk ere geren beharra egitera egiñ dugu*; ikus gorago).

**Bestelakoak:** *bataren, batzuen, elkarren.*

### Singularra

Eskuarki **-aren** dugu: *anaiearen karta, ardatzaren paguan, ardatzarena, arrago egurrarena, alkabalararen kontua, bakoitzarena, behiaren mandatua, borrararen gaia, difuntuaren ama, Fermin Joseph zenaren kasoz, gabaren gañera, igelearen partez, ingudearen sartu-aterea, itxearen sensoaren korrituak, juraduaren jorna, kaparena ta palankarena, komesarioaren itxera, Luis Zuloakoaren kontuan, maisuaren espensa, medikuaren erremediokin, mutikoaren yornalak, nagusiarena, ola handikoaren asentua, olaitxeakoaren harzekoa, olaren atzera-aurrera, paguaren erdia, probestuaren pezeta, puxkaren bat, sagardoaren kontua, suertearen dirua, Txotxa zenaren seme gaztiari, unaiaren deskita, ziudadearen garaiko aldean, zorraren alderako.*

Badirudi inoiz **-an** ere badagoela: *arotzan kontua* ‘arotzaren kontua’, *espensan dirua* ‘espentsaren dirua’, *mean alderako* ‘mearengatik’, *Migel de Aranburu ta bere anaiean meatik ekarri dugu, olatxoan irabaziak.*

### Plurala

Bokal, diptongo eta kontsonante ondoan **-en** dago: *abere bakarren egunak, ardoen diruak, arotzen liburuetan, basoen dirua, burnien asentua, burnien diruen gañera, burnien eta espensan kontua, burnien karretoan, burnien kontua, diru hartuen kontua, Eguerri jua denak arterañoeko lanena, espensenak, ganzen alderako, guzien kontua, hiruren kontura, ikatzen dirua, irundarren basoko hasi berri honek, Irungo meakarien ta itzaien kontua, itzaien jornamean, meakarien idiak, ogien diruaz, ola handikoen babatako, olatxakoen jornalak, paperen eske, peonen kontuetan, soldaduen rata.*

Hitzak akabailan *e duenean, e + e > e* egiten da:

- *Anatxurik eskatzen ditu burniak karraidoren kontura.*
- *Besten larrañ hondarretan bilduak dirudite. Besteak gaistotzat botetan bilduak ote diran nago.*<sup>13</sup>
- *Bestenak ez dakit.*<sup>14</sup>
- *Nekazalen kontua* ‘nekazarien kontua’.

Kasuren batean pluralean **-an** dago, bokal nahiz kontsonante ondoan:

- *Itxearen ta lurraren esamiñan pasatuko direla diote.* (Honen aurrean *itxea ta lurrak esamiñazi* dago).

<sup>13</sup> Mugagabea ere izan daiteke *besten* hori, hots, ‘besteren’. Gaur egun, Goizuetan *bés-ten* ‘bestearen’ nahiz ‘besteen’ izan daiteke, baina *bestén* ‘besteren’ baizik ez da.

<sup>14</sup> Hau ere mugagabea izan daiteke, hots, ‘besterenak’.

– *Olaberrira jaso dituen 39 kargan karretoa.*

Gutun batean bi aldaerak, *-en* eta *-an* batera ditugu:

– *Jose de Aranburu ta bere anaïen meatik rezibitu ditut [...]. Hau hiru anaïean mea ateratzeko kontua da.*

Pasarte horretan berean plurala dirudien *idïan* dugu:

– *Hau hiru anaïean mea ateratzeko kontua da. Migelek idïan lanak berak hartuko ditu.*

### Mugagabea

Bokal ondoan *-ren* dugu: *agoaren bat, baba lau pezetarena, besteren diruarrekin, besterena, biren artean, gobiernokoren batzuekin, bost orgaren portea, hamabi kargaren entresaka, hilabeteren bateko lana, hiru anega babaren txar-tela, 26 kargaren kontua, Joseperen hau, lau pezetaren gañerakoa, polboraren faltan* (singularra?), *zenbat kargaren entresaka, zorzi lantegiren basoak...*

Diptongo ondoan *-ren* daukagu: *hamal Lauren kontuak, Manuel de Esnauren kontua.*

Kontsonante ondoan *-en* dago: *errealen batzuek, hogei karga ikatzena, hurrengo egunen batean.*

Izen bereziekin *-ren* dugu bokal ondoan: *Anatxuriren perrazalleak, Begitoren semeak, Galzatzikiren semeak, Gregorïoren lagunak, Iskaluren semeari, Joxerena, Katxoren gaztari, Kosmeren itxean, Migel de Aranbururen lanak, Patxikuren denborakoak, Potottoren jornalak, Yokasegururen seme [...].*

Kasu batean, baina *r* bakarra dago, hondarkia *-en* dela dirudi, eta *e + e > e* egin dela:

– *Sebastian de Agerren amarekin.*

Originalean *Sebastian de Agueren* idatzia dago; berez *Sebastian de Aguerereren* zen hori, *Sebastian (de) Aguerre* baitugu beste batzuetan.

Kontsonante ondoan *-en* dago: *Makatzen partez, Migel de Irigoïenen 21 días kendu...31 pezetas y 17 cuartos.*

Egun, ordea, Goizuetan singularra, plurala eta mugagabea adierazteko bokalez bukatzen diren hitzekin *-n* dugu (*anáïan, itxén, basérrin, artón, burún, Mañólin, Makátzan...*) eta kontsonantez amaitzen direnekin, berriz, *-an* izen arruntetan (*lúrran, éurran, ezpálan, mantálan...*) eta *-en* kontsonantez bukatzen diren izen berezietan (cf. *Ánderren, Ixábelen, Luíxen, Mirénen...*). Singularra eta plurala, beharbada, tonu / intonazio / azentuagatik-edo bereiziko dira, baina ez da gai erraza, eta zenbait hitzunek ere ez lukete desberdintasunik atzemanen.

### 1.2.12. Soziatiboa

Inoiz denbora adierazten du, asteko egunekin: *Endara Artikuzan bero-rrekin egondu zen igandearekin, ta honara etorri zen astelenean.*

Kasu batean bestela *eta*-k juntatuko lituzkeen bi zatiak estekatzen ditu (letra lodia gurea da):

*Mealleari tokatzen zaio* .....19 pezetas y 9½ cuartos

*Maisuarena* .....12 pezetas y 22 cuartos

*Maisuarekin meallearena* .....31 pezetas y 31½ cuartos

Alegia, *mais(u)arena* eta *meallearena*-ren ordeztu *mais(u)arekin meallearena* dugu, itxuraz bederik. Hots, «X-rekin Y»-ren tankerako itzulia dugu; honeztaz Lakarra (2008) ikus daiteke.<sup>15</sup> Hau ez da harritzeko: Goizuetako 1753ko predikuan (Reguero, 2018 [2015]: 207) «*agoan beazumarequin vinagrea*» daukagu, ‘ahoa beazuma eta binagrea’, hots, ‘ahoa behazuna eta ozpina’.

**Galde hitza:** *zeñekin.*

**Pertsona izenordainak:** *nerekiko* ‘neure buruarekin’ (ondoan aditza du, ez izena), *gurekin.*

**Erakusle arruntak:** *honekin, horrekin, harekin, hoiekin, haiekin.*

**Erakusle indartuak:** *berorrekin, berarekin.*

**Bestelakoak:** *batzuekin, elkarrekin, inorekin* ‘norbaitekin’.

**Singularra**

*-arekin* dago: *aginduarekin, alabarekin, bealzearekin, behar zuenarekin, bere mutillarekin, diruarekin, gaitzarekin, gazdearekin, handiskoenaekin, herriarekin, irabaziarekin, itze gaiarekin, kartarekin, mearekin, memorialarekin, semearekin, tretxuarekin...*

**Plurala**

Bokal eta diptongo ondoan *-ekin* dugu: *gobiernokoekin, itzaiekin, lagunekin, lengoekin.*

<sup>15</sup> Ikuspegi tipologikoa nahi duenak Stassen-en 2000ko lana ikus dezake. Gurean, egituraren eremu banaketari doakionez, Larraintzar eta Lizasoren arteko elkarrekikoaren 1554ko izena hartu behar da aintzat, Ultzaman baikara: «...*en lo fazero [...] pusieron las estacas una en la parte llamada garayco larrearequin; goyco berroen vitartea...*», alegia, eta puntu eta koma goiti-beheiti, «*garaiako larrearekin goiko berroen bitartea*» da hor duguna, beste gisan erranik, ‘garaiako larrearen eta goiko berroen bitartea’ daukagu (NEAN, Atarrabiako pr. 1, M. Perez de Cenoz). Lurra landu ahal izateko basoa botatako eremua da *berroa*.

Hitzak bukaeran *-e* duenean,  $e + e > e$  egiten da: *aberekin, karraidorekin* ‘garraiatzaileekin’ (*karraidore* da hitza), *la[n]gillekin*.

Baina *-akin* ere bada, beti plurala den segurua ez dakigun arren. Hauetan segurua da: *Konsejura bilzen diranean guziakin egonen dela, meakari lagunakin batean, plantakin* ‘landareekin’.

Beste hauetan, ordea, ez, singularra ere izan daiteke eta: *abunzakin, arotzakin, aziendakin, bertakoakin, beste espensakin, besteakin batean, enbor eta zurzaiaikin, gurdi meharrakin*.

Hitzak akabailan *-o* duen batean, *-kin* hutsa dago: *Solo Otxokiko medikuaren erremediokin ongi omen dihoa*.

Kontsonante ondoan *-akin* dago: *olagizonakin* (‘olagizonekin’ ustez). Baina baita *-ekin* ere: *Zamorako Agustinek esan dit sagarrekin bealdu zuen Sisto hura bealzeko, besterena duela ta jabeak eskatzen diola*.

### Mugagabea

Bokal nahiz diptongo ondoan *-rekin* dago: *bi pagorekin, zenbat galbairakin* ‘zenbat galbaherekin’, *propiorekin badere bealzeko*,<sup>16</sup> *zorzi zulorekin*.

Kontsonante ondoan *-ekin* dago: *bost lagunekin*.

Izen bereziekin *-rekin* dugu bokal ondoan: *Domingorekin, Korgerekin, Patxikorekin*, eta *-ekin* kontsonante ondoan: *Baltasarrekin, Jose Antonekin, Markosekin, Sebastianekin*.

Goizuetako gaurko hizkeran singularra, plurala eta mugagabea adierazteko *-kin* erabiltzen da bokalez bukatzen diren hitzekin, nola arruntekin hala bereziekin (*ámakin, esnékin, herríkin, ardókin, eskúkin, Léitzakin, Marítxokin, Patzíkukin, txanpáñakin...*). Kontsonantez akitzen direnekin, aldiz, izen arruntetan *-akin* dugu (*lúrrakin, úrakin, ikátzakin...*) eta izen berezietan *-ekin* (*Andrésekin, Júlenekin, Márkosekin, Irúnekin, Usúrbillekin...*). Singularra eta plurala, beharbada, tonu / intonazio / azentuagatik-edo bereiziko dira, baina ez da gai erraza, eta zenbait hiztunek ere ez lukete desberdintasunik hautemanen.

### 1.2.13. Genitiboaren gain eraikitako destinatiboa

Batzuetan bestelako destinatiboa espero genuen tokian aurkitzen dugu:

<sup>16</sup> Hemen mugagabe itxura duen *propiorekin* daukagu, berez mugatua behar balu ere, iduriz segurik. Guztiarekin, badaiteke JRMk egun ‘gutun mezulariz’, ‘eskutitz mandatariz’ esanen genukeena adierazi nahi izatea.

- *Basoarenzat*...4.588 reales.
- *Bi kintal kuadro naste dituztela azkeneko orgarenzat*.
- *Faustori mea zarenzat*...2...00.
- *Ola handiko espensarenzat leneko hillean berorrek pagatu zituen*.
- *Olaren eskritura ta hamaiketakoarenzat dos orillos*.
- *Suertearen hamaiketakoarenzat 20 pezetas*.
- *Ta eskatzen dute aizkorak egiteko ta oliorenzat 20 pezeta*.

**Galde hitza:** *norenzat, zeñenzat*.

**Pertsona izenordainak:** *neretzat* ‘niretzat’, *guretzat*.

**Erakusle arruntak:** *honenzat, horrenzat, harenzat, hoienzat*.

**Erakusle indartuak:** *berorrenzat, beretzat*.

### Singularra

Beti *-arenzat* dago: *aprendizarenzat, Artikuzakoarenzat, bakoitzarenzat, burniarenzat, espensarenzat, erruda haspategikoarenzat, frailearenzat, itzearenzat, jabearenzat, koñadoarenzat, maisuarenzat, mandoarenzat, olarenzat, perrazallearenzat, zugarotzarenzat*. Uste izatekoa da *-a + -a > -a-* gauzatu dela *olarenzat*-en erakoetan.

### Plurala

Bokal, diptongo nahiz kontsonante ondoan *-enzat* ohi dago: *idienzat, itzaienzat, kuadroenzat, lapurrenzat, mandoenzat, maxterrenzat, meakarienzat, olajaunenzat, plantenzat, soldaduenzat*.

Oinarriak akabailan *-e* duenean *e + e > e* egiten da: *bi berotzallengzat, bi urzallengzat, frailenzat, itzenzat, kanalegillenzat, labenzat* ‘laurentzat’, *mea zarenzat*...

Reguerok (2018 [2015]: 221) Goizuetako 1753ko predikuan destinatibotan beti *-(t)zat* azaltzen dela dio: *Mariarenzat, neretzat*, ez dagoela beste hizkera batzuetako *-(r)etaco* edo *-(r)endaco*. Gutunetan egoera, ikusi den bezala, hori bera da, eta egun beti *-tzat* daukagu.

### Mugagabea

Bokal ondoan *-renzat* dago: *bi orgarenzat, hamar orgarenzat, oliorenzat* ‘oliorako’.

Izen bereziekin hau dugu:

Bokal ondoan *-renzat*: *Bizenterenzat, Galardirenzat, Honbretxorenzat, Juakin de Telletxearenzat, Sarastirenzat*...

Kontsonante ondoan *-enzat*: *Musketenzat, Tomasenzat, Xantusenzat*.

Gaur egun atzizkia *-(e)ntzat* dugu Goizuetan, afrikatu garbiarekin.

Erabilerari gagozkiola, genitiboaren gainean eraikita dagoenez gero, han emandako azalpenek balio dute honako ere (ikus genitiboa).

#### 1.2.14. Adlatiboaren gain eraikitako destinatiboa

**Erakusleak:** *honetarako, hartarako, hoietarako, haietarako.*

**Bestelakoak:** *honarako, horrarako (horrarako mea).*

##### Singularra

Bokal ondoan **-rako** dago: *arragoarako, aurrerako, berorren faborerako, biderako, elizarako, ezkuturako, itxerako, karretorako, lorrerako, negurako, olarako, olatxorako, paguaren alderako, sagardorako, tellaturako.*

##### Plurala

Bokal ondoan **-etarako** dago: *gastuetarako*, baina baita **-tarako** ere: *bi olatarako* ‘bi oletarako’, *guzitarako* ‘guzietarako’, *Oiarzungo olatarako* ‘Oiarzungo oletarako’.

Kontsonante ondoan **-etarako** dugu: *lanetarako.*

##### Mugagabea

Leku izenen batean ediren dugu (ikus 1.2.15 puntua): *Añarberako, Elamarako.*

#### 1.2.15. Inesiboaren gain eraikitako destinatiboa

Inesibo honen kariatara, ez dakigu **-ra-** duen forma batetik atera den ala ez. Adlatibodun formatik atera balitz, kasu honen gain moldatu destinatibotzat hartu behar genuke. Nolanahi ere, egia da **-ra-**dun forma eta **-ra-**rik ez duena elkarren ondoan bizi direla JRMren gutunetan, eta horregatik sartu dugu hirugarren mota hau.

Honekin loturik, denborazko perpausak egiteko **-eneko** edireten dugu, ez **-enerako**, joskerari eskaini atalean ikus daitekeen bezala: *bi agoa egin diraneko tobera erre da.*

**Galde hitza:** *noizko.*

**Erakusleak:** *honetako, hartako.*

**Bestelakoak:** *egun biko, geroko, orduko.*

## Singularra

Bokal ondoan **-ko** dago, eta kontsonante ondoan **-eko**: *arrago egurketa-ko* ‘arrago egurketarako’, *arratseko* ‘arratserako’, *bigar arratseko*, *igandeko* ‘iganderako’, *illunabarreko* ‘ilunabarrerako’, *larunbateko* ‘larunbaterako’, *lau egunen buruko*, *olaitxeko* ‘olaetxerako’, *San Martin eguneko* ‘San Martin egunerako’, *urte bakoitzeko* ‘urte bakoitzerako’.

## Plurala

Bokal ondoan **-tako** dugu, eta kontsonante ondoan **-etako**: *bederatzitako* ‘bederatzietarako’, *Eguerritako* ‘Eguberrietarako’, *sanantonetako*. Baina **-etako** ere badago bokal ondoan, behin: *Pazkoetako* ‘Pazkoetarako’.

Diptongo ondoan **-etako** dugu: *jaietako* ‘jaietarako’.

## Mugagabea

**-tako** dago:

- *Artotako dirua errotariari eman beharko diogu.*
- *Artotako zerbait behar duela.*
- *Bigar goizean gosariteko (sic) diña baba da hemen.*
- *2 de setienbrean hartu nuen hogei pezetako bat ogitako.*
- *Erretazotako honenzat ez da inor ageri.*
- *Espensa honetarako berorrek emantako dirutik gelditua zen babatako [...].*
- *Espensatako len adiña eskatzen dute.*
- *...ez dutela urtetako parat[u]ko pakea egiñ edo atzera-aurrera ekusi artea.*
- *Gonbitetako...5 pezetas.*
- *Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut.*
- *Lakadi bat iriñ haspotako...01 pezeta y 02.*
- *Ola handikoen babatako 16 pezeta y 19 cuartos.*
- *Zaldaletako...20 pezetas.*

Leku izenekin *Goizaringotz* dugu, *Goizariñako*-rekin batean:

- *Aza landareak Goizaringotz...02...00.*
- *Aza landareak Goizaringotz...2...04.*
- *Aza landareak Goizariñako...2...25½.*

Baita *Gazteluko* ‘Gaztelurako’ eta *Irungo* ‘Irunerako’ ere:

- *Pretendienteak izanen dira noski Gazteluko; berorrek esaten zuen.*
- *Irungo guk egin genituen bi puskak ere salgai dira.*

Nolanahi dela, leku genitiboa ere izan daiteke *Irungo* hori, ordena –beste frankotan bezala– aldatua dagoela pentsatzen bada, hots, «*guk egin genituen Irungo bi puskak ere salgai dira*»-ren partez dagoela kontu egiten bada.



Ikus bedi 1802.12.05eko gutunean *Kasabillako*-z dioguna, oin ohar batean.

JRMren garaian adlatiboaren eta inesiboaren gainean eraikitako destina-tiboko *-ra*-dun formak eta gabekoak lehian baziren, gaur egun ez dago lehia handirik Goizuetan, herria *-ra*-rik gabekoak erabiltzera lerratu baita: *íandeko* ‘iganderako’, *illúnoarrekò* ‘ilunabarrerako’, *bedétzitako* ‘bederatzietarako’, *Hernániko* ‘Hernanirako’. Denborazko esaldietan (*e*)*tórtzen zánekò* ‘etortzen zarenerako’, *arrópa leortzen dénekò* ‘arropa lehortzen denerako’ eta beste ditugu. Guztiarekin ere, *itxéko* ‘etxerako’-rekin batera adiera bereko *itxé:ko* ere badugu, eta honen oinarrian *itxerako* dagoela iduri du.

### 1.2.16. Instrumentala

Denbora adierazteko ere ibiltzen da: *egunaz konponduko zutela, hiru egunez, lau egunaz, San Estebanez, San Matias ez, Silbestrez...*

**Erakusleak:** *honz* eta *honetaz*, *hoiez* eta *hoietaz*, *horiez*, *haiez*.

#### Singularra

Bokal, diptongo eta kontsonante ondoan *-az* dugu: *aitzurraz* ‘aitzurrarekin’, *arrazoiaz*, *berenduaz*, *burniaz*, *diruaz*, *duendeaz*, *egunaz*, *itzaiaz* (*itzaiak* esan nahi bide zuen idazleak), *kuartoaz*, *lanaz*, *lañaz* ‘laiarekin’, *mandatuaz*, *meaz*, *olatxeakoaz kanpora*, *osoaz*, *pisuaz*, *puxkaz*, *yornalaz*, *zorraz...*

Partizipioarekin ere *-az* dago: *bajatuaz*, *bealduaz*, *egiñaz*, *emanaz*, *eskarpatuaz* ‘mehatuaz’, ‘higatuaz’, *neurriaz* ‘neurtuaz’ (ustez), *pagatuaz*, *salduaz*. Baina badira *-z* hutsa dutenak ere (*ezin* dute aitzinean; ikus aditz morfologia-ri eskainitako atala): *ariz*, *berotuz*, *ekarriz*.

Kontsonante ondoan ere *-az* dugu, beste hizkera batzuetan *-ez* legokeen tokian: *Ta beste gau batez bergamazoia erori ta goizean, egunaz egin zen*.

#### Mugagabea

Bokal ondoan *-z* dago: *bi anega babaz*, *borontatez*, *burlaz*, *daukan medioz*, *dolorez*, *deskargako egiteko hau ere basoz edo errentan deskitatze-ko egin dezake*, *Fermin Joseph zenaren kasoz*, *fundamentuz*, *hartu nahi gabez*, *igelearen partez*, *itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz*, *kartaz*, *lau kuartoz garestiako*, *nekez*.

Kontsonante ondoan *-ez* daukagu: *beste gau batez*, *hiru egunez*, *miñez*.

Baina *-az* ere bada adberbioetan eta bestelakoetan: *egunaz* ‘egunez’, *lau egunaz* ‘lau egunez, lau egunetan’, *gutxienaz* ‘gutxienez’ (erka bedi Leitzako

XVIII. mendeko predikuko adiera bereko *guchiena*-rekin [Olano, 2002: 176], edo Otxoa de Arinen [1713: 5, 54] *guchienaz*-ekin), *idorraz* ‘lehorrez’, *hitzaz* ‘hitzez’, *lasterrenaz* ‘lasterrenez’, *ordañaz* ‘ordainez’, ‘beste baten ordez’. Aldera bedi aitzineko hau *berak diotenaz* ‘berek diotenez’ eta *niri daritzadana* ‘niri iruditzen zaidanez’ perpausekin (ikus joskerari eskaini atala).

Ikusten den moduan, beti -z dugu gutunetan, ez dago nafarreraren ezazgarri eksklusibotzat hartzen den (Camino, 2009: 348) -s apikala daukan adibiderik. 1753ko predikuan ere hala da, beti -z dugu (Reguero, 2018 [2015]: 221), eta XIX. mendeko udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996) orobat.

### 1.2.17. Motibatiboa

**Erakusleak:** *honengatik*.

**Bestelakoak:** *gutxigatik*, *hargatik* ‘horregatik’.

**Singularra**

Aditzarekin ohi dugu gehienetan (*-agatik*): *etorriagatik*, *eramateagatik*, *izateagatik*, baina *eman nabigatik ere*, *olagatik* ere badago. Mikelestorenak (1751: 4) *amorea gatic* dauka.

Bestela, *genitiboa + kasoz* ere bada, motibatibotik hurbil dagoen adieraz: «...*eta uste omen zuten jendeak olagatik zabillega. Eta esan dit Salbadorrek egia dela hartu dutela olaren kasoz, baño ez gobiernokoak*».

**Plurala**

Hemen *-akgatik* dugu: *Kontu hau bealdu nuen len horrara urzalleakgatik*. Originalean bereiz idatzirik daude bi osagaiak (*urzalleaq gatiq*). Erka bedi Mikelestorena lesakarrak (1751) darabiltzan *guciac gatic* (3, 55, 86), *nequedoloreac gatic* (17), *nere culpac gatic* (18), *Santuac gatic* (19-20), *Cerucoac gatic* (42), *gauzac gatic* (44), *eguiac gatic* (46), *amoreac gatic* (95)... formekin.

Baina *-engatik* ere badago behin gure gutunetan: *Lasterrenaz ere bigar arratseko erremienta paratuko dugu, ta bi egunengatik Sastrea larunbat artea geldituko dugu*.

Gutunotan, ordea, ez da *-an* luzakina duen aldaerarik ageri, hots, ez dago egungo hauen pareko bikoiztasunik: *orrétik / orrétikan* ‘horregatik’, *hiré(g)atik / hiré(g)atikan* ‘hiregatik’, *honé(n)gatic / honé(n)gatican* ‘honen-gatik’...

Ikus ablatiboaz mintzatzean dioguna.

## 1.2.18. Prolatiboa

Batzuetan Ø dugu, prolatiboa ager zitekeen lekuan:

- *Ogi egilleai sagardoa salze-sari deus bealdu nahi badiote ‘ogi egillei sagardoa saltze-saritzat deus bidali nahi badie (berorrek)’*

Prolatibo funtzioa duten hondarkirik gabeko izen hutsak nahiko ohikoak dira munduko mintzairetan. Hala ere, horrelakoak dituzten hizkuntzetan prolatibo hutsek nahiko izaera mugatua ukan ohi dute: bakarrik lanbideak edota gizakien arteko erlazio egonkorrak adierazteko ibiltzen dira (Creissels 2014: 619-620). Gutunotan lehen erabileraren adibideak ditugu: *mandazai, mandatari, berotzalle, igele, maisu*. Hona testigantzak:

- *Franzisko Antonio de Isasa, hor mandazai egondua, ezkonzen da Manuel Fagotxikikoaren alabarekin.*
- *Franzisko igele ari dela, egin da tretxua [...].*
- *Igandeko etorzekoa zela honara esan zuen mandatari ebilli den ikazkilleak.*
- *Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten hura ari da berotzalle, len ere hemen trabajatua baita.*
- *Olatxoan lesakar bat ari da maisu, Matiasen semeak bealdua.*

Gutunetan *-tzat* atzizkia ere badugu:

- *Anatxurik guri entregatutzen diguna herriak entregatutzat gelditzen giñala.*
- *Nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite. Besteak gaisotzat botetan bilduak ote diran nago.*

Batzuetan inesiboaren gain moldatu destinatiboa eta *-tako*-dun prolatiboa elkarrekin nahas daitezke, alegia, ez dago osoki garbi sintagma non koka-tu behar den (ikus destinatiboa):

- *Zertan gelditzen den beste puxka txiki bat ere bada salzekoa. Txarra da, baño lau yorradako lekuan da, dotaziotako hartuta.*

Reguerok (2018 [2015]: 221) Goizuetako 1753ko predikuan prolatiboak beti *-tzat* daukala dio (*aliviotzat, amatzat, discipulotzat, erregetzat*), eta sermoi horretan ez dagoela Nafarroan ohikoa den *-taco*. Baina erresuma zaharrean *-tzat* ere ohikoa izan da, *-tako* ez ezik. Gai honetan, segur aski, geografia koordinatuekin batean denbora koordinatuak eduki behar genituzke kontuan. Adibidez, XVI. jendameneko ezkontza agintzetan (Satrustegi, 1987: 22, 23) hauek ditugu: «*Nic Martin y Joanna arçenaut neure alaroçaçat eta hic arnaçan yre esposoçat*» (Uterga, 1547), «*...eta arcen çajut neure emazteçat*» (Olatzagutia, 1548).

Berriainek ondoko gizaldian *-(t)zat* darabil bere *Tratado*-an: «...*eguinçuten arças burla, yduquituric heroçat*» (11), «...*ezpaitute ofrecicen sacrificioac, vere laungoicozat dauzquitenedey*» (17). Elkanoko Lizarragak XVIII-XIX. mendeetan *-tako* dauka hauetan: «*Celebratzendéna alegrequí Elizan, ta Patronatáco artudéna Españan*» (JMESB, 17), «...*arcengaitu caridádes beregána bére humetáco*» (DCC, 34), «*nic daucat eguía cierto firme segurotáco*» (DCC, 117), eta *-tzat* beste hauetan: «...*ta utsimbarimbázue, barcazezóla ignoráncia, ta arzezála ontzat bere inténciao*» (JMESB, 143), «...*ezperén, pensatucodút zaudéla aficionaturíc bérece guizonbáti, eta ain gaitzat artucodút, ezi arrí ta zurí quenducodiziet vicia*» (JMESB, 305).

Mikelestorenak (1751) *-tzat* dauka: «*señaleztat dauden Gurutce bacoitzean*» (61), «*onzat artu cenuen*» (64), «*ate, ta videtzat artu zaytuen [...]*» (90). Batzuetan  $\emptyset$  ere badu: «*bitarteco emanic*» (42, 85), «*bitarteco arturic*» (87).

Goizuetako egungo egoerara itzuliz, *-tako* da arruntean ibiltzen den atzizkia, zenbait aldiz destinatibo kutsua har badakioke ere, hots, ‘zertarakoa’ adierazten duela suma badaiteke ere, eta *-tzat* gutxitan baizik ez da aditzen, baina oraino bizirik dago (ikus Zubiri eta Perurena, 1998: 222).

Caminok (2009: 350) prolatiboa *-tako* izatea nafarreraren ezaugarri bateratzaile ez-esklusibotzat ematen du, eta, egungo erabilerari so egiten badiogu, iduri du Goizuetako hizkera nafarreraren barnean sartzen dela *-ordea*, *-tzat* ere badago, bakanetan aditzen den *arren-*, baina gibelat begiratzen badugu gauzak ez daude, gure iritzian, horren garbi, *-tzat* baita nagusi. Halarik ere, esan bezala, Nafarroako testu anitzetan ere *-tzat* dago, edo zehazkiago esan, *-tzat* ere badago, noiz nola.

## 2. ADITZ MORFOLOGIA

Atal honetan Jose Ramonen gutunetan edireten ditugun aditzak ukitzen ditugu. Lehenik aditz horien ezaugarriak aipatzen dira, honengatik edo beste-arengatik nabarmentzeko modukoak iruditu zaizkigunak, eta, ondoren, irakurle interesatuaren bilaketa lana errazteagatik, adizkiak tauletan sarturik ematen ditugu, aurrena laguntzaileak eta jarraian trinkoak, sailka emanik. Terminologiak kestone, «klasikoak» eta erabilerrazak diren Nor, Nor-nori, Nor-nork, Nor-nori-nork etiketak darabiltzagu, betiere argitasun zurrean, irakurleak bilatzen duena aisekiago aurki dezan.

### A. EZAUGARRIAK

#### 1. AN + ez + AL hurrenkera

Batzuetan, ezezko perpaus nagusietan ere, ordena AN + ez + AL da.<sup>1</sup> Gai honetaz hitz hurrenkerari eskainitako atalean mintzo gara luze eta zabal, baina, dena dela, hona eskutizetako testigantza batzuk:

- *Bestela iñor hemendik aterako ez dugu guk Otsoanekoaren hau.*
- *Kapa ekarzeko utzi zituen 40 pezeta ta ekarri ez zitzaion.*
- *Kontua ematean batere akordatu ez ninzan.*
- *Maisukabi bat sartuko ez du beñere.*
- *Martin orañik hasi ez da; datorren astean hasiko al da!*
- *Niri bestek oranik eskatu ez dit.*
- *Pelof[a]gan tella erre da ta nahi duen guziak harrapatuko ez du noski.*
- *Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaur-gero nahiko dute noski.*
- *Ta arratsaldean ni kalera yoan ez ninzan.*
- *Ta hoietaz nik egun konturik asentatu ez dut, yaten eman genioten-ta.*
- *Urzalle hau sendatzen ez da.*

---

<sup>1</sup> Ikus bedi, adibidez, Kardaberatz hernaniarrak garaitsu honetan (1816 [1762]) idatzita-ko lanean dituen tankera honetako lekukotasunak. Gai honen inguruan I. Salaberri (2018, 2021) irakaslearen artikuluak irakur daitezke.

Ondoko hau aski bitxia da, hutsen baten ondorio ziurrenik:

*Ikatzak erre ta deus egiñ ez izanen da hemen.*

## 2. Komunztadura

Objektu zuzena plurala delarik aditza batzuetan ez da harekin komunztatzen:

- *Baño itzaiak ebilliko badira, lengo kontuak garbitu nahi lukete.*
- *Hortik heldu diran burni hoiek laster eraman behar duten gaztiga beza, laster ez eramatekotz ganbarara igo ditzakun.*
- *Pagoak kandelatu behar zutenean.*
- *Ta atzo esan diotet gaur eraman behar dutela burniak.*
- *Ta esan diotet tellatu hoiek ez erorzekotz konpondu behar dutela.*

Komunztadura falta hau bizirik dago oraindik, gure egunotan, Oiartzunen, hiztun zaharren eta gazteen hizkeran (Fraile eta Fraile, 1996: 107), baina ez Goizuetan, eta JRMren eskutizetan gehintsuenetan komunztadura bada.

## 3. Aditza eta datiboa

Lau kasutan ez dago komunztadurarik aditzaren eta ageri ere den datiboaren artean, hau da, laguntzaileak ez du datiboaren morfema erakusten, egun ekialdeko hizkeretan egiten den moduan:

- *Guk hari entregatua dugu.*
- *Hau Makatzi rebajatu beharra da.*
- *Olagizon hoiien kontua hau bealdu nuen nagusiari hoiien asentutan para zitezen.*
- *Urak ateratzeko berorrek eman zituen 8 urretxikietatik hoiei kargatu beharrak dira 4 urretxiki.*

Ordea, gehienetan komunztadura bada.

## 4. Aditz-izena eta osagarri zuzena genitiboan

Gutunotan behin edo beste ageri da egun ekialderago edireten dugun hau:

- *Espensan pagatzean, agostoan, ½ fanega haba 9 pezetas kontatua harra-patu dut, 4½ pezetas paratu beharrean.*
- *Eta orañ hurrengo espensaren pagatzean emanak izanen ditu 54 pezeta hoiek hurrengo kontualdirako.*
- *Maxaleni suertearen ebakitzeko denboran lau egun...6 pezetas.*

Oroitu beharra dago Lesaka eta Goizuetaren arteko 1549ko auzi batean (Santazilia, 2015: 112-113) *suc ezindiro erran au ola baten es galceagatic?* ageri dela, hots, ‘zuk ez zenuke erranen hau ola baten ez galtzeagatik?’. Lesakan Goizuetako bizilaguna zen *Joan de Ripa* delakoak esanak dira hitz horiek, eta epaiketan «Santxo de Iberoren parafrasiz ageri» da pasarte, Santaziliak dioenez (*ibid.*, 2013).<sup>2</sup>

Ez da hau lekua gai honetan sakontzeko (ikus P. Salaberri, 2000a: 914), baina diogun Ukargo 1865eko dotrinan ere (Satrustegi, 2002) azaltzen dela: «...*jauchi ce limboetara, han zauden Anime Sanduen atracera*», «...*nondic etorrico baita azquen juicioco egunean onen eta gaistoen juzgacera*» (152. or.). Nafarroako zenbait ibarretan, Ultzaman («*Au ai delaik bere liburuen paratzin*» baina «*belarra bakitzéra*», Izagirre, 1966: 411, 461), Baztanen (Salaburu eta Lakar, 2005: 83-84), Aezkoan (Camino, 1997: 502-504) eta Luzaiden (P. Salaberri, 2000b: 249) demagun, oraindik ere entzun daiteke, mugaz alde honetako herrietan galbidean dagoela irudi duen arren. Paskual Rekalde amaiurta euskaltzainak dioskunez, Baztango gazte jendeek gero eta gutiago ibiltzen dute, adinekoen artean ardurakoa izanik ere. Hona Rekaldek amari aditutako adibidea: *Zartain au ya eztao arroltzeain iteko, zolan txikitzen da* ‘zartagin hau ja ez dago arrautzaren egiteko, zolan atxikitzen, itsasten da’.

## 5. Aditzoina eta partizipioa

Indikatibotik kanpo aditzoina ibiltzen du JRMk batzuetan, partizipioa besteetan:

### a) Aditzoina

Subjuntiboan: *adi dezan / ekar dezatela / ekus dezatela / entrega dezala / eska dezala / eskribi dezala / garbi ditzagun / har dekadala / har dezagula /*

<sup>2</sup> Autore honek (*ibid.*, 113) *Joan de Ripa* eta *Santxo de Ibero*, biak Goizuetako bizilagunak, deituren herrietakoak –Eripakoa bata, Iberokoa bestea– izatea ezin dela baztertu dio, eta badaiteke hola izatea. Zernahi dela, eta bigarrenaren kariatara, oroitu beharra dago Ibero Goizuetako mugako Leitzako burdinola dela aspaldidanik. Adibidez, 1513an *la ferreteria de Ybero* ageri da Leitzako burdinolen artean (NEAN, Comptos, erregistroak, 1. saila, 541-2 zk.).

*har dezatela / har ditzadala / har ditzala / har genezela (sic) / konpon dedilla / oroi dadiela / presenta dezala / saia ditezen / segi dezaten / tira dezala.*

Aginteran: *asenta bitza / beal beza / beal bitza / gaztiga beza / hor konpon zaitezte / osa bekitza / paga beza.*

Ahaleran: *beal nezakean kontua / estu ditekeala / ez jakin kontrariorik ager zitekean / eziñ pasa daitekeala hura / paga ditezke.*

## b) Partizipioa

Subjuntiboan: *akabatu ditzagun / ekusi dezala.*

Aginteran: *eskribitu bizio.*

Ahaleran: *bealdu diteke / billatu edo aldatu ditezkean artea / ekarri ditzake / irauli diteke / kendu dakiko / pagarazi dakiko / paratu ez daitekean.*

Pare bat aldiz *al* ‘ahal’ eta *ba*-rekin batean dugu: *bildu al badezagu* ‘biltzen ahal badugu’, *libratu al baditzagu* ‘libra baditzakegu’, ‘libratzen ahal baditugu’.

Gaur egun, indikatiboan partizipioa eta aginteran aditzoina erabiltzea ohiko gauza da Goizuetako euskaran. Zenbaitetan, gainera, bereizketa egitea ezinbestekoa da, aditza indikatiboan edo aginteran den jakiteko (Zubiri eta Perurena, 1998: 124-126). Adibidez:

Indikatiboa: *aundittu zò* ‘handitu duzu’, *estútu zò* ‘estutu duzu’, *geldittu zò* ‘gelditu duzu’, *kantátu zò*, *pasátu zò*, *pátu zò* ‘paratu duzu’, *sendátu zò*...

Agintera: *aundi zó* ‘handi ezazu’, *estù zó* ‘estu ezazu’, *geldi zó* ‘geldi ezazu’, *kantà zó* ‘kanta ezazu’, *pà zó* ‘para ezazu’, *pasà zó*, *sendà zó*...

Antzeko jokaera erakusten dute bukaeran -s duten hainbat aditzoinen ere:

Indikatiboa: *(e)kúsi zò* ‘ikusi duzu’, *erósi zò* ‘erosi duzu’, *ikási zò* ‘ikasi duzu’...

Agintera: *(e)kùs zó* ikus ezazu’, *eròs zó* ‘eros ezazu’, *ikàs zó* ‘ikas ezazu’...

Antzeman dakiokkeen moduan, indikatiboan eta aginteran azentuazio ezberdina paratu dugu nolabait bereizteko. Guztiaz ere, ez dakigu ziur azentua den, tonua edo bien uztardura, eta, bestalde, segur aski hiztun guztiek ez dituzte bi moduak bereizten, askotan testuingurua izaten baita bata edo bestea aukeratzen laguntzen duena.

Aldiz, partizipioak akabailan -*tu* eta aditzoinak -*n*, -*l* (-*ll*) edo -*r* dutenean, aginterako formetan, -*n* eta *z*- elkarren ondoan gelditzen direnez gero, bigarrena afrikatu giten da:

Indikatiboa: *aríndu zò* ‘arindu duzu’, *artú zò* ‘hartu duzu’, *(e)kárri zò* ‘ekarri duzu’, *gizéndu zò*, *ibílli zò*, *itzáli zò*, *lértu zò*, *onártu zò*, *saldú zò*, *yárrri zò*, *zabáldu zò*, *zuzéndu zò*...



Agintera: *arìn tzó* ‘arin ezazu’, *àr tzó* ‘har ezazu’, *(e)kàr tzó* ((*e*)*kà* *tzó* ere bai) ‘ekar ezazu’, *gizèn tzó*, *ibill tzó*, *itzàl tzó*, *lèr tzó*, *onàr tzó*, *sàl tzó*, *yàr tzó*, *zabàl tzó*, *zuzèn tzó*...

Bestelako jokaera erakusten dute, nola partizipioan hala aditzoiean, bukaeran *-n* duten aditzek: indikatiboan laguntzailearen igurzkaria afrikatzen da, baina aginteran bokalaz bukatuko balitz bezala jokutzen du aditzak, eta ez du laguntzailean inolako eragin fonetikorik:

Indikatiboa: *emán tzò* ‘eman duzu’, *eráman tzò* ‘eraman duzu’, *erán tzò* ‘edan duzu’, *(e)sán tzò* ‘esan duzu’, *ín tzò* ‘egin duzu’, *yán tzò* ‘jan duzu’...

Agintera: *emà zó* ‘eman ezazu’, *eràma zó* ‘eraman ezazu’, *erà zó* ‘edan ezazu’, *(e)sà zó* ‘esan ezazu’, *ì zó* ‘egin ezazu’, *yà zó* ‘jan ezazu’...

Bokalez bukatzen diren aditzoin eta partizipioak ez dira formari baka-rrari begiratuz bereizten, berdin jokutzen baitira indikatiboan eta aginteran:

Indikatiboa: *beté zò* ‘bete duzu’, *erré zò* ‘erre duzu’, *iò zò* ‘igo duzu’, *yò zò* ‘jo duzu’...

Agintera: *betè zó* ‘bete ezazu’, *errè zó* ‘erre ezazu’, *iò zó* ‘igo ezazu’, *yò zó* ‘jo ezazu’...

Orain artekoa laburtuz, esan daiteke, oro har, indikatiboa eta agintera ezberdintzeko partizipioa eta aditzoina bereizi egin behar direla. *Cfr.*, aipatu-takoez landara, ondoko beste hauek: *emá zizó* ‘eman iezaiozu’, *pasá zizó* ‘pasa iezaiozu’, *sár dí* ‘sar hadi’, *sár zittéz* ‘sar zaitez’, *sár zittezté* ‘sar zaitezte’...

Dirudienez, jokaera honek erraztu izanen du, bultzatu, subjuntiboan eta ahaleran ere aditzoina erabiltzea. Subjuntiboan arruntak dira, adibidez, *(e)tór dilla / dilléla* ‘etor dadila’, *(e)kús zála* ‘ikus dezala’, *pazila* ‘para diezaiola’ formak, eta ahaleran beste honelakoak: *sár ditteké* ‘sar daiteke’, *(e)kús nezaké*, *pasá lezaké*...

Halarik ere, horrek ez du esan nahi gaur egun partizipioa aipatutako moduetan erabiltzen ez denik, eta, informazio zehatz gehiago beharko bage-  
nu ere, aitortzeko aditzoina erabiltzeko joera nagusi dela oraindik ere gaur egun, indikatibotik kanpo.

## 6. Bi argumentuko adizkiak vs hiru argumentukoak

Zuazok (1998: 214-215) Hego Euskal Herriko euskararen ezaugarrien artean zenbait tokitan gertatu den hiru argumentuko adizkien nagusitzea (hots, eta ulertzeko, *ikusi nizun* esatea, *ikusi zintudan* esan beharrean) hartzen du ahotan, eta beste toki batzuetan gauzatu den kontrako joera orobat (Fraile

eta Frailerren 1996ko laneko Oiartzungo *pena ematen nau, kantatuko zattut, alkoholak enau bate ongi itten* jasotzen ditu).

Guk gutunetan ez dugu holakorik sumatu, *zor izan*-en erabilera (ikus hiztegia) bitxikara bazaigu ere. Goizuetako egungo hizkera dela eta, esan dezakegu gure aurrekoen belaunaldikoek adizki horiek «behar bezala» ibiltzen zituztela, hots, bi eta hiru argumentuko adizki laguntzaileak ongi bereizten zituztela, baina gazteagoen hizkeran *ikusian zian* (*ikusian zidan*) ‘ikusian ninduen’, *ezautu diute* (*ezagutu digute*) ‘ezagutu gaituzte’-ren erakoak aski ohi-koak direla. Zernahi gisaz, ez dakigu orain eskolaren eta batuaren eragina nabaritzen hasia ote den herrian, ikasketak euskaraz egin dituztenen artean.

## 7. *Izan aditza*

JRMk beti *zera* eta *gera* erabiltzen du, egun Goizuetan *za* (< *zara*) eta *ga* (< *gara*) baditugu ere. Egia da Bonapartek *zera* eta *gera* dakartzala Goizuetarako, eta Gamindek *gaa* eta *zaa*, *zera* jaso zituela (Zubiri eta Perurena, 1998: 128), baina jakina da kanpoko norbait herri batera grabazioaren bat egitera joaten denean zer agitzen den, hots, herriko berriemailea elkarriketatzailea bezala(tsu) mintzatzerantz entseatzeko dela, edo ez dituela beti eta erabat tokiko formak ematen (*the observer’s paradox* edo *behatzailearen paradoxa* deritza honi). Horren froga dugu, esaterako, Bixente Zubirik, egin zioten grabazioan (Euskaltzaindia, Euskal mintzamoldeen antologia, Nafarroa, Goizueta), darabiltzan *[x]un*, *[x]ungo zen*, *[x]ungo zian*, Goizuetako *[j]on*, *[j]oin.tzen* eta *[j]oin.tzi.an*-en partez.

Gutunetara itzuliz, esan behar dugu, lehen-lehenik, egilea beroriketan mintzatzen zaiola bertengusu zuen JBMri, olajaunari, eta, horregatik batez ere, *zera* bitan baizik ez dela ageri, beste batekiko solasaldia hitzez hitz ematen duelarik bakarrik (*konpontzen bazera, nola izandu zeran*). Ordea, *gera* hamahirutan azaltzen da eskutitzetan, batean *juanen* ‘joango’ adizkiaren lagun (*juanen bagera*).

Mikelestorenak (1751) *cera* eta *zara* ibiltzen ditu, bigarrena gehienetan: *zaran* (4, 8, 12), *confessatuko cera* (9), *cerala*, *atrebitcen cera* (23), *urbiltcen zaranean*, *urbilduko zara*, *joain zara* (29), *zarala*, *egoin zara*, *oarcen ba zara* (30), *etorri çaran* (34), *zu zarala* (47), *etorcen zara* (51)... Hirugarren pertsona pluralean *diran*, *dirala*, *diranac* du beti, eta *zarazten* ‘zaretan’ ere badu (5), baina singularrean, Goizuetan bezala, *den*, *dela* besterik ez dugu. Singularreko lehen pertsonan *narala* eta *nazan* ohi dauzka, baita *naz* ere, behin gutxienez (*sartuko naz*, 36). Ikus bederatzigarren puntuan dioguna.

Oiartzunen, Fraile eta Fraileren (1996: 93) arabera, 80 urtez goitiko hiztunek ugariago –gazteagoek baino ulertu beharko da– ibiltzen bide zituzten *gu gea*, *zu zea*, eta gutxiago –berriro ere gazteagoek baino– egileen ustez forma asimilatuak diren *za* eta *ga*. Hau bitxi aurkitzen dugu; *za* eta *ga*, bestalde, ez dira *zea* edo *gea*-tik atera izanen gure ustez, *zara* eta *gara*-tik baizik. Zelaietak (2008: 91) Goizueta Gipuzkoatik urruntzen duen ezaugarritzat dauka *izan*-en adizkiek orainaldian *a* edukitzea (*zara*, *gara*, *zate* izatea, ez *zera*, *gera*, *zerate*).<sup>3</sup>

Norbaitek pentsa lezake menturaz, Fraile eta Fraileren bidetik, gutunetako *zera*-k eta *gera*-k Goizuetako oraingo *za* eta *ga* eman dituztela. Guk ez dugu uste. 1753ko predikuan (Reguero, 2018 [2015]) *izaten garan* (214) eta *resucitatuco garala* (219) dauzkagu pluraleko lehen pertsonan, laguntzailera mugatuz *gán* eta *gála* bihurtuak orain. Horiekin batean *zu bide zara* (206) daukagu, egun *zú* (*bide*) *zá* geniokeena.

Aranon Gipuzkoako aldaerekin bat datozen *ge*, *ze* eta *zete* daude (Zubiri eta Perurena, 1998: 78), Areson *gea*, *zea* eta *zeate*, baina Leitizan *za*: eta *za*, *ga*: eta *ga*, *za:tea* eta *zatea* ditugu (Olano, 1998: 178, 198).

Hirugarren pertsonari doakionez, esan behar da gutunetan mendeko perpausetan singularrean beti *dela*, *den*, *dena*, *denean* dugula, hots, *-e*-dun formak ditugula, baina ez da gauza bera gertatzen pluralean. Honetan sei aldiz daukagu *dire* perpaus nagusietan: *aritu dire*, *haienak dire*, *hasi dire*, *heldu dire*, *sartuak dire* eta *yasotzen ari dire*, eta mendekoetan hamasei aldiz *diren*, *direla*. Gure iritzian, badaiteke menderagailurik gabe azaltzen diren *-e*-dun adizki horiek forma analogikoak izatea, alegia, *diren*, *direla*-ren erakoetatik atereak izatea. Ordea, uste dugu *direla* eta *diren*, gutxiengoan egonik ere, hasierako aldaerak *direla*, denbora batean bakarrak hain segur ere, emaro-emaro galduz joan direnak. Honen aurka mintzo da, alabaina, gutunak baino ia mende erdi bat lehenagokoa den predikuan horrelakorik ez kausitzea (ikus beheraxeago).

Bestalde, *dira* jaun eta jabe da perpaus nagusietan, asko eta askotan edirenten dugu (290 bat aldiz), eta halaber mendekoetan, baldintzetan (11 aldiz) eta bestelakoetan: *dirala*, *diran*, *diranak*, *diranean* (eta *diranaz* behin) *dira* ardurakoak gutunotan (45 aldiz ageri *dira*), baita horien ildokoa irudi duen *izanen dirateke* ere (behin), eta ulertzekoa da, egun ere Goizuetan singularrean *dé.la*, *dén*, *dé.nen* ‘denean’, *dé.la.ko((t)z)* izanik ere, pluralean *di.á*, *di.án*, *di.á.la*, *di.á.la.ko((t)z)*, *di.á.nen* ‘direnean’ besterik ez dagoelako.

Hemen nabarmentzekoa da eskutitzetan *dirade* ‘dira’ aldi bakar batez ageri zaigula: «*Hoiek dirade Ziburura bealduak*», hain segur testu zaharretan usai-

<sup>3</sup> Bigarren ezaugarria (*ibid.*) *yoan*, *yosi*, *yan* esatea, ez *joan*, *josi*, *jan*.

koa den adizki hori (cfr. *cerade*, *dirade* [eta *dira* zenbait aldiz], *ciraden* Otxoa de Arinen 1713ko dotrinan) galbidean zegoelako. Nolanahiko gisan, kontuan eduki behar da garai bereko Ignazio Bergararen gutun argitaragabeetan *dirade* ardura kausitzen dugula, beti menderagailurik gabe, hori bai. Beste gisan *dirala*, *heldu dirala*, *diran*, *diranean*, *heldu diranenzat*, *atere diran*, *ebilli diran*, *egiñ diran* dauzkagu Aranoko Arranbideko ola arduradunaren izkribuetan.

Esan dugun hori –guzia ez bada bai gehiena behintzat– bat heldu da Goizuetako 1753ko sermoian (Reguero, 2018 [2015]) aurkitzen dugunarekin, hauek baitauzkagu: *puscacen diranean*, *estalcen diranean*, *pedazacen dira*, *partitcen dira* (207), *izanen dira* (208), *erorcen dirala* (211), *etorriceo dira* (212), *prevenitcen ari dira*, *non eldu diran*, *declaratcen dira*, *belauricatcen dira*, *igotcen dira* (213), *igo dira* (214), *izandu dira* (216). Hauetan ere *dirade* behin bakarrik ageri da, erlatiboarekin oraingoan: *pauso macurretan bici diradenai* (216). 1825eko udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996) hiru aldiz ediren dugu: *dirade oiec* (298), *arreglatcen diradela* (300), *cometicten (sic) diraden excesoac* (301). 1848koan alerik ez dago, baina 1897koan txanda batean daukagu berriz: *ez dirade licenci izanen billerac* (304).

Iraganaldiari doakionez, *ninzan* bost aldiz ediren dugu gutunetan, denak ere perpaus nagusietan; *giñan* bederatzi aldiz aurkitu dugu horietako bat baldintzazko perpausetan (*konponzen bagiñan*), eta *giñala* aldi bakar batez ageri da. Hirugarren pertsona singularrean beti *zen*, *zela*, *zena*, *zenean*... ditugu, ez dago *zan*-en testigantzarik, eta pluralean *ziran*, *ziranak*, *ziranai*, *zirala*... dira jaun, jabe eta nagusi, baina *ziren* hiru txandatan topatu dugu: *puskatan ziren ezkerro* (behin) eta *zirela* (bitan). Egun *nitzán*, *ziñán*, *zén*, *giñán*, *ziñatén*, *zi.án* esaten da Goizuetan, eta, beraz, hemen ere jatorrizkoak ziratekeen *-e*-dun formak 1800 ingururako galbidean zirela kontu egin beharko da, hirugarren pertsona singularrean izan ezik, hor *zen* baitzen eta baita ibiltzen *zen* edo den forma bakarra.

Azpitarratu beharra dago Caminok (2009: 350) nafarreraren ezaugarri bateratzaile ez-esklusiboen artean «erlatibo eta konpletibo atzizkia lotzean *den*, *dela* erakoak izatea eta “Izan” aditz saileko iraganean *-en* bukaera erabiltzea» aipatzen duela, hots, eta azken zatiari dagokionez, «*nintzen*, *zen*, *ginen*...» ibiltzea. Hortaz, eta aurreko datuei so eginik, ikusten da Goizuetako hizkera ez dela erabat nafarra, iraganaldian *-a*-dun adizkiak dituelako, nahiz *zen* ibiltzen den, baina txoil erdialdekoa ere ez da, *den*, *dela*, *zen*, *zela* eta abar dauzkalako.

## 8. \*Edun aditza

\*Edun aditzaz denaz bezainbatean, eskutitzetan beti *-u-* daukagu frankotan azaltzen diren *dut* eta *dugu* adizkietan. Caminok (2009: 349-350) «nafa-

rreraren ezaugarri bateratzaile ez eskusibo»en artean sartzen du \**edun*-en orainean *u*-*dun* formak erabiltzea. Eskutitzetan bigarren pertsonakoa(k) ez d(ir)a ageri, esan bezala JRMk olajaunarekin beti beroriketan jardukitzen duelako, holakoetan hirugarren pertsona ibiltzen duelako.

Gutunetako hizkerarekin bat etorri ohi den Mikelestorenaren 1751ko edizioan –beste edizioetan gauzak aldatzen dira (ikus orain Salaberri Muñoa, 2019)– *dut*, *duzu*, *dugu* aurkitzen ditugu normalean, baina horiekin batean *dezu* ere frankotan azaltzen da.

Goizuetan (Zubiri eta Perurena, 1998: 132) eta Aranon (*ibid.*, 82) egun *-u*-*dun* formak besterik ez da erabiltzen, eta Oiartzunen ere *-u*-*dunak* jasotzen dituzte Frailek eta Frailek (1996: 110) tauletan, paradigmetan, (*de*)*zute* salbu, baina gero, bildutako materialetan *len esan deuna*, *ebakitzen badezu* (171), *ezin degu itzein* (233) dakarte. Beste aldean, *o* eta *u* daude Leitzañan, baina «Berastegi eta Orexarekin bat eginez» *e* dago Areson (Olano, 1998: 15; ikus berebat autore honen 2000ko lana, 129. or.).

Iraganaldian *nuen*, *nituen*, *zuen*, *zituen*, *genuen*, *genituen*, *zuten*, *zituzten* ditugu beti gutunetan, eta *joko zenuela* ere badago, txanda batean. Hortaz, eta espero genuen moduan, ez dago Gipuzkoako zenbait idazlek darabilten *zuan* ‘zuen’ / *zuen* ‘zuten’-en moduko bereizketarik, ez eta ere Caminok (2009: 350) nafarreraren ezaugarri bateratzaile ez-esklusibotzat hartzen duen beste hau ere: «iraganeko Nor-Nork aditz sailean Nork pluralean *-i*- agertzea: *giñue* & *gindue*, *ziñuen* & *zindue*...».

Aranon egun *nun*, *nittun*, *ziñun*, *zinittun*, *zun* ‘zuen’, *zittun* ‘zituen’, *giñun*, *ginittun* eta *zuen* ‘zuten’, *zittuen* ‘zituzten’ daude (Zubiri eta Perurena, 1998: 82); Goizuetan *nún*, *nittún*, *zunún* eta *ziñún* ‘zuenen’, *zinittún*, *zún* ‘zuen’, *zittún* ‘zituen’, *gunún* eta *giñún* ‘genuen’, *zutén* ‘zuten’, *zittuztén* ‘zituzten’ dauzkagu, eta, Caminok aipatzen dituen *-i*-*dun* adizkiak (*ziñun*, *giñun*) izanik ere, bestelakoak ere badira (*zunun*, *gunun*), irudi duenez eskutitzetan azaltzen diren *zenuen* (*zenuela*) eta *genuen* formatik atera direnak. Hortaz, berriz ere ikusten dugu Goizuetako hizkera ez datorrela zeharo bat nafarrerarekin, edo, hobeki esan, nafarrerak dituen *-i*-*dun* formak izanda ere bestelakoak ere badauzkala.

## 9. Aditza eta menderagailua

Gutunetan alegiazko adizkiak *-ke* morfema akabailan badu, menderagailua ez da *-en*, *-ela*, *-elako*, baizik *-an*, *-ala*, *-alako*. Esan daiteke, beraz, disimilazioa gauzatu eta «morfologizatu» dela, *-ee-* > *-ea-* burutu dela: *behar(ko)*

*lukeala, hartuko lukealako, nahi lukeala, nahi lukean, behar litukeala, egosiko litukeala, etorriko litzakeala, ongi litzakeala, behar lirakeala.*

Berdin agitzen da aipatu morfema beren baitan biltzen duketen *emanen litzakoala* ‘emanen litzaiokeela’, *hartuko likoala* ‘hartuko liokeela’ formetan, eta berebat menderagailurik ez duen –baina iraganaldiaren morfema baduen– *izan zitekean* ‘izan zitekeen’ adizkian.

Ordea, *-ke* bukaeran ez badago, hau daukagu: *behar litukeztela, egiñen luke-tela, nahi luketela, lagunduko likotela* ‘lagunduko lioketela, liekeela’ (ikus taula).

Ahalerako adizkiekin ere disimilazioa dago: *beal nezakean kontua, eziñ eraman dezakeala, zer egiñ dezakean; ea [...] izan ote daitekean, estu daitekeala, para ditekeana; billatu edo aldatu ditezkean artea; ez jakin [...] ager zitekean, izan zitekeala. Eziñ datorkeala* ‘ezin datorkeela’, ‘ezin etor daitekeela’ eta *dagokala* ‘dagokeela’ (1753ko predikuan *dagocan* dago, *dagoquit*-ekin batean; Reguero, 2018 [2015]: 222), ‘egon daitekeela’ ere badauzkagu.

1753ko sermoian «...*izan bague norc defendi nazaquean, norc alivia nazaquean, norc consola nazaquean, norc visita ta honra nazaquean*» ditugu (210), zeharo gutunetako datuekin bat datozen formak. Predikuaren euskararen kariatara, honela dio Reguerok (2018 [2015]) joskerari eskaini atalñoan (224): «Perpau osagarrietan atzizkiaren aldaera *-ela* eta *-ala*, biak agertzen dira: *dela, dituela* (3r eta *passim*), *zuela* (6v), baina *ciñala* (4v), *zarala* (5r, 8v), *naizala* (5v eta *passim*), *dirala* (6r)». Azkenekoetan *-ala* ote dagoen ikusteko kontuan hartu beharra da aditzak *ziñan, zara* eta *dira* zirela (eta direla, hola esan badaiteke: *za* eta *dia* ditugu egun), eta *naiz* adizkia aurreko \**naiza* bate-tik atera dela (ikus bedi Mitxelena, 1957: 134, 32. oin oharra).

Mikelestorenak ere (1751) *-an, -ala* ditu, bakarrik tartean *-ke-* dagoenen, bestelakoetan beti *-ela, -en* baitu: *eguin nitzaquean (becatu guciac)* (17), *quen citzaqueala* (23), *eguin behar cenuqueana* (26), *nai duena guin dezaquean (medicu bat beçala)* (32), *agur ditequean videren batez* (35-36), *ecin erran ditequean valiozco present bat* (38), *behar nuquean beçala* (40), *ez luqueala [...] egon behar* (41), *emain nuqueala* (46), *ecin utseguin dezaquean eliz Ama* (49), *aguer litequean presenta* (53), *aguer ditezqueanac* (56), *nai nuquean beçala* (58), *irabaz nezaquean guzia* (59), *atera ditezquean bezala* (93)... Salbuespen bakarra «*bost aldiz, edo diteque-enetan, joatea*» (81) da.

Bestelakoetan, ordea, honelakoak ditu: *gusto guciac bildu dituen [...]* (36), *ez natorrela* (40), *ni nagoen lecnan* (41), *asieraric izandu etzuen* (48)... Beste gisan, *naiz-en* eratorrietan beti *naza-* dauka lesakarrak: *cein gaistoa nazan ni* (17), *ez nazala [...] itzulico* (19), *nazan gucia* (32), *bete nazan artean* (34), *behartu nazan oroitzapen onec* (35), *vici nazan artean* (37), *pecatore nazala* (41)... eta inoiz *naz* ere bai, perpau nagusian: *sartuco naz* (36).

Otxoa de Arin ordiziarrak (1713) honelakoak ditu: *padecitu ceban* ‘sufritu zuen’, *igo ceben* ‘igo zuten’ (3), *recebitu cebana* ‘errezibitu zuena, zuela’, *libratu edo atera cituana* ‘libratu edo atera zituen, zituela’ (7), *guardatu cituen* ‘gorde zituzten’ (8), *vencutu cituan* ‘bentzutu, garaitu zituen’ (14), *irurac dabeela* ‘hirurek dutela’ (16), *sertu cituan* (*sic*) ‘sortu zituen’, *eguin cituan* ‘egin zituen’ (23). Hauekin batean, *eguin daiqueana* ‘egin dezakeena’ (22-23), *ecusi litezquean*, *eta ecusi ecin litezquean gauza guciac* (23), *nola ecin beregandic quendu dezaquean* (56), baita *ezin il ceitean* ‘ezin hil zitekeen’ (33) ere.

Probintziako beste idazle batzuek ere *-kean*-dun aldaerak dituzte. Adibidez Ubillos amasarrak (1978 [1785]: 5, 29, 84) *maitatu dezaquean*, *alda citequean*, *zitequeala* ‘izan zitekeela’ ditu. Ordea, horiekin batera *izandu zuan* (42), *eraguin cituan* (43), *eraman cituan* (52), *autu cituan* (77) ditu singularrean, eta pluralean beste hauek: *ezpazuqueen bezala* ‘ez bazuketen bezala’ (6), *diarduenac* ‘dihardutenak’ (9), *maite zuen* ‘maite zuten’, *agur andiac eguiten ciozqueen* ‘agur handiak egiten zizkioten’ (58), *escupean ceuzqueela* ‘eskupean zeuzkatela’ (59), *eguiten diarduen personac* ‘egiten diharduten pertsonak’ (78), *ecin eraman cituenac* ‘ezin eraman zituztenak’ (83). Eta antzera Agirre Asteasukoak (1978 [1850]): *gordeco nauala Jaunac* (11), *guertatu ditezquean utseguiteac* (16), *nola molda zaitezquean* (17), *icasi deceen* ‘ikas dezaten’ (16), *izqueta bat*, *ceñarequin adirazten duan batec [...]* (30)... Hortaz, Goizuetakoaz bestelako aditz sistema dugu esku artean hemen, besteak beste singularra egiteko, iraganaldian-eta, *-an* dutelako, eta plurala egiteko berriz *-en*.

Urumeako herriko 1897ko udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996) hauek ditugu: *molestatu dezaquenic* (304), *estorbatu dezaquenic*, *ecarri dezaquenic* (305), *ciquiñ dezaquenic*, *eguiñ dezaquenic* (306), baina hauekin batean *estorba dezaquenic* (305) bat ere badago, eta ez dakigu aurreko erabileraren aztarrena den, galbidean dagoen usadioaren arrastoa. Hala dirudi dela. Ordenantza horietan, bestalde, ez dago *-ee*-duen adizkirik.

Gutunetara itzuliz, *-ke*-rik ez duten adizkietan ia ez da *-ala* edo *-an* ageri: *dabillela*, *dagoela*, *dagoen*, *dakiela*, *daramatziela* ‘daramatzala’, *datorrela*, *dela*, *duela*, *duelarik*, *dituela*, *goazela*, *oroi dadiela*... Salbuespenak *nagoala* (*berarekin*) ‘egon nadila berarekin’ eta *zegoala* ‘zegoela’ dira, baina horiekin batean *ixillik zagoela* ‘isilik egon zedila’ eta *zegoela* ‘zegoela’ ere baditugu. Bestalde, txanda batean aurkitzen dugun *har genezela* ‘har genezala’ menturaz hustako ez, baizik *-ela* eta *-ala*-ren arteko lehiaren erakuskaritzat eduki behar dugu, aipatu *nagoala* eta *zegoala* berak bezala. Iraganaldian, ia beti (*nangoan* ‘nengoen’ alde bat utzirik) *-ela*, *-en* dugu: *egin genituen pi puskak*, *egin genuenekoa*, *egiñ genuen ezkerro*, *eman genuena*, *etzekiela*, *ez genuela*, *nengoela*, *nuena*, *zabillela*, *zagoela*, *zegoela*, *zenuela*, *zuela*, *zuena*, *zuenean*, *zueneko* eta *zituela*, *zituenak*...

Egun Goizuetan ez dago *-an*, *-ala*, *-alako*-dun formarik, eta egia esan, ezta *-en*, *-ela*, *-elako*-dunik ere, menderagailuak adizkiari bokalik gabe erans-ten zaizkiolako: *behar(ko) lukela*, *(e)karriko lukela*, *hartuko lukelako*, *nahi lukela*, *beharko luken*, *(e)kusiko lukena*, *nahi luken*, *behar littuzkela*, *egosiko littuzkela*, *(e)torriko litzakela*, *ongi litzakela*, *behar liakela* ‘behar liratekeela’, *eramain genukela*, *eramain giñukela* ‘eramanen genukeela’. Adizkian *-ke*-rik ez dagoenean ere berdintsu: *behar dulakoz* ‘behar duelako’ eta ‘behar dugulako’, *(e)karri dula*, *(e)karri duna*, *eraman genula* edo *eraman giñula*, *(e)torriko diala* ‘etorriko direla’ eta abar.

Salbuespen nabarmenena *naiz* da, perpau nagusietan hola esaten bada ere, mendekoetan, aldez (*-tz-*) iraganaldiko adizkiarekiko (*nitzan*-ekiko) analogiaz, *nitzan* ‘naizen’, *nitzala* ‘naizela’, *nitzanen* ‘naizenean’ esaten delako. Aintzat har bedi, zernahi gisaz, gutunetan *juan naizanean* eta *nola izandu naizan* ditugula, eta 1753ko predikuan *bici naizalaric* (209), *zergatic naizan* (210, 211), *guelditcen naizala* (210, 211) eta *beldur naizan desgracia onen remedioa* (212) ageri direla. Damurik, *naiz* ez da mendeko perpau bakar batean ere azaltzen, XIX. gizaldiko Goizuetako udal ordenantzetan. Goitixeago aipatu dugun bezala, denbora hartako eta egungo *naiz*-en oinarrian \**naiza* egotea ez da, afera honetan, garrantzizgabea izaneren apika.

Puntu honetan eta aurrekoetan dioguna batzeko, diakronian hau izan dugula pentsa liteke, sasoi honetan JRMren gutun hauek besterik ez bageneuka:

1. Menderagailuek arruntean *-e*- ohi zuten Goizuetan (*-ela*, *-en* eta erato-riak), ez *-a-*.

2. Zenbait testuingurutan disimilazioa gertatu zen, ordura arteko *-ee*-bereizketa atxikitzeko. Hau, dauzkagun datuen arabera, bukaeran *-ke* zuten adizkietan agitu zen, nahiz zenbaitetan, geroko hots aldaketengatik, jatorrizko *-ke* hori «mozorroturik» gelditu (*hartuko liokeela* > \**hartuko liokeala* > \**hartuko liokala* > *hartuko likoala*). Honek guziak berekin dakar ordurako herriko hizkeran *-ee-* > *-e-* bokal batzea burutzen hasia zelako ideia, menturaz bukaeran *-te* zutenetan (*nahi luketela*) oinarri harturik.

3. Forma disimilatuak (*nahi lukeala*, *nahi lukean*-en erakoak) berranalizatu eta hiztunek *-ela*, *-en* eta *-ala*, *-an*, bi multxoak, eskura zituztela pentsatuko zuten.

4. Orainaldiko singularreko hirugarren pertsona (*da* → *dela*, *delako*, *den*, *denean*...) iraganaldikoarekiko (*zen* → *zela*, *zelako*, *zen*, *zenean*...) erlazio paradigmaticoagatik ez zen aldatuko.

5. \**Edun*-en adizkiek ordura arte bezala jarraituko zuten (*du* → *duela*, *duen*). Hemen ere lehenaldiaren adierazgailu hutsa nahiz menderagailudun adizkia izan zitekeen iraganeko *zuen*-ek eta *zuenean*, *zuelako(t)z*-en taxukok orainaldiko *duela*, *duen*, *duenean*... atxikitzen lagunduko zuten. Halaber *dutela*, *zutela*-ren modukoek ere.



6. Akabailan, bukaera-bukaeran nahiz azken silaban *a* zuten adizkiei *-ala*, *-an* erantsiko zizkieten hiztunek, eta *-aa-* > *-a-* eginen: *dira* + *-ala* > *dirala*, *gara* + *-an* > *garala*, *nintzan* + *-ala* > *nintzala*.

7. Beste berranalisi baten bidez, *zarala*, *garan*, *dirala*... *zara* + *-la*, *gara* + *-n*, *dira* + *-la* interpretatuko ziren.

8. Gero, *-la*, *-n* horiek bokalez akitzen ziren adizki guztietara hedatuko ziren: *dula* ‘duela’, *non* ‘nagoen’, *dola* ‘dagoela’...

9. Bakarrik kontsonantez amaitzen diren aditzak «salbatuko» ziren: *dato-rrrela*, *diozela pikutara* ‘dihoazela, doazela pikutara’, *datozela nahi badute*...

Nolanahi ere, ur handi-sakonak dira hauek, *-ela* / *-ala*, *-en* / *-an* bikoiztasunak denbora honetako idazleen lanetan frankotan azaltzen direlako, eta, azalpena egokia izatekotan, osotasunekoa izan behar lukeelako, ez bakarrik Goizuetara mugatua. Herri honetan ere lanik aski bada gauzak behar bezala azaltzeko: aipatu bederatzi urrats horiek duten «ahulgunea» (edo ahulguneetako bat) *behar nazakean* azaltzen den garaian *zarala*, *zaran*, *garala*, *garan* eta *dirala*, *diran* agertzea da, hori baitugu 1753ko predikuan (Reguero, 2018 [2015]), eta berebat *nahi lukeala*, *nahi lukean* formekin batean *bilzen diranean*, *dirala*, *heldu diranaz* (gutunetan) ediretea. Gutunetan, halarik ere, esan moduan, talde handikoa osatzen dute artean *-ela*, *-en* menderagailua duten adizkiek, eta badira sei *dire* menderagailugabeak. Zernahi gisaz, *direla*, *diren*... nagusi ziren denborako aztarnak ziratekeen 1800 inguruan, gure azalpenaren arabera.

Ez dakigu honekin zerikusirik baduen eskutitzetan beti *geran* (eta *zeran*; ikus aitzineko puntua) agertzeak, ez baitirudi \**gerela* eta \**zerela* (ohikoak) izan diren.

## 10. *Nork* aditzen pluralgileak

Objektu zuzena plurala delarik, *-it-* da pluralgilea gutunetan, eta ez da, batuan gertatzen denaren kontra, *-z-rik* ageri, bi argumentuko adizkietan: *behar nituke* / *egin behar genituke* / *egosiko litukeala* / *nahi omen lituke*. Edo ageri bada, ez batuan duen lekunean: *behar litukeztela*. Ordea, batuan bezala egiten dena ere bada: *dituzte*.

Hiru argumentuko adizkietan ere *-it-* dugu pluralgilea ia beti: *tit* ‘dizkit’, *tio*, *ttio* ‘dizkio’, *tiogu* ‘dizkiogu’, *nition* ‘nizkion’, *zition* ‘zizkion’, *genition* ‘genizkion’; baina behin Mikelestorenak (*aguertuco diozcat*, *nai diozcat eman*, 1751: 32, 44) darabilen *diozkat* daukagu (*eman diozcat*) orainaldian,<sup>4</sup> eta *niozcan* iraganal-

<sup>4</sup> Lesakarrak, 1751ko edizioan (36), *nay niotzaque* ‘nahi nizkioke’, *ematen diozcatzun* ‘ematen dizkiozun’ ere baditu.

dian (*eman nionzcan* idatzia testuan), *nitio*-ekin batean. Kardaberatzek (1816 [1762]: 95) *eraguingo diozca* dauka, eta Otxoa Arinek, lehenago (1713: 19) *entzi ciozcan* ‘utzi zizkion’. Gainera, gutunetan zenbait aldiz *-it*-ekin batean *-z*- ere badago: *ditioztet*, *tioztet* ‘dizkiet’, *tiozte* ‘dizkie’, *nitiozten* ‘nizkien’, *zitiozten* ‘zizkieten’. Aipatu beharra dago, puntu honetan, gaur egun Goizuetan, *-it*- pluralgileaz gainera, *-z*- agertzen dela pluraleko hirugarren pertsonetan, hots, *haiek* edo *haiei* dugunean: *nittizten* ‘nizkien’, *zenittizten* ‘zenizkien’, ‘zenizkieten’, *zittizten* ‘zizkien’, ‘zizkieten’, ‘zizkieten’. Uste izatekoa da *nitiozten*, \**zenitiozten* eta *zitiozten* direla egungo horien iturriak, edo, zehazkiago esan, \**nittiozten*, \**zenittiozten*, \**zittiozten*. Cfr. Goizuetako egungo (*e*)*karri dio* baina (*e*)*karri dila* ‘ekarri diola’, *ero(r)i zio* ‘erori zaio’ baina *ero(r)i zila* ‘erori zaiola’...

Zelaietaren (2008: 90-91, 97) arabera, «Goizuetako solasa nafar egiten duten» ezaugarrietako bat N-N-N saileko *-it*- pluralgilea da, *ttiot* ‘dizkiogu’, *ttigu* ‘dizkigu’ eta bestetan dagoena, Leitzan adibidez *-zki-* dena. Caminok (2009: 348) nafarrerak dituen bost ezaugarri eskusiboetako batendako hartzen du Nor-nori-nork-en gertatu den «*-zki-* > *-it-* morfema pluralaren aldaketa analogikoa». Ez dago zalantzarik, beraz, dialektologiaren ikuspuntutik pisudun ezaugarria dela ahotan darabilgun hau.

*Eraman* aditzak, trinkoetan, *-tzi-* pluralgilea du, eta *erabili*-k, ozen ondoran gelditzen baita (ikus grafiari eskaini atala), *-zi-*. *Eduki*-k (*iduki(tu)*-k) berriz *-z-* du pluralgile, eta horrekin batean *-ki-* ageri da errotako, ez objektua singularra deneko *-ka(-)*: *daduka*, *dauka*, *daukate* baina *dauzki* eta *dauz-kite*. 1753ko predikuan (Reguero, 2018 [2015]: 222) *zauzquien* ‘zeuzkan’ eta *dauzquien* ‘dauzkan’ ditugu. Aipatu autoreak dioenez (*ibid.*), *eduki*-ren forma jokatueta goi-nafarreraren lehen lekukotasunetatik pluralgilea *-zki* da, eta dialektoaren eremu osoa harrapatzen du ezaugarri honek. Ukargo 1865eko *daukazkite* forma («*badaucazquite concienciac garbituric*») analogikoa izanen da menturaz, horrekin batean «*gauza guciac baitauzqui*» eta «*Elizac dauzquiela medioac*» ditugulako, pluralean, eta «*dauca arima ilic*» singularrean (Satrustegi, 2002: 151, 152, 157, 162).

Kasu batean, itxuraz bederik, *-it-* pluralgilea *-kit*-ekin aldizkatzen da, laguntzailean: *bitza* vs *bekitza*. Beste batean *-tzi-* eta *-zki-* txandakatzen dira *eraman* aditzaren forma trinkoetan: *daramatzi* eta *daramazki* ‘daramatza’ (egun *damázki* Goizuetan).

## 11. *-ke* adizkiak

Hauek ditugu, besteak beste direla: *badagoke*, *eziñ datorkeala*, *izanen dirateke*, *jakin nahi dukete*, *pretenditzen duke*...

Mounolek, doktore tesian (2011: 75), Bonaparteren eta Lafonen lanak aipatuta, *separaturen dituqueizte*, *pillaturen duque* (Leizarraga), *date yrequiren*, *erranen dirate* (Etxepare) «geroaldi bikoitzak» bi autore horien lanetan baizik agertzen ez direla dio: «Ces formes, appelées “futurs doubles” par Bonaparte (1869 : 200) puis Lafon (1943-II : 69), ne sont attestées que chez les auteurs orientaux Leizarraga et Etxepare. Les auteurs occidentaux, centraux, ainsi que l’auteur souletin Oihenart ne présentent aucun exemple de ces formes». Zehaztu beharra dago Mounolek 1500 eta 1745 arteko garaia aztertzen duela, hau da, euskara arkaikoa eta euskara zaharra.

Orain ordea, eta Jose Ramonen ondoko adibide hau ikusirik –bakarra bada ere– Lapurdiko euskalariak esandakoa pittin bat ñabartu beharko dela dirudi (izkirio lodia gurea da):

- ...*ta esan didate esaminadorerik nola ez duten, aurten zein bealdu edo nola gobernatu dutela demanda puxka bat elkarren artean, ta laster egiñen dutela; guziak boto banako jendeak izanen dirateke hoiek.*

Balioari datxekionez, iduri luke egungo *izanen dira* eta lehengo eta oraingo *dirateke* batera ibiltzearen fruitua dugula adizkia, alegia, egileak *guziak boto banako jendeak izanen dira hoiek*, edo gauza bera dena, *guziak boto banako jendeak dirateke hoiek* esan nahi duela, ustea edo suposizioa dagoela hor.

Jakina den moduan, *-ke*-dun adizkiak mugaz alde honetan aurkitzea ez da arraroa, ez testu idatzietan, ez eta belarriz jasotako ahozko testuetan ere. Lehenetan Goizuetarekin muga egiten duen Lesakako Mikelestorenaren (1751: 6) adibide hau aipa daiteke: «*Ecim ba zoazque Elizara, enzungo dituztu gogoz, ta deseoz egun artan munduan ematen diranac*». Bigarrenetan Izagirrek (1966: 415) Iruñetik hogeit hamar kilometrorra, Ultzaman, bildutako «*asike badaoike txerrik il gabé [...]* “así que ya puede estar sin matar el cerdo”».

## 12. \*Edin aditzeko *-ai-* / *-i-* bikoiztasuna

\*Edin aditzean *-ai-* / *-i-* bikoiztasuna edireten dugu zenbait aldiz gutu-netan: *daiteke* eta *diteke*, *daitezke* eta *ditezke*, *laiteke* eta *liteke*, *laitezke* eta *litezke*. Baina *izan ditezen*, *saia ditezen* besterik ez dago, subjuntiboan. Ikus paradigmak, behegero.

Eguno Goizuetako hizkeran *-i-*-dun forma ibiltzen da alegiazkoan (*litteke*, *litezke*), baina orainaldian *tor daitteke* nahiz *tor ditteke* ditugu, eta *dittezke* zein *daittezke*. Amaiurren N'Diayek (1970: 63) *Nere gogoia zen etzaiteke-la in* ‘mon avis était que c’était impossible’ dakar, eta Salaburuk eta Lakarrek

(2005: 94) Baztanen *-ai-*dun adizki batzuk (*liteke, litezke* ere badaude, ordea) biltzen dituzten arren, hau gehitzen dute: «Gaur egun, ia-ia desagertutzat eman behar dira guziak», arruntean *ahal izan* ibiltzen delako.

Nolanahiko gisan, Paskual Rekalde amaiurtar euskaltzainak dioskunez (a.a.), Baztanen *-t(z)en ahal izan* duten aditz formak nagusi izanagatik, \**edin-*en bidezkoak ere entzun daitezke, eta, adibidetzat, amari aditutako hauek aipatu dizkigu: *leer ai du kanpoan, eztaiteke atra* ‘(euria) leher ari du kanpoan, ez daiteke atera’, ‘euria goian-behe ari du kanpoan, ezin da atera’, *urie yautsala ai du kanpoan, eztaiteke atra* ‘euria jauts ahala ari du kanpoan, ez daiteke atera’, *kanpoko lanak erraz in daizke denborak launtzen badu* ‘kanpoko lanak erraz egin daitezke eguraldiak laguntzen badu’.

### 13. *Dedilla* vs *dadiela*

Subjuntiboan *dedi-* eta *dadie-* dauzkagu eskutitzetan:

- *Nahi duenarekin konpon dedilla.*
- *Martin Aldakokoak esan dit baren kuartoaz oroi dadiela.*

Berriainek lehen forma darabil: *acabadedinean, juntadedin, eguindedin* (1626: 112 binp., 116, 130), *jaytzidedila, gueldidedila, errandedin* (1980 [1621]: 98). Elizalde (1735: 44) *gueldidadila* dauka, Iberoko XIX. jendamidearen hastapeneko gurutze bidean (Arraiza, 1988: 147, 149, 151, 152) *izan dadien* eta *renova dadien* dauzkagu eta Makirriain Ezkabarteko 1828ko katiximan (Diez de Ulzurrun, 1960: 393, 394, 395, 399, 401) *izandayela, atradayen* dauzkagu. Elkanokoak *dadiela*-rekin akortago den *daiela* ohi du, eta izan ere horixe da Bonapartek bildutako materialetan Elkanon, Garesen, Oltzan eta Goñin daukaguna (Ondarra, 1982: 178). Ukargo 1865eko dotrinan *icendadiela* dago (Saturstegi, 2002: 163, 164) eta Baztanen Etxenikek (1980 [1858]: 31, 32, 40, 46, 78, 94) *allega dayen, itzul dayela, izan zayen, eztayen guerta, il dayela* dauzka, eta egun *daie-* dago aipatu ibarrean (Salaburu eta Lakar, 2005: 95). Araitzen *dai(e)n* daukagu (Zuazo, 2013: 81) orain.

Otxoa de Arin billabonatarak (1713: 52) *izan dadin* dauka. Mikelestorena lesakarrak (1751), ordea, beti *dedilla, dedin* du: *ez dedilla [...] sartu* (4), *sar dedin* (17), *guerta dedilla* (18, 28, 66, 84, 86...), *gueldi dedin* (25), *ez dedilla [...] galdu* (34), *izan dedilla* (40), *bero dedin* (51), *gueldi dedilla* (74), *acaba dedin* (80)... Leitzan agertutako gipuzkeraz idatzi XVIII. mendeko sermoian (Olano, 2002: 175) *acaba dedilla* dago, eta egun (Olano, 1998: 200) *dedin* daukagu. Probintzia aldean Kardaberatz hernaniarrak *Jaincoaran (sic) gloriaraco izan dedin* (2004 [1761]: 21) eta *Ala izan dedilla* (1882: 238) dauz-

ka, baina Frailek eta Frailek (1996: 119) *dadilla*, *daillela*, *dailen* jaso zituzten Oartzunen, ‘dadila’ eta ‘dadin’, oker ez bagaude.

Aranon *dadilla* erabiltzen da egun, eta Goizuetan *konpon dilla*, *konpon dillela*, *tor dilla*, *tor dillela* (Zubiri eta Perurena, 1998: 79, 129), eta badaiteke JRMk *oroi dadiela* Nafarroa barreneko (eta Oartzungo) erabilera aintzat harturik ibiltzea. Handi-handika (ikus Salaberri, 2000a: 908-909) esan daiteke *konpon dedilla* Euskal Herriko erdialdera begira dagoela (aldera bedi Agirre Asteasukoaren *biurtu dedin* adizkiarekin, 1978 [1850]: 17), eta *oroi dadiela* Nafarroara eta ekialdera.

Ordea, gauza ez da hain sinplea: 1753ko Goizuetako predikuan (Reguero, 2018 [2015]) *conforma dadin* (212), *gueldi dadin* (215), *atera dadin*, *acorda dadin* (216) dauzkagu, eta herriko XIX. mendeko udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996) *eztadiela nior pasatu* (299), *izan dadiela* (300), *ez dadiela atrevitu* (301) ditugu 1825ekoan, *izan ez dadien* (301) 1848koan eta *ez dadien pasatu*, *ez dadien guertatu* (305), *guertatu ez dadiñ* (306), *aprovechatu ez dadin* (307) 1897koan. Mikelestorenak (1751) esan bezala *dedin*, *dedilla* ibiltzen duen arren, *nere etzsayen* (*sic*) *escuetara ez nadin* (65), *oroi nadin* ere badu (69).

Atera daitekeen ondorioa da bikoiztasuna zegoela lehen Goizuetan: erdialdeko aldaera (*dedilla*) nahiz Nafarroa eta ekialdekoa (*dadiela*) ibiltzen zirela, biak ere aditzoinarekin. Aintzat har bedi, alabaina eta batetik, Beriainen lanean eta Iruñean ia berrehun urte geroago argitaratu bandoan (*izan dedin*, Irigarai, 1974: 148) *dedin* daukagula. Eta bestetik mendebaldean *dadin* dugula, ikusi bezala, Otxoa de Arinen dotrinan.

#### 14. Iraganaldia vs orainaldia

Iparraldekoen parekoak diren formak badira gutunotan, hau da, *atzo etorri da*-ren tankerakoak, egungo *atzo etorri zen*-en erakoekin batean:<sup>5</sup>

- *Atzo eguerdian mutill bat bealdu du, gaur etorriko dela.*
- *Atzo galdatu diotet ea zer egiten duten, ta esan didate esaminadorerik nola ez duten, aurtan zein bealdu edo nola gobernatu dutela demanda puxka bat elkarren artean.*
- *Atzo mandatua hartu omen du.*
- *Atzo ta herenegu ez dute paratu ere kandelan.*

<sup>5</sup> Erka bedi, esaterako, Sarako 1826ko gutun batean (Apezetxea, 2006: 431) ageri den honekin: «*Precisqui atzo arratsaldean arribatu da erri untara Dn. Fermin Gaztelu ene laguna*».

- *Burniak guziak kargak hurnitu artea egoten dira eramateko, ta atzo esan diotet gaur eraman behar dutela burniak.*
- *Pello ez da orañik hasitzeko prest, igandea artea beinzat. Gorra ere atzo aste honetan makurka ez aritzeko esan omen dio.*
- *Ta bealdu du karta atzo goizean.*

Hegoaldekoen taxukoak ere badira, ordea:

- *Atzo deus etorri ote zen izandu ziran bi lagun mearekin.*
- *Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela.*
- *Atzo Isasolako karraidoreai erakarri nitiozten ikatzak...56 cargas.*
- *Bautista atzo izandu zen diruarekin.*
- *Ignaziok esan zuen atzo gaur ez eramatekotan hurrengo egunetan urik ez dela.*
- *Ola 410 dukateraño jaitsi zen atzo.*
- *Zepoak atzo sartu zituzten.*

Laburki esan, atzo hitzarekin noiz orainaldia, noiz lehenaldia ibiltzen du JRMk. Aldiz, iraganari erreferentzia egiten dioten bestelako adierazpideekin aditza usu iraganean jokatzen du:

- *Berentxikiko mutill hori iaz ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean.*
- *Egun urtebete hoiek biak kontua hartu zuten hemendik, ta gurdi burniak ez nituen sartu kontuan, ta esan zuten aipatu zituztela kontuetan.*
- *Hoietaz gañera, hemen hasi ta asteartean horrara eraman zuen.*
- *Juan den igandean ere propioa jua, Azenzio, ta baietz agindu, ta astelen arratseko olara zen.*
- *Kabia egin zenean ola preparatzen ta kabiguña sarzen egin zutena da.*
- *Ola hasitzeko aurreko larunbatean eguna pasatu zuten ola preparatzen, ta astelenean, arratsaldean, haspoari tiratu zitzaion.*
- *Sidrok egun kontua behar badu, pasatu dira 47 días, eta aste batean astelen arratseko bildu zen.*
- *Suertea hartu diet 16 kuartilluan; 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean.*
- *Trabajatu du hamabi aste, ta Aste Santuan hiru egunez trabajatu zen, ta Pazko larunbatean olatxo[an] aritu zen.*

Dena dela, iraganean atzo baino urrunago gelditzen diren ekintzekin ere inoiz orainaldia darabil goizuetarrak:

- *Burni erreusen txartela ostegunean hartu dut, ta ezereda erreusik.*
- *Eta karta egiñ nuen berorrenzat, eta Fagotxikikoak iñor sumatu ez dutela karraidorerik larunbatean.*

– *Leneko astean erre den arragoako jornalak ta ingudeari sartu-atero eragin genion arrats artea.*

Bestalde, lehenaldia darabil iraganean atzo baino hurbilago gelditzen diren denbora tarteekin:

– *Hoiek despeitu ditut ez gehiago ekarzeko beko meatzetatik, ta goiko meakariak egun hemen ziran.*

Datu hauek iradokitzen dute JRMk orainaldiaren eta iraganaldiaren arteko bereizketa bi modutara egiten duela. Alde batetik, bi iraganaldi bereizten ditu: *atzo* adberbioarekin lotzen den iragan hurbila, batetik, eta lehenaldiko beste edozein gertakariarekin zerikusia duen urruneko iragana, bestetik.<sup>6</sup> Horietatik lehena hizketalditik hurbil gelditzen denez gero, aditza orainaldian zein lehenaldian joka daiteke. Urruneko iraganaldian, berriz, adierazten den gertakaria hizketalditik egun bat baino haratago (*asteartean*, *Aste Santuan*, *Pazko larunbatean*) kokatzen da. Distantzia hori azpimarratzeko aditzak beti lehenaldian agertu beharra du.

Bi iraganaldi bereiztea europar hizkuntzen ikuspuntutik bitxi ager baliteke ere, munduko mintzairetan ez da arraroa: Velupillaik (2012: 199) aztertzen dituen 222 hizkuntzatatik 40k (% 18k) hurbileko eta urruneko iragana banatzen dituzte, gutxienez. Hizkuntza hauetan, gainera, ohikoa izaten da iragan hurbilak gehienez ere hizketaldiaren aurreko egun bat (*atzo*) barne hartzea. Urrunekoak, berriz, iraganeko asteak, hilabeteak edota mugagabeko denbora adieraz ditzake (*ibid.*, 201).

Beste aldetik, JRMk iraganean burutu eta hizketaldirako garrantzirik ez duten ekintzak iraganean adierazten ditu («*hemen hasi ta asteartean horrara eramán zuen*») eta hizketaldirako garrantzia dutenak, aldiz, orainaldian («*burni erreusen txartela ostegunean hartu dut*»). Horrelako kasuetan ekintza zehatz-mehatz gertatu den garaia ez du, beraz, axolarik. Aditz denbora ekintzaren hizketaldian munta duena adierazteko erabiltzea ez da euskararen berezitasuna; hainbat hizkuntzak horrela jokutzen dutela ezaguna da, besteak beste ingelesak, gaztelaniak eta okzitanierak (Comrie 1985: 83-101).

---

<sup>6</sup> Beharbada honekin zerikusia izanen du Etxauriko 1598ko testua aztertzean Santaziliak (2015: 129-133) dioenak: «Aipagarria da, bide batez, erdal itzulpenean *he estado dena joan ninça* dela euskaraz, baina *me dixo, erran draut*».

## 15. Geroaldia

Gutunetan sudurkariz bukatzen diren aditzek *-en* hartzen dute beti, salbuespenik gabe: *egiñen du / egiñen luke / egiñen luketela / egonen dela / egonen naiz / emanen dute / emanen tion / emanen zazkion edo ez / eramanen digu / eramanen dute / eramanen dituzte / esanen diodan / ez du [...] egiñen / izanen da / izanen dira / izanen dudala / izanen dugu / izanen ote den / jakiñen du / jakiñen duela / yakiñen dut...*

1753ko predikuan ere (Reguero, 2018 [2015]) beti *-en* dugu sudurkariz akitzen diren aditzekin: *izanen dira* (208), *izanen zara, egonen naiz* (210), *izanen da, egonen da* (212), *egonen da, eztela [...]* *izanen* (218)... Udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996) berdin: *izanen dirala* (298), *izanen dela* (298, 299), *egonen da, emanen diote* (301), *eguiñen da* (310).

Hemen azpimarratzekoa da egun Goizuetan (eta Aranon) *-ko*-dun geroaldiez landara, *-in* dutenak ere badirela (Zubiri eta Perurena, 1998: 124), eta Bonapartek dioena dioela ere (*ibid.*), gaur ez dagoela *-en*-dun formarik, hots, ez dago *emanen* edo *esanen*-en erakorik. Bai, ordea, Leitzako egungo hizkeran.

Mikelestorenaren lanean (1751) sudurkariz bukatzen diren aditzetan *-in* ohi du geroaldiak: *essain duzu, essain dezu* (7), *Etzaitzu hasteric joain* (9), *egoin dira* (12), *edain dituzu* (12), *egoin da* (13), *emain ez dizun guisan* (18), *izain zaran* (22), *errain dezu, joain zara* (29), *egoin zara* (30), *emain dizut* (35), *izain da, goin da* (38), *egoin ciran, goin da, izain du* (39), *izain ninzaque* (53), *emain dizudana* (75), *egoin ninzaque* (100) eta abar. Behin *enzunen* dago, *enzungo*-ren aldamenean: «*Al dezun egunean enzunen duzu Meza bat. Ecin ba zoazque Elizara, enzungo dituzu gogoz, ta deseoz egun artan munduan ematen diranac*» (6). *Eguiñen* eta *eraguiñen* ere baditu: *eraguiñen diozu* (10), *eguiñen dut* (36).

Bestela, bokalez akitzen direnek *-ko* hartzen dute JRMren gutunetan: *arinduko zaio, agertuko dela, aterako dela, ekusiko dugu, etorriko dela, ez direla [...]* *ariko, konponduko da, paratuko ditut...* Baita *neurriko dugu* ere, aditza *neurri* ‘neurtu’ baita.

Aditz modalek zuzenean hartzen dute *-ko*, hots, ez dute *izan*-en laguntzaren beharrik: *beharko du, ez direla ariko, nabiko dute*. Bestalde, *Kosta izan* edo *kostatu* aditzak *-tu* gabe egiten du geroaldia: *kostako dira, kostako omen da*. Aspektu burutugabea *kostatzen da* dugu, eta burutuan *kosta da*. Egun Goizuetan hola egiten da, *kostako da*-rekin batean *kostatuko da* ere esan daitekeen arren.

Hortaz, esan daiteke Caminok (2009: 350) nafarreraren «ezaugarri bateratzaile ez eskusibo»tzat ematen duen «etorkizuneko morfema *-en* izatea *-n*-z



bukatzen diren aditzetan» hatsarrea betetzen dela, irudi duenez hastapeneko *-en* hark eboluzionatu badu ere (*egonen > egoin, izanen > izain...*). Irudi du, berebat, bukaeran sudurkaria duten aditzetan ere *-ko, -go* hedatzen ari dela, alegia, Goizuetako hizkera, alderdi honetatik, erdialdeko euskarara hurrantzen ari dela.

## 16. Baldintza

Gutunetan baldintza alegiazkoa egiteko *-tzen* ibiltzen da maiz, ez *-tuko*, garai hartako idazleen artean maiz ikusten den forma bera:

- *Hoiek ta despojourik izaten bada suerte hoietan, memorialean eskatzeko debalde, ametitzen balute beti izaten dela zerbait, ta modu hoietan ongi litzakeala, Indianoak hartuko lukealako.*
- *1.400 ezkutu honetan ongi litzakeala dio, harrapatzen baliz.*
- *Ola handikoak sagarra hoiengat ere hamar bat karga billatzen balu berearekin batean diote.*
- *Papera libranzako ori bealzen balu, edo nik ez dakit zer egin.*

1753ko predikuan (Reguero, 2018 [2015]: 219) *izaten balira* dago.

## 17. Arazlea

Oinarriarekin bat eginik edireten dugu, eta batzuetan laburtua, ondoko aditzetan: *adirazi* ‘adierazi’ (Mikelestorenak [1751: 47] *adiraci* dauka), *arri-marazi* ‘hurbilarazi’, *berezirazi* ‘bereizarazi’, *entendirazi* ‘ulertarazi’, *geldirazi* ‘geldiarazi’, *hasirazi* ‘hasarazi’, *pagarazi*, *parazi* ‘pararazi’.

Bestela *eragiñ* darabil JRMk ‘eginarazi’ adierarekin:

- *Ilzeak ere norbaiti eragiñen tiogu.*
- *Nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urri-urrian jornalak dituztela baño.*

Txanda batean, itxuraz, *arazi*-ren partez dago *eragin*: *Astelenean bildu ta ingudeari sartu-atero eragin genion arrats artea*. Erka bedi Otxoa de Arinek (1713: 35) darabilen beste honekin: «*bertatic ecusieraguñ cien bere divinidad-dea*».

Zenbaitetan *azi* laburtua aurkitzen dugu JRMren eskutizetan, Goizuetan egun erabiltzen dena; egun *zi* ere badago Urumeako herrian, harekin batean,

bukaeran *-i* duten aditzekin: (*e*)*kárrizi* ‘ekarrarazi’, *erámanazi* ‘eramanarazi’, *esámiñazi* ‘etsaminarazi’, *hasízi* ‘hasarazi’...

Beste batzuetan *-ra-* artizki zaharra erabiltzen du JRMk: *aldaratu* ‘aldarazi’ (bereiz, nahiz eta gure gutunean ‘[landareak, zuhaitz gazteak] aldatu’ esanahia duela irudi duen), *erakarri* ‘ekarrarazi’, *iraiki* ‘jaikiarazi’ eta *eragin* bera. Ez ditugu hemen sartzen arazle izaera galdu duten *erakutsi*, *eraman* eta *erantzun*.

## 18. Adlatiboa eta AL

Zenbaitetan *adlatiboa* + *aditz laguntzailea* ditugu, hots, aspektu markarik ez duen aditz forma, euskara batuko *atera dira*-ren erakoak:

- *Astelen arratseko olara zen.*
- *Bigar lorrera beharrak dira Kosme ta Agerrekoa.*
- *Eziñ kontura dira hoiek.*

Batean geroaldiaren morfemarekin ageri da adlatiboaren hondarkia duen forma:

- *Bada, ez naiz gehiago ola kandelan dagoño konsejuperako.*

Batzuetan *gabe*-rekin ere antzeko itzulia dugu:

- *Itzaiak baietz esanta beren gisa dabilza, honara gabe.*
- *Suerte ta enborrak kandelara gabe eman dituzte.*

Pare bat aldiz *ezkero* du lagun adlatiboak:

- *Erremienta hoiek sura ezkero malura franko badute.*
- *Tabernara ezkero zabarra omen da Bonbon hau behinzat.*

Hurrengo pasarte honetan ez dakigu ageri den *olara* hori tankera honetako forma den, edo *ekarri*-ren erako aditza dagoen ezabaturik. Ergatiboa ez azaltzea azalbide horietako baten alde mintzo da:

- *Maisuak esan dit Billabona behar duela olara, ta beharzen denean lenxeagodanik gatzigtzeko.*

Alegia, ‘maisuk esan dit Billabona behar duela olaratu’ edo ‘maisuk esan dit Billabona behar duela olara ekarri’. Beste aukera da JRMri ergatiboa idaztea ahaztu zaiola eta ‘maisuk esan dit Billabonak behar duela olara (etorri)’ esan nahi zuela pentsatzea.

Aintzat har bedi, gai honetaz kestione, Mendiburuk (1982), adibidez, franko dituela honelakoak: «*Eguin zuen idorrean bere eguitecoa, itsasora cèn*

guero tà itsasoz ichera tà bere Conventura» (20), «ecin escura zuen» (21), «Ara cèn pozic egun artan» (22), «becatura nai ezpadu», «San Pedro becatura cèn judutarren beldurrez» (25), «bere lagunetara cen Santua» (26), «Apostol Santo Thomas Ethiopira cenean» (29), «ecin cerura diteque» (39), «Cerura nai etzuèn Judas utzi» (43), «Festan argana cèn dama bat» (101), «santuac oriec ostico birequin azpira cituèn bein ere jaiquitzen ez uzteco», «amazazpi urtetara ceneco» (102), «Hurcibera cenean» (231), «illzeco puntura cenean» (323), «beste anitz eriotzaren ortzetara ciràn» (342)...

Zenbait aldiz *adlatiboa* + *-ko* ere badu oiartzuarrak, JRMk bezala: «guc gueren naiez tà becatuz galtzen ezpaditugu, segur-segurqui guganacò dira» (71), «Nic lur-etik (gurutzera) igan ezquero, nereganaco dut guzia» (130), «nere escuraco ditut munduco guciac» (131), «ònez-onean niganaco diranac» (132), «azquenean Jesusen escuraco zara» (135), «...azpiraco dituela daquieneren oin arinarequin» (300).

*Bague* 'gabe'-rekin ere ibiltzen du Mendiburuk: «...munduco guciei agertzen ciela mundu berean becatura bague» (99), «becatutara bague» (103), «Erantzun cion Santuac cegòla gueldiric, videra bague» (159), «becatuaren lecera bague vicitzeco» (180).

Beste autore batzuek ere badituzte holakoak, franko gutxiago izanik ere: «sustoz igaroa echera zan» (Kardaberatz, 1816 [1762]: 26). Mikelestorenak (1751), bere liburuaren izenburuaz landara (*Cerura nai duenac...*) hauek ere baditu: «Ni nere etzsayen (sic) escuetara ez nadin, cere etsayen escuetara zaran [...] Jesus ona» (65), «irugarren aldian lurrera zaituen gurutcea requin» (72).

Ignazio Bergara Arranbide olako arduradunak «Arranbiderako naiz bigar goizean» eta «Lubis maisua ere horrarako da noski» dauzka.

## 19. Trinkoen bokala, iraganaldian

Caminok (2009: 349-350) nafarreraren hogeita bost «ezaugarri bateratzaile ez eskusiboa» dakuski, horien artean «aditz sintetikoen iragana *a*-ren bidez egitea».

Gutunetan egon aditzean *nengoela* «normala» eta *nangoan* (*berantetsia nangoan*) «bitxia» ditugu lehen pertsonan, txanda banatan. Hirugarren singularrekoan *zegoen* (perpau nagusian, zehar-galderan eta erlatiboan), *zegoela*, *zegoen-ta* dauzkagu, baina baita *zegoala* bat ere; subjuntibo-agintera balioarekin *ixilik zagoela* 'isilik egon zedila' dugu. Pluralean *zauden* daukagu perpau nagusi batean eta kausazko mendeko beste batean, eta horiekin batera *zau dela* konpletiboa ere bai.

*Ibili* (*ebilli* Goizuetako gutunetan) aditzean *zabillela* ‘zebilela’ eta *zabilkidan* ‘zebilkidan’ ditugu.

*Eduki* (*iduki(tu)* eskutitzetan) aditzak *nauzkien* ‘neuzkan’, *zaukan* ‘zeukan’ eta *zaukaten* ‘zeukaten’ ditu iraganaldian, eta alegiazkoan *balaukate* ‘baleukate’. *Ekarri-k zakarten* ‘zekarten’ besterik ez du testuotan, eta *iritzi-k zeritzan* baizik ez, nahiz orainaldian *daritzat*, *daritza* dauzkan. *Jakin-ek etze-kiela* ‘ez zekiela’ du. 1753ko predikuan (Reguero, 2018 [2015]: 214, 216) *zauzquien* ‘zeuzkan’ dago, eta honekin batean \**edun* aditzaren iraganaldiko *a*-dun forma bitxiak: *aliviatu zanutenac*, *confortatu zanuena* (212), *idequi zanuena* (216), *iduguitu zanuena* (217). Erka bitez hauek gorago aipatu *nangoan*-ekin.

Hortaz, esan dezakegu *a*-dun adizkiak gehiengoan izanagatik, badirela, orobat, *-e*-dun formak, eta ondorioa da arlo honetan ere Goizuetako euskara historikoa nafarreraren eta erdialdeko hizkeren artean mugitzen zela. Egungo egoera ere ez da oso bestelakoa: *egon* adizkian *neon* (*nengon*) ‘nengoen’, *engon* ‘hengoen’, *zon* ‘zegoen’ dauzkagu, eta hauen aldamenen *gaunden* ‘geunden’, *zaunden* ‘zeunden’, *zaunten* ‘zeundeten’ eta *zauden* ‘zeuden’ (1897ko udal ordenantzetan ere *lenago zauden moduan* ‘lehenago zeuden moduan’ dago, Satrustegi, 1996: 97). Egun *ibili* aditzak *-a*-du iraganaldian, eta orobat *eduki*, *ekarri*, *eraman* eta *jakin*-ek (Zubiri eta Perurena, 1998: 141-145).

Frailek eta Frailek (1996: 33, 44, 125, 127, 128) *egon*, *ibili* eta *eduki* aditzetan *a*-dun formak biltzen dituzte Oiartzunen, baina *jakin* aditzarenik ez (126, 128).

## 20. *Heldu* aditzak *etorri*-ren trinkoak ordezkatu ohi ditu

Caminok (2009: 350) nafarreraren hogeita bost «ezaugarri bateratzaile ez eskusibo»-en artean hurrengo hau sartzen du: «“Etorri” aditzaren forma trinkoak aginte perpausetarako gelditu izana; adiera puntukarirako “eldu izan” erabiltzea».

1753ko predikuan (Reguero, 2018 [2015]) *orra non eldu diran* ‘horra non datozen’ (213), *eldu den au* ‘datorren hau’ (214) ditugu, eta horiekin batean *dator* (216). XIX. gizaldiko udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996) ez dira ez *eldu* eta ez *dator* ageri. Mikelestorenaren liburuan (1751) beti *etorri* aditzaren trinkoak aurkitzen ditugu.

Ordea, JRMren eskutitzetan *heldu* aski usaiakoa da; etsenplu hauek ditugu, besteak beste:

– *Antonsoro aldean ere badaude atereak, ta honara etorzen dira hortik heldu diranak ere.*

- *Endara igandean heldu baliz ('baletor') bezañ preskura ederrean orantxe etorri da.*
- *Eraringo hoiek beharko dute pagua, ta heldu diranean ardoa ta ogia ere bai.*
- *Gabrielek ta bere anaieak orañ ari diran meatzetik aterea da, orañ heldu den bezalakoa.*
- *Gaur heldu diranaz gañerakoak astelenean bealduko ditugu burnitara.*
- *Heldu zaio irabazia bakoitzari, espensak pagatuta, 19 pezetas y 2 cuartos.*
- *Hemengo tretxu honek azal handia du eta bera ere, tretxua, handiskoa, ta ekusiko dugu txabala nolakoa heldu den.*
- *Hoiien deklarazioan terzia kendu ta heldu da urte bakoitzeko 2.000.*
- *Hortik heldu diran burni hoiek laster eraman behar duten gaztiga beza.*
- *Mearik ez da bada iñondik heldu honara, ez Irundik ta ez Errenteriatik.*
- *Ola handiko hoiek horrara etorri behar dutela diote, berori honara heldu ezpada.*
- *Orañ Motela horrara heldu denean konponduko da nahi duen bezala.*
- *Ta dirua heldu denean, bakoitzari burniarena gelditu ta paperean asentatu.*

Salbuespena batez ere denbora adierazten duten sintagma batzuetan dugu, hauetan dator edireten baitugu:

- *Bada, hiru hoiek diote igande datorrenean ('datorren igandean') zorzitik aurrera ez direla lengo jornaletan ariko.*
- *Bautista mealleak harzen du, ola gelditzen denean botatzeko, datorren astean olako lanak aterako dira-ta.*
- *Martin orañik hasi ez da; datorren astean hasiko al da!*
- *Ta planta txarra halere zaukan egun, eta datorren astean egiñ beharko du adobazio[a] honek, Martin bera sendatzen ezpada.*

Hauk ez daude guziz ados Caminok dioenarekin, ez eta Goizuetako bereko egungo erabilerarekin, orain *heldu den astean, heldu den igandean* esaten delako. Bestalde, aginte balioarekin ere ediren dugu gutun batean:

- *Ta frantsesa ez da agertu, ta gaztigatu diot datorrela berehala.*

Tankera honetakoak, subjuntiboaren eta aginteraren artean daudenak, ibiltzen dira Goizuetan orain ere: *datorrela nahi badu*.

Beste batean *ezin*-en lagun aurkitu dugu eskutitz batean, *-ke* aditz morfemarekin:

- *Datorren astean eziñ datorkeala.*

## 21. Joan-en orainaldiko adizki trinkoak

Eskutitzetan ez da Nafarroan hain hedaturik dauden (ikus Salaberri, 2000a: 910) *n(o)aie*, *goaie* edo *d(o)aie*-ren erako adizkirik ageri, haietan *noa* eta *dihoa* besterik ez dago, eta egun ere Goizuetan ezezagunak dira *-ie*-dun formak (*noa*, (*y*)*oa* ‘hoa’, *dio* ‘doa’ dauzkagu; Zubiri eta Perurena, 1998:142).

Zelaietak (2008: 85, 98) erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa finkatzen duen bigarren ezaugarria aztertzean honela dio: «2. “joan” aditzaren adizkiak:<sup>7</sup> Saldiasetik mendebalera hasten da aditz honen paradigma aldatzen, Nafarroa gehienez ohikoak diren adizkien ondoan, hurrengo herrian, Eratsunen, bertzelako formak ditugu eta. Baita Goizuetan ere». Zuazok ere (2014: 108) adizki horiek (*noaie*, (*g*)*oaie*, *doaie*) aipatzen ditu euskara nafararren ezaugarrien artean eta, esan bezala, Goizuetan ez dago holakorik. Alderdi honetatik, beraz, nafarreratik kanpo legoke Urumeako herria, JRMren garaiaz geroztik gutxieneko kontuan.

## 22. Zenbait aditzen jokabidea

*Ari izan* aditza honela jokatzen da gutunetan: *ari dira*, *aritzen da*, *aritzen dirala*, *ari ziran*, *aritu dire*, *aritu zen*, *ez direla [...]* *ariko*, *ez aritzeko*, *hor aritzera*, *kabillan aritzekotz*, *olarik aritzekotan...* Baina *ariz* dago, *ez arituz*: «*ola gelditu da eskarpa guzia erreta eziñ ariz*». Bestalde, eta erabilerari doakionez, egun Goizuetan bezala argumentu bakarreko adizkia ibiltzen da, datiboa age-rian dagoenean ere: *Niri esaten aritu da*. Baina etsenplu bakarra da.

*Nahi izan* aditza honela jokatzen da: *nahi luke*, *nahi lukete*, *eman nahi balitu*, *nahiko dute*.

*Zor izan* dela eta, behin *zorko da herria* dugu, geroaldiko forma:

– *Hoietarako 87 kargaren balioa zer den; hoietaz gañerako[a] zorko da herria, 87 kargaren balioa zor, ta hoietarako 1.026 reales vellón emanak izanzen dira Buruzuria pagatzearekin.*

Erka bedi, geroaldi den aldetik, Mendibururen honekin (1982: 220): «*Aingueru bacar bana baicic ematen ezpaligu ere, anitz età asco zorco guenioque gueren Jainco maitagarriari*» (220).

<sup>7</sup> Autore honek *nu(a)ye*, *naye*, *nae*; *gu(a)ye*, *du(a)ye* aipatzen ditu (*ibid.*, 85), bestek beste.

### 23. \*io aditzaren lekunea

Hau maiz ibiltzen du JRMk, eta behin baizik ez da perpausburuan azaltzen:

- *Baltasarrek dio eska dezala.*
- *Berorren kontura botako duela dio.*
- *Bolbora balute Eguerritako milla kintal egiñen luketela diote.*
- *Egiñen zuela omen zion.*
- *Ola handiko hoiek horrara etorri behar dutela diote.*
- *Ongi litzakeala dio.*
- *Orañik gaztea da, baño maisukoan ere ongi samar ari dela diote.*
- *Sarobeko nagusi honek dio berau etorri gabe bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola lenbailen.*
- *Zuloakoak idiak trukatzeko modua duenean behar duela dio dirua.*

Honetan dugu perpausburuan:

- *Dio berorren mandoai eman tiola ferrak...456.*

### 24. Egon ‘uste izan’ aditzaren lekunea

Aditz hau ‘uste izan’, ‘zalantzan egon’ adierarekin ibiltzen denean bukeran agertzen da:

- *Pezeta ote zuen nago, niri hala esan didala nago.*
- *Ta hura sartu ote dudan oraño burnietan nago.*

Baina ondoko honetan bigarren tokian dago, menturaz konpletiboa luzea delako:

- *Ni nago ola-jaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpoko mea hoietan txar asko ateratzen da.*

### 25. Behar izan-en lekunea

Eskuarki Hegoaldean ibiltzen den ordena dago, baina bada salbuespen bat, Iparraldekoen eran antolaturik dagoen bat:

- *Arrazoiak behar dute izan [...].*

Honelakoak, alabaina, Bortzerrietatik ekialderagoko hizkeretan ere badira Nafarroan (P. Rekalde, a.a.), baina ez Iturenen (A. Iñigo, a.a.). Aezkoan, esaterako, ordena hori da ohikoa *behar* eta *nahi*-rekin (Camino, 1997: 506-507).

## 26. *Ahal izan*-en erabilera

Arruntean \**edin* edo \**ezan*-en adizkiak edireten ditugu beste hizkera batzuetako *ahal izan* adierazteko, eta *al* eskuarki batuko *ahal* ‘agian’ desirazkoa bide da, baina etsenpluak bakanak dira eta ez txoil argiak. Hona hemen horietako batzuk:

- *Asentuak hor izanen al ditu!*
- *Martin orañik hasi ez da; datorren astean hasiko al da!*
- *Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote kandelan. Hurrengo jaiean ageriko al da zertan gelditzen den!*

Dena dela, bitan posibilitatea adierazten du, *-ke-rik* gabeko \**ezan*-en adizkiarekin doanean:

- *Arragoa gaur kargatzen hasitzen gera; aste honetan erretzeko egurra bildu al badezagu behinzat.*
- *Lurрак iraulzeko denbora da ta libratu al baditzagu behinzat.*

Ondoko hau ere tankera bertsukoa dela dirudi:

- *Hau kastatuko al dugula eskriboak esan digu.*

Behin edo beste ez dakigu ongi zer *al* mota den testuan dagoena:

- *Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak, maiz puxkaka emanagatik ezagun gabe juanen al ziran.*

Irudi luke ‘mentura’-edo adierazi nahi dela. Apika honela ulertu beharko da: «*akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak; maiz puxkaka eman ditugulako konturatu gabe joan ziren behar bada*».

Beste honetan Euskal Herriko erdialdean galderetan (zuzenetan edota zeharkakoetan, non nola) erabiltzen den *al* daukagula dirudi, baina originalean galdera markarik ez dago, eta ezin segururik jakin, testuingurua horixe ikustearen alde mintzo bada ere. Gutunetako kasu bakarra litzateke, nolana hiko gisan:

- *Ta orañ bi kintal al dira? Noski, lau sorta dira behinzat, astelenean etorriak.*



## 27. *Ezin izan-en erabilera*

Ordenari doakionez, gehienetan *ezin* + aditz nagusia + \**edun*, *izan* ohi dugu:

- *Burnirik eziñ berotu da.*
- *Ezin bildu genuen.*
- *Ezin harrapatu dut.*
- *Ezin kendu dut.*
- *Eziñ arkitu duela / eziñ arkitu dute.*
- *Eziñ ebilliko direla.*
- *Eziñ entenditu baditu.*
- *Eziñ erakarri dut.*
- *Eziñ kontura dira hoiek.*
- *Eziñ moldatu omen da.*

Baina \**ezan*-ekin ere agertzen da, artetan:

- *Eziñ eman dezakeala ferrarik.*
- *Eziñ geldi dezakeala.*

Geroaldia egiteko morfema aditzari paratzen zaio, ez *ezin-i: berai ezin emanen zaie, eziñ ebilliko direla.*

Inoiz adizki trinkoren batekin ere edireten dugu: *eziñ datorkeala* ‘ezin etor daitekeela’ edo ‘ezin etorriko dela’.

Mikelestorenak ere (1751) *ecin ba zoazque Elizara* (6) dauka, eta, bestalde, *ecin ecusi ditut* (26), *ecin eraman duen* (28) erakoak dira usaiakoenak lesakarraren lanean. Zernahi gisaz, *ecin erran ditequean baliozco present bat* (38) ere badu.

## 28. Aditz batzuen *-tu* forma analogikoa

Hauk edireten ditugu eskutizetan, besteak beste: *egondu direla, egondu naiz, egondu zen, idukitu duen, izandu da, izandu ezkerro, izandu gera, izandu zait, izandu zen, izandu ziran, izandu zutela.*

Hau usaiakoa izan da eta da Nafarroako hizkera anitzetan (ikus Salaberri, 2000a: 911). Gutunotan, zernahi gisaz, *egon* eta *egondu*, *iduki* eta *idukitu*, *izan* eta *izandu* pareak dauzkagu; Mikelestorena lesakarrak ere (1751) *egon* eta *egondu* ditu (ikus hiztegia). 1753ko Goizuetako predikuan (Reguero 2018 [2015]: 222) *egondu*, *jaquindu* eta *idukitu* daude, eta horiekin batean baita *izan* eta *iduki* ere.

Oiartzunen ere, gaur egun, ohikoak dira partizipio analogiko hauek: *izandu*, *eondu*, *bizittu*, *galazitu* ‘galarazi’, *ereiñi* ‘erein’, *ateatu* ‘atera’ (Fraile eta Fraile, 1996: 104). Goizuetan berean, orain, *biáldù*, *bizíttù*, *eóndù*, *eúkíttù*, *izándù* eta abar ditugu.

## 29. Bokal irekiarekin bukatzen den partizipioa + -a

Honelakoetan, egun Goizuetan ardurakoa den moduan, *-ea* egiten da eskutitzetan: *aterea*, *botea*, *botetan* ‘boteetan, botatakoetan’. Hala ere, hau ere badugu: *zepoa atera edo hautsia zegoela*.

Kontuan har bedi testuan *atere* ‘atera’, ‘irten’ ere azaltzen dela, eta egun forma hori Goizuetan bizirik dagoela (ikus hiztegia dioguna).

## 30. Partizipioa eta instrumentala

Partizipioak instrumentala hartzen duenean *-az* ohi dugu gehienetan eskutitzetan:

- *Bakoitzari len emana geldituaz pagatuko nuke.*
- *Errotatik iriña ekarriaz.*
- *Gure karrotoa herriak pagatzen zuen ikatza hari emanaz.*
- *Ikatza neurriaz ‘ikatz neurtuaz’.*
- *Kandelan paratuta bajatuaz ekarriko dutela.*
- *Nekazaleai berorrek bealdu artea puxkaka emanaz.*
- *Ta gañerako hamabi orgak berak pagatu ditu deretxoak ezkutu lodiak neregana bealduaz.*
- *Ta idienzat lera bidea egiñaz hasi gera.*

Baina *ezin*-ekin doanean *-z* hutsa dugu:

- *Arrago egur honetara iñor eziñ erakarriz, beti gabilza egueldi onak utzita.*
- *Eta esan dit abunztegia eskatzera ezin atrebituz zegoala.*
- *Ola gelditu da eskarpa guzia erreta eziñ ariz.*

Goizuetako 1753ko predikuan ez dugu alerik harrapatu. XIX. mendeko udal ordenantzetan (Satrustegi, 1996) *estorbatuaz* (305, 309) eta *contatuaz* daukagu, eta horiekin batean baita *baliatuz* ere, denak 1897an.

Egun Oiartzunen -(e)z eta -az erabiltzen dira (Fraile eta Fraile, 1996: 106): *entzunez, janaz, ikusiyaz, patuaz* ‘paratuaz’, *iakutsiz* ‘erakutsiz’, *ikasiz*. Goizuetan, ordea, beti -z dago bokal ondoan (*ekárriz, (e)kúsiz, geldíttuz, neúrtuz, páruz, yárriz...*) eta -ez kontsonante ondoan (*eónez, erámanez, íñez...*).

### 31. Partizipioa + -tze

Batzuetan -tze atzizkia partizipioari gehitzen zaio, ez aditzoinari.

- *Guri entregatutzen diguna.*
- *Pagarazitzen diote.*

Hau *hasi* aditzarekin franko ohikoa da:

- *Gabaren gañera ez hasitzeagatik.*
- *Hasitzea gonbeni litzake.*
- *Hasitzean beharko da.*
- *Hasitzeko behar lukeala.*
- *Hasitzeko prest.*
- *Hasitzera goaz.*
- *Hasitzera orduko.*
- *Hasitzen badira.*
- *Kargatzen hasitzen gera.*
- *Ola hasitzeko aurreko larunbatean.*
- *Ola hasitzeko denboran.*

Egia esan, *haste-* bi aldiz baizik ez da ageri:

- *Atzo Isasolako karraidoreai erakarri nitiozten ikatzak...56 cargas, olan hasteko ikatza falta izanta.*
- *Errenteriako olatxokoak gelditu dira, ta izanen dira lagunak hasteko.*

Mikelestorenak (1751) *Meza assitzeracoan* (41), *Calvarioco videá asitzean* (62), *asitcen da* (83) dauka, baina baita *astera noan* (62) ere.

Oiartzunen (Fraile eta Fraile, 1996: 105, 106) aditzak bi silabakoak direnean gertatzen da hori batik bat: *ustutzen, galdutzen, asitzen, urtutzen* ‘ur-tzen’..., baina hirukoekin ere inoiz gauza bera dugu: *eositzen, jolastutzen*.

Goizuetako eskutitzetan, ikusi den eran, partikulariki *hasi* bi silabakoarekin da ohikoa, baina, esan bezala, lauко *entregatu* eta *pagarazi*-rekin ere badaukagu. Herriko egungo hizkeran ere usaiakoak dira -itzen, -tutzen bukarak: *asítzen* ‘hasten’, *azítzen* ‘hazten’, *áztutzèn* ‘ahazten’, *eróitzen* ‘erortzen’,

*kendútzten* ‘kentzen’, *neurritzen* ‘neurtzen’, *óstutzen* ‘osten, ebasten’, *oztú-tzen* ‘hozten’, *urtútzen* ‘urtzen’, *ustútzen* ‘husten’... Arazlearekin ere ibiltzen da aipatu *-itzen* akabaila: (*e*)*kárrazitzen* eta (*e*)*kárrizitzen* ‘ekarrarazten’, *pagázitzen* ‘ordainarazten’, *pázitzen* ‘pararazten’, ‘ezarrarazten’, etab.

## 32. Aditzen erregimena

*Ahaztu*-k absolutiboa (une bateko gauza denean) eskatzen du: *Kontua bealzea aztu ta orañ harrapatu dut asientoa.*

*Akabatu*-k instrumental mugagabea eskatzen du: *Bigar akabatzen dira ateratzez.*

*Akordatu*-k instrumentala: *Ez ninzan akordatu hoietaz.* Nolanahi ere, irudi du aditz izenetan, egun Goizuetan-eta bezala, absolutiboa onesten zuela, pasarte osoa hau baita: *Ta espensan sarzea ez ninzan akordatu hoietaz.*

*Aspertu*-k soziatiboa galdegiten du: *Len ere aspertu giñan harekin.*

*Atrebitu*-k adlatiboa: *Ahunztegia eskatzera ezin atrebituz zegoala.*

*Behartu*-k ('behar izan'-ek) absolutiboa eta genitiboa: *Artikuzako puxka honetarako behartu dute Xardea. / Fortalezakoa behartu ezkerro fronto hale-re. / Markosen beharzen bada* ‘Markosez behartzen bada’, ‘Markosekin behartzen bada’. Erka bedi Mendibururen (1982: 220) honekin: «*Baña bat baño gueiagoren behartzen garaneco guc behar adiña prestatu dizquigun onguillea dà gure Jangoicoa*».

*Bete*-k instrumentala: *Itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz.*

*Ebilli*-k adlatiboa, inesiboa eta soziatiboa eskatzen ditu: *Baltasarrekin ekusten ebilli zen. / Beti salsa hoietan ebilli gabe. / Guziak horrara eziñ ebilliko direla. / Hor ikatzetan ebilzeko esan bizaiote. / Lau egun behiekin ebilliak. / Aditz honek *-ka*-dun forma ere onartzen du: *Irundar hoietan itzai bat dabilla meatan dirua etorri den galdaka.**

Egon soziatiboarekin arrunt ugaria da, eta instrumentalarekin ere azaltzen da: *Bi astean Josepek agoak apainzen dituela hemen aritu da, Tomas miñez egondu da-ta.* Absolutiboa ere onesten du, bistan da: *Franzisko Antonio de Isasa, hor mandazai egondua, ezkonzen da Manuel Fagotxikikoaren alabarekin* (ikus izen morfologiaz mintzatzean prolatiboaren inguruan dioguna). Azkenik, *-ka*-dun forma eraman dezake: *Maisua ta berotzalle hau ere galdaka daude deus ageri den.*

*Eman* aditzak *-tzen* edo *-tzera* eskatzen du, aditz izenetan: *guk yaten eman*. / *nik yatera eman*. Hauek ere, beste zenbait ezaugarriekin agitzen den moduan, leku banatara begira daudela ematen du: *yaten eman* erdialde-mendebaldekoa da eta *yatera eman* nafarra eta ekialdekoa (ikus Salaberri, 2000a: 912). Gaur egun Goizuetan *yáten emán* esaten da.

*Errezibitu*-k absolutiboa - partitiboa, ablatiboa eta inesiboa ditu lagun: *ikatz errezibituak zenbat diran*. / *Ilzerik eziñ errezibitu dute*. / *Indianoagandik errezibitu ditut ikatzak*. / *Olan errezibitu ditugun 56 karga eta Anatxurik eramanak 31 karga, guziak dira 87 karga zor duguna*.

*Galdatu*-k instrumentala du bidaide, besteak beste: *Bakoitzak bere puskaz galdatzen du*. / *Hemen galdatzen dute hoietaz ere*. / *Yornalaz galdatzen dute*.

*Gaztigatu* aditza arruntean perpaus osagarriarekin azaltzen da, baina behin edo beste instrumentalarekin ageri zaigu: *Ogi egilleak gaztigatu du, errotaria pagatzeko behar duela-ta, ogien diruaz*. / *Xantus ikatzgilleak esan dit berorrek gaztigatu diola Simon Aiudaz horrara agerzeko, ta atzo mandatua hartu omen du*.

*Hasi*-k inesiboa eskatzen du: *eskatzen hasiko dira*. / *hasi giñan ekarzen*.

*Hurnitu*-k ablatiboa, absolutiboa, inesiboa eta sozietiboa: *Fagotxikin baziran barra batzuek ta haiekin hurnitu da*. / *Gurdi bat besterik etzen hemengorik, ta biharamunean gero gañerakoak hurnitu ziran hemendik*. / *Hemen hurnitzen dira kuadroak*. / *Lamothi bealdu tiot orga kabilla ta orga kuadroa, 4 arrobas y 16 libras kabillakin hurnituta*. / *Ta orga hurnitzea nahi badu, hurnituko dugu*.

*Iritzi* aditzak instrumentala edo datiboa galdegiten du: *Galdatu diot zer daritzan, esamiña horietaz zer daritzan, eta esan dit honi daritzana dela [...]*. Nolanahi ere, bi aldiz genitiboarekin, *bere*-rekin ageri da, gutun berean: *Puska guziak, eta bere daritzana pagatu don Feliz Olaitzolako yabeari*. / *Bere daritzan prezioa egiñta bealzeko pagua*. Azken hauen *bere* horiek direla eta, cfr. honako hau: *Hemeretzi kargaren gañerakoak Anatxurik jaso ditu Alziberko aberekin Olaberrira, eta berorrek bere tokatzen zaiona beal beza garbiro, 100½ pezetas*. Ikus joskeran erlatiboaz mintzatzean dioguna.

*Izan*-ek inesiboa eta adlatiboa eskatzen ditu: *Anatxuri egun izandu zait kontuak egiten*. / *Ez naiz itxean izandu*. / *Izandu gera biak Sarastirengana*.

*Jaso, yaso*-k absolutiboa eta adlatiboa galdegiten du: *Anatxurik jaso ditu Alziberko aberekin Olaberrira*. / *Gure olara jaso ditu honek 39 kargaren karretoa*. / *Hirugarren ikaztogia yasotzen ari dire, ta Artikuzakotik batere ez, zergatik gureak era hobean diran yasotzeko*. / *Olaberrira jaso diran 56 kargak*. / *Olaberrira jaso dituen 39 kargan karretoa*.

*Juan-ek adlatiboa eskatzen du normalean, baina behin inesiboa ere badu: ...eta esan dit Joseph Antonen semea itsasoan dihoala.*

*Kalte izan-ek instrumentala galdegiten du: Ni nago olajaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz.*

*Kargatu-k absolutiboa, instrumentala eta soziationa ditu lagun: Bigar kargatzen dira bost orga hortik etorri den itze gaiarekin. / ...burniaz kargatu ta gañerakoak Zaria aldeko ikatz haietara bealdu. / Ignazio de Bengoetxea kargatzen du 1½ quintales.*

*Kaso egin instrumentalarekin edireten dugu: ...eta burniaz kasorik egiñ gabe jua del. / ...ta kamañara jua, lanaz kasorik egin gabe, ta lo etzin da.*

*Oroitu-k instrumentala du aldamenen: Baltasarrek esan dit suertea partitzeke kuarto haiez oroitzeko. / Feliz igeleak esan dit haren mandatuaz oroitzeko.*

*Pagatu aditzak absolutiboa eskatzen du zerbait denean, eta datiboa zerbait norbaiti ordaindu behar denean, baina zenbait kasutan norbait pagatu ere badago: (Anatxurik) eziñ, eziñ entenditu baditu ongi, Buruzuria paga beza. / Aurten kastatzeko urtea dugu, inñudea ere hillean hamar pezeta pagatu behar dugu-ta. / 87 kargaren balioa zor, ta hoietarako 1.026 reales vellón emanak izanen dira Buruzuria pagatzearekin.*

### 33. Aditza galdegaitzeko egin erabiltzen da

Hau ardurakoa izan da eta da inguru honetan eta beste batzuetan, aditza galdegaitako hartzen denean:

- *Anatxurik etorri ta eraman egin nahi du.*
- *Bestela dirua bealzekotan kastatu egiñen dutela.*
- *Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten, baño maisukabia ardatzak azpian hartuta goiz artea utzi egin zuten.*
- *Gaztiga beza eman edo bealdu egin dion inñorekin.*
- *Kabiguña boban eskatu ta lotu egiñ dute.*
- *Nor zertara dagoen jakin nahi dukete, edo arrimarazi egin nahi lukete.*
- *Zeharretik yo gabeak erdiak, ta beste batzuek pasatu badere egin ziran.*

### 34. Alren ezabaketa eta partizipioaren erabilera

Jakina denez, euskaraz aditz laguntzailearen ezabaketa maiz gertatzen da, hizkera mintzatuan bereziki. Helburuak bi izan daitezke: 1. Ekonomia erdies-

tea, 2. Perpaua hanpatzea. Honetaz ikus Iñigo, Salaberri eta Zubiri (1995). Ondoko hauetan hanpadura dugu:

- *Anatxurik etorri ta eraman egin nahi du, ta gero karraidoreai kargatu, baño ematera orduko norenzat den jakiñik ematea hobe da.*
- *Aranederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko eta herri guzia hargana dihoo-ta, dirua eskuan nahi, tratu anitz erabilzeko.*
- *Fagotxikiko neskatxa hau ere beti hemen zabilkidan ondotik, eta nik eman tiot 20 pezeta, ta gañerakoak ere nahi!*
- *Gizon hark berorrek pezeta agindu ta hark gehiago behar zuela, txaponen bat-eta ziola.*
- *Guziak saldu nahi hoiek, suertea ta ola guziak.*
- *Haiek gure ordenaz dabillega uste, ta guk haien ordenaz dabillega uste, ta bitartea nahi duena egin du.*
- *Hori ezpaliz, nahi den moduan hartuko litzake, baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezkeru, ta esamiñetan hainbeste egon!*
- *Itzairik eziñ billatu, ta bi orga kuadro hemen daude orañik.*
- *Lagunak haren kontura etorri nahi ez, ta Martiñen kontura etorri ziran.*
- *Niri etorri zitzaidan hau, gobiernokoekin konpondu zela, guk jaso behar ditugun ikatzak honek harzeko dituen karraidoreai erakarzeko, eta karretoaren aldera ikatza beretzat eraman!*
- *Pello hasi da erremienta paratzen ta ardoa beharko, ez da sagardorik.*
- *Sidro ageri ez, ta haren agoa Josepek tiratuta nik Joseperi emana 2 reales.*
- *Ta bigarko ikatza ere falta, eta gelditu dira bi olak.*
- *Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten mandazaiak; luma bat pisatzen ez egurrak, ta halere!*

Aditza trinkoa denean, hanpatu nahi bada, partizipio itxuran ematen da, edo partizipioa eta *-ki* atzizkia erabiltzen. JRMren gutunetan bakarrik partizipioa edireten dugu, *jakin* aditzarena, egun bai Goizuetan eta bai Oiartzunen (Fraile eta Fraile, 1996: 105) *jakinki* ibiltzen bada ere:

- *Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau ez yakin egiñen duten.*
- *Karga haiek ez yakin honara emanen dituzten.*
- *Otsoaneakoak esan dit hamalauraño etsiak zaudela, baño hurrengo jaieraño ez yakin kontrariorik ager zitekean.*
- *Ta orañ ez yakin Seño honekin zer egiñen duten.*

Maiz laguntzailea -eta aspektu edo aldiaren morfema- ekonomiagatik ezabatzen da, hauetan bezala:

- *Bianizan aritu zenean borra bat eraman ta ez du sekulan entregatu.*
- *Endarak gaztigatu du meza enzun beharra dela, ta bigar enzun ta etorriko dela.*

- *Larunbatean elementutan olatik yoan ta igandean egueldi txarraz gelditu, ta astelenean illunabarreko olara.*
- *Lorenzo Zabalak, egitera etorri zenean, ingudeari su eman arratsean, ta biharamunean arratseko hasi ziran.*
- *Ta Konsejuko goiti eraman ta Belderrainek esan dit [...].*
- *Ta lo etzin da, ta hurrengo agoan illunzeko aurrean iraikei, ta orduan hasi da lanean.*

Batzuetan ez dakigu ekonomia edo hanpadura den:

- *Igandean 20 kuartilluan paratu zituzten, ta batere bajatu ez, ta esan zuten nahi zuenak memorialarekin presentatzeko.*
- *Ola hasitzeko aurreko larunbatean eguna pasatu zuten ola perparatzen, ta astelenean, arratsaldean, haspoari tiratu zitzaion, ta bitartea guk yaten eman.*

### 35. Ustezko aoristoa edo lehenaldi narratiboa

«Aoristo» izena greziera zaharretik hartua da, eta jatorriz ‘(aditz denbora) zehaztu gabea’, ‘zehaztasunik gabea’ esan nahi du. Deizio honek greziera zaharrean iraganaldi burutua adierazteko ibiltzen ziren aditzak izendatzen ditu, hau da, iraganean gertatu den ekintza bukatuari egiten dio aipu (Comrie 1976: 12). Greziera zaharrean zuen esanahia euskarara ekarri da, antza denez XV-XVI. mendeetako euskarazko aoristoak (edo «*lehenaldi narratiboak*») erabilera bera baitu (Aldai, 1998: 378; ikus Mitxelena, 1972: 310 [18 oin oharra]). Formari dagokionez, XV-XVI. mendeetako lehenaldi narratiboak, zenbait aditz trinkoz (*egin, etorri, ekarri, joan...*) landa, forma perifrastikoetan batez ere egun subjuntiboarekin ohikoak diren \**ezan* eta \**edin* erroak hartzen ditu oinarri (Mounole, 2011: 57-59).

Etsenplu bakarra aurkitu dugu gutunetan, eta zalantzazkoa da, egileari tarteko *-ke-* (*-que-*) idaztea ahantzi zaiola ere pentsa daitekeelako. Bestalde, testuingurua, *-ke-* dagoela kontu egiten balitz, ez litzateke batere argia (izkirio lodia gurea da):

- *Niri esaten aritu da diru hartuen kontua: orañ hiru urte hasi lanean, ta bi urtetan errenta pagatu, ta aurten beren deretxo batetik pagatu dutela errenta, mandoarenzat zerbait egiñ bazezaten, ta hogei pezetako bat ta urretxikiak biñakako batzuek.*

Letra lodiz izkiriatu horrek ‘egin zuten, bai’ esan nahi duela kontu egin daiteke, hots, lehenaldiko ekintza burutua adierazten duela, Leizarragak darabiltzan hauen modutsukoa dela (izkirio lodia gurea da):



- *Baina Phariseu eta Legueco doctor harenganic batheyatu etziradenéc Iaincoaren conseillua arbuaya çeçaten bere buruén contra.* (San Lukas, VII, 30; 115. or.)
- *Eta hetarát inguru behaturic asserrerequin, eta hayén bihotzeco obstinationeaz contristaturic, diotsa guiçonari, Heda eçac eure escua: Eta beda çeçan, eta haren escua, bercea beçain senda cedin.* (San Marko, III, 5; 408. or.)

Edo Perez Lazarragoak (c. 1567-1602: 1153)<sup>8</sup> darabiltzan hauen tanke-ratsukoa (letra lodia gurea da):

- *Silueroc ençun eguiian orduan Doridoen beruac utra espantaduric jaguiçidin eta artueuen norc bere armac.*

Zalantzarik gabe, garaiari zein euskalkiari begira ez da erraza hemen aoristoa edo lehenaldi narraitiboa dugula pentsatzea. Garaiaren aldetik, gai hau ukitu duten lanetan (Lafon, 1943: 76-78; Lakarra, 1997: 516; Aldai, 1998; Mounole, 2011: 57-63; Reguero, 2019: 451-452, besteak beste) erakusten da, kasuren bat salbu, aoristoaren erabilera gehienak 1600. urterako edo hamar-kada batzuk geroagorako lekutzen direla. Euskalkiari dagokionez, Nafarroa Garaiko testuetatik Isastik 1620an bildutako esaera zaharretan lekukotzen dira aoristoaren adibide bakarrak (Reguero, 2019: 451-452). Gainera, erre-frauek hizkuntzaren egoera zaharragoa islatzen dute eta, hortaz, ezin da esan Isastirenak XVII. mendearen hasierako hizkuntzaren adibidea direla. Honetaz gain, hemen eztabaidagai dugun testigantzan *ba* hori erdian sartuta egoteak ez ditu gauzak errazten, eta testuinguruak ere ez.

Zernahi dela, Ubillosen (1978 [1785]: 50) honekin aldera daiteke gure adibidea, *ba-* horren erabilerari doakionez: «...*ta illeraci ere bacituen Profetetatic batzuec*». Gutunetan beretan pasarte hau ere badugu: «*Tomas igeleak kuarto haiez oroitzeko. Irundar hoiek ere noizbait konpondu behar lirake, ta arrago-ako jornalak ta bost orgaren porteak ere badira zor 126 pezetas y 3 reales vellón*». Nolanahiko gisan, bi etsenplu hauetan *ere* adberbioa agertzen da eta honek, maiz (ez beti JRMren gutunetan), aditzari (aditz trinkoari gaur egun) *ba-* gehitzea eskatzen du.

---

<sup>8</sup> Liburu honen orrialdeen zenbaki altuen inguruan ikus orain Bilbao eta beste (2020: 29).

Azkenik, ondorio hau atera daitekeela uste dugu: *egiñ bazezaten* hori *egiñ bazezaketen* edo, hobeki, *egiñ bazezaketen ere* dateke, egileak *-ke-* sarztea ahaztu duen arren. Hala iduri du dela.

### 36. Aferesia aditzetan

Hau fonetika-fonologiari dagokion ezaugarria izanik ere, aditzetan agertzen da anitzetan egungo hizkeran, hainbeste non «erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioarekin batean doazen ezaugarri supradialektalak» direlakoen artean sailkatu baitu Zelaietak (2008: 98-99). Honela dio ikertzaile honek: «1. Aferesiak: *zaundu, man, torri, kusi...* Goizuetan, Saldiasen eta Eratsunen bederen Malerrekan bezain bizkor atzeman ditugu. Ezkurran eta Leitzaan ahultzen bide da fenomenoa. Gipuzkoaz den bezainbatean, Donostia bitarteko hizkeretan bada zer bait, bereziki, Irun-Hondarribian eta Oiartzunen». Zuazok (2014: 108) euskara nafarrean «azenturik gabeko bokalak galtzeko joera» dagoela dio, eta aferesia izandako *ekarri* > *kárri*, *ikusi* > *kúsi*-rekin batera ele sinkopatu batzuk ere aipatzen ditu (*aberats* > *ábrats*, *atera* > *átra*, *batere* > *bátre*) eta gehitzen «gertakari hau» (azenturik ez duten bokalak erortzea, alegia) Gipuzkoako ipar-ekialdean ere badela.

Aztergai ditugun eskutitzetan, ordea, *eman*, *ekusi*, *etorri* eta *ezagun izan*, *ezagutu* dauzkagu, baita *ekarri*, *esan* eta *ikasi* ere. Alegia, ez dago aferesia izandako aldaerarik. Goizuetako 1753ko predikuan ere (Reguero, 2018 [2015]) hauek ditugu: *ecarri duen* (211), *ecustearquin*, *ecusiric* (209), *ecusteaz* (210), *ecus zaitzadan*, *ecusi ditu*, *ecusi bear*, *ecusten da*, *ecusi ezquero* (211), *etorríco dira* (212).

Goizuetako egungo hizkeran, bestalde, badira aferesia izandako formak, *etórri* > *tórri* adibidez, eta sinkopak badaude, ondoko Aranon baino modu nabarmenagoan, hainbeste non askotan silaba osoak ere erortzen baitira: *asén-tatu* > *aséntu*, *soziedadea* > *sozídea*, *opératu* > *opétu*, *obligatu* > *oblítu*, *abísatu* > *abístu*, *dizuté* > *dizté*, *hántxetik* > *hánxtik* eta abar (ikus Zubiri eta Perurena, 1998: 157). Ordea, ez dago Zuazok ahotan hartzen dituen eta Nafarroa barnean, Baztanen, Aezkoan eta bestetan (ikus Zuazo, 1998: 215-216) ardurakoak izan diren eta diren *abrats*, *atra*, *batre* eta besteren tankerakorik (hemen lan hauek ikus daitezke: Camino, 1997: 302-305; P. Salaberrí, 2002: 10; Salaburu eta Lakar, 2005: 24, 57, 59; Apalauza, 2008: 76-77), holakok azentuan oinarritzen direlako eta Goizuetako eta aipatu beste eremu eta ibarretako azentuak arras desberdinak direlako.

### 37. \**Eradun*-en adizkirik ez

Zer dagoen esatearekin batera, zer ez dagoen esatea ere komeni da: gutunotan ez da ageri \**eradun*-en adizkirik bat ere, 1753ko predikuan *ucaten derazquiola*, *bidaldu cerazquizun*, *ematen cerazquola* eta *pagatu derazquitzu* egonagatik (Reguero, 2018 [2015]: 222-223). Prediku horretan, hala ere, *-i(n)*-errokoak dira ardurakoenak, ikertzaile berak dioenez. XIX. gizaldiko ordeantzetan ez dugu \**eradun*-en aztarnarik ediren.

Ezaguna da Beriainek biak ibiltzen dituela, *-i(n)*- erroa partikularki, eta orobat Otxoa de Arinek ia mende bat geroago (1713): *eracusten dirauzcun eguia oec* ‘erakusten dizkigun’ (28), *eman cirauzcun* ‘eman zizkion’, *cerren [...] iracasten dirauztan* ‘zeren [...] irakasten dizkidan’ (52), *emango dirauztala* ‘emango dizkidala’ (53)... baina *iracatsi cigun*, *iracatsi cien*, *iracatsi cigon* (56), *escatcen diogu* (57), *aguintcen diguèn gucia* ‘agintzen diguten guztia’ (59) eta abar. Mikelestorenak (1751) arruntean ez du \**eradun*-en adizkirik, baina behin *eman derozten* ‘eman dizkieten’ dauka (81).

### 38. Erregistroak

Jose Ramon Minondok bertzengusu zuen Juan Bautista Minondo olajau-na beti errespetu handiz tratatzen du. Gutunetan aldi oro beroriketan idazten dio, egun galdu(xe)a dagoen erregistroan (ikus Zuazo, 1998: 214). Hau, daki-gunez, Lazarragaren lanean dakusagu lehen aldiz (c. 1600, beraz), eta bakarrik Hegoaldeko testuetan edireten dugu.

## B. TAULAK

### B.1. Aditz laguntzaileak

#### IZAN. NOR *orainaldia*

<i>naiz</i> : <i>juan naiz</i>
<i>zera</i> : <i>konponzen bazera</i>
<i>da</i> : <i>etorri da</i>
<i>gera</i> : <i>bilzekoak gera / biziak gera / hasi gera / izandu gera / partitu gera</i>

<i>dira / dire / dirade:</i> <sup>9</sup> <i>dira, falta dira, gelditu dira, ari dire, hoiek dire, sartuak dire, hoiek dirade</i>
---

Menderagailuekin:

- *Juan naizanean / baña ni nola izandu naizan adirazi dionean [...]. / Erka bedi Otxoa de Arinek (1713: 19) duen ecin salvatuco naizana ‘ezin salbatuko naizena, naizela’, eta Mikelestorenak (1751) darabiltzan «cein gaistoa nazan ni» (17) (naz ere badu autore honek; 29, 36, 46), peccatore nazala (41) formekin.*
- *Nola izandu zeran.*
- *Agertuko dela / aritu dena / beharzen denean / erre dena / eskastuko dela / gelditu dela / nola den / zer modu den.*
- *Egiten ari geran / nola izandu geran.*
- *Ari diren / egiñ behar direla / egondu direla / ez direla ariko / eziñ ebiliko direla / libre direla.*
- *Behar diran honetan / behar diran honetatik / bizi diranak / guziak batetik dirala / garbitzen ari diran oiarzuarrari / hasi diranean / heldu diranak / hilzen diranean / igartuko diranak / zergatik gureak era hobean diran.*

## IZAN. NOR iraganaldia

<i>ninzan:</i> <i>gelditu ninzan</i>
<i>zen:</i> <i>etorri zen / falta zen / izaten zen / neurri zen</i>
<i>giñan:</i> <i>aspertu giñan / fiatu giñan / juan giñan / saiatu giñan</i>
<i>ziran</i> <sup>10</sup> / <i>ziren:</i> <i>bildu ziran / etorri ziran / etorri ziren / falta ziran / falta ziren / gelditu ziran / izandu ziran</i>

Menderagailuekin:

- *Aritu zenean / gelditu zela / jatsiko zela / zen batean.*
- *Zertara juan giñan / gelditzen giñala.*
- *Izandu ziranai / izandu ziranak / presente zirela.*

<sup>9</sup> Gehien-gehienetan *dira*, sei aldiz *dire* –mendekoetarik landa– eta behin *dirade*.

<sup>10</sup> Gehienxkoenetan *ziran*.

**IZAN. NOR -ke geroaldia**

<i>dirateke: izanen dirateke</i>

**IZAN. NOR alegiazkoa**

<i>baliz,<sup>11</sup> balitz / litzake: balitz / dirua balitz / harrapatzen baliz / heldu baliz / libre baliz / etorriko litzakeala / gonbeni litzake / hartuko litzake</i>
<i>bagiña: juan ezpagiña</i>
<i>balira / lirake: lapur ezpalira / garbitu behar lirake / hasiko lirake / isildu behar lirake / konpondu behar lirake</i>

Menderagailuekin:

- *Etorriko litzakeala / ongi litzakeala.*
- *Behar lirakeala.*

**IZAN. NOR-NORI orainaldia. Hura**

<i>zait: gelditu zait / izandu zait</i>
<i>zaio: arinduko zaio / ateratzen zaio / emanen zaio / tokatzen zaio</i>
<i>zaiku: attu zaiku</i>
<i>zaiote<sup>12</sup> / zaie: esan beharko zaiote / ezkonzen zaiote / ezin emanen zaie / kargatu behar zaie</i>

<sup>11</sup> Gehienetan honela.

<sup>12</sup> Arruntean forma hau erabiltzen du JRMk. *Zaie* bitan baizik ez dugu ediren.

Menderagailuekin:

- *Kontatzen zaiola / zenbat pagatu behar zaion.*
- *Bealzen zaiotela / kargatuko zaiotela.*

**IZAN. NOR-NORI orainaldia.** Haiek

<i>zazkit</i> : etorri zazkit / gelditu zazkit
<i>zazkio</i> : bealdu zazkio / deskitatu zazkio / galdu zazkio / kargatu behar zazkio

Menderagailuekin:

- *Emanen zazkion edo ez.* Hemen nabarmentzekoa da 1753ko predikuan *tocatzen zaizcan* dagoela eta, Reguerok (2018 [2015]: 223) dioenez, *-zka-* pluralgilea dagoela hor. Hau ere gehitzen du aipatu autoreak: «Adizki hau dute, besteak beste, Otxoa Arinek, Larramendik, Kardaberatzek, Ubillosek eta Mendiburuk ere». JRMren gutunotan, ordea, eta ikusten den moduan, *zazkio* besterik ez dago. Arranbideko IBk ere *tokatzen zazkionak*, *agertuko zazkio* ditu, baita *galdu zazkigu* ere.

**IZAN. NOR-NORI iraganaldia.** Hura

<i>zitzaidan</i> : etorri zitzaidan / gelditu zitzaidan
<i>zitzaion</i> : eman zitzaion / kargatu zitzaion / tiratu zitzaion
<i>zitzaikun</i> : jaio zitzaikun denboran
<i>zitzaien</i> : esan zitzaien

Menderagailuekin:

- *Etorri zitzaionean.*
- *Jaio zitzaikun denboran.*

**IZAN. NOR-NORI *alegiazkoa*.** Hura

<i>litzako: goian puska emanen litzakoala betik ona balego</i>

Menderagailuekin:

- *Goian puska emanen litzakoala betik ona balego.*

**\*EDUN. NOR-NORK *orainaldia*.** Hura / haiek

<i>dut / ditut: gaztigatu dut / sartu ditut / utzi ditut</i>
<i>du / ditu: gaztigatu du / bealdu ditu</i>
<i>dugu / ditugu: ekusiko dugu / jaso dugu / erakarri ditugu / hartu ditugu</i>
<i>dute / dituzte:<sup>13</sup> galdatu dute / badituzte / eramanen dituzte / eskatzen dituzte</i>

Menderagailuekin:

- *Ematen dudana / hartuko dudala / izanen dudala / sartu ote dudana / ditudanak.*
- *Abonatuko duela / duela / duen / egin nahi duen / behar dituena / ez dituela despatxatu / hartuko dituela / nola dituen.*
- *Egin duten / eskatzen duten boiei / paratu dituztenak.*

---

<sup>13</sup> JBMren haurride zaharrena zen Jose Antonio Minondok hari igorritako datarik gabeko gutunean –zuketan idatzia dago hau– *bealduco tuzte* ageri da, hots, *di-* hasierakoa falta duen aldaera, egungo Goizuetako *ttúzte* bera hain segur.

\*EDUN. NOR-NORK *-ke orainaldia*. Hura

<i>duke: pretenditzen duke</i>
<i>dukete: jakin nahi dukete</i>

\*EDUN. NOR-NORK *iraganaldia*. Hura / Haiek

<i>nuen / nituen: aditzen nuen / bealdu nuen / gaztigatu nuen / billatu nituen / ez nituen sartu</i>
<i>zuen / zituen: bealdu zuen / esan zuen / eraman zituen</i>
<i>genuen / genituen: egiñ genuen / bealdu genituen</i>
<i>zuten / zituzten: egiñ zuten / yan zuten / pagatu zituzten</i>

Menderagailuekin:

- Asentatu nuena.
- Añadituko zuela / uste zuela / bealdu zituenak.
- Behar genuen bezala / kontua egin genueneko.
- Ekarri baitzuten.

\*EDUN. NOR-NORK *alegiakoa*. Hura / haiek

<i>nuke // nituke: agertu behar nuke / behar nuke / pagatu nahi nuke / behar nituke</i>
<i>balu / luke // balitu / lituke: bealzen balu / erakarzen balu / asentatu nahi balitu / nahiago luke / nahi omen lituke</i>
<i>genuke // genituke: ekarriko genuke / egiñ behar genituke</i>
<i>balute / lukete // litukezte: ametitzen balute / balute / nahi balute / ekarriko lukete / behar litukeztela</i>



Menderagailuekin:

- *Behar lukeala / beharko lukeala / hartuko lukealako / nahi lukeala / nola nahi lukean / yakin nahi lukeala / behar litukeala.*
- *Egosiko litukeala.*
- *Egīnen luketela / nahi luketela / yakin nahi luketela / behar litukeztela.*

\*EDUN.<sup>14</sup> NOR-NORI-NORK *orainaldia*. Hura

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	_____		<i>diot</i>	_____		<i>diotet</i> <sup>15</sup> <i>diet</i>
zuk		_____			_____	
hark	<i>dit</i>		<i>dio</i>	<i>digu</i>		<i>diote</i>
guk	_____		<i>diogu</i>	_____		<i>diotegu</i>
zuek		_____			_____	
haiek	<i>didate</i>		<i>diote</i>			<i>diote</i>

Menderagailuekin:

- *Esanen diodan.*
- *Emanen diotedala.*
- *Abisatu ote didan / emanen didala / esaten didala / pagatuko didala.*
- *Entregatutzen diguna.*
- *Egin diotela.*
- *Nori eman diogun.*
- *Ez dakigu emanen diguten.*
- *Esan diotela.*

<sup>14</sup> Hemen, erosotasunez, \**edun* darabilgu, gorago esan bezala -(i)n- erroa badugu ere.

<sup>15</sup> Eskuarki *diotet*; *diet* behin baizik ez da ageri.

\*EDUN. NOR-NORI-NORK *orainaldia*. Haiek

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	_____		<i>tiot dizkat</i> <sup>16</sup>	_____		<i>ditioztet tioztet</i>
zuk		_____			_____	
hark	<i>tit</i>		<i>tio, ttio</i> <sup>17</sup>			<i>tiozte</i>
guk	_____		<i>tiogu</i>	_____		
zuek		_____			_____	
haiek			<i>tiozte</i>			

Menderagailuekin:

- *Egin tiodala / emanen tiodala.*
- *Nola kendu tiozten.*

\*EDUN. NOR-NORI-NORK *iraganaldia*. Hura

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	_____		<i>nion</i>	_____		<i>nioten</i>
zuk		_____			_____	
hark	<i>zidan</i>		<i>zion</i>	<i>zigun</i>		<i>zioten</i>
guk	_____		<i>genion</i>	_____		<i>genioten</i>
zuek		_____			_____	
haiek	<i>zidaten</i>		<i>zioten</i>	<i>ziguten</i>		

Menderagailuekin:

- *Ez dakit [...] eman ote nion.*
- *Eman niotela.*
- *Eskeñi ziona.*

<sup>16</sup> Behin bakarrik ageri da *dizkat* Jose Ramonen gutunetan. Guztiaz ere, iraganaldian *nionzkan* dauka beste batean.

<sup>17</sup> Bi *t*-rekin idatzitako forma bakarra dugu hau corpus osoan, baina Goizuetan egun hola esaten da, pertsona honetan eta besteetan, eta gure susmoa da ez ote den, beste batzuetan bezala, *tt* palatala adierazi nahi, *t* bakarrarekin izkiriaturik egonik ere. Ikus grafiari eskainitako atala. Beste leku batzuetan ere usaiakoak dira honelakoak; ikus bedi, adibidez, P. Iñigok (2007: 294) Bortzerrietako erabileraz dioena.

- *Esan behar ziotela / partituko ziotela.*
- *Onduko geniola.*

\*EDUN. NOR-NORI-NORK *iraganaldia*. Haiek

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	_____		<i>nition</i> <i>niozkan</i> <sup>18</sup>	_____		<i>nitiozten</i>
zuk		_____			_____	
hark			<i>zition</i>			
guk	_____		<i>genition</i>	_____		
zuek		_____			_____	
haiek			<i>zitiozten</i>			

Menderagailuekin:

- *Bi orga txabal agindu zitiola berorrek.*

\*EDUN. NOR-NORI-NORK *alegiakoa*. Hura

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik	_____			_____		
zuk		_____			_____	
hark			<i>liko-</i>			<i>likote</i> <sup>19</sup>
guk	_____			_____		
zuek		_____			_____	
haiek						

Menderagailuekin:

- *Hartuko likoala.*
- *Lagunduko likotela.*

<sup>18</sup> Behin ageri da adizki hau, behar baino *n* bat gehiago duela (*nionzcan*). Orainaldian, beste batean, *diozcat* daukagu. IBk ere baditu honelakoak: *eman niozkatzen* ‘eman nizkien’, *emanen ziozkala* ‘emanen zizkiola’, *entragatuko niozkan* ‘entregatuko nizkion’, *eraman diozka* ‘eraman dizkio’, *gazitgatzen diozkat* ‘jakinarazten dizkiot’ eta abar.

<sup>19</sup> ‘Lieke’ dela irudi du, baina ez da aukera bakarra.

**\*EDIN. NOR subjuntiboa. Orainaldia**

<i>dedi- / dadi-: konpon dedilla / oroi dadiela</i>
<i>ditezen: izan ditezen / saia ditezen</i>

Menderagailuekin:

- *Konpon dedilla.*
- *Oroi dadiela.*

**\*EDIN. NOR subjuntiboa. Iraganaldia**

<i>zitezen: para zitezen</i>

**\*EDIN. NOR ahalera. Orainaldia**

<i>daiteke, diteke: bealdu diteke / egiñ daiteke / etziñ daiteke / irauli diteke / izan daiteke</i>
<i>daitezke, ditezke: egiñ daitezke / paga ditezke</i>

Menderagailuekin:

- *Ea libratzeko modurik izan ote daitekean / estu ditekeala / eziñ pasa daitekeala / para ditekeana / paratu ez daitekean*
- *Billatu edo aldatu ditezkean artea.*

\***EDIN**. NOR-NORI ahalera. *Orainaldia*

<i>dakiko: kendu dakiko / pagarazi dakiko</i>

\***EDIN**. NOR ahalera. *Iraganaldia*

<i>zitekean: izan zitekean</i>

Menderagailuekin:

- *Hurrengo jaieraño ez jakin kontrariorik ager zitekean.*
- *Ta orañ berehala egiñ gabe izan zitekeala lenbiziko jai hoietan.*

\***EDIN**. NOR ahalera. *Alegiazkoa*

<i>laiteke / liteke: berotzalle berrixkoa izan laiteke / izan liteke</i>
<i>laitezke / litezke: atzera samar egon laitezke / karga bailitezke</i>

\***EDIN**. NOR agintera

<i>zaitezte: hor konpon zaitezte</i>

\***EZAN**. NOR-NORK. **Orainaldia**. Hura / haiek

<i>badezagu / baditzagu: bildu al badezagu / libratu al baditzagu</i>

\***EZAN**. NOR-NORK subjuntiboa. **Orainaldia**. Hura / Haiek

<i>dezadan / ditzadan: har dezadala / har ditzadala</i>
<i>dezan / ditzan: adi dezan / eraman ez dezan / egiñ ditzan</i>
<i>dezagun / ditzagun / ditzakun: jakin dezagun / paga dezagun / akabatu ditzagun / garbi ditzagun / igo ditzakun</i>
<i>dezaten / ditzaten: segi dezaten / kobra ditzatela</i>

Menderagailuekin:

- *Har dezadala.*
- *Egiñ dezala / eraman ez dezan / eskribi dezala / eska dezala / huts egin dezan beldurrak / presenta dezala / eraman ditzala / har ditzala.*
- *Har dezagula.*
- *Egiñ dezatela / ekar dezatela / har dezatela / kobra ditzatela.*

\*EZAN. NOR-NORK subjuntiboa. *Iraganaldia*. Hura

<i>zezan: egiñ zezala</i>
<i>genezan: har genezela (sic)</i>

Menderagailuekin:

- *Egiñ zezala.*
- *Har genezela (sic).*

\*EZAN. NOR-NORI-NORK subjuntiboa. *Orainaldia*. Hura / haiek

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
<b>nik</b>	_____			_____		<i>dizitedan</i>
<b>zuk</b>		_____			_____	
<b>hark</b>			<i>dizaion</i>			
<b>guk</b>	_____		<i>ditzakagun</i>	_____		
<b>zuek</b>		_____			_____	
<b>haiek</b>						

Menderagailuekin:

- *Berai esan dizitedala.*
- *Bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola lenbailen.*

\*EZAN. NOR-NORK ahalera. *Orainaldia*. Hura / haiek

<i>dezake / ditzake: egin dezake / ekarri ditzake</i>

Menderagailuekin:

– *Eziñ eman dezakeala ferrarik / eziñ geldi dezakeala / zer egiñ dezakean.*

\*EZAN. NOR-NORK ahalera. *Iraganaldia*. Hura

<i>nezakean: beal nezakean kontua</i>

Menderagailuekin:

– *Beal nezakean kontua.*

\*EZAN. NOR-NORK agintera. Hura / haiek

<i>azazu: bial azazu<sup>20</sup></i>
<i>beza / bitza / bekitza: beal beza / gatziga beza / asenta bitza / beal bitza / osa bekitza</i>

<sup>20</sup> JBMk idatzitako euskarazko apunteetan ageri da, *uialazazu* idatzirik.



\*EZAN. NOR-NORI-NORK agintera. Hura

<i>bezata</i> ‘biezat’ (berorika): <i>gaztiga bezata</i> <sup>21</sup>
<i>bizio, bizaio</i> ‘biezaio’: <i>Ta eskribitu bizio be[ro]rrek Sarastiri / etorzeko gaz-tiga bizaio</i>
<i>bizaiote</i> ‘biezaie’: <i>ikatzetan ebilzeco esan bizaiote</i>

## B.2. Adizki trinkoak

EGON. NOR *orainaldia*

<i>nago: ez nago seguru / niri hala esan didala nago / pezeta ote zuen nago</i>
<i>dago: hautsia dago</i>
<i>gaude: kito gaude</i>
<i>daude: uzteko hobeak daude / badaude atereak</i>

Menderagailuekin:

- *Badago / baitago / dagoela / ez dagoela / hemen dagoena.*
- *Nola gauden.*

<sup>21</sup> Aldera bedi Elkanoko Lizarragak garai bertsean darabilen *benaza*-rekin (1994: 34, 471): «*Jauna, guardabenáza*», «...*ta seguibenáza*». Ikus adizkia ageri den 1802.03.09ko gutunean dioguna.

**EGON. NOR -ke orainaldia**

<i>dagoke: badagoke</i>

Menderagailuekin:

– *Dagokala goia edo betik.*

**EGON. NOR iraganaldia**

<i>nengoen, nangoan: iaz ni miñez nengoela / berantetsia nangoan</i>
<i>zegoen<sup>22</sup> / zagoen: nola zegoen / zegoen-ta / miñez zagoen</i>
<i>zauden: gaztañak ere kandelan zauden</i>

Menderagailuekin:

– *Miñez nengoela.*

– *Nola zegoen / ezin atrebituz zegoala / hautsia zagoela.*

– *Etsiak zaudela / nola zauden.*

---

<sup>22</sup> Gehienetan *zegoen*.

**EGON. NOR *alegiazkoa***

<i>balego: goian puska emanen litzakoala betik ona balego</i>

**EGON. NOR subjuntiboa. *Orainaldia***

<i>nago-: nagoala berarekin</i>
<i>daude-: daudela puxka bat</i>

Menderagailuekin:

- *Nagoala berarekin.*
- *Esan diote daudela puxka bat.*

**EGON. NOR subjuntiboa. *Iraganaldia***

<i>zagoen: ixilik zagoela</i>

Menderagailuekin:

- *Eta apaizak esan omen zion [...] ta ixilik zagoela.*

**ETORRI. NOR orainaldia**

<i>dator: datorren astean / datorren igandean / igande datorrenean</i>

Menderagailuekin:

– *Datorren igandean / igande datorrenean.*

**ETORRI. NOR -ke orainaldia**

<i>datorke: eziñ datorkeala</i>

Menderagailuekin:

– *Eziñ datorkeala.*

**ETORRI. NOR subjuntiboa. Orainaldia**

<i>dator-: datorrela berehala</i>

Menderagailuekin:

– *Datorrela berehala.*

**IBILI (ebilli). NOR orainaldia**

<i>zabilza: olagatik zabilzala</i>
<i>dabill, dabilla: ez dabilla lanean / inor gutxi dabill / itzai bat dabilla / meakarien idiak besterik ez dabilla</i>
<i>gabilza: beti gabilza</i>
<i>dabilza: badabilza / beren gisa dabilza / estu dabilza / gogotik dabilza</i>

Menderagailuekin:

- *Olagatik zabilzala.*
- *Dabilela / ote dabillen / saltoka dabillena.*
- *Ez dakit non dabilzan / han dabilzan haietan.*

**IBILI (ebilli). NOR iraganaldia**

<i>zabillen: uste omen zuten jendeak olagatik zabilela</i>

Menderagailuarekin:

- *Uste omen zuten jendeak olagatik zabilela.*

**IBILI (ebilli). NOR subjuntiboa. Orainaldia**

<i>gabilzan: salsan ez gabilzan</i>

**IBILI** (*ebilli*). NOR-NORI *iraganaldia*

<i>zabilkidan: hemen zabilkidan</i>

**JARIO**. NOR-NORI *orainaldia*

<i>dario: puska dariola</i>

Menderagailuekin:

– *Burnirik eziñ berotu da, aldetatik puska dariola.*

**JOAN**. NOR *orainaldia*

<i>noa: banoa</i>
<i>dihoa: bigar badihoa / hiru ordutara dihoa / Hermanira omen dihoa bizitzera</i>
<i>goaz: aldatzera goaz / hartara goaz</i>
<i>diboaz / diboz-:<sup>23</sup> aurrera dihoaz / etzi dihoaz mendira / eske dihozenean</i>

<sup>23</sup> Egun Goizuetan *dioz* esaten da: *dioz, diozenen* ‘doazenean’, *diozela* ‘doazela’...

Menderagailuekin:

- *Hari gaztigatzera diboala / itsasoan diboala.*
- *Aritzxulegira goazela.*
- *Aguardieantearen eske dibozenean.*

UKAN. NOR-NORK *orainaldia*. Hura / haiek

<i>dut / ditut harzeko dut [...] / hoietarako ditut [...]</i>
<i>du / ditu: harzeko du [...] / baditu bi agoa / txirlak baditu</i>
<i>dugu / ditugu: ondotik dugu / honekin ditugu salsak</i>
<i>dute / dituzte: dute harzekoa / biña egun badute / geroztik dituzte</i>

Menderagailuekin:

- *...urri-urrian jornalak dituztela baño.*

UKAN. NOR-NORK *iraganaldia*. Hura / haiek

<i>nuen: sobra nuen [...]</i>
<i>zuen / zituen: asmoa zuela / bazuela kontua / Sebastian Torrekoak zituen artoak</i>
<i>genuen / genituen: beharrik ez genuela / eskasak genituen bi orgak</i>
<i>zuten / zituzten: danda edo plazoa [...] zutela / 6 urretxiki zituzten hoiek hartuak</i>

Menderagailuekin:

- *Asmoa zuela / bazuela kontua / plazoa zuela.*
- *Beharrik ez genuela.*
- *Eskasak genituen bi orgak.*
- *Danda edo plazoa [...] zutela. / Isasolan bazutela.*

**EDUKI (iduki(tu)). NOR-NORK orainaldia.** Hura / haiek

<i>daukat: zor daukat</i>
<i>daduka, dauka / dauzki: eskasaren kanta dadukala / semea gaizki daukala / harzekoak dauzki</i>
<i>daukagu: hemen daukagu</i>
<i>daukate / dauzkite: emana daukate, horiek daukate / atereak dauzkite</i>

Menderagailuekin:

- *Daukan medioz / eskasaren kanta dadukala Lamothek pisuaz / semea gaizki daukala / ez daukala.*
- *Bi anaieak harrotua daukaten hura / ez daukatela.*

**EDUKI (iduki(tu)). NOR-NORK iraganaldia.** Hura / haiek

<i>nauzkien: asentuak nauzkien</i>
<i>zaukan: opinio handi bat zaukan / planta txarra halere zaukan</i>
<i>zaukaten: etzaukaten</i>

**EDUKI (iduki(tu)). NOR-NORK alegiazkoa.** Hura

<i>balaukate: aditua balaukate</i>



**EKARRI.** NOR-NORK *orainaldia*. Hura

<i>dakar:</i> Kasarasek badakar
<i>dakarte:</i> Irundar it[z]ai hoiek me[a] asko dakarte / Itzai San Juanera mea dakarten hoiek

Menderagailuekin:

- Manuelek dakarrenetik.
- Itzai San Juanera mea dakarten hoiek.

**EKARRI.** NOR-NORK *iraganaldia*. Hura

<i>zakarten:</i> bazakarten

**ERABILI.** NOR-NORK *orainaldia*. Hura / haiek

<i>darabillat / darabilzit:</i> bestea hementxe darabillat / hemen darabilzit
<i>darabill:</i> ez darabill ogirik
<i>darabilte / darabilzite:</i> iskanbilla franko badarabilte / jendeak darabilzitela gobernu horiek

Menderagailuekin:

- Jendeak darabilzitela gobernu horiek.

**ERAMAN. NOR-NORK orainaldia.** Hura / Haiek

<i>darama / daramatzi / daramazki: Isasolara darama / lau hilabete daramatziela / gañerakoak daramazki</i>
<i>daramate: Isasolara daramate</i>

Menderagailuekin:

– *Lau hillabete daramatziela.*

**\*IO. NOR-NORK orainaldia.** Hura

<i>diot: Hemen diodan eskario hau</i>
<i>dio: etorriko dela dio</i>
<i>diote: hirnak diote</i>

Menderagailuekin:

– *Hemen diodan eskario hau.*

– *Txartelak dion bezala.*

– *Zer dion adituko dugu.*

**\*IO. NOR-NORK iraganaldia.** Hura

<i>zion: baietz zion / egiñen zuela omen zion / ekarriko zituela omen zion</i>
<i>zioten: pretenditzen duela zioten</i>

Menderagailuekin:

– *Eta ziola [...].*

### **IRITZI. Orainaldia**

<i>daritzat:</i> <sup>24</sup> <i>jornal pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela</i>
<i>daritza:</i> <i>Arsu daritza itxeari / Jose Juakin daritzan igele Sidroren lekuan eto-rrita aritu denak</i>

Menderagailuekin:

- *Bera ere salsan izan liteke, Andres, niri daritzadanaz.*
- *Bere daritzana. / bere daritzan prezioa egiñta.*
- *Galdatu diot zer daritzan, esamiña horietaz zer daritzan, eta esan dit honi daritzana dela [...]*

### **IRITZI. Iraganaldia**

<i>zeritzan: eta nahi bazuen edo bazeritzan</i>

---

<sup>24</sup> Arranbide burdinolako arduraduna zen Ignazio Bergararen gutun argitaragabeetan *deritza-* dugu.

**IRUDITU. Orainaldia**

<i>dirudite: hondarretan bilduak dirudite</i>

**JAKIN. NOR-NORK orainaldia.** Hura

<i>dakit: nik ez dakit</i>
<i>daki: daki</i>
<i>dakigu: ez dakigu</i>

Menderagailuekin:

– *Badakiela / bark dakiela / ez dakiela.*

**JAKIN. NOR-NORK iraganaldia.** Hura

<i>zekien: etzekiela</i>

Menderagailuekin:

– *Etzekiela.*

### 3. JOSKERA

Atal honetan Jose Ramon Minondoren gutunetan agertzen diren sintaxi konturik garrantzizkoenak biltzen ditugu,<sup>1</sup> betiere era praktikoa, ez baita hau lekua teorizatzen hasteko. Hortaz, perpaus motarik behinenak jasotzen ditugu, bi azpiatal nagusitan: lehenik juntadura gaiak ukitzen ditugu, eta gero menderakuntzari doazkionak hartzen ditugu hizpide. Puntu interesgarri batzuk badira, esaterako buru izena aitzinatua duten erlatiboena, joskeratik kanpo Minondok erakusten dituen bestelako ordenaketa batzuekin bat heldu direnak. Alegia, hurrenkera berezi horiek ez dira bakarrik erlatiboetan azaltzen, haratago doaz, eta, konparaziorako, berez erlatiboak diren denborazko batzuetan ere aurkitzen ditugu. Genitiboa edo destinatiboa galdegiten duen *diña* ere ez da interesgabea, eta *hasitzera orduko*-ren tankerakoek ere badukete zer ikertu.

Atariko labur honi akabera emateko, diogun zenbaitetan gauzak ez dakuskgula behar bezain garbi eta, holakoetan, gure zalantza argi adierazten dugula, estalki alferrik gabe. Bestalde, abstrakzio modukoak dira hemen paratzen diren batzuk: *-ela* idazten dugunean *-ela*, *-ala* eta *-la* esan nahi dugu, *-tu* ezartzen dugunean *-tu*, *-i*, *-n* edo beste kontsonante edo bokal batean bukatzen den aditza adierazi nahi dugu, partizipioa alegia; *-tzea* idazten dugunean *-tzea* nahiz *-tea* eman nahi dugu aditzera eta abar. Hona hemen beraz:

---

<sup>1</sup> Beste kontua da hau benetan joskera den edo *clause linkage* deritzana. Gu ez gara nor gai horietan sartzeko, eta gure tradizioari gagozkio, zuzen edo makur.

## 3.1. JUNTADURA

### 3.1.1. Emendioa

#### 3.1.1.1. Baiezko emendioa

*eta*

- 19 kargaz gañerakoak herriak jaso ditu ta karretoa pagatu.
- Miñez dago, bestela kargu hartuko nion ta pagarazi.

*eta...ere bai*

- Bakoitzak bere puskaz galdatzen du hemen eta hoiek pagatu behar lira-ke, eta Bonbonen zor hoiek ere bai.
- Irungo guk egin genituen bi puskak ere salgai dira, ta beste gehiago ere bai.
- Orañ kostatzen da orga bakoitza 26 pezetas, ta gañera sosak ere bai.

#### 3.1.1.2. Ezezko emendioa

*ez...(e)ta ez...*

- Alkate zarrak esan dit ez dela libranza beharrik, gure kontrako paperik ez dagoela, ez kandelan eta ez memorialik.
- Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut, ta mandazaiak ere orobat.
- Mearik ez da bada iñondik heldu honara, ez Irundik ta ez Errenteriatik.

*ez...(e)ta...ere ez*

- Eta gureak gelditu dira baso ederrik ez, ta hagitz elbarrik ere ez.

### 3.1.2. Hautakaritza

#### *edo*

- *Lengo harzekorik ezpadu ta emanen zaskion edo ez gaztigatuko du.*
- *Nahi badu txartela eskatzen duten hoiei beren kontua ematea, edo guziena batean egin nahi duen, gaztiga beza.*

#### *eta nahiz* ‘edo’ (behin)

- *Zeñ heldu den kontua egitera ta nahiz bealzen zaiotela berai kontua, berak konponduko omen dira.*

#### *nahiz...edo*

- *Ta orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera-ta, edo bestela karraidoretan kontuan pasatzeko.*

#### *nahiz...eta nahiz*

- *Eta esan du hamar orga orobat hartuko dituztela, nahiz kuadro ta nahiz txabala, ta dirua izanen dela burniak entregatzean berehala.*
- *Maisuak nahi badu bestek nekez eramaten du kandelarik; argiaren kontran egoten da, nahiz kandela jo behar ta nahiz ez.*
- *Nonbait alde haietakoa izanen da, nahiz Sarastirena ta nahiz besterena dela.*
- *Nondik-nahi saiatu ezkeru ateratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere, nerekiko, nahiz berorrenak eta nahiz besterenak dirala.*

### 3.1.3. Aurkaritza

#### *baño*

- *Hasi giñan ekarzen, baño orañ goiko prezioa nahi dute.*
- *Otsoanekoak esan dit hamalauraño etsiak zaudela, baño hurrengo jaieraño ez jakin kontrariorik ager zitekean.*
- *Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaurgero nahiko dute noski.*

## 3.2. MENDERAKUNTZA

Menderakuntzaren barnean hiru multzo nagusi bereizi ohi dira: perpaus osagarriak, erlatiboak eta adberbialak.

### 3.2.1. Osagarriak

Honen barrenean konpletiboak eta zehar-galderak sartzen dira.

#### 3.2.1.1. Konpletiboak

##### 3.2.1.1.1. Forma jokatuak

Aditza jokatua dagoenean, indikatiboan eta subjuntiboan ager dakiguke.

#### a) Indikatiboan

*-ela*

- *Diruarekin etorriko dela dio.*
- *Hiruak diote [...] Oiarzungo berozale guziak egondu direla elkarrekin.*
- *Ni nago ola-jaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz.*

Ezezkoetan ere (bakarra dugu) *-ela* dago, pasartea argienetakoa ez izan arren:

- *Aldakoko nagusiak esan dit koñado Galardik izandu ere badu preten-siorik olaz, honek ez dakiela izandu duela, gezurrak dirala guziak.*

*nola...-en* (adirazi eta esan aditzekin)

- *Aldakokoak esan dit batere etzuela asmorik Galardik, baño ni nola izandu naizan adirazi dionean, etorri zaiola bera itxera.*
- *Aldakokoak esan zidan nola Oiarzungo suj[e]to bat juan zaion Txurritegiri ola harzeko.*
- *Amabirjinetan esan nion anaieari bi onzako nola kendu nition, ta zor daukat ta pagatu nahi nuke.*
- *Baño esan didate gobiernokoak nola errematean paratu zen lenbiziko-an San Estebanez plazoa zuela, hartan ekibokatu dirala.*



- *Beleak esan dit semeari esan diola nola izandu geran, semeak eranzun diola basoko irabaziarekin eziñ pasa daitekeala hura, ta nahi duguna egiteko.*
- *Bizirori esan diot berorrek nola esan didan, eta esan dit Joseph Antonen semea itsasoan dihoala.*
- *...ta gobernmoko berriai esan diotela nola den ikatz gaia hura, eta hoiek Olaberrira nola eman dituzten, ta berriak har dezatela aurrerako kargua.*

## b) Subjuntiboan

*-ela*

- *Apaizak esan omen zion elkar galduko zela hartara, ta ixilik zagoela.*
- *Martin Aldakokoak esan dit haren kuartoaz oroi dadiela.*
- *Nik esan diot berorrek konpon dedilla.*
- *Bereak dituen bezala eraman ditzala esan diogu.*
- *Gañerakoa, lau zulo badira, haiek Motelak har ditzala.*
- *Indianoak gaztigatu dit partea nahi lukeala suertetik, ta nik gaztigatu diot berorregana eskribi dezala, ta bealdu du karta ~~igandean goizean~~ (sic) atzo goizean.*
- *Irundarraiz gaztigatu diotet: orañ artoak ereiten ariko dira, baño mea ekar dezatela ta pagua emanen diotedala.*
- *Nahi badu ekusi dezala.*
- *Ta gaztigatu diot datorrela berehala.*

### 3.2.1.1.2. Forma jokatugabeak

*-tzea*

- *Anatxurik etorri ta eraman egin nahi du, ta gero karraidoreai kargatu, baño ematera orduko norenzat den jakinik ematea hobe da.*
- *Arrago egur[r]ja egin ta erretzea kosta da...31 pezetas y 12½ cuartos.*
- *Hau hemen hasitzea gonbeni litzake.*
- *Horrara bealduko ditugun guziak edo hemen altxatzea nahi duen bate-re hoietatik gaztigatuko du.*
- *Manuel Artikutzakoari berorrek esan diola, Baurrindik pagoak ekarri-ta Kausuan aldaratzeko, eta Unzburuko mintegitik aldatzea hobe dela.*
- *Nahi badu tiratzea tretxua da 5 arrobas y 17 libras, eta tiratzekotz zenbat pagatu behar duten gaztiga beza.*
- *Nahi badu txartela eskatzen duten hoiei beren kontua ematea, edo guziena batean egin nahi duen, gaztiga beza.*
- *Sidro hau olara ekarzea gauza makurra da.*

**-tzea izan** ('aski izan + -tzea')

- *Espensan paga bealzean hoiek gutxiago bealzea du.*
- *Hoiena gutxiago bealzea du.*

**-tzeko**

Ohikoa da *agindu, esan, gaztigatu* aditzekin, batez ere.

- *Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitzeko, ta erre hoietako botatzeko denboran iragotako egunaz.*
- *Baltasarren semeak-ta aldatu omen dute 300 planta, pegoa erreal zillar bana berorrekin partituta; Indianoak esan omen zion aldatzeko.*
- *Beleak esan dit semeari esan diola nola izandu geran, semeak eranzun diola basoko irabaziarekin eziñ pasa daitekeala hura, ta nahi duguna egiteko.*
- *Elizatik erakutsi zen Oi[sar]zunan Errepublikaren ordena zela gurdi mearrakin iñor ez pasatzeko Franziara 22 de noviembretik aurrera.*
- *Ezkutura falta zaskion hoiek eman nahi balitu, gaztigitzeko esan dit.*
- *Iskaluk honen kontua bealzeko gaztigitzeko esan dit.*
- *Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko [diote].*
- *Manuel Artikutzakoari berorrek esan diola Baurrindik pagoak ekarrita Kausuan aldaratzeko, eta Unzburuko mintegitik aldatzea hobe dela.*
- *Ogi egilleak gaztigatu du, errotaria pagatzeko behar duela-ta, ogien diruaz.*
- *Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera jua naizanean (sic), gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski, arratsaldeko haragi puska bat maneatzeko agindu dutela sagardotegian.*

**Galdetzailea + partizipioa**

- *Alde guzietara ere badago zer egiñ.*

**3.2.1.2. Zebar-galderak**

**ea...-en**

- *Martin berozalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen, Errenteriara eta Ereñazura jua gabe gelditu dela berorren zalanzen.*

**ea...ote...-en**

- *Bigar ola handiak lanak akabatzen ditu, eta olagizonak diote ea larunbatean itxean izanen ote den, kontuak garbitzeko.*
- *Eskribitu bizio be[ro]rrek Sarastiri ea libratzeko modurik izan ote daitekean guretzat.*

**ea + galdetzailea + -en**

- *Atzo galdatu diotet ea zer eguiten duten.*

**-en**

- *Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau ez yakin egiñen duten.*
- *Maiz aski hemen da jendea, deus ageri den.*
- *Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezetz dio, goian puska emanen litzakoala betik ona balego, baño guzia galdua dela.*
- *Otsoaneakoak esan dit hamalauraño etsiak zaudela, baño hurrengo jaieraño ez jakin kontrariorik ager zitekean.*

**-en edo ez**

- *Lengo harzekorik ezpadu ta emanen zaskion edo ez gaztigatuko du.*
- *Olan badago 10 lineatik 12 lineatarañokoa, eta hau Erretereria[ra] bealduko dugun edo ez gaztiga beza.*
- *26 de junioan kargatu zen orga 27 de junioan allegatu zen Lamothengana, eta kontuan pasatu zuten edo ez ez dakigu guk.*

**galdetzailea + -en**

- *Anatxuriren perrazalleak eskatzen du perra burnia, ta emanen zaion edo zenbat pagaraziko diogun gaztiga beza.*
- *Batzuek horrara ta besteak nik ez dakit non dabilzan.*
- *56 karga ikatzek ez du honenbeste balio, ta nik ez dakit nork onduko dituen.*
- *Ez omen dute harrapatzen asenturik haren paperetan, nondik zer hartu duen.*
- *Gaztigatu du hartu baño lenago, baldin berok pretenditzen badute, nola nahi lukean.*
- *Goiz batean goiz etorriko naiz ni horrara; noiz nahi duen gaztiga beza-ta.*
- *Horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den yakin nahi lukeala.*

- *Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna, ta jakiñen duela zer modu den.*
- *Ta esan genion zertara jua giñan.*
- *Ta presaka ez dakit zer egiñ nuen ere burnian.*

#### **ote + ...-en**

- *Aranederreko gizona hemen izandu zait, merkataria billatuko ote duen.*
- *Besteak gaistotzat botetan bilduak ote diran nago.*
- *Gaztiga beza honara agertuko den berori, edo Martini esanen ote diodan.*
- *Hor konpondu ziran biak; pezeta ote zuen nago, niri hala esan didala nago.*
- *Nahi badu ekusi hor edo hemen moldatuko ote den batere, ekusiko dugu.*
- *Nik ez dakit gurdirik orañ ote dabillen Franzia.*
- *Ta etzekiela txapona hura onduko ote zuen esan zidan niri.*
- *Ta jua naiz ni ere [galdatzera, ekustera] itzaiaz modurik izanen ote den burni hoiek eramateko.*
- *Zerbait esan dit gizon honek, berorrek deus abisatu ote didan kontuen gañean, ta ezetz esan diot.*

### **3.2.2. Erlatiboak**

#### **3.2.2.1. Jokatuak**

##### **-en + izena / -eneko + izena / -ena / -en hura**

- *Ardatza sartu zeneko maxuretan [...].*
- *Emakume batek txartela kendu zidan niri, berorri Oiarzunan zen batean, ta hari deus eman bazion jakiñen du.*
- *Errenterian mea garbitzen ari diran oiarzuarrak eman ditioztet bi pezeta.*
- *Ezkutu bana tokatzen zaiote, sei lagunekoa da, horko maisua hemen izandu denekoa.*
- *Hau da zor dena.*
- *Jose Juakin daritzan igele Sidroren lekuan etorrita aritu denak du aste bat desde 11 de febrero de 1806 hasta 4 de junio de 1807.*
- *Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten hura ari da berotzalle, len ere hemen trabajatua baita, eta pasatu ditu bi aste eta lau eguneko bat.*
- *Nik eragin dudak lan guzia hemen dago.*
- *Ola erre zeneko gastuetarako.*

- *Olaitxeokak harzeko du 36 pezetas y 1½ cuartos, kontua egin genuenekoa.*
- *Senboll ta Ignazio ta meallea aritu ziraneke espensa paga dezagun kontua egin beza.*
- *Tokatzen zaiona eskatzen du.*

### Buru izen mugagabea aitzinatua dutenak (izen ostekoak)<sup>2</sup>

- *Berorrek bere tokatzen zaiona beal beza garbiro.* ('berorrek [berorri] tokatzen zaion bere(diru)a [zenbat den] gaztiga beza garbiro')
- *Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau ez yakin egiñen duten.*
- *Hiru hoiek diote igande datorrenean zorzitik aurrera ez direla lengo jornaletan ariko.*
- *Iturriozko perrazallearen semeak esan dit ingude berri lepotik hautsia dagoen hau hartuko lukeala bere prezio modu batean.*
- *Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko [diote].*
- *Jose Antonek eta Estebanek bealdu dute Erorzatik hogei pezetako hartu zutenaren alderako...34 quintales.*
- *Luis de Lekunari kontua eman nion Eguerri juan denak arterañoko lanena ondorengo egun batean.*
- *Mikolas Arpidekoa egun izandu da Doniyoanen, ta egondu omen da komesario behar zuenarekin.*
- *Olaitzolako erremienta Bautista meallearen itxean egondu diranak Bautistak hartu omen ditu.*
- *Olatxean den artorik txarrena beko begira egondu giñan honetan dago.*
- *Patxiku Kaspar honek esan dit nahi badu gelditu palanka, bere daritzan prezioa egiñta bealzeko pagua.* ('[berorri] daritzan / iruditzen zaion bere prezioa egiñta bealzeko pagua').
- *Puska guziak, eta bere daritzana pagatu don Feliz Olaitzolako yabeari.* ('[berorri] daritzan / iruditzen zaion bere(diru)a paga bekio / biezaio don Feliz Olaitzolako yabeari')
- *Soldadu hemen berorri eskatzen zion hura.*
- *Ta esan diotet itzaiari, egun kargatu baitira, irundar Baionara dabilzanai esateko bost lagunen kargak badaudela.*

Goizuetako 1897ko udal ordenantzetan ere (Saturstegi, 1996: 304) badugu etsenplua: «*Mozorroac faltatcen baldin badute artículo leitu diran ayeri [...]».*

---

<sup>2</sup> Hauetaz orain Krajewska (2020) ikus daiteke.

### Buru izen mugatua aitzinatua dutenak (aposatuak)<sup>3</sup>

- *Ezin harrapatu dut papera asentatu nuena.*
- *Plantak paratu dituztenak...112...17.*

### *bait-* erlatiboa

Honelakoak Oiartzunen oraindik ere badira.<sup>4</sup> Gutunetako testigantzak:

- *Hoietarako ditu hartuak hamar ezkutuko bat ta bost urretxiki zar baitira...66 pezetas y 19 cuartos.*
- *Irundarren len ekarritako mean pagua, 100 kintal baita...122...17.*
- *Manuel Antoniori kargatu behar zaio 8 pezetas y 24½ cuartos, ta abonatu behar zaskio ordañaz aritu denari, baita Iberoko suña Juan Franzisko de Alzate.*
- *Munoako semeak, julio 98an hartu zituen 16 ezkutuak pagaturik, egin zuen harzeko, arrago jornalak azkeneko pagatu ziran denborako, orañ hiru urte, baita 14 ½ reales.*
- *Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten hura ari da berotzalle, len ere hemen trabajatua baita, eta pasatu ditu bi aste eta lau eguneko bat.*
- *Ta orañ Fagotxikin dira bi kintal, ta olan dira... hemen bost orga behin-zat badira, eta esan diotet itzaiai, egun kargatu baitira, irundar Baionara dabilzanai esateko bost lagunen kargak badaudela.*

### Korrelazio erlatiboa

- *Herriari zenbat pagatu behar zaion, prezio hura hemen zor du Anaxurik.*

Honelakoak oraindik ere badira Oiartzunen.<sup>5</sup>

#### 3.2.2.2. *Jokatugabeak*

##### *-tu + mugatzailea*

- *Berorrek emanak dira Itxabesteri 135 pezetas y 22½ cuartos.*

---

<sup>3</sup> Hauetaz orain Krajewska (2020) ikus daiteke.

<sup>4</sup> Ikus Fraile eta Fraile (1996: 131).

<sup>5</sup> Fraile eta Fraile (1996: 132).

- *Berorrek nekazalen kontua bealzeko denboran bakoitzari len emana geldituaz pagatuko nuke.*
- *Lenbiziko karretoko 19 pezetak ta ikatzgilleari len emanen gañera osatu 56 kargaren balioa ta gañerakoak kobra ditzatela herriagandik.*

**-tu + izena (Iparraldeko era)**

- *Bitartea Aranzatekoa nahi badugu ekarri guziak batetik dirala.*
- *Lenbiziko karretoko 19 pezetak ta ikatzgilleari len emanen gañera osatu 56 kargaren balioa ta gañerakoak kobra ditzatela herriagandik.*
- *Manuelek dakarrenetik gelditu bost onza urre...400 pezetak.*

Kasuren batean buru izena aitzinaturik dago:

- *Eta horko asentuan, edo nahi duen moduan, abonatu dio astea bi olatan pasatu hau.*

**-tu + -tako + izena**

- *Bakoitzak bere gisa egintako lanak.*
- *Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitzeko, ta erre hoietako botatzeko denboran iragotako egunaz.*
- *Basoak hartutako hamaiketako<sup>6</sup> ta probestuarenak...006...30.*
- *Donostiara Fagotxikitik eramantako burnien asentua hor egiñ omen dute batzuek, eta nik eragin dudan lan guzia hemen dago.*
- *Hortik etorritako buztanduak erdiak tiratu ta eratsi gabeak, ta beste erdiak tiratzekoak daude.*
- *Irundarren len ekarritako mean pagua, 100 kintal baita...122...17.*
- *Polsero difuntuar[i] 220 urretxiki emantako erreziboa beal beza.*

Inoiz buru izena aurreratua dago:

- *Orañik hanka erretako hartatik urgon dago Jose Ignazio.*

---

<sup>6</sup> ‘Basoak hartu ziren eguneko hamaiketako’.

### 3.2.3. Adberbialak

#### 3.2.3.1. Alderaketa

##### *(baño) (ere)...-ago*

- *Arotzak baño fundamentu hobean egiten ezpadugu, ez da luzaro egonen.*
- *Beste edozeñ aldetara gehiago kostako dira berari erakarrita baño.*
- *Esamiña olarenzat bataz beste baño hirutan gehiago erakutsi da urte bakoitzeko.*
- *Esamiñak Txitxipitxik eta Gregorioren lagunak egin dituzte, ta uzteko hobeak daude, noski, harzeko baño.*
- *Eta bestela lau onza bezala luzeagoak beharko dute.*
- *Harriaren gañean zegoen ikatza, ta uste baño ere lenago attu zaiku ikatza.*
- *Isasolakoak baño hobeak dira gureak.*
- *Jornal pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela, nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urri-urrian jornalak dituztela baño.*
- *Sarastiren larraña baño ezkerago atera dute denborazko olajaunen larrañ hondarrak.*
- *Ta esan dit atzo hemezorzian gelditu zela, ta gaur jatsiko zela hamasei edo berago.*

##### *(puska bat)...-xeago*

- *Alde guzietara ere badago zer egiñ, baño denaz ere, itzaiekin merkexe-ago da.*
- *Eta esan dute gexeago baliz nahiago, baño obligazioko hori badere al badu egit[eko].*
- *Eta 600 kargako honetan Pellok eskatzen du puska bat, eta gañerakoa errebexeagoa gelditzen da.*
- *Haiek Isasolara lenago limurtuko dira, dirua frontoxeago izateagatik.*
- *Ogi urria da ta hemengo errotatan, berriz, dirua eskuari duenari merkexeago, ta kreditara nahi duenari gehiago pagarazitzen diote.*
- *Orañ gaia erosi ta geroxeago egiñen dugu; arotzak era dutenean beharko.*
- *Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera jua naizanean, gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski.*

##### *geroago eta ...-ago*

- *Jendea zaletua dago harzeko, ta geroago ta ederrago ez da izanen pagatzeokoak idukitzea.*



### *bezañ*

- *Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean orantxe etorri da.*
- *Nondik-nahi saiatu ezkeru ateratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen.*
- *Zazpi urte da sartu zirala askak, eta beste aska sartu zenean bezañ ona dago orañik.*

### *bezala*

- *Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña.*

### *(-en) adiña*

- *Ola handikoak espensatako len adiña eskatzen dute: 14 duros.*
- *Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal.*
- *Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña.*

### *-en bezalakoa*

- *Gabrielek ta bere anaieak orañ ari diran meatzetik aterea da, orañ heldu den bezalakoa, ta Gabrielelek esan dit, orañ kisulabeak erretzera dihoaz bi anaieak aste honetan ta bestean.*

*diña* (genitiboarekin [destinatibo adiera izan dezake, jatorriz behintzat] edo destinatiboarekin)<sup>7</sup>

- *Alkate Porturi esan omen zion gurekin konpondu zela, karretoak hark egiteko eta karretoaren diña baño gehiago eramaten bazuen gure karraidorekin bazuela kontua.*

---

<sup>7</sup> Aintzat har bedi Goizuetan oraindik, karta jokoan, pasada bat norena den esateko *hau nere* ‘hau niretzat / neuretzat’, *hau zure* ‘hau zuretzat’ ibiltzen dela.

- *Babarik Oiarzunan nik ez dut senti, ta hortik beal dezake. Fagotxikitik ekarrita eman diotet hasieran, ta haiei ordaña emanta, gañerakoa aste honetako diña da.*
- *Bigar goizean gosaritako diña baba da hemen; beal beza.*
- *Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeko esan bizaiote.*
- *Juakin Aketzaren ikatza egun biko diña izanen da, eta hemen besterik ez da, presentean behinzat.*
- *Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezetz dio. (moduzkotzat ere har daiteke)*
- *Olatxoan tretxu puska bat geldituko da, ta honen diña ikatz sortuko al da noski baso zar hoietatik!*

Mikelestorenak (1751: 36) *artu dudan diña* ‘hartu dudan adina’ dauka.

**(-rik) ...-ena** (superlatiboa)

- *Bide egite gaistoak daude; gaitzena egiñ da orañoan.*
- *Erretzke denbora ona eta egurra ona den denboran kostatzen da gutxiena.*
- *...eta honara ematen badituzte, guzien prezioa batean egiñen dela, korrientena dabillen prezioa nahiko dutela.*
- *Gazteen honek, Isasolan ari da sei lagunean, ta entoroko lana nahi lukeala.*
- *Hoberen honek opinio handi bat zaukan, ta hargatik txarrenak ere puska honi eratsi zitiozten.*
- *Jornal pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela, nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urri-urrian jornalak dituztela baño.*
- *Suerte partitu da hamabi puska, eta Artikutzakoarenzat tokatu dira aldenekoak eta onenak, eta urrutinekoak eta txarrenak ere bai. Beringo ataritik Zaldin aldera onena zen, eta aldena ere bai, eta honi eratsi diote Kausuako azpiko errebesena.*
- *Baño lantegirik libreña hau da-ta, nahi duena egiñen du.*
- *Hemen gelditu zen ezkerro, Garatekoak egin du aspaldian egiñ duen mearik ederrena.*
- *Puskarik handiena da...600 karga.*

Behin superlatiboaren marka errepikatua dago:

- *Guziak txarrak dira, baño halere hoberentxonak goiko puskan.*

Hau ez da harritzeko, egun Goizuetan *-txo* sartuz gero holakoak ohikoak direlako: *géhintxonak* (*lánik géhintxonak bukátu ttu* ‘lanik gehientxoenak bukatu ditugu’), *haundíntxonak*, *hóbentxonak*, *itsúsintxonak*, *lodíntxonak*, *ukérrentxonak* ‘okerrentxoenak’. Inoiz beste atzizkiren batekin gauza bera

dugu: *géhinxkonak, haundi(n)xkonak, baina lodíxkonak, ttíkixkonak...* esaten da.

### 3.2.3.2. Baldintzazkoak

#### 3.2.3.2.1. Forma jokatuak

*ba-*

- *Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean orantxe etorri da.*
- *Endarakoak behar duela diote, baño dirua baliz, ekarriko genuke.*
- *Ezkutura falta zazkion hoiek eman nahi balitu, gaztigatzeko esan dit.*
- *Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua bere-nak nahiko dituzte horiek.*
- *Gazteluerrekako hoiek Seingoak pretenditzen ditu, dirua izaten badu behinzat, bat 440 karga, ta bestea 220 karga.*
- *Hartu ezkerro, despojoen grazia nahi litzake, baliz.*
- *Irundar hoiek iskanbilla franko badarabilte alderago mea dugunean, orañ lengoak pagatzen ez ditugula, ta ezpadiugu pagatzen pake txarra dago hemen.*
- *Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezetz dio, goian puska emanen litzakoala betik ona balego, baño guzia galdua dela.*
- *Pagatu ezpadio nik eskatuko diot.*
- *Papera libranzako ori bealzen balu, edo nik ez dakit zer egin.*
- *Señgoa ere han omen zen, ta 1.400 ezkutu honetan ongi litzakeala dio, harrapatzen baliz.*
- *Ta esan didate berorrek Iruñetik erakarzen balu, gaztigatzeko.*
- *Ta hoiek ta despojourik izaten bada suerte hoietan, memorialean eskatzeko debalde, ametitzen balute beti izaten dela zerbait, ta modu hoietan ongi litzakeala, Indianoak hartuko lukealako. Hori ezpaliz, nahi den moduan hartuko litzake.*
- *Ta itzaiak ekarriko lukete, dirua balitz, lengoak pagatuta.*

*-en kasoan*

- *Orañ familia txikiak heldu diran kasoan, nahi badu eman beko gañerako hau.*

Erka bedi gaztelaniazko *en caso de que*-rekin eta Luzaiden-eta ibiltzen den frantsesetikako *enkas*-ekin (Kamino eta Salaberri, 2007: 56).

### 3.2.3.2.2. *Forma jokatugabeak*

#### *-ra + ezker*

- *Erremienta hoiek sura ezker malura franko badute.*
- *Ta eskatzen dute Oiarzungo olatarako asteko bost pezeta, ta herritik kanpora atera ezker urretxiki zar bat.* (Hau hurrengo puntuan ere sar daiteke)
- *Tabernara ezker zabarra omen da Bonbon hau behinzat.*

#### *-tu + ezker*

- *Fortalezakoa behartu ezker fronto halere.*
- *Hartu ezker, despojoen grazia nahi litzake, baliz.*
- *Honen lagunak dio hoge pezetakoa orañ hartu ezker, diru beharrik ez dutela.*
- *Meatze yabe hoiek alkua pasatzeko asmoak dituzte, eta pasatuko dute berak diotenaz, eta hura pasatu ezker mea hobea izanen da.*
- *Nondik-nahi saiatu ezker ateratzen dute puxkaka.*
- *Pisatu ezker pagatuaz gañera ekarri dute 50 quintales.*
- *Sikiera Errenteriatik mea ekarriko genuke, zerbait eman ezker.*
- *Ta Martiñek dio [...] nahi badu ekusi dezala, baño ez dela gauza, ta gezurraska sarzen hasi ezker, hondaska ere berria beharko dela.*

#### *-tzekotan*

- *Agudo egiñ behar da hau, hemen lanik egitekotan.*
- *Artoa ta baba behar dituztela itxolara segi dezaten, bestela dirua bealzekotan kastatu egiñen dutela.*
- *Aurrerako zerbait eman beharko zaiote mearik izatekotan, ta preziso behar dugu, olarik aritzekotan, mea belza.*
- *Baso hoiek egitekotan orañ da denbora, iratzea jaijo baño len hautsixe nahi lirake-eta.*
- *Ez egitekotan Galardiri eman ditzakagun sikiera, hark egiñ ditzan olak eta basoak.*
- *Gaur ez bealzekotan, bigar ez bealdu neregana dirurik, bigar herriraño agertu behar nuke.*
- *Hoietarako lenbizi jaso ziran 19 kargen karreto pagatu nuen burniaz 19 pezeta, 76 reales, ta ikatzgilleai pagatzekotan leku guzietara jasoak, txartelak dion bezala 670 reales.*
- *Igandeko etorzekoa zela honara esan zuen mandatari ebilli den ikazki-lleak, ta harzekotan, Goiarara urretxiki batean ekarriko omen ditu.*

- *Ignaziok esan zuen atzo gaur ez eramatekotan hurrengo egunetan urik ez dela.*
- *Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu.*

#### **-tzekotz**

- *Duendearenzat Blasek añaditu dio 500 reales, gaur akabatzekotz.*
- *...eta errespuesta eman diola «nik ola harzekotz Oiarzundik behar dut laguna, ta bestela ez dut hartuko».<sup>8</sup>*
- *Hortik heldu diran burni hoiek laster eraman behar duten gaztiga beza, laster ez eramatekotz ganbarara igo ditzakun.*
- *Lamothi gaztig[a]tu egiñ beharko zaio, idorraz be[al]zekotz, handik gurdia bealzeko, edo idi pare bat eske.*
- *Ola handiko hoiek horrara etorri behar dutela diote, berori honara heldu ezpada, ta etorzekotz gaztigituko du noizko.*
- *Olakoai kontuak egitera honara etorzekotz, nere asentuak ere ekarri ditzake, garbi ditzagun.*
- *Sebastian Torrekoak esan dit, berorrek ez egitekotz, saiatu behar duela bestetan, igandeko ehun ezkutu billatzeko estutzen dutela.*
- *Ta esan didate arrago egurraren kontrako hau 18 kuartilluan dagoela, ta biak har ditzadala, ta esan diotet nik harzekotz hau ere hamaseiean behar dudala, ta hartu ditut biak.*
- *Ta esan diotet tellatu hoiek ez erorzekotz konpondu behar dutela.<sup>9</sup>*
- *Tretxua da 5 arrobas y 17 libras, eta tiratzekotz zenbat pagatu behar duten gaztiga beza.*

### **3.2.3.3. Denborazkoak**

#### **3.2.3.3.1. Forma jokatuak**

##### **-ela**

- *Berentxikiko mutill hori iaz ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean.*
- *Gazt[el]u alde honetan, ta Ariztxulegira goazela, bide azpitik hiru yorradako tokia da Urrutinekoa.*

---

<sup>8</sup> Helburuzkoa ere izan daiteke.

<sup>9</sup> Helburuzkoa ere izan daiteke.

- *Gobiernoko guziak presente zirela esan zidaten niri Anaxturiri [...] nola kendu tiozten eskriboko moduak.*
- *Lau yorrada edo bost egiñ daitezke Gazteluko meatzetara goazela.*
- *Lorenzo igelea, horkoa, Sidroren lekuan hemen zela ola handikoak egiñ zuten tretxua... 92 quintales y 3½ arrobas.*

### **-elarik**

- *Hemen diodan eskario hau karraidoreak libratzen dute berorrek ema[n] nahi duelarik.*

### **-en artea** ‘-en artean’, ‘-en bitartean’, ‘-en arte’

- *Borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko.*
- *Honela dagoen artea zorrak ez dituela gutxiago egiñen.*
- *Jose de Olaziregi aritu den artea egiñ da burnia...166 quintales y 2 arrobas.*

Mikelestorenak (1751: 34, 36) *-en artean* ohi du honelakoetan.

### **-en denboran** ‘-enean’

- *Arrago egurketan elkarrekin ziran denboran ekarriak.*
- *Burnia hoietatik zerbait añadituko zuela mearik etzen denboran.*
- *Errenteriatik mea, burnirik etzen denboran eskatu zuten 7 kintalenzat.*
- *Erretzeko denbora ona eta egurra ona den denboran kostatzen da gutxiena.*
- *Kabezoiak tiratzen aritzen da hemen allegatzen den denboran.*
- *Kanpoko igele hoiek aritu diran denboran egiñ da tretxua...310 quintales y 1 arroba.*
- *Onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran.*

Ondoko hauek ere antzetsukoak dira:

- *Arrago egurketan naste ziran denborakoak dituzte.*
- *Hoietatik añadimentua agindua den denborakoa 21 quintales.*
- *Hoietatik 12 kintal retornurik ez den denborakoak.*

Mikelestorenak ere (1751: 31) forma hau darabil, *-enean*-ekin batean.

Goizuetan egun ohikoak dira *-emon* (< *denbon* < *denboran*) duten denborazko perpausak: (*e*)*tórtzen dénemon abítuko gâ* ‘etortzen den denboran abiatuko gara’, *beré lána útten dúnemon atéko da* ‘bere lana egiten duen denboran aterako da’, *gótzen (t)zínemon (e)tórriko dâ* ‘gogoratzen zaion denboran etorriko da’. Dena dela, hauekin batean *-enen* ‘-enean’ dutenak ere ardu-

rakoak dira: (e)tórtzen dénen abítuko gà ‘etortzen denean abiatuko gara’, beré lána ítten dúnen atéko da kánpora ‘bere lana egiten duenean aterako da kanpora’, gótzten (t)zínen (e)tórriko dà ‘gogoratzen zaionean etorriko da’.

Aurrekoekin batean, -elik(an) ere bada Goizuetan, baina adiera, denborazkoa izanagatik, bestelakoa da: orí pasátu(a) délikan badá, gútxinez, bost urté ‘hori gertatu dela badu gutxienez bost urte’; kótxea erósi zúlikan badá / izáin da oéi urté béden ‘autoa erosi zuela hogeitaz urte bederen badira / izanen dira’.

**-en ezker** ‘-enetik’

- Franzisko Antonio Uhartekoak ditu, leneko paga egiñ zitzaion ezker, ogi emanak honara: 38 panes a 20 cuartos importan 22 pezetas y 12 cuartos.
- Hemen gelditu zen ezker, Garatekoak egin du aspaldian egiñ duen mearik ederrena.

**-en guzia(n)** ‘-en aldiro’

- Kabiguñak ere eskatu gabe botatzen genituen orañdañoan, ta memorialarekin eskatzeko esan didate arbola bota behar den guzia[n].

**-en honetan** ‘-enean’

- Len aldiazka bezala orañ guziak batean, ta len ordañoa franko izaten da han dabilzan haietan, baño orañ, guziak behar diran honetan, ez da hañ aisa billatuko.

**-enean**

- Ekusi beharko zaio zerbait iñoiz gertatzen denean, ta bide giteko lana ere aparte beharko da.
- Lau agoa hogeita lau orduan egiñ omen zituzten, ta laguna etorri zitzaionean guziak lagunak apaindu.
- Lorenzo Zabalak, egitera etorri zenean, ingudeari su eman arratsean, ta biharamunean arratseko hasi ziran.
- Ola handitik ari diranean kuartillua gehiago omen da usuarioa.
- Olatxo aritu zenean espensa egiñ zuten [...].
- Orañ Motela horra heldu denean konponduko da nahi duen bezala.
- Peligroan egurrik Oielekutik beiti da, karraiadoreak butsik heldu diranean karga bailitezke; bestetan ez da peligrorik.
- Zuloakoak idiak trukatzeko modua duenean behar duela dio dirua.

Ikus *-en denboran* aztertzean hauetaz esan duguna, goitixeago.

Ondoko hauek denborazkoak dira, baina irudi du buru izena aitzinaturik dutela, berez erlatiboak direlako, bistan da:

- *Lengo ebaki zenean bazuen 600 karga guretzat.*
- *Manuel Fagotxikikoak hartu nahi du; egurra bota ta ekarri alde batera, ta hurrengo honara heldu denean egiñ behar dugu tratua.*

#### *-eneko*

- *Haspagilleak esan du adobatzeko zulorik izaten deneko gelditzen badut ere, txikienak gelditzeko zerrenda puska hoietatik.*
- *Hau begia erreta jua denean ekarri dugu Isasolako igele gazdea, eta bi agoa egin diraneko tobera erre da edo hautsi kañoien mugatik.*
- *Martiñen semea miñez zagoen len, ta jaikitzen hasi deneko Martiñ bera errenditu da.*

#### *-enetik*

- *Lenbiziko hasi zenetik Eguerriak artea da lan hau edo aste hoiek.*

#### *-eño* ‘-en bitartean’

- *Berai ezin emanen zaie; dirua duteño zabarrak izanen dira.*
- *...eta errespuesta eman duela ez dela metituko, eta ez dela konsejupera-ko ere olaren kandela dagoeño.*
- *Ogia hogeitaz pezetan dago, ta prezio honetan dagoeño 38 kuarto behar-ko du ogi bakoitzak.*

#### *urte + izan aditza + -ela*

- *Eta zazpi urte da sartu zirala askak, eta beste aska sartu zenean bezañ ona dago orañik.*

#### *3.2.3.3.2. Forma jokatugabeak*

##### *-tu + ala* ‘-tu ahala’

- *Garatekoak mea ateratzen ari dira, baño Karraio lengo egunetan ez da ebilli; artoak bildu ta itxe lanetan aritu da berdin, aisa ekarriko duela haiek atere ala.*



**-tu + artea** ‘-en artean’, ‘-en bitartean’, ‘-en arte’

- *Errespuesta yakiñ nahi luketela laster, ez dutela urtetako parat[u]ko pakea egiñ edo atzera-aurrera ekusi artea.*
- *Gañerakoak, batean ta bestean, hemen darabilzit, nekazaleai berorrek bealdu artea puxkaka emanaz.*
- *Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeko esan bizaiote.*
- *Ikatza ta tretxua puxka bat bildu artea, olatxoa gelditu dugu.*
- *Lenbiziko aste erdian berorrek lineak gaztigatu artea egiñ genuen kua-droa 9 lineatik 12 lineatarañokoa.*
- *Mea zuri gutxi dugu, baño esperanza txarra dago bildu artea egoteko.*
- *Ola handia hasizera goa[z] puskak egin artea.*

**-tu + baño len(ago)**

- *Barkazioa sartu baño len egiñ nahi genuke diligenzia hau.*
- *Belderrainek esan dit, beste lagunetara baño len, Juan Migelek nola esan zion 16 kuartilluan hark hartuko duela.*
- *Gaztigatu du hartu baño lenago, baldin berok pretenditzen badute, nola nahi lukean.*
- *Kabiguña sartu berria ta zarra, hautsi baño len, boban eskatuta bobatu ere bai.*
- *Manuel Bengoetxea honi ez diot galdatu orañik, baño eman baño len galdatuko diot honi ere.*

**-tu + bitartea** ‘-en bitartean’

- *Tretxu hoiek egiñ bitartea kuadroak egiñ ziran 21 quintales.*

**-tu + ezkerro**

- *Merkatu ezkerro libra bat gutxi...4 arroas.*
- *Pisatu ta berehala hasiko dira, bai, diruaren mandatua hartu ezkerro.*
- *Agoak apaindu ezkeroko tretxua eginen luke.*
- *Kontua egiñ ezkeroko lana...46 pezetas y 31½ cuartos.*

**-tu orduko**

- *Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxoa perparatu orduko.*
- *Nik kontua bealdu orduko, Agustiñenak...20 cargas.*
- *Ta berotzalleak, Luisen anaiea, Honbretxo, ta bestea Arburu, ta hoiek astea pasatu orduko eskatzen hasiko dira, beharrea daude-ta.*

- *Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu.*

**-turik**

- *Munoako semeak, julio 98an hartu zituen 16 ezkutunak pagaturik, egin zuen harzeko, arrago jornalak azkeneko pagatu ziran denborako, orañ hiru urte baita, 14 ½ reales.*

**-tuta, -tu-ta**

- *Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia maneatuta, ingudeari tor-nua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoan ziran itxera.*
- *Egun goizean olatxo ez dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldu-rrak, jaiardia nola baitzen hasi-ta lana eskastuko dela.*
- *Ezkondu-ta aitagandik partitu egin da.*
- *Heldu zaio irabazia bakoitzari, espensak pagatuta, 19 pezetas y 2 cuar-tos.*
- *Luisek, laguna geldituta, bakarrik egin du bere semearekin...61½ quin-tales.<sup>10</sup>*
- *Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal belza dute nasia, ta, nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite.*
- *Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran, berorrek nekexko bealduta.*

**-tzean**

- *Erremienta egitean kastatu dira [...].*
- *Espensan paga bealzean hoiek gutxiago bealzea du.*
- *Haspoak ateratzean ta sarzean bana.*
- *Olak hasi baño len, besteakin batean nahi badu txartela egiñ bi olata-rako; hasitzean beharko da.*

---

<sup>10</sup> Kausazkoa ere izan daiteke.

- *Orañ hurrengo espensaren pagatzean emanak izanen ditu 54 pezeta hoiek hurrengo kontualdirako.*

#### **-tzearekin**

- *Hiru orgak orañ bealzearekin izanen dira guziak 100 quintales.*
- *Hoietarako 1.026 reales vellón emanak izanen dira Buruzuria pagatzearekin.*

#### **-tzeko aurre(an)**

- *Ola hasitzeko aurreko larunbatean eguna pasatu zuten ola perparatzen.*
- *Ta hurrengo agoan illuntzeko aurrean iraikei, ta orduan hasi da lanean.*

#### **-tzeko denboran**

- *Amor ematen du agoa ateratzeko denboran.*
- *Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitzeko, ta erre hoietako botatzeko denboran iragotako egunaz.*
- *Berorrek nekazalen kontua bealzeko denboran bakoitzari len emana geldituaz pagatuko nuke.*
- *Esaminadorea ta guardamuntea botatzeko denboran han izan beharrrak dira biña egunetan.*
- *Ola hasitzeko denboran pasatu dute ola prestatzen egun bat, eta bigarren egunean eguerdi ondoan hasi ziran.*
- *Ta nik horrara eskarioa edo kontua bealzeko denboran, burnien diruen gañera beal nezakean kontuaren eskarioa.*

#### **-tzera orduko**

- *Kabitegia kendu dugu ta katuak ere bai, ta maisuak dio endal harri bat sartu behar dela, harria billatuta, ta zepotillu bat ere bai. Ola handitik aritzeko ta hasitzera orduko lan hoiek egiñ behar direla, ola honen atzera-aurrera laster egiten baliz.*

Hurrengo hau baldintzazko perpausetatik aski hurbil dago:

- *Anatxurik etorri ta eraman egin nahi du, ta gero karraidoreai kargatu, baño ematera orduko norenzat den jakiñik ematea hobe da, salsan gero ez gabilzan, ta ematen dena hilleko paperetan bealdu.*

### 3.2.3.4. *Helburuzkoak*

#### 3.2.3.4.1. *Forma jokatuak*

##### a) *Indikatiboarekin* (geroaldiarekin)

- *Arotzak ariko badira lorra lenago egin behar dugu.*
- *Baño itzaiak ebilliko badira, lengo kontuak garbitu nahi lukete.*
- *Itzaiak baietz esanta beren gisa dabilza, honara gabe eta zerbait bealdu edo zerbait egiñ beharko zaiote fundamentuz hasiko badira.*
- *Ostaleroa edo tabernariak gaztigatu dit igandeko behar dituela ardoen diruak; mandazaiaari kontua emanen badio preziso behar dituela.*
- *Tellatua eta paretak besterik ez dagoela haren itxean, ta yoanen badira puskak eraman beharra izanen duela.*

##### b) *Subjuntiboarekin*

- *Anatxurik etorri ta eraman egin nahi du, ta gero karraidoreai kargatu, baño ematera orduko norenzat den jakiñik ematea hobe da, salsan gero ez gabilzan, ta ematen dena hilleko paperetan bealdu.*
- *Artoa ta baba behar dituztela itxolara segi dezaten, bestela dirua bealzekotan kastatu egiñen dutela.*
- *Euririk egiten badu ere, harerik urak eraman ez dezan erakarri ditugu itzaiak.*
- *Ez egitekotan Galardiri eman ditzakagun sikiera, hark egiñ ditzan olak eta basoak.*
- *Konponduko ditut nik ikatzgilleak ta gobiernokoak, salsa hoiek akabatu ditzagun.*
- *Olakoai kontuak egitera honara etorzekotz, nere asentuak ere ekarri ditzake, garbi ditzagun.*

#### 3.2.3.4.2. *Forma jokatugabeak*

##### *-tze aldera*

- *Ta orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera ta, edo bestela karraidoretan kontuan pasatzeko.*

##### *-tzeko*

- *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela, edo barrika, edo zerbait idukitzeko.*

- *Errenterian mea garbitzen ari diran oiarzuarrari eman ditioztet bi pezeta, mea zare...bi ta bihorzeka bat pagatzeko.*
- *Haspagilleak esan du adobatzeko zulorik izaten deneko gelditzen badut ere, txikienak gelditzeko zerrenda puska hoietatik, joskurak ateratzeko Elamarako luzenak behar dirala.*
- *Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko [diote].*
- *Jornal hoiek dira mea modu onekoa kargatzeko.*
- *Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin bakoitzak bere nagusiari aditzera emateko.*

#### **-tze kotz** (batzuetan -tze kotan baldintzazkoaren baliokidea da)

- *Diruarekin alea edo bia billatzekotz Fagotxikira ekarri beharko dugu dirua.*
- *Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal, barrengo oltxiki haiek ematekotz.*
- *Kabillan aritzekotz hor edo Arranbiden egiñ beharko dira.*

#### **-tzera**

- *Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia maneatuta, ingudeari tor-nua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoan ziran itxera.*
- *Gobiernokoak besterik etzen igo hamaiketakoa egitera.*
- *Hoietaz gañera, hemen hasi ta asteartean horrara eraman zuen, hor aritzera.*
- *Orañ banoa berorrek esan bezala ekustera, ta Jose Antonekin egonen naiz.*
- *Probestuak esan dit, hamaiketakoa pagatzera jua naizanean (sic), gastu puska bat gehixego izanen dudala noski.*

### **3.2.3.5. Kausazkoak**

#### **3.2.3.5.1. Forma jokatuak**

##### **bait-**

- *Baltasarrek esan dit hoiek deklarazioa egiñ dutela lenbizikoan 1.500 cargas, kandelan ere hala baitago.*
- *Eta eraman dituzte bi orga kuadro Lamontengana, Patxiku Katxo horrarako mea ateratzen ari baita Pagoetan.*

- *Halere erretzea bigarren egunean gutxitan akatzen baita, errekamanañaz, hirugarren egunean maiz izaten da errekamana bat eman beharra.*
- *Munoako semeak, julio 98an hartu zituen 16 ezkutua pagaturik, egin zuen harzeko, arrago jornalak azkeneko pagatu ziran denborako, orañ hiru urte baita, 14 ½ reales.*
- *Peligroan egurrik Oielekutik beiti da, karraiadoreak hutsik heldu diranean karga bailitezke; bestetan ez da peligrorik.*
- *Pilliperen semeak 26 kargaren kontua eman badu, ez dakigu haren edo gurea den falta; eta gure falta bada, ikatzgilleak ere falta baititu bi lepatotu horiek.*
- *Tomas zar hau azkeneko txartelarekin izandu zen, hor 28 kintal baitzen, ta haiek dira mea nasiak.*
- *Uitxik ditu hemen olatxoan pasatuak 8 semanas y 4½ días. Egun erdi hau lau eguneko asteak ekarzen du, lau ta erdi kontatzen baita.*

#### **-ela kaso**

- *Bera etzen hemen, kandelarik etzen espero ta. Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote kandelan.*

#### **-ela-ta**

- *Bautista mealleak arto puxka baten txartela behar duela, batere ez duela-ta.*
- *Hangoa nahiago luke, zallago izanen dela esan diotela-ta.*
- *Ogi egilleak gaztigatu du, errotaria pagatzeko behar duela-ta, ogien diruaz.*
- *Sagardo txarra egiteko onzirik ez dugu-ta, kupela egiñ behar nuke.*
- *Ta 9 lineako kuadrotik hiru arroa berehala behar litukeala, lañak egiteko kuadrorik batere ez duela err[er]joak esan diola-ta.*

#### **-en bezala**

- *Tellatua eta paretak besterik ez dagoela haren itxean, ta yoanen badira puskak eraman beharra izanen duela, ta bereak dituen bezala eraman ditzala esan diogu.*

#### **-en ezkerro**

- *Eta gobiernokoai esan behar ziotela puskaka paratzeko, kandelan puskatan ziren ezkerro pagoak.*

- *Hori ezpaliz, nahi den moduan hartuko litzake, baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezker, ta esamiñetan hainbeste egon!*
- *Olatxoko espensak pagatu diran ezker, ola handikoak ere pagatu nahi baditu, azkeneko arragoakoak dira zor.*

*-en medioz*

- *Juan Migelek Errenteriakoan franko badela, baño esamiña ona daukan medioz pretenditzen duela.*

*(e)ta*

- *Aranederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko eta herri guzia hargana dihoa-ta, dirua eskuan nahi, tratu anitz erabilzeko.*
- *Aurten kastatzeko urtea dugu; iñudea ere hillean hamar pezeta pagatu behar dugu-ta.*
- *Baño lantegirik libreña hau da-ta, nahi duena egiñen du.*
- *Bautista mealleak harzen du [basoa], ola gelditzen denean botatzeko, datorren astean olako lanak aterako dira-ta.*
- *Bera etzen hemen, kandelarik etzen espero ta.*
- *Bi astean Josepek agoak apainzen dituela hemen aritu da, Tomas miñez egondu da-ta.*
- *Burkaitz gaistoa da-ta eziñbestean hartuko dute, noski.<sup>11</sup>*
- *Egun bi hoietan Manuel Juaquin, ta Sebastian, eta Arburu ariko dira, Uitxik horrara agertu behar duela esan du-ta.*
- *Erruda eskatzen hasita gezurraska goiaz erori da, seguratu gabea zegoen-ta, eta pareta yota puska bat bota du, ta guzia artesi goiaz.*
- *Eta probestuari niri kalean esateko esan omen zioten, ta arratsaldean ni kalera yoan ez ninzan-ta, bere gisa etorri omen zen honara, nola kalean harrapatu ez ninduen.*
- *Hoietaz nik egun konturik asentatu ez dut, yaten eman genioten-ta.*
- *Idienzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta.*
- *Larruak Bautista Altamirak eraman omen zituen; bereak eskas-ta eskatu omen zition.*
- *Manueli erakarri diot nik ogi bat, eta hamar cuartoan pasatzen zen hura, libra, ogi gutxi omen zen-ta.*

---

<sup>11</sup> Hau honela ere puntua daiteke: *Burkaitz gaixtoa da, ta eziñbestean hartuko dute, noski.*

- *Olatzagako hoiek aurrera dihoaz, ta hoiek egiñ beharko dute, berenaren mugante dute-ta.*
- *Ta berotzalleak, Luisen anaiea, Honbretxo, ta bestea Arburu, ta hoiek astea pasatu orduko eskatzen hasiko dira, beharrean daude-ta.*

### *nola bait-*

- *Bigar hor jaia nola baita iñor izanen ez dela, gaur egiñ dut txartela hau; bigarko ogiak ere sartuak dire.*
- *Egun goizean olatxo ez dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldurrak, jaiardia nola baitzen hasita lana eskastuko dela.*
- *Irundar hoiek hemen dabilza ondotik, ta hor izandu ziranak nola ekarri baitzuten beren kontua, uste dute nere falta dela.*

### *nola...-en*

- *Atzo galdatu diotet ea zer eguiten duten, ta esan didate esaminadorerik nola ez duten, aurten zein bealdu edo nola gobernatu dutela demanda puxka bat elkarren artean.*
- *Baño sensoaren erremedioa, batean egiteko edo emateko dirua, denbora txarrak nola zauden, guk ere geren beharra egitera egiñ dugu.*
- *Espensa honi rebaja egiñ behar bazaio, nola irabazi etzuten, paratu dut hau.*
- *Guk harzen dugunean artaldea bezala han etorzen dira jendeak, eta hura nola handiskoa zen, haren ondotik iñor etzen juan.*
- *Konsejupean nola izandu zeran kandelak dauden denboran, jendeak juizioa egiten dute olagatik zabilzala.*
- *Migel de Irigoienek nola dituen 60 pezeta hartuak, haietarako uzten ditu jornalak.*
- *Probestuari niri kalean esateko esan omen zioten, ta arratsaldean ni kalera yoan ez nintzan-ta, bere gisa etorri omen zen honara, nola kalean harrapatu ez ninduen.*
- *Ta honetaz gañera plantak nola dituen, heldu da 1.500 ezkutu plantakin.*

### *zeren...(-en)*

- *Gebiago añaditzeko kondiziokoa edo agindua, zeren mearik etzen...6 quintales.*



### *zergatik...Ø*

- *Hoiien botatze-saria eta berdinzea tokatzen zaio Kaperori, zergatik ordanarik ez dugu ekarri.*
- *Lagun batzuen txartela, batek edo bik hartu beren buruan ta guziak horrara eziñ ebilliko direla, zergatik batzuek gutxi dute, ta gutxigatik ebillzeko biaje luzea-ta.*
- *Ni nago ola-jaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpoko mea hoietan txar asko ateratzen da.*

### *zergatik...-en*

- *Añadimentua 21 kintalena, zergatik bueltan mearik etzen.*<sup>12</sup>
- *Fiatu giñan eta esan nion ongi zela, Anatxurik guri entregatutzen diguna herriak entregatutzat gelditzen giñala, zergatik gure karretoa herriak pagatzen zuen ikatza hari emanaz.*
- *Hirugarren ikaztogia yasotzen ari dire, ta Artikuzakotik batere ez, zergatik gureak era hobean diran yasotzeko.*
- *Hoiinak utzita beste zazpi ezkutu lodiak beal bitza, zergatik arrotzak diran besteak.*
- *Lera kargatzen pasatu ditu, egun erdia kontatzen zaiola, sei egun...3 días a 5 reales, zergatik itzaiak etzuten gauza onik egin nahi kargatza-llerik gabe.*

### **3.2.3.5.2. Forma jokatugabeak**

#### *(-tu) gabez*

- *Ta gure dirua itzuli dute lurrak kenzeko eta hartu nahi gabez.*

#### *-tua*

- *Eta mealleak ekarria, agoa palanka txiki bat hemen ohi da.*

---

<sup>12</sup> Aditza iraganaldian duten hauek aitzineko puntuan (*zergatik...Ø*) berdin-berdin sailka daitezke, ez baitakigu adizki horiek lehenaldiaren ezaugarri den *-en* eta *-en* mendera-gailua batzearen ondorio diren edo aurreneko ezaugarri hori, lehenaldiarena, besterik ez duten biltzen.

### **-tuagatik**

- *Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak, maiz puxka-ka emanagatik ezagun gabe juanen al ziran.*

Nolanahi ere, badaiteke *emanagatik* horren adiera ‘eman ditugulako’ ez, baizik ‘eman arren’ izatea. Hola izatera, ez litzateke perpaus kausazkoa izaneren, bistan da, kontzesiboa baizik.

### **-tuta / -tu ezta**

- *Aprendizaren amari elizarako eskastuta eman diot 5 pezetas y 10½ cuartos. Aprendizak esanta eman diot, horien asentuetan paratuko ditu.*
- *Atzo Isasolako karraidoreai erakarri nitiozten ikatzak...56 cargas, olan hasteko ikatza falta izanta.*
- *Egun batean bakarrik aritu zen, Tomas miñez ta Antokorena etorri ezta.*
- *Joseperen hau da bakarrik aritua igelerik izan ezta, eta lagunaren partezko irabazia.*
- *Mirandari organ maxura puxkaren bat egiñta gaur ez da kargatzera etorri.*

### **-tzeagatik**

- *Zuloakoak berak honara eman nahiagatik ere, beste bi lagun badira partidukoak, eta haiek Isasolara lenago limurtuko dira, dirua frontoxe-ago izateagatik.*

## **3.2.3.6. Kontzesiboak**

### **3.2.3.6.1. Forma jokatuak**

#### **aditza + -ela ere**

- *Meatze ona yarri ezkerro meakariak pozik ariko dira, deretxoa berak pagatzen dutela ere.*

#### **aditza + -enagatik**

- *Ola paratu dute kandelan dotaziorik gabe, 500 dukat zillarrean paratuta 450 dukateraño etorri zen argia itzali orduko. Hurrengo jaiean aterako dutela debalde ere. Iñork hartuko duenagatik, han egonen da bai dotaziorik gabe.*

### **ba- + aditza + ere**

- *Andres agerzen bada ere, estutu gabe badagoke, bai.*
- *Errotaberrikoari guk ustaiak egin ez, ta etorri da kupela yosten ari dirala, eta berorrek ezpadu emateko gaztigatzen ere, dirua emanen didala.*
- *Pagoetan kontrariorik badere, eskola maisuari esanta hark hartu ditu.*<sup>13</sup>
- *Patxikuri esan nion bada zepoa atera edo hautsia zagoela, olatxokoa, len erabilli hau; lana izan bagenue[n] ere, geldituko giñan.*

Berezia, erdarazko *por si acaso + aditza* baita.

- *Euririk egiten badu ere, harerik urak eraman ez dezan erakarri ditugu itzaiak.*

Hurrengo honetan ere gauza bera dukegu, baina ez da segurua *ere* falta ote den:

- *Sagardo hoiek espensan zeñenzat zenbat bealduko dut txartel bat; len ere bealdu nuen ta orduan asentatu ezpazituen [ere].*

### **zertaraño baitere**

- *Arranbideko txabaletatik, gu pisatzen izandu ezkerro, allegatu dira zertaraño baitere Erreterian, eta guk ere hangoak pisatu genituen 200 barra.*

### **3.2.3.6.2. Forma jokatugabeak**

#### **nahiz + -tu**

- *Aketzaren semeak ere eskatzen du; Axeriak ere bai, nahiz lengoa egin ez.*
- *Eta hura pasatu ezkerro mea hobea izanen da, nahiz deretxoa pagatu, eta meatze ona yarri ezkerro meakariak pozik ariko dira.*

#### **-tuagatik**

- *Baltasarrek dio Garalorregin ta Otsandolan, hoiien esamiñan, ongi aterako dela, izerdiak galduak izanagatik.*
- *Eta esan dit ahunztegia eskatzera ezin atrebituz zegoala, eta graziak handiak egiten tiodala, baño ez prendarik harzeko, hark bere puskak eramanagatik tellatua eta paretak besterik ez dagoela haren itxean.*

---

<sup>13</sup> Ikus esaldi honetako *badere*-z hiztegian dioguna.

- *Hurrengo astean besteak etorriagatik, hemen koponduko ditut nik elkarren artean.*

**-tuta ere**

- *Eta kupela iduki nahi badu ere bai, ahuntzakin gorotza beretzat egiten duela, hemen izatekotz, behar genuen bezala, kanpora yoanta ere.*
- *Isasolan, kabiguñ batekin etorrira ere, ogia ta ardoa badituzte.*
- *Nekazaleai berai burnia emanta ere, horrara ez gaztigatu burniaren konturik.*
- *Nondik-nahi saiatu ezkerero ateratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere, nereko, nahiz berorrenak eta nahiz besterenak dirala.*
- *Txarra izanta ere, ehun ta berrogeita hamar karga.*

**3.2.3.7. Moduzkoak**

**3.2.3.7.1. Forma jokatuak**

**-ela**

- *Bi astean Josepek agoak apainzen dituela hemen aritu da, Tomas miñez egondu da-ta.*
- *Bigar hor jaia nola baita iñor izanen ez dela, gaur egiñ dut txartela hau; bigaroko ogiak ere sartuak dire.*
- *Erremienta egiteko eguna ezkutu erdia kontatzen zaiola ditu falta hoiek.*
- *Haizarka honetan beti maxura da; burnirik ezin berotu da, aldetatik puska dariola.*

**-en bezala**

- *Gelditu [ditu]t, berorrek gaztigatu duen bezala, espensenak eta Errenteriako dendariarenak.*
- *Orañ Motela horrara heldu denean konponduko da nahi duen bezala.*

**-en moduan**

- *Eta horko asentuan, edo nahi duen moduan, abonatu dio astea bi olatan pasatu hau.*

- *Hori ezpaliz, nahi den moduan hartuko litzake, baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezker, ta esamiñetan hainbeste egon!*
- *Libre ~~hartu~~ nahi badio eman, hartuko duela 5½ realean, sei errealean pasatuko baita, honek eskatzen duen moduan.*

**-enaz**

- *Andres bera izan liteke konponzio hoietan dabillena, ta bera ere salsan izan liteke, Andres, niri daritzadanaz.*
- *Meatze yabe hoiek alkua pasatzeko asmoak dituzte, eta pasatuko dute berak diotenaz.*

**3.2.3.7.2. Forma jokatugabeak**

**-Ø gabe**

- *Itzaiak baietz esanta beren gisa dabilza, honara gabe eta zerbait bealdu edo zerbait egiñ beharko zaiote fundamentuz hasiko badira.*
- *Suerte ta enborrak kandelara gabe eman dituzte.*

**-tu gabe**

- *Agerreren sei anega baba dira ta, olarako asmoan, nik geldituak daude saldu gabe.*
- *Sarobeko nagusi honek dio berau etorri gabe bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola lenbailen.*

**-tu beharrean**

- *Espensan pagatzean agostoan ½ fanega haba 9 pezetas kontatua harrapatu dut, 4½ pezetas paratu beharrean.*

**(-tu) bezala**

- *Eta orañ banoa berorrek esan bezala ekustera, ta Jose Antonekin egonen naiz.*
- *Len aldiazka bezala orañ guziak batean.*

**-tua**

- *Eta Isasolan bazutela zor puxka bat, soldaduenzat ikatza kendua, ta hura pagatu ta gañerakoa har genezela (sic).*

**-tuaz, -tuz**

- *Berorrek nekazalen kontua bealzeko denboran bakoitzari len emana geldituaz pagatuko nuke.*
- *Gañerako hamabi orgak berak pagatu ditu deretxoak, ezkutu lodiak neregana bealduaz.*
- *Gañerakoak, batean ta bestean, hemen darabilzit, nekazaleai berorrek bealdu artea puxkaka emanaz.*
- *Len hemen zen agoa palanka hautsi ta eskarpatuaz guzia mebatua da gerrian.*
- *Sarastik esan dit kandelan paratuta bajatuaz ekarriko dutela, ta iñork gehiagok hartzen ezpadu, orduan emanen dutela.*
- *Tobera beal beza. Ola gelditu da eskarpa guzia erreta eziñ ariz.*

**-tuta**

- *Anatxuri nik ez dakit zeren esperoan ebilli den honenbeste salsa paratuta.*
- *Baño bi burni ziri Buruzuriari eman genition Señoak aginduta, 17½ libras, eta hoiek berorren bizkar.*
- *Gobiernoko guziak presente zirela esan zidaten niri Anatxuriri hamar ezkutukoren batekin, despojo puxkaren batzuek emanta, geroztik aña-ditu edo gehiegi izanta, nola kendu tiozten eskriboko moduak [...].*
- *Hark zer egiñen duen bada esan dit, alkateak egiñ behar duela, ta firma hutsa egiñta bealdu du berriz hark.*
- *Hortik heldu den hargiñaren jana nola behar den konponduta beal beza.*
- *Olioa neurrita paratuko diogu.*
- *Orañ ere Garatekoak eta Mattanttak hasi behar dutela diote, hamarretatik bat emanta, beste modurik ezpada.*
- *Sidro ianziarra jua da begia erreta.*

## 4. HITZ HURRENKERA

### SARRERA

Atal honen xedea JRMk gutunetan ibiltzen duen hitz hurrenkeraren azterketa egitea da. Izan ere, euskararen hitz ordenak denboran zehar eta euskalki batetik bestera aldaketak jasan ditu eta, horregatik, garrantzitsua da garaian garaiko eta tokian tokiko testuak nolakotasun horri begira ikertzea, hizkuntzaren garapena eta aldakortasuna hobeki ezagut daitezten. Sarrera labur honen ondoren, lehen atalean lanaren testuingurua aurkezten duten zenbait xehetasun azaltzen dira, hizkuntza tipologia ahotan hartuta. Bigarren puntuari euskarazko hitz hurrenkeraren eztabaidagaiak ukitzen dira, ikuspuntu sinkronikotik zein diakronikotik, eta hirugarrenean corpusaren ezaugarri batzuk eta ikerketa metodologia zehazten dira. Laugarren atalean hitz ordenaren azterketa eginda koan, bosgarrenean lanetik atera daitezkeen ondorioak aurkezten dira.

### 4.1. HITZ HURRENKERA HIZKUNTZA TIPOLOGIAREN ARGITAN

Munduko hizkuntzen hitz hurrenkera alderatzeak, alderaketa honen arabera hizkuntzak tipotan sailkatzeak eta jarduera honetatik ondorio orokorrak ateratzeak denboran atzera garamatzaten eragin handiko aurrekariak dituzte hizkuntzalaritzan (Von der Gabelentz, 2016 [1891]; Behaghel, 1909; Jespersen, 1917; Sapir, 1921). Hala ere, esan daiteke hitz hurrenkeraren tipologia, egun ezagutzen dugun moduan, Greenberg-en (1963) lanarekin hasten dela. Ikertzaile iparramerikarraren ekarpenak argia ikusi zuenetik gaur egun arte hurbilpen hau fintzen eta ontzen saiatu diren hainbat proposamen egin badira ere (Lehmann, 1973; Vennemann, 1974; Hawkins, 1983 eta Dryer, 1992, gutxi batzuk aipatzearen), oinarrizko metodologia ez da aldatu eta, ondorioz, ordutik hona idatzi diren gramatika deskribatzaile gehienetan, baita lan tipologikoetan ere, hizkuntzak, lehenik eta behin, ezaugarri baten arabera sailkatu izan dira, hain zuzen baiezko adierazpenetan subjektuak (S),<sup>1</sup> osagarri zuzenak (O) eta aditzak (A) usu elkarrekiko

---

<sup>1</sup> «Subjektu»-a zer den erabakitzeak irizpideak hizkuntzatik hizkuntzara aldatzen dira eta, hartara, ez dago adigai honen baliozko definizio unibertsalik. Hortaz, badirudi hobe dela erlazio gramatikalen funtzio semantikoaren arabera S (= perpaus iragangaitzetako egilea), A (= perpaus iragankorretako egilea) eta P (perpaus orotako jasailea) bereiztea. Honen inguruan ikus Haspelmath (2019).

duen oinarrizko hurrenkerari begira, betiere lehen biak (S eta O) sintagma osoak badira eta azkenak (A) forma jokatua badu.<sup>2</sup>

Honetaz gain, ikerketa hauetan antzeman da subjektuak, osagarri zuzenak eta aditzak elkarrekiko duten ordena bestelako hurrenkerekin batera gertatzeko joera izan ohi dela. Horrela, aditza perpausaren hondarrean (OA) paratzen duten hizkuntzetan postposizioak eta izenaren aurreko erlatibo perpausak kausitzen dira eta, alderantziz, aditza perpausaren hasieran (AO) dute netan preposizioak eta izenaren ondorengo erlatiboak. Bi balioetatik bata (A tipoa) edo bestea (B tipoa) izan ditzaketen hitz hurrenkerak era honetara antolatzen direla proposatu da (Harris eta Campbell, 1995: 196):

### Lehenbiziko taula: hitz hurrenkeraren ohiko tipoa.

A tipoa	B tipoa
Osagarri zuzena-aditza (OA)	Aditza-osagarri zuzena (AO)
Izena-postposizioa	Preposizioa-izena
Adjektiboa-izena	Izena-adjektiboa
Genitiboa-izena	Izena-genitiboa
Determinatzailea-izena	Izena-determinatzailea
Erlatibozko perpausa-izena	Izena-erlatibozko perpausa
Aditz nagusia-aditz laguntzailea	Aditz laguntzailea-aditz nagusia
Alderagaia-adjektiboa	Adjektiboa-alderagaia

Sailkapen honetako bi tipoetako bat salbuespenik gabe osatzen duten hizkuntzez «harmonikoak» direla esan ohi da: A tipoaren adibideak dira, beste anitzen artean, arameera, birmaniera, japoniera, kitxua eta turkiera, eta B tipoaren arabiera klasikoa, hawaiiiera, hebreera, irlandera eta maia klasikoa (Hawkins, 1979). Haatik, banaketa honek arazo handiak sortzen ditu, hizkuntza asko ez baitira salbuespenik gabe bi taldeetako batean sartzen: finlandierak eta guaranierak, adibidez, postposizioak dituzte, baina osagarri zuzena aditzaren atzean paratu ohi dute (Gregores eta Suárez, 1967; Karlsson, 1999).

<sup>2</sup> Hiru osagai hauek oinarri hartzen dituen sailkapenaren emaitzak, besteak beste, WAL-en ikus daitezke (Dryer eta Haspelmath, 2013).



Bestalde, badira ohiko hurrenkerarik ez duten edota bi oinarritzko ordena onartzen dituzten hainbat hizkuntza: gutxienez 189/1376 (% 13.7) dira munduan (Dryer eta Haspelmath, 2013).<sup>3</sup> Azkenik, sailkapen honek ez du malgutasun maila kontuan hartzen: badira hizkuntza «zurrinak», japoniera, dravidiarrek edota mongoliarrak adibidez, aditza perpausaren bukaeran beti ezartzen dutenak, eta badira inoiz aditzaren gibelego osagarri zuzenak onartzen dituztenak, georgiera kasu. Hortaz, lehenbiziko taulako hurrenkerak, gehienez ere, munduko hizkuntzen joeratzat hartu behar dira, eta ez salbuespenik gabeko legetzat. Edozein kasutan, hitz ordenaren tipologiak lan honetarako testuinguru egokia eskaintzen du, euskararen ezaugarriak hobeki ulertzen laguntzen baitu.

## 4.2. EUSKARAZKO HITZ HURRENKERAREN BEREIZGARRIAK

### 4.2.1. Egungo euskararen eztabaidagaiak

Euskarazko hitz hurrenkeraren inguruko teorizazioa eta araugintza XVIII. mendearen erdialdean hasten dira, Kardaberatzen (2004 [1761]) lanarekin. Horrezkeroztik ikertzaile gehienak ados agertu dira: euskarak aditza baiezko adierazpenetan bukaeran paratu ohi du, testuinguru neutroetan bederen. Ikuspegi hau lan preskriptiboetan aldeztu da (Azkue, 1891; Altube, 1930), eta datu kuantitatiboak emanez (De Rijk, 1969) eta euskararen hitz ordenaz bestelako ezaugarri tipologikoak azpimarratuz (Trask, 1998; Martinez Areta, 2011) bermatu da.

Adostasun hau azken urteetan zalantzan jarri duen bakarra Hidalgo (1994, 1995, 1996, 1999, 2004, 2009) da. Egile honen arabera, euskarak lehen dokumentu idatzietatik gaurdaino, batez ere ahozko hizkuntzan, oinarritzko (S)AX hurrenkera izan du.<sup>4</sup> Ildo beretik, osagarri zuzena edo perpauseko beste edozein osagarri, galdegaia izan edo ez, aditzaren aurretik ezartzeko joera ez dagokio hizkuntzaren berezko izaerari, baizik eta Kardaberatzekin

---

<sup>3</sup> «Subjektu» adigaiarekin gertatzen den modu berean, «oinarritzko (hurrenkera)» ere ez da batere kontzeptu garbia: hizkuntzaren arabera, biziki zaila izan daiteke ordena jakin bat oinarritzkoa ote den erabakitzeke ontzat eman behar diren irizpideak aukeratzea. Eztabaida honen inguruan, ikus Haspelmath (2006).

<sup>4</sup> Hemen X-k aditzaren argumentua den perpauseko edozein osagairi egiten dio erreferentzia, osagarri zuzenei ere bai, azken hauek ez baitira euskaraz aditzaren atzean para daitezkeen bakarrak.

hasten den eta batez ere Azkuek (1891) eta Altubek (1930) bultzatzen duten joera garbizaleari. Hídalgoren aburuz, (S)XA hurrenkera lan arauemaile garbizaleetan sortu eta horietatik ahozko hizkuntzara hedatutako artifizioa da, Guyk (1990: 48) eta Labovek (2010: 185) «goitik beherako» aldaketa deitzen dutenaren modukoa.

Alabaina, Hídalgoren proposamen honek hainbat zailtasun ditu. Lehenik eta behin, autoreak ez ditu aditz osagarrien ezaugarriak aintzat hartzen: informazio balioa (informazio berria edo zaharra, garrantzi handikoa edo gutxikoa izatea) eta pisua (segmentu, silaba, hitz edota aditzaren azpiosagai [osagarri zuzen, adberbio, partikula] kopurua kontuan edukiz zenbatu daitekeena; bakarrik azken hau hartzen du Hídalgok [1999, 2004] ahotan). Konplexutasunari (osagarria perpausa bada, daukan menderakuntza mailari) ere ez dio erreparatzen. Haatik, faktore hauek eragin handia dute euskararen hitz hurrenkeran (Osa, 1990: 21). Zehazkiago esan, aditzaren osagarri bat galdegaia denean, eta bi mintzagai (informazio zaharra) edo gehiago daudenean, horietako bat, bi edo gehiago aditzaren gibelean paratzen da edo dira (1a),<sup>5</sup> eta gauza bera agitzen da osagarria perpausa bada (1b) edota menderakuntza maila bat baino gehiago baditu (1c, Euskaltzaindia, 1991: 378-379; Ortiz de Urbina, 2003: 452):

- 1a. *Piarresék esnea edan du gaur goizean.* (osagai hanpatua: *esnea*, mintzagai hanpatua: *Piarresék*, mintzagai ez hanpatua edo hizpideabarra: *gaur goizean*)
- 1b. *Jonek esan du Mikelek erlojua galdu duela.*
- 1c. *Konturatu da denak oporretara joan zirelako etxean inor ez zegoela.*

Hídalgok erakusten duen eran, XVIII-XX. mendeetan aditza bukaeran paratzea lan garbizaleetan bultzatu bada ere,<sup>6</sup> hiru faktore horien (1a-c) eraginez normala da hau beti kasua ez izatea, ahozko hizkuntzan batez ere. Gainera, galdegaia aditzaren aurreko tokian izatea, euskaraz gertatzen den moduan (Euskaltzaindia, 1991: 374), ardurakoa da aditza perpausaren akabailan ezartzen duten hizkuntzetan (Comrie, 1989: 63).

Bigarrenik, Hídalgok ez bide du euskara hitz hurrenkera malgua duen hizkuntzatat jotzeko aukera aintzat hartzen: lehen atalean aipatu den bezala, baiezko adierazpenetan aditza perpaus bukaeran kokatzen ohi duten hizkun-

<sup>5</sup> Garziak (2014: 59) «hizpideabar» deitzen die aditzaren gibelera pasatzen diren horiei, eta «gehikuntza» tartean nolabaiteko etena badago.

<sup>6</sup> Martínez Aretak (2011: 345) aipatzen duenez, egun onartu ohi da Azkuek (1891) eta Altubek (1929), besteak beste direla, zurruneji jokatu zutela osagarriak aditzaren atzean joatea erdarakada hustzat hartu zutenean.

tzetatik zenbait (ez gutxi) zurrinak izaten dira usu, eta beste batzuk, berriz, franko malguagoak. Goiko adibideek (1a-c) erakusten dute euskara azken multzokoekin lerrotzekin dela.

Hirugarrenik eta azkenik, ahotan darabilgun hizkuntzak, euskarak, baieztatu adierazpenetan oinarritako (S)AX hurrenkera daukalako ikuspegia ez dator bat dituen gainerako ezaugarri tipologikoekin: konparaziorako, euskara hizkuntza ergatiboa da, eta hizkuntza ergatibo ia guztiak aditza perpausaren periferian ezarri ohi dute, hots, hastapenean edo bukaeran, baina ez erdian (Hopper, 1987: 469). Dryer eta Haspelmath (2013) beren datu basean 32/190 (% 16.8) lerrokadura ergatiboa duten hizkuntzak zenbatzen dituzte, eta hauetatik bakarrak (1/32, % 3.1), Hego Amerikako paumari hizkuntzak, du oinarritako (S)AX ordena. Euskarak ia soilik atzizkiak ukaitea eta lehenbiziko taulako ezaugarri ia guztiak A tipoaren araberrakoak izatea ere ez da bate-re ongi konpontzen Hegalgoen proposamenarekin (Martinez Areta, 2011: 355). Dirudienaz, beraz, hitz ordenari ohariturik zentzuzkoena egungo euskara lehenbiziko taulako A tipoan sartzen dela pentsatzea da, izen-adjektibo hurrenkera salbu (Trask, 1998: 320),<sup>7</sup> betiere perpaus mailan ordena alda dezaketean hainbat faktore daudela kontuan edukirik.

#### 4.2.2. XV-XX. mendeetako euskara idatziaren eztabaidagaiak

Egungo egoeraz landa, eta XVIII-XX. gizaldietako joera garbizaleen inguruko eztabaida alde batera utzita, esan daiteke euskararen historia dokumentatua ere badirela hitz hurrenkerekin lotzen diren jardungaiak. Honen arrazoia honakoa da: denboran atzera joan ahala, lehenbiziko taulako B tiporekin lotzen diren edo, edozein kasutan, egungo euskararekin bat ez datozen hitz ordenaketa gehiago kausitzen dira euskarazko testu zaharretan, gorde-tzaileenak diren bazterretako euskalkietan (mendebaldean eta ipar-ekialdean) batez ere. Hauen artean izenaren ondoko jabego genitiboak (2a-c), izenaren aurreko adjektiboa (2d), izenaren atzeko eskualde izenak (2e-f)<sup>8</sup> eta aditzaren gibleko osagarri zuzenak (2g-h) dira aipagarriak:

<sup>7</sup> Alabaina, proposa daiteke adjektiboaren izenarekiko ordenak ez duela erlaziorik hizkuntzaren oinarritako hurrenkerekin. Hau da, izan ere, datu base handia oinarri hartuta, Dryerrek (1988, 1992) argudiatzen duena.

<sup>8</sup> -ko atzizkia berdin badaramate ere, eskualde izenak ez lirateke izena mugatzen duten gainerako sintagmekin sailkatu behar. Gai honi doakionez, ikus 4.4.1-4.4.3. ataletako xehe-tasunak.

- 2a. *Çu anderia ama cira virginaric ieyncoaren eta gueroz errequina ceru eta lurraren.* (Etxepare, 1980 [1545]: 104)  
 2b. *Amorantea andreana.* (Landucci, 1958 [1562]: 59)  
 2c. *Silviac damu andia yo eben artu bioz berean.* (Bilbao eta beste, 2020: 56)  
 2d. *Zitel zirola, noc gudura aroa?* (Lakarra, 1996: 256)  
 2e. *Eguin dau andra Marina Arraçolaco.* (Mixelena, 1964: 75)  
 2f. *Orti Mendigorrico.* (P. Salaberri, 2003: 126)  
 2g. *Iauna nic ofrecietan deusudaz neure pensamentu egu onetaco guztiac.* (Kapanaga, 1656: 124)  
 2h. *Baina ceinbat munduco bicia iustoaren hon baita, heria hobeda, eta percioso, biciac emanen dro meritu.* (Tartas, 1666: 160)

Argudia liteke, haatik, adibide hauetatik (2a-h) aintz *metri causa* edota latin-erromantzeko ereduak baldintzatuta sortu zirela eta, beraz, horien interpretazioan zuhur jokatu beharra dagoela. Nolanahi ere den, egile batzuek (Trask, 1977, 1997; Mixelena, 1978; Gómez eta Sainz, 1995; Lakarra, 2005, 2006a-b; Martinez Areta, 2011; Reguero, 2013), beste zenbait gramatika ezaugarriekin batean, hizkuntzaren dokumentatu aurreko garaiko aztarnatzat hartu dituzte, eta horrek aitzineuskarak baiezko adierazpenetan aditz jokatua perpausaren erdialdean paratzen zuela proposatzera bultzatu ditu, hau da, (S)AX hizkuntza berreraikitza.<sup>9</sup> Ikuspegi honen ildotik, zenbat eta testu zaharragoak aztertu, orduan eta (2a-h)-ren moduko hitz hurrenkera gehiago ediren beharko genituzke.

Euskararen azken jendamenteetako hitz hurrenkerari begira, badira eztabaida honekin inolako zerikusirik ez duten gutxienez beste bi: lehena ezeztapenaren ordenarekin dago lotuta.<sup>10</sup> Hau gutxi ikertu den gaia izanagatik, garbi dago testu zaharretan ezezko perpausetako aditz perifrastiko jokatuak *aditz nagusia - ezezkoaren marka - aditz laguntzailea* (A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub>) eta *ezezkoaren marka - aditz laguntzailea - aditz nagusia* (E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub>) hurrenkeren arteko

<sup>9</sup> Ohart bedi irakurlea hemen berreraiketa hau aitzineuskararako egin dela, hau da, Akitaniako izkriburik zaharrenak gure garaiko lehen mendean lekukotu aurreko garairako, eta ez euskara batu zaharrerako, hots, egungo euskalki guztiek jatorri duten V-VI. mendetako hizkuntza baturako. Euskararen periodizazioaren gainean ikus bedi Lakarra (1997). Euskara batu zaharra berreraiki beharra Mixelenenak (1981) azaltzen du zehatz-mehatz, eta Lakarrak (2014) xehetasunetan sakontzen.

<sup>10</sup> Traskek (1977: 207-208) kontrakoa argudiatzen badu ere, Dryerrek (1992: 97-98), 625 hizkuntzak osatu datu basea oinarri, erakusten du ez dagoela erlaziorik ezezko markaren perpausako kokalekuaren eta perpausako osagarrien hurrenkeraren artean.

aldakortasuna erakusten dutela, perpaus nagusietan zein mendekoetan.<sup>11</sup> Hau hurrengo adibideetan (3a-d) ikus daiteke:

- 3a. *Ez jat ancitu bervaric.* (Bilbao eta beste, 2020: 130)
- 3b. *Egundaiño icussi ez dugu hunelacoric.* (Haraneder, 1990 [1740]: 72)
- 3c. *Jaungoicoac ez dituela aditzen pecatariac.* (Brunet, 1834: 45)
- 3d. *Nonta legalidade guztiarequin presentatcen ez diran.* (Irigarai, 1974: 148)

Bi hurrenkera hauetatik zaharrena  $A_N$ -E- $A_L$  dela uste da: E- $A_L$ - $A_N$  eta  $A_N$ -E- $A_L$ , biak ala biak euskara batu zaharrerako berreraikitzea, komunikazio ekonomiaren ikuspuntutik, gehiegizkoa dela argudiatzen du I. Salaberrik (2018: 61-62). Gainera,  $A_N$ -E- $A_L$  hurrenkera baiezko perpausetakoa bezalako da, hau da, aditz nagusia laguntzailearen aurretik dator eta, ondorioz, pentsa liteke ezezkoak baiezko perpausak oinarri hartuta sortu zirela (Lakarra, 1996: 255, 18. o.).<sup>12</sup> Honetaz landa, XV-XVI. mendeetan agertzen diren lehen testu luzeetatik aitzina joera bakarra dago, E- $A_L$ - $A_N$  hurrenkera biderkatzekoa hain zuzen ere, eta hau ez litzateke espero izatekoa E- $A_L$ - $A_N$  berritzailea ez balitz (Lakarra, 1986: 655).<sup>13</sup>

Azkenik,  $A_N$ -E- $A_L$  ordena mendeko perpausetan luzazago atxikitzen da eta, oro har mendeko perpausak aldaketa sintaktikoari begira gordetzailerak izan ohi direnez gero (Givón, 1979: 259-261; Bybee, 2002), pentsatzekoa da  $A_N$ -E- $A_L$  hurrenkera zaharragoa dela (I. Salaberri, 2018: 63-64). Hitz gutxitan, beraz, euskarazko ezeztapenak, hainbat mendetan zehar,  $A_N$ -E- $A_L$  > E- $A_L$ - $A_N$  bilakaera izan bide du.

<sup>11</sup> Hirugarren aukera bat ere bada: *ezezkoaren marka - aditz nagusia - aditz laguntzailea* (E- $A_N$ - $A_L$ ). Hala ere, ordena hau duten ezezko perpausak arrunt ezohikoak dira euskararen historian. Minondoren gutunez gauza bera esan daiteke, nahiz eta horrelako kasuren bat izan (ikus eranskina).

<sup>12</sup> Hemen baiezko aditz perifrastikoetako aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko aldakortasuna ere aipa daiteke. Hala ere, aldakortasun hau ez da ezaugarri tipologikoen aldaketarekin lotzen,  $A_N$ - $A_L$  vs  $A_L$ - $A_N$  kontrastea egiten duten euskalkietan (Iparraldekoetan) funtzio jakina betetzen baitu, galdegaia adieraztea alegia. Gainera, aukera hau berrikuntzat hartzen da (De Rijk, 1969: 334). Hortaz, eztabaidatik at utzi da. Xehetasun gehiagotarako ikus Lafitte (1944: 47) eta Ortiz de Urbina (1987: 342-343), besteak beste.

<sup>13</sup> Krochek (2001: 720) argudiatzen duen moduan, aldaketa sintaktikoan ohikoa da, bi patroiz izatekotan, bata berritzailea eta bestea gordetzailerak, prozesuaren hasieratik berritzaileak berretzeko joera erakustea. Aldaketa eredu honi «S-itxuradun bihurgunekoak» deitzen zaio, heinak taula batean irudikatuz gero garapen lerroak eite hori hartzen baitu (Bailey, 1973: 77).

Haatik, hemen ere zuhur jokatu beharra dago, egoera ez baita horren sinplea. Izan ere, ezezko aditz perifrastikoen ordenari eragiten dioten faktoreak askotarikoak dira: sartaldeko euskalkiak ekialdekoak baino gordetzailagoak dira, eta mendeko perpaus adberbialek (baldintzazkoek, moduzkoek, kontzesiboek eta abarrek) ez dute osagarrien eta erlatibozkoen modu berean jokatzen (I. Salaberri, 2018: 75-77). Honetaz landa, badirudi ahozkotasunetik hurbilago dauden testuek E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hurrenkera nahiago izaten dutela (Mitxelena, 1978: 223-224), nahiz eta honetarako arrunt froga gutxi dauden (I. Salaberri, 2021). Azkenik, aipatu beharra dago ezezko ahalera markarekin (*ezin*-ekin) batera agertzen diren aditz perifrastikoen jokabidea ikertu gabe dagoela. Kontu horri dagokionez, testu zaharrei so egiteak iradokitzen du osagai horrek perpaus deklaratiboen antzeko aldaketa eragin duela, euskalki batzuetan bederen (4a-d):

- 4a. *Çoure Borontatia icousiriq Eçin çutut refusatçen Çeren çoure moyanez beittut hanix graçia obteniçen.* (Oihartzabal, 1989: 264)
- 4b. *Kontenturik bioz au kabidu ezin jat.* (Lakarra, 1983: 84)
- 4c. *Andre honac vqhen dici ederretan gracia Ehorc hura gayxteriaz ecin leçan inbia.* (Etxepare, 1980 [1545]: 94)
- 4d. *Eta Zerura zelarik, altxatu zue lañu eder batek an, ikusi ezin zezaketen gisan ia lurrekoek.* (Lizarraga Elkanokoa, 1994 [1793]: 84)

Hitz hurrenkerari begira, zer esana eman duen euskararen historiako bigarren eta azken eztabaidagaia izenaren eta erlatibozko perpausaren ingurukoa da. Bi hauek (izenak eta erlatibozko perpausak) aldakortasuna erakusten dute (5a-b), baina uste da egoera hori, hain segur, ez dagokiola lehen atalean aipatu diren tipoetako batetik besterako aldaketari, baizik eta bestelako faktoreen eraginez agertzen direla erlatibozko perpausak batzuetan izenaren ezkerrean, eta besteetan haren eskuinean. Antzeko funtzioa dutenez gero, hots, erlatibozko perpausak bezala izena modifikatzen dutenez gero, *-ko* atzizkia daramaten sintagmen izenarekiko hurrenkera erlatiboekin batean aztertu da (5c-d, Villasante, 1978; De Rijk, 1980; Lafon, 1999 [1965]; Krajewska, 2017, 2019, 2020):

- 5a. *Acusatcen naiz seigarren Mandamentuan, pecatu eguin dedala amalaub bider emacume libreac, edo solterac diranaquin.* (Otxoa de Arin, 1713: 135)
- 5b. *Suric eztâ lecuân queheric ez.* (Lakarra, 1996: 266)
- 5c. *Çure guthun abentuco çazpi garrenecoa.* (Lakarra, Bilbao eta Mounole, egiten ari, [1616-1617])
- 5d. *Eta iautsiric bequin, gueldi cedin leku plano batetan, bere discipuluzco companiarequin.* (Leizarraga, 1990 [1571]: 302)

Zehazkiroago esan, *zein* menderagailua daramaten izenaren ondoko perpausak, erlatiboak eta bestelakoak, hizkuntza erromantzeekiko ukipenaren ondorioz sortu zirela eta euskal gramatikaren barnean leku jakina eta berezko funtzioak hartu zituztela proposatzen du Krajewskak (2017, 2018). Aldi berean, izena modifikatzen duten *-ko* atzizkidun sintagma batzuk adjektibotzat lexikalizatu bide ziren eta, ondorioz, adjektiboaren ohiko tokian, izenaren eskuinean, agertzeraz igaro ziren (Eguzkitza, 1993; Krajewska, 2019).

### 4.2.3. Corpusaren ezaugarritzea

#### 4.2.3.1. Ahozkoahizkuntza vs idatzizkoahizkuntza

Hizkuntza aldatetaz diharduten lanek askotan ahozko eta idatzizko testuen arteko bereizketa garbia egiten dute. Pisuzko arrazoiak sortzen du behar hau, idazkiek ahozko hizkuntzan aspaldian galduak diren ezaugarri gramatikak atxikitze joera baitute (Campbell, 2013: 400). Beste gisan esanik, berrikuntzak ahozko hizkuntzan agertzen ohi dira eta, idazkeran sartu aitzin, denbora luzez meta daitezke (Joseph eta Janda, 2003: 140-141). Ondorioz, sasoi bereko ahozko eta idatzizko testuek ez dituzte gramatika ezaugarri berak islatzen eta, ahozkoahizkuntza zuzenean ikertzea ezinezkoa den garai historikoetarako, desberdintasun horiek ahozko hizkeratik hurbilago dauden testuetan antzeman daitezke. Alabaina, honek arazoa dakar: idatzizko testuak ahozkoahizkuntzaren aldera duten distantziaren arabera sailkatu behar dira, eta egiten den sailkapena arrazoitu egin behar da.

Xede horri jarraikiz, filologia lanetan aldian aldiko testuaren hainbat ezaugarri har daitezke sailkatzeko tenorean: izkribuz noiz jaso den (sortu eta berehala, sortu eta ondoren, pentsatua, behatua edota asmatua ote den), hizketaldiarekin daukan antzekotasuna, hiztuna eta egilea pertsona bera ote diren, ekoizpenetik idatziz jasotzera iragan den denbora tartearen zenbaterainokoa den (berehalakoa, gerokoa, zehaztugabea), testuaren helburua zein den (berria ematea, testigantza izkribuz paratzea, ebanjelizatzea, aszetismoa, argibidea ematea, entretenitzea, ezagutza partekatzea), norendako idatzia den (nornahirendako, irakurle ikasiendako, irakurle jakin batzuekiko, partikularrendako), mintzoaren jantzitasun maila norainokoa den, etab.

Euskal filologian horrelako sailkapenak ez dira biziki arruntak, baina irizpide hauetatik zenbait biltzen dituen Schneider-en (2003: 73) sailkapena ibiltzen dute, adibidez, Santaziliak (2017: 381) eta Reguerok (2019: 17-20).

**Bigarren taula:** testu moten kategorizazioa, hizketaren alderako hurbiltasunaren arabera (Schneider, 2003: 73); euskarazkoa Santazilia (2017: 381) lanetik hartua da

Hizketaldiaren egiantzekotasuna	Hiztuna eta idazlea	Denbora tarteak ekoizpenetik jasotzera	Testu ereduak	Kategoria
erreal, bakarra	desberdinak	berehalakoa	elkarrizketa transkribatuak, auzietako grabaketak, transkripzioak	berehala jaso
erreal, bakarra	desberdinak	gerokoa	esklabu ohien narrazioak	ondoren jaso
hipotetiko, bakarra	berbera	berehalakoa	gutunak, egunerokoak	pentsatua
normalki erreal, bakarra	desberdinak	gerokoa	iruzkinak	behatur
hipotetiko, zehaztugabea	—	zehaztugabea	literatura dialektoa	asmatua

Sailkapen honen arabera, taularen goialdean dauden testuak (elkarrizketa transkribatuak, auzietako grabaketak, transkripzioak) ahozketasunetik hurbilen daudenak dira, eta behealdean daudenak (literatura jaso), berriz, idatzizko hizkera hobekien islatzen dutenak. Lan honetan ikertu ditugun testuak, eskutitzak, bien artean gelditzen dira. Haatik, sailkapen honek baditu arazo batzuk: lehenik eta behin, eredu konplexu hau ingelesaren munduan barnako dialektoetarako dago pentsatua eta, horregatik, ez da ongi konpontzen euskal testuekin. Bigarrenik, Schneiderren (2003: 73) ustez elkarrizketa transkribatuak dira ahozko hizkeratik hurbilen dauden testuak, baina hau ez da nahitaez egia: Collins-ek (2001: 58) argudiatzen duen moduan, eskribauek maiz transkripzioetatik ahozketasunaren ezaugarriak ezabatzen dituzte. Argudio hau Santaziliak ere (2017: 379-380) onartzen du.

Ondorioz, proposena ahozko hizkera hobekien islatzen duten testuak elkarrizketa transkribatuak ez, baizik gutunak direla kontu egitea da. Ikuspegi honek are garrantzi handiagoa du hemen, aurreko ataletan azaldu den eran JRMk idatzi eskutizetan eguneroko hizkeran ardurakoak diren hainbat ezaugarri ageri baitira, hitz ordena kontuak, besteak beste direla.



#### 4.2.3.2. *Ikerketa metodologia*

Lehenago aipatu diren lan batzuen ildo beretik, esan beharra dago hizkuntzaren aldaketa eta aldakortasuna ongienik ulertzeko era gramatikaren ezaugarriak (kasu honetan, hitz hurrenkera) kuantifikatzea dela, ikerketak oinarri enpirikoa ukan dezan.<sup>14</sup> Horrela, hemen 1-2. ataletan aipatu diren hitz ordenaren ezaugarrietatik euskaraz aldakortasuna erakusten dutenak banan-banan zenbatu dira eta, kasu batzuetan, kopuruak eta proportzioak oinarri hartuta, interpretazioak egin dira. Alabaina, ikergai ditugun testuen izaerak ez du hitz hurrenkerearen ezaugarri guzti-guztiak ikertzea ahalbidetzen: JRMk corpus osoan galdera zuzen bakarra egiten du (ez da guztiz segurua hala den), eta, beraz, arrunt zaila da galdegaiaren eta aditzaren hurrenkera aztertzea. Zenbatu diren ezaugarrietako batzuen emaitzak eranskinetako tauletan eskaintzen dira.

### 4.3. HITZ HURRENKERAREN AZTERKETA

#### 4.3.1. Aditz sintagmaren osagaiak

##### 4.3.1.1. *Aditza eta osagarri zuzena*

Aurreko ataletan eztabaidatu diren puntuak kontuan edukirik, euskaren hitz hurrenkerei eragiten dioten hiru aldagai daudela esan daiteke, gutxienez: aditz osagaien (a) informazio balioa, galdegaiaren edota mintzagaian islatzen dena, (b) pisua, silaba, hitz edota sintagmatan zenbat daitekeena, eta (c) konplexutasuna, hau da, menderakuntza maila. Gauzak errazteko, hemen pisua eta konplexutasuna bateratu dira eta, hortaz, perpaus bat edo gehiago duten osagarriak (konpletiboak edo erlatibozkoak eskuarki) «luze»tako, «konplexu»tako edota «pisu»tako hartu dira, eta gainerakoak «neutro»tako.

Lehenik eta behin, testuinguru neutroetako hitz hurrenkerei so eginez gero, ikusten da JRMk aditzaren aitzineko (6a-b) zein ondoko (6c-d) osagarri zuzenak onartzen dituela, perpaus nagusietan eta, berebat, mendekoetan:<sup>15</sup>

---

<sup>14</sup> Aurrekariak baditu ere, hizkuntzaren aldakortasunari kuantifikazioaren bidez oinarri enpirikoa emateko metodologia Greenbergen (1960 [1954]) lanarekin orokortu zen hizkuntzalaritzan. Sarreran erakutsi denez, metodo honek euskalaritzan ere baditu aitzindariak (De Rijk, 1969; Tovar, 1977).

<sup>15</sup> Atal honetako adibideetan eztabaidagai diren perpausoko osagarriak letra lodiz izkiriariatu dira, hobeki konpreni daitezten.

- 6a. *Kaparena gelditu ta palanka bat egin diotegu, 17 libras pisatu du, ta gañerakoak bealduko ditu.*
- 6b. *Ta orañ Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik; gañerakoa, lau zulo badira, haiek Motelak hasi ditzala.*
- 6c. *Honek hartu du kintal bat burnia perrazallearenzat, ola handian tiratua.*
- 6d. *Ta orañ hasitzeke behar lukeala, solamente erreal ta erdi bellonean, eziñ eman dezakeala ferrarik.*

Alabaina, esan beharra da, oro har, aditzaren aitzineko osagarri zuzenak direla usaiakoenak: hauek kasu guztien bi heren baino gehiago biltzen dituzte (ikus atal honetako eranskina). Gainera, aditzaren gibelesko osagarri zuzenak, irudiz segurik, mintzagaia (informazio zaharra) direnean eta perpaus bereko beste osagarri bat galdegaitako (informazio berrietako) hartzen denean agertzen ohi dira (7a-b):

- 7a. *Barkazioa sartu baño len egiñ nahi genuke diligenza hau.*
- 7b. *Uegun ta bere lagunak egiñ dute ikatza.*

Honetaz gain, AO hurrenkera askotan, nahiz ez beti (6a, 7a-b), osagarri zuzena gaztelaniaz dagoenean erabiltzen du JRMk. Hau gehienetan olekin eta oletako langileekin lotutako ekoizkinak (ikatza, jatekoa, dirua) zenbatzean agitzen da eta, hain segur, erdarazko kontabilitate hizkeraren isla dateke (8a-d):

- 8a. *Kosmeren itxean ta Goiaran diran golde gaiak pisatuak dira; orgara falta dute 34 libras.*
- 8b. *Eta ikatza karga, Martuzenegikoa, bost erreal esan zuten, baño bi burni zuri Buruzuriari eman genition Señoak aginduta, 17½ libras, eta hoiek berorren bizkar.*
- 8c. *Sokoloko andreak harzeko du espensan 66 pezetas y 9 cuartos hasta 30 de agosto.*
- 8d. *Hamar orgarenzat hartu nituen 46 orillos.*

Azkenik, osagarri zuzena konplexua denean aditzaren gibelean agertzeko joera garbia dago (9a-b). *Perpau osagarria* - aditza ordena lekukotuta badago ere (9c-d), hemen proportzioak, testuinguru neutrokoen aldean, iraulita daude, hau da, osagarria zenbat eta luzeagoa, pisuagoa eta konplexuagoa izan, orduan eta gehiagotan agertzen da aditzaren eskuinean:

- 9a. *Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna.*
- 9b. *Horrela guk uste genuen gaurgero ola borren kandela joko zenuela.*
- 9c. *Ez dutela berago jaitisiko esan didate.*
- 9d. *Probenziako pezeta ere itzaien jornalean sarzen zela uste omen zuen Lamothek.*

Laburbilduz, beraz, OA vs AO aldakortasuna edozein testuingurutan ager daiteke, baina OA da hurrenkera ohikoena eta baldintza berezirik gabeko egoeran ibiltzen dena. Aditzen gibekeko osagarri zuzenak, berriz, arrazoi jakin baten ondorioa ohi dira eskuarki: (a) osagarri zuzena ez den osagaia hantpatzea eta aldi berean perpaus bereko osagarri zuzena mintzagaia izatea; (b) kontabilitate mintzoa edota gaztelaniaren eragina; (c) osagarri zuzena pisua edota konplexua izatea. Hiru faktore hauek bat datoz egungo euskaran AO hurrenkera baldintzatzen dutenekin (Osa, 1990: 21; Euskaltzaindia, 2011: 88-98). Ondorioz, gai honen kariaz esan dezakegu JRMren gutunetako hitz hurrenkeraren aldakortasuna ez dela aldaketaren adierazle, hitz ordena malgua duen hizkuntzaren ohiko ezaugarria baizik.

#### 4.3.1.2. Aditza eta aditzaren osagaiak (XV vs VX)

JRMren eskutizetan azter daitekeen hitz ordenaren beste ezaugarria aditzaren eta osagarri zuzenaz bestelako osagaien arteko erlazioarena da. Tipologia lanetan OA vs AO eta XV vs VX ezaugarriek antzeko portaera dutela argudiatu da (Hawkins, 1983: 32), baina, hala ere, batzuetan bereiz aztertu dira. Konparazione, Dryerrek (1992: 92) lehenik osagarri zuzenek aditzaren aldera duten ordenaketari opa dio arreta; gero, adposizio sintagmek harekin duten hurrenkerari so egiten dio, eta, azkenik, adberbioen aditzarekiko antolamenduari erreparatzen dio. Kontuak bakuntzeagatik, hemen azken biak talde bakarrean multzokatu dira eta, sarreran azaldu bezala, *X* izena eman zaie.

Honi dagokionez, esan daiteke aztergai dugun corpusean XV vs VX hurrenkera OA vs AOrenarekin lerrokatzen dela, faktore berek baldintzatzen baitute. Horrela, testuinguru neutroetan osagarriak eskuarki aditzaren aitzinean ager daitezke (10a-b) edo, gutxiagotan, perpausaren hondarrean (10c-d):

- 10a. *Eskriturak guzien erdia martxoan esaten omen du, olarena eta basoena, guzien erdiak.*
- 10b. *Haizarka hau egiñ gabe gelditu da, baño beretzat zorigaistoan.*
- 10c. *Antonio de Telletxeak esan zuen zerbait hutsegiña izandu zutela kontuetan.*
- 10d. *Gurdi bat besterik etzen hemengorik, ta biharamunean gero gañerakoak burnitu ziran hemendik.*

Aditzaren osagarria galdegaia denean, haren ezkerrean agertzen da (11a-b) eta, alderantziz, mintzagaia denean eta osagarri zuzena galdegaia, aditzaren eskuinean paratzen da (11c-d):

- 11a. *Primaberan botea izandu da orañdañoko egurra.*

- 11b. *Eta datorren asteen egiñ beharko du adobazio[a] honek, Martin bera sendatzen ezpada.*  
 11c. *Egun urtebete hoiek biak kontua hartu zuten hemendik.*  
 11d. *Ikatzgille horiek etorri zazkit txartel horrekin.*

Gainera, eta aitzineko ezaugarriarekin gertatzen den modu berean, hemen ere aditzaren osagarriak perpausaren hondarrea agertzen dira, baldin eta perpausa osatzen badute (12a-b):

- 12a. *Haiek Isasolara lenago limurtuko dira, dirua frontoxeago izateagatik.*  
 12b. *Ametitzen balute beti izaten dela zerbait, ta modu hoietan ongi litzakeala, Indianoak hartuko lukealako.*

Azkenik, gaztelaniak eta kontabilitate hizkerak duten eragina aditzen eta osagarrien ordenamenduan ere ikus daiteke. Azkenak lehenen aitzinetik inoiz kausitzen badira ere (13a-b), usaiakoena da osagarriak perpausaren bukaeran agertzea (13c-d):

- 13a. *17 de setiembre de 99 kontua egin genuen azkenekoa.*  
 13b. *Año de 1798 desde 5 de mayo nik gastatuak.*  
 13c. *Endara jua zen hemendik 20 de abrilan.*  
 13d. *Pellotxikiren ikatzak rezibitu nituen hasta 24 de noviembre de 1803.*

Laburbilduz, beraz, kasu honetan ere JRMren euskarak aldakortasuna erakusten du, eta aldakortasun hau hizkuntzaren hitz-ordena malgutasunaren zantzutzat uler daiteke.

#### 4.3.1.3. Ezeztapena

Egungo euskarazko ezeztapenaren osagaiak ezezkoaren marka (*ez*) eta aditz sintagma direla argudiatu da eta, eraikuntza honen barne egiturari begira, lehena buru dela (Laka, 1991: 72-74; Etxepare, 2003: 518-520). Proposamen honek aditz elipsia egiteko aukera hartzen du oinarritako, hau da, bi aditz sintagma (bigarrena ezezkoa) juntatzean bigarreneko aditz sintagma isilpean uztekoa, ezezkoaren marka bere horretan gelditzen delarik (14a, Etxepare, 2003: 519). Ikuspegi diakronikotik ez dirudi, euskararen historia dokumentatua behinik behin, egoera hau denborarekin aldatu denik, gutxienez XVIII. mendetik aitzina mota bereko perpausak kausi baitaitezke (14b-c):

- 14a. *Jonek Miren ikusi du, baina Peruk ez.*  
 14b. *Idiac ezauntzen dú bere jabea, ta ástoac bere nausiaren gambéla, baña nere puébloac ni ez.* (Lizarraga Elkanokoa, 1778; Pagola eta beste, 2004)  
 14c. *Ori zeuk egingo zeunke, baiña nik ez.* (Lauaxeta, 1935)

Arrazoitze ildo honetatik, beraz, (14a-c) perpausak zuzenak izateak iradokitzen du isildutako aditz sintagma (*ikusitu du, ezauntzen dū, egingo neuke*) ezezko eraikuntzaren osagaiak direla, eta orobat subjektuak, perpausaren egitura, ezezkoaren markaren ezkerreko lekua hartzen duela (Laka, 1991: 74-76). JRMren gutunetan adibide historikoen eta egungoen parekoak edireten ditugu han-hemenka (15a-b):

- 15a. *Ta juan naiz ni ere itzaiaz modurik izanen ote den burni hoiek eramateko, ta ez didate esperanzarik eman, ta berenduaz ez didate berak deus esan, ta nik ere ez.*  
 15b. *Maisuak nahi badu bestek nekez eramaten du kandelarik; argiaren kontran egoten da, nahiz kandela jo behar ta nabiz ez.*

Ezeztapenaren barne egiturarekin lotutako beste kontua galdegaiarena da. Ikertzaileen adostasuna da ezezko egitura perifrastikoez bi galdegai leku dituztela: lehena eta garrantzitsuen, perpausaren argumentu edo sintagma bat galdegai egiten duena, aditz sintagmaren ezkerrean ohi da, eta bigarrena, kontraste bidezko galdegai sortzen duena, aditz laguntzailearen eta nagusiaren artean (Lafitte, 1944: 49; Osa, 1990: 198-205; Euskaltzaindia, 1997: 490). Euskal testu zaharretan biak dira ohikoak (16a-b):

- 16a. *Illai bere parquetan ezdeutsazube?* (Mogel, 1904 [1802]: 48)  
 16b. *Confesatzén dirà becatarì mutù guciac ez dirà betico hitzdun guel-ditzen.* (Mendiburu, 1982: 244)

JRM goizuetarraren eskutitzetan era bereko ezezko perpausak ardurakoak dira, argumentu edo sintagma galdegai bihurtzen dutenak (17a-b) zein galdegai kontrastiboa adierazten dutenak (17c-d):

- 17a. *Olaz orañik ez dute determinatzen deus gobiernoko berriak.*  
 17b. *Manuelek berak ere badaki pretensio honen berri, baño mandaturik ez du noski egiñen.*  
 17c. *Ola handiko lanetarako ez omen zen hau igualatu.*  
 17d. *Iñor[k] ez du lanik gogo onean egiten!*

Aditz morfologiaren inguruko kapituluan eta goragoko 2.2 puntuan aipatu den  $A_N-E-A_L > E-A_L-A_N$  aldaketa diakronikoari dagokionez, hemen ikergai diren gutunetan hurrenkera berritzailea (18a-b) gordetzailearekin (18c-b) batean agertzen da, perpaus mota gehienetan:

- 18a. *Andresek ez zioten eman Jeronimori [eta] Fermin Okerrari artorik.*  
 18b. *Ta Martiñek dio guzia ustela dagoela, ta ez dela gauza onik egiñen.*  
 18c. *Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaurgero nabiko dute noski.*  
 18d. *Ta hoiek konponzen ezpadira, pake txarra emanen dute.*

Datu hauek espero izatekoak ziren: ikuspuntu diatopiko-geografikotik Goizueta euskaraz mintzatzen den eremuaren erdialdean dago, eta  $A_N$ - $E$ - $A_L$  >  $E$ - $A_L$ - $A_N$  aldaketa zenbat eta mendebalderago, orduan eta beranduago gauzatzen da (Lakarra, 1986: 655). Diakroniari so, ezezko egitura perifrastikoetan hitzek lekua aldatzeko prozesua XV-XVI. mendeetan lehenbiziko testu luzeak agertu aurreko garaian hasten da, menturaz Erdi Aroan, eta hainbat mendez luzatzen da, XX.aren erdi-hondarrera arte, antza (I. Salaberri, 2018, 2021). Hortaz, JRMk gutunok XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasmentan izkiriatu zituenez gero, perpaus nagusietan eta mendeko zenbaitetan  $A_N$ - $E$ - $A_L$  hurrenkera erabiltzeak ez luke harrigarria izan behar.

Honetaz gain, sarreran aipatu den moduan, testu mota honetako hizkera ahozkotasanari hurren dago eta, Mitxelenaren (1978: 223-224) iradokizunari jarraikiz, gehienbat hurrenkera berritzailea ediren beharko genuke. Errenteriako euskalariaren aurreikuspena neurri batean betetzen da, baina ez hein berean perpaus mota guztietan: nagusietan  $E$ - $A_L$ - $A_N$  ordena zalantzarik gabe ohikoena bada ere, mendekoetan gehiago dira hurrenkera gordetzailea dutenak (ikus eranskina). Aurkikunde hau gaiaren inguruko ikerketekin bat dator. Azkenik, aipatu beharra dago ezezko perpausetako hitz ordenak perpaus azpimotaren arabera ere aldakortasuna erakusten duela: mendeko perpausetan baldintzazko, helburuzko eta kausazkoetan (adberbialetan) hurrenkera gordetzaileagoa da ezen ez osagarrietan.

*Ezin* ahaleraren ezezko marka daramaten perpausetan, aldiz, ez da inongo aldakortasunik ikusten: eskutitzen egileak beti, salbuespenik gabe, *ezezkoaren marka - aditz nagusia - aditz laguntzailea* ( $E$ - $A_N$ - $A_L$ ) ordena darabil (19a-c):

- 19a. *Ezin barrapatu dut papera asentatu nuena.*
- 19b. *Haizarka honetan beti maxura da; burnirik eziñ berotu da, aldetatik puska dariola.*
- 19c. *Anitzetan eskatu diot, baño ez du entregatu: batean han duela, bestean eziñ arkitu duela... Ez du ekarri.*

Ahalera ezeztatzeko orduan, beraz, JRM erabat gordetzailea dela esan daiteke,  $E$ - $A_N$ - $A_L$  hurrenkera baita, ekialdeko testuetan bereziki, XVIII. jendamide arte holako perpausetan ibiltzen den ia bakarra.

### 4.3.2. Izen sintagmaren osagaiak

#### 4.3.2.1. Izena eta izenburua, gentilizioa, zenbakia, jabego genitiboa

Egungo euskaraz kestione, onartzen ohi da sintagmen barneko hitz hurren-

kerak, perpaus mailakoaren parean, nahiko zurruna dela (Euskaltzaindia, 1991: 355; Trask, 1997: 122; Ortiz de Urbina, 2003: 448). Horrela, izen sintagmaren barnean modifikatzaile guztiak beti izenaren ezkerrean agertzen dira, adjektiboak eta gentilizioak salbu (Euskaltzaindia, 1991: 355). Haatik, aitzineko 2.2 atalean aipatu den bezala, euskararen historian atzera joan ahala, lehenbiziko taulako B tipoarekin lotzen diren gero eta ezaugarri gehiago kausitzen dira. Ondorioz, espero izatekoa da JRMren gutunetako mintzoan izen sintagmaren barruan ere bestelako ordenaketak aurkitzea, hots, egun baino hitz ordena malguagoa egotea. Eta hori da, izan ere, agitzen dena: konparaziorako, oraingo euskararen ohikoa den *izena - izenburua* hurrenkerarekin (20a-b) batean *izenburua - izena* ere ez da gutxitan ikusten (20c-d):

- 20a. *Bi igeleak ta Nikolas urzalleak badute erremienta giten egun bana.*
- 20b. *Ezkurra borko mandazaiaren anaieari Jose Ignazio Garatekoak berorren mandatua esan dio.*
- 20c. *Bi igeleak eta urzalle Josek badituzte ola perparatzen pasatuak 1½ días bakoitzak.*
- 20d. *Manuel Antoniori kargatu behar zaio 8 pezetas y 24½ cuartos, ta abonatu behar zaskio ordañaz aritu denari, baita Iberoko suña Juan Franzisko de Alzate.*

Ez du ematen aukera bata edo bestea aparteko faktoreren batek baldintzatzen duenik, luzera eta esanahi bertsuko adibideak baitira hauek. Geroztik, bi hurrenkerak aldakortasun librean daudela esan daiteke. Hori bai, (20b)-ko izenburu luzeak izenaren ondotik joateak pentsarazten digu, bestelako izenen modifikatzaile konplexuen kasuan bezala (ikus beheherago erlatibozko perpauzez eta erlazio sintagmadun modifikatzaileez dioguna), sintagma zenbat luzeagoa izan, hainbat eskuineratzeko aukera handiagoa dagoela.

Antza denez, izenaren eta gentilizioaren ordenak ere aldakortasun askea du, lehena bigarrenaren aurretik (21a-b) edota atzetik (21c-d) etor baitaiteke:

- 21a. *Pello ta Sebastian irundarrak...20 pezetas.*
- 21b. *Sidro ianziarra juan da begia erreta, ta lengo kontua bealdu nuen, ta Sidrorenzat ziran hasta 11 de febrero de 1806...46 días.*
- 21c. *Luis Beleari eta irundar Pellori idurikatan 2 días.*
- 21d. *Irundar itzairik ez da ageri oraindik.*

Orobat, izenak eta zenbaki ordinalak aldakortasun bera erakusten dute, eta *izena - zenbaki ordinala* (22a) zein *zenbaki ordinala - izena* (22b-c) hurrenkerak aurki daitezke, ohikoa bigarrena bada ere. Nolanahi ere den, aldakortasun hau bakarrik *lenbiziko* ordinalarekin ikusten da (22a-b), gainerakoekin hurrenkerak beti *zenbaki ordinala - izena* baita (22c). Ohart bekio, hori bai, (22d) adibideari:

- 22a. *Hamasei ezkutu lenbizikoak utzi, eta geroztik zer emana duen kontua egiñen du.*  
22b. *Lenbiziko ikatzen pagan geldituak.*  
22c. *Hark dirua hartuaren erreziboa ematen du, ta gañerako ardatzaren ta bigarren alkabalaren kontua atzera beti geroko.*  
22d. *Ta lantegi seigarren eman gabe honetaz gañerakoak Isasolakoak baño hobeak dira gureak.*

Azken adibide hau (22d) zalantzakoa dugu, hemen hiru irakurketa izan baitaitezke:

a) Jatorrizko hurrenkera ageri den *lantegi seigarren eman gabe honetaz* bera da. Hola izatekotan, 1802.08.04ko gutuneko *hamasei ezkutu lenbizikoak* sintagmaren modukoa litzateke, hau da, *izena-zenbaki ordinala* hurrenkera leukake.

b) Jatorrizko hurrenkera *seigarren lantegi eman gabe honetaz* da, hots, *ordinala + izena* eta, hemendik, *izena* aitzinera igaro izanen du egileak, beste zenbaitetan egiten duen bezala: *Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau ez yakin egiñen duten. / Soldadu hemen berorri eskatzen zion hura. / Ta esan diotet itzaiai, egun kargatu baitira, irundar Baionara dabilzanai esateko bost lagun kargak badaudela.* Ikus joskerari eskainitako atalean erlatiboaz mintzatzean dioguna.

c) Etorkizko hurrenkera *seigarren eman gabe[ko] lantegi honetaz* da. Hemen ere *ordinala + izena* da ordena, tartean erlatiboa ('eman gabe dagoen', 'eman gabeko') sartu den arren, izenlagun erakoa izanik holakoak usaiakoak baitira euskaraz.

Testuinguruak ez du argitzen hiru aukeretatik zein izan daitekeen eta, beraz, ez dago ondorio garbirik ateratzeko modurik, hurrenkerari dagokionez.

Zenbaki kardinalen kasua, berriz, desberdina da. Hemen bereizketa garbia dago: (a) *bat* beti izenaren ondotik dator (23a), (b) *bi* zenbaitetan izenaren ondotik (23b), baina gehienetan aurrean (23c) agertzen da, eta (c) *hiru* eta honetatik gorako zenbakiak beti izenaren aurretik datoz (23d):

- 23a. *Orañ ikatzak egin ditu 22 karga ta zaku bat lepalotua.*  
23b. *Juakin Aketzaren ikatza egun biko diña izanen da.*  
23c. *Errenteriako olajaunak eraman zituen hemendik bi kintal quadro.*  
23d. *Trabajatu du hamabi aste, ta Aste Santuan hiru egunez trabajatu zen.*

*Bi* izenordaina zenbait kasutan izenaren ondoan agertu ahal izateak iradokitzen du hau garaiko eta lehenagoko Goizuetako euskararen ezaugarria



zela eta, hartara, egun mendebaldeko euskalkietakoa den ezaugarri honek XVIII-XIX. mendeetan eremu zabalagoa zuela. Hori da gaiaren inguruko ikerketan proposatu dena (Lafitte, 1972: 296; Trask 1997: 329) eta onomastikak erakusten diguna: erka bitez, esate baterako, *Urbieta* eta *Biureta* toponimo (hidronimo) ugariak.

Azkenik, jabego genitiboa zenbait aldiz izenaren ondotik agertzen da (24a-d), nahiz eta gehienetan alderantzizko hurrenkera (24e-f) ukan. Oro har, *izena + jabego genitiboa* antolamendua JRMren testuetan gutxiagotan azaltzen da *jabego genitiboa + izena* ordenaketa baino. Hala ere, lehen ordena hori (*izena + genitiboa*) duten zenbait esateko era arruntagoak dira, egungo Goizuetako mintzoan, ezen ez alderantzizko hurrenkera dutenak: *Axun Mañolirena*, *Bixente Bixkiarena*, *Koro Makatxarena*, etab. (Zubiri, 2000: 395; Salaberri eta Zubiri, 2009: 823). Zernahi gisaz, ez dago garbi ordenamendu hori gutunotako mintzairaren ezaugarri gordetzailerako den, hizkera ahozko erregistroari hurran izateari zor zaion edo gaztelaniaren eraginagatik sortu den:

- 24a. *Espensa maisuarena atera ta gelditzen zaio ola handiko bakoitzari 30 pezetas y 21½ cuartos.*
- 24b. *Espensa honetarako berorrek emana zuten lengotik gelditua baba lau pezetarena.*
- 24c. *Ta babaren txartela ere beal beza hoiengan; guri itxera ekarrita behar dutenean basora eramanez dute. Eta Ibarburukoak txartela babarena bealzeko, anega batena, arrago yornalen alderako.*
- 24d. *Horra papera espensarena, ta horra bestea berorrek bealdua zer diru eman zuen.*
- 24e. *Damianek agindu dit eskasaren kanta dadukala Lamothek pisuaz.*
- 24f. *Hiru anega babaren txartela hartu dute.*

Hitz gutxitan, orain arte aztertu diren izen sintagmako osagaietan JRMk egungo euskarak baino aise aldakortasun handiagoa erakusten du. Izenburuen, gentilizioen eta jabego genitiboen kasuan ez dago garbi egoera honetatik inolako ondorioz atera ote daitekeen.

Bestalde, *lenbiziko* zenbaki ordinala inoiz izenaren atzean agertzea hizkuntzaren egoera zaharragoaren islatzat har liteke, Nafarroako Erdi Aroko *Jaun Yruritaco* (1157), *Azeari Zalduetaco*, *Eneco Zelacoa*, *Lope Artangaco* (1195), *Anso Gascueco*, *Domicu Errotacoa*, *G. Gueçeco*, *P[...] Yçuco*, *Lope Gorteco*, *Orti Donamaria Aldeco*, *Sancho Ayazco*, *Semero Eçcaico*, *Urracha Bazterreco* (XIII. m.), *Eluira Aldazco* (1330) eta besteren moduko sintagmek hurrenkera zaharra irudikatzen dutela pentsa baledi, baina hau, pertsona izendapenetan ohikoa bada ere, ez da nahitaez zaharragoa izan behar bestelako onimoetan, ordena hori dutenak dokumentazioan ugariak izanagatik ere, bereziki aurkintza baten lekune erlatiboa zehazten duten izenlagunak dara-

matzatenak: *Armeaca Yraguicoa*, *Epeleta Garaycoa*, *Epeleta Beerecoa*, *Lander Erreca beerecoa*, *Gorozcelay Aycita Berroaren Aldecoa*... (Luzaide aldean, 1284, Ostolaza, 1978: 370-373).

Badira, ordea, bestelakoak ere: *Goyco Essea* (Artabia, 1258), *Urbequolatça*, *Urbequolatza* ('Urbeko olatza', Zirauki, 1283), *Barreneco Harana* (Imiruri, 1420), *Surrecomendia* (Iruraiz-Gauna, 1420), *Garipençuco çaldna* (Murillo el Fruto, c. 1400; P. Salaberri, 2015: 415-416), *Gayneco eguia* (Irujo, 1491), etab. Ez dakigu euskara arruntean, eguneroko hizkeran gauzak xuxen nola ziren, baina, esaterako, gure lehen idazleak *Bernard echeparecoac*-ekin batean *Lehen eguia* 'lehen egia', *lehen gaoyan* 'lehen gauean' eta *Lehen inprimaçalia* 'lehen argitaratzailea' darabiltza. Nolanahiko gisan, Goizuetako gutunetan *lenbiziko* etsenplu bakarrean dugu izenaren gibelean, gehienetan aitzinean azaltzen da, eta, beraz, ezin baieztapen segururik egin.

#### 4.3.2.2. *Izena eta erlatibozko perpausa*

Erlatibozko perpausak joskeraren inguruko kapituluan labur ukitu dira, eta lehen atalean aipatu da erlatibozko perpausen izenarekiko hurrenkerak lotura duela aldian aldiko hizkuntzaren ezaugarri tipologikoekin. Gainera, 2.2. atalean azaldu da euskarazko erlatiboan hurrenkerari eragiten dioten hainbat faktore daudela. Hain zuzen ere, bi arrazoi hauek direla-eta erlatibozko perpausak aparteko aipamena merezi dute. Eztabaidan sakondu aitzin, esan beharra da euskaraz hainbat erlatibozko perpaus azpimota daudela, lau gutxienez: izenaren aurrekoak (25a), izenaren gibeleskoak (25b), aposatuak (25c) eta *bait*- menderagailua daramatenak (25d). Adibideok erakusten duten bezala, laurak ere lekukotuta daude JRMren gutunetan (*cf.* joskeraren inguruko atala):

25a. *Lengo astean erre den arragoako jornalak.*

25b. *Yokasegururen seme itxean duenak.*

25c. *Esan didate Eixigarrek-eta horri abonatzeko mutikoaren yornalak, basoan barzeko egiñ dituenak, 28 pezeta.*

25d. *Manuel Antoniori kargatu behar zaio 8 pezetas y 24½ cuartos, ta abonatu behar zazkio ordañaz aritu denari, baita Iberoko suña Juan Franzisko de Alzate.*

Krajewskak (2016: 464) argudiatzen duenez, batzuetan ezinezkoa da izenaren ondoko erlatibozkoak (25b) aposatuetatik (25c) bereiztea: hau da kasua, esaterako, (a) perpausaren burua den izenak *-a* itsatsia daramanean edo (b) izena mugagabea denean eta erlatibozko perpausa absolutiboan eman denean. Geroztik, hemen (25b) bezalakoak (a) eta (b) gertatzen ez direnean bakarrik

hartu dira izenaren ondoko erlatibotzat, eta gainerako kasuetan, berriz, aposatutzat.

Perpaus erlatiboen hurrenkera baldintzatzen duten faktoreei begira, honako hauek dira hemen aipagarriak: izenaren ondoko erlatiboak euskalki guztietan lekukotuta badaude ere, zenbat eta beranduago, orduan eta gutxiago ibiltzen dira, erdialdeko eta mendebaldeko euskalkietan batez ere (Euskaltzaindia, 1999: 180). Beraz, euskalkia eta garaia axolazkoak direla esan daiteke. Testu generoa edo idazkera estiloa ere garrantzitsua bide da, hizkera jantzian ardurakoagoak baitira izenaren ondoko erlatiboak (Krajewska, 2016: 480).<sup>16</sup> Bestalde, erlatibo aposatuak erabiltzeko pisuzko arrazoia beren luzera izaten da gehienetan: zenbat eta luzeagoak izan, orduan eta aposatzeko aukera handiagoa izaten da (Euskaltzaindia, 2011: 62). Gainera, daitekeena da erlatibo aposatuak ahozko hizkeran ohikoagoak izatea (Krajewska, 2020: 125).<sup>17</sup> Azkenik, izenaren aurreko perpaus erlatiboak testuinguru neutroetan agertzen dira eta, hortaz, ez dago baldintzatzen dituen faktore berezirik.

Ezaugarri horiek guztiak kontuan izanik, espero izatekoa da JRMren gutunetan, beren izaerarengatik (cf. 4.1 atala), erlatibozko perpaus gehienak izenaren aurrekoak eta aposatuak izatea eta, aldiz, izenaren ondokoak eta *bait*-erlatibozkoak gutxitan kausitzea. Hori da, hain zuzen, kasua: 1801eko eskutitzetan lau motak daude lekukotuta, eta hauetatik 32/34 (% 94.1) izenaren aurrekoak eta aposatuak dira. Alabaina, horrek ez du esan nahi corpusean izenaren ondokorik eta *bait*-dunik ez dagoela (26a-d):

- 26a. *Eta esan diotet itzaiai, egun kargatu baitira, irundar Baionara dabilzanai esateko bost lagunen kargak badaudela.*
- 26b. *Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten hura ari da berotzalle, len ere hemen trabajatua baita.*
- 26c. *Bada, hiru hoiek diote igande datorrenean zorzitik aurrera ez direla lengo jornaletan ariko.*
- 26d. *Iturriozko perrazallearen semeak esan dit ingude berri leptik hau-tsia dagoen hau hartuko lukeala bere prezio modu batean.*

<sup>16</sup> *Zein* menderagailua daramaten erlatibozko perpausaz gauza bera esan da (Krajewska, 2018: 432). Zoritxarrez, baieztapen hau ez da Jose Ramon Minondoren gutunetako datuekin alderatzen ahal, ez baitugu corpusean *zein*-dun erlatiborik ediren. Hau gutunetako euskara ahozko hizkeratik hurbil egoteari zor zaioke, *zein*-dun horiek idatziz baitira usaiakoak.

<sup>17</sup> Erlatibo aposatuen ezaugarriez xehetasun gehiago jakiteko ikus, besteak beste, Cid Abasolo (1987), Oihartzabal (1987, 2003), Zubiri (2000: 391-392) eta Krajewska (2020).

Gainera, izenaren bestelako modifikatzaile konplexuei (perpaua osatzen duten partizipioei) ohar-tuz gero, ikusten da izenaren ondoan ez direla gutxitan agertzen (27a-c):

- 27a. *Ta lantegi seigarren eman gabe honetaz gañerakoak Isasolakoak baño hobeak dira gureak.*  
 27b. *Mea zuria ateratzen ari dira Garatekoak, baño Karraio ez da hasi; orañik banka erretako hartatik urgon dago Jose Ignazio.*  
 27c. *Eta horko asentuan, edo nahi duen moduan, abonatuako dio astea bi olatan pasatu hau.*

Aldiz, *bait*-dun erlatibozko perpauak kausazkoetatik bereiztea maiz erraza ez bada ere, esan daiteke hau ez dela hemen egitura usua (ikus bedi joskerari eskainitako atala), corpus osoan zalantzarik gabeko 5-6 adibide inguru baitaude (28a-d):

- 28a. *Manuel Antoniori kargatu behar zaio 8 pezetas y 24½ cuartos, ta abonatu behar zazkio ordañaz aritu denari, baita Iberoko suña Juan Franzisko de Alzate.*  
 28b. *Eta esan diotet itzaiai, egun kargatu baitira, irundar Baionara dabilzanai esateko bost lagunen kargak badaudela.*  
 28c. *Irundarren len ekarritako mean pagua, 100 kintal baita.*  
 28d. *Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten bura ari da bertozalle, len ere hemen trabajatu baita.*

Laburbilduz, beraz, JRMren gutunetako erlatibozko perpauen erabile-rak irudi konplexua erakusten digu: alde batetik, izenaren ondoko erlatibozkoen eta erlatibozkoak ez diren izenaren modifikatzaile konplexuen maiztasunak hizkeraren gordetzailetasuna erakusten du, egun horrelakoak gutxiagotan ibiltzen baitira, erdialdeko eta sartaldeko euskalkietan batez ere. Ezaugarri horrek, beraz, euskararen historian aldaketa tipologikoa gertatu delako ikuspegia bermatzen du. Beste aldetik, berriz, egungo ahozko mintzoan erabat ohikoak diren erlatibo aposatuak ugariak dira, eta izenaren aurrekoak testuinguru neutroetan dira nagusi. Azkenik, erlatibo aposatuak eta, maila apalagoan, *bait*-dunak luzekarak dira eta, ondorioz, frankotan prozesatze arrazoiengatik eskuineratu direla pentsa daiteke.

#### 4.3.2.3. *Izena eta erlaziozko sintagma*

Orain arte izenaren modifikatzaile konplexuetatik JRMren gutunetan hitz-ordena aldakortasuna erakusten dutenen artean erlatibozko perpauak eta partizipio modifikatzaileak aipatu dira. Horiek ez ezik, gutxienez beste mota bat ere bada, *-ko* erlazio atzizkia daramatenak hain zuzen. Jakina denez,

atzizki hau daukaten osagarriek hainbat funtzio ukan ditzakete, besteak beste xedea (29a), iraupena (29b), adina (29c), neurria / kopurua (29d), ezaugarria / nolakotasuna (29e) edota denbora / lekua (29f, Krajewska, 2019: 91) adieraz dezakete. Adibideok erakusten duten bezala, JRMren gutunetan *-ko-dun* modifikatzailearen mota bateko baino gehiagotako erabilerak daude:

- 29a. *Jornal hoiek dira mea modu onekoa kargatzeko, eta erretzeko denbora ona eta egurra ona den denboran kostatzen da gutxienean.*  
 29b. *Egun erdi hau lau eguneko asteak ekarzen du.*  
 29c. *Nikolas Muxudok burnietan deskuidoren bat duela dio hor, hiru urtekoa.*  
 29d. *Errozatik ehun kintaleko 60 pezeta.*  
 29e. *Joseperen hau da bakarrik aritua igelerik izan ezta, eta lagunaren partezko irabazia.*  
 29f. *Ni nago olajaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik **kanpoko mea** hoietan txar asko ateratzen da.*

Erlatibozko perpausekin gertatzen den bezala, erlaziozko atzizkia duten modifikatzaileak izenaren aitzinetik (30a) edo ondotik (30b) ager daitezke:

- 30a. *Horko mandoai eman omen tio ferrak.*  
 30b. *Mando horkoai eman omen tio ferrak.*

Gainera, arrazoi bat baino gehiago daude erlaziozko atzizkia duten modifikatzaileen hurrenkera baldintzatzen dutenak eta, hortaz, egitura hauek ere aparteko azterketa merezi dute. Besteak beste, proposatu da adjektiboen antzeko funtzioak bete ditzaketela eta, horrelakoetan, adjektiboen leku berean agertzen direla, hau da, izenaren ondotik (Odriozola eta Cantero, 1992: 1040; Zubiri, 2000: 395; Krajewska, 2019: 95). Honetaz gain, *-ko-dun* modifikatzaileak aingura erlazioa adierazten duenean, hau da, mugatzen duen izenak objektu, denbora edo toki jakin bati aipu egiten dionean, izenaren atzean agertzeko joera arras apala da. Sintagma berak aingura erlaziorik adierazten ez duenean, hots, mugatzen duen izena identifikatzeko ez, baizik sailkatzeko edo ezaugarritzeko balio duenean, izenaren gibeletik azaltzeko joera garbiagoa da (Krajewska 2019: 98).

Banaketa hori berori ikus daiteke JRMren gutunetan, non aingura erlazioa bideratzen duten sintagmak (31a-b) adierazten ez dutenak (31c-d) baino maizago agertzen diren izenaren ezkerrean:

- 31a. *Berorrek nekazalen kontua bealzeko denboran bakoitzari len emana geldituaz pagatuko nuke.*  
 31b. *Agerreko mutill olatxokoak lau egunaz lau ta erdi.*

- 31c. *Erretazo 760 kargako hau hamaseira jaitsi dute, ta ez diot kasorik egiñ.*  
 31d. *Eta tretxuarekin txabala idi ferratzekoa egiñ nahi dute.*

Azkenik, *-ko*-dun sintagmak etxe izena aditzera ematen duenean izenaren atzean azaltzeko joera garbia dago (32a-j). Horrelako egiturak, alde bate-tik, latinetikako hizkuntzen eraginarekin eta, bestetik, joera unibertsalekin lotu dira, euskaraz bezala *jabego genitiboa-izena* hurrenkera duten mintzaira anitzetan deiturak (edo maiz deituren oinarrian dauden toponimo-oikonimo-ak) izenaren ondotik agertzen baitira (Zubiri, 2000: 395; P. Salaberri, 2003: 114-115; P. Salaberri eta Zubiri, 2009: 822-823; Martinez Areta, 2011: 361; Krajewska, 2019: 101):<sup>18</sup>

- 32a. *Franzisko Antonio de Isasa, hor mandazai egondua, ezkonzen da Manuel Fagotxikikoaren alabarekin.*  
 32b. *Franzisko Berentxikikoak esan dit Koltxonan hasi direla Juakintxorenzat mea ateratzen.*  
 32c. *Franzisko de Aranburu Agerrekoaren kontua bealdu nuen hasta 18 de diciembre de 98.*  
 32d. *Ignazio Aranburukoak Bullegitik bealdu ditu hamaika karga ta lepalotu erdi bat gaztaña ikatza.*  
 32e. *Luis Zuloakoak esan dit 38 kuartotan entregatuko dutela mea belza, nahi badu.*  
 32f. *Martin Aldakokoak esan dit haren kuartoaz oroi dadiela.*  
 32g. *Martin Motzaneakoak palanka 16 libras.*  
 32h. *Migel Aranguangoak ta Felipe Iturriotzkoak ikatzen dirua jaietako nahi luketela.*  
 32i. *Mikolas Arpidekoa egun izandu da Doniyoanen, ta egondu omen da komesario behar zuenarekin.*  
 32j. *Sebastian Torrekoak esan dit, berorrek ez egitekotz, saiatu behar duela bestetan.*

Hitz gutxitan, *-ko* erlazio atzizkia duten modifikatzaileen hurrenkerari eragiten dion faktore nagusia haien izaera da: modifikatzaileak aingura erla-ziorik adierazten ez duenean izenaren ondotik agertzeko aukera handiagoa dago, nahiz eta ordenarik arruntena *erlazio atzizkia - izena* izan. Honetaz landa, kasu batzuetan berdin-berdinak diren perpausek (30a-b) hurrenkeran

<sup>18</sup> *-ko* atzizkia daramaten etxe izenen sorreraz, duten portaera gramatikalaz eta egungo erabileraz xehetasun gehiago jakiteko ikus P. Salaberri (2006), Kamino eta P. Salaberri (2007), P. Salaberri eta Zubiri (2009). Oikonimiaren inguruko informazio gehiago nahi duenak Apezetxea eta P. Salaberri ere (2009: 191-213) ikus dezake.

aldakortasuna erakusten dute eta, hortakotz, esan daiteke *-ko*-dun modifikatzaileen ordena oro har franko librea dela, egungo euskarak erakusten duena baino askeagoa. Salbuespena atzizkia daramaten etxe izenak dira, JRMren eskutizetan eskuarki izenaren ondoan finkatuta azaltzen baitira. Nolanahi ere den, zenbait aldiz izenaren ezkerrean ere kausitzen dira (33a-f):

- 33a. *Agerreko Patxikuk gaitzarekin-ta makiña bat zor egiñ dutela.*
- 33b. *Askorastiko Fermiñek eskatzen du...20 pezetas.*
- 33c. En herrería mayor *aste batean aritu diren Isasolako Josepe igelea ta Garatekoa ta meallea.*
- 33d. *Martintxuriko Josek edo haren mutillak zaldaletako...20 pezetas.*
- 33e. *Otsoaneko Sebastian, berorrek agindu diola burniak tiratzeko, ta beñere ondotik eziñ kendu dut.*
- 33f. *Sarobeko Juan Ignaziok ikatza eman digu.*

JRMren gutunetako oikonimoen portaera gramatikala bat dator egungo Goizuetako euskararen dutenarekin (P. Salaberrri eta Zubiri, 2009: 823). Xehetasun gehiagotarako ikus onomastika atala.

#### 4.4. ONDORIOAK

Atal honetan JRMk izkiriatzean darabilen hitz hurrenkera deskribatzeko saioa egin da. Gai konplexu honetan hainbat faktorek eta baldintzak esku hartzen dutela argudiatu da: lehenik eta behin, JRMren testuetan lehenbiziko taulako B tipoarekin lotzen diren ezaugarri gramatikal gehiago aurkitzen dira ezen ez egungo euskararen. Hauen artean izenaren ondoko zerbaki ordinalak (*ezkutu lenbizikoak*) eta kardinalak (*egun biko*), izenaren ondoko jabego genitiboak (*espensa maisuarena*) eta izenaren modifikatzaile konplexuak (*astea bi olatan pasatu hau*) dira aipagarriak, ezeztapenaren hurrenkera zaharrenekin (*eskatu ez didate*) batean. Beraz, esan daiteke zenbait alderditatik gutunetako euskara egungoa baino gordetzaileagoa dela, hau, testuek duten adina kontuan edukirik, espero izatekoa bazen ere.

Bigarrenik, erakutsi da JRMk ahozko hizkuntzan usaiakoak diren forma ibiltzen dituela, erlatibo aposatuak (*yornalak, basoan harzeko egiñ dituenak*), esaterako. Ezaugarri hauekin batean kontabilitate mintzoaren isla ikus daiteke, anitzetan gaztelaniarekin nahasita, perpausaren hondar osagaietan (*Endara juan zen hemendik 20 de abrilan*) adibidez. Azkenik, erlatibozko perpausen eta *-ko* erlazio atzizkia daramaten izenaren modifikatzaileen erabilerak iradokitzen du osagaion ezaugarriek, pisu-luzerak eta ainguratze mailak hitz hurrenkera baldintzatzen dutela.

**Eranskina: gutunetako hitz hurrenkeraren zenbakitzea**

**Hirugarren taula: osagarri zuzenen eta aditzaren hurrenkera, JRMren 1799ko gutunetan.<sup>19</sup>**

Gutuna	OA	AO	OLuzeaA	AOLuzea
1799.01.06	1 (% 33.3)	2 (% 66.7)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1799.01.22	5 (% 83.3)	1 (% 16.7)	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1799.03.12	4 (% 66.7)	2 (% 33.3)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1799.04.Bukaera	5 (% 83.3)	1 (% 16.7)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1799.07.26	1 (% 33.3)	2 (% 66.7)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1799.09.09	1 (% 25.0)	3 (% 75.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1798.09.12/1799.09.30	2 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	2 (% 100)
1799.09.17	1 (% 33.3)	2 (% 66.7)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1799.10.07	1 (% 33.3)	2 (% 66.7)	2 (% 66.7)	1 (% 33.3)
1799.10.08	8 (% 66.7)	4 (% 33.3)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1799.10.25	6 (% 66.7)	3 (% 33.3)	0 (% 0.0)	2 (% 100)
1799.10.26	5 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1799.12.01	4 (% 80.0)	1 (% 20.0)	1 (% 50.0)	1 (% 50.0)
1799.12.08	1 (% 33.3)	2 (% 66.7)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1799.12.19	2 (% 40.0)	3 (% 60.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1798_1800	14 (% 87.5)	2 (% 12.5)	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1799	2 (% 66.7)	1 (% 33.3)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1800	12 (% 75.0)	4 (% 25.0)	1 (% 25.0)	3 (% 75.0)
<b>Osoara</b>	<b>75 (% 68.2)</b>	<b>35 (% 31.8)</b>	<b>6 (% 31.6)</b>	<b>13 (% 68.4)</b>

**Laugarren taula: ezeztapenaren hurrenkera, JRMren gutunetan.<sup>20</sup>**

Gutuna	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (pn)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>N</sub> -A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (m)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (m)	E-A <sub>N</sub> -A <sub>L</sub> (m)
1791	3 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1792	2 (% 66.7)	1 (% 33.3)	0 (% 0.0)	2 (% 50.0)	2 (% 50.0)	0 (% 0.0)
1793	4 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1794	2 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1795	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1796	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1797	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1798	4 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	2 (% 100)	0 (% 0.0)
1799	5 (% 71.4)	1 (% 14.3)	1 (% 14.3)	2 (% 66.7)	1 (% 33.3)	0 (% 0.0)
1800	11 (% 91.7)	1 (% 8.3)	0 (% 0.0)	1 (% 50.0)	1 (% 50.0)	0 (% 0.0)
1801	13 (% 76.5)	4 (% 23.5)	0 (% 0.0)	4 (% 40.0)	6 (% 60.0)	0 (% 0.0)
1802	7 (% 70.0)	3 (% 30.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	2 (% 100)	0 (% 0.0)
1803	4 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	2 (% 22.2)	7 (% 77.8)	0 (% 0.0)
1804	7 (% 87.5)	1 (% 12.5)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)

<sup>19</sup> Hirugarren taulan hurrengo laburdurak erabili dira: «O» = osagarri zuzena (perpauza ez dena); «A» aditza; «OLuzea» = osagarri zuzen luzea (gutxienez perpauza bat osatzen duena).

<sup>20</sup> Laugarren eta bosgarren taulatan ondoko laburdurak erabili dira: «E» = ezezko marka, «A<sub>N</sub>» = aditz nagusia, «A<sub>L</sub>» = aditz laguntzailea, «(pn)» = perpauza nagusia, «(m)» = mendeko perpauza.



Gutuna	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (pn)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>N</sub> -A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (m)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (m)	E-A <sub>N</sub> -A <sub>L</sub> (m)
1805	3 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1806	3 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 33.3)	2 (% 66.7)	0 (% 0.0)
1807	9 (% 90.0)	1 (% 10.0)	0 (% 0.0)	5 (% 55.6)	4 (% 44.4)	0 (% 0.0)
Datagab.	1 (% 50.0)	1 (% 50.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
<b>Oso tara</b>	<b>79 (% 84.1)</b>	<b>13 (% 13.8)</b>	<b>1 (% 1.1)</b>	<b>20 (% 40.0)</b>	<b>30 (% 60.0)</b>	<b>0 (% 0.0)</b>

**Bosgarren taula:** ezin marka duten perpausetako hurrenkera, JRMren gutunetan.

Gutuna	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (pn)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>N</sub> -A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (m)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (m)	E-A <sub>N</sub> -A <sub>L</sub> (m)
1791	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1792	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1793	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1794	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1795	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1796	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1797	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1798	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1799	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1800	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1801	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	4 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1802	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	2 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1803	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1804	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1805	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1806	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1807	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
Datagab.	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)
<b>Oso tara</b>	<b>0 (% 0.0)</b>	<b>0 (% 0.0)</b>	<b>10 (% 100)</b>	<b>0 (% 0.0)</b>	<b>0 (% 0.0)</b>	<b>7 (% 100)</b>

**Seigarren taula:** izenaren eta gentilizioaren hurrenkera, JRMren gutunetan.

Gutuna	Gentilizioa-izena	Izena-gentilizioa
1791.09.15	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1792.05	2 (% 100)	0 (% 0.0)
1793.08.31	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1799.10.07	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1801.10.25	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1806.02.05	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1807.06.04	0 (% 0.0)	1 (% 100)
<b>Oso tara</b>	<b>4 (% 57.1)</b>	<b>3 (% 42.9)</b>

**Zazpigarren taula:** izenaren eta zenbaki ordinalaren hurrenkera, JRMren gutunetan.

Gutuna	Zenbaki ordinala-izena	Izena-zenbaki ordinala
1792.07.02	2 (% 100)	0 (% 0.0)
1795.04.09	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1800.01.03	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1800.03.05	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1800.09.23	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1800.11.20	2 (% 100)	0 (% 0.0)
1802.02.21	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1802.03.12	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1802.03.23	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1802.03.25	2 (% 100)	0 (% 0.0)
1802.08.04	0 (% 0.0)	1 (% 100)
1803.01.28	3 (% 100)	0 (% 0.0)
1807.01.04	1 (% 100)	0 (% 0.0)
Datagabea.11	2 (% 100)	0 (% 0.0)
<b>Oсотara</b>	<b>18 (% 90.0)</b>	<b>2 (% 10.0)</b>

**Zortzigarren taula:** izenaren eta erlatiboazko perpausaren hurrenkera, JRMren 1801eko gutunetan.

Gutuna	Izenaren aurrekoa	Izenaren ondokoa	Erlatibo aposatua	Bait-dun erlatiboa
1801.01.03	3 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.01.10	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1801.01.12	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.04.03	3 (% 75.0)	0 (% 0.0)	1 (% 25.0)	0 (% 0.0)
1801.06.Hasiera	2 (% 66.7)	0 (% 0.0)	1 (% 33.3)	0 (% 0.0)
1801.07.31	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.08.23	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.09.11	2 (% 66.7)	0 (% 0.0)	1 (% 33.3)	0 (% 0.0)
1801.10.25	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)
1801.11.12	2 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.11.13	2 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.11.15	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.11.20	1 (% 50.0)	0 (% 0.0)	1 (% 50.0)	0 (% 0.0)
1801.11.22	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.12.04	1 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
1801.12.15	1 (% 50.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	1 (% 50.0)
1801.12.24	5 (% 100)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)	0 (% 0.0)
<b>Oсотara</b>	<b>26 (% 76.5)</b>	<b>1 (% 2.9)</b>	<b>6 (% 17.7)</b>	<b>1 (% 2.9)</b>

## 5. ONOMASTIKA GAIAK

### SARRERA

Atal honetan JRMren gutunetan edireten ditugun mota bateko eta beste-ko izenak, *onimoak*, jasotzen ditugu. Lehenik pertsona izenak heldu dira, *antroponimoak*, eta gero leku izenak, *toponimoak*. Haietan aurren-aurrena ponte izenak biltzen ditugu, ponte izen «*neutroak*» deitu ditugunak, ondoren datozen konfiantza giroko izen ttipi edo hipokoristikoetatik bereizteko.

Ponte izen neutro horiek ez dute holako ekarpenik egiten, ia ez dago deus berririk egungo ikuspuntutik begiratuta: guretako ere *Agustin*, *Andres*, *Franzisko*, *Jose Migel* eta beste zeharo izen ohikoak dira eta izan dira, gure ingurukoek dituztenak eta izan dituztenak. Nolanahiko gisan, 1800 iriko kontuak dira gutunotako hauek, ehun urte geroago gauzatuko den Sabin Aranaren «iraultza» onomastikoaren aitzinekoak alde batetik, eta aurreko mendeetan gure artean usaiakoak ziren beste izen batzuetatik urrun daudenak beste aldetik.

Izan ere, eskutitzotan ez dugu 1500 inguruan Oiartzunen ardurakoak ziren *Jakue*, *Martie*, *Mikeo*, *Petri*, *Sanduru*, *Txope*, *Xoane*-ren modukorik aurkitzen, izen edo izen aldaera horiek lekutu dira, ez dira gehiago azaltzen, administrazioaren eta besteren bultzada erdaltzalea aitzina zihoalako, indarrez.

Bestalde, ikusten den bezala, gehien-gehienak gizon izenak dira, ia ez dago emazteki izenik. Burdinolen mundua dugu hau, *ardamandazain*, *arragoa erretzaile*, *ijele*, *itzain*, *mandazain*, *meakari*, *meatzari*, *meaile*, *peoi*, *urtzaile* eta besteren mundua, erabat gizonena. Emakumerik ia ez da aipatzen, eta egiten denean gizon baten *alaba* da haina, edo *neskatxa*, edo beste gizaseme baten *ama*, eta ez da haren izenik jasotzen. Salbuespen bakarra dago, makur ez bagabiltza: itzain lanetan ibiltzen zen *Josepa* (edo *Josefa*) *Teresa de Arragorr* zeritzanarena. Nabarmentzekoa da *carretero*-tzat hartzen dela andre hau, eta ez *carretera*-tzat, apika bigarren izen hau nolabaiteko bidearekin lotzen zelako, orduan ere.

Dena dela, interesgarri iruditu zaigu gizon izen usaiako horiek ere biltzea, gauzak 1800 aire horretan nola ziren erakusteko. Egia da, alabaina, batzuetan izen neutroek adiskide giroko aldaerak bazituztela, batean *Pedro* dena beste batean *Pello* dela, edo zenbaitetan *Franzisko* agertzen zaiguna *Patxiku* edo

*Patxiko* zela arruntean. Esaterako, *Pello Mattantta* (eskuarki) eta *Pedro Mattanta* (behin) pertsona bera ziren, eta orobat *Franzisko de Irigoien Munoakoa* eta *Patxiku Munokoa*; halaber *Agerreko Patxiku*, *Patxiko Andia Agerrekoa*, *Patxiko Andia* eta *Franzisko (de) Aranburu Agerrekoa*. *Franzisko Antonio de Isasa* eta *Patxiko Antonio de Isasa* deizioek ere lagun bera izendatzen zuketel<sup>1</sup>, eta halaber *Franzisko Antonio Uhartekoa*-k eta *Patxiko Antonio*-k. Bestalde, ofizialki *Joseph de Sistiaga* edo *Joseph Zistiaga* zena arruntean *Joxe* bide zen, 1796.09.24ko gutunean argi ikusten den moduan.

Zernahi gisaz, irakurleak argi izan behar du atal honetan ez dela onomastika azterketarik egiten, ikusten den eran zerrenda besterik ez baita ematen, ez da ia deus esaten izenen jatorriaz, eta ez da toponimoen etimologian sakontzen, ez baita hau lan honen helburua. Gainera, holako lana egiteko ezagutzen dugun baino aise hobeki ezagutu behar genuke Oiartzun inguruko herrietako onomastika.

Egia da gerok Goizuetako etxe izenen gaineko lana egin genuela (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011), Goizueta eta Aranoko toponimia ere bildu dela (Etxeberria, 1988; Erriondo, 1988; NTEM XLVII), Oiartzungo etxe eta toki izenak aztertu direla (Goikoetxea eta Lekuona, 2007), Hondarribiko (Furundarena, 2002) eta Pasaiaiko (Elortegi, 1992) toponimia ere jaso dela, Bortzerrietakoa ukitu dela (Esparza, 1964 eta 1965; Caro Baroja, 1974 eta 1995; Ariztegi, 1999; Apezetxea eta Salaberri, 2009) eta Malerrekakoa (Iñigo, 1996) eta Urumeako zilegimendietakoa (Zaldua, 2012) sakonki ikertu dela. Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta «Instituto Geográfico Nacional» delakoaren datu baseak eta kartografia ere sarean daude. Gure hau, ordea, berriro esango dugu, ez da onomastika lana. Aipatu iturri horiek eta beste batzuk (1857ko NOPGI, adibidez) ibili ditugu, baina gure helburua beti testuetan, eskutitzetan esaten dena argitzea izan da, azaltzen den izena Oiartzungo, Goizuetako edo beste nonbaiteko baserria edo toponimoa den. Gehientsuenetan ez gara haratago joan.

Ezin. Maizxko zaila da jakitea onimo bat deitura den edo oikonimoa: adibidez, *Maritorena* deitura dugu, baina etxe izena ere bada, hura honetatik atera delako. *Arbelaitz* Oiartzungo abizen ohikoa dugu, baina herriko bazterretxea ere bada, eta testuotan usu ez da garbi ikusten azaltzen den *Arbelaitz* deizioa deitura hutsa den edo etxe izengoitia, hau da, etxe batekoek izaten duten izengoiti berezia (adibidez *Iberria* etxeokak *Iberri* izatea, besteek hola deitzea). Oraingoan, aipatu gisan, gure asmoa ez da horretan sakontzea

<sup>1</sup> *Isasa*, bestalde, euskaraz *Isatsa* dela garbi ageri da gutunotan, eta deklinatzean *Itsatsekoa* nahiz *Isatsakoa* egiten zela, euskaraz lehena hain segur ere.

izan, eta ematen ditugun zerrendak ez dira hain segur guztiz zuzenak: abizenen arteko batzuk etxe izengoitiak izan daitezke, esan moduan, edo alderantziz, etxe izengoitietako batzuk deitura. Hauen sorreraz eta nolakoaz gehiago jakin nahi duenak Salaberri eta Zubiri (2009) lana ikus dezake.

Etxe izengoitiekien batean izengoiti arruntak, *goitzen*, *ezizen* edo *gaitzizen* deitu diren horietako batzuk ere badira, zenbait animalia izenetan oinarrituak (*Aketza*, *Axeria* edo *Azeria*, *Belea*, *Kirkirra*), ezaugarri fisiko batean (*Buruzuria*, *Gorra*, *Honbretxo*, *Juansendo*, *Okerra*, *Patxiku Txikia*, *Pellotiki*, *Solla*), izaera konturen batean (*Bonbon*, *Motela*, *Yokaseguru*), janzkeran (*Galzatxiki*), sorlekuan (*Axtiarraga*, *Lexo*), lanbidean (*Arzaimutilla*) edo ongi zehaztu gabeko beste zerbaitetan (*Biziro*, *Pottotto*, *Txitxipitxi*, *Xemea*). Alor hau euskaraz aski landu gabe dago,<sup>2</sup> eta azaltzen direnak jasotzera mugatu gara oraingoan. Badaiteke hemen ere izengoiti hustako jotzen dugun horietakoren bat etxe izengoitia izatea. Azkenik, pertsona izenekin bukatzeko, herriarren izenak bildu ditugu, gentilizioak, *goierriar*, *goizuetar*, *irundar*, *lesakar*, *oiarzuar* eta beste.

Leku izenak direla eta, lehenik oikonimoak jaso ditugu, hots, etxe eta baserrien izenak, gehien-gehienak Oiartzungoak, JRM herri horretako Olaberria burdinolako arduraduna zelako, ikusi dugun moduan. Toponimoetan bi multzo egin ditugu: nagusiak heldu dira lehenbizi (auzo, herri... izenak) eta txikiak gero (aurkintzen deizioak). Hemen azpimarratzekoa da zenbait toponimo deklinatzeko era (*Oiarzun*an ‘Oiartzunen’ adibidez), eta notatzekoa da *Iruñe(a)* dugula, ez *Iruña* (are gutxiago Frailek eta Frailek [1996: 180] Oiartzunen bildu zuten *Pamplongo (korridak)* ‘Iruñeko (zezenketak)’!), eta *Donostia* oso-osorik ibiltzen zela, ez baita harritzeko, berriki arte hola egiten zelako, ez *Donosti*. *Hondarribia*, aldiz, *Ondarrabia* da gutunotan, bukaerako *-a* ez da erortzen deklinatzean, etorkiz artikulua bada ere, ongi ezaguna den bezala.

Beste kontua, berez fonologiari dagokiona (ikus bedi JRMren sistema grafikoa aztertzean dioguna), ozen ondoko neutralizazioaren gaia da, alegia, *n*, *l* eta *r* ondoan beti *z* agertzea (*Oiarzun* esaterako), ez azken denboretan ohi-koa den *tz* (*Oiartzun*). Hemen azpimarratu nahi dugu izenen aldaera ofizialek eragina izan duketela JRMren erabileran, bestelako lekuneetan: konparaziorako, ia beti *Artikuza* ibiltzen du (*Artikutza* behin baizik ez da ageri), etimologiaz eta erabileraz –egun hola da beti Goizuetan eta Oiartzunen– *tz*-dun era behar den arren. Holako zerbait gertatu izanen da, halaber, *Isasa* (*Isatsa*) eta *Olaizola* (*Olaitzola*) formetan eta hauek bezala euskaraz txistukari afrikatua duten beste batzuetan.

<sup>2</sup> Ikus bedi orain Colomo (2021).

Toponimia txikiari doakionez, Jose Ramonek nahiko modu bitxian idazten duen *Aritxulegi* ekarri nahi dugu hona. Ez dakigu xuxen zer soinu adierazi nahi duen *Arizchulegui* izkiriaturik, baina ematen du egun *tz* idazten duguna irudikatu nahi duela. Halarik ere, ez dakigu segur hala den, eta *Ariztxulegi* paratu dugu aldi oro, Jose Ramonen usadioa aintzat harturik. Nolanahi ere, kontuan eduki bedi *Areiçuregui* lekukotzen dela 1512an eta *Ariçuregui* 1513an (Ayerbe, Irijoa eta San Miguel, 2012: 191 eta 389), eta ziurrenik *hareitz*, *haritz* zuhaitz izena dukegula oinarrian, *tz*-dun etimoa alegia.

## 5.1. ANTROPONIMIA

### 5.1.1. Ponte izen neutroak

*Agustin*: *Agustiñen ikatzak etorri dira 81 carg[as]. / Zamorako Agustinek esan dit sagarrekin bealdu zuen Sisto hura bealzeko.*

*Andres*: *Andresek nagusiari kontatu besterik ez du, Olaitzolako yabearena da errota hura. / Andresekin goizean egondu ninzan. / Andresi eman diot karta goizean.*

*Anton, Antonio*: *Anton Xardea hemen izandu da. / Antonio de Bengoetxea carretero de Otsandola. / Antonio maisuaren espensa parte da 10 pezetas y 2½ cuartos.*

*Azenzio*: *Azenzio bealdu dugu itxera. / Azenzio de Bengoetxea.*

*Balentin*: *Balentin de Albiztur.*

*Baltasar*: *Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitzeke. / Baltasarren semeak-ta aldatu omen dute 300 planta, pagoa erreal zillar bana berorrekin partituta. / Sanjuanen anaia Baltasar da esaminadore.*

*Batista, Bautista, Bautista*: *Bautista mealleak harzen du, ola gelditzen denean botatzeko. / Bean 400 karga bezala Batistarena bi aldetatik duela. / Larruak Bautista Altamirak eraman omen zituen. / Puska txiki hau Bautistak hartu nahi badu. / Ta Batista hemen zen egun [...]. Ta Bautistak esan dit [...].*

*Bizente*: *Baso honetan Bizente de Etxeberriak egin du [...]. / Bizente de Aldako carretero. / Bizente de Ollokik Olaberrian egin duen lanaren kontua. / Ta Bizenterenzat Xardearen muga goiko puskan bealdetik bada puxka bat.*

*Blas*: *Duendearenzat Blasek añaditu dio 500 reales, gaur akabatzekeotz.*

*Damian*: *Damian de Oiarzabal borra bat. / Damianek agindu dit eskasaren kanta dadukala Lamotheke pisuaz. / Damianek entregatu du ikatza; berea 48 cargas. / ...eta Damianek len satisfazio osoa niri eman nola pretenditzen duten.*

- Isasola** (Isatsola; Oiartzungo Isatsa baserriko burdinola izana): *Aste batean aritu dire Isasolako Josepe igelea ta Garatekoa ta meallea. / Gazteen honek (sic) Isasolan ari da sei lagunean, ta entoroko lana nahi lukeala. / Sidroren partez Isasolako igele gazdeak baditu bi agoa.*
- Iturriotz** (Oiartzungo etxea): *Iturriotzko perrazalleak kintal bat burnia...37 pezetas y 17 cuartos. / Iturriotzko perrazallearen semeak esan dit ingude berri lepotik hautsia dagoen hau hartuko lukeala bere prezio modu batean. / Miguel Aranguangoak ta Felipe Iturriotzkoak (sic) ikatzen dirua jaietako nahi luketela. / 1 día a Esteban de Iturriotz ciesgos.*
- Itxagoien** (Nongoa?): *Matias de Itxagoien carretero. / Matias de Itxagoien...4 (cargas).*
- Itxeberria, Etxeberria** (Arano?, Goizueta?, Oiartzun?): *Franzisko de Etxeberria...4. / Joseph de Etxeberria. / Paskual de Etxeberria carretero. / Pello Itxeberrikoak ez du bost pezetako baten kreditarik lagunen artean.*
- Kanitxipia** (Oiartzungo baserria, behiala): *Bizente Ollokia en Kanitxipia.*
- Kasabilla** (Oiartzungo herriko etxea): *Arotzak ere estu daude; bat horrara etorzeko asmoa dute, eta Kasabillako ere egun hemen zen Paskual de Isasa.*
- Konejera** (Goizuetako baserria): *Gure itxeko lur puxka landakoen gañean Iberokoai Konejerak bi hogeitazekutuko eman tiozte guk emanen gañera.*
- Konsejua** (Oiartzungo udaletxea): *Ta Konsejuko goiti eramán ta Belderrainek esan dit, beste lagunetara baño len [...].*
- Lantxerreka** (Lantxerreketa Oiartzungo eta Errenteriako erreka da): *Tomas de Lantxerreka...1.*
- Lete** (Oiartzungo baserria): *Leteko andrea hemen izandu da.*
- Madariegi** (Oiartzungo baserria, Maradi ahoz): *Xardeari ta Madarikoari puxka bana eman, ta gañerakoan Jeronimo ta Axeria ta Matxinoa konponduko dira.*
- Madarimotz, Madarimotx** (Madarimotxa Oiartzungo baserria eta aurkintza da): *Baltasarrek esan dit Otsandolakoa bost milla, ta Garalorregikoa lau milla ta erdi egiñ zutela, ta Madarimotxekoak hiru milla ta berrehun. / De Madarimotz...62 (cargas). / Madarimotxeko gaztañetako kandelan probestuari...1...00. / Sarobekoaren ikatz ito Madarimotzekotik...10 cargas.*
- Makuso, Makutso** (Makutso, Oiartzungo baserria): *Fausto de Makuso olaizarra. / Sebastian de Makuso carretero Torrekoa. / Sebastian de Makuso Torrekoa. / Sebastian de Makuso Torrekoa carretero. / Sebastian Makutso Torreko (JBMk idatzia).*

- Mareola** (Errenteria, *Mariola* egun): *En Renteria casa Mareola* (JBMk idatzia). / IBk *Mariola* darabil, etxe izengoitizat, irudiz: *Burugorri edo Tantailepo delako hartatik Mariolaren seme horrenak dirala ekarri dituztenak.* / *Epeletik honara etorri diran ikatz guziak dirade Mariolaren seme horrenak.* / *Saiatuko naiz lantegiaz beurrek gaztigitzen didan bezala, eta esanen diot Mariolari ere, eta bialduko dut, bigar etorri nahi badu.*
- Martimotzanea** (Oiartzungo baserria, denboraz): *Martin Motzaneokoak palanka 16 libras.*
- Martintxuri** (Oiartzungo baserria): *Martintxuriko Josek edo haren mutillak zaldaletako...20 pezetas.*
- Matejoan** (Lezo): *En Lezo casa Matejoan* (JBMk idatzia).
- Mitxelena** (Oiartzungo etxea): *Jose Ignazio de Mitxelenaren kontuak dira [...].* / *Sebastian de Mitxelena...2 (cargas).*
- Munoa** (Oiartzungo baserria): *Abonatu beharrak ditu Munokoak 150 kintal mea olara ekarriak.* / *Franziako karretoan zor dira 125 pezetas y 3 reales, Zuloakoa, Munokoa ta Agerrekoa, bakoitza hogeña pezeta.* / *Franzisko de Irigoien Munokoa.* / *Migel de Irigoien Munoko mutillak hartu zuen 60 pezeta.* / *Munoko itzaia egondu zen Patxikorekin.* / *Munoko semeak, julio 98an hartu zituen 16 ezkutua pagaturik [...].* / *Munokoa.* / *Patxiko Munokoa* (JBMk idatzia). / *Patxiku Munokoak eskatzen ditu hiru kupel ustai.* / *Ta Munoko hau-ta ere planta onean daude.*
- Oiarzabal** (Oiarzabal, Oiartzungo baserria): *Damian de Oiarzabal borra bat.* / *Damian de Oiarzabal carretero de Otsandola.* / *Damian de Oiarzabal...3 (cargas).*
- Ola** (Oiartzungo Olaberria eta inguruko eraikinak: olaetxea eta olatxoak): *Errenteriatik olara mea... 205½ quintales.* / *Olako irabazia...26 pezetas y 21 cuartos.* / *Olarako egin duen lanak dakar...26 pezetas y 20 cuartos.*
- Ola handia, olandia** (Oiartzungo Olaberria burdinola): *Ola handiak astekeo mea eskasa du.* / *Ola handikoak espensatako len adiña eskatzen dute.* / *Orañik eraman gabeak Olandira zorzi kintal ta erdi.*
- Olaberria** (Oiartzungo burdinola): *Franzisko de Rekek ekarri ditu meak Olaberrira.* / *Olaberriko burni hoietan zerbait añaditzeko, hitzean eramanak dira.* / *Olaberritik Elizaldera burniak [...].*
- Olaitxea, olatxea, olaetxea** (Oiartzungo Olaberriaren ondoko baserria da Olaetxea orain): *Arragoa deskargatzen sartu dira olatxeoaz kanpora 7 días.* / *Arragoa erretzalleak olatxeoaz kanpora dituzte [...].* / *casero olaetxea.* (JBMk idatzia) / *Eixigarrek egin du ikatza Jose Ignazio olatxeoaren semearekin oraño basoan.* / *Joseph Ignazio olaitxeoaren kontua.* / *Joseph Ignazio olatxeoak du lana egiña hasta 22 de diciembre de 95.* /

<sup>12</sup> Azken hau 1792ko martxoaren 25eko paper mutur batean ageri da, *Olaecheoa* idatzirik.

- Kapero olaitxeko eman tiot...024...17. / Olaetxekoa.<sup>12</sup> / Olaitxeko Joseph Ignaziok eskatzen du 40 pezetas. / Olaitxekoak harzeko du 36 pezetas y 1½ cuartos, kontua egin genuenekoa. / Olaitxekoaren harzekoa...72 pezetas y 30½ cuartos. / Olatxeko aurreko zubian pasatutako maldatik uzta-  
rriak ekarzea. / Olatxeko gizonak berrehun ziri egiñak ditu ta haienak. / Olatxeko Joseph Ignaziok...2 duros.*
- Olaitzola, Olaizola** (Olaitzola, Oiartzungo baserria): *Aldakokoa eta Olaizolaren jabea-ta atera omen dira. / Andresek nagusiari kontatu bes-  
terik ez du, Olaitzolako yabearena da errota hura. / Olaitzolan bizi den arotz honek baditu arrago egurketan lau egun behiekin ebilliak. / Olaitzolan bizi den Patxiku Kaspar honek esan dit: Olaitzolako erre-  
mienta Bautista meallearen itxean egondu diranak Bautistak hartu omen ditu. Puska guziak bere daritzana pagatu don Feliz Olaitzolako yabeari.*
- Olaizarre** edo **Olaiz** (Oiartzungo baserria): *Fausto Olaizarrekoak esan dit, aruten aldatu nahi baditu, plantak emanen dituela, mintegian bakoitza 5½ kuarto. / Olaizarreko alkateak esan dit gaztaña ikatza puxkaren bat suan daukala. / Olaizarreko zor da hamazazpi karga ta erdi gaztaña ikatza, oraño berri hau. / Pepe Olaizkoak...20 pesos. / Pepe Olaizkoaren semeak...6 duros. / Sebastian de Olaiz «Juansendo» / Sebastian Olaiz hijo de Juansendo.*
- Olalde** (Oiartzungo antzinako baserria(k)): *Sebastian Olaldekoa (JBMk idat-  
zia).*
- Olatxoa** (Oiartzungo Olaberriaren ondoko ola txikia edo martinetea): *Olatxoan 85en gañera 29 panes, 18 pezetas y 26 cuartos. / Olatxoko sagardoa ematen duenak eskatzen du hogei ezkutuko bat. / Txartelarekin ogiak 40 eta dirutan 14. Guziak Donostiatik ekarri dira, 54: ola handian 21½, olatxoan 20 eta nik 12½.*
- Olatzaga** (Oiartzungo baserria, Olatz ahoz): *Olatzagako hoiek aurrera diho-  
az, ta hoiek egiñ beharko dute, berenaren mugante dute-ta. / Olatzagakoak puxkaren bat laster izanen du, baño gutxi hark ere.*
- Olaziregi** (Olaziregibekoa eta Olaziregigoikoa, Oiartzungo baserriak): *Jose de Olaziregi aritu den artea egiñ da burnia... / Jose de Olaziregi honek kintalajetik espensa pagatuta, 9 pezetas. / Joseph de Olaziregik irabazi du Makatzen partez 6 pezetas y 16 cuartos. Hau Makatzi rebajatu beharra da. / Salvador de Olaziregi. / Sebastian de Olaziregi.*
- Olla** (Nongoa?): *Sebastian Ollakoak...2.*
- Olloki(a)** (Nongoa?): *Bizente de Ollokik Olaberrian egin duen lanaren kon-  
tua. / Bizente Ollokia en Kanitxipia (JBMk idatzia).*
- Onsari** (Untxari, Goizuetako baserria): *Manuel Antonio de Onsari.*
- Otsamintegi** (Otsamantegi, Oiartzungo baserria): *De Otsamintegi a Gaztelu ciegos 03 cargas. / De Otsamintegi a Gaztelu itxola...1 carga. / Lau egu-  
neko jornalak baditu: esaminadorea ta guardamuntea botatzeko denbo-*

- ran han izan beharrak dira biña egunetan, eta Otsamintegiko enbor hoietan ere baziran bi egun guardamuntea.*
- Otsoanea** (Oiartzungo 1857ko Otsuene baserri bera dateke): *Bauptista Otsoanea Martirena.* (JBMk idatzia) / *Otsoaneko Sebastian, berorrek agindu diola burniak tiratzeko, ta beñere ondotik eziñ kendu dut. / Otsoanekoak esan dit hamalauraño etsiak zaudela. / Zorioneko burni honi zer egiñ gaztiga beza; bestela iñor hemendik aterako ez dugu guk Otsoanekoaren hau.*
- Otxoki** (Goizuetako etxea eta baserria, denboran): *Solo Otxokiko medikuaren erremediokin ongi omen diboa.*
- Palazio** (Iparragirre edo Iparragirrepalazio, Oiartzungo baserria): *Palazioko gazteak maxterra hautsia daukala. / Palazioko mutill hoiek esan didate Erretereriako dendariagan[a] libranza edo txartela bealzeko.*
- Peloa, Pelo[a]ga** (Feloaga, Beloaga, Oiartzungo baserria): *Pelo[a]gan tella erre da ta nahi duen guziak harrapatuko ez du noski. / Peloako Agerrek gaztigatu du ielsuak berorrenzat bost erreal balio duela.*
- Penaregi** (Penadegi, Oiartzungo baserria): *Alkatek, Portuk, esan dit Penaregiko maxterrak omen duela orañik ikatz gai puskaren bat despojo hoietakoa. / De Madarimotz a Penaregi choza...2 cargas. / Penaregikoa.*
- Perugorria** (Etxe edo baserria?): *Antonio de Perugorria 1 quintal.*
- Pikabea** (Oiartzungo baserria): *Franzisko de Pikabea irundar Berentxikiko honek Tomasen partez irabazi ditu 14 pezetas y 29½ cuartos, ta eskatzen ditu. / Franzisko de Pikabearen meak pisatu dira, 20 de mayo de 1803 ezkerro, 149 quintales y 4 arrobas.*
- Sarobe, Saroa** (Oiartzungo baserria): *De Saroa...06. / Sarobeko Juan Ignaziok gaztaña ikatza eman digu, 12 karga. / Sarobeko nagusi honek dio [...]. / Sarobekoaren ikatz ito Madarimotzekotik...10 cargas.*
- Sein** (Oiartzungo baserria): *Gazteluerrekako hoiek Seingoak pretenditzen ditu. / Juan Antonio de Señ. / Señoa ere han omen zen. / Señoa ta esamiñadoreak ebilli dira ekusten. / Señoarekin egondu naiz ta esan dit 40 egun honetan miñez dagoela.*
- Sokolo** (edo Zokolo, Oiartzungo baserria): *Hoietarako Sokolokoari emana rebajatzea da. / Sokoloko andreak harzeko du espensan [...] / Txokolo (JBMk idatzia).*
- Sorondo** (Oiartzungo baserria): *Juan Jose de Sorondo carretero de Otsandola. / Juan Jose de Sorondori...2½ quintales. / Juan Joseph de Sorondo. / Luis de Sorondo carretero.*
- Telletxea** (Etxea? Deitura?): *Juakin de Telletxea carretero. / Sebastian de Telletxea...2 (cargas).*
- Tomasenea** (Egun Tomasemborda Oiartzungo baserria da): *Batista de Tomasenea...8½ (días). / Bautista de Tomasenea...9½ días.*

- Torrea** (Oiertzungo etxea): *Sebastian de Makuso carretero Torrekoa. / Sebastian de Makuso Torrekoa carretero. / Sebastian Makutso Torreko. (JBMk idatzia) / Sebastian Torrekoari ehun ezkutu. / Ta Sebastian Torrekoak esan dit, berorrek ez egitekotz, saiatu behar duela bestetan.*
- Uharte** (Ugarte, Oiertzungo baserria): *Fermin Juakin de Uharte. / Franzisko Antonio Uhartekoak ditu, leneko paga egiñ zitzaion ezkeru, ogi emanak honara [...]. / Uharteko errotaria larunbatean juatekoa omen da errenta pagatzera.*
- Unsain** (Etxea?): *Juan Joseph de Unsain. / Sarastiren larraña baño ezkerago atera dute denborazko olajaunen larrañ hondarrak, Unsañen larrañaren soñuan.*
- Urdaniturri** (Oiertzungo baserria): *½ fanega haba de Urdaniturri gañera.*
- Zamora** (Oiertzungo baserria, Xamoa ahoz): *Zamorako Agustinek esan dit sagarrekin bealdu zuen Sisto hura bealzeko. / Zamorako nagusiak bealdu ditu horra bealzeko, ta Sisto hori bealzeko, besterena duela ta.*
- Zapirain** (Donostiako Martutene auzoko baserria?<sup>13</sup>): *Jose Antonio de Zapirain...0...08.*
- Zaria** (Oiertzungo lehengo baserria): *Berorrek galdatzen zuen puska handien hau ta Zariako puxka 28 [ka]rg[a]ko bat besterik etzuten paratu igandean kandelan. / Bestela burniaz kargatu ta gañerakoak Zaria aldeko ikatz haietara bealdu.*
- Zubitanea** (Ezkio-Itsasoko Zubitain?): *Zubitaneke kupela neurri zen 1.484 azumbres.*
- Zuloaga, Zuloa** (Oiertzungo baserria): *Erariñan Zuloakoa ta Agerrekoa han ziran lorrean. / Franziko karretoan zor dira 125 pezetas y 3 reales, Zuloakoa, Munoakoa ta Agerrekoa, bakoitza hogeña pezeta. / Franzisko de Lekuna carretero Zuloakoa. / Franzisko de Lekuna Zuloakoa. / Luis de Lekuna Zuloagakoa. / Luis Zuloagakoa. / Luis Zuloagakoak...12 pesos. / Luis Zuloako eta bere lagunenzat...0640 reales. / Luis Zuloakoak esan dit 38 kuartoan entregatuko dutela mea belza. / Luis Zuloakoaren kontuan ez dakit burnien kontua txuxen eman ote nion. / Zuloagako itzaiak...4 duros. / Zuloakoak idiak trukatzeko modua duenean behar duela dio dirua.*

---

<sup>13</sup> Hau ageri da dokumentazioan: *Zapiain* (1566, casa), *Zapiain* (1624, Catalina de), *Zapiain* (1841, casa), *Zapiain* (1844, casa), *Zapiain* (1960, caserío), *Zapirain zar* (1989). Luis Mari Zalduari zor dizkiogu datuok; bihoazkio hemendik gure eskerrak.

## 5.3. TOPONIMIA

### 5.3.1. Toponimia nagusia

**Alziber** (Altzibar, Oiartzungo auzoa): *Alzibertik mea honara. / Alzibertik tretxutan...07 jornadas. / Hemeretzi kargaren gañerakoak Anatxurik jaso ditu Alziberko aberekin Olaberrira. / Ordañako Alziberko urzalleari nik eman niozkan 6 pezetas y 16 quintales Makatzen partez irabaziak.*

**Añoa** (Lapurdiko Ainhoa):<sup>14</sup> *Biaje bat Hernanira, beste bat Goizariña ta beste bat Añoara. / Orañik bada bost eguneko mea, ta Azenzio bealdu dut Añoara toberarekin, ta olatxoa hasi dut. / Sei egunekoak ditu 13 semanas y 4 días, ta pezeta batekin Añoara toberarekin biaje bat.*

**Arano**: *Tomasen partez irabazi du Lukas Aranokoak 6 pezetas y 31½ cuartos.*

**Aranzazu** (Arantzazu, Oñatiko auzoa): *Aranzazuko fraile horri libratu diote lau ofizialeak pezeta bana. / Aranzazuko fraileari eman tiot [...].*

**Artikuza, Artikutza** (Artikutza, Goizuetako auzoa): *Artikuzako itzaiak dira gebienak. / Artikuzara juateko esan diotela. / Endara Artikuzan berorrek egondu zen igandearekin. / Hirugarren ikaztogia yasotzen ari dire, ta Artikuzakotik batere ez. / Ta Bautistak esan dit, Manuel Artikutzakoari berorrek esan diola Baurrindik pagoak ekarrita Kausuan aldaratzeko. / Ta guretzat Antonsoro aldekoa ta Artikuzakoarenzat Erarin aldea.*

**Baiona**: *Eta esan diotet itzaiai, egun kargatu baitira, irundar Baionara dabilzanai esateko bost lagunen kargak badaudela.*

**Billabona**: *Billabonako igelea beste hiru lagun hoiekin trechos 9½ quintales y 1 arroba, y entrar mango.*

**Donijuane, Doniyoane** (Donibane Lohizune): *Abisatu dutela larunbateko sin falta aguardientea entrega dezala, eta burniaz kasorik egiñ gabe juan dela Doniujanera. / Mikolas Arpidekoa egun izandu da Doniyoanen.*

**Donostia**: *Burni hoiek dire marzoan eramanak Donostiara. / Donostiako ogi honetatik. / Donostiako ogitik olatxoan kastatu dira junioan 26¼. / Donostian ogia zorzi kuartoan dagoela esan du Manuelek. / Donostiara anaieangana bealdu ta galdu omen ziran langrostak. / Donostiara Fagotxikitik eramantako burnien asentua hor egiñ omen dute batzuek. / Donostiatik hartu ditugu...125 libras. / Txartelarekin ogiak 40 eta dirutan 14. Guziak Donostiatik ekarri dira, 54.*

<sup>14</sup> *Añoa* aldaera hau biziki zaharra da Nafarroako dokumentazioan, eta berandu arte agertzen da. Ikus bedi Iñigo eta Rekalde (2019: 320).

- Elizalde** (Oiartzungo auzo nagusia): *Burnia Fagatxikitik Elizaldera eraman du. / Gaur ere arratsaldean bilzekoak gera Elizaldera. / Juan den astean Elizaldetik ekarriak zituzten 62½ azumbres sidra a 4 cuartos ola handikoak.*
- Erasun** (Eratsun, Nafarroako herria): *Tirador de Erasun.*
- Ereñazu** (Ereñotzu, Hernaniko auzoa): *Errenteriara eta Ereñazura jua gabe gelditu dela berorren zalanzan.*
- Ergoien** (Oiartzungo auzoa): *Airako gaña a Ergoien y puerta de Isatsa (JBMk idatzia).*
- Errenteria** (eskuarki), **Renteria** (behin, euskaraz): *Arragoa ongitzeko karea, Errenteriako mugako itxe batetik jorrada bat...8 quintales. / Errenteriako olajaunak eraman zituen hemendik bi kintal kuadro. / Errenteriako olatxokoak. / Errenterian mea garbitzen ari diran oiartzuarrai eman ditioztet bi pezeta. / Errenteriara eta Ereñazura jua gabe gelditu dela berorren zalanzan. / Errenteriatik babatan bi yorrada. / Fagotxikitik Renteriara burnia 25½ quintales. Kosmek bere itxetik Errenteriara 9 quintales. / Sikiera Errenteriatik mea ekarriko genuke, zerbait eman ezkeru.*
- Errepublikak** (Frantzia): *Elizatik erakutsi zen Oi[ar]zunak Errepublikaren ordena zela gurdi mearrakin iñor ez pasatzeko Franzalara 22 de noviembretik aurrera. / Errepublikarenzat ikazketan gure basoetatik dabilza.*
- Frantzia**: *Eta nik ez dakit gurdirik orañ ote dabillen Franzalara. Elizatik erakutsi zen Oi[ar]zunak Errepublikaren ordena zela gurdi mearrakin iñor ez pasatzeko Franzalara 22 de noviembretik aurrera. / Franzako karretotan zor dira 125 pezetak y 3 reales. / Ostiralean Franzako jaia da ta larunbatean jua beharko dute burniak.*
- Gabierrota** (Errenteriako auzoa): *Gabierrotako babaz ere oroitzeko. / Más una fanega haba de Gabierrota.*
- Ganbo** (Lapurdikoa Kanbo): *Ganboko Arotxarenzat bealdu ditut ustaiak. / Ganboko Arotxarenzat bealdu ditut Ziburura guziak.*
- Goizuetak**: *Eta emazteak errespuesta bealdu du Goizuetatik, abisatu dutela larunbateko sin falta aguardienteak entrega dezala, eta burniaz kasorik egiñ gabe jua dela Donjuanera. Eta gaur etorriko da Goizuetatik. / Goizuetara propioa Fermin Joseph zenaren kasoz paperen eske berorren kartarekin.*
- Hernani**: *Hernanira eraman ta ekarri haspo larruak. / Tobera Hernanira bealzea ta ekarz[e]ja...2...00. / Tobera Hernanira bealzeko joralak...1 pezeta. / Tobera Hernanira eramateagatik...1...00.*
- Hondarrabiak**: *Hondarrabiako babadun hark ere errespuesta behar luke. / Hondarrabiako babak ziudadean batzuek ta besteak ziudadearen garai-ko aldean, bere itxean omen ditu gizon hark. / Hondarrabiara eman genuena da 50 karga, arrago egurretan hartu ta gañerakoa.*



- Ianzi** (Igantzi, Bortziritako herria): *Franzisko de Ianzi. / Ianziko igele gazde honi kargatu behar zaio fraileari emana. / Jose Juakin Ianzi. / Sidro de Ianzi.*
- Irun**: *Irunan, Erreterian ta Oiarzunan hamar milla karga erretazo omen da. / Irungo karreadoreak 46 karga pagatu ditut. / Mearik ez da bada iñondik heldu honara, ez Irundik ta ez Erreteriatik.*
- Iruñe(a)**: *Bi hogeiz ezkutuko hoietatik bat amagiarrabak semea Iruñera bealdu behar duela eskatzen zid[an]. / Orañ Iruñera jokatzeko asmoa dut. / Pasaian ordena edo kargua emana daukate, baño orañ ere gabe daude, ta esan didate berorrek Iruñetik erakarzen balu, gaztigitzeko. / IBk ere Iruñe(a) darabil: Eta Iruñerako atererik dauden garrobandak dirade... 3 kintal 16 reales. Burni hoien eske etorriko zela esan zidan aste honetan, eta Iruñerako egiñ behar duen karta bial dezake haren itxera. / Iruñerako burni hoiek ez dira allegatuko hogeita bat kif[n]talera, falta izanen dira hiru edo lau kintal.*
- Karrika** (Oiarzungo auzoa): *Buruzuriari itxola en 3 cargas Karrikatik suertera.*
- Lesaka**: *Berorrek bealdu zuen 20 pezetako hartatik ema[n] nion Lesakako berotzalleari aste bateko jornala...8 pezetas. / Lesakako bidean dabilzan guziak burlaz daudela.*
- Lezo**: *Goierrirrak dira Erreterian ta Lezon bizi diranak.*
- Oiarzun**: *Emakume batek txartela kendu zidan niri, berorri Oiarzunan zen batean. / Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna. / Nik ola harzekotz Oiarzundik behar dut laguna, ta bestela ez dut hartuko. / Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin bakoitzak bere nagusiari aditzera emateko, ta eskatzen dute Oiarzungo olatarako asteko bost pezeta. / Orañ kostatzen da orga bakoitza 26 pezetas, ta gañera sosak ere bai. Oiarzunan bertan lau orgak hiru pezeta, alkateak bi ta eskriboak bat.*
- Pasaia**: *Pasaian ordena edo kargua emana daukate, baño orañ ere gabe daude, ta esan didate berorrek Iruñetik erakarzen balu, gaztigitzeko.*
- Probenzia** (Probintzia, Gipuzkoa): *Probenziako pezeta ere itzaien jornalean sarzen zela uste omen zuen Lamotheke.*
- San Juan** (Pasai Donibane, ustez): *Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko.*
- Urriztilla** (Urrestilla, Azpeitiko auzoa, ustez): *Aprendizari Urriztilla juateko biderako...2...00. / Mealleari kargatu zitzaion Urriztilla juateko nik emana...05...10½.*
- Zibururu**: *Arotxarenzat bealdu ditut Zibururu plantxuelak. / Ez du hark Ziburuko karretorik egiñen. / Ganboko Arotxarenzat bealdu ditut Zibururu guziak. / Hoiek dirade Zibururu bealduak ta orañ txabal txiki honetatik orgaren bat bezala dago egiña. / Zibururu bi beaje gañera. / Zibururu bi yorrada eginta, propioari...03...00.*

**Zuzaia** (*Zozaia* Oronozko auzoa?, deitura hutsa?): *Santiago de Zuzaia* 30 libras.

### 5.3.2. Toponimia txikia

**Aire(a), Aireko gaña, Airako gaña** (*Aireko gaina*, Oiartzun): *Airako gaña*. / *Airako gaña* a Ergoien y puerta de *Isatsa*. (JBMk idatzia) / *Aireko gañetik*...317 quintales y 1½ arrobas. / *Aireko gañetik mea* 8 quintales. / *Airetik mea ekarri* 40 quintales y 2½ arrobas. / *Airetik mea*...65 quintales y 8 arrobas. / De *Aireko gaña* menas...58½ quintales. / De *Aireko gaña* menas 41 quintales y 2 arrobas. / De *Aireko gaña* menas 6 quintales y 5 arrobas.

**Alzateko makoa** (*Alzateko makoa, Alzatemakoa, Berdabiomakoa*, Oiartzun): *Alzateko makoa zorzi zulorekin, hau hartu nahi badu, Aketzari eman beharko*.

**Anizlarre** (Artikutza, Goizueta): De *Anizlarre*...00. / De *Anizlarre*...09. / De *Anizlarre*...15. / De *Anizlarre*...3.

**Antonsoro** (Oiartzun): *Antonsoro aldean ere badaude atereak, ta honara etorzen dira hortik heldu diranak ere. / Ta guretzat Antonsoro aldekoa ta Artikuzakoarengat Erarin alde*.

**Añarbe** (Oiartzun): *Juan Migelek-eta hartu dituzte, eta Añarberako paraj[e]jan ere kandelan daude bi porzio*.

**Arantxipi** (Oiartzungo aurkintza, denboraz). De *Arantxipi* 16 cargas. / De *Arantxipi* 3 cargas. / De *Arantxipi* 25 cargas. / De *Arantxipi* 26 cargas.

**Argiñaztegi** (Oiartzun?): De *Argiñaztegi*...16 cargas. / De *Argiñaztegi*...07 (cargas).

**Ariztxulegi** (*Aritxulegi*, Oiartzun). *Ariztxulegi aldeko lorrean ta Eraringoan gastatu dira bost pitxer ardo. / Ariztxulegitik ere sarzen da bederetzi uztarriren kontua kabiguñ birekin: 9 pesos, 33 pezetas y 3 reales. Ariztxulegi aldeko hoiek gure itzaiak dira, baño Eraringo hoiek beharko dute pagua, ta heldu diranean ardoa ta ogia ere bai. / Ariztxulegitik kabigunketan...1 día. / Ariztxulegitik kabiguñak...3 días. / Ariztxulegitik lorrean...1 día. / De Ariztxulegi mangos...2 días. / De Ariztxulegi...1 (carga) maisukabias. / De Ariztxulegi...1 carga maisukabias. / *Gazt[el]u alde honetan, ta Ariztxulegira goazela, bide azpitik hiru yorradako tokia da urrutinekoa. / Len egiten ari geran hoien buruan ta Ariztxulegirañoiko honetan guzian aritu dira esamiñatzen. / Erdaraz Arichulegui dugu, JBMk idatzirik*.*

**Ariztxulegibide(a)** (Oiartzun): *Ariztxulegibideko honek izanen du gutxi-gorabera 500 karga*.

- Basate** (Oiartzun): De *Basate* a *Emeta* choza...2 cargas. / De *Basate* a *Madarimotz* ciegos...6 cargas. / De *Basate* cisgos...3 cargas. / De *Basate* 3 cargas. / De *Basate* 26 cargas.
- Baurrin** (Artikutza, Goizueta): *Ta* *Bautistak* esan dit, *Manuel Artikutzakoari* berorrek esan diola *Baurrindik* pagoak ekarrita *Kausuan* aldaratzeko, eta *Unzburuko mintegitik* aldatzea hobe dela.
- Beringo atari** (Beringarate? Goizueta): *Beringo ataritik* *Zaldin* aldera onena zen, eta *aldena* ere bai, eta *honi* eratsi diote *Kausuako* azpiko errebesena.
- Bianiz** (Bianiditz, Oiartzun eta Goizueta artekoa): *Patxiku Katxo* horrarako mea ateratzen ari baita *Pagoetan*. *Bianizan* aritu zenean borra bat eramana ta ez du sekulan entregatu.
- Disputa** (Oiartzungo leku izena?): *Martin kandelagilleari* *Disputako* mea ekarze-saria...03...00.
- Erarin** (Goizueta eta Oiartzun; *Erain* egun): *Ariztxulegi* aldeko lorrean ta *Eraringoan* gastatu dira bost pitxer ardo. / *Eraringo* bederetzi uztarriak ezkutu lodi bana, 45 pezeta. / *Erariñan* beko errekatik *Jeronimori* iduriak ematen...4 cargas. / *Erariñan* goiara ta *kapirioak*, eta *Oielekun* ardia; bederetzi uztarri *juan Erariña*, ta *hononzean* ardia *Oielekun* hartu ta, *guziak* kargatuak, beiti etorzeko modua da. / *Erariñan* *Zuloakoa* ta *Agerrekoa* han ziran lorrean. / *Joseph de Arretxeak* *Erarindik* 3 cargas, *Buruzuriarenatik* 8 ta *Luisengandik* 15 cargas. / *Ta* *gureztat* *Antonso* aldekoa ta *Artikuzakoaren* *Erarin* aldea. / *Ta* *karga* *ikatza* *pezeta* kontatu du *Señgoak*, *Eraringoak* eta *honontzkoak*, *guziak*, *karga* *pezeta*.
- Erarinalde** (Oiartzun edo Goizueta): *Erarinalde* edo *Iraurgiñ* izanen omen dira *gaiak*.
- Eraringo ixidua** (Goizueta edo Oiartzun): *Basorik* ontxoena da *hau Eraringo* ixidutik beiti, ta *beste* aldetik 300 *karga* bezala bi *pagorekin*.
- Erorza** (Irun): *Erorzako* *goikotik* 150 quintales. / *Erorzako* *meatik* orañ *bealdu* duten *gizonak* dira *berriak*. / *Irundarrak*, *kontu* *garbitu* *hoietaz* *gañe[ra]*, *badute* *ekarria* *Erorzatik* 130 kintal.
- Erroizpeko ixidua** (Goizueta eta Oiartzun): *Suerte* *partitua* dago *launa* *puskatan* *Erroizpeko* *ixidutik* bi *aldetara* *puska* bana.
- Garalorregi** (Karalorregi, Oiartzun): *Baltasarrek* *dio* *Garalorregin* ta *Otsandolan*, *hoien* *esamiñan*, *ongi* *aterako* *dela*, *izerdiak* *galduak* *izana* *gatik*. / De *Garalorregi*...5 cargas. / De *Garalorregi*...6 cargas. / *Garalorregiko* *asentuak*, *setienbrean* *ongi* *paratu* *ezpanituen*, *ziran* *modu* *honetan* [...]. / *Laugarrena* *Garalorregin*...4.000. / *Ta* *Baltasarrek* *esan* *dit* *Otsandolakoa* *bost* *milla*, ta *Garalorregikoa* *lau* *milla* ta *erdi* *egiñ* *zutela*.
- Gaztañadi(a)**: *Gaztañadiko* *basoa* *honetarako* *itxolarik* ez *dugu*. *Aldakokoak* *badu* *gaztañadi* *hoietan*, ta *salduko* *duen* *galdatu* *diot* ta *baietz* *esan* *dit*. / Ez dakigu *toponimoa* den, ez eta *Oiartzungoa* den ere. Cfr. *hauek*: *Agerreko* *Patxikuri* *gaztañadira* *itxola* 2 cargas. / *Aldako[ko]ari* *itxola*

- hartu diogu gaztañadi honetarako, ta gizon edozeñi erakusteko esan zidan.* / Ikus hiztegia.
- Gaztelu** (Oiartzun): De Otsamintegi a Gaztelu itxola...1 carga. / Gaztelun hasi den honek ere zerbait bealzeko. / Gaztelutik mea ekarri du. / Jose Ignazio de Arretxeak ekarri ditu meak Gaztelutik. / Ta lau yorrada edo bost egiñ daitezke. Gazteluko meatzetara goazela garaitik da puska hau.
- Gazteluko erreka, Gazteluerreka** (Oiartzun). Erretazoak Gazteluko errekan dira bi porzio, ta Zaldirinān 560 kargakoa, gaztaña. / Gazteluerrekako hoiek Seingoak pretenditzen ditu, dirua izaten badu behinzat, bat 440 karga, ta bestea 220 karga. / Gazteluko errekkako ik[a]tza: 7 karga ta lepalotua etorri da. / Gazteluko errekan bilduak ditu meak...26 quintales.
- Gorritxo** (Oiartzun): Gorritxoko mea belza guk jaso...65 quintales y 2½ arrobas.
- Intxautxota** (Intxaurtxoeta, Oiartzun): De Intxaurtxota gaztaña ikatza...3.
- Iraurgi** (Oiartzun): Erarinalde edo Iraurgiñ izanen omen dira gaiak.
- Irundarren basoa** (Oiartzungo leku izena?): Irundarren basoko hasi berri honek...4 duros.
- Kausua** (Oiartzun): Beringo ataritik Zaldin aldera onena zen, eta aldena ere bai, eta honi eratsi diote Kausuako azpiko errebesena. / 2 días de Oieleku a Kausua ciesgos. / Kausuatik...31 cargas. / Ta Bautistak esan dit, Manuel Artikutzakoari berorrek esan diola Baurrindik pagoak ekarrita Kausuan aldaratzeko.
- Koltxona** (Oiartzungo Kosonegia?): Franzisko Berentxikikoak esan dit Koltxonan hasi direla Juakintxorenzat mea ateratzen.
- Larrandi** (Oiartzun, Larraundi): Carbones de Larrandi.
- Lasañ, Lasaño burua** (Lasain, Lasaingaña, Irun): Mea belza Isasolara bazakarten Lasaño buru honetatik.
- Lizarditxabal** (Nongoa?): Lizarditxabaltik egurratan 3 días.
- Madarimotz** (Oiartzun; ikus atal honetako 2. puntua): De Emeta a Madarimotz choza...2 cargas. / De Madarimotz a Emeta choza...2 cargas. / De Madarimotz a Tornola choza...2 cargas. / Sarobekoaren ikatz ito Madarimotzekotik...10 cargas.
- Martuzenegi** (Oiartzun): De Martuzenegi...3 (cargas). / De Martuzenegi...1 (carga). / Eta ikatza karga, Martuzenegikoa, bost erreal esan zuten, baño bi burni ziri Buruzuriari eman genition Señoak aginduta.
- Metalmeatzea** (Oiartzun): Metalmeatzetik...15 quintales y 4 arrobas.
- Mintegizar** (Goizueta?): De Mintegizar...4 (cargas). / Mintegizarretik Otsamintegira ta Zaldirindik suertearen beko muturrera yorrada bana itxola.
- Oieleku** (Oiartzun): Beste (puska) bat Oielekutik beiti... 500 (karga). / Erariñan goiara ta kapirioak, eta Oielekun ardia; bederetzi uztarri juan Erariña, ta hononzean ardia Oielekun hartu ta, guziak kargatuak, beiti

- etorzeko modua da. / Iñork egurra eramateko, peligroan egurrik Oielekutik beiti da, karraiadoreak hutsik heldu diranean karga bailitezke. / Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira.*
- Olaanditu, Olaandittu** (Oiartzun, Olaundittu egun): De Olaanditu...07 (cargas). / De *Urdaizpe* a *Olaanditu* choza en 2 cargas. / *Gaztelu aldeko puska hau dago esamiñan, 760 karga, Olaanditukoa 780. / Horiez gañera Olaandittuko dotazioan egin da hamabi kargaren entresaka. / Olaanditukoa...780 (karga).*
- Onozkozubieta** (Artikutzako aurkintza):<sup>15</sup> *Onozkozubietako mea eman gabe utzi ditut (sic).*
- Otsamintegi** (Otsamantegi, Oiartzungo baserria egun): De Otsamintegi a *Gaztelu* ciegos 03 cargas. / De Otsamintegi a *Gaztelu itxola*...1 carga. / *Lau eguneko jornalak baditu: esaminadorea ta guardamuntea botatzeko denboran han izan beharrak dira biña egunetan, eta Otsamintegiko enbor hoietan ere baziran bi egun guardamuntea. / Mintegizarretik Otsamintegira ta Zaldirindik suertearen beko muturrera yorrada bana itxola.*
- Otsandola** (Oiartzun): *Baltasarrek dio Garalorregin ta Otsandolan, hoiien esamiñan, ongi aterako dela, izerdiak galduak izanagatik. / Franzisko Antonio Ariberek eta bere anaieak paratu dute (sic) 1.200 planta Otsandolan. / Lorrean Otsandolatik...2 días. / Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira. / Ta Baltasarrek esan dit Otsandolakoa bost milla, ta Garalorregikoa lau milla ta erdi egiñ zutela.*
- Pagoeta** (Bianditz inguruko aurkintza, itxuraz, Oiartzun - Goizueta mugakoa): *Patxiku Katxo horrarako mea ateratzen ari baita Pagoetan.*
- Pagola** (Oiartzun): De *Pagola*...14 (cargas). / De *Pagola*...1 (carga).
- Portuaga** (Oiartzun, ustez; Fagoaga aldean zatekeen): De *Portuaga*...2 (cargas). / De *Portuaga*...15 cargas.
- Saroerreka** (Oiartzun): De *Saroerreka* mena 3 quintales y 2 arrobas. / De *Saroerreka* menas 07 quintales y 1 arroba.
- Tornola** (Oiartzun): De *Madarimotz* a *Tornola* choza...2 cargas. / De *Tornola* 05 (cargas). / De *Tornola* leñas bueyerros [...]. / *Tornolatik egurra*... 02 cargas.
- Unaileku** (Oiartzun): *Haciendo carbón en Unaileku.*
- Unailekutxiki** (Oiartzun): De *Unailekutxiki*...3 (cargas).

<sup>15</sup> Honen etimoa *Oronozkozubieta* bide da. Ikus Erriondo (1988: 125) eta 1798.08.05eko eskutitzean dioguna.

*Unzburu* (Uzpuru, Oiartzun): *Ta Bautistak esan dit, Manuel Artikutzakoari berorrek esan diola Baurrindik pagoak ekarrita Kausuan aldaratzeko, eta Unzburuko mintegitik aldatzea hobe dela.*

*Urdaizpe* (Oiartzun): De *Urdaizpe* 2 (cargas). / De *Urdaizpe* 25 (cargas).

*Urdiñegi* (Irun): De *Urdiñegi*...4 (cargas).

*Zaldirin, Zaldin* (Oiartzun): *Beringo ataritik Zaldin aldera onena zen, eta aldena ere bai, eta honi eratsi diote Kausuako azpiko errebesena. / Erretazoak Gazteluko errekan dira bi porzio, ta Zaldirin 560 karga-koa. / Mintegizarretik Otsamintegira ta Zaldirindik suertearen beko muturrera yorrada bana itxola.*

## 6. HIZTEGIA

Atal honetan Jose Ramon Minondoren eskutizetan azaltzen diren hitzak biltzen ditugu. Gure nahia guziak jasotzea izan da, hori lan gaitza dela jakin arren, seguru baikaude bat baino gehiago itzuri zaizkigula. Hiztegi honen xedea irakurleak lehen soan Jose Ramonek zer darabilen ikustea da, gutunetan barna aitzin-gibelka kurri ibili beharrik ukan gabe. Eleak guri ongi iruditu zaigun bezala sailkatu eta multzokatu ditugu, eta ardura egoki iritzi diogu irakurlea batetik bestera igortzeari, bereziki hitz elkartuen kasuan: adibidez, *burni ziri* sarreran «ikus *ziri* sarrera» erantsi dugu, eta *ziri*-n berriz «ikus *burni ziri* sarrera». Holakoetan ez dakigu makur edo zuzen jokatu dugun, lexikografoak ez garelako, orain baino lehen hiztegiren bat eginda izanik ere. Beste anitz bezala, jakintza espezializatua da lexikografia, irizpide argiak galdegiten dituen, eta guk gauzak beti ez geneuzkan behar bezain garbi.

Nolanahi ere, gutunetako hitzak, testuinguruari oharthurik ongi ulertzen eta azaltzen saiatu gara, azalpen beharra zutenean, honelako lan batean *ager-tu*, *berantetsia egon*, *deskargatu*, *emazte* edo *emakume* zer diren esplikatzeko hastea «alper biajea» egitea dela baiteritzagu. Besterik da, ordea, ekarpen berriren bat egitea, apal-apala izanagatik: konparaziorako, *aditu* ‘entzun’ eta ‘ulertu’ izan daitekeela zehaztea ez zaigu soberakina, ez eta ere *erakutsi* ‘erakutsi’ ez ezik ‘publiko egin’ ere izan daitekeela azaltzea.

Eskutitzok, esan den bezala, erabat lotuak daude burdinotako bizimoduarekin, eta guk gaurdaino olen mundu horretaz gauza handirik ez bagenekien ere, entseatu gara eskutizetan kausitzen ditugun hitz teknikoak esplikatzera: *agoa*, *buztandu*, *despojo*, *dotazio*, *kabitegi*, *plantxuela*, *tobera*, *tretxu*, *txabal*, *zopotillu* eta beste hamaika hitz zer diren edo zer diratekeen zehazteko ahaleginak egin ditugu. Aldiro ez dukegu asmatu, baina ematen dugun definizioa, gehientsuenetan, ez da hain segur eman behar genukeenetik arras urrun egonen. Zeregin honetan izugarri lagundu digu A. M. Mitxelena goizuetarrak berriki argitara eman duen burdinolen inguruko liburuak, ematen dituen azalpenetan eta, batez ere, dakartzan marrazkietan peza bakoitza non zegoen garbi ikusten delako.

Behin edo beste, gainera, sekula inon aurkitu ez duguna topatu dugu: esaterako, *alkua pasatu* ageri zaigu, eta ez dakigu ongi zer den. Beste noizbait, Goizueta aldeko hizkera ezagutzeak eta herrikoek emandako informazioak argi zerbait egiten lagundu digute: *taia* zer zen horri esker jakin dugu, adibidez, eta gutunetan edireten ditugun aldaerak zuzen interpretatzen ere lagun-

du digute, *maxura* ‘matxura’ aditu baitiegu Goizuetako adinekoei, baita ‘esan’ adiera duen *ailegatu* iraganaldiko hiru argumentuko aditza ere (*ailegatu zion* ‘esan zion’), konparazio baterako.

Sarrera bakoitzean adibide bat baino gehiago eman ditugu arruntean, hitzaren esanahia zein den garbi utzi beharrez, eta haren kategoria ere gehitu dugu, betiere EHn ageri denaren oinatzetan, inoiz edo berriz horretatik pittin bat hastandu bagara ere. Aipatu hiztegian kategoriarik erakusten ez denean gu ere deus zehaztetik gibelatu gara. Hona hemen, bada, eta besterik gabe, osatu dugun hitz zerrenda luzea:

**abar** iz. Multzoa. *Borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko. / Hemen olan ere badira tretxu txiki abarrekin egiñak txabal bitarte batzuek. / Erka bitez Lezoko egungo buruabarra, gasteabarra, ostoabarra eleekin (Agirretxe eta Esnaola, 2000: 151), bigarrenarekin partikulariki, gasteabarra-rekin, ‘gazte multzoa’ esplikatzan baitute (*ibid.*, 159). Autoreok *abar* hitz beregaina «atzizki gisa» erabilia dakusate horrelakoetan.*

**abere** iz. *Bien artean dute honara aberekin egin duten lan guzia. / Hemeretzi kargaren gañerakoak Anatxurik jaso ditu Alziberko aberekin Olaberrira. / Iduri aldatzen...4 días. Iduri aldatze hoiek abere bakarren egunak dira.*

**abisatu** du ad. *Emazteak errespuesta bealdu du Goizuetatik, abisatu dutela larunbateko sin falta aguardientea entrega dezala. / Eta horrara etorzea nahiago badu, datorren astean eziñ datorkeala, baño bestean etorriko dela, ta abisatzeko zer nahi duen. / Eta larunbatean abisatuko dut bitartea zer bealzen ditudan (sic). / Hemen gelditu diran 424 reales hoiek zer egiñ abisatuko du (berorrek). / Labianok bealdu ditu 99 urretxiki ta 5 reales y 2 cuartos, ta hoiei zer egiñ abisatuko du. / Zerbait esan dit gizon honek, berorrek deus abisatu ote didan kontuen gañean, ta ezetz esan diot. / Ikus gaztigatu sarrera.*

**abonatu** du ad. *Ordaindu. Abonatu beharrak ditu Munoakoak 150 kintal mea olara ekarriak. / Eta horko asentuan, edo nahi duen moduan, abonatu dio astea bi olatan pasatu hau. / Hoiei abonatu ta Tomasi rebajatu beharrak dira hoiek bere irabazitik. / Itzaien bideak egin dituzte, erdia abonatzeko, ta tokatzen zaiote erdia...9 pezetas. / Manuel Antoniori kargatu behar zaió 8 pezetas y 24½ cuartos, ta abonatu behar zatzio ordanaz aritu denari, baita Iberoko suña Juan Franzisko de Alzate. / Meakariak bazuten 60 pezetas y 7 cuartos, baño aurreragoko kontuan, berorrek deskuiduan gehiegi abonatua, bazen 17 pezetas y 27½ cuartos, ta ferrazalleari 20 pezeta abonatu zitzaion meakarien kontura. / Oraño libra ta erdi añadimentu hau Indianoak abonatu duela kontuetan. / Ikus yornalak abonatu sarrera.*



- adaki** iz. Egurra, enborra (G). Gutunean ‘adaxka’-edo dateke. *Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten mandazaiak.*
- adiña** menderag. 1. Bezainbeste. *Ola handikoak espensatako len adiña eskatzen dute: 14 duros. / Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña. / 2. Bezain. Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal.*
- adirazi** du ad. Adierazi. *Aldakokoak esan dit batere etzuela asmorik Galardik, baño ni nola izandu naizan adirazi dionean etorri zaiola bera itxera [...]. / Orañ bota gabe uztekotan, dagokala goia edo betik, edo nola uztea nahiko duen adiraziko du. / Ta berori ezipada honela kontentu, adiraziko du nola nahi duen.*
- aditu** du ad. 1. Entzun. *Dirurik gabe ez gehiago juateko esan zigun lengoan, ta orañ pagatzean hitz egiñen diogu, eta zer dion adituko dugu. / Erretazoak 24 kuartilluan gelditu dira. Esamiñetan allegatuko etzirala, batzuek behinzat, aditzen nuen. / Eta esan dit aldaketako lanak dituela orañ, eta zer nahi duen niri gaztigatzeko, ta igandean neregana agertuko dela zer nahi duen aditzera. / 32 kuartoan Santusek behar duela aditu dut. / Irundar hoietan itzai bat dabilla meatan dirua etorri den galdaka; beste gehiago ere hasiko lirake diruaren soñua aditua balaukate. / Señgoarekin egondu naiz ta esan dit 40 egun honetan miñez dagoela, eta aditu duela posesioa nola hartu duten, eta laster kausara atera nahi lukeala. / Ta esan diotet nik ofrezimentua egiñ dudala puska honetaz, esamiñadorea ere bai, Juan Migelek adi dezan. / 2. Ulertu (elkar aditu ‘elkar ulertu’, ‘ados jarri’). Konejura bilzen diranean guziakin egonen dela, ta bera horrara agertu edo kartaz adituko dutela elkar.*
- aditzera eman** du ad. ...*eta yakiñen duela zer indar edo moduak ekarri dituzten, eta aditzera emanen didala laster zer egiten duten. / Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin bakoitzak bere nagusiari aditzera emateko.*
- adobatu** du ad. Adabatu, konpondu. *Haspagilleak esan du adobatzeko zulo-rik izaten deneko gelditzen badut ere, txikienak gelditzeko zerrenda puska hoietatik, joskurak ateratzeko Elamarako luzenak behar dirala. / Nik esan diot berorrek nolaerebait berorrek (sic) adobatzeko modua hartu nahiko duela.*
- adobazio** iz. Konponketa-edo. *Eta datorren astean egiñ beharko du adobazio honek (sic), Martin bera sendatzen ezipada. / IBk armazio ‘enkofratua’-edo darabil.*
- ageri izan** da ad. ...*ekarzeko esan diotela, ta pagatzean zer esaten duten ageriko dela. / Erretazotako honenzat ez da iñor ageri. / Irundar itzairik ez da ageri oraindik. / Maisua ta berotzalle hau ere galdaka daude deus ageri den. / Nahi badu, olan baba egosita, ogia emanen zaio, eta zer gas-*

*tatzen duen ageriko da. / Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote kandelan. Hurrengo jaiean ageriko al da zertan gelditzen den! / Ola handikoaren asentua badu hor, ta maiz aski hemen da jendea, deus ageri den. / Orañ bi orga dira egiñak ta hiru ordutara dihoa, eta Endara ez da ageri orañik. / Sidro ageri ez, ta haren agoa Josepek tiratuta nik Joseperi emana 2 reales. / Ta irundar it[z]ai hoiek ere dirua nekez ageri dela diote, ta batzuek gelditu dira.*

**agertu** da ad. *Andresi eman diot karta goizean, ta esan dit meza esan ta Konsejura bilzen diranean guziakin egonen dela, ta bera horra agertu edo kartaz adituko dutela elkar. / Arotzak bigar dira olara etorzeoak, ta Markos ez da itxera agertu, ta nahi badio gaztigatu. / Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela. / Gaur ez bealzekotan, bigar ez bealdu neregana dirurik; bigar herriraño agertu behar nuke. / Guzta txea eta lur kolorea zuen meak, eta orañ euriak garbituta agertu zaio metal belz zakar hau. / Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna. / Olatxo ongi hasi da. Ta franzesa ez da agertu, ta gaztigatu diot datorrela berehala. / Otsoanekoak esan dit hamalauraño etsiak zaudela, baño hurrengo jaieraño ez jakin kontrario-rik ager zitekean.*

**agertu bat egin du** ad. *Agerraldia egin, ikusi bat egin, sar-atera bat egin. Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorregana agertu bat egiñen ote duen dagoela.*

**agian** adb. *Alkateai ez diotet deus esan, agian jatsiko dutela berago.*

**agindu du** ad. 1. *Manatu. Andresekin goizean egondu ninzan, ta esan zidan aurtengoko gobiernoko hoiek ia bestek agintzen diotena egiteko modukoak dirala. / Arratsaldeko haragi puska bat maneatzeko agindu dutela sagardotegian. / Eta ikatza karga, Martuzenegikoa, bost erreal esan zuten, baño bi burni ziri Buruzuriari eman genition Señoak aginduta, 17½ libras, eta hoiek berorren bizkar. / Otsoaneko Sebastian, berorrek agindu diola burniai tiratzeko, ta beñere ondotik eziñ kendu dut. / 2. Jakinarazi, gaztigatu (ikus 1799.03.12ko gutuna). Damianek agindu dit eskasaren kanta dadukala Lamothek pisuaz. / 3. Prometatu, hitzeman. Añadimentua 21 kintalena, zergatik bueltan mearik etzen. Agindu zitzaioren: 10½ reales. / Aranederreko gizona hemen izandu zait, merkataria billatuko ote duen, nik nola burnia agindu nion, eta neurk billatuko dudala esan diot merkataria. / Aste honetako agindu diotet dirua. / Bautista atzo izandu zen diruarekin, ta burniak bigar eraman behar ditu. Itzaiak bigaroko agindu omen zioten. / Gizon hark berorrek pezeta agindu ta hark gehiago behar zuela, txaponen bat-eta ziola [...] / Joseph Anton itxean etzen, ta andreak agindu du ekarriko dutela. / Pierresen suña*

*hemen izandu da, bi orga txabal agindu zitiola berorrek, eta zer modu ote den yakiten.*

**agindu** iz. Manua. *Gehiago añaditzeko kondiziokoa edo agindua, zeren mearik etzen...6 quintales. / Hoietatik añadimentua agindua den denborakoa ...21 quintales. / Hoietatik 29½ kintal dira retornurik ez den denboran zerbait ekusteko aginduarekin egiñak.*

**agintari** iz. *Aritziburukoa eta Aldakokoa dira orañ guzien partetik agintari, ta esan diote Garatekoai lan egiñik etzaiotela galduko.*

**agoa** iz. *Urtzaileak burdinolako sutegi handian lortzen duen burdina edo zamarra; A. M. Mitxelenak (2020b: 127) Goitzaringo dokumentazioko aipu hau dakar: «11 - La masa o agoa que existe en dicha herrería, y que es la última fundición de la época en que paró dicha herrería». Gutunetako lekukotasunak: *Boba eskatu egin zen, ta bobatzen agoaren bat edo gexeago bezala galdu zen. / Itsas metal puxkaren baten modurik ezpada paratzen honarako, ez da gauza onik egiñen, haxiak dirala ere. Agoa bakoitza kintal bat pisatu dugu. / Sidroren partez Isasolako igele gazdeak baditu bi agoa. / ...ta kamañara juan, lanaz kasorik egin gabe, ta lo etzin da, ta hurrengo agoan illunzeko aurrean iraike, ta orduan hasi da lanean.**

**agoa atera du** ad. *Len hemen zen agoa palanka hautsi ta eskarpatuaz guzia mehatua da gerrian, ta amor ematen du agoa ateratzeko denboran. / Ta gaur ere etorri da mandataria, ta esan diot azken agoa aterata tira deza-la nahi badu.*

**agoa egin du** ad. *Hau begia erreta juan denean ekarri dugu Isasolako igele gazdea, eta bi agoa egin diraneko tobera erre da edo hautsi kañoi en mugatik. / Jose de Bengoetxeak eta Nikolas de Arbelaizek badute egun bana ola perparatzen, ta agoa bat egiñ. / Josepe igeleak eta Nikolasek badute agoa bat biak egiña, 7½ arrobas. / Joseph de Bengoetxea ta Nikolasek badute bi agoa hasierako larumbatean egiña...2 quintales y 2½ arrobas. / Lau agoa hogeita lau orduan egiñ omen zituzten, ta laguna etorri zitzaionean guziak lagunak apaindu. / Erka bedi erdarazko honekin: *Han hecho dos agoas, 2 quintales y 2½ arrobas.**

**agoa palanka** iz. Larramendik (1882: 69), *meallea* aipatu eta ondoan, honela dio: «*El otro (ferrón) acercándose á la fragua con una palanca gruesa y larga de hierro, y que levantándola con sus morcillos casi férreos, la mete hasta el fondo de la fragua para ver ó saber el estado del agoa, y si la vena está bien derretida, y la menea y sacude con la palanca, llámase urtzallea, fundidor, derretidor*». / Gutunetako lekukotasunak: *Len hemen zen agoa palanka hautsi ta eskarpatuaz guzia mehatua da gerrian. / Mealleak ekarria, agoa palanka txiki bat hemen obi da. / Ikus bedi palanka sarrera.*

**agoa tiratu du** ad. *Agoa apaindu eta gero egiten zena. Honela diosku A. M. Mitxelenak (a.a.): «Agoa apaindu ondoren tiratu (luzatu eta mehetu) egi-*

*ten zen totxoa edo tretxua lortu arte; agoa handia bazen (100 bat kg.) epaikiarekin erdikatzen zuten bi totxo egiteko». Eskutitz batean hau dugu: Sidro ageri ezta, haren agoa Josepek tiratuta, nik Joseperi emana 2 reales. / Ikus tiratu sarrera.*

**agoak apaindu** *du ad.* Agoari forma eman. *Agoak apaindu ezkeroko tretxua eginen luke. / Berentxikiko mutillori iaz ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean, ta agoak apainzen eziñ moldatu omen da batere. / Bi astean Josepek agoak apainzen dituela hemen aritu da, Tomas miñez egondu da-ta. / Lau agoa hogeita lau orduan egiñ omen zituzten, ta laguna etorri zitzaionean guziak lagunak apaindu, orañ aste bat edo beste.*

**agor** *iz.* Agorrila, abuztua. *Agorrean aritu dira. / Agorrean aritu ziran. / Agorrean 17 egunean egin zen lan hau. / En 25 días, agorrean, bakoitzak badu ardoa 2½ azunbre. / 60 quintales y 4 arrobas trechos agorrean. / Ikus agosto sarrera.*

**agosto** *iz.* Agorrila. *Espensan pagatzean agostoan ½ fanega haba 9 pezetas kontatua harrapatu dut, 4½ pezetas paratu beharrean. / Olatxoko agostoko espensa...83 pezetas y 17½ cuartos. / Ta berorrek bealduak nik eman nitiozten agostoan bi urretxiki zar. / Ikus agor sarrera.*

**aguardiente** *iz.* *Emazteak errespuesta bealdu du Goizuetatik, abisatu dutela larunbateko sin falta aguardientea entrega dezala. / Mirandakoak eta Agerrekoak Lamothek esan diotela aguardientearen eske dihozenean burnia hemendik eramateko.*

**agudo** *adb.* *Agudo egiñ behar da hau, hemen lanik egitekotan.*

**ahitu, attu da/du ad.** *Ganbaran ere orañ puxka bat hostoak abitzera egiñ da, baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz. / Harriaren gañean zegoen ikatza, ta uste baño ere lenago attu zaiku ikatza. / Irundar it[z]ai hoiek me[a] asko dakarte. Diruak attu ziran; beharko da zerbait.*

**ahuntz, ahunz** *iz.* *Emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko, eta bean ahuntztegia, eta kupela iduki nahi badu ere bai, ahunzakin gorotza beretzat egiten duela.*

**ahuntztegi, ahunztegi** *iz.* *Emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko, eta bean ahuntztegia [...]. Eta esan dit ahunztegia eskatzera ezin atrebituz zegoala.*

**aipatu** *du ad.* *Andresek esan zidan ostiralean errespuesta egiñen zuela, baño aipatu nion duendeaz, baño etzidan aitortu. / Egun urtebete hoiek biak kontua hartu zuten hemendik, ta gurdi burniak ez nituen sartu kontuan, ta esan zuten aipatu zituztela kontuetan. / Eta izan zitekean Andres Indianoak edo gobiernokoak aipatuta juana Salbadorrengana, deus pretensorik ote zuten jakitera. / Mendibururi esan diote zerbait, haren falta izandu dela, besteak sanestebanak aipatu dituzten denboran eskriboak yakin behar zuela.*

**aisa** *adb.* *Erraz, aise. Baño orañ, guziak behar diran honetan, ez da hañ aisa billatuko. / Garatekoak mea ateratzen ari dira, baño Karraio lengo egu-*

- netan ez da ebilli; artoak bildu ta itxe lanetan aritu da berdin, aisa eka-riko duela haiek atere ala.*
- aita** iz. Biziro hemen ez dela esan du Markosen semeak, eta honek ez du fundamenturik ematen, eta aitak zazpi edo zorzi badirala dio. / Ezkondu-ta aitagandik partitu egin da. / Franzisko honen aitak...08 pezetas y 19½ cuartos. / Jose Ignazio Garatekoak berorren mandatua esan dio, ta aitari Garateko dotetik ez zaiola tokatzen. Izandu gera biak Sarastirengana, ta esan dio Sarastik borontatez aitaren zorra pagatu nahi badute haiengan dagoela, ta bestela, borondatearen kontra aitaren zorrak eziñ geldi deza-keala amaren senipartea.
- aitortu** du ad. Andresek esan zidan ostiralean errespuesta egiñen zuela, baño aipatu nion duendeaz, baño etzidan aitortu, eta Aldakokoak esan zidan nola Oiarzungo suj[e]to bat juaon zaion Txurritegiri ola harzeko.
- aitzur** iz. Olatxean den artorik txarrena beko begira egondu giñan honetan dago, baño maneatzeko beti bekoa errazago da; goikoak aitzurraz egin behar du lan guzia, baño bekoa lañaz irauli diteke.
- aiuntamentu** iz. Udal batzarra. Dirua entregatu diotet eta erreziobia igandean emanen didala Mendiburuk esan dit; gaur aiuntamentua zuten ta igandean kenduko diot.
- aizkora** iz. Orañ Bonbon ta bere laguna etorri dira basora, eta batek baditu aizkorak ta besteak ez, ta eskatzen dute aizkorak egiteko ta oliorenzat 20 pezeta. / 1 de noviembre aizkora alzairatzea ta arraztelu bat berria 4 pezetas y 17 cuartos.
- akabatu** (arruntean), **akatu** (bitan) *da/du* ad. Bukatu. Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak, maiz puxkaka emanagatik ezagun gabe juaen al ziran. / Anton Xardea hemen izandu da, baso Gaztelu aldeko hau iñori eman diogun, basoa laster akabatuko duela, ta hasi nahi lukeala nonbait. / Beste arotzak lanak bigar akabatuko dituzte, olatxoko tellatua ez besteak. / Bigar ola handiak lanak akabatzen ditu. / Gaur Errenterian pillota yokoa da-ta, arratseko etorriko direla joanak han dira, berdin lanak akabatuko direla ostiral arratseko. / Gogo txarra daukate hagitz, eta arku harriak bigar akabatzen dira ateratzez. / Halere erretzea bigarren egunean gutxitan akatzen baita, errekañañ, hirugarren egunean maiz izaten da errekañaña bat eman beharra. / Nekez akabatzen ditu mezak ta pregoiak hark! / Ola handiak datorren astearen erdiko lanak akatuko ditu.
- aketz** iz. Aketza izengoitiaren oinarrian dago. Aketzak berea zuen itxola, ta bost pezetan hartu du berak Katxorena.
- akomatatu** du ad. Esan, komentatu (ustez). Markos hartu dut eta esan dit hark ez duela meatako konturik egiñ, eta lagunekin egiñ baditu kontuak, haiei akomatatzeko kontua nola den.

- akordatu da** ad. *Espensan sarzea ez ninzan akordatu hoietaz. / Kontua ematean batere akordatu ez ninzan. / Ikus oroitu sarrera.*
- al ahal**, partikula modala. *Esamiñak modutsu honetan izanen al dira! / Martin orañik hasi ez da; datorren astean hasiko al da! / Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote kandelan. Hurrengo jaiean ageriko al da zertan gelditzen den! / Orañ 50 karga arragoa egurra kendu ta gañerakoan zerbait aterako al da! / Orañ ez dakigu emanen diguten ogia gebiago. Orañ merkatzeko hotsak dira, ta emanen al dute! / Ta honen diña ikatz sortuko al da noski baso zar hoietatik! / Hurrengo lekukotasun hau, aldiz, ez da hain argia; irudi luke 'mentura' edo adierazi nahi dela, baina etsenplu bakarra da: Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak, maiz puxkaka emanatik ezagun gabe juanen al ziran.*
- al bai/ez galderak** markatzeko ibiltzen den hitza; behin bakarrik ageri da, dakigunez, eta ez da seguru-segurua aipatu galdera hitza ote den. *Ta orañ bi kintal al dira? Noski, lau sorta dira behinzat, astelenean etorriak.*
- al izan da/du** ad. *Arragoa gaur kargatzen hasitzen gera; aste honetan erretzeko egurra bildu al badezagu behinzat. / Kastabidea hartu dut, eta behar nuke hogei ezkutuko bat. Hau kastatuko al dugula eskriboak esan digu, eta Barkazioa sartu baño len egiñ nahi genuke diligenza hau. Lurrak iraulzeko denbora da ta libratu al baditzagu behinzat. / Mutikoak badi-tu hiru, ta handiskoenarekin zaldia erabilli beharko duela iñoiz ikatzketan, edo al duen bezala lagunekin-ta batean. / Olaren errentaren erdia, hura badere al badu lenbailen beal dezala, iñondik ere dirua ateratzeko biderik ez daukatela, eta zorrari eziñ eskapatu. Eta esan dute gexeago baliz nahiago, baño obligazioko hori badere al badu egite[ko]. / Sebastian Altxuk dio bealzeko 30 ezkutu, nahi badu basoa egitea, ta bestela, al duten modua egiten saia ditezen ez edo baia emateko.*
- ala** ahala, heinean (partizipioarekin). *Garatekoak mea ateratzen ari dira, baño Karraio lengo egunetan ez da ebilli; artoak bildu ta itxe lanetan aritu da berdin, aisa ekarriko duela haiek atere ala.*
- alaba** iz. *Bidasorokoak ematen diote ogia, ta alaba pregoietan daukate, ta preziso behar omen dute. / Fagotxikiko alabari ema[n] nion...20...00. / Franzisko Antonio de Isasa, hor mandazai egondua, ezkonzen da Manuel Fagotxikikoaren alabarekin.*
- aldaketa** iz. *Zuhaitz aldaketa (ustez). Eta esan dit aldaketako lanak dituela orañ, eta zer nahi duen niri gatzigatzeko, ta igandean neregana agertuko dela zer nahi duen aditzera.*
- aldaratu du** ad. *Aldatu (zuhaitzak, gutunetan); berez aldatu-ren arazlea da (ikus aditz morfologiaren inguruko kapitulua). Baurrindik pagoak ekarrita Kausuan aldaratzeko, eta Unzburuko mintegitik aldatzea hobe dela.*
- aldatu da/du** ad. 1. *Aldatu. Akabatu dira tretxuak, ta erremienta aldatzera goaz. / Eta borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen*

- tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko, eta bean ahuntz-tegia. / 2. Landatu. Bautistak esan dit Manuel Artikutzakoari berorrek esan diola Baurrindik pagoak ekarrita Kausuan aldaratzeko, eta Unzburuko mintegitik aldatzea hobe dela. Baltasarren semeak-ta aldatu omen dute 300 planta, pagoa erreal zillar bana berorrek partituta; Indianoak esan omen zion aldatzeko. / Erariñan iduri aldatzen...6 cargas. / Fausto Olaizarrekoak esan dit, aurten aldatu nahi baditu, plantak emanen dituela, mintegian bakoitza 5½ kuarto. / Iduri aldatzen...1 día.*
- aldatze** iz. Aldaketa, landaketa. Iduri aldatzen...4 días. Iduri aldatze hoiek *abere bakarren egunak dira.*
- alde** iz. 1. Aieka, ingurua (tokia edo denbora). *Ariztxulegi aldeko lorrean ta Eraringoan gastatu dira bost pitxer ardo. / Basorik ontxoena da hau Eraringo ixidutik beiti, ta beste aldetik 300 karga bezala bi pagorekin. / Gaztelu aldeko puska hau dago esamiñan. / Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeko esan bizaiote, ta bestela burniaz kargatu ta gañerakoak Zaria aldeko ikatz haietara bealdu. Antonsoro aldean ere badaude atereak. / Hondarrabiako babak ziudadean batzuek ta besteak ziudadearen garaiko aldean. / Sarastik esan dit gobiernokoen aurrera eramanazita sanmigelak aldera direla. / Suertea partitua dago launa puskatan Erroizpeko ixidutik bi aldetara puska bana [...] ta gureztat Antonsoro aldekoa ta Artikuzakoarenzat Erarin aldea, ta beste sei puskek bi aldetatik nasten dira hiruna porzio. / 2. Saihetsa. Eskaleraren aldeak egiñ daitetzeke deskargan dagoen olatxoko goiara zar honekin. // adb. Hurbil.<sup>1</sup> Irundar hoiek iskanbilla franko badarabilte alderago mea dugunean, orañ lengoak pagatzen ez ditugula. / Salbador jua zen kandelaren alde samarrera, eta uste omen zuten jendeak olagatik zabillega. / Ikus edozeñ aldetara sarrera.*
- alde batera** adb. 1. Destajuan, hitzartutako prezioan. *A[r]datza ere hartu zuen alde batera ekartzeko. / Kaperok hartu nahi du Arragoako peonko lana alde batera; mutilla ere badu. / Manuel Fagotxikikoak hartu nahi du egurra, bota ta ekarri alde batera. / 2. Alde batetik. Alde batera...776 reales de vellón, ta bigarren kontuan...197½ reales.*
- alde guzietara** adb. Modu guztietara. *Idienzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta. Alde guzietara ere badago zer egiñ.*
- alde ol** iz. Gezurraskaren eta hondaskaren aldeetako ohola (ikus bedi A. M. Mitxelena, 2020b: 40, 226). *Alde olen gaia egiñ genuen zerratzeko asmo-*

<sup>1</sup> Ikus beheitxego *alden(eko)* sarreran dioguna.

- an, ta ekarri dugu orañ; geroko hemen izanen da. / Martiñek dio guzia ustela dagoela, ta ez dela gauza onik egiñen, eta betik ispia ta alde olak emateko lekuan ere guzia ustela dagoela. / Ikus ol sarrera.*
- alden(eko)** adj. Hurbilena, hurbilenekoa (*alde-ren* superlatiboa).<sup>2</sup> *Beringo ataritik Zaldin aldera onena zen, eta aldena ere bai. / Suertea partitu da hamabi puska, eta Artikutzakoarentzat tokatu dira aldenekoak eta one-nak, eta urrutinekoak eta txarrenak ere bai.*
- aldera** (-tze aditz izenarekin) menderag. ‘-tzeko’, ‘-tzeagatik’. *Orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera, edo bestela karraidotan, berorrek nahi duenai kargatuko zaiotela. / Orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera-ta, edo bestela karraidoretan kontuan pasatzeko.*
- alderako** (genitiboarekin) adb. -en truke, -en ordainetan. *5 pesos bere zorra-ren alderako. / Gurdi zura hartu dio gizon bati ta harenzat ditu, pagua-ren alderako. / Ibarburukoak txartela babarena bealzeko, anega batena, arrago yornalen alderako. / Jose Antonek eta Estebanek bealdu dute Erorzik hoge pezetako hartu zutenaren alderako...<sup>34</sup> quintales. / Maxkurio mean alderako...3...25½ [...]. Maxkuriori mean aldera-ko...1...00. / Nik lau lera gelditu, bost pezetaren alderako. / Ta esan dit ganzen dirua harzeko duela honek ere, ta ganzen alderako uste zuela Martin unaiaren kontua.*
- alderdi** iz. *Dotazioan ikaztogi bat ta Matxinoak bi ta Fermin Okerrak bat atereak dauzkite, ta iñork ez du juan nahi alderdi hartara, ta lapurren zat erdiak izanen dira. / Eta nik len pretenditu nuen, lengoak izateko asmo-an, errekez (sic) alderdi bat. / Gure alderdian enbarazo gutxi egfiten dute]. / Hortik Karretto edo norbait bealzen balu nahiago genuke, eta enforru hoiek eta bularrak eta alderdi guziak konpondu beharrak dira.*
- aldi** iz. *Txanda. Bi alditan rezibitu ditut, batean 19 karga ta bestean 37 karga. / Hoietarako rebajatu behar zaio nik berari emana bi aldiz 2 reales...4 reales.*
- aldiazka** adb. *Txandaka, aldika. Len aldiazka bezala orañ guziak batean.*
- ale** iz. 1. *Unitatea. Ta gero tretxu ale batzuek dira kuadro egiteko. / 2. Bihia, pikorra. Bidasoron ez dutela artorik emateko esan didate; diruarekin alea edo bia billatzekotz Fagotxikira ekarri beharko dugu dirua. / Bordatxok*

<sup>2</sup> Erka bedi Goizuetako 1897ko udal ordenantzetako etsenplu honekin (Satrustegi, 1996: 305; letra lodia gurea da): «*Arquitzen diranean calean bi coche edo carro artuco du bacochac bere escuñecoaldea eta calea baldin bada estua eta eciñ baditezque pasatu bi elca-requin, itzulico da esquiña aldena daucana [...]*». Oinarriko forma ere ageri da testuan: «*Sua suertatzen dan eheco habitanteac, vecinoac edo alde bici diranac izango dute obligacioa atea irequitcecoa [...]*» (*ibid.*, 306).



- iriña ekarri du, 17 pezeta ta 8½ cuartos anega, eta 16 pezeta eta erdian ere omen zen alea, eta orañik hemen hogeï pezetan dago errotatan.*
- alegia** lok. *Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorrengana agertu bat egiñen ote duen dagoela, iñor besterik sartu gabe berorri emateko modua nolaerebait harzeko, alegia, hartu nahi badu, baño horiek ilusioak dira.*
- alkabala** iz. Zerga bat. *Harek dirua hartuaren erreziboa ematen du, ta gañerako ardatzaren ta bigarren alkabalaren kontua atzera beti geroko.*
- alkate** iz. *Alkateai ez diotet deus esan, agian jatsiko dutela berago. / Alkatearen eskuetan dago, eta Juakintxok idukitu duen zensoan hipotekan sartuak ziran lurrak. / Eta alkateagana juanen bagera jakiñ behar dugu zeñekin kontuak egiñ zituén, eta hogeï ezkutukoa ere zeñi eman zion edo zerbait. / Gobiernokoak ez omen zioten deus libratu. Alkate Porturi esan omen zion gurekin konpondu zela. / Hark zer egiñen duen bada esan dit, alkateak egiñ behar duela. / Olaizarreko alkateak esan dit gaztaña ikatza puxkaren bat suan daukala. / Orañ kostatzen da orga bakoitza 26 pezetas, ta gañera sosak ere bai. Oiarzunán bertan lau orgak hiru pezeta, alkateak bi ta eskeriboak bat.*
- alkua pasatu** du ad. «Ahaldunen», zinegotzien oniritzia jaso (?). *Nago ola-jau-nak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpo-ko mea hoietan txar asko ateratzen da, eta meatze yabe hoiek alkua pasatze-ko asmoak dituzte, eta pasatuko dute berak diotenaz, eta hura pasatu ezker-ko mea hobea izanen da, nahiz deretxoa pagatu. / Nik esan diot Ariztiburukoari posesioa hartu baño len hoienzat gelditzen badira meatzeak, alkua pasatu beharko dutela, kanpoan ez dagoela lan-tegi onik, pillaretan edo zillegi ez den tokian gehinak aritzen dirala. Ta baietz zion, alkua pasatuko dutela. Eta orañ ere hala omen diote; ni ez naiz egondu orañ. Ta olajaunentzat mesede alkua pasatzea, ta hoiek hasitzen badira, ez dute utziko pasatu gabe, ta orañ ez yakin Seño honekin zer egiñen duten.*
- allegatu** da ad. *Iritsi. Arranbideko txabaletatik, gu pisatzen izandu ezker-ko, allegatu dira zertaraño baitere Erreterian, eta guk ere hangoak pisatu genituen 200 barra. / Erretazoak 24 kuartilluan gelditu dira. Esamiñetan allegatuko etziralá, batzuek behin-zat, aditzen nuen. / Kabezoiak tiratzen aritzen da hemen allegatzen den denboran. / Modu honetan allegatzen dira erre añaditu hoiekin Indianoak eman duen kontura. / 26 de junioan kargatu zen orga 27 de junioan allegatu zen Lamothengana. / du ad. Esan (Goizuetan ezaguna). Esteban bi leneko meakari haiek gaztigatu dute, Irungo bi olajaunak lenago zirela allegatu omen zioten.*
- altxatu** du ad. *Gorde, atxiki, jaso. Haspoak eginta gelditzen dira osorik bi braka eta bi ijada, eta larru berrian saihetsak hamar puska, eta horrara bealduko ditugun guziak edo hemen altxatzea nahi duen batere hoietatik gaztigatuko du.*

**alzairatu** *du* ad. (*acerar* gaztelaniaz). Hautsia edo hausteko puntuan den tresna bati (aitzurra, aizkora, area, mailua, nabarra, palanketa, pikotxa eta besteri) altzairua, altzairu urtua gehitzea, ematea, puskatua denean arranjatzeko, batzeko, edo indartzeko, puskatzeko zorian denean. *Aizkora alzairatzea ta arraztelu bat berria* 4 pezetas y 17 cuartos. / *Goizaringo aizkora bat berria ta bestea alzairatzea*.

**ama** iz. *Aprendizaren amari elizarako eskastuta eman diot* 5 pezetas y 10½ cuartos. *Aprendizak esanta eman diot, horien asentuetan paratuko ditu*. / *Borondatearen kontra aitaren zorrak eziñ geldi dezakeala amaren senipartea*. / *Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan, ekusi dezala, hark uste zuela gutxiago badere harzekotan zegoela*. / *Sebastian de Agerren amarekin egondu naiz ta esan dit mandoa guzia zorra dagoela*.

**Ama Birjina, amabirjinak**. Andre Mariaren ohorez egiten diren bestak, agorrilean. *Amabirjinetan esan nion anaieari bi onzako nola kendu niton, ta zor daukat ta pagatu nahi nuke*. / *Franzisko de Orendainek pisatu ditu haxiak amabirjinak ezker...* 12 quintales y 4 arrobas. / *Isasolakoak zer plazeria eman duten Baltasarrengandik yakiñen dut Ama Birjinaz, ta gaztigatuko dut*.

**amagiarraba** iz. Amaginarreba. *Bi hogeiz ekzutuko hoietatik bat amagiarrabak semea Iruñera bealdu behar duela eskatzen zida[n]*.

**ametitu** *du* ad. Onartu, onetsi. *Gure modua hauxe izandu da, ta oraño hau ametitzen badu-edo, nere asentuan paratu*. / *Ta hoiek ta despojourik izaten bada suerte hoietan, memorialean eskatzeko debalde, ametitzen balute beti izaten dela zerbait, ta modu hoietan ongi litzakeala, Indianoak hartuko lukealako*.

**amor eman** *du* ad. Amore eman. *Len hemen zen agoa palanka hautsi ta eskarpatuaz guzia mehatua da gerrian, ta amor ematen du agoa ateratzeko denboran, baño entregarako ona da*.

**anaia** (hirutan), **anaie** (arruntean)<sup>3</sup> iz. *Amabirjinetan esan nion anaieari bi onzako nola kendu niton, ta zor daukat ta pagatu nahi nuke*. / *Anaia ezkonduak...* 060 quintales. / *Anaia Josek...* 08 pesos. / *Antonio maisuak ta anaie Josek pisatu dituzte* 27 quintales y 5 arroas. / *Atzo hemen zen Faustoren anaiea*. / *Biziro bera «Lezo» esaten dioten batekin ari da, ta bi anaieak harrotua daukaten hura berak ekarri nabiko dutela*. / *Esteban ta Gabriel bi anaieak bealdu dute [...]*. / *Gabrielek ta bere anaieak orañ ari*

<sup>3</sup> IBk, oraindaino ikusi dugun heinean segurik, *anaie* ibiltzen du beti. Goizuetako udal ordenantzetan ere (Satruestegi, 1996) *anaieac* (abs. plurala) dugu 1825ean (301).

*diran meatzetik aterea da, orañ heldu den bezalakoa, ta Gabrielelek esan dit, orañ kisulabeak erretzera dihoaz bi anaieak aste honetan ta bestean. / Hamazazpi pagatu ta sei hartu, Donostiara anaieagana bealdu ta galdu omen ziran langrostak. / Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten hura ari da berotzalle, len ere hemen trabajatua baita, eta pasatu ditu bi aste eta lau eguneko bat. / Migel de Aranburu ta bere anaiean meatik ekarri dugu karraidorekin 40 quintales y 3 arrobas. / Migel de Aranburuk ta bere anaieak ekarri dute mea 31 de marzo ezkerro [...]. / Sanjuanen anaia Baltasar da esaminadore.*

**andre** iz. *Andre horren suñak, pezetako mea hartatik aterea ta ekarzea, badu harzeko 45 pezetas y 7 cuartos. / Berorrek emanak dira Itxabesteri 135 pezetas y 22½ cuartos ta andre hari 045 pezetas y 10 cuartos. / Joseph Anton itxean etzen, ta andreak agindu du ekarriko dutela. / Leteko andrea hemen izandu da, semea gaizki daukala ta letra bi egiteko. / Sokoloko andreak harzeko du espensan 66 pezetas y 9 cuartos hasta 30 de agosto, eta ematen battio horri bereak, espensari rebajatzeta izanen da. / Ikus itxeoandre sarrera.*

**anega** iz. *Edukiera neurria (erdaraz fanega agertzen da gutunotan). A. M. Mitxelenak dioskunez (a.a.), Gipuzkoakoak 55 litro zituen. Agerren sei anega baba dira ta, olarako asmoan, nik geldituak daude saldu gabe. / Anega bat baba olatxorako. / Baba ekarzeko bealdu zuen 10 pezeta. Anega bat ekarri dugu. / Bi anega ogi ola hasitzeko billatu nituen juan den igandean. / 16½ anega babarenzat hartu ditut 12 orillos viejos. / Hiru anega babaren txartela hartu dute. / Ibarburukoak txartela babarena bealzeko, anega batena, arrago yornalen alderako. Sebastian Torrekoak zituen artoak 45 anega, a 10 pezeta, hogeni ezkutu zor da, orañ ehun emanta. Pello Esnauk 18 anegaren lekuan 15 anega hartu ditu; etzen gehiago. / Jose Migel de Irigorrik baditu lau ezkutu arrago egurketan, eta esan dit bi anega babaz gaztigatzeko berorri, ta gañerakoa konponduko duela lanaz. / Olaitzeko Jose Ignaziok eskatzen du anega erdi bat babaren txartela. / Zorzi urretxikitatik 6 anega ta bi lakadi a 9 cuartos pagatu zaiio.*

**anitz** zenbtz. *Asko. Aketzak berea zuen itxola, ta bost pezetan hartu du berak Katxorena, ta esan du berorri anitz idurituko zaiola bost pezeta. / Aranederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko eta herri guzia hargana dihoa-ta, dirua eskuan nahi, tratu anitz erabilzeko. / Beste anitzetatik ere aditzen nuen, baño Damianek satisfazio osoa eman dit, Aldakokoak kargua duela Galardirenzat. / Donostian ogia zorzi kuartoan dagoela esan du Manuelek, eta prezio diferentetan ebilzen omen da, anitz dagoenean merkexego eta gutxi denean garestiago. / Errebesena dago emateko bitatik batean, baño anitz eskatzen du.*

- anitzetan** adb. Askotan. *Anitzetan eskatu diot, baño ez du entregatu.*
- antapara** iz. Errota edo burdinola urez hornitzen duen depositua.<sup>4</sup> *Orañ ere antaparan, soledan, zulo bat egiñ da; bi tresmotxo behar ditugu.*
- añadimentu** iz. Gehigarria. *Añadimentua 21 kintalena, zergatik bueltan mearik etzen. / Hoietatik añadimentua agindua den denborakoa 21 quintales. / Len libra bat bezala, bi libra ta erdi emateko kintalari, ta oraño libra ta erdi añadimentu hau Indianoak abonatuko duela kontuetan. / Mearik zergatik etzen, burniarenzat añadimentua emanen zuela esan zitzaizen beñ, ta ordukoak ditu sei kintalek. Behar du añadimentua.*
- añaditu** du ad. Erantsi (*eratsi* ere badarabil JRMk, adiera bertsuarekin), gehitu. *Burnia hoietatik zerbait añadituko zuela mearik etzen denboran. / ...despojo puxkaren batzuek emanta, geroztik añaditu edo gehiegi izanta [...]. / Duendearenzat Blasek añaditu dio 500 reales, gaur akabatzekeotz. / Eta jornal pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela; nahi duguna hobeki eragiñen zaitote urri-urrian jornalak dituztela baño. / Gebiago añaditzeko kondizioakoa edo agindua, zeren mearik etzen...6 quintales. / Hoietatik 40 kintal dira zerbait añaditzekoak retornuaren faltan. / Olaberriko burni hoietan zerbait añaditzeko, hitzean eramanak dira. / Ta modu honetan allegatzen dira erre añaditu hoiekin Indianoak eman duen kontura. / Ikus *eratsi* sarrera.*
- añak** iz. Itxuraz, gurdien gurpilek inguruan dituzten burdinazko zerrendak dira *añak*. Behin baizik ez da azaltzen elea, baina argi irakurtzen da: *Más gurdiaeren añak...1 arroba y 1½ libras. / Ikus aun sarrera, www.euskaltzaindia.eus-en.*
- apaindu**. Ikus *agoak apaindu* sarrera.
- apaiz** iz. *Eta nahi bazuen edo bazeritzan olajaunak partituko ziotela, ixillik geldituko zela orobat, eta apaizak esan omen zion elkar galduko zela hartara, ta ixillik zagoela, ta emanen zitzaiola 200 karga. / Juan Migel Aranguangoak esan omen zion apaizari. / Karta hori apaizak bealdu du.*

---

<sup>4</sup> Goizuetako dokumentazioan behin baino gehiagotan ateratzen da *antepara* aldaera, betiere burdinolekin loturik. Hau *Zibola*-rekin (1706, NEAN, 15605, 3, 12; lodia gurea da): «...las dos Vurucoas del uso mayor son nuevas = como tambien las dos Aldabarras del Mazo [...] las Vurucoas de la Barquinera se allan buenos y la *antepara* al presente se alla buena [...] dicha Herreria de Ziuola». Beste hau Goizuetako *Olaberria*-rekin: «Ytten un castañal en el prado de Yeraga que afronta con [...] de Juan de Aranoenea Ytten otro castaño Yllaluzea junto a la *antepara* de la Erreteria de Olaberria» (1709, *ibid.*, 6, 14). Nolakoak ziren jakiteko, ikus bitez A. M. Mitxelena (2020b: 19-25) dakartzan marrazkiak. IBk ere *antapara* ibiltzen du.

- aparite** iz. Afaria.<sup>5</sup> *Igande arratsean etorrira tobera erre ta lanik egiñ gabe yoan ziran, ta aparitean gastua egin zen bi pezeta.*
- aparte** adb. *Ekusi beharko zaio zerbait iñoiz gertatzen denean, ta bide giteko lana ere aparte beharko da.*
- aprendiz** iz. *Agerreko berotzalleari aprendizaren zela irabaziak, bi aste...10...00. / Aprendizak hartu ditu elizarako behar orduetan neregandik. Asenta bitza 8 pezetas. / Aprendizaren amari elizarako eskastuta eman diot 5 pezetas y 10½ cuartos. Aprendizak esanta eman diot, horien asentuetan paratuko ditu. / Aprendizaren zat fraileari 17 cuartos ta elizarako eskastuta berari urretxiki bat...5...27½. / Aprendizari Urriztilla juateko biderako...2...00. / Geroztik, marzo de 98, han pasatu zituen 1½ semana, Juan Franzisko zena juanta, haren lekuan gero aprendizaren sartu baitzen. / 20 de marzo. Aprendizari emanak. Gaztigatu nion berarekin kartan...08...00.*
- arbart** iz. *Adar xehea. Isasolakoak lantegi batena suertean den ederrena dute, ta gañerakoak batzuek enbor hutsak, ta besteak arbarta besterik ez dute. / Ikus ikatzgille-arbazta sarrera. IBk arbazta darabil.*
- arbola** iz. *Kabiguñak ere eskatu gabe botatzen genituen oraññañoakoan, ta memorialarekin eskatzeko esan didate arbola bota behar den guzia[n].*
- ardatz**. Olako hauspotegiko edo gabitegiko peza baten izena (zinguzangua-k ere bazuen ardatza; ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 31, 37, 40, 41, 263). Larramendik (1882: 71) *gabiardatz* deitzen dio gabitegikoari: «Alli el gabiardatza, ó el huso que menea la gabia á impulsos de la rueda exterior; huso gruesísimo, sellado con aros fuertes para resistir á una continuada violencia de la rueda que tiene asida por la parte de fuera». Gutunetako testigantzak: *Andresek esan dit [...] ardatz haspategiko honetaz berorrek gobiernokoekin konpondu behar duela. Hark dirua hartuaren erreziboa ematen du, ta gañerako ardatzaren ta bigarren alkabalaren kontua atzera beti geroko.*<sup>6</sup> / *Ardatza sartu zeneko maxuretan [...]. / Ardatza ustaitzen trece días...6½ pesos. / Ardatzaren paguan ta burnian karretoan*

<sup>5</sup> Erka bedi Luzaideko *afait*-rekin (*afait* ‘afaltzean’); ikus Kamino eta Salaberri (2007: 4). Mitxelena (1960: 92) honela dio, *nomina actionis* direlako sorretaz ari delarik: «En R[entería] se dice corrientemente –y con estricta limitación a estos casos– *bazkaiten aigea, afaittea guaz, gosaitteko denbora*, en consecuencia con *bazkaltzen, afaltzea, gosaltze-ko*. En estas formaciones, hoy irregulares, se conservan antiguos derivados –con inesivo en –n– no verbales sino nominales ya que su tema no es *bazkal-* o *bazkaldu-* “comer”, etcétera, sino *bazkari* “comida”, etc., lo que constituye una valiosa confirmación de la hipótesis de Schuchardt, aceptada por Lafon, de que los sufijos *-te, -tze* que sirven para formar los sustantivos verbales sirven también para la formación de sustantivos de sentido colectivo derivados de sustantivos».

<sup>6</sup> A. M. Mitxelenaren aipu batean (2020b: 263) ageri den *aspoardaza* ‘hauspoardatza’ bera izan da.

*sobra nuen...00...3. / Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten, baño maisukabia ardatzak azpian hartuta goiz artea utzi egin zuten. / Haspoak sarzera etorrialdi batean, zigillua garbitzen ta ardatza jasotzen, ta horrela. / Hoietaz gañera ere, maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten. / Markos Pototori ardatza ustaitzeko journalak lau egun...07...17. / Rebajatu ardatzarena....06.788 reales vellón.*

**ardi** iz. Antaparako, uharkako eta bestetako egurrezko euskarrietako bat, *ordotsa bezala (ikus bedi A. M. Mitxelena 2020b: 20-21, 47, 51, 53-54 eta hurr., 112); 'ahardia' alegia. Goizuetan, egun, azentu bana dute árdia-k (ahardi + artikulua) eta ardía-k (ardi + artikulua). Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxo perparatu orduko: zepoa atera ta sartu, ta ardia sartu, ta tormentategia konpondu ta, bada hemen lana franko ta preziso egin behar dutenak. / Erariñan goiara ta kapirioak, eta Oielekun ardia; bederetzi uztarri jua Erariña, ta hononzean ardia Oielekun hartu ta, guziak kargatuak, beiti etorzeko modua da.*

**ardo** iz. Ariztxulegi aldeko hoiek gure itzaiak dira, baño Eraringo hoiek beharko dute pagua, ta heldu diranean ardoa ta ogia ere bai. *Isasolan, kabiguñ batekin etorrira ere, ogia ta ardoa badituzte. / Ariztxulegi aldeko lorrean ta Eraringoan gastatu dira bost pitxer ardo, a 30 cuartos. / Arrago bakoitzeko journalak...31 días. Ogi bat eta pitxer bat ardo gañera. / Arragoako ardo ta langilletan gastatuen kontua bealdu nuen...101...22½. / Arragoako ogi bat eta pitxer ardoa ere kontu honetan sartuak dira. / Ganza ta ardoak...19 pezetas y 2 cuartos. / Haspagiten gastatu dira ardoak 8½ azumbres, haspoak atera ta sarzeco 2 azumbres. / Hor anaieak edana kuartillu bat ardo. / Itzaien gonbitea bi pitxer ardo...01 pezetas y 22 cuartos. / Jose Bengoetxeak eta Juan Franzisko urzalleak badute txiki bana ardo. / Ostaleroak edo tabernariak gaztigatu dit igandeko behar dituela ardoen diruak, mandazaiari kontua emanen badio preziso behar dituela. / Pello hasi da erremienta paratzen ta ardoa beharko. / Ikus sagardo sarrera.*

**are horz** iz. Are deritzan lanabesaren hortza. *Joseph Ignazio de Arbide are horzak 1½ arrobas...009...0.*

**argi** iz. Argizariaren, kandelaren argia, sua. *Argiaren kontran egoten da, nahiz kandela jo behar ta nahiz ez. / Hamasei kuartilluan dagoela argia itzali da. / Ola paratu dute kandelan dotaziorik gabe; 500 dukat zillarrean paratuta 450 dukateraño etorri zen argia itzali orduko.*

**argitasun** iz. Ez omen dute harrapatzen asenturik haren paperetan, nondik zer hartu duen, dirua eman dutenetatik argitasuna beharko dutela Sarastik esan dit.

**ari izan, aritu** da ad. *Egun bi hoietan Manuel Juaquin, ta Sebastian, eta Arburu ariko dira. / Erreterian mea garbitzen ari diran oiarzuarrari eman ditioztet bi pezeta. / Franzisko igele ari dela, egin da tretxua [...]. /*

*Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik oñeko miñak. / Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten hura ari da berotzalle, len ere hemen trabajatua baita. / Niri esaten aritu da diru hartuen kontua. / Ola gelditu da eskarpa guzia erreta eziñ ariz. / Olatxoan lesakar bat ari da maisu, Matiasen semeak bealdua. / Orañ artoak ereiten ariko dira.*

- arialdi** iz. Lanaldia, saialdia. *Gañerakoa gelditzen da Tomasenzat, arialdi honetako kintalajea ta espensa guzia. / Lengo arialdi honetan, Lorenzo de Alsua irabazi zuen aste batean 6 pezetas y 2 cuartos. / Ola handian azkeneko arialdi honetan egin da burnia 253 quintales y 5 arrobas. / Ola handikoak orañgo arialdian egin dute espensa...188 pezetas y 10 cuartos.*
- arindu** da/du ad. Kendu, gutxitu. *Senbolli kargatzen zaiona Garatekoari arinduko zaio kontuetan.*
- arkitu** du ad. Anitzetan eskatu diot, baño ez du entregatu: *batean han duela, bestean eziñ arkitu duela... Ez du ekarri. / Garatekoak bolborarik eziñ arkitu dute; hamar erreal pagatuko dutela. / Ikus billatu sarrera.*
- arku** iz. Arragoako arku. *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela edo barrika, edo zerbait idukitzeko, erdiko arkuko garai-ko aldetik goikoa, ikaztegiko ateak libre direla. / Cfr. hau: «El forro interior que lleva dicha erragua desde los arcos para arriba» (Leitzako Ibero burdinola, 1791; A. M. Mitxelena, 2020b: 146).*
- arku harri** iz. Eraikuntzan, arkuak egiteko erabiltzen den harria (arragoakoak hain segur, hemen; ikus *enforru* sarrera). *Gogo txarra daukate hagitz, eta arku harriak bigar akabatzen dira ateratzez, eta hortik Karretto edo norbait bealzen balu nahiago genuke.*
- armario** iz. Armairua. *Armarioa 7 pesos y ½. / Armarioa 7½ pesos.*
- arotz** iz. 1. Olako langilea, olagizona (ustez). Larramendik (1882: 69), *meallea, urtzallea eta yelee edo iyelea aipatutakoan, honela dio: «El otro (ferrón), que es el principal, disponiéndose á la faena de iyele en su ausencia y en presencia á dirigir á todos tres cada uno en su ministerio al sacar el agoa de la fragua: llámase arotza en las cearrolas, herrerías grandes, y chiquetzalle en las tiraderas ó herrerías menores, achicador y macero».* Gutunetako testigantzak: *Arotzak bigar dira olara etorzekoak, ta Markos ez da itxera agertu, ta nahi badio gaztigatu. / Arotzen kontua 8 de abril de 800 ezkerro [...]. / Bigar lorrera beharrak dira Kosme ta Agerrekoa, ta atzo ere hala ziran, ta arotzak ariko badira lorra lenago egin behar dugu. / Gaztigatu bezala-ta, arotz hoietan beharrak dira gehienak, ta yornalaz galdatzen dute ta garbitu behar lirake orañdañoakoak. / 2. Zurgina. Beste arotzak lanak bigar akabatuko dituzte, olatxoko tellatua ez besteak. / Patxikuri esan nion bada zepoa atera edo hautsia zagoela, olatxokoa, len erabilli hau; lana izan bagenu[n] ere, geldituko giñan, ta arotzak gaur mendian dira, ta bigar zepoa atera behar dute. / Sagardo txarra egiteko*

- onzirik ez dugu-ta, kupela egiñ behar nuke; gaia erostea ta arotzaren eskua 26 ezkutu bezala kostako omen da. / Ikus zugarotz sarrera.*
- arrago egur** (arruntean), **arragoa egur** (behin edo beste) iz. *Arrago egurra harzeko ½ pan y ½ azumbre de vino...1...0. / arrago egurrak...11 leras [...] arrago egurratan 17 leras. / Arrago egurraren terzio partea...12 leras. / Arrago egurrean 11 leras...11 pezetas. / Hogei egun d[ira] arrago egurraren memoriala eman niotela. / Orañ 50 karga arragoa egurra kendu ta gañerakoan zerbait aterako al da! / Suertearen dirua bealzean arrago egurrarena ere bealdu behar du; 20 karga ikatzena, ta lau inutill dira. / Ikus hartualdi sarrera.*
- arrago egurketako** adb. *Arrago-egur garraiorako. Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut.*
- arrago egurketan** adb. *Arrago-egur garraioan. Arrago egurketan baditu...29 leras. / Arrago egurketan ditu...32 leras. / Arrago egurketan elkarrekin ziran denboran ekarriak [...]. / Arrago egurketan harzeko ditu 6 ezkutu. / Arrago egurketan naste ziran denborakoak dituzte. / Arrago egurketan...026 leras. / Arrago egurketan...27 leras. / Jose Migel de Irigorrik baditu lau ezkutu arrago egurketan. / Olaitzolan bizi den arotz honek baditu arrago egurketan lau egun behiekin ebilliak, eta kontu honetan bealzeko esan dit...015 pezetas.*
- arrago egurra egin du** ad. *Arrago egur[r]a egin ta erretzea kostat da...31 pezetas y 12½ cuartos.*
- arrago egurra eman du** ad. *Arrago egurra emateko juraduaren jornala...02 pezetas. / Arrago egurra ematera etorrita juraduari...02...00. / Pagoak partitzen ta arrago egurra emateko esaminadoreari ta guardamunteari 3 libras pan y 1 azumbre vino 1...24 cuartos.*
- arrago egurra erre du** ad. *Arrago egur[r]a egin ta erretzea kostat da...31 pezetas y 12½ cuartos.*
- arrago jornal, arrago yornal** iz. *Arrago jornaletan sobra zen...00...02 y 1½ cuarto. / Ibarburukoak txartela babarena bealzeko, anega batena, arrago yornalen alderako. / Ikus arragoako jornal eta yornal, jornal sarrerak.*
- arragoa** (eskuarki), **arrago** (zenbaitetan) iz. *Burdinoletan, mea erretzen den aparteko eraikina (ikus bedi A. M. Mitxelena, 2020b: 26-27, 30, 65, 233). Arragoa ongitzeko karea, Errenteriako mugako itxe batetik jorrada bat...8 quintales. / Arragoako telleriatik tellatan bi yorrada. / Arragoarako harriketan...2 días. / Arraztelu bat arragoarako...03 pezetas. / Azkeneko arrago honek kredita ona eman digu. / Hiru arragoatako jornalak pagatzeko lau hogeizkutu falta ziran. / Mealleak ditu hiru aste ta egun bat: leneko arragoan lau aste egun bat gutxiago, bi arragoetan zazpi aste.*
- arragoa erre du** ad. *Arragoa barnean sartu den mea erre. Arragoa erretzeko modua ona dago! / Azkeneko erre den arragoako jornalak. / Azkeneko erre diran bi arragoatako jornalak dira 97 pezetas y 30 cuartos. /*



*Irundarrak [...] badute ekarria Erorzatik 130 kintal, ta ekarriko bada edo izanen bada aurrerakoan behar, arragoarik erreko bada. / Kaperok erre ditu bi arragoa...2 ragoas. / Leneko astean erre den arragoako jornalak. / Orañ egun hoiek, arrago erretzean, elkarri eratsiko tiogu aurrera. / Ikus kislabea erre sarrera.*

**arragoa erretzalle** iz. Arragoa erretzen zuena. *Arragoa erretzalleak olatxeko-az kanpora dituzte [...].*

**arragoako jornal** iz. *Arragoako jornaletan falta zen...002...28½. / Eta Ibarburukoak txartela babarena bealzeko, anega batena, arrago yornalen alderako. / Hiru arragoatako jornalak pagatzeko lau hogeiz ekutuko falta ziran...26 pezetas y 17 cuartos. / Lengo astean erre den arragoako jornalak. / Orañ erre den arragoako jornalak dira [...]. / Ikus arrago jornal sarrera.*

**arragoalde** iz. Arragoaren ondoko estalpea. A. M. Mitxelena (2020b: 232) *arragoaldea* jasotzen du: «*Las pesas de arragoaldea o las 2 balanzas con su crucero*». Gutun batean hau dugu: *Arragoaldean gutxi dago mea zuria, ta Zuloakoaren-ta meatze hartatik mandazaiak ez dute ekarri nahi 17 kuartoan.*

**arrats** iz. *Astelen arratsean lanean hasi zen. / Astelenean bildu ta ingudeari sartu-atero eragin genion arrats artea. / Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten. / Gaur Erreterian pillota yokoa da-ta, arratseko etorriko direla joanak han dira, berdin lanak akabatuko direla ostiral arratseko, ta bigar goizean hasi ta etzi arratsaldean entregatzeko modua izanen dugu. / Gurutze Santu arratsean ere ongi ebilli zen hagitz! / Igande arratsean etorrita tobera erre ta lanik egin gabe yoan ziran. / Lorenzo Zabalak, egitera etorri zenean, ingudeari su eman arratsean, ta biharamunean arratseko hasi ziran. / Sidrok egun kontua behar badu, pasatu dira 47 días, eta aste batean astelen arratseko bildu zen.*

**arratsalde** iz. *Arratsaldean ni kalera yoan ez nintzan-ta, bere gisa etorri omen zen honara. / Berdin lanak akabatuko direla ostiral arratseko, ta bigar goizean hasi ta etzi arratsaldean entregatzeko modua izanen dugu. / Ola hasitzeko aurreko larunbatean eguna pasatu zuten ola perparatzen, ta astelenean, arratsaldean, haspoari tiratu zitzaion. / Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera juan naizanean, gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski, arratsaldeko haragi puska bat maneatzeko agindu dutela sagardotegian.*

**arraulza** iz. *Gazta bat eta zorzi arraulza ta lau sardiña.*

**arrazoi** iz. *Zergatia, azalpena, kontua. Febreroko espensaren arrazoia hor da...20 pezetas y 32 cuartos. / Kontuan bealdu nuen burni hartuen arrazoia 3 arrobas y 13 libras.*

**arrazoia eman** du ad. *Azalpena eman. Franzisko Antonio bera ere agertuko zaio (berorri), ta nahi duen arrazoia emanen dio.*

- arrazoiaz izan da** ad. Arrazoa eduki. *Luis Zuloakoaren kontuan ez dakit burnien kontua txuxen eman ote nion. Munoakoa ta Garatekoa ta hiruak illundu-ta etorri ziran paper billa, ta presaka ez dakit zer egiñ nuen ere burnian. Arrazoiuz behar dute izan: 26 arroas y 6 libras.*<sup>7</sup>
- arraztelu** iz. *Aizkora alzairatzea ta arraztelu bat berria 4 pezetas y 17 cuartos. / Arraztelu bat arragoarako...03 pezetas.*
- arreta hartu** (genitiboarekin) *du* ad. *Paretaren arretarik ez du orañik iñork harzen; egonen direla edo luzapidea beti.*
- arrimarazi** *du* ad. *Hurbilarazi. Nor zertara dagoen jakin nahi dukete, edo arrimarazi egin nahi lukete.*
- arroa** (eskuarki), **arroba** (inoiz) iz. (erdaraz arruntean *arroba*, baina *arroa* ere bada, eskutitzotan. Irudi duenez, hogeita bost librak osatzen zuten arroa; ikus 1801eko gutuna). *Pisu neurria. Burnia hartu du arroa bat. / Burnia hartu du arroa bost pezetakotik...8 arrobas y 20 libras. / Burnia hartu du arroa sei pezetakotik...17 arrobas y 21 libras, arroa bost pezetakotik...7 arrobas y 15 libras. / Guzien kontua eskatu dit; burnia hartu du arroa bat. / Haspagilleak kintal bat edo lau edo bost arroa quadro eskatzen ditu, ta sei kintal tretxu beharko dira. / Hoietarako hartu du burnia arroa sei pezetakotik...6½ arrobas. / Horko kabilletan bealdu ditut lengo 7½ arroak ta 3 arroa gañera, sobratu ziranak. / Kabilla hemen den hau 3 arroba eskas da, 6 ta 7 linea lodi. / Martiñek badu arroa sei pezetakotik burnia hartua 3 arrobas y 4 libras. / Maxkurio 2½ arroba haxiak...01 pezeta y 08½ cuartos.*
- arropa** iz. *Palazioko mutill hoiek esan didate Errenteriako dendariagan libranza edo txartela bealzeko. Arropak egiteko mea ona.*
- arrotz** adj./iz. *Erariñan Zuloakoa ta Agerrekoa han ziran lorrean, ta hoiенок utzita beste zazpi ezkutu lodiak beal bitza, zergatik arrotzak diran besteak. / Itzaiak bi ziran arrotzak. / Itzaiak 20 días sartu dira, baño arrotzak. / Ta olatxeko Jose Ignaziori eragiñta ekarri ditut, eta hoiенок karretoan hiru itzai arrotzak izandu dira, ta hoiek pagatu beharko dira...11 pezetas y 8½ cuartos.*
- artalde** iz. *Gobiernokoak besterik etzen igo hamaiketakoa egitera; guk harzen dugunean artaldea bezala han etorzen dira jendeak, eta hura nola handiskoa zen, haren ondotik iñor etzen juan.*
- arte, artea, artean** postpos. *Astelenean bildu ta ingudeari sartu-atero eragin genion arrats artea. / Bien artean dute honara aberekin egin duten lan guzia [...]. / Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten, baño maisukabia ardatzak azpian hartuta goiz artea utzi egin zuten. / Dozena bat kintal*

<sup>7</sup> Dena dela, pasarte honen beste interpretazioa onetsiko balitz (ikus 1800.05.07ko gutuna) sarrera hau kendu behar genuke hiztegitik.

*tretxu badago egiña, ta ola handiak asteko mea eskasa du, ostiral artekoa bezala. / Gerozko denbora larunbat artea du. / Kosme de Lekuna mutill horrenzat lenbizian bealduak badira zeñbait karga, ta bien artean dute. / Maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten. / Olatxoko hiruak dute launa arte. / Pello Itxeberrikoak ez du bost pezetako baten kreditarik lagunen artean. / ...ta esan didate esaminadorerik nola ez duten, aurten zein bealdu edo nola gobernatu dutela demanda puxka bat elkarren artean, ta laster egiñen dutela. / Ikus arterañoeko sarrera.*

**artea** menderag. Artean, arte, bitarte, bitartean. *Ez dakit irauenen ote duen, olaren atzera-aurrera ekusi artea. / Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeco esan bizaioite. / Honela dagoen artea zorrak ez dituela gutxiago egiñen. / Jose de Olaziregi aritu den artea egiñ da burnia...166 quintales y 2 arrobas. / Ta gañerakoak, batean ta bestean, hemen darabilzit, nekazaleai berorrek bealdu artea puxkaka emanaz. / Tretxua egiñ artea erre dira hamalau galbai ikatz. / Mikelestorenak (1751: 34, 75) artean darabil.*

**artemin** adb. Orain denbora gutxi, aspaldi gabe. *Nik kontuarekin bealdu ta berorrek ez zition egiñ kontuak, eta geroztik baditu horrara kontua bealduak, artemingo paperean bealdu nuen bezala, 127 días.*

**arterañoeko** adj. *Luis de Lekunari kontua eman nion Eguerri Juan denak arterañoeko lanena ondorengo egun batean, eta geroztikako lanak inportatzen dute 327 reales y 19 maravedís. Ikus arte, artea.*

**artesi** iz. Arrakala, arraildura, pitzadura. *Hemen gauza onik ez da. Martin egun etorri da bost lagunekin, ta erruda eskatzen hasita gezurraska goiaz erori da, seguratu gabea zegoen-ta, eta pareta yota puska bat bota du, ta guzia artesi goiaz.*

**arto** iz. *Bautista mealleak arto puxka baten txartela behar duela, batere ez duela-ta. / Begitoren semeak ta bere lagunak artotako zerbait behar dutela. / Ganbaran ere orañ puxka bat hostoak abitzera egiñ da, baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz. / Berorren kontura botako duela dio, ta artoaren txartela behar duela, ta Josepe igeleak ere eskatzen du. / Bidasoron ez dutela artorik emateko esan didate. / Garatekoak mea ateratzen ari dira, baño Karraio lengo egunetan ez da ebilli; artoak bildu ta itxe lanetan aritu da berdín, aisa ekarriko duela haiek atere ala. / Honen lagunak dio hogeni pezetakoa orañ hartu ezkerro, diru beharrik ez dutela, artoa ta baba behar dituztela itxolara segi dezaten. / Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut, ta mandazaiak ere orobat, iratzea dela, artoa dela, guziak badabilza. / Sebastian Torrekoak zituen artoak 45 anega, a 10 pezeta, hogeni ezkututu zor da, orañ ehun emanta. / Zuloagakoak artotan zor egiñ dutela ta bealzeko 40 pezetas.*

- asentatu** *du* ad. Apuntatu, erregistratu, kontabilizatu. *Aprendizak hartu ditu elizarako behar orduetan neregandik. Asenta bitza 8 pezetas. / Dirua eskuan izatea kostatzen da; hogeitazko bat behar dugu beti iduki, ta paper hoietan nik zor ditudanak asenta bitza. / Dirua heldu denean, bakoitzari burniarena gelditu ta paperean asentatu. / Hoietarako 150 urretxikitatik gelditu zen sobra 35 pezeta ta zenbait kuarto. Ezin harrapatu dut papera asentatu nuena. / Hoietaz nik egun konturik asentatu ez dut, yaten eman genioten-ta. / Itxearen sensoaren korrituak pagatu ditut diru hoiekin, ta asenta bitza nere kontuan. / Len ere bealdu nuen ta orduan asentatu ezpazituen. / Ikusten den moduan, kontua(n) asentatu (ikus) eta paperean asentatu azaltzen da usu. Txanda batean asentuak 'asentatuak' dateke, egungo apuntu 'apuntatu' edo kontestu 'erantzun'-en moduko forma sinkopatua alegia: Abonatu beharrak ditu Munoakoak 150 kintal mea olara ekarriak, taia bete ta asentuak nauzkien, ta kontua ematean batere akordatu ez nintzan.*
- asentu** iz. Erregistroa. *Horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den yakin nahi lukeala. / Lengo asentu horien oñean paratuko dugu kontu hau ere noiznahi. / Ola handikoaren asentua badu hor, ta maiz aski hemen da jendea, deus ageri den.*
- asentuak garbitu** *du* ad. Kontuak argitu, zorrak argitu, zorrak kitatu. *Nere asentuak ere ekarri ditzake, guk ere garbi ditzagun. / Ikus garbitu eta kontuak garbitu sarrerak.*
- asentuan paratu** *du* ad. Asentatu. *Olagizon hoien kontua hau bealdu nuen nagusiari hoien asentutan para zitezen. / Pello maisuaren asentuan para bitza...10½ pezetas.*
- asiento** iz. Asentua (behin). *Burni hoiek dire marzoan eramana Donostiara. Manuelek, Bordatxok ta Juakintxok 6 quintales. Kontua bealzea aztu ta orañ harrapatu dut asientoa.*
- aska** iz. *Zazpi urte da sartu ziralako askak, eta bestea aska sartu zenean bezañ ona dago orañik. / Ikus gezurraska eta hondaska sarrerak.*
- aski** adb. *Espadun hoiek estu aski dabilza bada hemen. / Ikus maiz aski sarre-ra.*
- asko** zenbtz./adb. *Bestetatik imutill asko dute eta lekua ere txarra da. / Hemen libratzeko modua harzen dute askok: egitekoak dituztela bazterretan, ta aziendakin, ta iñor ez dutela haiek maneatzeko, ta horrela. / Ni nago olajaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpoko mea hoietan txar asko ateratzen da.*
- askotan** adb. *Anitzetan. Eta halere erretzea bigarren egunean gutxitan akatzen baita, errekaña, hirugarren egunean maiz izaten da errekaña bat eman beharra, ta askotan bi ere bai.*
- asmo izan** *du* ad. Gogo izan (partizipioarekin) (ikus Kamino eta Salaberri, 2007: 81-82). *Eta bestela, honara laster agertu asmo badu, hemen kon-*

- ponduko dira. / Gaur horrara etorri asmo zuen berorregana, eta Bautistak gaur-bigarretan Artikuzara juateko esan diotela.*
- asmoa egin du** ad. *Ideia izan. Irundar hoiek hemen dabilza ondotik, ta hor izandu ziranak nola ekarri baitzuten beren kontua, uste dute nere falta dela, ta txartelekin horrara etorzeko asmoa egiten dute.*
- asmoa hartu du** ad. *Agerrekoari esan diot orga txar bat egiteko, eta asmoa hartu dute okasioa denean; biren artean sikiera hobeki eramanen dituzte.*
- asmoa(k) izan du** ad. *Ideia izan. Aldakokoak esan dit batere etzuela asmorik Galardik. / Arotzak ere estu daude. Bat horrara etorzeko asmoa dute, eta Kasabillako ere egun hemen zen Paskual de Isasa. / Bera horrara agertu edo kartaz adituko dutela elkar; berak agerzeko asmoa zuela esplikatzen zen. / Eta meatze yabe hoiek alkua pasatzeko asmoak dituzte. / Mealle Arranbi[de]koak etorzeko asmoa omen du. / Orañ Iruñera jokatzeko asmoa dut. / San Fermin ondoan horrara agertzeko asmoa du berak. / Silbestrez gure proposizioaren konturik ez, baño nola dioten jendeak ola pretenditzeko asmoak dituztela, eta zertan diran. / Zagiren bat ardo bealdu nahi badu... Sagardoak orañ badira, baño Manuel Juakiñek ez du asmorik sagardorako.*
- asmoan** adb. (-rako, -tzeko). *Agerrearen sei anega baba dira ta, olarako asmoan, nik geldituak daude saldu gabe. / Alde olen gaia egiñ genuen zerratzeko asmoan, ta ekarri dugu orañ; geroko hemen izanen da. / Eta nik len pretenditu nuen, lengoak izateko asmoan, erreka (sic) alderdi bat.*
- asmoan egon da** ad. *Mea belza Isasolara bazakarten Lasañgo buru honetatik. Lexok eta Kaperok egiñ dute ta gelditu dira orañ han, ta hurrengoan guretzat asmoan dagoen Zuloakoak ta bere lagunak egiña eramanen dute, ezpadugu dirua presentatzen lenago.*
- aspaldi(an)** adb. *Baltasarrekin ekusten ebilli zen aspaldi. / Garatekoak egin du aspaldian egiñ duen mearik ederrena.*
- aspertu da** ad. *Len ere aspertu giñan harekin, gezurra ta iskanbilla besterik ezta hura.*
- aste** iz. *Bi porzio erretazo hartu dituzte yoan den astean, memorialarekin. / Datorren astean olako lanak aterako dira-ta. / Leneko astean erre den arragoako jornalak. / Mealleak ditu hiru aste ta egun bat: leneko arragoan lau aste egun bat gutxiago, bi arragoetan zazpi aste. / Ola handian azkeneko hiru astetan egin den espensa, baba berorrek emana gañera dutela. / Olatxoko hiruak dute launa aste. / Ta eskatzen dute Oiarzungo olatarako aste bost pezeta.*
- Aste Santua** iz. *Trabajatu du hamabi aste, ta Aste Santuan hiru egunez trabajatu zen, ta pazko larunbatean olatxo (sic) aritu zen, baño Jose hor izandu zen, berorregana etorria. Aste Santuko egun hoiek hamabi asteaz gañera dira.*

- astearte** iz. *15 kuartillu ofrezitu nion asteartean. / Hoietaz gañera, hemen hasi ta asteartean horrara eraman zuen, hor aritzera. / Ola handikoak esan didate San Esteban pasatuta astearte goizean hasiko direla.*
- asteazken** iz. *Eta etzi dihoaz mendira arotzak, beror[r]jek nobedaderik paratzen ezpadu, asteazkenean.*
- astelen** iz. *Astelenean bildu ta ingudeari sartu-aterere eragin genion arrats artea. / Bost orga bigar kargatu ta astelenean bealdu beharko dira. / Gaur heldu diranaz gañerakoak astelenean bealduko ditugu burnitara. / Larunbatean elementutan olatik yoan ta igandean egueldi txarraz gelditu, ta astelenean illunabarreko olara.*
- atari** iz. *Beringo ataritik Zaldin aldera onena zen, eta aldena ere bai. / Migel Fagoagakoak ekarri ditu lau karga ikatz, atarian enbor ta zurzaiakin egiñak.*
- ate** iz. *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela edo barrika, edo zerbait idukitzeke, erdiko arkuko garaiko aldetik goikoa, ikaztegiko ateak libre direla. / Manuel de Ribereri eskalerak eta atea egiñ, ta errueda haspategikoa konponzeko jornalak.*
- atera, atere da/du** ad. *Aisa ekarriko duela haiek atere ala. / Espensa maisuarena atera ta gelditzen zaio ola handiko bakoitzari 30 pezetas y 21½ cuartos. / Garatekoak mea ateratzen ari dira, baño Karraio lengo egunetan ez da ebilli. / Hurrengo jaiean aterako dutela debalde ere. / Mealleari asteke ezkuturako eskas ateratzen zaio, 3½ pezetas. / ...ta eskatzen dute Oiarzungo olatarako asteke bost pezeta, ta herritik kanpora atera ezkeru urretxiki zar bat.*
- atera, atere** adj./adb./iz. *Aterea, ateratzea. Antonsoro aldean ere badaude atereak, ta honara etorzen dira hortik heldu diranak ere. / Dotazioan ikaztogi bat ta Matxinoak bi, ta Fermin Okerrak bat atereak dauzkite. / Gabrieleke ta bere anaieak orañ ari diran meatzetik aterea da. / Haspoak sartu ta ateretan 2 [panes]. / Haspoen sartu-ateretan...2. / Haxiak atereak...2 kintal y ½ arroba. / Ingudearen sartu-aterea, bergamazoia egitea, boba eskatu ta bobatzea. / Irungo meakariak atererik etzaukaten. / Patxikuri esan nion bada zepoa atera edo hautsia zagola. / Sarastik omen zuen pilla hartan erosia 800 quintales eta pisatu omen dute. Larrañ hartatik aterea, Sarastirenzat 924 quintales, eta guretzat atera ta sartu duten hura ere nonbait alde haietakoa izanen da.*
- atrebitu** da ad. *Ausartu. Eta esan dit ahunztegia eskatzera ezin atrebituz zegoala.*
- atzera** adb. *Harek dirua hartuaren erreziboa ematen du, ta gañerako ardatzaren ta bigarren alkabalaren kontua atzera beti geroko. / Mandoaren jabeari eman zioten zaldia atzera ekarri beharko dutela, lengo zaldi txiki hura, ta 58 ezkutu pagatzeko hartu omen zuten, ta atzera trukatu egiñ beharko dituztela. / Nik esamiñadoreai beharrik ez genuela esan nioten, ta porzionistak atzera samar egon laitezke, behar ez dugulako.*

- atzera-aurrera** iz. 1. Martxa, 2. Konponketa. *Ez dakit irauenen ote duen, olaren atzera-aurrera ekusi artea. / Ta behar ezpadu, errespuesta yakiñ nahi luketela laster, ez dutela urtetako parat[u]ko pakea egiñ edo atzera-aurrera ekusi artea.*
- atzera-aurrera egin du** ad. Erabaki, erabakia hartu. *Ola handitik aritzeko ta hasitzera orduko lan hoiek egiñ behar direla, ola honen atzera-aurrera laster egiten baliz.*
- atzerago** adb. Geroago. *Orañ kintal bat edo beste hartu, ta besteak atzerago orobat hartuko dituela.*
- atzo** adb. *Atzo galdatu diotet ea zer egiten duten. / Atzo ta herenegu ez dute paratu ere kandelan. / Bautista atzo izandu zen diruarekin. / Berantetsia nangoan zer egin behar ote zuten, ta atzo eguerdian mutill bat bealdu du, gaur etorriko dela. / Ola 410 dukateraño jaitsi zen atzo. / Sanjuanen anaia Baltasar da esaminadore, ta esan dit atzo hemezorzian gelditu zela, ta gaur jatsiko zela hamasei edo berago. / Ta irundar hoiek gelditu dira. Atzo deus etorri ote zen izandu ziran bi lagun mearekin.*
- aumentu** iz. *Baño gauza guziak aumentuarekin kontatzen dira, eta Aldakokoak esan dit.*
- aurrean** 1. adb. *...ta ofrezitu diot hitzaz 15 kuartillu meza aurrean, ta ez dute eman. / 2. menderag. Lo etzin da, ta hurrengo agoan illunzeco aurrean iraike, ta orduan hasi da lanean.*
- aurreko** adj. *Ola hasitzeko aurreko larunbatean eguna pasatu zuten ola perparatzen. / Olatxeko aurreko zubian pasatutako maldatik uztarriak ekarzea; hau nahi duena kontatuko du.*
- aurrera** adb. *Aurrera ari diran espensa honetarako baba ekarria dago. / Hiru hoiek diote igande datorrenean zorzitik aurrera ez direla lengo jornaletan ariko. / Irungo meakariak atererik etzaukaten, ta puxka bat badere bealduko dutela aste onetan, ta aurrera aterako dutela. / Olatzagako hoiek aurrera dihoaz, ta hoiek egiñ beharko dute, berenaren mugante dute-ta. / Sarastik esan dit gobiernokoen aurrera eramanzita sanmigelak aldera direla, ta urte bateko-edo pretensorik badu, agertu edo zerbait egiñ dezala.*
- aurrerabide eman**<sup>8</sup> du ad. *Bide eman, aitzina joaten utzi. Gañerakoak ongi berezirazi norbaiti ta ekarri ditu, baño mea beltz txarrak dira. Ez [diot] aurrerabiderik eman. Horrek nahi luke, ta berorrek agiñdu ziola etorri zitzaidan, baño mea txarrak dira.*

<sup>8</sup> Mitxelena (1960: 90) Errenteriako *atzeapire* eta *aurreapire* aipatzen ditu *-(r)at* adlatiboko hondarkiaren aztarnen artean, dirudienez bigarren osagaiaren hasierako *p* horrengatik, hots, haren ustez *\*atzeratbide*, *\*aurreratbide*-tik atera direlako, oker ez bagabiltza.

- aurreragoko** adj. *Meakariak bazuten 60 pezetas y 7 cuartos, baño aurreragoko kontuan, berorrek deskuidoan gehiegi abonatua, bazen 17 pezetas y 27½ cuartos, ta ferrazalleari 20 pezeta abonatu zitzaion meakarien kontura.*
- aurrerako** adb. Geroko. *Asentuan paratuko ditut hoiek orobat aurrerako paperean. / Aurrerako orobat beharko da itzaienzat behinzat. / Gabriel meakariak zor zuena gelditu ta gañerakoa bealduko du, kontu hau, ta aurrerako ere bai, zerbait. / Hoiek eta aurrerako zerbait eman beharko zaiote mearik izatekotan. / Itzaiak ekarriko lukete, dirua balitz, lengoak pagatuta, aurrerako zerbait. / Juakin honi lagunak ez dio utzi nahi basoa botatzen, lengoa egiñ behar dutela, ta aurrerako partitzen dira. / ...ta gobiernoko berriak esan diotela nola den ikatz gaia hura, eta hoiek Olaberrira nola eman dituzten, ta berriak har dezatela aurrerako kargua.*
- aurrerakoan** adb. *Irundarrak, kontu garbitu hoietaz gañe[ra], badute ekarria Erorzatik 130 kintal, ta ekarriko bada edo izanen bada aurrerakoan behar, arragoarik erreko bada.*
- aurreratu** da/du ad. 1. *Aurrera egin, aurrera joan. (Baso) guziak aste honetan botatzen ezpadira ere, aurreratuko dira, denbora ona bada. / 2. Aurreztu. Babarik Oiarzunan nik ez dut senti, ta hortik beal dezake. Fagotxikitik ekarrita eman diotet hasieran, ta haiei ordaña emanta, gañerakoa aste honetako diña da. Astean errugu erdi bat aurreratuko da, bai.*
- aurretik** adb. *San Fermin aurretik ta ondotik juan ziran 17 orgatan edo portetan.*
- aurten** adb. Urte honetan. *Aurten kastatzeko urtea dugu. / Fausto Olaizarrekoak esan dit, aurten aldatu nahi baditu, plantak emanen dituela. / Niri esaten aritu da diru hartuen kontua: orañ hiru urte hasi lanean, ta bi urtetan errenta pagatu, ta aurten beren deretxo batetik pagatu dutela errenta. / ...ta esan didate esaminadorerik nola ez duten, aurten zein bealdu edo nola gobernatu dutela demanda puxka bat elkarren artean.*
- aurtengo(ko)** adj. Urte honetakoa. *Andresekin goizean egondu ninzan, ta esan zidan aurtengoko gobiernoko hoiek ia bestek agintzen diotena egiteko modukoak dirala. / Puxka berriak beharko ditu barrengo aldetik edo nondikerebait, eta ola handiko kabitegiko tormentategi honek ere aurtengo udan.*
- auzi** iz. *Ni nago ola-jaunnak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpoko mea hoietan txar asko ateratzen da.*
- aza landare** iz. *Aza landareak...2...00. / Aza landareak Goitzariñako...2...25½. / Ikus planta eta tipula landare sarrerak.*
- azal** iz. *Hemengo tretxu honek azal handia du eta bera ere, tretxua, handis-koa, ta ekusiko dugu txabala nolakoa heldu den.*
- azeri, axeri** iz. *Azeria, Axeria izengoitiaren oinarrian da. Aketzaren semeak ere eskatzen du; Axeriak ere bai, nahiz lengoa egiñ ez. / Azeriak egiteko hartu zuena.*



- azienda** iz. Kabala. *Hemen libratzeko modua harzen dute askok: egitekoak dituztela bazterretan, ta aziendakin, ta iñor ez dutela haiek maneatzeko, ta horrela.*
- azken** (bitan), **azkeneko** (arruntean) adj./ord. *Azkeneko arialdi honetan egin dute espensa...81 pezetas y 12½ cuartos. / Azkeneko erre diran bi arrago-atako jornalak dira 97 pezetas y 30 cuartos. / Azkeneko gaztaña hau kandelan hartu dut, ta probestuak behar du pezeta. / Hoietaz gañera, azkeneko berrogeita hamasei kintaletan juan dira 84 libras. / Irundarrai, etsi dutenean, burni eske hasi ta pagatu tioztet beren azken errestak. / Ola handian azkeneko hiru astetan egin den espensa, baba berorrek emana gañera dutela. / Ta gaur ere etorri da mandataria, ta esan diot azken agoa aterata tira dezala nahi badu.*
- azkenean** adb. *Azkenean esan dit deskontentua berorrek erakusten badit, kuartillua hark berak pagatuko didala.*
- azpian hartu du** ad. *Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten, baño maisukabia ardatzak azpian hartuta goiz artea utzi egin zuten. / Hoietaz gañera ere, maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten.*
- azpiko** adj. *Honi eratsi diote Kausuako azpiko errebesena.*
- azpitik** adb. *Gazt[el]u alde honetan, ta Arizxulegira goazela, bide azpitik hiru yorradako tokia da urrutinekoa.*
- aztu** (*du?*, *zaio?*) ad. *Kontua bealzea aztu ta orañ harrapatu dut asientoa.*
- azunbre** iz. *Ia bi litro dituen surkari neurria. En 25 días, agorrean, bakoitzak badu ardoa 2½ azunbre.<sup>9</sup>*
- ba** menderag. *Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nahiko dituzte horiek. / Señoa ere han omen zen, ta 1.400 ezkutu honetan ongi litzakeala dio, harrapatzen baliz. / Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten mandazaiak.*
- ba** partikula. *Ikus bai.*
- baba** iz. *Anega bat baba...13 pezetas y 17 cuartos. / Baba ekarze-saria...0 y 17 cuartos. / Baba ekarzeko bealdu zuen 10 pezeta. Anega bat ekarri dugu. / Bigar goizean gosariteko diña baba da hemen; beal beza. / Errenteriatik babatan bi yorrada. / Gaitziru bat baba 03 pezetas. / 16½ anega babaren zat hartu ditut 12 orillos viejos. / Hiru anega babaren txartela hartu dute. / Ta sobratu ziran ola handikoen babatako 16 pezetas y 19 cuartos.*
- babadun** adj./iz. *Baba saltzailea. Babarik ez dut, ta hemen ez da salzeko bate-re; hortik badere beharko dugu puxka bat, ta Hondarrabiako babadun hark ere errespuesta behar luke. / Erka bedi ogidun-ekin.*

<sup>9</sup> Originalean laburturik dago («Bacoitzaq badu ardoa 2½ az.<sup>re</sup>»), eta, hortaz, ez da guztiz segurua euskal forma ote den. Euskarazkotzat akabailan s-rik ageri ez delako hartu dugu.

**bada** lok. Agerrekoak etzuen *bada* noski konturik egiñ; kapa ekarzeko utzi zituen 40 pezeta ta ekarri ez zitzaion. / *Bada*, Salbadorrek esan dit berorri gaztigitzeko gezurrak dirala. / Behiñ noski «lau urretxiki» esan du, ta ea lan egiñ guzia zaldaletan yaten zuten *bada*, edo zer pasatzen den. / Beldarrañ yoan denean, juañ naiz *bada* ta esan diotet hartuko dudala. / Espadun hoiek estu aski dabilza *bada* hemen, ta Josepe igeleak igandeko bealzeko. / Irungo itzai ta meakariak estu dabilza *bada* hemen. / Mearik ez da *bada* iñondik heldu honara, ez Irundik ta ez Erreteriatik; arragoa erretzeko modua ona dago! / Patxikuri esan nion *bada* zepoa atera edo hautsia zagoela. / Sarastiri nik esan diot libranza egiñ dezatela, edo zer fundamentutan dirua eman behar den, ta hark zer egiñen duen *bada* esan dit, alkateak egiñ behar duela, ta firma hutsa egiñta bealdu du berriz hark.

**badere**. Aditzaren (*bada* ere) eta lokailuaren (*bederik*, *bederen*) arteko zer baita da, noiz nola. *Babarik* ez dut, ta hemen ez da salzeko batere; hortik *badere* beharko dugu puxka bat. / Berorrek martxoan pagatu omen zuen suertearen plazoa edo erdia, eta olarenik ez, eta olaren errentaren erdia, hura *badere* al badu lenbailen beal dezala. / Diferenzia erdira *badere*, pagatu beharko du, 1.400 ezkutu. / Gurutze Santu arratsean ere ongi ebilli zen hagitz! Zeharretik yo gabeak erdiak, ta beste batzuek pasatu *badere* egin ziran. / Irungo meakariak atererik etzaukaten, ta puxka bat *badere* bealduko dutela aste honetan, ta aurrera aterako dutela. / Karta hori apaizak bealdu du, propiorekin *badere* bealzeko. / Pagoetan kontrariorik *badere*, eskola maisuari esanta hark hartu ditu; Andresek esan zion maisuari harzeko. / Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan, ekusi dezala, hark uste zuela gutxiago *badere* harzekotan zegoela.

**bai**, **ba-** (aditz trinkoekin; ikus ere sarrera) 1. partikula. Andres agerzen *bada* ere, estutu gabe *badagoke*, *bai*. / Aste hau utzi egin beharko da, *bai*, urak kendu ta lan guziak egiteko. / Beste batean ere behartuko gera, *bai*, hemen dagoen fundamentuagatik. / 12 quintales *badira* Erreterian ta olan. / Iñork hartuko duenagatik, han egonen da *bai* dotaziorik gabe. / Leneko 70 ogien gañera, *badituzte* ola handian, aste honetakoak, 22 panes. / Meakariak bazuten 60 pezetas y 7 cuartos, baño aurreragoko kontuan, berorrek deskuidoan gehiegi abonatu, bazen 17 pezetas y 27½ cuartos, ta ferrazalleari 20 pezeta abonatu zitzaion meakarien kontura. / Pisatu ta berehala hasiko dira, *bai*, diruaren mandatua hartu ezkerro. / Saralerik erosi gabe pasatuko ninzake, eta gañerakoak ere orañ honara nahi duten maxterrenzat sobra dira, *bai*, maneatzeko.

**baietz** partikula. Aldakokoak (*itxola*) *badu* gaztañadi hoietan, ta salduko duen galdatu diot ta *baietz* esan dit. / Itzaiak *baietz* esanta beren gisa dabilza. / Juan den igandean ere propioa juañ, Azenzio, ta *baietz* agindu, ta astelen arratseko olara zen. / Ta *baietz* zion, alkua pasatuko dutela. / Ikus ezetz, ezez sarrera.

- bajatu** *du* ad. Apaldu, merkatu, jaitsi. *Erretazoak len 19 kuartilluan bezala, igandean 20 kuartilluan paratu zituzten, ta batere bajatu ez. / Sarastik esan dit kandelan paratuta bajatuaz ekarriko dutela, ta iñork gehiagok hartzen ezpadu, orduan emanen dutela.*
- bakallo** iz. *Olatxoan bakalloa kastatu da...0...23 cuartos.*
- bakar** adj. *Egur txetxoa da, baño leku onak dira gureak, bakar honetaz gañerakoak. / Iduri aldatzen...4 días. Iduri aldatze hoiek abere bakarren egunak dira. // adb. Bakarrik. Bizenteren basoa ere bakar dago, ta egurra ekarriko dute iñor paratzen ezpada.*
- bakarrik** adb. *Gregorio ta Motela semearekin ta ni izandu gera Belearen basoan, ta Belea han zen bakarrik. / Lengo hiru egunetan Fagotxi[ki]koa bakarrik zen, atzo Anzanborda ta gaur Bordatxo lagun. / Luisek, laguna geldituta, bakarrik egin du bere semearekin...61½ quintales. / Sebastian Altxu ta bere laguna konpondu dira laguna libratu artea Altxu bakarrik aritzeko. / Senbollek egin ditu, bakarrik...12 quintales y 4 arrobas, Domingorekin...202 quintales. / Ta orañ Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik.*
- bakoitz** adj./izord. *Agoa bakoitza kintal bat pisatu dugu. / Bi igeleak eta urzalle Josek badituzte ola perparatzen pasatuak 1½ días bakoitzak. / Espensa maisuarena atera ta gelditzen zaio ola handiko bakoitzari 30 pezetas y 21½ cuartos. / Heldu zaio irabazia bakoitzari, espensak pagatuta, 19 pezetas y 2 cuartos. / Hoi en deklarazioan terzioa kendu ta heldu da urte bakoitzeko 2.000. / Milla bana karga bezala bakoitzarenzat. / 1.300 karga bezala gutxi gorabera bakoitzarena. / Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin bakoitzak bere nagusiari aditzera emateko. / Orañ kostatzen da orga bakoitza 26 pezetas, ta gañera sosak ere bai. / Behin bakoitz dago: Erremienta giten bakoitzak ditu 3½ días.*
- baldin...ba** menderag. *Gaztigatu du hartu baño lenago, baldin berok pretenitzen badute, nola nahi lukean.*
- balio** iz. *Anatxuriri ere kenduko diot 31 kargen balioa, Olaberrira egiñ duen karretoaren gañerakoa. / Iturriozko ferrazalleak pagatu behar ditu ikatzak eta tiratzea zer den, eta kostarioaren gañera burmiaren balioa Sebastiani. / Hoietarako 87 kargaren balioa zer den; hoieta gañerako[a] zorko da herria, 87 kargaren balioa zor, ta hoietarako 1.026 reales vellón emanak izanen dira Buruzuria pagatzearekin. / Lenbiziko karretoko 19 pezetak ta ikatzgilleari len emanen gañera osatu 56 kargaren balioa ta gañerakoak kobra ditzatela herriagandik. / Ta 4½ pezeta esan du balioa erakutsi diogunak, ta ikatzen asentuan para beza itxola ere.*
- balio izan** *du* ad. *Arranbidetik ekarri omen du burnia, 6½ arrobas, ola handian tiratua, ta zenbat balio duen edo olatxokoa bezala pagatu bear duen galdatu dit. / Burnia hartu du; 9 pezetas y 3 reales balio dute. / Eta nahi badu, 25 pezeta balio dute, eta hor asentatu, ta bestela nik kobratuko*

*ditut. / Hagitz baba ona da, baño hamaika pezeta balio du, eta guziak 66 pezeta, lau urretxikien gañera. / Haizarka zarraren ustaiak eraman ditu, eta nahi badu, 25 pezeta balio dute, eta hor asentatu, ta bestela nik kobratuko ditut. / Hala balio zuen ta pagatzeko denboran gelditu zait...04...2. / 4.000 tella behar da; gutxienaz milla tellak balioko du sei ezkutu, 4.000 tellak...24 pesos. / Peloako Agerrek gaztigatu du ielsuak berorrenzat bost erreal balio duela. / Sagardoak balio zuen...137 pezetas y 32 cuartos.*

**bana** banatz. *Azkeneko bi puska hoiek txapon bana beharko dute gehiago bes-tetatik. / Baltasarren semeak-ta aldatu omen dute 300 planta, pagoa erreal zillar bana berorrekin partituta. / Beste sei puskek bi aldetatik nasten dira hiruna porzio, milla bana karga bezala bakoitzarenzat. / Eraringo bederetzi uztarriak ezkutu lodi bana, 45 pezeta. / Guziak badute egun bana erremienta giten. / Guziak boto banako jendeak izanen dirateke hoiek. / Guziak txarrak dira, baño halere hoberentxonak goiko puskan; Xardeari ta Madarikoari puxka bana eman, ta gañerakoan Jeronimo ta Axeria ta Matxinoa konponduko dira. / Hau Maxalenek egin, esaminatu du, ezkutu erdi bana karga; dirua eskatzen dute. / Itzaiak ezkutu bana eguneko. / Jose Bengoetxeak eta Juan Franzisko urzalleak badute txiki bana ardo. / Behin baña daukagu, biña-ren alderako analogiaz apika: Orañik dozena baña urte dute zarrenak, bixkiak dira. / Ikus erdi bana sarrera.*

**banatu** du ad. *Bi hogei ezkutuko hoietatik bat amagiarrabak semea Iruñera bealdu behar duela eskatzen zid[an], eta bealdu diot, ta bestea hementxe darabillat b[a]natua.*

**baño** junt. *Baina. Anitzetan eskatu diot, baño ez du entregatu. / Besteak sanes-tebanak aipatu dituzten denboran eskriboak yakin behar zuela, baño fundamenturik etzuen ematen eskritura ekusi artea. / Bost puskatan batek erditik txuritzak baditu, baño osoan orobat para ditekeana dago. / Esamiña olarenzat bat az beste baño hirutan gehiago erakutsi da urte bakoitzeko. / Ezez dio, goian puska emanen litzakoala betik ona balego, baño guzia galdua dela. / Guziak txarrak dira, baño halere hoberentxonak goiko puskan. / Horrek nahi luke, ta berorrek agin du ziola etorri zitzaidan, baño mea txarrak dira. / Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaurgero nahiko dute noski.*

**baño** junt. *Baizik. Kandelan paratu dute ola ta gelditu da 1650 ezkutan, ola ez baño basoa.*

**baño** konp. *Baino. Arotzak baño fundamentu hobean egiten ezpadugu, ez da luzaro egonen. / Eta jornal pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela; nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urri-urrian jornalak dituztela baño. / Ta beste edozeñ aldetara gehiago kostako dira berari erakarrita baño. / Ta irundarra dute lagun bat partiduan, ta hark honara baño bes-tetara nahiago luke, noski. / Uzteko hobeak daude, noski, harzeko baño.*

- baño ere lenago** (behin), **baño len** (arruntean), **baño lenago** (behin), menderag. *Belderrainek esan dit, beste lagunetara baño len, Juan Migelek nola esan zion 16 kuartilluan hark hartuko duela. / Esan didate Sarastik eta bere lagunak berehala egiñ behar duela, hoiien dirua bederetzi egun baño len nahi lukete. / Gaztigatu du hartu baño lenago, baldin berok pretenditzen badute, nola nahi lukean. / Harriaren gañean zegoen ikatza, ta uste baño ere lenago attu zaiku ikatza. / Manuel Bengoetxea honi ez diot galdatu orañik, baño eman baño len galdatuko diot honi ere. / Plantxuelak egiñ ziran kuadroa baño len, 16 quintales, eta kuadroa ezke-ro egiñ dira 35 quintales, orañik eraman gabeak.*
- Barkazio** iz. Barkazioa, Omia Saindu eguna? *Hau kastatuko al dugula eskriboak esan digu, eta Barkazioa sartu baño len egiñ nahi genuke diligenzia hau.*
- barra** iz. Olan egiten zen burdinazko peza. *Arranbideko txabaletatik, gu pisatzen izandu ezkerro, allegatu dira zertaraño baitere Errenterian, eta guk ere hangoak pisatu genituen 200 barra; gurdi bat besterik etzen hemengorik, ta biharamunean gero gañerakoak hurnitu ziran hemendik. / Orga bat kuadro bada hemen; Fagotxikin baziran barra batzuk ta haiekin hurnitu da.*
- barrena** adb. Barrura, barrenera. *120 kintal sartu dutela barrena, ta orañik badela 80 kintal gutxienaz.*
- barrengo** adj. Barnekoa. *Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txo-txaren koska horretaraño zabal, barrengo ol txiki haiek ematekotz, ta bestela lau onza bezala luzeagoak beharko dute. / Puska berriak beharko ditu barrengo aldetik edo nondikerebait.*
- barrika** iz. Kupela. *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela, edo barrika, edo zerbait idukitzeko. / Ikus kupel sarrera.*
- barrika ustai** iz. *Barrika ustaiak hartuak...11 libras. / Gebiako barrika ustai bi...10 libras. / Ikus kupel ustai eta ustai sarrerak.*
- bart** adb. *Bordatxori txartela ema[n] nion bart ta, goizean egueldi txarra dagoela, entregatu egin du hemen, ta gero juan.*
- baso** iz. *Anton Xardea hemen izandu da, baso Gaztelu aldeko hau iñori eman diogun, basoa laster akabatuko duela, ta hasi nahi lukeala nonbait. / Antonio de Mitxelenak ditu 34½ karga ikatz bizkarrean ekarriak, olaren ondoko basotik. / Baso txarra da, baño lengoan guri dotación eman ziguten, ta atera zen 700 karga pasatua. / Basoen dirua ostiralean beal beza. / Deskargako egiteko hau ere basoz edo errentan deskitatzeke egin dezake. / Eixigarrek egin du ikatza Jose Ignazio olatxeakoaren semearekin oraño basoan. / Eskriturak guzien erdia martxoan esaten omen du, olarena eta basoena, guzien erdiak. / Eta gureak gelditu dira baso ederrik ez, ta hagitz elbarrik ere ez. / Hiru lantegi sartu beharko ditugu baso honetan. / Irundarren basoko hasi berri honek...4 duros. / Juan Migel Aranguangoak*

- esan omen zion apaizari [...] nola behar zuen berrehun bat karga ikatzen basoa. / Lengo basoan mutill honekin berarekin: 76 cargas y 3 lepalotuas.*
- basoa bota** *du ad.* Basoa egin. *Basoak botatzen hasi gera eta lengo hamar ezkutukoaren gañera beharko dira 6 edo 7 ezkutu. Guziak aste honetan botatzen ezpadira ere, aurreratuko dira, denbora ona bada. / Juakin honi lagunak ez dio utzi nahi basoa botatzen, lengoa egiñ behar dutela. / Ikus bota sarrera.*
- basoa egin** *du ad.* Basoa bota. *Sebastian Altxuk dio bealzeko 30 ezkutu, nahi badu basoa egitea, ta bestela, al duten modua egiten saia ditezen ez edo baia emateko, eta baso hoiek egitekotan orañ da denbora, iratzea jaito baño len hautsixe nahi lirake-eta [...]. Ez egitekotan Galardiri eman ditzakagun sikiera, hark egiñ ditzan olak eta basoak, guziak har ditzala.*
- basoa hartu** *du ad.* Basoak hartutako hamaiketakoa ta probestuarinak...006...30. / *Basorik ontxoena da hau Eraringo ixidutik beiti [...] ta Alzateko makoan zorzi zulorekin, hau hartu nahi badu, Aketzari eman beharko. / Juakin honi lagunak ez dio utzi nahi basoa botatzen, lengoa egiñ behar dutela, ta aurrerako partitzen dira, eta Bautista mealleak harzen du, ola gelditzen denean botatzeko. / Lantegi baten basoa suertean ematekoa dugu orañik; burkaitz gaistoa da-ta eziñbestean hartuko dute, noski.*
- bat** *zenbtz.* Aste batean aritu dire Isasolako Josepe igelea ta Garatekoa ta meallea. / *Bat 440 karga, ta bestea 220 karga. / Batek galdatu dit. / Beste gau batez bergamazoia erori ta goizean, egunaz egin zen. / Ez da bat ere etorri, ta Fagotxikin dira. / Gañerakoak, batean ta bestean, hemen darabilzit. / Gurdi zura hartu dio gizon bati. / Hamasei kuartilluan dagoela argia itzali da, ta gelditu dut erreal batekin. / Hillabeteren bateko lana omen da. / Olatxoko kabiguñ bat ta bi traba. / Pello Itxerrikoak ez du bost pezetako baten kreditarik laguneren artean. / Suertean iduriak bataren basotik bestera...2 cargas. / ...ta horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den yakin nahi lukeala, ta gaztigatzeko txartel batean.*
- bat edo beste** *zenbtz.* Laguna etorri zitzaionean guziak lagunak apaindu, orañ aste bat edo beste.
- bataz beste, batez beste** *adb.* *Esamiña olarenzat bataz beste baño hirutan gehiago erakutsi da urte bakoitzeko. / Eta egunean zorzi kintal tretxu nahi [l]irake bate[z] [b]este lan honetan.*
- batean** *adb.* *Batera. Lau orgak batean bealdu beharko ditugu. / Len aldiazka bezala orañ guziak batean. / Mutikoak baditu hiru, ta handiskoenarekin zaldia erabili beharko duela inoiz ikatzketan, edo al duen bezala lagunekin-ta batean. / Nahi badu txartela eskatzen duten hoiei beren kontua ematea, edo guziena batean egin nahi duen gaztiga beza.*

- batean...bestean** adb. *Anitzetan eskatu diot, baño ez du entregatu: batean han duela, bestean eziñ arkitu duela... Ez du ekarri.*
- batere** adb. 1. *Inola ere, deus ere. Agoak apainzen eziñ moldatu omen da batere. / Aldakokoak esan dit batere etzuela asmorik Galardik. / Babarik ez dut, ta hemen ez da salzeko batere. / Ez dutela pagatu batere. / Igandean 20 kuartilluan paratu zituzten, ta batere bajatu ez. / Kontua ematean batere akordatu ez ninzan. / Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua, baño orañ batere ez. / 2. Nolabait, zerbait. Nahi badu ekusi hor edo hemen moldatuko ote den batere, ekusiko dugu.*
- batzuek** zenbtz. *Berak uste du gelditu zela zor hamasei ezkutu ta errealden batzuek gehiago. / Donostiara Fagotxikitik eramantako burnien asentua hor egiñ omen dute batzuek, eta nik eragin dudan lan guzia hemen dago. / Esamiñetan allegatuko etzirala, batzuek behinzat, aditzen nuen. / Gobiernokoren batzuekin egondu omen da. / Isasolakoak plazeria eman diote batzuei...30 kuarto. / Lagun batzuen txartela, batek edo bik hartu beren buruan ta guziak horrara eziñ ebilliko direla. / Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira.*
- batzuek ta besteak** zenbtz. *Halere iñor gutxi dabill, batzuek horrara ta besteak nik ez dakit non dabilzan. / Hondarrabiako babak ziudadean batzuek ta besteak ziudadearen garaiko aldean, bere itxean omen ditu gizon hark.*
- bazter** iz. *Hemen libratzeko modua harzen dute askok: egitekoak dituztela bazterretan, ta aziendakin, ta iñor ez dutela haiek maneatzeko, ta horrela.*
- be** iz. *Behea. Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela, edo barrika, edo zerbait idukitzeko. / Orañ bota gabe uztektan, dagokala goia edo betik, edo nola uztea nahiko duen adiraziko du.*
- bealde** iz. *Behealdea. Bizenterenzat Xardearen mugan goiko puskan, bealdek, bada puxka bat.*
- bealdu** (eskuarki), **bialdu** (behin) *du* ad. *Bidali, igorri. Basoen dirua ostiralean beal beza. / Ignazio Aranburukoak Bullegitik bealdu ditu hamaika karga ta lepalotu erdi bat gaztaña ikatza. / Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko. / Ogi egilleai sagardoa salzesari deus bealdu nahi badiote; niri ez zidaten deus hartu. / Pierresek bialdu ditu 127½ pesos fuerte[s]. / Sarobeko nagusi honek dio berau etorri gabe bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola lenbailen.*
- bederatzi** (behin), **bederetzi** (gainerakoetan) zenbtz. *Bederetzi uztarri jua Erariña, ta hononzean ardia Oielekun hartu ta, guziak kargatuak. / Domingo Etxabe gaur bederatzitako etorzekoa da. / Eraringo bederetzi uztarriak ezkutu lodi bana, 45 pezeta. / Hoiien dirua bederetzi egun baño len nahi lukete.*

- bederetzigarren ord.** *Basoen dirua ostiralean beal beza, larunbatean bederetzigarren eguna izanen da entregatzeko.*
- begi iz.** *Hau begia erreta juan denean ekarri dugu Isasolako igele gazdea. / Sidro ianziarra juan da begia erreta.*
- begira egon(du) da ad.** *Begira egon, so egon. Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan, ta lurrak iraulze bitarte honetan ebilliko dira, baño eskue-tara begira baitaude. / Olatxean den artorik txarrena beko begira egon-du giñan honetan dago.*
- behar adj.** *Pobrea, behartsua. Arotz hoietan beharrak dira gehienak, ta yornalaz galdatzen dute ta garbitu behar lirake orañdañokoak. // iz. Alkate zarrak esan dit ez dela libranza beharrik. / Guk ere geren beharra egite-ra egiñ dugu. / Honen lagunak dio hogezi pezetakoa orañ hartu ezkeru, diru beharrik ez dutela. / Nik esamiñadoreai beharrik ez genuela esan nioten.*
- behar izan du ad.** *Gaur ez bealzekotan, bigar ez bealdu neregana dirurik; bigar herriraño agertu behar nuke. / Gero ere kandelara beharko zutela memorialaren gañean. / Hondarrabiako babadun hark ere errespuesta behar luke. / Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna. / Martin berozalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen. / Ogi egilleak gaztigatu du, errotaria pagatzeko behar duela-ta, ogien diruaz. / Ostiralean Franziako jaiia da ta larunbatean juan beharko dute burniak. / Tobera erre da. Moztu ta estuturik sartu dugu; berria beharko da.*
- behar ordu iz.** *Beharrezko denbora. Apendizak hartu ditu elizarako behar orduetan neregandik. Asenta bitza 8 pezetas.*
- beharra izan da/du ad.** *(partizipioarekin).<sup>10</sup> Abonatu beharrak ditu Munoakoak 150 kintal mea olara ekarriak. / Bigar lorrera beharrak dira Kosme ta Agerrekoa. / Endarak gaztigatu du meza enzun beharra dela, ta bigar enzun ta etorriko dela. / Enforru hoiek eta bularrak eta alderdi guziak konpondu beharrak dira. / Hoiek dira bakoitzari rebajatu beharrrak. / Ta yoanen badira puskak eraman beharra izanen duela. / Urak ateratzeko berorrek eman zituen 8 urretxikietatik hoiei kargatu beharrak dira 4 urretxiki.*
- beharrean menderag.** *(partizipioarekin).<sup>11</sup> Espensan pagatzean agostoan ½ fanega haba 9 pezetas kontatua harrapatu dut, 4½ pezetas paratu beharrean.*

<sup>10</sup> Edo partizipio rola duen adlatiboarekin. Ikus tankera honetakoez aditz morfologiari buruzko kapitulu dioguna.

<sup>11</sup> Ikus bedi joskerari eskaini atala (moduzko perpausak).



- beharrean egon da ad.** Beharra izan. *Hoiek astea pasatu orduko eskatzen hasiko dira, beharrean daude-ta.*
- behartu 1. da ad.** (genitiboa eska dezake) Behar izan. *Beste batean ere behartuko gera, bai, hemen dagoen fundamentuagatik. / Maisuak esan dit Billabona behar duela olara, ta beharzen denean lenxeagodanik gaztigatzeko. / Markosen beharzen bada, Artikutzan da. / 2. du ad. 1. Lanera deitu, 2. Hertsatu. Artikutzako puxka honetarako behartu dute Xardea, guk lanik ezpadugu, ta berorri gaztigatzeko esan dit. / Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut, ta mandazaiak ere orobat, iratzea dela, artoa dela, guziak badabilza. Fortalezakoa behartu ezkerro fronto halere.*
- behi iz.** *Behiaren mandatua egitea nahi badu egiñen diot. / Lau egun behiekin ebilliak eta kontu honetan bealzeko esan dit...015 pezetas. / Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua.*
- behinzat lok.** *Aurrerako orobat beharko da itzaienzat behinzat. / Baño ola-jauinak hoiien eskutik hartu beharko dute mea, ta meakariak hoiiei entregatu; hala nahi bide dute behinzat jabe hoiek. / Biziro ez dut harrapatu, eta Markosek esan dit hark dakiela zazpi espensa behinzat badirala. / Egun ere juan ezpagiña, bi gurdi behinzat [g]utxia]go izanen ziran. / Erretazoak 24 kuartilluan gelditu dira. Esamiñetan allegatuko etzirala, batzuek behinzat, aditzen nuen. / Lau edo bost kintal tretxu beharko dira behinzat. / Hemen bost orga behinzat badira.*
- behiñ, beñ adb.** *Behiñ noski «lau urretxiki» esan du. / Mearik zergatik etzen, burniarenzat añadimentua emanen zuela esan zitzaizen beñ, ta ordukoak ditu sei kintalek.*
- beiti adb.** *Behera.<sup>12</sup> Basorik ontxoena da hau Eraringo ixidutik beiti. / Beste (puska) bat Oielekutik beiti...500. / Hononzean ardia Oielekun hartu ta, guziak kargatuak, beiti etorzeko modua da. / Iñork egurra eramateko, peligran egurrik Oielekutik beiti da, karraiadoreak hutsik heldu diranean karga bailitezke. / Ikus bera sarrera.*
- beko adj.** *Bekoa erdi bana dugula goian puxka bat hartuko nuke. / Erariñan beko errekatik Jeronimori iduriak ematen...4 cargas. / Hoiek despeitu ditut ez gehiago ekartzeko beko meatzetatik. / Kanpoko la[n]gillekin sarri beko galzadan litzake gure lur puxka, eta olatxean den artorik txarrena beko begira egondu giñan honetan dago, baño maneatzeko beti bekoa errazago da; goikoak aitzurraz egin behar du lan guzia, baño bekoa lañaz irauli diteke. / Mintegizarretik Otsamintegira ta Zaldirindik suertearen*

<sup>12</sup> Goizuetan *bétti* 'behera' eta *gótti* 'gora' egun. Mitxelenak (1960: 91) honela dio: «*El suf. -ti*. Otro caso de restos aislados es la desinencia *-ti*, conservada en *gotti*, *betti*, con valor de alativo».

*beko muturrera yorrada bana itxola. / Orañ familia txikiak heldu diran kasoan, nahi badu eman beko gañerako hau, edo gañerako honen erdian behinzat, berorrenan egonen da.*

**beldur** iz. *Egun gaztigatu dut, anaiearen karta ekusita, dirua fa[l]ta dela, baño goizean ekarri ditugu diruak, ta kontatu gabe, mutillak meza huts egin dezan beldurrak, bealdu dut. / Egun goizean olatxoa ez dugu hasi, tre-txurik bealduko ez duen beldurrak, jaiardia nola baitzen hasi-ta lana eskastuko dela.*

**bele** iz. *Belea izengoitiaren oinarrian daukagu. Luis Beleari eta irundar Pellori idurikatan 2 días.*

**bellon.** *Ikus erreal.*

**beltz** (behin), **belz** (arruntean) adj. *Beltza. Euriak garbituta orañ metal belza dute nasia / Gurdia bat zuria ta bestea belza ekarri zituen, ongi berezi gabeak; ta gañerakoak ongi berezirazi norbaiti ta ekarri ditu, baño mea beltz txarrak dira. / Guzia txea eta lur kolorea zuen meak, eta orañ euriak garbituta agertu zaio metal belz zakar hau. / Xilitarrak ateratzen orañ ari diran meak lengoak baño belzago ematen du. / Ikus mea beltz, mea belz sarrera.*

**bentajatu** adj. *Abantailatua. Guretan halako bentajaturik bat ere ez, eta erre-kusik ere bat besterik ez.*

**beñere ez** (edo **eziñ**) adb. *Sekula ez. Otsoaneko Sebastian, berorrek agindu diola burniai tiratzeko, ta beñere ondolik eziñ kendu dut. / Ta bitartea maisukabi bat sartuko ez du beñere.*

**bera** det./izord. *Antonio maisuak eskatzen du beretzat 10 pesos. / Berai ezin emanen zaie; dirua duteño zabarrak izanen dira. / Berak uste du gelditu zela zor hamasei ezkutu ta errealen batzuek gehiago. / Berenduaz ez didate berak deus esan, ta nik ere ez. / Biziro bera «Lezo» esaten dioten batekin ari da. / Gaztigatu du hartu baño lenago, baldin berok preten-ditzen badute, nola nahi lukean. / Lengo basoan mutill honekin berare-kin: 76 cargas y 3 lepalotuas. / Mutill horrek berak 5 libras. / Oiarzunan bertan lau orgak hiru pezeta, alkateak bi ta eskriboak bat. / Olatxoan berarengat erre zen...0032½ cargas. / Zer den Andresek berak gaztigatu-ko zuela esan zuen.*

**bera** adb. *Behera. 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan para-tuko dutela, nahi duenak hartu, ez dutela berago jaitsiko esan didate. / Sanjuanen anaia Baltasar da esaminadore, ta esan dit atzo hemezortzi-an gelditu zela, ta gaur jatsiko zela hamasei edo berago. Ta alkateai ez dio-tet deus esan, agian jatsiko dutela berago. / Ikus beiti sarrera.*

**berau** adj./izord. *Hagitz presumitua da au berau ere. / Sarobeko nagusi honek dio berau etorri gabe bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola lenbai-len. / Sujeto hau berau izandu omen zaio Aldakokoari.*

- berantetsia** egon *da* ad. *Domingo Etxabe gaur bederatzitako etorzekoa da karromatodunai burniak ematera; berantetsia nangoan zer egin behar ote zuten, ta atzo eguerdian mutill bat bealdu du, gaur etorriko dela.*
- berdin** adb. *Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak. / Garatekoak mea ateratzen ari dira, baño Karraio lengo egunetan ez da ebilli; artoak bildu ta itxe lanetan aritu da berdin, aisa ekarriko duela haiek atere ala. / Gaur Errenterian pillota yokoa da-ta, arratseko etorriko direla joanak han dira, berdin lanak akabatuko direla ostiral arratseko.*
- berdinu** *du* ad. *Adarrak garbitu, adaxkak-eta kendu, kimatu. Egurra botatzen...04 días. Itzaienzat berdinzen eta itzaiak kargan...04 días. / Isasolara eramanak badira egurrak ordañatan...22 leras, eta hoiien botatze-saria eta berdinzea tokatzen zaio Kaperori.*
- bere, beren** adj. *Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamal Lauren kontua berenak nahiko dituzte horiek. / Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik oñeko miñak, ta bere kontua eskatzen du. / Lagun batzuen txartela, batek edo bik hartu beren buruan ta guziak horrara eziñ ebilliko direla.*
- bere gisa.** *Ikus gisa sarrera.*
- bere hola** adb. *Hola-hola, holaxe, dagoen-dagoenean. Ta gañera olarena Martiñek bere hola eman zuen obra honetarako 312 beso a 1½ reales besoa. / Ikus hola sarrera.*
- berehala** adb. *Artikutzako itzaiak dira gehienak, ta pagua beharko dute berehala. / Esan didate Sarastik eta bere lagunak berehala egiñ behar duela. / Espensan berorrek deskita egin badu, ganzen dirua bealzeko berehala. / Orañ berehala presarik ez da, orañ gaia erosi ta geroxeago egiñen dugu. / ...ta 9 lineako kuadrotik hiru artoa berehala behar litukeala.*
- berendu** iz. *Atsalaskaria. Berenduaz ez didate berak deus esan, ta nik ere ez.*
- berezi** *du* ad. *Bereizi. Gurdia bat zuria ta bestea belza ekarri zituen, ongi berezi gabeak.*
- berezirazi** *dio* ad. *Berezirazi. Gurdia bat zuria ta bestea belza ekarri zituen, ongi berezi gabeak; ta gañerakoak ongi berezirazi norbaiti ta ekarri ditu, baño mea beltz txarrak dira.*
- bergamazo, bergamazoí(a)** iz. *Burdinoletan egoten zen pareta, hauspotegiko hauspoak ondoko suteigiko berotasunetik babesteko. / Antokok 4 pezetas y 6½ cuartos, bergamazoíakoa gañera. / Beste gau batez bergamazoia erori ta goizean, egunaz egin zen. / Ingudearen sartu-aterrea, bergamazoia egitea, boba eskatu ta bobatzea. / Josepe igeleak badu egun bat bergamazoan ta maxukoa.*
- berori.** *Begirunezko trataeran erabiltzen den izenordaina. Indianoak gaztigatu dit parte nahi lukeala suertetik, ta nik gaztigatu diot berorregana eskribi dezala. / Nik esan diot berorrekin konpon dedilla. / Ola handiko*

- espensarenzat leneko hillean berorrek pagatu zituen 34 panes. / Ola handiko hoiek horrara etorri behar dutela diote, berori honara heldu ezpada. / Ta berorri ere, nahi badu, aterako diotela ekusteko, 200 kintal edo.*
- berotu** *da/du* ad. *Haizarka honek haizerik ez du batere, eziñ berotuz burnirik hemen ari dira, erdiak erre eta beste erdiak berotu gabeak. / Haizarka honetan beti maxura da; burnirik ezin berotu da, aldetatik puska dariola. / Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik oñeko miñak, ta bere kontua eskatzen du.*
- berotzale** (behin), **berotzalle** (eskuarki), **berozalle** (behin) iz. *Burdinolako lanbidea, burdina mailukatzeko berotzen zuena (ustez). A M. Mitxelena dioskunez (a.a.), olatxoko langilea zatekeen. / Berotzalle berrixkoa izan laiteke; noski, orañik gaztea da, baño maisukoan ere ongi samar ari dela diote. / Hemen ari diren berotzalle Martin, Markos ta Manuel Ignazio, hiruak diote [...]. / Iskaluk ta bere lagunak berotzalleak bealzeko. / Maisua ta berotzalle hau ere galdaka daude deus ageri den. / Martin berozalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen, Errenteriarra eta Ereñazura jua gabe gelditu dela berorren zalanzen. / Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin bakoitzak bere nagusiari aditzera emateko.*
- berrehun** zenbtz. *Juan Migel Aranguangoak esan omen zion apaizari, pagoak kandelatu behar zutenean, nola behar zuen berrehun bat karga ikatzen basoa. / Olatxeko gizonak berrehun ziri egiñak ditu ta haienak.*
- berri** adj. *Aizkora alzairatzea ta arraztelu bat berria...4 pezetas y 17 cuartos. / Goizaringo aizkora bat berria ta bestea alzairatzea...03...25½. / Irundarren basoko hasi berri honek...4 duros. / Olatxoko tobera galdua dago ta lana dago orañ berria egitea ere. / Tobera erre da. Moztu ta esturirik sartu dugu; berria beharko da.*
- berri yakin** *du* ad. (genitiboarekin). *Zerbaiten gaineko informazioa izan. Gañerakoen berri berorrek jakinen du zen (sic) eman duen. / Gobiernokoen berri badakiela ta berorrek ere egon behar duela. / Manuelek berak ere badaki pretensio honen berri, baño mandaturik ez du noski egiñen.*
- berrixko** adj. *Berrikara. Berotzalle berrixkoa izan laiteke; noski, orañik gaztea da, baño maisukoan ere ongi samar ari dela diote.*
- berriz** 1. adb. *Berriro. Bitartea nahi duena egin du, eta orañ honekin dugu berriz kontua. / Eskriboak esan diote hurrango jaiean aterako dutela berriz kandelara. / Eta erruda honek berriz makoak bota ditu, ispia guziak zuzitu ta galdu zazkio, ta urak kenduta hemen ari gera. / Ta hark zer egiñen duen bada esan dit, alkateak egiñ behar duela, ta firma hutsa egiñta bealdu du berriz hark. // 2. lok. Aldiz. Ogi urria da ta hemengo errotatan, berriz, dirua eskuan duenari merkexego, ta kreditara nahi duenari gehiago pagarazitzen diote.*

- berrogeita hamasei** zenbtz. *Hoietaz gañera, azkeneko berrogeita hamasei kintaletan juan dira 84 libras.*
- bertako** adj./iz. *Orañ bertakoakin kunplitu omen dute, ta honara hasiko dire-la orañ berehala obligazioa pagatzen.*
- bertan** adb. *Lengoan ere olan eskasak genituen bi orgak bertan kunpliturik bealdu genituen. / Oiarzunan bertan lau orgak hiru pezeta, alkateak bi ta eskriboak bat. / Olan bertan etziñ daiteke, nahi badute.*
- beso** iz. *Luzera neurria. A. M. Mitxelenak dioskunez (a.a.), bi oin zituen besok. Aldakoko nagusiarena ekarri dugu lata, 180 beso. / Jose de Aranbururi ola pagatu diot 18½ beso 006...28½. / Ola erre zeneko gastuetarako 106 beso lata...15 pezetak. / Martiñek bere hola eman zuen obra honetarako 312 beso a 1½ reales besoa. / Martiñen ola zen 312 beso a 1½ reales...468 reales. / Ola. Kastatu da 30 beso...11 pezetak y 8½ cuartos.*
- beste**. *Andresek nagusiari kontatu besterik ez du. / Arandederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko. / Bat 440 karga, ta bestea 220 karga. / Beste astean erre beharko dugu. / Ekarriak badira 171 quintales, ta hoietatik 27 kintal ez besteak itzaiak ekarriak. / Hamabi egun ez besteak gazde honek pasatu ditu. / Hark honara baño bestetara nahiago luke, noski. / Iriña [...] orañik hemen hoge pezetan dago errotatan. Arandederrean bestetan ez da horregatik. / Len ere aspertu giñan harekin, gezurra ta iskanbilla besterik ezta hura. / Markosek hoge ezkutukoren bat besteri kendu diola. / Niri bestek oranik eskatu ez dit. / Sisto hori bealzeko, besterena duela ta. / Suertean iduriak bataren basotik bestera...2 cargas.*
- bestela** lok. *Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeko esan bizaioite, ta bestela burniaz kargatu ta gañerakoak Zaria aldeko ikatz haietara bealdu. / Nahi badu, horrara orobat etorriko naiz; ta bestela, honara heldu denean. / Orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze alde-*ra-ta*, edo bestela karraidoretan kontuan pasatzeko. / ...*ta* esan dio Sarastik borontatez aitaren zorra pagatu nahi badute haiengan dagoela, ta bestela, borondatearen kontra aitaren zorrak eziñ geldi dezakeala amaren seniparte.*
- bete** *da/du* ad. *Abonatu beharrak ditu Munoakoak 150 kintal mea olara ekarriak, taia bete ta asentuak nauzkien. / Ganbaran ere orañ puxka bat hostoak abitzera egiñ da, baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz.*
- beti** adb. *Ametitzen balute beti izaten dela zerbait. / Dirua eskuan izatea kostatzen da; hoge ezkut[u]ko bat behar dugu beti iduki. / Hark dirua hartuaren erreziboa ematen du, ta gañerako ardatzaren ta bigarren alkabalen kontua atzera beti geroko. / Martin berozalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen, Errenteriara eta Ereñazura juan gabe gelditu dela berorren zalanzan. / Paretaren arretarik ez du orañik iñork harzen; egonen direla edo luzapidea beti.*

- betun** iz. *Betun harria ekarzea zenbat nahi duen eman, pagatzekoa dago. Ta eraman, Seingoak entregatuko al du! Behar omen du betuna egiteko.*
- betun harri** iz. *Betun harria ekarzea zenbat nahi duen eman, pagatzekoa dago. Ta eraman, Seingoak entregatuko al du! Behar omen du betuna egiteko.*
- bezala** 1. alderaketako menderag. *Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña. / 2. kausazko menderag. Ta yoanen badira puskak eraman beharra izanen duela, eta bereak dituen bezala eraman ditzala esan diogu. / 3. moduzko menderag. Len aldiazka bezala orañ guziak batean. / Orañ Motela horrara heldu denean konponduko da nahi duen bezala. / Txartelak dion bezala 670 reales. // 4. adb. Goiti-beheiti. Bean 400 karga bezala Batistarena bi aldetatik duela. / Beste sei puskak bi aldetatik nasten dira hiruna porzio, milla bana karga bezala bakoitzarenzat. / Eta bestela lau onza bezala luzeagoak beharko dute. / Hoiek dirade Ziburura bealduak, ta orañ txabal txiki honetatik orgaren bat bezala dago egiña.*
- bezalako** menderag. *Gabrielek ta bere anaieak orañ ari diran meatzetik aterea da, orañ heldu den bezalakoa, ta Gabrielelek esan dit, orañ kisulabeak erretzera diboaz bi anaieak aste honetan ta bestean.*
- bezañ** menderag. *Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean orantxe etorri da. / Nondik-nahi saiatu ezkerero ateratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen. / Zazpi urte da sartu zirala askak, eta bestea aska sartu zenean bezañ ona dago orañik.*
- bi** iz. *Bihia, alea, pikorra. Bidasoron ez dutela artorik emateko esan didate; diruarekin alea edo bia billatzekotz Fagotxikira ekarri beharko dugu dirua.*
- bi** zenbtz. *Izenaren aurretik nahiz atzetik ager daiteke. Ariztxulegitik ere sarzen da bederatzi uztarriren kontua kabiguñ birekin. / Bi kabiguñ olatxokoak. / Borra ta palanketa bi. / Errebesena dago emateko bitatik batean, baño anitz eskatzen du. / Erreterian mea garbitzen ari diran oiarzuarrak eman ditioztet bi pezeta. / Hoietako egun bat ingudeari zamar bi emanta paratzen pasatu zuten. / Izandu gera biak Sarastirengana. / Lagun bartzuen txartela, batek edo bik hartu beren buruan ta guziak horrara eziñ ebilliko direla. / Leteko andrea hemen izandu da, semea gaizki daukala ta letra bi egiteko. / Olatxoko kabiguñ bat ta bi traba. / Tobera bi Hernanira bealzeko. // Enumerazio bateko bigarren kidearen ordezkoa. Franzisko Antoniok-eta pretenditzen dute olaetxean bizitzea, eta niri neskatxak eta biak esan didate berorri mandatu hau egiteko.*
- biaje** (hirutan), **beaje** (behin) iz. *Bidaia. Bijaie bat Hernanira, beste bat Goizariña ta beste bat Añoara. / Sei egunekoak ditu 13 semanas y 4 días, ta pezeta batekin Añoara toberarekin bijaie bat. / Zergatik batzuek gutxi dute, ta gutxigatik ebillzeko bijaie luzea-ta. / Ziburura bi beaje gañera.*

- bide** iz. 1. Bidea. *Gazt[el]u alde honetan, ta Ariztxulegira goazela, bide azpitik hiru yorradako tokia da urrutinekoa. / Itzaien bideak egin dituzte, erdia abonatzeko, ta tokatzen zaiote erdia...9 pezetas. / Lesakako bidean dabilzan guziak burlaz daudela, hemen daukagu, kamioko bistan. / Ta idienzat lera bidea egiñaz hasi gera. / 2. Modua, aukera (bide 1-en irudizko erabilera). *Eta olaren errentaren erdia, hura badere, al badu lenbailen beal dezala, iñondik ere dirua ateratzeko biderik ez daukatela. // 3. Aditz partikula. *Baño olajaunak hoiien eskutik hartu beharko dute mea, ta meakariak hoiei entregatu; hala nahi bide dute behinzat jabe hoiek. // 4. «Atzizki»-edo bihurturik edireten dugu: *aurrerabide, kasta-bide; ikus sarrera hauek. / Toponimian ere agertzen da: *Arbide, Ariztxulegibide, Arranbide, Bidemakota, Oiarbide...*****
- bide egin, bideak egin, bide gin** du ad. *Bost egun baditu ikatzketako bideak egiten pasatuak, basotatik kanporako bideak konponzen. / Ekusi beharko zaio zerbait iñoiz gertatzen denean, ta bide giteko lana ere aparte beharko da. / Lorreko hagari eta bide egiten...2 días.*
- bide egite** iz. *Bide egite gaistoak daude; gaitzena egiñ da orañoan.*
- bideak konpondu** du ad. *Bost egun baditu ikatzketako bideak egiten pasatuak, basotatik kanporako bideak konponzen. / Erdaraz componer caminos ageri da honen baliokidetzat.*
- bigar** adb. *Bihar. Arotzak bigar dira olara etorzeokoak. / Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela. / Bigar edo hurrengo egunen batean hor etorriko da bera, Andres. / Bigaroko ogiak ere sartuak dire. / Gaur ez bealzekotan, bigar ez bealdu neregana dirurik; bigar herriraño agertu behar nuke. / Lasterrenaz ere bigar arratseko erremienta paratuko dugu. / Ikus gaur-bigarretan sarrera.*
- bigarren** ord. *Bigarren egunean eguerdi ondoan hasi ziran. / Hark dirua hartuaren erreziboa ematen du, ta gañerako ardatzaren ta bigarren alkabalararen kontua atzera beti geroko. / Orañik bigarren tretxua zuten, ta kamañara juan, lanaz kasorik egin gabe.*
- bigarren** adj. *Bigarrenegoan...2.000 (cargas). / Lenbiziko arragoako zor dena...111 pezetas y 32 cuartos, bigarrenegoa...072 pezetas y 6½ cuartos.*
- biharamunean** adb. *Gurdi bat besterik etzen hemengorik, ta biharamunean gero gañerakoak hurnitu ziran hemendik. / Lorenzo Zabalak, egitera etorri zenean, ingudeari su eman arratsean, ta biharamunean arratseko hasi ziran. / Markos hemendik juan zen 13 de nobienbrean, ta biharamunean hasi zen Juan Antonio haren partez.*
- bihorzeko** iz. *Bi hortz dituen lanabesa, sardea bezalakoa. Mea zare bi ta bihorzeko bat pagatzeko.*
- bildu** da/du ad. 1. *Jaso, batu. Arranbidetik hiru orga ere dolorez bildu ziran. / Artoak bildu ta itxe lanetan aritu da. / Gazteluko errekan bilduak ditu*

*meak...26 quintales. / Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeco esan bizaiote. / 2. Elkartu. Andresi eman diot karta goizean, ta esan dit meza esan ta Konsejura bilzen diranean guziakin egonen dela. / Astelenean bildu ta ingudeari sartu-aterere eragin genion arrats artea. / Igele goizuetar hau ere sanmartiñetan Hernanira omen dihoa bizitzera; gogo handirik ez du honek ere honarako. Egun bildu dira.*

**billa** adb. Eske, xerka. *Munoakoa ta Garatekoa ta hiruak illundu-ta etorri ziran paper billa, ta presaka ez dakit zer egiñ nuen ere burnian.*

**billatu** du ad. 1. Bilatu. *Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu. Kabitegia kendu dugu ta katuak ere bai, ta maisuak dio endal harri bat sartu behar dela, harria billatuta, ta zepotillu bat ere bai. / 2. Aurkitu. Itzairik eziñ billatu, ta bi orga kuadro hemen daude orañik, ta Lamotheke ez bealzeko gehiago gazingatu du. / Len ordañakoa franko izaten da han dabilzan haietan, baño orañ, guziak behar diran honetan, ez da hañ aisa billatuko. / Mikelestorenak (1751) arquitcen diran guciei (25), arqitu dut, arqitutu nai nuena (34), arquitcen zaran (74) dauka. / Ikus arkitu sarrera.*

**biña** banatz. Pare bat aldiz bakoitza-rekin batean azaltzen da: *Bost ola handikoak badute biña erreal bellon bakoitzarenzat. / Bost olakoak hartu dute frailearenzat bakoitzak biña erreal bellon. / Esaminadorea ta guardamuntea botatzeko denboran han izan beharrak dira biña egunetan. / Guri tokatzen zazkigun hiru puskek egin ditugu biña puska. / Lau ofizialeak biña egun badute ordukoa. / Beti izenaren aurretik azaltzen da; erka bedi bi-ren jokamoldearekin. Ikus berebat bana-n dioguna, aldi bateko baña aldaeraren kariaz, eta Zelaietak (2008: 99) morfema banatzaileen eremu banaketaz dioena.*

**biñakako** adj. *Hogei pezetako bat ta urretxikiak biñakako batzuek.*

**bistan iduki(tu)** du ad. *Ikusi, begien aurrean izan. Bizenteren hau, Lesakako bidean dabilzan guziak burlaz daudela, hemen daukagu, kamioko bistan.*

**bitarte** adj. *Ez handia ez txikia ez dena. Hemen olan ere badira tretxu txiki abarrekin egiñak txabal bitarte batzuek. // iz. Tarte. Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan, ta lurrak iraulze bitarte honetan ebilliko dira, baño eskuetara begira baitaude.*

**bitartea** adb. Bitartean, bitarte, arte. 1. Denbora. *Astelenean, arratsaldean, haspoari tiratu zitzaion, ta bitartea guk yaten eman. / Semea orduko pizkortuko da, ta bitartea pago bat edo bi ekarriko ditugu zerratzeko. / Ta errespuesta igande bitartea nahi luketela. / 2. Lekua. Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira, pagoak eta haritzak bota ta haien buruak. // menderag. Tretxu hoiek egiñ bitartea kuadroak egiñ ziran 21 quintales.*

**bitarteko** adj. *Ostiralean eziñ datorkeala, ta bitarteko egun hoietan noiznahi etorriko dela, gazingatzeko noiz nahi duen etorzea horrara. / 23 de febre-*



- ro de 94 ezkeroko kontua eman nion berorri, Joxerena 19 de diciembre de 95 bitartekoa.
- bitatik batean** adb. Aukeran, hautara (ustez).<sup>13</sup> *Errebesena dago emateko bitatik batean, baño anitz eskatzen du.*
- bixki** iz. Bikia, bibiroa. *Orañik dozena baña (sic) urte dute zarrenak, bixkiak dira.*
- bizi** iz. *Kontuak egiñ behar genituke, hillak ta biziak gera, jakin dezagun nola gauden.*
- bizi izan da** ad. *Franzisko Antoniok-eta pretenditzen dute olaetxean bizizea. / Goierriarak dira Erreterian ta Lezon bizi diranak. / Igele goizuetar hau ere sanmartiñetan Hernanira omen dihoa bizitzera. / Olaitzolan bizi den Patxiku Kaspar honek esan dit.*
- bizkar** iz. *Antonio de Mitxelenak ditu 34½ karga ikatz bizkarrean ekarriak, olaren ondoko basotik. // adb. (genitiboarekin) -en kontura, -en lepotik. Bi burni ziri Buruzuriari eman genition Señoak aginduta, 17½ libras, eta hoiek berorren bizkar.*
- boba** iz. *Gabia mugitzeko olako peza, uztaiaren edo eraztunaren antzekoa, gabi igunean sartua zegoena (gaztelaniaz boga deritza; ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 240 eta gerok 1806.02.10eko gutuneko oin oharrean dioguna). Boba eskatu egin zen, ta bobatzen agoaren bat edo gexeago bezala galdu zen. / Ingudearen sartu-aterea, bergamazoia egitea, boba eskatu ta bobatzea. / Kabiguña boban eskatuta lotu egiñ dute. / Kabiguña sartu berria ta zarra, hautsi baño len, boban eskatu ta bobatu ere bai.*
- bobatu du** ad. *Boba ongi paratu (ustez). Boba eskatu egin zen, ta bobatzen agoaren bat edo gexeago bezala galdu zen. / Ingudearen sartu-aterea, bergamazoia egitea, boba eskatu ta bobatzea. / Kabiguña sartu berria ta zarra, hautsi baño len, boban eskatu ta bobatu ere bai.*
- boka** iz. *Toberaren irekidura zabala eta estua (ikus bedi Urteaga, 2000: 73-75).<sup>14</sup> Olatxoko tobera galdua dago ta lana dago orañ berria egitea ere. Ola handitik aritzeko modua berehala paratzekotz, atera ta puxka bat estutu dugu bokan, baño eskarpa dauka errea.*
- bolbora, polbora** iz. *Bolbora balute Eguerritako milla kintal egiñen luketela diote. / Garatekoak bolborarik eziñ arkitu dute. / Garatekoak ere geldirik daude polboraren faltan.*
- boneda** iz. *Txanpona (gaztelaniazko moneda). Diru hau, gildudan (sic, 'gelditu dudan') boneda, da zorzi onza, lau zarrak eta lau berriak, eta 17 pezeta.*

<sup>13</sup> Ikus 1802.03.26ko gutuneko oin ohar batean dioguna.

<sup>14</sup> A. M. Mitxelena goizuetarrari eskerrak eman nahi dizkiogu lan honen berri emateagatik.

- borda** iz. *Nahi badu beren itxe txarrean urteren bat iragoko dutela gehienaz ere. Eta borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko. / Gutunotan Bordatxo izengoitia zuena azaltzen da; ikus onomastikari eskainitako atala.*
- borondate, borontate** iz. *Izandu gera biak Sarastirengana, ta esan dio Sarastik borontatez aitaren zorra pagatu nahi badute haiengan dagoela, ta bestela, borondatearen kontra aitaren zorrak eziñ geldi dezakeala amaren seniparte. / Ikus 1801.10.25eko gutunean dioguna, bikoiztasun honen inguruan.*
- borra** iz. *Mailu handia. Borra bat zulatua ta maneatua...0 arroba, 17 libras. / Burnia hartu du; 9 pezetas y 3 reales balio dute. Borra ta palanketa bi. / Ignazio de Olaskoaga, borra gaia 28 libras...07...0. / Pedro Ignazio de Ibarburuk bi borra gaia 30½ libras.*
- borra gai** iz. *Borra egiteko ekaia. Borra gaia hartu dute...12 libras. / Ohart bekie aitzineko sarrerako borra gaia-ren bi adibideei.*
- bost** zenbtz. *Bost olakoak hartu dute frailearenzat bakoitzak biña erreal bellon. / Hoietarako hartuak ditu bost urretxiki zar ta hamar ezkutuko bat. / ...ta eskatzen dute Oiarzungo olatarako aste bost pezeta.*
- bost ezkutuko** iz. *Diru baten izena. Eta errespuesta eman dit berorregandik bost ezkutuko bat besterik hark hartu ez duela. / Ikus ezkutu, hamar ezkutuko eta hogei ezkutuko sarrerak.*
- bost pezetako** iz. *Diru baten izena. Pello Itxeberrikoak ez du bost pezetako baten kreditarik lagun artean. / Ikus hogei pezetako eta pezeta sarre-rak.*
- bostgarren** ord. *Bostgarrena Otsandola...4.500 (cargas). / Lau lantegi hoiek tantai hutsak, eta Josepe Lekunak bostgarrena.*
- bota du** ad. 1. *Jaurti, erori. Eta erruda honek berriz makoak bota ditu, ispia guziak zuzitu ta galdu zazkio, ta urak kenduta hemen ari gera. / 2. Hondatu, erorarazi. Martin egun etorri da bost lagunekin, ta erruda eskatzen hasita gezurraska goiaz erori da, seguratu gabea zegoen-ta, eta pareta yota puska bat bota du. / 3. Moztu (basoa, egurra, zuhaitza). Basoak botatzen hasi gera eta lengo hamar ezkutukoaren gañera behar-ko dira 6 edo 7 ezkutu. / Botatzeko denbora da eta egurzaleak gogotik ari dira. / Egurra botatzen...04 días. / Juakin homi lagunak ez dio utzi nahi basoa botatzen, lengoa egiñ behar dutela. / Kabiguñak ere eskatu gabe botatzen genituen orañdañoan, ta memorialarekin eskatzeko esan didate arbola bota behar den guzia[n]. / Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira, pagoak eta haritzak bota ta haien buruak. / 4. Pasatu, kargatu (ordaintzeko zerbait). 19 kargaz gañerakoak herriak jaso ditu ta karretoak pagatu, baño ikatzgillearena guzia honara bota dute.*

- botatze-sari** iz. Egurra egiteagatik, zuhaitzak botatzeagatik ordaintzen dena. *Isasolara eramanak badira egurrak ordañatan...22 leeras, eta hoien botatze-saria eta berdintzea tokatzen zaio Kaperori.*
- bote(a)** adj. *Besteak gaistotzat botetan bilduak ote diran nago. / Esan didate olatxorako goiara Erariñan badagoela, haizeak botea. / Primaberan botea izandu da orañdañoko egurra. / Hemen beharbada hiztegi mailatik kanpoko gertakaria dukegu, morfonologian sar daitekeena; erka bedi atera / aterea parearekin, honen eta bota / botea-ren egoera bera ez bada ere, bikote haren kasuan atera eta atere bizirik baitzeuden 1800 inguruan eta bizirik baitaude egun. Ekialdeko ateraia, botaia-ren parekoak dira aterea, botea hauek.<sup>15</sup>*
- botea libre**. Esamoldea. Eskatzea libre baita, zernahi eska baitaiteke. *Ta Motelak eskatzen du, botea libre, pezeta bat plazeria. / Uegunek esan dit berorri gaztigatzeko enborretako hau, botea libre, ~~hartu~~ nahi badio eman, hartuko duela 5½ relean.*
- boto** iz. *Aurten zein bealdu edo nola gobernatu dutela demanda puxka bat elkarren artean ta laster egiñen dutela; guziak boto banako jendeak izanen dirateke hoiek.*
- braka** iz. Praka, olako hauspoen (larru) zatia. *Haspoak eginta gelditzen dira osorik bi braka eta bi ijada, eta larru berrian saihetsak hamar puska.*
- bueltan** adb. Gibelatekoan. *Añadimentua 21 kintalena, zergatik bueltan mearik etzen. Agindu zitzaion 10½ reales.*
- bular** iz. Paretako bularra. *Enforru hoiek eta bularrak eta alderdi guziak konpondu beharrak dira. / Ikus enforru sarrera. A. M. Mitxelenak (2020b: 228) anteparabular jasotzen du, baina irudi du gure testuan bularrak beste nonbaitekoak direla, arragoako paretakoak segur aski, ez antaparakoak.*
- burkaitz** iz. Erroitza, amildegia. *Lantegi baten basoa suertean ematekoa dugu orañik; burkaitz gaistoa da-ta eziñbestean hartuko dute, noski.*
- burkall** iz. Harria, haitza. *Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau ez jakin egiñen duten.*
- burlaz egon da** ad. Trufan ari izan; trufatu, iseka egin. *Lesakako bidean dabilzan guziak burlaz daudela.*
- burni ziri** iz. Burdinazko ziria. *Auztegiko hargiñak burni ziriak 21½ libras...05...1½. / Bi burni ziri Buruzuriari eman genition Señoak agin-*

<sup>15</sup> Goizuetan atere / ateri / atera erabiltzen dira egun, hirugarren forma menturaz guxtiena. Tankera honetakoak dira, halaber, falta / faltea eta pasa / pasea (pasatua gehiago ibiltzen da). Ikus Mitxelenak (1960: 92) honetaz dioena eta Lakarrak, Manterolak eta Seguroak (2019: 56, 92) atere-z eta bete-z hitz egitean diotena.

*duta. / Bi burni ziri ta palanka...36 libras. / Eta hoietatik herreroak eramanak ziran 3 arrobas y 8 libras eta burni ziri bat. / A. M. Mitxelena (2020b: 109, 241) Elamako dokumentazioko hau dakar: «tres barritas o burnincirias». Ikus ziri sarrera.*

**burnia, burni** iz. *Burdina. Anatxuriren perrazalleak eskatzen du perra burnia. / Iturriotzko perrazalleak kintal bat burnia...37 pezetas y 17 cuartos. / Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituena bigar agertuko dela Oiarzuna. / Ta juan naiz ni ere itzaiaz modurik izanen ote den burni hoiek eramateko.*

**burnia tiratu du** ad. *Ikus tiratu sarrera.*

**burnitxo** iz. (*hierro menudo* erdaraz). *Olan egiten zen burdina meharra (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 159, 240). 12 quintales badira Erreterian ta olan, ta tretxu txikian, hoiekin burnitxo meharragoa ez egitekotz, labur geldituko da. / IBren gutunetan burnitxo dago, n-rekin.*

**buru** iz. *Lagun batzuen txartela, batek edo bik hartu beren buruan ta guziak horrara eziñ ebilliko direla. / Len egiten ari geran hoien buruan ta Ariztxulegirañoko honetan guzian aritu dira esamiñatzen. / Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira, pagoak eta haritzak bota ta haien buruak.*

**buruko** adb. (genitiboarekin) -en buruan. *Ta esan omen dio orañ etorri dela ta ez dituela despatxatu paperak, lau egunen buruko Oiarzungo komesarioaren itxera bealduko dituela faltarik gabe.*

**buztandu** 1. *du* ad. (Tretxuak eta) *luzatu-edo. Endara etorri da eguerdi ondolan, ta igeleak tretxuak buztanzen ari ziran; orañik bigarren tretxua zuten, ta kamañara juan, lanaz kasorik egin gabe. // 2. iz. Buztandutako burdinak. Hortik etorritako buztanduak erdiak tiratu ta eratsi gabeak, eta beste erdiak tiratzekoak daude.*

**buztanduak eratsi du** ad. *Ikus buztandu eta eratsi sarrerak.*

**buztanduak tiratu du** ad. *Ikus tiratu sarrera.*

**danda** iz. (Dirua) *emateko, ordaintzeko epea. Sebastian de Agerren amarekin egondu naiz ta esan dit mandoa guzia zorra dagoela, lenbiziko danda edo plazoa sanantonetako zutela, baño ez dutela pagatu batere.*

**debalde** adb. *Dohainik, urririk. Hurrengo jaiean aterako dutela debalde ere. / Ta hoiek ta despojourik izaten bada suerte hoietan, memorialean eskatzeko debalde.*

**deklaratu du** ad. *Jakinarazi, esan. Hau Aldakokoak berak esan dit. Sujetoa nor den ez du deklaratu, baño Andres bera izan liteke konponzio hoietan dabillena.*

**deklarazio** iz. *Jakinarazpena. Baltasarrek esan dit hoiek deklarazioa egiñ dutela lenbizikoan 1.500 cargas, kandelan ere hala baitago. / Hoien deklarazioan terziaoa kendu ta heldu da urte bakoitzeko 2.000.*

**demanda** iz. Eztabaida, desadostasuna. *Ta esan didate esaminadorerik nola ez duten, aurten zein bealdu edo nola gobernatu dutela demanda puxka bat elkarren artean ta laster egiñen dutela.*

**dena** izord. *Baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz.*

**denaz ere** lok. Guztiarekin ere. *Ta idienzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta. Alde guzietara ere badago zer egiñ, baño denaz ere, itzaiekin merkexeago da.*

**denbora** iz. 1. Garaia, tartea, unea. *Baso hoiek egitekotan orañ da denbora, iratzea jaio baño len hautsixe nahi lirake-eta. / Endara Artikuzan berorrekin egondu zen igandearrekin, ta honara etorri zen astelenean, 4 de agostoan, ta gerozko denbora larunbat artea du. / Leneko azkeneko bealdu nuen kontu hartan, edo denbora hartakoa. / Ta Franziako burnien karretorako ere len gelditua bada zor 101 pezeta y 8½ quintales, Eguerritako denboran gelditua. / 2. Eguraldia. Arrago egur honetara iñor eziñ erakarriz, beti gabilza egueldi onak utzita. Gero txarrean erre ta portxan etorrira; denbora txarra lera egur onik etorzen [ez] da. / (Baso) guziak aste honetan botatzen ezpadira ere, aurreratuko dira, denbora ona bada. // **-en denboran** menderag. Arrago egurketan elkarrekin ziran denboran ekarriak 55 leras. / Burnia hoietatik zerbait añañdituko zuela mearik etzen denboran. / Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran. / **-tzeko denboran** menderag. Berorrek nekazalen kontua bealzeko denboran bakoitzari len emana gelditua pagatuko nuke. / Maxaleni suertearen ebakitzeko denboran lau egun. / Ola hasitzeko denboran pasatu dute ola prestatzen egun bat.*

**denborazko** adj. Aspaldikoa. *Han dago; Jangoikoak daki norena den! Sarastiren larraña baño ezkerago atera dute denborazko olajauen hondarrak. / Erka bedi denborako izenlagunarekin: Senboll hemen aritu den denborako espensa.*

**dendari** iz. Jostuna (ustez). *Gelditu [ditu]t, berorrek gaztigatu duen bezala, espensenak eta Errenteriako dendariarenak 604 pezetas y 5½ cuartos. / Palazioko mutill hoiek esan didate Errenteriako dendariagan libranza edo txartela bealzeko.*

**deretxo** iz. 1. Zerbait ustiatzeko baimena. *Gazteluko meakariak geldirazi dituzte meatzetan. Deretxoak dituztenak justiziak geldirazi ditu. / 2. Ustiatzen den ondasunak ematen duen dirua. *Orañ hiru urte hasi lanean, ta bi urtetan errenta pagatu, ta aurten beren deretxo batetik pagatu dutela errenta. / 3. Zerga. Eta meatze yabe hoiek alkua pasatzeko asmoak dituzte, eta pasatuko dute berak diotenaz, eta hura pasatu ezkerro mea hobea izanen da, nahiz deretxoa pagatu, eta meatze ona yarri ezkerro meakariak pozik ariko dira, deretxoa berak pagatzen dutela ere. / 4. Aduana zerga. Franziako karretoko deretxoa, badu harzeko.... 20 pezeta.**

*/ Lamothi bealdu zazkio 40 orga guzitara, ta azkeneko hogei orga hoietarako zorzi orgaren deretxoak kargatu behar zazkio 129 pezetas y 12½ cuartos, ta gañerako hamabi orgak berak pagatu ditu deretxoak, ezkutu lodiak neregana bealduaz.*

**deretxoa eman du** ad. *Indianoak, noski, esan diote daudela puxka bat deretxorik eman gabe.*

**deskarga iz.** 1. *Deskontua. Indianoa bigar badihoa juntara, ta beste hoiek eroriko dira edozeñ modutara, ta deskargako egiteko hau ere basoz edo errentan deskitatzeke egin dezake. / 2. Zabortegia (ustez).<sup>16</sup> Eskaleraren aldeak egiñ daitezke deskargan dagoen olatxoko goiara zar honekin. / 3. Karga kentzea. Martiñek pasatu ditu bere lagunekin olaitxeakoaz gañera: mendian... 4 días... 10 pezetas; deskargan... 59 días...118 pezetas.*

**deskargatu du** ad. *Hustu, karga kendu. Arragoa deskargatzen sartu dira olaitxeakoaz kanpora 7 días.*

**deskita iz.** *Deskontua. Ferrak ta leneko harzekoa, deskita burnian...2 quintales. / Matantak omen ditu ganzak horrara bealduak, ta Martin unaiaren deskita nik esan diot.*

**deskita egin du** ad. *Deskontatu, deskontua egin. Ferrak ta lengo harzekoaren deskita egin burnian...2 quintales / Ta espensan berorrek deskita egin badu, ganzen dirua bealzeko berehala.*

**deskitatu du** ad. *Deskontatu, deskontua egin. Burniak deskitatuak...85 pezetas y 25½ cuartos. / Deskitatu ta gelditu ziran harzeko 022 pezetas y 13 cuartos. / Deskitatzeakoak...9 quintales y 3 arrobas. / Indianoa bigar badihoa juntara, ta beste hoiek eroriko dira edozeñ modutara, ta deskargako egiteko hau ere basoz edo errentan deskitatzeke egin dezake. / Migel de Irigoien Munoako mutillak hartu zuen 60 pezeta. Honetarako deskitatu zazkio, orañgo arragoaz kanpora, 51 pezetas y 2½ reales.*

**deskontentu iz.** *Desadostasuna. Azkenean esan dit deskontentua berorrek erakusten badit, kuartillua hark berak pagatuko didala.*

**deskuido iz.** *Hutsa, okerra. Ikatzetan ez omen du errezelarik, baño kontu guzian deskuidorik ote den omen dago. / Nikolas Muxudok burnietan deskuidoren bat duela dio hor. / Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan, ekusi dezala, hark uste zuela gutxiago badere harzekotan zegoela. / Sei lagunean aritu giñan denborako deskuido kargatu behar zaie bakoitzari 5 pezetas y 31 cuartos y 1 maravedí espensa.*

**deskuidoan** adb. *Oharkabea. Gure anaieak deskuidoan gaizki bealdu zuen kontua horra. / Meakariak bazuten 60 pezetas y 7 cuartos, baño aurreragoko kontuan, berorrek deskuidoan gehiegi abonatua.*

<sup>16</sup> Ikus 1802.03.25eko eskutitzean dioguna.

- deskuidorik gabe** adb. Okerrik gabe. *Andresi 36 pezeta esanen diodan edo deskuidorik gabe gaztigatu duen gaztiga beza.*
- despatxatu** du ad. Txostena idatzi eta bidali. *Ta esan omen dio orañ etorri dela ta ez dituela despatxatu paperak.*
- despatxu** iz. Txostena, ebazpena. *Itxea ta lurrak esamiñazi, eta dirua emanak zer diran ekusi. Itxearen ta lurraren esamiñan pasatuko direla diote dirua emanak, eta Iruñetik despatxua atera edo ekarri beharko dugula eskriboak dio.*
- despeitu** du ad. Hoiek despeitu ditut ez gehiago ekarzeko beko meatzetatik, ta goiko meakariak egun hemen ziran.
- despojo** iz. 1. Basoa erretzen denean gelditzen dena. 2. Zuhaitzak bota ondoren, kimatu eta gelditzen diren buruak eta adarrak. *Alkatek, Portuk, esan dit Penaregiko maxterrak omen duela orañik ikatz gai puskaren bat despojo hoietakoa. / Baltasarrek dio eska dezala erre hoietan, badirela igartuko diranak gehiago ere, ta hoiek ta despojourik izaten bada suerte hoietan, memorialean eskatzeko debalde. / Despojoak ez zituen iñork ukitu igandean. / Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira, pagoak eta haritzak bota ta haien buruak, eta orañik ez dira erakutsi.*
- determinatu** du ad. Erabaki. *Olaz orañik ez dute determinatzen deus gobiernoko berriak.*
- deus (ez)** izord. Atzo deus etorri ote zen izandu ziran bi lagun mearekin. / Berenduaz ez didate berak deus esan, ta nik ere ez. / Emakume batek txartela kendu zidan niri, berorri (sic) Oiarzunan zen batean, ta hari deus eman bazion jakiñen du. / Maisua ta berotzalle hau ere galdaka daude deus ageri den. / Ogi egilleai sagardoa salze-sari deus bealdu nahi badiotte; niri ez zidaten deus hartu. / Zerbait esan dit gizon honek, berorrek deus abisatu ote didan kontuen gañean, ta ezetz esan diot. / Ondoko hau berezikara da ('inolako', 'nolabaiteko'-edo da), izenarekin batera doalako: *Eta izan zitekean Andres Indianoak edo gobiernokoak aipatuta juana Salbadorrengana, deus pretensiorik ote zuten jakitera.*
- diferente** adj. *Donostian ogia zorzi kuartoan dagoela esan du Manuelek, eta prezio diferentetan ebilzen omen da, anitz dagoenean merkexego eta gutxi denean garestiago.*
- diferenzia** iz. Aldea. *Badu diferenzia esamiñan lengo eginalditik. / Diferenzia erdira badere, pagatu beharko du, 1.400 ezkutu, ta plantak gañera.*
- difuntu** adj. Zena. *Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten hura ari da berotzalle, len ere hemen trabajatua baita. / Polsero difuntuar[i] 220 urre txiki emantako erreziboa beal beza. / Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan.*
- diligenzia egin** du ad. Izapidea egin. *Eta iñor honelako moduetan basi baño len, egiñen du diligenzia espensa horiena. / Hau kastatuko al dugula eskriboak esan digu, eta Barkazioa sartu baño len egiñ nahi genuke diligenzia hau.*

- diña** menderag. Adina, bezainbeste (-ko, -rako, -tako, -tzeke-rekin). *Bigar goizean gosariteko diña baba da hemen. / Guziak botatzekotzat ere, lengoai partitzeke diña baso da. / Juakin Aketzaren ikatza egun biko diña izanen da, eta hemen besterik ez da, presentean behinzat. / Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezez dio. / (jabego genitiboarekin). Alkate Porturi esan omen zion gurekin konpondu zela, karretoa bark egiteko eta karretoaren diña baño gehiago eramaten bazuen gure karraidorekin bazuela kontua. / Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeko esan bizaiote. / Olatxoan tretxu puxka bat geldituko da, ta honen diña ikatz sortuko al da noski baso zar hoietatik!*
- diru** iz. Artotako dirua errotariari eman beharko diogu. / Basoen dirua ostiralean beal beza. / Diru beharrik ez dute. / Irundar it[z]ai hoiek me[a] asko dakarte. Diruak attu ziran; beharko da zerbait. / Itxearen sensoaren korrituak pagatu ditut diru hoiekin, ta asenta bitza nere kontuan.
- dirutan** adb. Diruarekin (≠ txartelarekin, kreditara), esku dirutan. *Gañerakoak pagatuak ditu dirutan 88 pezetas y 20 cuartos maiokoa. / Txartelarekin ogiak 40 eta dirutan 14.*
- dolorez** adb. Nekez. *Arranbidetik hiru orga ere dolorez bildu ziran. / Itzaiak dolorez heldu dira honara.*
- dotazio** iz. Estratzat ematen dena, enkantean ateratzen denarekin batean (dotación gaztelaniaz). *Dotazioa ematean ta pago partitzean 2 azumbres de vino...01...30. / Dotazioan ikaztogi bat ta Matxinoak bi ta Fermin Okerrak bat atereak dauzkite. / Horiez gañera Olaandituko dotazioan egin da hamabi kargaren entresaka. / Ola paratu dute kandelan dotaziorik gabe; 500 dukat zillarrean paratuta 450 dukateraño etorri zen argia itzali orduko [...]. Iñork hartuko duenagatik, han egonen da bai dotaziorik gabe. / Zertan gelditzen den beste puxka txiki bat ere bada salzuekoa. Txarra da, baño lau yorradako lekuan da, dotaziotako hartuta.*
- dote** iz. Ezkonsaria. *Aitari Garateko doterik ez zaiola tokatzen.*
- dozena** iz. *Dozena bat kintal tretxu badago egiña, ta ola handiak asteko mea eskasa du, ostiral artekoa bezala. / Orañik dozena baña (sic) urte dute zarrenak, bixkiak dira.*
- duende** iz. Pertsona zuria, ez fidagarria (?) (izengoitia ere izan daiteke). *Andresek esan zidan ostiralean errespuesta egiñen zuela, baño aipatu nion duendeaz, baño etzidan aitortu, eta Aldakokoak esan zidan nola Oiarzungo suj[e]to bat jua zaion Txurritegiri ola harzeko. / Duendearenzat Blasek añaditu dio 500 reales, gaur akabatzekotz.*
- dukat** iz. Diru baten izena. *Ola 410 dukateraño jaitsi zen atzo. / Ola orañik 440 dukatean dago.*
- dukat zillar** iz. Diru baten izena. *Ola paratu dute kandelan dotaziorik gabe; 500 dukat zillarrean paratuta 450 dukateraño etorri zen argia itzali orduko.*



- ea** zehar-galdera hitza. *Atzo galdatu diotet ea zer egiten duten. / Behiñ noski «lau urretxiki» esan du, ta ea lan egiñ guzia zaldaletan yaten zuten bada. / Eskribitu bizio be[ro]rrek Sarastiri ea libratzeko modurik izan ote dai-tekean guretzat. / Olagizonak diote ea larunbatean itxean izanzen ote den, kontuak garbitzeko / Ta bi kintal burnia ea emanen tion, eskuko miñak lau hillabete daramatziela.*
- ebaki** du ad. *Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zer-bait bealzeko. / Lengo ebaki zenean bazuen 600 karga guretzat. / Maxaleni suertearen ebakitzeko denboran lau egun.*
- ebilli** da ad. *Baño itzaiak ebilliko badira, lengo kontuak garbitu nahi lukete. / Gurutze Santu arratsean ere ongi ebilli zen hagitz! / Guziak horrara eziñ ebilliko direla. / Guzien diña burnia bildu artea hor ikatzetan ebilzeko esan bizaiote. / Igandeko etorzekoa zela honara esan zuen mandatari ebi-lli den ikazkilleak.*
- edari** iz. *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela, edo barrika, edo zerbait idukitzeko.*
- edeki** du ad. *Kendu. Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten man-dazaiak; luma bat pisatzen ez egurrak, ta halere.*
- eder** adj. *Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean orantxe etorri da. / Eta gureak gelditu dira baso ederrik ez, ta hagitz elbarrik ere ez. / Garatekoak egin du aspaldian egiñ duen mearik ederrena. / Isasolakoak lantegi batena suertean den ederrena dute. / Jendea zaletua dago harze-ko, ta geroago ta ederrago ez da izanzen pagatzekoak idukitzea.*
- edertu** du ad. *Zuritu, hutsegitea onargarri egiten saiatu. Eta Damianek len satisfazio osoa niri eman nola pretenditzen duten, eta gero hutsa atera zoiotenean (sic) ederzeko konpondu du: gure proposizioa bazen, etzuela metitu nahi.*
- edo** junt. *Gaztigatzeko ez edo baia. / Gure modua hauxe izandu da, ta orañ-go hau ametitzen badu-edo, nere asentuan paratu. / Lenbiziko danda edo plazoa sanantonetako zutela, baño ez dutela pagatu batere. / Lengo har-zekorik ezpadu ta emanen zazkion edo ez gaztigatuko du. / Mutikoak baditu hiru, ta handiskoenarekin zaldia erabilli beharko duela iñoiz ikatzketan, edo al duen bezala lagunekin-ta batean. // adb. Goiti-behei-ti. Franzisko Berentxikikoak esan dit Koltxonan hasi direla Juakintxorenzat mea ateratzen, ta berorri ere, nahi badu, aterako diotela ekusteko, 200 kintal edo. / Sarastik esan dit gobiernokoan aurrera erama-nazita sanmigelak aldera direla, ta urte bateko-edo pretensorik badu, agertu edo zerbait egiñ dezala.*
- edozeñ** det. *Aldako[ko]jari itxola hartu diogu gaztañadi honetarako, ta gizon edozeñi erakusteko esan zidan.*
- edozeñ aldetara** adb. *Nolanahi. Beste edozeñ aldetara gehiago kostako dira berari erakarrita baño. / Ikus alde sarrera.*

- edozeñ modutara** adb. Nolanahi. *Indianoa bigar badihoa juntara, ta beste hoiek eroriko dira edozeñ modutara, ta deskargako egiteko hau ere basoz edo errentan deskitatzeke egin dezake.*
- egia** iz. *Eta esan dit Salbadorrek egia dela hartu dutela olaren kasoz, baño ez gobiernokoak.*
- egin, egiñ, gin** (hirugarren forma hau aurretik izena duenean, zenbaitetan: *bidegin, egurgin, enborgin, erremientagin, haspagin*) 1. *du ad.* Ekoitzi. *Egurgiten ari dirala [harra]patu ditugu. / Guziak badute egun bana erremienta giten. / Ola handiko kabiguña egiñ. / Olatxeke gizonak berrehun ziri egiñak ditu. / 2. Denbora eman, igaro. Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten. / 3. Iritsi. Orañ ikatzak egin ditu 22 karga ta zaku bat lepalotua. / 4. aditza galdegaitzekoa. Aste hau utzi egin beharko da, bai. / Gaztiga beza eman edo bealdu egin dion iñorekin. / Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten mandazaiaik. / -tzera egin du ad. -tzen saiatu, -tzera jo. Baño sensoaren erremedioa, batean egiteko edo emateko dirua, denbora txarrak nola zauden, guk ere geren beharra egitera egiñ dugu. / Ganbaran ere orañ puxka bat hostoak ahitzera egiñ da, baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz.*
- eginaldi** iz. Aerialdia. *Badu diferenzia esamiñan lengo eginalditik.*
- egiteko** iz. Eginkizuna, eginbeharra. *Deskargako egiteko hau ere basoz edo errentan deskitatzeke egin dezake. / Hemen libratzeke modua harzen dute askok: egitekoak dituztela bazterretan, ta aziendakin.*
- egon, egondu** da ad. *Hori ezipalitz, nahi den moduan hartuko litzake, baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezkerro, ta esamiñetan hainbeste egon! / Jose Antonekin egonen naiz. / Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin. / Ta Andresekin egonduta, anaiea ekusten izandu naiz.<sup>17</sup> / Ikus norbaitengan egon sarrera. / Mikelestorenak (1751) egon (11, 36, 41) eta egondu (31) dauzka.*
- egosi** du ad. *Nahi badu, olan baba egosita, ogia emanen zaio, eta zer gastatzen duen ageriko da. / Orañ Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik. / Uegun ta bere lagunak egiñ dute ikatza, 600 karga; egostekoa badute 200 bezala.*
- egueldi** iz. Eguraldia. *Arrago egur honetara iñor eziñ erakarriz, beti gabilza egueldi onak utzita. / Bordatxori txartela ema[n] nion bart ta, goizean, egueldi txarra dagoela, entregatu egin du hemen, ta gero juan. / Larunbatean elementutan olatik yoan ta igandean egueldi txarraz gelditu, ta astelenean illunabarreko olara. / Ikus denbora sarrera.*

<sup>17</sup> Ikus gutuneko (1807.01.04) oin ohar batean dioguna.

- eguerdi** iz. *Atzo eguerdian mutill bat bealdu du, gaur etorriko dela. / Bigarren egunean eguerdi ondoan hasi ziran. / Eguerdiko libra bat haragi hiruai ematen hasi naiz. / Endara etorri da eguerdi ondoan.*
- Eguerri** iz. *Bolbora balute Eguerritako milla kintal egiñen luketela diote. / Eguerri juañ denean urtebete ezkerro Erreteriatik mea...224 quintales. / Lenbiziko hasi zenetik Eguerriak artea da lan hau edo aste boiek. / Luis de Lekunari kontua eman nion Eguerri juañ denak arterañoako lanena ondorengo egun batean. / Manuel Juaquin de Esnauk pasatu ditu Eguerriak artea hemen olatxoan...16 semanas y 4½ días.*
- egun** iz. *Erremienta egiteko eguna ezkutu erdia kontatzen zaiola ditu falta boiek. / Juakin Aketzaren ikatza egun biko diña izanen da. / Larunbatean bederetzigarren eguna izanen da entregatzeko. // adb. 1. Gaur. Anatxuri egun izandu zait kontuak egiten. / Egun goizean olatxo ez dugu hasi. / Egun hartu dut atzera karta Fagotxikitik, eta egun ola kandelan paratu dute. / Lengo egunean Josepino etzen itxean, ta egun egondu naiz. / 2. Duela. Egun urtebete boiek biak kontua hartu zuten hemendik, ta gurdi burniak ez nituen sartu kontuan, ta esan zuten aipatu zituztela kontuetan. / Ikus izan(du) eta orañ sarrerak.*
- egunaz** adb. *Egunez. Hoietaz gañera ere, maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten, egunaz konponduko zutela. / Ta beste gau batez bergamazoia erori ta goizean, egunaz egin zen.*
- egur egin, egurgin** du ad. *Egurgiten ari dirala [hara]patu ditugu. / Orañ Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik. / Uegun ta bere lagunak egiñ dute ikatza, 600 karga; egostekoa badute 200 bezala, eta egur egiñak ere zirala Uegun sartu zen.*
- egurketan** adb. *Egur bila, egur garraioan. Itzaiak egurketan. / Ikus arrago egurketan sarrera.*
- egurra bota** du ad. *Egurra botatzen...04 días. / Manuel Fagotxikikoak hartu nahi du egurra, bota ta ekarri alde batera. / Primaberan botea izandu da orañdañoako egurra. / Ikus bota sarrera.*
- egurra egosi** du ad. *Ta orañ Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik. / Uegun ta bere lagunak egiñ dute ikatza, 600 karga; egostekoa badute 200 bezala, eta egur egiñak ere zirala Uegun sartu zen.*
- egurra eman** du ad. *Arrago egurra emateko juraduaren jorna...02 pezetas. / Arrago egurra ematera etorrita juraduari...02...00.*
- egurzale** iz. *Egurkaria. Arbazta igarra egurzaleai erakarri diotet zama kontuan. / Botatzeko denbora da eta egurzaleak gogotik ari dira.*
- ehun** zenbtz. *Meakariak ere lengoa ta gañera ehun kintalena eskatu dute. / Sebastian Torrekoak esan dit, berorrek ez egitekotz, saiatu behar duela bestetan, igandeko ehun ezkutu billatzeko estutzen dutela.*

- ehun eta berrogeita hamar** zenbtz. *Txarra izanta ere, ehun ta berrogeita hamar karga.*
- ekarri du** ad. ...*eta aditu duela posesioa nola hartu duten, eta laster kausara atera nahi lukeala, eta yakiñen duela zer indar edo moduak ekarri dituzten. / Hernanira eraman ta ekarri haspo larruak. / Orañ ekarri dituen ikatzak: 22 karga ta zaku bat lepalotua. / Tobera Hernanira bealzea ta lengoa ekarzea...002...00.*
- ekarze-sari** iz. Zer bait ekartzeagatik ordaintzen dena. *Baba ekarze-saria olatxorako...0...17. Bonbonenzat bi anega ekarze-saria...1...00. / Hernanitik tobera ekarze-saria...01 pezeta...00. / Martin kandelagilleari Disputako mea ekarze-saria...03...00.*
- ekibokatu da** ad. *Eta ekusi dute, eta martxoan eta setienbrean esaten du, baño esan didate gobiernokoak nola errematean paratu zen lenbizikoan San Estebanez plazoa zuela, hartan ekibokatu dirala.*
- ekusi du** ad. *Fundamenturik etzuen ematen eskritura ekusi artea. / Gure pentsamendua ekusia dago. / Horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den yakin nahi lukeala, ta gaztigatzeko txartel batean. / Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan, ekusi dezala. / Señoa ta esamiñadoreak ebilli dira ekusten. / Mikelestorenak ere (1751) ecusi darabil: ecusico duzu (7), ecusi zazu (22), ecusi zuenean, ecusi zuen batean, ecusten dudanean (31), ecustera (59), ecusi zenuenean (73) eta abar.*
- elbar** adj. *Txarra, eskasa. Gureak gelditu dira baso ederrik ez, ta hagitz elbarrik ere ez. Sobra elbar dira guziak ere, noski.*
- elementuak** iz. *Euria goian-behe, zurrupitaka ari izatea. Larunbatean elementutan olatik joan ta igandean egueldi txarraz gelditu, ta astelenean illunabarreko olara.*
- eliza** iz. *Aprendizak hartu ditu elizarako behar orduetan neregandik. / Ola datorren igandean paratuko dutela kandelan erakutsi da elizatik. / Orañik ez dira elizatik erakutsi.*
- elkar** izord. *Bera horrara agertu edo kartaz adituko dutela elkar. / Igandean akabatu behar dela errematea, elkarren artean konzilio hau egiñ dutela. / Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin bakoitzak bere nagusiarri aditzera emateko. / Orañ egun hoiek, arrago erretzean, elkarri eratsiko tiogu aurrera. / Ta idortuta hala gorriago emanen duela orañoak ere esan didate, baño ez dute elkarren trazarik.*
- emakume** iz. *Emakume batek txartela kendu zidan niri, berorri Oiarzunan zen batean, ta hari deus eman bazion jakiñen du.*
- eman du** ad. 1. *Eman. Hamar ezkutukotik sobra dira 8 pezeta ta 4½ kuarto; 6 urretxiki emanta. / Guk yaten eman. / Nik yatera eman. / 2. du ad. Itxura izan. Ta idortuta hala gorriago emanen duela orañoak ere esan didate. / Xilitarrak ateratzen orañ ari diran meak lengoak baño belzago ematen*

- du.* / 3. Ekarri. *Franzisko Antonio Uhartekoak ditu, leneko paga egiñ zitzaien ezker, ogi emanak honara: 38 panes a 20 cuartos importan 22 pezetas y 12 cuartos. / Karga haiek ez jakin honara emanen dituzten, eta honara ematen badituzte, guzien prezioa batean egiñen dela. / Patxiku Katxok eta bere lagunak honara eman dute mea 142½ quintales. / Zuloakoak berak (mea) honara eman nahiagatik ere, beste bi lagun badiara partidukoak, eta haiek Isasolara lenago limurtuko dira, dirua fronto-xeago izateagatik. / 4. Eraman. Hondarrabiara eman genuena da, 50 karga, arrago egurretan hartu ta gañerakoa. // 5. iz. Ematen dena. Gure emana heldu da 746 reales vellón. / Lenbiziko karretoko 19 pezetak ta ikatzgilleari len emanen gañera osatu 56 kargaren balioa ta gañerakoak kobra ditzatela herriagandik.*
- emangai egon da** ad. Emateko egon. *Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau ez jakin egiñen duten.*
- emazte** iz. *Emazteak errespuesta bealdu du Goizuetatik, abisatu dutela larunbateko sin falta aguardientea entrega dezala.*
- enbarazo egin du** ad. Traba egin. *Gure alderdian enbarazo gutxi egiten dute], eta nahi badu beren itxe txarrean urteren bat iragoko dutela gehienaz ere.*
- enbor** iz. *Honek baditu enborrak, baño leku ona du. / Isasolakoak lantegi batena suertean den ederrena dute, ta gañerakoak batzuek enbor hutsak, ta besteak arbarta besterik ez dute. / Migel Fagoagakoak ekarri ditu lau karga ikatz, atarian enbor ta zurzaiakin egiñak. / Suertea ta enborrak kandelara gabe eman dituzte.*
- enborgin du** ad. Enbor egin, enborrak moztu eta garbitu. *Enborgiten... 02 días.*
- enborketan** adb. Enbor garraioan. *Franzisko de Irigoien enborketan...1 día.*
- endal harri** iz. *Endala edo gabi oina punpatzen zen harria, errebotatzearekin gabiaren kolpea indartzeko. Ikus A. M. Mitxelenak 2020b laneko 42. orrialdean dakarren marrazkia eta lan bereko 247.ean ematen duen azalpena. Goitzaringo dokumentaziotik (ibid., 123, 125) 1814ko aipu interesgarri hauek biltzen ditu: «La piedra llamada endalarria que sirve para recibir los golpes y contragolpes del mazo mayor», «La pieza llamada endalarria que recibe los contragolpes del martinete». Gutunetako lekukotasunak: Josepe igeleak katuak atera ta berriak sarzen ta endal harria konponzen baditu 5 días. / Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu. Kabitegia kendu dugu ta katuak ere bai, ta maisuak dio endal harri bat sartu behar dela, harria billatuta, ta zepotillu bat ere bai.*
- endredo** iz. *Istilua, nahaspila. Zorretan gaude herriarekin ta Anaxxuri dugu harzeko; endredo makurra ez digu paratu!*

- enforru** iz. Forradura, forrua, arragoakoa segur aski (cfr. hau: «*El forro interior que lleva dicha erragua desde los arcos para arriba*», Leitzako Ibero burdinola, 1791; A. M. Mitxelena, 2020b: 146). *Gogo txarra daukate hagitz, eta arku harriak bigar akabatzen dira ateratzez, eta hortik Karretto edo norbait bealzen balu nahiago genuke, eta enforru hoiek eta bularrak eta alderdi guziak konpondu beharrak dira.*
- entendirazi** dio ad. Ulertarazi. *Eziñ, eziñ entenditu baditu ongi, Buruzuria paga beza, len emanen gañera osa bekitza 670 reales, eta honara heldu denean entendiraziko diot.*
- entenditu** du ad. Ulertu. *Eziñ, eziñ entenditu baditu ongi, Buruzuria paga beza, len emanen gañera osa bekitza 670 reales, eta honara heldu denean entendiraziko diot.*
- entoroko** adj. Lanaldi osokoa? *Gazteen honek, Isasolan ari da sei lagunean, ta entoroko lana nahi lukeala, ta berozalleak egiñak ezpaditu sanmigeletan etorriko litzakeala horrara.*
- entrega** iz. (Ordaintzeko) balio duena, entregatzen dena. *Aranzateko mea, olajabeak geldirazi zuen hura, eman nahi dute, baño len pezetan entrega hasi giñan ekarzen. / Berak entrega...56½ quintales. / Geroztik etorri dira pezeta batean entregakoak...335 quintales y ½ arroba. / Herriaren kabi txiki hau ere ustaiaren gañetik partitua zegoen, ta honi zapla batzuek ematen tiogu entregako denboran. / Len hemen zen agoa palanka hautsi ta eskarpatuaz guzia mehatua da gerrian, ta amor ematen du agoa ateratzeko denboran, baño entregarako ona da. / Pezetan olan entrega den honetatik badira etorriak 335 quintales y ½ arroba.*
- entregatu** du ad. 1. Entregatu, eman. *Bigar goizean hasi ta etzi arratsaldean entregatzeko modua izanen dugu. / Emazteak errespuesta bealdu du Goizuetatik, abisatu dutela larunbateko sin falta aguardientea entrega dezala. / Patxiku honek entregatzen dio pagua nagusiari, iñork ematen diona. / 2. Ordaindu. Basoen dirua ostiralean beal beza, larunbatean bederetzigarren eguna izanen da entregatzeko. / Fiatu giñan eta esan nion ongi zela, eta Anaxurik guri entregatutzen diguna herriak entregatutzat gelditzen giñala. / Kintala pezetan entregatzeko meatik etorri zen 335 quintales y ½ arroba. / 3. Saldu. *Luis Zuloakoak esan dit 38 kuartoan entregatuko dutela mea belza, nahi badu. / 4. Bihurtu, itzuli. Bianizan aritu zenean borra bat eraman ta ez du sekulan entregatu. Anitzetan eskatu diot, baño ez du entregatu.**
- entresaka** iz. (Zuhaitz) bakanketa. *Sanjuanek hor esan du noski gure suertean zenbat kargaren entresaka egin duten. / Ta horiez gañera Olaandituko dotazioan egin da hamabi kargaren entresaka.*
- enzun**. Ikus meza sarrera.
- era** iz. Modua. *Hirugarren ikaztogia yasotzen ari dire, ta Artikuzakotik bate-  
re ez, zergatik gureak era hobean diran yasotzeko.*

- era izan du** ad. Egokiera, modua izan. *Orañ gaia erosi ta geroxeago egiñen dugu; arotzak era dutenean beharko.*
- erabilli du** ad. *Dirua eskuan nahi, tratu anitz erabilzeko. / Mutikoak baditu hiru, ta handiskoenarekin zaldia erabilli beharko duela iñoiz ikatzketan. / Patxikuri esan nion bada zepoa atera edo hautsia zagoela, olatxokoa, len erabilli hau.*
- eragin du/dio** ad. *Astelenean bildu ta ingudeari sartu-aterere eragin genion arrats artea. / Jornal pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela, nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urri-urrian jornalak dituztela baño. / Nik eragin dudan lan guzia hemen dago. / Ta ilzeak ere norbaiti eragiñen tiogu orduko. / Ta olatxeko Jose Ignaziori eragiñta ekarri ditut.*
- erakarri du/dio** ad. 1. Ekarrarazi. *Garatekoak bolborarik eziñ arkitu dute; hamar erreal pagatuko dutela, ta Pasaian ordena edo kargua emana daukate, baño orañ ere gabe daude, ta esan didate berorrek Iruñetik erakarzen balu, gaztigatzeko. / Ta beste edozeñ aldetara gehiago kostako dira berari erakarrita baño. Idiak itxean ditu ta bere gauza salzeagatik ekarriko zituela omen zion. / 2. Etorrarazi. *Arrago egur honetara iñor eziñ erakarriz, beti gabilza egueldi onak utzita. / Euririk egiten badu ere, harerik urak eraman ez dezan erakarri ditugu itzaiak. / Guk jaso behar ditugun ikatzak honek harzeko dituen karraidoreai erakarzeko. / Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut, ta mandazaiak ere orobat, iratzea dela, artoa dela, guziak badabilza.**
- erakutsi du** ad. 1. Erakutsi. *Aldako[ko]Jari itxola hartu diogu gaztañadi honetarako, ta gizon edozeñi erakusteko esan zidan. / Folseroak erakutsi dit gobiernokoak eman dioten kargua edo papera pagoena ta haritzena. / 2. Publiko egin, pulpitutik aditzera eman (maiz elizatik adizlagunarekin). *Elizatik erakutsi zen, baño ez dute paratu orañik suertea kandelan. / Elizatik erakutsi zen Oi[ar]zunan Errepublikaren ordena zela gurdi meharrakin iñor ez pasatzeko Franzia 22 de noviemb[re]tik aurrera. / Ola datorren igandean paratuko dutela kandelan erakutsi da elizatik, 2.300 karga ikatz izanen duela gutxi gorabera erakutsi da. / Otsandolatik hasita Oieleku bitartea despojoren batzuek badira, pagoak eta haritzak bota ta haien buruak, eta orañik ez dira erakutsi.**
- eraman du** ad. *Errenteriako olajaunak eraman zituen hemendik bi kintal kuadro. / Euririk egiten badu ere, harerik urak eraman ez dezan erakarri ditugu itzaiak. / Hernanira eraman ta ekarri haspo larruak. / Ta juañ naiz ni ere itzaiaz modurik izanen ote den burni hoiek eramateko, ta ez didate esperanzarik eman.*
- eramanazi du** ad. *Eramanarazi. Sarastik esan dit gobiernokoan aurrera eramazita sanmigelak aldera direla.*
- eranzun du** ad. *Semeak eranzun diola basoko irabaziarekin eziñ pasa daitekeala hura.*

- eratsi du** ad. Erantsi (*añaditu* ere badarabil JRMk, adiera berarekin edo antzekoarekin; Goizuetan egun *irátsi*). *Beringo ataritik Zaldin aldera onena zen, eta aldena ere bai, eta honi eratsi diote Kausuako azpiko errebesena. / Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia maneatuta, ingudeari tor-nua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoañ ziran itxera. / Hoberen honek opinio handi bat zaukan, ta hargatik txarrenak ere puska honi eratsi zitiozten. / Hortik bealdu den baba eratsiko dio bost lagunen espensa honi. / Ola handian egin dena erasten diot. / Ikus añaditu eta buztandu sarrerak.*
- erdi** iz. *Aldeak edo mako hoiek ilzerik eziñ errezibitu dute, erdi lekutan urak yan ta galduak daude. / Ignazio Aranburukoak Bullegitik bealdu ditu hamaika karga ta lepalotu erdi bat gaztaña ikatza. / Lengoeekin erdiak pagatu dituzte. / Zamak adaki bat badu erdian edeki egiten zioten mandazaiak.*
- erdi bana** banatz. *Bekoa erdi bana dugula goian puxka bat hartuko nuke. / Bi berotzallengat erdi bana...1. / Burniak erdi bana dituzte eta Franziaiko diruak ere erdi bana hartu zituzten, eta 4 de noviembrean hartu zituzten 20 urretxiki erdi bana. / Gazteluko urak ateratzeko eman zituen 8 urretxikitatik lau hoiek pagatzeko konpondu ziran lagunekin, ta guziak erdi bana dituzte bi hogeï ezkutuko, 24 urretxiki ta burniak gañera, ta guziak erdi bana dituzte.*
- erdiña** banatz. *Saskiak hautsi dira hamasei, hamar kuarto ta erdiña.*
- ere** adb. (batzuetan indartzailea). *Sobra elbar dira guziak ere, noski. / Ta gero ere kandelara beharko zutela memorialaren gañean. / Uste baño ere lenago attu zaiku ikatza. / ere + [omen +] adizki trinkoa segidan batzuetan ez da ba- agertzen: Erdian ere omen zen alea. / Eta egur egiñak ere zirala Uegun sartu zen. / Indianoak ere omen du partea mintegian.<sup>18</sup> / **ere bai**. Kuadroetan badira eskastuta juanak arroa batzuek plantxuelatatik, eta kabillatan ere bai, 8 arroa bezala. / Orañ kostatzen da orga bakoitza 26 pezetas, ta gañera sosak ere bai. / **ere ez**. Eta gureak gelditu dira baso ederrrik ez, ta hagitz elbarrik ere ez. / Ikus joskeraren inguruko kapituluan dioguna, juntaduran.*
- erein du** ad. *Artorik ez [d]uela, ta arto ereiteko dirua ere behar duela. / Bi laka-di illar Goizariñan ereiteko. / Irundarrai gaztigatu diotet; orañ artoak ereiten ariko dira, baño mea ekar dezatela ta pagua emanen diotedala.*
- erori da** ad. 1. *Erori. Ta beste gau batez bergamazoia erori ta goizean, egunaz egin zen. / Ta esan diotet tellatu hoiek ez erorzekotz konpondu behar*

<sup>18</sup> Honako hau, berriz, araua berresten duen salbuespena dateke: «*Ta arragoako jomalak ta bost orgaren porteak ere badira zor 126 pezetas y 3 reales vellón*».



- dutela.* / 2. Agertu (ustez). *Indianoa bigar badihoa juntara, ta beste hoiek eroriko dira edozeñ modutara, ta deskargako egiteko hau ere basoz edo errentan deskitatzeke egin dezake.*
- erosi** du ad. *Buruzuri zarrari itxola erosi genion ta pagatu diot...04...00. / Olarako tupia bat erosi dut. / Sarastik omen zuen pilla hartan erosia 800 quintales eta pisatu omen dute.*
- erraz** adb. Aise. *Baño maneatzeko beti bekoa errazago da.*
- erre** 1. *da/du* ad. *Leneko astean erre den arragoako jornalak. / Pelo[a]gan tella erre da, ta nahi duen guziak harrapatuko ez du noski. / Sidro ianziarra jua da begia erreta. // 2. iz. Erretako basoa, errakina. Baltasarrek dio eska dezala erre hoietan, badirela igartuko diranak gehiago ere. / Baltasarrek esan dit suertea partitzeke kuarto haiez oroitzeko, ta erre hoietako botatzeko denboran iragotako egunaz. / Modu honetan allegatzen dira erre añaditu hoiekin Indianoak eman duen kontura.*
- erreal** (eskuarki), **real** (inoiz) iz. *Diru baten izena. Berak uste du gelditu zela zor hamasei ezkutu ta errealen batzuek gehiago. / 3.600 karga 16 kuartiluan, tantoa erreal bat, ta hamaikatakoan gastatu da 6 pezetas y 25½ cuartos. / Hori ezpaliz, nahi den moduan hartuko litzake, baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezkerro, ta esamiñetan hainbeste egon! / Horrara etorri ta kontuak lasterrago egiteagatik errealetan paratu ditut lana egiñak. / Paratu dute hamaseiean ta hartan itzali da, ta erreal bat eman diot.*
- erreal bellon** iz. *Diru baten izena. Bi kintal burnia ea emanen tion eskuko miñak lau hillabete daramatziela, ta orañ hasitzeko behar lukeala, solamente erreal ta erdi bellonean. / Bost ola handikoak badute biña erreal bellon bakoitzarenzat, San Franzisko fraileari nik emana. / Bost olakoak hartu dute frailearenzat bakoitzak biña erreal bellon.<sup>19</sup>*
- erreal zillar** iz. *Diru baten izena. Baltasarren semeak-ta aldatu omen dute 300 planta, pagona erreal zillar bana berorrekin partituta.*
- errebes** adj. *Traketsa, zaila, txarra. Beringo ataritik Zaldin aldera onena zen, eta aldena ere bai, eta honi eratsi diote Kausuako azpiko errebesena. / Errebesena dago emateko bitatik batean, baño anitz eskatzen du.*
- errebextxo** adj. *Trakeskara, zailkara. Honek beharko du grazia puska bat; errebextxo da.*
- errebexe** adj. *Pixka bat errebesa. Eta 600 kargako honetan Pellok eskatzen du puska bat, eta gañerakoa errebexeagoa gelditzen da, baño lantegirik libreña hau da-ta, nahi duena egiñen du.*

<sup>19</sup> Erka bedi 1811ko Iruñeko bandoan daukagun pasarte honekin: «*Mariscal Duque Istria-coac mana-tu du Nafarro-aco Reino-ac paga dezala oguei milloi erreal vellon-en multa*» (Irigarai, 1974: 147).

- erreka** iz. 1. Ugalde txikia. *Erariñan beko errekatik Jeronimori iduriak ematen...4 cargas. / Gazteluko errekaiko ik[al]tza 7 karga ta lepalotua etorri da. / Nik len pretenditu nuen, lengoak izateko asmoan, erreka [...] alderdi bat. / 2. Ebakia, erretena, arrakala. Hamarreko erreka egin diogu erremientari.*
- errekamaña** iz. Mea erretzen den bitartean olagizonek zuten lo egiteko ohe kaskarra edo kamaina (ikus *kamaña* sarrera). *Jornal hoiek dira mea modu onekoa kargatzeko, eta erretzeko denbora ona eta egurra ona den denboran kostatzen da gutxiena, honenbeste, eta halere erretzea bigarren egunean gutxitan akatzen baita, errekamañaz, hirugarren egunean maiz izaten da errekamaña bat eman beharra, ta askotan bi ere bai.*
- errekus** iz. Lantegi txarra, peza edo lan kaskarra (ustez). *Errekusak ta guziak dira 89 quintales; zabal hoietatik kintal bat edo bi gaistoak dira hagitz. / Plazeri eske daude guziak [...]. Guretan halako bentajaturik bat ere ez, eta errekusik ere bat besterik ez.*
- erremate** iz (gaztelaniaz *remate*). Enkantean jartzen dena diru gehien ematen duenari esleitzea. *Eskola maisuak esan dit San Matiasez jaitsiko dutela 1.600 ezkutura, ta igandean akabatu behar dela errematea, elkarren artean konzilio hau egiñ dutela.*
- errematean paratu du** ad. Enkantean paratu. *Baño esan didate gobiernokoak nola errematean paratu zen lenbizikoan San Estebanez plazoa zuela, hartan ekibokatu dirala. / Indianoak esan dit errematean paratu zela, plazoa San Estebanez zuela, baño eskriturak martxoan ta setienbrean esanen duela.*
- erremedio** iz. 1. Konponketa, konponbidea. *Baño sensoaren erremedioa, batean egiteko edo emateko dirua, denbora txarrak nola zauden, guk ere geren beharra egitera egiñ dugu. / 2. Sendagaia. Markos puxkaren batean ez da olarako. Solo Otxokiko medikuaren erremediokin ongi omen dihoa.*
- erremedioa egiñ du** ad. Konpondu, konponketa egin. *Zeharretik yo gabeak erdiak, ta beste batzuek pasatu badere egin ziran; honengatik erremedioa egiñ daiteke.*
- erremienta** iz. Lanabesa. *Erremienta hoiek sura ezkerro malura franko badute. / Hamarreko erreka egin diogu erremientari. / Olaitzolako erremienta Bautista meallearen itxean egondu diranak Bautistak hartu omen ditu.*
- erremienta aldatu du** ad. *Akabatu dira tretxuak, ta erremienta aldatzera goaz.*
- erremienta egin** (eskuarki), **erremientagin**, **erremienta gin** (batzuetan), **remienta egin** (inoiz) (*hacer remienta* erdaraz) **du** ad. *Bi igeleak ta Nikolas urzalleak badute erremienta giten egun bana. / Egund bateko remienta egiteko jorna. / Erremienta egitean kastatu dira [...]. / Erremienta egiteko eguna ezkutu erdia kontatzen zaiola ditu falta hoiek. / Guziak badute egun bana erremienta giten. / Joseph de Bengoetxea, Tomas Arbelaiz ta Nikolasek badute erremientagiten biña egun.*

- erremientak konpondu** (*componer remienta* erdaraz) *du ad.* *Erremientak konponzen 29 pezetas y 8½ cuartos.*
- erremienta(k) paratu** *du ad.* *Lanabesak prestatu, konpondu. Erremientak paratzen ta ola perparatzen...1 día. / Lasterrenaz ere bigar arratseko erremienta paratuko dugu. / Pello hasi da erremienta paratzen.*
- errenditu** *da ad.* *Etsi, amore eman. Martiñen semea miñez zagoen len, ta jai-kitzen hasi deneko Martiñ bera errenditu da, ta planta txarra halere zaukan egun.*
- errenkura egiñ** *iz.* *Kexatu, erantzuki egin. Niri deus ez dit esaten, baño olako lagunai errenkuraren batzuek egiñ omen tiozte.*
- errenta** *iz.* *Andresek esan dit leneko urteko errentan hari osoaz kargu egiñen diotela. / Gobiernokoren batzuekin egondu omen da, errenta zenbat egiñen duen edo egiñ dezakean, ta trazatu omen dute. / Uharteko errotaria larunbatean juatekoa omen da errenta pagatzera.*
- Errepublikak** *iz.* *Frantzia. Elizatik erakutsi zen Oi[ar]zunak Errepublikaren ordena zela gurdi mearrakin iñor ez pasatzeko Franziera 22 de noviem-bretik aurrera. / Errepublikarenzat ikazketan gure basoetatik dabilza.*
- errespuesta** *iz.* *Erantzuna. Emazteak errespuesta bealdu du Goizuetatik. / Errespuesta igande bitartea nahi luketela. / Ondarrabiako babadun hark ere errespuesta behar luke. / Ta behar ezipadu, errespuesta yakiñ nahi luketela laster.*
- errespuesta egiñ** *du ad.* *Ihardetsi, arropostua egin, arropostu eman. Andresek esan zidan ostiralean errespuesta egiñen zuela, baño aipatu nion duende-az, baño etzidan aitortu. / Berorrek errespuestarik etzuen egiñ. / Eta esan du hamar orga orobat hartuko dituztela [...] ta errespuesta egiteko bere-bala zer modu den.*
- errespuesta eman** *du ad.* *Ihardetsi, arropostua egin, arropostu eman. Aldakokoak esan zidan nola Oiarzungo suj[e]sto bat juan zaion Txurritegiri ola harzeko, eta errespuesta eman diola [...]. / Eta Biziro hartu dut, eta esan diot kontua nola bealdu duen, ta errespuesta eman dit berorregandik bost ezkutuko bat besterik hark hartu ez duela. / Honek errespuesta eman omen dio ez duela dirurik, eta besteren diruarekin korritua beharko lukeala.*
- erresta, resta** *iz.* (*resta* gaztelaniaz) *Geldikinak (berez 'kenketa' da). Bidasoroko suñari Bonbon iazko artotako azkeneko resta...028...08½. / Irundarrai, etsi dutenean, burni eske hasi ta pagatu tioztet beren azken errestak. Burniaz kito gaude orañ haiekin. / Sarobeko Juan Ignaziok gaztaña ikatza eman digu, 12 karga. Gerok jaso ta hartu du burnia 2½ arrobas lau libra gutxia-go, ta kontu puxka hau ta lengo erresta puxka bealzeko.*
- erretazo** *iz.* *Mendi edo baso puska, zatia (retazo gaztelaniaz). Bi porzio erre-tazo hartu dituzte yoan den astean, memorialarekin, 19 kuartilluan: 780 bat, ta bestea porzio txiki bat. / Erretazoak Gazteluko errekan dira bi*

- porzio. / Erretazoak 20 kuartilluan ta pagoak 18 kuartilluan gelditu ziran igandean. / Erretazoak kandelatzekoak dira. / Irunan, Erreterian ta Oiarzunan hamar milla karga erretazo omen da.
- erretornu, retornu** iz. Ordaina, atzera itzultzea (retorno gaztelaniaz). *Fagotxikitik burnia retornu gabekoa...10 quintales. / Hoietatik 40 quintales dira erretornurik ez den denborakoak. / Hoietatik 29½ kintal dira retornurik ez den denboran zerbait ekusteko aginduarekin egiñak. / Hoietatik 85 quintales dira erretornurik ez den denborakoak.*
- erretzalle**. Olan mea erretzen zuen langilea. 1 azumbre de vino a 32 cuartos erretzallengat. / Ikus arragoa erretzalle sarrera.
- erreus** adj. Burdina akastuna, balio ez duena. *Burni erreusen txartela ostegunean hartu dut, ta ezer e[z] da erreusik.*
- errezelo** iz. Mesfidantza. *Ikatzetan ez omen du errezelarik, baño kontu guzian deskuidorik ote den omen dago.*
- errezibitu, rezibitu** du ad. 1. Jaso, hartu. *Bi alditan rezibitu ditut, batean 19 karga ta bestean 37 karga. / Gerok kontua eman behar dugula ikatz errezibituak zenbat diran eta hoietarako zer eman dugun. / Guk herriarekin dugun kontua da olan errezibitu ditugun 56 karga eta Anatxurik eramana 31 karga. / Indianoagandik errezibitu ditut ikatzak 5.157½ cargas y 1 otsabeharria. / Rezibitu ditudan diruak. / Zorzi orga bealzeko rezibitu ditut 200 pezetas. / 2. Onartu. *Errueda haspategiko hau konpondu nahi litzake eta aldeak edo mako hoiek ilzerik eziñ errezibitu dute, erdi lekutan urak yan ta galduak daude.**
- errezibo** iz. Ordainagiria. *Dirua entregatu diotet eta erreziboa igandean emanen didala Mendiburuk esan dit. / Hark dirua hartuaren erreziboa ematen du. / Polsero difuntuar[i] 220 urretxiki emantako erreziboa beal beza.*
- errota** iz. Olaitzolako yabearena da errota hura. / Orañik hemen ogei pezetan dago errotatan.
- errotari** iz. Artotako dirua errotariari eman beharko diogu. / Errotari urgona ere maiz aski ondotik dugu. / Ogi egilleak gaztigatu du, errotaria pagatzeko behar duela-ta, ogien diruaz. / Ogidunak esan dit errotariak estutzen duela ta dirua bealzeko. / Uharteko errotaria larunbatean juatekoa omen da errenta pagatzera.
- errueda, erruda** iz. Urak mugitzen dituen burdinolako gurpilak, hauspotegikoa (hauspoei eragiten diena) nahiz kabitegikoa (gabi igunari eta, beraz, gabiari berari eragiten diona). *Errueda eskatu edo makoak bota ta beste egun bat galdu zuten konponzen. / Errueda haspategiko hau konpondu nahi litzake eta aldeak edo mako hoiek ilzerik eziñ errezibitu dute, erdi lekutan urak yan ta galduak daude. / Errueda haspategikoa konponzeko jornalak. / Haizarka konponzen, errueda konponzen, gurutzak sarzen ta zepoa estutzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia. / Martin de Arizabalori kupela konponzen ta erruda gurutzetan paratzen [...]. /*

*Martiñek dio errudako kabillak txabeten lekuan tornilluak behar lirakeala, laxaitzen denean estu ditekeala.*

**errugu** iz. Erregua, labore eta egoskarien neurria. *Babarik Oiarzunan nik ez dut senti, ta hortik beal dezake. Fagotxikitik ekarrita eman diotet hasieran, ta haiei ordaña emanta, gañerakoa aste honetako diña da. Astean errugu erdi bat aurreratuko da, bai.*

**esamina, esamiña** iz. Tasazioa. *Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela. / Esamiña olarenzat bataz beste baño hirutan gehiago erakutsi da urte bakoitzeko. / Esamiñak Txixipitxik eta Gregororen lagunak egin dituzte. / Gaztelu aldeko puska hau dago esamiñan, 760 karga, Olaanditukoa 780. / Puska handien honek esamiña du...780 karga.*

**esaminadore, esamiñadore** iz. Enkantean paratu behar diren baso eta mendi puskek etsaminatzen dituen. *Atzo galdatu diotet ea zer egiten duten, ta esan didate esaminadorerik nola ez duten [...]. / Nik esamiñadoreai beharrik ez genuela esan nioten. / Sanjuanen anaia Baltasar da esaminadore / Ta esan diotet nik ofrezimentua egiñ dudala puska honetaz, esamiñadoreai ere bai, Juan Migelek adi dezan.*

**esaminatu, esamiñatu** *du* ad. 1. Tasatu baino lehen, baso edo mendi puska baten azterketa egitea, zenbat karga atera daitezkeen finkatzeko. Berez zentzu zabalagoa *du* aditzak, belar-soroak, etxeak, metak eta beste ere etsamina daitezkeelako. *...eta pagoa, Azeriak egiteko hartu zuena, esamiñatu zen...9 karga. / Gregorio ta Motela semearekin ta ni izandu gera Belearen basoan, ta Belea han zen bakarrik, ta esan genion zertara jua giñan, ta lan egiña esamiñatu zuen Gregoriok. / Hau Maxalenek egin, esaminatu du, ezkutu erdi bana karga; dirua eskatzen dute. / Hiru porziotan paratu ziran pagoak, ia bi milla karga, ta badira porzio bakoitzean. Len egiten ari geran hoien buruan ta Ariztxulegirañoko honetan guzian aritu dira esamiñatzen.*

**esamiñan pasatu** *du* ad. *Itxea ta lurrak esamiñazi, eta dirua emanak zer diran ekusi. Itxearen ta lurren esamiñan pasatuko direla diote dirua emanak, eta Iruñetik despatxua atera edo ekarri beharko dugula eskriboak dio. / Ikus kontuan pasatu.*

**esamiñazi** *dio* ad. Azterrarazi, etsaminarazi. *Orañ Iruñera jokatzeko asmoa dut, itxea ta lurrak esamiñazi, eta dirua emanak zer diran ekusi.*

**esan** *du* ad. *Amabirjinetan esan nion anaieari bi onzako nola kendu nition, ta zor daukat ta pagatu nahi nuke. / Eskriturak guzien erdia martxoan esaten omen du, olarena eta basoena, guzien erdiak. / Sanjuanek hor esan du noski gure suertean zenbat kargaren entresaka egin duten. / Ikus allegatu sarrera.*

**eskalera** iz. Eskailera. *Eskaleraren aldeak egiñ daitezke deskargan dagoen olatxoko goiara zar honekin. / Manuel de Ribereri eskalerak eta atea egiñ, ta errueda haspategikoa konponzeko jornalak. / Sukaldea eta gela*

- baten forma paratu behar litzake olaitxean eta eskalerak ere beharko dira.*
- eskapatu** *da ad.* Olaren errentaren erdia, hura badere, al badu lenbailen beal dezala, inõndik ere dirua ateratzeko biderik ez daukatela, eta zorrai eziñ eskapatu.
- eskario** *iz.* Eskaria, kontua. Hemen diodan eskario hau karraidoreak libratzen dute berorrek eman [n]ahi duelarik. / Nik horrara eskarioa edo kontua bealzeko denboran, burnien diruen gañera beal nezakean kontuaren eskarioa. / Erka bedi kostario izenarekin.
- eskarpa** *iz.* Azkuek (1969 [1905]: 529) *eskarpea atara* ‘burdinazko peza baten muturra zapal-zapal egitea’ dakar. A. M. Mitxelena (2020b: 286), berriz, ‘oholari bazterrean egiten zen erdi-koska, elkar estutu eta tartea kentzeko’ definitzen du *eskarpa*, egurra denean, eta ‘burdinaren lotura edo soldaduraren lekua’ (*ibid.*, 249), burdina denean. Gutunetako lekukotasunak ikusirik –eskarpa erreta dago bietan– badaiteke egurrezko peza izatea, baina ez dakigu seguru (ikus *eskarpatu*). *Olatxoko tobera galdua dago ta lana dago orañ berria egitea ere. Ola handitik aritzeko modua berehala paratzekotz, atera ta puxka bat estutu dugu bokan, baño eskarpa dauka errea. / Tobera beal beza. Ola gelditu da eskarpa guzia erreta eziñ ariz.*
- eskarpatu** *du ad.* Metalezko peza higatu (ustez): *Len hemen zen agoa palanka hautsi ta eskarpatuaz guzia mehatua da gerrian, ta amor ematen du agoa ateratzeko denboran, baño entregarako ona da.* / A. M. Mitxelena (a.a.) esanahia ‘metalezko peza estutu eta soldatu, beste batekin batzeko’ dela uste du.
- eskas** *1. adb.* *Larruak Bautista Altamirak eraman omen zituen; bereak eskasta eskatu omen zitien. / Lengoan eskas bealdua...006½ pezetas. / Mealleari asteko ezkuturako eskas ateratzen zaio, 3½ pezetas, ta leneko kontualdian ere eskas zuen 2 pezetas. // 2. iz.* *Damianek agindu dit eskasaren kanta dadukala Lamothek pisuaz.*
- eskas izan** *da/du ad.* Falta izan. *Arrago-egur hartualdi bat, juan den urtekoa eskas baizuen Andresek. / Dozena bat kintal tretxu badago egiña, ta ola handiak asteko mea eskasa du, ostiral artekoa bezala. / Kabilla hemen den hau 3 arrobas eskas da, 6 ta 7 linea lodi. / Len eskas dena...82 pezetas y 10 cuartos. / Lengoan ere olan eskasak genituen bi orgak bertan kumpliturik bealdu genituen. / Mealleari asteko ezkuturako eskas ateratzen zaio, 3½ pezetas, ta leneko kontualdian ere eskas zuen 2 pezetas.*
- eskastu** *da ad.* Eskas izan, falta izan, gutxiegi izan. *Aprendizaren amari elizarako eskastuta eman diot 5 pezetas y 10½ cuartos. / Egun goizean olatxo ez dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldurrak, jaiardia nola baitzen hasi-ta lana eskastuko dela. / Hamazazpi pagatu ta sei hartu, Donostiara anaieagana bealdu ta galdu omen ziran langrostak. Ta guzia eskastu zitzaidan...21 pezetas y 25½ cuartos. / Kuadroetan badira eskastuta juanak*

*arroa batzuek plantxuelatatik, eta kabillatan ere bai, 8 arroa bezala. / Plantxuelak bealdu ditugu Lamothengana, bi kintal kuadro naste dituztela azkeneko orgarenzat, eskastuta; plantxuelak 9 orgas, kuadroak 15 orgas.*

**eskatu** *du* ad. Aketzaren semeak ere eskatzen du; Axeriak ere bai, nahiz lengoa egiñ ez. / Anitzetan eskatu diot, baño ez du entregatu. / Diru hau fronto behar dela eskatzen dute. / Hoiek astea pasatu orduko eskatzen hasiko dira, beharrea daude-ta. / Tokatzen zaiona eskatzen du.

**eskatu** *da/du* ad. Askatu, laxatu. Boba eskatu egin zen, ta bobatzen agoaren bat edo gexeago bezala galdu zen. / Errueda eskatu edo makoak bota ta beste egun bat galdu zuten konponzen. / Ingudearen sartu-aterea, bergamazoia egitea, boba eskatu ta bobatzea. / Kabiguña boban eskatuta lotu egiñ dute. / Kabiguña sartu berria ta zarra, hautsi baño len, boban eskatu ta bobatu ere bai.

**eske** *adb.* (absolutiboarekin edo genitiboarekin). Goizuetara propioa Fermin Joseph zenaren kasoz paperen eske berorren kartarekin. / Irundarrai, etsi dutenean, burni eske hasi ta pagatu tioztet beren azken errestak. / Lamothi gaztig[a]tu egiñ beharko zaio, idorraz be[al]zekotz, handik gurdia bealzeko, edo idi pare bat eske. / Mirandakoak eta Agerrekoak Lamothek esan diotela aguardientearen eske dihozenean burnia hemendik eramateko. / Plazeri eske daude guziak.

**eskeñi** *du* ad. Eskaini. Eta pezeta zela nago berorrek eskeñi ziona.

**eskola maisu** *iz.* Eskola maisuak esan dit San Matiasez jaitsiko dutela 1.600 ezkutura. / Pagoetan kontrariorik badere, eskola maisuari esanta hark hartu ditu; Andresek esan zion maisuari harzeko. / Ikus maisu sarrera.

**eskribitu** *du* ad. Idatzi. Indianoak gaztigatu dit partea nahi lukeala suertetik, ta nik gaztigatu diot berorregana eskribi dezala. / Ta eskribitu bizio be[ro]rrek Sarastiri ea libratzeko modurik izan ote daitekean guretzat.

**eskribo** *iz.* Eskribaua. Iruñetik despatxua atera edo ekarri beharko dugula eskriboak dio. / Nola kendu tiozten eskriboko moduak. / Oiarzunan bertan lau orgak hiru pezeta, alkateak bi ta eskriboak bat.

**eskritura** *iz.* Eskriturak guzien erdia martxoan esaten omen du, olarena eta basoena, guzien erdiak. / Indianoak esan dit errematean paratu zela, plazoa San Estebanez zuela, baño eskriturak martxoan ta setienbrean esanen duela, noski, ta berai esan dizitedala eskritura ekus dezatela. / Olaren eskritura ta hamaietakoarenzat dos orillos.

**esku** *iz.* 1. Eskua. Aranederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko eta herri guzia hargana diboa-ta, dirua eskuan nahi, tratu anitz erabilzeko. / Bi kintal burnia ea emanen tion eskuko miñak lau hillabete daramatzela. / 2. Eskulana. Sagardo txarra egiteko onzirik ez dugu-ta, kupela egiñ behar nuke; gaia erostea ta arotzaren eskua 26 ezkutu bezala kostako omen da.

- eskuetan egon da** ad. Izan, ukan (genitiboarekin). *Alkatearen eskuetan dago, eta Juakintxok idukitu duen zensoan hipotekan sartuak ziran lurrak, eta orañ Iruñera jokatzeke asmoa dut.*
- eskuetara begira egon da** ad. Adi-adi egon (deus gal edo ken ez dadin). *Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan, ta lurrak iraulze bitarte honetan ebilliko dira, baño eskuetara begira baitaude.*
- espadun** iz. Haserre antzean dagoena, bekaiztia, kexu dagoena. *Espadun hoiek estu aski dabilza bada hemen, ta Josepe igeleak igandeko bealzeko.*
- espazio** iz. 1. Tokia. *Ardoaz ere ez dago espaziorik batere.* / 2. Tartea, denborra. *Eskalerak espazio dutenean egiñen dituztela esan dute.*
- espensa** iz. Gastua (*expensa* gaztelaniaz). *Biziro ez dut harrapatu, eta Markosek esan dit bark dakiela zazpi espensa behinzat badirala.* / *Espensa da...246 pezetas y 30 cuartos.* / *Espensa pagatu behar du.* / *Espensaren kontua len bealdu dudana da bi olatakoa...229 pezetas y 17 cuartos.* / *Hemengo espensa da hau.* *Hortik bealdu den baba eratsiko dio bost lagunen espensa honi.* / *Ola handikoak espensatako len adiña eskatzen dute: 14 duros.* / *Sagardo hoiek espensan zeñenzat zenbat bealduko dut txartel bat.*
- espensa atera du** ad. Gastua kalkulatu. *Espensa maisuarena atera ta gelditzen zaio ola handiko bakoitzari 30 pezetas y 21½ cuartos.*
- espensa egin du** ad. Gastua egin. *Espensa egin dute...118 pezetas y 2 cuartos.* / *Espensa egin zuten bakoitzak 19 cuartos.* / *Ola handikoak, horko ardo ta ogiaz gañera, egin dute espensa junioan...23...29½.*
- espensa parte** iz. Gastu zatia. *Antonio maisuaren espensa parte da 10 pezetas y 2½ cuartos.* / *Maisuaren espensa parte da 21 pezetas y 6 cuartos.* / *Tretxu hoiek egiñ bitartea kuadroak egiñ ziran 21 quintales; gañerakoak dira tretxuak, eta maisuaren espensa parte da rebajatzeko hau.*
- espensa rebajatu, espensari rebajatu, espensatik rebajatu du/dio** ad. Gastua gutxitu. *Espensa honetan sarzen da berorren babatik kastatu dena ere, eta rebajatu behar zaiote espensa honetatik 5 pezetas y 3 cuartos.* / *Espensa rebajatu behar zaiote 6 pezetas y 5½ cuartos.* / *Sokoloko andreak harzeko du espensan 66 pezetas y 9 cuartos hasta 30 de agosto, eta ematen battio horri bereak, espensari rebajatzea izanen da.* / *Ikus espensari rebaja egiñ sarrera.*
- espensak inportatu du** ad. Gastua hainbestekoa izan. *Horra papera espensarena, ta horra bestea berorrek bealdua zer diru eman zuen. Ta espensak inportatzen du: ogiena...101 pezetas y 26 cuartos.*
- espensa(k) pagatu, espensarentzat pagatu du** ad. Gastua ordaindu. *Espensa hau pagatzeko falta dira 25 pezetas y 29½ cuartos.* / *Espensak pagatu ditut...401...26.* / *Juan Antonio de Belaskori tokatzen zaio, Jose de Olaziregi honek kintalajetik espensa pagatuta, 9 pezetas; gañerakoa honenzat.* / *Ola handiko espensarentzat leneko hillean berorrek pagatu zituen 34 panes a 22 cuartos valen...22 pezetas.* / *Senboll hemen aritu den*



- denborako espensa bost laguneko espensako diruetatik pagatzen da, eta ogiak ere honetan sartu ditut. / Senboll ta Ignazio ta meallea aritu zira-neko espensa paga dezagun kontua egin beza.*
- espensan sartu, espensari sartu** *du/dio* ad. *Juan den astean Elizaldetik eka-riak zituzten 62½ azumbres sidra a 4 cuartos ola handikoak, ta espensan sarzea ez nintzan akordatu hoietaz. / Maisuaren espensari sartu zaio baba, gutxi gorabera eginta.*
- espensari rebaja egiñ** *dio* ad. *Espensari gastua gutxitu. Igande arratsean eto-rrita tobera erre ta lanik egiñ gabe yoan ziran, ta aparitean gastua egin zen bi pezeta. Espensa honi rebaja egiñ behar bazaio, nola irabazi etzu-ten, paratu dut hau. / Ikus espensari rebajatu, goraxeago.*
- esperanza** iz. *Itzaiak dolerez heldu dira honara; mea zuri gutxi dugu, baño espe-ranza txarra dago bildu artea egoteko. / Ta juan naiz ni ere itzaiaz modu-rik izanen ote den burni hoiek eramateko, ta ez didate esperanzarik eman.*
- espero izan** *du* ad. *Bera etzen hemen, kandelarik etzen espero ta.*
- esperoan ebilli** *da* ad. (genitiboarekin). *Anatxuri nik ez dakit zeren esperoan ebilli den honenbeste salsa paratuta; zorioneko harzekoak dauzki honek karraidoretan.*
- esplikatu** *du* ad. *Berak agerzeko asmoa zuela esplikatzen zen.*
- estu egon** *da* ad. *Larri egon. Arotzak ere estu daude.*
- estu ibilli** *da* ad. *Larri ibili. Espadun hoiek estu aski dabilza bada hemen, ta Josepe igeleak igandeko bealzeko. / Irungo itzai ta meakariak estu dabil-za bada hemen.*
- estutu** *da/du* ad. *Haizarka konponzen, errueda konponzen, gurutzeak sarzen ta zepoa estutzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia. / Martiñek dio [...] laxaitzen denean estu ditekeala. / Ola handitik aritzeko modua berehala paratzekotz, atera ta puxka bat estutu dugu bokan. / Tobera erre da. Moztu ta estuturik sartu dugu; berria beharko da. / Irudizko zentzuan ere ohikoa da: Andres agerzen bada ere, estutu gabe badagoke, bai. / Damianek esan dit don Luisek estutzen duela kontuak garbitzeko, ta ostiralean eziñ datorkeala. / Feliz igeleak esan dit berorri gaztigatzeko errenta pagatzeko estutzen duela itxe yabeak. / Sebastian Torrekoak esan dit, berorrek ez egitekotz, saiatu behar duela bestetan, igandeko ehun ezkutu billatzeko estutzen dutela, gaztigatzeko ez edo baia.*
- eta** (gutxitan), **ta** (eskuarki) *junt.* *Ta bean 400 karga bezala Batistarena bi aldetatik duela, eta hau Sanjuan Txutarenzat trazatu dugu. / Ta gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nahiko dituzte horiek. // -ta ere menderag. Nekazaleai berai burnia emanta ere, horrara ez gaztigatu burniaren konturik.*
- etorri** *da* ad. 1. *Etorri. Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean orantxe etorri da. / Gazteluko erreko ik[a]tza 7 karga ta lepalotua eto-rri da. / Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik*

*oñeko miñak. / 2. Joan. Arotzak ere estu daude. Bat horrara etorzeko asmoa dute. / Eta horrara etorzea nahiago badu, datorren astean eziñ datorkeala, baño bestean etorriko dela. / Goiz batean goiz etorriko naiz ni horrara; noiz nahi duen gaztiga bezata. / Horrara etorri ta kontuak lasterrago egiteagatik errealetan paratu ditut lana egiñak. / Irundar hoiek hemen dabilza ondotik, ta hor izandu ziranak nola ekarri baitzuten beren kontua, uste dute nere falta dela, ta txartelekkin horrara etorzeko asmoa egiten dute.*

**etorrialdi** iz. *Haspoak sarzera etorrialdi batean, zigillua garbitzen ta ardatza jasotzen, ta horrela.*

**etsi** du ad. *Irundarrai, etsi dutenean, burni eske hasi ta pagatu tioztet beren azken errestak. Burniaz kitto gaude orañ haiekin.*

**etsia egon** da ad. *Onartua izan. Otsoanekoak esan dit hamalaurraño etsiak zaudela, baño hurrengo jaieraño ez jakin kontrariorik ager zitekean.*

**etsia hartu** du ad. (genitiboarekin). *Alde batera utzi, saihestu. Herriaren kabi txiki hau ere ustaiaren gañetik partitua zegoen, ta honi zapla batzuek ematen tiogu entregako denboran. Bestela egiñ beharko zen, ta hasi guzien etsia hartu.*

**etxe.** *Ikus itxe sarrera.*

**etzi** adb. *Bigar goizean hasi ta etzi arratsaldean entregatzeko modua izanen dugu. / Etzi dihoaz mendira ar[o]tzak, beror[r]jek nobedaderik paratzen ezpadu.*

**etzin, etziñ** da ad. *Etzan. Olan bertan etziñ daiteke, nahi badute / Orañik bigarren tretxua zuten, ta kamañara jua, lanaz kasorik egin gabe, ta lo etzin da. / Mikelestorenak ere (1751: 7, 31) etzin, etziñic darabil.*

**eur** iz. *Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal belza dute nasia, ta, nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite. / Orañ euriak garbituta agertu zaio metal belz zakar hau.*

**euria egin** du ad. *Euririk egiten badu ere, harerik urak eraman ez dezan erakarri ditugu itzaiak.*

**euria izan** da ad. *Euria egin. Ta gero tretxu ale batzuek dira kuadro egiteko. Egunen batekoa, lana, euririk ezpada.*

**ez** partikula. *Guziak botatzekotzat ere, lengoai partitzeko diña baso da; sobratu-rik ez dela, halere, ta uztektan bere moduak hartuko ditu.*

**ez edo baia eman** du ad. *Sebastian Altxuk dio bealzeko 30 ezkutu nahi badu basoa egitea, ta bestela, al duten modua egiten saia ditezen ez edo baia emateko. / Ikus ondoko sarrera.*

**ez edo baia gatzigatu** du ad. *Sebastian Torrekoak esan dit, berorrek ez egite- kotz, saiatu behar duela bestetan, igandeko ehun ezkutu billatzeko estuzten dutela, gatzigatzeko ez edo baia. / Ikus aitzineko sarrera.*

**ezagun izan** du ad. *Nabari izan, nabaritu. Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak, maiz puxkaka emanagatik ezagun gabe juaen al*

*ziran. / Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal belza dute nasia, ta, nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite.*

**ezagutu** *du* ad. *Gizon fin bat da, ezagutzen dut nik.*

**ezetz** (behin), **ezez** (bitan) partikula. *Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, eta ezez dio, ez dela deus egiñen kastua besterik. / ...ta ezez dio, goian puska emanen litzakoala, betik ona balego. / Zerbait esan dit gizon honek, berorrek deus abisatu ote didan kontuen gañean, ta ezetz esan diot. / Ikus baietz sarrera.*

**ezin**, **eziñ** *da/du* ad. *Anitzetan eskatu diot, baño ez du entregatu: batean han duela, bestean eziñ arkitu duela... / Berentzikiko mutillori iaz ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean, ta agoak apainzen eziñ moldatu omen da batere. / Damianek esan dit don Luisek estutzen duela kontuak garbitzeko, ta ostiralean eziñ datorkeala. / Ezin harrapatu dut papera asentatu nuena. / Itzairik eziñ billatu, ta bi orga kuadro hemen daude orañik, ta Lamotheek ez bealzeko gehiago gatzigatu du. / Otsoaneko Sebastian, berorrek agindu diola burniai tiratzeko, ta beñere ondotik eziñ kendu dut. / Semeak eranzun diola basoko irabaziarekin eziñ pasa daitekeala hura.*

**eziñbestean** adb. *Nahitaez, beste erremediorik ez badago. Lantegi baten basoa suertean ematekoa dugu orañik; burkaitz gaistoa da-ta eziñbestean hartuko dute, noski.*

**ezker** adb. *Han dago; Jangoikoak daki norena den! Sarastiren larraña baño ezkerago atera dute.*

**ezkero** 1. adb. *Eguerri juañ denean urtebete ezkeroko Erreteriatik mea...224 quintales. / Kasaraxek pisatu ditu meak 13 setiembre ezkeroko...125 quintales. / Manuel Juakin de Esnauk ditu Eguerriak ezkeroko hamar aste egun bat gutxiago. / Plantxuelak egiñ ziran kuadroa baño len, 16 quintales, eta kuadroa ezkeroko egiñ dira 35 quintales. // 2. menderag. **-en ezkeroko** *Badute ekarria ehun kintal, kontua egiñ genuen ezkeroko. / Franzisko Antonio Uhartekoak ditu, leneko paga egiñ zitzaion ezkeroko, ogi emanak honara [...]. / Hemen gelditu zen ezkeroko, Garatekoak egin du aspaldian egiñ duen mearik ederrena. / **-tu ezkeroko.** Agoak apaindu ezkeroko tretxua eginen luke. / Arranbideko txabaletatik, gu pisatzen izandu ezkeroko, allegatu dira [...]. / Fortalezakoa behartu ezkeroko fronto halere. / Kontua egiñ ezkeroko lana. / Nondik-nahi saiatu ezkeroko ateratzen dute puxkaka. / Pisatu ezkeroko pagatuaz gañera ekarri dute 50 quintales. / Sikiera Erreteriatik mea ekarriko genuke, zerbait eman ezkeroko.**

**ezkondu** *da* ad. *Agerrekoak eskatzen dute 30 ezkutu preziso bear lituzketela; semea ezkonzen omen zaiote. / Anaia ezkonduak 060 quintales. / Ezkondu-ta aitagandik partitu egin da. / Franzisko Antonio de Isasa, hor mandazai egondua, ezkonzen da Manuel Fagotxikikoaren alabarekin.*

**ezkutu.** iz. Diru baten izena (erdarazko *peso*-ren balio bera zeukan). *Ezkutu bana tokatzen zaiote, sei lagunekoa da, horuko maisua hemen izandu denekoa.* / *Franzisko Antonio de Riberek eta bere anaieak paratu dute (sic) 1.200 planta Otsandolan, ta bealduko ditu 30 ezkutu, paguaren erdia.* / *Gaia eroste ta arotzaren eskua 26 ezkutu bezala kostako omen da.* / *Hau Maxalenek egin, esaminatu du, ezkutu erdi bana karga; dirua eskatzen dute.* / *Itzaiak ezkutu bana eguneko.* / *Milla tellak balioko du sei ezkutu, 4.000 tellak...24 pesos.* / *Sebastian Altxuk dio bealzeko 30 ezkutu, nahi badu basoa egitea.* / *Ikus bost ezkutuko, hamar ezkutuko eta hoge ezkutuko sarrerak.*

**ezkutu lodi** iz. Diru baten izena (gaztelaniaz *escudo fuerte*). *Artikutzako itzaiak dira gehienak, ta pagua beharko dute berehala. Eraringo bedere-tzi uztarriak ezkutu lodi bana, 45 pezeta.* / *Erariñan Zuloakoa ta Agerrekoa han ziran lorrean, ta hoiinak utzita beste zazpi ezkutu lodiak beal bitza.* / *Gañerako hamabi orgak berak pagatu ditu deretxoak, ezkutu lodiak neregana bealduaz.* / *Burdinoletan ezkutuak ardatzaren errueda edo gurpileko makoei josiak ezartzen ziren oholak ziren (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 47, 176, 251).* Guk ez dugu, alabaina, holakorik ediren gutunetan, orain arte.

**fabore** iz. *Horra guri egin digun faborea.*

**fabore(ko/rako) izan** (genitiboarekin) *da* ad. -en aldekoa izan. *Berorren faborekoak dira 1.026 reales.* / *Ola handikoai kontatu diotet ogi bakoitza; berorren faborerako 38 cuartos.*

**falta** iz. Hutsa, okerra. *Baño baziran 384 de 5 reales. Ez da faltarik.* / *Erremienta egiteko eguna ezkutu erdia kontatzen zaiola ditu falta hoiek.* / *Irundar hoiek hemen dabilza ondotik, ta hor izandu ziranak nola ekarri baitzuten beren kontua, uste dute nere falta dela.* / *Pilliperen semeak 26 kargaren kontua eman badu, ez dakigu haren edo gurea den falta, eta gure falta bada, ikatzgilleak ere falta baititu bi lepalotu horiek.* // **-en faltan** adb. Zerbait ez izanik. *Garatekoak ere geldirik daude polboraren faltan, ta Munoako hau-ta ere planta onean daude; sikiera Erreteriatik mea ekarriko genuke, zerbait eman ezkerro.*

**falta izan** *da/du* ad. *Atzo Isasolako karraidoreai erakarri nitiozten ikatzak...56 cargas, olan hasteko ikatza falta izanta.* / *Faltako dira espensa eta beste kontu honetarako 54 pezetas y 4 cuartos.* / *Gañerakoa falta da... 30 pezetas y 18½ cuartos.* / *...ta ezkutura falta zazkion hoiek eman nahi balitu, gaztigatzeko esan dit.* / *Ta libranzarik ere ez, ta orañ firmatu du Portuk, baño libranza falta du.*

**faltarik gabe** adb. Oroiki. *Ta esan omen dio orañ etorri dela ta ez dituela despatxatu paperak, lau egunen buruko Oiarzungo komesarioaren itxera bealduko dituela faltarik gabe.* / *Ikus sin falta sarrera.*

- faltatu** *du* ad. *Gerozko denbora larunbat artea du, ta aste honetan hogeita lau ordu faltatu.*
- febrero** iz. *Febreroko espensaren arrazoia hor da...20 pezetas y 32 cuartos. / Jose berozalleak febreroan kontuak egiñ ezker hartuak omen ditu hamar ezkutuko bat ta hamaika urretxiki zar.*
- ferra, perra** iz. *Anatxuriren perrazalleak eskatzen du perra burnia. / Ferrak ta lengo harzeakoaren deskita egin burnian...2 quintales.*
- ferra eman** *du* ad. *Ferrak paratu, ferratu. Dio berorren mandoai eman tiola ferrak...456. / Eziñ eman dezakeala ferrarik. / Horko mandoai eman omen tio ferrak: 88...44 pezetas.*
- ferratu** *du* ad. *Zamariei-eta ferra paratu. Lorrerako idiak ferratuko badira ere dirua beharko dute; itzaiak hala diote. / Orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera-ta, edo bestela karraidoretan kontuan pasatzeko. / Tretxuarekin txabala idi ferratzekoa egiñ nahi dute.*
- ferratzalle, ferrazalle, perrazalle** iz. *Ferratzailea (perrajero erdaraz). Ferrazalleari 20 pezeta abonatu zitzaion meakarien kontura. / Honek hartu du kintal bat burnia perrazallearenzat, ola handian tiratua. / Pedro Migel ferratzalle horrek ekarri ditu meak 31 quintales y 3½ arrobas, ta burnia hartu du 5 arrobas y 24 libras.*
- fiatu** *da* ad. *Fidatu. Fiatu giñan eta esan nion ongi zela.*
- fiel** iz. *Pisu-neurriak kontrolatzen zituen (udal) langilea. Fielai pisuetara etorrita emana...01...00. / Fielai...001...00.*
- fin** adj. *Gizon fin bat da, ezagutzen dut nik.*
- firma** iz. *Izenpea. Hark zer egiñen duen bada esan dit, alkateak egiñ behar duela, ta firma hutsa egiñta bealdu du berriz hark.*
- firmatu** *du* ad. *Sinatu. Ikatzgille horiek etorri zaizkit txartel horrekin, alkate zarrak egiñ diotela eta firmatu ere gabea, ta libranzarik ere ez, ta orañ firmatu du Portuk, baño libranza falta du.*
- forma** iz. *Sukaldea eta gela baten forma paratu behar litzake olaitxean, eta eskalerak ere beharko dira.*
- fraile** iz. *Bost olakoak hartu dute frailearenzat bakoitzak biña erreal bellon. / Fraileai eman tioztet Honbretxorenzat...1½ pezeta. / Fraileai emanak kargatu behar zazkio...5 reales vellón. / Fraileari olakoenzat...03 pezetas y 17 cuartos.*
- franko** zenbtz. (izenak -a ohi darama). *Bada hemen lana franko ta preziso egin behar dutenak. / Ikatzgillea gose bada, egiñen da ikatza franko bi puska hoietan. / Irundar hoiek iskanbilla franko badarabilte. / Juan Migelek Errenteriakoan franko badela, baño esamiña ona daukan medioz pretenditzen duela. / Len aldiazka bezala orañ guziak batean, ta len ordañakoa franko izaten da (sic) han dabilzan haietan. / Malura franko badute.*

- franzes** adj./iz. *Franzes itzagille batek 1 quintal y 18½ libras. / Olatxoia ongi hasi da. Ta franzesa ez da agertu, ta gaztigatu diot datorrela berehala.*
- fronto** adb. Pronto, prest. *Diru hau fronto behar dela eskatzen dute. / Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut, ta mandazaiak ere orobat, iratzea dela, artoa dela, guziak badabilza. Fortalezakoa behartu ezkeron fronto halere.*
- frontoxeago** adb. Prestxeago. *Zuloakoak berak honara eman nahiagatik ere, beste bi lagun badira partidukoak, eta haiek Isasolara lenago limurtuko dira, dirua frontoxeago izateagatik.*
- fuerza** iz. Sendotasuna. *Nik esan diot berorrek nolaerebait berorrek (sic) adobatzeke modua hartu nahiko duela, eta ezez dio, ez dela deus egiñen kastua besterik, ez daukala fuerzarik gezurraskak.*
- fundamentu** iz. 1. Modua. *Sarastiri nik esan diot libranza egiñ dezatela, edo zer fundamentutan dirua eman behar den. / 2. Ganora, funtsa. Arotzak baño fundamentu hobean egiten ezpadugu, ez da luzaro egonen. / Beste batean ere behartuko gera, bai, hemen dagoen fundamentuagatik. / Itzaiak baietz esanta beren gisa dabilza, honara gabe eta zerbait bealdu edo zerbait egiñ beharko zaiote fundamentuz hasiko badira.*
- fundamenturik ez eman du** ad. Argitasunik ez eman. *Besteak sanestebanak aipatu dituzten denboran eskriboak yakin behar zuela, baño fundamenturik etzuen ematen eskritura ekusi artea. / Biziro hemen ez dela esan du Markosen semeak, eta honek ez du fundamenturik ematen, eta aitak zazpi edo zorzi badirala dio.*
- gabe** adj./postpos./adb. *Entregatu gabeak hiru edo lau kintal omen dira itxetan orañik. / Itxekoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko, ta galdatu dugu ta hamalau kuartoan katzik gabea, ta hamazazpi kuartoan gazitua omen daude. / Orañ bota gabe uzteketan, dagokala goia edo betik, edo nola uztea nahiko duen adiraziko du. / Mikelestorenak (1751) *bague* ohi dauka (8, 9, 21, 23, 65, 73, 86), baina *gabe* ere badu inoiz (39, 77); *vide bague* (18) eta *videgabe* (58) ‘bidegabe’ izena ere badarabil.*
- gabez** menderag. *Gure dirua itzuli dute lurrak kenzeko eta hartu nahi gabez.*
- gai** iz. Ekaia. *Alde olen gaia egiñ genuen zerratzeke asmoan [...]. Eta haizarkarenzat gezurraskaren gaia ere bai; laster beharko da. / Erarinalde edo Iratzergin izanen omen dira gaiak. / Orañ gaia erosi ta geroxeago egiñen dugu; arotzak era dutenean beharko. / Orgaren gaia ta josteko herreroarenzat hartu du burnia: 7 arrobas y 14 libras. / Pedro Ignazio de Ibarburuk bi barraren gaia 30½ libras. / Sagardo txarra egiteko onzirik ez dugu-ta, kupela egiñ behar nuke; gaia erostea ta arotzaren eskua 26 ezkutu bezala kostako omen da. / Ikus borra gai, golde gai, gurutze gai, ikatz gai, itze gai eta material sarrerak.*
- gaisto** adj. Txarra. *Besteak gaistotzat botetan bilduak ote diran nago. / Bide egite gaistoak daude; gaitzena egiñ da orañoan. / Lantegi baten basoa*

- suertean ematekoa dugu orañik; burkaitz gaistoa da-ta eziñbestean hartuko dute, noski.* / Mikelestorenak ere (1751) *gaisto* darabil (10, 15, 17, 19, 22, 23, 58...).
- gaitz** iz. Eritasuna. *Agerreko Patxikuk gaitzarekin-ta makiña bat zor egiñ dutela.* // adj. Zaila, nekeza. *Bide egite gaistoak daude; gaitzena egiñ da orañgoan.*
- gaitziru** iz. Gaitzerua (pisu neurria). *Gaitziru bat baba.*
- gaizki** adb. *Gure anaieak deskuidoan gaizki bealdu zuen kontua horra.* / *Leteko andrea hemen izandu da, semea gaizki daukala ta letra bi egiteko.*
- galbai** iz. Bahea. Besteak beste, mea eralkitzeko eta ikatza neurtzeko ibiltzen zuten. *Tretxua egiñ artea erre dira hamalau galbai ikatz, ta karga zenbat galbairekin egiten den neurriko dugu astelenean.* / A. M. Mitxelenak (2020b: 258, 273) *meagalbaia* eta *zirtagalbaia* biltzen ditu, biak ere zurezkoak, mea bereiztekoak; horiekin batera hirugarren galbahe mota bat ere bazen, ikatzerako ibiltzen zena, hau ere zurezkoa.
- galdaka ebilli** da ad. Galdezka ibili. *Irundar hoietan itzai bat dabilla meatan dirua etorri den galdaka.*
- galdaka egon** da ad. Galdez egon. *Maisua ta berotzalle hau ere galdaka daude deus ageri den.*
- galdatu** du ad. 1. Galdetu. *Aldakokoak badu gaztañadi hoietan, ta salduko duen galdatu diot ta baietz esan dit.* / *Arotz hoietan beharrak dira gehienak, ta yornalaz galdatzen dute ta garbitu behar lirake orañdañoakoak.* / *Leneko kontua hartan nik ez nituen paratu hoiek, ta hemen galdatzen dute hoietaz ere olagizonak.* / *Manuel Bengoetxea honi ez diot galdatu orañik, baño eman baño len galdatuko diot honi ere.* / 2. Eskatu. *Sagar ardoaren diruaz ere galdatu dute 137 pezetas y 32 cuartos.*
- galdu** 1. da/du ad. Zerbaitez gabetua gertatu (ustez). *Baltasarrek dio Garalorregin ta Otsandolan, hoiien esamiñan, ongi aterako dela, izerdiak galduak izanagatik.* / 2. Zerbaitez ez baliatu. *Errueda eskatu edo makoak bota ta beste egun bat galdu zuten konponzen.* / *Ta ari dirala inguderi sartu-ateara egiten gau-egunak galdu dituzte.* / 3. Usteldu, hondatu. *Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezez dio, goian puska emanen litzakoala betik ona balego, baño guzia galdua dela.* / *Olatxoko tobera galdua dago ta lana dago orañ berria egitea ere.*
- galza** iz. *Galzatxiki goitizenean ageri da.*
- galzada** iz. Galtzada. *Bekoa erdi bana dugula goian puxka bat hartuko nuke, baño guk bestetaz lanak egi[n] nahi ta kanpoko la[n]gillekin sarri beko galzadan litzake gure lur puxka.*
- ganbara** iz. *Hortik heldu diran burni hoiek laster eramane behar duten gatziga beza, laster ez eramatekotz ganbarara igo ditzakun [...]. Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua, baño orañ batere ez, ta ganba-*

*ran ere orañ puxka bat hostoak abitzera egiñ da, baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz.*

**ganz** iz. Gantza. *Ganza 9 libras a 38 cuartos...10...21. / Ganza ta ardoak...19 pezetas y 2 cuartos. / Matantak omen ditu ganzak horrara bealduak, ta Martin unaiaren deskita nik esan diot, ta esan dit ganzen dirua harzeko duela honek ere, ta ganzen alderako uste zuela Martin unaiaren kontua, ta espensan berorrek deskita egin badu, ganzen dirua bealzeko berehala.*

**gañ** iz. 1. Gaina, muinoa, mendia, gailurra. *Lau uztarri beharko omen ditu zur bark goiko gañera ateratzeko, gutxienaz. / Meak rezibitu ditut: Aireko gañetik...317 quintales y 1½ arrobas.*

**gañean** adb. (genitiboarekin). -en inguruan. *Zerbait esan dit gizon honek, berorrek deus abisatu ote didan kontuen gañean, ta ezetz esan diot.*

**gañean egon** (genitiboarekin) *da ad.* -en gain egon. *Eta bitartea Konsejura ta Isasolara eramanez gañerakoak gure gañean daude.*

**gañean hartu** (genitiboarekin) *du ad.* -en gain hartu. *Manuel Itxabestek harzen du zor honen kargua bere gañean.*

**gañera** lok. *Erretazoak inportatzen du 50 cargas, 18 cuartillos; tantoa 6½ cuartos ta probestuaren pezeta gañera. / Guziak erdi bana dituzte bi hogei ezkutuko, 24 urretxiki ta burniak gañera, ta guziak erdi bana dituzte. // adb. (genitiboarekin) ‘-etik hurbil’ (edo) adb. Astelenean bildu ta ingudeari sartu-aterae eragin genion arrats artea, ta gabaren gañera ez hasitzeagatik, goizean hasi ziran, ta Tomasen lekuan Lorenzo Alsua zen hemen. // -en gañera postpos. ‘-ez gainera’. Agerrearen sei anega baba dira ta, olarako asmoan, nik geldituak daude saldu gabe; guziak 66 pezeta, lau urretxikien gañera. / Iturriozko ferrazalleak pagatu behar ditu ikatzak eta tiratzea zer den, eta kostarioaren gañera burniaren balioa Sebastiani. / Kasarasen ta Zuloakoaren ta Agerrekoaren kontuan pasatuen gañera dira hemengo hoiek. / -z gañera postpos. Gastu hoiez gañera probestuaren pezeta. / Horiez gañera Olaandituko dotazioan egin da hamabi kargaren entresaka. / Olatxoan, horko ogiaz gañera, kastatu da hemengo iriñatik [...].*

**gañerako** adj. *Gañerakoa falta da...30 pezetas y 18½ cuartos. / Gañerakoa honenzat. / 17¼ onza urre ta 28 reales gelditu ditut, ta gañerakoak daramazki. /...ta gañerakoa zor du. / -en gañerako adj. Anaxuriri ere kenduko diot 31 kargen balioa, Olaberrira egiñ duen karretoaren gañerakoa. / Hemeretzi kargaren gañerakoak Anaxurik jaso ditu Alziberko aberekin Olaberrira. / -z gañerako adj. 31 karga hoiek pagarazi behar tiogu guk Anaxuriri, gure olara egin duen karretoko kastuaz gañerakoa. / Leku onak dira gureak, bakar honetaz gañerakoak. / Len eman dituenaz gañerakoak.*

**garai** adj. *Badu diferenzia esamiñan lengo eginalditik, ta lau yorrada edo bost egiñ daitezke. Gazteluko meatzetara goazela garaitik da puska hau. /*



*Hondarrabiako babak ziudadean batzuek ta besteak ziudadearen garai-ko aldean, bere itxean omen ditu gizon hark.*

**garbi** adj. *Orañ berorrenzat garbiena da Olaberrira jaso diran 56 kargak oso pagatzea.*

**garbiro** adb. *Berorrek bere tokatzen zaiona beal beza garbiro.*

**garbitu** du/da ad. 1. *Garbitu, ikuzi. Erreterian mea garbitzen ari diran oiar-zuarrai eman ditioztet bi pezeta / Euriak garbituta orañ metal belza dute nasia. / Haspoak sarzera etorrialdi batean, zigillua garbitzen ta ardatza jasotzen, ta horrela. / 2. Argitu, kitatu. Damianek esan dit don Luisek estutzen duela kontuak garbitzeko. / Gaztigatu bezala-ta, arotz hoietan beharrak dira gehienak, ta yornalaz galdatzen dute ta garbitu behar lirake orañdañokoak. / Irundarrak, kontu garbitu hoietaz gañe[ra], badute ekarria Erorzaratik 130 kintal. / Itzaiak ebilliko badira, lengo kontuak garbitu nahi lukete. / Nere asentuak ere ekarri ditzake, guk ere garbi ditzagun. / Nik ere behar nuke hogei ezkutuko bat, eta kontuak garbitu behar ditugu. / Olagizonak diote ea larunbatean itxean izanzen ote den, kontuak garbitzeko.*

**garbitzalle, garbizalle.** *Ikus mea garbitzalle, mea garbizalle sarrera.*

**garesti** adb. *Donostian ogia zorzi kuartoan dagoela esan du Manuelek, eta prezio diferentetan ebilzen omen da, anitz dagoenean merkexego eta gutxi denean garestiago. / Matantak lau kuartoz garestiago em[a]ten zigun olio, ta neurrian gutxiago, ta ora[ñ] merkena den lekutik ekarzen dugu bi olata[ra].*

**gastatu, kastatu** du ad. *Artoa ta baba behar dituztela itxolara segi dezaten, bestela dirua bealzekotan kastatu egiñen dutela. / Aurten kastatzeko urtea dugu, inñudea ere hillean hamar pezeta pagatu behar dugu-ta. / Azkeneko berorrek bealdu zituen 13 pezetas y 4½ cuartos hoietatik gastatu dute espensa honetan 7 pezetas y 22 cuartos babatan. / Hamaikatakoan gastatu da 6 pezetas y 25½ cuartos. / Lata ilzea kastatu da.*

**gastu, kastu** iz. *31 karga hoiek pagarazi behar tiogu guk Anaxuriri, gure olara egin duen karretoko kastuaz gañerakoa. / Semearen gastuak...2.842 reales.*

**gastua egin, kastua egin** du ad. *Igande arratsean etorrita tobera erre ta lanik egiñ gabe yoan ziran, ta aparitean gastua egin zen bi pezeta. / Nik esan diot berorrek nolaerebait berorrek adobatzeko modua hartu nahiko duela, eta ezez dio, ez dela deus egiñen kastua besterik.*

**gastua izan da/du** ad. *Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera juan naitzanean, gastu puska bat gehixeago izanzen dudala noski.*

**gau** iz. (*gaba*, artikuluekin) *Astelenean bildu ta ingudeari sartu-atero eragin genion arrats artea, ta gabaren gañera ez hasitzeagatik, goizean hasi ziran, ta Tomasen lekuan Lorenzo Alsua zen hemen. / Beste gau batez bergamazoia erori ta goizean, egunaz egin zen. / Hoietaz gañera ere,*

*maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten, egunaz konponduko zutela.*

**gau-egunak** iz. Erretzen lenbiziko egunean bi lagun, ta gau-egunetan launa, horra hamar...10 días. / Lorenzo etorri zenean ingudeari su eman ta konponzen ta sarzen gau-egunak geldirik; honetan beren espensatik yan zuten. / Ta ari dirala ingudeari sartu-aterrea egiten gau-egunak galdu dituzte.

**gaur** adb. Egun. Arotzak gaur mendian dira, ta bigar zepoa atera behar dute. / Burniaz kasorik egiñ gabe juan dela Donjuanera. Eta gaur etorriko da Goizuetatik. / Eta olatxokoak, gaur Errenterian pillota yokoa da-ta, arratseko etorriko direla joanak han dira. / Gaur ta bigar lorrean bada-bilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nahiko dituzte horiek. / Lengo hiru egunetan Fagotxi[ki]koa bakarrik zen, atzo Anzanborda ta gaur Bordatxo lagun. / Ikus egun sarrera.

**gaur-bigarretan** adb. Gaur edo bihar. Eta gaur horrara etorri asmo zuen berorregana, eta Bautistak gaur-bigarretan Artikuzara juateko esan diotela.

**gaurgero** adb. Honezkero, engoitik, gaurgoitik. Guk uste genuen gaurgero ola horren kandela joko zenuela. / Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaurgero nahiko dute noski. / Urzalle hau sendatzen ez da, ta gaurgero lan hondarrak akabatu artea hemen beharko du.

**gauza** iz. Baño gauza guziak amentuarekin kontatzen dira. / Idiak itxean ditu ta bere gauza salzeagatik ekarriko zituela omen zion. / Sidro hau olara ekarzea gauza makurra da. / Ta ez duela gauza horretan metitu nahi.

**gauza ez izan da** ad. Balio ez izan. Betik ispia ta alde olak emateko lekuan ere guzia ustela dagoela, ta nahi badu ekusi dezala, baño ez dela gauza, ta gezurraska sarzen hasi ezkerro, hondaska ere berria beharko dela.

**gauza onik ez egiñ du** ad. Ez du gauza onik egiñen, ez da kontentu. / Itsas metal puxkaren baten modurik ezpada paratzen honarako, ez da gauza onik egiñen, haxiak dirala ere. / Martiñek dio guzia ustela dagoela, ta ez dela gauza onik egiñen. / Zergatik itzaiak etzuten gauza onik egin nahi kargatzallerik gabe.

**gauza onik ez izan da** ad. Hemen gauza onik ez da.

**gazde** (gehienetan),<sup>20</sup> **gazte** (inoiz) adj./iz. Anaie gazdeak Errenteriatik ekarri dute mea. / Hamabi egun ez besteak gazde honek pasatu ditu. /

<sup>20</sup> Alderatu Etxalarko gutunetan (Apezetxea, 2006) ageri diren *uzden direlaric* ‘uzten direlarik’ (1826, 431), *otoizden zaitut* ‘otoizten zaitut’ (1861, 442) formekin. Goizuetan berean *erosden dute* ‘erosten dute’ dugu 1827ko udal ordenantzian (Satrustegi, 1996: 301).

*Ianziko igele gazde honi kargatu behar zaio fraileari emana. / Palazioko gazteak maxterra hautsia daukala. / ...ta egondu naiz gazdearekin. Txotxa zenaren seme gaztiari olatxoan irabazia 5 pezetas. / IBk ere, behin gutxienez, gazde dakar.*

**gazitu** adj. *Itxekoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko, ta galdatu dugu ta hamalau kuartoan katzik gabea, ta hamazazpi kuartoan gazitua omen daude.*

**gazta** iz. *Gazta bat eta zorzi arraulza ta lau sardiña.*

**gaztaña** iz. *Gaztainondoa. Azkeneko gaztaña hau kandelan hartu dut, ta probestuak behar du pezeta. / Gaztaña tantaia len izaten zen paraje honetan 190 karga. / Madarimotxeko gaztañetako kandelan probestuari...1...00. / Ola kandelan yarri zen denboran gaztañak ere kandelan zauden.*

**gaztaña ikatz** iz. *Gaztainondoaren egurrarekin egiten den ikatza. De Intxaurtxota gaztaña ikatza...3. / Ignazio Aranburukoak Bullegitik bealdu ditu hamaika karga ta lepalotu erdi bat gaztaña ikatza, ta gerok jaso dugu. / Olazarreko alkateak esan dit gaztaña ikatza puxkaren bat suan daukala. / Olazarreko zor da hamazazpi karga ta erdi gaztaña ikatza. / Sarobeko Juan Ignaziok gaztaña ikatza eman digu, 12 karga. / Ikus bedi ikatza gaztaña sarrera.*

**gaztañadi** iz. *Agerreko Patxikuri gaztañadira itxola 2 cargas. / Aldako[ko]jari itxola hartu diogu gaztañadi honetarako. / Gaztañadiko basoa: honetarako itxolarik ez dugu. Aldakokoak badu gaztañadi hoietan, ta salduko duen galdatu diot ta baietz esan dit. / Martin Aldakokoak esan dit gaztigitzeko berorri nola gaztañadi bat harzeko tratuan den. / Martin Jose de Goñik gaztañadian zer plazeria zuen ez nago seguru.*

**gaztigatu du** ad. *Jakinarazi, esan, abisatu. Hortik heldu diran burni hoiek laster eraman behar duten gaztiga beza. / Iskaluk honen kontua bealzeko gaztigitzeko esan dit. / Itxekoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko. / Manuel de Bengoetxea hau orañ ez dabilla lanean. Lengo harzekorik ezpadu ta emanen zazkion edo ez gaztigituko du (berorrek). / Nahi badu txartela eskatzen duten hoiei beren kontua ematea, edo guziena batean egin nahi duen gaztiga beza. / Ogi egilleak gaztigatu du, erroteria pagatzeko behar duela-ta, ogien diruaz. / Peloako Agerrek gaztigitu du ielsuak berorrenzat bost erreal balio duela. / Ikus abisatu sarrera.*

**gehiago** zenbtz./adb. *Berak uste du gelditu zela zor hamasei ezkutu ta errealen batzuek gehiago. / Gehiago barrika ustai bi...10 libras. / Hoiek despeitu ditut ez gehiago ekarzeko beko meatzetatik. / Irundar hoietan itzai bat dabilla meatan dirua etorri den galdaka; beste gehiago ere hasiko lirake diruaren soñua aditua balaukate. / Irungo guk egin genituen bi puskak ere salgai dira, ta beste gehiago ere bai. / Ola handitik ari diranean kuartillua gehiago omen da usuarioa. / Orañ ez dakigu emanen diguten ogia gehiago. / Pello Esnauk 18 anegaren lekuan 15 anega hartu ditu; etzen*

- gehiago.* / *Sarastik esan dit kandelan paratuta bajatuaz ekarriko dutela, ta iñork gehiagok hartzen ezpadu, orduan emanen dutela.*
- gehiegi** zenbtz./adb. *Ta gehiegi badu, Sanjuan Txutak bi zulo hartu nahi ditu, ta Bizenterenzat Xardearen mugan goiko puskan bealdetik bada puxka bat.* / *Berorrek deskuidoan gehiegi abonatua.*
- gehien, gehin** zenbtz./adb. *Artikutzako itzaiak dira gehienak.* / *Espensak pagatzen ezpaditugu ez du, noski, iñork deus emanen; gehienak hala minzo ziran.* / *Hemen ere zazpi lineako eta zorzikoa egiten da gebiena.* / *Kanpoan ez dagoela lantegi onik, pillaretan edo zillegi ez den tokian gehienak aritzen dirala.*
- gehienaz ere** adb. *Gehienez ere. Nahi badu beren itxe txarrean urteren bat iragoko dutela gehienaz ere.*
- gehixego, gexego** zenbtz./adb. *Eta esan dute gexego baliz nabiago, baño obligazioko hori badere al badu egite[ko].* / *Hoietaz gañera, maxuran pasatu dute... boba eskatu egin zen, ta bobatzen agoaren bat edo gexego bezala galdu zen.* / *Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera jua naizanean, gastu puska bat gehixego izanen dudala noski.*
- gela** iz. *Sukaldea eta gela baten forma paratu behar litzake olaitxean.*
- geldirazi du** ad. *Geldiarazi. Aranzateko mea, olajabeak geldirazi zuen hura, eman nahi dute, baño len pezetan entrega.* / *Gazteluko meakariak geldirazi dituzte meatzetan. Deretxoak dituztenak Justiziak geldirazi ditu.* / *Orañ geldirazi ditugu, ta beren kuartoak eskatzen dituzte.*
- geldirik** adb. *Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten.* / *Garatekoak ere geldirik daude polboraren faltan.* / *Hoietaz gañera ere, maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten, egunaz konponduko zutela.* / *Lorenzo etorri zenean ingudeari su eman ta konponzen ta sarzen gau-egunak geldirik.*
- gelditu da/du** ad. *Espensa maisuarena atera ta gelditzen zaio ola handiko bakoitzari 30 pezetas y 21½ cuartos.* / *17¼ onza urre ta 28 reales gelditu ditut.* / *Hemen gelditu zen ezker, Garatekoak egin du aspaldian egiñ duen mearik ederrena.* / *Ikatza ta tretxua puxka bat bildu artea, olatxoa gelditu dugu.* / *Ola gelditu da eskarpa guzia erreta eziñ ariz.*
- gero** adb. *Anatxurik etorri ta eraman egin nahi du, ta gero karraidoreai kargatu, baño ematera orduko norenzat den jakiñik ematea hobe da, salsan gero ez gabilzan.* / *...ta esan zuten nahi zuenak memorialarekin presentatzeko, ta gero ere kandelara beharko zutela memorialaren gañean.* / *Ta gero tretxu ale batzuek dira kuadro egiteko.*
- geroko** adb. *Alde olen gaia egiñ genuen zerratzeko asmoan, ta ekarri dugu orañ; geroko hemen izanen da.* / *Harek dirua hartuaren erreziboa ematen du, ta gañerako ardatzaren ta bigarren alkabalaren kontua atzera beti geroko.* / *Ikus aurrerako sarrera.*

- geroxeago** adb. *Orañ gaia erosi ta geroxeago egiñen dugu; arotzak era dutenean beharko.*
- gerozko** adj. Ondokoa. *Endara Artikutzan berorrekin egondu zen igandearrekin, ta honara etorri zen astelenean 4 de agostoan, ta gerozko denbora larunbat artea du, ta aste honetan hogeita lau ordu faltatu.*
- geroztik** adb. Ordutik, harrezkero. *Agustiñen ikatzak. Kontua bealdu nuen hasta 24 de marzo...81 cargas. Geroztik ez da etorri batere. / Franzisko de Aranburu Agerrekoaren kontua bealdu nuen hasta 18 de diciembre de 98. Geroztik orañdaño ekarri du, Erreteriatik olara mea...205½ quintales. / Geroztik San Migel artea berotzalle pasatuak...5 semanas y 1½ días.*
- geroztikako** adj. *Luis de Lekunari kontua eman nion Eguerri juan denak arterañoako lanena ondorengo egun batean, eta geroztikako lanak inportatzen dute 327 reales y 19 maravedís.*
- gerri** iz. *Len hemen zen agoa palanka hautsi ta eskarpatuaz guzia mehatua da gerrian, ta amor ematen du agoa ateratzeko denboran.*
- gertatu da** ad. *Ekusi beharko zaió zerbait iñoiz gertatzen denean, ta bide giteko lana ere aparte beharko da.*
- gezur** iz. *Aldakoko nagusiak esan dit koñado Galardik izandu ere badu prenteriorik olaz, honek ez dakiela izandu duela, gezurrak dirala guziak. / Bada, Salbadorrek esan dit berorri gaztigatzeko gezurrak dirala. / Len ere aspertu giñan harekin, gezurra ta iskanbilla besterik ezta hura. / Sidro hau olara ekarzea gauza makurra da. Larunbatetan beti itxera, ta hasialdia hagitz gutxitan harrapatuko du, ta beti gezurra, han izandu hemen izandu.*
- gezuraskak** iz. *Antaparatik burdinolako gupil edo erruedetara ura eramateko aska zuta (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 40-41, 106 eta 259). Larramendik (1882: 68, 72) guezur-asca, guezurrasca dakar. / Alde olen gaia egiñ genuen zerratzeko asmoan, ta ekarri dugu orañ; geroko hemen izanen da. Eta haizarkarenzat gezurraskaren gaia ere bai; laster beharko da. / Ezez dio, ez dela deus egiñen kastua besterik, ez daukala fuerzarik gezurraskak. / Martin egun etorri da bost lagunekin, ta erruda eskatzen hasita gezurraska goiaz erori da, seguratu gabea zegoen-ta. / ...ta gezurraska sarzen hasi ezkerro, hondaska ere berria beharko dela. / A. M. Mitxelenak (ibid., 94-95, 109) Erreterriako Añarbe burdinolako dokumentazioko «la rueda del eje mayor juntamente con su ondasca y guezurrasca», «La ondasca y guezurrasca del martinete» jasotzen du, baita Artikutzako Elamako «La aizarca o cubo de viento del martinete con su guezurrasca» eta «La ondasca y guezurrasca del martinete» ere.*
- gisa** (genitiboarekin) postpos. 1. Bere moduan, libre, norbaitek nahi duen bezala. *Eta hortik heldu diran kabillak hemen daude, eta itzaiak baietz esanta beren gisa dabilza, honara gabe, eta zerbait bealdu edo zerbait egiñ beharko zaiote fundamentuz hasiko badira. / 2. Bakarrik. Bakoitzak*

*bere gisa egintako lanak: Migel de Aranburuk arrago egurra 20 leras [...]. / Mutill horrek berak 5 libras, eta hau horrek bere gisa pagatu behar duela dio, eta besteak meakari lagunarekin batean. / 3. Bere baitarik. Arratsaldean ni kalera yoan ez ninzan-ta, bere gisa etorri omen zen honara, nola kalean harrapatu ez ninduen.*

**gizon** iz. *Aldako[ko]jari itxola hartu diogu gaztañadi honetarako, ta gizon edozeñi erakusteko esan zidan. / Aranederreko gizona hemen izandu zait, (berorrek) merkataria billatuko ote duen. / Gizon hark berorrek pezeta agindu ta hark gehiago behar zuela, txaponen bat-eta ziola [...]. / Olatxeko gizonak berrehun ziri egiñak ditu.*

**gobernu** iz. *Udalbatza (behin). Bada, Salbadorrek esan dit berorri gaztigatzeko gezurrak dirala, jendeak darabilzitela gobernu[ko] horiek.*

**gobierno** iz. *Udalbatza (normalean honela). Andresek esan dit [...] ardatz haspategiko honetaz berorrek gobiernokoekin konpondu behar duela. / Gobiernokoen berri badakiela ta berorrek ere egon behar duela. / Gobiernokoren batzuekin egondu omen da. / Sarastik esan dit gobernukoen aurrera eramanazita sanmigelak aldera direla.*

**gogo handirik ez izan du** ad. *Gogo handirik ez du honek ere honarako.*

**gogo onean** adb. *Iñor[k] ez du lanik gogo onean egiten!*

**gogo txarra iduki(tu) du** ad. *Gogo txarra daukate hagitz.*

**gogotik ari izan da** ad. *Gogo onez, gustura, martxa onean. Botatzeko denbora da eta egurzaleak gogotik ari dira.*

**gogotik ebilli da** ad. *Gogo onez, gustura. Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan.*

**goi** iz. *Goia. Bekoa erdi bana dugula goian puxka bat hartuko nuke. / Emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko. / Ezez dio, goian puska emanen litzakoala betik ona balego. / Orañ bota gabe uztektan, dagokala goia edo betik, edo nola uztea nahiko duen adiraziko du.*

**goiara** iz. *Burdinolako teilatuko egurrezko peza nagusietakoa, berez zuhaitz baten enborra zena. Ikus A. M. Mitxelena (2020b: 33, 254, 257) eta 1801.10.25 gutuneko oin oharra. Erariñan goiara ta kapiñoak, eta Oielekun ardia. / Esan didate olatxorako goiara Erariñan badagoela, hai-zeak botea, ta hura ekarzeko. / Eskaleraren aldeak egiñ daitezke deskargan dagoen olatxoko goiara zar honekin.*

**goiaz** adb. *Goitik (ustez). Martin egun etorri da bost lagunekin, ta erruda eskatzen hasita gezurraska goiaz erori da, seguratu gabea zegoen-ta, eta pareta yota puska bat bota du, ta guzia artesi goiaz.*

**goierriar** iz. *Goierriarrek dira Errenterian ta Lezon bizi diranak. Orañ geldirazi ditugu, ta beren kuartoak eskatzen dituzte. / IBren eskutitzetan Goierrri izengoitia zuena edireten dugu: «Saldagarbiren babaren txartela eta Goierrirenzat anega birena bial dezala horrekin».*

- goiko** adj. *Goikoak aitzurraz egin behar du lan guzia. / Guziak txarrak dira, baño halere hoberentxonak goiko puskan. / Hoiek despeitu ditut ez gehiago ekarzeko beko meatzetatik, ta goiko meakariak egun hemen ziran. / Olaren pareko goiko larretik otekatan bere mutillarekin...1¼ días.*
- goiti** adb. Gora.<sup>21</sup> *Erretazo 760 kargako hau hamaseira jaitsi dute, ta ez diot kasorik egiñ, ta Konsejuko goiti eraman ta Belderrainek esan dit [...]. / Eta hemen olan ere badira tretxu txiki abarrekin egiñak txabal bitarte batzuek, 20 lineatik goiti tretxua den bezala egiñak.*
- goiz** iz. *Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten, baño maisukabia ardatzak azpian hartuta goiz artea utzi egin zuten. / Goizean Sebastianekin gazti-gatu dut Zuloagakoaren mandatua. / Ola handikoak esan didate San Esteban pasatuta astearte goizean hasiko direla. // adb. Goiz batean goiz etorriko naiz ni horrara; noiz nahi duen gaztiga bezata.*
- goizuetar** adj. *Igele goizuetar hau ere sanmartiñetan Hernanira omen dihoa bizitzera.*
- golde gai** iz. *Goldeak egiteko ekaia. Kosmeren itxean ta Goiaran diran golde gaiak pisatuak dira.*
- gonbeni izan** da ad. *Komeni izan. Basoa laster akabatuko duela, ta hasi nahi lukeala nonbait, ta hau hemen hasitzea gonbeni litzake.*
- gonbite** iz. *Gonbita. Arrago egurra emateko gonbitea [...]. / 13 de junio Pa[s]tor[r]ji kanalegillenzat gonbitetako...5 pezetas.*
- gora** adb. *Hark hartuko duela, iñork gorago harzen ezpadu, eta hamabostean ordena badut hamaseiean har dezadala.*
- gorotz** iz. *Emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko, eta bean ahuntztegia, eta kupela iduki nahi badu ere bai, ahunzakin gorotza beretzat egiten duela.*
- gorri** adj. *Nik esan diotet, lengoa gorriagoa baita hau baño, ta idortuta hala gorriago emanen duela orañoak ere esan didate. / Nondik-nahi saiatu ezkerero ateratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxi-ekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere, nereko, nahiz berorrenak eta nahiz besterenak dirala.*
- gosald** du ad. *Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia maneatuta, ingudeari tornua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoan ziran itxera.*
- gosari** iz. *Bigar goizean gosariteko diña baba da hemen; beal beza.*
- gose izan** da ad. *Ez da jendea hagitz gose. / Ikatzgillea gose bada egiñen da ikatza franko bi puska hoietan.*
- grazia** iz. 1. *Trebetasuna. Honek beharko du grazia puxka bat; errebestxoa da. / 2. Oparia, dohako emaitza. Diferenzia erdira badere, pagatu behar-*

<sup>21</sup> Ikus *beiti* sarrerako oin oharra.

- ko du, 1.400 ezkutu, ta plantak gañera. Hartu ezkeru, despojoen grazia nahi litzake, baliz.*
- grazia handiak** egin *du* ad. Mesede handia(k) egin. *Eta esan dit abunztegia eskatzera ezin atrebituz zegoala, eta graziak handiak egiten tiodala.*
- gu** izord. *Alkate Porturi esan omen zion gurekin konpondu zela. / Ea libratzeko modurik izan ote daitekean guretzat. / Gerok kontua eman behar dugula. / Guk ere geren beharra egitera egiñ dugu. / Gure pensamendua ekusia dago. / Herriaren kontukoak guregandik kobratzeko.*
- guardamunte** iz. Iguraina, basozaina.<sup>22</sup> *Esaminadorea ta guardamuntea botatzeko denboran han izan beharrak dira biña egunetan, eta Otsamintegiko enbor hoietan ere baziran bi egun guardamuntea. / Guardamunteari eman diozkat harzeko zituenak. / Pagoak partitzen ta arrago egurra emateko esaminadoreari ta guardamunteari 3 libras pan y 1 azumbre vino 1...24 cuartos.*
- gurdi** iz. 1. Orga. *Eta nik ez dakit gurdirik orañ ote dabillen Franzia. / 2. Gurdikada, orgatara. Bere itxetik olara ekarri du gurdi bat lata tellaturako. / Burnia hartu du, gurdia...4 arrobas y 24 libras. / Pello maisuak hartu ditu gurdi burnia koñadoarenzat eta beretzat. / Ikus bedi orga sarrera.*
- gurutze** iz. Burdinolako pezak, maisukabiak zeuden ardatza errueda edo gurpilekin lotzen zutenak ziren *gurutzeak*. Ikus bitez A. M. Mitxelenak (2020b: 46-47, 244) dakartzan marrazkiak eta lekukotasuna. Gutunetan bitan aurkitu dugu: *Haizarka konponzen, errueda konponzen, gurutzeak sarzen ta zepoa estatuzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia. / Martin de Arizabalori kupela konponzen, ta erruda gurutzetan paratzen 2 días...004...00.*
- gurutze gai** iz. Burdinolako gurutzeak egiteko ekaia. *Kabiguñak ta gurutze gaiak ekarzen...3 días.*
- Gurutze Santu** iz. Gurutze donea, maiatzaren hiruko jaia. *Gurutze Santu arratsean ere ongi ebilli zen hagitz!*
- gutxi** zenbtz./adb. *Espensan paga bealzean hoiek gutxiago bealzea du. / Gerok jaso ta hartu du burnia 2½ arrobas lau libra gutxiago. / Lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanenen. / Manueli erakarri diot nik ogi bat, eta hamar kuartoan pasatzen zen hura, libra, ogi gutxi omen zen-ta. / Prezio diferentetan ebilzen omen da, anitz dagoenean merkexego eta gutxi denean garestiago. / Zergatik batzuek gutxi dute, ta gutxigatik ebillzeko biae luzea-ta.*
- gutxi gorabera** adb. *Guziak dira gutxi gorabera...1.750. / 16 libratik 20 libra bitartea gutxi gorabera izanen zen, ta pagarazi dakiko kontuetan. / Maisuaren espensari sartu zaio baba, gutxi gorabera eginta. / 1.300 karga bezala gutxi gorabera bakoitzarena, ta guretzat Antonsoro aldekoa.*

<sup>22</sup> Goizuetako 1897ko udal ordenantzetan *guardamonte* dago (Satrustegi, 1996: 310).



- gutxiena** adb. 1. Gutienik. *Gaur etorri diranekin 30 kintal gutxiena bada. / Gutxiena 50 quintales edo 60 quintales astean ekarriko dute, dirua bada behinzat. / Jornal hoiek dira mea modu onekoa kargatzeko, eta erretzeko denbora ona eta egurra ona den denboran kostatzen da gutxiena. / 2. Gutxienez. Gaur etorri diranekin 30 kintal gutxiena bada.*
- gutxienaz** adb. Gutxienez. *Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxo perparatu orduko. / 120 kintal sartu dutela barrena, ta orañik badela 80 kintal gutxienaz. / 4.000 tella behar da; gutxienaz milla tellak balioko du sei ezkutu, 4.000 tellak...24 pesos. / Lau uztarri beharko omen ditu zur hark goiko gañera ateratzeko, gutxienaz.*
- gutxitan** adb. Bakanetan. *Halere erretzea bigarren egunean gutxitan akatzen baita, errekaña, hirugarren egunean maiz izaten da errekaña bat eman beharra. / Larunbatetan beti itxera, ta hasialdia hagitz gutxitan harrapatuko du.*
- gutxitxo** zenbtz./adb. Gutikara. *Arrago egurra leku muspelean dugu ta egur larria gutxitxo zimeldu da.*
- guzi** zenbtz. Ariztxulegirañoko honetan guzian aritu dira esamiñatzen. / *Arrago egur hoiek guziak. / Guzia txea eta lur kolorea zuen meak. / Guziak horrara eziñ ebilliko direla. / Guzitarako itzairik ezin bildu genuen ta beste astean erre beharko dugu. / Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin.*
- guzia izan** da ad. Denetara izan. *Guzia 20 pezeta dela esan dit.*
- guzitara** (arruntean), **guzitara** (behin) adb. Denetara. *Guzitara sei puska dira. / Lamothi bealdu zazkio 40 orga guzitara. / Guzitara gelditu ditut 658 pezetas y 5½ cuartos. / Guzitara gelditu dut...5.548 reales.*
- hagitz** adb. Arras, oso, asko. *Errekusak ta guziak dira 89 quintales; zabal boietatik kintal bat edo bi gaistoak dira hagitz. / Eta gureak gelditu dira baso ederrik ez, ta hagitz elbarrik ere ez. / Ez da jendea hagitz gose. / Gogo txarra daukate hagitz. / Gurutze Santu arratsean ere ongi ebilli zen hagitz! / Hagitz baba ona da. / Hagitz luzatu gabe pagatu nahi lirake. / Hagitz presumitua da hau berau ere.*
- haiek** det./izord. Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitze-ko. / *Gañerakoa, lau zulo badira, haiek Motelak har ditzala. / Haiei ordaña emanta, gañerakoa aste honetako diña da. / Haienak dire 13 panes. / Len ordañakoa franko izaten da han dabilzan haietan. / Migel de Irigoienek nola dituen 60 pezeta hartuak haietarako uzten ditu jornalak.*
- hainbeste** adb. *Hainbeste kosta da! / Hori ezpaliz, nahi den moduan hartuko litzake, baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezkerero, ta esamiñetan hainbeste egon! / Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal belza dute nasia.*
- haizarka** iz. Haize arka, hauspoaren funtzio bera duen oholez egindako burdinolako peza. Ikus bitez A. M. Mitxelena (2020b: 43, 106) eta *kupel*

- sarrera. *Berorrek ezpadu emateko gaztigatzen ere, dirua emanen didala, eta haizarka zarraren ustaiak eraman ditu. / Haizarka hau egiñ gabe gelditu da, baño beretzat zorigaistoan haizarka honek haizerik ez du batere, eziñ berotuz burnirik hemen ari dira, erdiak erre eta beste erdiak berotu gabeak. / Haizarka honetan beti maxura da; burnirik ezin berotu da, aldetatik puska dariola. / Haizarka konponzen, errueda konponzen, gurutzeak sarzen ta zepoa estutzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia. / A. M. Mitxelenak (ibid., 109) Elamako dokumentazioko hau dakar: «La aizarca o cubo de viento del martinete con su guezurrasca».*
- haize** iz. *Esan didate olatxorako goiara Erariñan badagoela, haizeak botea, ta hura ekartzeko. / Haizarka hau egiñ gabe gelditu da, baño beretzat zorigaistoan haizarka honek haizerik ez du batere.*
- hala** adb. *Baltasarrek esan dit hoiek deklarazioa egiñ dutela lenbizikoan 1.500 cargak, kandelan ere hala baitago. / Bigar lorrera beharrak dira Kosme ta Agerrekoa, ta atzo ere hala ziran. / Hor konpondu ziran biak; pezeta ote zuen nago, niri hala esan didala nago. / Lorrerako idiak ferratuko badira ere dirua beharko dute; itzaiak hala diote.*
- halako** adj. *Plazeri eske daude guziak [...], guretan halako bentajaturik bat ere ez, eta errekusik ere bat besterik ez.*
- halere** lok. *Eta halere erretzea bigarren egunean gutxitan akatzen baita [...], hirugarren egunean maiz izaten da errekaña bat eman beharra. / Guziak txarrak dira, baño halere hoberentxonak goiko puskan. / Ta planta txarra halere zaukan. / Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten mandazaiak; luma bat pisatzen ez egurrak, ta halere.*
- hamabi** zenbtz. *Aste Santuko egun hoiek hamabi asteaz gañera dira. / Horiez gañera Olaandituko dotazioan egin da hamabi kargaren entresaka.*
- hamabost** zenbtz. *Hark hartuko duela, inork gorago harzen ezpadu, eta hamabostean ordena badut hamaseiean har dezadala.*
- hamaika** zenbtz. *Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia maneatuta, ingudeari tornua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoan ziran itxera. / Ignazio Aranburukoak Bullegitik bealdu ditu hamaika karga ta lepalotu erdi bat gaztaña ikatza, ta gerok jaso dugu.*
- hamaikatako** (behin), **hamaiketako** (eskuarki) iz. *Hamaiketakoa. 3.600 karga 16 kuartilluan, tantoa erreál bat, ta hamaikatakoan gastatu da 6 pezetas y 25½ cuartos. / Probestuak esan dit, hamaiketakoa pagatzera juan nizanean, gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski.*
- hamalau** zenbtz. *Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nabiko dituzte horiek. / Leneko astean 8 pezetas ta lenago hamalau.*
- hamar** zenbtz. *Hamar edo hamaika kintal bezala. / Lengo izan denean Manueli erakarri diot nik ogi bat, eta hamar kuartoan pasatzen zen hura, libra, ogi gutxi omen zen-ta.*

- hamar ezkutuko** iz. Diru baten izena. *Hamar ezkutukotik sobra dira 8 peze-ta ta 4½ kuarto; 6 urretxiki emanta.* / *Hoietarako ditu hartuak hamar ezkutuko bat ta bost urretxiki zar baitira.* / *Hoietarako hartuak ditu bost urretxiki zar ta hamar ezkutuko bat.* / *Joseph berozalleak febre-roan kon-tuak egiñ ezker o hartuak omen ditu hamar ezkutuko bat ta hamaika urretxiki zar.* / *Ikus bost ezkutuko, ezkutu eta hoge ezkutuko sarrerak.*
- hamasei** zenbtz. *Paratu dute hamaseiean ta hartan itzali da, ta erreal bat eman diot.* / *Ta esan diotet nik harzekotz hau ere hamaseiean behar dudala, ta hartu ditut biak.*
- hamazazpi** zenbtz. *Hamalau kuartoan katzik gabea, ta hamazazpi kuartoan gazitua omen daude.* / *Olaizarreko zor da hamazazpi karga ta erdi gaz-taña ikatza, oraño berri hau.*
- han** adb. *Belea han zen bakarrik.* / *Len ordañakoa franko izaten da han dabilzan haietan.*
- handi** adj. *Hoberen honek opinio handi bat zaukan.* / *Igele goizuetar hau ere sanmartiñetan Hernanira omen dihoa bizitzera; gogo handirik ez du honek ere honarako.* / *Ola handian erre ziran ikatzak tretxua egiñ artea.* / *Puska handien honek esamiña du...780 karga.*
- handik** adb. *Lamothi gaztig[a]tu egiñ beharko zaio, idorraz be[al]zekotz, handik gurdia bealzeko, edo idi pare bat eske.*
- handisko** adj. *Handi xamarra. Guk harzen dugunean artaldea bezala han etor-zen dira jendeak, eta hura nola handiskoa zen, haren ondotik iñor etzen jua. / Hemengo tretxu honek azal handia du eta bera ere, tretxua, han-diskoa, ta ekusiko dugu txabala nolakoa heldu den.* / *Mutikoak baditu hiru, ta handiskoenarekin zaldia erabilli beharko duela iñoiz ikatzketan.*
- hango** adj. *Guk ere hangoak pisatu genituen 200 barra.* / *Hangoa nahiago luke, zallago izanen dela esan diotela-ta.*
- hanka** iz. *Oina edo zangoa. Orañik hanka erretako hartatik urgon dago Jose Ignazio.*
- hañ** konp. *Hain. Len ordañakoa franko izaten da (sic) han dabilzan haietan, baño orañ, guziak behar diran honetan, ez da hañ aisa billatuko.*
- haragi** iz. *Eguerdiko libra bat haragi hiruai ematen hasi naiz; sei sardiña, 12 kuarto, ta olio gañera behar zituzten, ta orañ 9 kuarto, libra bat haragi.* / *Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera jua naizanean, gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski, arratsaldeko haragi puska bat maneatzeko agindu dutela sagardotegian.*
- hare** iz. *Harea. Euririk egiten badu ere, harerik urak eraman ez dezan eraka-rri ditugu itzaiak.*
- hargatik** adb. *Horregatik. Arrago egurrak onena harzen du, ta hargatik para-tu dute esamiñan 300 karga.* / *Berorrenzat ona dela badakiela, ta hargatik esaten didala.* / *Hoberen honek opinio handi bat zaukan, ta hargatik txarrenak ere puska honi eratsi zitiozten.* / *Ikus horregatik sarrera.*

- hargin** iz. *Eta hortik heldu den hargiñaren jana nola behar den konponduta beal beza. / Hargiñen aste bateko eta olatxokoen bos[t] asteke espensaren kontua. / Sobra dira 22 pezetas hargin ta peonen kontuetan.*
- hari** iz. *Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor beal-du dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña.*
- haritz** iz. *Folseroak erakutsi dit gobiernokoak eman dioten kargua edo pape-ra pagoena ta haritzena. / Pagoak eta haritzak bota ta haien buruak.*
- harrapatu** du ad. 1. *Aurkitu. Espensan pagatzean agostoan ½ fanega haba 9 pezetas kontatua harrapatu dut, 4½ pezetas paratu beharrean. / Ez omen dute harrapatzen asenturik haren paperetan, nondik zer hartu duen. / Ezin harrapatu dut papera asentatu nuena. / Kontua bealzea aztu ta orañ harrapatu dut asientoa. / 2. Iritsi. Señoa ere han omen zen, ta 1.400 ezkutu honetan ongi litzakeala dio, harrapatzen baliz.*
- harri** iz. *Harriaren gañean zegoen ikatza, ta uste baño ere lenago attu zaiku ikatza. / Maisuak dio endal harri bat sartu behar dela, harria billatuta, ta zepotillu bat ere bai. / Ikus arku harri, betun harri, endal harri, karobi harriketara sarrerak.*
- harriketan** adb. *Harri garraioan. Arragoarako harriketan...2 días. / Harriketan arragoarako...2 días. / Harriketan arragoarako...3 días. / Harriketan arragoarako...1 día. / Ikus karobi harriketara sarrera.*
- harrotu** du ad. *Ikus mea harrotu sarrera.*
- hartu** 1. *du ad. Hartu. Hoietarako hartuak ditu bost urretxiki zar ta hamar ezkutuko bat. / Markos hartu dut eta esan dit hark ez duela meatako konturik egiñ. / 2. Erosi. Iturriozko perrazallearen semeak esan dit ingude berri lepotik hautsia dagoen hau hartuko lukeala. / Suerte a hartu diet 16 kuartilluan; 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan paratuko dutela, nabi duenak hartu.*
- hartualdi** iz. *Harraldia. Arrago-egur hartualdi bat, jua den urtekoa eskas baizuen Andresek. / Ikus arrago egur sarrera.*
- harzeko** iz. 1. *Hartzekoa. Ferrak ta lengo harzekoaren deskita egin bur-nian...2 quintales. / Hartuak rebajatuta harzekoa da hau. / Manuel de Bengoetxea hau orañ ez dabilla lanean. Lengo harzekorik ezpadu ta emanen zaskion edo ez gatzigatuko du (berorrek). / 2. Hartzekoduna (ustez). Anatxuri nik ez dakit zeren esperoan ebilli den honenbeste salsa paratu-ta; zorioneko harzekoak dauzki honek karraidoretan. / Zorretan gaude herriarekin ta Anatxuri dugu harzeko.*
- hasi** da/du ad. *Arragoa gaur kargatzen hasitzen gera. / Egun goizean olatxo a ez dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldurrak. / Gatzelun hasi den honek ere zerbait bealzeko.*
- hasialdi** iz. *(Olako) lanen hastapena. Sidro hau olara ekarzea gauza makurra da. Larunbatetan beti itxera, ta hasialdia hagitz gutxitan harrapatuko du, ta beti gezurra, han izandu hemen izandu.*

- hasiera** iz. *Fagotxikitik ekarrita eman diotet hasieran.* / *Joseph de Bengoetxea ta Nikolasek badute bi agoa hasierako larunbatean egiña (sic)...2 quintales y 2½ arrobas.* / *Ta beste batean olako guziak beste hiru edo lau ordu olaren hasieran, maxuran.*
- hasirazi du** ad. *Hasarazi.* *Bi lantegi aritzeko modua izan ta hasirazi zituztela bi lagun berri hoiek honarako.*
- haspagille** (arruntean), **haspogille** (behin) iz. *Hauspogilea (barquinero gaztelaniaz).* *Haspagilleak esan du adobatzeko zulorik izaten deneko gelditzen badut ere [...].* / *Haspagilleak jan dituzte 6 panes.* / *Haspagilleak kintal bat edo lau edo bost arroa kuadro eskatzen ditu.* / *Haspogilleak eraman du burnia 6 arrobas y 3 libras.*
- haspagin, haspogin du** ad. *Hauspoak egin.* *Haspagiten gastatu dira ardoak 8½ azumbres.* / *Haspogiteko ganza 12 libras a 30 cuartos.*
- haspategi** iz. *Hauspotegia, burdinolako hauspo handiak dauden tokia.* «*El puesto donde se colocan los barquines, llamado aspoteguia*» (A. M. Mitxelena, 2020b: 124; ikus, orobat, 261. or.). *Andresek esan dit [...]* *ardatz haspategiko honetaz berorrek gobiernokoekin konpondu behar duela.* / *Erruda haspategikoa konponzen pasatu zituzten mendian [...].* / *Erruda haspategikoarenzat itzeak.* / *Errueda haspategiko hau konpondu nahi litzake.* / *Errueda haspategikoa konponzeko jornalak.*
- haspo** iz. *Hauspoa.* *Bi igeleak eta Nikolas urzallea haspoak, uhagak eta trabak sarzen...½ día, ta jaten eman.* / *Haspoak sarzera etorrialdi batean, zigillua garbitzen ta ardatza jasotzen, ta horrela.* / *Lakadi bat iriñ haspotako.*
- haspo larru** iz. *Hernanira eraman ta ekarri haspo larruak.*
- haspoari tiratu da** ad. *Hauspoa martxan paratu (ustez).* *Ikus tiratu sarrera.*
- hau** det./izord. *Igele goizuetar hau ere sanmartiñetan Hernanira omen dihoa bizitzera.* / *20 kintal behar diran honetatik hiru edo lau kintal egin dira.* / *Honen kontua bealzeko.* / *Honengatik erremedioa egin daiteke.* / *Honez gañera badute bost lagunak...96 pezetas y 13½ cuartos.* / *Laugarrena ez da orañik ofizioan kapaz honetarako.* / *Ta esan dit honi daritzana dela [...].*
- haur** iz. *Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran.*
- hautsi da/du** ad. *Ingudea falta omen du, eta maneatuta berebala hautsi den olatxoko ingudea hau nahi du.* / *Kabiguña ia hautsia dago, ta hausten ezpada Kosmeren itxean ezta bat ere.* / *Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu.*
- hautsixe** adj. *Pixka bat hautsia, ia-ia hautsia.* *Baso hoiek egitekotan orañ da denbora, iratzea jaio baño len hautsixe nahi lirake-eta.*
- hauxe** izord. *Gure modua hauxe izandu da.*

**haxi** iz.<sup>23</sup> Burdin pezak egiteko tenorean soberakin diren zatiak, peza horietatik kentzen, mozten direnak dira *haxiak*, nolabaiteko txatarra (ikus A. M. Mitxelena, 2020a: 4 eta 2020b: 28). Autore honek (2020b: 234) lekukotasun interesgarri hau dakar: «*Han reconocido dos arcas de viento que llaman aizarcas de la herreria mayor con sus conductos o caños de madera, que sirven para fundición de despojos y fierros viejos que llaman asias*». IBren pasartetxo honetan *zakar* izenarekin batean doa: «*Letra hoiek egin ezkerro, etorri da Martin Okerra eta erakarri ditut Oiarzungo hasiak. Egun ez dakik (sic) noiz akabatuko diran hasi eta zakar hoiek*». A. M. Mitxelena (2020b: 28) *asias* idazten du, baina gure gutunotan, *h*-a goitibeheiti, garbi dago sabaiaurrekoa zuela, inoiz –ez baita harritzeko– s-rekin idatzirik egonda ere. Gutunetako lekukotasunak: *Antonio maisuak ta anaie Josek pisatu dituzte 27 quintales y 5 arroas; hasiak ta meakak 20 quintales. / Franzisko de Orendainek pisatu ditu haxiak amabirjinak ezkerro...12 quintales y 4 arrobas. / Galzatzikiren semeak pisatu zituen haxiak 7½ arrobas. / Haxiak atereak...2 kintal y ½ arroba. / Hoietaz gañera dira horrara etorri ziren haxiak hemen pisatu gabeak. / Itsas metal puxkaren baten modurik ezpada paratzen honarako, ez da gauza onik egiñen, haxiak dirala ere agoa bakoitza kintal bat pisatu dugu. / Maxkurioeren itxetik honara haxiak...7 quintales y 2 arrobas.*

**heldu** da ad. 1. Etorri. *Dirua heldu denean, bakoitzari burniarena gelditu ta paperean asentatu. / Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean orantxe etorri da. / Gabrielelek ta bere anaieak orañ ari diran meatzetik aterea da, orañ heldu den bezalakoa. / Hoiien deklarazioan terziaoa kendu ta heldu da urte bakoitzeko 2.000. / Mearik ez da bada iñondik heldu honara, ez Irundik ta ez Erreteriatik; arragoa erretzeko modua ona dago! / 2. Joan. Orañ Motela horrara heldu denean konponduko da nahi duen bezala.*

**hemen** adb. *Ferrazalle Anatxurik hemendik eraman dituen burniak dira [...]. / Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik oñeko miñak.*

**hemengo** adj. *Gurdi bat besterik etzen hemengorik, ta biharamunean gero gañerakoak hurnitu ziran hemendik. / Kasarasen ta Zuloakoaren ta Agerrekoaren kontuan pasatuen gañera dira hemengo hoiek.*

**hementxe** adb. *Bestea hementxe darabillat b[a]natua.*

**hemeretzi** zenbtz. *Hemeretzi kargaren gañerakoak Anatxurik jaso ditu Alziberko aberekin Olaberrira.*

**herenegu** adb. *Herenegun. Atzo ta herenegu ez dute paratu ere kandelan.*

<sup>23</sup> Hasieran *h*- idazteko dagoen edo dagokeen arrazoi bakarra menturaz Iparraldeko *haxi* ‘haragi txikitua’-rekin erlazionatua egotea da, baina ez dakigu lotura hori onetsi beharrekoa den.

- herrero** iz. Errementaria, arotza. *Hoietatik herreroak eramana ziran 3 arrobas y 8 libras. / Lañak egiñ behar litukeztela ta herreroak hiru arroa kuardo eskatu diotela.*
- herri** iz. *Etzen herrian Juan Migel. / Ta eskatzen dute Oiarzungo olatarako asteko bost pezeta, ta herritik kanpora atera ezkeror urretxiki zar bat.*
- heste** iz. *Hesteak 28½ kana...01 pezeta y 23 cuartos.*
- hill** iz. Hila. *Kontuak egiñ behar genituke, hillak ta biziak gera, jakin dezagun nola gauden.*
- hill** iz. Hilabetea. *Azkeneko erre den arragoako jornalak. Hill honetako, erre dena. / Iñudea ere hillean hamar pezeta pagatu behar dugu-ta. / Ta ematen dudana hilleko paperetan bealduko dut bakoitzari bere lanen oñean.*
- hillabete** iz. *Bi hillabetetan 17 libras y cuarta ziran. / Bi kintal burnia ea emanen tion eskuko miñak lau hillabete daramatziela. / Hillabeteren bateko lana omen da.*
- hipotekan sartu da/du** ad. *Juakintxok idukitu duen zensoan hipotekan sartuak ziran lurrak.*
- hiru** zenbtz. *Esamiña olarenzat bataz beste baño hirutan gehiago erakutsi da urte bakoitzeko. / Fausto Olaizarrekoak esan dit, aurten aldatu nahi baditu, plantak emanen dituela, mintegian bakoitza 5½ kuarto, ta igarzen dena hirutatik bat jasoko duela. / Juakin de Telletxearenzat 1½ quintales, Sebastian de Mitxelena 1½ quintales, Franzisko Antonio de Ribere 1 quintal. Hiruren kontura cuatro quintales. / Mealleak ditu hiru aste ta egun bat. / Olatxoko hiruak dute launa arte. / Enumerazio bateko hirugarren kidearen ordekoa. Munoakoa ta Garatekoa ta hiruak illundu-ta etorri ziran paper billa.*
- hirugarren ord.** *Hirugarrena...3.000.*
- hiruna** banatz. *Hiru terzioak hiruna behar omen dugu.*
- hirutan ehun** zenbtz. *Hirurehun. Baltasarrek esan dit Otsandolako bost milla, ta Garalorregikoa lau milla ta erdi egiñ zutela, ta Madarimotxeakoak hiru milla ta berrehun, edo ez dakiela hirutan ehun duela.*
- hitz** iz. *Bi anega ogi ola hasitzeko billatu nituen jua den igandean, pagatzeko hitzarekin. / Ta ofrezitu diot hitzaz 15 kuartil[lu] meza aurrean.*
- hitz egin du** ad. *Dirurik gabe ez gehiago juateko esan zigun lengoan, ta orañ pagatzean hitz egiñen diogu, eta zer dion adituko dugu.*
- hitzean eraman du** ad. *Zerbait eramane dela hitzeman. Olaberriko burni hoietan zerbait añaditzeko, hitzean eramana dira.*
- hitzeman du** ad. *Eta nik esan diotet lenago pretenditua dela, baño ez dakidala hitzeman den.*
- hobe** adj. *Arotzak baño fundamentu hobean egiten ezpadugu, ez da luzaro egonen. / Hura pasatu ezkeror mea hobe izanen da. / Lantegi seigarren eman gabe honetaz gañerakoak Isasolakoak baño hobeak dira gureak. / Uzteko hobeak daude, noski, harzeko baño.*

- hobe izan** da ad. *Baño ematera orduko norenzat den jakiñik ematea hobe da. / Baurrindik pagoak ekarrira Kausuan aldaratzeko, eta Unzburuko mintegitik aldatzea hobe dela.*
- hobeki** adb. *Biren artean sikiera hobeki eramanen dituzte. / Jornal pare bat añaditza daritzat ongiena izanen dela, nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urri-urrian jornalak dituztela baño.*
- hobeko izan** zaio ad. *Ta Batista hemen zen egun, ta hark esan dit Juan Migeli eman hobeko zaiola 200 kargako porzioa.*
- hoberen** adj. *Hoberen honek opinio handi bat zaukan, ta bargatik txarrenak ere puska honi eratsi zitiozten.*
- hoberentxon** adj. *Guziak txarrak dira, baño halere hoberentxonak goiko puskan. / Ikus joskera atalean alderaketa aztertzean dioguna.*
- hoge** ezkutuko iz. *Diru baten izena. Alkateagana juanen bagera jakiñ behar dugu zeñekin kontuak egiñ zituen, eta hoge ezkutukoa ere zeñi eman zion edo zerbait. / Ardoaz ere ez dago espaziorik batere. Ta nik ere behar nuke hoge ezkutuko bat. / Bi hoge ezkutuko emanak. Falta dira...58 reales y 3 cuartos. / Hiru arragoatako jornalak pagatzeko lau hoge ezkutuko falta ziran. / Olatxoko sagardoa ematen duenak eskatzen du hoge ezkutuko bat. / Pazkoetako bi hoge ezkutuko behar nituke nik ere. / Behin hoge ezkutuko bat daukagu: Agerreko Patxikuk gaitzarekin-ta makiña bat zor egiñ dutela, ta hoge ezkutuko bat ea partituko ote lukean. / Ikus bost ezkutuko, ezkutuko eta hamar ezkutuko sarrerak.*
- hoge pezetako** iz. *Hoge pezetakoren batean galdu zuela esan zuen 20 cuartos. / Mandoarenzat zerbait egiñ bazeza[ke]ten, ta hoge pezetako bat ta urretxikiak biñakako batzuek. / Ikus bost pezetako eta pezeta sarrerak.*
- hogeña** banatz. *Hogeina. Franziako karretoan zor dira 125 pezetak y 3 reales, Zuloakoa, Munoakoa ta Agerrekoa, bakoitza hogeña pezeta.*
- hogeita lau** zenbtz. *Egun batean bakarrrik aritu zen, Tomas miñez ta Antokorena etorri ezta, ta lau agoa ogeita lau orduan egiñ omen zituzten.*
- hoiek** det./izord. (Lehen gradukoa; ikus izen morfologian dioguna). *Babaren txartela ere beal beza hoienzat. / 12 quintales badira Errenterian ta olan, ta tretxu txikian hoiekin burnitxo meharragoa ez egitekotz, labur geldituko da. / Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko. / Jornalak aste bat ta lau egun ta erdi ditu bakoitzak, ta hoietako egun bat ingudeari zamar bi emanta paratzen pasatu zuten.*
- honara** adb. *Antonsoro aldean ere badaude atereak, ta honara etorzen dira hortik heldu diranak ere. / (Berorrek) nahi badu, horrara orobat etorriko naiz; ta bestela, honara heldu denean. / Bien artean dute honara aberekin egin duten lan guzia [...]. / Gaztiga beza honara agertuko den berori, edo Martini esanen ote diodan. / Igandeko etorzekoa zela honara esan zuen mandatari ebilli den ikazkilleak. / Maxkurioren itxetik honara haxiak...7 quintales y 2 arrobas. / Mearik ez da bada iñondik heldu honara, ez*



*Irundik ta ez Erreteriatik. / Ola handiko hoiek horrara etorri behar dutela diote, berori honara heldu ezpada. / Patxiku Katxok eta bere lagunak honara eman dute mea 142½ quintales.*

**honarako** adb. *Gogo handirik ez du honek ere honarako. / Itsas metal puxkaren baten modurik ezpada paratzen honarako, ez da gauza onik egiñen, haxiak dirala ere. / Ta bi lantegi aritzeko modua izan ta hasirazi zituztela bi lagun berri hoiek honarako.*

**hondar** iz. *Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal beltza dute nasia, ta, nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite. / Sarastiren larraña baño ezkerago atera dute denborazko ola-jauen hondarrak, Unsañen larrañaren soñuan. Nondik-nahi saiatu ezkerero ateratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere. / Urzalle hau sendatzen ez da, ta gaurgero lan hondarrak akabatu artea hemen behar ko du.*

**hondaska** iz. *Burdinolako peza dugu hondaska. Gezurraska-tik sartzen zen antaparako urak hondaska-tik jarraitzen zuen, gurpil edo erruedara joan aitzin (ikus gezurraska sarrera eta A. M. Mitxelena, 2020b: 40-41 eta 106). Larramendik (1882: 68) guezur-asca eta ond-asca dakartza. / Betik ispia ta alde olak emateko lekuan ere guzia ustela dagoela, ta nahi badu ekusi dezala, baño ez dela gauza, ta gezurraska sarzen hasi ezkerero, hondaska ere berria behar ko dela. A. M. Mitxelenak (2020b: 94) Erreteriatiko Añarbe olako dokumentazioan «la rueda del eje mayor juntamente con su ondasca y guezurasca» jasotzen du.*

**honela** adb. *Berori ezpada honela kontentu, adiraziko du nola nahi duen.*

**honelako** adj. *Honelako salsa batzuek. / Iñor honelako moduetan hasi baño len [...].*

**honenbeste** zenbtz. *Anatxuri nik ez dakit zeren esperoan ebilli den honenbeste salsa paratuta. / 56 karga ikatzek ez du honenbeste balio, ta nik ez dakit nork onduko dituen. / Jornal hoiek dira mea modu onekoa kargatzeko, eta erretzeko denbora ona eta egurra ona den denboran kostatzen da gutxiena, honenbeste.*

**honontzko, hononzeko** adj. *Karga ikatza pezeta kontatu du Señoak, Eraringoak eta honontzkoak, guziak, karga pezeta. / Zergatik hononzeko mearik etzen 21 quintales.*

**hononzean** adb. *Bederetzi uztarri Juan Erariña, ta hononzean ardia Oielekun hartu ta, guziak kargatuak, beiti etorzeko modua da.*

**hor** adb. *Babarik ez dut, ta hemen ez da salzeko batere; hortik badere behar ko dugu puxka bat, ta Ondarrabiako babadun hark ere errespuesta behar luke. / Bigar hor jaia nola baita iñor izanen ez dela, gaur egiñ dut txartela hau. / Jose horr (sic) izandu zen.*

**hori** det./izord. *Eixigarrerekiñ-ta aritu da horren semea pagadian. / Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal. / Ikatzgille horiek etorri zaizkit txartel horrekin. / Kosme de Lekuna mutill horrenzat lenbizian bealduak badira zeñbait karga. / Mutill horrek berak 5 libras. / Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran.*

**horiek** det./izord. *Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nahiko dituzte horiek. / Horiek ilusioak dira. / Horiez gañera Olaandituko dotazioan egin da hamabi kargaren entresaka. / Lengo asentu horien oñean paratuko dugu kontu hau ere noiznabi. / Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran. / Ikus izen morfologiaren gaineko atalean dio-guna.*

**horko** adj. *Horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den yakin nahi lukeala, ta gaztigatzeko txartel batean.*

**horra** 1. *Aurkezpen hitza, horra hor. Erretzen lenbiziko egunean bi lagun, ta gau-egunetan launa, horra hamar...10 días. / Gure anaieak deskuidoan gaizki bealdu zuen kontua; horra anaiearen karta ere ekusteko. / Haizarka konponzen, errueda konponzen, gurutzeak sarzen ta zepoa estutzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia. / Hor emanik bada berai; gañera horra naste duten kontua. / Horra azkeneko Muxudoren kontuko burniak nola diran. / Horra guri egin digun faborea. / Horra guziak: 36 duros. // 2. adb. (= horrara, behin). *Ta berori honara heldu ezpada, horra bealduko dut konponzera.**

**horrara** adb. *Horra. (Berorrek) nahi badu, horrara orobat etorriko naiz; ta bestela, honara heldu denean. / Berozalleak egiñak ezpaditu sanmigeletan etorriko litzakeala horrara. / Geroztik baditu horrara kontua bealduak, artemingo paperean bealdu nuen bezala, 127 días. / Goiz batean goiz etorriko naiz ni horrara; noiz nahi duen gaztiga bezata. / Halere iñor gutxi dabil, batzuek horrara ta besteak nik ez dakit non dabilzan. / Hoietaz gañera dira horrara etorri ziren haxiak, hemen pisatu gabeak. / Kontu hau bealdu nuen len horrara urzalleakgatik. / Mutilla ere badu, ta nik txartel bat eginta bealduko dut horrara konponzera. / Orañ Motela horrara heldu denean konponduko da nahi duen bezala.*

**horrarako** adb. *Patxiku Katxo horrarako mea ateratzen ari baita Pagoetan.*

**horregatik** lok. *Hala ere. Orañik hemen hogeï pezetan dago errotatan. Aranederrean bestetan ez da horregatik. / Ikus hargatik sarrera.*

**horrela** adb. *...edo horrela guk uste genuen gaurgero ola horren kandela joko zenuela. / Haspoak sarzera etorrialdi batean, zigillua garbitzen ta ardatza jasotzen, ta horrela. / Hemen libratzeko modua harzen dute askok: egitekoak dituztela bazterretan, ta aziendakin, ta iñor ez dutela haiek maneatzeko, ta horrela. / Pello maisuak hartu ditu gurdi burnia koñado-*

- arenzat eta beretzat, eta horrela guziak hartu ditu...10 arrobas y 21½ libras. / Ikus hola sarrera.*
- horrelako** adj. *...errespuesta eman ziola Andresi, jendeak horrelako juiziorik egiñ ez dezan.*
- horz** iz. Ikus *are horz* eta *bihorzeko* sarrerak.
- hosto** iz. *Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua, baño orañ batere ez, ta ganbaran ere orañ puxka bat hostoak abitzera egiñ da, baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz.*
- hotsak izan da** ad. *Zurumurrua izan, hotsa ibili. Orañ ez dakigu emanen diguten ogia gehiago. Orañ merkatzeko hotsak dira, ta emanen al dute!*
- hura** det./izord. *Andresek esan dit leneko urteko errentan hari osoaz kargu egiñen diotela. / Eta orañ hartara goaz. / Ez du hark Ziburuko karretorik egiñen. / Feliz igeleak esan dit haren mandatuaz oroitzeko. / Herri guzia bargana dihoa. / Hura libre pezeta hartatik. / Paratu dute hama-seiean ta hartan itzali da. / Pezeta kontuan saiatu giñan itzaiekin, baño ez daude hartako.*
- hurnitu da/du** ad. *Hornitu. Endara juan zen hemendik 20 de abrilean; geroztik orañ aste bat sartu du Kosmeren itxean, ta hemen hurnitzen dira kuadroak 9 quintales. / Orga bat kuadro bada hemen; Fagotxikin baziran barra batzuk ta haiekin hurnitu da. / Ta orga hurnitzea nahi badu, hurnituko dugu; ta bestela, diranak kuadroekin batean bealduko ditugu.*
- hurrengo** 1. adj. (arruntean). *Ondokoa. Bien ofrezimentuak izandu dira, eta eskriboak esan diote hurrengo jaiean aterako dutela berriz kandelara. / Hurrengo astean besteak etorriagatik, hemen koponduko ditut nik elkarren artean. / Ignaziok esan zuen atzo gaur ez eramatekotan hurrengo egunetan urik ez dela. // 2. adb. (behin). Hurrengoan. *Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu behar ko dugu.**
- huts** adj. *47 karga hoiien plazeria hutsa da, a 5 reales... 235 reales. / Hark zer egiñen duen bada esan dit, alkateak egiñ behar duela, ta firma hutsa egiñta bealdu du berriz hark. / Isasolakoak lantegi batena suertean den ederrena dute, ta gañerakoak batzuek enbor hutsak, ta besteak arbarta besterik ez dute. / Lau lantegi hoiek tantai hutsak, eta Josepe Lekunak bostgarrena.*
- huts egin du** ad. *Egun gaztigatu dut, anaiearen karta ekusita, dirua fa[l]ta dela, baño goizean ekarri ditugu diruak, ta kontatu gabe, mutillak meza huts egin dezan beldurrak, bealdu dut. / Txalupak eramanez ditut txabalak 58 kintal; itzaiak txalupa huts egin zuten larunbatean.*
- hutsa atera da** ad. *Gaizki, oker atera. Eta Damianek len satisfazio osoa niri eman nola pretenditzen duten, eta gero hutsa atera zaiotenean ederzeco konpondu du: gure proposizioa bazen, etzuela metitu nahi.*
- hutsagiñ** iz. *Hutsa (ustez). Antonio de Telletxeak esan zuen zerbait hutsagiña izandu zutela kontuetan.*

- hutsik** adb. *Iñork egurra eramateko, peligroan egurrik Oielekutik beiti da, karraiadoreak hutsik heldu diranean karga bailitezke; bestetan ez da peligrorik.*
- ia** adb. Kasik. Segur aski *ya* idatzi behar genuke hau, egun Goizuetan [já] esaten delako, silaba bakar batean, hots, ez dira euskara batuko *ia* ‘kasik’ eta *ya* ‘jada’ hotsez bereizten (adieraz bai, jakina). Eta irudi du 1800 inguru horretan ebakera bera zela; baina ezin guztiz seguru egon. *Andresekin goizean egondu ninzan, ta esan zidan aurtengoko gobiernoko hoiek ia bestek agintzen diotena egiteko modukoak dirala. / Kabiguña ia hautsia dago, ta hausten ezpada Kosmeren itxean ezta bat ere. / San Sidro egunean atera dutela ia hoge bat kintal.*
- ianziar** adj./iz. Igantziarra. *Eta ianziarrari edo itxalartarrari kargatu behar zaio bere partea, 2 pezetas y 16 cuartos, lengoen gañera. / Sidro ianziarra juan da begia erreta.*
- iaz** adb. *Berentzikiko mutillori iaz ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean. / Bidasoroko suñari Bonbon iazko artotako azkeneko resta...028...08½.*
- idi** iz. *Lamothi gaztig[atu] egiñ beharko zaio, idorraz be[al]zekotz, handik gurdia bealzeko, edo idi pare bat eske. / Lorrerako idiak ferratuko badi-  
ra ere dirua beharko dute; itzaiak hala diote. / Migelek idian lanak berak hartuko ditu. / Zuloakoak idiak trukatzeko modua duenean behar duela dio dirua.*
- idor** iz. Lehorra. *Elizatik erakutsi zen Oi[ar]zunan Errepublikaren ordena zela gurdi mearrakin iñor ez pasatzeko Franziaara 22 de noviembretik aurrera, eta Lamothi gaztig[atu] egiñ beharko zaio, idorraz be[al]zekotz, handik gurdia bealzeko, edo idi pare bat eske. / Erka bedi Mendibururen (1982: 20) honekin: «Eguin zuen idorrear bere eguitecoa, itsasora cèn guero tà itsasoz ichera tà bere Conventura» (20).*
- idortu** da/du ad. Lehortu. *Nondik-nahi saiatu ezkerero ateratzen dute puxka-  
ka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere. / Ta nik esan diotet, lengoa gorriagoa baita hau baño, ta idortuta hala gorriago emanen duela orañoak ere esan didate.*
- iduki, idukitu** du ad. *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela, edo barrika, edo zerbait idukitzeo. / Dirua eskuan izatea kostatzen da; hoge ezku[tu]ko bat behar dugu beti iduki. / ...eta kupela iduki nahi badu ere bai. / Jendea zaletua dago harzeko, ta geroago ta ederrago ez da izanen pagatzekoak idukitzea. / Juakintxok idukitu duen zensoan hipotekan sartuak ziran lurrak. / Mikelestorenak (1751) iduki ohi dauka: iduquico duzu (7), iduquico dezu (12), iduquitceco (14), iduqui dituen (22, 23), iduquitçeac (27), iduquico dituzu, iduqui zuen (30), iduquico zaitut (33), iduquico dut (34)...*

- iduri** iz. 1. Ikatz xehea (*ciesgos*, *cisgos* gutunotan erdaraz, pluralean beti). Baztanen ‘ikatz xehea’ da, *cisco* gaztelaniaz (Izeta, 1996: 95), Bergaran (Elexpuru) ‘ikatz xehea’, ‘ikatz hondar bezala gelditzen dena’ dugu, eta Oñatin (*idurixa*) ‘ikatz xehea’ (Izagirre, 1994: 128). / 2. Gaztaina, gaztainondo mota bat. Gutunetako lekukotasunak: *Erariñan beko errekatik Jeronimori iduriak ematen...4* cargas. / *Erariñan iduri aldatzen...6* cargas. / *Iduri aldatzen...4* días. *Iduri aldatze hoiek abere bakarren egunak dira.* / *Suertean iduriak bataren basotik bestera...2* cargas. / 1 día *Manuel Iripakoari iduriak.* / Horietaz landara, eskutizetan hauek ere baditugu: *Luis Beleari eta irundar Pellori idurikatan 2* días, eta 2 días *Beleari eta irundar Pellori idurikatan.* / Hauetan *iduri*-ren txikigarria datekeen *idurika* izanenez, *ataka ate*-rena, *meaka mea*-rena edo *pordoka* ‘zurezko habea’ *pordoi*-rena den modu berean, baina ez da inola ere segurua, gutunetan bitan aurkitzen dugun *idurikatan*-en oinarrian *idurika* + *-tan* egon daitekeen arren (cfr. *kabiguñatan*, *kabillatan*, *kargatan*...), *iduriket*-tan ere egon daitekeelako, hots, *iduri* + *-ketan*. Gure testuotan *arrago egurketan*, *egurketan*, *enborketan*, *ikatzketan* - *ikazketan*, *kabigunketan* eta *karobi harriketara* ditugu, eta ez da aise gauzak nola diren jakitea, Hondarribia-Irunen, kasurako (Sagarzazu, 2005: 73), *egúrketara*, *i(r)átzeketa*, *ondarketa* daudelako, baina baita *iratzeketa* ere. Eta garrantzikoena: Goizuetan, gaur egun, *e(g)urkatan*, *urkatan aritu*, *ibili* esaten da. Hortaz, asimilazioa gauzatu dela eta oinarrian *idurika* gabe *iduri* besterik ez dugula uste dugu, aipatu beste aukera beti hor badago ere. IBk ere *iduri* darabil (1792): *Iduriak emanak Martin Okerrari eta Artxaizarrari Olzorroza.* / *Ikus ote (landarea)* sarrera.
- iduritu** du ad. *Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal belza dute nasia, ta, nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite.* / *zaio* ad. *Aketzak berea zuen itxola, ta bost pezetan hartu du berak Katxorena, ta esan du berorri anitz idurituko zaiola bost peze-ta, ta berak onduk[so] duela ezkutu edo lau pezetaren gañerakoa.*
- ielsu** iz. Igeltsua. *Peloako Agerrek gaztigatu du ielsuak berorrenzat bost erre-al balio duela, ta bera miñez dagoela ta dirua bealzeko.*
- igande** iz. *Despojoak ez zituen inork ukitu igandean.* / *Endara Artikuzan berorrek egondu zen igandearekin, ta honara etorri zen astelenean.* / *Igandeko etorzekoa zela honara esan zuen mandatari ebilli den ikazkilleak.*
- igar** adj. *Ikus ikatzgille-arbazta* sarrera.
- igartu** da ad. *Baltasarrek dio eska dezala erre hoietan, badirela igartuko diranak gehiago ere.* / *Fausto Olaizarrekoak esan dit, aurten aldatu nahi baditu, plantak emanen dituela, mintegian bakoitza 5½ kuarto, ta igarzen dena hirutatik bat jasoko duela.*
- igele** iz. Ijelea (erdaraz *tirador*), burdinolako lanbidea, burdina moldatzen, luzatzen, xaflatzen zuena. Honela dio Larramendik (1882: 69) *meallea-*

ren eta *urtzallea*-ren lana zein zen zehaztutakoan: «*El otro (ferrón), disponiéndose á recibir el agoa que se saca de la fragua con curricas en la mano, que así llaman á aquellas tenazas horrendas y largas con que agarran, sujetan, mueven y gobiernan debajo de la gabia ó martinete y sobre el yunque el agoa enorme é informe. Llámase yele ó iyele, tirador*». / Eskutitzetako lekukotasun batzuk: *Bi igeleak eta urzalle Josek badituzte ola perparatzen pasatuak 1½ días bakoitzak, hasitzeko denboran, ta ari dirala ingudeari sartu-ateara egiten gau-egunak galdu dituzte, ta kabiguña sarzea gañera. / Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia mane-atuta, ingudeari tornua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoan ziran itxera. / Bi igeleak ta Nikolas urzalleak badute erremienta giten egun bana. / Endara etorri da eguerdi ondoan, ta igeleak tretxuak buztanzen ari ziran. / Hau begia erreta juan denean ekarri dugu Isasolako igele gazdea, eta bi agoa egin diraneko tobera erre da edo hautsi kañoien mugatik. / Josepe igeleak badu egun bat bergamazoan ta maxukoa. / Josepe igeleak katuak atera ta berriak sarzen ta endal harria konponzen baditu 5 días. / Kampoko igele hoiek aritu diran denboran egiñ da tretxua...310 quintales y 1 arroba.<sup>24</sup>*

**igo** da/du aditza. *Gobernokoak besterik etzen igo hamaiketako* egitera. / *Hortik heldu diran burni hoiek laster eramane behar duten gaztiga beza, laster ez eramatekotz ganbarara igo ditzakun.*

**igual** adb. *Berdin. Hemen gelditu zen ezkerre, Garatekoak egin du aspaldian egiñ duen mearik ederrena; Isasolara darama. Kasarasek badakar, baño ez daude igual.*

**igualatu** da ad. *Ados jarri (diru kontuetan). Ola handiko lanetarako ez omen zen hau igualatu.*

**ijada** iz. *RAEren arabera «Cada una de las dos cavidades simétricamente colocadas entre las costillas falsas y los huesos de las caderas» dugu ijada. Hemen braka-rekin batean ageri da, eta irudi du hauspoa giza gorputzarekin alderatzearen ondorena dela: Haspoak eginta gelditzen dira osorik bi braka eta bi ijada, eta larru berrian saiheesak hamar puska.*

**ikasi** du ad. *Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela. / 56 karga ikatzek ez du honenbeste balio, ta nik ez dakit nork onduko dituen. / Itxeoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko, ta galdatu dugu ta hamalau kuartoan katzik gabea, ta hamazazpi kuartoan gazitua omen daude.*

<sup>24</sup> Iduri luke hitz honen azpian *-en* bukaeradun aditza dugula (cfr. *eten, irten...* Ikus Lakarra, Manterola eta Seguro, 2019, *erre* eta *irten* sarrerak). Ordea, ez dakigu JRMren hitzak duen g hori Larramendik dakarren y haren parekoa edo ondokoa den, ez eta ere hia-toa segurtatzeko hotsa den edo etimoak zeukana. Aintzat har bedi IBk ere *igele* ibiltzen duela, baina JBMren haurride zaharrena zen Jose Antoniok, hari igorri eskutitz datagabea, *iele* darabilela.

- ikatz** iz. Larramendik (1882: 77) garbi esaten du oletan ibiltzen zen ikatza haritz, pago, gaztaina edo haltz egurrarekin egindakoa zela: «...*en nuestas herrerías no se gasta carbon de piedra, porque saca un hierro muy feo y brincoso y fácil de quebrarse [...]. Todo el carbón es de leña, sea de roble, y es el mejor, sea de castaño ó aliso, sea también de aya*». / Gutunetako lekukotasunak: *Ikatza neurriaz ta tretxua egiñ artea erre dira hamalau galbai ikatz. / Iturriozko ferrazalleak pagatu behar ditu ikatzak. / Karga bat ikatzena dela. / Orañ ikatzak egin ditu 22 karga ta zaku bat lepalotua. / Zenbat pagarazi gaztigatuko du karga ikatza.*
- ikatz gai** iz. Ikatza egiteko ekaia. *Alkatek, Portuk, esan dit Penaregiko maxterrak omen duela orañik ikatz gai puskaren bat despojo hoietakoa, ta gobiernoko berriai esan diotela nola den ikatz gaia hura.*
- ikatz ito** iz. Ikatz motaren bat. *Sarobekoaren ikatz ito Madarimotzekotik 10argas.*
- ikatz jabe** iz. *Hoietan bost karga otsabeharriak dira; ikatz jabearenzat izanen dira 71½ karga.*
- ikatza egin du** ad. 1. Ikatza ekoitzi. *Bestetatik imutill asko dute eta lekua ere txarra da, baño ikatzgillea gose bada, egiñen da ikatza franko bi puska hoietan. / Eixigarrek bere lagunekin egiñ du ikatza 625argas y 3 lepalotuas. / Eixigarrek egin du ikatza Jose Ignazio olatxeoaren semearekin oraño basoan: 284argas y 1 otsabeharria y 3 lepalotuas. / Haren lantegi batek galdatu dit hari emateko asmorik ote dugun, ikatza egiteko nahi lukeala. / Uegun ta bere lagunak egiñ dute ikatza, 600 karga; egostekoa badute 200 bezala. / 2. Ikatzari prezioa jarri. Gobiernoko zarrak esan didate karga ikatza 13 real egiñ dutela, eta orañ berorrenzat garbiena da Olaberrira jaso diran 56 kargak oso pagatzea.*
- ikatza gaztaña** iz. Ikatza egiteko gaztainondo egurra. *Ikatza gaztaña gerok jaso eta 9½ fanegas haba. / Erka bedi gaztaña ikatz-ekin eta ikus izen morfologian dioguna.*
- ikatza karga** iz. Ikatz zama. *Eta ikatza karga, Martuzenegikoa, bost erreal esan zuten. / Aldera bedi karga ikatz-ekin eta karga ikatzena-rekin. Ikus izen morfologian dioguna.*
- ikatzgille** (eskuarki honela), **ikazkille** (inoiz) iz. *Igandeko etorzekoa zela honara esan zuen mandatari ebilli den ikazkilleak. / Ikatzgille batek ekusi dezala ta prezioa hark egiten duenean har dezagula. / Saltoka dabilena paratzen badugu, munduak erdia eramanen digu, ta ikatzgilleak berak beste erdia.*
- ikatzgille arbazta** iz. *Ikatzgille arbazta igarra egurzaleai erakarri diotet zama kontuan, ta pagatu ditut 012 pezetas. / Ikus arbarta sarrera. IBk arbazta darabil.*
- ikatzketako bide** iz. Ikatz garraioan ibiltzeko bidea. *Bost egun baditu ikatzketako bideak egiten pasatuak, basotatik kanporako bideak konponzen.*

- ikatzketan** adb. Ikatz garraioan. *Mutikoak baditu hiru, ta handiskoarenekin zaldia erabilli beharko duela iñoiz ikatzketan.*
- ikazketan ebilli** da ad. *Errepublikarenzat ikazketan gure basoetatik dabilza.*
- ikaztegi** iz. Olan ikatza atxikitzeke izaten zen lekua. *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela edo barrika, edo zerbait idukitzeke, erdiko arkuo garaiko aldetik goikoa, ikaztegi atea libre direla. / Orañ Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik.*
- ikaztogi** iz. Ikatza egiteko lekua, ikaztobia, txondorra. *Dotazioan ikaztogi bat ta Matxinoak bi, ta Fermín okerrak bat atereak dauzkite. / Hirugarren ikaztogia yasotzen ari dire.*
- illar** iz. Illarra, ilar biribila. *Bi lakadi illar Goizariñan ereiteko...1...27.*
- illoba** iz. *Illoba ferrazallea du ta hark hartuko likoala.*
- illunabar** iz. *Larunbatean elementutan olatik yoan ta igandean egueldi txarraz gelditu, ta astelenean illunabarreko olara.*
- illundu** du ad. *Luis Zuloakoaren kontuan ez dakit burnien kontua txuxen eman ote nion. Munoakoa ta Garatekoa ta hiruak illundu-ta etorri ziran paper billa, ta presaka ez dakit zer egiñ nuen ere burnian. / Orañik bigarren trexua zuten, ta kamañara jua, lanaz kasorik egin gabe, ta lo etzin da, ta hurrengo agoan illunzeko aurrean iraike, ta orduan hasi da lanean.*
- ilusio** iz. Irudipena, ustekizuna. *Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorregana agertu bat egiñen ote duen dagoela, iñor besterik sartu gabe berorri emateko modua nolaerebait harzeko, alegia, hartu nahi badu, baño horiek ilusioak dira.*
- ilze, itze** iz. Iltzea. *Aldeak edo mako hoiek ilzerik eziñ errezibitu dute, erdi lekutan urak yan ta galduak daude. / Andresen itzenzat gaztigatu du prezioa; Sarastirena bezala 30 pezeta kargatzeko, ta Sarastirena gaztigatu zuen 36 pezetas itzearenzat. / Erruda haspategikoarenzat itzeak...1 peze-ta y 25½ cuartos. / Haspategikoarenzat ilzeak...004...04. / Ta ilzeak ere norbaiti eragiñen tiogu orduko. / 1753ko predikuan (Reguero, 2018 [2015]: 216) ilceac ‘iltzeak’ daukagu.*
- ilze txiki** iz. *Ilze txikia 400...006 (pezetas).*
- indar** iz. *...eta aditu duela posesioa nola hartu duten, eta laster kausara atera nahi lukeala, eta yakiñen duela zer indar edo moduak ekarri dituzten.*
- ingude** iz. *Hiru kabiak eta ingudeak agoan du puxka bat maneatzeko lana. / Ingudea falta omen du, eta maneatuta berehala hautsi den olatxoko ingudea hau nahi du, eman nahi badio.*
- ingudea atera** du ad. *Bi igeleak ingudea ateratzera etorrita, sutegia maneatuta, ingudeari tornua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoan ziran itxera.*
- ingudea sartu** du ad. *Erremienta giten bakotzak (sic) ditu 3½ días, ta gero ingudea sartu ta arratsean hasi olan. / Lorenzo etorri zenean ingudeari su eman ta konponzen ta sarzen gau-egunak geldirik.*



- ingudeari sartu-aterere egin dio** ad. *Ta ari dirala ingudeari sartu-atererea egiten gau-egunak galdu dituzte.*
- ingudeari sartu-aterere eragin dio** ad. *Astelenean bildu ta ingudeari sartu-aterere eragin genion arrats artea.*
- ingudeari su eman du** ad. *Lorenzo etorri zenean ingudeari su eman ta konponzen ta sarzen gau-egunak geldirik. / Lorenzo Zabalak, egitera etorri zenean, ingudeari su eman arratsean, ta biharamunean arratseko hasi ziran.*
- ingudeari tornua eratsi du.** ad. *Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia maneatuta, ingudeari tornua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoan ziran itxera.*
- inportatu du** ad. *Balio izan, kostatu (erdarazko inportar, diru kontua). Erretazoak inportatzen du 50 cargas, 18 cuartillos. / Franzisko de Irigoien zenaren semearen lanak inportatzen dute 534 reales y 9 maravedís. / Guziak inportatzen du...50 pezetas y 4½ cuartos.*
- inutill, imutill** iz. *Olarako egurra egiteko balio ez duen oihan edo mendi puska. Azkeneko bi puska hoiek txapon bana beharko dute gehiago bes-tetatik. Imutill asko dute eta lekua ere txarra da. / 40 karga Jose Migelek, guzia 700 karga esamiña, ta orañ urte bat gehiago eta 600 inutill baditu esamiñan. / Suertearen dirua bealzean arrago egurrarena ere bealdu behar du; 20 karga ikatzena, ta lau inutill dira.*
- iñoiz** adb. *Noizbait. Ekusi beharko zaio zerbait iñoiz gertatzen denean. / Mutikoak baditu hiru, ta handiskoenarekin zaldia erabilli beharko duela iñoiz ikatzketan.*
- iñondik (ere) ez** adb. *Mearik ez da bada iñondik heldu honara, ez Irundik ta ez Errenteriatik; arragoa erretzeko modua ona dago! / Olaren errentaren erdia, hura badere, al badu lenbailen beal dezala, iñondik ere dirua ateratzeko biderik ez daukatela.*
- iñor beste** izord. *Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorengana agertu bat egiñen ote duen dagoela, iñor besterik sartu gabe berorri emateko modua nolaerebait harzeko.*
- iñor (ez)** izord. *Anton Xardea hemen izandu da. Baso Gaztelu aldeko hau, iñori eman diogun. / ...berorri edo niri dirua emanen zigula, ta gaztiga beza eman edo bealdu egin dion iñorekin. / Despojoak ez zituen iñork ukitu igandean. / Errepublikaren ordena zela gurdi meharrakin iñor ez pasatzeko Franzia 22 de noviemb[re]tik aurrera. / Eta karta egiñ nuen berorrenzat, eta Fagotxikikoak iñor sumatu ez dutela karraidorerik larunbatean, ta egun hartu dut atzera karta Fagotxikitik. / Haren ondolik iñor etzen juan. / Iñork egurra eramateko, peligroan egurrik Oielekutik beiti da.*
- iñor gutxi** zenbtz. *Ikatz haiek ekarri behar ditugula, ta halere iñor gutxi dabill.*

- iñude** iz. Inudea, unidea. *Aurten kastatzeko urtea dugu; iñudea ere hillean hamar pezeta pagatu behar dugu-ta.*
- \*io du** ad. *Idiak itxean ditu ta bere gauza salzeagatik ekarriko zituela omen zion. / Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezez dio.*
- irabazi du** ad. *Lorenzo de Alsuak irabazi zuen aste batean...6 pezetas y 2 cuartos. / Ni nago olajaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpoko mea hoietan txar asko ateratzen da. / Nikolas de Arbelainen partez irabazi zuen Franzisko Antonio de Makatzagak...21 pezetas y 8 cuartos. // iz. Hoiei abonatu ta Tomasi rebajatu beharrak dira hoiek bere irabazitik. / Sei kontualdi hoietako irabazia da...939¼ reales vellón. / Semeak eranzun diola basoko irabaziarekin eziñ pasa daitekeela hura.*
- irago da/du** ad. *Igaro. Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitzeko, ta erre hoietako botatzeko denboran iragotako egunaz. / Gure alderdian enbarazo gutxi eg[.....], eta nahi badu beren itxe txarrean urteren bat iragoko dutela gehienaz ere.*
- iraiki du** ad. *Eraiki, jaikiarazi. Endara etorri da eguerdi ondoan, ta igeleak tretxuak buztanzen ari ziran; orañik bigarren tretxua zuten, ta kamañara jua, lanaz kasorik egin gabe, ta lo etzin da, ta hurrengo agoan illunzeko aurrean iraiki, ta orduan hasi da lanean.*
- iratze** iz. *Baso hoiek egitekotan orañ da denbora, iratzea jaio baño len hautsi-xe nahi lirake-eta. / Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko. / Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut, ta mandazaiak ere orobat, iratzea dela, artoa dela, guziak badabilza.*
- irauli du** ad. *Lurrari buelta eman. Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan, ta lurra iraulze bitarte honetan ebilliko dira. / Lurra iraulzeko denbora da ta libratu al baditzagu behinzat. / Lurra iraulzeko hamar ezkutuko bat bealzeko. / Olatxean den artorik txarrena beko begira egondu giñan honetan dago, baño maneatzeko beti bekoa errazago da; goikoak aitzurraz egin behar du lan guzia, baño bekoa lañaz irauli ditek.*
- iraun du** ad. *Ez dakit iraunen ote duen, olaren atzera-aurrera ekusi artea.*
- iriñ** iz. *Bordatxok iriña ekarri du. / Errotatik iriña ekarriaz...066 libras. / Lakadi bat iriñ haspotako 01 pezeta y 02. / Olatxoan, horko ogiaz gañera, kastatu da hemengo iriñatik 17½ panes a 24 cuartos...12 pezetas y 12 cuartos.*
- iritzi** 1. *zaio* ad. *Iruditu. Andres bera izan liteke konponzio hoietan dabillena, ta bera ere salsan izan liteke, Andres, niri daritzadanaz. / Eta jornal pare bat añaditza daritzat ongiena izanen dela. / Eta nahi bazuen edo bazeritzan olajaunak partituko ziotela, ixillik geldituko zela orobat. / Puska guziak, eta bere daritzana pagatu don Feliz Olaitzolako yabeari [...] eta*

*Patxiku Kaspar honek esan dit nahi badu gelditu palanka, bere daritzan prezioa egiñta bealzeko pagua. / 2. dio ad. Iritzi. Ta galdatu diot zer daritzan, esamiña hoietaz zer daritzan, ta esan dit honi daritzana dela [...]. / 3. Deitu, izena izan. Hondarrabiako babak ziudadean batzuek ta besteak ziudadearen garaiko aldean, bere itxean omen ditu gizon hark; Arsu daritza itxeari. / Jose Juakin daritzan igele Sidroren lekuan etorrira aritu denak du aste bat desde 11 de febrero de 1806 hasta 4 de junio de 1807.*

**irundar** adj./iz. Irungoa. *Eta esan diotet itzaiai, egun kargatu baitira, irundar Baionara dabilzanai esateko bost lagunen kargak badaudela. / Franzisko de Pikabea irundar Berentxikiko honek Tomasen partez irabazi ditu 14 pezetas y 29½ cuartos, ta eskatzen ditu. / Irundar itzairik ez da ageri oraindik. / Irundarrak eman zidaten Goizariñan sobra hartua...02...2. / Irundarren basoko hasi berri honek...4 duros. / Luis Beleari eta irundar Pellori idurikatan 2 días. / Pello ta Sebastian irundarrak. / Ta irundar it[z]ai hoiek ere dirua nekez ageri dela diote.*

**iskanbilla** iz. *Irundar hoiek iskanbilla franko badarabilte alderago mea dugunean, orañ lengoak pagatzen ez ditugula. / Len ere aspertu giñan harekin, gezurra ta iskanbilla besterik ezta hura.*

**ispi(a)** iz. Burdinolako peza; gezurraska, zepoa eta erruda aipatzen diren pasarte banatan ageri da hitza. *Eta erruda honek berriz makoak bota ditu, ispia guziak zuzitu ta galdu zazkio. / Martiñek dio guzia ustela dagoela, ta ez dela gauza onik egiñen, eta betik ispia ta alde olak emateko lekuan ere guzia ustela dagoela. / Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu. / A. M. Mitxelenak (a.a.) dioskunez, gaztelaniazko espiga bera izan liteke, zuretako caja y espiga-n dagoena. Baliteke RAEk espiga sarreran dakarren «extremo de una pieza de madera u otro material cuyo espesor se ha disminuido, ordinariamente en dos terceras partes, para que encaje en el hueco de otra pieza donde se ha de ensamblar» edo «clavo de madera con que se aseguran las tablas o maderos» izatea, baina ez dakigu seguru.*

**ito** adj. Ikus *ikatz ito*.

**itsas metal** iz. Itsasotik heldu den metala (segur aski Bizkaitik, Somorrostrotik). *Itsas metal puxkaren baten modurik ezpada paratzen honarako, ez da gauza onik egiñen, haxiak dirala ere. / Ikus metal sarre-ra.*

**itsaso** iz. *Bizirori esan diot berorrek nola esan didan, eta esan dit Joseph Antonen semea itsasoan dihoala.*

**itxalartar** iz. Etxalartarra. *Eta ianziarrari edo itxalartarrari kargatu behar zaio bere partea, 2 pezetas y 16 cuartos, lengoen gañera.*

**itxe** iz. (gehien-gehienetan), **etxe** (behin). Etxea. *Arragoa ongitzeko karea, Errenteriako mugako itxe batetik jorrada bat...8 quintales. / Martin bero-*

*zalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen. / Neguan kintal bat burnia egoteko tokirik ez da itxe honetan. / Yokasegururen seme itxean duenak baditu lan egiñak...200 quintales.*

**itxe lan** iz. *Garatekoak mea ateratzen ari dira, baño Karraio lengo egunetan ez da ebilli; artoak bildu ta itxe lanetan aritu da berdin, aisa ekarriko duela haiek atere ala.*

**itxe yabe** iz. *Feliz igeleak esan dit berorri gaztigatzeko errenta pagatzeko estutzen duela itxe yabeak, eta ea kintal bat burnia emanen dion.*

**itxekoandre** iz. *Etxekoandrea. Itxekoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko. / Ikus andre sarrera.*

**itxi** iz. *Itxitura, estalpea, aterpea. Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela, edo barrika, edo zerbait idukitzeko.*

**itxola** iz. 1. *Etxola.* 2. *Etxola egiteko ekaia (choza erdaraz). Aketzak berea zuen itxola, ta bost pezetan hartu du berak Katxorena. / Aldako[ko]ari itxola hartu diogu gaztañadi honetarako [...] ta ikatzen asentuan para beza itxola ere. / Artoa ta baba behar dituztela itxolara segi dezaten. / Buruzuri zarrari itxola erosi genion ta pagatu diot...04...00. / De Otsamintegi a Gaztelu itxola...1 carga. / Gaztañadiko basoa: honetarako itxolarik ez dugu.*

**itzagille** iz. *Iltzegilea, iltzeak egiten dituena. Franzes itzagille batek [...]. / Itzagille batek 1 quintal y 1 libra...36...1.*

**itzai** iz. (erdaraz *carretero*). *Artikuzako itzaiak dira gehienak. / Aurrerako orobat beharko da itzaienzat behinzat. / Irungo meakarien ta itzaien kontua. / Itzaiak egurketan. / Itzaiak txalupa huts egin zuten larunbatean. / Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut. / Itzairik eziñ billatu, ta bi orga kuadro hemen daude orañik. / Ta juañ naiz ni ere itzaiaz modurik izanen ote den burni hoiek eramateko, ta ez didate esperanzarik eman.*

**itzali da/du** ad. *450 dukateraño etorri zen argia itzali orduko. / Paratu dute hamaseian ta hartan itzali da, ta erreal bat eman diot. / Ta hamasei kuartilluan dagoela argia itzali da.*

**itze** iz. *Ikus ilze, itze sarrera.*

**itze gai** iz. *Iltzeak egiteko ekaia. Bigar kargatzen dira bost orga hortik etorri den itze gaiarekin.*

**itzuli da/du** ad. *Gure dirua itzuli dute lurrak kenzeko eta hartu nahi gabez. / Itxabestek itzuli zituen bi pezeta erdiak.*

**ixidu** iz. *Herri lurra, lantzen ez dena, herriko aziendak biltzeko erabiltzen dena. Basorik ontxoena da hau Eraringo ixidutik beiti, ta beste aldetik 300 karga bezala bi pagorekin. / Suertea partitua dago launa puskatan Erroizpeko ixidutik bi aldetara puska bana. / Ikus honetaz 1800.01.09 gutuneko oin ohar batean dioguna.*

- ixildu, isildu** *du ad.* Ordaindu, kitatu. *Espensa hoiek ixildu behar lirake. / Isildu behar lirake noizbait.*
- ixillik** *adb.* *Eta nahi bazuen edo bazeritzan olajaunak partituko ziotela, ixillik geldituko zela orobat, eta apaizak esan omen zion elkar galduko zela hartara, ta ixillik zagoela, ta emanen zitzaiola 200 karga.*
- izan, izandu** *da/du ad.* *Anatxuri egun izandu zait kontuak egiten. / Bautista atzo izandu zen diruarekin. / Bealdu nahi baditu itzaianzat zorri urretxiki hemen izanen dira. / Gaztaña tantaia len izaten zen paraje honetan 190 karga. / Gazteluerrekako hoiek Seingoak pretenditzen ditu, dirua izaten badu behinzat, bat 440 karga, ta bestea 220 karga. / Gregorio ta Motela semearekin ta ni izandu gera Belearen basoan. / Lengo izan denean Manueli erakarri diot nik ogi bat. / Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera jua naizanean, gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski. // izan...-ela.* Zenbatzailea, egun, urte eta -ela menderagailua ditugu, denbora tartea adierazteko; inoiz izan eta -ela ezabaturik daude. Ikus egun eta orañ sarrerak. *Eta zazpi urte da sartu zirala askak. / Hogei egun d[ira] arrago egurraren memoriala eman niotela. // -tzea izan du ad.* Ahal izan, aski izan. *Hoiena gutxiago bealzea du. / Espensan paga bealzean hoiek gutxiago bealzea du. / Juakin honen lagunari eman diozkat hiru pezeta. Kontua egitean gelditzea da.*
- izerdi** *iz.* *Baltasarrek dio Garalorregin ta Otsandolan, hoiien esamiñan, ongi aterako dela, izerdiak galduak izanagatik.*
- jai** *iz.* 1. Jaia, 2. Igandea. *Bigar hor jai nola baita iñor izanen ez dela, gaur egiñ dut txartela hau. / Eskriboak esan diote hurrengo jaietan aterako dutela berriz kandelara. / Hurrengo jaietan ageriko al da zertan gelditzen den! / Miguel Aranguangoak ta Felipe Iturriotzkoak ikatzen dirua jaietako nahi luketela. / Orañ berehala egiñ gabe izan zitekeela lenbiziko jai hoietan. / Ta meza ondoan paratu dute, baño 19 kuartilluan gelditu da, ta hurrengo jaietan aterako dutela esan dute.*
- jaiardi** *iz.* *Larunbata. Egun goizean olatxoa ez dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldurrak, jaiardia nola baitzen hasita lana eskastuko dela. / Erretazoak kandelatzeakoak dira; jaiardian edo igandean yarriko dira.*
- jaiki** *da ad.* *Martiñen semea miñez zagoen len, ta jaikitzen hasi deneko Martiñ bera errenditu da, ta planta txarra halere zaukan egun.*
- jaio** *da ad.* *Baso hoiek egitekotan orañ da denbora, iratzea jaio baño len hautsixe nahi lirake-eta. / Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran.*
- jaitsi, jatsi** *da/du ad.* *Baltasar da esaminadore, ta esan dit atzo hemezorzian gelditu zela, ta gaur jatsiko zela hamasei edo berago. Ta alkateai ez diotet deus esan, agian jatsiko dutela berago. / Erretazo 760 kargako hau hamaseira jaitsi dute. / Ola gelditu da 1.800 ezkutuan, ta eskola maisuak esan dit San Matiasez jaitisiko dutela 1.600 ezkutura. / Ola 410 dukatera-*

*ño jaitsi zen atzo. / Suertea hartu diet 16 kuartilluan; 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan paratuko dutela, nahi duenak hartu, ez dutela berago jaitsiko esan didate.*

**Jangoiko** iz. *Han dago; Jangoikoak daki norena den!*

**jario** zaio ad. *Haizarka honetan beti maxura da; burnirik ezin berotu da, aldetatik puska dariola.*

**jaso, yaso** du ad. *Hirugarren ikaztogia yasotzen ari dire, ta Artikuzakotik batere ez, zergatik gureak era hobean diran yasotzeko. / Ignazio Aranburukoak Bullegitik bealdu ditu hamaika karga ta lepalotu erdi bat gaztaña ikatza, ta gerok jaso dugu. / Orañ ikatzak egin ditu 22 karga ta zaku bat lepalotua; guk jaso ditugu. / Sarobeko Juan Ignaziok gaztaña ikatza eman digu, 12 karga. Gerok jaso ta hartu du burnia 2½ arrobas lau libra gutxiago.*

**jaun** iz. *Nagusi jauna. Ikus olajaun sarrera.*

**jende** iz. (singularrean nahiz pluralean). *Aste honetan ola handikoak egin duten espensaz gañerako zor dena da hau, ta jendeak galdatzen dute [...]. / Ez da jendea hagitz gose. / Guziak boto banako jendeak izanzen dirateke hoiek. / Guk harzen dugunean artaldea bezala han etorzen dira jendeak. / Jendea zaletua dago harzeko. / Ola handikoaren asentua badu hor, ta maiz aski hemen da jendea, deus ageri den.*

**jokatu** du ad. *Jo. Alkatearen eskuetan dago, eta Juakintxok idukitu duen zensoon hipotekan sartuak ziran lurak, eta orañ Iruñera jokatzeko asmoa dut.*

**joskurak atera** du ad. *Josturak egin. Haspagilleak esan du adobatzeko zuloarik izaten deneko gelditzen badut ere, txikienak gelditzeko zerrenda puska hoietatik, joskurak ateratzeko Elamarako luzenak behar dirala.*

**juizioa egin** du ad. *Pentsatu, ondorioa atera. Jendeak horrelako juiziorik egiñ ez dezan. / Konsejupean nola izandu zeran kandelak dauden denboran, jendeak juizioa egiten dute olagatik zabilzala.*

**junio** iz. *Ekaina. Donostiako ogitik olatxoan kastatu dira junioan 26¼. / Ola handikoak, horko ardo ta ogiaz gañera, egin dute espensa junioan...23...29½.*

**junta** iz. *Bilkura, bilera. Indianoa bigar badihoa juntara.*

**juradu** iz. *Arrago egurra ematean juraduari yornala...002...00. / Arrago egurra emateko jornala juraduari...02...00. / Arrago egurra emateko juradua-ren jornala...02 pezetas. / Arrago egurra emateko juraduari yornala...02...00. / Arrago egurra ematera etorrita juraduari...02...00.*

**justizia** iz. *Gazteluko meakariak geldirazi dituzte meatzetan. Deretxoak dituztenak justiziak geldirazi ditu.*

**juzkoan egon** da ad. *Susmatu, susmo txarra izan. Beste hau Juan Migelek pretenditzen duela zioten orañ ere, ta memoriale egiñta juzkoan egonen direla gutxi dela, ta ofrezitu diot bitzaz 15 kuartil[lu] meza aurrean, ta ez dute eman. / Mundu guzia gure juzkoan dago baso hoietaz.*

- kabarra** iz. Ibai ontzi handia, ala. *Ta egondu naiz gazdearekin, ta esan dit harrotua daukatena berak ekarriko dutela lagunik gabe [e]re, kabarra billatzeko.*
- kabezoi** iz. Burdinolan egiten zen peza baten izena. *Kabezoiak tiratzen ari-tzen da hemen allegatzen den denboran.*
- kabi** iz. Gabia, olako mailu handia. Zernahi gisaz, denak ez ziren berdin handiak, olatxokoa adibidez txikiagoa baitzen, olakoa baino (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 253). *Herriaren kabi txiki hau ere ustaiaren gañetik partitua zegoen. / Hiru kabiak eta ingudeak agoan du puxka bat mane-atzeko lana. / Kabia egin zenean ola preparatzen ta kabiguña sarzen egin zutena da. / Kabia konponzen aritua egun bat horietakoa.*
- kabigunketan** adb. Gabi-igun garraioan. *Ariztxulegitik kabigunketan...1 día. / Kabigunketan...2 días. / Kabigunketan...3 días.*
- kabiguñ** iz. Gabi iguna, gabiaren kirtena (erdaraz mango). *Ariztxulegitik ere sarzen da bederetzi uztarriren kontua kabiguñ birekin: 9 pesos 33 pezetas y 3 reales. / Ariztxulegitik kabiguñak...3 días. / Isasolan, kabiguñ batekin etorrira ere, ogia ta ardoa badituzte. / Kabiguña boban eskatuta lotu egiñ dute. / Kabiguñak ere eskatu gabe botatzen genituen orañdaño-koan, ta memorialarekin eskatzeko esan didate arbola bota behar den guzia[n]. / Kabiguña ia hautsia dago. / Kabiguñatan egun bat. / Ola handiko kabiguña egiñ...1 pezeta y 29½ cuartos. / Ikus bedi A. M. Mitxelena (2020b: 38, 265).*
- kabiguña sartu** du ad. *Kabiguña sartu berria ta zarra, hautsia baño len, boban eskatuta bobatu ere bai. / Kabiguña sartu dute ta ezkutua usatzen dela diote. / Kabiguña sartu: ezkutu bat. / Ola handiko kabiguña sartu...1½ pezeta. / Olatxoko kabiguña sartu...1½ pezeta. / Ta ari dirala ingudeari sartu-ateara egiten gau-egunak galdu dituzte, ta kabiguña sarzea gañera.*
- kabilla** iz. Kabila, olan egiten zen peza; A. M. Mitxelenak (2020b: 242) ‘burdin biribilezko ziria’ adiera ematen dio. Larramendik honela dio: «*Aquí (en Guipúzcoa) se ha trabajado estos años la más cabillería en la cantidad prodigiosa de quintales de hierro, que se han reducido á cabillas grandes y menores para los navíos del Ferrol y otras partes [...]*». / Eskutizetako testigantzak: *Eta hortik heldu diran kabillak hemen daude, eta itzaiak baietz esanta beren gisa dabilza, honara gabe. / Horko kabilletan bealdu ditut lengo 7½ arroak ta 3 arroa gañera, sobratu ziranak. / Kabilla hemen den hau 3 arroba eskas da, 6 ta 7 linea lodi. / Kuadroetan badira eskastuta juanak arroa batzuek plantxuelatik, eta kabillatan ere bai, 8 arroa bezala. / Lamothi bealdu tiot orga kabilla ta orga kuadroa, 4 arrobas y 16 libras kabillakin hurnituta, eta larunbatean abisatuko dut bitartea zer bealzen ditudan. / Martiñek dio errudako kabillak txabeten lekuan tor-nilluak behar lirakeala, laxaitzen denean estu ditekeala.*

- kabillan aritu da** ad. Kabilak egin. *Kabillan aritzekotz hor edo Arranbiden egiñ beharko dira. Orañ berehala presarik ez da.*
- kabitegi** iz. Gabia eta gabi iguna zeuden burdinolako eremua (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 265). *Kabitegia kendu dugu ta katuak ere bai, ta maisuak dio endal harri bat sartu behar dela, harria billatuta, ta zepotillu bat ere bai. / Puska berriak beharko ditu barrengo aldetik edo nondikerebait, eta ola handiko kabitegiko tormentategi honek ere aurtengo udan.*
- kale** iz. Herri batean baserri eremuari kontrajartzen zaion alderdia, herriko etxea, eliza eta beste biltzen dituen. *Eta probestuari niri kalean esateko esan omen zioten, ta arratsaldean ni kalera yoan ez ninzan-ta, bere gisa etorri omen zen honara, nola kalean harrapatu ez ninduen. / Ikus bedi karrika sarrera.*
- kamaña** iz. 1. Ohe kaskarra, 2. Burdinolako langileen logela (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 265). *Endara etorri da eguerdi ondoan, ta igeleak tretxuak buztanzen ari ziran; orañik bigarren tretxua zuten, ta kamañara juan, lanaz kasorik egin gabe, ta lo etzin da. / Ikus errekaña sarrera.*
- kamio** iz. Errege bidea. *Hautsixe nahi lirake-eta Bizenteren hau, Lesakako bidean dabilzan guziak burlaz daudela, hemen daukagu, kamioko bistan.*
- kana** iz. Luzera neurria. *Hesteak 28½ kana...01 pezeta y 23 cuartos.*
- kanalegille** iz. Erretenak egiten dituen. *Pa[s]tor[r]i kanalegillenzat gonbite-tako...5 pezetas.*
- kandela** iz. 1. Argizaria. *Ola kandelan yarri zen denboran gaztañak ere kandelan zauden, eta Salvador juan zen kandelaren alde samarrera, eta uste omen zuten jendeak olagatik zabillega. / 2. Argizaria itzali arte egiten den enkantea. *Azkeneko gaztaña hau kandelan hartu dut, ta probestuak behar du pezeta. / Baltasarrek esan dit hoiiek deklarazioa egiñ dutela lenbizikoan...1.500 cargas, kandelan ere hala baitago. / Eta errespuesta eman duela ez dela metituko, eta ez dela konsejuperako ere olaren kandela dagoño. / Madarimotxeko gaztañetako kandelan probestuari...1...00. / Maisuak nahi badu bestek nekez eramaten du kandelarik. / Ta esan zuten nahi zuenak memorialarekin presentatzeko, ta gero ere kandelara beharko zutela memorialaren gañean.**
- kandela egon da** ad. Enkantea izan. *Bada, ez naiz gehiago ola kandelan dagoño konsejuperako. / Konsejupuan nola izandu zeran kandelak dauden denboran, jendeak juizioa egiten dute olagatik zabilzala.*
- kandela jo du** ad. Enkantean lehiatu. *Argiaren kontran egoten da, nahiz kandela jo behar ta nahiz ez. / Guk uste genuen gaurgero ola horren kandelala joko zenuela.*
- kandelagille** iz. Kandelak, argizarizko piezak egiten dituen. *Martin kandelagilleari Disputako mea ekarze-saria...03...00.*
- kandelan egon da** ad. Enkantean egon. *Ola kandelan yarri zen denboran gaztañak ere kandelan zauden. / Pagoak saldu dira 1.000 karga. Juan*



*Migelek-eta hartu dituzte, eta Añarberako paraj[e]an ere kandelan daude bi porzio.*

**kandelan paratu** *du* ad. Enkantean jarri, kandelatu. *Atzo ta herenegu ez dute paratu ere kandelan. / Elizatik erakutsi zen, baño ez dute paratu orañik suertea kandelan. Ola ere ez dute paratu. / Kandelan paratu dute ola ta gelditu da 1.650 ezkutuan, ola ez baño basoa. / Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote kandelan. / Ola datorren igandean paratuko dutela kandelan erakutsi da elizatik, 2.300 karga ikatz izanen duela gutxi gorabera erakutsi da. / Ola paratu dute kandelan dotaziorik gabe; 500 dukat zillarrean paratuta 450 dukateraño etorri zen argia itzali orduko. / Sarastik esan dit kandelan paratuta bajatuaz ekarriko dutela, ta inork gehiagok hartzen ezpadu, orduan emanen dutela. / Zariako puxka 28 [ka]rg[a]ko bat besterik etzuten paratu igandean kandelan. / Erka bedi Iberoko (Leitza) 1729ko erdarazko honekin: «...que el dia de ayer se pusieron a remate de candela el acarreto del maderamen y condiciones [...]» (A. M. Mitxelena, 2020b: 154).*

**kandelan yarri** *du* ad. Enkantean paratu, kandelatu. *Ola kandelan yarri zen denboran gaztañak ere kandelan zauden.*

**kandelara atera** *du* ad. Enkantera atera. *Bien ofrezimentuak izandu dira, eta eskeriboak esan diote hurrengo jaiean aterako dutela berriz kandelara.*

**kandelara gabe** *adb.* Kandelara atera gabe, kandelatu, kandelaratu gabe. *Suertea ta enborrak kandelara gabe eman dituzte.*

**kandelatu** *du* ad. Kandelan paratu, enkantean jarri. *Erretazoak kandelatzekoak dira; jaierdian edo igandean yarriko dira. / Juan Migel Aranguangoak esan omen zion apaizari, pagoak kandelatu behar zutenean, nola behar zuen berrehun bat karga ikatzen basoa.*

**kanpo** *iz.* Bekoa erdi bana dugula goian puxka bat hartuko nuke, baño guk bestetaz lanak egi[n] nahi ta kanpoko la[n]gillekin sarri beko galzadan litzake gure lur puxka. / *Eta kupela iduki nahi badu ere bai, ahunzakin gorotza beretzat egiten duela, hemen izatekotz, behar genuen bezala, kanpora yoanta ere. / ...kanpoan ez dagoela lantegi onik. / Kanpoko igele hoiek aritu diran denboran egiñ da tretxua...310 quintales y 1 arroba. / Ta eskatzen dute Oiarzungo olatarako asteke bost pezeta, ta herritik kanpora atera ezkeru urretxiki zar bat.*

**kanpora** *postpos.* (instrumentalarekin). *Gainera, landa(ra). Arragoa deskargatzen sartu dira olatxekez kanpora 7 días. / Honetarako deskitatu zazkio, oraño arragoaz kanpora, 51 pezetas y 2½ reales.*

**kanporako** *adj.* *Bost egun baditu ikatzketako bideak egiten pasatuak, basotatik kanporako bideak konponzen.*

**kanta** *iz.* Leloa. *Damianek agindu dit eskasaren kanta dadukala Lamothekek pisuaz.*

- kañoi** iz. Kanoia (*cañón* erdaraz). Hauspoaren aurreko muturra, toberaren bokan sartzen zena (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 58, 242-243). *Hau begia erreta jua denean ekarri dugu Isasolako igele gazdea, eta bi agoa egin diraneko tobera erre da edo hautsi kañoien mugatik.*
- kapa** iz. Agerrekoak etzuen bada noski konturik egiñ; kapa ekarzeko utzi zituen 40 pezeta ta ekarri ez zitzaion. / Kaparena gelditu ta palanka bat egin diotegu, 17 libras pisatu du. / Sagar ardoaren diruaz ere galdatu dute 137 pezetas y 32 cuartos, ta Kaparena ta palankarena gelditu, ta gañerakoak.
- kapaz** adj. Handia, egokia. *Nahi badu beren itxe txarrean urteren bat iragoko dutela gehienaz ere. Eta borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen tiotala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko.*
- kapaz izan** da ad. Gai izan, trebe izan. *Hemen ari diren berotzalle Martin, Marcos ta Manuel Ignazio, hiruak diote -laugarrena ez da orañik ofizioan kapaz honetarako-, bada [...].*
- kapirio** iz. Gapirioa.<sup>25</sup> *Erariñan goiara ta kapirioak, eta Oielekun ardia; bederetzi uztarri jua Erariña, ta hononzean ardia Oielekun hartu ta, guziak kargatuak, beiti etorzeko modua da.*
- kare** iz. Gisua. *Arragoa ongitzeko karea, Errenteriako mugako itxe batetik jorrada bat...8 quintales. / Ikus bedi kisu sarrera.*
- karga** iz. *Hoietan bost karga otsabeharriak dira; ikatz jabearenzat izanzen dira 71½ karga. / Ignazio Aranburukoak Bullegitik bealdu ditu hamaika karga ta lepalotu erdi bat gaztaña ikatza, ta gerok jaso dugu. / Karga bat ikatzena dela. / Sarobeko Juan Ignaziok gaztaña ikatza eman digu, 12 karga.*
- karga ikatz** iz. *Antonio de Mitxelenak ditu 34½ karga ikatz bizkarrean ekarriak, olaren ondoko basotik. / Juan Migel Aranguangoak esan omen zion apaizari, pagoak kandelatu behar zutenean, nola behar zuen berrehun bat karga ikatzen basoa. / Migel Fagoagakoak ekarri ditu lau karga ikatz, atarian enbor ta zurzaiakin egiñak. / Ta karga ikatza pezeta kontatu du Señoak, Eraringoak eta honontzkoak, guziak, karga pezeta. / Ikus ikatza karga sarrera.*
- kargatu** da/du ad. 1. *Zamatu. Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik. / Lera kargatzen pasatu ditu, egun erdia kontatzen zaiola, sei egun...3 días a 5 reales. / 2. Kobratu. Lamothi bealdu zazkio 40 orga guzitara, ta azkeneko hogeitaz orga hoietarako zorzi orgaren deretxoak kargatu behar zazkio 129 pezetas y 12½ cuartos. / Ianziko igele gazde honi kargatu behar zaio fraileari emana...17 cuartos.*

<sup>25</sup> Goizuetako artxibategiko erdal dokumentazioan *gabrios* ageri da, pluralean.

- / Lenagoko kontua egiñ zuenean gurdia egin zuen ta kargatu zitzaion. / 3. Apuntatu, asentatu. Mealleari kargatu zitzaion Urriztilla juateko nik emana...05...10½.*
- kargatzalle** iz. *Zergatik itzaiak etzuten gauza onik egin nahi kargatzallerik gabe.*
- kargu** iz. *Enkargua, mandatua (ustez). Beste anitzetatik ere aditzen nuen, baño Damianek satisfazio osoa eman dit, Aldakokoak kargua duela Galardirenzat. / Gobiernoko berriai esan diotela nola den ikatz gaia hura, eta hoiiek Olaberrira nola eman dituzten, ta berriak har dezatela aurrerako kargua.*
- kargu egiñ du** ad. *Kobratu. Andresek esan dit leneko urteko errentan hari osoaz kargu egiñen diotela, ta hark falta duela orañik.*
- kargu hartu du** ad. *Kontua hartu, kontuak eskatu. Herriari zenbat pagatu behar zaion, prezio hura hemen zor du Anatxurik. Miñez dago, bestela kargu hartuko nion ta pagarazi.*
- kargua eman** 1. *du* ad. *Agindua eman. Garatekoak bolborarik eziñ arkitu dute; hamar erreal pagatuko dutela, ta Pasaian ordena edo kargua emana daukate, baño orañ ere gabe daude. / 2. dio* ad. *Jakinarazi. Zor dugunaz polseroari kargua emanen diotela, kobratzeko. / Ikus ordena eman sarre-ra.*
- karobi harriketara** adb. *Karobi-harri xerka, karobi-harri eske, karobi-harri garraiora. Beste biak eta Zuloakoa karobi harriketara aginduak dirala. Ikus harriketan sarrera.*
- karraiadore** (inoiz), **karraidore** (eskuarki), **karreadore** (inoiz) iz. *Garraiatzailea. Anatxurik eskatzen ditu burniak karraidoren kontura. / Atzo Isasolako karraidoreai erakarri nitiozten ikatzak...56 cargas, olan basteko ikatza falta izanta. / Irungo karreadoreak 46 karga pagatu ditut. / Karraiadoreak hutsik heldu diranean karga bailitezke. / Orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera-ta, edo bestela karraidoretan kontuan pasatzeko.*
- karraido** iz. *Garraioa. Orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera, edo bestela karraidotan, berorrek nahi duenai kargatuko zaiotela.*
- karreto** iz. *Garraioa. Ez du hark Ziburuko karretorik egiñen. / Franziako karretoan harzeko du 20 pezetas. / Kasarasi karretoa pagatzeko...11 pezetas. / Ta Franziako burnien karretorako ere len gelditua bada zor 101 pezeta y 8½ quintales, Eguerritako denboran gelditua. / Gaztelaniaz «el acarreto de todo el maderamen de las anteparas» ageri da Iberon (Leitzan) 1729an (A. M. Mitxelena, 2020b: 154).*
- karrika** iz. *Oiartzungo auzo izena den Karrika deizioan dago. Buruzuriari itxola en 3 cargas Karrikatik suertera. / Ikus bedi kale sarrera.*
- karromatodun** iz. *Domingo Etxabe gaur bederatzitako etorzekoa da karromatodunai burniak ematera.*

**karta iz.** Gutuna. *Andresi eman diot karta goizean, ta esan dit meza esan ta Konsejura bilzen diranean guziakin egonen dela. / Gure anaieak deskuiduan gaizki bealdu zuen kontua; horra anaiearen karta ere ekusteko. / Ta esan dit meza esan ta Konsejura bilzen diranean guziakin egonen dela, ta bera horrara agertu edo kartaz adituko dutela elkar.*

**karta bealdu du ad.** Gutuna igorri. *Karta hori apaizak bealdu du. / Ta bealdu du karta ~~igandean goizean~~ (sic) atzo goizean.*

**karta egiñ du ad.** Gutuna egin. *Eta karta egiñ nuen berorrenzat.*

**karta eman du ad.** *Andresi eman diot karta goizean.*

**karta hartu du ad.** Eskutitza jaso. *Eta karta egiñ nuen berorrenzat, eta Fagotxikikoak iñor sumatu ez dutela karraidorerik larunbatean, ta egun hartu dut atzera karta Fagotxikitik.*

**Kasabilla iz.** Udaletxea, herriko etxea. *Arotzak ere estu daude; bat horrara etorzeko asmoa dute, eta Kasabillako ere egun hemen zen Paskual de Isasa. / Ikus Konseju sarrera.*

**kaso iz.** -**ela kaso.** Kausazko menderag. *Bera etzen hemen, kandelarik etzen espero ta. Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote kandelan. / -en kasoan.* Baldintzazko menderag. *Orañ familia txikiak heldu diran kasoan, nahi badu eman beko gañerako hau. / Erka bedi gaztelaniazko en caso de que-rekin eta Luzaiden-eta ibiltzen den frantsesetikako enkasekin (Kamino eta Salaberrri, 2007: 56). / -en kasoz* ‘-engatik’.<sup>26</sup> *Eta esan dit Salbadorrek egia dela hartu dutela olaren kasoz, baño ez gobiernokoak. / Goizuetara propioa Fermin Joseph zenaren kasoz paperen eske berorren kartarekin...02...00.*

**kaso egin du ad.** *Endara etorri da eguerdi ondoan, ta igeleak tretxuak buztanzen ari ziran; orañik bigarren tretxua zuten, ta kamañara juan, lanaz kasorik egin gabe. / ...eta burniaz kasorik egiñ gabe juan dela Donijuanera. Eta gaur etorriko da Goizuetatik.*

**kastabidea hartu du ad.** Gastatzeko bidea hartu. *Iruñetik despatxua atera edo ekarri beharko dugula eskeriboak dio, eta orañ hartara goaz, eta kastabidea hartu dut, eta behar nuke hogen ezkutuko bat.*

**katu iz.** (gato erdaraz). Gabi nagusiko bobaren mugimenduari eusteko pezak ziren katuak eta azpisunbilak (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 38, 123, 267). *Josepe igeleak katuak atera ta berriak sarzen ta endal harria konponzen baditu 5 días. / Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu. Kabitegia kendu dugu ta*

<sup>26</sup> Aldera bedi garai bertsuko Joakin Lizarraga Elkanokoak darabiltzanekin. Adibide bat: «Alá guizon bāten cāsos galdubāze guizaguēndea, bercebāten cāsos erremediatuzé» ‘Hala, gizon baten kasuz galdu bazen gizagendea (gizakia), bertze baten kasuz erremediatu zen’ (J. Apececheak eta F. Ondarrak paratutako edizio kritikoa, 1994: 17).

- katuak ere bai, ta maisuak dio endal harri bat sartu behar dela, harria billatuta, ta zepotillu bat ere bai.*
- katz** iz. Gatza. *Itxeoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko, ta galdatu dugu ta hamalau kuartoan katzik gabea, ta hamazazpi kuartoan gazitua omen daude.*
- kausara atera da** ad. Auzitara jo. *Señgoarekin egondu naiz ta esan dit 40 egun honetan miñez dagoela, eta aditu duela posesioa nola hartu duten, eta laster kausara atera nahi lukeala.*
- kendu** du ad. 1. Kendu. *Amabirjinetan esan nion anaieari bi onzako nola kendu nitien, ta zor daukat ta pagatu nahi nuke. / Hoiien deklarazioan terzia kendu ta heldu da urte bakoitzeko 2.000. / 2. Hartu. Dirua entregatu diotet eta errezihoa igandean emanen didala Mendiburuk esan dit; gaur aiuntamentua zuten ta igandean kenduko diot. / 3. Atera. Orañ 50 karga arragoa egurra kendu ta gañerakoan zerbait aterako al da!*
- kintal** iz. Pisu neurria (ikus bedi A. M. Mitxelena 2020b: 50). *Honek hartu du kintal bat burnia perrazallearenzat, ola handian tiratua. / Kintal bat eskatzen du; diruarekin etorriko dela dio. / Kintal erdi bat burnia hartu du Anatxurirenzat. / Orañik eraman gabeak Olandira zorzi kintal ta erdi.*
- kintalaje** iz. Kintal kopurua. *Gañerakoa gelditzen da Tomasenzat, arialdi honetako kintalajea ta espensa guzia. / Halere tretxuko kintalajea kon-tua egiñ nuen Franzisko honena, 24 quintales labratuak baiziran. / Jose de Olaziregi honek kintalajetik espensa pagatuta, 9 pezetas.*
- kirkir** iz. Kilkerra. *Kirkirra goitzenaren oinarrian daukagu: Manuel de Arbide Kirkirra.*
- kisu** iz. Gisua, karea. *Kisuak ere pagatu behar dira sei karga...12 pezetas. / Kisuak ere pagatu behar dira...21 pezetas. / Tellak eta kisuak...111 pezetas. / Ikus bedi kare sarrera.*
- kisulabea erre** du ad. Gisu labea piztu eta barneko karea erre. *Gabrielek ta bere anaieak orañ ari diran meatzetik aterea da, orañ heldu den bezalako-a, ta Gabrielelek esan dit, orañ kisulabeak erretzera dihoaz bi anaieak aste honetan ta bestean. / Ikus bedi arragoa erre sarrera.*
- kito egon** da ad. Zorrik gabe egon. *Irundarra, etsi dutenean, burni eske hasi ta pagatu tioztet beren azken errestak. Burniaz kito gaude orañ haiekin.*
- kobratu** du ad. Haizarka zarraren ustaiak eraman ditu, eta nahi badu, 25 pezeta balio dute, eta hor asentatu, ta bestela nik kobratuko ditut. / Herriaren kontukoak guregandik kobratzeko. / Lenbiziko karretoko 19 pezetak ta ikatzgilleari len emanen gañera osatu 56 kargaren balioa ta gañerakoak kobra ditzatela herriagandik.
- kolore** iz. Guzia txea eta lur kolorea zuen meak, eta orañ euriak garbituta agertu zaio metal belz zakar hau.
- komesario** iz. Komisarioa. *Mikolas Arpidekoa egun izandu da Doniyoanen, ta egondu omen da komesario behar zuenarekin, ta esan omen dio orañ eto-*

*rrri dela ta ez dituela despatxatu paperak, lau egunen buruko Oiarzungo komesarioaren itxera bealduko dituela faltarik gabe.*

**kondizio** iz. *Gehiago añaditzeko kondiziokoa edo agindua, zeren mearik etzen...6 quintales.*

**konforme** (genitiboarekin) postpos. -en arabera. *Eta hoiien konforme gureak egin daitezke bost lantegi.*

**konpondu** 1. *du ad.* Hautsia, hondatua edo matxuratua dagoena ongi paratu. *Bost egun baditu ikatzketako bideak egiten pasatuak, basotatik kanporako bideak konponzen. / Haizarka konponzen, errueda konponzen, gurutzeak sarzen ta zepoa estutzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia. / Hoietaz gañera ere, maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten, egunaz konponduko zutela. / Jose de Bengoetxeak berak yana duela arotzakin olako maxura konponzen 2 días. / 2. *da/du ad.* Ados jarri. *Nik esan diot berorrekin konpon dedilla. / Niri etorri zitzaidan hau, gobiernokoekin konpondu zela. / Orañ Motela horrara heldu denean konponduko da nahi duen bezala. / ...ta konponduko ditut nik ikatzgilleak ta gobiernokoak, salsa hoiek akabatu ditza-gun. / 3. *da/du ad.* Berdindu, ondu (gutunotako adieran), osatu. *Jose Migel de Iragorrik baditu lau ezkutu arrago egurketan, eta esan dit bi anega babaz gatzigatzeko berorri, ta gañerakoa konponduko duela lanaz. / 4. *da/du ad.* Ordaindu. *Esan didate Sarastik eta bere lagunak berehala egiñ behar duela (sic), hoiien dirua bederetzi egun baño len nahi lukete, errenta edo salariatua konponzeko.****

**konponzio** iz. Nola-halako konponketa edo negozioa.<sup>27</sup> *Hau Aldakokoak berak esan dit. Sujetoa nor den ez du deklaratu, baño Andres bera izan liteke konponzio hoietan dabillena, ta bera ere salsan izan liteke, Andres, niri daritzadanaz.*

**konporta** iz. Guk ezagutu dugun konporta zurezko ontzi handia zen (1.5 metro-edo gora, zabalean 60 bat zentimetro goian, ahoan, eta 40 bat behean, hondoan), kupelak bezala bizpahiru uztai zituena, oholak lauzkatze-ko. Zernahi ere den, A. M. Mitxelenak (2020b: 35) ‘zaku ikatzaren neurria’ dela dio lehenik, ‘uharkako ataka’ («*compuerta de la presa*», hitzez hitz) geroago (*ibid.*, 51, 244) eta ‘ikatz zakuak neurtzeko erabiltzen ziren egurrezko balde handi batzuk’ ondoren (*ibid.*, 268; ikus orobat 146. or.). Guk behin bakarrik ediren dugu JRMren gutunotan, eta testuinguruak ez du asko laguntzen adiera zein den zuzen jakiteko: *Hau ere kontua bealdu nuen...45 pesos y 14¾ reales. Konporta gañera.*

**Konseju.** iz. Udaletxea. *Andresi eman diot karta goizean, ta esan dit meza esan ta Konsejura bilzen diranean guziakin egonen dela. / Eta bitartea*

<sup>27</sup> Erka bedi Etxalarko 1826ko *componcionea*-rekin (Apezetxea, 2006: 430).

*Konsejura ta Isasolara eramanaz gañerakoak gure gañean daude. / Isasolara eramanak 30 karga, Konsejura eramanak 17 karga. / Ikus Kasabilla sarrera.*

**konsejupe** iz. Udaletzeko arkupeak, batzarrak eta enkanteak egiten ziren lekua. *Eta Andresek esan ziola «konsejupean nola izandu zeran kandelak dauden denboran, jendeak juizioa egiten dute olagatik zabilzala», «bada, ez naiz gehiago ola kandelan dagoeno konsejuperako» errespuesta eman ziola Andresi, jendeak horrelako juiziorik egin ez dezan.*

**konsejupera izan** *da ad.* Kontsejupera joan. *Bada, ez naiz gehiago ola kandelan dagoeno konsejuperako. / Ikus aurreko sarrera eta aditz morfologiaren inguruko kapituluan dioguna.*

**kontatu** *du ad.* 1. Zenbatu. *Erremienta egiteko eguna ezkutu erdia kontatzen zaiola ditu falta hoiek. / Goizean ekarri ditugu diruak, ta kontatu gabe, mutillak meza huts egin dezan beldurrak, bealdu dut. / Olatxeko aurreko zubian pasatutako maldatik uztarriak ekarzea; hau nahi duena kontatuko du. / Setienbrean eta oktubrean olio 30 kuartoan omen zen libra, ta nik 28 kuarto kontatu dut bi hillabetetan. / 2. Esan. Salbadorrek kontatu tit hoiek.*

**kontentu izan** *da ad.* Pozik egon. *Berori ezpada honela kontentu, adiraziko du nola nahi duen. / Ez du gauza onik eginen, ez da kontentu. / Kontentu badira gatzigatuko dute. / Olatxoko moduak espensan ere nahi omen lituke, ta ez omen da kontentu.*

**kontra** (genitiboarekin). *Alkate zarrak esan dit ez dela libranza beharrik, gure kontrako paperik ez dagoela. / Bestela, borondatearen kontra aitarren zorrak eziñ geldi dezakeala amaren senipartea. / Behin inesiboan da: Argiaren kontratan egoten da, nahiz kandela jo behar ta nahiz ez.*

**kontrako** iz. Basoaren edo mendi pusKaren ustiapena erosteko ordaintzen dena (ustez). *Arrago egurraren kontrakoak 300. / Ta esan didate arrago egurraren kontrako hau 18 kuartilluan dagoela.*

**kontrario** iz. *Etzen kontrariorik. / Orañ ez dakiela kontrarioak pujatzen hasi diranean utziko duen edo segituko duen berriz. / Otsoanekoak esan dit hamalauraño etsiak zaudela, baño hurrengo jaieraño ez jakin kontrariorik ager zitekean. / Pagoetan kontrariorik badere, eskola maisuari esanta hark hartu ditu.*

**kontu** iz. *Egun urtebete hoiek biak kontua hartu zuten hemendik, ta gurdi burmiak ez nituen sartu kontuan, ta esan zuten aipatu zituztela kontuetan. / Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nahiko dituzte horiek. / Herriaren kontukoak guregandik kobratzeko. / Sobra dira 22 pezetas hargin ta peonen kontuetan.*

**kontua eman** *du ad.* (genitiboarekin ere bai). *Esan, jakinarazi, kontua aurkeztu. Gerok kontua eman behar dugula ikatz errezibituak zenbat diran eta hoietarako zer eman dugun. / Luis de Lekunari kontua eman nion*

*Eguerri jua denak arterañoako lanena ondorengo egun batean. / Pilliperen semeak 26 kargaren kontua eman badu, ez dakigu haren edo gurea den falta.*

**kontua(k) egin** *du ad.* Horrara etorri ta kontuak lasterrago egiteagatik errealetan paratu ditut lana egiñak. / Kontua egiñ ezkeroko lana. / Kontuak egiñ behar genituke. / Markos hartu dut eta esan dit hark ez duela meatako konturik egiñ. / Nik kontuarekin bealdu ta berorrek ez zition egiñ kontuak. / Olaitxeoak harzeko du 36 pezetas y 1½ cuartos, kontua egin genuenekoa.

**kontuak garbitu** *du ad.* Asentuak garbitu, zorrak argitu, zorrak kitatu. Bigarola handiak lanak akabatzen ditu, eta olagizonak diote ea larunbatean itxean izanen ote den, kontuak garbitzeko. / Damianek esan dit don Luisek estutzen duela kontuak garbitzeko, ta ostiralean eziñ datorkeala. / Deskitatu ta gelditu ziran harzeko 022 pezetas y 13 cuartos. Kontuak garbituak 394 pezetas y 23½ cuartos. / Itzaiak ebilliko badira, lengo kontuak garbitu nahi lukete. / Aldera bedi honekin: Irundarrak, kontu garbitu hoietaz gañe[ra], badute ekarria Erorzatik 130 kintal. / Ikus asentuak garbitu eta garbitu sarrerrak.

**kontualdi** *iz.* Kontuak egiteko tenorean aintzat hartzen den denbora tartea, epea. Kontualdi honetan sartu dira 27 días. / Leneko kontualdian ere eskas zuen 2 pezetas. / Orañ hurrengo espensaren pagatzean emanak izanen ditu 54 pezeta hoiek hurrengo kontualdirako. / Sei kontualdi hoietako irabazia da...939¼ reales vellón.

**kontua(n) asentatu** *du ad.* Kontuak erregistratu, idatziz paratu. Hoiek nere kontuan asentatu nahi balitu, zorioneko senso hartarako. / Hoietaz nik egun konturik asentatu ez dut, yaten eman genioten ta. / Ikus asentatu sarrera.

**kontuan** *adb.*<sup>28</sup> Alde guzietara ere badago zer egiñ, baño denaz ere, itzaiekin merkexego da. Bide egite gaistoak daude; gaitzena egiñ da orañoan. Pezeta kontuan ('pezetaka ordainduz', 'pezeten truke') saiatu giñan itzaiekin, baño ez daude hartako. / Ikatzgille arbazta igarra egurzaleai erakarri diotet zama kontuan ('zamaka'), ta pagatu ditut 012 pezetas.

**kontuan pasatu** *du ad.* Kontuan sartu. Beren kontuetan pasatu ta gañerakoai paga eman diotet...66...25½. / Jose Ignazio de Mitxelenak kontuan pasatu ditu: semearen gastuak...2.842 reales. / Lengoak zor dira, kontuan pasatuaz gañera...936 pezetas y 28 cuartos. / Orañ eskatzen du nahiz mandopak ferratze aldera-ta, edo bestela karraidoretan kontuan pasatzeko. /

<sup>28</sup> Goizuetan, egun, *kontun* ibiltzen da adiera horrekin: *Estéreo-kontùn pagátzen dute píñu-éurra papéleran* (estereo = neurria, m<sup>3</sup>) / *Íntako lána órdu-kóntun kobrátzen dut.* / *Ordú-kontún áitzen naiz lánen.*



- Pello maisuari emanak kontuan pasatuak maisuari...9...31½. / 26 de junioan kargatu zen orga 27 de junioan allegatu zen Lamothingana, eta kontuan pasatu zuten edo ez ez dakigu guk. / Ikus esamiñan pasatu.*
- kontura** (genitiboarekin) -en bizkarretik, -en lepotik. *Anatxurik eskatzen ditu burniak karraidoren kontura. / Ferrazalleari 20 pezeta abonatu zitzaion meakarrien kontura. / Lagunak haren kontura etorri nahi ez, ta Martiñen kontura etorri ziran. / Lengo kintala pagatu zuen erdia dirua, ta beste erdia Agerrekoaren kontura.*
- kontura du** ad. (ezin-ekin). Kontuan sartu. *Len zer egiñ zuten ere, eziñ kontura dira hoiek. / Ikus aditz morfologiaren inguruko kapituluan honelako dioguna.*
- konzilio egiñ du** ad. Adostu, hitzartu, tratua egin. *Eskola maisuak esan dit San Matiasez jaitsiko dutela 1.600 ezkutura, ta igandean akabatu behar dela errematea, elkarren artean konzilio hau egiñ dutela.*
- koñado** iz. Koinatua. *Aldakoko nagusiak esan dit koñado Galardik izandu ere badu pretensorik olaz, honek ez dakiela izandu duela, gezurrak dirala guziak. / Pello maisuak hartu ditu gurdi burnia koñadoarenzat eta bereztzat.*
- korriente** adb. Ohiko, arrunt. *Honara ematen badituzte, guzien prezioa batean egiñen dela, korrientena dabilen prezioa nahiko dutela.*
- korritu** iz. Diru interesa. *Eta honek errespuesta eman omen dio ez duela dirurik, eta besteren diruarekin korritua beharko lukeala, ta ez duela gauza horretan metitu nahi. / Itxearen sensoaren korrituak pagatu ditut diru hoiekin, ta asenta bitza nere kontuan.*
- koska** iz. *Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal, barrengo ol txiki haiek ematekotz, ta bestela lau onza bezala luzeagoak beharko dute.*
- kostario** iz. Kostua. *Iturriozko ferrazalleak pagatu behar ditu ikatzak eta tiratzea zer den, eta kostarioaren gañera burniaren balioa Sebastiani. / Erka bedi eskario izenarekin.*
- kosta(tu)** da ad. *Arrago egur[r]a egin ta erretzea kosta da...31 pezetas y 12½ cuartos. / Dirua eskuan izatea kostatzen da. / Jornal hoiek dira mea modu onekoa kargatzeko, eta erretzeko denbora ona eta egurra ona den denboran kostatzen da gutxiene. / Gaia erostea ta arotzaren eskua 26 ezkutu bezala kostako omen da. / Hainbeste kosta da! / Orañ kostatzen da orga bakoitza 26 pezetas, ta gañera sosak ere bai. / Ta beste edozeñ aldetara gehiago kostako dira berari erakarrita baño.*
- kredita** iz. Kreditua. *Azkeneko arrago honek kredita ona eman digu. / Pello Itxerberrikoak ez du bost pezetako baten kreditarik laguneren artean.*
- kreditara** adb. Kredituan. *Ogi urria da ta hemengo errotatan, berriz, dirua eskuan duenari merkexeari, ta kreditara nahi duenari gehiago pagara-zitzen diote.*

**kuadro** iz. Burdinolan egiten zuten burdinazko peza, adibidez laiak egiteko ibiltzen zena (ikus *laña* sarrera), antza barra itxura –edo barra itxura erematen zitzaiona. *Erretereriako olajaunak eraman zituen hemendik bi kintal quadro, berorri edo niri dirua emanen zigula. / Haspagilleak kintal bat edo lau edo bost arroa quadro eskatzen ditu, ta sei kintal tretxu beharko dira. / Itzairik eziñ billatu, ta bi orga quadro hemen daude orañik, ta Lamothekek ez bealzeko gehiago gaztigatu du. / Olan len egiñak dauden quadroak dira 33 quintales. / Ta gero tretxu ale batzuek dira quadro egiteko.*

**kuartillu** iz. Diru baten izena.<sup>29</sup> *Bi porzio erretazo hartu dituzte yoan den astean, memorialarekin, 19 kuartilluan: 780 bat, ta bestea porzio txiki bat. / Erretazoak len 19 kuartilluan bezala, igandean 20 kuartilluan paratu zituzten, ta batere bajatu ez. / Memoriala egiñta juzkoan egonen direla gutxi dela, ta ofrezitu diot hitzaz 15 kuartillu meza aurrean, ta ez dute eman. / Meza ondoan paratu dute, baño 19 kuartilluan gelditu da, ta hurrengo jaiean aterako dutela esan dute. / Suerte hartu diet 16 kuartilluan; 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan paratuko dutela, nahi duenak hartu.*

**kuarto** iz. Diru baten izena. *Arrago aldean gutxi dago mea zuria, ta Zuloakoaren-ta meatze hartatik mandazaiak ez dute ekarri nahi 17 kuartoan, ta itzaiak ekarriko lukete, dirua balitz, lengoak pagatuta. / Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitzeko, ta erre hoietako botatzeko denboran iragotako egunaz; guzia 20 pezeta dela esan dit. / Fausto Olaizarrekoak esan dit, aurtan aldatu nahi baditu, plantak emanen dituela, mintegian bakoitza 5½ kuarto. / Hamar ezkutukotik sobra dira 8 pezeta ta 4½ kuarto; 6 urretxiki emanta.*

**kunplitu** du ad. 1. Bete. *Lengoan ere olan eskasak genituen bi orgak bertan kunpliturik bealdu genituen. / 2. Konplitu, eginbeharra egin. Ta orañ bertakoakin kunplitu omen dute, ta honara hasiko direla orañ berehala obligazioa pagatzen.*

**kupel** iz. 1. Upela. *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela, edo barrika, edo zerbait idukitzeko. / Emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko, eta bean ahuntztegia, eta kupela iduki nahi badu ere bai, ahunzakin gorotza beretzat egiten duela. / Sagardo txarra egiteko onzirik ez dugu-ta, kupela egiñ behar nuke; gaia eroste ta arotzaren eskua 26 ezkutu bezala kostako omen da. / 2. Haizarkaren peza. *Martin de Arizabalori kupela konponzen, ta erruda**

<sup>29</sup> RAEren arabera errealararen laurdena balio zuen txanpona zen hau. Larramendik eta Añibarrok ere balio hori berori ematen diote (OEH).

- gurutzetan paratzen 2 días...004...00.* / Ikus A. M. Mitxelena (2020b: 43) dakarren marrazkia eta *barrika* sarrera.
- kupel ustai** iz. *Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai.* / Ikus *barrika ustai* eta *ustai* sarrerak.
- kupela yosi du** ad. Ikus *yosi* sarrera.
- labratu du** ad. Landu. *Halere tretxuko kintalajea kontua egiñ nuen Franzisko honena, 24 quintales labratuak baiziran.* / *Maisuarekin sei lagunean (tretxua) labratua...146½ quintales.* / Erka bedi gaztelaniazko honekin: «67½ quintales fierro labrando 43 pezetas y 4 cuartos expensa a 6 compañeros».
- labur gelditu da** ad. 12 quintales *badira Erreterian ta olan, ta tretxu txikian, boiekin burnitxo meharragoa ez egitekotz, labur geldituko da.*
- lagun** iz. Lankidea. *Begitoren semeak ta bere lagunak artotako zerbait behar dutela.* / *Esamiñak Txixipitxik eta Gregorioren lagunak egin dituzte.* / *Juakin honen lagunari eman diozkat hiru pezeta.* / *Paskualen burniak dira 8½ arrobas, Luisen lagunarenak.* / *Ta egondu naiz gazdearekin, ta esan dit harrotua daukatena berak ekarriko dutela lagunik gabe [e]re, kabarra billatzeko.*
- lagun** iz. Laneguna. *Erretzen lenbiziko egunean bi lagun, ta gau-egunetan launa, horra hamar...10 días.* / *Espensa maisuari tokatzen zaio sei lagunean aritu den denborakoa...12 pezetas y 22 cuartos.* / *Gazteen honek Isasolan ari da sei lagunean.* / *Maisuarekin sei lagunean labratua...146½ quintales.* / *Senboll hemen aritu den denborako espensa bost laguneko espensako diruetatik pagatzen da, eta ogiak ere honetan sartu ditut.* / *Senbollek egin du hiru lagunean...12 quintales y 4 arrobas, bost lagunean...202 quintales.*
- lakadi** iz. Lakaria, edukiera neurria.<sup>30</sup> *Bi lakadi baba gañera.* / *Bi lakadi illar Goizariñan ereiteko.* / *Lakadi bat iriñ haspotako.* / *Zorzi urretxikitatik 6 anega ta bi lakadi a 9 cuartos pagatu zaio, ta sobratu ziran ola handikoen babatako 16 pezetas y 19 cuartos.* / IBk ere *lakadi* darabil: «*Hoietaz gañera badituzte hemen hartuak Nafarroako hiru lakadi baba*».
- lan** iz. Artikuzako *pixka* honetarako behartu dute *Xardea, guk lanik ezpadugu, ta berorri gatzitatzeko esan dit.* / *Bigar ola handiak lanak akabatzen ditu.* / *Gero tretxu ale batzuek dira kuadro egiteko.* Egunen batekoa *lana, euririk ezpada.* / *Hillabeteren bateko lana omen da, ta zerbait bealzeko, artorik ez [d]uela.* / *Jose Ignazio de Mitxelena ditu hemengo lanetan irabaziak...182½ reales vellón.* / *Ola handiko lanetarako ez omen zen*

<sup>30</sup> Ongi ezaguna da [ð] eta [r] nahasketa bokal arteko lekunean, eta ez dago horretan sakondu beharrik. Dena dela, aldera bedi JRMren *lakadi* hau Ukargo 1865eko dotrinan (Satrustegi, 2002: 164, 166) ditugun *minzacengada* ‘mintzatzen gara’ eta *jayocengada* ‘jaio-tzen gara’-rekin.

- hau igualatu. / Ola handitik aritzeko ta h[a]sitzera orduko lan boiek egiñ behar direla. / ...ta kamañara juan, lanaz kasorik egin gabe, ta lo etzin da.*
- lan egin, lana egin** *du ad. Behiñ noski «lau urretxiki» esan du, ta ea lan egiñ guzia zaldaletan yaten zuten bada, edo zer pasatzen den. / Franzisko de Irigoienek egin du lana 2 de agosto de 800 ezkerro [...]. / Iñor[k] ez du lanik gogo onean egiten! / Lan egiña esamiñatu zuen Gregoriok. / Olarako egin duen lanak dakar [...]. / Yokasegururen seme itxean duenak baditu lan egiñak...200 quintales.*
- lana egon** *da ad. Lan handia izan. Olatxoko tobera galdua dago ta lana dago orañ berria egitea ere.*
- landare** *iz. Ikus aza landare, planta eta tipula landare sarrerak.*
- lanean ebilli** *da ad. Manuel de Bengoetxea hau orañ ez dabilla lanean.*
- lanean hasi** *da ad. Astelen arratsean lanean hasi zen. / Hurrengo agoan illun-zeko aurrean iraike, ta orduan hasi da lanean. / Orañ hiru urte hasi lanean, ta bi urtetan errenta pagatu, ta aurten beren deretxo batetik pagatu dutela errenta.*
- langille** *iz. Arragoako ardo ta langilletan gastatuen kontua bealdu nuen...101...22½. / Bekoa erdi bana dugula goian puxka bat hartuko nuke, baño guk bestetaz lanak egi[n] nahi ta kanpoko la[n]gillekin sarri beko galzadan litzake gure lur puxka.*
- langrosta** *iz. Karramarroa (ustez).<sup>31</sup> San Fermin aurretik ta ondotik juan ziran 17 orgatan edo portetan, ta langrostatan ere galdu genuen once pezetas. Hamazazpi pagatu ta sei hartu, Donostiara anaieagana bealdu ta galdu omen ziran langrostak.*
- lantegi** *iz. Epaitza erakoa, egurra edo ikatza egiteko esleitzen den baso puska, baina olarako, ez etxerako. Gaztelu aldeko lantegi hau ere falta dugu orañik. / Hiru lantegi sartu beharko ditugu baso honetan: Pello Esnau, Anton Xardea, Uegun edo beste bat. / Kanpoan ez dagoela lantegi onik. / Lantegi baten basoa suertean ematekoa dugu orañik. / Ta lantegi berri honek ere bealdu du 70 quintales. / Ta lantegi seigarren eman gabe hone-taz gañerakoak Isasolakoak baño hobeak dira gureak.*
- lantoki** *iz. (ustez arrunta). Primeramente lantokia Unaileku.<sup>32</sup>*

<sup>31</sup> Testuingurua ikusirik, irudi luke Oiartzungo Olaberritik Donostiara igorri zirela *langrostak*. Honek ez du zentzu handirik, otarrainak (*langrostak* ‘otarrainak’ balira) kostaldekotik lehorrera bidaltzen direlako, bidaltzekotan, ez alderantziz. Logikoena hemen *langrostak* ‘ibaiko karramarroak’ direla pentsatzea da, baina EHHaren arabera *langosta*, adiera horrekin, Nafarroako Basaburu Nagusi alde horretan bildu da, ez Goizuetan edo Oiartzunen. *Langrosta* aldaera Ultzamako Alkotzen jaso zen (ikus EHHako 34, 57 eta 105 mapak), eta Iñaki Caminok dioskunez (a.a.), beharbada erdarazko *cangrejo*-ren (honek duen -gr- multzoaren) eraginari zor zaioke.

<sup>32</sup> Olajaunak erdaraz egindako apuntea da.

- laña** iz. Laia. *Goikoak aitzurraz egin behar du lan guzia, baño bekoa lañaz irauli diteke. / Lañak egiñ behar litukeztela ta herreroak hiru arroa kuadro eskatu diotela, ta 9 lineako kuadrotik hiru arroa berehala behar litukeala, lañak egiteko kuadrarik batere ez duela herr[er]joak esan diola-ta. / Lañak egiteko kuadroa...19 libras.*
- laña burni(a)** iz. Laia burdina. *Honbretxok hartu du laña burnia...17 libras.*
- lapur** iz. *Lapurren zat erdiak izanen dira; ikazkilleak berak lapur ezpalira nonbait hor halere.*
- larrain, larrañ** iz. Basoa soildu eta mea ateratzeko egiten den zirkulu edo plaza txoaren modukoa. *Larrañ hartatik aterea. / Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal belza dute nasia, ta, nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite. / Sarastiren larraña baño ezkerago atera dute denborazko olajaunen larrañ hondarrak, Unsañen larrañaren soñuan.*
- larre** iz. *Olaren pareko goiko larretik otekatan bere mutillarekin...1¼ días. / Anizlarre toponimoan ere badugu.*
- larri** adj. Handia. *Arrago egurra leku muspelean dugu ta egur larria gutxitxo zimeldu da.*
- larru** iz. *Haspoak eginta gelditzen dira osorik bi braka eta bi ijada, eta larru berrian saihetsak hamar puska. / Hernanira eraman ta ekarri haspo larruak. / Larruak Bautista Altamirak eraman omen zituen; bereak eskas-ta eskatu omen zition.*
- larunbat** iz. *Aste honetako ogiak 33 pezetas; larunbatarañoak 100 pezetas y 10 cuartos. / Basoen dirua ostiralean beal beza; larunbatean bederetzigarren eguna izanen da entregatzeko. / Ostiralean Franziako jaia da ta larunbatean jua beharko dute burniak. / Ikus Pazko larunbat sarrera.*
- laster** adb. *Horrara etorri ta kontuak lasterrago egiteagatik errealetan paratu ditut lana egiñak. / Hortik heldu diran burni hoiek laster eraman behar duten gaztiga beza, laster ez eramatekotz ganbarara igo ditzakun. / Lengo kontu piskaren gañera eskatzen dute 30 ezkutu, laster pagatuko dutela. / Ta behar ezpadu, errespuesta yakiñ nahi luketela laster.*
- lasterrenaz** adb. *Goizenez. Erremienta hoiek sura ezkerro malura franko badute. Lasterrenaz ere bigar arratseko erremienta paratuko dugu, ta bi egunengatik Sastrea larunbat artea geldituko dugu.*
- lasto** iz. *Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua, baño orañ batere ez, ta ganbaran ere orañ puxka bat hostoak abitzera egiñ da, baño itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz.*
- lata** iz. *Teilari eusteko azpian jartzen den ohola. Aldakoko nagusiarena ekarri dugu lata, 180 beso. / Arotzen, itzaien ta lata ta ilzea, guziak...217 pezetas y 9 cuartos. / Bere itxetik olara ekarri du gurdi bat lata tellaturako. / 106 beso lata...15 pezetas. / Itzaia, tella ta lata ekarzea...3½ pezetas.*
- lata ilze** iz. *Lata teilatuan josteko iltzea. Lata ilzea kastatu da.*

- lau** zenbtz. *Joseph de Bengoetxeak baditu olatxoan arituak hiru aste ta egun erdi bat, erdi hau lau egunaz; lau ta erdi kontatua du.* / *Labenzat fraile-ari eman zaio biña erreal kuarto.* / *Mealleak ditu hiru aste ta egun bat; leneko arragoan lau aste egun bat gutxiago.*
- laugarren** ord. *Laugarrena Garalorregin...4.000.* / *Laugarrena ez da orañik ofizioan kapaz honetarako.*
- launa** banatz. *Erretzen lenbiziko egunean bi lagun, ta gau-egunetan launa, horra hamar...10 días.* / *Olatxoko hiruk dute launa arte.*
- laxaitu** da/du ad. *Laxatu, askatu (Goizuetan lasátu orain).* *Martiñek dio errudako kabillak txabeten lekuan tornilluak behar lirakeala, laxaitzen denean estu ditekeala.*
- leku** iz. *Alde olak emateko lekuan ere guzia ustela dagoela.* / *Idientzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta.* / *Zertan gelditzen den beste puxka txiki bat ere bada salzekoa.* *Txarra da, baño lau yorradako lekuan da, dotaziotako hartuta.*
- lekuan** (genitiboarekin) ‘-en ordez’. *Goizean hasi ziran, ta Tomasen lekuan Lorenzo Alsua zen hemen.* / *Jose Juakin daritzan igele Sidroren lekuan etorrira aritu denak du aste bat.* / *Pello Esnauk 18 anegaren lekuan 15 anega hartu ditu; etzen gehiago.* / *Sidroren lekuan hemen zela ola handikoak egiñ zuten tretxua...92 quintales y 3½ arrobas.*
- len** adb. *Damianek agindu dit eskasaren kanta dadukala Lamothek pisuaz, ta len libra bat bezala, bi libra ta erdi emateko kintalari.* / *Gaztaña tantaia len izaten zen paraje honetan 190 karga.* / *Len aldiazka bezala orañ guziak batean.* / *Len ere aspertu giñan harekin, gezurra ta iskanbilla besterik ezta hura.* / *Leneko astean 8 pezetas ta lenago hamalau.* / *Ola handikoak espensatako len adiña eskatzen dute: 14 duros.* / *Sagardo hoiek espensan zeñenzat zenbat bealduko dut txartel bat; len ere bealdu nuen ta orduan asentatu ezpazituen.*
- lenagoko** adj. *Lenagoko kontua egiñ zuenean gurdia egin zuen ta kargatu zitzaion, ta hura sartu ote dudan oraño burnietan nago, horko lengo pape-  
ra hori ekusi ta.*
- lenbailen** adb. *Olaren errentaren erdia, hura badere, al badu lenbailen beal dezala, iñondik ere dirua ateratzeko biderik ez daukatela.* / *Sarobeko nagusi honek dio berau etorri gabe bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola lenbailen.*
- lenbizi** adb. *Lehenik. Hoietarako lenbizi jaso ziran 19 kargen karretoa pagatu nuen burniaz 19 pezeta.*
- lenbizian** adb. *Hasieran. Kosme de Lekuna mutill horrenzat lenbizian bealduak badira zeñbait karga, ta bien artean dute.*
- lenbiziko** adj. *Baltasarrek esan dit hoiek deklarazioa egiñ dutela lenbizikoan 1.500 cargas, kandelan ere hala baitago.* / *Hamasei ezkuu lenbizikoak utzi, eta geroztik zer emana duen kontua egiñen du.* / *Lenbiziko aste*

- erdian berorrek lineak gaztigatu artea egiñ genuen kuadroa 9 lineatik 12 lineatarañoko. / Lenbiziko danda edo plazoa sanantonetako zutela. / Lenbiziko ikatzen pagan geldituak...13 pezetas y 25½ cuartos.*
- leneko** adj. Lehengoa.<sup>33</sup> *Andresek esan dit leneko urteko errentan hari osoaz kargu egiñen diotela. / Ferrak ta leneko harzekoa deskita burnian...2 quintales. / Leneko astean 8 pezetas ta lenago hamalau. / Leneko azkeneko bealdu nuen kontu hartan. / Leneko kontualdian ere eskas zuen 2 pezetas. / Leneko paperean harzeko gelditu ninzan...12 pezetas y 20 cuartos. / Leneko paperekoa gelditu zitzaidan...8½ pezetas y 22½ cuartos. / Mealleak ditu hiru aste ta egun bat; leneko arragoan lau aste egun bat gutxiago. / Ola handiko espensarenzat leneko hillean berorrek pagatu zituen [...].*
- lengo** adj. *Espensa honetarako berorrek emana zuten lengotik gelditua baba lau pezetarena. / Ferrak ta lengo harzekoaren deskita egin burnian...2 quintales. / Hiru hoiek diote igande datorrenean zorzitik aurrera ez direla lengo jornaletan ariko. / Juakin honi lagunak ez dio utzi nahi basoa botatzen, lengoa egiñ behar dutela, ta aurrerako partitzen dira. / Lengo astean erre den arragoako jornalak. / Lengo kontua hartu zuenaz gañera, etorri da lengotik lau gurdi, ta beste pezetako hoietatik ekarri dute 250 quintales. / Lengo 39½en gañera, aste honetan 12 azumbres. / Lengoan ere olan eskasak genituen bi orgak bertan kunpliturik bealdu genituen. / Lengoekin erdiak pagatu dituzte.*
- lenxeagodanik** adb. *Lehenxeagoño. Maisuak esan dit Billabona behar duela olara, ta beharzen denean lenxeagodanik<sup>34</sup> gaztigitzeko.*
- lepalotu** iz. *Lepotik lotzen den zaku baten izena. Gazteluko errekaiko ik[a]tza 7 karga ta lepalotua etorri da. / 22 karga ta zaku bat lepalotua importantan...56 pezetas. / Ignazio Aranburukoak Bullegitik bealdu ditu hamaika karga ta lepalotu erdi bat gaztaña ikatza, ta gerok jaso dugu. / Orañ ikatzak egin ditu 22 karga ta zaku bat lepalotua; guk jaso ditugu.*
- lepo** iz. *Iturriozko perrazallearen semeak esan dit ingude berri lepotik hautsia dagoen hau hartuko lukeala.*
- lera** iz. *Lengo astean erre den arrago[a]ko jornalak, itzaiak. Luis de Lekunari eman diot hamabi leraren kontua, ta gañerakoak dira [...] / Lera kargatzen pasatu ditu, egun erdia kontatzen zaiola, sei egun...3 días a 5 reales. / Nik lau lera gelditu, bost pezetaren alderako; esan diotet berai.*
- lera bide** iz. *Idienzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta.*

<sup>33</sup> Pentsatzekoa da *barreneko* / *barrengo* edo *urruneko* / *urrungo*-ren moduko bikotea osatzen dutela *leneko*-k eta *lengo*-k (ikus hurrengo sarrera).

<sup>34</sup> Originalean *Lenxeago deniq* dago.

- lera egur** iz. Lerakada egur, leratara egur. *Arrago egur honetara inor eziñ erakarriz, beti gabilza egueldi onak utzita. Gero txarrean erre ta portxan etorruta; denbora txarra lera egur onik etorzen [ez] da.*
- lesakar** adj./iz. *Lesakar maisuari bi astejo jorjala. / Olatxoan lesakar bat ari da maisu, Matiasen semeak bealdua.*
- libra** iz. Pisu neurria. *Eguerdiko libra bat haragi hiruai ematen hasi naiz; sei sardiña, 12 kuarto, ta olio gañera behar zituzten, ta orañ 9 kuarto, libra bat haragi. / Gerok jaso ta hartu du burnia 2½ arrobas lau libra gutxiago. / Len 42 libra ta aste honetan [...] / Len libra bat bezala, bi libra ta erdi emateko kintalari, ta oraño libra ta erdi añadimentu hau Indianoak abonatu duela kontuetan. / Setienbrean eta oktubrean olio 30 kuartoan omen zen libra, ta nik 28 kuarto kontatu dut bi hillabetetan. / Solo Franziko burniai bezala, libra gehiagorik ez diotet eman kintalean.*
- libranza** iz. Ordainketa, ordaintze agindua. *Anatxurik eskatzen du lau kintal burniaren libranza. / Ikatzgille horiek etorri zaizkit txartel horrekin, alkate zarrak egiñ diotela eta firmatu ere gabea, ta libranzarik ere ez, ta orañ firmatu du Portuk, baño libranza falta du. / Papera libranzako ori bealzen balu, edo nik ez dakit zer egin.*
- libranza egin** du ad. Ordainketa egin. *Sarastiri nik esan diot libranza egiñ dezatela, edo zer fundamentutan dirua eman behar den, ta hark zer egiñen duen bada esan dit, alkateak egiñ behar duela, ta firma hutsa egiñta bealdu du berriz hark.*
- libratu** 1. *da/du* ad. Libre gelditu, libre utzi. *Lurrak iraulzeko denbora da ta libratu al baditxagu behinza. / Martin Aranzatetik sanjuanetan libratu omen da. / Sebastian Altxu ta bere laguna konpondu dira laguna libratu artea Altxu bakarrik aritzeko. / Ta hemen libratzeko modua harzen dute askok: egitekoak dituztela bazterretan, ta aziendakin, ta inor ez dutela haiek maneatzeko, ta horrela. Ta eskribitu bizio be[ro]rrek Sarastiri ea libratzeko modurik izan ote daitekean gureztat. / 2. *du* ad. Ekarrri, eraman, entregatu. *Hemen diodan eskario hau karraidoreak libratzen dute berorrek eman [n]ahi duelarik. / Errueda konponzeko ta tormentategia eskatu ditut materialak, ta libratu dituzte. / 3. *du* ad. Ordaindu, dirua eman. *Aranzazuko fraile horri libratu diote lau ofizialeak pezeta bana, eta mealleak erdia, 4½ pezetak. / Gobiernokoak ez omen zioten deus libratu.***
- libre** adb./adj. *Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela edo barrika, edo zerbait idukitzeko, erdiko arkuko garaiko alde-tik goikoa, ikaztegiko ateak libre direla. / Borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen tiotala goian leku libre traste zakar abar-rak idukitzeko. / Josepe igelea libre da ta ura egiten badu ere, uhagari batekin egun horietakoa egiñen da. / Lantegirik libreña hau da-ta, nahi duena egiñen du. / Makatzen urzalle hura poliki ari da; libre baliz,*



*Juansendoren lekuan! / Probenziako pezeta ere itzaien jornalean sarzen zela uste omen zuen Lamotheke; hura libre pezeta hartatik. / Uegunek esan dit berorri gaztigatzeko enborretako hau, botea libre, ~~harta~~ nahi badio eman, hartuko duela 5½ realean.*

**limurtu** da ad. Lerratu. Zuloakoak berak honara eman nahiagatik ere, beste bi lagun badira partidukoak, eta haiek Isasolara lenago limurtuko dira, dirua frontoxeago izateagatik.

**linea** iz. Burdinazko pezaren lodiera neurtzeko erabiltzen zen neurria. *Eta hemen olan ere badira tretxu txiki abarrekin egiñak txabal bitarte batzuek, 20 lineatik goiti tretxua den bezala egiñak; orga pareren bat bada. / Hemen ere zazpi lineako eta zorzikoa egiten da gehiena. / Herreroak hiru arroa kuadro eskatu diotela, ta 9 lineako kuadrotik hiru arroa berehala behar litukeala. / Kabilla hemen den hau 3 arroba eskas da, 6 ta 7 linea lodi. / Lenbiziko aste erdian berorrek lineak gaztigatu artea egiñ genuen kuadroa 9 lineatik 12 lineatarañokoa. / Olan badago 10 lineatik 12 lineatarañokoa. / A. M. Mitxelenak dioskunez (a.a.), oinaren hamabirena ontza zen (2,19 cm nafarra, 2,3 cm gipuzkoarra) eta ontzaren hamabirena linea.*

**lo etzin** da ad. Lotara joan. *Endara etorri da eguerdi ondoan, ta igeleak tretxuak buztanzen ari ziran; orañik bigarren tretxua zuten, ta kamañara juañ, lanaz kazorik egin gabe, ta lo etzin da, ta hurrengo agoan illunzeko aurrean iraike, ta orduan hasi da lanean.*

**lodi** adj. 20 de marzo plantxuela lodia...1 / *Kabilla hemen den hau 3 arroba eskas da, 6 ta 7 linea lodi. // iz. Lodiera. Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska bori bezala, ta luzea haria luze den adiña. / Ikus ezkutu lodi sarrera.*

**lor** iz. Arrastakako garraioa. *Ariztxulegi aldeko lorrean ta Eraringoan gastatu dira bost pitxer ardo. / Bigar lorrera beharrak dira Kosme ta Agerrekoa. / Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nahiko dituzte horiek. / Lorrean egun bat...3 pezetak. / Lorrean Otsandolatik...2 días. / Lorreko itzaiak pagatzeko...0320 reales. / Lorrerako idiak ferratuko badira ere dirua beharko dute; itzaiak hala diote.*

**lorra egin du** ad. *Bigar lorrera beharrak dira Kosme ta Agerrekoa, ta atzo ere hala ziran, ta arotzak ariko badira lorra lenago egin behar dugu.*

**lorrean ebilli** da ad. *Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nahiko dituzte horiek.*

**lorrean izan** da ad. *Erariñan Zuloakoa ta Agerrekoa han ziran lorrean.*

**lorreko hagari** iz. Lorrean hagaz arduratzen dena. *Lorreko hagari eta bide egiten...2 días. / Aldera bedi uhagari-rekin.*

**lotu du** ad. *Item egurra lotu behar den denboran mandoenzat. / Kabiguña boban eskatuta lotu egiñ dute. / Ikus lepalotu sarrera.*

- luma** iz. *Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten mandazaiak; luma bat pisatzen ez egurrak, ta halere.*
- lur** iz. *Beko galzadan litzake gure lur puxka. / Gure dirua itzuli dute lurrak kenzeko eta hartu nahi gabez. / Guzia txea eta lur kolorea zuen meak. / Juakintxok idukitu duen zensoan hipotekan sartuak ziran lurrak, eta orañ Iruñera jokatzeko asmoa dut, itxea ta lurrak esamiñazi, eta dirua emanak zer diran ekusi. Itxearen ta lurran esamiñan pasatuko direla diote dirua emanak.*
- lurra irauli** du ad. *Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan, ta lurrak iraulze bitarte honetan ebilliko dira. / Lurrak iraulzeko denbora da ta libratu al baditzagu behinzat. / Lurrak iraulzeko hamar ezkutuko bat bealzeko.*
- luzapide** iz. *Luzamendua, luzapena. Paretaren arretarik ez du orañik iñork harzen; egonen direla-edo, luzapidea beti.*
- luzaro** adb. *Arotzak baño fundamentu hobean egiten ezpadugu, ez da luzaro egonen.*
- luzatu** da/du ad. *Eta agindu nioten haiek ebilli gabe nik pagua ekarriko nuela, ta hagitz luzatu gabe pagatu nahi lirake.*
- luze** adj. *Bestela lau onza bezala luzeagoak beharko dute. / Erruedaren potok txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal. / Lagun batzuen txartela, batek edo bik hartu beren buruan ta guziak horrara eziñ ebilliko direla, zergatik batzuek gutxi dute, ta gutxigatik ebillzeko biae luzea-ta. / Txikienak gelditzeko zerrenda puska hoietatik, joskurak ateratzeko Elamarako luzenak behar dirala. // iz. Luzera. Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor bealdu dut, zabal ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña.*
- maio** iz. *Maiatza. Gañerakoak pagatuak ditu dirutan 88 pezetas y 20 cuartos maiokoa. / Maioan burniak eramateko bealdu zuen dirutik hartu ditu...10 pezetas.*
- maisu** iz. 1. (Burdinolako) lanbide gidaria. *Antonio maisuaren espensa partea da 10 pezetas y 2½ cuartos. / Ezkutu bana tokatzen zaiote, sei lagunekoa da, horko maisua hemen izandu denekoa. / Maisuarekin meallearena...31 pezetas y 31½ cuartos. / Maisuarekin sei lagunean labratua...146½ quintales. / Maisuaren espensari sartu zaio baba, gutxi gorabera eginta. / Migel igelearen partez, aste honetan maisu aritu baita...6 pezetas y 8 cuartos. / Olatxoan lesakar bat ari da maisu, Matiasen semeak bealdua. / Pello maisuak hartu ditu gurdi burnia koñadoarenzat eta beretzat. / 2. Eskola maisua. Pagoetan kontrariorik badere, eskola maisuari esanta hark hartu ditu; Andresek esan zion maisuari harzeko. Maisuak nahi badu bestek nekez eramaten du kandelarik. / Ikus eskola maisu sarrera.*
- maisukabi** iz. *Ardatzean sartuta zeuden egurrezko eta burdinazko pezak, hurrenez hurren gabi iguna eta hauspoak beheiti bultzatzen zituztenak. Larramendik (1882: 68) maisucariac dakar: «...maisucariac, los que andan*

- y se mueven magistralmente, maisuca, ari diranac*». Ikus bitez A. M. Mitxelenaren (2020b: 40, 42, 46) azalpenak eta marrazkiak; autore honek *masukaria* dakar euskaraz, eta *mazuquero* edo *malogrero* erdaraz (*ibid.*, 41, 45). Gutunetako lekukotasunak: *Aranzateko maisukabien inportea zen...550 reales. / Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten, baño maisukabia ardatzak azpian hartuta goiz artea utzi egin zuten. / De Ariztxulegi...3 cargas maisukabias. / Hoietaz gañera ere, maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten, egunaz konponduko zutela. / Ta bitartea maisukabi bat sartuko ez du beñere. / 1 de junio. 16 maisukabias grandes y 16 chiquitas...4½ pezetas.*
- maisuko, maxuko** iz. Maisutza, maisugoa (burdinolan). *Berotzalle berrixkoa izan laiteke; noski, orañik gaztea da, baño maisukoan ere ongi samar ari dela diote. / Geroztik maisukoak...5 semanas y 3½ días. / Josepe igeleak badu egun bat bergamazoan ta maxukoa. / Erka bedi peonko-rekin eta ikus bedi 1802.11.25eko gutuneko oin ohar batean dioguna. A. M. Mitxelenak (a.a.), zalantzaz, hitza apika maisukari (gure maisukabi), mazuquero, malogrero-rekin lotua egon litekeela diosku.*
- maiz** adb. *Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak, maiz puxkaka emanagatik ezagun gabe juanen al ziran. / Hirugarren egunean maiz izaten da errekaña bat eman beharra. / Mandatuak maiz badi-tugu pagatzeko.*
- maiz aski** adb. Franko ardura. *Errotari urgona ere maiz aski ondotik dugu. / Ola handikoaren asentua badu hor, ta maiz aski hemen da jendea, deus ageri den. / Ikus aski sarrera.*
- makill** iz. Makila. *Sagar horiek hamaika makill.*
- makiña bat** zenbtz. *Agerreko Patxikuk gaitzarekin-ta makiña bat zor egin dutela, ta hogeiz ezkututu bat ea partituko ote lukean.*
- mako** iz. 1. Erruedak zituen lau zati kakotuetako bakoitza, potoen oinarri zirenak (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 45-47, 244, 270). *Egun bat erruedari makoak sarzen. / Erruda honek berriz makoak bota ditu, ispia guziak zuzitu ta galdu zazkio, ta urak kenduta hemen ari gera. / Errueda haspategiko hau konpondu nahi litzake eta aldeak edo mako hoiek ilzerik eziñ errezubitu dute, erdi lekutan urak yan ta galduak daude. / Hoietaz gañera ere, maisukabia ardatzak azpian hartu ta gau bat goiz artea geldirik egin zuten, egunaz konponduko zutela, ta errueda eskatu edo makoak bota ta beste egun bat galdu zuten konponzen. / 2. Bihurgunea. Ta Alzateko makoan zorzi zulorekin, hau hartu nahi badu, Aketzari eman beharko.*
- makur** adj. Okerra, txarra. *Sidro hau olara ekarzea gauza makurra da. / Zorretan gaude herriarekin ta Anatxuri dugu harzeko; endredo makurra ez digu paratu!*

- makurka** adb. Makurtuta. *Pello ez da orañik hasitzeko prest, igandea artea. Behinzat Gorrak ere atzo aste honetan makurka ez aritzeko esan omen dio.*
- malda** iz. Olatxeko aurreko zubian pasatutako maldatik uztarriak ekarzea; *hau nahi duena kontatuko du.*
- malur** iz. Nekea, lan gaitza. *Erremienta hoiek sura ezkeru malura franko badute.*<sup>35</sup>
- mandatari** iz. *Gaur ere etorri da mandataria, ta esan diot azken agoa aterata tira dezala nahi badu. / Igandeko etorzekoa zela honara esan zuen mandatari ebilli den ikazkilleak.*
- mandatu** iz. *Feliz igeleak esan dit haren mandatuaz oroitzeko. / Mandatuak maiz baditugu pagatzeko.*
- mandatua egin du** ad. *Behiaren mandatua egitea nahi badu egiñen diot; gaztiga beza. / Franzisko Antoniok-eta pretenditzen dute olaetxean bizitzea, eta niri neskatxak eta biak esan didate berorri mandatu hau egiteko. / Manuelek berak ere badaki pretensio honen berri, baño mandaturik ez du noski egiñen.*
- mandatua esan du** ad. *Ezkurra horko mandazaiaren anaieari Jose Ignazio Garatekoak berorren mandatua esan dio.*
- mandatua gaztigatu du** ad. *Goizean Sebastianekin gaztigatu dut Zuloagakoaren mandatua.*
- mandatua hartu du** ad. 1. Mezua hartu. *Xantus ikatzgilleak esan dit berorrek gaztigatu diola Simon Aiudaz horrara agerzeko, ta atzo mandatua hartu omen du. / 2. Agintza, promesa hartu. Ta irundarrai gaztigatu diotet; orañ artoak ereiten ariko dira, baño mea ekar dezatela ta pagua emanen diotedala. Pisatu eta berehala hasiko dira, bai, diruaren mandatua hartu ezkeru.*
- mandazai** iz. *Arrago aldean gutxi dago mea zuria, ta Zuloakoaren-ta meatze hartatik mandazaiak ez dute ekarri nahi 17 kuartoan, ta itzaiak ekarriko lukete, dirua balitz, lengoak pagatuta. / Itzairik ez burnitako ta ez arrago egurketako eziñ erakarri dut, ta mandazaiak ere orobat, iratzea dela, artoa dela, guziak badabilza. / Mandazaiei nori zenbat kargatu hor konpondu beharko dute. / Ostaleroak edo tabernariak gaztigatu dit igandeko behar dituela ardoen diruak, mandazaiari kontua emanen badio pre-*

---

<sup>35</sup> Etxalartik Sarara 1861ean igorritako gutun batean ere (Apezetxea, 2006: 442) edireten dugu *malura* hitza: «*Yaun alcatea: Izan dut noticia nola azqueneco igandean tiroca aritu cirala Ezponda gainean Saraco guizon batzuec uso passaceco denboran, eta lenbico igandean ari gogo dutela. Ezabatuco duzu yaun Alcatea ori dala emengo usateguiateco malura bat aimiz aundia*». Nolanahi ere, egileak ‘zoritxarra’ adiera ematen dio eleari, ez Goizuetan bide zuen ‘lan gaitza’.

*ziso behar dituela. / IBk mandazai eta ardamandazai ‘ardo garraioan dabilen mandazaia’ darabiltza.*

**mando** iz. *Dio berorren mandoai eman tiola ferrak...456. / Iten egurra lotu behar den denboran mandoenzat. / Ta idienzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta. / Ta orañ eskatzen du nabiz mandoak ferratze aldera-ta, edo bestela, karraidoretan kontuan pasatzeko.*

**maneatu** du ad. 1. Janaria prestatu. *Arratsaldeko haragi puska bat maneatzeko agindu dutela sagardotegian. / 2. Lurra prestatu, landu. Olatxean den artorik txarrena beko begira egondu giñan honetan dago, baño maneatzeko beti bekoa errazago da; goikoak aitzurraz egin behar du lan guzia, baño bekoa lañaz irauli diteke. / 3. Kudeatu, kasu egin. Hemen libratzeko modua harzen dute askok: egitekoak dituztela bazterretan, ta aziendakin, ta iñor ez dutela haiek maneatzeko, ta horrela. / 4. Konpondu. Arotzak badituzte jornalak olan tormentategia konponzen...4 días; zepoak maneatuta sarzen...10 días. / Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia maneatuta, ingudeari tornua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosalduta yoan ziran itxera. / Borra bat zulatua ta maneatua...0 arroba 17 libras. / Ezkondu-ta aitagandik partitu egin da, eta ingudea falta omen du, eta maneatuta berehala hautsi den olatxoko ingudea hau nahi du, eman nahi badio. / Hiru kabiak eta ingudeak agoan du puxka bat maneatzeko lana.*

**martxo** iz. *Berorrek martxoan pagatu omen zuen suertearen plazoa edo erdia, eta olarenik ez. / Eskriturak guzien erdia martxoan esaten omen du, olarena eta basoena, guzien erdiak. / Indianoak esan dit errematean paratu zela, plazoa San Estebanez zuela, baño eskriturak martxoan ta setienbrean esanen duela. Eta ekusi dute, eta martxoan eta setienbrean esaten du.*

**marzo** iz. *Martxoa. Burni hoiek dire marzoan eramanak Donostiara.*

**material** iz. *Errueda konponzeko ta tormentategia eskatu ditut materialak, ta libratu dituzte, ta esan diotet tellatu hoiek ez erorzekotz konpondu behar dutela. / Ikus borra gai, gai, golde gai, gurutze gai, ikatz gai eta itze gai sarrerak.*

**maxter** iz. 1. Maizterra, etxetierra. *Alkatek, Portuk, esan dit Penaregiko maxterrak omen duela orañik ikatz gai puskaren bat despojo hoietakoa, ta gobiernoko berriai esan diotela nola den ikatz gaia. / 2. Orgaren gurpleko taula edo ohol nagusia. *Palazioko gazteak maxterra hautsia daukala.**

**maxura** iz. *Matxura.<sup>36</sup> Haizarka honetan beti maxura da; burnirik ezin berotu da, aldetatik puska dariola. / Hoietaz gañera, maxuran pasatu dute...*

---

<sup>36</sup> Olajaunak, gaztelaniaz, *las machuras* darabil pare bat aldiz behintzat. Goizuetan *maxura* aditu diegu beti herriko zaharrei.

*boba eskatu egin zen, ta bobatzen agoaren bat edo gexeago bezala galdu zen. / Jose de Bengoetxeak berak yana duela arotzakin olako maxura konponzen 2 días. / Mirandari organ maxura puxkaren bat egiñta gaur ez da kargatzera etorri. / Ta beste batean olako guziak beste hiru edo lau ordu olaren hasieran, maxuran.*

**mea** iz. *Erorzako meatik orañ bealdu duten gizonak dira berriak. / Errenteriatik mea ta burnia du guzia 100½ quintales. / Franzisko de Reuk ekarri ditu meak Olaberrira. / Gazteluko errekan bilduak ditu meak...26 quintales. / Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak eba-kitzeko zerbait bealzeko. / Meak etorri dira 242 quintales. / Xilitarrak ateratzen orañ ari diran meak lengoak baño belzago ematen du.*

**mea beltz** (behin), **mea belz** (arruntean) iz. *Gañerakoak ongi berezirazi nor-baiti ta ekarri ditu, baño mea beltz txarrak dira. / Hoiek eta aurrerako zerbait eman beharko zaiote mearik izatekotan, ta preziso behar dugu, olarik aritzekotan, mea belza. / Irungo mea belzatik 15 quintales y 1 robada. / Luis Zuloakoak esan dit 38 kuartoan entregatuko dutela mea belza, nahi badu. / Mea belza Isasolara bazakarten Lasanño buru hone-tatik.*

**mea garbitzalle**, **mea garbizalle** iz. *Burdinolako lanbidea. Fausto mea garbi-zalleai mea zareak harzeko...01...17. / Mea garbitzalleai por ces-tos...1...17. / Mea garbizalleai mea zareak 1 pezeta y 17 cuartos.*

**mea harrotu** du ad. *Mea atera. Errenterian izandu naiz ta mea puska bat oiar-zuar Xiliren hoiek daukate harrotua. / ...ta esan dit harrotua daukatena berak ekarriko dutela lagunik gabe [e]re, kabarra billatzeko.*

**mea nasi** iz. *Beltzetik eta zuritik duena. Tomas zar hau azkeneko txartelare-kin izandu zen, hor 28 kintal baitzen, ta haiek dira mea nasiak.*

**mea zare** iz. *Mea saskia. Bi mea zare olarako. / Errenterian mea garbitzen ari diran oiarzuarrak eman ditioztet bi pezeta, mea zare bi ta bihorzeko bat pagatzeko. / Faustori mea zarenzat...2...00. / Mea garbizalleai mea zare-ak 1 pezeta y 17 cuartos. / Mea zareak harzeko...01...17. / Sei mea zare olarako. / Zazpi mea zare olarako. / Zorzi mea zare olarako.*

**mea zuri** iz. *Arrago aldean gutxi dago mea zuria, ta Zuloakoaren-ta meatze hartatik mandazaiak ez dute ekarri nahi 17 kuartoan. / Mea zuria ere egiten dute eta Isasolara daramate, ta sarri belzak eta guziak eramanen dituzte.*

**meaka** iz. *Mea kalitate txarrekoa, hondakina. Antonio maisuak ta anaie Josek pisatu dituzte 27 quintales y 5 arroas; hasiak ta meakak 20 quintales; hoietarako hartuak dituzte 5 duros. / Irundarrak orañ gogotik dabilza meakatan.*

**meakari** iz. 1. Meatzaria, 2. Burdinolan mea kudeatzen duen langile kualifika-tua, 3. Mea garraiatzailea (gaztelaniaz *menaquero*; 1799.09.17ko gutune-

an «menajero»<sup>37</sup>. *Aurrerako orobat beharko da itzaienzat behinzat, ta meakariak ere lengoa ta gañera ehun kintalena eskatu dute. / Ferrazalleari 20 pezeta abonatu zitzaion meakarien kontura. / Gazteluko meakariak geldirazi dituzte meatzetan. / Irungo itzai ta meakariak estu dabilza bada hemen [...]. Hoiek despeitu ditut ez gehiago ekarzeko beko meatzetatik, ta goiko meakariak egun hemen ziran. / Irungo itzaiak ta meakariak zor dira a 1 pezetako. / Irungo meakariak atererik etzaukaten, ta puxka bat badere bealduko dutela aste honetan, ta aurrera aterako dutela. / Meakarien idiak besterik ez dabilla.*

**mealle** iz. Burdinolako lanbidea, maila behereneko, olagizonen morroia, arragoan erretako mea mailuarekin txikitzen zuena, hau da, mea xehatzen, xehakutzen zuena (gaztelaniaz *prestador*), gero urtzaileak lan egin ahal izateko.<sup>38</sup> Larramendik (1882: 69) honela dio: «*El uno (ferrón) preparando la vena ya quemada en la arragua y desmenuzándola con un martillo pequeño, y se llama meallea ó mealle, preparador de la vena*». / Aste batean aritu dire Isasolako Josepe igelea ta Garatekoa ta meallea. / Bautista mealleak arto puxka baten txartela behar duela, batere ez duela. / Mealle Arranbi[de]koak etorzeko asmoa omen du. / Mealleari aste-ko ezkuturako eskas ateratzen zaio. / Mealleari kargatu zitzaion Urriztilla juateko nik emana...05...10½.

**meatze** iz. Meategia. *Gazteluko meakariak geldirazi dituzte meatzetan. / Goiko meatzean kontua egin zenean, en 17 de setiembre de 99, itzaiak zor gelditu ziran 037 pezetas y 8 cuartos. / Hoiek despeitu ditut ez gehiago ekarzeko beko meatzetatik, ta goiko meakariak egun hemen ziran. / Lau yorrada edo bost egiñ daitezke Gazteluko meatzetara goazela. / Meatze hartatik mandazaiak ez dute ekarri nahi 17 kuartoan.*

**medio** (instrumentalean, erlatibodun adizkiarekin) menderag. *Juan Migelek Errenteriakoan franko badela, baño esamiña ona daukan medioz pretenditzen duela.*

<sup>37</sup> Erka bedi Luzaideko 1546ko honekin: «*Iten Martieco de Vera menaquero de presente habitante en la Valcarles en la ferreria de Ansa*» (Antsolan alegia; NEAN, 791, Arrastia saila, 1 paxua, 8 zk., 32 aurkia) edo herri bereko 1804ko beste honekin: «*Gracian Erramuzpe soltero, natural de Vanca en Baigorri, de oficio menaquero empleado en la Erreria de fierro del valle de Valcarlos*» (NEAN, 11377, 105). Dokumentazioan «*maestro menaquero*» ere aurkitu dugu, hain segur gure testuko *maisua* bera.

<sup>38</sup> Eskerrak errendatu nahi dizkiogu A. M. Mitxelena goizuetarrari, emandako argitasu-nengatik. Begira P. Perurenak (2010: 332) biltzen duen pasartea: «*que le a servido por espacio de algunas semanas de prestador o meallea que llaman en la erreria del dicho varrio de Articuza*» (letra lodia gurea da).

- mehar** adj. 12 quintales *badira Erreterian ta olan, ta tretxu txikian, boiekin burnitxo meharragoa ez egitekotz, labur geldituko da.* / Donibane Lohizuneko J. Darretxe Lamothe *plantxuela miar darabil.*
- mehatu** da ad. Mehetu. *Len hemen zen agoa palanka hautsi ta eskarpatuaz guzia mehatua da gerrian, ta amor ematen du agoa ateratzeko denboran, baño entregarako ona da.*
- memorial** iz. Baso edo mendi puska bat erosi (alokatu) eta ustiatzeko edo zuhaitzen bat botatzeko udaletxean aurkeztu behar den txostena. *Baltasarrek dio eska dezala erre hoietan, badirela igartuko diranak gehiago ere, ta hoiiek ta despojourik izaten bada suerte hoietan, memorialean eskatzeko debalde.* / *Bi porzio erretazo hartu dituzte yonan den astean, memorialarekin.* / *Eta beste hau Juan Migelek pretenditzen duela zioten orañ ere, ta memoriala egiñta juzkoan egonen direla gutxi dela.* / *Hogei egun d[ira] arrago egurraren memoriala eman niotela.* / *Kabiguñak ere eskatu gabe botatzen genituen orañdañokoan, ta memorialarekin eskatzeko esan didate arbola bota behar den guzia[n].* / *Ta esan zuten nahi zuenak memorialarekin presentatzeko, ta gero ere kandelara beharko zutela memorialaren gañean.*
- mendi** iz. *Arotzak pasatu dituzte mendian a 10 reales...3 días.* / *Eta etzi dihoaz mendira arotzak, beror[r]lek nobedaderik paratzen ezpadu, asteazkenean.* / *Olatxoko lana[k] akabatu dituzte arotzak, ta mendikoak dira 19 días a 10 reales.* / *Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua.*
- merezi izan** zaio ad. *Errespuesta igande bitartea nahi luketela, hoiien trabajuari merezi zaiola jornal hau.*
- merkatari** iz. *Aranederreko gizona hemen izandu zait, merkataria billatuko ote duen [berorrek], nik nola burnia agindu nion, eta neurk billatuko dudala esan diot merkataria.*
- merkatu** du ad. *Merkatu ezkerro libra bat gutxi...4 arroas.* / *Orañ ez dakigu emanen diguten ogia gehiago. Orañ merkatzeko hotsak dira, ta emanen al dute!*
- merke** adj. *Matantak lau kuartoz garestiago em[a]ten zigun olio, ta neurrian gutxiago, ta ora[ñ] merkena den lekutik ekarzen dugu bi olata[ra].*
- merkexego** adb./adj. *Pixka bat merkeago. Donostian ogia zorzi kuartoan dagoela esan du Manuelek, eta prezio diferentetan ebilzen omen da, anitz dagoenean merkexego eta gutxi denean garestiago.* / *Mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta. Alde guzietara ere badago zer egiñ, baño denaz ere, itzaiekin merkexego da.* / *Ogi urria da ta hemengo errotatan, berriz, dirua eskuan duenari merkexego, ta kreditarra nahi duenari gehiago pagarazitzen diote.*
- mesede egin** dio ad. *Sarobeko nagusi honek dio berau etorri gabe bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola lenbailen.*



- mesedetan egon** *da* ad. (genitiboarekin). *Martin berozalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen, Errenteriara eta Ereñazura juan gabe gelditu dela berorren zalanzan, ta berorrekin bere mesedetan ez dagoela.*
- metal** iz. *Orañ euriak garbituta agertu zaio metal belz zakar hau. / Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal belza dute nasia, ta nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite. / Metalmeatzea toponimoa ere azaltzen da gutunotan; ikus onomastika atala. Orobat ikus itsas metal sarrera.*
- metitu** *da* ad. (Sudurra) sartu, tartean sartu. *Damianek len satisfazio osoa niri eman nola pretenditzen duten, eta gero hutsa atera zaiotenean ederzeko konpondu du: gure proposizioa bazen, etzuela metitu nahi. / Eta errespuesta eman duela ez dela metituko, eta ez dela konsejuperako ere olaren kandela dagoño. / Honek errespuesta eman omen dio ez duela dirurik, eta besteren diruarekin korritua beharko lukeala, ta ez duela gauza horretan metitu nahi.*
- meza** iz. *Meza ondoan paratu dute, baño 19 kuartilluan gelditu da, ta hurrengo jaiean aterako dutela esan dute. / Ta ofrezitu diot hitzaz 15 kuartillu meza aurrean, ta ez dute eman.*
- meza enzun** *du* ad. *Endarak gaztigatu du meza enzun beharra dela, ta bigar enzun ta etorriko dela. Nekez akabatzen ditu mezak ta pregoiak hark!*
- meza esan** *du* ad. *Andresi eman diot karta goizean, ta esan dit meza esan ta Konsejura bilzen diranean guziakin egonen dela.*
- meza huts egin** *du* ad. *Egun gaztigatu dut, anaiearen karta ekusita, dirua fa[l]ta dela, baño goizean ekarri ditugu diruak, ta kontatu gabe, mutillak meza huts egin dezan beldurrak, bealdu dut.*
- milla** zenbtz. *Baltasarrek esan dit Otsandolakoa bost milla, ta Garalorregikoa lau milla ta erdi egiñ zutela, ta Madarimotxekoak hiru milla ta berrehun, edo ez dakiela hirutan ehun duela. / Bolbora balute Eguerritako milla kintal egiñen luketela diote. / Gutxienaz milla tellak balioko du sei ezkutu, 4.000 tellak...24 pesos. / Hiru porziotan paratu ziran pagoak, ia bi milla karga, ta badira porzio bakoitzean. / Irunan, Errenterian ta Oiarzunan hamar milla karga erretazo omen da.*
- milla bana** banatz. *ta beste sei puskak bi aldetatik nasten dira hiruna porzio, milla bana karga bezala bakoitzarengat.*
- mintegi** iz. *Baurrindik pagoak ekarrira Kausuan aldaratzeko, eta Unzburuko mintegitik aldatzea hobe dela. / Fausto Olaizarrekoak esan dit, aurten aldatu nahi baditu, plantak emanen dituela, mintegian bakoitza 5½ kuarto. / Indianoak ere omen du partea mintegian. / Otsamintegi toponimoa, etimologiak etimologia, hamaika aldiz edireten dugu. Ikus onomastikari eskaini atala.*
- minzo izan** *da* ad. *Mintzatu, hitz egin. Espensak pagatzen ezpadiugu ez du, noski, iñork deus emanen; gehienak hala minzo ziran.*

- miñak eraman du** ad. Minez eraman. *Bi kintal burnia ea emanen tion, esku-ko miñak lau hillabete daramatziela.*
- miñak etorri da** ad. Minez etorri. *Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik oñeko miñak.*
- miñez egon da** ad. *Berentxikiko mutillori iaz ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean. / Bi astean Josepek agoak apainzen dituela hemen aritu da, Tomas miñez egondu da-ta. / Martiñen semea miñez zagoen len / Miñez dago, bestela kargu hartuko nion ta pagarazi. / Peloako Agerrek gaztigatu du ielsuak berorrenzat bost erreal balio duela, ta bera miñez dagoela ta dirua bealzeko. / Señoarekin egondu naiz ta esan dit 40 egun honetan miñez dagoela.*
- modu iz.** ...eta aditu duela posesioa nola hartu duten, eta laster kausara atera nahi lukeala, eta yakiñen duela zer indar edo moduak ekarri dituzten. / *Gure modua hauxe izandu da. / Iñor honelako moduetan hasi baño len [...]* / *Jornal hoiek dira mea modu onekoa kargatzeko. / Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna, ta jakiñen duela zer modu den. / Semeak esan dit ingude berri lepotik hautsia dagoen hau hartuko lukeala bere prezio modu batean. / Ta jua naiz ni ere itzaiaz modurik izanen ote den burni hoiek eramateko, ta ez didate esperanzarik eman. // -en moduan menderag. Uegunek esan dit berorri gaztigatzeko enborretako hau, botea libre, ~~hartu~~ (sic) nahi badio eman, hartuko duela 5½ realean, sei errealean pasatuko baita, honek eskatzen duen moduan.*
- modutsu iz.** Goiti-beheitiko modua, era. *Esamiñak modutsu honetan izanen al dira!*
- moldatu da** ad. *Berentxikiko mutillori iaz ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean, ta agoak apainzen eziñ moldatu omen da batere. / Nabi badu ekusi hor edo hemen moldatuko ote den batere, ekusiko dugu.*
- moztu du** ad. *Tobera erre da. Moztu ta estuturik sartu dugu; berria beharko da.*
- muga iz.** *Arragoa ongitzeko karea, Errenteriako mugako itxe batetik jorrada bat...8 quintales. / Gehiegi badu, Sanjuan Txutak bi zulo hartu nahi ditu, ta Bizenterenzat Xardearen mugan goiko puskan bealdetik bada puxka bat. / Hau begia erreta jua denean ekarri dugu Isasolako igele gazdea, eta bi agoa egin diraneko tobera erre da edo hautsi kañoien mugatik.*
- mugante iz.** *Mugakide. Olatzagako hoiek aurrera diboaz, ta hoiek egiñ beharko dute, berenaren mugante dute-ta.*
- mundu iz.** *Mundu guzia gure juzkoan dago baso hoietaz. / Saltoka dabillena paratzen badugu, munduak erdia eramanen digu, ta ikatzgilleak berak beste erdia.*
- muspel adj.** *Ospela, laiotza. Arrago egurra leku muspelean dugu ta egur larria gutxitxo zimeldu da. / Ta idientzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta.*

**mutiko** iz. *Eta esan didate Eixigarrek-eta horri abonatzeko mutikoaren yornalak. / Mutikoak baditu hiru, ta handiskoenarekin zaldia erabilli behar-ko duela iñoiz ikatzketan.*

**mutill** iz. 1. *Mutila. Berentxikiko mutill hori iaz ni miñez nengoela aritu zen hemen bi egunean, ta agoak apainzen eziñ moldatu omen da batere. / Kosme de Lekuna mutill horrenzat lenbizian bealduak badira zeñbait karga, ta bien artean dute. / Migel de Irigoien Munoako mutillak hartu zuen 60 pezeta. / Mutill horren meak. / 2. Morroia. Domingo Etxabe gaur bederatzitako etorzekoa da karromatodunai burniak ematera; berantsia nangoan zer egin behar ote zuten, ta atzo eguerdian mutill bat bealdu du, gaur etorriko dela. / Kaperok hartu nahi du Arragoako peonko lana alde batera; mutilla ere badu, ta nik txartel bat eginta bealduko dut horrara konponzera. / Zenbaitetan, halarik ere, ez da txoil garbi ikusten eleak lehen adiera duen edo bigarrena, esaterako lekukotasun hauetan: Egun gaztigatu dut, anaiearen karta ekusita, dirua fa[ll]ta dela, baño goizean ekarri ditugu diruak, ta kontatu gabe, mutillak meza huts egin dezan beldurrak, bealdu dut. / Martintxuriko Josek edo haren mutillak zaldaletako...20 pezetas. / Olaren pareko goiko larretik otekatan bere mutillarekin...1¼ días.*

**mutur** iz. *Mintegizarretik Otsamintegira ta Zaldirindik suertearen beko muturrera yorrada bana itxola.*

**nagusi** iz. *Aldakoko nagusiarena ekarri dugu lata, 180 beso. / Oiarzungo berotzale guziak egondu direla elkarrekin bakoitzak bere nagusiari aditzera emateko. / Sarobeko nagusi honek dio berau etorri gabe bere kontua bealzeaz mesede egin dizaiola lenbailen.*

**nahi izan du** ad. *Bi anaieak harrotua daukaten hura berak ekarri nahiko dutela, nahi balute lagunduko likotela. / Guziak saldu nahi hoiek, suertea ta ola guziak. / Horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den yakin nahi lukeala. / Iñork ez du jua nahi alderdi hartara. / Lagunak haren kontura etorri nahi ez, ta Martiñen kontura etorri ziran. / Nahi badu ekusi hor edo hemen moldatuko ote den batere, ekusiko dugu. / Nola uztea nahiko duen adiraziko du (berorrek). / Olagizonakin kontuak egiñ nahi dituenen, bealduko dut burnien eta espensan kontua paper batean. / Patxiku Kaspar honek esan dit nahi badu gelditu palanka, bere daritzan prezioa egiñta bealzeko pagua. / Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaurgero nahiko dute noski. / Sanjuan Txutak bi zulo hartu nahi ditu. / (Suertea) 16 kuartilluan paratuko dutela, nahi duenak hartu, ez dutela berago jaitsiko esan didate. / Ta bitartea Aranzatekoa nahi badugu ekarri guziak batetik dirala. / Ta erresposta igande bitartea nahi luketela. / Ta ezkutura falta zazkion hoiek eman nahi balitu, gaztigatzeko esan dit.*

- nahiago izan du** ad. *Eta esan dute gexeago baliz nahiago, baño obligazioko hori badere al badu egite[ko]. / Eta horrara etorzea nahiago badu (berorrek), datorren astean eziñ datorkeala, baño bestean etorriko dela, ta abisatzeko zer nahi duen. / Gogo txarra daukate hagitz, eta arku harriak bigar akabatzen dira ateratzez, eta hortik Karretto edo norbait bealzen balu nahiago genuke. / Hangoa nahiago luke, zallago izanen dela esan diotela-ta. / Hark honara baño bestetara nahiago luke, noski.*
- nahiz junt.** *Zen heldu den kontua egitera ta nahiz bealzen zaiotela berai kontua, berak konponduko omen dira. // menderag. Hura pasatu ezkerro mea hobeaz izanen da, nahiz deretxoa pagatu.*
- nahiz...edo junt.** *Orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera-ta, edo bestela karraidoretan kontuan pasatzeko. / Orañ eskatzen du nahiz mandoak ferratze aldera, edo bestela karraidotan, berorrek nahi duenai kargatuko zaiotela.*
- nahiz...eta nahiz junt.** *Argiaren kontran egoten da, nahiz kandela jo behar ta nahiz ez. / ...baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere, nereki, nahiz berorrenak eta nahiz besterenak dirala. / Eta esan du hamar orga orobat hartuko dituztela, nahiz kuadro ta nahiz txabala, ta dirua izanen dela burniak entregatzean berehala. / Nonbait alde haietako izanen da, nahiz Sarastirena ta nahiz besterena dela, eta San Sidro egunean atera dutela ia hoge bat kintal.*
- nasi 1. da/du** ad. *Beste sei puskak bi aldetatik nasten dira hiruna porzio, milla bana karga bezala bakoitzarenzat. // 2. adj. Nahasia. Tomas zar hau azkeneko txartelarekin izandu zen, hor 28 kintal baitzen, ta haiek dira mea nasiak. Orduan etzuten hainbeste ezagun eta eurriak garbituta orañ metal belza dute nasia, ta, nik ez dakit, besten larrañ hondarretan bilduak dirudite.*
- naste izan da/du** ad. *Nahasian izan, batetik eta bestetik izan. Arrago egurketan naste ziran denborakoak dituzte. / Horra naste duten kontua. / Plantxuelak bealdu ditugu Lamothengana, bi kintal kuadro naste dituztela azkeneko orgarenzat, eskastuta; plantxuelak 9 orgas, kuadroak 15 orgas.*
- negu** iz. *Idientzat lera bidea egiñaz hasi gera, mandoak neguan deus ekarriko ez dutela, leku muspela da-ta. / Neguan kintal bat burnia egoteko tokirik ez da itxe honetan. Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua. / Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezez dio.*
- nekazale** iz. *Nekazaria, laboraria.<sup>39</sup> Berorrek nekazalen kontua bealzeko denboran bakoitzari len emana geldituaz pagatuko nuke. / Gañerakoak,*

<sup>39</sup> Azpimarratzekoa da garai bertuko Berako testu administratiboan ere *nekazale* (*necazale* idatzia) daukagula bitan (Santazilia eta Taberna, 2019: 830).

- batean ta bestean, hemen darabilzit, nekazaleai berorrek bealdu artea puxkaka emanaz.*
- nekexko** adb. Neke pixka batekin, neketankara. *Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran, berorrek nekexko bealduta.*
- nekez** adb. *Endarak gaztigatu du meza enzun beharra dela, ta bigar enzun ta etorriko dela. Nekez akabatzen ditu mezak ta pregoiak hark! / Hortik nekez bilduko dira tretxua ta ikatza, biak. / Maisuak nahi badu bestek nekez eramaten du kandelarik. / Ta irundar it[s]jai hoiek ere dirua nekez ageri dela diote, ta batzuek gelditu dira. / Ikus doloz sarrera.*
- neskatxa** iz. *Fagotxikiko neskatxa hau ere beti hemen zabilkidan ondotik. / Franzisko Antoniok-eta pretenditzen dute olaetxean bizitzea, eta niri neskatxak eta biak esan didate berorri mandatu hau egiteko.*
- neurri** iz. *Heina. Matantak lau kuartoz garestiago em[a]ten zigun olioia, ta neurrian gutxiago. / Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña. // du ad. Neurtu. Ikatza neurriaz ta tretxua egiñ artea erre dira hamalau galbai ikatz, ta karga zenbat galbairekin egiten den neurriko dugu astelenean. / Olioia neurrita paratuko diogu. / Zubitaneko kupela neurri zen 1484 azumbres.*
- ni** izord. *Aprendizak hartu ditu elizarako behar orduetan neregandik. / Berorri edo niri dirua emanen zigula. / Gañerako hamabi orgak berak pagatu ditu deretxoak, ezkutu lodiak neregana bealduaz. / Gaur ez bealzekotan, bigar ez bealdu neregana dirurik. / Hoiek nere kontuan asentatu nahi balitu (berorrek). / Hoietarako hartuak ditu neregandik...14 pezetas. / «Lau urretxiki» nerekiko esan du hartu dituztela. / Nere asentuak ere ekarri ditzake. / Neurk billatuko dudala esan diot merkataria. / Niri esaten aritu da diru hartuen kontua. / Probestuari galdatu diot nerezat ote den pagameta. / Urretxiki bat ta hiru pezeta ta erdi baditu nik emanak.*
- nobedade** iz. *Berritasuna. Andresekin egonduta, anaiea ekusten izandu naiz, ta ez du nobedaderik.*
- nobedaderik ez paratu** du ad. *Bestelakorik ez esan. Eta etzi dihoaz mendira ar[o]tzak, beror[r]jek nobedaderik paratzen ezpadu, ast[e]azkenean.*
- noiz** adb. *Gaztigitzeko noiz nahi duen etorzea horrara. / Goiz batean goiz etorriko naiz ni horrara; noiz nahi duen gaztiga bezata.*
- noizbait (ere)** adb. *Irundar hoiek ere noizbait konpondu behar lirake. / Isildu behar lirake noizbait. / Kontuak ere egiñ behar genituke noizbait ere. / Kontuak ere garbitu behar genituke noizbait ere.*
- noizko** adb. *Ola handiko hoiek horrara etorri behar dutela diote, berori honara heldu ezpada, ta etorzekotz gaztigituko du noizko, ta nere asentuak ere ekarri ditzake, guk ere garbi ditzagun.*

- noiznahi** adb. *Bitarteko egun hoietan noiznahi etorriko dela. / Lengo asentu horien oñean paratuko dugu kontu hau ere noiznahi.*
- nola** adb. *Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela. / Gaztigatu du hartu baño lenago, baldin berok pretenditzen badute, nola nahi lukean. / Kontuak egiñ behar genituke, hillak ta biziak gera, jakin dezagun nola gauden. / Nik ez da[kit] nola dabilzan gobiernoko hoiek. / Nola uztea nahiko duen adiraziko du.*
- nola bait-** menderag. *Bigar hor jaia nola baita iñor izanen ez dela, gaur egiñ dut txartela hau. / Egun goizean olatxo ez dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldurrak, jai erdia nola baitzen, hasita lana eskastuko dela. / Irundar hoiek hemen dabilza ondotik, ta hor izandu ziranak nola ekarri baitzuten beren kontua, uste dute nere falta dela.*
- nola...-en** 1. kausazko menderag. *Denbora txarrak nola zauden, guk ere geren beharra egitera egiñ dugu. / Eta hura nola handiskoa zen, haren ondotik iñor etzen juan. / Migel de Irigoienek nola dituen 60 pezeta hartuak haie-tarako uzten ditu jornalak. / 2. menderag. konpletiboa. *Amabirjinetan esan nion anaieari bi onzako nola kendu nition, ta zor daukat ta pagatu nahi nuke. / Belderrainek esan dit, beste lagunetara baño len, Juan Migelek nola esan zion 16 kuartilluan hark hartuko duela, iñork gorago harzen ezpadu. / Beleak esan dit semeari esan diola nola izandu geran, semeak eranzun diola basoko irabaziarekin eziñ pasa daitekeala hura.**
- nolaerebait** adb. *Nolabait ere. Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorregana agertu bat egiñen ote duen dagoela, iñor besterik sartu gabe berorri emateko modua nolaerebait harzeko. / Nik esan diot berorrek nolaerebait berorrek adobatzeko modua hartu nahiko duela. / Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezez dio.*
- nolako** adj. *Hemengo tretxu honek azal handia du eta bera ere, tretxua, handiskoa, ta ekusiko dugu txabala nolakoa heldu den.*
- nonbait** adb. *Basoa laster akabatuko duela, ta hasi nahi lukeala nonbait, ta hau hemen hasitzea gonbeni litzake. / Nonbait alde haietakoa izanen da.*
- nonbait hor** adb. *Lapurren zat erdiak izanen dira; ikazkilleak berak lapur ezpalira nonbait hor halere.*
- nondik** adb. *Ez omen dute harrapatzen asenturik haren paperetan, nondik zer hartu duen, dirua eman dutenetatik argitasuna beharko dutela.*
- nondikerebait** adb. *Nonbaitetik ere. Puska berriak beharko ditu barrengo aldetik edo nondikerebait.*
- nondik-nahi** adb. *Nondik-nahi saiatu ezkeru ateratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere, nerekkiko, nahiz berorrenak eta nahiz besterenak dirala.*

- nor** izord. *Baño ematera orduko norenzat den jakiñik ematea hobe da. / 56 karga ikatzek ez du honenbeste balio, ta nik ez dakit nork onduko dituen. / Jangoikoak daki norena den! / Mandazaiei nori zenbat kargatu hor konpondu beharko dute. / Nor zertara dagoen jakin nahi dukete, edo arrimarazi egin nahi lukete. / Sujetoa nor den ez du deklaratu.*
- norbait** izord. *Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorregana agertu bat egiñen ote duen dagoela. / Gurdia bat zuria ta beste belza ekarri zituen, ongi berezi gabeak; ta gañerakoak ongi berezirazi norbaiti ta ekarri ditu, baño mea beltz txarrak dira. / Hortik Karretto edo norbait bealzen balu nahiago genuke. / Ta ilzeak ere norbaiti eragiñen tiogu orduko.*
- norbaitengan egon** da ad. *Norbaiten esku egon, norbaiten erabakia izan. Izandu gera biak Sarastirengana, ta esan dio Sarastik borontatez aitaren zorra pagatu nahi badute haiengan dagoela. / Nahi badu eman beko gañerako hau, edo gañerako honen erdian behinzat; berorregan egonen da.*
- noski** adb. *Indianoak, noski, esan diote daudela puxka bat deretxorik eman gabe. / Probestuak esan dit, hamaiketakoak pagatzera juan naizanean, gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski. / Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaurgero nahiko dute noski. / Uzteko hobeak daude, noski, harzeke baño.*
- obligazio** iz. *Eta esan dute gexeago baliz nahiago, baño obligazioko hori badere al badu egit[eko]. / Ta orañ bertakoakin kunplitu omen dute, ta honara hasiko direla orañ berehala obligazioa pagatzen.*
- obra** iz. *Martiñek bere hola eman zuen obra honetarako 312 beso a 1½ reales besoa. / Orañgo obra honetan...14. / Ta orañgo obra honetan zer jornal sarzen den gaztigatuko dut.*
- ofiziale** iz. *Aranzazuko fraile horri libratu diote lau ofizialeak pezeta bana, eta mealleak erdia, 4½ pezetak. / Beren taietatik yan zuten bi egunean. Ta lau ofizialeak biña egun badute ordukoa.*
- ofizio** iz. *Hemen ari diren berotzalle Martin, Marcos ta Manuel Ignazio, hiruak diote -laugarrena ez da orañik ofizioan kapaz honetarako-, bada, [...].*
- ofrezimentua** iz. *Diru eskaintza. Aldakokoaren ofrezimentua, guzia, 19.500 reales. / Bien ofrezimentuak izandu dira. / Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote kandelan.*
- ofrezimentua egiñ** du ad. *Diru eskaintza egin. Aldakokoak esan dit batere etzuela asmorik Galaridik, baño ni nola izandu naizan adirazi dionean etorri zaiola bera itxera, ta ofrezimentua egiñ dutela, eta orañ ez dakiela kontrarioak pujatzen hasi diranean utziko duen edo segituko duen berriz. / Ta esan diotet nik ofrezimentua egiñ dudala puska honetaz, esamiñadoreai ere bai, Juan Migelek adi dezan.*

- ofrezitu** *du* ad. Dirua eskaini. *Aldakokoak ofrezitu dio Galardirenzat olari suertearekin 18.000 real. / Hori ezpaliz, nahi den moduan hartuko litzake, baño berorrek 6 real ofrezitu duen ezkerero, ta esamiñetan hainbeste egon! / Suertea hartu diet 16 kuartilluan; 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan paratuko dutela, nahi duenak hartu. / Ta ofrezitu diot hitzaz 15 kuartillu meza aurrean.*
- ogi** iz. *Aranederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko eta herri guzia hargana dihoa. / Donostian ogia zorzi kuartoan dagoela esan du Manuelek. / Eta bi anega ogi ola hasitzeko billatu nituen jua den igandean, pagatzeko hitzarekin, ta gelditu ditut ogi hoiinak 054 pezetas. / Eta hortik heldu den hargiñaren jana nola behar den konponduta beal beza. Nahi badu, olan baba egosita, ogia emanen zaio, eta zer gastatzen duen ageriko da. / Franzisko Antonio Uhartekoak ditu, leneko paga egiñ zitzaion ezkerero, ogi emanak honara [...]. / Hainbeste kosta da! Ogi urria da ta hemengo errotatan, berriz, dirua eskuan duenari merkexego, ta kreditarra nahi duenari gehiago pagarazitzen diote. / Isasolan, kabiguñ batekin etorrira ere, ogia ta ardoa badituzte. / Orañ ez dakigu emanen diguten ogia gehiago.*
- ogi egille** iz. *Okina. Ogi egilleai sagardoa salze-sari deus bealdu nahi badiote; niri ez zidaten deus hartu. / Ogi egilleak gaztigatu du, errotaria pagatzeko behar duela-ta, ogien diruaz.*
- ogidun** iz. *Ogi saltzailea. Ogidunak esan dit errotariak estutzen duela ta dirua bealzeko. Bidasorokoak ematen diote ogia. / Erka bedi babadun-ekin.*
- ohi** partikula. *Eta mealleak ekarria, agoa palanka txiki bat hemen ohi da.*
- oiarzuar** iz. *Errenterian izandu naiz ta mea puska bat oiarzuar Xiliren hoiek daukate harrotua. / Errenterian mea garbitzen ari diran oiarzuarrai eman ditioztet bi pezeta.*
- okasio** iz. *Agerrekoari esan diot orga txar bat egiteko, eta asmoa hartu dute okasioa denean; biren artean sikiera hobeki eramane dituzte.*
- oker** adj./iz. *Begibakarra (ustez). Okerra izengoitiaren oinarrian da: Dotazioan ikaztogi bat ta Matxinoak bi, ta Fermin Okerrak bat atereak dauzkite.*
- oktobre** iz. *Setienbrean eta oktubrean olioa 30 kuartoan omen zen libra.*
- ol** iz. *Ohola. Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal, barrengo ol txiki haiek ematekotz, ta bestela lau onza bezala luzeagoak beharko dute. / Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña. / Ikus alde ol sarrera.*
- ola** iz. *Burdinola. Agerren sei anega baba dira ta, olarako asmoan, nik geldituak daude saldu gabe. / Antonio de Mitxelenak ditu 34½ karga ikatz bizkarrean ekarriak, olaren ondoko basotik. / Guziak saldu nahi hoiek, suertea ta ola guziak. Elizatik erakutsi zen, baño ez dute paratu orañik*



- suertea kandelan. Ola ere ez dute paratu. / Kabia egin zenean ola prepa-  
ratzen ta kabiguña sarzen egin zutena da. / Kandelan paratu dute ola ta  
gelditu da 1.650 ezkutuan, ola ez baño basoa. / ...ta eskatzen dute  
Oiarzungo olatarako asteke bost pezeta.*
- ola handi.** iz. Ola nagusia. *Dozena bat kintal tretxu badago egiña, ta ola han-  
diak asteke mea eskasa du, ostiral artekoa bezala. / Ez du gauza onik egi-  
ñen, ez da kontentu. Ola handiko lanetarako ez omen zen hau igualatu.  
/ Josepe igeleari paratu tiot ola handiko asentuan bere egunak. / Leneko  
70 ogien gañera, badituzte ola handian, aste honetakoak, 22 panes. / Ola  
handian azkeneko arialdi honetan egin da burnia [...]. / Ola handiko  
kabiguña sartu. / Olatxoko tobera galdua dago ta lana dago orañ berria  
egitea ere. Ola handitik aritzeko modua berehala paratzekotz, atera ta  
puxka bat estutu dugu bokan, baño eskarpa dauka errea.*
- olagizon** iz. Olako langilea. *Bigar ola handiak lanak akabatzen ditu, eta ola-  
gizonak diote ea larunbatean itxean izanen ote den, kontuak garbitzeko.  
/ Leneko kontua hartan nik ez nituen paratu hoiek, ta hemen galdatzen  
dute hoietaz ere olagizonak. / Olagizonakin kontuak egiñ nahi dituenen-  
an, bealduko dut burnien eta espensan kontua paper batean.*
- olaitxe, olatxe, olaetxe** (hirugarren hau JBMren erdarazko oharretan ageri da,  
pare bat aldiz) iz. Olaren ondoko etxea. *Arragoa deskargatzen sartu dira  
olatxeakoaz kanpora 7 días. / Joseph Ignazio olaitxeakoaren kontua. /  
Martiñek pasatu ditu bere lagunekin olaitxeakoaz gañera [...]. / Olaitxeako  
Jose Ignaziok eskatzen du anega erdi bat babaren txartela. / Olatxeako  
aurreko zubian pasatutako maldatik uztarriak ekarzea. / Olatxeako gizo-  
nak berrehun ziri egiñak ditu ta haienak. / Olatxeako Joseph Ignaziok...2  
duros. / Sukaldea eta gela baten forma paratu behar litzake olaitxean, eta  
eskalerak ere beharko dira.*
- olajabe** iz. Aranzateko mea, olajabeak geldirazi zuen hura, eman nahi dute,  
*baño len pezetan entrega.*
- olajaun** iz. Olako nagusia (ez nahitaez jabea). *Baño olajaunak hoiien eskutik  
hartu beharko dute mea, ta meakariak hoiei entregatu. / Errenteriako  
olajaunak eraman zituen hemendik bi kintal quadro. / Eta nahi bazuen  
edo bazeritzan olajaunak partituko ziotela. / Ni nago olajaunak kalterik  
ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz. / Olajaunenzat mesede  
alkua pasatzea. / Sarastiren larraña baño ezkerago atera dute denboraz-  
ko olajaunen hondarrak.*
- olara izan da** ad. Olaratu. *Juan den igandean ere propioa Juan Azenzio, ta  
baietz agindu, ta astelen arratseko olara zen.*
- olatxo** iz. Ola txikia (erdaraz *martinete*; ikus bedi 1804.01eko gutuna). *Aste  
erdia pasatuko da gutxienaz olatxoa perparatu orduko. / Beste arotzak  
lanak bigar akabatuko dituzte, olatxoko tellatua ez besteak. / Egun goi-  
zean olatxoa ez dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldurrak. /*

*Errenteriako olatxokoak gelditu dira, ta izanen dira lagunak hasteko. / Eta tretxuarekin txabala idi ferratzekoa egiñ nahi dute. Eta olatxoan tiratzea zenbat pagarazi gaztigatuko du, nahi badu. / Josepe igeleak badi-tu olatxoan pasatuak 4½ semanas. / Olatxoko kabiguña sartu...1½ pezeta. / Olatxoko sagardoa ematen duenak eskatzen du hogei ezkutuko bat. / Txartelarekin ogiak 40 eta dirutan 14. Guziak Donostiatik ekarri dira, 54. Ola handian 21½, olatxoan 20 eta nik 12½. / Larramendik (1882: 73) honela dio: «En estas cearrolas, tiraderas y olachos de Guipúzcoa es donde se trabaja mejor el hierro y donde son de más destreza los ferrones y de más habilidad é ingenio».*

**olio** iz. *Matantak lau kuartoz garestiago em[a]ten zigun olioa, ta neurrian gutxiago, ta ora[n̄] merkena den lekutik ekarzen dugu bi olata[ra]. / Ogiak eta olioa beste espensakin pagatuko dira. / Olioa neurrita paratuko diogu. / Sei sardiña, 12 kuarto, ta olioa. / Setienbrean eta oktubrean olioa 30 kuartoan omen zen libra. / Ta eskatzen dute aizkorak egiteko ta olioren-zat 20 pezeta.*

**omen** partikula. Kasu batean mendeko perpausean (*esan* da aditz nagusia) daukagu: *Alkatek, Portuk, esan dit Penaregiko maxterrak omen duela orañik ikatz gai puskaren bat despojo hoietakoa. / Beste hau mugakoa da: Manueli erakarri diot nik ogi bat, eta hamar kuartoan pasatzen zen hura, libra, ogi gutxi omen zen-ta. / Baina horietaz beste guztietan perpaus nagusian agertzen da, eta aski ohikoa da: Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela. / 58 ezkutu pagatzeko hartu omen zuten. / Hillabeteren bateko lana omen da. / Hiru terzioak hiruna behar omen dugu. / Hondarrabiako babak ziudadean batzuek ta besteak ziudadearen garai-ko aldean, bere itxean omen ditu gizon hark; Arsu daritza itxeari. / Idiak itxean ditu ta bere gauza salzeagatik ekarriko zituela omen zion; gizon fin bat da, ezagutzen dut nik. / Ola handitik ari diranean kuartillua gehiago omen da usuarioa. / Probenziako pezeta ere itzaien jorñalean sar-zen zela uste omen zuen Lamotheke; hura libre pezeta hartatik. / Uharteko errotaria larunbatean juatekoa omen da errenta pagatzera.*

**on** adj. *Arragoa erretzeko modua ona dago! / Beste lau puskak egur txea dute, baño leku onak dira. / Azkeneko arrago honek kredita ona eman digu. / Hemen gauza onik ez da. / Hagitz baba ona da. / Iñor[k] ez du lanik gogo onean egiten! / Itsas metal puxkaren baten modurik ezpada para-tzen honarako, ez da gauza onik egiñen, haxiak dirala ere. / Munoako hau-ta ere planta onean daude.*

**ondoan** adb. *Ondoren. Endara etorri da eguerdi ondoan. / Meza ondoan paratu dute. / Ola hasitzeko denboran pasatu dute ola prestatzen egun bat, eta bigarren egunean eguerdi ondoan hasi ziran. / San Fermin ondo-an horrara agertzeko asmoa du berak.*

- ondoko** adj. *Antonio de Mitxelena*k ditu 34½ karga ikatz bizkarrean ekarriak, olaren ondoko basotik.
- ondorengo** adj. Ondokoa. *Luis de Lekunari* kontua eman nion *Eguerri* jua denak arterañoko lanena ondorengo egun batean.
- ondotik** adb. 1. Atzetik. *Errotari* urgona ere maiz aski ondotik dugu. / *Fagotxikiko* neskatxa hau ere beti hemen zabilkidan ondotik. / *Hura* nola handiskoa zen, haren ondotik iñor etzen jua. / *Irundar* hoiek hemen dabilza ondotik. / *Otsoaneko Sebastian*, berorrek agindu diola burniai tiratzeko, ta beñere ondotik eziñ kendu dut. / 2. *Igarota*. *San Fermin aurretik* ta ondotik jua ziran 17 orgatan edo portetan.
- ondu** da/du ad. Ordaindu, osatu, berdindu. *Aketzak* [...] esan du berorri anitz idurituko zaiola bost pezeta, ta berak onduk[o] duela ezkutu edo lau pezetaren gañerakoa. / ...eta *Buruzuria* pagatu eta karretoere bai, eta gañerakoa herriari onduko geniola. / *Gure* emana heldu da 746 reales vellón. 56 karga ikatzek ez du honenbeste balio, ta nik ez dakit nork onduko dituen. / *Olaberrira* jaso dituen 39 kargan karretoere ondu behar baizaio, 39 pezeta, ta gañerakoa zor du, 30 pezetas y 3 reales. / ...ta egiñ zezala esan ziola berorrek, ta etzekiela txapona hura onduko ote zuen esan zidan niri, eta pezeta zela nago berorrek eskeñi ziona.
- ongi** adb. Eziñ, eziñ entenditu baditu ongi, *Buruzuria* paga beza, len emanen gañera osa bekitzta 670 reales. / *Gurutze Santu* arratsean ere ongi ebilli zen hagitz! / *Maisukoan* ere ongi samar ari dela diote. / *Olatxoa* ongi hasi da. / *Ongi* ari da. / *Ta Baltasarrek* dio *Garalorregin* ta *Otsandolan*, hoien esamiñan, ongi aterako dela, izerdiak galduak izanagatik.
- ongi egon** da ad. *Hau* omen dago ongiena guzietan.
- ongi izan** da ad. *Ametitzen* balute beti izaten dela zerbait, ta modu hoietan ongi litzakeala, *Indianoak* hartuko lukealako. / *Jornal* pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela, nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urriurrian jornalak dituztela baño. / *Señgoa* ere han omen zen, ta 1.400 ezkutu honetan ongi litzakeala dio, harrapatzen baliz.
- ongitu** du ad. Ongi paratu. *Arragoa* ongitzeko karea, *Errenteriako* mugako itxe batetik jorrada bat...8 quintales.
- ontxoen** adj. Hoberentxoena, onentsuena. *Basorik* ontxoena da *hau Eraringo* ixidutik beiti.
- onza** iz. 1. Diru baten izena. *Pierrek* bost onza bealdu ditu beste bi orga bealzeko. / 2. Luzera neurria (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 50). *Erruedaren* potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal, barrengo ol txiki haiek ematekotz, ta bestela lau onza bezala luzeagoak beharko dute.
- onza berri** iz. Diru baten izena. *Diru* hau, gildudan (sic, 'gelditu dudan') boneda, da zorzi onza, lau zarrak eta lau berriak, eta 17 pezeta.

- onza urre** iz. Diru baten izena. *Bealdu ditu 6 onza urre...480 pezetas. / En 27 de abril rezibitu nituen bost onza urre, ta 5 de mayo hamar onza urre zillarretan. / Hamar orgarenzat 2¼ onza urre. / 17¼ onza urre ta 28 reales gelditu ditut. / Manuelek dakarrenetik gelditu bost onza urre...400 pezetas. / Pierresek bealdu ditu 6 onza urre...480 pezetas.*
- onza zahar** iz. Diru baten izena. *Diru hau gildudan (sic, 'gelditu dudan') boneda da zorzi onza, lau zarrak eta lau berriak, eta 17 pezeta.*
- onzako** iz. Ontza, diru baten izena. *Amabirjinetan esan nion anaieari bi onzako nola kendu nition. / Papera horretan zor ditudan horietatik onzako bat kastatu nuen haurra jaio zitzaikun denboran. / Ikus onza sarrera.*
- onzi** iz. *Sagardo txarra egiteko onzirik ez dugu-ta, kupela egiñ behar nuke.*
- oñ** iz. 1. Oina, hanka. *Juan Franzisko, berotzen hemen aritu dena, etorri da bere olatik oñeko miñak, ta bere kontua eskatzen du. / 2. (Orriaren) beheko aldea. Lengo asentu horien oñean paratuko dugu kontu hau ere noiznahi. / Lengo harzekorik ezpadu ta emanen zazkion edo ez gaztigatuko du, ta ematen dudana hilleko paperetan bealduko dut, bakoitzari bere lanen oñean.*
- opinio (handi)** iz. Ospea. *Hoberen honek opinio handi bat zaukan, ta hargatik txarrenak ere puska honi eratsi zitiozten.*
- oraindik** adb. *Irundar itzairik ez da ageri oraindik. / Behin ediren dugu; ikus orañik.*
- orantxe** adb. *Oraintxe, orain berean. Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean orantxe etorri da.*
- orañ** adb. 1. Une honetan, garai honetan. *Len aldiazka bezala orañ guziak batean. / Orañ Beleak dio ikaztegi kargatua ta egur egiñak berak egosiko litukeala bakarrik. / Orañ eskatzen du...13½ pezetas. / Orañ gelditzen dira 20 pezetas sobra. / Orañ Motela horrara heldu denean konponduko da nahi duen bezala. / 2. Duela. Ikus egun eta izan(du) sarrerak. Munoako semeak, julio 98an hartu zituen 16 ezkutuak pagaturik, egin zuen harzeko, arrago jormalak azkeneko pagatu ziran denborako, orañ hiru urte, baita 14 ½ reales. / Laguna etorri zitzaionean guziak lagunak apaindu, orañ aste bat edo beste. / Niri esaten aritu da diru hartuen kontua: orañ hiru urte hasi lanean, ta bi urtetan errenta pagatu.*
- orañdaño** adb. *Gaurdaino, orain arte. Geroztik orañdaño ekarri du, Errenteriatik olara mea...205½ quintales.*
- orañdaño**ko adj. *Orain artekoa, egundainokoa. Gaztigatu bezala-ta, arotz hoietan beharrak dira gehienak, ta yornalaz galdatzen dute ta garbitu behar lirake orañdaño*koak. / *Primaberan botea izandu da orañdaño*ko egurra.
- orañdaño**koan adb. *Gaurdaino, orain arte. Kabiguñak ere eskatu gabe botatzen genituen orañdaño*koan, ta memorialarekin eskatzeko esan didate arbola bota behar den guzia[n].

- oraño** adj. *Eixigarrek egin du ikatza Jose Ignazio olatxeakoaren semearekin oraño basoan: 284 cargas y 1 otsabeharria y 3 lepalotuas. / Honetarako deskritatu zaskio, oraño arragoaz kampora, 51 pezetas y 2½ reales. / ...ta oraño libra ta erdi añadimentu hau Indianoak abonatu duela kontuetan.*
- orañoan** adb. Oraingoan. *Bide egite gaistoak daude; gaitzena egiñ da orañoan.*
- orañik** adb. Oraindik, oraino. *Beretzalle berrixkoa izan laiteke; noski, orañik gaztea da, baño maisukoan ere ongi samar ari dela diote. / Bordatxok iriña ekarri du, 17 pezeta ta 8½ cuartos anega, eta 16 pezeta eta erdian ere omen zen alea, eta orañik hemen hogei pezetan dago errotatan. / Elizatik erakutsi zen, baño ez dute paratu orañik suertea kandelan. / Entregatu gabeak hiru edo lau kintal omen dira itxetan orañik, Kosmek hala dio, lengo haietatik. / 60 kintal behar diran zabal honetatik falta dira orañik 15 quintales. / Laugarrena ez da orañik ofizioan kapaz honetarako. / Orañik ez dira elizatik erakutsi. / Ikus oraindik.*
- ordaña** iz. Ordezkoa. *Hoi en botatze-saria eta berdinzea tokatzen zaio Kaperori, zergatik ordañarik ez dugu ekarri.*
- ordaña eman du** ad. *Babarik Oiarzun niki ez dut senti, ta hortik beal dezake. Fagotxikitik ekarrita eman diotet hasieran, ta haiei ordaña emanta, gañerakoa aste honetako diña da.*
- ordañako** adj./iz. Ordezkoa. *Len ordañakoa franko izaten da han dabilzan haietan. / Ordañako Alziberko urzalleari niki eman niozkan 6 pezetas y 16 quintales Makatzen partez irabaziak.*
- ordañatan** adb. Ordainetan. *Isasolara eramanak badira egurrak ordañatan...22 leras.*
- ordañaz** adb. -ren orde. *Manuel Antoniori kargatu behar zaio 8 pezetas y 24½ cuartos, ta abonatu behar zaskio ordañaz aritu denari, baita Iberoko suña Juan Franzisko de Alzate.*
- ordena** iz. Agindua. *Elizatik erakutsi zen Oi[ar]zun Errepublikaren ordena zela gurdi meharrakin iñor ez pasatzeko Franziara 22 de noviemb[re]tik aurrera. / Haiek gure ordenaz dabillela uste, ta guk haien ordenaz dabillela uste, ta bitartea nahi duena egin du. / Hark hartuko duela, iñork gorago harzen ezpadu, eta hamabostean ordena badut hamaseian har dezadala.*
- ordena eman du** ad. Agindua eman. *Garatekoak bolborarik eziñ arkitu dute; hamar erreal pagatuko dutela, ta Pasaian ordena edo kargua emana daukate, baño orañ ere gabe daude. / Ikus kargua eman sarrera.*
- ordu** iz. *Aprendizak hartu ditu elizarako behar orduetan neregandik. Asenta bitza 8 pezetas. / Egun batean bakarrik aritu zen, Tomas miñez ta Antokorena etorri ezta, ta lau agoa ogeita lau orduan egiñ omen zituzten. / Orañ bi orga dira egiñak ta hiru ordutara dihoa, ta Endara ez da ageri orañik.*

- orduan** *adb.* Migel Antokorena zen orduan hemen. / Orduan etzuten hainbeste ezagun eta euriak garbituta orañ metal belza dute nasia. / Sagardo hoiek espensan zeñenzat zenbat bealduko dut txartel bat; len ere bealdu nuen ta orduan asentatu ezpazituen. / Sarastik esan dit kandelan paratuta bajatuaz ekarriko dutela, ta iñork gehiagok hartzen ezpadu, orduan emanen dutela.
- orduko** *adj.* Ta lau ofizialeak biña egun badute ordukoa. // *adb.* Pilliperen eta bere semearen ikatzak orduko etorriak ziran. / Semea orduko pizkortuko da, ta bitartea pago bat edo bi ekarriko ditugu zerratzeko. Ta ilzeak ere norbaiti eragiñen tiogu orduko. // **-tu orduko** *menderag.* Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxoa perparatu orduko. / Hoiek astea pasatu orduko eskatzen hasiko dira, beharrea daude-ta. / Nik kontua bealdu orduko, Agustiñenak...20 cargas. / Ola paratu dute kandelan dotaziorik gabe; 500 dukat zillarrea paratuta 450 dukateraño etorri zen argia itzali orduko. / **-tzera orduko** *menderag.* Anatzurik etorri ta eraman egin nahi du, ta gero karraidoreai kargatu, baño ematera orduko norenzat den jakiñik ematea hobe da. / Ola handitik aritzeko ta h[a]sitzera orduko lan hoiek egiñ behar direla.
- orga** *iz.* 1. Gurdia. Orgaren gaia ta josteko herreroarenzat hartu du burnia: 7 arrobas y 14 libras. / 2. Gurdikada, orgatara. Itzairik eziñ billatu, ta bi orga kuadro hemen daude orañik. / Lamothenzat, Patxikuri gaztigatuta, erakarri dut gurdi edo orga bat burnia Fagotxikira. / Lamothi bealdu diot orga kabilla ta orga kuadroa. / Orañ bi orga dira egiñak ta hiru ordutara dihoa. / Ikus bedi gurdi sarrera.
- orobat** *adb.* Aurrerako orobat beharko da itzaienzat behinzat, ta meakariak ere lengoa ta gañera ehun kintalena eskatu dute. / Eta esan du hamar orga orobat hartuko dituztela, nahiz kuadro ta nahiz txabala. / Nabi badu, horra orobat etorriko naiz; ta bestela, honara heldu denean. / Orañ kintal bat edo beste hartu, ta besteak atzerago orobat hartuko dituela.
- oroitu** *da ad.* Baltasarrek esan dit suertea partitzeko kuarto haiez oroitzeko. / Feliz igeleak esan dit haren mandatuaz oroitzeko. / Gabierrotako babaz ere oroitzeko. / Martin Aldakokoak esan dit haren kuartoaz oroi dadiela. / Tomas igeleak kuarto haiez oroitzeko. / Ikus akordatu sarrera.
- osatu** *du ad.* Ordaintzeko falta dena paratu, ordainketa ondu. Eziñ, eziñ entenditu baditu ongi, Buruzuria paga beza, len emanen gañera osa bekitza 670 reales. / Gure olara jaso ditu honek 39 kargaren karreto, hautsiak osatu ta 37 karga baitira, 39 a 4 reales...156 reales. / Lenbiziko karretoko 19 pezetak ta ikatzgilleari len emanen gañera osatu 56 kargaren balioa ta gañerakoak kobra ditzatela herriagandik. / Pedro maisuari bere kontua osatzeko...03 pezetak y 26½ cuartos. / Pierrek bost onza bealdu ditu beste bi orga bealzeko, ta orduan guziak osatuko dituela.

- oso** 1. adj. *Andresek esan dit leneko urteko errentan hari osoaz kargu egiñen diotela. / Beste anitzetatik ere aditzen nuen, baño Damianek satisfazio osoa eman dit. / Mealleak ditu 22 días, bost eguneko astea honenzat oso dela. // 2. adb. Osorik. Berorrenzat garbiena da Olaberrira jaso diran 56 kargak oso pagatzea. / Orañ gelditzen dira 620 karga, bi puska egiña, ta 180 kargakoa oso dago.*
- osoan** adb. *Bost puskatan batek erditik txuritzak baditu, baño osoan orobat para ditekeana dago.*
- osorik** adb. *Haspoak eginta gelditzen dira osorik bi braka eta bi ijada, eta larru berrian saihetsak hamar puska.*
- ostalero** iz. *Ostalaria, tabernaria. Ostaleroak edo tabernariak gaztigatu dit igandeko behar dituela ardoen diruak.*
- ostegun** iz. *Burni erreusen txartela ostegunean hartu dut.*
- ostiral** iz. *Basoen dirua ostiralean beal beza. / Berdin lanak akabatuko direla ostiral arratseko. / Ola handiak asteke mea eskasa du, ostiral artekoa bezala. / Ostiralean Franziaiko jaia da ta larunbatean juan beharko dute burniak.*
- ote** zalantza hitza. *Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorregana agertu bat egiñen ote duen dagoela. / Atzo deus etorri ote zen izandu ziran bi lagun mearekin. / Lenagoko kontua egiñ zuenean gurdia egin zuen ta kargatu zitzaion, ta hura sartu ote dudan oraño burnietan nago, horko lengo papera hori ekusi ta. / Luis Zuloakoaren kontuan ez dakit burnien kontua txuxen eman ote nion (berorri). / Nahi badu ekusi hor edo hemen moldatuko ote den batere, ekusiko dugu. / Olagizonak diote ea larunbatean itxean izanen ote den, kontuak garbitzeko. / Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan, ekusi dezala. / Ta eskribitu bizio be[ro]rrek Sarastiri ea libratzeko modurik izan ote daitekean guretzat. / Ta hamaiketako puxkaren bat egiten ari ziran, ta probestuari galdatu diot neretzat ote den pagamenta, ta ez diotela señalatu. / Ta juan naiz ni ere itzaiaz modurik izanen ote den burni hoiek eramateko, ta ez didate esperanzarik eman.*
- ote** iz. (landarea). *Olaren pareko goiko larretik otekatan bere mutillarekin...1¼ días. / Iduri sarreran aipatu dugun \*idurika-ren moduko txiki-garria izanenezake otekatan honetan, hots, oteka 'otaka', baina Goizueta aldeko erabilera ikusirik, uste dugu hobe dela otekatan aurreko oteketan 'ote garraioan' forma batetik atera dela pentsatzea, asimilazioz. A. M. Mitxelenaren arabera (2020b: 28), mea erretzeko ibiltzen zen otea, baina guri egiantzekoago zaigu sua pizteko ibiltzen zela kontu egitea. Ikus iduri sarreran dioguna.*
- otsabeharri** iz. *Otsoaren belarrien antzeko itxiturak dituen zakua. Eixigarrek egin du ikatza Jose Ignazio olatxeoaren semearekin oraño basoan: 284 cargas y 1 otsabeharria y 3 lepalotuas. / Hoietan bost karga otsabeharriak*

- dira; ikatz jabearentzat izanen dira 71½ karga. / Indianoaren ikatzak etorri dira, hasta 31 de diciembre de 1797, 2.008 cargas, 2 otsabeharrias y 2 lepalotuas. / IBk ere otsabeharri darabil: «Bakoitzak zenbat (zaku) oso eta zenbat otsabeharri, eta zenbat lepalotu dituzten, horietatik egiñen diote kontua, heldu zaionari».*
- paga** iz. Ordainketa. *Espensan paga bealzean hoiek gutxiago bealzea du. / Lenbiziko ikatzan pagan geldituak...13 pezetas y 25½ cuartos.*
- paga egin du** ad. Ordaindu. *Franzisko Antonio Uhartekoak ditu, leneko paga egiñ zitzaion ezkeru, ogi emanak honara [...].*
- paga eman dio** ad. *Beren kontuetan pasatu ta gañerakoai paga eman diotet...66...25½.*
- pagadi** iz. *Eixigarrerekiñ-ta aritu da horren semea pagadian.*
- pagamenta** iz. Ordaindu beharra. *Hamaiketako puxkaren bat egiten ari ziran, ta probestuari galdatu diot neretzat ote den pagamenta, ta ez diotela señalatu, ekarzeko esan diotela, ta pagatzean zer esaten duten ageriko dela.*
- pagarazi du** ad. *Anatxuriren perrazalleak eskatzen du perra burnia, ta emanen zaion edo zenbat pagaraziko diogun gaztiga beza. / 16 libratik 20 libra bitartea gutxi-gorabera izanen zen, ta pagarazi dakiko kontuetan. / Ogi urria da ta hemengo errotatan, berriz, dirua eskuan duenari merkexeago, ta kreditara nahi duenari gehiago pagarazitzen diote.*
- pagatu du** ad. (batzuetan bi argumentukoa, egun ohikoa hirukoa izatea denean ere). *Berorrek martxoan pagatu omen zuen suertearen plazoa edo erdia, eta olarenik ez. / Berorrek nekazalen kontua bealzeko denboran bakoitzari len emana geldituaz pagatuko nuke. / Buruzuri zarrari itxola erosi genion ta pagatu diot...04...00. / Buruzuriaren plazeriak paga ditezke. Zorretan gaude herriarekin ta Anatxuri dugu harzeko. / Eta Buruzuria pagatu eta karretoa ere bai, eta gañerakoa herriari onduko geniola. / Eziñ, eziñ entenditu baditu ongi, Buruzuria paga beza, len emanen gañera osa bekitza 670 reales, eta honara heldu denean entendiraziko diot. / Irungo karreadoreak 46 karga pagatu ditut. / Jose de Aranbururi ola pagatu diot 18½ beso 006...28½ / Olatxoko berotzalleak pagatu ziran en 25 de abril. / Senboll ta Ignazio ta meallea aritu ziraneke espensa paga dezagun kontua egin beza. / Zorzi urretxikitatik 6 anega ta bi lakadi a 9 cuartos pagatu zaio.*
- pago** iz. *Basorik ontxoena da hau Eraringo ixidutik beiti, ta beste aldetik 300 karga bezala bi pagorekin. / Bitartea pago bat edo bi ekarriko ditugu zerratzeke. / Dotazioa ematean ta pago partitzean 2 azumbres de vino...01...30.*
- pago ikatz** iz. *Pago ikatzak ziran gehienak.*
- pagu** iz. Ordainketa. *Ardatzaren paguan ta burnian karretoan sobra nuen...00...3. / Ariztxulegi aldeko hoiek gure itzaiak dira, baño Eraringo*



- hoiek beharko dute pagua, ta heldu diranean ardoa ta ogia ere bai. / Artikutzako itzaiak dira gehienak, ta pagua beharko dute berehala. / Gurdi zura hartu dio gizon bati ta harenzat ditu, paguaren alderako.*
- pagua eman du** ad. Ordaindu. Irundarraiz gaztigatu diotet; orañ artoak ereiten ariko dira, baño mea ekar dezatela ta pagua emanen diotedala.
- pake txarra egon du** ad. Bakerik ez egon. Orañ lengoak pagatzen ez ditugula, ta ezpaditugu pagatzen pake txarra dago hemen, puntutik puntura hemen dira.
- pake txarra eman du** ad. Bakerik ez eman. Hoiek konponzen ezpadira, pake txarra emanen dute.
- pakea egiñ du** ad. Ta behar ezpadu, errespuesta yakiñ nahi luketela laster, ez dutela urtetako parat[*u*]*ko* pakea egiñ edo atzera-aurrera ekusi artea.
- palanka** iz. *Bi burni ziri ta palanka...36 libras. / Kaparena gelditu ta palanka bat egin diotegu, 17 libras pisatu du, ta gañerakoak bealduko ditu. / Kaparena ta palankarena gelditu, ta gañerakoak. Palanka 17 libras. / Martinmotzanekoak palanka 16 libras...4 pezetas. / Patxiku Kaspar honek esan dit nahi badu gelditu palanka, bere daritzan prezioa egiñta bealzeko pagua. 2½ arroba urri-urrian da palanka. / Ikus agoa palanka sarrera.*
- palanketa** iz. Palanka txikia, palangeta. *Burnia hartu du; 9 pezetas y 3 reales balio dute. Borra ta palanketa bi.*
- paper** iz. 1. Papera, dokumentua.<sup>40</sup> *Ez omen dute harrapatzen asenturik haren paperetan, nondik zer hartu duen, dirua eman dutenetatik argitasuna beharko dutela. / Leneko paperekoa gelditu zitzaidan...8½ pezetas y 22½ cuartos. / Mikolas Arpidekoa egun izandu da Doniyoanen, ta egondu omen da komesario behar zuenarekin, ta esan omen dio orañ etorri dela ta ez dituela despatxatu paperak, lau egunen buruko Oiarzungo komesarioaren itxera bealduko dituela faltarik gabe. / Nik kontuarekin bealdu ta berorrek ez zition egiñ kontuak, eta geroztik baditu horrara kontua bealduak, artemingo paperean bealdu nuen bezala, 127 días. / Olagizonakin kontuak egiñ nahi dituenen, bealduko dut burnien eta espensan kontua paper batean. / Papera libranzako ori bealzen balu, edo nik ez dakit zer egin. / Ta ematen dudana hilleko paperetan bealduko dut bakoitzari bere lanen oñean.*
- paperean asentatu du** ad. Ikus asentatu sarrera.
- paperean paratu du** ad. (paperean) asentatu. *Burni karraidoren hoiek, nahi badu, hurrengo hilleko paperean paratuko ditu.*
- paraje** iz. Aurkintza. *Añarberako paraj[e]an ere kandelan daude bi porzio. / Erretazoak Gazteluko errekan dira bi porzio, ta Zaldiriñan 560 karga-koa; gaztaña tantaia len izaten zen paraje honetan 190 karga.*

<sup>40</sup> ‘Gutuna’ ere bai?

- paratu** *du* ad. 1. Ezarri, ipini. *Itsas metal puxkaren baten modurik ezpada paratzen honarako, ez da gauza onik egiñen, haxiak dirala ere.* / *Martin de Arizabalori kupela konponzen ta erruda gurutzetan paratzen 2 días...004...00.* / *Suerte hartu diet 16 kuartilluan; 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan paratuko dutela, nahi duenak hartu, ez dutela berago jaitsiko esan didate. Paratu dute hamaseiean ta hartan itzali da, ta erreal bat eman diot.* / *Ola handitik aritzeko modua berehala paratzekotz, atera ta puxka bat estutu dugu bokan, baño eskarpa dauka errea.* / *Olioa neurrita paratuko diogu.* / 2. Idatzita, asentatuta egon; idatzi, idatzita utzi. *Espensan pagatzean, agostoan, ½ fanega haba 9 pezetas kontatua harrapatu dut, 4½ pezetas paratu beharrean.* / *Lengo asentu horien oñean paratuko dugu kontu hau ere noiznabi.* / 3. Prestatu, konpondu. *Erremientak paratzen ta ola perparatzen...1 día.* / *Ikus asentuan paratu eta kandelan paratu.*
- parazi** *dio* ad. Pararazi. *Bera etzen hemen, kandelarik etzen espero ta. Nere ofrezimentua dela kaso, Sarastik parazi diote kandelan. Hurrengo jaiean ageriko al da zertan gelditzen den!*
- pare** *iz.* Bi. *Eta hemen olan ere badira tretxu txiki abarrekin egiñak txabal bitarte batzuek, 20 lineatik goiti tretxua den bezala egiñak; orga pareren bat bada.* / *Jornal pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela.* / *Lamothi gaztig[a]tu egin beharko zaio, idorraz be[al]zekotz, handik gurdia bealzeko, edo idi pare bat eske.*
- pareko** *adj.* Aurkezekoa, aurrekoa. *Olaren pareko goiko larretik otekatan bere mutillarekin...1¼ días.*
- pareta** *iz.* *Hark bere puskak eramanagatik tellatua eta paretak besterik ez dagoela haren itxean.* / *Paretaren arretarik ez du orañik iñork harzen; egonen direla edo luzapidea beti.*
- parte** *iz.* *Zatia. Antonio maisuaren espensa parte da 10 pezetas y 2½ cuartos.* / *Arrago egurraren terzio parte....12 leras.* / *Arrago egurreko terzio parte...12 leras.* / *Indianoak gaztigatu dit parte nahi lukeala suertetik, ta nik gaztigatu diot berorregana eskribi dezala.* / **-en partez.** *Ignazio de Ezpondari Migel igelearen partez irabaziak.* / *Ordañako Alziberko urzallari nik eman niozkan 6 pezetas y 16 quintales Makatzen partez irabaziak.* / *Tomasen partez irabazi du Lorenzo de Alsuak 6 pezetas y 2 cuartos, ingudearen sartu-ateara gañera.*
- partidu** *iz.* *Taldea. Irundarra dute lagun bat partiduan, ta hark honara baño bestetara nahiago luke, noski.* / *Sujeto hau berau izandu omen zaio Aldakokoari, nola hemengo laguna nahi duen Txurritegik, eta nahi badu partiduan sartu.* / *Zuloakoak berak honara eman nahiagatik ere, beste bi lagun badira partidukoak, eta haiek Isasolara lenago limurtuko dira, dirua frontoxeago izateagatik.*

- partitu da/du** ad. 1. Banatu. *Dotazioa ematean ta pago partitzean 2 azumbres de vino...01...3. / Eta nahi bazuen edo bazeritzan olajaunak partituko ziotela. / Guziak botatzekotzat ere, lengoai partitzeko diña baso da. / 2. Hautsi. Herriaren kabi txiki hau ere ustaiaren gañetik partitua zegoen. / 3. Zatitu. *Suerte partitu da sei puskatan. / Suerte partitua dago launa puskatan Erroizpeko ixidutik bi aldetara puska bana. / 4. Despeditu. Markosekin egondu naiz ta San Migelez etorzeko partitu gera.**
- pasatu da/du** ad. 1. Igaro. *Arotzak pasatu dituzte mendian a 10 reales...3 días. / Bi igeleak eta urzalle Josek badituzte ola perparatzen pasatuak 1½ días bakoitzak. / Bost egun baditu ikatzketako bideak egiten pasatuak, basotatik kanporako bideak konponzen. / Olatxoan pasatu ditu 24 días ubagan. / 2. Bizi. Semeak eranzun diola basoko irabaziarekin eziñ pasa dai-tekeala hura. / 3. Gertatu. Behiñ noski «lau urretxiki» esan du, ta ea lan egiñ guzia zaldaletan yaten zuten bada, edo zer pasatzen den, ez dakiela hark zorzi hillabete honetan. / Ikus kontuan pasatu sarrera.*
- pazingille** iz. Paziak egiten dituena. Zernahi gisaz, *pazia* ‘pertzta’ da, eta *pertz-killeak* «lantegiko maixuak» ziren burdinoletan (Garmendia, 1977: 124). Guk Arizkungo *Iberria* baserrian ikusten genuen *pazine* zerrien jana prestatzeko ibiltzen zen, arbiak egosteko, zehazkiago esan. Bi lekukotasun hauek ditugu eskutizotan: 12 de noviembre *pazingillea* fierro *kabilla* 29½ libras...12 pezetas y 8½ cuartos. / (*Pello maisuak*) *pazingillea* zor zuen ta burnia eman diogu.
- Pazko larunbat.** iz. *Trabajatu du hamabi aste, ta Aste Santuan hiru egunez trabajatu zen, ta Pazko larunbatean olatxo (sic) aritu zen.*
- Pazkoak** iz. *Pazkoetako bi hoguei ezkutuko behar nituke nik ere.*
- peligro** iz. Arriskua. *Iñork egurra eramateko, peligroan egurrik Oielekutik beiti da, karraiadoreak hutsik heldu diranean karga bailitezke; bestetan ez da peligrorik.*
- pensamendu** iz. *Gure pensamendua ekusia dago.*
- peon** iz. Peoia. *Peonak: Manuel de Esnau...14 días, Batista de Tomasenea...19 [...] / Peonak: Migel de Irigoien...21 días, Manuel de Esnau...15 días [...]. / Sobre dira 22 pezetas hargin ta peonen kontuetan.*
- peonko** iz. Peontza, peoiaren lanbidea. *Kaperok hartu nahi du Arragoako peonko lana alde batera, mutilla ere badu. / IBk peonza darabil: «Peonzan sartuak presako ura gelditzen eta azekiak garbitzen sartuak, Anbrusio Zubeldia Tranpak...12 días».*
- perparatu** (arruntean), **preparatu** (behin) *da/du* ad. Prestatu. *Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxoa perparatu orduko. / Bi igeleak eta urzalle Josek badituzte ola perparatzen pasatuak 1½ días bakoitzak. / Erremientak paratzen ta ola perparatzen...1 día. / Kabia egin zenean ola preparatzen ta kabiguña sarzen egin zutena da. / Ola hasitzeko aurreko larunbatean eguna pasatu zuten ola perparatzen. / Ikus prestatu sarrera, beherago.*

- pezeta** iz. *Erreterian mea garbitzen ari diran oiarzuarrai eman ditioztet bi pezeta, mea zare bi ta bihorzeko bat pagatzeko. Orañ gelditzen dira 20 pezetas sobra. / Hamar ezkutukotik sobra dira 8 pezeta ta 4½ kuarto; 6 urretxiki emanta. / Urretxiki bat ta hiru pezeta ta erdi baditu nik emanak. / Ikus bost pezetako eta hoge pezatak sarrerak.*
- pilla** iz. Mukurua, meta, multzoa. *Sarastik omen zuen pilla hartan eresia 800 quintales eta pisatu omen dute.*
- pillare** iz. Harroina. *Kanpoan ez dagoela lantegi onik, pillaretan edo zillegi ez den tokian gehinak aritzen dirala. / Ikus 1806.11.02ko eskutitzean dioguna.*
- pillota yoko** iz. Pilota partida. *Ta olatxokoak, gaur Erreterian pillota yokoa da-ta, arratseko etorriko direla joanak han dira.*
- pisatu du** ad. *Antonio maisuak ta anaie Josek pisatu dituzte 27 quintales y 5 arroas. / Franzisko de Orendainek pisatu ditu haxiak amabirjinak ezkerro...12 quintales y 4 arrobas. / Galzatxikiren semeak pisatu zituen haxiak 7½ arrobas...03 pezetas y 25½ cuartos. / Hoietaz gañera dira horrara etorri ziren haxiak, hemen pisatu gabeak. / Kaparena gelditu ta palanka bat egin diotegu, 17 libras pisatu du. / Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten mandazaiak; luma bat pisatzen ez egurrak, ta halere.*
- piska** iz. *Lengo kontu piskaren gañera eskatzen dute 30 ezkutu, laster pagatuko dutela.*
- pisu** iz. *Damianek agindu dit eskasaren kanta dadukala Lamotheke pisuaz. / Fielai pisuetara etorrita emana...01...00 (pezeta).*
- pitxer** iz. *Ariztxulegi aldeko lorrean ta Eraringoan gastatu dira bost pitxer ardo. / Arrago bakoitzeko jornalak...31 días. Ogi bat eta pitxer bat ardo gañera. / Arragoako ogi bat eta pitxer ardo ere kontu honetan sartuak dira. / Itzaien gonbitea bi pitxer ardo...01 pezetas y 22 cuartos.*
- pizkortu da/du** ad. *Bizkortu. Semea orduko pizkortuko da, ta bitartea pago bat edo bi ekarriko ditugu zerratzeke.*
- planta** iz. *Landarea. Baltasarren semeak-ta aldatu omen dute 300 planta, pagoa erreal zillar bana berorrekin partituta; Indianoak esan omen zion aldatzeke. / Diferenzia erdira badere, pagatu beharko du, 1.400 ezkutu, ta plantak gañera. / Fausto Olaizarrekoak esan dit, aurten aldatu nahi baditu, plantak emanen dituela, mintegian bakoitza 5½ kuarto, ta igarzen dena hirutatik bat jasoko duela, ta errespuesta bealzeke. / Franzisko Antonio de Riberek eta bere anaieak paratu dute 1.200 planta Otsandolan. / Honetaz gañera plantak nola dituen, heldu da 1500 ezkutu plantakin. / Plantak paratu dituztenak...112...17. / Ikus aza landare eta tipula landare sarrerak.*
- planta onean egon da** ad. *Jarrera ona izan. Garatekoak ere geldirik daude polboraren faltan, ta Munoako hau-ta ere planta onean daude; sikiera Erreteriatik mea ekarriko genuke, zerbait eman ezkerro.*

**planta txarra iduki(tu) du** ad. Itxura txarra eduki. *Martiñen semea miñez zagoen len, ta jaikitzen hasi deneko Martiñ bera errenditu da, ta planta txarra halere zaukan egun.*

**plantxuela** iz. Olan egiten zen burdinazko peza zapala. Horien erabileraren karietara badakigu, adibidez, Errenteriako Añarbeko ola handiko tximianian bazirela batzuk (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 92). *Arotxarengat bealdu ditut Ziburura plantxuelak [...]. / Kuadroak 27 orga eta plantxuelak 7 orga. / Kuadroetan badira eskastuta juanak artoa batzuek plantxuelatik, eta kabillatan ere bai, 8 artoa bezala. / Plantxuelak bealdu ditugu Lamothengana, bi kintal kuadro naste dituztela azkeneko orgarengat, eskastuta; plantxuelak 9 orgas, kuadroak 15 orgas. / Plantxuelak egiñ ziran kuadroa baño len, 16 quintales, eta kuadroa ezkerero egiñ dira 35 quintales, orañik eraman gabeak.*

**plantxuela lodi** iz. Burdinolan egiten zen burdinazko peza. 20 de marzo *plantxuela lodia...1. / Guk ez dugu JRMren gutunotan ediren, baina Donibane Lohizuneko J. Darretxe Lamothek plantxuela miar darabil.*

**plazeria** iz. Baso puska baten ustiapena. *47 karga hoiien plazeria hutsa da, a 5 reales...235 reales. / Buruzuriaren plazeriak paga ditezke. / Isasolakoak zer plazeria eman duten Baltasarrengandik yakiñen dut Ama Birjinaz, ta gaztigatuko dut. / Karga bakoitzarengat kontatu behar da 9 reales, plazeria bost eta karretoa lau real. 87 kargaren karretoa ta plazeria da 89. / Martin Jose de Goñik gaztañadian zer plazeria zuen ez nago seguru. / Motelak eskatzen du, botea libre, pezeta bat plazeria. / Plazeri eske daude guziak.*

**plazo** iz. 1. Epea. *Eta ekusi dute, eta martxoan eta setienbrean esaten du, baño esan didate gobiernokoak nola errematean paratu zen lenbizikoan San Estebanez plazoa zuela, hartan ekibokatu dirala. / Indianoak esan dit errematean paratu zela, plazoa San Estebanez zuela, baño eskriturak martxoan ta setienbrean esanen duela. / Sebastian de Agerren amarekin egondu naiz ta esan dit mandoa guzia zorra dagoela, lenbiziko danda edo plazoa sanantonetako zutela, baño ez dutela pagatu batere. / 2. Ustiapenaren balioa. *Basoaren plazoa...4.506¼ reales. / Berorrek martxoan pagatu omen zuen suertearen plazoa edo erdia, eta olarenik ez.**

**poliki** adb. *Makatzen urzalle hura poliki ari da; libre baliz, Juansendoren lekuan!*

**polsero, folsero** iz. Diruzaina. *Folseroak erakutsi dit gobiernokoak eman dioten kargua edo papera pagoena ta haritzena. / Polsero difuntuar[i] 220 urretxiki emantako erreziboa beal beza. / Zor dugunaz polseroari kargua emanen diotela, kobratzeko.*

**portatu da** ad. *Xanjuani laguna txitt gelditu zaio, baño portatu nahi badu, berorrek basoa utziko ez duela dio.*

- porte** iz. Garraioa, karretoa. *Arragoako jornalak ta bost orgaren porteak ere badira zor 126 pezetas y 3 reales vellón. / San Fermin aurretik ta ondotik juañ ziran 17 orgatan edo portetan.*
- portxan** adb. Bortxan, bortxaturik. *Arrago egur honetara iñor eziñ erakarriz, beti gabilza egueldi onak utzita. Gero txarrean erre ta portxan etorrita; denbora txarra lera egur onik etorzen [ez] da.*
- porzio** iz. Zatia. *Añarberako paraj[e]an ere kandelan daude bi porzio. / Batista hemen zen egun, ta hark esan dit Juan Migeli eman hobeko zaiola 200 kargako porzioa. / Bi porzio erretazo hartu dituzte yoan den astean, memoria-larekin, 19 kuartilluan: 780 bat, ta bestea porzio txiki bat. / Erretazoak Gazteluko errekan dira bi porzio. / Gureztat Antonsoro aldekoa ta Artikuzakoarengat Erarinaldea, ta beste sei puskak bi aldetatik nasten dira hiruna porzio, milla bana karga bezala bakoitzarenzat. / Hiru porziotan paratu ziran pagoak, ia bi milla karga, ta badira porzio bakoitzean. / Puxka honek esamiña 360 karga arrago egur ta guzia zuen, ta arrago egurrak onena harzen du, ta hargatik paratu dute esamiñan 300 karga, ta honetan hartu dut porzio bat, 300, eta bestea 760; guzia da 1060 karga, 6 reales.*
- porzionista** iz. Baso edo mendi puska bat, porzioa, ustiatzeko hartzen duena. *Ni nago olajaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpoko mea hoietan txar asko ateratzen da. / Nik esamiñadoreai beharrik ez genuela esan nioten, ta porzionistak atzera samar egon laitezke, behar ez dugulako.*
- posesioa hartu du** ad. *Nik esan diot Ariztiburukoari posesioa hartu baño len hoientzat gelditzen badira meatzeak, alkua pasatu beharko dutela, kanpoan ez dagoela lantegi onik, pillaretan edo zillegi ez den tokian gehinak aritzen dirala. / Señoarekin egondu naiz ta esan dit 40 egun honetan miñez dagoela, eta aditu duela posesioa nola hartu duten, eta laster kausara atera nahi lukeala, eta yakiñen duela zer indar edo moduak ekarri dituzten, eta aditzera emanen didala laster zer egiten duten.*
- poto** iz. Burdinolako erruedak zituen pala modukoak ziren potoak, makoetan sartuta zeudenak (ikus A. M. Mitxelena 2020b: 45, 47 eta 279). *Larramendik (1882: 67) potas dakar, pluralean: «...y recibe en sus rayos de palas ó potas todo el golpe del agua de la antepara». / Eskutitzetako leku-kotasuna: Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal, barrengo ol txiki haiek ematekotz, ta bestela lau onza bezala luzeagoak beharko dute.*
- pozik** adb. *Meatze ona yarri ezkerro meakariak pozik ariko dira, deretxoa berak pagatzen dutela ere.*
- pregoi** iz. *Endarak gaztigatu du meza enzun beharra dela, ta bigar enzun ta etorriko dela. Nekez akabatzen ditu mezak ta pregoiak hark!*
- pregoietan iduki(tu) du** ad. *Ezkontzeko puntuan izan. Ogidunak esan dit errotariak estutzen duela ta dirua bealzeko. Bidasorokoak ematen diote ogia, ta alaba pregoietan daukate, ta preziso behar omen dute.*

- presa** iz. *Kabillan aritzekotz hor edo Arranbiden egiñ beharko dira. Orañ berehala presarik ez da, orañ gaia erosi ta geroxeago egiñen dugu; arotzak era dutenean beharko.*
- presaka** adb. *Luis Zuloakoaren kontuan ez dakit burnien kontua txuxen eman ote nion. Munoakoa ta Garatekoa ta hirua illundu-ta etorri ziran paper billa, ta presaka ez dakit zer egiñ nuen ere burnian.*
- presentatu** du ad. *Bestela hari gaztigatzera dihoala memoriala presenta dezala. / Erretazoak len 19 kuartilluan bezala, igandean 20 kuartilluan paratu zituzten, ta batere bajatu ez, ta esan zuten nahi zuenak memorialarekin presentatzeko, ta gero ere kandelara beharko zutela memorialaren gañean. / Hurrengoan guretzat asmoan dagoen Zuloakoak ta bere lagunak egiña eramanen dute, ezpadugu dirua presentatzen lenago. / Memoriala presentatu omen dute meatze yabeak; Aldakokoa eta Olaizolaren jabea-ta atera omen dira.*
- presente izan** da ad. *Gobiernoko guziak presente zirela esan zidaten niri.*
- presentean** adb. *Une honetan, orain. Juakin Aketzaren ikatza egun biko diña izanen da, eta hemen besterik ez da, presentean behinzat.*
- preskura** iz. *Freskura, lotsarik eza. Endara igandean heldu baliz bezañ preskura ederrean orantxe etorri da.*
- prest** adb. *Pello ez da orañik hasitzeko prest, igandea artea behinzat. Gorrak ere atzo aste honetan makurka ez aritzeko esan omen dio.*
- prestatu** du ad. *Ola hasitzeko denboran pasatu dute ola prestatzen egun bat, eta bigarren egunean eguerdi ondoan hasi ziran. Nik yatera eman. / Ikus perparatu, preparatu sarrera, gorago.*
- presumitu** adj. *Larunbatean elementutan olatik yoan ta igandean egueldi txarraz gelditu, ta astelenean illunabarreko olara. Hagitz presumitua da au berau ere.*
- pretendiente** iz. *Hartu nahia, izangaia, lehiagaia. Pretendienteak izanen dira noski Gazteluko.*
- pretenditu** du ad. *Nahi izan. Andresek esan dit norbaitek ola pretenditzen duela ta berorregana agertu bat egiñen ote duen dagoela. / ...baño nola dioten jendeak ola pretenditzeko asmoak dituztela. / Eta Damianek len satisfazio osoa niri eman nola pretenditzen duten, eta gero hutsa atera zaiotenean ederzeko konpondu du [...]. / Franzisko Antoniok-eta pretenditzen dute olaitxean bizitzea, eta niri neskatxak eta biak esan didate berorri mandatu hau egiteko [...]. Eta nik esan diotet lenago pretenditua dela, baño ez dakidala hitzemaña den [...]. Eta nik len pretenditu nuen, lengoak izateko asmoan, erreka (sic) alderdi bat. / Gazteluerrekako hoiek Seingoak pretenditzen ditu, dirua izaten badu behinzat. / Puska hau Juan Migel Aranguangoak pretenditzen duke.*
- pretensio** iz. *Nahikaria. Aldakoko nagusiak esan dit koñado Galardik izandu ere badu pretensorik olaz, honek ez dakiela izandu duela, gezurrak dira-*

*la guziak. / Manuelek berak ere badaki pretensio honen berri, baño mandaturik ez du noski egiñen. / Salbadorrek kontatu tit hoiek, eta izan zitekean Andres indianoak edo gobiernokoak aipatuta juana Salbadorrengana, deus pretensiorik ote zuten jakitera. / Sarastik esan dit gobiernokoen aurrera eramanazita sanmigelak aldera direla, ta urte bateko-edo pretensiorik badu agertu edo zerbait egiñ dezala.*

**prezio** iz. *Andresen itzenzat gaztigatu du prezioa. / Aranzateko mea, olajabekak geldirazi zuen hura, eman nahi dute, baño len pezetan entrega hasi giñan ekarzen, baño orañ goiko prezioa nahi dute. / Aranzateko olatik a 2 reales prezioa...27½ quintales. / Donostian ogia zorzi kuartoan dagoela esan du Manuelek, eta prezio diferentetan ebilzen omen da, anitz dagoenean merkexeaigo eta gutxi denean garestiago. / Eror zatik ehun kintaleko 60 pezeta prezioa...426 quintales y ½ arroba. / Herriari zenbat pagatu behar zaion, prezio hura hemen zor du Anaxurik. / Ogia hoge pezetan dago, ta prezio honetan dagoño 38 kuarto beharko du ogi bakoitzak.*

**prezioa egin** du ad. *Prezioa paratu. Aldakokoak badu gaztañadi hoietan, ta salduko duen galdatu diot ta baietz esan dit, ikatzgille batek ekusi dezala ta prezioa hark egiten duenean har dezagula. / Honara ematen badi-tuzte, guzien prezioa batean egiñen dela, korrientena dabillen prezioa nahiko dutela.*

**preziso** adb. *(behar izan-ekin). Nahitaez. Agerrekoak eskatzen dute 30 ezkutu preziso behar lituzketela; semea ezkonzen omen zaiote. / Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxo perparatu orduko: zepoa atera ta sartu, ta ardia sartu, ta tormentategia konpondu ta, bada hemen lana franko ta preziso egin behar dutenak. / Eta hoiek eta aurrerako zerbait eman beharko zaiote mearik izatekotan, ta preziso behar dugu, olarik aritzekotan, mea belza. / Markosek hoge ezkutukoren bat besteri kendu diola, ta gastatu duela, eta igandeko preziso behar duela dio. / Martin Aldakokoak esan dit gaztigitzeko berorri nola gaztañadi bat harzeko tratuan den, eta preziso behar litukeala bere kuartoak. / Ostaleroak edo tabernariak gaztigatu dit igandeko behar dituela ardoen diruak, mandazaiari kontua emanen badio preziso behar dituela. / Paskual de Isasak esan dit haren kuartoak bealzeko, San Martin eguneko errenta pagatu behar duela preziso.*

**primabera** iz. *Udaberria. Primaberan botea izandu da orañdañoko egurra.*

**probestu** iz. *Herrizaina. Erretazoak inportatzen du 50 cargas, 18 cuartillos; tantoa 6½ cuartos ta probestuaren pezeta gañera. / Eta probestuari niri kalean esateko esan omen zioten. / Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera juan naizanean, gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski, arratsaldeko haragi puska bat maneatzeko agindu dutela sagardotegian.*

**propio** iz. *Gutun mandataria, eskutitz mezularia. Goizuetara propioa Fermin Joseph zenaren kasoz paperen eske berorren kartarekin...02...00. / Juan*



*den igandean ere propioa juan, Azenzio, ta baietz agindu, ta astelen arratsko olara zen. / Karta hori apaizak bealdu du, propiorekin badere bealzeko. / Ziburura bi yorrada eginta, propioari...03...00. / Irudi du Sarako 1842ko gutun batean ere badugula izen hau.<sup>41</sup>*

**proposizio** iz. Proposamena. *Gero hutsa atera zaiotenean ederzeko konpondu du: gure proposizioa bazen, etzuela metitu nahi. / Silbestrez gure proposizioaren konturik ez [...]. / Urteberrin Damianek berak esan dit nola hartu duten gure proposizioa ekusi dutenean.*

**pujatu** du ad. *Kandela jo, lehiatu. Eta orañ ez dakiela kontrarioak pujatzen hasi diranean utziko duen edo segituko duen berriz.*

**puntutik puntura** adb. *Behin eta berriz, une oro. Irundar hoiek iskanbilla franko badarabilte alderago mea dugunean, orañ lengoak pagatzen ez ditugula, ta ezpaditugu pagatzen pake txarra dago hemen, puntutik puntura hemen dira.*

**puska** iz. 1. *Zatia. Bost puskatan batek erditik txuritzak baditu, baño osoan orobat para ditekeana dago. Eta 600 kargako honetan Pellok eskatzen du puska bat. / Haizarka honetan beti maxura da; burnirik eziñ berotu da, aldetatik puska dariola. / Puskarik handiena da...600 karga. / Suertea partitu da hamabi puska, eta Artikuzakoarenzat tokatu dira aldenekoak eta onenak, eta urrutinekoak eta txarrenak ere bai. / 2. Gauza (arropa eta tresna). Eta graziak handiak egiten tiodala, baño ez [duela] predarik harzeko, hark bere puskak eramanagatik tellatua eta paretak besterik ez dagoela haren itxean. / **puxka** iz. Xatia. Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak. / Bekoa erdi bana dugula goian puxka bat hartuko nuke. / Kanpoko la[n]gillekin sarri beko galzadan litzake gure lur puxka. / Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera juan naizanean, gastu puxka<sup>42</sup> bat gebixeago izanen dudala noski, arratsaldeko haragi puska bat maneatzeko agindu dutela sagardotegian. / Xardeari ta Madarikoari puxka bana eman, ta gañerakoan Jeronimo ta Axeria ta Matxinoa konponduko dira.*

**puska eman** du ad. *Adabakia, zatia paratu, adabatu. Nik esan diot negurako diña nolaerebait paratu ez daitekean, ta ezez dio, goian puska emanen litzakoala betik ona balego, baño guzia galdua dela.*

<sup>41</sup> «Modu untan direlacoz gure eta zuen derechoac, posible bada biyar arrasaldean Gazteluc (cein etci partitcen baita) eta nic nai genuque zuequin aurquitu Navarlasan, afera guzietan acort, eta tranquil izateco. Deseatcen dugu beraz placer bacenuquete avisatcea gure propiyo berarequin conbeni zaitzuen» (Apezetxea, 2006: 432; izkirio lodia gurea da).

<sup>42</sup> Hitza gainean azentua duen s-arekin idatzia dago, sabaiko soinua adierazi nahi zelako. Ikus sistema grafikoari buruzko kapituluaren honetaz mintzatzean dioguna.

- puskaka** adb. Zatika, zatitan. *Gobiernokoai esan behar ziotela puskaka paratzeko, kandelan puskatan ziren ezkerro pagoak.* / **puxkaka** adb. Xatika, zati txikitan. *Akabatzen ditugu zorrak, berdin burnien kontu puxkak, maiz puxkaka emanagatik ezagun gabe janean al ziran.* / *Gañerakoak, batean ta bestean, hemen darabilzit, nekazaleai berorrek bealdu artea puxkaka emanaz.*
- puxka bat** adb. Tarte bat(ez). *Indianoak, noski, esan diote daudela puxka bat deretxorik eman gabe.*
- rata** iz. Ehunekoa, portzentajea, norbaiti dagokiona. *Sei pezeta, eta 5 de abril emana soldaduen rata pagatzeko horrara gaztigatu nuen 5 pezeta. Hor asentatua ezpada, kargatu behar zaio.*
- rebaja egiñ du.** Kendu, gutxitu. *Igande arratsean etorrira tobera erre ta lanik egiñ gabe yoan ziran, ta aparitean gastua egin zen bi pezeta. Espensa honi rebaja egiñ behar bazaio, nola irabazi etzuten, paratu dut hau.* / *Ikus rebajatu sarrera.*
- rebajatu da/du** ad. Kendu, gutxitu. *Hartuak rebajatura harzekoa da hau.* / *Hemen dagoena baño gehiago badago, honetara rebajatu behar zaio.* / *Hiru anega babaren txartela hartu dute. Espensa rebajatu behar zaiote 6 pezetas y 5½ cuartos.* / *Hoiei abonatu ta Tomasi rebajatu beharrak dira hoiek bere irabazitik.* / *Hoiek dira bakoitzari rebajatu beharrak.* / *Joseph de Olaziregik irabazi du Makatzen partez 6 pezetas y 16 cuartos. Hau Makatzi rebajatu beharra da.* / *Ikus bajatu eta rebaja egiñ sarrerak.*
- sagar** iz. Sagarra, fruitua. *Ola handikoak sagarra hoienzat ere (berorrek) hamar bat karga billatzen balu berearekin batean diote.* / *Sagar horiek hamaika makill. Zamorako nagusiak bealdu ditu horrara bealzeko, ta Sisto hori bealzeko, besterena duela ta.* / *Sagarra Goizariña bealzeko pagatua...3..10½.* / *Zamorako Agustinek esan dit sagarrekin bealdu zuen Sisto hura bealzeko.*
- sagardo** (eskuarki), **sagar ardo** (behin) iz. *Ogi egilleai sagardoa salze-sari deus bealdu nahi badiote; niri ez zidaten deus hartu.* / *Olatxoko sagardoa ematen duenak eskatzen du hoge ezkutuko bat.* / *Pello hasi da erremienta paratzen ta ardoa beharko, ez da sagardorik.* / *Sagar ardoaren diruaz ere galdatu dute 137 pezetas y 32 cuartos / Sagardo hoiek espensan zeñenzat zenbat bealduko dut txartel bat; len ere bealdu nuen ta orduan (berorrek) asentatu ezpazituen.* / *Sagardo txarra egiteko onzirik ez dugu-ta, kupela egiñ behar nuke.* / *Sagardoak balio zuen...137 pezetas y 32 cuartos.* / *Sagardoaren kontua ere nahi badu bealdu; eskatu ez didate, baño gaurgero nahiko dute noski.* / *Zagiren bat ardo bealdu nahi badu... Sagardoak orañ badira, baño Manuel Juakiñek ez du asmorik sagardorako.*
- sagardotegi** iz. *Probestuak esan dit, hamaiketako pagatzera jua naizanean, gastu puska bat gehixeago izanen dudala noski, arratsaldeko haragi puska bat maneatzeko agindu dutela sagardotegian.*

- saiatu** *da ad. ...eta esan diotet itzaiai, egun kargatu baitira, irundar Baionara dabilzanai esateko bost lagunen kargak badaudela, ta etorri nahi balute kargatzera, ta saiatuko dirala esan dute. / Nondik-nahi saiatu ezkerote ratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere. / Pezeta kontuan saiatu giñan itzaiekin, baño ez daude hartako. / Sebastian Torrekoak esan dit, berorrek ez egitekotz, saiatu behar duela bestetan.*
- saihets** *iz. Haspoak eginta gelditzen dira osorik bi braka eta bi ijada, eta larru berrian saihetsak<sup>43</sup> hamar puska.*
- salariatu** *iz. Soldatapekoa. Hoiien dirua bederetzi egun baño len nahi lukete, errenta edo salariatua konponzeko.*
- saldu** *du ad. Agerren sei anega baba dira ta, olarako asmoan, nik geldituak daude saldu gabe. / Aldakokoak badu gaztañadi hoietan, ta salduko duen galdatu diot ta baietz esan dit. / Aranederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko eta herri guzia hargana dihoa. / Babarik ez dut, ta hemen ez da salzeko batere. / Guziak saldu nahi hoiek, suertea ta ola guziak. / Idiak itxean ditu ta bere gauza salzeagatik ekarriko zituela omen zion. / Pagoak saldu dira 1.000 karga 16 kuartilluan. / Rezibituak burniak salduta.*
- salgai izan** *da ad. Irungo guk egin genituen bi puskak ere salgai dira, ta beste gehiago ere bai.*
- salsa** *iz. Saltsa, istilua, nahaste-borrastea. Alkate Porturi esan omen zion gurekin konpondu zela, karretoak hark egiteko eta karretoaren diña baño gehiago eramaten bazuen gure karraidorekin bazuela kontua, ta honelako salsa batzuek. / ...ta konponduko ditut nik ikatzgilleak ta gobiernokoak, salsa hoiek akabatu ditzagun.*
- salsa paratu** *du ad. Kalapita plantatu, iskanbila sortu. Anatxuri nik ez dakit zeren esperoan ebilli den honenbeste salsa paratuta; zorioneko harzeakoak dauzki honek karraidoretan.*
- salsak izan** *du ad. Istiluak, egitekoak, arazoak ukan. Orañ Anatxuri honekin ditugu salsak.*
- salsan ebilli** *da ad. Istilutan, arazotan ibili. Anatxurik etorri ta eraman egin nahi du, ta gero karraidoreai kargatu, baño ematera orduko norenzat den jakiñik ematea hobe da, salsan gero ez gabilzan. / Hurrengo honara heldu denean egiñ behar dugu tratua, beti salsa hoietan ebilli gabe.*
- salsan izan** *da ad. Istiluan, nahaste-borrastea sartuta egon. Andres bera izan liteke konponzio hoietan dabilena, ta bera ere salsan izan liteke, Andres, niri daritzadanaz.*

<sup>43</sup> Originalean *sayetsaq* idatzirik dago.

- saltoka ebilli** *da ad.* Basoa laster akabatuko duela, ta hasi nahi lukeala non-bait, ta hau hemen hasitzea gonbeni litzake, bestela saltoka dabilena paratzen badugu, munduak erdia eramanez digu, ta ikatzgilleak berak beste erdia.
- salze-sari** iz. Zerbait saltzeagatik ordaintzen dena. Ogi egilleai sagardoa salze-sari deus bealdu nahi badiote; niri ez zidaten deus hartu. / Ikus botatze-sari eta ekarze-sari sarrerak.
- samar** adb. Berotzalle berrixkoa izan laiteke; noski, orañik gaztea da, baño maisukoan ere ongi samar ari dela diote. / Nik esamiñadoreai beharrik ez genuela esan nioten, ta porzionistak atzera samar egon laitezke, behar ez dugulako. / Salvador juañ zen kandelaren alde samarrera, eta uste omen zuten jendeak olagatik zabillega.
- San Esteban, sanestebanak.** Done Eztebe egunaren karietara egiten diren bestak, abenduaren 26an. ...baño esan didate gobiernokoak nola errematean paratu zen lenbizikoan San Estebanez plazoa zuela. / Indianoak esan dit errematean paratu zela, plazoa San Estebanez zuela, baño eskriturak martxoan ta setienbrean esanen duela. / Mendibururi esan diote zerbait, haren falta izandu dela, besteak sanestebanak aipatu dituzten denboran eskriboak yakin behar zuela. / Ola handikoak esan didate San Esteban pasatuta astearte goizean hasiko direla.
- San Fermin.** Fermin santuaren omenez egiten diren jaiak, uztailaren 7an. Gaur horrara etorri asmo zuen berorregana, eta Bautistak gaur-bigarretan Artikuzara juateko esan diotela, eta San Fermin ondoan horrara agertzeko asmoa du berak. / San Fermin aurretik ta ondolik juañ ziran 17 orgatan edo portetan.
- San Matias.** San Matiasen eguna, maiatzaren 14a. Eskola maisuak esan dit San Matias ez jaitziko dutela 1.600 ezkutura.
- San Migel, sanmigelak.** Done Mikelen ohoretan egiten diren bestak, irailaren 29an. Geroztik San Migel artea berotzalle pasatuak...5 semanas y 1½ días. / Markosekin egondu naiz ta San Migelez etortzeko partitu gera. / Sarastik esan dit gobiernokoen aurrera eramanezita sanmigelak aldera direla. / ...ta berotzalleak egiñak ezpaditu sanmigeletan etorriko litzakeala horrara.
- San Sidro.** Done Isidro eguna, maiatzaren hamabosta. San Sidro egunean atera dutela ia hogeit bat kintal.
- sanantonak.** San Antonioren ohorez egiten diren jaiak, urtarrilaren 17an. Sebastian de Agerren amarekin egondu naiz ta esan dit mandoa guzia zorra dagoela, lenbiziko danda edo plazoa sanantonetako zutela, baño ez dutela pagatu batere, ta jabeak eramanez diotela.
- sanjuanak.** Done Joaneren omenez egiten diren bestak, ekainaren 24an. Martin Aranzatetik sanjuanetan libratuko omen da.
- sanmartiñak.** Done Martieren omenez egiten diren jaiak, azaroaren 11n. Igele goizuetar hau ere sanmartiñetan Hernanira omen dihoa bizitzera.

- sarale** iz. Abereen bazkatarako belar ondua. *Saralerik erosi gabe pasatuko nintzake, eta gañerakoak ere orañ honara nahi duten maxterrenzat sobra dira, bai, maneatzeko.*
- sardiña** iz. Eguerdiko libra bat haragi hiruai ematen hasi naiz; sei sardiña, 12 kuarto, ta olio gañera behar zituzten, ta orañ 9 kuarto, libra bat haragi. / *Gazta bat eta zorzi arraulza ta lau sardiña.*
- sari** iz. Ikus botatze-sari, ekarze-sari eta salze-sari sarrerak.
- sarri** adb. Aurki, laster. *Bekoa erdi bana dugula goian puxka bat hartuko nuke, baño guk bestetaz lanak egi[n] nahi ta kanpoko la[n]gillekin sarri beko galzadan litzake gure lur puxka. / Mea zuria ere egiten dute eta Isasolara daramate, ta sarri belzak eta guziak eramane dituzte.*
- sartu** da/du ad. 1. Sartu. *Bigar hor jaiia nola baita iñor izanen ez dela, gaur egiñ dut txartela hau; bigarko ogiak ere sartuak dire. / Haizarka konponzen, errueda konponzen, gurutzeak sarzen ta zepoa estutzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia. / Kabiguña sartu dute ta ezkutua usatzen dela diote. / Maisuaren espensari sartu zaio baba, gutxi gorabera eginta. / Ola handiko kabiguña sartu...1½ pezeta. / Olatxoko kabiguña sartu...1½ pezeta. / Tobera erre da. Moztu ta estuturik sartu dugu; berria beharko da. / 2. Igaro, denbora eman. Arragoa deskargatzen sartu dira olatxekoaz kanpora 7 días. / Endara juan zen hemendik 20 de abrillean; geroztik orañ aste bat sartu du Kosmeren itxean, ta hemen hurnitzen dira kuadroak 9 quintales. / 3. Lanean ari izan, lanean hasi. Geroztik, marzo de 98, han pasatu zituen 1½ semana, Juan Franzisko zena juanta, haren lekuan gero aprendiza sartu baizen. / 4. Egin, osatu. Hiru lantegi sartu beharko ditugu baso honetan: Pello Esnaú, Anton Xardea, Uegun edo beste bat.*
- sartu-ater**e iz. *Haspoen sartu-ateretan...2. / Ingudearen sartu-aterrea, bergamazoia egitea, boba eskatu ta bobatzea. / Tomasen partez irabazi du Lorenzo de Alsua 6 pezetas y 2 cuartos, ingudearen sartu-aterrea gañera.*
- sartu-ater**e eragin du ad. *Astelenean bildu ta ingudeari sartu-aterre eragin genion arrats artea, ta gabaren gañera ez hasitzeagatik, goizean hasi ziran.*
- sartu-ater**ea egin du ad. *Bi igeleak eta urzalle Josek badituzte ola perparatzen pasatuak 1½ días bakoitzak, hasitzeko denboran, ta ari dirala ingudeari sartu-aterrea egiten gau-egunak galdu dituzte.*
- saski** iz. *Saskiak hautsi dira hamasei, hamar kuarto ta erdiña.*
- satisfazio** iz. (Gogobeteko) azalpena. *Beste anitzetatik ere aditzen nuen, baño Damianek satisfazio osoa eman dit, Aldakokoak kargua duela Galardirentzat. / Eta Damianek len satisfazio osoa niri eman nola pretenditzen duten, eta gero hutsa atera zaiotenean ederzeco konpondu du [...].*
- sebo** iz. Bilgorra. *Seboa 1 libra eta lakadi bat iriñ...1...13½.*
- segitu** du ad. 1. Jarraitu. *Eta orañ ez dakiela kontrarioak pujatzen hasi diranean utziko duen edo segituko duen berriz. / 2. Joan. Honen lagunak dio*

- hogei pezetakoa orañ hartu ezkerro, diru beharrik ez dutela, artoa ta baba behar dituztela itxolara segi dezaten.*
- seguratu** *du* ad. Seguru paratu. *Hemen gauza onik ez da. Martin egun etorri da bost lagunekin, ta erruda eskatzen hasita gezurraska goiaz erori da, seguratu gabea zegoen-ta, eta pareta yota puska bat bota du, ta guzia artesi goiaz.*
- seguru egon** *da* ad. *Martin Jose de Goñik gaztañadian zer plazeria zuen ez nago seguru.*
- sei** zenbtz. *Burnia hartu dute, artoa sei pezetakotik...4 arrobas y 9 libras. / ...hartuko duela 5½ realean, sei errealean pasatuko baita, honek eskatzen duen moduan. / Olatxokoak bigar akabatzen dituzte tretxuak, eta berotzalleak badituzte sei aste ta egun bat eta erdi. / Sebastian Juansendok sei egun ditu trabajatuak.*
- seigarren** ord. *Eta seigarrena burkalleko emangai dagoen hau ez yakin egiñen duten. / Lantegi seigarren eman gabe honetaz gañerakoak Isasolakoak baño hobeak dira gureak. / Seigarrena ematekoa dago.*
- sekulan** ez adb. *Bianizan aritu zenean borra bat eraman ta ez du sekulan entregatu.*
- seme** iz. *Begitoren semeak ta bere lagunak artotako zerbait behar dutela. / Katxoren bi semeak. / Bizirori esan diot berorrek nola esan didan, eta esan dit Joseph Antonen semea itsasoan dihoala. / Gregorio ta Motela semearekin ta ni izandu gera Belearn basoan. / Manuel Txotxak 20 pesos ta semeak 5 eskatzen dituzte, 25 pesos. / Munoako semeak, julio 98an hartu zituen 16 ezkutua pagaturik, egin zuen harzeko [...]. / Pepe Olaizkoaren semeak...6 duros. / Yokasegururen seme itxean duenak baditu lan egiñak...200 quintales.*
- sendatu** *da/du* ad. *Eta datorren astean egiñ beharko du adobazio honek, Martin bera sendatzen ezpada. / Urzalle hau sendatzen ez da, ta gaurgero lan hondarrak akabatu artea hemen beharko du.*
- seniparte** iz. *Ondarea. Izandu gera biak Sarastirengana, ta esan dio Sarastik borontatez aitaren zorra pagatu nahi badute haiengan dagoela, ta bestela, borondatearen kontra aitaren zorrak eziñ geldi dezakeala amaren seniparte.*
- senso, zenso** iz. 1. *Zor direnen zerrenda biltzen duen agiria. Alkatearen eskuetan dago, eta Juakintxok idukitu duen zensoan hipotekan sartuak ziran lurrak, eta orañ Iruñera jokatzeko asmoa dut. / Baño sensoaren erremedioa, batean egiteko edo emateko dirua, denbora txarrak nola zauden, guk ere geren beharra egitera egiñ dugu. / Hoiek nere kontuan asentatu nahi balitu, zorioneko senso hartarako. / 2. Hipoteka. Itxearen sensoaren korrituak pagatu ditut diru hoiekin, ta asenta bitza nere kontuan.*
- senti izan** *du* ad. *Sentitu, nabari izan, sumatu. Babarik Oiarzunan nik ez dut senti, ta hortik beal dezake. / EHn ipar. marka du sendi izan sarrerak.*

- setienbre** iz. Buruila, iraila. *Indianoak esan dit errematean paratu zela, plazoa San Estebanez zuela, baño eskriturak martxoan ta setienbrean esanen duela. / Setienbrean eta oktubrean olioa 30 kuartoan omen zen libra.*
- sikiera** lok. Bederen. *Agerrekoari esan diot orga txar bat egiteko, eta asmoa hartu dute okasioa denean; biren artean sikiera hobeki eramanez dituzte. / Ez egitekotan Galardiri eman ditzakagun sikiera, hark egiñ ditzan olak eta basoak, guziak har ditzala. / Garatekoak ere geldirik daude polboraren faltan, ta Munoako hau-ta ere planta onean daude; sikiera Erreteriatik mea ekarriko genuke, zerbait eman ezkeru.*
- Silbestre** iz. Urtezahar eguna. *Silbestrez gure proposizioaren konturik ez, baño nola dioten jendeak ola pretenditzeko asmoak dituztela, eta zertan diran [...].*
- sin falta** adb. Oroiki (faltarik gabe ere bada). *Emazteak errespuesta bealdu du Goizuetatik, abisatu dutela larunbateko sin falta aguardientea entrega dezala.*
- sobra** mailakatzaila (-egi-ren baliokidea). *Eta gureak gelditu dira baso ederrik ez, ta hagitz elbarririk ere ez. Sobra elbar dira guziak ere, noski.*
- sobra gelditu, sobran gelditu** ad. da. *Arotzak ta itzaiak pagatu ta gelditu zen sobran...9 pezetas y 13 cuartos. / Hoietarako 150 urretxikitatik gelditu zen sobra 35 pezeta ta zenbait kuarto. / Orañ gelditzen dira 20 pezetas sobra.*
- sobra hartu** du ad. *Irundarrak eman zidaten Goizariñan sobra hartua...02...2.*
- sobra izan da/du** ad. *Ardatzaren paguan ta burnian karretoan sobra nuen...00...3. / Arotzen diruetan sobra zen 1 pezeta y 10½ cuartos. / Arrago jornaletan sobra zen...00...02 y 1½ kuarto. / Diruetan sobra zena...1 peso. / Espensan diruetan sobra nuen...3 pezetas y 6 cuartos. / Hamar ezkutukotik sobra dira 8 pezeta ta 4½ kuarto; 6 urretxiki emanta. / Leneko astean 8 pezetas ta lenago hamalau. Sobra dira 22 pezetas bargin ta peonen kontuetan. / Saralerik erosi gabe pasatuko ninzake, eta gañerakoak ere orañ honara nahi duten maxterrenzat sobra dira, bai, maneatzeko.*
- sobratu** da ad. *Espensa honetarako berorrek emantako dirutik gelditua zen babatako, len sobratua 5 pezetas y 16 ½ cuartos. / Guziak botatzekotzat ere, lengoai partitzeko diña baso da; sobaturik ez dela, halere, ta uzteko-tan bere moduak hartuko ditu. / Hor bada asentua, gaztigatu nuen zer sobratu zen. / Horko kabilletan bealdu ditut lengo 7½ arroak ta 3 arroa gañera, sobratu ziranak. / 24 de abril. Berotzallen yornaletan sobratu zen...0 pezeta, 24 cuartos. / Zorzi urretxikitatik 6 anega ta bi lakadi a 9 cuartos pagatu zaio, ta sobratu ziran ola handikoen babatako 16 pezetas y 19 cuartos.*
- solamente** adb. Bakarrik. *Bi kintal burnia ea emanen tion eskuko miñak lau hillabete daramatzela, ta orañ hasitzeko behar lukeala, solamente erreal ta erdi bellonean.*

- soldadu** iz. *Sei pezeta, eta 5 de abril emana soldaduen rata pagatzeko horrara gaztigatu nuen 5 pezeta. / Soldadu hemen berorri eskatzen zion hura. / Soldaduenzat ikatza kendua, ta hura pagatu ta gañerakoa har genezela.*
- soleda** iz. Antaparako zurezko zola, solera. Ikus A. M. Mitxelena (2020b: 20). Behin bakarrik ediren dugu izena: *Orañ ere antaparan, soledan, zulo bat egiñ da; bi tresmotxo behar ditugu. / IBk «antaparako solera guzia» eta «antaparako soleraraño» ditu, eta Goizuetan egun solera ibiltzen da.*
- solo** adb. Bakarrik. *Horko kabilletan bealdu ditut lengo 7½ arroak ta 3 arroa gañera, sobratu ziranak; solo Franziako burniai bezala, libra gehiagorik ez diotet eman kintalean. / Markos puxkaren batean ez da olarako. Solo Otxokiko medikuaren erremediokin ongi omen dihoa.*
- soñu** iz. Hotsa. *Irundar hoietan itzai bat dabilla meatan dirua etorri den galdaka; beste gehiago ere hasiko lirake diruaren soñua aditua balaukate. / Sarastiren larraña baño ezkerago atera dute denborazko olajaunen larrañ hondarrak, Unsañen larrañaren soñuan.*
- sorta** iz. *Orañ bi kintal al dira? Noski, lau sorta dira behinzat, astelenean etorriak.*
- sortu** da ad. Atera. *Ola handiak datorren astearen erdiko lanak akatuko ditu, ikatzak eta meak, guziak, eta olatxoan tretxu puxka bat geldituko da, ta honen diña ikatz sortuko al da noski baso zar hoietatik!*
- sos** iz. Diru baten izena. Diru xehea? *Orañ kostatzen da orga bakoitza 26 pezetas, ta gañera sosak ere bai.*
- soto** iz. Ukuilua. *Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua, baño orañ batere ez.*
- su** iz. Erremienta hoiek sura ezkeru malura franko badute. */ Olaizarreko alkateak esan dit gaztaña ikatza puxkaren bat suan daukala.*
- su eman du** ad. Piztu, izeki. *Lorenzo etorri zenean ingudeari su eman ta konponzen ta sarzen gau-egunak geldirik. / Lorenzo Zabalak, egitera etorri zenean, ingudeari su eman arratsean, ta biharamunean arratseko hasi ziran.*
- suerte** iz. Zortea, herriko etxean zotz eginda auzoko bati egokitzen zaion lur edo baso puska, ordainduta denbora tarte batez ustiatzekoa. *Buruzuriari itxola en 3 cargas Karrikatik suertera. / Isasolakoak lantegi batena suertean den ederrena dute, ta gañerakoak batzuek enbor hutsak. / Sanjuanek hor esan du noski gure suertean zenbat kargaren entresaka egin duten. / Suertea partitu da hamabi puska, eta Artikuzakoarenzat tokatu dira aldenekoak eta onenak, eta urrutinekoak eta txarrenak ere bai. / Suertea partitu da sei puskatan, eta guri tokatzen zazkigun hiru puskak egin ditugu biña puska. / Suertean iduriak bataren basotik bestera...2 cargas. / Suerteke basotan sartu dira 41 días.*
- suertea paratu du** ad. *Suertea ez dute paratu jaietan. / Suertea hartu diet 16 kuartilluan; 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan paratuko dutela, nahi duenak hartu.*



- suertean eman** *du ad.* Zotz eginda eman. *Lantegi baten basoa suertean ematekoa dugu orañik; burkaitz gaistoa da-ta eziñbestean hartuko dute, noski.*
- sujeto** *iz.* Pertsona-edo. *Andresek esan zidan ostiralean errespuesta egiñen zuela, baño aipatu nion duendeaz, baño etzidan aitortu, eta Aldakokoak esan zidan nola Oiarzungo suj[e]to bat jua zaion Txurritegiri ola harzeke [...] eta sujeto hau berau izandu omen zaio Aldakokoari.*
- sukalde** *iz.* Sukaldea eta gela baten forma paratu behar litzake olaitxean eta eskalerak ere beharko dira.
- sumatu** *du ad.* Karta egiñ nuen berorrenzat, eta Fagotxikikoak iñor sumatu ez dutela karraidorerik larunbatean, ta egun hartu dut atzera karta Fagotxikitik.
- suñ** *iz.* Suhia. *Andre horren suñak, pezetako mea hartatik aterea ta ekarzea, badu harzeke 45 pezetas y 7 cuartos. / Bidasoroko suñari Bonbon iazko artotako azkeneko resta...028...08½. / Isastiko suñak gurdia 4 arrobas y 17 libras...29...08½. / Manuel Antoniori kargatu behar zaio 8 pezetas y 24½ cuartos, ta abonatu behar zaskio ordañaz aritu denari, baita Iberoko suña Juan Franzisko de Alzate. / Pierresen suña hemen izandu da, bi orga txabal agindu zitiola berorrek, eta zer modu ote den yakiten.*
- sutegi** *iz.* Burdinolan mea erretzen den tokia. *Bi igeleak ingudea ateratzera etorruta, sutegia maneatuta, ingudeari tornua erasten hamar edo hamaitakak artea, ta gosalduta yoa ziran itxera. / Jose de Bengoetxeak zigillua sartu ta sutegi konponzen...1 día.*
- taberna** *iz.* Tabernara ezkerro zabarra omen da Bonbon hau behinzat. / Zagiko ardoaz gañera, tabernatik 10 azumbres y 1 chiquito a 24 cuartos.
- tabernari** *iz.* Ostaleroak edo tabernariak gaztigatu dit igandeko behar dituela ardoen diruak.
- taia** *iz.* 1. Jateko dieta, dirua (berez kontuak eramateko makilatxo da taia; bertan marrak egiten dira horretarako). *Abonatu beharrak ditu Munoakoak 150 kintal mea olara ekarriak, taia bete ta asentuak nauzkien, ta kontua ematean batere akordatu ez nintzan. / Beren taietatik yan zuten bi egunean. / IBren eskutizetan Taiatxiki(a) izeneko taberna edo ardandegia frankotan azaltzen da.<sup>44</sup>*
- talladera** *iz.* *Talladera bat egitea...1 (pezeta)...00 (cuartos). / A. M. Mitxelenak (2020b: 34) biziki interesgarria den erdarazko talladera-ren euskarazko baliokidea den epaiki dakar: «otra talladera que llaman epaiquia», eta geroago: «un instrumento que llaman epaiquia» (ibid., 219). Aipatu autorearen lanean ikusten den bezala (ibid., 74, 77, 146, 219, 247, 265, 283),*

<sup>44</sup> Adibidez 1803ko eskutiz bateko pasarte honetan: «Pello Maisuak esan zidan kontuak egiñ zituala Taiatxikiko ardoak sartu gabe, eta bialtzeko beurri zenbat ardo zituan».

- epaikiak agoa edo zamarrak eta burdinak (iltzeak, adibidez) mozteko ibiltzen ziren.
- tantai** adj./iz. Zur edo zuhaitz luze eta zuzena. *Gaztaña tantaia len izaten zen paraje honetan 190 karga. / Lau lantegi hoiek tantai hutsak, eta Josepe Lekunak bostgarrena.*
- tanto** iz. Edaria. *Erretazoak inportatzen du 50 cargas, 18 cuartillos; tantoa 6½ cuartos ta probestuaren pezeta gañera. / 3.600 karga 16 kuartilluan, tantoa erreal bat, ta hamaikatakoan gastatu da 6 pezetas y 25½ cuartos.*
- taratelu** iz. Daratulu. *Bi taratelu berriak olarako...004...17.*
- tella** iz. Arragoako telleriatik tellatan bi yorrada. / *Itzaia, tella eta lata ekarzea...3½ pezetas. / Pelo[a]gan tella erre da, ta nahi duen guziak harrapatuko ez du noski, ta dirua beharko da. 4.000 tella behar da; gutxienaz milla tellak balioko du sei ezkutu, 4.000 tellak...24 pesos [...]. Tellak eta kisuak...111 pezetas.*
- tellatu** iz. Bere itxetik olara ekarri du gurdi bat lata tellaturako. / *Beste arotzak lanak bigar akabatuko dituzte, olatxoko tellatua ez besteak. / Errueda konponzeko ta tormentategia eskatu ditut materialak, ta libratu dituzte, ta esan diotet tellatu hoiek ez erorzekotz konpondu behar dutela. / Hark bere puskak eramanagatik tellatua eta paretak besterik ez dagoela haren itxean.*
- telleria** iz. Arragoako telleriatik tellatan bi yorrada.
- terzio** iz. Herena. *Arrago egurrako terzio partea...12 leras. / Arrago egurraren terzio partea...12 leras. / Arrago egurreko terzio partea. / Hiru terzioak hiruna behar omen dugu. / Hoien deklarazioan terzioa kendu ta heldu da urte bakoitzeko 2.000.*
- tipula landare** iz. *Tipula landareak...2...00. / Tipula landareak...01...17. / Ikus aza landare eta planta sarrerak.*
- tiratu** 1. *du ad.* Agoa, burdina, buztandua, kabezoiak, tretxua edo bestelako peza egitea, itxuratzea, ijetzea. *Gaur ere etorri da mandataria, ta esan diot azken agoa aterata tira dezala nahi badu. / Hortik etorritako buztanduak erdiak tiratu ta eratsi gabeak, ta beste erdiak tiratzekoak daude. / Kabezoiak tiratzen aritzen da hemen allegatzen den denboran. / Martiñek esan dit, Arranbidetik ekarri omen du burnia, 6½ arrobas, ola handian tiratua. / Olatxoan tiratzea zenbat pagarazi gaztigituko du; nahi badu tiratzea tretxua da 5 arrobas y 17 libras, eta tiratzekotz zenbat pagatu behar duten gaztiga beza. / 2. dio aditza. Abian jarri, ekin. Ola hasitzeko aurreko larunbatean eguna pasatu zuten ola perparatzen, ta astelenean, arratsaldean, haspoari tiratu zitzaion, ta bitartea guk yaten eman. / Otsoaneko Sebastian, berorrek agindu diola burniai tiratzeko,<sup>45</sup>*

<sup>45</sup> Ikus 1801.11.28 gutunean dioguna.

- ta beñere ondotik eziñ kendu dut. / Ikus agoa tiratu eta burnia tiratu sarrerak.*
- tobera** iz. Hauspoetatik sutegira zihoan kono itxurako hodi modukoa, frankotan erretzen zena. Ikus A. M. Mitxelena (2020b: 58, 196, 217, 218, 283). Autore honek biltzen dituen lekukotasunetan toberak kobrezkoak zirela edo izan zitezkeela ikusten da. Dirudienez, Hernanin egiten edo konpontzen zituzten toberak, eta berebat Ainhoan. Gutunetako testigantza batzuk: *Bi agoa egin diraneko tobera erre da edo hautsi kañoien mugatik [...] ta Azenzio bealdu dut Añoara toberarekin. / Igande arratsean etorrita tobera erre ta lanik egiñ gabe yoan ziran, ta aparitean gastua egin zen bi pezeta. / Olatxoko tobera galdua dago ta lana dago orañ berria egitea ere. / Sei egunekoak ditu 13 semanas y 4 días, ta pezeta batekin Añoara toberarekin biaje bat. / Tobera beal beza. Ola gelditu da eskarpa guzia erreta eziñ ariz. / Tobera erre da. Moztu ta estuturik sartu dugu; berria beharko da. / Tobera Hernanira bealzea...001...00. / Tobera Hernanira bealzea ta ekarz[e]a...2...00. / Tobera Hernanira bealzea ta lengoa ekarzea...002...00. / Ikus boka, erkarpa eta kañoi sarrerak.*
- tokatu** da/zaio ad. Ezkurra horko mandazaiaren anaieari Jose Ignazio Garatekoak berorren mandatua esan dio, ta aitari Garateko doterik ez zaiola tokatzen. / Ezkutu bana tokatzen zaiote. / Juan Antonio de Belaskori tokatzen zaio. / Suertea partitu da hamabi puska, eta Artikuzakoarenzat tokatu dira aldenekoak eta onenak, eta urrutinekoak eta txarrenak ere bai. / Suertea partitu da sei puskatan, eta guri tokatzen zaskigun hiru puskak egin ditugu biña puska. / Tokatzen zaiona eskatzen du.
- toki** iz. *Gazt[el]u alde honetan, ta Ariztxulegira goazela, bide azpitik biru yorradako tokia da urrutinekoa. / Kanpoan ez dagoela lantegi onik, pillaretan edo zillegi ez den tokian gehinak aritzen dirala. / Neguan kintal bat burnia egoteko tokirik ez da itxe honetan.*
- topatu** du ad. *Sebastian Txulo ez dut orañik ekusi; bera topatzeagatik ez naiz itxean izandu.*
- tormentategi** iz. Olako peza, gure datuen arabera gabitegian zegoena (zein zen jakiteko ikus bedi A. M. Mitxelena 2020b: 19, 37, 194). Goizuetako erdal dokumentazioan *Ylatormentategia* ere ediren dugu, ‘hilen tormentategia’ itxuraz. Aipatu autoreak (*ibid.*, 41, 284) *tormentaguia*, *tormenteria*, *tormenta*, *dormienta* dakartza (denak ere erdal agiritatik atereak), baina euskarazko gutunetan *tormentategi* forma osoaz besterik ez dugu: *Arotzak badituzte jornalak olan tormentategia konponzen...4 días. / Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxoa perparatu orduko: zepoa atera ta sartu, ta ardia sartu, ta tormentategia konpondu ta, bada hemen lana franko ta preziso egin behar dutenak. / Errueda konponzeko ta tormentategia eskatu ditut materialak. / Ola handiko tormentategian ta erruda*

- haspategikoa konponzen pasatu zituzten mendian 3 días, a 10 reales...30 reales. / Puska berriak beharko ditu barrengo aldetik edo nondikerebait, eta ola handiko kabitegiko tormentategi honek ere aurtengo udan. / Esan behar da A. M. Mitxelena (ibid., 241) tormendategui ere jasotzen duela.*
- tornillu** iz. Torlojua. *Martiñek dio errudako kabillak txabeten lekuan tornilluak behar lirakeala, laxaitzen denean estu ditekeala.*
- tornu** iz. Lanabesak, borrak eta ingudeak konpontzeko tresna (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 126). *Bi igeleak ingudea ateratzera etorrira, sutegia maneatuta, ingudeari tornua erasten hamar edo hamaikak artea, ta gosal-duta yoa ziran itxera.*<sup>46</sup>
- traba** iz. Hauspoen funtzionamendurako zuraje, mako eta sokak edo kateak ziren trabak (A. M. Mitxelena, 2020b: 285). *Ariztxulegitik trabak...1 día. / Bi igeleak eta Nikolas urzallea haspoak, uhagak eta trabak sarzen...½ día. / Olatxoko kabiguñ bat ta bi traba 1 pezeta y 29½ cuartos.*
- trabajatu** du ad. Lan egin. *Luis difuntuaren anaie «Honbretxo» esaten dioten hura ari da berotzalle, len ere hemen trabajatua baita, eta pasatu ditu bi aste eta lau eguneko bat. / Trabajatu du hamabi aste, ta Aste Santuan hiru egunez trabajatu zen. / 21 día (sic) pasatu dituzte trabajatzen. Sebastian Juansendok sei egun ditu trabajatuak.*
- trabaju** iz. Lana. *Errespuesta igande bitartea nahi luketela, hoien trabajuari merezi zaiola jornal hau.*
- traste** iz. *Eta borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen tiodala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko.*
- tratu** iz. *Hurrengo honara heldu denean egiñ behar dugu tratua, beti salsa hoietan ebilli gabe. Batekin tratua, ta berori honara heldu ezpada, horra bealduko dut konponzera.*
- tratua egin** du ad. *Hurrengo honara heldu denean egiñ behar dugu tratua, beti salsa hoietan ebilli gabe. Batekin tratua, ta berori honara heldu ezpada, horra bealduko dut konponzera.*
- tratua erabili** du ad. *Aranederrekoak bestek ez darabill ogirik salzeko eta herri guzia hargana dihoa-ta, dirua eskuan nahi, tratu anitz erabilzeko.*
- tratuan izan** da ad. *Martin Aldakokoak esan dit gatzigatzeko berorri nola gaztañadi bat harzeko tratuan den, eta preziso behar litukeala bere kuartoak.*
- traza izan** du ad. *Antza izan. Ta idortuta hala gorriago emanen duela orañgoak ere esan didate, baño ez dute elkarren trazarik.*
- trazatu** du ad. *Markatu. Bean 400 karga bezala Batistarena bi aldetatik duela, eta hau Sanjuan Txutarengat trazatu dugu. / Ta galdatu diot zer dari-*

<sup>46</sup> Alegia, ingude puskatuari tornua erantsi, paratu zioten, hautsitako zatiak elkarri itsasteko, antza. Uste izatekoa da erremintak altzairatzeko ibiltzen zuketela tornua.

*tzan, esamiña hoietaz zer daritzan, ta esan dit honi daritzana dela...  
gobiernokoren batzuekin egondu omen da, errenta zenbat egiñen duen  
edo egiñ dezakean, ta trazatu omen dute.*

**tresmotxo** iz. Burua moztutako zuhaitza. *Orañ ere antaparan, soledan, zulo  
bat egiñ da; bi tresmotxo behar ditugu.*

**tretxu** iz. Burdinoletan egiten zen burdinazko peza, itxuraz hogei lineatik  
goitikoa. *Alzibertik tretxutan...7 jornadas. / Egun goizean olatxoa ez  
dugu hasi, tretxurik bealduko ez duen beldurrak. / Eta tretxuarekin txaba-  
bala idi ferratzekoa egiñ nahi dute. / Haspagilleak kintal bat edo lau edo  
bost arroa kuadro eskatzen ditu, ta sei kintal tretxu beharko dira. / Lau  
edo bost kintal tretxu beharko dira behinzat. / Olatxokoak bigar akaba-  
tzen dituzte tretxuak, eta berotzalleak badituzte sei aste ta egun bat eta  
erdi, eta kabia konponzen aritua egun bat horietakoa. / Ta gero tretxu ale  
batzuek dira kuadro egiteko. Egunen batekoa lana, euririk ezpada. / A.  
M. Mitxelena (2020b: 285) *trechu corricas* dakar erdarazko testuingu-  
ruan, hots, *tretxu korrikak*, *tretxua* berotzeko edo erabiltzeko trukesak.*

**tretxu txiki** iz. 12 quintales *badira Erreterian ta olan, ta tretxu txikian, hoie-  
kin burnitxo meharragoa ez egitekotz, labor geldituko da. / Hemen olan  
ere badira tretxu txiki abarrekin egiñak txabal bitarte batzuek, 20 lineat-  
ik goiti tretxua den bezala egiñak.*

**tretxua buztandu** du ad. Ikus *buztandu* sarrera.

**tretxua egin** du ad. Agoak *apaindu* ezkeroko *tretxua* eginen luke. / Dozena  
bat kintal *tretxu badago* egiña. / Iten Jose Bengoetxea *bi urzalle hoiekin  
lau lagunean tretxua egin dute* 19 quintales *trechos*. / *Tretxu hoiek egiten  
pasatu dira* 41 días, *erremienta ta maxuratakoak gañera*. / *Tretxua egiñ  
arte* erre *dira hamalau galbai ikatz, ta karga zenbat galbairekin egiten  
den neurriko dugu astelenean.*

**tretxua tiratu** du ad. Ikus *tiratu* sarrera.

**trukatu** du ad. *Mandoaren jabe*ari eman zioten *zaldia atzera ekarri beharko  
dutela, lengo zaldi txiki hura, ta 58 ezkutu pagatzeko hartu omen zuten,  
ta atzera trukatu egiñ beharko dituztela. / Munoako itzaia egondu zen  
Patxikorekin. Zuloakoak idiak trukatzeko modua duenean behar duela  
dio dirua.*

**tupia** iz. Tupina, eltzea. *Olarako tupia bat erosi dut.*

**txabal** iz. Burdinolan egiten zuten peza zabal zenbait. *Arranbideko txabale-  
tatik, gu pisatzen izandu ezker*o, *allegatu dira zertaraño baitere  
Erreterian, eta guk ere hangoak pisatu genituen* 200 barra. / *Hemen  
olan ere badira tretxu txiki abarrekin egiñak txabal bitarte batzuek, 20  
lineatik goiti tretxua den bezala egiñak. / 60 kintal behar diran zabal  
honetatik falta dira orañik* 15 quintales. / *Hoiek dirade Ziburura beal-  
duak ta orañ txabal txiki honetatik orgaren bat bezala dago egiña. /  
Pierresen suña hemen izandu da, bi orga txabal agindu zitiola berorrek,*

*eta zer modu ote den yakiten. Eta esan du hamar orga orobat hartuko dituztela, nabiz kuadro ta nabiz txabala, ta dirua izanen dela burniak entregatzean berehala. / Ta bigar goizean hasi ta etzi arratsaldean entregatzeko modua izanen dugu txabalak. / Tretxuarekin txabala idi ferratzekoa egiñ nahi dute. / Txalupak eraman ditu txabalak 58 kintal. / Ikus zabal sarrera.*

**txabeta** iz. Kabila mota bat (gaztelaniaz *chaveta*). *Martiñek dio errudako kabillak txabeten lekuan tornilluak behar lirakeala, laxaitzen denean estu ditekeala.*

**txalupa** iz. *Txalupak eraman ditu txabalak 58 kintal; itzaiak txalupa huts egin zuten larunbatean.*

**txapon** iz. Txanpona. *Azkeneko bi puska hoiek txapon bana beharko dute gehiago. / Gizon hark berorrek pezeta agindu ta hark gehiago behar zuela, txaponen bat-eta ziola [...] / Librako txaponak dakar...01 pezeta y ½ cuarto. / ...ta egiñ zezala esan ziola berorrek, ta etzekiela txapona hura onduko ote zuen esan zidan niri, eta pezeta zela nago berorrek eskeñi ziona.*

**txar** adj. 1. *Ona ez dena. Guziak txarrak dira, baño halere hoberentxonak goiko puskan [...]. Txarra da, baño beste modurik eztago, botatzekotan. / Ni nago olajaunak kalterik ez dutela porzionista hoiek auzia irabazteaz, zergatik kanpoko mea hoietan txar asko ateratzen da. / Olatxean den artorik txarrena beko begira egondu giñan honetan dago. / 2. Txikia, ezdeusa, balio gutxikoa. Agerrekoari esan diot orga txar bat egiteko. / Itxe txar hau dena betetzen da arto ta lastoz. / Nahi badu beren itxe txarreen urteren bat iragoko dutela gehienaz ere.*

**txartel** iz. Zerbait erosteko ibiltzen zen paper puska idatzia, gero dirutan ordaindu behar zena. *Babarik hartu badu, bi olatarako egin dezake txartela; hemen ere laster beharko da. / Bautista mealleak arto puxka baten txartela behar duela, batere ez duela-ta. / Bigar hor jaia nola baita iñor izanen ez dela, gaur egiñ dut txartela hau; bigarko ogiak ere sartuak dire. / Horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den yakin nahi lukeala, ta gatzigatzeko txartel batean. / Sagardo hoiek espensan zeñenzat zenbat bealduko dut txartel bat.*

**txe** adj. *Xehhea. Beste lau puskek egur txea dute, baño leku onak dira. / Guzia txea eta lur kolorea zuen meak, eta orañ euriak garbituta agertu zaio metal belz zakar hau.*

**txetxo** adj. *Xehettoa. Egur txetxoa da, baño leku onak dira gureak.*

**txiki** adj. *Hoiek dirade Ziburura bealduak, ta orañ txabal txiki honetatik orgaren bat bezala dago egiña. / Mandoaren jabeari eman zioten zaldia atzera ekarri beharko dutela, lengo zaldi txiki hura. / Zertan gelditzen den beste puxka txiki bat ere bada salzekoa. / Ikus urretxiki sarrera.*

- txiki ardo** iz. Litro laurden ardoa (*chiquito de vino* erdaraz). *Jose Bengoetxeak eta Juan Franzisko urzalleak badute txiki bana ardo.* / JRMren gutunotan behin baizik ez da ageri *txiki ardo*, baina IBrenetan frankotan azaltzen da,<sup>47</sup> eta egun Goizuetan bizirik dago oraino.
- txirla** iz. Mea ateratzean egiten den txirbil modukoa, txirlora (ustez). *Nondik-nahi saiatu ezkerero ateratzen dute puxkaka, baño lengo gorri hau bezañ txirla gutxirekin beste hondarratako hoiek ez dira izanen, idortuta ere.* / *Xilitarrak ateratzen orañ ari diran meak lengoak baño belzago ematen du, eta txirlak baditu.*
- txitt** adb. *Txit-en* aldaera txikigarria. Txoil, oso-edo. *Xanjuani laguna txitt gelditu zaio, baño portatu nahi badu, berorrek basoa utziko ez duela dio.*
- txokolate** iz. *Juan Martiñek goizean txokolatea hartu du lau egunean.*
- txotx** iz. Zotz txikia. *Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal.*
- txuritz** iz. Zuriunea, hutsunea, zuhaitzik gabeko gunea. *Bost puskatan batek erditik txuritzak baditu, baño osoan orobat para ditekeana dago.*
- txuxen** adb. *Luis Zuloakoaren kontuan ez dakit burnien kontua txuxen*<sup>48</sup> eman ote nion.
- uda** iz. *Puska berriak beharko ditu barrengo aldetik edo nondikerebait, eta ola handiko kabitegiko tormentategi honek ere aurtengo udan.* / *Udan behiak mendian diranean sotoan izaten da lekua, baño orañ batere ez.*
- uhaga** iz. Burdinolako errueda edo gurpiletara ura sar zedin edo uraren emana geldi zedin txinboa goratzen edo beheratzen zuen haga. A. M. Mitxelenak (2020b: 21, 289) *ubaga* ere biltzen du, ez baita harritzeko, ur hitzaren eratorri batean. Lekukotasun hau dakar (*ibid.*, 147): «*Se hallan las ubagas con los chimbos y sus fierros y ganchos en los tirantes*». Eskutitzetako testigantzak: *Bi igeleak eta Nikolas urzallea haspoak, uhagak eta trabak sarzen...½ día.* / *Olatxoan pasatu ditu 24 días uhagan, ta kontua egiñen du.*
- uhagari** iz. Uhagari eragiten diona, uhagaz arduratzen den burdinolako langilea. *Josepe igelea libre da ta ura egiten badu ere, uhagari batekin egun horietakoa egiñen da.* / Erka bedi lorreko hagari-rekin.
- ukitu du** ad. *Despojoak ez zituen iñork ukitu igandean.*
- unai** iz. Behizaina. *Matantak omen ditu ganzak horrara bealduak, ta Martin unaiaren deskita nik esan diot.* / *Unailekutxiki* toponimoa ere azaltzen da eskutitzotan.<sup>49</sup>
- ur** iz. *Aste hau utzi egin beharko da, bai, urak kendu ta lan guziak egiteko.* / *Eta erruda honek berriz makoak bota ditu, ispia guziak zuzitu ta galdu*

<sup>47</sup> Esaterako 1803ko gutun batean hau daukagu: «*Goizetako txiki ardoak...5*».

<sup>48</sup> Originalan *chussen* idatzirik dago. Ikus 1800.05.07 gutuna eta, berebat, sistema grafikoa aztertzean dioguna.

<sup>49</sup> Ikus 1795.12ko eskutitzean dioguna.

- zazkio, ta urak kenduta hemen ari gera. / Euririk egiten badu ere, hare-rik urak eraman ez dezan erakarri ditugu itzaiak. / Gazteluko urak ateratzeko eman zituen 8 urretxikitatik lau hoiek pagatzeko konpondu ziran lagunekin. / Ignaziok esan zuen atzo, gaur eramatekotan, hurrengo egu- netan urik ez dela. / Urak ateratzeko berorrek eman zituen 8 urretxikie- tatic hoiei kargatu beharrak dira 4 urretxiki.*
- ura egin du** ad. Antaparako uraz arduratu (ustez). *Josepe igelea libre da ta ura egiten badu ere, uhagari batekin egun horietakoa egiñen da. Azenzio bealdu dugu itxera.*
- urak yan du** ad. *Aldeak edo mako hoiek ilzerik eziñ errezibitu dute, erdi leku- tan urak yan ta galduak daude.*
- urdai** iz. *Itxekoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko, ta gal- datu dugu ta hamalau kuartoan katzik gabea, ta hamazazpi kuartoan gazitua omen daude.*
- urgon** adj./adb. *Urguna, maingua, herrena. Errotari urgona ere maiz aski ondotik dugu. / Orañik hanka erretako hartatik urgon dago Jose Ignazio.*
- urretxiki** iz. *Diru baten izena (orillo erdaraz). Erorzako meatik orañ bealdu duten gizonak dira berriak; 6 urretxiki zituzten hoiek hartuak, ta itzaiak 10 urretxiki; hoien gañera Korgerekin bealdu zituen 20. Horra guziak: 36 duros. / Goiarara urretxiki batean ekarriko omen ditu. / Hamar ezkutu- kotik sobra dira 8 pezeta ta 4½ kuarto; 6 urretxiki emanta. / Hoietarako 150 urretxikitatik gelditu zen sobra 35 pezeta ta zenbait kuarto. / Hoietarako hartuak dira 15 urretxiki. / Labianok bealdu ditu 99 urretxi- ki ta 5 reales y 2 cuartos, ta hoiei zer egiñ abisatuko du. / Urretxiki bat ta hiru pezeta ta erdi baditu nik emanak.*
- urretxiki zar** iz. *Diru baten izena (orillo viejo erdaraz). Hoietarako ditu har- tuak hamar ezkutuko bat ta bost urretxiki zar baitira...66 pezetas y 19 cuartos. / Hoietarako hartuak ditu bost urretxiki zar ta hamar ezkutuko bat. / Joseph berozalleak febreroan kontuak egiñ ezkerro hartuak omen ditu hamar ezkutuko bat ta hamaika urretxiki zar. / Oiarzungo beroza- le guziak [...] ta eskatzen dute herritik kanpora atera ezkerro urretxiki zar bat. / Ta berorrek bealduak nik eman nitiozten agostoan bi urretxiki zar.*
- urri** adj. *Eskasa. Ogi urria da ta hemengo errotatan, berriz, dirua eskuan due- nari merkexeago, ta kreditara nahi duenari gehiago pagarazitzen diote.*
- urri-urrian** adb. *Eskas-eskasean. 2½ arroba urri-urrian da palanka. / Eta jor- nal pare bat añaditzea daritzat ongiena izanen dela, nahi duguna hobeki eragiñen zaiote urri-urrian jornalak dituztela baño.*
- urrutineko** adj. *Urrunenekoa. Gazt[el]u alde honetan, ta Ariztxulegira goa- zela, bide azpitik hiru yorradako tokia da urrutinekoa. / Suertea partitu da hamabi puska, eta Artikuzakoarenzat tokatu dira aldenekoak eta one- nak, eta urrutinekoak eta txarrenak ere bai.*



- urte** iz. *Andresek esan dit leneko urteko errentan hari osoaz kargu egiñen diotela. / Munoako semeak, julio 98an hartu zituen 16 ezkutuak pagaturik, egin zuen harzeko, arrago jornalak azkeneko pagatu ziran denborako, orañ hiru urte, baita 14 ½ reales. / Nahi badu beren itxe txarrean urteren bat iragoko dutela gehienaz ere. / Orañ urte bat gehiago eta 600 inutill baditu esamiñan.*
- Urteberri** iz. *Urteberrin Damianek berak esan dit nola hartu duten gure proposizioa ekusi dutenean.*
- urtebete** iz. *Eguerri juan denean urtebete ezkerro Erreneriatik mea...224 quintales. / Egun urtebete hoiek biak kontua hartu zuten hemendik, ta gurdi burniak ez nituen sartu kontuan, ta esan zuten aipatu zituztela kontuetan.*
- urzalle** iz. *Urtzailea, burdinolako lanbidea, mea urtzen zuena (gaztelaniaz fundidor). Larramendik (1882: 69), meallea aipatu eta ondoan, honela dio: «El otro (ferrón) acercándose á la fragua con una palanca gruesa y larga de hierro, y que levantándola con sus morcillos casi férreos, la mete hasta el fondo de la fragua para ver ó saber el estado del agoa, y si la vena está bien derretida, y la menea y sacude con la palanca, llámase urtzallea, fundidor, derretidor». / Eskutitzetako lekukotasunak: Bi igeleak eta urzalle Josek badituzte ola perparatzen pasatuak 1½ días bakoitzak. / Bi igeleak ta Nikolas urzalleak badute erremienta giten egun bana. / Bi urzallenzat pezeta bana...2. / Makatzen urzalle hura poliki ari da; libre baliz, Juansendoren lekuan! / Ordañako Alziberko urzalleari nik eman niozkan 6 pezetas y 16 quintales, Makatzen partez irabaziak. / Trakulo urzalleari olan irabaziak...10...22. / Urzalleakgatik, eta len bealduen gañera, beste paper hau eman nion Patxikuri.*
- usuario** iz. *Ola handitik ari diranean kuartillua gehiago omen da usarioa.*
- usatu du** ad. *Ohikoa izan (ustez). Kabiguña sartu dute ta ezkutua usatzen dela diote.*
- ustai** iz. *Uztaia. Errotaberrikoari guk ustaiak egiñ ez, ta etorri da, kupela yosten ari dirala, eta berorrek ezpadu emateko gaztigatzen ere, dirua emanen didala, eta haizarka zarraren ustaiak eraman ditu [...]. Lau ustai eraman ditu. / Ganboko Arotxarengat bealdu ditut ustaiak. / Herriaren kabi txiki hau ere ustaiaren gañetik partitua zegoen. / Kupelaren ustaiak ere beharko ditugu hemen. / 25 quintales ustaiakin dira...75 quintales. / Ikus barrika ustai eta kupel ustai sarrerak.*
- ustaitu du** ad. *Zerbaiten (ardatzaren, gabiaren, kupelaren...) inguruan uztaiak paratu, hots, inguruan metalezko zerrendak ezarri, hura indartzeko. / Ardatza ustaitzen trece días...6½ pesos. / Markos Pototori ardatza ustaitzeko jornalak lau egun...07...17. / Ikus aurreko sarrera.*
- uste izan du** ad. *Harriaren gañean zegoen ikatza, ta uste baño ere lenago attu zaiku ikatza. / Irundar hoiek hemen dabilza ondotik, ta hor izandu zira-*

*nak nola ekarri baitzuten beren kontua, uste dute nere falta dela. / Probenziako pezeta ere itzaien jornalean sarzen zela uste omen zuen Lamotheke; hura libre pezeta hartatik. / Salbador juan zen kandelaren alde samarrera, eta uste omen zuten jendeak olagatik zabilleta. / Sebastian Agerre difuntuaren amak esan dit deskuidorik ote duen kontuetan, ekusi dezala, hark uste zuela gutxiago badere harzekotan zegoe-la.*

**ustel** adj./adb. *Martiñek dio guzia ustela dagoela, ta ez dela gauza onik egiñen, eta betik ispia ta alde olak emateko lekuan ere guzia ustela dagoela.*

**utzi** du ad. *Bigarren arratsa ere geldirik egin zuten, baño maisukabia ardatzak azpian hartuta goiz artea utzi egin zuten. / Erariñan Zuloakoa ta Agerrekoa han ziran lorrean, ta hoiinak utzita beste zazpi ezkutu lodiak beal bitza. / Juakin honi lagunak ez dio utzi nahi basoa botatzen. / Migel de Irigoienek nola dituen 60 pezeta hartuak, haietarako uzten ditu jorنالak. / Orañ bota gabe uztekotan, dagokala goia edo betik, edo nola uztea nahiko duen adiraziko du. / Uzteko hobeak daude, noski, harzeko baño.*

**uztarri** iz. 1. (Metonimia bidez) idi para. *Ariztxulegitik ere sarzen da bederetzi uztarriren kontua kabiguñ birekin: 9 pesos 33 pezetas y 3 reales. / Erariñan goiara ta kapirioak, eta Oielekun ardia; bederetzi uztarri juan Erariña, ta hononzean ardia Oielekun hartu ta, guziak kargatuak, beiti etorzeko modua da. [...] Eraringo bederetzi uztarriak ezkutu lodi bana, 45 pezeta. / Esan didate olatxorako goiara Erariñan badagoela, haizeak botea, ta hura ekarzeko, ta lau uztarri beharko omen ditu zur hark goiko gañera ateratzeko, gutxienaz. / 2. Antaparan zeharka paratzen ziren oholak (ikus A. M. Mitxelena, 2020b: 20). Olatxeko aurreko zubian pasatutako maldatik uztarriak ekarzea; hau nahi duena kontatuko du.*

**ya** adb. *Ikus ia sarrera.*

**yabe, jabe** iz. *Andresk nagusiari kontatu besterik ez du, Olaitzolako yabearena da errota hura. / Feliz igeleak esan dit berorri gaztigitzeko errenta pagatzeko estutzen duela itxe yabeak, eta ea kintal bat burnia emanen dion. / Hoietan bost karga otsabeharriak dira; ikatz jabearenzat izanen dira 71½ karga. / Jabeak eramanen diotela, hoiek pagatzeko modurik ez daukatela, ta mandoaren jabeari eman zioten zaldia atzera ekarri beharko dutela. / Memoriale presentatu omen dute meatze yabeak; Aldakokoa eta Olaitzolare jabea-ta atera omen dira.*

**yabetu** da ad. *Ikus zorraz yabetu sarrera.*

**yakin, jakin** du ad. *Besteak sanestebanak aipatu dituzten denboran eskriboak yakin behar zuela. / Horko asentua ekusi ta zer zor gelditzen den yakin nahi lukeala. / Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna, ta jakiñen duela zer modu den. / Karga haiek ez yakin honara emanen dituzten. / Laster kausara atera nahi lukeala, eta jakiñen duela zer indar edo moduak ekarri dituzten. / Pierresen*

- suña hemen izandu da, bi orga txabal agindu zitiola berorrek, eta zer modu ote den yakiten. / Salbadorrek kontatu tit hoiek, eta izan zitekean Andres Indianoak edo gobiernokoak aipatuta juana Salbadorrengana, deus pretensiorik ote zuten jakitera. / Ta orañ ez yakin Seño honekin zer egiñen duten.*
- yan, jan 1. du ad.** Jan. Astelenean, arratsaldean, haspoari tiratu zitzaion, ta bitartea guk yaten eman, ta Lorenzo etorri zenean ingudeari su eman ta konponzen ta sarzen gau-egunak geldirik; honetan beren espensatik yan zuten. / Behiñ noski «lau urretxiki» esan du, ta ea lan egiñ guzia zaldaletan yaten zuten bada. / Beren taietatik yan zuten bi egunean. Ta lau ofizialeak biña egun badute ordukoa. / Bi igeleak eta Nikolas urzallea haspoak, uhagak eta trabak sarzen...½ día, ta jaten eman. / Haspagilleak jan dituzte 6 panes. // 2. iz. Janaria, jatekoa, mantenua. Eta hortik heldu den hargiñaren jana nola behar den konponduta beal beza.
- yarri da/du ad.** Erretazoak kandelatzekoak dira; jaierdian edo igandean yarriko dira. / Meatze ona yarri ezkerero meakariak pozik ariko dira, deretxoa berak pagatzen dutela ere. / Ikus kandelan yarri sarrera.
- yo, jo du ad.** Argiaren kontran egoten da, nahiz kandela jo behar ta nahiz ez. / Gurutze Santu arratsean ere ongi ebilli zen hagitz! Zeharretik yo gabeak erdiak, ta beste batzuek pasatu badere egin ziran. / Ikus kandela jo sarrera.
- yoan, juan da ad.** Bautistak gaur-bigarretan Artikuzara juateko esan diotela. / Bi porzio erretazo hartu dituzte yoan den astean, memorialarekin. / Dirurik gabe ez gehiago juateko esan zigun lengoan. / Eguerri juan denean urtebete ezkerero Errenteriatik mea...224 quintales. / Hau omen dago ongiena guzietan, eta laguneta[ra] Beldarrañ yoan denean, juan naiz bada ta esan diotet hartuko dudala. / Kanpora yoanta ere. / Probestuak esan dit, hamaiketakoa pagatzera juan naizanean, gastu puska bat gehieago izanen dudala noski.
- yornal, jornal iz.** Arrago egurra ematean juraduari yornala...002...00. / Arrago egurra emateko juraduaren jornal...02 pezetas. / Hiru hoiek diote igande datorrenean zorzitik aurrera ez direla lengo jornaletan ariko. / Ibarburukoak txartela babarena bealzeko, anega batena, arrago yornalen alderako. / Migel de Irigoieni arragoako azkeneko yornalak...002...17. / Munoako semeak [...] egin zuen harzeko, arrago yornalak azkeneko pagatu ziran denborako, orañ hiru urte baita, 14 ½ reales.
- yornalak abonatu du ad.** Eixigarrerekiñ-ta aritu da horren semea pagadian, eta esan didate Eixigarrek-eta horri abonatzeko mutikoaren yornalak, basoan harzeko egiñ dituenak, 28 pezeta. / Ikus abonatu sarrera.
- yornalak garbitu du ad.** Gaztigatu bezala-ta, arotz hoietan beharrak dira gehienak, ta yornalaz galdatzen dute ta garbitu behar lirake orañdaño-koak. / Ikus garbitu sarrera.

- yorrada** (arruntean),<sup>50</sup> **jorrada** (behin) iz. Garraioaldia (< erdarazko *jornada*). *Arragoa ongitzeko karea, Errenteriako mugako itxe batetik jorrada bat...8 quintales. / Arragoako telleriatik tellatan bi yorrada. / Errenteriatik babatan bi yorrada. / Gazt[el]u alde honetan, ta Ariztxulegira goazela, bide azpitik hiru yorradako tokia da urrutinekoa. / Markosek esan dit hark dakiela zazpi espensa behinzat badirala, eta Markosen semeak azkeneko yorradan egiñ bazuen, gañera zorzigarrena. / Mintegizarretik Otsamintegira ta Zaldirindik suertearen beko muturre-ra yorrada bana itxola.*
- yosi, josi du** ad. Lotu, batu. *Errotaberriari guk ustaiak egiñ ez, ta etorri da, kupela yosten ari dirala, eta berorrek ezpadu emateko gaztigitzen ere, dirua emanen didala, eta haizarka zarraren ustaiak eraman ditu. / Orgaren gaia ta josteko herreroarenzat hartu du burnia: 7 arrobas y 14 libras.*
- zabal** adj. *Erruedaren potoak txotxa hori adiña luze eta txotxaren koska horretaraño zabal. // iz. 1. Zabalera. Patxiku Munoakoak eskatzen ditu hiru kupel ustai. Neurria hor bealdu dut, zabala ta lodia ol puska hori bezala, ta luzea haria luze den adiña. / 2. (Burdinolan egindako) txabala (ustez). Errekusak ta guziak dira 89 quintales; zabal hoietatik kintal bat edo bi gaistoak dira hagitz. Akabatu dira tretxuak, ta erremienta aldatzera goaz. / 60 kintal behar diran zabal honetatik falta dira orañik 15 quintales. / Ikus txabal sarrera.*
- zabar** adj. *Berai ezin emanen zaie; dirua duteño zabarrak izanen dira. / Tabernara ezkerro zabarra omen da Bonbon hau behinzat.*
- zagi** iz. *Zahagia. Zagiko ardoaz gañera, tabernatik 10 azumbres y 1 chiquito a 24 cuartos. / Zagiren bat ardo bealdu nahi badu... Sagardoak orañ badira, baño Manuel Juakiñek ez du asmorik sagardorako.*
- zakar** adj. *Besteak gaistotzat botetan bilduak ote diran nago. Guzia txea eta lur kolorea zuen meak, eta orañ euriak garbituta agertu zaio metal belz zakar hau. / Eta borda kapazagoa billatu edo aldatu ditezkean artea, emanen tiotala goian leku libre traste zakar abarrak idukitzeko.*
- zaku** iz. *22 karga ta zaku bat lepalotua importan...56 pezetas. / Orañ ekarri dituen ikatzak: 22 karga ta zaku bat lepalotua. / Orañ ikatzak egin ditu 22 karga ta zaku bat lepalotua.*
- zalanzan gelditu da** ad. (genitiboarekin). *Martin berozalleak esan dit ea beti etxean egon behar duen, Errenteriara eta Ereñazura juan gabe gelditu dela berorren zalanzan.*
- zaldale** iz. *Abereei ematen zaien bazka lehorra. Behiñ noski «lau urretxiki» esan du, ta ea lan egiñ guzia zaldaletan yaten zuten bada. / Martintxuriko Josek edo haren mutillak zaldaletako...20 pezetas.*

<sup>50</sup> Goizuetan hola esaten da egun.

- zaldi** iz. *Mandoaren jabeari eman zioten zaldia atzera ekarri beharko dutela, lengo zaldi txiki hura, ta 58 ezkutu pagatzeko hartu omen zuten, ta atzera trukatu egiñ beharko dituztela. Ta mutikoak baditu hiru, ta handisko-narekin zaldia erabilli beharko duela iñoiz ikatzketan.*
- zaletu** da ad. *Jendea zaletua dago harzeko, ta geroago ta ederrago ez da izanen pagatzekoak idukitzea.*
- zall** adj. *Gogorra. Hangoa nahiago luke, zallago izanen dela esan diotela-ta.*
- zama** iz. *Arbazta igarra egurzaleai erakarri diotet zama kontuan. / Zamak adaki bat badu erdian, edeki egiten zioten mandazaiak; luma bat pisatzen ez egurrak, ta halere.*
- zamar** iz. *Zubiaurrek (1960: 109) Caro Barojaren zamarra biltzen du eta agoa-rekin identifikatzen; A. M. Mitxelenak (2020a: 6) berdin egiten du («...agoa edo zamarra deitzen zioten, 100 bat kiloko burdin masa zakar bat»). Gutunetan behin baizik ez da ageri ele hau: *Jornalak aste bat ta lau egun ta erdi ditu bakoitzak, ta hoietako egun bat ingudeari zamar bi emanta paratzen pasatu zuten.**
- zapla eman du** ad. *Geruza eman, tresnaren batekin kolpatuz (ustez). Herriaren kabi txiki hau ere ustaiaren gañetik partitua zegoen, ta honi zapla batzuek ematen tiogu entregako denboran.*
- zar** adj./iz. 1. *Zaharra. Berotzalle zar honek ta bere semeak bien artean dute harzekoa [...]. / Buruzuri zarrari itxola erosi genion ta pagatu diot...04...00. / Eskaleraren aldeak egiñ daitezke deskargan dagoen olatxoko goiara zar honekin. / Gobiernoko zarrak esan didate karga ikatza 13 real egiñ dutela. / Haizarka zarraren ustaiak eramán ditu. / Iskalu zarrak ditu olatxoan arituak egun bat gutxi...10 semanas. / Orañik dozena baña (sic) urte dute zarrenak, bixkiak dira. / Zorzi onza, lau zarrak eta lau berriak, eta 17 pezeta. / 2. *Zakarra (ustez). Ola handiak datorren astearen erdiko lanak akatuko ditu, ikatzak eta meak, guziak, eta olatxoan tretxu puxka bat geldituko da, ta honen diña ikatz sortuko al da noski baso zar hoietatik! / Tomas zar hau azkeneko txartelarekin izandu zen, hor 28 kintal baitzen, ta haiek dira mea nasiak. / Ikus urretxiki zar sarrera.**
- zare** iz. *Saskia. Ikus mea zare sarrera.*
- zazpi** zenbtz. *Espensa honetarako berorrek lau pezeta ta zazpi ta hogeita bi kuarto, 11 pezetak y 22 cuartos, pagatuak ditu. / Gaur ta bigar lorrean badabilza zazpi itzai, hamalauren kontua berenak nahiko dituzte horiek. / Hoiinak utzita beste zazpi ezkutu lodiak beal bitza. / Zazpi mea zare olarako.*
- zazpiña** banatz. *Egun kargatu dira bi itzai zazpiña kintalekin.*
- zehirretik** adb. *Gurutze Santu arratsean ere ongi ebilli zen hagitz! Zehirretik yo gabeak erdiak, ta beste batzuek pasatu badere egin ziran.*
- zena** adj. *Difuntua. Franzisko de Irigoien zenaren semearen lanak inportatzen dute 534 reales y 9 maravedís. / Geroztik, marzo de 98, han pasatu zituen*

- 1½ semana, *Juan Franzisko zena juanta, haren lekuan gero aprendizaz sartu baitzen. / Joseph zenaren kasoz paperen eske berorren kartarekin...02...00. / Labianoren diruak ziran... babak hoge pezeta, eta Txotxa zenaren semeari hogeita bost eman...45 pezetas. / Txotxa zenaren seme gaztiari olatxoan irabazia 5 pezetas.*
- zenbait, zeñbait** zenbtz. *Hoietarako 150 urretxikitatik gelditu zen sobra 35 pezeta ta zenbait kuarto. / Kosme de Lekuna mutill horrenzat lenbizian bealduak badira zeñbait karga, ta bien artean dute.*
- zenbat** zenbtz. *Atzo gelditu omen zen suertea esamiñan, nola zegoen edo zenbat esamina duen ikasi eta bigar edo etzi agertuko zela. / Errenta zenbat egiñen duen edo egiñ dezakean. / Itxekoandreak gaztigatu du urdaia zenbatean den ikasteko. / Karga zenbat galbairekin egiten den neurriko dugu astelenean. / Mandazaiei nori zenbat kargatu hor konpondu beharko dute. / Olatxoan tiratzea zenbat pagarazi gaztigatuko du. / Sanjuanek hor esan du noski gure suertean zenbat kargaren entresaka egin duten.*
- zeñ** izord. *Alkateagana juanen bagera jakiñ behar dugu zeñekin kontuak egiñ zituen, eta hoge ezkutukoa ere zeñi eman zion edo zerbait. / Sagardo hoiek espensan zeñenzat zenbat bealduko dut txartel bat. / Zeñ heldu den kontua egitera ta nahiz bealzen zaiotela berai kontua, berak konponduko omen dira.*
- zepo** iz. *Burdinolako pezak dira zepoak, gabi igunari eusten dioten zutoinak hain zuzen, lurrean sartuak daudenak. Zubiaurrek (1960: 110) Mogelen Peru Abarka-tik jasotako zepu dakar, eta autore beraren zutoi-rekin identifikatzen du. Ikus A. M. Mitxelenak (2020b: 37-38) dakartzan marrazkiak, zepo zer den hobeki ulertzeko, eta lan bereko 296-297. orrialdeetan ematen dituen azalpenak. JRMren lekukotasunak: Arotzak badituzte jornalak olan tormentategia konponzen... 4 días; zepoak maneatuta sarzen... 10 días. / Aste erdia pasatuko da gutxienaz olatxoa perparatu orduko: zepoa atera ta sartu, ta ardia sartu, ta tormentategia konpondu. / Haizarka konponzen, errueda konponzen, gurutzeak sarzen ta zepoa estutzen, ta orañoak gañera, horra zor dena guzia. / Patxikuri esan nion bada zepoa atera edo hautsia zagoela [...] ta arotzak gaur mendian dira, ta bigar zepoa atera behar dute. / Zepoak atzo sartu zituzten.*
- zopotillu** iz. *Burdinolako peza. A. M. Mitxelenak (2020b: 297) ‘lurrean erdia sartuta egurrezko zumbil (‘enbor’) batzuk’ adiera ematen dio. IBk ola handiko zopotillu nagusia aipatzen du eskutitz batean. Zubiaurrek (1960:110) Mogelen zepotilluba jasotzen du, eta ‘postes en que se apoya la rueda mayor’ dela esaten. Gutunotan aldi bakar batez agertu zaigu: Zepoa atera edo hautsi egiñ da; ispia hautsi izatekotan hurrengo hasi orduko billatu beharko dugu. Kabitegia kendu dugu ta katuak ere bai, ta maisuak dio endal harri bat sartu behar dela, harria billatuta, ta zepotillu bat ere bai.*

- zer.** *Berantetsia nangoan zer egin behar ote zuten. / Hamaiketakoa ez dakit zer egiñen duten. / Isasolakoak zer plazeria eman duten Baltasarrengandik yakiñen dut Ama Birjinaz. / Joseph Antoniok esan dit Irungo burniak behar dituen bigar agertuko dela Oiarzuna, ta yakiñen duela zer modu den. / ...laster kausara atera nahi lukeala, eta yakiñen duela zer indar edo moduak ekarri dituzten. / Len zer egiñ zuten ere, eziñ kontura dira hoiek. Ta galdatu diot zer daritzan, esamiña hoietaz zer daritzan, ta esan dit honi daritzana dela... / Ta esan genion zertara juan giñan. / Zertan gelditzen den beste puxka txiki bat ere bada salzekoa.*
- zerbait.** *Ametitzen balute beti izaten dela zerbait, ta modu hoietan ongi litza-keala, Indianoak hartuko lukealako. / Antonio de Telletxeak esan zuen zerbait hutsegiña izandu zutela kontuetan. / Bean ere itxi puxka bat beharko da, edari puxka bat egiteko kupela, edo barrika, edo zerbait idu-kitzeko. / Burnia hoietatik zerbait añadituko zuela mearik etzen denbo-  
ran. / Fagotxikira ekarri nahi baditu, zerbait gehiago beharko du. / Itzai San Juanera mea dakarten hoiek iratzeak ebakitzeko zerbait bealzeko. / Olaberriko burni hoietan zerbait añaditzeko, hitzean eramanak dira, zergatik honozeko mearik etzen.*
- zeren...(-en)** menderag. *Gehiago añaditzeko kondiziokoa edo agindua, zeren mearik etzen...6 quintales.*
- zergatik...(-en)** menderag. *Añadimentua 21 kintalena, zergatik bueltan mearik etzen. / Hirugarren ikaztopia yasotzen ari dire, ta Artikuzakotik bate-  
re ez, zergatik gureak era hobean diran yasotzeko. / Hoiien botatze-saria eta berdintzea tokatzen zaio Kaperori, zergatik ordañarik ez dugu ekarri. / Hoiinak utzita beste zazpi ezkutu lodiak beal bitza, zergatik arrotzak diran besteak. / Lagun batzuen txartela, batek edo bik hartu beren buruan ta guziak horrara eziñ ebilliko direla, zergatik batzuek gutxi dute, ta gutxigatik ebillzeko biaje luzea-ta.*
- zerratu** du ad. *Alde olen gaia egiñ genuen zerratzeko asmoan, ta ekarri dugu orañ; geroko hemen izanen da. / Semea orduko pizkortuko da, ta bitartea pago bat edo bi ekarriko ditugu zerratzeko.*
- zerrenda** iz. *Multzo zakarra (G). Haspagilleak esan du adobatzeko zulorik izaten deneko gelditzen badut ere, txikienak gelditzeko zerrenda puxka hoietatik, joskurak ateratzeko Elamarako luzenak behar dirala.*
- zertaraño baitere.** *Hainbestearino. Arranbideko txabaletatik, gu pisatzen izandu ezkerro, allegatu dira zertaraño baitere Erreterian, eta guk ere hangoak pisatu genituen 200 barra.*
- ziento** zenbtz./iz. *Aldakoko nagusiarena ekarri dugu lata 180 beso, zientoa 4½ pesos. / Lata hartu dugu 377 beso, zientoa 4½ pesos.<sup>51</sup> / Egun*

<sup>51</sup> Ikus, zernahi gisaz, 1800.11 eta Datagabea.1 gutunetan honetaz dioguna.

- Goizueta aldean barazkiak *zientoka* erosten dira: *ziento bat porru, ziento bat letxuga landare* eta abar.
- zigillu** iz. Sutegiaren zolako burdinazko peza zabal-lodia (ikus A. M. Mitxelenak 2020b: 58n dakarren marrazkia eta lan bereko 298. orrialdean ematen duen definizioa). *Haspoak sarzera etorrialdi batean, zigillua garbitzen ta ardatza jasotzen, ta horrela.* / Jose de Bengoetxeak *zigillua sartu ta sutegi konponzen...1 día.*
- zillar** iz. Larramendik (1882: 72) honela dio: «...*despues de haber evacuado la fragua de la cillarra, ó cidarra, escoria derretida y ardiente, que sale por un agujero inferior, que tiene la fragua*». A. M. Mitxelenak ere (2020b: 298) *zillarra* burdinoletan ‘sutegi handiko sarra edo hondakinen brasa urtua’ dela dio, baina gutunotan agertzen zaiguna metala da, ohiko zilarra alegia: En 27 de abril *rezibitu nituen bost onza urre, ta 5 de mayo hamar onza urre zillarretan.* Ikus *dukat zillar* eta *erreal zillar* sarrerak.
